Nafarroako euskalkiak

Erronkariera

Hiztegia

Aitor Arana

Aurkibidea

Hitzaurrea...
Ikurrak eta laburdurak...
Erronkariera - Euskara batua hiztegia...
Euskara batua - Erronkariera hiztegia...

Hitzaurrea

1. Erronkaribar

Erronkaribar Nafarroa Garaiko ipar-ekialdean dago, Zangozako merindadean eta Pirineoak eskualdean. Iruñea hiriburutik 87 km-ra dago, 584 eta 2446 metro arteko altuera du eta 411,94 km2ko azalera. 2021. urtean 1266 biztanle zituen. Ibarrean zazpi udalerri daude: Bidankoze, Burgi, Erronkari, Garde, Izaba, Urzainki eta Uztarroze. Ezka ibaiak iparretik hegora zeharkatzen du. Abeltzaintza (behiak, ardiak), basogintza (pinuak, pagoak, haritzak) eta industria txikia (esnekiak, zurgintza) dira lan jarduera nagusiak.

Bidankoze Prudencio Hualde eta Mariano Mendigatxa bidankoztarren jaioterria da. Lehenak San Mateoren ebanjelioa herriko euskarara itzuli zuen eta bigarrenak Campionentzat *Orreaga* euskaratu, eta hizkuntz eta antropologia balio handiko gutunak idatzi zizkion bere euskalkian Azkueri, 1902 eta 1916 bitartean.

Burgin Erronkariko trikuharri multzoaren zati bat dago. Erdi Aroko zubia ere badago, Ezka ibaian.

Erronkari herria ibarreko hiriburua da. Bertako trikuharriak, Gazteluko Andre Mariaren ermita, San Sebastian eliza erromanikoa eta Doneztebe eliza gotiko-errenazentista, Julian Gaiarreren mausoleoa eta XVIII. mendeko Sanz Orrioren gaztelua aintzat hartzekoak dira.

Garden aipagarriak dira Santiago elizako erretaula nagusia eta Zuberoako amaren ermita.

Izaba herri ezaguna da mendiko turismoaren inguruan garatutako zerbitzuak direla eta.

Urzainki herriak 1375az geroztik «Hiru behien zerga» delako zerga berezia jasotzen du.

Uztarrozek turismoa izaten du eta Urzainkiko zerga berezi bera jasotzen du. Fidela Bernat uztarroztarra izan zen erronkarieraren azken hiztuna.

2. Erronkaribarko euskararen egoera historian zehar

L. L. Bonaparte printzearen 1863ko euskalkien sailkapenari jarraituz, erronkariera zubereraren baitakoa zen eta bere mapa ezagunean bi euskalkiok kolore marroi berarekin margotu zituen. XX. mendean R. M. Azkue euskaltzainak erronkariera euskalki burujabetzat jotzen zuen, eta halakotzak hartu da mende osoan, Koldo Zuazo euskalkilariak zaraitzuerarekin elkartu eta «ekialdeko nafarra» izen bitxia jarri arte, nahiz eta 'betiko' *erronkariera* izena ez den baztertu. Azken urteotan, Wikipedian esaterako, «erronkaribarrera» izen zaila irakurtzen ohitu behar izan dugu. Guk lan honetan *erronkariera* izen jatorra lehenetsi dugu.

1722an, Pedro de Esparza bikariogaiak adierazi zuenez, Bidankoze herrian

euskaraz soilik egiten zen, emakumeek eta umeek bereziki (Jimeno Jurio 2004). 1838an, Garden Aragoiko apaiz baten hautagaitza atzera bota zuen udalak, hark ez zekielako euskaraz (B. Estornes 1997). Bonaparte printze euskaltzaleak 1863an kolore argiz adierazi zuen bere mapan Burgi nabarmen erdaldunduta zegoela eta gainerako herrietan, kolore ilunagoz, euskalkia bizi-bizi zegoela. Ondoren, 1904an Iruñeko Artzapezpikuaren eliz gidak zedarritu zuen euskararen mugan, Garde eta Burgi muga horretatik kanpo ageri dira (Apat-Echebarne 1974). 1935ean, berriz, muga iparrerago jarri beharra zegoen, Bidankoze, Erronkari eta Urzainki ere kanpoan ezarriz (Apat-Echebarne 1974). 1973an Izaba eta Uztarroze jada herri erabat erdaldunak ziren, haietan hiztun batzuk bazeuden ere. Azkenik, Izabako Ubaldo Hualde jauna, erronkarieraz mintzatzen eta idazten zekiena, 1967an hil zen, eta arestian aipatu dugun Fidela Bernat andrea 1991n zendu zen, Uztarrozen.

Erronkaribarko aldaera hilik dago, beraz. Ez du horrek, ordea, gaur egun ibarrean euskaldunik ez dagoenik esan nahi. Denboran atzera eginez, II. Errepublika garaian (1931-1936) Erronkariko Uskaltzaleak taldeak euskarazko klaseak emateko tokia eskatu zion Erronkaribarko Batzorde Nagusiari. Frankismo garaian Amadeo Marco nabaskoztarrak dirulaguntzak eman zituen Erronkariko euskara sustatzeko eta ikasteko. Estornes Lasa anaien lanak ere, zalantzarik gabe, erreferentzialak izan dira ibarreko euskararen ezagutzan.

1995eko irailean, zenbait familiaren ekimenari esker, D ereduko lehen gela zabaldu zen. 1996an Kebenko uskararen aldeko elkartea sortu zen, eta haren egitekoen artean euskara aldarrikatzea, sustatzea eta mintzatzea daude. 1998an Erronkaribarko euskara zerbitzua martxan jarri zen, eta Batzorde Nagusiaren funtzionamendua arautzeko euskararen ordenantzak 2005eko maiatzaren 27an argitaratu ziren Nafarroako Boletin Ofizialean. Urte horietan, era berean, AEKko euskaltegia euskalduntze lanean aritu zen. Bide beretik, azken urteotan Erronkaribarko euskarari buruzko zenbait lan interesgarri argitaratu dira, ibarreko oikonimia, toponimia, eleak eta antroponimia landuz (Lopez-Mugartza 2008; Josune Aznarez 2018, 2020). Horrez gain, 2021eko apirilean *Bortuetako euskalkiak* lehen topaketa egin zen Ariben, Artzibar, Erroibar, Orotz-Betelu, Auritz, Luzaide, Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkaribarko euskalkien egoera aztertu eta haien indarberritzea bultzatzeko. Beharbada, horren fruitu goiztiarra dugu Josune Aznarezen *Oinarrizko Hiztegia* (2022), aezkera, zaraitzuera eta erronkarierazko hainbat hitz hiztegi konparatuan ematen dituena, modu errazean ikasi ahal izateko.

2021eko NASTATen datuen arabera, Erronkaribarren euskara ongi dakiten biztanleak % 21,6 dira; Bidankoze, Burgi, eta Izaba herrietan datua % 26tik goiti dago. Bestetik, Soziolinguistika klusterraren 2021eko *Hizkuntzaren erabileraren kale neurketa* lanaren arabera, urte horretan Pirineo eskualdeko karriketako elkarrizketen % 4,3 euskaraz izan ziren. Erronkaribarko eskolan euskarazko D eredua da gehien hautatzen

dena (% 67,3 2022an) eta 2018tik 2023ra Haur Hezkuntzako lau umetatik hiru euskaraz aurrematrikulatu dira.

3. Erronkaribarko euskararen ezaugarri batzuk

Gure ibarreko euskarazko lekukotasun idatzi anitz geratu zaizkigu: toponimiaz eta ibarreko gaztelanian geratutako azken euskal hitzez gain, euskalkia bizirik zegoenean erronkariarrek eurek (Hualdek, Mendigatxak) eginiko lanari esker eta ondoren ibarreko (Estornes anaiek) eta ibarretik kanpoko euskaltzaleek (Bonaparte, Azkue, Mitxelena, Izagirre, Artola etabarrek) azken hiztunekin eginiko ikerketei esker, erronkariera oso ongi dokumentaturik dagoen euskalkia da.

Daukagun materialak, beraz, Erronkaribarko euskara ongi aztertzeko aukera ematen du. Gure ibarra Nafarroa Garaiko ipar-ekialdean dagoenez, kokapen horrek, bestelako informaziorik gabe, aurkituko dugunaren berri ematen digu: Pirineo aldeko hizkera bat aurkituko dugu, hiztegiz nafarra eta zuberotarra dena, hau da, euskara batutik aski urrundua. Hala ere, Euskal Herriaren beste muturreko bizkaiera bera gogoraraziko diguten hitzak ere aurkitu ahal izango ditugu, hala nola, *bardin, berton, emon* (eman), *jazo* (gertatu) edo *(ni) naz* adizkia.

Erronkarieraren ezaugarriak aipatzean, zilegi da beti esaten dena errepikatzea, alegia, erakusleek *k-* protetikoa dutela —*kau(r)* (hau), *kuek* (hauek), *kuer* (hauei), *kueki* (hauekin) etabar— batetik, eta hiztegia oro har hitz sinkopatuz beterik dagoela —*aingra* (aingira), *aingru* (aingerua), *bedratzu & medratxu* (bederatzi), *ganbra & granba* (ganbara = gela), *korietra* (horietara), *obro* (haboro, gehiago) *zu zra* (zu zara) etabar— bestetik.

Horrek ez du esan nahi, ordea, bi ezaugarriok sistematikoak direnik (nagusiak badira ere) honelako bikoteak ugariak baitira: *kurak & urak* (haiek), *ker & er* (haiei), *keki & eki* (haiekin), *ketra & etra* (haietara), *kainbertze & ainbeste* (hainbeste), edo erakusleak alde batera utzirik, *aingru & ainguru* (aingerua), *ganbra & ganbara* (gela), *obro & oboro* (gehiago) etabar.

Sinkopez ari garela, euskara batuko -tuta edo -turik aditz atzizkia erronkarieraz *-truk* da, denboran zehar *-turik* > *-turuk* > *-truk* bilakaera eginez sortua. Hori erronkarieraren ezaugarri peto-petotzat jo ohi da. Baina, Koldo Artola jaunak azken-azken hiztunekin eginiko lanari esker badakigu, eboluzio horrek erronkariera mintzatuan aurrera jarraitu zuela eta azkenerako *-tu(k)* forma eman zuela. Pentsa liteke, beraz, erronkariera gaur egun euskalki bizia balitz, hiztunek ezaugarri hori *-truk* ez, baizik eta *-tuk* erranen luketela. Zaraitzun, aldiz, *-trik* aldaera zaraitzuarra azken hiztunen ahotan ere entzuten zen [adibidez, *frixitrik* (frijiturik) dugu belarrietan bizi-bizi Espartzako Antonia Gartzia zenari entzunik]. Baina Zaraitzuko *(zu) zra* adizkia jadanik *(zu) za* esaten hasita zegoen *zra*-rekin txandaka, *zira* > *zra* > *za* bilakaera eginik.

Bestetik, erronkariera lehen aldiz ikusten duenari bitxiak iruditzen zaizkio *ñore* (neure), *zore* (zure) eta *gore* (gure) edutezko izenordainak edo *moite izan* (maite izan) bezalako aditzak.

Hitz egitura ez da beti euskara batuan bezalakoa: (batua) giltzarria > (erron.) *arrigiltza*, (batua) erdi haurridea > (erron.) *aurriderdi*, baina (batua) erdi itsu > (erron.) *erditsu*.

Era berean, «lagun faltsu» anitz duen euskalkia da, hau da, euskara batuan esanahi bat eta erronkarieraz beste bat duten hitz ugari daude, itxuraz batuan bezalakoak izan arren. Ikus ditzagun adibide batzuk, lehenik erronkarierazko adibidea jarriz eta, ondoren, euskara batuko ordaina:

bakar = bakanka, gutxitan, *edeki* = kendu, *elbide* = baliabidea, *iradoki* = zirikatu, *izenburu* = deitura, *kexakor* = bihurria, *korrokada* = haustura, *tresna* = ezkon-oparia, *txiki* = gutxi, *ziztaka* = ukabilka etabar.

Hitz hasieran *j*, *x* edo *y* aukera izaten duten ohiko hitzetan, *x* nagusitzen dela ikus daiteke, baina *j* eta are *y* ere ez zaizkio arrotzak erronkarierari: ixarekin *xan, xakin, xarri* (eseri), *xatsi & xatxi & xaûtxi* (jaitsi), *xauzi & xauztu* (jauzi egin), *xei* (jaia), *xin* (etorri), *xito* (ijitoa), *xoan & xuan* (joan), *xoku* (jokoa), *xorratu* (jorratu), *xosi* (josi), *xunto* (elkarrekin) etabar; jotarekin *janari, jangu* (jantokia), *jangeiko & jangoiko, jardoki* (jardun, hitz egin), *jein & jin* (jauna), *jesus* (unea; alfabetoa), *jin* (etorri), *joan & juan* etabar; eta y grekoarekin *yarraki* (jarraitu), *yauregi, yiketz* (hika), *yosgu* (jostundegia) etabar. Hiru kontsonanteok edo hiruretako bi hitz berean txandaka ikustea ere ez da ezohikoa.

A eta *e* bokal protetikoei dagokienez, *a-* eta *e*-dun adibideak ugariak dira, antzinakoak eta modernoak nahasten direla: *arrastelu* (eskuarea), *arraza, arrazoi, arropa, arrosario, erreka, errota, errespetatu, erremedio, erramienta, errepetitu* (errepikatu) *erreskatatu, erretrato* etabar.

Baina erronkariar euskaldunek —gaur egungo euskaldun gehien-gehienek bezala— inolako arazorik ez zeukaten r-z hasten diren hitzak ahoskatzeko: *rafe* (teilatu-hegala), *rape* (errapea), *relijione* (erlijioa), *rezi* (erretxin gaia) etabar.

Erronkarieraren beste ezaugarri deigarri bat bokal sudurkariak ziren. XX. mendean bokal horiek desagertuz joan ziren, baina aurreko mendeetako testu idatzietan ^ azentu zirkunflexuaz, ñ-z edota n-z irudikaturik ikus daitezke. Estornesek * izartxoaz ere eman zituen bokalok, n gainean jarririk. Horrek erronkarieraren dokumentazioan halako nahasmena sortu du, eta zenbaitetan ez dago garbi jakiterik hitz batzuek berezko n-a garatu ote zuten ala sudurkaritzearen idazkera ote den. Horrela *eskoîn & eskoî* (eskuina) daukagu, edo *sû* eta *suñ* (suhia) hitz bera bi eratan idatzirik izan litezke (edo ez), edo

xaîtu eta *xaintu* berdin, azkenean *xaitu & xaintu* aldaerak garatu zituztela diruditenak. Beharbada, kasu gehienetan, biak erabiliko ziren: sudurkarituak eta n-dun sudurkaritu gabeak alegia.

Dena den, bokal sudurkariak euskalkiaren ibilbidean berez desagertu zirenez, ez zaigu iruditzen haiekin bueltaka nekatzen ibili beharrik dagoenik.

Arestian aipatu bezala, erronkariera ongi dokumentaturiko euskalkia denez, hiztegian hitzez gain esamolde(txo)ak ere aurkitu ahal izango ditugu:

Aita-karatsa = seme aitak arbuiatua.
Aize otzaren berokia emon = ezer ez eman.
Andi-andirik xoan = besterik gabe joan.
Anitx esnetako gazta = saltsa guztietako perrexila.
Berenez bere & berez bere = burujabea.
Burua bi bearrien artean izari = norbait zuzendu.

Oker ez bagaude, euskara batuko *aizto* hitza aspaldi erronkarieratik hartu zen eta batuan orokortu zen, *ulertu* aditza Bizkaitik atera eta Euskal Herri osoan orokortu omen zen bezala. Berdin egin liteke erronkarierazko beste hitz hauekin ere: *agorxali* (bitsadera), *beltzuntze* (serioa), *hoxkatu* (eguraldia freskatu), *hoxko* (eguraldi freskoa) etabar.

Atal hau amaitzeko aipa ditzagun dokumentazioan agertu diren zenbait goitizen, Erronkaribarko herritarrek ondoko herrietakoak edo alboko Zaraitzu ibarrekoak umorez izendatzeko erabiltzen zituztenak:

xoitziez (uztarroztarrek izabarrei esana)
erraiak (uztarroztarrek gardarrei)
larrapoak (bidankoztarrak)
odol zuriak (kallesek zaraitzuarrei)
piltzoak (kallesek zaraitzuarrei)

4. Hiztegia egiteko erabakiak. Grafia eguneratua

Erronkaribarko euskarazko testu anitz eta toponimia erdal grafiaz idatzita heldu zaizkigu. Horiek hiztegi honetara ekartzeko, haien grafia eguneratu dugu, horretarako honela jokatuz: c (a, o, u) > k, c (e, i) > z, qu > k, ch > tx, gu (e, i) > g (e, i), g (e, i) > j (e, i), mb > nb eta mp > np.

4. 1. Parentesien erabilera

Bilduma honetako gainerako hiztegietan bezala, bitariko parentesiak erabili dira hemen: ( ) eta [ ]. Ohiko parentesien artean ematen dena — ( ) artean, alegia— ondoko hauxe da. Hitz bakoitzaren iturriak: *(2, 4, 5, 8)*. Hitzak zein gaitakoak diren: *(anat.), (nek.)*. Eta euskalkiko hitz bakoitzari euskara batuan emandako ordainean ongi datozkeen argibideak: **abar** *(3, 4, 6)* : abar (adartxoa). Sarreretan, hitza osatu beharra izan denean: *bulk(ada)* bultzada, *kukut(atu)* ezkutaketan ibili.

Adibideetan *claudator* delako parentesia ageri denean — [ ], alegia—, testuetako zerbait ukitu edo ustez zuzendu egin dugula esan nahi du: *ezp[e]ldoia, auntzate[a]*, etabar.

4. 2. Hiztegi honen erabilera

Erabilera errazeko hiztegia da hau. Bi kontsulta modu ditu:

1) Lehen aldeko hitzak edo sarrerak Erronkaribarko euskaraz daude, beren ordaina euskara batuan dutela. Aurkitu direnean, adibideak jarri zaizkie hitzei.

2) Zerbait Erronkaribarko euskaraz nola esaten den jakiteko, berriz, hiztegiaren bigarren zatira joko dugu, hor euskara batuaren bidez kontsulta baitaiteke. Zati horretan hitza eta euskalkiko haren ordaina besterik ez dugu aurkituko, gaia (*anat., nek., zoo.*) ondoan ageri dela, jarrita dagoenean. Informazio osatuena eskuratu ahal izateko, komenigarria da kontsulta beti lehen aldean bukatzea, hitzen adibideak lehen zatian ageri direlako.

Bestalde, hiztegiko oharretan (OH.), adibidez, «Ikus Nafarroako Gobernua 161» irakurtzen badugu, horrek esan nahi du 5. puntuko bibliografiako Gobernuaren toponimia bildumako ale horretako orrialde horretan (161.ean, alegia) informazio gehiago aurkituko dugula kontsultagai dugun sarreraz.

5. Hiztegiaren iturrien bibliografia

Jarraian, hiztegia egiteko erabili diren testuen berri emango dugu. Ikus daitekeen bezala, 11 dira. Denera 10884 hitz edo sarrera bideratu dizkigute iturriok.

1) NAFARROAKO GOBERNUA eta Juan Karlos LOPEZ-MUGARTZA

—1993, *Nafarroako toponimia eta Mapagintza XIV / Toponimia y cartografía de Navarra XIV. Erronkari ibarra*, Iruñea.

Juan Karlos LOPEZ-MUGARTZA

—2008, *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Iruñea

Oharra: Lopez-Mugartza jaunaren adibideetan *(1lm)* jarri dugu.

Iturri honek 342 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 173 berak bakarrik dakartza.

2) Louis Lucien BONAPARTE

—1958, *Un vocabulario aezcoano, salacenco y roncalés preparado por el Príncipe Bonaparte*, BRSVAP XIV, 335-364

—1997, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariera*, Deustu

—1997, Erronkariko dotrina, Non: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariera*, Deustu

Iturri honek 1137 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 315 berak bakarrik dakartza.

3) Prudencio HUALDE MAYO

—1982, *Jesukristo gore Jeinaren Ebanjelio Saintiua*, FLV 39, XXV, 43-105. or.

—1997, Bidankozeko dotrina, Non: *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariera*,

Deustu

Iturri honek 1620 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 552 berak bakarrik dakartza.

4) Mariano MENDIGATXA ORNAT

—1869, *Berrogeitamargarnen Salmua*, Non: 1991, *Opera Omnia Vasconice III*, 425-429. or., Euskaltzaindia, Bilbo

—1872, Mendigatxaren perpausak, Non: *Etudes sur les trois dialectes d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal*.

—1880, *Orreaga* Bidankozeko euskaraz (Campionen *Orreaga* liburuko bertsioa eta Estornesen *Erronkariko uskara* ikasliburuko bertsioa alderaturik.)

— 1984, *Mendigatxak Azkueri kartak 1902-1916*, FLV 43, 55-127. or., Iruñea

—Ipuinak:

- *Zorria eta kikosoa*, Non: *Mendigatxak Azkueri kartak*, 59-60. or.
- *Arzatzak eta otsoa*, Non: *Mendigatxak Azkueri kartak*, 64. or.
- *Artzaina eta otsaila*, Non: *Eusko Yakintza II*, 380. or.
- *Txitxetera ta iñurria*, Non: *Eusko Yakintza II*, 466. or.

Iturri honek 1636 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 536 berak bakarrik dakartza.

5) R. M. AZKUE ABERASTURI

—1931, *Particularidades del dialecto roncalés*, Non: *Euskera II-III-IV*, 207- 246. or.

—1905 [1969], *Diccionaria Vasco-Español-Francés* (Erronkaribarko hitzak eta esaldiak), Bilbo

Iturri honek 7157 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 5444 berak bakarrik dakartza.

6) Damaso INTZA

— 1925 [1984], *Erizkizundi Irukoitza*, (Urzainkiko eta Uztarrozeko hitzak), Euskaltzaindia, Bilbo

Iturri honek 308 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 79 berak bakarrik dakartza.

7) Jose ESTORNES LASA

—1968, *Erronkariko uskara*, Auñamendi, Donostia

—1982, Erronkariko uskaraz elestak, FLV 40. zbk., 461-484. or.

Iturri honek 1159 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 282 berak bakarrik dakartza.

8) Koldo MITXELENA ELISSALT eta beste

—*Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*, BRSVAP IX, 236-499. or.

Iturri honek 742 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 124 berak bakarrik dakartza.

9) Kandido IZAGIRRE SALABERRIA

—1959, *Erronkariko euskal ondakin batzuk*, BRSVAP XV, 279-314. or.
—1961, *Erronkariko euskal ondakin batzuk*, BRSVAP XVII, 391-407. or.

Iturri honek 1221 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 292 berak bakarrik dakartza.

10) Koldo ARTOLA KORTAJARENA
—1977, Erronkariko uskararen azken hatsak eino're, FLV 25, 75-107. or.
—1980, Erronkariko uskararen azken hatsak oraino're, FLV 34, 49-84. or.
—1983, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa EAEL I* (Erronkaribarko hitzak eta esaldiak), Aranzadi, Donostia
—1983, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa EAEL II* (Erronkaribarko hitzak eta esaldiak), Aranzadi, Donostia
—1991, *Fidela Bernat anderea, euskal hiztun erronkariarra*, FLV 58, 242-280. or.
—2014, *Ziorditik Uztarrozeraino Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an I, II eta III*, Aranzadi, Donostia

Iturri honek 1223 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 293 berak bakarrik dakartza.

11) Josune, AZNAREZ ALKAT
—2018, *Erronkaribarko etxe-izen euskaldunak*, CEEN 92. zbk., Separata, Iruñea
—2020, *Uskararen eleak. Euskararen biziraupena erronkariarren eguneroko hizkeran*, Pamiela, Iruñea

Iturri honek 517 hitzen lekukotasuna eman du. Horietatik 245 berak bakarrik dakartza.

6. Toponimia, arlo irristakorra

Bosgarren puntuan argi ikusten denez, Erronkaribarko hiztegian toponimiak garrantzi handia du. Nafarroa Garaiko hiztegiak egin ditugunean adierazi izan dugu toponimia ez dela, beharbada, iturririk egokiena hiztegigintzarako, zalantzazko leku izenak ez direlako gutxi izaten; haietako asko esanahi ilunekoak izaten dira, ulergaitzak. Arlo horretan lanean dabiltzan egileen artean, gainera, kontraesanak ikusi ditugu zenbaitetan.

Toponimia gabe, ordea, hiztegi hau ez zen osorik egongo. Interpretazio zailekoak iruditu zaizkigun leku izenak EZ ditugu erabili, eta gardenak iruditu zaizkigunei utzi diegu lekua, adituek —edo adituren batek— esanahia argitu dietenekin batera. Beharrezko iritzi diogunean, informazio gehiago nahi duen irakurlea egileen jatorrizko lanetara bidali dugu, OH. (oharra) laburduraren bidez.

Bestetik, toponimian jasotako *ago, bizkar, bular, gibel, sabel* eta antzeko hitzak, toponimian berez ezaugarri geografikoei loturik daudenak, jatorriz anatomiari zegozkiola iritzi diogu. Horregatik, hitz multzo hori *geografia* gaiaz markatzeaz gain, *anatomia* gaiaz ere markatu dugu.

Jakitun gara toponimiaren arloan gu ere irristatu egingo ginela. Barka bitza irakurleak gure akatsak. Hau, ordea, ez da toponimia argitzeko idazlana, toponimian aurkitu diren hitzak irakurlearen eskuetan jartzeko hiztegia baizik.

Irakurleak hiztegi honetako hitz bat toponimiatik hartuta dagoen ala ez jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

7. Diakronia gure hiztegian

Bestetik, gogoan izan behar da duela hainbat urte desagertatuko hizkuntza baten edo hizkuntza aldaera baten lekukotasunak ez direla beti garai berekoak izaten, baizik eta mende desberdinetan jasota geratu diren hitzak edo esaldiak izan ohi direla.

Horrela, Zaraitzuko euskararen hiztegia, adibidez, gorde diren XIX. eta XX. mendeetako testu idatzirik gabe eta XX. eta XXI. mendeetako azken hiztunen ekarpena gabe egin balitz, hiztegi horren itxura orain duenaren oso desberdina izango zen, iturri nagusia mende horien aurreko toponimia izango zelako, hau da, euskalki horretan ia sinkoparik ez zegoen garaikoa (Zaraitzueraren ezaugarririk nabarmenetako bat sinkopak dira).

Zuhurtziak diosku ez dugula pentsatu behar Erronkaribarko euskara galdu ez balitz, hiztegi honetan ageri dena bezalakoxea izango zenik. Ziur aski, Zaraitzun bezala, XXI. mendeko Erronkaribarko euskarak bere bilakaera jarraituko zuen (ikus 3. puntuan *-truk* aditz atzizkiari buruzko adibidea) eta, emeki-emeki, batuaren eragina ere izango zuen, gaur egun euskalkiak hitz egiten diren lekuetan gertatzen den bezala.

Aldiz, lasai baiezta daiteke hiztegi honetan dauden Erronkaribarko euskararen lekukotasunak garai jakinetako argazki zaharrak direla, zuri-beltzezko argazki hautseztatuak. Baina bertako argazkiak.

Irakurleak iturri bakoitza zein garaitakoa den jakin nahi izanez gero, 5. puntuko iturrien bibliografiara jo besterik ez du, hitz sarreretan ageri diren iturri-zenbakien bidez.

8. Esker onez

Erronkaribarko hiztegia Erroteta argitaletxeko Joseba Berriotxoaren laguntzarekin argitaratu da. Anes Arruti lan informatikoan ibili da berriz ere lanean. Koldo Artola, Josune Aznarez, Koldo Colomo eta Dabid Lalana jaun-andreak hiztegi hau aitzinatzeko beti laguntzeko prest egon dira, egilearen zalantzak argituz. Erronkaribarko Batzorde Nagusia argitalpen honen laguntzailea da, eta Nafarroako Gobernuak ere diruz lagundu du Euskarabidea euskararen nafar institutuaren bitartez.

Esker mila guztiei, zintzoki.

Aitor Arana
Azpeitian, 2023ko udaberrian

Ikurrak eta laburdurak

( )	1. Sarreretan, hitza osatzeko erabili da. 2. Itzulpenetan, gehigarriak eta argibideak.
[ ]	Adibideetan, zuzendu edo osatu nahian erantsi dena.
(?)	Ziurtasunik gabekoa.
{Z}	Zalantzazkoa.
;	Hitz batek ondokoarekiko antz handia duenean, baina ez esanahi berbera.
:	Adibide amaiera eta batuaz emandako ordainaren hasiera.
/	Adibide hasiera.
>	1. Adibidea jarraian dator. 2. Hitz bat aurrekoaren eratorria da.
=	Baliokideak dira, esanahi bera dute.

adj.	adjektiboa
adb.	adberbioa
adib.	adibidea
alb.	albaitaritza
anat.	anatomia
ark.	arkaismoa
astr.	astronomia
bot.	botanika
ekon.	ekonomia
erai.	eraikuntza, eraikinak
erl.	erlijioa
geog.	geografia
gram.	gramatika
haur.	haur-hizkera
heg.	hegaztiak
hist.	historia
hizk.	hizkuntzalaritza
its.	itsas kontua
iz.	izena
jos.	jostailuak
kim.	kimika
kir.	kirola
lag.	lagunartekoa
med.	medikuntza

met.	meteorologia
meta.	metalak
mil.	milizia
min.	mineralogia
mit.	mitologia
mus.	musika
nek.	nekazaritza
OH.	oharra.
oih.	oihalgintza
psk.	psikologia
suk.	sukaldaritza
tek.	teknika
zoo.	zoologia
zuz.	zuzenbidea

Erronkariera - Euskara Batua
Hiztegia

A

-a 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11)* : -a (artikulua) */ erre, errea (1):* errea. */ lastategi, lastategia (1):* lastategia. */ berro, berroa, berrua (1):* berroa. */ ondo, ondoa (1):* ondoa. */ buru, burua, buria, buruia, burioa (1, 2):* burua. */ bekatu, bekatua, bekatia, bekatioa (2):* bekatua. */ igante, igantia (2):* igandea. */ lege, legia (2):* legea. */ mendi, mendia, mendie (2):* mendia. */ artiklo, artikloa, artiklua (2):* artikulua. */ mendiño, mendiñoa, mendiñue (2):* mendiñoa. */ aingru, aingria (2):* aingerua. */ esku, eskia, eskiua (2, 3):* eskua. */ ziudade, ziudadia (3):* hiria. */ mintzo, mintzua (3):* mintzoa. */ saintu, saintiua (3):* santua. */ ele, elia (4):* hitza. */ itze, itzia (4):* iltzea. */ andi, andia (4):* handia. */ asto, astoa (4):* astoa. */ goiko, goikua (4):* ilargia. */ pensamentu, pensamentiua (4):* pentsamendua. */ gobernu, goberniua, gobernioa (4):* gobernua. */ beazale, beazalea (5):* behatzailea. */ begitarte, begitartea, begitartia (5):* aurpegia. */ ugalte, ugaltea, ugaltia (5):* ibaia. */ ezti, eztia (5):* eztia. */ saintu, saintiua (5):* santua. */ ainguru, ainguria (5):* aingerua. */ larru, larrua, larria (5):* larrua. */ luze, luzia, ezne, eznia (6):* luzea, esnea. */ neurri, neurria (6):* neurria. */ beso, besoa, mintzo, mintzoa (6):* besoa, mintzoa. */ esku, eskua, eskia (6):* eskua. */ añu, añea (6):* antxumea. */ etxe, etxia (7):* etxea. */ euri, euria (7):* euria. */ asto, astua (7):* astoa. */ etxeko, etxekua (7):* etxekoa. */ buru, buria (7):* burua. */ guzu, guzia (7):* guztia. */ su, sua (7, 8):* sua. */ etxekuandre, etxekuandria (8):* etxekoandrea. */ lepo, lepua, mando, mandua (8):* lepoa, mandoa. */ unguru, unguria (8):* ingurua. */ etsukandre, etsukandrea (9):* etxekoandrea. */ ezne, eznea, eznia (9):* esnea. */ bilo, biloa (9):* ilea. */ buru, buria, burea (9):* burua. */ larru, larria, larrea (9):* larrua. */ gaztulu, gaztulia (9):* gaztelua. */ borta, bortá (10):* atea. */ uskara, uskará (10):* euskara. */ urte, urtia (10):* urtea. */ itsaso, itsasua (10):* itsasoa. */ mundu, mundia (10):* mundua. */ negu, negia, negea (10):* negua. */ kapar, kaparra (11):* kaparra. */ oxezki, oxezkia (11):* laiotza.

-a 2 *(4, 5, 10)* : errepikapenez indartutako adberbioen atzizkia */ berze irur [gizon]ak daude ellotruk xaî-xaîa (4):* beste hiru gizonak garbi-garbi eroturik daude. */ eri artetan [arrapatan dayanian], fanen zain laxatuz emaro-emaroa (4):* hatz artean harrapatzen hauenean, emeki-emeki laxatuz joango zain. */ zabal-zabala erori (5):* zabal-zabal erori. */ mallo-malloa (10):* poliki-poliki, emaro-emaro. OH. Arakil, Ezkabarte, Txulapain, Artzibar eta Zaraitzun ere dokumentatua.

a zer *(4)* : a zer */ a zer gogotik! (4):* a zer gogotik!, bai gustura!

-a? *(2, 3, 4, 5, 8, 9, 10)* : al? */ krutxeak badia birtuterik etsai korien kontra? (2):* gurutzeak ba al du bertuterik etsai horien aurka? */ eta sinestan zia misterio korik? (2):* eta sinesten al dituzu misterio horiek? */ akaitu zena? ez, jina. (2):* nekatu al zen? ez, jauna. */ ezena aski? (2):* ez al zen aski? */ Kristo zeurian saseririk dagoa? (2):* Kristo zeruan eseririk al dago? */ kristiaia zraia? (2):* kristaua al zara? */ aita jangeiko dia? (3):* aita jaungoikoa al da? */ zu zreia judiuen erregia? (3):* zu al zara juduen erregea? */ irur jangeiko dria? (3):* hiru jaungoiko al dira? */ badagua xen artian norbait? (3):* ba al dago zuen artean norbait? */ etzuniona erin azi ona alurrian? (3):* ez al zenuen hazi ona erein alorrean? */ nai tziua fan gitian xorratra? (3):* nahi al duzu jorratzera joan gaitezen? */ iburni bat beino obro dagua? (3):* infernu bat baino gehiago al dago? */ ni naza?, ni nintzena? (4):* ni al naiz?, ni al nintzen? */ zu zreia? (4):* zu al zara? */ xin yaza xa? (4):* jada etorri al haiz? */ xin daitekia? (4):* etor al daiteke? */ badakia? (4):* ba al daki? */ kemen dagua? (4):* hemen al dago? */ karek badiua? (4):* hark ba al du? */ nik baduda? (4):* nik ba al dut? */ eltxanoa antzatu duna? (5):* eltzetxoa apailatu al dun? */ nika? guka? (5):* nik (egin,

esan...) al dut? guk (egin, esan...) al dugu? */ nai dioa [x]akin zoin naiagoren nion nik? nik ez bat eta ez berze (5):* jakin nahi al du zein nahiago izango nuen nik? nik ez bat eta ez beste. */ ni naza? zu zeria? kura dia? (7):* ni al naiz? zu al zara? hura al da? */ gu geria? zuek zreia? ek dreia? (7):* gu al gara? zuek al zarete? haiek al dira? */ nik dura? zuk tzua (tzia)? karek dua (dia)? (7):* nik al dut? zuk al duzu? hark al du? */ guk diegua (diegia)? zuek tzeia? kek deia? (7):* guk al dugu? zuek al duzue? haiek al dute? */ onki zaudea (zaudia)? (7):* ongi al zaude? */ badakizua (badakizia)? (7):* ba al dakizu? */ onki zria? (8):* ongi al zara? */ zer, kotxian xin zria? (8):* zer, kotxean etorri al zara? */ belainzi dia Pedro? (9):* biluztu al da Pedro? */ badakia nor xin den? (9):* ba al daki nor etorri den? */ orrek dakia uskara? (10):* berorrek (ba) al daki euskara? */ egin duna sua? (10):* egin al dun sua? */ xuan yaza? (10):* joan al haiz? */ xanik dagua? (10):* janda al dago?

ab *(2, 4, 5)* : *(anat.)* aho */ zertako egitan dugu krutxe saintia aban? (2):* zertarako egiten dugu gurutze santua ahoan? */ ene abak anunziaten dizu zure alabanza (4):* ene ahoak zure gorespena iragarriko du. */ etzen egin eztia astoaren abarentako (5):* ez zen egin eztia astoaren ahoarentzat. OH. Mendigatxak ´boca = ab´ itzulpena dokumentatu zuen. Ikus ´au´ sarrera.

aba 1 *(5)* : aho, sorbatz (aiztoena eta) */ aizkora-aba (5):* aizkora-ahoa.

aba 2 *(5)* : *(bot.)* baba */ abaño[a] (5):* babatxoa.

abantxu *(3, 4, 5, 10)* : ia */ [gero] erkitian, bedratziuen ordiuari abantxu (3):* gero irtetean, ia bederatzietan. */ azkenik, arrastri[ko] azken ordiuari abantxu [erkin zen] (3):* azkenik, arratsaldeko ia azken orduan atera zen. */ gizonaren semia dagola eltako abantxu (3):* gizonaren semea ia heltzeko dagoela. */ iroren ordiuari abantxu (3):* ia hiru orduetan. */ egun kontan xin zitzaukun elurra abantxu iriaraino (4):* egun honetan elurra etorri zitzaigun ia herriraino. */ kosetxako abantxu lan guziua emaztek [egiten dei] (4):* uztako ia lan guztia emakumeek egiten dute. */ abantxu illik (10):* ia hilik. OH. Lapurdi, Eguesibar eta Zaraitzun ere dokumentatua. Artzibarren ´abantxen´ dokumentatua.

abañatu *(3)* : hurbildu, gerturatu */ [arengana] abañatu zren (3):* harengana hurbildu ziren. */ [Jesus] xaseririk, abañatu zitzazkan bere diszipuluak (3):* Jesus eseririk, bere ikasleak hurbildu zitzaizkion. */ gunian, [tentazalia] abañatan zelarik, erran zaun (3):* orduan, tentatzailea hurbiltzen zela, erran zion.

abaño *(3, 4, 5)* : hurbil, gertu */ zeren abaño baitago zeuri[ko] reinua (3):* zeren hurbil baitago zeruko erreinua. */ [erinzaliak] granuen barriatian, zomait bidiari abaño [erori zren] (3):* ereileak aleak barreiatzean, zenbait bidetik hurbil erori ziren. */ abañozko bazkuek alegria emoiten daitadei (4):* hurbileko pazkoek poz ematen didate. */ etseari abaño (5):* etxetik hurbil.

abañozko *(5)* : hurrengo */ abañozko bazku[ak] (5):* hurrengo pazkoak.

abar *(5, 10)* : abar (adartxoa) */ urte onetan atzeak bete-beterik egoitan dra ta abarrak txilingatruk (5):* urte onetan zuhaitzak (fruituz) bete-beterik egoten dira eta abarrak makurturik. */ abarra (10):* abarra.

abarfaxo *(5)* : abar-sorta

abarka *(9, 11)* : abarka */ amar abarka (9):* hamar abarka.

abarrakitu *(5)* : txikitu, suntsitu */ abarrakiten yeir, ekuru ez bayago (5):* txikituko haut, geldi ez bahago.

abarraxe *(5)* : abar-sorta */ doi-doia egartan tu zama ta abarraxe koriek (5):* ozta-ozta igarotzen ditu zama eta abar-sorta horiek.

abatorrazi *(5)* : abaraska, eztiorraze

abe *(2)* : *(zoo.)* ezpara
abelgorri *(4)* : *(zoo.)* abelgorri */ abelgorria (4):* abelgorria.
abentu 1 *(4, 5, 7, 8)* : abendu, gabonil */ 1903ko abentiuaren 18´na (4):* 1903ko abenduaren 18.a. */ baba zabala abentiuan (5):* baba zabala abenduan. */ abentia (8):* abendua.
abentu 2 *(5, 6)* : azaro */ abentia (6):* azaroa.
abentu 3 *(3)* : *(erl.)* abendu */ kola izanen da gizonaren semiaren abentiua edo xitia (3):* horrela izango da gizonaren semearen abendua edo etorrera.
abentu txiker *(4)* : azaro */ abentu txikerreko 29´na (4):* azaroko 29.a.
aberats *(5)* : aberats */ aberatsa emon zen, baia [k]ura ere apaltu da takez (5):* aberatsa omen zen, baina hura ere apaldu da guztiz.
abere *(5)* : abere */ goen-barren zabillelarik, [abre] kori turrunbero kortan larrutu [zen] (5):* gora eta behera zebilela, abere hori amildegi horretan larrutu zen.
abez *(5)* : ahoz
abi *(5)* : *(bot.)* ahabia
abia 1 *(2, 3, 5)* : habia */ axariek dei kamia eta txoriek abia (3):* azeriek gordelekua dute eta txoriek habia. */ oilo errule gaixtoak ez du abia onik erdeiten (5):* oilo errule txarrak ez du habia onik aurkitzen.
abia 2 *(5)* : *(zoo.)* ezpara
abiazai *(5)* : abirazai OH. Oiloari habian jartzen zaion arrautza, berak han errun dezan.
abiratsaki *(5)* : abirazai OH. Ikus ´abiazai´ sarrerako oharra.
abisatu *(3)* : abisatu */ egon zte kan nik abisa ztudan artio (3):* egon zaitez han nik abisatzen zaitudan arte. */ abisatruk, bizi izaitra [xin zen] (3):* abisaturik, bizi izatera etorri zen.
abislai *(5)* : *(geog.)* malda
abiso *(3)* : abisu */ errezibitu baikoz lotan abiso bat zeuritik, bere[n] erriara bueltatu zren (3):* zerutik abisu bat lotan jaso bezain laster, beren herrira itzuli ziren.
abiso emon *(3)* : abisu eman */ [aurra] erdenez geroz abiso emon aztazeid, ni ere fan nein (3):* haurra aurkituz gero, abisu emadazue, ni ere joan nadin.
abixon *(5)* : begi-estali (adj.) */ abixon (5):* begiak estalirik.
abixonka *(5)* : itsu-itsuka (jolasa)
abo-abo *(5)* : *(haur.)* lo-lo
abola *(5)* : amona */ Ana, ama berjinaren ama eta [jangeikoaren] abola (5):* Ana, ama birjinaren ama eta jaungoikoaren amona.
aborritu *(4)* : gorrotatu, aiherra izan; nazkatu */ [gizonak emaztek] aborritruk [gaude] (4):* gizonak emakumeek gorrotaturik gaude. */ lan daramanareki aborritruk eskerbage bateki (4):* daraman lanarekin eskergabe batekin nazkaturik.
abrastu *(5)* : aberastu */ obro du abratsak pobretan denean, ezik pobreak abrasten denean (5):* gehiago du aberatsak txirotzen denean, txiroak baino aberasten denean. */ eskribaia abrastan da pluma bakotx bateki (5):* eskribaua (idaz)luma bakar batekin aberasten da.
abrats *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : aberats */ xa berant [izaitian], gizon abrats bat [xin zen] (3):* jada berandu zela, gizon aberats bat etorri zen. */ nekez sarten da abrats bat zeuri[ko] reinuan (3):* nekez sartuko da aberats bat zeruko erreinuan. */ abratsek difikultade dei (3):* aberatsek zailtasuna dute. */ gizon abratsa (4):* gizon aberatsa. */ nai beda enazala abrats, bear diak erosi (5):* nahiz eta ez naizen aberatsa, erosi egin behar diat. */ obro du abratsak pobretan denean (5):* gehiago du aberatsak pobretzen denean. */ deuri emoitea da abratsena eta zarrek urdupena (5):*

dirua ematea aberatsena da eta zaharrek iritzia. */ abratsa (6):* aberatsa. */ abrats izanen laiteke (7):* aberatsa izango litzateke. */ abratsa (9):* aberatsa. */ abrats bat... guziak begira ilen [den] (10):* aberats bat... guztiak begira hilko den. */ abratsak (10):* aberatsak. */ etse abratsetan abratser [emoitan ziziein turron] (10):* etxe aberatsetan aberatsei ematen zieten turroia.

abratstarzun *(3)* : aberastasun */ abratstarzunen engañuak sofokatan dei (3):* aberastasunen engainuek itotzen dute. */ nai ez deinek abratstarzunik (3):* aberastasunik nahi ez dutenek.

abre *(2, 4, 7, 8, 9, 10)* : abere */ animale guziak eta abriak (2):* animalia guztiak eta abereak. */ abriak [urtian laur aldiz xiten dra] (4):* abereak urtean lau aldiz etortzen dira. */ abreak (7):* abereak. */ abre bat (9):* abere bat. */ abreki, mandueki ta astueki, etsera [eragutan da] egurra (10):* abereekin, mandoekin eta astoekin, etxera ekartzen da egurra. OH. Mitxelenak ´zaldi jendea, zamariak´ oharrarekin dokumentatua.

abregende *(2)* : aberejende, abereak

abrezai *(5)* : aberezain

abri *(6)* : *(met.)* euri */ abria (6):* euria.

abuelandre *(5, 8)* : amona */ abuelandria (7, 8):* amona.

abuelojein *(8)* : aitona */ abuelojeina (8):* aitona.

aburrimentu *(3)* : gorroto, aiher */ ekunen du aburrimentu batari eta amorio berzeari (3):* bati gorrotoa izango dio eta amodioa besteari.

aburritu *(3)* : gorrotatu, aiherra izan */ egin zazei onki aburritan daizeiner (2):* egin iezaiezue ongi gorrotatzen dituzunei.

adalko *(5)* : mordo, luku (berezko frutu sortatxoa)

adañi *(5)* : adabegi

adar 1 *(2, 3, 5, 10)* : *(bot.)* adar */ adarrak daudenian tierno eta erkiten drenian ostuak, abaño dago uda (3):* adarrak samur daudenean eta hostoak irteten direnean, hurbil dago uda. */ adarño[a] (5):* adartxoa. */ arrapatan balin badur adarra, emonen diar berareki (10):* adarra harrapatzen baldin badut, berarekin emanen diat.

adar 2 *(2, 5, 7, 9, 10)* : *(zoo.)* adar */ adarño[a] (5):* adartxoa. */ [zezenek] adarrak txorrotz [ditei] (7):* zezenek adarrak zorrotz dituzte. */ zezenaren adarrak luze [ditun] (7):* zezenaren adarrak luzeak ditun. */ adarra (9):* adarra. */ adarrak (10):* adarrak.

adarbakotx *(5)* : adarbakar (adar bateko aberea) */ adarbakotxa (5):* adarbakarra.

adarbiltu *(5)* : adarmakur (behiak eta)

adardoi *(5)* : adartsu (adj.)

adarkari *(5)* : adarkari

adarkatu *(5)* : adarkatu

adarkurro *(5)* : adarmoztu (adj.) OH. Adar bat moztua duen aberea.

adarmakur *(5)* : adarmakur (behiak eta)

adarme *(3)* : drakma (?) */ adarmezko tributua (3):* drakma zerga. */ ez dia pakatan bi adarmiak? (3):* ez al ditu ordaintzen bi drakmak? */ laur adarmetako zidarrezko puska bat (3):* lau drakmako zilarrezko puska bat (txanpona). OH. Ikus Orotariko Euskal Hiztegia I, 147. or.

adarra sartu *(7)* : ziria sartu

adartxonpor *(5)* : adargoratu (adj.) OH. Adarrak gora eta ia elkarturik dituen aberea.

adartxut *(5)* : adarxut (behiak eta)

adarzabal *(5)* : adarzabal (behiak eta)

addar *(5)* : deabru */ addarrek eramanen yai ez badun eragutan kori (5):* deabruak eramanen hau

ez badun hori ekartzen.

addarko *(5)* : adartxo (orkatzena) OH. Orkatzei urtean ateratzen zaizkien bigarren adartxoak.

adelatu *(5)* : desagertu, joan (kea)

adenide *(10)* : adin */ zer adenide dun? (10):* zer adin dun?

adeskide *(7, 10)* : adiskide */ ene adeskideki [xuntatan naz] (7):* nire adiskideekin elkartzen naiz. */ adeskideak karrikan yiketz eta zuketz (7):* adiskideak kalean hika eta zuka (mintzatzen dira).

adexkide *(3, 4, 5, 6, 7)* : adiskide */ ona kemen bizi gaixtotako genten adexkide [bat] (3):* hona hemen bizi txarreko jendearen adiskide bat. */ adexkidia, nola sartu zra zu kemen? (3):* adiskidea, nola sartu zara zu hemen? */ esposuaren adexkidiak (3):* senarraren adiskideak. */ ñore mentian adexkiderik andien ekun duana (4):* neure gizaldian eduki dudan adiskiderik handiena. */ adexkiderik bage bizitea da orobat nola testigorik bage iltea (5):* adiskiderik gabe bizitzea lekukorik gabe hiltzea bezala da. */ adexkideak eztakizei gezurra ala egia den (7):* adiskideak ez dakizue gezurra ala egia den.

adexkidetarzun *(4, 5)* : adiskidetasun */ xarrekiten zren adexkidetarzun berartan (4):* adiskidetasun berartan jarraituko zuten. */ zuketzaz manifestatan digu alkar digula adexkidetarzuna andiago, ezik gainaratekueki (4):* zuketaz adierazten dugu elkarri adiskidetasun handiagoa diogula, gainerakoekin baino. */ egia erraitan dionak galtan du adexkidetarzuna (5):* egia esaten duenak adiskidetasuna galtzen du.

adin *(3, 4, 7, 8)* : adin */ adin diona (4):* duen adina. */ deiten tigu orrek erraiten daizkigun gente adineko guziuak (4):* berorrek esaten dizkigun adineko pertsona guztiak deituko ditugu. */ zuketzaz mintzatan gra bapana bere adinetakoetarik as, aiketa sor berrietraino (4):* zuketan mintzatzen gara bakoitza bere adinekoengandik hasita, harik eta sortu berrienganaino. */ adina (7):* adina. */ adinak ginbarna (8):* adinak goitik behera (eramaten gaitu).

adiskide *(8)* : adiskide */ ene adiskidiak (8):* nire adiskideak.

adiskidearazi *(5)* : adiskidetu

adiskidexka *(5)* : adiskidexka OH. Ez erabat adiskide.

aditu *(5)* : aditu */ mintzo bat aditu dut (5):* ahots bat aditu dut.

adixkide *(5, 6)* : adiskide */ adixkide min[a] (5):* adiskide mina. */ adixkidia (6):* adiskidea.

adrezatu *(3)* : prestatu */ berjin kurak guziuak xagi zren eta adrezatu ztein beren lanparak (3):* birjina haiek guztiak jaiki ziren eta beran lanparak prestatu zituzten.

afizione *(5)* : zaletasun */ afizione andia [dei] bilgunetra, xuntatako (5):* zaletasun handia dute bilguneetara, elkartzeko.

ager *(5)* : ageriko

ager-agerrean *(5)* : ageri-agerian */ gore iriko etseak banak ager-agerrean daude ta besteak ozkumean edo altxabean (5):* gure herriko etxeak batzuk ageri-agerian daude eta besteak ezkutalekuan.

agerraldi *(5)* : bisita, bisitaldi */ agerraldi bat egin zazu (5):* egin ezazu bistaldi bat.

agerre *(1)* : ageri (ark.) */ Izabagerre (1):* Izaba(ko) ageri(a).

agerri *(3)* : ageri */ [eskiuak] ekuzi ztion iriaren agerrian (3):* eskuak garbitu zituen herriaren agerian. */ [gariaren erdian], agerriara erkin zen xatsa (3):* gariaren erdian, agerira atera zen iraka. */ Betfageren agerriara [eltu zren] (3):* Betfage agerian ikustera heldu ziren.

agertu *(3, 7)* : agertu */ [profeta falsu anitx] agerten dra (3):* sasiprofeta asko agertuko dira. */ zeren deus ere ez baitago agertruk ez biar dionik izan (3):* zeren deus ere ez baitago agertua izan behar ez duenik. */ elurra agertu da (7):* elurra agertu da.

agian *(9, 10)* : agian */ eznia et´ oro agian eroritan zia (10):* esnea eta dena agian erortzen zen. */ zer ordu da? zortziak agian (10):* zer ordu da? zortziak agian.

agin 1 *(2, 4, 5, 7, 8, 9)* : *(anat.)* hagin */ min emoiten daian agina arranka zak (5):* min ematen dian hagina atera ezak. */ azken agiñak (5):* azkenaginak, zuhurraginak. */ zer agin min dur! (7):* zer haginetako min dudan! */ aginak (8, 9):* haginak.

agin 2 *(1, 11)* : *(bot.)* hagin

agingiltz *(2, 5)* : *(anat.)* letagin

aginmin *(10)* : aginetako min

agiri izan *(3, 5, 7)* : ageri izan */ ortzei [iri] xaurien aurkian agiri den kortra (3):* zoazte zeuen aurrean ageri den herri horretara. */ señale agiri dren banak (3):* ageri diren seinale batzuk. */ gaiaz egitan dena egunaz agiri (5):* gauez egiten dena egunez ageri. */ eguzku-begia lurbel dago, oxezkia astra elur agiri da (5):* egutera lurbeltz dago, laiotza aldiz elur(tsu) ageri da. */ agiri dia gizon? (7):* agiri al da gizonik?

agitu *(2, 3, 4, 5, 7)* : gertatu, agitu */ nola agitu zen andria bordal ledin? (2):* nola gertatu zen andrea ezkon ledin? */ antzinetik [erran zein] gero agitu biar ziona (3):* aurretik esan zuen gero gertatu behar zuena. */ informa ztei agitan denaz aur konen gainian (3):* informa zaitezte haur honen inguruan gertatzen denaz. */ agitan dena da faiten drela biltan (3):* gertatzen dena da bilduz joaten direla. */ [Noeren egunetan] agitu zena, kori bera agiten da [semiaren xitian] (3):* Noeren egunetan gertatu zena, hori bera gertatuko da semearen etorreran. */ agitu guziua [beren nausiari kontatra fan zren] (3):* gertatutako guztia beren nagusiari kontatzera joan ziren. */ agi ez dein (3):* ez dadin gerta. */ igan den ilabetian agitu zen (4):* igaro den hilabetean gertatu zen. */ endezera kartan agitu zaitad mando baten erortea (5):* inguru hartan gertatu zait mando bat erortzea. */ agitan dena kontatan du (5):* gertatzen dena kontatzen du. */ zarrastak eman daitadak agituren zela kori (5):* inpresioa eman zidak hori gertatuko zela.

-ago *(2, 3, 4, 5, 9, 10)* : -ago */ bera beino zarraguak [errespetatan dutu] (2):* bera baino zaharragoak errespetatzen ditu. */ ez bada xen justizia eskribaûena beino osoago, ezrei sarten zeurien (3):* zuen justizia ez bada eskribauena baino osoagoa, ez zarete zeruan sartuko. */ antzinarago [igartan zelarik], berze bi anaxe [ekusi ztion] (3):* aurrerago igarotzen zela, beste bi anaia ikusi zituen. */ urak asi zren irago andiago egitra (3):* haiek oihu handiagoak egiten hasi ziren. */ azken engañua gaxtuago [izan dein] ezik leina (3):* azken engainua gaiztoagoa izan dadin lehena baino. */ iriko gizon guziuetarik eztud baizik laur zarrago (4):* herriko gizon guztietatik lau baizik ez dut zaharrago. */ apezer errespeto andiago ekuteko (4):* apezei errespetu handiagoa edukitzeko. */ zeren orai gaxki eskribitan badud, gunian gaxkiago (4):* zeren orain gaizki idazten badut, orduan gaizkiago. */ karta kaur llaburrago oilta daud (4):* gutun hau laburrago bidaltzen diot. */ gaistoago ezik arri-erautsi bat (9):* harri-jasa bat baino txarragoa. */ zoin da mitil fuertagoa? (10):* zein da mutil indartsuagoa?

ago 1 *(5, 7, 10)* : *(anat.)* aho */ agua (5):* ahoa. */ zerra zan agua (7):* itxi ezan ahoa. */ agoa iriki (10):* ahoa ireki.

ago 2 *(5)* : aho, sorbatz (aiztoena eta) */ agua (5):* ahoa, sorbatza.

ago! *(11)* : hago! OH. Gesalatz, Goñerri, Oibar eta Orbaibarren dokumentaturiko agindu hau ahuntzak jeztean geldik egon zitezen erabiltzen zen. Erronkaribarren, bitxia bada ere, abereak uxatzeko dokumentatu da, hedadura semantikoz ziurrenik.

agobarna *(7)* : ahuspez */ agobarna [egotxi zen] (7):* ahuspez bota zuen bere burua.

agomietan *(5)* : aho-mihietan (eduki)

agorril *(2, 4, 5, 6, 7, 8)* : abuztu, agorril */ 1903ko agorrilaren 7´na (4):* 1903ko agorrilaren 7.a. */ agorrileko ura da zafran, ezti eta ardau (5):* agorrileko ura safrana, eztia eta ardoa da. */ agorrila (6, 7, 8):* abuztua, agorrila.

agortu *(5)* : agortu */ goikoaren llarniak agortan tu urtsiuak (5):* ilargiaren ziskuak agortzen ditu iturburu txikiak.

agorxali *(4)* : bitsadera */ agorxaliaz biltan dei errebulloak (4):* bitsaderaz biltzen dituzte pikorrak.

agotatu *(7)* : aipatu

agotz *(5)* : lasto

agozo *(11)* : *(bot.)* anbulu zuri

agrazei ekun *(7)* : gustatu, atsegin izan */ agrazei tzua (tzia) [ganbra kau]? agrazei dur (7):* atsegin al duzu logela hau? atsegin dut.

aguada *(2)* : *(met.)* ihintz */ euri ta aguada guziak (2):* euri eta ihintz guztiak.

agun *(2, 5)* : apar

agur 1 *(5)* : *(anat.)* ahur, esku-ahur

agur 2 *(7)* : agur */ agur, ekusi artio! (7):* agur, ikusi arte! */ agur jeinak, dagoan urte artio (7):* agur jaunak, datorren urtea arte.

agurtra *(5)* : eskukada

aida! *(11)* : aida! (idiei esana, aurrera egiteko)

aide 1 *(10)* : senide, ahaide */ aide guziak [xoaitan gintzia] (10):* ahaide guztiak joaten ginen.

aide 2 *(5)* : ausardia, adore

aiene *(2, 5)* : aiene */ aienez [gaudezu] (2):* aienez gaude. */ aienez beterik (5):* aienez beterik.

aierkeria *(5)* : handinahi, goranahi

aiezka *(5)* : aieneka, aiezka

aigalaitzin *(5)* : afalaurre, afalaitzin

aigalondo *(5, 7, 9)* : afalondo */ aigalondoko (9):* afalondorako.

aigaltiar *(5)* : afaltiar

aigaltu *(3, 4, 5, 7, 8, 9)* : afaldu */ aigaltan zauden artian, Jesusek ogia [artu zion] (3):* afaltzen zeuden artean, Jesusek ogia hartu zuen. */ aigaltu eta xagi zen (4):* afaldu eta jaiki egin zen. */ aigaltuz gero eziola ñorentako xostan [erran zaun] (4):* afalduz gero ez zuela inorentzat josten esan zion. */ guziuak [faiten dra] askaltra etse batra eta aigaltra berziara (4):* guztiak joaten dira askaltzera etxe batera eta afaltzera bestera. */ txikigatik aigal zokela (4):* gutxigatik afal zezakeela. */ aigaltako azak [daude] (7):* afaltzeko azak daude. */ ox aigaltra (7):* goazen afaltzera. */ goxan askal, eguerdiz bazkal, arrestrian askal eta artsen aigal (8):* goizean gosal, eguerdiz bazkal, arratsaldean askal eta arratsean afal. */ nai dei aigal fite ta oiara xoan (9):* azkar afaldu nahi dute eta ohera joan.

aigari *(3, 4, 5, 7, 8, 10)* : afari */ Jesusen aigaria Betanian (3):* Jesusen afaria Betanian. */ aigaria´re drezu zakala erran zaun (4):* afaria ere prest zeukala esan zion. */ egunean irur apario dozkegu, askaria, bazkaria, aigaria (5):* egunean hiru jatordu dauzkagu, gosaria, bazkaria, afaria. */ aigaria gaiaz (7):* afaria gauez. */ xitan dreneko bar dur aigaria drezatu (8):* etortzen direnerako afaria prestatu behar dut. */ gaikua, aigaria (8):* gauekoa, afaria. */ Zapaterionan egitan zeia aigaria (10):* Zapaterionean egiten zuten afaria. */ aigaltra [xoan] (10):* afaltzera joan.

aigari uts *(5)* : afari arin

aiketa -raino *(4)* : harik eta arte */ betik baratan naz gisa berian, aiketa maiatzekuaraino (4):* beti geratzen naiz modu berean, harik eta maiatzekoa arte. */ tenpra ekun digu on, aiketa konen amalaugarniaraino (4):* eguraldi ona eduki dugu, harik eta (hil) honen hamalaugarrena arte.

aiketa artio *(4)* : harik eta arte */ eztaud eskribitan obro, aiketa orrek eskribi daztadan artio (4):* ez diot gehiago idatziko, harik eta berorrek idatz diezadan arte. */ ez daud oiltan batrere, aiketa xakin tzadan artio nora biar dion izan (4):* ez diot batere bidaliko, harik eta nora izan behar duen jakin dezadan arte.

aiketa bitartio *(3)* : harik eta arte */ sarri ez naizei ekusen obro, aiketa erran zazein bitartio (3):* azkar ez nauzue gehiago ikusiko, harik eta esan dezazuen arte. */ Abelen odoletik astian, aiketa Zakariasen odola bitartio (3):* Abelen odoletik hasita, harik eta Zakariasen odola arte. */ ñaur egonen naz betik xekin, aiketa sigluak akaba tian bitartio (3):* neu egonen naiz beti zuekin, harik eta mendeak buka daitezen arte.

ailiko *(11)* : harilko

ailo *(5)* : *(haur.)* aitona

ailla *(5)* : *(haur.)* amona

aillikatu *(5)* : harilkatu

ailliko *(5)* : harilko

aillo *(5)* : *(haur.)* aitona

ainbeste *(8)* : hainbeste, hainbertze */ ardauak ainbeste indar diela (8):* ardoak hainbeste indar duela.

aingra *(2)* : *(zoo.)* aingira

aingru *(2)* : *(erl.)* aingeru */ zeuriko aingru eta saintier otoitz egin (2):* zeruko aingeru eta santuei otoitz egin. */ zer dra aingriak? espiritu banak (2):* zer dira aingeruak? espiritu batzuk.

ainguru *(2, 3, 5, 8, 9, 10)* : *(erl.)* aingeru */ jeinaren ainguriak (2):* jaunaren aingeruak. */ Josek egin zion ainguriuak manatu zauna (3):* Josek egin zuen aingeruak agindu ziona. */ ainguru bat (3):* aingeru bat. */ zer gaiza dra ainguriuak? (3):* zer gauza dira aingeruak? */ ainguru ona zeuritik [xin da] (5):* aingeru ona zerutik etorri da. */ ainguriak ene anaixak [dra] (5):* aingeruak ene anaiak dira. */ guazen aingurieki, arkanxelieki (8):* goazen aingeruekin, arkanjeluekin. */ aingurieki (10):* aingeruekin.

aînguru *(3)* : *(erl.)* aingeru */ aînguru bat aparezitu zitzaun ametstan (3):* aingeru bat agertu zitzaion ametsetan. */ beira zazu nik oiltan duala ene aînguriua (3):* begira ezazu nik ene aingerua bidaltzen dudala. */ xakitra emoitan daizeid aînguriuak betik ene aita [ekustan daudela] (3):* jakitera ematen dizuet aingeruak beti ene aita ikusten daudela.

ainguru guardazko *(3)* : *(erl.)* aingeru guardako, aingeru jagole */ zuk batzu ainguru guardazko? (3):* zuk baduzu aingeru guardakoa?

aino *(10)* : oraindik */ ni aino´re keben, [e]tzakin noiz artio (10):* ni oraindik ere hemen, ez jakin noiz arte.

aintz *(2, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(zoo.)* ahuntz */ korostiaren ostoa on [da] aintz eta ardientako (4):* gorostiaren hostoa ona da ahuntz eta ardientzat. */ aintzaren umia aztaparkin (4):* ahuntzaren umea atzaparkari. */ aintzaren umea aintzume (5):* ahuntzaren umea antxume. */ aintz bat xin [da] menditik (8):* ahuntz bat etorri da menditik. */ aintza xatxi diar [eta] esnia egosi diar (8):* ahuntza jetzi diat eta esnea egosi diat. */ xatx zan (xatxan) aintza (9):* jetzi ezan ahuntza. */ aintza (10):* ahuntza.

aîntz *(4)* : *(zoo.)* ahuntz */ aîntza (4):* ahuntza.

aintzai *(8)* : ahuntzain */ aintzaia (8):* ahuntzaina.
aintzaî *(5)* : ahuntzain
aintzin 1 *(5, 7, 9, 10)* : aurre, aitzin; aurre(ko) */ e[z]kila burrundaka ari da xei aintzin egunean (5):* kanpaia burrunbaka ari da jai aurreko egunean. */ betik gezurra aintzinetik [ebiltan zra] (7):* beti gezurra aitzinetik ibiltzen zara. */ xuan gitean aintzina, aintzinago (9):* joan gaitezen aurrera, aurrerago. */ aintzinekoa atzidiara (9):* aurrekoa atzera. */ bi gizon aintzinian eta beste bi atzirian (10):* bi gizon aurrean eta beste bi atzean.
aintzin 2 *(5)* : lehen, arestian
aintzinadanik *(5)* : aldez aurretik
ainzina *(5)* : asti; aisia */ eztur ainzinarik korren egiteko (5):* ez dut astirik hori egiteko.
ainzka *(5)* : *(bot.)* adar biki
ainzki *(2)* : *(suk.)* ahunzki
ainzpa *(9, 10)* : ahizpa */ laur ainzpa, laur ainzpak (9):* lau ahizpa, lau ahizpak. */ zoin ainzpareki? (9):* zein ahizparekin? */ aren ainzpa bat senarrareki (10):* haren ahizpa bat senarrarekin.
aînzpa *(5)* : ahizpa (landarea) OH. Lurretik bateratsu hazten diren bi adarrak edo zurtoinak.
ainzter(rak) *(5)* : guraize(ak), aiztur(rak)
aînzter(rak) *(5)* : guraize (handiak)
ainzterko *(5)* : guraize (txikiak)
ainzto *(5)* : aizto
aînzto *(5)* : aizto
ainztur(rak) *(5)* : kurrika(k) OH. ´Aînztur´ ere dokumentatua.
aiña 1 *(5)* : inude
aiña 2 *(5)* : *(zoo.)* antxume
aiñabarbarin-abia *(5)* : amaraun, armiarma-sare
aiñabarbariñ *(5)* : *(zoo.)* armiarma */ aiñabarbariña (5):* armiarma.
aiñai *(5)* : *(bot.)* zekale */ aiñai korrek belain egin dik (5):* zekale hori makurtu egin da.
aiñai-zuri *(5)* : *(heg.)* enara
aiñamarma *(5, 7)* : *(zoo.)* armiarma */ aiñamarmak (7):* armiarmak.
aiñamerma *(5)* : *(zoo.)* armiarma */ bearriak xai tun yik, entzun yoke aiñamerma baten urratsa (5):* belarriak garbi ditun hik, armiarma baten urratsa entzun dezaken.
aiñari 1 *(5)* : *(heg.)* enara
aiñari 2 *(5)* : *(zoo.)* tximeleta
aiñari 3 *(5)* : *(bot.)* zekale */ ogi kau, aiñariaz naste dielakotz, ubel erkin da (5):* ogi hau, zekalez nahasi dutelako, beltzaran atera da.
aiñari zuri 1 *(5)* : *(heg.)* enara
aiñari zuri 2 *(5)* : *(zoo.)* tximeleta
aiñe *(5)* : *(zoo.)* antxume
aiñu *(5)* : *(zoo.)* antxume
aiñume *(5)* : *(zoo.)* antxume
aiñuri *(5)* : ulu (otsoena)
aio *(5)* : aitabitxi (ezkontzakoa)
aio-aio *(5)* : *(haur.)* apapa
aipatu *(3, 4)* : aipatu */ nola da posible xek aipa zazein gaiza onik? (3):* nola da posible zuek gauza onik aipa dezazuen? */ emon bezkabei ene goraintziak nitaz aipatan dabein guziuer (4):*

eman biezazkio nire goraintziak nitaz aipatzen duten guztiei.

airatu *(5)* : animatu, adoretu

aire 1 *(2, 4, 5)* : aire */ autza erraustan dun airiarentako (4):* ahotza hausten dun airearentzat. */ martxoan airea gorri, goizoro elur berri (5):* martxoan airea gorri, goizero elur berri. */ txoriak airean ebiltako magalak dozke (5):* txoriak airean ibiltzeko hegoak dauzka.

aire 2 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8)* : *(met.)* haize */ erabili zren airiak eta emon zein indarrekin kalako etsiaren kontra (3):* haizea ibili zen eta indarrez jo zuen halako etxearen kontra. */ butz egin zien airek (3):* putz egin zuten haizeek. */ txuti izaririk, manatu [zabein] airer aplaka litiala (3):* zutik jarririk, haizeei bare litezela agindu zien. */ airiaren indarra [ekustian], lotsatu zen (3):* haizearen indarra ikustean, beldurtu egin zen. */ Iratiko usiaren ostoak airiareki mobitan baidra (4):* Iratiko basoko hostoak haizearekin mugitzen baitira. */ otz eta aire eta guzietarik izatan [da] (5):* hotz eta haize eta guztietatik izaten da (otsailean). */ airea (6):* haizea. */ aire anitx dago (7):* haize handia dago. */ airia (8):* haizea.

aire-bal *(5)* : haize-bolada */ aire-bal bero bat (5):* haize-bolada bero bat.

aireager *(5)* : haizeleku OH. Ikus ´aireagerre 1´ sarrera.

aireagerre 1 *(4)* : haizeleku OH. Menditxaga jaunak argiturik, ´leku ageria, haize guztiek jotzen dutena´.

aireagerre 2 *(5)* : elur-sakonune OH. Azkuek ´elurra bertan pilatzen den sakonunea´ esanahiarekin dokumentatua. Ikus ´aireager´ sarrera.

airean ebili *(5)* : hegan egin */ txoriak airean ebiltako magalak dozke (5):* txoriak hegan egiteko hegoak dauzka.

airian egon *(4)* : irrika egon, irrikaz egon */ ezkribi beztad zerbait, bainago airian xakiteko ortaz (4):* idatz biezat zerbait, berorretaz zerbait jakiteko irrikan bainago.

airian eroki *(4)* : airean eduki */ orren balle kontra xitiaren boztarioak naka airian (4):*ibar honetara(ko) berorren etorreraren pozak airean nauka.

aisa *(5, 6, 8)* : erraz, aise

aisago *(5)* : aisia OH. Zaraitzun ´aisamentu´ dokumentatua.

aise *(4)* : erraz, aise */ ele bat [isartan daud], llaburren eta aisenetarik (4):* hitz bat jartzen diot, laburren eta errazenetakoa.

aispiltu *(5)* : azpildu

aistian *(5)* : arestian

aita 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : aita */ aita Santxo Argaña (1lm):* aita Santxo Argaña. */ lein persona aita [da] (2):* lehen pertsona aita da. */ badia gore jeinak aitarik? (2):* ba al du gure jaunak aitarik? */ Adan gure lein aitak bekatu egin ziolakoz (3):* Adan gure lehen aitak bekatu egin zuelako. */ jina, permeti naztazu fan nein ñore aitaren ôrztra (3):* jauna, utzidazu joan nadin neure aita ehorztera. */ Abrahan aitatako dakagu (3):* Abrahan aitatzat daukagu. */ aita goria zeuri[an] dagona (4):* aita gurea zeruan dagoena. */ berriz erran zaun aitak (4):* berriz erran zion aitak. */ aita irabazale, semea gastazale (5):* aita irabazle, semea gastatzaile. */ aitaren txakurra da (7):* aitaren txakurra da. */ etzu aitarik (7):* ez duzu aitarik. */ ama kebenko, aita´re kebenko, bai (8):* ama hemengoa, aita ere hemengoa, bai. */ aitajeina, aitari (8):* ´aitajeina´ (esaten genion) aitari. */ aita, xin bedi kona (9):* aita, etor bedi hona. */ anitx aita [xuntatu tun] (9):* aita asko elkartu ditun. */ eragi zan oski eli bat aitaren (9):* ekar ezan zapata pare bat aitarentzat. */ biramen goxan egitara aitareki ta amareki (9):* biharamun goizean igitara aitarekin eta amarekin. */ guk aita ta amareki betik uskaraz (10):* guk aita eta amarekin beti

euskaraz. */ ene ama txaistan aitareki txaisgian (10):* ene ama jezten aitarekin artegian (jeztokian).

aita 2 *(2)* : *(erl.)* aita */ aita Scioren erdaratik Bidangozeko uskarara utzulia (2):* aita Scioren erdaratik Bidankozeko euskarara itzulia. OH. Mendigatxak ´Bidankoze´ beti k-z dokumentatua.

aita saintu *(2, 3, 6)* : *(erl.)* aita santu */ nor da kongregazione konen buria? aita saintia (2):* nor da kongregazio honen burua? aita santua. */ kristiaî guziuen kongregazionia, zoinen buriua baita aita saintiua (3):* kristau guztien kongregazioa, zeinaren burua aita santua baita. */ aita saintia (6):* aita santua.

aita santu *(6)* : *(erl.)* aita santu */ aita santia (6):* aita santua.

aita-karats *(5)* : ume aitak arbuiatu(a), ume aitak gaitzetsi(a) (adj.) */ aita-karats[a] (5):* ume aitak arbuiatua. OH. Ikus ´karats 2´ sarrera.

aitader *(2, 5, 9, 10)* : aitabitxi */ aitader otz[a] (5):* aitabitxi hotza. */ guneko gogoan nakan aitaderraren izengatxa (5):* ordurako gogoan neukan aitabitxiaren izengoitia. */ aitaderrak atsa ederki emon zaun aur koni (5):* aitabitxiak hatsa ederki eman zion haur honi (haur sendoez esana). */ aitaderra (9, 10):* aitabitxia. OH. Bataioan txanponik botatzen ez duen aitabitxia ´aitader otza´ da.

aitaetaamak *(2)* : aita-amak, gurasoak */ atitaetaamak onra ditzagula (2):* aita-amak ohora ditzagula.

aitagiarraba *(7)* : aitaginarreba

aitagiarreba *(2, 5, 8, 9)* : aitaginarreba */ obe zaitad aitagiarrebaren etxea ezik sûñarena, deus berzegatik baizik bere zabalgoez (5):* hobe zait aitaginarrebaren etxea suhiarena baino, haren zabaleragatik baino ez.

aitagore *(2, 3, 4, 8)* : *(erl.)* aitagure */ aitagorea eta berze gainiarako orazioneak [dazkigularik] (2):* aitagurea eta gainerako beste otoitzak dakizkigunean. */ nork erran zien aitagorea? Kristok (2):* nork erran zuen aitagurea? Kristok. */ aitagoria (2, 3):* aitagurea. */ aitagoria errezatan digunian (3):* aitagurea errezatzen dugunean. */ aitagoria erraitiaz [parkatan zau] (3):* aitagurea erranez barkatzen zaio.

aitaiarreba *(9)* : aitaginarreba

aitajein *(7, 8, 9, 10)* : aita */ aitajeina, xin [bedi] kona! (7):* aita, etor bedi hona! */ aitajeina, aitari (8):* ´aitajeina´ (esaten genion) aitari. */ aitajeina, xin bedi laguntra (9):* aita, etor bedi laguntzera. */ aitajeina, keben gidaude anitx onki. OH. Izagirrek ´deitzeko (erabilia)´ oharrarekin dokumentatua. Artolak´ begirune handiagoz´ oharrarekin.*

aitajin *(6, 7, 8, 9) :* aita */ aitajina (6, 7):* aita. */ aitajina! ikasi dur biarnesa! (8):* aita! biarnoera ikasi dut! */ aitajina, xin bedi laguntra (9):* aita, etor bedi laguntzera. OH. Izagirrek ´berari dei egiterakoan bakarrik gaineratzen omen diote ´jina´ hori´ oharrarekin dokumentatua.

aitakunde *(5)* : *(erl.)* aitakunde (eguna) OH. Azkuek ´sexagesima osteguna´ zehaztua.

aitamak *(5, 7)* : aita-amak, gurasoak */ aitamek beren umen artean, zartagia bear dei xakin guardatan (5):* aita-amek beren umeen artean, zartagina gordetzen jakin behar dute. */ aitamek [seme-alabak] ekusi ditei (7):* gurasoek seme-alabak ikusi dituzte.

aitanditxarko *(5, 10)* : *(nek.)* txorimalo

aitani *(7)* : aitona */ [aitaren aita] aitani da (7):* aitaren aita aitona da. */ ene aitaniaren biloa zuri [da] (7):* nire aitonaren ilea zuria da.

aitañi *(8)* : aitona

aitaorde *(2)* : aitaorde */ Jose zer zen? aitaorde (2):* Jose zer zen? aitaordea.
aitatamak *(7, 8, 10)* : aita-amak, gurasoak */ ene aitatamak gizen [dra] (7):* nire aita-amak gizenak dira. */ nik moite dutur aitatamak (7):* nik maite ditut gurasoak. */ aitatamek ekusi [dei] (7):* aita-amek ikusi dute. */ ene aitatamek uskara elerraiten zezein (8):* nire aita-amek euskara hitz egiten zuten. */ aitatamek mendian aintzak tsantz (10):* aita-amek mendian ahuntzak jez(ten zituzten).
aitaxun *(2, 5, 7, 9)* : aitaorde
aiteder *(7)* : aitabitxi
aitejin *(6)* : aita */ aitejiña (6):* aita. OH. ´Aitejiña = aita´ hitza Urzainkikoa da.
aitetamak *(2)* : aita-amak, gurasoak
aitijin *(5)* : aitona
aitizun *(5)* : aitaorde
aitzin *(5)* : aurre, aitzin */ itsusi dago jentearen aitzinean eskoinezko lanak ezkerraz egitea (5):* itsusi dago jendearen aitzinean eskuineko lanak ezkerraz egitea. */ Ameriketara xoan aitzinean goiti zeuria ta apal lurra nitien, geroztik duntu naiz (5):* Ameriketara joan aurretik goian zerua eta behean lurra nituen, geroztik (ondasunez) jabetu naiz.
aitzin-egun *(5)* : bezpera OH. ´Aitzin´ eta ´aintzin-egun´ dokumentatuak ´bezpera´ esanahiarekin.
aitzinadanik *(5)* : aldez aurretik
aitzinetik *(5)* : antzinetik
aixa *(7)* : erraz, aise */ igaitea aixa da (7):* igotzea erraza da. */ eztu kain aixa (7):* ez du hain erraza.
aixalatu *(5)* : xaxatu, zirikatu (?)
aixatu *(7)* : erraztu
aixkide *(10)* : adiskide
aixkol *(5, 11)* : *(bot.)* aixkol
aixkolta *(5)* : aizkoratxo
aixkora *(5, 9)* : aizkora */ iror aixkora (9):* hiru aizkora.
aixto *(10)* : aizto */ eztein eraman aixtoak (10):* ez ditinate eraman aiztoaa.
aizaberro *(5)* : *(nek.)* auzalabakitze, auzaluberritze
aizabulgu *(5)* : *(erai.)* udaletxe OH. Jatorriz ´udalbatza´ zela pentsa liteke > ´aizo-bil-gu´ (?).
aizalan *(5)* : auzolan
aize 1 *(5)* : *(met.)* haize */ aize otzaren berokia emonen dakad (5):* haize hotzaren berokia emanen diat (= ezer ez). */ aizea buzka dabila (5):* haizea puzka dabil.
aize 2 *(5)* : ehiza
aize 3 *(5)* : gogo, nahikari (handia) */ karek badu bai aize! (5):* hark badu bai nahikari (eta gogo)!
aize 4 *(5)* : bizitasun (ibilkeran, lanean eta)
aize 5 *(5)* : harrokeria, hantuste
aize-beroki *(5)* : haize-beroki OH. Haizetik babestutako lekua.
aize-bolada *(5)* : haize-bolada
aize-ero *(5)* : haize-laster */ aize-ero[a] (5):* haize-lasterra.
aizen *(5)* : duintasun */ aizen bage (5):* duintasun gabe.
aizenar *(5)* : hausnartze, hausnarketa
aizetari *(5)* : ehiztari
aizetse *(5, 9)* : *(erai.)* udaletxe */ aizetsera [xuaitan naz] (9):* udaletxera noa.

aizetxe *(5)* : *(erai.)* udaletxe
aizina 1 *(5)* : itxaropen */ banian zerbait aizina deuri oilten zaitadala, askazia bainion (5):* banian zerbait itxaropen dirua bidaliko zidala, senidea bainuen.
aizina 2 *(5)* : kezka, ardura */ korrek eztu aizinarik (5):* horrek ez du kezkarik, ardurarik.
aizka *(5)* : aieneka, aiezka
aizkol *(5)* : *(bot.)* zalke
aizkora *(5)* : aizkora */ aizkora gozailua (5):* aizkora ongi gozatua.
aizkora-begi *(5)* : aizkora-begi OH. Aizkoraren kirtena sartzeko zuloa.
aizkora-ganga *(5)* : aizkora-ganga OH. Aizkoraren ´atzealdea´, ahoa ez dena.
aizkora-palak *(5)* : aizkora-palak OH. Aizkora buruaren bi aldeak.
aizkorigoiñ *(5)* : aizkora-kirten
aiznar *(5)* : hausnartze, hausnarketa
aiznarrean *(5)* : hausnarrean
aizo 1 *(5)* : auzo, auzotar
aizo 2 *(5)* : auzotasun
aîzpa *(2, 8)* : ahizpa */ zomat aîzpa zrei? (8):* zenbat ahizpa zarete? */ ene aîzpa zen kura (8):* hura ene ahizpa zen.
aizpa 1 *(5, 7, 8, 10)* : ahizpa */ Edurne eta Idoia aizpak dra (7):* Edurne eta Idoia ahizpak dira. */ ene aizpareki [xoaitan nun] (7):* nire ahizparekin joaten naun. */ ni eta aizpa leinak [gindezun] (10):* ahizpa eta ni lehenak ginen. */ nik betik uskara aizpareki (10):* nik beti euskara ahizparekin. */ guziek aizpari uskaraz (10):* guztiek ahizpari euskaraz. */ aizpa andiena (10):* ahizpa handiena.
aizpa 2 *(5)* : ahizpa (landarea) OH. Lurretik bateratsu hazten diren bi adarrak edo zurtoinak.
aîzpaxun *(2)* : ahizpaorde
aizpe *(1)* : haizpe */ aizpea (1):* haizpea.
aizpil *(5)* : *(bot.)* sagar (mota bat)
aizpilatze *(5)* : *(bot.)* sagarrondo (sagar mota batena)
aizter(rak) *(10)* : guraize(ak)
aîzter(rak) *(8)* : guraize (handiak) */ aîzterrak (8):* guraizeak. OH. Mitxelenak ´ganaduari ilea moztekoak´ oharrarekin dokumentatua.
aizterko(ak) *(5, 8)* : guraize (txikiak) */ aizterkuak tilindon (8):* guraizeak zintzilik.
aîzterko(ak) *(8)* : guraize (txikiak) */ aîzterkuak (8):* guraizeak.
aizto *(5, 7, 8)* : aizto */ mosarrea arri beltza da ta txastauen egiteko ta aiztoen zorroztako ebiltan dugu (5):* arbela harri beltza da eta garbiketak egiteko eta aiztoak zorrozteko erabiltzen dugu. */ aiztoa txorrotz [da] (7):* aiztoa zorrotza da. */ aiztua (8):* aiztoa.
aîzto *(8)* : aizto */ aîztua (8):* aiztoa.
aiztur(rak) *(4, 5)* : guraize (handiak) */ artu aizturrak besapean, eta etsera fan zen (4):* guraizeak besapean hartu, eta etxera joan zen.
aizturko(ak) *(5)* : guraize (txikiak) */ aizturko xorrotxzale (5):* guraize zorroztaile(a).
aizun *(5)* : ordezko, faltsu
ak *(4)* : hark */ ak ezozkeila elluak gen (4):* hark ez zitzakeela euliak kendu.
akaballozko *(4)* : zaldizko OH. Ikus ´akalero´ sarrera.
akabantxa *(3, 4)* : bukaera, amaiera */ egita da mundiuaren akabantxa (3):* igita munduaren amaiera da. */ kola egiten da mundiuaren akabantxan (3):* horrela egiten da munduaren

amaieran. */ zoin izanen da zore xitiaren señalia? eta mundiuaren akabantxarna? (3):* zein izanen da zure etorreraren seinalea? eta munduaren amaierarena? */ akabantxarentako (4):* amaierarako.

akabatu *(3, 4, 5, 7, 10)* : bukatu, amaitu */ [Jesusek erakustia kuek emoitiaz] akabatu zion (3):* Jesusek irakaspen hauek ematen bukatu zuen. */ txerria il biar dud, xanaria akabatu baidud (4):* txerria hil behar dut, janaria bukatu baitut. */ orai gaude eltzuka, fite akabaten digu (4):* orain eultzian ari gara, azkar bukatuko dugu. */ eztozked akaba leitiaz (4):* ez ditzaket irakurtzen bukatu. */ gaizak estimatruk izan tian, bear dei akabatu obenenean (5):* gauzak estimatuak izan daitezen, onenean bukatu behar dute. */ guarpenari ezau akabatan tenpra (5):* oroimenari ez zaio bukatzen denbora. */ eztiar utzen akaba artio (7):* ez dut utziko bukatu arte.

akaitu *(2, 4, 5, 9, 10)* : nekatu */ akaitu zena? ez, jina. (2):* nekatu al zen? ez, jauna. */ ni ere akaitruk nago ñore lanetaz (4):* ni ere nekaturik nago neure lanetaz. */ akaitruk bainago, orai xa eztaud obro isartan (4):* nekaturik bainago, orain jada ez diot gehiago jartzen (idazten). */ nik ler andi bat egotsi nion ta, akaitu bainintzen, xaxeri nintzen ebakiondoan (5):* nik pinu handi bat bota nuen eta, nekatu bainintzen, eseri egin nintzen ebakiondoan. */ akaitu nezu (9):* nekatu naiz. */ ez gindezun akaitan ere (9):* ez ginen nekatu ere egiten. */ [menditik] gentea xin da, akaitu[k] (9):* menditik jendea etorri da, nekaturik. */ laster egiteaz akaitu (10):* lasterka egiteaz nekatu. */ egon dun akaitu[k] (10):* nekaturik egon dun.OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

akalero *(10)* : zaldiz, zaldi gainean; astoz, asto gainean */ nora xoaitan yaz, akalero astoan? (10):* nora hoa asto gainean? */ akalero, asto gainian, mendiala xoan biar (10):* astoz, asto gainean, mendira joan behar. OH. ´Akalelo´ aldaera ere dokumentatua.

akar *(5, 9)* : liskar, ahakar; haserre */ akarren dauden (9):* liskarrean zauden.

âkar *(5)* : liskar, ahakar; haserre

akartu *(7)* : haserretu */ [morroiak errege bezpran] akartan zrela (7):* mutikoak errege bezperan haserretzen zirela. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

akeitu *(7, 9)* : nekatu */ anitx akeitruk nago (7):* oso nekatuta nago. */ akeitu nun (9):* nekatu naun.

aker *(2, 4, 7, 9)* : *(zoo.)* aker */ akerra biladuna (4):* akerra ileduna. */ aker bat, akerra (9):* aker bat, akerra.

akertxo *(2)* : *(zoo.)* antxume ar, akertxo OH. Urte bateko antxume arra.

aketz *(2, 4, 5, 9)* : *(zoo.)* aketz */ aketza (4, 9):* aketza.

akilu *(5)* : akuilu */ debriareki dabilanak bear dik akilua luze (5):* deabruarekin dabilenak behar dik akuilua luze.

akonkili *(9, 11)* : sorbaldan */ ar zan [aurra] akonkili (9, 11):* har ezan haurra sorbaldan.

akulu *(5)* : akuilu

akullu *(5)* : akuilu

akzione *(4)* : azio, gaiztakeria */ jesusian egin zein arzatzek akzionia (4):* amen batean egin zuten ahariek azioa.

al *(9)* : ahal (desirazkoa) */ nonbeit al diaun (9):* nonbait izango ahal dinagu.

al ekun *(3, 4, 5, 7, 10)* : ahal izan */ ñork ere ezabein al ekun errespondítu ele bat ere (3):* inork ere ez zion erantzun ahal izan hitz bat ere. */ nola al ekunen digu erden? (3):* nola aurkitu ahal izango dugu? */ gunian al ekunen dau etsia sakia (3):* orduan ahal izango dio etxean dena lapurtu. */ al tzein guziua [imitatan dauzeilarik] (3):* ahal duzuen guztia imitatzen duzuela. */ erin al du (3):* erein ahal du. */ guk al ekun tzagun guarda (3):* guk gorde ahal izan dezagun. /

al banu (4): ahal banu. */ al dokedan tenpra guziuaz (4):* ahal dudan denbora guztiaz. */ al dionian oil dazaula nai dion guziua (4):* ahal duenean bidal diezaiola nahi duen guztia. */ xinistian nago orai xa, sontotruk al dagola (4):* sinetsita nago orain jada, sendaturik egon ahal dela. */ nik osagarrireki lagunten daud al duanaz (4):* nik osasunarekin lagunduko diot ahal dudanaz. */ korregatik biar digu emon zûrari al digun guziuaz (4):* horregatik eman behar diogu egurrari (= landu behar dugu) ahal dugun guztia. */ obro egiten du nai dionak ezik al dionak (5):* gehiago egiten du nahi duena, ahal duenak baino. */ zomait [egon] al dun altxatruk (7):* zenbait egon ahal dun ezkutaturik. */ xatan al du (10):* jan ahal du, jaten ahal du. */ al zien gisa, tserteka xoan [zen] (10):* ahal zuen moduan, arrastaka joan zen. */ arrapatan al balin bazein (10):* harrapatu ahal baldin bazuten.

al ekuntu *(3, 9)* : ahal izan */ zertra galtakeria kaur, prezio anditan al ekuntu zenian kaur saltu? (3):* zertara (dator) eralketa hau, prezio handian ahal izan zenean hau saldu? */ posible dia etzeila al ekuntu bijila oren bat enekin? (3):* posible al da ez duzuela nirekin ordu batez zaindu ahal izan? */ ogia nasi [nai nizun] ta eztiezt al ekuntu (9):* ogia nahasi nahi nuen eta ez dut ahal izan.

al eta ezin *(5)* : ahal eta ezin, ahal edo ezin */ gizon batek lan bat gunean ezoken egin eta beste batek araztu zaun, al eta ezin (5):* gizon batek lan bat orduan ez zezakeen egin eta beste batek behartu zuen, ahal eta ezin.

al izan *(4, 8)* : ahal izan */ al izan banu (4):* ahal izan banu. */ al banu, al banoke (4):* ahal banu. */ kori al da (8):* hori (izan) ahal da; hori izango da.

-ala 1 *(5)* : -ahala */ eragiala (5):* ekarriahala (= ekar daitekeen guztia).

ala 1 *(5)* : bazka, larre

-ala 2 *(10)* : -ra */ akalero, asto gainian, mendiala xoan biar (10):* astoz, asto gainean, mendira joan behar. */ Uruñala (10):* Iruñera. OH. Ikus ´-ara´ sarrera.

ala 2 *(4, 7, 9, 10)* : ala */ eztakid gaxki ala onki eskribitan daudan (4):* ez dakit gaizki ala ongi idazten diodan. */ ya bordaltu drenez ala neskato dauden [xakiteko] (4):* ea ezkondu diren ala neskazahar dauden jakiteko. */ zer zra zu, zuri ala beltz? (7):* zer zara zu, zuria ala beltza? */ on ala gaixto? (7):* (eguraldi) ona ala txarra? */ gerran ala bakean edo bietan (7):* gerran ala bakean edo bietan. */ bea adi aber gizon ala emazte den (9):* begira ezak ea gizona ala emakumea den. */ zomaitek ekusiren dei zer egitan dien gentiak, onki ala doiki (10):* zenbaitek ikusiko dute zer egiten duen jendeak, ongi ala doiki. */ gaiza itsusia guziak beleizurik, ala ezteia? (10):* gauza zatarra guztiak biluzik, ala ez al da?

ala-ala *(5)* : *(haur.)* apapa

ala... ala... *(4, 7)* : ala... ala..., edo... edo... */ ez dakid ala ez nion ikasi ala antze zren (4):* ez dakit edo ez nuen ikasi edo ahantzi ziren. */ ala eztakin ala yaz gezurrandi (7):* edo ez dakin edo gezurtia haiz.

alaba *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : alaba */ Juakinen eta Anaren alaba (2):* Joakinen eta Anaren alaba. */ Jairoren alaba [erresuzitatan du] (3):* Jairoren alaba berpizten du. */ ene alaba il [da] (3):* nire alaba hil da. */ alaba bere amarenganik [berextra xin naz] (3):* alaba bere amarengandik bereiztera etorri naiz. */ alaba eta ni alkar mintzaten gra uskaraz (4):* alaba eta ni elkarrekin mintzatuko gara euskaraz. */ alaba deitruk izan da (4):* alaba deitua izan da. */ sagar kartarik xan lezana jeinaren seme ta alaba (5):* sagar hartatik jan lezana jaunaren seme eta alaba. */ aita batek alabari egun batez erran zaun (5):* aitak batek alabari egun batez esan zion. */ alaba gaztena naz (7):* alaba gazteena naiz. */ ez diar semerik ez alabarik (7):* ez diat semerik ez

alabarik. */ nik badur alaba bat Ameriketan (8):* nik badut alaba bat Ameriketan. */ alabek ezteila deirurik (9):* alabek ez dutela dirurik. */ alabañoa (9):* alabatxoa. */ kaur Eibarren eta bi alaba Madriden (10):* hau Eibarren eta bi alaba Madrilen. */ orai nuzu bost alabareki eta bi seme (10):* orain nauzu bost alabarekin eta bi seme(rekin).

alabader *(5)* : alababitxi, alaba besoetako

alabaeder *(2)* : alababitxi, alaba besoetako

alabaxun *(2)* : alabaorde

alabeder *(9)* : alababitxi, alaba besoetako

alagu 1 *(2)* : bazka, larre

alagu 2 *(5)* : bazka */ kalako alagunean alagu ona dago (5):* halako bazkalekuan bazka ona dago.

alagune *(5)* : bazkaleku, angio */ kalako alagunean alagu ona dago (5):* halako bazkalekuan bazka ona dago.

alaldi *(5)* : bazka-aldi

alarbe *(5)* : basati (pertsona)

alargun *(3, 5, 8, 9)* : alargun */ alargunen etsiak (3):* alargunen etxeak. */ alargun, begi ulun (5):* alargun, begi ilun (goibel). */ irorak alargun [gra] (8):* hirurak alargunak gara. */ ogeitamar urtetan baratu alargun (8):* hogeita hamar urterekin geratu (nintzen) alargun. */ tenpra anitx dien alargun nagola (9):* denbora anitz dun alargun nagoela.

alargunsa *(5)* : alargun, alarguntsa

alarguntsa *(5)* : alargun, alarguntsa */ alarguntsa kura nexarrez zagolarik, niri ere gogoa azkatu zitan (5):* alargun(tsa) hura negarrez zegoela, ni ere hunkitu nintzen.

alatu *(3, 5)* : bazkatu */ ez urrin kantik, txerri saldo andi bat [zagon], alatan (3):* handik ez urrun, txerri saldo handi bat zegoen, bazkatzen. */ alatra eraman, alatzera eraman (5):* bazkatzera eraman (abereak). OH. Iparraldean ´alhatu´ dokumentatua.

aldai *(5)* : aldai (gonazpiko atala) OH. Erronkariko gonazpikoaren zati gorria.

aldaime *(5, 9, 11)* : *(anat.)* mehaka, sarkutz OH. Izagirrek eta Aznarezek ´txerriarena´ oharrarekin dokumentatua.

aldakor *(5)* : aldakor

aldapa *(2)* : aldapa

aldar *(5, 11)* : azpildura, bazterki (mota bat) OH. Azkuek ´zabala, gorria, gonazpikoaren barrualdean jartzen dena´ zehaztua.

aldarteka *(5)* : aldarteka */ aldarteka lanak egin (5):* aldarteka lanak egin (tarte libreka).

alde *(1)* : alde */ Mira aldea (1):* Mira aldea. */ errota aldea (1):* errota aldea.

aldi 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : aldi */ zerengatik [egin] biar dugu kainbat aldiz? (2):* zergatik egin behar dugu hainbat aldiz? */ aldi kontan [Pedro abañatan] zitzaularik, erran zaun (3):* aldi honetan, Pedro hurbiltzen zitzaiola, esan zion. */ zomat aldiz? (3):* zenbat aldiz? */ ein aldiz obro (3):* ehun aldiz gehiago. */ berze bi aldiz erkin zen (3):* beste bi aldiz atera zen. */ kontu baten bi aldiz kontatako (4):* kontu bat bi aldiz kontatzeko. */ Urzainkiko mestara urtean bi aldiz bustegi bageko ardiak eragutan tei (5):* Urzainkiko mestara urtean bi aldiz buruzagi gabeko ardiak ekartzen dituzte. */ zomait aldiz (7):* zenbait aldiz, zenbaitetan. */ bortua egari dud bi aldiz (7):* bortua bi aldiz igaro dut. */ iror aldiz erran nia[n] (7):* hiru aldiz erran ni(n)an. */ Oloronen enuzu izan beizik bein, aldi batez (8):* Oloronen ez naiz izan behin baizik, aldi batez. */ amar aldiz kola (8):* hamar aldiz horrela. */ aldi batez, bi aldiz, iror aldiz (9):* aldi batez, bi aldiz, hiru aldiz. */ zomait aldiz (10):* zenbat aldiz. */ aldi batez xon zria bi mazte biajez (10):* aldi batez bi

emakume bidaian joan ziren.

aldi 2 *(2)* : txerri-talde

aldi anitxez *(3)* : askotan, anitz aldiz */ ene semia aldi anitxez [erortan da] uriara (3):* ene semea anitz aldiz erortzen da uretara.

aldi oro *(3)* : aldi oro */ noiz? zomait obra on egiten astan gren aldi oro (3):* noiz? zenbait ekintza on egiten hasten garen aldi oro. */ egunian faltatan dren aldi oro [bekatu egitan dei] (3):* egunean huts egiten duten aldi oro bekatu egiten dute.

aldi oroz *(3, 4, 5)* : aldi oro */ kaur egin zinein aldi oroz ene anaxe zomaitekin, enekin egin zinein (3):* nire anaia zenbaitekin hau egin zenuten aldi oro, nirekin egin zenuten. */ bozkario batek artan nu orren letrak ekustan duan aldi oroz (4):* poz batek hartzen nau berorren letrak ikusten ditudan aldi oro. */ eskribitan daudan aldi oroz (4):* idazten diodan aldi oro. */ kura xanztan duran aldi oroz egoartan naz Antoniotaz (5):* hura janzten dudan aldi oroz oroitzen naiz Antonioz. */ koriek aomixtatan dra, [x]untatan dran aldi oroz (5):* horiek murmurikatzen dute elkartzen diren ali oro.

aldikal *(5)* : txandaka */ gore ardiak aldikal artzainkatan tugu (5):* gure ardiak txandaka larreratzen ditugu.

aldizka *(3)* : aldizka */ faiten denian eltuz gaia, erraiten tzei aldizka´ tenpra ona eginen du´ (3):* gaua helduz doanean, aldizka erraten duzue ´eguraldi ona eginen du´.

alegi *(5)* : alegia, elezahar

alegiara *(5)* : txantxetan */ gore iditik alegiaraz igari zen (5):* gure herritik txantxetan (txantxak eginez) igaro zen.

alegiaz *(5)* : itxurak eginez, disimulatuz */ alegiaz erran dun kori (5):* disimulatuz erran dun hori.

alert egon *(3)* : erne egon */ espiritiua egonik ere alert, aragia dago flako (3):* espiritua erne egonik ere, haragia ahul dago.

algar 1 *(5)* : garden */ zer algar dren miise ta oi-oixal koriek! (5):* zer gardenak diren izara eta ohe-oihal horiek!

algar 2 *(5)* : barban, urri (ilea) */ biloa algar du korrek, usi eztu (5):* ilea barbana du horrek, ugaria ez du.

algoaza *(5)* : erro, txanga (ate eta leihoena)

aliko *(5)* : harilko

alkar *(2, 3, 4, 5, 7, 9)* : elkar */ separatu zena korpitza eta arima alkarren artetik? (2):* bereizi al ziren gorputza eta arima elkarrengandik? */ erraiten zein alkar (3):* elkarri erraten zioten. */ xetarik bi xunta balinte alkar edo beren artian lur gainian (3):* zuetariko bi elkartuko balira lur gainean. */ erraiten alkar (3):* elkarri erraten. */ anitxek ugunten [die] alkar (3):* anitzen elkar gorrotatuko dute. */ alaba eta ni alkar mintzaten gra uskaraz (4):* alaba eta ni elkarrekin mintzatuko gara euskaraz. */ emazte[ak] dra alkar falta-erkinzale (5):* emakumeak elkarren akats-ateratzaileak dira. */ alkarren leian (5):* elkarren lehian. */ aurrideak alkar moite dutzu (7):* haurrideek elkar maite dute. */ anitx moite gindezun alkar guzuak (7):* anitz maite genuen elkar guztiok. */ alkar ankartu tun (9):* elkarrekin haserretu ditun.

alkar bizi *(3)* : elkarrekin bizi */ bakian alkar bizi izan ditian (3):* bakean elkarrekin bizi izan daitezen.

alkar-lan *(5)* : auzolan */ alkar-lanak (5):* auzolanak.

alkate *(1, 7, 8, 9, 10)* : alkate */ alkate iturria (1lm):* alkate iturria. */ apezak eta eta alkatek konpotu ziteia (7):* apaizak eta alkateak konpondu zinaten. */ alkatia (10):* alkatea.

alkatu *(5)* : aldendu */ alka adi (4):* alden hadi.

alke *(5, 7, 9)* : lotsa */ ez naz alkez egonen (5):* ez naiz lotsaz egongo. */ goseak ez du izaguntan alkea (5):* goseak ez du ezagutzen lotsa. */ erran zazu egia alkerik bage (7):* esan ezazu egia lotsarik gabe. */ alkez [ilen dun] (7):* lotsaz hilko dun. */ ezan ekun alkerik (9):* ez ezan lotsarik eduki. */ zerengatik yago alkez? (9):* zergatik hago lotsaz?

âlke *(3, 4)* : lotsa */ âlkez ixiltan diona zomait bekatu (3):* zenbait bekatu lotsaz isiltzen duena. */ âlke bernajerik bage (4):* lotsa batere gabe.

alke ekun *(7)* : lotsa izan

alkebage *(9)* : lotsagabe */ exil adi, alkebage! (9):* isil hadi, lotsagabe!

alkeor *(5)* : herabe

alkeri *(5)* : irain, laido

alketi *(5)* : lotsati

alketu *(5, 10)* : lotsatu */ betik yakad pensamentiuan eta erraitra alketan nun (5):* beti haukat pentsamenduan eta esaten lotsatzen naun. */ maztiak baratu [zren] alketuk (10):* emakumeak lotsaturik geratu ziren.

alki *(5)* : aurki, aurrealde (oihalena)

alko *(5)* : mordo, luku (berezko frutu sortatxoa)

alkortu *(5)* : lotsatu (nork nor)

almadia *(5)* : almadia

alme *(5)* : *(suk.)* behiki (?) OH. Azkuek zein abereren haragia den zehaztu gabea.

almeriz *(11)* : almeriz OH. Baratxuriak xehetzeko tresna.

almute *(3, 10)* : *(nek.)* almute (gari neurgailua) */ ixiki ere ez deiteke argia izartako almute baten pean (3):* argia piztu ere ezin da egin, almute baten pena jartzeko. */ [orantza] nastekatu iror almute irinekin (3):* legamia nahasi hiru almute irinekin. */ almutea, almutia (10):* almutea.

alor *(1, 2, 3, 4, 5)* : *(nek.)* alor, soro */ alor gorria, alor makurra (1):* alor gorria, alor okerra. */ Mearen alorra (1):* Mearen alorra. */ eper alorra (1):* eper alorra. */ [Jesus] alor erin altaka banetarik [igari zen] (3):* Jesus alor erein batzuen albotik igaro zen. */ ontziegile baten alorra [erosi zein] (3):* ontziegile baten alorra erosi zuten. */ alorretra juan da (4):* alorretara joan da. */ alorretarik xin da (4):* alorretatik etorri da. */ alorrak ogia [emoiten du] (5):* alorrak garia ematen du.

altadar *(5)* : altadar OH. Azkuek ´zuhaitzean bertan moztutako egurra´ esanahiarekin dokumentatua.

altaka *(3, 4)* : ondo, albo, aldamen */ Kafarnaun itxasoko ziudade, Zabulonen mugante edo altakan (3):* Kafarnaun itsasoko hiria Zabulonen mugante edo alboan. */ [Jesus] alor erin altaka banetarik [igari zen] (3):* Jesus alor erein batzuen albotik igaro zen. */ bi utsi bidiaren altakan [xaseririk zauden] (3):* bi itsu bidearen ondoan eseririk zeuden. */ aren altakan xaseri[rik] (3):* haren ondoan eserita. */ naroder ekusen nindion orren altakan (4):* maiz ikusiko ninduen berorren alboan. */ altakan elluen oiltako bear ztein lakaioak (4):* ondoan euliak bidaltzeko behar zituen lekaioak.

altakal *(5)* : albo, aldaka

altaketan *(3)* : ondoan, alboan */ kori bera egotxtan zabein begitarteara, [ebaszale] kruzifikatruk zaudenek aren altaketan (3):* hori bera aurpegiratzen zioten haren ondoan gurutziltzaturik zeuden lapurrek.

altakoi *(5)* : aldakor

altakor *(5)* : aldakor

altapa *(5, 11)* : aldapa */ altapan eitz nazak ñore urratsean (5):* aldapan utz nazak neure urratsean. */ altapa gaina (11):* aldapa gaina.

Altapazar *(7)* : *(geog.)* Galipentzu */ Altapazar da dien bere izena (7):* Altapazar da (Galipentzuk) duen bere izena.

altape *(5)* : aldapa

altare *(2, 3, 4)* : *(erl.)* aldare */ altarekoa zer da? (2):* aldarekoa zer da? */ altarian dagona nor da? (3):* aldarean dagoena nor da? */ eitzazu zore oberta altariaren antzinian (3):* utz ezazu zure eskaintza aldarearen aurrean. */ altariaz juramentu egiten badu (3):* aldareaz juramentu egiten badu. */ gunian izaren tizei zure altare gainian xerreruak (4):* orduan jarriko dituzte zure aldare gainean aratxeak. */ ´ttik´ erraiten zen emaztek altarier egiten zein erreberenziari (4):* ´ttik´ esaten zitzaion emakumeek aldareei egiten zieten erreberentziari.

altarte *(5)* : aldarte

altatu 1 *(7, 8, 10)* : aldatu */ altatu nun eta ereixi nun (8):* (arropaz) aldatu naun eta orraztu naun.

altatu 2 *(5)* : lekualdatu, tokiz aldatu */ alta zak kori, altatu dud (5):* alda ezak tokiz hori, aldatu dut.

alte 1 *(1, 2, 4, 5, 6, 7, 9, 10, 11)* : alde */ borda altea, gaztelu altea (1):* borda aldea, gaztelu aldea. */ Erratxuko errota altea (1):* Erratxuko errota aldea. */ alte ezkerreko soinetik alte eskukoara (2):* ezker aldeko sorbaldatik eskuin aldekora. */ kan dagola xaseririk bere aitaren alteskoieko altian (2):* han dagoela eseririk bere aitaren eskuineko aldean. */ Jordanen berze altiara [faiten da] (3):* Jordanen bertze aldera joaten da. */ Jordanen berze alteko [gente anitx] (3):* Jordanen bertze aldeko jende anitz. */ barneko altetik biotzian zaudei beterik zikinguz (3):* barruko aldetik bihotzean zikinkeriaz beterik zaudete. */ mendi altiara [erkin zren] (3):* mendi aldera atera ziren. */ gure alte (6):* gure alde. */ [iguzkia] beste altetik sartan da (7):* eguzkia beste aldetik sartzen da. */ ´gisa berian´ da kebenkua, ´ber gisan´ beste altekoa (7):* ´gisa berean´ hemengoa da, ´ber gisan´ beste aldekoa (Zuberokoa). */ alte batarik bestiara (9):* alde batetik bestera. */ zer altetan dago? (9):* zein aldetan dago? */ guziak alte batra (10):* guztiak alde batera. */ beste banen altiara [xoanen naz] (10):* beste batzuen aldera joanen naiz. */ Garjon altea (11):* Garjon aldea. */ oxezki altea (11):* laiotz aldea.

alte 2 *(5)* : ados, konforme

alte bat eitzi *(4)* : alde batera utzi */ kalaz, eitzi digu alte bat (4):* halaz, alde batera utzi dugu (kontu hori).

alteka *(5, 8, 9, 10)* : ondo, albo, aldamen */ altekan duzu ene etsea (5):* alboan duzu ene etxea. */ bi ollo biar dur izarri altekan (8):* bi oilo jarri behar ditut alboan. */ aurra ene altekan [izarri nian] (9):* haurra nire alboan jarri nuen. */ mendian altekan (9):* mendiaren ondoan. */ bi alteketan (9):* bi alboetan. */ altekan (10):* ondoan.

altepa *(9, 10)* : aldapa */ altepa barna (9):* aldapa(n) behera. */ ez neiteken igan altepa gora (9):* ez naiteke igo aldapa(n) gora. */ ez neiteken igan altepa gora (10):* ez naiteken igo aldapa(n) gora.

alterdi *(5)* : erdi ergel, erdi tentel

alterdi makur *(5)* : ergel, tentel, lelo

alterdika *(5)* : alde erdika OH. Uztarturiko idiak gaizki ibiltzea.

alteren alte *(5)* : aldez alde

altesker *(9)* : ezker */ semearen alteskerrean (9):* semearen ezkerrean.

alteskoi *(2)* : eskuin */ kan dagola xaseririk bere aitaren alteskoieko altian (2):* han dagoela eseririk bere aitaren eskuineko aldean.

altesku *(9)* : eskuin */ karrika kori geintik, altesku (9):* kale horretatik, eskuin(era). */ alabaren alteskian (9):* alabaren eskuinean.

altren alte *(5)* : aldez alde

altxabea 1 *(5)* : ezkutaleku, ezkutatoki */ gore iriko etseak banak ager-agerrean daude ta besteak ozkumean edo altxabean (5):* gure herriko etxeak batzuk ageri-agerian daude eta besteak ezkutalekuan. */ ozkumez ozkume edo altxabeaz altxabea ebilten dra aurrak, eskolara joan nai ezteinean (5):* ezkutalekuz ezkutaleku edo ezkutatokiz ezkutatuko ibiltzen dira haurrak, eskolara joan nahi ez dutenean.

altxabea 2 *(5)* : aurrezki (ezkutuan gordea) OH. Zaraitzun ´altxabira´ dokumentatua.

altxabea 3 *(5)* : ezkutuan */ guk karen altxabean egin dugu eginbearra (5):* guk haren ezkutuan egin dugu eginbeharra.

altxagune *(5)* : ezkutaleku

altxaka *(5)* : ezkutaketan (pertsonak eta gauzak)

altxargi *(10)* : gordeleku */ altxargia (10):* gordelekua. OH. Artolaren materialetan ´diru-zorro´ esanahian ere uler daiteke. ´Alxargia´ eta ´altsargia´ ere dokumentatuak.

altxatarzun *(4)* : sekretu */ zure xakintarzunaren altxatarzuna [manifestatu daiztazud] (4):* zure jakinduriaren sekretua adierazi didazu.

altxatruk *(4)* : ezkutuan */ nik oilten daud paper eta estalki, eskribi daztadan altxatruk (4):* nik bidaliko diot paper eta gutun-azal, ezkutuan idatz diezadan.

altxatu 1 *(3, 4, 5, 7, 10)* : ezkutatu, gorde */ ez deiteke altxa ziudade bat mendi baten gainian (3):* ez daiteke ezkuta hiri bat mendi baten gainean. */ zore limosna bara dein altxatruk (3):* zure limosna ezkutaturik gera dadin. */ zeren deus ere ez baitago altxatruk (3):* zeren deus ere ez baitago ezkutatua. */ gaiza misterioso egon drenak altxatruk mundiua kriatruk izanez geroz (3):* ezkutuan egon diren gauza misteriotsuak, mundua sortua izan ezkero. */ zilo bat lurrian egin zion [eta deuria] altxatu zion (3):* lurrean zulo bat egin zuen eta dirua ezkutatu zuen. */ laster txikiz biar [dud] altxatu (4):* korrika gutxi eginik ezkutatu behar dut. */ zomait [egon] al dun altxatruk (7):* zenbait egon ahal dun ezkutaturik. */ altxatu nun (9):* ezkutatu naun. */ altxadi, altxa zte, altxa ztei (9):* ezkuta hadi, ezkuta zaitez, ezkuta zaitezte. */ altxatu dien, altxatan dien (10):* ezkutatu din, ezkutatzen din.

altxatu 2 *(5)* : altxatu, goratu */ tras! altxa zon eskiua (4):* tras! altxa zuen eskua.

altxatuka *(5)* : ezkutuan

altxonbide *(1)* : abelbide, altxonbide */ altxonbidea (1):* abelbidea.

altxunbide *(1)* : abelbide, altxonbide */ altxunbidea (1):* abelbidea.

altzaka *(5)* : ezkutuan

altzo *(2, 9)* : altzo, magal OH. Izagirrek ´gona jasoa (zerbait eramateko)´ oharrarekin dokumentatua.

altzotra *(5)* : altzokada, altzo bete

alu *(2)* : *(anat.)* alu

alur *(3, 5, 9, 10)* : *(nek.)* alor, soro */ [dakan guziua] saltan du eta alur kura [erostan du] (3):* daukan guztia saltzen du eta alor hura erosten du. */ gizon erin ziona azi ona bere alurrian (3):* gizona, bere alorrean hazi ona erein zuena. */ eska ztei egitarako nausiari oil tzala egitari bere alurriara (3):* eska iozue nagusiari egitarako bidal ditzala igitariak bere alorrera. */ txezei*

alurreko liliak nola anditan dren eta loratan (3): begira ezazue alorreko loreak nola handitzen diren eta loratzen. */ alur kori len garitsu zen (5):* alor hori lehen garitsua zen. */ alurreko bidea (9):* alorreko bidea. */ alurrian ebaki diaguzu belarra (9):* alorrean moztu dugu belarra. */ nontik xitan da? alurretik (10):* nondik dator? alorretik. */ zer egitan du orrek alurrian? (10):* zer egiten du berorrek alorrean? */ amandrea, ni xuan ninden atzo alurriara (10):* ama, ni joan nintzen atzo alorrera. */ alurretra [xuaitan zuntien] (10):* alorretara joaten ziren.

alla *(10)* : *(haur.)* amona OH. Artolak ´umetan baino ez erabilia´ oharrarekin dokumentatua. Ikus ´amañi´ eta ´amiña´ sarrerak.

allikatu *(5)* : harilkatu */ pasteillaka allikatan diez nik ile-aria (5):* albainuka harilkatzen dut nik artile-haria.

alliko *(5)* : harilko */ aritik txerkatan da allikoa (5):* haritik bilatzen da harilkoa.

allo *(10)* : *(haur.)* aitona OH. Artolak ´umetan baino ez erabilia´ oharrarekin dokumentatua.

allur *(10, 11)* : *(nek.)* alortxo, sorotxo; baratzetxo OH. Artolak bi txikigarri dituen ´allurko´ forma ere dokumentatu zuen. Hedadura semantikoz ´baratzetxoa´ ere erran nahi du.

ama *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11)* : ama */ aita eta amaren izenian (2):* aitaren eta amaren izenean. */ etsian sartian, erden zein aurra Maria bere amarekin (3):* etxean sartzean, haurra aurkitu zuten bere ama Mariarekin. */ alaba bere amarenganik [berextra xin naz] (3):* alaba bere amarengandik bereiztera etorri naiz. */ ene ama zenak kontatan zaitadan (4):* nire ama zenak kontatzen zidan. */ [Maria] ama eta erreina (4):* Maria ama eta erregina. */ amari [erran zaun] (4):* amari esan zion. */ Ana, ama berjinaren ama (5):* Ana, ama birjinaren ama. */ yaurek egiten yuana yore amari (5):* heuk egiten dioana heure amari. */ amarena, amarna (6):* amarena. */ ni naz zore ama (7):* zure ama ni naiz. */ amaren ama [amani da] (7):* amaren ama amona da. */ ama Uztarrozeko, amaren ama Uztarrozeko (8):* ama Uztarrozekoa, amaren ama Uztarrozekoa. */ ama baratzean [diozu] (9):* ama baratzean dago. */ badakiar amaren izena (9):* bazakiat amaren izena. */ ñardets´an amari (9):* erantzun iezaion amari. */ biramen goxan egitara aitareki ta amareki (9):* biharamun goizean igitara aitarekin eta amarekin. */ ene ama eltu [zen] laurogeita ameka [urtera] (10):* ene ama laurogeita hamaika urtera heldu zen. */ orai xin [dra] amaren ekustra (10):* orain etorri dira ama ikustera. */ amatxo (11):* amatxo. OH. Aznarezek ´amatxo´ izengoiti gisa dokumentatua.

ama berjina *(2, 4, 5, 7, 8, 10)* : *(erl.)* ama birjina */ ama berjinandria (2):* ama birjina andrea. */ biar ama berjina[ren] eguna (4):* bihar ama birjinaren eguna. */ sainta Ana , erraiten dei orrentako ama berjinaren ama dela (5):* santa Ana, berorretaz erraten dute ama birjinaren ama dela. */ ama berjina Idoikoa (Idoikua), lagun zan! (7):* ama birjina Idoikoa, lagun ezan! */ ama berjina anderi-ona (8):* ama birjina, andre ona. */ ama berjinareki, ama berjina ñotto bateki (10):* ama birjinarekin, ama birjina txiki batekin.

ama birjina *(7)* : *(erl.)* ama birjina */ ama birjina Idoikoa (7):* ama birjina Idoikoa.

ama-karats *(5)* : ume amak arbuiatu(a), ume amak gaitzetsi(a) (adj.) */ ama-karats[a] (5):* ume amak arbuiatua. OH. Ikus ´karats 2´ sarrera.

amabi *(2, 3, 5, 7, 8, 10)* : hamabi */ zer orduz eraman zieien [gore jeina]? amabietan (2):* zer ordutan eraman zuten gure jauna? hamabietan. */ amabi urte (3):* hamabi urte. */ amabien izenak dra kuek (3):* hamabien izenak dira hauek. */ Judas, amabietarik bat, fan zen egoitra [apez] ekin (3):* Judas, hamabietako bat, apaizekin egotera joan zen. */ barurik antzineko gaiko amabi ornetarik landa (3):* baraurik aurreko gaueko hamabi orduak eta gero. */ amabietan xatan (5):* hamabietan jaten. */ noiz xinen zra? amabietan puntuan (7):* noiz etorriko zara? hamabietan

puntuan. */ amabietarik antxina [bazkalten diegu] (7):* hamabietatik aurrera bazkalduko dugu. */ amabi urte ztia (10):* hamabi urte zituen. */ amabi edo amalaur urte (10):* hamabi edo hamalau urte. */ amabiak [dra] (10):* hamabiak dira (ordua).

amabigarnen *(3, 7)* : hamabigarren */ amabigarnen kapitulua (3):* hamabigarren kapitulua. */ amabigarnen ikasgei[a] (7):* hamabigarren ikasgaia.

amabigarren *(3)* : hamabigarren */ amabigarna (3):* hamabigarrena.

amaborz *(3, 4, 7, 8)* : hamabost, hamabortz */ Juanak amaborz [arraultze eraman dutu] (4):* Juanak hamabost arrautza eraman ditu. */ [kakeriak] irain daitad amaborz egunez (4):* beherakoak hamabost egunez iraun dit. */ amaborz bei [erosi diar] (8):* hamabost behi erosi ditiat.

amaborzgarnen *(3, 7)* : hamabosgarren, hamaborzgarren */ amaborzgarnen kapitulua (3):* hamabosgarren kapitulua. */ amaborzgarnen ikasgei[a] (7):* hamabosgarren ikasgaia.

amaboska *(5)* : hamaboska, hamabostean behin */ amaboska saria emoitan zau gore mitilari (5):* hamaboska saria (ordaina) ematen zaio gure morroiari.

amabost *(8)* : hamabost, hamabortz

amagiarraba *(7)* : amaginarreba

amagiarreba *(2, 3, 8, 9)* : amaginarreba */ Jesus Pedroren etsera [fatian], ekusi zion konen amagiarreba oian kalenturarekin (3):* Jesus Pedroren etxera joatean, honen amaginarreba ohean sukarrarekin ikusi zuen.

amaiarreba *(8, 9)* : amaginarreba

amaintu *(5)* : izorratu, gogaitu, amorratu */ gizon korrek amaintu nu (5):* gizon horrek izorratu nau.

amaiñatu *(5)* : suspertu OH. Azkuek ´erdi berria osasunez ondo jarri´ esanahiarekin dokumentatua.

amairor *(3, 7)* : hamahiru

amairorgarnen *(3)* : hamahirugarren */ amairorgarnen kapitulua (3):* hamahirugarren kapitulua. */ amairorgarnen ikasgei[a] (7):* hamahirugarren ikasgaia.

amaixun *(5)* : amaorde

amaizun *(4, 5)* : amaorde */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino.

amakatu *(5)* : ama-esnez elikatu

amakoi *(5)* : amazulo

amakunde *(5)* : *(erl.)* amakunde (eguna) OH. Azkuek ´septuagesima osteguna´ zehaztua.

amalau *(2)* : hamalau */ amalau drade (2):* hamalau dira.

amalaur *(2, 3, 4, 7, 8, 10)* : hamalau */ zonbat dra? amalaur (2):* zenbat dira? hamalau. */ kola dra amalaur jenerazione (3):* horrela dira hamalau belaunaldi. */ amalaur urte izanen duturanean (7):* hamalau urte (izango) ditudanean. */ amabi edo amalaur urte (10):* hamabi edo hamalau urte.

amalaurgarnen *(3, 4, 7)* : hamalaugarren */ amalaurgarnen kapitulua (3):* hamalaugarren kapitulua. */ amalaurgarnia (4):* hamalaugarrena. */ amalaurgarnen ikasgei[a] (7):* hamalaugarren ikasgaia.

amanatu *(10)* : hurbildu, gerturatu */ amanatan dun (10):* hurbiltzen dun.

amander *(2, 5, 9, 10)* : amabitxi (bataiokoa nahiz ezkontzakoa) */ amar amander, amanderra (9):* hamar amabitxi, amabitxia. */ amanderra (10):* amabitxia.

amandere *(7, 9)* : ama */ amanderea (7):* ama. */ amanderia, badakia? (9):* ama, ba al daki (berorrek)? OH. Izagirrek ´deitzeko (erabilia)´ oharrarekin dokumentatua.

amanditxarko 1 *(5)* : *(nek.)* txorimalo

amanditxarko 2 *(11)* : amanditxarko OH. Izabako inauterietako pertsonaia.

amandre *(5, 7, 8, 9, 10)* : ama */ amandrea, amandria (6):* ama. */ amandria, ez dokiar egin! (7):* ama, ez dezaket egin! */ amandria (8):* ama. */ amandrea, xin bedi laguntra (9):* ama, etor bedi laguntzera. */ amandrea, zeren erraitan du (sic) gaiski? (9):* ama, zergatik egiten dit (berorrek) errieta? */ amandrea, ni xuan ninden atzo alurriara (10):* ama, ni joan nintzen atzo alorrera. OH. Izagirrek ´deitzeko (erabilia)´ oharrarekin dokumentatua. Artolak ´begirune handiagoz´ oharrarekin.

amani *(7)* : amona */ [amaren ama] amani da (7):* amaren ama amona da.

amano *(6, 9, 10)* : hurbil, gertu */ txoriak xitan ditzu leixoetra, amano diauzu elurra (9):* txoriak leihoetara datoz, hurbil dago elurra. */ amanatan dun (10):* hurbiltzen dun.

amañatu *(5, 7)* : hurbildu, gerturatu

amañi *(8)* : amona

amaño *(5, 7, 8, 10)* : hurbil, gertu */ goikoa lurriaren amaño [dago] (7):* ilargia lurretik hurbil dago. */ amañago [dago] (7):* hurbilago dago. */ etse amaño ziena, amañoen ziena (10):* gertu zuen etxea, gertuen zuena.

amar *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11)* : hamar */ amar drade mandamentioak (2):* hamar dira manamenduak. */ amar berjinen parabola (3):* hamar birjinen parabola. */ amar zidarrezko deuritan (3):* zilarrezko hamar txanponetan. */ amar milla (3):* hamar mila. */ zortzi edo amar onza errekesun (4):* zortzi edo hamar ontza gaztanbera. */ Antoniak hamar [arraultze eraman dutu] (4):* Antoniak hamar arrautza eraman ditu. */ amar aldiz kola (8):* hamar aldiz horrela. */ kebentik kara amar urrats [dion] (9):* hemendik hara hamar urrats zagon. */ amar ilabeteren barnian [il zen] (10):* hamar hilabeteren barnean hil zen. */ amarrak [dra] (10):* hamarrak dira (ordua). */ zortzian edo amarrian (10):* (hilaren) zortzian edo hamarrean.

amarbedratzu *(10)* : hemeretzi

amargarnen *(3, 7, 8)* : hamargarren */ amargarnen kapitulua (3):* hamargarren kapitulua. */ amargarnen mandamentiuan (3):* hamargarren aginduan. */ amargarnen ikasgei[a] (7):* hamargarren ikasgaia. */ amar aldiz kola, eta amargarnian edatako (8):* hamar aldiz horrela, eta harmargarrenean edateko.

amargarren *(2, 3)* : hamargarren */ medrazu eta amargarrenean (2):* bederatzi eta hamargarrenean. */ amargarna (2, 3):* hamargarrena.

amarna *(6)* : hamarna

amarrein *(5, 8)* : mila */ amarrein edo milla (8):* ´hamarrehun´ edo mila.

amarreko 1 *(11)* : hamarreko

amarreko 2 *(11)* : zaplazteko

amarretako *(11)* : hamarretako

amartako ekun *(5)* : lapurtzat eduki */ amartako dakei (5):* lapurtzat daukate. OH. Esamolde honek hamar hatzak erabiltzearekin ote du zerikusirik?

amasei *(3, 4, 5, 7, 8)* : hamasei */ nik amasei urte niezun [Maulera] xuan nindenian (8):* nik hamasei urte nuen Maulera joan nintzenean.

amaseigarnen *(3, 4)* : hamaseigarren */ amaseigarnen kapitulua (3):* hamaseigarren kapitulua. */ erdaraz [erraiten daitad] konen amaseigarnian bordaltan dela (4):* (gutunean) erdaraz esaten

dit (hil) honen hamaseigarrenean ezkontzen dela. */ karta, konen amaseigarnekoa (4):* gutuna, (hil) honen hamaseigarrenekoa.

amaseigarren *(5)* : hamaseigarren */ aprileko amaseigarrena (5):* apirileko hamaseigarrena.

amatsordei *(5)* : hainbat okerrago OH. Azkuek ´´hanbat sordeis´ esamoldearen kontrakzioa´ oharrarekin dokumentatua.

amatxar *(10)* : ama xahar (?) */ suerte amatxar koni (10):* zortea ama xahar (?) honi (loterian). OH. ´txar´ (= txiki) ere izan liteke.

amaxun *(2, 7, 9)* : amaorde

amazazpi *(3, 7, 8, 10)* : hamazazpi */ irorogei t´amazazpi (8):* hirurogeita hamazazpi.

amazazpigarnen *(3, 7)* : hamazazpigarren */ amazazpigarnen kapitulua (3):* hamazazpigarren kapitulua. */ amazazpigarnen ikasgei[a] (7):* hamazazpigarren ikasgaia.

amazortzi *(10)* : hemezortzi */ irorogeita amazortzi urte (10):* hirurogeita hemezortzi urte.

ameder *(7)* : amabitxi

ameka 1 *(3, 8, 9, 10)* : hamaika, hameka */ bitartio, ameka [ikaszaliak fan] zren (3):* bitartean, hamaika ikasleak joan ziren. */ ene ama eltu [zen] laurogeita ameka [urtera] (10):* ene ama laurogeita hamaika urtera heldu zen. */ amekak [dra] (10):* hamaikak dira (ordua). */ [gaiaz] xitan tzu, ameketan (10):* gauez etortzen da, hamaiketan.

ameka 2 *(5)* : betoker

amekagarnen *(3, 7)* : hamaikagarren */ amekagarnen kapitulua (3):* hamaikagarren kapitulua. */ amekagarnen ikasgei[a] (7):* hamaikagarren ikasgaia.

amekagarren *(3)* : hamaikagarren */ amekagarna (3):* hamaikagarrena.

amen *(5)* : ahamen, mokadu

amenta *(5)* : ahokada

Amerika *(8)* : *(geog.)* Amerika, Ameriketa */ bi anaxe dur Amerikan (8):* bi anaia ditut Amerikan.

Ameriketa *(10)* : *(geog.)* Amerika, Ameriketa */ bi anaxe Ameriketre xuan [zuntien] (10):* bi anaia Ameriketara joan ziren. */ gero xoan zuntien Ameriketra (10):* gero ameriketara joan ziren.

amets *(3, 5)* : amets */ aînguru bat aparezitu zitzaun ametstan (3):* aingeru bat agertu zitzaion ametsetan.

amets egin *(5)* : amets egin

ameztu *(9)* : amets egin, amestu */ [anitx] ameztu nezu (9):* amets asko egin dut. OH. Kontuan izan ´ameztu nezu = amestu naiz´.

aministrazione *(4)* : administrazio */ [balle kontan] aministrazione gaxto bat [dago] (4):* ibar honetan administrazio txarra dago.

aminttirrina *(4)* : pitin, amiñi */ [besugo] amintirrina bana partitu dabeid (4):* bisigu pitintxo bana banatu diet. OH. Zuberoan ´amiñi´ dokumentatua.

amintto *(4, 7, 8, 9, 10)* : pitin, amiñi */ [besugo] kartarik niri oiltu zaitadan amintto bat (4):* bisigu hartatik niri pitin bat bidali zidan. */ amintto bat urrinxago (4):* pitin bat urrunxeago. */ ogi amintto bat (7):* ogi pixka bat. */ ene aita, gaxua, egon zia[n] amintto bat edanik (8):* ene aita, gaixoa, pitin bat edanda egon zen. */ eulki zan amintto bat (9):* itxaron ezan amiñi batean. */ amintto bat txikiago (9):* pitin bat gutxiago. */ azukar amintto bat (10):* azukre pitin bat. */ amintto bat obro (10):* pitin bat gehiago. */ amintto bat berantao (10):* pitin bat beranduago. OH. Zuberoan ´amiñi´ dokumentatua.

amînntto *(3)* : pitin, amiñi */ otoi egitan zaun erraiten ´ekun zazu pazienzia amînntto bat´ (3):* erregutzen zion esanez ´eduki ezazu pazientzia pitin bat´.

amiña 1 *(5)* : amona

amiña 2 *(5)* : atso (oso adin handikoa)

amiñarrai *(5)* : *(suk.)* azpizun

amiño 1 *(4)* : ñimiño, txikitxo */ badigu erraitia ´yunyu´, gaiza amiñoaren (4):* badugu ´ñimiño´ erratea, gauza txikitxoaz.

amiño 2 *(5, 10)* : pitin, amiñi

amiror *(8, 9, 10)* : hamahiru */ kan igari diez amiror urte (8):* han igaro dut hamahiru urte. */ nik amiror urtetan ikasi nia (10):* nik hamahiru urterekin ikasi nuen.

amorio *(2, 3, 4)* : maitasun, amodio */ amorioa (2):* amodioa. */ zore amorioagatik parketan diazkazizud agrabio egin daizteidanak oro (2):* zure amodioagatik barkatzen dizkiezut egin dizkidaten irainak oro. */ ez batzei ekutan amorio (3):* ez baduzue maitasunik edukitzen. */ ekunen du aburrimentu batari eta amorio berzeari (3):* bati gorrotoa izango dio eta amodioa besteari. */ [bere bizia] gal lezanak ene amorioz, erdenen du (3):* bere bizia ene maitasunez gal lezanak, (bizia) aurkituko du. */ jangeikuaren amoriua (3):* jaungoikoaren maitasuna. */ [orrek] amorio emoiten daitad (4):* berorrek maitasuna ematen dit. */ bakian eta amorioan [bizi izaiteko], senar-emazte gisa (4):* bakean eta maitasunean bizi izateko, senar-emazteak bezala. */ zuketzaz manifestatan digu alkar digula amoriua andiago, ezik gainaratekueki (4):* zuketaz adierazten dugu elkarri maitasun handiagoa diogula, gainerakoekin baino. */ amoriozko istoria bat [leitan du] (4):* maitasunezko istorio bat irakurtzen du.

amoros *(4)* : altan (katemea arreske)

amuintu *(5)* : aspertu

amurri *(5)* : zaputz, betizu (pertsona)

amurritu *(5)* : zoratu, erotu

-an gaintik *(7)* : -an gaindi, -an barrena */ mendian gaintik ebili gra (7):* mendian gaindi ibili gara.

anaixa *(5)* : anaia */ ainguriak ene anaixak [dra] (5):* aingeruak ene anaiak dira.

anaxa *(3, 7, 9, 10)* : anaia */ Simon eta Andres bere anaxa (3):* Simon eta haren anaia Andres. */ kan guartan bazra zore anaxak diola zomait kexu zore kontra (3):* han ohartzen bazara zure anaiak zenbait kexu duela zure aurka. */ izartan zra beiratra nata zore anaxaren begian (3):* zure anaiaren begiko izpia begiratzen jartzen zara. */ zomat aldiz biar ekunen dut parkatu ene anaxari? (3):* zenbat aldiz barkatu beharko diot nire anaiari? */ fan zte leinik [bakiak egitra] zore anaxarekin (3):* joan zaitez lehenik zure anaiarekin bakeak egitera. */ zore ama eta zore anaxak kor kanpo daudezu (3):* zure ama eta zure anaiak hor kanpoan daude. */ Judasi eta bere anaxer (3):* Judasi eta bere anaiei. */ yire anaxa gaizto [dun] (7):* hire anaia gaiztoa dun. */ anaxa (9):* anaia. OH. Hainbat hiztunek bereizten dituzte ´anaxa´ artikuluduna eta ´anaxe´ mugagabea.

anaxarrebak *(2, 7)* : anai-arrebak */ kuek anaxarrebak dra (7):* hauek anai-arrebak dira.

anaxe *(2, 3, 4, 5, 8, 9, 10)* : anaia */ antzinarago [igartan zelarik], berze bi anaxe [ekusi ztion] (3):* aurrerago igarotzen zela, beste bi anaia ikusi zituen. */ kaur egin zinein aldioroz ene anaxe zomaitekin, enekin egin zinein (3):* nire anaia zenbaitekin hau egin zenuten aldi oro, nirekin egin zenuten. */ anaxe ilik dauden[en] arima guziuentako (4):* hilik dauden anaien arima guzientzat. */ bikario jeinari [eta] bere anaxiari [bixita egin dabeid] (4):* bikario jaunari eta haren anaiari bisita egin diet. */ bi anaxe badiezt (8):* baditut bi anaia. */ amar anaxe (9):* hamar anaia. */ senarraren anaxe bat (10):* senarraren anaia bat. OH. Hainbat hiztunek bereizten dituzte ´anaxa´ artikuluduna eta ´anaxe´ mugagabea.

anaxearrebak *(9)* : anai-arrebak
anaxexun *(2)* : anaiorde
anbula *(4, 9)* : *(bot.)* anbulu zuri
anburri *(9)* : txoro (zoro samarra) */ kori anburri diaun (9):* hori txoro zagon.
andagora *(5)* : *(anat.)* orpo
andatx *(5)* : *(nek.)* endaitz (goldearen atala)
andazain *(5)* : andazain, esku-ohezain
andditu *(5)* : *(haur.)* nagiak atera
andegatu *(5)* : jasan, eutsi */ sobera [x]anez enaiteke andega (5):* gehiegi janez ez dezaket jasan.
anderdona *(2)* : *(erl.)* andre dona */ anderdona Maria (2):* andre dona Maria.
andere *(1, 7, 8)* : andre, andere */ andere Lope (1):* andere Lope. */ Simona Anaut andereari (7):* Simona Anaut andreari. */ ama berjina anderi-ona (8):* ama birjina, andre ona.
anderete *(11)* : *(zoo.)* inurri (hegoduna)
anderia *(3)* : andre, andere */ nor da gore anderia Maria? anderia bat birtutez beterik (3):* nor da gure andre Maria? andre bat bertutez betea. */ anderia konen odol[a] (3):* andre honen odola. */ arkainguru Gabriel xin zenian anderia Mariaren salutatra (3):* Gabriel goiaingerua etorri zenean Maria andrea agurtzera. */ mertxede eskatako gore anderiari (3):* mesede eskatzeko gure andreari.
anderrai *(5)* : *(anat.)* andaerrai, pleura
andi 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11)* : handi */ landa andia (1):* alor handia. */ zoko andia (1):* zoko handia. */ azienda andi[a] (2):* azienda handia. */ zoin da orazionetarik andiena? aitagorea (2):* zein da otoitzetatik handiena? aitagurea. */ argi andi bat (3):* argi handi bat. */ nor[k] biar du izan andiena? (3):* nork izan behar du handiena? */ betik baratan nazala gose andi bateki (4):* beti geratzen naizela gose handi batekin. */ [artakarroaren autsak] indar andia [du] (4):* artearen errautsak indar handia du. */ eztud esprantza andirik (4):* ez dut itxaropen handirik. */ xei anditako mezan (4):* jai handietako meza(ta)n. */ gizon ttipi arrabots andi (5):* gizon txiki harrabots handi. */ arraultze batez zartagi andian ez daiteke tortilla andia egin (5):* arrautza batez zartagin handian ez daiteke tortilla handia egin. */ berzen beiak errapea andiago (5):* besteen behiak errapea handiago. */ [bi] etxe andi (6):* bi etxe handi. */ gizon kori anitx andi [da] (7):* gizon hori oso handia da. */ zer axaxal andi eta beltz! (7):* zer azazkal handi eta beltz! */ andi balimada leina, bigarna andiagua (8):* lehena handia baldin bada, bigarrena handiagoa. */ kura andiago [duk] (9):* hura handiagoa duk. */ kori bekatu andi bat (10):* hori bekatu handia (da). */ astozar andia ni, bida garrotekaldi bat (10):* astozar handia ni, eman biezat makilaldi bat. */ Matias andi (11):* Matias handi(a).
andi 2 *(10)* : handi, nagusi */ aizpa andiena (10):* ahizpa handiena.
andi 3 *(4)* : oso, arras */ ene familiari ezau onki andi urdutu ekus tzan mundiuak zer erraiten daitadan (4):* ene familiari ez zaio oso ongi iruditu munduak ikus dezan zer erraten diodan.
andi-andirik (xoan) *(5)* : besterik gabe (joan) OH. Arrazoi berezirik gabe joan.
andigei *(5)* : handigai OH. Hazteko joera duena.
andigo 1 *(3)* : handitasun, handiera */ [reino guziuen] andigua (3):* erreinu guztien handitasuna. */ Salomon, bere andigua guziuaren erdian, [ez zen beztitu kain onki] (3):* Salomon, bere handitasun guztiaren erdian, ez zen hain ongi jantzi. OH. Iparraldean ere dokumentatua.
andigo 2 *(5)* : helduaro */ kori orai eribeila da, baia andigoan etzion deus minik ekun (5):* hori orain eribera da, baina helduaroan ez zuen deus minik eduki.

andigu *(4)* : handitasun, handiera */ andigiuetra (4):* handieretara (egokitu). OH. Iparraldean ere dokumentatua.

andika *(5)* : handizka

andiki 1 *(2)* : askotan, maiz */ zeren egin baitigu pekatia andiki (3):* zeren bekatu egin baitugu maiz. */ bekatuak andiki [egin baitugu] (2):* bekatuak askotan egin baititugu. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

andiki 2 *(7)* : ozen, ozenki */ ele erran zazu andiki (7):* hitz egin ezazu ozen.

andikote *(6)* : handikote

andilote *(5)* : alferrontzi

andisko *(5)* : handixka

anditarzun *(3)* : handitasun */ biotzeko anditarzuna (3):* bihotzeko handitasuna.

anditsu *(5)* : *(med.)* hantura */ anditsu borta (5):* hantura ez gaizkoatua (ez gaiztotua). */ anditsu mutua (5):* hantura heldu gabea.

anditu *(3, 7, 9, 10)* : handitu, hazi */ txezei alurreko liliak nola anditan dren eta loratan (3):* begira ezazue alorreko loreak nola hazten diren eta loratzen. */ eta anditu zren xatsak eta [aziak itotu ztein] (3):* eta arantzak handitu ziren eta haziak ito zituzten. */ etzu handitan (9):* ez da handitzen. */ txiki anditan tzu (9):* gutxi hazten da. */ anditu gitun tenpra batan (10):* aldi berean handitu gaitun.

anditzar *(5)* : handitzar

andixurri *(5)* : besapeko guruin */ andixurri[a] (5):* besapeko guruina.

andizkitu 1 *(5)* : handiagotu

andizkitu 2 *(5)* : harropuztu

andorratx *(5, 9)* : orratz

andorratz *(5)* : orratz handi

andra *(1)* : andre */ andra Mari (1):* andre Mari.

andre *(1, 2, 4, 5, 9)* : andre */ andre Lope (1lm):* andre Lope. */ andre dona birjinaganik [sortu zen] (2):* andre dona birjinagandik sortu zen. */ nola agitu zen andria bordal ledin? (2):* nola gertatu zen andrea ezkon ledin? */ andrea (4):* andrea. */ andre Farineta nai dei bordalaraztu (5):* andre Farineta ezkonarazi nahi dute. */ andre ona (9):* andre ona.

andre-gazna *(5)* : *(suk.)* andre-gazta */ nik aldi batez bago-zilo batan berrogei andre-gazna erden nien (5):* nik behin pago-zulo batean berrogei andre-gazta aurkitu nituen. OH. Azkuek ´gaztagileek lapurtutako gazta, pilota eginik eramaten dutena´ argibidearekin dokumentatua.

andregei 1 *(7)* : emaztegai

andregei 2 *(5)* : oinordeko, jarausle (emakumezkoa) */ etxeko andregeia (5):* etxeko (alaba) oinordekoa.

andutsi *(5)* : *(med.)* erlakaizten */ atzo arratsean lo ekuntu nion egin, andutsia zapartuz (5):* atzo arratsean lo egin ahal izan nuen erlakaiztena lehertuz.

anganeta *(5, 11)* : saski (mota bat) OH. Azkuek ´pegarrak nahiz zahagiak eramateko zumezko saskia´ argibidearekin dokumentatua. Aznarezek ´zumezko saskia´ oharrarekin dokumentatua.

animal *(4)* : animalia */ animal arraza bapana (4):* animalia arraza bakoitza.

animale *(2, 3)* : animalia */ animale guziak eta abriak (2):* animalia guztiak eta abereak. */ basa-animale eta azienda guziuek (2):* basa-animalia eta azienda guztiak. */ ilarazi dutur ene xâlak eta berze animale gizentiuak (3):* hilarazi ditut nire txahalak eta beste animalia gizenduak.

anitx -ao *(10)* : askoz -ago(a), anitzez -ago(a) */ txikiaô, anitx txikiao [orai gentia idian] (10):*

gutxiago, askoz gutxiago orain jendea herrian.

anitx 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : asko, anitz */ kala dagola zeuriko tronoan anitx majestadeki (2):* hala dagoela zeruko tronuan maiestate askorekin (handiarekin). */ anitx nexar eta irago [entzun zren] (3):* negar eta oihu asko entzun ziren. */ Jesus gente anitxekin [zagon] bere unguriuan (3):* Jesus jende anitzekin zegoen bere inguruan. */ anitxek erranen daitei juizioko egun kartan ´jeina, jeina!´ (3):* anitzek erranen didate epaiketako egun hartan ´jauna, jauna!´. */ etzazei gogo ekun anitx xardokitako (3):* ez ezazue asko hitz egiteko gogorik izan. */ ene odola izanen baita usuririk anitxengatik (3):* ene odola anitzengatik isuririk izanen baita. */ [saintiuak] aparezitu zren anitxer edo anitxi (3):* santuak askori agertu zitzaizkien. */ karentako erraiten da anitx gisatra (4):* harentzat modu askotara esaten da. */ [txutxika-loria] anitxek biltan dei tinte beltx egiteko (4):* sabuka-lorea askok tindu beltza egiteko biltzen dute. */ itz anixtan pronunziatan digu sudurrez, letra isari bage (4):* hitz askotan sudurrez ahoskatzen dugu, letra jarri gabe. */ erri anitxetarik [ebilten bainaz], anitx ekustan dian (4):* herri(alde) askotatik ibiltzen bainaiz, asko ikusten dinat. */ paxaran anitx, gari txiki (5):* patxaran anitz, gari gutxi. */ aita lazoen umek ogi txiki eta anitx bizio (5):* aita laxoen umeek ogi gutxi eta bizio asko. */ anitx daki sagiuak, baia obro gatiuak (5):* anitz daki saguak, baina gehiago katuak. */ ortz txonplek eztokei xan anitxik (5):* hortz mugikorrek ez dezakete askorik jan. */ nik anitx moite dur ene ama (7):* nik anitz maite dut ene ama. */ zer diegu bazkaltako? anitx gaiza (7):* zer dugu bazkaltzeko? gauza asko. */ badizu urte anitx (8):* duela urte anitz. */ badien anitx tenpra alargun nagola (9):* badin denbora anitz alargun nagoela. */ orrek edatan du anitx ardao (9):* berorrek ardo asko edaten du. */ irurak xuntatan gindenian, anitx elerraitan gindezun uskaraz (10):* hirurak elkartzen ginenean, anitz hitz egiten genuen euskaraz. */ anitxek badakei (10):* askok badakite.

anitx 2 *(3, 7, 8, 9, 10)* : oso */ zeren anitx andi [baita] zeurian esperatan daizein rekonpensa (3):* zeren oso handia baita zeurian izanen duzuen saria. */ ene alaba anitx gaxki [dago] (3):* ene alaba oso gaizki dago. */ onki zaudia? anitx onki, eta zu? (7):* ongi al zaude? oso ongi, eta zu? */ gizon kori anitx andi [da] (7):* gizon hori oso handia da. */ anitx akeitruk nago (7):* oso nekatuta nago. */ nola yaz? anitx onki (8):* nola haiz? oso ongi. */ marzuzak anitx goxo daudezu (9):* marrubiak oso goxoak daude. */ paper kau anitx gaisto [dun] (9):* paper hau oso txarra dun. */ bizia triste ta gizonak anitx kontent (10):* bizia triste eta gizonak oso pozik. */ kario saltan [da], anitx kario (10):* garesti saltzen da, oso garesti.

anitx aldiz *(3, 4, 7)* : askotan, anitz aldiz */ anitx aldiz ez dra [bekatu] benialak baizik (3):* askotan ez dira bekatu arinak baizik. */ anitx aldiz xiten zaitad pensamentiuara (4):* anitz aldiz etortzen zait pentsamendura. */ anitx aldiz erran diar nik (7):* askotan esan dut nik. OH. Zaraitzun ´anitz aldiz´ dokumentatua.

anitx gozoki *(7)* : gogotik, gustura */ nik xaten ninzia anitx gozoki (7):* nik gustura jaten nuen.

anitx narotan *(3)* : askotan, anitz aldiz */ ene semia anitx narotan erortan tzu suara (3):* ene semea askotan erortzen da sutara.

anitx obro *(4)* : askoz gehiago */ ez kantxoin bat, anitx obro (4):* ez kantu bat, askoz gehiago.

anitx onki! *(3)* : anitz ongi! oso ondo!

anitx urtez! *(4)* : urte askoan! anitz urtez!

anitxez -ago *(8)* : askoz -ago(a), anitzez -ago(a) */ Uriña anitx pollit [tzu] et´ orai anitxez pollitago (8):* Iruñea oso polita da eta orain askoz politagoa.

anitxez lein *(4)* : askoz lehenago, anitzez lehenago */ ene mente guziuan eta anitxez leintarik (4):* nire bizialdi osoan eta askoz lehenagotik.

anitxi *(10)* : askotxo, anixko */ tenpra degu anitxi gatxiara (10):* eguraldia dugu anixko haserretzera. */ keben denbora degu anitxi oz (10):* hemen eguraldia dugu anixko hotz.

anitxki *(3)* : guztiz, erabat */ izarraren ekustiari, anitxki regozijatu zren (3):* izarra ikustean, guztiz poztu ziren.

anix 1 *(10)* : asko, anitz */ anix gente (10):* jende asko.

anix 2 *(10)* : oso */ lurra anix aseri dago patata erkitako (10):* lurra oso ase(ta) dago patata ateratzeko. */ goregana eltu [da] anix onki (10):* oso ongi heldu da guregana. */ gizon kori igan dun anix gora (10):* gizon hori oso gora igo dun.

anixka *(10)* : askotxo, anixko

anixki *(3, 5)* : oso */ kristiaî oro da anixki obligatruk debozione ekutra (3):* kristau oro oso behartua da debozioa edukitzera.

anixko 1 *(3, 4)* : askotxo, anixko */ [ene mitilak] padezitan du anixko (3):* ene mutilak askotxo sufritzen du. */ kanpoko gente anixko xiten da fiesta kontra (4):* kanpoko jende anixko etortzen da festa honetara. */ anixko beatan dion etsukandreak txiki urutan du (5):* askotxo begiratzen duen etxekoandreak gutxi iruten du. */ anixko lo egiten dionak txiki ikastan du (5):* askotxo lo egiten duenak gutxi ikasten du.

anixko 2 *(3, 4)* : nahikoa, dezente */ [azi bat] anixko xê azi guziuen artian (3):* hazi bat nahikoa xehea hazi guztien artean. */ tenpra digu anixko gaixto (4):* eguraldi dezente txarra dugu. */ anke ziola nik bino bi urte oboro, anixko jake [zegon] (4):* nahiz eta nik baino bi urte gehiago izan, nahikoa bizkor zegoen.

anixtarzun *(4)* : aniztasun */ anixtarzuna (4):* aniztasuna.

aniztarzun *(5)* : ugaritasun, aniztasun

aniztu *(5)* : aniztu, ugaldu

anka 1 *(2)* : *(anat.)* aldaka OH. Uxuen ere dokumentatua.

anka 2 *(5)* : *(anat.)* ipurmasail

ankar *(4, 5, 9)* : liskar, ahakar; haserre */ kalako gisan izan zen ankarra, iragoak egiten ztien (4):* halako moduan izan zen liskarra, oihuak egiten zituzten. */ ankar gorri[a] (5):* ahakar gorria, liskar latza. */ neskaxien ankarrak (9):* neskatxen liskarrak.

ânkar *(5)* : liskar, ahakar; haserre

ankar egin *(3)* : errieta egin, haserre egin */ gentek ankar egiten zabein, ixilik egon litian (3):* jendeak errieta egiten zien, isilik egon litezen.

ankarren *(4)* : haserre (adb.) */ betik emon zauden ankarren zarrak gazteki (4):* beti omen zeuden haserre zaharrak gazteekin.

ankartu *(4, 9)* : liskartu, haserretu */ [elizako] leku egongiuarengatik, ankartu zren bi emazte (4):* elizako egonlekuarengatik, bi emakume liskartu ziren. */ leineko zarrer entzutiaz digu gaiza kaur isaririk zegola ankartruk zeudenen bakian isartako (4):* lehengo zaharrei entzutea dugu gauza hau jarrita zegoela haserre zeudenak bakean jartzeko. */ alkar ankartu tun (9):* elkarrekin liskartu ditun.

ankazabal *(5)* : hankaoker, hankabihur

anke -la *(4, 5)* : nahiz eta, ba- ere */ anke ziola nik bino bi urte oboro, anixko jake [zegon] (4):* nahiz eta nik baino bi urte gehiago izan, nahikoa bizkor zegoen. */ anke lan andietan sartruk dagola, nago ezaula gatxiten gaiza kuek oil dazkaudan (4):* nahiz eta lan handitan sarturik egon, nago ez zaiola gaitzitzen gauza hauek bidal diezazkiodan. */ on zau goseari anke dela naskari (5):* on zaio goseari, ogi zahiduna bada ere. OH. Ikus ´nai beda -la´ sarrera.

ankezur *(5)* : *(anat.)* ipurmasail
anko *(2, 5)* : matsalko, mahats-mordo
ankura *(5)* : hantura
anoka *(5)* : bularralde (jantziena)
anoki *(5)* : alkandora-lepo
anpagullare *(5)* : *(zoo.)* zapaburu
ânr *(5)* : *(zoo.)* har (ustelkikoa) */ ânrak (5):* harrak.
anr 1 *(5, 7, 9, 10)* : *(zoo.)* har */ anrak eltzarretarik [egitan dra] (5):* harrak eltxarretatik egiten dira. */ anrak (7, 9, 10):* harrak. OH. Azkuek ´ar´, ´anr´, ´âr´ eta ´ânr´ dokumentatu zituen.
anr 2 *(5)* : zizare
anrori *(5)* : *(zoo.)* eskorpioi OH. Azkuek hiztegian ´anr-ori´ idatzia.
ansellatekaka *(5)* : anseilateka (haur jolasa) OH. Gauzak gora botaz eta airean hartuz gauzatzen den jolasa.
antu *(5, 7, 9)* : puztu, hantu */ ant baiendi! (5):* puztuko bahintz!, hantuko bahintz! */ ant adi ta zaparta adi! (5):* puztu hadi eta leher hadi! */ an zan pizontzi kori (9):* puztu (hantu) ezan maskuri hori. */ antuk dun (9):* hanturik dun.
antura *(5)* : *(med.)* hantura */ antura ertu zaba? (5):* hantura hertu (ibitu) zaio?
antx! *(5)* : *(haur.)* atzera!
antxamama *(5)* : *(bot.)* ezpel-hazi */ antxamama ezpel-azi ttopolozkoa da (5):* ´antxamama´ ezpel-hazi potolotxoa da.
Antxiko *(5)* : Patxi */ begiak liro zazkan atzo Peiok, argi Antxikok (5):* begiak goibel zeuzkan atzo Pellok, argi Patxik.
antxin *(7)* : aurre, aitzin */ amabietarik antxina [bazkalten diegu] (7):* hamabietatik aurrera bazkalduko dugu.
antxu 1 *(5)* : antzu (emakumea)
antxu 2 *(9)* : antzu */ xoan adi antxu-saldora (9):* joan hadi (ardi) antzu taldera. */ [ardi] antxiak (9):* ardi antzuak.
antxu 3 *(5)* : antxu OH. Azkuek ´gaztetxoa izateagatik umerik izan ez duen ardia´ esanahiarekin dokumentatua.
antxume 1 *(5)* : *(zoo.)* antxume
antxume 2 *(5, 9)* : oinutsik */ nora xuaitan zra antxume? (9):* nora zoaz oinutsik?
antxumetu *(5)* : oinustu, zapatak kendu
antzakatu 1 *(5)* : atxilotu */ gaiztakin kura antzakatu deik (5):* gaizkile hura atxilotu diate.
antzakatu 2 *(5)* : konpondu
antzar *(2)* : *(heg.)* antzara
antzatsu 1 *(5)* : trebe, iaio, antzetsu
antzatsu 2 *(5)* : landu (adj.) (lurra) */ antzatsu dago lur kura (5):* landua dago lur hura.
antzatu 1 *(4)* : prestatu */ sukalte lanen antzatako (4):* sukaldeko lanak prestatzeko. */ nausiak antzatan yai obekiena (4):* nagusiak ongiena prestatzen hau.
antzatu 2 *(5)* : ondu, apailatu (janaria) */ eltxanoa antzatu duna? (5):* eltzetxoa apailatu al dun?
antzatu 3 *(5)* : konpondu
antzatu 4 *(5)* : landu (lurra)
antze *(3, 4, 5)* : ahaztu, ahantzi */ [ogi artiaz] antze zren (3):* ogia hartzeaz ahantzi ziren. */ antze zaitad izena (4):* izena ahaztu zait. */ engoxan antze zaikugu llarne mantria sotoaren erdian (4):*

goizean larraineko izara ukuiluaren erdian ahaztu zaigu. */ ezaitad antzeren erraitia (4):* ez zait ahaztuko esatea. */ antzerik baidazkad [itzak] (4):* ahazturik baitauzkat hitzak.

ântze *(5)* : ahaztu, ahantzi */ ântze zitak (5):* ahantzi zaidak.

antzin *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : aurre, aitzin */ jeinaren antzinian baitaude (2):* jaunaren aurrean baitaude. */ izar ekusi zeina, faiten zen beren antzinian (3):* ikusi zuten izarra beren aurrean joaten zen. */ antzinetik erran ziona Jeremiasek (3):* Jeremiasek aurretik erran zuena. */ antzinarago [igari zen] (3):* aurrerago igaro zen. */ erregen antziniara [eraman zien] (3):* erregeen aitzinera eraman zuten. */ antzinian dakad karta errana (4):* aurrean daukat esandako gutuna. */ ene bekatiua diozu betik ene antzinian (4):* ene bekatua beti ene aitzinean dago. */ antzineko egunetan (4):* aurreko egunetan. */ antzineko itzetan bikala [isaren dud] (4):* aurreko hitzetan bezala jarriko dut. */ gen akida ene antzinetik sekulako (4):* ken hakit ene aitzinetik sekulako. */ antzinetik alabatan yaianak nai yai kaxalez, eta atzirikoak biotzez (5):* aurretik laudatzen hauenak azalez maite hau, eta atzekoak bihotzez. */ bagoatzu antzina (7):* bagoaz aurrera. */ gizona antzinian [eta] ungurian (8):* gizona aurrean eta inguruan. */ antzinekua atzirian (9):* aurrekoa atzean. */ antzinekua antzinekuan (10):* aurrekoa aurrekoan.

antzinadanik *(4)* : aldez aurretik */ gaiza kuek xin biar badei, nai noke xakin antzinadanik (4):* gauza hauek etorri behar badute, aldez aurretik jakin nahi nuke.

antzinadeneko *(4)* : antzinako */ zeren anitx itzen onki kausitako, biar dud pensamentiua eraman antzinadeneko trenpetra (4):* zeren hitz asko ongi aurkitzeko, antzinako garaietara eraman behar baitut pentsamendua.

antzinatu *(3, 4, 7)* : aurreratu, aitzinatu */ [etsen] sartu zrelarik, antzinatu zitzaun Jesus (3):* etxean sartu zirenean, Jesus aurreratu zitzaion. */ [Pilatosek ekustian] deus eziola antzinatan, manatu zion eragu lezeila ur (3):* Pilatosek ezer ez zuela aurreratzen ikustean, ura ekar liezaiotela agindu zuen. */ antzinatruk xa neskanegun gaia (3):* aurreraturik jada larunbat gaua. */ ekustan dud antzinatan diona uskarazko lan andi daramanian (4):* ikusten dut aurreratzen duena daraman euskarazko lan handian. */ antzinatu da euria (7):* aurreratu da, bai, euria.

antzinetik erran *(3)* : aurresan */ antzinetik erraiten du Jesusek tenpluaren desegingua (3):* Jesusek tenpluaren suntsipena aurresaten du. */ ekusten tzei antzinetik erran daizeidala (3):* ikusten duzue aurresan egin dizuedala.

antzu *(5)* : antzu OH. Azkuek dio abereez esan ohi dela. Ikus ´antxu 1´ eta ´antxu 3´ sarrerak.

anu *(5)* : ganadu-jan (edozein) */ anu[a] (5):* ganadu-jana. OH. Euskara batuan ´anoa´= ´janari kopurua, bereziki bidaiarakoa´.

anztu *(4, 5)* : ahaztu, ahantzi */ ezaitad anztan ñore otoi txikietan eskatea gore jeinari orren osagarriaz (4):* ez zait ahazten neure otoi urrietan gure jaunari eskatzea berorren osasunaz. */ ilak eta fanak dra lein anztan drenak (5):* hilak eta joanak dira lehenik ahazten direnak.

aña 1 *(3)* : *(zoo.)* arkume, axuri */ artzaînak berextan tion gisa ardiak añetarik (3):* artzainak ardiak arkumeetatik bereizten dituen bezala.

aña 2 *(9)* : *(zoo.)* antxume

aña 3 *(5)* : *(haur.)* ahizpa nagusi (txikiarekiko)

añabarbarin *(2, 5)* : *(zoo.)* armiarma */ txek non duan añabarbarina (5):* begira ezak non doan armiarma.

añaberba *(6)* : *(zoo.)* armiarma

añai 1 *(5)* : *(heg.)* sorbeltz

añai 2 *(2, 4, 9)* : *(bot.)* zekale */ añaia (9):* zekalea.

añai zuri *(5)* : *(heg.)* enara
añamarma *(9)* : *(zoo.)* armiarma
añantxu *(2)* : *(zoo.)* antxume eme OH. Urte bateko antxume emea.
añari *(2)* : *(heg.)* sorbeltz
añe 1 *(2, 9, 10)* : *(zoo.)* antxume */ añe bat (9):* antxume bat. */ añea (10):* antxumea.
añe 2 *(3)* : *(zoo.)* arkume */ ardiak bere eskoînara [izartan tiolarik] eta añiak ezkerriara (3):* ardiak bere eskuinera jartzen dituela, eta arkumeak ezkerrera. */ artzaînak berextan tion gisa ardiak añetarik (3):* artzainak ardiak arkumeetatik bereizten dituen bezala.
añu *(9, 10)* : *(zoo.)* antxume */ bi añu sortu diezu (9):* bi antxume sortu ditu. */ añea (9):* antxumea. */ badiagun añu xatako (10):* badinagu antxumea jateko.
añume *(9)* : *(zoo.)* arkume (jaio berria)
añurri 1 *(10, 11)* : *(bot.)* abilurri OH. Elorri zuriaren fruitua.
añurri 2 *(11)* : txikitxo OH. Aznarezek ´pertsona edo gauza ñimiñoa´ esanahiarekin dokumentatua.
-ao *(3, 10)* : -ago */ ni bino poderosoao [da] (3):* ni baino ahaltsuagoa da. */ txikiao (10):* gutxiago. */ urrinao (10):* urrunago.
ao 1 *(2, 3, 5, 8)* : *(anat.)* aho */ bigarna aoan [egitea] (2):* bigarren (gurutze)a ahoan egitea. */ mintzatan baita aua (3):* ahoa mintzatzen baita. */ bigarna auan (3):* bigarrena ahoan. */ ele jangeikuaren autik erkitan den oro (3):* jaungoikoaren ahotik ateratzen den hitz oro. */ Kristok erran baizion bere auaz (3):* Kristok erran baitzuen bere ahoaz. */ ao zerratutik ez da eskapatan ellurik (5):* aho itxitik ez du ihes egiten eulirik. */ odola erkiten denean aotik, señale ilteko ezkapatan dela korpizetik (5):* odola ahotik ateratzen denean, seinale hiltzeko ateratzen dela gorputzetik. */ mia gentu ziozun autik (8):* mihia kendu zuen ahotik.
ao 2 *(3)* : aho, sarrera */ arri andi bat [arrimatan ziolarik, ilobia] ren aua edo sartia [zerratu zion] (3):* harri handi bat gerturatzen zuela, hilobiaren ahoa (hilobiko sarrera) itxi zuen.
ao 3 *(5)* : kanpai-aho
aoko(ak) *(5)* : *(alb.)* aho-garautxo (txerrienak)
aomen *(5)* : ahamen, mokadu
aomiñ *(5)* : *(alb.)* aheri, sukar aftoso
aomixtatu *(5)* : xuxurlatu, murmurikatu */ koriek aomixtatan dra, [x] untatan dran aldi oroz (5):* horiek murmurikatzen dute elkartzen diren ali oro.
aosabai *(5)* : *(anat.)* ahosabai
aozabal *(5)* : ahozabal OH. Hizketan zuhurra ez dena.
aozbarna *(5)* : ahuspez
apaintu *(5)* : prestatu
apairu *(3)* : jatordu, apairu
apal 1 *(3, 5, 7, 9, 10)* : behe; behean */ Ameriketara xoan aitzinean goiti zeuria ta apal lurra nitien, geroztik duntu naiz (5):* Ameriketara joan aurretik goian zerua eta behean lurra nituen, geroztik (ondasunez) jabetu naiz. */ iganen dia[r] apalkua (7):* behekoa igoko diat. */ goraganik (sic) apaldreino (9):* goitik beheraino.
apal 2 *(3, 5, 9)* : behera */ aur guziuak, bi urtetarik apal, [iltako] (3):* haur guztiak, bi urtetik behera, hiltzeko. */ egox zte kementik apal (3):* bota ezazu (zeure burua) hemendik behera. */ gora ta apal (5):* gora eta behera. */ gora naiz apal, yoa inguruz (5):* gora nahiz behera, hoa inguruka. */ zauz adi apal (9):* jauzi egin ezak behera. */ xatx adi apal (9):* jaits hadi behera.

apal 3 *(4, 7)* : baxu, apal */ arbole apaletarik obroen aztan drenetarik dra ezpela, illurria, korostia eta otaka (4):* zuhaitz baxuetan, gehien hazten direnetakoak ezpela, elorria, gorostia eta otaka dira. */ apal [dun] (7):* baxua dun (pertsona).
apal 4 *(5)* : apal, umil
apalganik *(5)* : behetik
apalgo 1 *(5)* : behe, sakonera
apalgo 2 *(5)* : *(astr.)* ilbehera */ apalgoan ere aurer ez gra egoitan (5):* ilbeheran ere ez gara alfer egoten.
apalgune *(5)* : *(geog.)* sakonune, sakan
apalki *(5)* : behetik */ igan zan gaiza kori apalki (5):* igo ezazu gauza hori behetik.
apaltar *(5)* : behetar, beheretar
apaltu 1 *(10)* : beheratu */ apalta zan sillak! (10):* behera itzan aulkiak!
apaltu 2 *(5)* : apaldu */ aberatsa emon zen, baia [k]ura ere apaltu da takez (5):* aberatsa omen zen, baina hura ere apaldu da guztiz.
apaltu 3 *(5)* : txikiagotu
apaltu 4 *(5)* : gutxitu, murriztu OH. Zuberoan ´aphaltü´ dokumentatua.
apapairu *(10)* : *(zoo.)* zapaburu
apapeiru *(9)* : *(zoo.)* zapaburu
apario *(4, 5, 8, 9, 10)* : jatordu, apairu */ bezperatik drezatu ztion apario guziuak (4):* bezperatik prestatu zituen jatordu guztiak. */ apario baten egitra [xuntatan dra] (4):* jatordu bat egiteko elkartzen dira. */ [emazter] aparioak drezaraz, ordu xakinetako (4):* emakumeei jatorduak prestarazi, ordu jakinetarako. */ oillar-mezatik landa etsean egiten den apario ño bat da xurgin-aigaria (5):* oilar-meza ondoren etxean egiten den jatordu txiki bat da sorgin-afaria. */ egunean irur apario dozkegu, askaria, bazkaria, aigaria (5):* egunean hiru jatordu dauzkagu, gosaria, bazkaria, afaria. */ askaria beste apario bat [duk] (8):* gosaria beste apairu bat da. */ apario kau diagun gazoi (9):* apairu hau gazi dinagu. */ nolako apario [xatan degun nai dei xakin] (10):* nolako apairua jaten dugun jakin nahi dute. */ aparioak nola bar dra egin? orobat (10):* jatorduak nola egin behar dira? berdin.
apariotsa *(5)* : afari arin OH. ´Apario´ edozein jatordu da; ez afaria soilik. Ikus ´apario´, ´apairu´ eta ´aigari´ sarrerak.
apatxarko 1 *(5)* : *(zoo.)* apotxo, zapotxo
apatxarko 2 *(5)* : *(zoo.)* ustel-har OH. Abereek eduki ohi dutena.
apatxarko 3 *(11)* : *(zoo.)* saguzar
apatzar 1 *(2)* : *(zoo.)* apo, zapo
apatzar 2 *(5)* : *(zoo.)* arrabio
apeio *(5)* : *(nek.)* golde
apez *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(erl.)* apaiz */ jeinaren apezak (2):* jaunaren apaizak. */ fan zte apezarengana (3):* joan zaitez apaizarengana. */ apezak (3):* apaizak. */ diolarik bizpor egun asi da apeza eskolara bilarazten egun oro (4):* duela egun batzuk apaiza (umeak) ikastetxera egunero bilarazten hasi da. */ orren mertxedearen altez bixita [egin daud] apezari (4):* berorren partez bisita egin diot apezari. */ apezer errespeto andiago ekuteko (4):* apezei errespetu handiagoa edukitzeko. */ ez dago obisporik lein apez izan bagerik (5):* ez dago gotzainik lehen apaiz izan gaberik. */ apezaren zopen gisa goxo izaiteko (5):* apaizaren zopen gisa goxoa izateko. */ Gardeko apeza (7):* Gardeko apaiza. */ apeza xin tzu (8):* apaiza etorri da. */ apeza,*

apez jeina (9): apaiza, apaiz jauna. */ apezak entelegatan zia guzia (10):* apaizak dena ulertzen zuen.

apezkupi *(5)* : *(erl.)* apezpiku, gotzain

apezkupu *(4, 7)* : *(erl.)* apezpiku, gotzain */ bitartio Turpin apezkupu onak errezatan du (4):* bitartean Turpin apezpiku onak errezatzen du. */ Uruñako apezkupua (apezkupia):* Iruñeko apezpikua. */ apezkupiari duketz, ´orrek du´ (7):* gotzainari berorika, ´berorrek du´.

apeztu *(5)* : apaiztu

apike *(5)* : beharbada, apika

apitx *(5)* : besapez, besazpiz

apo *(5)* : *(zoo.)* apotxo, zapotxo

apoa! *(5)* : arraioa!

apoka *(5)* : txakurka, lau hanka(ta)n

apostolo *(2)* : *(erl.)* apostolu */ nork erran zien kredoa? apostolo saintiek (2):* nork erran zuen kredoa? apostolu santuek.

apotxarko *(11)* : txikitxo; apotxo, zapotxo OH. Aznarezek ´bere adinerako txikia den umea´ esanahiarekin dokumentatua, hedadura semantikoz, ziurrenik. Ikua ´apozarko´ sarrera.

apotxarkoka *(5)* : txakurka, lau hanka(ta)n

apotxorri 1 *(9)* : *(zoo.)* zapaburu

apotxorri 2 *(5)* : *(zoo.)* arrabio

apotzar 1 *(5, 9)* : *(zoo.)* apo, zapo */ [Antoniok] apotzar mutur tzu (5):* Antoniok apo muturra du. */ apotzarra (9):* apoa, zapoa.

apotzar 2 *(5)* : *(zoo.)* arrabio

apozar *(2, 9, 11)* : *(zoo.)* apo, zapo */ apozarrak [eta] sugeak (2):* apoak eta sugeak.

apozarko *(11)* : *(zoo.)* zapaburu

april *(2, 4, 5, 6, 7, 8, 9)* : apiril, jorrail */ 1903ko aprilaren 25´na (4):* 1903ko apirilaren 25.a. */ aprilian galteginen daud ya xin biar dionez (4):* apirilean galdetuko diot ea etorri behar duen. */ april on ekusi bear dionak ein urtez bear du bizi (5):* apiril ona ikusi behar duenak ehun urtez behar du bizi. */ martxoan lantxerra noraino, aprilean elurra karaino (5):* martxoan lainoa noraino, apirilean elurra haraino. */ aprileko amaseigarrena (5):* apirileko hamaseigarren (egun)a. */ aprila (6, 7, 8):* apirila, jorraila. */ aprila biribila, xerria urdanteian ila (9):* apirila biribila, txerria txerritegian hila.

aprobetxatu *(4)* : aprobetxatu */ nola ez baidokegu lanik egin, aprobetxatan dud eskribitako (4):* ezin dugunez lanik egin, idazteko aprobetxatzen dut. */ nola tenpra baidigu llabur, aprobetxatiagatik (4):* denbora laburra dugunez, aprobetxatzeagatik.

apur 1 *(3, 11)* : apur, papur (ogi-apurrak) */ txakurxkuek xaten dei beren nausien maitik erortan dren apurretarik (3):* txakurtxoek jaten dute beren nagusien mahaitik erortzen diren apurretatik.

apur 2 *(5, 11)* : apur bat, pixka bat

apurkatu *(5)* : apurtu, txikitu

apurkin 1 *(5, 11)* : zotz, ezpal */ azitik ozioa, trunkutik apurkina, gatiaren umea atzaparkina (5):*hazitik ernamuina, enborretik ezpala, katuaren umea atzaparkaria.

apurkin 2 *(11)* : egurki (argia egitekoa)

apurkin 3 *(11)* : gauzatxo OH. Azkuek bildutako ´apurkin´ (= zotz) hitzetik eratorria dirudi, hedadura semantikoz.

apurkinatu *(5)* : arraspatu (ogia)
aputz *(6)* : *(zoo.)* apo, zapo
ar 1 *(5)* : ar
âr 1 *(2, 5)* : *(zoo.)* har OH. Azkuek ´ar´, ´anr´, ´âr´ eta ´ânr´ dokumentatu zituen.
ar 2 *(8, 9)* : *(zoo.)* har */ arra (8, 9):* harra.
âr 2 *(5)* : *(zoo.)* zizare
âr 3 *(5)* : *(med.)* txantxar
-ar, -tar *(1, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11)* : -ar, -tar */ urzankiar (1):* urzainkiar. */ menditarren irrintziriak (4):* menditarren irrintziak. */ urzainkiarrak (6):* urzainkiarrak. */ izabarra, isabarrak (6):* izabarra, izabarrak. */ larrauntar, larraultar, madrittar (6):* larraundar, larrauldar, madrildar. */ iruñatarra, iruñetarrak (6):* iruindarra, iruindarrak. */ ustarroztarrak (6):* uztarroztarrak. */ gardar, izabar (7):* gardar, izabar. */ bidangoztar, uztarroztar (7):* bidankoztar, uztarroztar. */ saaitziarra (8):* zaraitzuarra. */ zaitziarrak (9):* zaraitzuarrak. */ usteinkiarrak (9):* urzainkiarrak. */ uztarruztarrak (9):* uztarroztarrak. */ egia, bai, santanatarrak xoaitan zrela (10):* egia, bai, santanatarrak joaten zirela. */ burgiarra, gardarra, izabarra, ronkaliarra, urzainkiarra, uztarroztarra (11):* burgiarra, gardarra, izabarra, erronkariarra, urzainkiarra, uztarroztarra. */ bidangoztarra (11):* bidankoztarra.
ar-emonka *(5)* : har-emanka (hartuz eta emanez)
ar-xo *(5)* : har-jo (adj.) OH. ´Fruitu har-joa´, adibidez.
-ara *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : -ra */ borontetik burarreara (2):* kopetatik bularrera. */ alte eskukoara (2):* eskuineko aldera. */ zeuriko bidiara (2):* zeruko bidera. */ arrazoiara eltan denian (2):* arrazoira heltzen denean. */ fan zte Israeleko lurriara (3):* joan zaitez Israeleko lurrera. */ utsi batek berze utsi bat [giatan badu], biak erortan dra ziluara (3):* itsu batek beste itsu bat gidatzen badu, biak erortzen dira zulora. */ fan ztei xek ere ene ardauntziara (3):* zoazte zuek ere nire mahastira. */ ez obrorik bekatiuara utzultako (3):* ez gehiago bekatura itzultzeko. */ buriuara, lekiuara (4):* burura, lekura. */ anitx aldiz xiten zaitad pensamentiuara (4):* anitz aldiz etortzen zait pentsamendura. */ erremedioara orduz, peligroara tentuz (5):* erremediora garaiz, arriskura tentuz. */ txut egoztan dionak zeuriari, beitartiara erorten zau berari (5):* txistua zerura botatzen duenari, aurpegira erortzen zaio berari. */ nora xoatan zra? uturriara uren txerka (7):* nora zoaz? iturrira ur bila. */ nora zoatza? iriara (7):* nora zoaz? herrira. */ xuan deila zeuriaren erdiara! (8):* joan dadila zeruaren erdira! */ aurra besoara (9):* haurra besora. */ txoriak xitan ditzu leixoara (9):* txoriak leihora datoz. */ meste mundiara (10):* beste mundura. */ xa e[z] bidra xoaitan mendiara (10):* jada ez baitira mendira joaten. */ amandrea, ni xuan ninden atzo alurriara (10):* ama, ni joan nintzen atzo alorrera. OH. Zaraitzueraz eta zubereraz ´-ala´ dokumentatua. Baina, Zaraitzun eta Erronkarin behintzat, norberaren etxera edo etxe ezagun batera joatean, (gehienetan) ez da esaten ´etseara´, ´etsera´ baizik. Ikus ´-ala 2´ sarrera.
ara 1 *(5)* : makila, zarta */ ereik ara kori, arakaldi bat emon dezadan (5):* emadak makila hori, zartakaldi bat eman diezaiodan.
ara 2 *(5)* : labe-makila OH. Azkuek ´labeko txingarrak nahasteko makila´ esanahiarekin dokumentatua.
ara! *(5)* : hara!
arabera *(5)* : arabera
arabez *(5)* : ziurrenik, segur aski
aragi *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : haragi */ mundia, demonioa eta aragia (2):* mundua, deabrua eta

haragia. */ aragia eta odola (3):* haragia eta odola. */ aragi ez xatako (3):* haragirik ez jateko. */ aragiaren biztian [xinetstan dud] (4):* haragiaren piztueran sinesten dut. */ aragitegian aragi [saltan da] (5):* haragitegian haragia saltzen da. */ otsoak arrapatan dion aragia on zau enbrari xatea (5):* otsoak harrapatzen duen haragia ona zaio emeari jatea. */ aragia xan dei (7):* haragia jan dute. */ xanen diagu aragirik (7):* zenbait haragi jango diagu. */ aragi, aragea (10):* haragi, haragia.

aragi zuku *(5)* : *(suk.)* haragi salda

aragibirika *(5)* : *(med.)* haratustel (zaurikoa) */ aragibirika (5):* (zaurietako) haratustela. OH. Azkuek ´zaurietatik ateratzen den haragi ustela´ esanahian dokumentatua.

aragintegi 1 *(5)* : *(erai.)* haragitegi

aragintegi 2 *(5)* : gazitegi OH. Haragia gazitzeko lekua.

aragitegi *(5)* : *(erai.)* haragitegi */ aragitegian aragi [saltan da] (5):* haragitegian haragia saltzen da.

aragiustel *(5)* : haratustel

Arago *(4, 9)* : *(geog.)* Aragoi */ Aragoko lein irietarik anitx peon [xiten dra zûr trabajatako] (4):* Aragoiko lehen herrietatik peoi asko etortzen dira egurrean lan egiteko. */ Aragon [bizi nezu] (9):* Aragoin bizi naiz. */ banoan Aragora (9):* banoan Aragoira. */ Aragorik xitan nezu (9):* Aragoitik nator. */ Aragoko idietan (9):* Aragoiko herrietan.

-araino 1 *(2, 3, 4, 7)* : -raino */ prinzipiotik finaraino (2):* hasieratik bukaeraraino. */ [zu egotxirik izanen zra] iburniaraino (3):* zu egotzia izanen zara infernuraino. */ krutxe bat borontetik burarretraino (3):* gurutze bat kopetatik bularretaraino. */ ezkerreko soinetik eskoînekuaraino (3):* ezkerreko sorbaldatik eskuinekoraino. */ pezu andi baten azkatako lurretik soinaraino (4):* pisu handi bat altxatzeko lurretik sorbaldaraino. */ egun kontan xin zitzaukun elurra abantxu iriaraino (4):* egun honetan elurra etorri zitzaigun ia herriraino. */ menditarren irrintziriak zeuriaraino igaitan dra (4):* menditarren irrintziak zeruraino igotzen dira. */ amabi gradoaraino xatxi da (7):* (termometroa) hamabi graduraino jaitsi da. */ iguzkitik lurraraino [xitan da argia] (7):* eguzkitik lurreraino etortzen da argia. OH. Zaraitzun ´-alaño´ dokumentatua.

-araino 2 *(3, 4)* : arte */ egon ztei bere etsen xen faitiaraino (3):* egon zatezte haren etxean zuen joatea arte. */ tenpra ekun digu on, aiketa konen amalaugarniaraino (4):* eguraldi ona eduki dugu, harik eta (hil) honen hamalaugarrena arte.

araintzinaganik *(5)* : aspalditik, aitzinadanik

araintzinatarik *(5)* : aldez aurretik

araiz *(5)* : ziurrenik, segur aski

araiztian *(5)* : arestian

arakaldi *(5)* : makilaldi, jipoi */ ereik ara kori, arakaldi bat emon dezadan (5):* emadak makila hori, makilaldi bat eman diezaadan.

-arako *(2, 3, 5)* : -rako */ berze gainiarako gatxetan, zeuriarako irabaz daitekia? (2):* beste gainerako gaitzetan, zerurako irabaz al daiteke? */ eska ztei egitarako nausiari oil tzala egitari bere alurriara (3):* eska iozue nagusiari egitarako bidal ditzala igitariak bere alorrera. */ barrak eta beltzuriak biek tei beren bazterrak; barrak onearako eta beltzuriak gaixtoarako (5):* barreak eta beltzuriak biek dituzte beren bazterrak; barreak onerako eta beltzuriak txarrerako. OH. Zaraitzun ´-alako´ dokumentatua.

aran 1 *(1, 2, 5, 9, 10)* : *(bot.)* aran */ ongatx daude aurten aranak, bortxa ontan dra (5):* heldugabe daude aurten aranak, nekez heltzen dira. */ aranak (10):* aranak.

aran 2 *(1)* : *(bot.)* aranondo

aran 3 *(1)* : *(geog.)* ibar */ arana, aranea, arankoa (1):* ibarra, ibartxoa. OH. Ikus Nafarroako Gobernua, 140. or.

aranda *(5)* : arasa-makila OH. Arasako platerei eusten dien makila euskarria.

arandoi *(1)* : arandi, aranondo leku */ arandoia (1):* arandia, aranondo lekua.

aranori *(5)* : *(bot.)* basaran

arantze 1 *(8, 9)* : *(bot.)* aranondo */ arantzia (8):* aranondoa. */ arantze bat (9):* aranondo bat.

arantze 2 *(1, 4)* : *(bot.)* elorri, arantza */ arantzeta (1):* arantza eta. */ eztago arbole frutuzkorik, ez bada zomait arantze eta itzagurtze (4):* ez dago fruitu-arbolarik, ez bada zenbait arantza (elorri) eta intxaurrondo.

arastian *(5)* : arestian

-arat 1 *(4, 9)* : -ra */ eltu gra osagarrireki san Pedro gore patronaren eguniarat (4):* osasunez heldu gara san Pedro gure patroiaren egunera. */ ordu dun xitako etserat (9):* etxera etortzeko ordua dun. OH. Ikus ´etse´ sarrerako oharra.

-arat 2 *(6, 7)* : -rantz */ mendiarat [xuan da] (6):* mendirantz joan da. */ mendiarat, mendietarat (7):* mendirantz, mendietarantz.

aratxiki *(5)* : hozka egin, kosk egin

aratzinarik *(5)* : aldez aurretik

arau 1 *(5)* : arabera */ morroi[e]k egitan tei lanak maestroari arau (5):* mutikoek maisuaren arabera egiten dituzte lanak.

arau 2 *(5)* : asmo (?); esanahi (?) */ zer arautra erran dadak ele kori? (5):* zer asmorekin esan didak hitz hori? */ zer arau du ele korrek? (5):* zer esanahi du hitz horrek?

arau bage *(5)* : konturik gabe OH. Azkuek ´kontu gabe, ondo ulertu gabe´ esanahian dokumentatua.

arau bati *(5)* : baten arabera, bat imitatuz

araubage *(5)* : ganoragabe, txepel

arauz 1 *(5)* : arabera

arauz 2 *(5)* : beharbada, apika

-arazi *(3, 4, 5, 7)* : -arazi */ ilarazi, mobiarazi, xaserarazi (3):* hilarazi, mugiarazi, eserarazi. */ bordalarazten (3):* ezkoarazten. */ eginaraztako, tentaraztako (3):* eginarazteko, tentarazteko. */ ikasaraztra (4):* ikasaraztera. */ bilarazten (4):* bilarazten. */ berrarazi, eitzarazi (5):* ferrarazi, utzarazi. */ lokarrarazi, nexar eginarazi (5):* lokarrarazi, negar eginarazi.

-araztu *(5)* : -arazi */ bordalaraztu (5):* ezkonarazi.

araztu *(5)* : behartu, derrigortu */ gizon batek lan bat gunean ezoken egin eta beste batek araztu zaun, al eta ezin (5):* gizon batek lan bat orduan ez zezakeen egin eta beste batek behartu zuen, ahal eta ezin.

arbe *(1)* : haizpe */ arbea (1):* haizpea.

arbi *(2)* : *(bot.)* arbi

arbi-ninika *(5)* : *(bot.)* arbi-ernamuin

arbole 1 *(2, 3, 4, 5, 8)* : zuhaitz */ arbole oro izanen da ebakirik eta suara egotxirik (3):* zuhaitz oro moztua izango da eta sutara botea. */ beira zazei axkora izaririk dagola xa arbolien izorroara (3):* begira ezazue aizkora jada jarririk dagoela zuhaitzaren sustraian. */ berze banek ebakitan zein erramu edo osto arboletarik (3):* beste batzuek erramua edo hostoak ebakitzen zituzten zuhaitzetatik. */ arbole [kemen] aztan dren guziuez (4):* hemen hazten diren zuhaitz guztiez (idatziko dut). */ arbolia exartu da (8):* zuhaitza ihartu da.

arbole 2 *(3, 4, 5)* : fruitu-arbola */ frutiuetaz izaguntan [da] arbolia (3):* fruituetatik ezagutzen da arbola. */ eztago arbole frutuzkorik, ez bada zomait arantze eta itzagurtze (4):* ez dago fruitu-arbolarik, ez bada zenbait arantza (elorri) eta intxaurrondo. */ arbolek fruta [emoiten dei] (5):* fruitu-arbolek fruta ematen dute.

arbole txiker *(2)* : *(bot.)* zuhaixka

ardago *(9)* : ardo */ ardagoa (9):* ardoa.

ardankoi *(5)* : ardozale

ardantza *(5)* : *(nek.)* mahasti, ardantze

ardantze *(1)* : *(nek.)* mahasti, ardantze */ ardantzeta (1):* mahasti eta.

ardao *(1, 7, 9, 10)* : ardo */ uturrardao (1):* iturri-ardo(a). */ ardao gorri, ardao zuri (7):* ardo gorria, ardo zuria. */ ardaorik (ardaurik) ala [urik] ? naiago diegu ardaorik (7):* ardoa ala ura? nahiago dugu ardoa. */ orrek edatan du anitx ardao (9):* berorrek ardo asko edaten du.

ardatz 1 *(4)* : *(tek.)* ardatz */ zurginek [illurria] txerkatan dei ardatz egiteko (4):* zurginek elorria bilatzen dute ardatzak egiteko.

ardatz 2 *(5)* : ardatz (irutekoa) */ ardatz kau pardanpu da (5):* ardatz hau desorekaturik dago.

ardau *(1, 5, 7, 8, 10)* : ardo */ uturrardau (1):* iturri-ardo(a). */ agorrileko ura da zafran, ezti eta ardau (5):* agorrileko ura safrana, eztia eta ardoa da. */ ez diagun ez ogi xurik ez ardau gorrik (7):* ez dinagu ez ogi zuririk ez ardo gorririk. */ ardaurik edan diegu (7):* ardoa edan dugu. */ gazta, aragia eta ardaua eragu ditiegu (7):* gazta, haragia eta ardoa ekarri ditugu. */ nora yua, morroia? ardau txerka (8):* nora hoa, mutiko? ardo bila. */ xako bat ardau (10):* zahato bat ardo. */ ardaua (10):* ardoa.

ardaû *(3, 4, 5)* : ardo */ ez dei egoxtan ardaû berria zagi xarretan (3):* ez dute botatzen ardo berria zahagi xaharretan. */ kan emon zabein edatra ardaû (3):* han ardoa eman zioten edaten. */ ardaûaren kîua, koloria [eta] saboria (3):* ardoaren usaina, kolorea eta zaporea. */ badagua kalizian ardaûik? (3):* ba al dago kalizan ardorik? */ [aretxak] materiala du anitx on ardaû kupa egiteko (4):* haritzak oso material ona du ardo upelak egiteko. */ ardaûrik ekusi bage (4):* ardorik ikusi gabe. */ ardaûaren erateko (4):* ardoa edateko. */ ez dei emoiten ardaû (5):* ez dute ardo(rik) ematen. */ ezneak erran zaun ardaûari (5):* esneak esan zion ardoari.

ardaukoi *(5)* : ardozale

ardaûkoi *(5)* : ardozale

ardaun *(5)* : ardo */ nai duka ardaun ttinka bat? (5):* nahi al duk ardo pixka bat? */ etseko ardaunetik ez da ñor ere orditan (5):* etxeko ardotik ez da inor ere mozkortzen.

ardauntzu *(3)* : *(nek.)* mahasti, ardantze */ ardauntzutik kanpo [egotxi zein] (3):* mahastitik kanpora bota zuten. */ ardauntzian trabajatra deitruk izan zrenen parabola (3):* ardantzean lan egiteko deitu zituztenen parabola. */ [aita bat erkin zen] jornalari txerka bere ardauntzuko (3):* aita bat bere mahastirako jornalari bila atera zen. */ ardauntziuaren nausiak erran zion (3):* mahastiaren nagusiak esan zuen. */ fan ztei xek ere ene ardauntziuara (3):* zoazte zuek ere nire mahastira.

ardaûsopatu *(5)* : ubeldu, moretu OH. Berez ´ardozopatu´ = ardo zoparen kolorea eman.

ardazta *(5)* : ardaztada OH. Ardatzean sartzen den liho harilkatua.

ardi *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(zoo.)* ardi */ ardi galtiuak (3):* ardi galduak. */ xengana [xiten dra] beztitruk ardi larruz (3):* zuengana ardi larruz jantzirik etortzen dira. */ barriatruk ardiak artzaîn bage bikala (3):* barreiaturik ardiak artzain gabe bezala. */ xaxgiua, ardien bilgunia xaxtako (4):* jetzitegia, ardien bilgunea jeizteko. */ korostiaren ostoa on [da] aintz eta*

ardientako (4): gorostiaren hostoa ona da ahuntz eta ardientzat. */ bi arzatz ardietra [zuatzan] (4):* bi ahari ardietara zihoazen. */ ardi zarrari gentan zau bearria (5):* ardi zaharrari belarria kentzen zaio. */ koriek ardi dra (7):* horiek ardiak dira. */ ardien ilea (7):* ardien artilea. */ [gizonak] ardieki [xuaiten zuntien] (8):* gizonak ardiekin joaten ziren. */ [badu] ile ardi korrek (9):* badu artilea ardi horrek. */ ardiak (9):* ardiak. */ artzaiak ardieki [xuaitan tun] (9):* artzainak ardiekin joaten ditun. */ ardia (10):* ardia. */ oai bei solo keben, ardirik txiki, gutti (10):* orain beiak bakarrik hemen, ardi gutxi, gutxi. */ anitx egunez ardieki (10):* anitz egunez ardiekin.

ardibide *(1)* : ardibide, altxonbide */ ardibide gañea (1):* ardibide gaina.

ardidun *(4)* : ardidun (ardidun jendea)

ardimaizter *(5)* : ardimaizter

ardisaldo *(5)* : artalde

ardoi *(1)* : harritza, hardi */ ardoia (1):* harritza, hardia.

ardun 1 *(5)* : hartzaile */ ardun duk, baia emonzale ez (5):* hartzailea duk, baina ez emailea.

ardun 2 *(5)* : eskueran

are 1 *(5)* : harea, hondar

are 2 *(5)* : *(nek.)* are (lurra lantzekoa)

are 3 *(2)* : are */ xakin zagon Kristo ez solo juangeiko bikala, baizi are gizon bikala dela errege (2):* jakin dezagun Kristo ez soilik jaungoiko bezala, are gizon bezala dela errege.

are-igoin *(5)* : eskuare-kirten OH. Erronkarierazko ´igoina´ berez ´kirtena´ da; Azkuek ´are-igoin´ = ´eskuarearen egitura´ oharrarekin dokumentatua.

area *(9)* : harea, hondar

areantxina *(5)* : aurrerantzean

arek *(2, 3, 4, 7, 8, 10)* : hark */ ezpaigra baliatan arek medio izarri ztienetaz (2):* ez baikara baliatzen hark jarri zituen baliabideez. */ arek erresponditu zabein (3):* hark erantzun zien. */ arek aigaltuz gero eziola ñorentako xostan [erran zaun] (4):* hark afalduz gero ez zuela inorentzat josten esan zion. */ arek ele erraitan diezu onki (7):* hark ongi hitz egiten du. */ guziek aizpari uskaraz, eta arek guri [ere bai] (10):* guztiek ahizpari euskaraz, eta hark guri ere bai. */ arek badakien (10):* hark bazakin. */ arek eratan dien ur (10):* hark ura edaten du.

areki *(10)* : harekin */ nik betik areki uskaraz eta beste aurrideki erdaraz (10):* nik beti harekin euskaraz eta beste haurridekin erdaraz.

arekin *(3)* : harekin */ [Herodesek] kaur entzun zionian, turbatu zen eta arekin Jerusalen guziua (3):* Herodesek hau entzun zuenean, aztoratu zen eta harekin Jerusalen osoa.

aren 1 *(2, 3, 5, 10)* : haren */ jeina il garaian, aren arima xatxi zela linboetra (2):* jauna hil garaian, haren arima linboetara jaitsi zela. */ [Judea guzutik] zuatzan, bada, aren erdeitra gentiak (3):* Judea osotik zihoazen, bada, jendeak hura aurkitzera. */ [etsia] erori zen eta aren desegingua andi [izan zen] (3):* etxea erori zen eta haren suntsipena handia izan zen. */ zerbutxari aren, ez dago zeren (5):* zerbitzari haren(a), ez dago zergatik. */ aren ainzpa bat senarrareki (10):* haren ahizpa bat senarrarekin.

aren 2 *(2)* : bada */ zerengatik, aren, erraitan dugu [kori]? (2):* zergatik, bada, erraten dugu hori? OH. Forma erabiliena ´arren´ da.

arenganik *(2)* : harengandik */ arenganik mertxede [artako] (2):* harengandik mesede jasotzeko.

areskide *(10)* : adiskide

aretx *(2, 4, 5)* : *(bot.)* haritz */ aretx ere aztan da txiki (4):* haritza ere gutxi hazten da. */ aretxa ikialtetan [aztan da] (4):* haritza eguteran hazten da. */ uskaldunen axkorek aretx artean*

dirdiratan dei (4): euskaldunen aizkorek haritz artean dirdiratzen dute. */ aretx-arnari (5):* haritz fruitu(a). OH. Bizkaieraz ere dokumentatua.

aretz *(1)* : haritz

areztoi *(1)* : harizti */ areztoia (1lm):* hariztia.

argi 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : argi */ argia eta uluna (2):* argia eta iluna. */ argiara (3):* argitara. */ ulunguan eroririk zagon iri konek ekusi du argi andi bat (3):* iluntasunean eroririk zegoen herri honek argi handi bat ikusi du. */ jangeikuari argi [eskatu] (3):* jaungoikoari argia eskatu. */ zore korpizaren argia zore begiak dutzu (3):* zure gorputzaren argia zure begiak dituzu. */ koral errazia anixko diona kemen gastatan digu argitako (4):* erretxina dezente duen pinu-muina hemen argitarako gastatzen dugu. */ argirik bage [daude] (4):* argirik gabe daude. */ lotsa dionarentako uluna zau argi ezkapatako (5):* beldurra duenarentzako iluna zaio argi ihes egiteko. */ zereki argi, kareki ulun (5):* zerekin argi, harekin ilun. */ ulunpetik argiara erkin (6):* ilunpetik argitara atera. */ argia ebiltan da anitx arin (7):* argia oso arin dabil. */ elizako argiak (9):* elizako argiak. */ argia [lotan dien] (10):* argia itzaltzen din.

argi 2 *(3, 4, 5, 7, 9)* : argi (adj.) */ biotza argi deinek jangeikua ekusen baitei (3):* bihotza argi dutenek jaungoikoa ikusiko baitute. */ tenpra on eginen du, zeren zeuria baitago argi (3):* eguraldi ona eginen du, zeren zerua argi baitago. */ kakeria bat, iturriko ura bikain argi (4):* beherakoa, iturriko ura bezain argia. */ urteberriko goikoa dun guziuetarik argiena (5):* urteberriko ilargia dun guztietan argiena. */ argi, argiago (7):* argi, argiago. */ gorri argi[a] (7):* gorri argia.

argi 3 *(9)* : zuzi */ argi bat ixikirik (9):* zuzi bat pizturik.

argi 4 *(5)* : argi, alai, bizi */ begi argia (5):* begi argia, begi alaia. */ gogo argia (5):* gogo argia, umore alaia.

argi-begi *(5)* : egunsenti, goiztiri

argi-ezbaia *(5)* : argi-zirrinta (egunsentiko lehena)

argi-izar *(5)* : *(astr.)* artizar

argi-punta *(10)* : egunsenti, goiztiri */ argi-puntan oitik azka eta mendiara, eta gero arratsen etsera astra berriz (10):* egunsentian ohetik altxatu eta mendira, eta gero arrastirian etxera atzera berriz.

argi-txirrinta *(5)* : egunsenti, goiztiri */ argi-txirrintan jagi nintzen (5):* argi-urratzean jaiki nintzen.

argi-zirin *(5)* : egunsenti, goiztiri OH. Azkuek ´jada argitua (ez argi-urratzean)´ zehazturik.

argian txirrinta *(5)* : egunsenti, goiztiri

argiaste *(5)* : egunsenti, goiztiri

argigo *(5)* : argitasun

argilo *(5)* : argilo OH. Goizean, eguzki atera ondoan, egiten den loa.

argillatu 1 *(5, 7, 11)* : gose handia izan OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian gordetako ´arguillau´ hitza ´1. argal dagoena 2. zekena´ esanahiekin dokumentatua. Oskako euskaraz ere dokumentatua.

argillatu 2 *(5)* : saretu, higatu (arropa) */ arropa kori argillat[r]uk dago (5):* arropa hori higaturik dago.

argillona *(5, 11)* : *(erai.)* isurbide, hustubide OH. Aznarezek ´argillon´ forman dokumentatua, ´soro eta baratzetako hustubidea´ argibidearekin. ´Argullon´ aldaera ere dokumentatua.

argimitil *(5)* : argimutil, zutargi

argin *(5, 6)* : hargin */ argina (6):* hargina.
arginabar *(5)* : egunsenti, goiztiri
arginesa *(5)* : harginaren emazte */ arginesa (5):* harginaren emaztea.
argingo *(5)* : hargintza, hargingo */ argingoan [dabila] (5):* hargintzan dabil.
argintzio *(5)* : egunsenti, goiztiri */ argintzioan fanen gutuk (5):* egunsentian joanen gaituk.
argitia *(2)* : egunsenti, goiztiri
argitu *(3, 5, 7)* : argitu */ argitia (3):* argitzea. */ aren begitartiak argitan zion iñazturak gisa (3):* haren aurpegiak tximistak bezala argitzen zuen. */ argi xin dena argitra zaudener itzaletako errian (3):* argia, itzaletako lurraldean zeudenak argitzera etorri dena. */ argia, argi tzan etseko guziuer (3):* argia, argi diezaien etxeko guztiei. */ zore begia egon baledi xaî, zore korpiz guziua egonen tzu argitruk (3):* zure begia garbi balego, zure gorputz osoa argiturik legoke. */ iguzkia ulunten da, goikuak ez du argiten (3):* eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argituko. */ ni gaur iltan banaz, zazpi tortxeki argi ditazu (5):* ni gaur (gauean) hiltzen banaiz, zazpi zuzirekin argi iezadazu (bidea). */ iguzkiak argitan du (7):* eguzkiak argitzen du. */ fite argiten du (7):* laster argituko du.
argizagi *(2, 5, 8, 9, 10)* : *(astr.)* ilargi */ eguzkia ta argizagia (2):* eguzkia eta ilargia. */ argizagia medalla andia (5):* ilargia domina handia. */ argizagiaren goragoan ebakitan dra bago ta lerrak (5):* (ilargiaren) ilgoran pagoak eta lerrak mozten dira. */ argizagia (8, 9, 10):* ilargia. */ erkitan dun argizagi[a] (10):* ilargia ateratzen da.
argizai *(7)* : *(astr.)* ilargi */ argizaia (7):* ilargia.
argizaintun *(5, 9)* : argimutil, zutargi */ eretxan argizaintun bat (9):* jaits ezan argimutil bat.
arguditu *(8)* : hitz egin */ anitx arguditu nuk, anitx arguditu dur (8):* anitz hitz egin dut.
-ari 1 *(2, 5)* : -ari, -lari */ zerbutxari (2):* zerbitzari. */ lantzari (5):* dantzari.
ari 1 *(2, 4, 5, 7, 8)* : *(zoo.)* ahari */ ariak, maiatza elteari, ´deuri, deuri´ erraten dau nausiari (5):* ahariak, maiatza heltzean, ´diru, diru´ esaten dio nagusiari. */ aria xatako (8):* aharia jateko.
-ari 2 *(4, 5, 7)* : -enean */ anitx senditu nion ekustiari trastornu ekun zionaz tranbiatik xaxtiari (4):* anitz sentitu nuen ikustean tranbiatik jaistean eduki zuen ondoezaz. */ usi batan igartiari, otso bat [erkin zitzabein] (4):* baso batean igarotzean, otso bat atera zitzaien. */ ariak, maiatza elteari, ´deuri, deuri´ erraten dau nausiari (5):* ahariak, maiatza heltzean, ´diru, diru´ esaten dio nagusiari. */ eguerdiari arinten du (7):* eguerdian atertuko du. OH. Denborazko ´-ari´ atzizkiak zuzenean gaztelaniatik gaizki itzulia dirudi.
ari 2 *(5, 8, 9, 10)* : hari */ ari orapillatua ezta sekula oso (5):* hari korapillatua ez da sekula oso. */ aritik txerkatan da allikoa (5):* haritik bilatzen da harilkoa. */ aria xostako (8):* haria josteko. */ orratza sar eta ariak kola (8):* orratza sartu eta hariak honela. */ ari mea (9):* hari mehea. */ aria (10):* haria.
ari 3 *(5)* : asmo
ari 4 *(5)* : alde egokien */ aritik (5):* alde egokienetik.
ari 5 *(8)* : hari (nori) */ xuan litiala miratra gizon ari aua (8):* gizon hari ahoa miatzera joan litezela.
ari izan *(5)* : ari izan */ izan nintzen Beltzuntzen, gore apez muturbeltza asun biltan ari zen (5):* izan nintzen Beltzuntzen, gure apaiz muturbeltza asunak biltzen ari zen. */ mitil koriek irabazka ari dra (5):* mutil horiek borrokan ari dira. */ xatan ari iza? ez (5):* jaten ari al haiz? ez.
ari-bazter *(5)* : oihal-zerrenda
ari-besaka *(5)* : hari-zuntz, albainu

ari-bilo *(5)* : hari-izpi

âria *(3)* : harea, hondar */ gizon ero [batek egin] zion bere etsia âria gainian (3):* gizon ero batek bere etxea harearen gainean egin zuen. */ etse fundatruk izan [dena] âriaren gainian (3):* harearen gainean egina izan den etxea.

aria 1 *(2)* : harea, hondar

aria 2 *(5)* : arraza */ bere aria tiraten du (5):* bere arrazakoa da, bere aitaren antzekoa da.

aria 3 *(5)* : harreman */ zer onki eramaiten dei aria bere artean! (5):* zer ongi daramaten harremana beren artean!

arialdi *(5)* : hari-zuntz, albainu

ariatu *(8)* : *(nek.)* areatu OH. Erein aurretik egiten dena.

ariko 1 *(2, 4, 5)* : *(zoo.)* ahariko (bi urte arteko aharia) OH. Azkuek ´ahari handia´ esanahian dokumentatua.

ariko 2 *(5)* : *(zoo.)* arkume

arima 1 *(2, 3, 5, 7)* : *(erl.)* arima */ [Kristok] bere arima saintia [eman ziela] (2):* Kristok bere arima santua eman zuela. */ gore arimaren salbazionearentako (2):* gure arimaren salbamenerako. */ xakin zagon gore arimek zonbat balio dein (2):* jakin dezagun gure arimek zenbat balio duten. */ lotsarik etzazei ekun arima il ez dokeiner (3):* beldurrik ez iezue izan arima hil ez dezaketenei. */ zer, ez dia arimak obro balio ezik alimentiuak? (3):* zer, ez al du arimak gehiago balio janak baino? */ gore arimetan [egin tzala on] (3):* gure arimetan egin dezala on. */ mia da arimaren gia (5):* mihia da arimaren gidaria. */ Erronkariko irietan uskararen arima salbatu deiner (7):* Erronkariko herrietan euskararen arima salbatu dutenei. */ otoi egin zazei bere arimaren altez (7):* otoi egin ezazue haren arimaren alde.

arima 2 *(5)* : arima (inor ez) */ arimarik eztago (5):* arimarik ez dago.

arin 1 *(3, 5)* : arin (adj.) */ jeinaren karga arin [da] (3):* jaunaren zama arina da. */ [aziak] bertan bunatu zren, lurra arin zegolakoz (3):* haziak berehala ernamuindu ziren, lurra arin zegoelako. */ kaskuts erraiten digu gixon buru arinxka bati (5):* txoriburu esaten dugu gixon buruarin bat.

arin 2 *(3, 6, 7)* : arin (adb.) */ iêsi ez deiztekenian arin (3):* arin ihes egin ez dezaketenean. */ argia ebiltan da anitx arin (7):* argia oso arin dabil.

arin-arin *(6)* : arin-arin

arindura *(5)* : arindura

arinki *(3)* : arinki */ ez arinki projimuaz gaxki juzgatia (3):* ez arinki epaitzea gaizki lagun hurkoa.

arintu 1 *(5)* : arindu */ lotsak zankoak arintan tu (5):* beldurrak hankak arintzen ditu.

arintu 2 *(5, 7)* : *(met.)* atertu */ eguerdia[n] arinten da, beste gaineran egun guzian euria egonen da (5):* eguerdian atertuko du, beste gainerakoan egun osoan euria egonen da. */ goxan arintu du (7):* goizean atertu du. */ eguerdia[n] arinten du (7):* eguerdian atertuko du.

aritz *(1, 8)* : *(bot.)* haritz */ aritz bakotxa (1):* haritz bakarra. */ aritze-kaxala (8):* haritz azala. OH. ´Aritze-kaxala´k e lokarria duela dirudi.

arixkide *(10)* : adiskide */ eragi zan kona arraultze banak gore arixkidearentako (10):* ekar itzan hona arrautza batzuk gure adiskidearentzat. */ gizon kori xuntatan dun arixkideareki (10):* gizon hori adiskidearekin elkartzen dun.

arixko *(5)* : hariztxo

arizkoarri *(5)* : *(jos.)* tortolos, kurkulux

arizpi *(5)* : hari-zuntz, albainu

ariztatu *(5)* : listu, pirukatu

ariztoi *(1)* : harizti */ ariztoia (1):* hariztia. OH. ´Aristoia´ dokumentaturik.

ark *(2, 3)* : hark */ ark eta zuk sinestan duzien gaiza korik (2):* hark eta zuk sinesten dituzuen gauza horiek. */ ark daka bere eskiuetan sardia (3):* hark dauka bere eskuetan sardea.

arkaigru *(2)* : *(erl.)* arkanjelu, goiaingeru */ nork erran zien Abemaria? arkaigru san Gabrielek (2):* nork erran zuen Agurmaria? san Gabriel arkanjeluak.

arkaingu *(2)* : *(erl.)* arkanjelu, goiaingeru */ Mikle arkainguari [otoiez nago] (2):* Mikel arkanjeluari otoizka nago.

arkainguru *(3)* : *(erl.)* arkanjelu, goiaingeru */ arkainguru Gabriel xin zenian (3):* Gabriel arkanjelua etorri zenean.

arkangu *(2)* : *(erl.)* arkanjelu, goiaingeru */ endone Mikle arkangua (2):* done Mikel arkanjelua.

arkanguru *(3)* : *(erl.)* arkanjelu, goiaingeru */ san Migel arkanguriuari (3):* san Migel goiaingeruari.

arkanxelu *(8)* : *(erl.)* arkanjelu, goiaingeru */ guazen aingurieki, arkanxelieki (8):* goazen aingeruekin, arkanjeluekin.

arkara *(4, 5)* : arkara (ardia edo ahuntza arreske)

arkaratu *(5)* : arkaratu (ardia edo ahuntza arreske jarri)

arkatu *(5)* : arnasestuka geratu

arki *(2, 5)* : *(suk.)* ahariki */ arki eta eperkiz aserik (5):* ahariki eta eperkiz aserik.

arkuda *(5)* : handi, galant (emakumea nahiz abere emea) */ zer arkuda den bei kura! (5):* zer handia den behi hura!

arlantx *(5)* : pixontzi

arma *(3)* : arma */ etzazei eraman makila edo berze armarik xaurien defensatako (3):* ez ezazue eraman makila edo beste armarik zeuen defentsarako.

armalla *(1)* : harmaila

armatu *(3)* : armatu */ [ezpata eta makilarekin] armatruk (3):* ezpata eta makilarekin armaturik.

armenian ekun *(4)* : harmenean eduki */ [semia] armenian diak (4):* semea (norbaiten) harmenean diat. OH. Mendigatxak argiturik, ´armenian diak´ = (semea) norbaitek laguntzeko hartuta daukat, egoera larrian baitago (lanik gabe, dirurik gabe, etabar).

armenta 1 *(1)* : *(bot.)* arbendol, almendra

armenta 2 *(1)* : *(bot.)* arbendolondo, almendrondo

armentadoi *(1)* : arbendoldi, arbendolondo leku */ armentadoia (1):* arbendoldia, arbendolondo lekua.

arnai *(11)* : *(erai.)* habe (teilatukoa, sabaikoa) */ arnaya (11):* (teilatuko) habea, (sabaiko) habea. OH. Aznarezek ´zurezko pieza luze sendoa, teilatuei (edo sabaiei) eusteko jartzen dena, alde batetik bestera´ esanahiarekin dokumentatua. Ikus ´ernai´ eta ´êrnai´ sarrerak.

arnari *(5)* : fruitu */ aretx-arnari, bago-arnari, artakarro-arnari (5):* haritz fruitu(a), pago fruitu(a), arte fruitu(a).

arnegatu *(3)* : arnegatu, ukatu */ lein ezik ollarrak kanta tzan, arnegaten [tzu] nitaz iror aldiz (3):* oilarrak kanta dezan baino lehen, hiru aldiz ukatuko nauzu.

arnes *(5)* : arnes (ganadu oldarkorra)

arotz 1 *(5, 11)* : errementari */ barrideko arotzak yireki nai din bordaltu (5):* auzoko errementariak hirekin ezkondu nahi din. */ arotza (11):* errementaria.

arotz 2 *(5)* : ferratzaile

arotz-mai *(5)* : ingude

arozgo *(5)* : errementaritza

aroztegi *(5)* : *(erai.)* sutegi (errementariarena) */ aroztegian butz egin zak lein ezik burña ar (5):* sutegian putz egin ezak burdina hartu baino lehen. */ erkin aroztegitik eta ikaztegian sar (5):* sutegitik atera eta ikaztegian sartu.

arpa *(11)* : *(nek.)* arpa (ongarria mugitzeko tresna)

arpe *(5)* : *(geol.)* harpe */ goazen gu ere, biotzez berere, arpe kartara (5):* goazen gu ere, bihotzez bederen, harpe hartara.

arrabots *(5)* : zarata, harrabots */ gizon ttipi arrabots andi (5):* gizon txiki harrabots handi.

arrai 1 *(7, 10)* : arrain */ arraya orai on ta kario, eta ezin el xatra (10):* arraina orain ona eta garestia, eta ezin heldu jatera.

arrai 2 *(5, 8, 9)* : *(zoo.)* amuarrain */ arraia (8):* amuarraina.

arrail *(5)* : ezpal (luzea eta lodia)

arraila 1 *(5)* : pitzadura, arrakala

arraila 2 *(5)* : ezpaltxo; arantzatxo OH. Haragian sar daitekeen ezpaltxoa nahiz arantzatxoa.

arrailatu *(5)* : pitzatu, arrakalatu

arrailtu *(5)* : pitzatu (eskuak edo lurra)

arrain 1 *(4, 5)* : arrain */ arrain bi libratakua [arrapatu banu], zinezago emonen nazkan ortzikaldiak (4):* bi librako arraina harrapatu banu, egiazkiago eginen nizkion hozkadak. */ arrainsko[a] (5):* arraintxoa.

arraîn 1 *(3)* : arrain */ eskatan bazau arraîn bat, suge bat [emonen du]? (3):* amuarrain bat eskatzen bazaio, suge bat emango du? */ borz ogi eta bi arraîn edo arrantzu (3):* bost ogi eta bi arrain. */ bi arraînak [artu ztion] (3):* bi arrainak hartu zituen. */ zomat ogi tzei? zazpi, zomait arraînxkorekin (3):* zenbat ogi dituzue? zazpi, zenbait arrantxorekin.

arrain 2 *(2, 5)* : *(zoo.)* amuarrain

arraîn 2 *(2)* : *(zoo.)* amuarrain

arrain 3 *(4)* : gerrialde (atzekoa); giltzurrun(ak) */ ez daud obro isartan, arrainetarik baldatruk [bainago] (4):* ez diot gehiago idazten, gerrialdetik (giltzurrunetatik) jota bainago.

arrakaitu 1 *(3)* : mandatu, enkargu */ fan ztei ziudadiara, kalako personaren etsiara, eta emon dazazei arrakaitu kaur (3):* zoazte hirira, halako pertsonaren etxera, eta emaiozue enkargu hau.

arrakaitu 2 *(5)* : janari-hornidura, anoa

arrakeitu *(9)* : janari-hornidura, anoa */ ermaitan diegun arrakeitea bizpor egunen (9):* jatekoa daramagu egun batzuetarako. OH. Zaraitzun ´errekaitu´ dokumentatua.

arraklan *(11)* : *(zoo.)* eskorpioi

arrana *(2)* : *(zoo.)* igel

arranblatu *(5)* : pilatu (egurrak)

arrankuratu *(5)* : kezkatu

arrano *(7)* : *(heg.)* arrano */ arranoa (7):* arranoa.

arranpulu *(5)* : baba, maskuilo (esku nahiz oinetakoa)

arrantzari 1 *(3)* : arrantzale */ Simon eta Andres arrantzari [zren] (3):* Simon eta Andres arrantzaleak ziren. */ nik eginen diez el ztein izaitra gizonen arrantzari (3):* nik eginen dut hel zaitezten gizonen arrantzale izatera. */ arrantzariek on drenak sartan tei beren zaretan (3):* arrantzariek onak direnak (arrainak) beren saskietan sartzen dituzte.

arrantzari 2 *(5)* : mozkor, aitzur (handia)

arrantzu 1 *(5, 9)* : arrantza (lana) */ arrantzua (5):* arrantza.

arrantzu 2 *(3)* : arrain */ [itxasuan] arrapa zazu lein arrantzu erkin ledina (3):* itsasoan harrapa ezazu atera ledin lehen arraina. */ [parabola], errede arrantzuz betiarna (3):* parabola, sare arrantzuz betearena. */ kasta guzutako arrantziuak (3):* kasta guztietako arrainak. */ borz ogi eta bi arraîn edo arrantzu (3):* bost ogi eta bi arrain. */ zomat ogi tzei? zazpi, zomait arrantzuxkorekin (3):* zenbat ogi dituzue? zazpi, zenbait arrantxorekin.

arrantzun *(5, 9)* : arrantzan */ arrantzun egon nun (9):* arrantzan ibili naun.

arrapa-txori *(7)* : hegazti harrapari

arrapataka *(5)* : arrapaladan, arrapataka

arrapatu *(3, 4, 5, 7, 10)* : harrapatu */ [lepotik] arrapatan zaularik, itotan zaun (3):* lepotik harrapatzen zuela, ito egiten zuen. */ [itxasuan] arrapa zazu lein arrantzu erkin ledina (3):* itsasoan harrapa ezazu atera ledin lehen arraina. */ eltu gra tenprara, lanek pean arrapatu baigitei (4):* lanek pean harrapatu gaituzten garaira heldu gara. */ kek eskiua arrapatu zabein eta gentu nabaja (4):* haiek eskua harrapatu zioten eta labana kendu. */ baratruk ekusten nion erbi baten arrapatra [fan nintzen] (4):* geldituta ikusten nuen erbi bat harrapatzera joan nintzen. */ [eskribitan] xarrekiten naz, aiketa zomait ezinek arrapa nazan artio (4):* idazten jarraitzen dut, harik eta zenbait ezinek harrapa nazan arte. */ lazaroz txoria arrapatu zien, erramuz pelatu, bazkoz jan (5):* pasio-igandean txoria harrapatu zuten, erramu egunez lumatu, pazkoan jan. */ lein arrapatan da gezurra ezik zankamakurra (5):* lehenago harrapatzen da gezurra herrena baino. */ [zartagia] igoinetik arrapatruk (5):* zartagina kirtenetik harrapatuta. */ arrapa zak! (7):* harrapa ezak! */ orai auts[e da] lexo bat eta eztokiagu arrapatu karpintero bat (10):* orain leiho bat hautsi da eta ez dezakegu zurginik harrapatu.

arrapazka *(5)* : harrapaketan (haur jolasa)

arrarazi *(5)* : harrarazi

arrarte *(1)* : *(geog.)* harrarte, haitzarte */ arrartea (1):* harrartea.

arraski *(5, 9)* : guztiz, arras

arrastelu *(5)* : *(nek.)* eskuare, arrastelu

arrasti *(7)* : arrats, arratsalde */ arrasti oro borzetan (7):* arratsaldero bostetan.

arrastiri *(5)* : arratsalde, arrastiri */ arrastirian mutiko ta neskatxeak ebiltan dra eske [gairon egunean] (5):* arrastirian mutiko eta neskatoak eske ibiltzen dira gabon egunean.

arrastre *(5, 8)* : arratsalde, arrastiri */ arrosarioara arrastrerik (5):* arrosariora arrastirian. */ ´askaria´ goxan eta arrastrian ere bai (8):* ´askaria´ goizean eta arratsaldean ere bai.

arrastri *(3, 5, 9, 10)* : arratsalde, arrastiri */ arrastria eltu izan baikoz, eragu zitzabein anitx espirituekin zaudenik (3):* arratsaldea heldu bezain laster, espiritudun asko ekarri zizkioten. */ arrastria[n] diszipuluak eltu zizazkaun erraiten (3):* arratsaldean ikasleak etorri zitzaizkion esaten. */ arrastriko irureta[n] (3):* arratsaldeko hiruretan. */ arrastriko azken ordiuari abantxu (3):* ia arratsaldeko azken orduan. */ gero arrastrian plaztan sonia (9):* gero arratsaldean plazan soinua (egoten zen). */ igar zazei arrastri on (10):* igaro ezazue arratsalde ona. */ arrastrian (10):* arratsaldean.

arrastu *(5)* : arrastu, ilundu

arratoi *(5, 8, 10)* : *(zoo.)* arratoi */ arratoi ñottua (8):* arratoi txikitxoa.

arratoin *(2)* : *(zoo.)* arratoi

arrats 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : arrats, arrastiri */ arratsen [xan deitekia zerbait]? (3):* arratsean jan al daiteke zerbait? */ atzo arratsen (4):* atzo arratsean. */ arrats odoi-gorri, biramenean eguzku gorri (5):* arrats hodei-gorri, biharamunean eguzki gorri. */ atzo arratsean lo ekuntu nion*

egin, andutsia zapartuz (5): atzo arratsean lo egin ahal izan nuen erlakaiztena lehertuz. */ atzo arrastarik (6):* atzo arratsetik. */ arratsian iguzkia erkinen da (7):* arratsean eguzkia aterako da. */ arratsen (8):* arratsean. */ argi-puntan oitik azka eta mendiara, eta gero arratsen etsera astra berriz (10):* egunsentian ohetik altxatu eta mendira, eta gero arrastirian etxera atzera berriz.

arrats 2 *(5, 8, 10)* : arrats (gaueko lehen orduak) */ arrats utsitruk eta oraino ere lanean (5):* arrats itsuturik (= ilundurik) eta oraindik ere lanean. */ gero arratsen ollar meza, mezara (10):* gero arratsean oilar meza, meza(ta)ra.

arratsalde *(2, 5)* : arratsalde, arrastiri */ arratsalde apalean (5):* arratsalde apalean, iluntzean.

arratsi on! *(7)* : arratsalde on!

arrau *(5)* : arraun

arraukari *(5)* : arraunlari

arraultze *(2, 4, 5, 7, 10)* : arrautza */ azukarreki edo arraultze gorringoareki onki batitruk (4):* azukrearekin edo arrautza gorringoarekin ongi irabiaturik. */ Petrak ogei arraultze [eraman dutu] (4):* Petrak hogei arrautza eraman ditu. */ orobat balio ekun dei Antoniaren amar arraultzek, nola Petraren ogeiek (4):* berdin balio izan dute Antoniaren hamar arrautzek eta Petraren hogeiek. */ arraultze batez zartagi andian ez daiteke tortilla andia egin (5):* arrautza batez zartagin handian ez daiteke tortilla handia egin. */ ogi ta arraultze [xan du] (7):* ogia eta arraultzea jan ditu. */ eraman zazei arraultze koriek (10):* eraman itzazue arrautza horiek. */ arraultzia (10):* arrautza.

arraultze izari *(10)* : errun, arrautza jarri */ izartan dien arraultze (10):* erruten diten, arrautza jartzen diten.

arraultze-aran *(5)* : *(bot.)* arrautza-aran */ arraultze-aran[ak] (5):* arrautza-aranak. OH. Aran handi samarrak omen dira.

arraultze-kosko *(5)* : arrautza-oskol

arrautza *(5, 7)* : arrautza */ olloak errutan dutu arrautzak (7):* oiloak arrautzak erruten ditu.

arrautza-kosko *(5)* : arrautza-oskol

arrautze *(5, 9)* : arrautza */ arrautziak (9):* arrautzak.

arrautze zuku *(5)* : *(suk.)* arrautza salda

arraza *(4)* : arraza */ animal arraza bapana (4):* animalia arraza bakoitza.

arrazko *(5)* : bahe (mota bat)

arrazoî *(3)* : arrazoi */ konen arrazoîan erraiten daizeid (3):* honen arrazoian erraten dizuet. */ arrazoîaren usuara eltan denian (3):* arrazoia erabiltzera heltzen denean. */ parabolaz eta arrazoîez (3):* parabolaz eta arrazoiez. */ arrazoîrik bage (3):* arrazoirik gabe.

arrazoi 1 *(7)* : arrazoi */ arrazoi tzu (7):* arrazoia duzu.

arrazoi 2 *(2)* : arrazoi, arrazoimen */ [kristiaiak] xakin biar du arrazoiara eltan denian (2):* kristauak (hori) jakin behar du arrazoira heltzen denean. */ arrazoiara eltu dren guziek [batixa drokeie] (2):* arrazoira heldu diren guztiek bataia dezakete.

arrazôn *(3)* : arrazoi */ arrazônekin profetizatu zion xetaz Isaiasek (3):* arrazoiarekin profetizatu zuen zuetaz Isaiasek.

arre! *(5)* : arre!

arreba *(2, 3, 6, 7, 10)* : arreba */ arrebak eitzi ene izenaren kausaz (3):* arrebak utzi ene izenaren zioz. */ arreba, arrebak (6):* arreba, arrebak. */ xatxi dena da ene arreba (7):* jaitsi dena da ene arreba.

arrebaxun *(2)* : arrebaorde

arregatu *(10)* : ureztatu */ regadora arregatako (10):* ureztailua ureztatzeko.

arrekin *(3)* : harekin */ agi ez dein arrankatian xatsa, arranka zazein arrekin xunto garia (3):* gerta ez dadin iraka erauztean, harekin batera garia erauz dezazuen.

arreklan *(2)* : *(zoo.)* eskorpioi

arren *(2, 5, 7, 8, 10)* : bada */ [juangeikoak] ñeuren ezpazien nestaterik, zertako, arren, kreatu ztien gizona eta aingriak? (2):* jaungoikoak inoren beharrik ez bazuen, zertarako, bada, sortu zituen gizona eta aingeruak? */ zertako, arren, erraitan dugu [aitagorea]? (2):* zertarako, bada, erraten dugu aitagurea? */ zer arren? (5):* zer bada? */ eztun ez gizon ez mazte, zer da arren? (7):* ez dun ez gizona ez emakumea, zer da bada? */ oi! arren... bai, bai! (8):* oi, bada... bai, bai! */ edeik, arren (8):* emadak, bada. */ arren zer? (10):* zer bada? */ arren ordian [xinen da] (10):* bada orduan etorriko da.

arrendatari *(3)* : errentatzaile */ arrendazaliek edo arrendatariek enprenditan zrelarik zerbutxarien kontra, makilastatu zein bat (3):* errentatzaileek zerbitzarien aurka ekiten ziotela, bat makilatu zuten.

arrendazale 1 *(3)* : errentatzaile */ zerbutxariak arrendazaliengana [oiltu ztion] errezebi lezein aren frutiua (3):* zerbitzariak errentatzaileengana bidali zituen, mahastiaren fruitua jaso lezaten.

arrendazale 2 *(3)* : maizter */ Mateo arrendazalia (3):* Mateo maizterra.

arrenta *(4)* : *(ekon.)* errenta */ giniona fan zaikugu arrentaz (4):* genuena (maisua) errentaz joan zaigu.

arrepentitu *(4)* : errieta egin */ arrepentitako, erran zaun´ txerria, xan zak gente gisa!´ (4):* errieta egiteko, esan zion ´txerria, jan ezak jendeak bezala!´.

arrerazi *(5)* : harrarazi

arres *(5, 7, 10)* : ardi-azienda; ardi */ saldo bat arres [xin da] (7):* saldo bat ardi-azienda etorri da. */ morroiak juaitan tun arreseki (9):* mutikoak ardiekin joaten ditun. */ arreseki mendian, mendi guzutik (10):* ardiekin mendian, mendi guztitik.

arresi *(1)* : *(erai.)* harresi, murru */ arresia (1):* harresia.

arrestri *(8, 10)* : arratsalde, arrastiri */ goxan askal, eguerdiz bazkal, arrestrian askal eta artsen aigal (8):* goizean gosal, eguerdiz bazkal, arratsaldean askal eta arratsean afal. */ mezara [xoan] ta arrestrian rosarioara (10):* meza(ta)ra joan eta arrastirian arrosariora.

arrestru *(8)* : *(nek.)* eskuare, arrastelu */ arrestrua (8):* eskuarea, arrastelua.

arreuli *(5)* : *(zoo.)* arrabio

arri 1 *(1, 3, 5, 7, 8, 9, 10)* : harri */ ogi [eskatruk] arri bat [emonen du]? (3):* ogia eskaturik harri bat emango du? */ arri kuek, arri korik (3):* harri hauek, harri horiek. */ zore zankua eztein tropeza arri zomaiten kontra (3):* zure oina ez dadin behaztopa zenbait harriren kontra. */ arria [azkatu zion] (3):* harria altxatu zuen. */ etsia arrizko zimientu gainian [egin zion] (3):* etxea harrizko zimendu gainean egin zuen. */ orobat da arriaz pitxerari nola pitxeraz arriari (5):* berdin da harriaz pitxerrari edo pitxerraz harriari. */ etsea zurez eta arriz [egin zeian] (7):* etxea zurez eta harriz egin zinaten. */ lurra dun arriz (7):* lurra harrizkoa dun. */ txakur bati arri bat egotxi (8):* txakur bati harri bat jaurti. */ arri andi kura erori dun eguatxara (9):* harri handi hura ugaldera erori dun. */ arria (10):* harria.

arri 2 *(1, 4)* : harri, haitz */ arri luzea (1):* harri luzea, haitz luzea. */ Txatxo arria (1):* Txatxo harria. */ arrigorrieta (1):* haitz gorri eta. */ uskaldunek xorroxtan dei beren axkorak Ibañetako arrietan (4):* euskaldunek beren aizkorak zorrozten dituzte Ibañetako haitzetan.

arri 3 *(2, 4)* : *(met.)* txingor, harri */ orai bi urte, arri erauntsi batek eraman zaikugun kosetxa (4):*

orain bi urte, harri erauntsi batek uzta eraman zigun.

arri-adar *(5)* : *(met.)* txingor-hodei, harriabar

arri-erauntsi *(5)* : *(met.)* harri-jasa, harri-erauntsi

arri-erautsi *(9)* : *(met.)* harri-jasa, harri-erauntsi */ gaistoago ezik arri-erautsi bat (9):* harri-jasa bat baino txarragoa.

arri-sonu *(5)* : *(met.)* txingor-soinu, harri-soinu

arriabar *(5)* : *(met.)* harriabar

arridoi *(3, 5)* : harritza, hardi */ berze banak arridoietan [erori zren] (3):* beste (ale) batzuk hardietan erori ziren.

arrigarri *(5)* : miresgarri

arrigiltz *(5)* : *(erai.)* giltzarri

arrigune *(5)* : harrobi

arrikaldi *(5, 10)* : harrikada */ arr[i]kaldi batek obro min egiten du zanko-txunkiuan, ezik bizkarrean (5):* harrikada batek min handiagoa egiten du orkatilan, bizkarrean baino.

arrikaldika *(10)* : harrika */ aurrek, arrikaldika, autse dein kristal guziak (10):* haurrek, harrika, kristal guztiak hautsi ditinate.

arrikaldikatu *(3, 5)* : harrikatu */ arrendatariek arrikaldikatu zein [zerbutxaria] (3):* errentatzaileek harrikatu zuten zerbitzaria. */ arrikaldikatan [dutzu zoregana oiltruk drenak] (3):* harrikatzen dituzu zuregana bidaliak direnak.

arrikaldiztatu *(5)* : harrikatu

arrimuga *(5)* : mugarri

arrinabar *(5)* : *(min.)* harrinabar, jaspe

arrisko *(5)* : *(jos.)* puxtarri, kanika OH. Azkuek dio ´arriskoak´ mutikoek jolasteko ´harritxoak´ direla. Eta neskenak ´moxarriak´ direla. Bere hiztegian, berriz, ´arriskoak´ bost direla, eta neskak jolasten direla haiekin. Ikus ´arrizko´ eta ´arrixko´ sarrerak.

arritu *(3)* : harritu */ iri guziua ba[r]atu zen arritruk (3):* herri osoa harriturik geratu zen. */ gentiak arritruk [zauden] (3):* jendea harriturik zegoen.

arritxintxa *(1)* : hartxintxar

arrixko *(10)* : *(jos.)* tortolos, kurkulux */ ots arrixkuara, tostara (10):* goazen tortolosetara, jolasera.

arrizibi *(1)* : *(erai.)* hartzubi */ Arrizibieta ugartea (1):* Hartzubi(ko) uhartea.

arrizko *(10, 11)* : *(jos.)* tortolos, kurkulux */ ots arrizkuara tostatzea (10):* goazen tortolosetan jolastera.

arro *(5)* : harro

arroa *(5)* : arroa (neurria)

arroitu *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : zarata */ gentiaren arroitiua (3):* jendearen zarata. */ zer arroitu da kori? (4):* zer zarata da hori? */ inzkuru da gizon batek atsaz arroitu egiten diona (4):* gizon batek hatsaz egiten duen zarata arnasotsa da. */ ñiski-ñaska arroitu egiten zion mastekatako tenpran (4):* ñiski-ñaska zarata ateratzen zuen mamurtzeko garaian. */ zartagiak arroitu egin badu, zerbait barronta du (5):* zartaginak zarata atera badu, zerbait barrundatu du. */ zer arroitu indarra! (7):* zer zarata indartsua! */ anitx arroitu egitan beitu (7):* zarata handia egiten baitu. */ arroitu banak (9):* zarata batzuk. OH. Artzibar, Iruñea, Txulapain eta Zaraitzun ere dokumentatua.

arroitu egin *(5, 9)* : zarata egin */ oinez arroitu egiten diona (5):* oinez egiten duen zarata. /

arroitu egin dien (9): zarata egin diten.

arroka *(5)* : goru

arroka-estalki *(5)* : goru-txapel

arroltze *(5)* : arrautza

arroltze-loka *(5)* : arrautza tolot, arrautza ustel

arropa *(3, 5, 8, 10)* : arropa */ gizon bat beztitruk arropa delikatu banekin (3):* gizon bat arropa delikatu batzuekin jantzia. */ alorrian [dagona] ez deila utzul bere arroparen artra (3):* alorrean dagoena ez dadila itzul bere arropa hartzera. */ den negu nola den uda, betik da arropa lagun (5):* negua izan edo uda izan, beti da arropa lagun. */ arropa kori argillat[r]uk dago (5):* arropa hori higaturik dago. */ arropak anitx pollit (8):* arropak oso politak (ziren). */ lenao xoaitan ginzia eguatxara arropen [ekuztra] (10):* lehenago ibaira joaten ginen arropa garbitzera. */ zare andi banak [eramaitan gunia] arropareki (10):* saski handi batzuk eramaten genituen arroparekin.

arrosa *(5)* : *(bot.)* arrosa

arrosada *(2, 5, 7)* : *(met.)* antzigar; ihintz */ bizpur gairen buruko [elur gisa] biltan den arrosada da kalamokoa (5):* bizpahiru gauren buruan elur gisa biltzen den ihintza da antzigarra. OH. Bonapartek ´arrosada & rosada´ eta Azkuek eta Estornesek ´arrosada´ dokumentaturik dauzkate.

arrosario *(3, 5)* : *(erl.)* arrosario */ arrosariua errezatia (3):* arrosarioa errezatzea. */ meza [an]diara, bezperatra, arrosarioara (5):* meza nagusira, bezperetara, arrosariora. */ arrosarioara arrastrerik (5):* arrosariora arrastirian.

arrosatze *(5)* : *(bot.)* arrosondo, arrosa-landare

arrotz *(4, 5)* : arrotz, kanpotar */ arrotza[k] zer xinaldia egin daian! (4):* arrotzak zer etorraldia (egonaldia) egin dian! */ alegratan dei arrotzek, xiten drenean (5):* poz ematen dute arrotzek, etortzen direnean.

arroz *(2, 4, 7, 10)* : *(bot.)* arroz */ ez emon zein xaten baizik bi errantxo arroz (4):* ez omen zuten jaten bi arrantxo arroz baizik. */ arroz esneareki (7):* arroza esnearekin. */ arroza (10):* arroza.

arrullo 1 *(11)* : harro; gogotsu

arrullo 2 *(5)* : dotore, karan OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

arruzka 1 *(5)* : tarteka (etenekin)

arruzka 2 *(5)* : hutsarteka, txolarteka

arsa *(5)* : berriro, atzera

arsaldo *(5)* : ahari-talde

arsu *(5)* : *(nek.)* egur-erretze OH. Azkuek ´egur lodi erreketa, lantzeko lurretan´ esanahiarekin dokumentatua.

artadoi *(1)* : artadi */ artadoia (1):* artadia.

artaiztur(rak) *(5)* : ardi-guraize(ak) OH. Ardiei artilea mozteko guraizeak.

artakarro *(2, 4, 5)* : *(bot.)* arte */ artakarroa zûrginek txerkatan dei erremientez isartako (4):* artea(ren egurra) zurginek erremintetan jartzeko bilatzen dute. */ artakarro-arnari (5):* arte fruitu(a).

artako *(5)* : *(ekon.)* hartzeko

artalan *(5)* : auzolan

artan *(2, 3)* : hartan */ artan pensatako (2):* hartan pentsatzeko. */ artan, bada, nai ekun zion il (3):* hartan, bada, hil nahi izan zuen.

artarik *(3)* : hartatik */ nik erraiten daizeid ez dela baraten artarik arririk, bata berziaren gainian (3):* nik diotsuet ez dela geratuko (tenplu) hartatik harririk, bata bestearen gainean. */ edan zazei guziuek artarik (3):* edan ezazue guztiok hartatik.

artaz 1 *(2, 4)* : hartaz */ artaz guartako (2):* hartaz ohartzeko (jaunaz). */ artaz xakin nai diona (4):* hartaz jakin nahi duena.

artaz 2 *(3, 4)* : harekin (instrumentala) */ bil zazei xatsa eta artaz egin zazei espal suarentako (3):* bil ezazue iraka eta harekin egin itzazue ezpalak sutarako. */ artaz ekustan dud (4):* harekin ikusten dut.

artazi *(4, 5, 11)* : *(bot.)* arte-ezkur */ artakarroarnari ´artazi´ [erraiten zaio] (4):* artearen (fruitu)ari ´artazi´ esaten zaio.

artazî *(5)* : *(bot.)* arte-ezkur

arte 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 8, 10)* : arte, tarte */ bagartea (1):* pago artea. */ arteko mendia (1):* arteko mendia. */ benedikatia [zu] emazte guzien artean (2):* bedeinkatua zu emakume guztien artean. */ ilen artetik resuzitatu zela (2):* hilen artetik berpiztu zela. */ Judako ziudade prinzipalen artian (3):* Judeako hiri nagusien artean. */ badagua xen artian norbait? (3):* ba al dago zuen artean norbait? */ kuek oriuaren erostra faiten zren arte kartan, [senarra] xin zen (3):* hauek olioa erostera joaten ziren tarte hartan, senarra etorri zen. */ uskaldunen axkorek aretx artean dirdiratan dei (4):* euskaldunen aizkorek haritz artean dirdiratzen dute. */ aurten ere animazione andia dago gentiaren artian (4):* aurten ere bizitasun handia dago jendearen artean. */ irurgarnen egunian biztu zen ilen artetik (4):* hirugarren egunean piztu zen hilen artetik. */ aitamek beren umen artean bear dei xakin (5):* aita-amek beren umeen artean jakin behar dute. */ margu lili artean erleak naro ebiltan dra (5):* marrubi lore artean erleak sarri ibiltzen dira. */ burua bi bearrien artean izari (5):* burua bi belarrien artean jarri (= norbait zuzendu). */ anitx onki [egoitan da] gizonen artean (artian) (7):* oso ondo egoten da gizonen artean. */ [gizonek] beren artian kastellanua (8):* gizonek beren artean gaztelania. */ bien artian xakua ustu [zien] (8):* bien artean zahatoa hustu zuten. */ guzia uskara giauren artian (10):* guztia euskara geure artean.

arte 2 *(5)* : oroimen */ arte ona (5):* oroimen ona. OH. ´Arte´ oroimen esanahian, berez, ´hartze´ da. Azkuek dio Zaraitzun ´artze ona´ (= oroimen ona) esaten zela.

arte kartan *(3)* : bitartean */ bitartio edo arte kartan barkua itxasuaren erdian [zagon] (3):* bitartean itsasontzia itsasoaren erdian zegoen.

artean *(5)* : bitartean, artean */ bazkaltan gindauden artean, ostatuzalea berbermaian ereinztan beizagon, gano txikireki xan gunien (5):* bazkaltzen ari ginen bitartean, ostalaria mahai berean orrazten ari baitzen, gogo gutxirekin jan genuen.

artegi *(1, 5)* : *(nek.)* artegi, saroi, eskorta */ oxan artegia (1):* baso(ko) artegia.

artekoak *(7)* : *(suk.)* zizka-mizkak

arteo *(5)* : arte */ burzegia ilte[an] emon zitien ortzeara saldoak, lensemea eskiara xin arteo (5):* buruzagia hiltzean erdira (migodoin) eman zituzten artaldeak, lehen semea eskura (adinera) etorri arte.

arteskuka *(5)* : arteskuka (emakume jolasa) OH. Azkuek dio jolas hau bola bat biraka eskutik eskura pasatzea dela, emakumeetako bat haren bila dabilen bitartean.

artian *(3)* : artean, bitartean */ xaser zte ene eskoînara, nik izartan dituan artian zore [etsaiak] zore zankuen asientotako (3):* eser zaitez ene eskuinera, nik zure etsaiak zure oinen jarleku jartzen ditudan artean. */ aigaltan zauden artian, Jesusek ogia [artu zion] (3):* afaltzen zeuden

artean, Jesusek ogia hartu zuen.

artiklo *(2)* : artikulu */ zer dugu artiklo kontan? (2):* zer dugu artikulu honetan? */ irorgarren artikloa, irorgarren artiklua (2):* hirugarren artikulua. */ artikluetan daudian misterioak (2):* artikuluetan dauden misterioak.

artikulo *(2, 3)* : artikulu */ artikulo fedezkoak (2):* fedezko artikuluak. */ artikuluez landa, xinestatzen tziua zomait berze gaiza? (3):* artikuluez gain, sinesten al duzu beste zenbait gauza?

artile *(5)* : artile (kardatzekoa)

artio *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : arte */ kan noiz artio egoitan dra? (2):* han noiz arte egoten dira? */ egon zte kan nik abisa ztudan artio (3):* egon zaitez han nik abisatzen zaitudan arte. */ azken ordiuarartio (3):* azken ordua arte. */ irorgarnen egunia artio (3):* hirugarren eguna arte. */ berriz el gitian artio (4):* berriz hel gaitezen arte. */ onaren bakea gaiztoak nai dion artio (5):* onaren bakea gaiztoak nahi duen arte. */ belar koni urte guziuan ezau kentan lorea, exar dein artio (5):* belar honi urte osoan ez zaio kentzen lorea, ihar dadin arte. */ agur, ekusi artio! (7):* agur, ikusi arte! */ biar artio! (7):* bihar arte! */ orai artio deusere [ez] (7):* orain arte ezer ere ez. */ xek akab´artio, guk akab´artio (8):* zuek bukatu arte, guk bukatu arte. */ xuan artio (8):* joan arte. */ ez diar krutxia gentan buelta yain artio (8):* ez diat gurutzea kentzen itzul hadin arte. */ noiz artio? (9):* noiz arte? */ ni aino´re keben, [e]tzakin noiz artio (10):* ni oraindik ere hemen, ez jakin noiz arte. */ jangeikoak nai dien artio (10):* jaungoikoak nahi duen arte. */ orartio (10):* orain arte.

artizar *(5)* : *(astr.)* artizar

arto *(2, 10)* : *(bot.)* arto */ artua (10):* artoa.

artoflore *(2)* : *(bot.)* artalore

artol *(5)* : arto-ohol OH. Artoa labera eramateko ohola.

artola *(1)* : *(nek.)* artegi, saroi, eskorta */ artola (1):* artegia. OH. Ikus Nafarroako Gobernua, 166. or.

artolore *(5)* : *(bot.)* artalore

artopil *(5)* : *(suk.)* artopil

artouts *(5)* : artaburu huts (aletua)

artra *(3)* : hartara */ artra [bueltatian], onki egortruk [erdeiten du] (3):* (etxe) hartara itzultzean, ongi erraztaturik aurkitzen du.

arts *(8)* : arrats, arrastiri */ artsen (8):* arratsean.

artu 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : hartu */ ogi artiaz [antze zren] (3):* ogia hartzeaz ahantzi ziren. */ xagi zte, ar zazu aurra eta bere ama (3):* jaiki zaitez, har ezazu haurra eta haren ama. */ bozkario batek artan nu (4):* poz batek hartzen nau. */ zernaiden gaiza arten dud (4):* edozer gauza hartuko dut. */ kemenko uren artra [xinen da] (4):* hemengo (senda-)urak hartzera etorriko da. */ ez duk bear llarneara arrimatu, ez baduk nai errautsik artu (5):* ez duk larrainera hurbildu behar, ez baduk hautsik hartu nahi. */ [ainguriek] artu nintzein eskutik (5):* aingeruek eskutik hartu ninduten. */ barra egiten dena arte[an], biotzean sartan zau emoileari (5):* hartzean egiten den barrea bihotzean sartzen zaio emaileari. */ ar zazu libroa, artan dur (7):* har ezazua liburua, hartzen dut. */ zuk arten tzu (7):* zuk hartzen duzu. */ [kaur] arten dur (7):* hau hartuko dut. */ etxekuandre batek artu zien neska bat (8):* etxekoandre batek neskame bat hartu zuen. */ artu ziezun aurra besoetra (9):* haurra besoetan hartu zuen. */ ar zan karrika eskiara (9):* har ezan kalea eskuinera. */ infezione bat artu [zein] eri batan (10):* infekzio bat hartu zuen hatz batean. */ morroiek bar zizein [sagarra] artu auareki (10):* mutikoek behar zuten sagarra hartu

ahoarekin. */ artan dien (10):* hartzen diten. */ artra [xuan] (10):* hartzera joan.

artu 2 *(5)* : ulertu

artxarki *(2)* : *(suk.)* artzarki (ardi zahar haragia)

artxintxa *(5)* : hartxintxar

artxintxar *(1)* : hartxintxar */ artxintxarrea (1):* hartxintxar (leku)a.

artxo *(2, 4)* : *(zoo.)* artxo (arkume emea, urtebete artekoa) */ ez dadak eitzen ez ariko eta ez artxorik (4):* ez didak (?) utziko ez aharitxo eta ez artxorik.

artz *(2, 5, 7)* : *(zoo.)* hartz */ artz, otso, idi, ardi eta aintz (5):* hartz, otso, idi, ardi eta ahuntz. */ artza (7):* hartza.

artza *(5)* : berriro, atzera

artzaî *(5)* : artzain

artzai 1 *(4, 5, 7, 8, 10)* : artzain */ onla da ganztaren egiteko eta artzaien erretiroarentako (4):* txabola gazta egiteko da eta artzainen bakartzerako. */ artzaiak pelota xokuan onki xatan ta onki edatan (5):* artzainak pilota jokoan ongi jaten eta ongi edaten. */ Juanen etsean oro duzu artzai (7):* Juanen etxean denak dituzu artzainak. */ artzaia, sal zak axuru bat (7):* artzaina, sal ezak axuri bat. */ artzai´ardi zai´ [da] (8):* artzain´ardi zain´ da. */ artzaiak ardieki [xuaitan tun] (9):* artzainak ardiekin joaten ditun. */ mendian artzaiek egitan zezein [golaria] (10):* mendian artzainek koilara egiten zuten (ezpelez).

artzai 2 *(5)* : *(astr.)* hartz nagusi

artzai-makoa *(5)* : *(astr.)* artzain-makoa OH. Hiru Erregeen Izarrak dira.

artzaigo *(5)* : artzaintza

artzain *(4, 5)* : artzain */ artzain edo labrari izaiteko, badaki aski [solfa] (4):* artzaina edo nekazaria izateko, badaki nahikoa solfeo. */ artzain eltu zrenek muga kartra [ekusi zitein] (4):* muga hartara heldu ziren artzainek ikusi zituzten (langileak). */ nork erranen zion artzain kori kain abrats dela? beztitan da orobat nola zarratrako bat (5):* nork erranen zuen artzain hori hain aberatsa dela? zarpailtsu bat bezala janzten da.

artzaîn *(3, 4)* : artzain */ barriatruk, ardiak artzaîn bage bikala (3):* barreiaturik, ardiak artzain gabe bezala. */ artzaîna (4):* artzaina.

artzainkatu *(5)* : larreratu */ gore ardiak aldikal artzainkatan tugu (5):* gure ardiak txandaka larreratzen ditugu.

artzano *(5)* : *(zoo.)* arditxakur, artzanor OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

artzanor *(2, 5)* : *(zoo.)* arditxakur, artzanor */ ardiak igan gaian, artzanorak ere igaitan dra (5):* ardiak igo ondoren, arditxakurrak ere igotzen dira. */ artzanora, artzanoa (5):* arditxakurra, artzanora. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

artzar *(4)* : *(zoo.)* artzar (ardi zaharra) OH. Mendigatxak argiturik, gaixorik dagoen ardia ere izan daiteke ´artzarra´.

artzarki *(2, 5)* : *(suk.)* artzarki (ardi zahar haragia) OH. Azkuek dio ´haragi gazitua´ ere badela.

artzarrak *(4)* : *(nek.)* artzar-talde OH. ´Artzarrak = artzar-taldea´ Mandigatxa jaunak Azkueri emandako xehetasuna da.

artzarzaî *(4)* : *(nek.)* artzartzain (artzarren artzaina)

artzatz *(5, 9)* : *(zoo.)* ahari */ artzatza (5):* aharia. OH. Ikus ´arzatz´ sarrera eta bertako oharra.

artze *(5)* : adimen

artzedun *(5)* : *(ekon.)* hartzekodun

arxilo *(1)* : *(geol.)* hartzulo */ arxiloa (1):* hartzuloa.

arza *(5)* : berriro, atzera */ arza artu (5):* berriro hartu, atzera hartu.

arzai xoan *(10)* : artzain joan (artzain lanera joan) */ ene semiak enai xoan nai arzai (10):* nire semeak ez (zuen) artzain joan nahi. */ bata xoan zia amaborz urtetan arzai (10):* (seme) bata artzain joan zen hamabost urterekin.

arzatz *(2, 4)* : *(zoo.)* ahari */ bi arzatz ardietra [zuatzan] (4):* bi ahari ardietara zihoazen. */ arzatzak eta otsoa (4):* ahariak eta otsoa. OH. Aezkoan eta Zaraitzun ´artzantz´ dokumentatua.

arzto *(10)* : *(zoo.)* asto

as 1 *(5)* : hats

as 2 *(4, 5, 7)* : hasita; -tik (aurrera) */ sorberritik as, zar tian artio (4):* jaioberri(ta)tik hasita, zahar daitezen arte. */ zuketzaz mintzatan gra bapana bere adinetakoetarik as, aiketa sorberrietraino (4):* zuketan mintzatzen gara bakoitza bere adinekoengandik hasita, harik eta sortu berrienganaino. */ kori xin denetik as, ulunago dago argia (5):* hori etorri denetik (aurrera), ilunago dago argia. */ kebentik as (5):* hemendik aurrera. */ zortzietarik as borz[ak artio trabajatan dein] (7):* zortzietan hasita bostak arte lan egiten diten.

asa *(5)* : berriro, atzera */ asa eskatan? (5):* berriro eskatzen?, atzera eskatzen?

asbage *(5)* : atsekabe, nahigabe

ase 1 *(3, 4, 7, 9)* : ase */ guziuek xan zein eta ase zren edo aspertu zren (3):* guztiek jan zuten eta ase ziren. */ [gose eta egarri deinak] izanen baitra aserik (3):* gosea eta egarria daukatenak izanen dira aseak. */ xan zein eta aserik [baratu zren] (3):* jan zuten eta aseta geratu ziren. */ aserik izanen baidra (3):* aseak izango baitira. */ konserba zak gutaz asetako ganiua (4):* kontserba ezak gurekin asetzeko gogoa. */ lurra aseri[k] dago urez (7):* lurra aserik dago urez. */ ase zea eta lertu zea (9):* ase zen eta lehertu zen.

ase 2 *(4)* : ase, gogaitu */ D. Resurrekzion aserik diok yire uskaraz (4):* On Resurrekzion aseta zagok hire euskaraz.

asealdi *(4)* : asealdi (jan ondoan) */ asealdi baten artra (4):* asealdi bat hartzera.

asegale *(5)* : asegale (jateko gogoa)

aseko *(5)* : asealdi; betekada

aseri *(7, 10)* : ase */ lurra anix aseri dago patata erkitako (10):* lurra oso ase(ta) dago patata ateratzeko.

asete *(5)* : *(met.)* eurite (handia)

asi *(3, 4, 5, 7, 9)* : hasi */ kuek fan baikoz, asi zen Jesus mintzatan Juantaz (3):* hauek joan eta berehala, Jesus Juanez mintzatzen hasi zen. */ eta bertan asi zren irago egiten (3):* eta berehala oihu egiten hasi ziren. */ [bere predikazionia] astan du (3):* bere predikazioa hasten du. */ diszipuluak zeilarik gose, asi zren buruka biltan eta granuen xaten (3):* ikasleak, gosea zeukatela, buruxkak biltzen hasi ziren eta aleak jaten. */ ez baizen izan kalakorik astian mundiua (3):* ez baizen halakorik izan mundua hastean. */ as baledi xatra eta edatra ordiekin (3):* mozkorrekin jaten eta edaten hasiko balitz. */ asirik (3):* hasirik. */ diolarik bizpor egun asi da apeza eskolara bilarazten egun oro (4):* duela egun batzuk apaiza (umeak) ikastetxera egunero bilarazten hasi da. */ gizon guziuak asen gra zûreko lanetan negu guzuko (4):* gizon guztiak zur lanetan hasiko gara negu osorako. */ eitz nazak xagitra, as nein lan egitra (5):* utz nazak jaikitzen, lan egiten has nadin. */ orai asi nun ebiltan (7):* orain ibiltzen hasi naun. */ asi dutzu erkitan xixak (9):* perretxikoak (; zizak) ateratzen hasi dira.

asiberri *(5)* : hasiberri

aska 1 *(5, 11)* : *(nek.)* aska, ganbela */ San Andres, txerria askan trabes (5):* San Andres, txerria

askan trabeska.

aska 2 *(5)* : oramahai

askaldu *(8)* : gosaldu */ goxan askaldu (7):* goizean gosaldu. OH. Mitxelenak ´askaldu (sic)´ oharrarekin dokumentatua.

askaltiar *(5)* : gosaltiar

askaltu 1 *(4, 8, 9)* : askaldu */ guziuak [faiten dra] askaltra etse batra eta aigaltra berziara (4):* guztiak joaten dira askaltzera etxe batera eta afaltzera bestera. */ goxan askal, eguerdiz bazkal, arrestrian askal eta artsen aigal (8):* goizean gosal, eguerdiz bazkal, arratsaldean askal eta arratsean afal. */ to ogi puska kau askaltako (9):* tori ogi puska hau askaltzeko.

askaltu 2 *(4, 5, 6, 8, 9)* : gosaldu */ askaltu nai baduk, drezu diok (4):* gosaldu nahi baduk, prest zagok. */ sua egin ondo, esnia izar askaltako (8):* sua egin ondoan, esnea jarri gosaltzeko. */ goxan askal, eguerdiz bazkal, arrestrian askal eta artsen aigal (8):* goizean gosal, eguerdiz bazkal, arratsaldean askal eta arratsean afal. */ sua egin ondo esnia izar askaltako (8):* sua egin ondoren esnea jarri gosaltzeko.

askaltzale *(5)* : gosaltiar

askar 1 *(7)* : indartsu, azkar (adj.) */ astuak anitx askar [ditun] (7):* astoak oso indartsuak ditun.

askar 2 *(7)* : ausart, bihoztun */ kori dun anitx askar (7):* hori oso ausarta dun.

askari 1 *(5, 10)* : askari

askari 2 *(5, 6, 7, 10)* : gosari */ egunean irur apario dozkegu, askaria, bazkaria, aigaria (5):* egunean hiru jatordu dauzkagu, gosaria, bazkaria, afaria. */ askari otz[a] (5):* gosari arina. */ askaria (6):* gosaria. */ askaria goxan (7):* askaria goizean. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

askari 3 *(5)* : uholde

askatu *(2)* : laudatu, goratu */ guzien gainetik aska zazei betik [jeina] (2):* guztien gainetik lauda ezazue beti jauna. */ guzien gainetik aska beza beti [jeina] (2):* guztien gainetik lauda beza beti jauna.

askazi *(2, 5, 10)* : senide, ahaide */ burzegia nonko, askaziak kanko (5):* buruzagia nongo, senideak hango. */ banian zerbait aizina deuri oilten zaitadala, askazia bainion (5):* banian zerbait itxaropen dirua bidaliko zidala, senidea bainuen.

askazi-ondar *(5)* : ahaide txiki (urruna)

askazigo *(5)* : senidetasun, ahaidego

aski *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10, 11)* : nahikoa, aski */ ezena aski? (2):* ez al zen aski? */ biarko egunak aski kuidado eraguen du berarekin (3):* biharko egunak aski ardura ekarriko du berarekin. */ aski dakiola zerbutxariari [tratatruk izaitia] bere nausiaren bikala (3):* aski dakiola zerbitzariari tratatua izatea bere nagusia bezala. */ nola al ekunen digu erden leku kontan ogi aski? (3):* nola aurkitu ahal izango dugu leku honetan nahikoa ogi? */ ez deila agi kau ez deila aski izan goretako eta xentako (3):* ez dadila gerta hau ez dadila aski izan guretzat eta zuentzat. */ egon zaiteken, bai, balle kaur aski abrats (4):* egon zitekeen, bai, ibar hau aski aberats. */ aski sentimentureki erraiten daud (4):* aski sentimendurekin erraten diot. */ aski da kontako (4):* aski da honetarako. */ aski gizon (6):* aski gizon. */ aski [xan dur] (7):* aski jan dut. */ aski urrin daude (7):* nahikoa urrun daude. */ aski da bat (9):* aski da bat. */ aski etse (9):* nahikoa etxe. */ zomait ele bai, baia kori eztu aski (10):* zenbait hitz bai, baina hori ez du aski. */ ebiltan bai, eino´re aski onki (10):* ibiltzen bai, oraindik ere aski ongi.

askortu 1 *(5)* : asaskatu, kanporatu (norberaren barrenekoa)

askortu 2 *(5)* : egarriak amorratzen egon

askortu 3 *(5)* : akitu, lur jota egon (nekearen nekez)
askûri *(5)* : arnasestu, hatsanka
asmari *(5)* : arnasostun OH. Arnastean arnasotsa duen pertsona.
aspaldi *(3, 4, 6)* : aspaldi */ aspaldi diela (6):* aspaldi (duela).
aspaldian *(3)* : aspaldi */ aspaldian eginik ekunen [zein] penitenzia (3):* aspaldi eginik edukiko zuten penitentzia.
aspaldidanik *(6)* : aspalditik, aspaldidanik
aspaldiko *(3)* : aspaldiko */ gaiza zarrak edo aspaldikuak (3):* gauza zaharrak edo aspaldikoak.
aspaldixko 1 *(4)* : aspalditxo */ bazion aspaldixko, bi pensamentu nazkala buriuan sartruk (4):* bazuen aspalditxo, bi pentsamendu neuzkala buruan sarturik.
aspaldixko 2 *(4)* : alditxo */ orai, aspaldixko batez, biar dugu tenprarik obenena igari azkazi eta adexkiden etsetan (4):* orain, alditxo batez, denborarik onena senide eta adiskideen etxeetan igaro behar dugu. */ ekusten dud diola intenzione xiteko bakazionetan, uda aspaldixko baten igartra (4):* oporretan etortzeko asmoa duela ikusten dut, uda alditxo bat igarotzera.
asperen *(5)* : arnasestu, hatsanka
asperenka *(5)* : arnasestuka, hatsanka
asperraldi *(5)* : betekada
aspertu 1 *(4)* : aspertu */ ez gaizteke asper berari beira egitiaz (4):* ez gaitezke aspertu berari (argazkiari) begiratzeaz.
aspertu 2 *(3)* : ase */ guziuek xan zein eta ase zren edo aspertu zren (3):* guztiek jan zuten eta ase ziren. */ xan zein eta aspertruk [baratu zren] (3):* jan zuten eta aseta geratu ziren.
astakeria *(4, 5)* : astakeria */ obroena barregarritako izanen zazka ene astakeriak (4):* gehiena barregarritarako izanen zaizkio ene astakeriak.
astaña *(2, 3, 5)* : *(zoo.)* asteme */ astaña bat lotruk [erdenen tzei] (3):* asteme bat loturik aurkituko duzue. */ astaña baten gainian xaseririk (3):* asteme baten gainean eseririk. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
astapar *(5)* : atzapar
astapar-luze *(5)* : eskuluze, lapur
astaperraxil *(4)* : *(bot.)* astaperrexil
astaperrexil *(2)* : *(bot.)* astaperrexil
astaperrezil *(5)* : *(bot.)* astaperrexil
astari *(5)* : hari-zuntz, albainu
aste *(2, 3, 8, 9, 10)* : aste */ asteko sei egunak biar tugu (2):* asteko sei egunak behar ditugu. */ astiaren lein eguna edo igantia (3):* asteko lehen eguna edo igandea. */ astia (8):* astea. */ degun astean (9):* datorren astean. */ astia (10):* astea.
astearte *(2, 6, 7)* : astearte */ asteartea (7):* asteartea.
asteazken *(2, 6, 7, 8)* : asteazken */ asteazkena (7, 8):* asteazkena.
astegar *(11)* : *(bot.)* astigar
astegun *(5, 7)* : astegun, lanegun */ astegunean lan egitan da (7):* astegunean lan egiten da.
astelen *(2, 6, 7, 8)* : astelehen */ egun astelena da (7):* egun astelehena da. */ astelena (8):* astelehena.
asteria *(5)* : *(med.)* hazteri */ asteria (5):* hazteria.
asterle *(2, 5)* : *(zoo.)* liztor
asterle-abia *(5)* : liztor-habia

astiarte *(8)* : astearte */ astiartia (8):* asteartea.
astiazken *(8)* : asteazken */ astiazkena (8):* asteazkena.
astigar *(5)* : *(bot.)* astigar
asto *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : *(zoo.)* asto */ errota[ko] arri asto batek erabiltan dion korietarik bat (3):* asto batek erabiltzen duen errotako harri horietako bat. */ oraiko morroîtarik ezta faltaren gizon asto (4):* oraingo mutikoen artetik ez da faltako gizon astorik. */ [gizona] emonik baidago lanari, orobat nola astoa makilakaldier (4):* gizona lanari emanda baitago, astoa makilakadei bezala. */ asto ilari uzkutik zuku (5):* asto hilari ipurditik zopa. */ orratzak, astoa, yore ostikoa Jesus aurrari (5):* ken iezaiok, astoa, heure hanka Jesus haurrari. */ etzen egin eztia astoaren abarentako (5):* ez zen egin eztia astoaren ahoarentzat. */ mandoari eta astoari karga atziri (5):* mandoari eta astoari zama atzean. */ astoa (7):* astoa. */ astoek eta zamariek dei anitx indar (7):* astoek eta zamariek indar handia dute. */ asto ilari uzkutik olo (9):* asto hilari ipurditik oloa. */ astoa (9):* astoa. */ astozar andia ni, bida garrotekaldi bat (10):* astozar handia ni, eman biezat makilaldi bat. */ abreki, mandueki ta astueki, etsera [eragutan da] egurra (10):* abereekin, mandoekin eta astoekin, etxera ekartzen da egurra.
asto gente *(4)* : *(zoo.)* asto jende, astoak */ asto gentia (4):* asto jendea, astoak.
asto-putxu *(9)* : *(zoo.)* astakume
astogardu *(2)* : *(bot.)* astakardu, kardulatz
astokardu *(5)* : *(bot.)* astakardu, kardulatz
astoume *(3)* : *(zoo.)* astakume */ astaña bat lotruk [erdenen tzei], eta bere astoumia arekin (3):* asteme bat loturik aurkituko duzue, eta haren astakumea harekin.
astoziri *(5)* : astakilo, ergel
astra 1 *(5, 9, 10)* : berriro, atzera */ astra zur egitra (9):* berriro zura lantzera. */ gero astra berriz biltan zeia (10):* gero atzera berriz biltzen zuten. */ ene ama tsaistan zia etsera, ogiaren egitra eta ogiak erkin labetik eta mendiara astra berriz (10):* ene ama (menditik) etxera jaisten zen ogia egitera, eta ogiak labetik atera eta atzera mendira.
astra 2 *(5, 10)* : aldiz, ostera, aitzitik */ eguzku-begia lurbel dago, oxezkia astra elur agiri da (5):* egutera lurbeltz dago, laiotza aldiz elur(tsu) ageri da. */ zapore bage da mazte kura; beste kau, astra, zaporeduna (5):* esker onik gabea da emakume hura; beste hau, aldiz, esker onekoa.
astra berriz *(10)* : berriz, atzera */ argi-puntan oitik azka eta mendiara, eta gero arratsen etsera astra berriz (10):* egunsentian ohetik altxatu eta mendira, eta gero arrastirian etxera atzera berriz.
astume *(3)* : *(zoo.)* astakume */ astumiaren uztarriara emonik dagona (3):* astakumearen uztarrira emanik dagoena. */ astaña eta astumia (3):* astemea eta astakumea.
asun *(2, 4, 9, 11)* : *(bot.)* asun */ gore apez muturbeltza asun biltan ari zen (5):* gure apaiz muturbeltza asunak biltzen ari zen. */ asunbeltzak txerriak ilten ditu, beste asunarekin naste xaten badei (5):* asunbeltzak txerriak hiltzen ditu, beste asunarekin nahasirik jaten badute.
asunbeltz *(4, 5)* : *(bot.)* asunbeltz */ asunbeltzak eztu larriua mintan (5):* asunbeltzak ez du azala erretzen.
asuska *(5)* : arnasoska, hatsanka
atabal *(5)* : *(mus.)* atabal
atabal-makila *(5)* : atabal-makila
atakarratan *(5)* : aztarrika
atarte *(1)* : *(geog.)* atarte */ Mintxateko atartea (1):* Mintxateko atartea.

atartu *(9)* : atertu */ atartu dien (9):* atertu din.
atastatu *(5)* : mendekatu
atatu 1 *(5)* : sartu */ azak eltxanoan atatan tur ura irakitan dagonean (5):* azal eltzetxoan sartzen ditut ura irakiten dagoenean.
atatu 2 *(5)* : altzariz hornitu */ onki atatruk dago etse kori (5):* altzariz ongi horniturik dago etxe hori.
ate *(1, 11)* : *(geog.)* ate, ataka */ Irasoko atea (1):* Irasoko atea. */ atazabala (1):* ate zabala.
atenzione *(3)* : arreta */ meza entzutan egoitan bada atenzionerik bage (3):* meza entzuten egoten bada arretarik gabe.
ateri *(5)* : *(met.)* ateri
atizatu *(2, 3, 5, 6)* : *(erl.)* jaunartu */ bazko[an] atiza gitiala (2):* pazkoan jaunartu dezagula. */ konfesatia eta atizatia (3):* aitortzea eta jaunartzea. */ atizatan drenak (3):* jaunartzen dutenak. */ atizatako (3):* jaunartzeko. */ atizatra [xuan] (6):* jaunartzera joan.
atize *(5)* : *(erl.)* jaunartze
atorra *(5, 7, 9, 10)* : alkandora, atorra (gizonezkoa) */ emazte urule gaixtoari ezau ekustan atorra berririk (5):* emakume irule txarrari ez zaio ikusten atorra berririk. */ ez yadi sar atorra zazpi baratakoan (5):* ez hadi sar zazpi kanako atorran. */ izarri diagun iguzkiara, eta gizonen atorrak ere bai (7):* eguzkitan jarri dinagu, eta gizonen atorrak ere bai. */ atorra bat (9):* alkandora bat. OH. Azkuek dio Erronkarin ´alkandora mota guztiak´ direla atorrak. Izagirrek gizonezkoak direla dio. Ikus ´atorra´ hitza duten sarrera guztiak.
atorra-lepo *(5)* : alkandora-lepo
atorra-mantar(rak) *(5)* : alkandora(k) OH. Gizonezkoenak eta emakumezkoenak.
atorras *(5)* : alkandora-hutsik (gizona)
atrizione *(3)* : *(erl.)* atrizio */ biotzeko doloria, zoin deitan baitigu atrizionia (3):* bihotzeko mina, atrizioa deitzen duguna.
ats 1 *(2, 4, 5, 9)* : hats */ inzkuru da gizon batek atsaz arroitu egiten diona (4):* gizon batek hatsaz egiten duen zarata arnasotsa da. */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino. */ aitaderrak atsa ederki emon zaun aur koni (5):* aitabitxiak hatsa ederki eman zion haur honi (haur sendoez esana). */ atsa ere gezurra du (5):* hatsa ere gezurra du.
ats 2 *(5)* : kirats
ats 3 *(5)* : lurrun, gandu
ats artu *(7, 9)* : arnasa hartu */ ats ar zan (9):* har ezan arnasa.
ats egin *(9)* : arnasa hartu
ats-gaizto *(5)* : hats txar (usain txarrekoa)
atsakia *(5)* : aitzakia */ oiloak erruteko nai du abiatsakia (5):* oiloak erruteko nahi du habia-aitzakia.
atsanka *(5)* : arnasestu, hatsanka
atsantu *(5)* : hatsantu, arnasestuka jarri
atsarraldi *(5)* : eserialdi, jarrialdi
atsegile *(5)* : azkura, erresumin (handia) */ atsegile bat badud, ezbaidoked gentu (5):* azkura badut, ez baitezaket kendu. OH. ´Atzegile´ espero zitekeen.
atsez *(5)* : ahopean, ahopeka */ atsez erran datak (5):* ahopeka esan zidak.
atsibage *(5)* : atsekabe, nahigabe

atsik ez erkin *(4)* : hatsik ez atera, hitzik ez esan */ karek eztu atsik erkin (4):* hark ez du hitzik esan.
atta *(5)* : aita
atto *(5)* : anaia nagusi (txikiarekiko)
attoko *(4)* : *(zoo.)* astakume
atu *(5)* : altzariak
atun *(5)* : *(suk.)* bizkotxo OH. Azkuek dio ´arrautzez, irinez eta azukrez´ egina dela.
atx egin *(5)* : ai esan */ min duenak atx egiten du (5):* min duenak ai! esaten du.
atx! 1 *(5)* : ai!
atx! 2 *(5)* : hara! (harridura edo sinetsi ezina)
atx! 3 *(5)* : atx! (txerriari deitzeko)
atxeki *(5)* : itsatsi
atxekuru *(5)* : aitzakia
atxen *(11)* : *(bot.)* aihen zuri
atxezatu *(5, 6, 7, 9)* : *(erl.)* jaunartu */ atxezatra [xoan naz] (7):* jaunartzera joan naiz. */ atxezatra [xuan nun] (9):* jaunartzera joan naun.
atxeze *(5)* : *(erl.)* jaunartze */ norentako da atxezea? (5):* norentzat da jaunartzea? */ egungo atxezean zomat aur zagon! (5):* gaurko jaunartzean zenbat haur zegoen!
atxezu *(5, 7, 9)* : *(erl.)* jaunartze */ lein atxezua (atxezia) (7):* lehen jaunartzea.
atxiki *(4, 5)* : jo */ gizonek atxiki ekun dei (4):* gizonek jo izan dute. */ unen aurkian atxiki dabei (5):* muinen parean jo dute.
atxixatu *(8)* : jaunartu */ kobesatu nun [eta] atxixatu nun (8):* aitortu naun eta jaunartu dinat.
atxizatu *(2)* : jaunartu */ bazkua resurrezkuetan atxiza gitiala (2):* pazkoa berpizkundekoetan jaunartu dezagula.
atxizione *(2)* : *(erl.)* jaunartze */ laugarna, atxizionia (2):* laugarrena, jaunartzea. OH. Behin ´atxizion´ dokumentatua.
atxo! *(5)* : atxo! (txerriak uxatzeko esana)
atxolaria *(5)* : atxolaria OH. Azkuek ´kriket ingelesaren antzeko jokoa´ argibidearekin dokumentatua.
atxole *(5)* : birla
atxukaldi *(5)* : harrikada
atxukaldikatu *(5)* : harrikatu */ ñork ere ez du bere tejadoa atxukaldikatan (5):* inork ere ez du bere teilatua harrikatzen.
atxukaldiketa *(5)* : harrikatze
atxur *(3, 8, 9, 10, 11)* : *(nek.)* aitzur */ atxurra (8, 10):* aitzurra. */ atxurrera [xuaitan da] (9):* aitzurrera doa, aitzurrean egitera doa. */ nora xoan yaz? atxurrera (10):* nora joan haiz? aitzurrera, aitzurrean egitera.
atxur-pikotx *(5)* : pikotx
atxurkatu *(5)* : aitzurtu
atxurko *(5, 10, 11)* : *(nek.)* jorrai (jorratzeko aitzur txikia)
atxurlari *(5)* : aitzurlari
atxurortz *(5)* : *(nek.)* hiruhortz, hiruhortzeko
atxurrandi *(10)* : *(nek.)* hondeaitzur */ atxurrandia (10):* hondeaitzurra.
atxurtu *(3, 10)* : aitzurtu */ atxurtuz egin zion [ardauntziuan putzu bat] (3):* aitzurtuz egin zuen

mahastian putzu bat. */ atxurtu duna? (10):* aitzurtu al dun? */ yik atxurtan dun (10):* hik aitzurtzen dun. */ atxurtra [xoan] (10):* aitzurtzera joan. */ atxurrera! (10):* aitzurtzera!, aitzurrera!

atz *(5)* : abere-hanka OH. Ikus ´lauratzez´ sarrera.

atz egin *(4, 9)* : hazka egin */ atz egiten (4):* hazka egiten. */ eztokiar atz egin (9):* ez dezaket hazka egin.

atzaparkin *(5)* : atzaparkari */ azitik ozioa, trunkutik apurkina, gatiaren umea atzaparkina (5):* hazitik ernamuina, enborretik ezpala, katuaren umea atzaparkaria.

atzarazi *(5)* : ahantzarazi

atze 1 *(3, 8, 9)* : atze, gibel */ ene atzian xin biar diona (3):* nire atzean etorri behar duena. */ gaiza kuen atzian [erabiltan baitra] (3):* gauza hauen atzean ibiltzen baitira. */ aren atzian [fan zren] (3):* haren atzean joan ziren. */ emazte [batek] tokatu zion aren beztiduraren atzekua (3):* emakume batek haren jantziaren atzekoa ukitu zuen. */ baten atzian beste bat (8):* baten atzean beste bat. */ atzean [xitan dun] (9):* atzean dator (jarraituz). */ odoiaren atzean euria (9):* hodeiaren atzean euria. */ [ni] en atzian (10):* ni haien atzean.

atze 2 *(5)* : zuhaitz */ atze andiak daude oixanean (5):* zuhaitz handiak daude basoan. */ bagoa gisa da atze kau, baia ñoago ta me (5):* pagoaren antzekoa da zuhaitz hau, baina txikiagoa eta mehea. */ urte onetan atzeak bete-beterik egoitan dra ta abarrak txilingatruk (5):* urte onetan zuhaitzak (fruituz) bete-beterik egoten dira eta abarrak makurturik.

atze 3 *(5, 7, 8, 9)* : ahaztu, ahantzi */ atzexerik (5):* ahaztuxe. */ atze zita, atze (8):* ahaztu zait, ahaztu. */ atzerik (8, 9):* ahantzirik. */ atze zitan (9):* ahaztu zaidan.

atzegile *(5, 9)* : azkura */ atzegile diar (9):* azkura diat.

atzekar *(5)* : aldai (gonazpiko atala) OH. Erronkariko gonazpikoaren zati gorria.

atzeko *(3)* : atzeko */ luziago [eramaiten tei] beren beztiduen atzekuak (3):* luzeago eramaten dituzte beren jantzien atzekoak.

atzeman *(10)* : atzeman, hartu */ zurak atzemaitan (10):* enborrak atzematen (almadiak egiteko).

atzeñiñi *(5)* : *(bot.)* zuhaitz-garatxo

atzetu *(10)* : ahaztu, ahantzi

atzezu *(7)* : *(erl.)* jaunartze

atzide *(9)* : atze, atzealde */ atzidetik (9):* atzetik.

atzidi *(9)* : atze, atzealde */ aintzinekoa atzidiara (9):* aurrekoa atzera. OH. Ikus ´atziri´ sarrera.

atzin *(3)* : atze, gibel */ kainbat antzinetik faitan zren, nola atzintik xitan zren[ak] (3):* hainbat aurretik joaten ziren, atzetik etortzen zirenak bezala.

atziri *(3, 5, 9, 10)* : atze, gibel, atzealde; atzean, gibelean; atzera, gibelera */ [emazte bat] xin zen atziritik (3):* emakume bat etorri zen atze(alde)tik. */ antzinetik alabatan yaianak nai yai kaxalez, eta atzirikoak biotzez (5):* aurretik laudatzen hauenak azalez maite hau, eta atzekoak bihotzez. */ mandoari eta astoari karga atziri (5):* mandoari eta astoari zama atzean. */ lotsa dionari ezau mira egiten atziri (5):* beldurra duenari ez zaio atzera begiratzen. */ betik atziri beira (5):* beti atzera begira. */ eltzutik erkitan dena, autzaren atziritik, kau da bilia (5):* eultzitik ateratzen dena, ahotzaren atzetik, hau da bulia (gari mota). */ antzinekua atzirian (9):* aurrekoa atzean. */ bi gizon aintzinian eta beste bi atzirian (10):* bi gizon aurrean eta beste bi atzean.

atzirika *(10)* : atzeraka */ ta guzia atzirika betik (10):* eta guztia atzeraka beti.

atziriko *(5)* : karen, selaun (behiena)

atziritu *(4)* : atzeratu, atzera egin; atzera eragin */ atziriten gutuk amabi urratzez (4):* hamabi

urratsez atzeratuko gaituk, hamabi urrats atzera egingo diagu.

atzo *(4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : atzo */ atzo arratsen (4):* atzo arratsean. */ atzo arratsean (5):* atzo arratsean. */ atzo arrastarik (6):* atzo arratsetik. */ orrek bazakiena atzo kori? (9):* berorrek ba al zekien atzo hori? */ eguart nezu atzo egon zela gizona (9):* oroitu naiz atzo egon zela gizona. */ atzo xin zia gizon bat (10):* atzo gizon bat etorri zen. */ amandrea, ni xuan ninden atzo alurriara (10):* ama, ni joan nintzen atzo alorrera.

-au *(10)* : -ago */ badion egun goxan [karroin] andiau ezik etxakin ze (10):* bazagon gaur goizean izotz handiagoa ez jakin zer baino. */ ene anaxa dun fuertiau ezik ni (10):* nire anaia ni baino indartsuagoa da. */ txikiau (10):* gutxiago.

au *(2, 3, 4, 8, 10)* : *(anat.)* aho */ [aitagorea] Kristo jeinak erran [zien] bere au propioz (2):* aitagurea Kristo jaunak erran zuen bere ahoz. */ bere au dibinoa [irikitan] (3):* bere jainko ahoa irekitzean. */ bigarna auan (3):* bigarren (gurutze)a ahoan. */ au bazterretarik erorten zitzauzkaun (4):* aho bazterretatik erortzen zitzaizkion (janari hondarrak). */ aua irik (8):* ahoa ireki. */ morroiek bar zizein [sagarra] artu auareki (10):* mutikoek behar zuten sagarra hartu ahoarekin. OH. Ikus ´ab´ sarrera.

au-au 1 *(5)* : *(haur.)* au-au (zaunkaren onomatopeia)

au-au 2 *(5)* : *(haur.)* txakur

aubarna *(9)* : ahuspez

aubero *(5)* : ahobero; harroputz

auergorri *(5)* : alferrontzi, alfergorri

augordin *(5)* : ahogordin, lizun (hizketan)

auka *(5)* : *(heg.)* antzara

auko sabai *(9)* : *(anat.)* ahosabai */ ausabaia, auko sabaia (9):* ahosabaia.

auko(ak) 1 *(5)* : ahoburdin, ahoko

auko(ak) 2 *(5)* : *(alb.)* aho-garautxo (txerrienak)

aultu *(5)* : ahuldu

aulli! *(5)* : aizu! OH. Azkuek ´gaztetxoei deitzeko, hamalau bat urte arte´ oharrarekin dokumentatua. ´Aulli´ eta ´auli´ dokumentatuak.

aumenta 1 *(4)* : ahamen, mokadu */ gizon batek, umien aztako tenpran, bati ekusi zaun aumenta andi-andi artiaz (4):* gizon batek, umeak hazteko garaian, bat ikusi zuen ahamen handi-handia hartzen.

aumenta 2 *(5)* : aipamen, aipatze

aumin *(5)* : aho-min

aundigo *(5)* : handitasun, handiera

aunsi *(5)* : zaunka

aunsimin *(5)* : adia, aiene

auntzalde *(5)* : ahuntz-talde

aupetik *(5)* : ahopean, ahopeka

aupez *(5)* : ahopean, ahopeka

aur *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : haur */ aurra, nik [batixatan ztur] (2):* haurra, nik bataiatzen zaitut. */ informa ztei agitan denaz aur konen gainian (3):* informa zaitezte haur honen inguruan gertatzen denaz. */ xagi zte, ar zazu aurra eta bere ama (3):* jaiki zaitez, har ezazu haurra eta haren ama. */ emazteak eta aurrak (3):* emakumeak eta haurrak. */ aurxko kuetarik bat (3):* haurtxo hauetako bat. */ titiko aurren autik (3):* titiko haurren ahotik. */ aurren linbua (3):*

haurren linboa. / *aur maitea, ene biotza lotsatan duk (4):* haur maitea, ene bihotza beldurtzen duk. / *aurrak eta emazteak danzatan dra Ibañetan (4):* haurrak eta emakumeak dantzatzen dira Ibañetan. / *aur ta eroenganik egia (5):* haur eta eroengandik egia. / *aurra, eraguzak bi marabedisen kara-kona (5):* haurra, ekar ezak bi marabediko hara-hona (= joan hadi eta eman zak bakea). / *aur ñotto-ñottoer erraiten zabei kaur (5):* haur txiki-txikiei esaten zaie hau. / *aurreki etziten dena xagitan da kakaz nasirik (5):* haurrekin etzaten dena kakaz nahasirik jaikitzen da. / *orratzak, astoa, yore ostikoa Jesus aurrari (5):* ken iezaiok, astoa, heure hanka Jesus haurrari. / *zubiadarraren petik igartea[n] neskatxak mutil eta mutilak neskatxa egitan drela erraiten daioei aurrer (5):* ostadarraren petik igarotzean neskatxak mutil eta mutilak neskatxa egiten direla esaten diete haurrei. / *zer aur ederra! (7):* zer haur ederra! / *aurra aurzaroan [dago] (7):* haurra haurtzaroan dago. / *aurrak ziki[n]tan dutzu loian (7):* haurrak lokatzetan zikintzen dira. / *beste kura aurrarentako [dun] (7):* beste hura haurrarentzat dun. / *aurra beztitu diar [eta] mezara (8):* haurra jantzi diat eta meza(ta)ra. / *aurrari titiaren gentan (8):* haurrari titia kentzen. / *artu ziezun aurra besoetra (9):* haurra besoetara jaso zuen. / *aurño bat (9):* haurtxo bat. / *gero zortzi aur ekun [nien] (10):* gero zortzi haur eduki nituen. / *aurrek, arrikaldika, autse dein kristal guziak (10):* haurrek, harrika, kristal guztiak hautsi ditinate.

aur-egoizte *(5)* : abortu, haur-egozte

aur-lan *(5)* : haurkeria, umekeria

aur-min *(5)* : haur-min

aur-orde *(5)* : anai-arreba ezkondu (adj.) / *aur-ordeak (5):* anai-arreba ezkonduak. OH. Ikus ´aur-ordez bordaltu´ sarrerako oharra.

aur-ordez bordaltu *(5)* : anai-arrebak ezkondu / *aur-ordez bordaltu dra (5):* anai-arrebak ezkondu dira. OH. Etxe bateko anai-arrebak beste etxe bateko anai-arrebekin ezkontzea. Azkuek Zuberoan ´haur-ordarizka´ dokumentatua.

aur-parrastada *(5)* : umeteria

aur-txatar *(5)* : haur-oihal, pixoihal

aurbide *(5)* : haurdunaldi

aurbidean egon *(5)* : haurdun egon

aurdun 1 *(5)* : haurdun

aurdun 2 *(5)* : umedun (ama) OH. Azkuek ´seme edo alaba bat edo gehiago duen ama´ esanahiarekin dokumentatua.

aurer 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9)* : alfer / *nola zaudei kemen aurer egun guziuan? (3):* nola zaudete hemen alfer egun osoan? / *ele aurer zernaiden erran lezeinetaz gizonek biar deila emon kontu (3):* gizonek esan lezaten edozein hitz alferrez kontu eman behar dutela. / *ez dud nai lan aurerik egin (4):* ez dut lan alferrik egin nahi. / *apalgoan ere aurer ez gra egoitan (5):* ilbeheran ere ez gara alfer egoten. / *kori beti dion aurer (7):* hori beti zagon alfer. / *mazte korrek zer egitan du betik aurer? (8):* emakume horrek zer egiten du beti alfer? / *aurerra (9):* alferra.

aurer 2 *(5)* : *(zoo.)* basabehi

aurergorri *(5)* : alferrontzi, alfergorri

aurerkeria *(5)* : alferkeria / *egitarier aurerkeria gentako izan diteken obekiena (5):* igitariei alferkeria kentzeko izan daitekeen onena.

aurerki *(3)* : alferrik / *aurerki onratan nei (3):* alferrik ohoratzen naute.

aurertarzun *(5)* : alfertasun, nagitasun

aurerzar *(9)* : alfertzar

aurgin *(5)* : haurzale

aurke *(3)* : aurre, pare */ [izarra antzinian] faiten zen, aurra zagon lekiuaren aurkiara (3):* izarra aurrean zihoan, haurra zegoen lekuaren aurrera. */ bekatarien aurkian (3):* bekatarien aurrean. */ ortzei [iri] xaurien aurkian agiri den kortra (3):* zoazte zeuen aurrean ageri den herri horretara. OH. Ikus ´aurki 2´ sarrera.

aurkeri *(5)* : haurkeria, umekeria

aurki 1 *(5)* : aurki, aurrealde

aurki 2 *(5)* : aurre, pare */ unen aurkian atxiki dabei (5):* muinen parean jo dute. */ amarren aurkian dago iguzkia (5):* hamar orduen parean dago eguzkia (hamarrak dira eguzkiarekin). OH. Ikus ´aurke´ sarrera.

aurkide *(5)* : haurkide (urte bereko haurrak)

aurkin *(5)* : haurzale

aurkintze 1 *(5)* : kinka, ataka */ kalako aurkintzean, ene abaño iñaztura bat erori zen (5):* halako atakan, nigandik hurbil tximista bat erori zen.

aurkintze 2 *(5)* : asmo */ aurkintze gaiztoa din korrek (5):* horrek asmo txarra din.

aurkoi *(5)* : haurzale, haurkoi, umezale */ erleak, aurkoi bazrade, fan zte[i] beste lilitra (5):* erleak, haurkoiak bazarete, joan zaitezte beste loreetara.

aurkuntze *(5)* : haurzale, haurkoi, umezale

aurlan *(5)* : haur-lan */ aurrek aurlan (5):* haurrek haur-lan(ak ematen dituzte).

aurmen *(5)* : eskukada */ irur aurmenez egitan da ezpala (5):* hiru eskukadaz egiten da azaoa.

aurmentu *(5)* : haurtzaro */ ene aurmentuan (5):* ene haurtzaroan.

aurpegi *(5)* : betzulo(ak) */ gizon kari aurpegiak erkin zazka (5):* gizon hari betzuloak atera zaizkio.

aurretsi *(5)* : haurretsi, haurtzat jo

aurride *(5, 7, 10)* : haurride (anai-arrebak...) */ aurrideak alkar moite dutzu (7):* haurrideek elkar maite dute. */ gu ginden laur aurride, bi muttiko eta bi neskatilla (10):* gu lau haurride ginen, bi mutiko eta bi neskatila. */ ni solo baratu [naz] aurridetarik (10):* ni bakarrik geratu naiz haurrideetatik.

aurriderdi *(5)* : haurride erdi (anaia erdi, arreba erdi...)

aursortu *(5)* : erdi, haurra izan

aurtarik *(5)* : umetatik

aurten *(4, 5, 7, 8, 10)* : aurten */ aurten frutu urte (4):* aurten fruitu urte. */ aurten biltu digu kosetxa ona (4):* aurten uzta ona bildu dugu. */ bizi denak, aurtengo negiuaz, ekunen du kontu franko (4):* bizi denak, aurtengo neguaz, kontu franko edukiko du. */ aurten zarrak il balite onki konfesatruk! (5):* aurten zaharrak ongi aitorturik hil balira! */ obro ezik ein mendioillar il ditu aurten jein batek gore idian (5):* ehun argioilar baino gehiago hil ditu aurten jaun batek gure herrian. */ aurten morroi bat izan da apez (8):* aurten mutil bat izan da apaiza.

aurten bein *(5)* : duela gutxi

aurtu *(5)* : haurtu, umetu

aurzai *(9)* : haurtzain */ aurzai bat (9):* haurtzain bat.

aurzaro *(5, 7, 9)* : haurtzaro */ aurra aurzaroan [dago] (7):* haurra haurtzaroan dago. */ aurzaroko (9):* haurtzarorako.

aurzutu *(5)* : haurtzaro

ausabai *(2, 9)* : *(anat.)* ahosabai */ ausabaia, auko sabaia (9):* ahosabaia.

ausarki *(5)* : erruz, ugari
ausi *(5, 7)* : zaunka
ausi egin *(7)* : zaunka egin */ ausi egitan diena dun txakur (7):* zaunka egiten duena txakurra dun.
ausika *(7)* : zaunkaka
auskalder 1 *(5)* : sugeldo, hausbero, hauskaldar
auskalder 2 *(5)* : lixiba-errauts OH. Lixiba egiteko erabili den errautsa.
ausko *(5)* : hauspo
ausko-egun *(5)* : *(erl.)* errauts egun
auskolore *(5)* : hauskara */ lore ta [olomoloa] bera ere auskoloreak dra (5):* lorea eta olo gaiztoa bera ere hauskarak dira.
auspen *(5)* : *(alb.)* aholegar OH. Behi jendearen mihiko gaitza.
auste *(5)* : garbiketa, xaboitze OH. Azkuek ´arropa zuriaren garbiketa´ esanahiarekin dokumentatua.
austegi *(5)* : erraustegi (sukaldeko errauts lekua)
austondo *(5)* : garbiketa, xaboitze OH. Lixiba upeletan egiten zen garaian.
auta *(5)* : ahamen, mokadu
autatze *(5)* : aukeraketa, hautatze
auteman *(5)* : hauteman */ auteman dut kalako saldoan dagola ene ardia (5):* ene ardia halako saldoan dagoela hauteman dut.
automobile *(7)* : auto, kotxe */ ene automobilian [xoanen gra] (7):* nire autoan joango gara.
auts *(2, 4, 7, 9, 10)* : errauts */ [artakarroak] sua du obenena, autsak ere indar andia [du] (4):* arteak sua du onena, errautsak ere indar handia du. */ gen zan auts kori! (7):* ken ezan errauts hori! */ ene gaztezaroan bukata [egitan gunian] autsaki (7):* nire gaztaroan lixiba egiten genuen errautsarekin. */ autsa (9, 10):* errautsa.
autsa *(10)* : hautsi */ eta orai autsa tun lexo bat (10):* eta orain leiho bat hautsi diten.
autsdun 1 *(3)* : hausturadun
autsdun 2 *(3)* : etendura, urradura */ andiago egiten da urratiua edo autsduna (3):* handiago egiten da urratua edo etendura.
autse *(3, 4, 5, 9, 10)* : hautsi */ nola iguzkiaren rayua erkitan baita kristale batarik kaur autse eta zikintu bage (3):* eguzki izpia kristal batetik ateratzen den bezala, hau hautsi eta zikindu gabe. */ ez du zatikaten kaña autserik dagona (3):* ez du zatikatuko hautsirik dagoen kanabera. */ autse [eta] zatikatu (4):* hautsi eta zatikatu. */ barura autse (5):* baraua hautsi (gosaldu). */ egalak autse ta papoa oso (5):* hegalak hautsi eta papoa osoa (= lan egin nahi ez eta ongi bizi nahi). */ ebastale batek zankoa austan dionean, erraitan da´karek bere merexia ekun dik´ (5):* lapur batek hanka hausten duenean, esaten da ´hark bere merezia izan dik´. */ azpia autse diar (9):* izterra hautsi diat. */ autse da papera, autse dun soka (9):* hautsi da papera, hautsi (eten) dun soka. */ aurrek, arrikaldika, autse dein kristal guziak (10):* haurrek, harrika, kristal guztiak hautsi ditinate. */ autse dien, austan dien (10):* hautsi din, hausten din. */ autse zia (10):* hautsi egin zian.
autsi *(3, 4, 7)* : hautsi */ norbaitek auts baleza mandamentu kuetarik bat, izanen da ekunik ezdeustako (3):* norbaitek agindu hauetako bat hauts baleza, ezereztzat edukia izanen da. */ ez du zatikaten kaña autsirik dagona (3):* ez du zatikatuko hautsirik dagoen kanabera. */ zer arroitu da kori, austan baitu gaiazko ixiltarzuna? (4):* zer zarata da hori, gaueko isiltasuna hausten duena? */ besoa autsirik dago (7):* besoa hautsirik dago.

autsia *(5)* : ezpain-motz (pertsonak nahiz txarroak)

autx *(1, 5, 6, 9)* : frantses */ autxpidea (1):* frantses(en) bidea. */ einta berrogeita amar autx (5):* ehun eta berrogeita hamar frantses. */ autxa xoan zen (5):* frantsesa joan zen. */ autxa (6, 9):* frantsesa. */ autx bat, autxa (9):* frantses bat, frantsesa. OH. Zaraitzun ere dokumentatua. Azkuek ´aho-huts´ etimologia proposatu zuen hitz honen argigarri.

autx-erdera *(5)* : *(hizk.)* frantses

autxko *(3)* : ahoztxo, lastotxo */ eitzazu nik erkin tzadan autxko kori zore begitik (3):* utz ezazu nik atera dezadan ahoztxo hori zure begitik.

autz *(2, 3, 4, 5, 10)* : ahotz */ autzak erreren tu il ez deiteken su batian (3):* hil ez daitekeen su batean erreko ditu ahotzak. */ eitzazu nik erkin tzadan autzxko kori zore begitik (3):* utz ezazu nik atera dezadan ahoztxo hori zure begitik. */ ez ginion biltu baizik autz (4):* (uztan) ez genuen bildu ahotza baizik. */ maiatz otz, ez autz ez biotz (5):* maiatz hotz, ez ahotz ez bihotz. */ autza beste alte batra (10):* ahotza beste alde batera.

auxi *(5)* : zaunka

auxporru *(5)* : *(bot.)* basaporru

auzabal egin *(9)* : aharrausi egin

auzabalka *(5)* : aharrausika, ahozabalka

auzabalte *(5)* : aharrausi

auzalan *(11)* : auzolan

auzbarna *(3)* : ahuspez */ lurrian eroririk auzbarna (3):* lurrean ahuspez erorita.

auzbarrena *(5)* : ahuspez

auzgora *(5)* : ahoz gora

auzikin *(5)* : ahozikin, lotsagabe

auzolan *(11)* : auzolan

auztegi *(5)* : *(nek.)* lastategi, ahoztegi

axa *(10)* : *(bot.)* aza */ axa-lantare[a] (10):* aza-landarea.

axabor *(11)* : *(bot.)* aza-kimu (aza-zurtoinekoa) */ axaborra (11):* aza-kimua.

axalatu *(5)* : haserretu, sumindu

axaleza *(5)* : koltxoi-azal

axaliza *(5)* : hil-oihal

axari 1 *(1, 2, 5, 7, 9)* : *(zoo.)* azeri */ axari berokia (1):* azeri berokia. */ axariek dei kamia eta txoriek abia (3):* azeriek gordelekua dute eta txoriek habia. */ axariak xatan dutu olloak (7):* azeriak oiloak jaten ditu. */ axarien larrua (larria) anitx polit [da] (7):* azerien larrua oso polita da. */ axari bat, axaria (9):* azeri bat, azeria.

axari 2 *(5)* : zerrepel (erdi mozkor)

axari 3 *(8)* : erronkariar OH. Mitxelenak ´zaraitzuarrek erronkariarrei ´axari´ esaten diete´ oharrarekin dokumentatua.

axari egon *(9)* : mozkor egon; zerrepel egon */ axari daun (9):* mozkor zagon; zerrepel zagon.

axarien ezteiak *(5)* : azerien ezteiak OH. Azkuek ´aldi berean euria egin eta eguzkia agertzen den unea´ oharrarekin dokumentatua.

axatu *(5, 9, 10)* : haizatu */ orai bar diauzu axatu eltzea (9):* orain eultzia haizatu behar dugu. */ gero autza axa (10):* gero ahotza haizatu.

axaxal *(2, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : azazkal */ zer axaxal andi eta beltz! (7):* zer azazkal handi eta beltz! */ axaxalak (7, 9, 10):* azazkalak.

axe *(5)* : sorta, haxe; pila; zama */ belar-axe[a] (5):* belar pila. */ egur-axe[a] (5):* egur zama. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

axen *(5)* : *(nek.)* lera OH: Bi adar V forman jarrita egiten zen oinarrizko lera da, gurdia sartzerik ez zegoen lekuetan ote zuria garraiatzeko.

axentzu *(2, 4)* : *(bot.)* asentsio-belar

axeri *(5)* : *(zoo.)* azeri

axero *(5)* : zamaketari

axkenka *(5)* : harrapaketan (haur jolasa)

axkixalu *(5)* : azazkal */ emazteki korrek baditu berrogei axkixalu (5):* emakume horrek baditu berrogei azazkal (20 bereak eta 20 sabeleko haurrarenak).

axkol *(5)* : *(bot.)* zalke

axkolkari *(5)* : aizkolari

axkora *(3, 4, 5, 8, 10)* : aizkora */ beira zazei axkora izaririk dagola xa arbolien izorroara (3):* begira ezazue aizkora jada jarririk dagoela zuhaitzaren sustraian. */ uskaldunek xorroxtan dei beren axkorak (4):* euskaldunek beren aizkorak zorrozten dituzte. */ uskaldunen axkorek aretx artean dirdiratan dei (4):* euskaldunen aizkorek haritz artean dirdiratzen dute.

axola *(4)* : axola, ardura */ korrengatik eztud axolik batrere (4):* horregatik ez dut axolarik batere.

axolabage *(4)* : axolagabe, arduragabe */ ´axolabage´ da morroin gaxki azi bat (4):* ´axolagabe´ mutiko gaizki hazia da.

axpe *(1)* : haizpe */ axpea (1):* haizpea.

axpil 1 *(2, 4)* : *(bot.)* mizpira

axpil 2 *(11)* : *(bot.)* basagurbe, hostazuri

axpil 3 *(4)* : *(bot.)* mizpirondo

axpiltze *(4)* : mizpiradi

axte! *(5)* : atzera! (ganaduari esana)

axtean *(5)* : arestian

axtegar *(2)* : *(bot.)* astigar

axtian *(5)* : arestian

axtigar *(5)* : *(bot.)* astigar */ axtigarratzeak (5):* astigar zuhaitzak.

axulabage *(5)* : axolagabe, arduragabe

axun *(11)* : *(bot.)* asun OH. ´Atxun´ aldaera ere dokumentatua.

axuri *(2, 4, 5, 8, 9)* : *(zoo.)* arkume, axuri */ bazkuako axuriaren aigaria (3):* pazkoko arkume afaria. */ saldoak flako eta axuri txiki (4):* artaldeak ahul eta arkume gutxi. */ axuri saldo batarik zuatzan bi arzatz ezkapatruk (4):* arkume saldo batetik zihoazen bi ahari ihes eginik. */ ardiak ñor bage axuria mokorkatu du (4):* ardiak inor gabe arkumea bildu du (mendian erditzean). */ ez dadak lotsarik ene axurientako (4):* ez zaukeat beldurrik nire arkumeentzako. */ urtearen buruan ardi bekinbat axuri ilten da (5):* urtearen buruan ardi bezainbat arkume hiltzen da. */ betatu kartan bi axuri daude (5):* debekatu hartan bi axuri daude. */ axuriak kiñuetan gaintik eta artzaiak pelota-xokian (9):* arkumeak lursailetan gaindi eta artzainak pilota-jokoan.

axuri-ariko *(5)* : arkume ar, axuri ar */ axuri-arikoak (5):* arkume arrak, axuri arrak.

axuri-artxo *(5)* : arkume eme, axuri eme */ axuri-artxoak (5):* arkume emeak, axuri emeak.

axuri-buztan *(5)* : axuri-buztan OH. Umeen atzealdeko zarpaila.

axuriki *(2)* : *(suk.)* arkumeki, axuriki

axurtile *(5)* : arkume-artile, axuri-artile

axuru *(7, 8, 10)* : *(zoo.)* arkume, axuri */ axuru erre[a] (7):* arkume errea. */ nik emonen diar axuru bat (7):* nik arkume bat emango diat. */ laurogei axuru [erosi dur] (8):* laurogei arkume erosi ditut. */ axuru [bat], axuriak (10):* axuri bat, axuriak.

axurume *(9)* : arkume (jaio berria)

axuska *(5)* : arnasestuka, hatsanka

ayan *(4)* : agian */ ayan ekusen tu geroago oboroago eta naroago (4):* agian geroago ikusiko ditu gehiago eta maizago. */ ayan, ezkapatan yazanian, ez yai ekusen lasterrari emoiten (4):* agian, ihes egiten duanean, ez hau ikusiko korrikari ematen.

aza *(2, 4, 5, 7, 9, 11)* : *(bot.)* aza */ aza ta porru xan eta dolu (5):* aza eta porruak jan eta damu. */ azak eltxanoan atatan tur ura irakitan dagonean (5):* azal eltzetxoan sartzen ditut ura irakiten dagoenean. */ bi azatarik (5):* bi motako azak. */ aigaltako azak [daude] (7):* afaltzeko azak daude. */ aza-lantare[a] (8):* aza-landarea. */ sar tzan azak eta sua egon deila on (9):* sar itzan azak eta sua egon dadila ona.

aza beltz *(4)* : *(bot.)* aza beltz (negukoa) */ aza beltza (4):* aza beltza.

aza-ninika *(5)* : *(bot.)* aza-ernamuin

azaburumo *(5)* : *(bot.)* azaburu

azagurume *(5)* : *(bot.)* azaburu

azaîn *(5)* : azain OH. Azkuek ´ereintza markatzen duten adartxoak´ esanahiarekin dokumentatua. Zuberoan ´azain´ dokumentatua.

azaita *(5)* : aitaorde

azako *(5)* : *(bot.)* azaburu

azaldi *(5)* : erditze

azaleratu *(5)* : beldurtu, ikaratu

azallor *(5)* : *(bot.)* aza gorri

azama *(5)* : amaorde

azanoria *(2)* : *(bot.)* azenario

azañiñi *(5, 11)* : *(bot.)* aza-kimu (aza-zurtoinekoa)

azaondo *(5)* : aza-erro

azaro 1 *(5)* : urri (hilabetea)

azaro 2 *(6, 7)* : azaro (hilabetea) */ azarua (6):* azaroa.

azaro 3 *(5)* : *(nek.)* azaro, ereingarai

azarri *(4, 5)* : *(bot.)* azitrai

azazango *(5)* : aza-erro

azazi *(5)* : *(bot.)* aza-hazi */ erin zak baratzean azazi (5):* erein ezak baratzean aza-hazia.

aze *(5)* : *(nek.)* ereintza, azaro

azeki *(5)* : *(erai.)* presa

azerratx *(5)* : hazerraz (hazten erraza)

azetu *(10)* : ahaztu, ahantzi */ guzia banakie, baia oi da azetuk (10):* guztia banekien, baina orain ahazturik dago.

azgatx *(5)* : hazgaitz, mozkote (pertsona nahiz aberea)

azi 1 *(2, 3, 4, 5, 9, 10)* : hazi (landareena) */ gizon erin ziona azi ona bere alurrian (3):* gizona, bere alorrean hazi ona erein zuena. */ azia egin digu nai digun gisa (4):* hazi(-lan)a nahi bezala egin dugu. */ orai [alurrean] gabiltza azian (4):* orain alorrean gabiltza hazian. */ azazi[a], gari azi[a], lû azia, olo azi[a] (5):* aza hazia, gari hazia, liho hazia, olo hazia. */ azitik ozioa,*

trunkutik apurkina (5): hazitik ernamuina, enborretik ezpala. */ aza-azi[a] (9):* aza-hazia. */ guk eritan diagun azia (10):* guk hazia ereiten dinagu. */ garia azitako (10):* hazitarako garia.

azi 2 *(2, 3, 4, 5)* : hazi (aditza) */ seme-alabarik ekutan badei, zeuriarako bidian az liztxein (2):* seme-alabarik izaten badute, zerurako bidean haz litzaten. */ semiak az ditzein zeuriko (3):* seme-alabak zerurako haz ditzaten. */ ´axolabage´ da morroin gaxki azi bat (4):* ´axolagabe´ mutiko gaizki hazia da. */ kemen aztan dren arbole[n] izenak (4):* hemen hazten diren zuhaitzen izenak. */ umien aztako tenpran (4):* umeak hazteko garaian.

azi 3 *(5)* : arraza; leinu

azi 4 *(10)* : familia; senideak */ azi guzia, familia guzia, guziak xanen diaguzu obeki (10):* familia osoa, guztiok hobeki janen dugu.

azienda *(2, 3, 4, 5, 8, 10)* : *(nek.)* azienda (orokorrean) */ basa animale eta azienda guziuek (2):* basa animalia eta azienda guztiak. */ bere gain [eitzen dau] bere azienda guziuaren goberniua (3):* haren gain utziko du bere azienda guztiaren gobernua. */ mura, azienda guziuen alimentu ona (4):* pinazia, azienda guztien elikagai ona. */ urrutxaz egiten dra xoraltiak, aziender lepuetan txintxerreki isartako (4):* hurritzaz lepokoak egiten dira, aziendei lepoan zintzarriekin jartzeko. */ azienda xêa (4):* azienda xehea, ardi-azienda, ahuntz-azienda. */ gorku egin dei egun g[o]re aziendak (5):* aterpetu egin dira gaur gure aziendak. */ onki bara ondo, aziendara xuan (8):* ongi geratu ondoren, aziendara joan (zen). */ [Erribrara] xoan bar diar nik ere aziendarekin (10):* Erriberara joan behar dut nik ere aziendarekin.

azienda andi *(2)* : *(nek.)* azienda larri

azienda xê *(2)* : *(nek.)* azienda xehe, ardi-azienda, ahuntz-azienda

azikatu *(5, 10)* : erein

azinda *(2)* : *(nek.)* azienda buru */ azinda (2):* azienda burua.

azione *(2)* : ekintza */ zoin azionetan dago misterioa? iror krutxeren egitian (2):* zein ekintzatan dago misterioa? hiru gurutze egitean.

azirin *(9)* : *(zoo.)* txerrama, urdama */ azirina (9):* txerrama. */ azirintako [ekun] (9):* txerramatarako eduki.

azitu *(10)* : hazi (aditza) */ azitu dien (10):* (haurra) hazi din.

azka *(5)* : hazka

azkan *(5)* : azken, amaiera

azkandi *(5)* : ahalegin

azkar *(4, 10, 11)* : indartsu, bizikor (adj.) */ amintto urrinxago Roldan Azkarrak xaîtan du ezpata (4):* pittin bat urrunxeago Errolan Azkarrak ezpata garbitzen du. */ mendian leku batarik bestiara zankueki ebilik, azkar ebil! (10):* mendian leku batetik bestera hankekin ibilik, bizikor ibil! OH. Campionen ´Orreaga´ argitalpenean ´Erroldan fuertiak´ dokumentatua.

azkara *(5)* : azkara (ahuntza arreske)

azkaraka *(5)* : indartsu samar

azkaratu *(5)* : igurtzi, marruskatu

azkarrazi *(5)* : altxarazi OH. Azkuek ´gaixo dagoen bati buruz ari garela´ oharrarekin dokumentatua.

azkarska *(5)* : inddartsu (txikigarria)

azkartasun *(5)* : indar

azkatu 1 *(3, 4, 5, 8, 9, 10)* : goratu, altxatu */ [itxasuan] azkatu zen tenpestade bat (3):* itsasoan ekaitz bat altxatu zen. */ [begiak zeuriara] azkatu ztion (3):* begiak zerura goratu zituen. */ ek*

azkatan zein obro iragua (3): haiek gehiago altxatzen zuten oihua. */ eskiua azkatan dabeinek (3):* eskua altxatzen dietenek. */ semiak azkaten dra aita[etaam] en kontra (3):* seme-(alaba)k gurasoen kontra altxatuko dira. */ ez azkatia (3):* ez altxatzea. */ jangeikuari biotza azkatako (3):* jainkoari bihotza goratzeko. */ pezu andi baten azkatako lurretik soinaraino (4):* pisu handi bat altxatzeko lurretik sorbaldaraino. */ ene mîak azkaten dizu zure justizia (4):* ene mihiak goratuko du zure justizia. */ bi eriren artetik igari bear zren exurkoak eta mosarri bat azkatan zen gora (5):* bi hatzen artetik igaro behar ziren tortolosak eta jolas-harri bat goratzen zen gora. */ neskatuak kola beztitruk, traje korreki, xipoieki, kottak azkatruk (8):* neskatoak horrela jantzirik, jantzi horrekin, jipoiekin, gonak goraturik. */ azkatu dur (9):* goratu dut. */ azka zan krima biskarreara (9):* altxa ezan zorroa sorbaldara. */ azkadi! (9):* goratu hadi! (eseriari esana) */ txaramilagaina erori dun eta azkatu bar diagun (10):* tximiniagaina erori dun eta altxatu egin behar dinagu.

azkatu 2 *(3, 10)* : jaiki */ os, bada, azka ztei edo xagi ztei (3):* goazen, bada, altxa edo jaiki zaitezte. */ gizon kori azkatu dun anix goixtar (10):* gizon hori oso goiztiar jaiki da. */ azkatan dun (10):* jaikitzen dun. */ ezin mobi oitik azkatako (10):* ezin mugitu ohetik jaikitzeko. */ azka adi! ordia dun! (10):* jaiki hadi, ordua dun!

azkatu 3 *(2)* : goratu, laudatu */ gaiza guziuen gainetik azka zazei betik [jeina] (2):* gauza guztien gainetik lauda ezazue beti jauna.

azkazi *(4, 5, 7, 9, 10)* : senide, ahaide */ orai, aspaldixko batez, biar dugu tenprarik obenena igari azkazi eta adexkiden etsetan (4):* orain, alditxo batez, denborarik onena senide eta adiskideen etxeetan igaro behar dugu. */ azkaziak (7):* senideak, ahaideak. */ etsekoanderia nonko, azkaziak kanko (9):* etxekoandrea nongo, senideak hango. */ azkaziak (10):* senideak, ahaideak.

azkazi-ondar *(5)* : ahaide txiki (urruna) */ azkazi-ondarrak (5):* ahaide txikiak.

azke *(5)* : hozka, koska (gauzena)

azkeala *(5)* : epeka */ ez azkeala sal (5):* ez saldu epeka.

azken *(3, 4, 5, 7, 10)* : azken */ ezrela kantik erkinen azken marabidia paka´tzazun bitartio (3):* ez zarela handik aterako azken marabedia ordain dezazun bitartean. */ azken ordiuarartio (3):* azken ordua arte. */ azkenik (3):* azkenik. */ leinak zrenak azkenak [izanen dra] (3):* lehenak zirenak azkenan izanen dira. */ azkenian, zer erkin zrei ekustra? (3):* azkenean, zer ikustera atera zarete? */ bere tenpran xin zen orren azken karta (4):* bere denboran etorri zen berorren azken gutuna. */ egun digu udako azken xeia (4):* egun dugu udako azken jaia. */ azken uda igarian (4):* igarotako azken udan. */ azken gatxarendako ez dago dotorerik sontotako (5):* azken gaitzerako ez dago medikurik sendatzeko. */ miaz egiten den mina da azken sontotan dena (5):* mihiaz egiten den mina da azken sendatzen dena. */ [ene amak] laur azken urtiak [igari] xaseririk (10):* ene amak laur azken urteak eseririk igaro (zituen). */ eztakiar azkenean zer egitan gunien irabaztako (10):* ez dakit azkenean zer egiten genuen irabazteko.

azken beltzean *(5)* : azken buruan, azken beltzean

azkenagiñ *(5)* : *(anat.)* azkenagin, zuhurragin */ azkenagiñak (5):* azkenaginak, zuhurraginak.

azkenaitzineko *(5)* : azkenaurreko

azkenaren buruan *(5)* : azken buruan */ azkenaren buruan urliak kontatu zaun sandiari [ixiltarzun] guziua ondo-mokor (5):* azken buruan urliak erabat kontatu zion sandiari sekretu osoa.

azkenats *(5)* : azken hats, hiltamu

azkenekotz *(5)* : azkenekoz */ lein oputzean belain gainera, bigarren oputzean gerruntziara,*

irorgarrenean bularrera, azkenekotz soin gainera (5): lehen ahaleginean belaun gainera, bigarrenean gerrira, hirugarrenean bularrera, azkenekoz sorbalda gainera.

azkenik *(3)* : azkenik */ azkenik, arrastri[ko] azken ordiuari abantxu [erkin zen] (3):* azkenik, arratsaldeko ia azken orduan atera zen.

azkentze 1 *(10)* : hiltze, azkentze */ ene azkentzia (10):* ene hiltzea, ene azkentzea.

azkentze 2 *(5)* : azken hats, hiltamu

azkoi *(2)* : *(zoo.)* azkonar

azkoî *(5)* : *(zoo.)* azkonar

azkondatu *(5)* : aztertu; jakin

azkontatan *(4)* : jakin nahian */ azkontatan dabila nor izan den ebaslia (4):* jakin nahian dabil nor izan den lapurra.

azkontu *(5)* : aztertu, bilatu; jakin */ azkontuz azkontuz xakin diak gaiza bat (5):* aztertuz aztertuz jakin diat gauza bat.

azkor *(5)* : ahanzkor

azkora-piko *(5)* : aizkora-zauri */ asunbeltza azkora-pikoen sontotako on da (5):* asunbeltza ona da aizkora-zauriak sendatzeko.

azku *(4, 5)* : tema; azkura (gogo bizia) */ konek urdu du badiola obroxago azku eratsukitako (4):* [maisu] honek ematen du baduela tema gehixeago irakasteko. */ kemen eztago azkurik [lan egitako] (5):* hemen ez dago lan egiteko azkurarik.

azkuntze *(5)* : edoskitzaro

azkura *(4)* : azkura, gogo bizi */ kemen eztago azkurik, ez eskolako xuntan, ez ezinotxian eta ez aitetan ere (4):* hemen ez dago azkurarik, ez ikastetxeko batzordean, ez udaletxean eta ez gurasoengan ere.

azkurdin *(2, 5)* : *(med.)* ospel, azkordin

azkurriatu *(4)* : errieta egin */ azkurriatako, erran zaun´ txerria, xan zak gente gisa!´ (4):* errieta egiteko, esan zion´txerria, jan ezak jendeak bezala!´.

azkutsu *(5)* : lehiatsu, grinatsu, saiatu

azoillia *(5)* : *(nek.)* txerritegi

azola *(5)* : axola, ardura

azolabage *(5)* : axolagabe, arduragabe

azpi 1 *(4, 7, 8, 10)* : *(anat.)* hanka, zango */ ekun banuntu azpiak yirien gisa (4):* hankak hireak bezalakoak eduki banitu. */ azpiak (7):* hankak. */ azpia (8, 10):* hanka, zangoa. */ eskiko azpia (10):* eskuineko hanka.

azpi 2 *(8, 9)* : *(anat.)* izter */ azpia (8):* izterra. */ azpia autse diar (9):* izterra hautsi diat.

azpi 3 *(5)* : *(suk.)* urdaiazpiko */ azpiek tripak ebilarazten tei obeki ezik kaltzero berriak (5):* urdaiazpikoek tripak hobeto ibilarazten dituzte oinetako berriek baino.

azpi 4 *(5)* : intxaur atal

azpiak autsi *(5)* : akituta egon, neka-neka eginda egon

azpigain *(10)* : *(anat.)* izter */ azpigaina (10):* izterra. OH. Artolak galdera ikurrarekin dokumentatua.

azpigiltz *(5)* : *(anat.)* iztai, izterrondo OH. Zuberoan ere dokumentatua.

azpiki *(5)* : *(suk.)* urdaiazpiko

azpildura 1 *(5)* : azpildura (arropena)

azpildura 2 *(5)* : azpildura (izaeran)

azpimamula *(2)* : *(anat.)* izter
azpintxatu *(5)* : atximur egin
azpixko *(5)* : *(suk.)* izter (hegaztiena) */ txoriak lurrean ebiltako azpixkoak eta zankoak [dozke] (5):* txoriak lurrean ibiltzeko izterrak eta eta hankak dauzka.
azpixoko *(5)* : *(anat.)* iztai, izterrondo
azsari *(5)* : janari-sari (elikagai ordainketa)
aztakarratan *(9)* : aztarrika
aztal 1 *(5, 7, 8, 9)* : *(anat.)* orpo, aztal */ aztala (7, 8):* orpoa, aztala.
aztal 2 *(5)* : ezproi
aztal min *(9)* : orpoko min, aztaleko min
aztal-txunku *(5)* : *(anat.)* orpo-giltzadura
aztamentu *(5)* : haztatze (pisua kalkulatzea)
aztapar 1 *(2)* : atzapar
aztapar 2 *(2)* : hanka (abereena)
aztaparka *(5)* : atzaparka
aztaparkatu *(4)* : atzaparkatu */ aztaparkatruk zaudelarik, zarrak erkin zaun nabaja (4):* atzaparkaturik zeudela, (andre) zaharrak labana atera zion. OH. Adibideko esaldian ´aztaparkatu´ aditza ´heldu´ edo ´oratu´ esanahian erabilita dago.
aztaparkin *(4)* : atzaparkari, atzamarka egile
azteri *(5)* : *(med.)* hazteri */ azteriaren erkinaraztako on da lapabelarraren ura egosita eznearekі nastean artea (5):* hazteria aterarazteko ona da lapabelarraren ura esnearekin egosita nahastean hartzea.
aztondatu *(5)* : aztertu, jakin
aztu *(9)* : ahaztu, ahantzi */ aztan da (9):* ahazten da.
azukar *(2, 4, 5)* : azukre */ azukarreki edo arraultze gorringoareki onki batitruk (4):* azukrearekin edo arrautza gorringoarekin ongi irabiaturik. */ etse bat egin biar dud azukarrez (5):* etxe bat egin behar dut azukrez.
azuntxu *(5)* : *(bot.)* asentsio-belar

B

ba 1 *(8)* : bada, ba */ zer biar dur, ba, erran? (8):* zer esan behar dut, ba?
ba 2 *(10)* : bai */ kura ba, anitx eder (10):* hura bai, oso ederra. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
ba! *(5)* : bai zera!
ba- 1 *(2, 3, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : ba- (baiezkoa) */ baginiena personarik? (2):* ba al genuen pertsonarik? */ badagua xen artian norbait? (3):* ba al dago zuen artean norbait? */ erraiten daud badigula erratia ´ekuri´ (4):* (berorri) erraten diot badugula ´ekuru´ erratea. */ badago ele franko, erraiten baidra letra berberetaz bi (4):* badago hitz asko, letra berberekin bi (sinonimo) esaten direnak. */ badaramatzagu iror urte gaxto (4):* badaramatzagu hiru urte txar. */ nik badud ein eta bi [urte] (5):* nik badut ehun eta bi urte. */ karek badu bai aize! (5):* hark badu bai nahikari (eta gogo)! */ badaki, badakizu (6):* badaki, badakizu. */ badakizua (badakizia) uskara? (7):* ba al dakizu euskara(z)? */ nik badur jenio gaizto (7):* nik badut jenio txarra. */ badu orena xoaitako etseara (7):* badu etxera joateko ordua. */ bi anaxe badiezt (8):* baditut bi anaia. */ badakia nor xin den? (9):* ba al daki nor etorri den? */ badakiar egosi deilla (9):* bazakiat egosi dutela. */ baziezun irurogei urte ikasi niela nik (10):* baziren hirurogei urte ikasi nuela nik. */ badokiar (10):* badezaket.
ba- 2 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : ba- (baldintzazkoa) */ lagunak gu ofenditan bagutu, zer biar dugu egin? (2):* lagunak gu iraintzen bagaitu, zer egin behar dugu? */ ebatsi badugu, utzul zagola (2):* ebatsi badugu, itzul dezagula. */ seme-alabarik ekutan badei, zeuriarako bidian az litxein (2):* seme-alabarik izaten badute, zerurako bidean haz litzaten. */ jangeikuaren seme bazra, erran zazu (3):* jaungoikoaren semea bazara, erran ezazu. */ zu bazra, mana daztazu fan nein zoregana(3):* zu bazara, agindu idazu zuregana joan nadin. */ aita familiadun batek balaki zer ordutan biar zaun [xin ebaszalia] (3):* aita familiadun batek baleki lapurra zer ordutan etorri behar zaion, (adi legoke). */ eltan bada xitra egun kori (4):* egun hori etortzera heltzen bada. */ emon balako karek manatu zauna, eitzen zion (4):* hark agindu ziona eman balio, utziko zuen. */ iragoak egiten ztien, karrikan egon balidra gisa (4):* oihuak egiten zituzten, kalean egon balira bezala. */ ez duk bear llarneara arrimatu, ez baduk nai errautsik artu (5):* ez duk larrainera hurbildu behar, ez baduk hautsik hartu nahi. */ erleak, aurkoi bazrade, fan zte[i] beste lilitra (5):* erleak, haurkoiak bazarete, joan zaitezte beste loreetara. */ [ama] balitz (6):* ama balitz. */ tenpra onik egitan badu [xoanen gra] (7):* eguraldi ona egiten badu, joango gara. */ xaxtan bazra, eragu zazu libroa (7):* jaisten bazara, eraman ezazu liburua. */ [borz pezeta] erdeitan batzu (9):* bost pezeta aurkitzen badituzu. */ bizi izan balira kurak, betik egonen nindezun elerraitan eki (10):* haiek bizi izan balira, beti egonen nintzen haiekin hitz egiten.
baba 1 *(2, 5)* : *(bot.)* baba
baba 2 *(5)* : *(med.)* baba (azalekoa)
baba 3 *(5)* : *(bot.)* basababa
baba zabal *(5)* : *(bot.)* baba zabal */ baba zabala abentiuan (5):* baba zabala abenduan.
babada *(5)* : *(met.)* ihintz
babaka *(5)* : ahuntz-gorotz
babalasto *(5)* : *(bot.)* baba-zurtoin
baballa *(11)* : *(bot.)* pagatxa, pagazi
babi *(8)* : *(bot.)* ezkur */ babia (8):* ezkurra, haritz-ezkurra.

bada *(2, 3, 4, 8)* : bada, ba */ zerengatik, bada, erraitan dugu ´aita´? (2):* zergatik, bada, erraten dugu ´aita´? */ [Judea guzutik] zuatzan, bada, aren erdeitra gentiak (3):* Judea osotik zihoazen, bada, jendeak hura aurkitzera. */ txezei, bada, nola biar tzein errezatu (3):* begira ezazue, bada, nola errezatu behar duzuen. */ anitx dra, bada, deitiuak; txiki baia eskojitiuak (3):* anitz dira, bada, deituak; gutxi baina aukeratuak. */ egin zazu, bada, zuk kola (3):* egin ezazu, bada, zuk horrela. */ ez dud uste gatxiten zaula gaiza kuen oiltra (sic), bada guziua egiten dud obeki nai (4):* ez dut uste gaitzitzen zaionik gauza hauek igortzea, bada guztia egiten dut hobeki nahian. */ bada nik einbeste ez diar egin (8):* bada nik hainbeste ez dut egin. */ ze egitan dik kor, karrika kortan? bada, fotografian egitan (8):* zer egiten dik hori, kale horretan? bada, argazkia egiten.

badaezpadako *(5)* : badaezpadako

badare *(5)* : behintzat, bederen

badarik *(5)* : behintzat, bederen OH. Azpeitian ´badaik´e´ dokumentatua.

badataezpada *(5)* : badaezpada (ere)

badatezpada *(5)* : badaezpada (ere)

badiela *(10)* : duela, badu (denborazkoa) */ badiela ein urte (10):* duela ehun urte.

badiezu *(8)* : duela, badu (denborazkoa) */ badiezu berrogeita bedratzu urte bordaltruk nagola (8):* badu berrogeita bederatzi urte ezkonduta nagoela.

badillaenzur *(2)* : *(anat.)* masailezur

badillaezur *(2)* : *(anat.)* masailezur

badizu *(8)* : duela, badu (denborazkoa) */ badizu urte anitx (7):* duela urte anitz. */ irorogei urte badizu (8):* badu hirurogei urte.

badu *(4, 5, 8)* : duela, badu (denborazkoa) */ badu borz ilabete fan zitzaikugula maistroa (4):* badu bortz hilabete maisua joan zitzaigula. */ badu ogei egun, elurte andi batek pean gazkala (4):* badu hogei egun, elurte handi batek pean gauzkala. */ badu amaborz egun nagola begi min gaxto bateki (4):* badira hamabost egun begiko min txar batekin nagoela. */ badu ogei edo obro urte (4):* duela hogei urte edo gehiago. */ badu berrogeitamar urte (8):* badu berrogeita hamar urte.

bae *(5)* : *(nek.)* bahe

bafada *(5)* : lurrun, gandu

bagadoi *(1, 4)* : pagadi */ bagadoi zarra (1lm):* pagadi zaharra. */ bagadoi anitx [dago] (4):* pagadi anitz dago.

bagailla *(5)* : *(bot.)* pagatxa, pagazi

bage 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : gabe */ nestaterik bage (2):* beharrik gabe. */ bizitze fin bagian (2):* bizitza amaiera gabean. */ etzeia xek en beino anitx obro balio konparazionerik bage? (3):* ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio konparaziorik gabe? */ fruturik emon bage [baratan da] (3):* fruiturik eman gabe geratzen da. */ [jangeiko izaitia] eitzu bage (3):* jaungoiko izatea utzi gabe. */ iltea on bat, erigoa luzerik bage (4):* heriotza on bat, gaixotasun luzerik gabe. */ geroztik neabe guziua dago karriketarik eskolarik bage (4):* geroztik gaztetxo guztiak kaleetan daude eskolarik gabe. */ gaia izarrik bage [dago] (4):* gaua izarrik gabe dago. */ ardaûrik ekusi bage (4):* ardorik ikusi gabe. */ adexkiderik bage bizitea da orobat nola testigorik bage iltea (5):* adiskiderik gabe bizitzea lekukorik gabe hiltzea bezala da. */ erran zazu egia alkerik bage (7):* esan ezazu egia lotsarik gabe. */ gizonen bage ez litaken egin (7):* gizonak gabe ezin dun egin. */ [sukaldia] egordi bage [erkin nun] (8):* sukaldea erraztatu gabe atera naun. */ nobedaderik bage, iritzarri biamen goxan (8):* nobedaderik gabe iratzarri (zen)

biharamun goizean. */ euri egitan baratu bage (9):* euria egiten, gelditu gabe. */ koriek zer bar dei egin, ikasi bage? (10):* horiek zer egin behar dute, ikasi gabe? */ aber nola bizi ninden ni ortzik bage (10):* ea nola bizi nintzen ni hortzik gabe. */ badakizei nik erran bage (10):* badakizue nik erran gabe.

bage 2 *(5)* : gabezia

bageko *(4, 5)* : gabeko */ Urzainkiko mestara urtean bi aldiz bustegi bageko ardiak eragutan tei (5):* Urzainkiko mestara urtean bi aldiz buruzagi gabeko ardiak ekartzen dituzte.

bagerik *(2, 5, 8)* : gabe */ non zegon jeina mundu kontako gaizak kreatu bagerik? (2):* non zegoen jauna mundu honetako gauzak sortu gabe? */ ñeuren nestaterik bagerik (2):* inoren beharrik gabe. */ bere saintiua bagerik ez da ñor ere ebiltan bere ozkumetik (5):* bere santua gabe ez da inor ere ibiltzen (ateratzen) bere ezkutalekutik. */ ez dago eztirik gibelmin bagerik (5):* ez dago eztirik behazunik gabe. */ ortzik bagerik ezin erran (8):* hortzik gabe ezin erran.

bagetarik *(3, 8)* : gabe */ lein xunto egon bagetarik (3):* lehen elkarrekin egon gabe. */ erabilten da txerkatan, konsegitu bagetarik (3):* bila ibiltzen da, lortu gabe. */ deus egin bagetarik, solo xan eta lo (8):* deus egin gabe, jan eta lo soilik.

bagetasun *(5)* : gabezia, gabetasun

bagetaz *(2)* : gabe */ bizi kontan satisfakzionerik emon bagetaz (2):* bizi honetan ordainik eman gabe.

bagetu *(5)* : gabetu, uko egin */ gorezimako ortzilaretan aragi xateatik bagetan naz (5):* garizumako ostiraletan haragia jatetik gabetzen naiz (= haragia jateari uko egiten diot).

bagez *(9)* : gabe */ xale bagez garidun (9):* jatun(ik) gabe (egotean) gariduna (izan).

bago *(1, 2, 4, 5, 8, 9, 10)* : *(bot.)* pago */ bago bakotxa (1lm):* pago bakarra. */ bago ordoki[a] (1lm):* pago ordokia. */ bagaxiloa (1):* pago txuloa. */ argizagiaren goragoan ebakitan dra bago ta lerrak (5):* (ilargiaren) ilgoran pagoak eta lerrak mozten dira. */ bagoa gisa da atze kau, baia ñoago ta me (5):* pagoaren antzekoa da zuhaitz hau, baina txikiagoa eta mehea. */ bago-arnari (5):* pago fruitu(a). */ bagua (8):* pagoa. */ bagoa (9, 10):* pagoa.

bagondo *(5)* : *(bot.)* pago, pagondo

bai 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : bai */ tentazione gasto ekutia on daia? bai, goitan badrade (2):* tentazio txarrak edukitzea ona al da? bai, garaitzen badira. */ elten da, bai, tenpra (3):* helduko da, bai, garaia. */ akostunbratia erraitra bai edo ez (3):* bai edo ez esaten ohitzea. */ egon zaiteken, bai, balle kaur aski abrats (4):* egon zitekeen, bai, ibar hau aski aberats. */ eskribaîari [bixita egin daud] eta Frantxiska Ligikoari ere bai (4):* eskribauari bisita egin diot eta Frantziska Ligikoari ere bai. */ ez kan, bai kan (5):* ez han, bai han. */ bai, uskalduna naz (7):* bai, euskalduna naiz. */ nik bai badiar etse (7):* nik bai badiat etxea. */ ama kebenko, aitaʹ re kebenko, bai (8):* ama hemengoa, aita ere hemengoa, bai. */ belainzi dia Pedro? bai, belainzi tzu (9):* biluztu al da Pedro? bai, biluztu da. */ zomait ele bai, baia kori eztu aski (10):* zenbait hitz bai, baina hori ez du aski.

bai 2 *(2)* : bai (iz.) */ akostunbratia erraitra eza ez, eta baia bai (2):* eza ez eta baia bai erratera ohitzea.

bai aurra! *(7)* : bai horixe!

bai jeina! *(2)* : bai jauna!

bai jina! *(2, 3)* : bai jauna!

bai ote? *(5)* : bai ote?

bai... ere *(7)* : baita... ere */ egun on! bai zuri ere (7):* egun on! baita zuri ere. */ aitaren lana andi*

[dun], bai semeana´re (7): aitaren lana handia da, baita semearena ere.

baia *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : baina */ non dago? leku guzietan, baia espezialki zeurian (2):* non dago? leku guztietan, baina bereziki zeruan. */ egiazki anitx [da] egitatako, baia egitariak txiki (3):* egiaz asko dago igitatzeko, baina igitariak gutxi. */ Herodesek [Juan] onki nai zion ilarazi, baia ezen atrebitan iriaren lotsaz (3):* Herodesek Juan ongi hilarazi nahi zuen, baina ez zen ausartzen herriaren beldurrez. */ anitx dra, bada, deitiuak; txiki baia eskojitiuak (3):* anitz dira, bada, deituak; gutxi baina aukeratuak. */ eskribitu zaitadan, baia eztaud errespuestarik egin (4):* idatzi zidan, baina ez diot erantzunik egin. */ anitx daki sagiuak, baia obro gatiuak (5):* anitz daki saguak, baina gehiago katuak. */ bagoa gisa da atze kau, baia ñoago ta me (5):* pagoaren antzekoa da zuhaitz hau, baina txikiagoa eta mehea. */ kori egia da, baia erdika (7):* hori egia da, baina erdizka. */ ni xagi nun, baia ez nun kobesatu (8):* ni jaiki naun, baina ez naun aitortu. */ ñotto tzu, baia pollit (9):* txikitxoa da, baina polita. */ zemait ele [erraitan guniezun], baia ez entelegatan guziak (10):* zenbait hitz erraten genien, baina ez (zituzten) ulertzen guztiak.

baiarte *(10)* : baiarte */ ama berjina [eramaitan] baiarte batetan (10):* ama birjina eramanez baiarte batean. OH. Zerbait edo norbait sorbalda gainean eramateko tresna.

baiedo *(5)* : ziurrenik bai

baietz *(7, 10)* : baietz */ erran diar baietz (7):* baietz esan diat.

baietza *(5)* : baiezko(a)

baiki *(5)* : baiki, baietz

baikor *(5)* : baiezko emaile OH. Baiezkoak emateko joera duen pertsona.

baikoz *(3, 5)* : bezain laster; ondoren */ sortruk izan baikoz Jesus Judeako Belenen (3):* Jesus Judeako Belenen jaio bezain laster. */ kaur entzun baikoz erregiari, partitu zren (3):* erregeari hau entzun bezain laster, abiatu egin ziren. */ batixatu baikoz, Jesus uretik erkin zen istantian (3):* bataiatu bezain laster, Jesus uretatik atera zen berehala. */ etsera eltu zen bertan edo baikoz, presentatu zizazkan utsiak (3):* etxera iritsi eta berehala edo iritsi bezain laster, itsuak agertu zitzaizkion. */ xatxiz baikoz Jesus menditik (3):* Jesus menditik jaitsi bezain laster.

baillesta *(5)* : saski (mota bat)

bainan *(5)* : igeri, igerian

bainatu *(4)* : bainatu */ bainatra [xinen da] (4):* bainatzera etorriko da.

baipen *(5)* : baimen, baiezko

bait- 1 *(2, 3, 4, 5)* : bait- (kausazkoa) */ baitazkazu, baitutud, baizrade, baizutud (2):* baitauzkazu, baititut, baitzara, baitzaitut. */ nexar egiten baitu bere semengatik (3):* negar egiten baitu bere semeengatik. */ eskerrak emon dozke jangeikoari, ez baizen izan andiago (4):* eskerrak eman diezazkioke jaungoikoari, ez baitzen handiagoa izan. */ usian azkatu baitud [edo] baidud (4):* basoan goratu baitut. */ ez baitakid zer dakadan erranik (4):* ez baitakit zer daukadan erranik. */ ez doked eskribi, ez bainaiteke xaxerik egon (4):* ez dezaket idatzi, ez bainaiteke eserita egon. */ [erri anitxetarik] ebilten bainaz, anitx ekustan dian (4):* herri(alde) askotatik ibiltzen bainaiz, asko ikusten dinat. */ Iratiko usiaren ostoak airiareki mobitan baidra (4):* Iratiko basoko hostoak haizearekin mugitzen baitira. */ [zarrek] gazten ogia xatan baitei gaizki merexitruk (5):* zaharrek gazteen ogia jaten baitute gaizki merezirik. */ nik eztud nai bordaltu, monja biar baitud izan (5):* nik ez dut ezkondu nahi, moja izan behar baitut.

bait- 2 *(3, 4)* : -en (erlatibozkoa) */ ziudade bat, deitan baizen Nazaret (3):* hiri bat, Nazaret deitzen zena. */ kemen dago bat eliza beino andiago baita (3):* hemen bat dago eliza baino handiagoa dena. */ gizon bat, baizakan esku bat exartruk (3):* gizon bat, esku bat iharturik

zeukana. */ [ilobiak] iriki zren eta anitx sainturen korpiz, il baizrenak, erresuzitatu zren (3):* hilobiak ireki ziren eta hil ziren santu askoren gorputzak berpiztu ziren. */ eltu gra tenprara, lanek pean arrapatu baigitei (4):* lanek pean harrapatu gaituzten garaira heldu gara. */ xinen da berze tenpra bat, izanen bainaiz luziago (4):* beste aldi bat etorriko da, luzeago izango naizena (luzeago idatziko dudana). */ lerrak du ura bikalako gaiza bat, baitu izena ´errazia´ (4):* pinuak ura bezalako gauza bat du, ´erretxina´ izena duena. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

baita *(3)* : baita (iz.) */ ek diskurritan zein beren baitako, erraiten (3):* haiek beren baitarako hausnartzen zuten, erranez. */ [´il dazagun´] erran zein beren baitan (3):* ´hil dezagun´ esan zuten beren baitan.

baita ere *(3)* : baita ere */ nola? baita xek ere zaudei izagunmentu kain txikirekin? (3):* nola? zuek ere hain ezagutza gutxirekin zaudete? (baita zuek ere).

baita´re *(3, 4)* : baita ere */ amalaur jenerazione judiuak Babiloniara eraman bitartio, baita´re amalaur jenerazione Kristo bitartio (3):* hamalau belaunaldi juduak Babiloniara eraman bitartean, baita ere hamalau belaunaldi Kristo bitartean. */ badigu erraitia ´yunyu´, gaiza amiñoaren; baita´re´yunyuxka´ (4):* badugu ´ñimiño´ erratea, gauza txikitxoaz; baita txikixka ere. */ baita´re oiltan daud ele galtegiten daiztadanak, bapana bere lumeroareki (4):* galdetzen dizkidan hitzak ere bidaltzen dizkiot, bakoitza bere zenbakiarekin.

baizi *(2)* : baizik (eta) */ ez nore mereximentien medioz, baizi Kristo jeinaren mereximentien medioz (2):* ez neure merezimenduen bidez, baizik eta Kristo jaunaren merezimenduen bidez. */ ez biarkoa eta etxikoa, baizi egunorozko[a] (2):* ez biharkoa eta etzikoa, egunerokoa baizik.

baizi (ez) *(2)* : baizik (ez) */ zer sinestan dugu? eztugula juangeiko bat baizi (2):* zer sinesten dugu? ez dugula jaungoiko bat baizik.

baizik *(3, 4)* : baizik (eta) */ ez naz xin [legiaren desegitra], baizik emoitra (3):* ez naiz etorri legea desegitera, ematera baizik. */ erraiten du ez digula ontarzun xuntatu biar mundu kontako, baizik zeuriko (3):* erraten du ez dugula ondasunik elkartu behar mundu honetarako, zerurako baizik.

baizik (ez) *(3, 4, 5)* : baizik (ez) */ ordiuarartio jangeiko baizik ez zena, gizon eginik [baratu zen] (3):* ordura arte jaungoiko baizik ez zena, gizon eginik geratu zen. */ iriko gizon guziuetarik eztud baizik laur zarrago (4):* herriko gizon guztietatik lau baizik ez dut zaharrago. */ ez ginion biltu baizik autz (4):* (uztan) ez genuen bildu ahotza baizik. */ karta kontan ez daud oiltan baizik berri bat (4):* gutun honetan berri bat baizik ez diot bidaltzen. */ ez du berze ontarzunik baizik txintxa eta erro franko (5):* ez du beste ondasunik baizik mukia eta karkaxa franko.

bakanka *(5)* : banan-banan

bakar *(5)* : bakanka, gutxitan

bakarti *(5)* : bakarti

bakazione *(4)* : opor, oporraldi */ ekusten dud diola intenzione xiteko bakazionetan, uda aspaldixko baten igartra (4):* oporretan etortzeko asmoa duela ikusten dut, uda alditxo bat igarotzera.

bake *(3, 4, 5, 7, 9)* : bake */ bakia izan deila etse kontan (3):* bakea izan dadila etxe honetan. */ eitz ditzazei aurrak bakian (3):* utz itzazue haurrak bakean. */ bakian eta amorioan [bizi izaiteko], senar-emazte gisa (4):* bakean eta maitasunean bizi izateko, senar-emazteak bezala. */ onaren bakea gaiztoak nai dion artio (5):* onaren bakea gaiztoak nahi duen arte. */ jeina, eman bakea (bakia) (7):* jauna, eman bakea. */ gerran ala bakean edo bietan (7):* gerran ala bakean edo bietan. */ utzitan bakian (9):* utz nazan bakean.

bake egin *(7)* : baketu, bakeak egin
bakedun *(5)* : bakedun, baretu (adj.)
baketi *(5)* : baketsu
baketu *(7)* : baketu
bakiak egin *(4)* : bakea egin, bakezkoak egin */ oboro[en]ek egiten tei bakiak xuntagune kontan (4):* gehienek bakezkoak egiten dituzte biltoki honetan.
bakian isari *(4)* : bakean jarri, baketu */ leineko zarrer entzutiaz digu gaiza kaur isaririk zegola ankartruk zeudenen bakian isartako (4):* lehengo zaharrei entzutea dugu gauza hau jarrita zegoela haserre zeudenak bakean jartzeko.
bakotx 1 *(1, 3, 4, 5, 9)* : bakoitz */ etarik bakotxa (3):* haietako bakoitza. */ eztu merexi isar bakotxaren izenik (4):* ez du merezi (zuhaitz) bakoitzaren izena jartzea. */ ezau eltan bakotxari (5):* (usaina) ez zaio heltzen bakoitzari. */ bakotxek dein amabira sagar (9):* bakoitzak din hamabina sagar.
bakotx 2 *(1, 2, 3, 4, 5, 10)* : bakar, bakoitz */ berro bakotxa (1):* lursail bakarra. */ etsabakotxa (1):* etxe bakarra. */ gore jein bakotxa (2):* gure jaun bakarra. */ eztago xaurien eskiuan egitia xuri edo beltx bilo bakotx bat (3):* ez dago zeuen eskuan ile bakar bat zuri edo beltz egitea. */ Jesusek ele bakotx bat ezaun errespondítu (3):* Jesusek hitz bakar bat ez zion erantzun. */ [gizona eta emaztia] izanen dra bi aragi bakotx batian (3):* gizona eta emakumea izanen dira bi haragi bakar batean. */ eztakiola balio bakotxa´re (4):* ez dakiola balio bakar bat ere. */ bere seme bakotx gore jeina (4):* haren seme bakar gure jauna. */ eskribaia abrastan da pluma bakotx bateki (5):* eskribaua (idaz)luma bakar batekin aberasten da. */ eztud onik bakotxik ekusi (5):* ez dut onik bakar bat ere ikusi. */ oren bakotxa [da] (10):* ordu bata da (= ordu bakarra). */ oren bakotx et´erdia (10):* ordu bata eta erdi.
bakoxka *(5)* : bakoiti
baku *(5)* : bilera */ bakiak (5):* artzain-bilerak. OH. Azkuek dio Urzainkin bi urtean behin artzainen arteko liskarrak ebazteko egiten ziren bilerak direla.
bakun *(5)* : bakarti, bakun */ idi bakuna (5):* idi bakartia, idi bakuna.
bakutx *(9, 10)* : bakar, bakoitz */ seme bakutx[a] (9):* seme bakarra. */ oren bakutxa [da] (10):* ordu bata da (= ordu bakarra).
bal *(5)* : *(nek.)* azao, sorta */ [gari]-balak (5):* gari-azaoak.
baladre *(5)* : *(bot.)* otsababa */ baladrea sendoen ilgarri, eroen sendogarri (5):* otsababa sendoen hilgarri, eroen sendogarri.
balakari *(5)* : lausengari, balakari, koipetsu
balakatu *(5)* : lausengatu, balakatu, koipea eman
balaku *(5)* : lausengu, balaku, koipe
balakugarri *(5)* : hondar-gehigarri OH. Azkuek ´saltzaileek produktua pisatu ondoren, gehitzen duten kopurutxoa´ esanahiarekin dokumentatua.
baldar *(11)* : baldar, utzi */ baldarra (11):* baldarra, utzia.
baliatu *(2, 4, 5, 7)* : baliatu */ ezpaigra baliatan arek medio izarri ztienetaz (2):* ez baikara baliatzen hark jarri zituen baliabideez. */ [etxizeria gaizetaz] baliatan dena (3):* sorginkeria gauzez baliatzen dena. */ balia zte bi personataz (3):* balia zaitez bi pertsonaz. */ ezaitad baliatu (4):* ez zait baliatu (ez zait balio izan). */ Maria, orai dakiguna balia (5):* Maria, orain balia dakiguna. */ egoatxak zertako baliatan dren [ikastan da] (7):* ibaiak zertarako baliatzen diren ikasten da.

balima- *(2, 3, 8, 10)* : baldin ba- */ bai, eramaitan balimadra pazienziaz (2):* bai, pazientziaz eramaten baldin badira. */ ordian iltan balimada, zeuriara xuanen dela (2):* orduan hiltzen baldin bada, zerura joanen dela. */ urtian bein goresima[n] konfesa gitiala, edo leinago biarrik balimadigu (2):* urtean behin garizuman aitor gaitezela, edo lehenago beharrik baldin badugu. */ [zore begia] gaxki balimadakazu, zore korpiz guziua egonen tzu uluntruk (3):* zure begia gaizki baldin badaukazu, zure gorputz osoa ilundurik egonen da. */ arbolia balimadakazei gaixtotako, ekun zazei gaixtotako aren frutiua [ere] (3):* zuhaitza txartzat baldin badaukazue, eduki ezazue haren fruitua ere txartzat. */ jangeikuaren semia balimazra, xaixte krutxetik (3):* jaungoikoaren semea baldin bazara, jaits zaitez gurutzetik. */ orai etxe guzietarik ez balimada bi, iror [juaiten tzu] (8):* orain etxe guztietatik ez baldin badira bi, hiru joaten dira. */ ez balimazagon gai kartako, guziek erostan gunia (10):* gau hartarako ez baldin bazegoen, guztiok erosten genuen.

balin ba- *(5, 7, 8, 10)* : baldin ba- */ buriua ganzgezaz balin baduk, ez yadi izan labazain (5):* burua gantzez(koa) baldin baduk, ez hadi izan labezain. */ [altxatruk] balin badago zomait, erkin deila (7):* ezkutaturik baldin badago norbait, atera dadila. */ [anitx] xatan balinbadun, gizenten yaz (7):* anitz jaten baldin badun, gizenduko haiz. */ gentan balin badun, xonen di[n]ar ostiko bat (7):* kentzen baldin badidan, ostiko bat joko dinat. */ balin leinak kiatan badu, bigarnak obro (8):* baldin lehenak usaintzen badu, bigarrenak gehiago. */ balin badago (8):* baldin badago. */ kemen xoaitan zuntien San Juan goixean alurretra, eta balin bazagon belar... etzulukaka [ebiltan zuntien] (10):* hemen joaten ziren San Juan goizean alorretara, eta belarra baldin bazegoen... itzulipurdika ibiltzen ziren. */ erortan balin bada, azkatu bar diagun (10):* erortzen baldin bada, altxatu egin behar dinagu. */ arrapatan balin badur adarra, emonen diar berareki (10):* adarra harrapatzen baldin badut, berarekin emanen diat. OH. Estornesen adibidean ´xoren´ espero zitekeen.

balio *(2, 3, 4, 5, 9)* : balio */ anitx baliotako [perla] bat (3):* balio anitzeko perla bat.

balio ekun *(2, 3, 4, 5, 7, 9)* : balio izan */ xakin zagon gore arimek zonbat balio dein (2):* jakin dezagun gure arimek zenbat balio duten. */ zer, ez dia korpizak obro balio ezik beztiduak? (3):* zer, ez al du gorputzak gehiago balio jantziak baino? */ xek txori anitxek beino obro [balio tzei] (3):* zuek txori askok baino gehiago balio duzue. */ zomat obro balio du gizon batek ezik ardi batek? (3):* zenbat gehiago balio du gizon batek ardi batek baino? */ orobat balio ekun dei Antoniaren amar arraultzek, nola Petraren ogeiek (4):* berdin balio izan dute Antoniaren hamar arrautzek eta Petraren hogeiek. */ eztakiola balio bakotxa´re (4):* ez dakiola balio bakar bat ere. */ lerrak balio du zernaiden etse egiteko (4):* pinuak edozein etxe egiteko balio du. */ [zerbait] erranen daud gore uskararen gainian, ya zerbait balio zaunez (4):* zerbait erranen diot gure euskarari buruz, ea zerbait balio zaion. */ obro balio du ´to´ batek ezik bi ´eik´ (5):* gehiago balio du ´to´ batek, bi ´emadak´ baino. */ kainbat balio duk nola yoana (5):* hainbat balio duk, daukaanak bezala (daukaanak adina balio duk). */ eztien balio deustako (7):* ez din balio ezertarako. */ zomat balio du korrek? (9):* zenbat balio du horrek? */ e´gunia balio mendiara xoaitako (10):* ez genuen balio mendira joateko.

balioso *(5)* : baliotsu

balkon *(5, 10)* : *(erai.)* balkoi */ balkona (5):* balkoia. */ balkonetra erkitan zreia morroiak (10):* balkoietara irteten ziren mutilak.

balma *(2)* : *(bot.)* ziguin, malba

balpilla *(5)* : azao pila

balsa *(5)* : *(med.)* odolbatu, odolbildu

balle *(4)* : *(geog.)* ibar, haran */ balle kontan, balle kontra, balle koni (4):* haran honetan, haran honetara, haran honi. */ zer balle abrats! (4):* zer ibar aberatsa! */ [zorrian] zegon ballia (4):* zorretan zegoen ibarra.

bana *(4, 7)* : bana */ [besugo] amintirrina bana partitu dabeid (4):* bisigu pitintxo bana banatu diet. */ [arzatzek otsoari] sudurretarik bapanak uzker bana [sartu zabein] (4):* ahariek otsoari bakoitzak uzker bana sartu zioten. */ apezak emon zia[n] mazter mirall bana (7):* apaizak emakumeei domina bana eman zien.

banak *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : batzuk */ zer dra aingriak? espiritu banak (2):* zer dira aingeruak? espiritu batzuk. */ mago banak xin zren iguzki-erkingutik Jerusalenera (3):* mago batzuk etorri ziren ekialdetik Jerusalenera. */ erakuszale banek erran zein (3):* irakasle batzuek erran zuten. */ banak berzetarik [berexen tu] (3):* batzuk bertzeetatik bereiziko ditu. */ gizon bat beztitruk arropa delikatu banekin (3):* gizon bat arropa delikatu batzuekin jantzia. */ [Jesus] alor erin altaka banetarik [igari zen] (3):* Jesus alor erein batzuen albotik igaro zen. */ berze banak arridoietan [erori zren] (3):* beste (ale) batzuk hardietan erori ziren. */ bere ardauntziua [arrendaten du] berze labrari baner (3):* bere mahastia errentan emango die beste nekazari batzuei. */ [kemen gaude], fiesta banen igartan (4):* hemen gaude, jai batzuk igarotzen. */ banek erraiten zein (4):* batzuek esaten zuten. */ oixan kortan artzai banek bidea badakei; beste banentako, eztakeinentako, galmendi da (5):* oihan horretan artzain batzuek badakite bidea; beste batzuentzat, ez dakitenentzat, labirintoa da. */ etxe banak (7):* etxe batzuk. */ banek [eta] bestek [egin die] (8):* batzuek eta besteek egin dute. */ arroitu banak (9):* zarata batzuk. */ banak mendiara [xuan ditzu] ta bestiak eguatxara (9):* batzuk mendira joan dira eta besteak ibaira. */ gizon banek egin deila (9):* gizon batzuek egin dutela. */ igar den urtian egon zuntian keben neskatila banak (10):* igaro den urtean neskatila batzuk egon ziren hemen. */ beste banen altiara [xoanen naz] (10):* beste batzuen aldera joanen naiz. */ eragi zan kona arraultze banak gore arixkidearentako (10):* ekar itzan hona arrautza batzuk gure adiskidearentzat.

banaka 1 *(5)* : banaka */ eli edo banaka (5):* binaka edo banaka.

banaka 2 *(5)* : bakartu, baztertu (adj.)

banban *(5)* : lehiatsu, grinatsu, saiatu

banda 1 *(5)* : joera

banda 2 *(5)* : grina

banda 3 *(5)* : bizio

banzo *(5)* : bareko min

bañatako ganbra *(7)* : bainugela */ keben dago bañatako ganbra (7):* hemen dago bainugela.

bañatu *(7, 10)* : bainatu */ nai dur bañatu (7):* bainatu egin nahi dut. */ geroago bañaten naz (7):* geroago bainatuko naiz. */ bañatako egitan dein anitx erager (10):* bainatzeko igeri anitz egiten diten.

bapana *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : bakoitz */ gizon bapanak badu beria (3):* gizon bakoitzak badu berea. */ baia fabrikatan zein bapanak bere buriuarekin (3):* baina bakoitzak bere buruarekin hitz egiten zuten. */ gunian emonen du pakiua bapanari bere obren tenoriara (3):* orduan ordaina emango dio bakoitzari, bere eginen moduan. */ [guziuak] bapanaren il ordiuan (3):* guztiak bakoitzaren hil orduan (epaituko dituzte). */ bi gaiza kuen bapanian (3):* bi gauza hauen bakoitzean. */ [jornalariekin ajustatu zen] zidarrezko deuri batian egun bapanaren (3):* jornalariekin zilarrezko diru bat adostu zuen egun bakoitzeko. */ baitaʹre oiltan daud ele*

galtegiten daiztadanak, bapana bere lumeroareki (4): galdetzen dizkidan hitzak ere bidaltzen dizkiot, bakoitza bere zenbakiarekin. */ [arzatzek otsoari] sudurretarik bapanak uzker bana [sartu zabein] (4):* ahariek otsoari bakoitzak uzker bana sartu zioten. */ ardi bapanari gentan dabei iror edo laur libra ganzta (4):* ardi bakoitzari hiru edo lau libra gazta kentzen diote. */ bapanak bere sanduari otoi egitan dau (5):* bakoitzak bere santuari otoitz egiten dio. */ ezau faltatan eltxano bapanari bere eltzabaldia (5):* ez zaio faltatzen eltzetxo bakoitzari bere estalkia. */ iru makilukaldi aldi bapanean emon (5):* hiru makilakada aldi bakoitzean eman. */ emon nia[n] amari eta aitari matto bapanari (7):* aitari eta amari eman niean musu bakoitzari. */ bapanak diazu amekana sagar (9):* bakoitzak du hamaikana sagar. */ bapana[k] berarentako (10):* bakoitzak berarentzat.

bar *(6, 7)* : behar (iz.) */ zer bar dago etse batan! (7):* zer behar dagoen etxe batean!

bar ekun *(7, 8, 9, 10)* : behar izan */ zomat bar du aur konek[?] (7):* zenbat behar du haur honek? */ keben bar diezu euri ekun egunoro (7):* hemen euria egunero eduki behar duzu. */ xitan dreneko bar dur aigaria drezatu (8):* etortzen direnerako afaria prestatu behar dut. */ zomat bar diar emon? (8):* zenbat eman behar diat? */ orai bar diauzu axatu eltzea (9):* orain eultzia haizatu behar dugu. */ nik bar nien egosi eznia? (9):* nik egosi behar nuen esnea? */ nik zer bar dior erran? (10):* nik zer erran behar diot (berorri)? */ zer bar da egin? (10):* zer behar da egin?

bar-bar *(5)* : bor-bor (irakitearen onomatopeia)

bara 1 *(3)* : bada */ xin ztei, bara, ezteietra (3):* etor zaitezte, bada, ezteietara.

bara 2 *(5)* : geldigune

baragaillu *(5)* : oztopo

barailezur *(5)* : *(anat.)* masailezur, barailezur

barailla *(5)* : *(anat.)* masailezur, barailezur

baraldi *(5)* : geldialdi, atsedenaldi

baranka *(2, 5, 9)* : *(zoo.)* bare OH. Zaraitzun ´baranga´ dokumentatua.

barapen *(4)* : egonleku */ ez baidakid non den orren barapena, eztud esprantza andirik el dein karta kaur orren eskiuetra (4):* ez baitakid non den berorren egonlekua, ez dut itxaropen handirik gutun hau hel dadin berorren eskuetara.

baratu 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : geratu */ [gizon eginik] baratu zen (2):* gizon eginik geratu zen. */ korpiza non baratu zen? krutxian (2):* gorputza non geratu zen? gurutzean. */ ama berjina baratan zelarik birjen erdietan (2):* ama birjina birjina geratzen zela erditzean. */ ura baraten zelarik birjen erdiz lein (2):* hura birjina geratzen zela erdi baino lehen. */ instantian baratu zen sontotruk bere lepratik (3):* berehala bere legenetik sendaturik geratu zen. */ zore limosna bara dein altxatruk (3):* zure limosna ezkutaturik gera dadin. */ betik baratan nazala gose andi bateki (4):* beti geratzen naizela gose handi batekin. */ ezta baratan gentia gai eta egun (4):* ez da geratzen jendea gau eta egun. */ pix egiten bara adi (5):* gera hadi pixa egiten. */ baratu nintzen ñaur etxean (7):* etxean bakarrik geratu nintzen. */ ogeitamar urtetan baratu alargun (8):* hogeita hamar urterekin geratu (nintzen) alargun. */ maztiak baratu [zren] alketuk (10):* emakumeak lotsaturik geratu ziren. */ baratan balin ba[zia] azukarra gisa (10):* azukrea bezala geratzen baldin bazen.

baratu 2 *(4, 5, 7, 9, 10)* : gelditu */ kontan baratan naz (4):* (gutun) honetan gelditzen naiz. */ baratruk ekusten nion erbi baten arrapatra [fan nintzen] (4):* gelditua ikusten nuen erbi bat harrapatzera joan nintzen. */ ni ere bara nein eskribitiatik Bilbabera (4):* ni ere geldi nadin Bilbora gehiago idatzi gabe. */ [airea] baratu da (7):* haizea gelditu da. */ euri egitan baratu*

bage (9): euria egiten, gelditu gabe. */ biotza baratu [zita] (9):* bihotza gelditu zait. */ ezin baratuz (9):* ezin geldituz. */ tokoa baratan zenian, [xotan] gunia kolaxet (10):* txirikila gelditzen zenean, honelaxe jotzen genuen.

baratu 3 *(4)* : egon (nola, osasunez eta)

baratxe *(5)* : poliki, emeki

baratxinko *(5)* : *(nek.)* baratze-koadrotxo OH. Azkuek ´baratzeko koadrotxoa´ esanahiarekin dokumentatua.

baratxuri *(2, 5, 8, 9, 10)* : *(bot.)* baratxuri */ amar baratxuri (8):* hamar baratxuri.

baratxuri zuku *(5)* : *(suk.)* baratxuri salda

baratxuri-belar *(5)* : *(bot.)* aski-motz */ [baratxuri-belarra] molkoka, errosarioa bikala, aztan da (5):* aski-motza multzoka, arrosarioa bezala, hazten da.

baratze *(1, 3, 5, 8, 9)* : *(nek.)* baratze */ baratzeta, baratzeaga (1):* baratze eta, baratze lekua. */ Jesus baratze batra [eltu zen] (3):* Jesus baratze batera heldu zen. */ erin zak baratzean azazi (5):* erein ezak baratzean aza hazia. */ baratzia (8):* baratzea. */ ama baratzean [diozu] (9):* ama baratzean dago. */ baratzetik [xitan nezu] (9):* baratzetik nator.

barbalaka *(5)* : borborka bizi-bizi

barbera *(5)* : zirujau */ eriarentako barbera berri, dotorea zar (5):* gaixoarentzat zirujaua berria, sendagilea zaharra.

barda *(5)* : bart */ barda otso nintzan, goxan egarri, non izan banintzan guzion barregarri (5):* bart mozkor nintzen, goizean egarri, non izan banintzen guztion barregarri.

Bardea *(5, 7, 9)* : *(geog.)* Bardea */ obeki egonen nintzen Bardeako llerkopetan (5):* hobeki egonen nintzen Bardeako pinudipeetan. */ saldo guzuak igartan tun Karkastillorik xoaitako Bardeara (7):* artalde guztiak Zarrakaztelutik igarotzen dira Bardera joateko.

bardin *(5)* : berdin OH. Bizkaian eta Lapurdin ere dokumentatua.

bardintsu *(5)* : berdintsu

bargasta *(5)* : *(zoo.)* bargasta OH. Azkuek ´lau bat arroako txerri emea´ esanahiarekin dokumentatua. Euskara batuan ´hazten ari den txerri emea´.

barima- *(4)* : baldin ba- */ xiten bada edo xiten ez barimada (4):* etortzen bada edo etortzen ez baldin bada. */ [azukar eta gorringo], bietarik barimadu, obe (4):* azukrea eta gorringoa, bietatik baldin badu, hobe.

barku *(7)* : *(naut.)* itsasontzi, ontzi */ barku batean [xin gra] (7):* itsasontzi batean etorri gara. */ ontzia (barkua) gizonengatik xin da (7):* itsasontzia gizonengatik etorri da.

barna 1 *(10, 11)* : barrena */ Zarakozaradreino, egutxa barna (10):* Zaragozaraino, ibaian barrena. */ prozesione bat igartan duzu karrika barna (10):* prozesio bat kalean barrena igarotzen da.

barna 2 *(5)* : sakon

barne *(3, 5, 10, 11)* : barru, barne */ ez du barnetik izorrorik (3):* ez du barnean sustrairik. */ barnian zaudenak (3):* barruan zeudenak. */ auan sartan den guziua kantik [igartan da] tripa barniara (3):* ahoan sartzen den guztia handik igarotzen da tripa barnera. */ barnian (10):* barruan, barnean. */ amar ilabeteren barnian [il zen] (10):* hamar hilabeteren barnean hil zen. */ etxebarne (11):* etxe barne(a).

barra *(5, 9, 10)* : barre */ barra egiten dena arte[an], biotzean sartan zau emoileari (5):* hartzean egiten den barrea bihotzean sartzen zaio emaileari. */ barra eta beltzuria dra orobat nola iparra eta Erribrako lantxerra (5):* barrea eta beltzuria, iparra eta Erriberako lainoa bezalakoak dira.

barra egin *(9, 10)* : barre egin */ zeren egin tzu barra? (9):* zergatik egin duzu barre? */ egin dien*

barra, egitan dien barra (10: barre egin diten, barre egiten diten. */ ek zer barra egitan! (10):* haiek zer barre egiten zuten!

barra-txirrinta *(5)* : barre-imintzio

barrabalkatu *(5)* : xehatu (ogia)

barrabaska *(5)* : *(suk.)* ahi, morokil

barrabaskatu *(5)* : arraspatu (ogia)

barrabil *(2, 9)* : *(anat.)* barrabil */ barrabilak (9):* barrabilak.

barragazkila *(4)* : barre-algara, algara */ borztan guartan naz zer barragazkilak egiten al tion ene karten leitako tenpran (4):* askotan oroitzen naiz zer barre-algara egiten ahal duen nire gutunak irakurtzeko garaian.

barrakarkilla *(5)* : barre-algara, algara

barrandatu *(5)* : zelatatu, barrandatu

barrasta *(5)* : eskukada ale

barrasta-barrasta *(5, 11)* : barrasta-barrasta (baldarki)

barraxko *(5)* : irribarre */ barraxkaz dago (5):* irribarrez dago.

barraz *(5)* : barrez

barrazinka *(5, 9)* : algara, barre-algara

barrazinkaka *(5)* : algaraka, barre-algaraka

barre *(4, 5, 7)* : barre

barre egin *(7)* : barre egin

barreatu *(5)* : barreiatu, zabaldu (hitzez)

barregarri *(4, 5)* : barregarri */ obroena barregarritako izanen zazka ene astakeriak (4):* gehiena barregarritarako izanen zaizkio ene astakeriak. */ barda otso nintzan, goxan egarri, non izan banintzan guzion barregarri (5):* bart otso nintzen, goizean egarri, non izan banintzen guztion barregarri.

barregarri erabili *(5)* : barregarri erabili (gaizki tratatu)

barren *(1)* : barru, barren */ iri barrena (1):* herri barrena.

barrezko egin *(7)* : irribarre egin

barrialdi *(5)* : barreiatze */ barrialdian zien ardiak zer onki dauden (5):* barreiatzean (barreiaturik) zuen ardiak zer ongi dauden.

barriatu *(3, 5)* : barreiatu */ biltan baitzu barriatu etzun lekiuan (3):* biltzen baituzu barreiatu ez duzun lekuan. */ ez dionak enekin biltan, barriatan du (3):* ez duenak nirekin biltzen, barreiatzen du. */ gaxki paratruk [zeuden], barriatruk kemen eta kan (3):* gaizki geraturik zeuden, hemen eta han barreiaturik. */ [erinzaliak] granuen barriatian, zomait bidiari abaño [erori zren] (3):* ereileak aleak barreiatzean, zenbait bidetik hurbil erori ziren. */ kontu bil, mundu guzutik barriatako (5):* kontuak bildu, mundu osotik barreiatzeko. */ indarrak biltruk obro doke ezik barriatruk (5):* indarrak bildurik gehiago dezake barreiaturik baino.

barride 1 *(5)* : auzo */ obro iraintan du barridean emazte gaixtoak ezik martxokoan elurrak (5):* gehiago irauten du auzoan emazte txarrak, martxokoan elurrak baino. */ barrideko arotzak yireki nai din bordaltu (5):* auzoko errementariak hirekin ezkondu nahi din.

barride 2 *(5)* : auzotar, auzoko */ zamariareki bizi bear diona[k] onki xin bear du barridearekі (5):* zamariarekin bizi behar duenak ongi konpondu behar du auzokoarekin.

barridetar *(5)* : auzotar, auzoko */ itz gaiztoz talatu nu barridetarrak (5):* hitz gaiztoz gortu nau auzotarrak.

barrigarkara *(5)* : algara, barre-algara
barro *(5)* : *(zoo.)* ahari (urte betekoa)
barrontatu *(5)* : barrundatu, sumatu */ zartagiak arroitu egin badu, zerbait barronta du (5):* zartaginak zarata egin badu, zerbait barrundatu du.
bartx *(5, 9)* : bartz (zorri arrautza)
bartz *(2, 5)* : bartz (zorri arrautza)
bartze *(9)* : *(nek.)* baratze */ bartzean [dago] (9):* baratzean dago. */ bartziara noa (9):* baratzera noa.
barun *(10)* : barau */ baruna (10):* baraua.
barur *(2, 3, 5)* : barau */ nola goitan da aragia? barur eta mortifikazionez (2):* nola garaitzen da haragia? barau eta nekaldiz. */ Kristoren barura eta tentazionia (3):* Kristoren baraua eta tentazioa. */ baruraz [erakustan du] (3):* barauaz irakasten du. */ barur gorri[a] (5):* barau gorria, latza.
barur-atsean *(5)* : baraurik
barura autse *(5)* : gosaldu, barautsi
barurats *(5)* : baraurik (erabat) */ baruratsean nago oraino (5):* oraindik (erabat) baraurik nago.
barurausgarri *(5)* : gosari arin, barau-hausgarri
barurik *(3)* : baraurik */ ez dutur nai despeitu barurik (3):* ez ditut agurtu nahi baraurik.
barurtu *(2, 3, 5)* : barau egin, barautu */ elizak manetan tien egunak barur dezagula (2):* elizak agintzen dituen egunetan barau egin dezagula. */ berrogei egun berrogei gaiekin barurtuz geroz, [gose] ekun zion (3):* berrogei egunez berrogei gaurekin barautu ezkero, gosea eduki zuen. */ barurtan tzeinian, ezitei isar beltzuri (3):* barau egiten duzuenean, ez zaitezte jar beltzuri (ez jarri aurpegi txarra). */ gentruk [izanen zabei esposua] eta gunian barurten dei (3):* kendua izango zaie senarra eta orduan barau egingo dute. */ elizak mandatan dionian barurtia (3):* elizak agintzen duenean barautzea.
barza *(5)* : *(bot.)* zakarda (pago txikia)
basa *(5)* : izuti, beldurti
basa- *(2)* : basa- */ basa-animale eta azienda guziuek (2):* basa-animalia eta azienda guztiak.
basabi *(5)* : *(bot.)* arbi
basaillar *(5)* : *(bot.)* basailar */ basaillarra (5):* basailarra.
basaintz 1 *(2, 4)* : *(zoo.)* basahuntz
basaintz 2 *(4)* : *(zoo.)* orkatz (arra)
basajein *(1)* : *(mit.)* basajaun */ basajein uturburua, basajein uturburia (1):* basajaun iturburua.
basaka *(11)* : *(bot.)* basasagar
basakatu *(2)* : *(zoo.)* basakatu
basaker *(5)* : *(zoo.)* aker (irendua)
basamenda *(5)* : *(bot.)* basamenda
basaporru *(5)* : *(bot.)* anbulu zuri
basartz *(5)* : basati
basatupla *(5)* : *(bot.)* basatipula
basatxintxila *(4)* : *(bot.)* basadilista
basatxintxilla *(5)* : *(bot.)* basadilista
basazume *(5)* : *(bot.)* basazume
baskalgai *(9)* : bazkalondo */ baskalgaian (9):* bazkalondoan.

baskaltu *(9)* : bazkaldu */ igan ztei ziek baskaltra (9):* igo zaitezte zuek bazkaltzera.

baskari *(9, 10)* : bazkari */ baskaria (9):* bazkaria. */ izarri duna baskaria? (10):* jarri al dun bazkaria?

baso 1 *(1)* : *(geog.)* baso */ baso zaltua (1):* baso zaldua. */ basagatxa (1):* baso gaitza (oso handia).

baso 2 *(3, 7)* : edontzi */ baso bat ur otz (3):* edontzi bat ur otz. */ kanpuarako altetik basua eta platera [xaîtan tzeinak] (3):* kanpoko aldetik edontzia eta platera garbitzen dituzuenak. */ mesillan batzu baso bat ur (7):* gau-mahaitxoan baduzu edontzi bat ur. OH. Ikus ´godalet´ sarrera.

baso 3 *(5)* : burbuila (ur gainekoa)

basta *(5)* : basta (zaldiz ibiltzekoa)

basta-estalki *(5)* : basta-estalki

bastaitze *(4)* : basta-iltze OH. Bastagileen eta zurginen iltze mota.

bastegi *(11)* : bastegi OH. Basta uzteko lekua.

bastilla *(5)* : hari-zuntz, albainu

bastorratz *(5)* : ezten (erleena, sugeena)

basur *(5)* : basalohi (basoko lokatza)

basurde *(2, 5, 7, 11)* : *(zoo.)* basurde */ basurdearen aragi[a] (7):* basurdearen haragia.

bat *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : bat */ zonbat eliza? bat (2):* zenbat eliza? bat. */ [Kristo] bere ama saintiak mortajatu zien mise berri batan (2):* Kristo haren ama santuak hil-jantzi zuen mihise berri batean. */ kola bata eta berzia [koserbatan dra] (3):* horrela bata eta bestea kontserbatzen dira. */ ekunen du aburrimentu batari eta amorio berzeari (3):* bati gorrotoa izango dio eta amodioa besteari. */ berze bide batarik (3):* bertze bide batetik. */ perletikatu bat etzinik oi batian (3):* elbarritu bat ohe batean etzanik. */ ikareria andi batekin [baratu zren] (3):* ikara handi batekin geratu ziren. */ diabiuak [Jesus] mendi gora batra [igan zion] (3):* deabruak Jesus mendi altu batera igo zuen. */ ene adexkide bati, berze adexkide batek, besugo puxka bat [oiltu zaun] (4):* nire adiskide bati, bertze adiskide batek, bisigu puxka bat bidali zion. */ betik baratan nazala gose andi bateki (4):* beti geratzen naizela gose handi batekin. */ [merezinek] sontotu nei, eta isari xateko ganu on batian (4):* medizinek sendatu naute, eta jateko gogo onean jarri. */ guziuak [faiten dra] askaltra etse batra (4):* guztiak joaten dira askaltzera etxe batera. */ bat, bida, iror, laur (5):* bat, bi, hiru, lau. */ arri batek, berark, ez du parete egiten (5):* harri batek bakarrik ez du pareta egiten. */ andre Farineta nai dei bordalaraztu gizon zar-zar bateki (5):* andre Farineta ezkonarazi nahi dute gizon zahar-zahar batekin. */ arraultze batez ez daiteke tortilla andia egin (5):* arrautza batez ez daiteke tortilla handia egin. */ batentako (5):* batentzat. */ mendi batan (6):* mendi batean. */ bat eta bi iror dra (7):* bat eta bi hiru dira. */ txakur bat (7):* txakur bat. */ ordu batan [xinen gra] (7):* ordu batean etorriko gara. */ oi batako ganbra (7):* ohe bateko logela. */ ñabla bateki bizia gentu du (7):* labana batekin bizia kendu du. */ urte batetik besteara (7):* urte batetik bestera. */ bati eman tabakua eta bier ogia (7):* (gizon) bati eman tabakoa eta biei ogia. */ txakur bati arri bat egotxi (8):* txakur bati harri bat jaurti. */ Oloronen enuzu izan beizik bein, aldi batez (8):* Oloronen ez naiz izan behin baizik, aldi batez. */ gizon bateki [xatxi nuk] (8):* gizon batekin jaitsi nauk. */ aski da bat (9):* aski da bat. */ bi eguatxa (sic) bata Amuku ta bestea Zabalea (9):* bi ibai, bata Amuku eta bestea Zabalea. */ aldi batez (9):* aldi batez, behin. */ alte batarik bestiara (9):* alde batetik bestera. */ etse batra (9):* etxe batera. */ bat banakiela erran niozun (10):* bat banekiela erran nion. */ zamari bat ekustra [xoan] (10):* zaldi bat ikustera joan. */ emazte batek erran zion gizon bati (10):* emakume batek esan zion gizon

bati. */ [aizpari] eri batan min erkin, eta eskia moztu (10):* ahizpari hatz batean min atera, eta eskua moztu (zioten). */ ama berjina ñotto bateki (10):* ama birjina txiki batekin. */ egun batez erori zia (10):* egun batez erori zen. */ guziak alte batra (10):* guztiak alde batera.

bat bera *(5)* : bat bera

bat edo beste *(5)* : bat edo beste

batak *(2)* : batzuk */ berton draia igartan? batak bai, berziak ez (2):* berehala igarotzen al dira? batzuk bai, besteak ez. */ guziak gr[a] partizipante batak berzen obra oneki (2):* guztiak gara partehartzaile batzuk besteen ekintza onekin.

batarazi *(5)* : edoskiarazi (txahalari)

batbedera *(5)* : bakoitz

batean *(5)* : batera */ batean xin dra (5):* batera etorri dira.

batere (ez) *(7, 10)* : batere (ez) */ ez diar ekusi batere gizon Izaban (7):* ez diat ikusi bat ere gizonik Izaban. */ orai ez egitan gaztarik batere (10):* orain ez da batere gaztarik egiten.

batexatu *(10)* : bataiatu */ egun batexatu diagun [aurra] (10):* gaur bataiatu dinagu haurra.

batexu *(10)* : *(erl.)* bataio */ egun bazagua batexu bat elizan (10):* gaur bazegoen bataio bat elizan. */ egun ekun diagun batexea (10):* egun bataioa eduki dinagu. */ batexia (10):* bataioa.

batez *(5)* : batez beste

batixatu *(2, 3, 5, 7)* : bataiatu */ nor da kristiaia? persona batixatia (2):* nor da kristaua? pertsona bataiatua. */ kristiaiak, batixatan denian, zer [ar]tan du? (2):* kristauak, bataiatzen denean, zer hartzen du? */ nork batixa droke nestate ordian? (2):* nork bataia dezake behar(ra dagoen) orduan? */ batixatu biar dionaren buru gainian [ur isurtan dio] (3):* bataiatu behar duenaren buru gainean ura isurtzen du. */ [Juanek] predikatan du eta batixatan (3):* Juanek predikatzen du eta bataiatzen. */ nola biar du batixatu? batixatako intenziorekin [erraitan] ´nik batixatan daizur´ (3):* nola bataiatu behar du? bataiatzeko asmoz erranez ´nik bataiatzen zaitut´. */ Jesusek nai ekuntu zion izan batixatruk (3):* Jesusek bataiatua izan nahi izan zuen. */ sortu nintzen bakoitxean eta bietan batixatu (5):* sortu nintzen bakarrean (ordu batean) eta bietan bataiatu. */ iriko elizan batixatu izan zen (7):* herriko elizan egun berean bataiatua izan zen.

batixe *(5)* : *(erl.)* bataio

batixu *(3, 7)* : *(erl.)* bataio */ [Jordanian] errezibitan zein arenganik batixua (3):* Jordanen hartzen zuten harengandik bataioa. */ nola ekustan baizion xitan aren batixuara fariseo anitx, erran zabein (3):* nola fariseu asko ikusten baitzuen haren bataiora etortzen, esan zien. */ batixua (batixia) (7):* bataioa.

batre (ez) *(5, 8, 10)* : batere (ez) */ Uriñan orai ezta[o] batre murallarik (8):* Iruñean orain ez dago batere harresirik. */ et´ez kolako elizako gaizarik batre´re, ene tenpran ez (10):* eta horrelako elizako gauzarik batere ez, ene garaian ez.

batrere (ez) *(4, 5, 7, 8)* : batere (ez) */ korrengatik eztud axolik batrere (4):* horregatik ez dut axolarik batere. */ ezren irietra batrere arrimatu (4):* ez ziren herrietara batere hurbildu. */ ez dur ekusi batrere gizon (7):* ez dut ikusi batere gizonik. */ ez durala konturik batrere nik (8):* ez dudala konturik batere nik.

batsuka *(10)* : bakoitz */ eta gero batsuka bere etsera, bolsoa beterik (10):* eta gero bakoitza bere etxera, zorroa beterik. OH. ´Bakotxa > bakutxa > batxuka > batsuka´ bilakaera dirudi.

batu *(5)* : topatu, topo egin

batu beste *(5)* : batez beste

batun-batun *(5)* : batun-batun (haur jolasa) OH. ´Batun-batun´ jolasean familia jakin baten izena

asmatu behar da, horretarako familiako kideen kopurua aipatuz. Azkuek Uztarrozen bildua.

batzaldi *(5)* : batzarraldi

baurre *(5)* : marru, baurre */ idi kura baurrez doa (5):* idi hura baurrez doa (marruka).

baurrez *(5)* : marruka, baurreka

baxaranatze *(5)* : *(bot.)* basaranondo

bazarre *(11)* : batzar

bazka *(5)* : bazka

bazkalaldi *(3)* : bazkalaldi */ bazkalaldi batian ez nastekatako aragi eta [arrantzu] (3):* bazkalaldi batean ez nahasteko haragia eta arraina.

bazkalgarai *(5)* : bazkalondo */ bazkalgaraian (5):* bazkalondoan.

bazkalondo *(7)* : bazkalondo

bazkaltiar *(5)* : bazkaltiar

bazkaltiri *(5)* : bazkal inguruan

bazkaltu *(3, 4, 5, 7, 10)* : bazkaldu */ maian [izari zren arekin] bazkalta[n] (3):* mahaian jarri ziren harekin bazkaltzen. */ [eskiuak] ez ekuztean bazkaltan deinian (3):* eskuak ez garbitzean bazkaltzen dutenean. */ bazkaltu biar digu (4):* bazkaldu behar dugu. */ bazkaltu digu xunto, bazkaltan digu xunto, bazkalten digu xunto (4):* elkarrekin bazkaldu dugu. elkarrekin bazkaltzen dugu, elkarrekin bazkalduko dugu. */ bazkaltan gaude (4):* bazkaltzen ari gara. */ bazkaltan gra, bazkaltan digu (4):* bazkaltzen dugu. */ bazkaltra! (4):* bazkaltzera! */ bazkaltan gindauden artean (5):* bazkaltzen ari ginen bitartean. */ bazkaltu zeia? (7):* bazkaldu al duzu? */ zer diegu bazkaltako? (7):* zer dugu bazkaltzeko? */ egun bazkalten diegu xunto (7):* gaur elkarrekin bazkalduko dugu. */ xin adi bertan morroieki bazkaltra (7):* joan hadi berehala mutikoekin bazkaltzera. */ bazkaltu zeia? (10):* bazkaldu al duzue?

bazkari *(3, 7, 8)* : bazkari */ nola biar da barurtu? ez beizik bazkari bat egitan eguerdiz (3):* nola barautu behar da? bazkari bat baizik ez eginez eguerdiz. */ bere bazkaria zen mendiko ezti (3):* haren bazkaria mendiko eztia zen. */ bazkaria (7):* bazkaria. */ eguerdiko bazkaria (8):* eguerdiko bazkaria.

bazkarizko *(5)* : bazkari arin

bazko *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : *(erl.)* pazko */ bazko[an] atiza gitiala (2):* pazkoan jaunartu dezagula. */ bazkua resurrezkuetan atxiza gitiala (2):* pazkoa berpizkundekoetan jaunartu dezagula. */ bazkuako axuriaren aigaria (3):* pazkoko arkume afaria. */ goreximako bazkuetan (3):* garizumako pazkoetan. */ [ikaszaliek biar zena] drezatu zien bazkuarako edo bazkuako (3):* ikasleek behar zena prestatu zuten pazkorako. */ Jesukristo gore salbazaliaren sortiako bazkoak (4):* Jesukristo gure salbatzailearen sortzeko pazkoak. */ abañozko bazkuek alegria emoiten daitadei (4):* hurbileko pazkoek poz ematen didate. */ gorexima bazko[a] (5):* pazko garizuma. */ bazkoen (bazkuen) xoanen gitun mezara (7):* pazkoan meza(ta)ra joanen gaitun. */ izan deila bazkua anitx on (10):* izan dadila pazkoa oso ona.

bazter 1 *(1, 3, 4, 5, 10)* : bazter */ bazter meaka (1):* bazter(reko) haitzartea. */ itxaso bazterrian [xaseririk zagon] (3):* itsas bazterrean eserirk zegoen. */ lurraren bazterretarik [xin baizen] entzutako (3):* lurraren bazterretatik etorri baitzen entzuteko. */ bazter guziuak tokatu tuala [urdu zaitad] (4):* bazter guztiak ukitu ditudala iruditzen zait. */ au bazterretarik erorten zitzauzkaun (4):* aho bazterretatik erortzen zitzaizkion (janari hondarrak). */ barrak eta beltzuriak biek tei beren bazterrak (5):* barreak eta beltzuriak biek dituzte beren bazterrak (muturrak). */ xate zan bazterrak (10):* garbi itzan bazterrak.

bazter 2 *(5, 6)* : oihal-bazter */ zaipeko kuen bazterra (6):* gonazpiko hauen.
bazter 3 *(5)* : lur-jabetza (etxe ondokoa)
bazterralde *(5)* : bazterralde (lekua)
bazterretxe *(5)* : *(erai.)* bazterretxe
baztiatu *(5)* : albaindu, bastatu
be 1 *(5)* : bee (ardien balakaren onomatopeia)
be 2 *(5)* : *(haur.)* ardi
bea 1 *(5)* : begira
bea 2 *(5)* : adi, erne
bea 3 *(5)* : adituz
bea 4 *(10)* : baina */ muttikoek kantatzen [zein], bea nik orai ez ogart nola den kantxoya (10):* mutikoek kantatzen zuten, baina ni orain ez naiz oroitzen nola den kantua.
bea egon *(5)* : begira egon */ badakian bea yagola nik kantatan duanari (5):* badakian begira hagoela nik kantatzen dudanari.
bea-bea-bea *(10)* : bea-bea-bea (ardiei deitzeko)
bear *(5, 11)* : behar (iz.) */ bear gorri[a] (5):* behar gorria. */ bearra dionak saintiuer otoiak on (5):* beharra duenak santuei otoitz onak. */ bearra (11):* beharra.
bear ekun *(2, 4, 5, 6, 7)* : behar izan */ zer tenpraz bear dugu señalea usatu? (2):* zer denboraz erabili behar dugu seinalea? */ bear du ekun intenzione (2):* asmoa eduki behar du. */ bear digu orkitu xiten denari (4):* etortzen denari itxaron behar diogu. */ zartagia bear dei xakin guardatan (5):* zartagina gordetzen jakin behar dute. */ april on ekusi bear dionak ein urtez bear du bizi (5):* apiril ona ikusi behar duenak ehun urtez behar du bizi. */ bear diezt, bear diez (6):* behar dut. */ [ganbra bat] bear dur (7):* logela bat behar dut. */ lotu bear dur nik (7):* lo egin behar dut nik. */ onez edo gaizkiz bear tzu egin (7):* onean edo txarrean egin behar duzu.
bear loke! *(5)* : bai horixe!
beardun *(5)* : behartsu, txiro
beargune *(5)* : behar (iz.)
bearri 1 *(2, 5, 7, 8)* : *(anat.)* belarri */ ardi zarrari gentan zau bearria (5):* ardi zaharrari belarria kentzen zaio. */ bigotz-bearriak eratzar itzak! (5):* bihotz-belarriak iratzar itzak! (= mugi hadi!) */ bearriak (7):* belarriak. */ bearri min [dur] (7):* belarriko mina dut.
bearri 2 *(5)* : belarri (eskuarearen atala) OH. Azkuek ´hortzak jartzeko eskuarearen atala´ oharrarekin dokumentatua.
bearri-soñu *(5)* : belarri-soinu (belarri barnekoa)
bearrixai *(5)* : belarrigarbi (entzule ona)
bearrondoko *(5)* : burko (ohekoa)
beartu *(7)* : behartu
beatu 1 *(3, 5, 7, 9)* : begiratu */ bea ztei nik oiltan daizeila ardi bikala otsuen artian (3):* begira ezazue nik bidaltzen zaituztedala ardiak bezala otsoen artean. */ anixko beatan dion etsukandreak txiki urutan du (5):* askotxo begiratzen duen etxekoandreak gutxi iruten du. */ bea zazu (7):* begira ezazu. */ bea adi aber gizon ala emazte den (9):* begira ezak ea gizona ala emakumea den.
beatu 2 *(3, 4, 5, 8)* : aditu */ nai [ez batzei] beatu edo entzun xen eliak edo erranak, [fan ztei] (3):* aditu edo entzun nahi ez badituzte zuen hitzak edo esanak, joan zaitezte. */ bea adi (5):* adi ezak. */ bea zte (5):* adi ezazu. */ bea ztei (5):* adi ezazue. */ bea bitei (5):* adi bezate. */ kantik beatu naz*

(5): handik aditu dut. */ yi beadi oinez arroitu egiten diona (5):* hik adi ezak oinez egiten duen zarata. */ bea adi (8):* adi ezak; adi ezan.

beatu 3 *(4)* : arreta jarri */ badakik badiola buru eta pazienzia [lan] guziuer beatako (4):* badakik baduela burua eta pazientzia lan guztiei arreta jartzeko.

beazale 1 *(5)* : behatzaile */ beazaleak entzuten tu bere gatxak (5):* behatzaileak bere gaitzak entzuten ditu.

beazale 2 *(5)* : zaindari

bedats *(5, 9, 10)* : udaberri */ bedatsean, ostazaroan, izeia eznean isartan da (5):* udaberrian, hostaldian, izeia izerditan jartzen da. */ bedatsa (9):* udaberria. */ bedatsian (10):* udaberrian.

bedatse *(2, 4, 8, 10)* : udaberri */ negiua, bedatsia, uda eta urrieta (4):* negua, udaberria, uda eta udazkena. */ txutxika loria bedatsian biltan da urte guzuko (4):* sabuka lorea udaberrian biltzen da urte osorako. */ degun bedatserareino (8):* datorren udaberria arte. */ bedatsea (10):* udaberria.

bedatu *(5)* : debekatu

bedatze *(7)* : udaberri */ bedatzen liliak erkitan dra (7):* udaberrian loreak ateratzen dira. */ bedatzen anitx euri egitan du (7):* udaberrian euri asko egiten du. OH. Estornesek ´bedatxe´ ere dokumentatua.

bede *(5, 9, 10)* : *(erai.)* ezkaratz, sarrera */ egor zan bede kori, beitago anitz xatx (5):* errazta ezan ezkaratz hori, zikinkeria asko baitago. */ egor zan bedea (9):* errazta ezan ezkaratza. */ bedea, kori, errezibidora (10):* ezkaratz, hori, sarrera.

bedegin *(9)* : *(mit.)* sorgin */ bedegina (9):* sorgina.

bedeginkeria *(9)* : sorginkeria */ bedeginkeria bat (9):* sosrginkeria bat. */ korrek egitan dien bedeginkeria (9):* horrek sorginkeria egiten din.

bedera *(5)* : bana

bederatziraka *(5)* : bederatzinaka

bederatzirakatu *(5)* : bederatzinakatu

bederatzu *(5, 8, 9, 10)* : bederatzi

bederatzugarren *(5)* : bederatzigarren

bederatzuna *(5)* : bederatzina

bederazka *(5)* : banan-banan

bedra-bedra *(7)* : banan-banan */ erran zazu bedra-bedra (7):* erran ezazu banan-banan. */ ele koriek erran zan bedra-bedra (7):* hitz horiek esan itzan banan-banan.

bedraka *(7)* : banaka */ peseta bat bedraka, bientako (7):* pezeta bat banaka, bientzat.

bedratzi *(10)* : bederatzi */ bedratziak [dra] (10):* bederatziak dira (ordua).

bedratzu *(3, 4, 5, 7, 8, 10)* : bederatzi */ bedratziuen ordiuari abantxu (3):* ia bederatzi orduetan. */ zomat gaizaz parkatan zau? bedratzuz (3):* zenbat gauzaz barkatzen zaio? bederatziz. */ berrogei eta bedratzu milla (4):* berrogeita bederatzi mila. */ bedratzien ordiarido, bedratzien ordiari (5):* bederatziak inguruan. */ badiezu berrogeita bedratzu urte bordaltruk nagola (8):* badu berrogeita bederatzi urte ezkonduta nagoela.

bedratzuein *(8)* : bederatziehun

bedratzugarnen *(3, 7)* : bederatzigarren */ bedratzugarnen kapitulua (3):* bederatzigarren kapitulua. */ bedratzugarnen ikasgei[a] (7):* bederatzigarren ikasgaia.

bedratzugarren *(3)* : bederatzigarren */ bedratzugarna (3):* bederatzigarrena.

bedratzuna *(5)* : bederatzina

bedrazu *(2)* : bederatzi

bedrazugarren *(2)* : bederatzigarren */ bedrazugarna (2):* bederatzigarrena.
bedrere *(3)* : behintzat, bederen */ urtian bein bedrere (3):* urtean behin bederen.
beee *(5)* : bee (ardien balakaren onomatopeia)
begi 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* begi */ utzul dazkuzu zore begi korik (2):* itzul iezazkiguzu zure begi horiek. */ zuri diazkuzu zore begi korik (3):* itzul iezazkiguzu zure begi horiek. */ zore eskoîneko begia (3):* zure eskuineko begia. */ begiak zeuriara [azkatu ztion] (3):* begiak zerura goratu zituen. */ gore begietra [gaiza admirable bat da] (3):* gure begietara gauza miresgarria da. */ begi txikerrak du ekustea urrinago (5):* begi txikiak urrunago ikustea du. */ begiak noraino, naia karaino (5):* begiak noraino, nahiak haraino. */ arri tiratan denak ez du begirik (5):* botatzen den harriak ez du begirik. */ begiak (7):* begiak. */ gizon bat juan zunien begi baten sendotra, min bizien begian (8):* gizon bat begi bat sendatzera joan zen, min baitzuen begian. */ begiak gorri-gorriak xasi (8):* begiak gorri-gorriak jarri (zitzaizkion). */ kark egotxi diztazu txutx begiara (9):* hark txistua bota dit begira. */ begia (10):* begia.
begi 2 *(3)* : jostorratz-zulo (jostorratzaren zuloa) */ aisago da igartia kamello bat orratz baten begitik, ezik [zeurian] sar dein abrats bat (3):* errazagoa da gamelu bat jostoorratz-zulotik igarotzea, aberats bat zeruan sartzea baino. OH. Ikus batuan ´zulo´ hobesten dela.
begi beteaz ekosi *(5)* : ongi-ongi ikusi
begi min *(4)* : begiko min */ badu amaborz egun nagola begi min gaxto bateki (4):* badira hamabost egun begiko min txar batekin nagoela. */ ñore begi minareki, erdi utsitruk [baratu naz] (4):* neure begiko minarekin, erdi itsuturik geratu naiz. OH. Erronkari-Zaraitzuetan oso ohikoa da egitura hauek -ko atzizkia gabe eratzea.
begi zerra-idiki baten artean *(5)* : begi itxi-ireki batean
begi zerra-iriki batean *(5)* : begi itxi-ireki batean
begi-beila *(5)* : begi-samur
begi-bekain *(5)* : bekain
begi-betagarri *(5)* : begi-betegarri, eder
begi-sista *(5)* : begi-ziztada
begi-ur *(5)* : nigar jario */ begi-ura (5):* nigar jario etengabea.
begia egotsi *(5)* : begiz jo, aukeratu OH. ´Begia egotsi´ eta ´begia egotxi´ dokumentaturik.
begia itxeki *(5)* : begia atxiki, adi egon
begiapal *(5)* : begiapal OH. Behera begiratzeko joera duena.
begien gainean artu *(5)* : begitan hartu, begitan eduki (kalterako) OH. ´Begien gaiñean artu´ ere dokumentatua.
begien zerra-ireki batean *(5)* : begi itxi-ireki batean
begieri *(5)* : begi-gaixotasun, begi-eritasun
begiezpal *(5)* : *(anat.)* betazal
begigorri *(5)* : begigorri
begikasko *(5)* : bekain
begiko bilo *(9)* : betile */ begiko biloa (9):* betilea.
begikosko *(5)* : *(anat.)* betzulo, begizulo
begikozuri *(5)* : *(med.)* begi-lauso
begilabur *(5)* : miope
begilapar 1 *(5)* : begigorri
begilapar 2 *(5)* : makartsu

begilapar 3 *(5)* : betazal-gorri (adj.)
begiluze *(5)* : begiluze
begillapar *(5)* : makartsu
begimakur *(5)* : betoker
beginini *(2, 5)* : *(anat.)* begi-nini
begiñarro *(5)* : begibildu (adj.) OH. Begiak erdi itxita dauzkana.
begiondo *(5)* : begiondo
begipe *(5)* : betazpi
begira 1 *(5, 10)* : begira */ abrats bat... guziak begira ilen [den] (10):* aberats bat... guztiak begira hilko den.
begira 2 *(9)* : zain
begira egon *(9)* : zain egon */ zure begira niozu (9):* zure zain nago.
begiratu *(5, 6)* : zaindu */ begira[tz]en (6):* zaintzen. OH. ´Begirazten´ dokumentatua.
begireki egon *(4)* : adi egon, erne egon */ [umen] aztako tenpra guziuan egon zen begireki, zoinek zion bizitarzun oberena (4):* umeak hazteko garaian adi egon zen, zeinek zuen bizitasun onena.
begitarte 1 *(2, 3, 5, 7, 8, 10)* : *(anat.)* aurpegi */ jeinaren begitartiaren ekustian (2):* jaunaren aurpegia ikustean. */ ekuz onki zore begitartia (3):* ikuzi ongi zure aurpegia. */ bere begitartia iguzkia [bikala izari zen] (3):* haren aurpegia eguzkia bezala jarri zen. */ bertan asi zren ari txuk egoxtra begitartian (3):* berehala hasi ziren hari txistua botatzen aurpegian. */ begitarte ozpina (5):* aurpegi ozpina. */ begitartea ekuztan dud (7):* aurpegia garbitzen dut. */ begitartia (8, 10):* aurpegia. */ eztu begitartea eztiela xatan (10):* ez du aurpegia jaten ez duenarena. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
begitarte 2 *(3)* : abegi, harrera */ ez dazazu uka begitartia pretenditan dionari zutarik zomait prestamu (3):* ez iezaiozu harrera ukatu, zugandik zenbait mailegu nahi duenari.
begitarte 3 *(5)* : aurki, aurrealde */ begitartea ta gimurzia (5):* aurkia eta ifrentzua.
begitartez ala uzkuz *(5)* : kurutx ala pil, aurpegia ala gurutzea (txanpon jolasa)
begitartian egotxi *(3)* : aurpegiratu, aurpegira bota */ bere begitartian egoixtan aren faltak (3):* haren aurpegira botatzen haren hutsak.
begitartiara egotxi *(3)* : aurpegiratu, aurpegira bota */ kori bera egotxtan zabein begitartiara (3):* hori bera aurpegiratzen zioten.
begite 1 *(5)* : begirada
begite 2 *(5)* : kate-maila
begitxikin *(5)* : begitxiki (adj.)
begiurri *(4)* : bekaizti, inbidiatsu
begiz begi *(5)* : aurrez aurre
begiztatu *(5)* : begiztatu
bei *(1, 2, 5, 6, 7, 8, 10)* : *(zoo.)* behi */ berzen beiak errapea andiago (5):* besteen behiak errapea handiago. */ beia (6):* behia. */ ez dur ekusi ez beorrik ez beirik (7):* ez dut ikusi ez behorrik ez behirik. */ beien larruareki (larriareki) egitan dra oskiak (7):* behien larruarekin egiten dira zapatak. */ amaborz bei [erosi diar] (8):* hamabost behi erosi ditiat. */ beia (8):* behia. */ oai bei solo keben, ardirik txiki, gutti (10):* orain beiak bakarrik hemen, ardi gutxi, gutxi. */ beia (10):* behia.
beiantxa *(5)* : *(zoo.)* bigantxa */ urteroz Ernazera iror beiantxaren txerka xoaitan dra (5):* urtero Ernazera hiru bigantxaren bila joaten dira. OH. Azkuek ´2-3 urteko behitxoa´ oharrarekin

dokumentatua.

beibide *(1)* : behibide */ beibidea (1):* behibidea.

beigelki *(5)* : *(suk.)* behiki

beigra! *(2)* : begira!

beigratu 1 *(2)* : begiratu

beigratu 2 *(2)* : begiratu, zaindu */ igante eta xeiak beigratan dutu (2):* igande eta jaiak begiratzen ditu.

beiki *(5)* : *(suk.)* behiki

beikinbat *(3)* : bezainbat */ aita beikinbat gloria ekutia (3):* aita bezainbat aintza edukitzea.

beila 1 *(5)* : bera, bigun

beila 2 *(5)* : ahul */ gogoa beila du (5):* gogoa ahula du.

beilagarri *(5)* : hunkigarri */ bereter korrek biotza andiarazten daikugu bere sermoneki; beilagarri da (5):* apaiz horrek bihotza hunkitzen digu bere sermoiekin; hunkigarria da.

beilatu *(5)* : bigundu, beratu */ eskuzta zak kandela kori suara, beilatako (5):* eskuzta ezak kandela hori sutondoan, beratzeko.

beilla *(5)* : bigun, beratz

beillatu *(5, 7)* : bigundu, beratu

bein *(2, 3, 5, 6, 7, 8)* : behin */ urtian bein goresima[n] konfesa gitiala (2):* urtean behin garizuman aitor gaitezela. */ urtian bein bedrere (3):* urtean behin bederen.

bein berere *(5)* : ziur aski

bein ere (ez) *(4, 5, 7)* : behin ere (ez) */ eztud bein ere entzun aretxa eta artakarroa exartu drela bere kaboz (4):* ez dut behin ere entzun haritza eta artea ihartu direnik beren kabuz. */ ni enun egon bein ere Jabierren (7):* ni ez naun egon behin ere Xabierren. */ ardi on batek bein ere ez dien burruntan bere [umea] (7):* ardi on batek behin ere ez din gaitzesten bere umea.

beinaz bein *(4)* : behintzat, gutxienez */ beinaz bein, xin bedi baratra gorian (4):* behintzat, etor bedi gurean (etxean) geratzera.

beinkoan *(4)* : behingoan

beino *(2, 3, 4, 5)* : baino */ Kristo gizon dena bekin batez, lurreko kriatura guziak beino obro [da] (2):* Kristo gizon den bezainbatean, lurreko izaki guztiak baino gehiago da. */ bera beino zarraguak [errespetatan dutu] (2):* bera baino zaharragoak errespetatzen ditu. */ ez bada xen justizia eskribaûena beino osoago, ezrei sarten zeurien (3):* zuen justizia ez bada eskribauena baino osoagoa, ez zarete zeruan sartuko. */ xek txori anitxek beino obro [balio tzei] (3):* zuek txori askok baino gehiago balio duzue. */ ekuzen nuzu eta elurra beino obro izanen nuzu xuritruk (4):* garbituko nauzu eta elurra baino gehiago izanen naiz zuritua. */ itzemina edaratea beino gaiztoago da ta axaxalpean sortan da (5):* itzemina edaratea baino txarragoa da eta azazkalpean sortzen da.

beiñ ere (ez) *(5)* : behin ere (ez)

beira *(2, 3, 5)* : begira */ [Kristok] kan eroki ztiela beira santuen arimak (2):* Kristok han begira eduki zituela santuen arimak. */ beira zazei axkora izaririk dagola xa arbolien izorroara (3):* begira ezazue aizkora jada jarririk dagoela zuhaitzaren sustraian. */ betik atziri beira (5):* beti atzera begira.

beira egin *(4)* : begiratu */ ez gaizteke asper berari beira egitiaz (4):* ez gaitezke aspertu berari (argazkiari) begiratzeaz. OH. Zaraitzun ´mira egin´ dokumentatua.

beiratu *(3, 4)* : begiratu */ ek ekustan deilarik ez baitei beiratan (3):* haiek ikusten dutela ez

baitute begiratzen. */ zer begitartereki izartan zra beiratra nata zore anaxaren begian? (3):* zer aurpegirekin jartzen zara izpia begiratzen zure anaiaren begian? */ beira zazu izan nazala konzebitruk gaxtakerietan (4):* begira ezazu gaiztakerietan sortua izan naizela.

beit- *(7)* : bait- */ xin beitnaz (7):* etorri bainaiz. */ ez duzei egin ez beinien nai (7):* ez duzue egin ez bainuen nahi. */ enun xin bero egitan beitie[n] (7):* ez naun etorri bero egiten baitin. */ enun xin yik ez beitie (sic) nai (7):* ez naun etorri hik ez baitun nahi.

beita *(5)* : baita (iz.)

beitarte *(2, 4, 5, 7)* : *(anat.)* aurpegi */ aparta zazu zure beitartia ene bekatiuetarik (4):* alden ezazu zure aurpegia nire bekatuetatik. */ zuk ekuz onki zore begitartea (5):* zuk garbitu ongi zure aurpegia. */ txut egoztan dionak zeuriari, beitartiara erorten zau berari (5):* txistua zerura botatzen duenari, aurpegira erortzen zaio berari. */ beitartea (7):* aurpegia.

beitartez beitarte *(4, 5)* : aurrez aurre */ urdu zaitad gaudela biak xunto, beitartez beitarte (4):* biok elkarrekin gaudela iruditzen zait, aurrez aurre. */ orai berian nago beitartez beitarte berareki (4):* oraintxe aurrez aurre nagoo berarekin.

beiti *(1)* : behe, beheiti */ Arrako beiti[a] (1):* Arrako beheitia.

beizai *(8)* : *(nek.)* behizain OH. Mitxelenak ´goldearekin dabilena´ oharrarekin dokumentatua.

beizik *(3, 10)* : baizik (eta) */ ez dutzu sanuak, beizik eri daudenak dotoriaz nestate deinak (3):* ez dituzu osasuntsuak, baizik eta gaixo daudenak medikuaren beharra dutenak. */ aurra edo nexkaxia [ez dago] ilik, beizik loak artruk (3):* haurra edo neskatoa ez dago hilik, loak hartuta baizik. */ ez autik sartan dena da [gizona] zikintan diona, beizik autik erkitan dena (3):* ez da ahotik sartzen dena gizona zikintzen duena, baizik eta ahotik ateratzen dena. */ orai ez rebañorik batre, laur edo bost beizik (10):* orain artalderik batere ez (dago), lau edo bost baizik.

beizik (ez) *(3, 8)* : baizik (ez) */ ez bainaz beizik gizon bat izaririk berzen meniara (3):* besteen mendean jarritako gizon bat baizik ez bainaiz. */ azken kuek ez dei trabajatu ez beizik oren bat (3):* azken hauek ordu bat baizik ez dute egin lanean. */ ezbaita izanen beizik marraka eta ortzen garraska (3):* ez baita izanen oihu eta hortzen karraska baizik. */ nola biar da barurtu? ez beizik bazkari bat egitan eguerdiz (3):* nola barautu behar da? bazkari bat baizik ez eginez eguerdiz. */ Oloronen enuzu izan beizik bein, aldi batez (8):* Oloronen ez naiz izan behin baizik, aldi batez.

bekain *(5)* : bezain

bekaitz *(5)* : inbidia, bekaitz

bekaizkeria *(5)* : inbidia, bekaizkeria

bekaizti *(5)* : inbidiatsu, bekaizti

bekaiztu *(5)* : inbidia izan, bekaizkeria izan

bekatari *(2, 3, 4, 5)* : bekatari */ bekataria (2):* bekataria. */ bekatarien aurkian (3):* bekatarien aurrean. */ nola da, xen maistruak xaten baitu bekatariekin? (3):* nola da zuen maisuak jaten duela bekatariekin? */ otoi egin dazkigu bekatariez (4):* otoitz egin biezagu bekatariez.

bekatu *(2, 3, 4, 5, 9, 10)* : bekatu */ bekatia parkatan diena (2):* bekatua barkatzen duena. */ gore bekatiaren parkamentia (2):* gure bekatuaren barkamendua. */ bekatutik [salbatu gintien] (2):* bekatutik salbatu gintuen. */ bekatioaren parkamentioan (2):* bekatuaren barkamenduan. */ ura da salbatu biar diona bere bekatiuetarik (3):* hura da bere bekatuetatik salbatu behar duena. */ zore eskoîneko begia zoretako okasione [bada] bekatiuan erortako, erkin zazu (3):* zure eskuineko begia zuretzat bide bada bekatuan erortzeko, atera ezazu. */ ene bekatiua diozu betik ene antzinian (4):* ene bekatua beti ene aitzinean dago. */ bekatiuen parkamentiuan [xinetstan*

dud] (4): bekatuen barkamenean sinesten dut. */ bekatiuetan (4):* bekatuetan. */ ñore bekatu guzi[ak] (5):* neure bekatu guztiak. */ bekatu dia dantzatia mitileki? bai, bekatu da (9):* bekatu al da mutilekin dantzatzea? bai, bekatu da. */ kori bekatu andi bat (10):* hori bekatu handia (da).

bekatu egin *(2)* : bekatu egin */ bekatu egin estezagula (2):* ez dezagula bekatu egin.

bekinbat *(5)* : bezainbat */ urtearen buruan ardi bekinbat axuri ilten da (5):* urtearen buruan ardi bezainbat arkume hiltzen da. */ ni eninden sarten itxasoan, obro milla ezik bilo-punta durana bekinbat emonik ere (5):* ni ez nintzen itsasoan sartuko, ditudan ile-puntak baino milako gehiago emanik ere.

bekinbatez *(2)* : bezainbatean */ Kristo gizon dena bekin batez, lurreko kriatura guziak beino obro [da] (2):* Kristo gizon den bezainbatean, lurreko izaki guztiak baino gehiago da. */ Kristo juangeiko dena bekin batez, espiritu jeinaren igual [da] (2):* Kristo jaungoiko den bezainbatean, espiritu jaunaren berdina da.

belagile *(9)* : sorgin

belagin *(5)* : *(mit.)* sorgin

belagingo *(5)* : sorgintza

belain 1 *(2, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* belaun */ belaina (7, 9):* belauna. */ belainak lurrian (8):* belaunak lurrean. */ belaina (10):* belauna.

belain 2 *(5)* : zurtoin-belaun (zurtoin koskorra)

belain egin *(5)* : okertu; makurtu */ aiñai korrek belain egin dik (5):* zekale hori makurtu egin da.

belain-kunkur *(5)* : *(anat.)* belaun-giltzadura

belain-txunku *(5)* : *(anat.)* belaun-giltzadura

belaingorri *(5)* : biluzik

belainpe *(2, 5)* : *(anat.)* belaunpe, iztezain

belaintu *(5)* : makurtu (garia) */ belaintu garia (5):* makurtu (da) garia.

belainzgorri *(5)* : biluzik

belainzi *(5, 9)* : biluztu */ belainzi dia Pedro? bai, belainzi tzu (9):* biluztu al da Pedro? bai, biluztu da.

belainzurik *(3, 5, 8, 10)* : biluzik */ borzgarna, belainzurik dena beztitia (3):* bosgarrena, biluzik dagoena janztea. */ belainzurik [dauden] (10):* biluzik zeuden.

belairukatu *(5)* : belaunikatu

belairuko *(3, 5)* : belauniko */ belairuko izarten [zen] (3):* belauniko jartzen zen.

belairuko isari *(3)* : belauniko jarri */ isaririk belairuko aren antzinian (3):* haren aitzinean belauniko jarririk.

belaizi *(9)* : biluztu */ belaiz´tei txanbra kori (9):* biluz zaitezte, kendu jaka hori. */ zangoen belaiztan egon nezu (9):* oinak biluzten egon naiz (oinusten).

belaîzruk *(3)* : biluzik */ soldaduek Jesus belaîzruk [izari zien] (3):* soldaduek Jesus biluzik jarri zuten.

belaizurik *(10)* : biluzik */ belaizurik egutxan sar kan guziak, etzulukaka, kori gaiza itsusia! (10):* biluzik ibaian sartu han guztiak, itzulipurdika, hori gauza zatarra!

belar *(2, 3, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(bot.)* belar */ jangeikuak kola beztitan [du] belar bat (3):* jaungoikoak horrela janzten du belar bat. */ xaseri belarraren gainian (3):* eseri belarraren gainean. */ kan anitx belar [dago] (7):* han belar asko dago. */ belar gaisto[a] (9):* belar txarra. */ belarra (10):* belarra.

belargazi *(5)* : *(bot.)* mingarratz handi */ belargazia (5):* mingarratz handia.

belarka *(5)* : *(nek.)* belarka (belarra mozten)
belarkari *(5)* : *(nek.)* segalari
belarkatu *(5)* : belarkatu (belarra moztu) OH. Zuberoan ere dokumentatua.
belarra ebaki *(9)* : belarra moztu */ alurrian ebaki diaguzu belarra (9):* alorrean moztu dugu belarra.
belarrazi *(5)* : *(bot.)* belar-hazi
belaun *(5)* : belaun (ahaidetasun maila)
belaunezur *(5)* : *(anat.)* izter aurrealde OH. Azkuek ´izter aurrealdea, belaunburutik gora´ esanahiarekin dokumentatua.
belaurikatu *(5)* : belaunikatu
belauriko *(10)* : belauniko */ guziak belauriko, bendizionearen artako (10):* guztiak belauniko, bedeinkapena hartzeko.
belax *(7)* : *(bot.)* belar */ mendi kartan badion anitx belax (7):* mendi hartan bazagon belar asko.
belein *(8, 9)* : *(anat.)* belaun */ beleina (8, 9):* belauna.
beleitzi *(7)* : biluztu
beleizi 1 *(8)* : biluztu */ beleiz adi (8):* biluz hadi.
beleizi 2 *(2)* : biluzi (adj.) */ beleizien beztitia (2):* biluziak janztea.
beleizurik *(8, 10)* : biluzik */ gaiza itsusia guziak beleizurik, ala ezteia? (10):* gauza zatarra guztiak biluzik, ala ez al da?
belena *(11)* : belena OH. Etxe arteko igarolekua, kalexka.
beltx *(1, 3, 5, 9, 11)* : beltx (txikigarria) */ beltxa (1):* beltxa. */ xuri edo beltx (3):* zuri edo beltx. */ ardi xurienetik erkitan dra axuri beltxenak (5):* ardi zurienetik ateratzen dira axuri beltxenak. */ gatu burubeltxak xan (5):* katu burubeltxak jan (du). */ beltxa (9, 11):* beltxa.
beltxagi *(5)* : tindu beltz */ txotxika-matsareki anitxek beltxagia soiñeko gietzentako egitan dei (5):* intsusa-fruituarekin askok tindu beltza egiten dute arropa higatuentzat.
beltxamuru *(5)* : *(bot.)* beltxata
beltxanburu *(5, 9, 10, 11)* : *(bot.)* beltxata
beltxaran *(5)* : beltz-beltz
beltxata *(4, 5)* : *(bot.)* beltxata
beltxuntxe *(5)* : seriotxo
beltxurin *(5)* : *(anat.)* giltzurrun
beltz 1 *(1, 4, 5, 7, 9, 10)* : beltz */ borda beltza (1lm):* borda beltza. */ pluma beltzezko birreteareki (4):* luma beltzezko birretearekin. */ gore apez muturbeltza (5):* gure apaiz muturbeltza. */ etxe gorriak ekusi dutur, beltzak ez (7):* etxe gorriak ikusi ditut, beltzak ez. */ zer beltz xitan [den] odoia! (9):* zer beltz datorren hodeia!
beltz 2 *(1)* : beltz (iluna) */ mendi beltza (1):* mendi beltza.
beltzarron *(8)* : *(anat.)* giltzurrun */ beltzarrona (8):* giltzurruna.
beltzarrun *(8)* : *(anat.)* giltzurrun */ beltzarruna (8):* giltzurruna.
beltzean *(5)* : bortxaz, derrigor
beltzuntze *(5)* : serio, serios
beltzuri 1 *(5)* : beltzuri */ barra eta beltzuria dra orobat nola iparra eta Erribrako lantxerra (5):* barrea eta beltzuria, iparra eta Erriberako lainoa bezalakoak dira. */ barra eta beltzuria ez daizteke xunto bizi (5):* barrea eta beltzuria ez daitezke elkarrekin bizi.
beltzuri 2 *(3, 5)* : goibel, triste, betilun */ barurtan tzeinian, ezitei isar beltzuri (3):* barau egiten

duzuenean, ez zaitezte jar betilun.

beltzurrin *(5, 7, 9, 10)* : *(anat.)* giltzurrun */ beltzurrinak (7, 9, 10):* giltzurrunak.

beltzuzka *(9)* : beltzezka, belzkara

belxko *(5)* : beltzezka, belzkara

belz *(5)* : beltz

belzatu *(5, 7)* : belztu

belzka *(5)* : beltzezka, belzkara

belzkanta *(5)* : beltzezka, belzkara

bella *(7, 10)* : bigun, bera */ koltxa ta burenegua dra anitx bella (7):* koltxoia eta burkoa oso bigunak dira. */ ertsiak tun luze eta bellak (7):* hesteak luzeak eta bigunak ditun.

bellaki beiratu *(3)* : tinko begiratu */ Jesusek, beiratan ztiolarik bellaki, erran zabein (3):* Jesusek, tinko begira, esan zien.

bellatarsun *(6)* : biguntasun */ bellatarsuna (6):* biguntasuna.

bellatu *(9, 10)* : bigundu, beratu */ ogia bellatu da (9):* ogia beratu da. */ izan zan ogi kori bellatra (9):* jar ezan ogi hori beratzen. */ egoxtan tiaun bellatra (10):* biguntzera botatzen ditinagu.

bello *(5, 8, 10)* : beroxka; bero; epel (bero goxoa) */ esnia izar askaltako, egosirik bello, ogi egotx eta xan (8):* esnea jarri gosaltzeko, beroxka egosirik, ogia bota eta jan. */ su egin etsen eta bello (10):* su egin etxean eta beroxka (egoten da). */ suan zankoak bello (10):* su (ondoan) hankak bero hor. */ belloao (10):* beroago. */ bellotan, kor suan (10):* berotan, hor sutan.

belloki *(5)* : beroki, babesleku (naturala) OH. Berokiak haizetik babestutako lekuak izan ohi dira.

belloska *(5)* : zerrepel (erdi mozkor)

bellotu *(9, 10)* : berotu; epeldu */ bello zte su-ondoan (9):* bero zaitez sutondoan.

bendizione *(3)* : bedeinkapen */ bendizionia egotxi zabein (3):* bedeinkapena bota zien.

benedikatu *(2, 3, 4, 5, 7)* : bedeinkatu */ benedikatan zutur, krutxe saintia (2):* bedeinkatzen zaitut, gurutze santua. */ benedikatu duzu zore sableko frutia (2):* bedeinkatua duzu zure sabeleko fruitua. */ benedikatia [zu] emazte guzien artean (2):* bedeinkatua zu emakume guztien artean. */ benedika zazei jeina (2):* bedeinka ezazue jauna. */ benedika dezein (2):* bedeinka dezaten. */ [ogiak] benedikatu ztion (3):* ogiak bedeinkatu zituen. */ benedikatruk izan deila xiten dena (3):* bedeinkatua izan dadila etortzen dena. */ ur benedikatiuaz (3):* ur bedeinkatuaz. */ ori da benedikatiua emazte guziuen artian (4):* berori bedeinkatua da emakume guztien artean. */ su berri, ur benedikatu (5):* su berria, ur bedeinkatua. */ ur benedikatruk (7):* ur bedeinkatua. */ ur[ar]en benedikatea (7):* uraren bedeinkatzea.

benedizione *(2)* : bedeinkapen */ kristiaia egitan da benedizionearen seme (2):* kristaua bedeinkapenaren seme egiten da.

beno *(10)* : baino */ ene anaxa dun ni beno fuertiau (10):* nire anaia ni baino indartsuagoa dun.

beor *(1, 2, 5, 7)* : *(zoo.)* behor */ zer beorra daramayan! (4):* zer behor daramaan! */ ez dur ekusi ez beorrik ez beirik (7):* ez dut ikusi ez behorrik ez behirik.

beortegi *(1)* : behortegi */ beortegia (1):* behortegia.

ber 1 *(10)* : bera, ber */ ber gaiza zela, eta nik ezetz (10):* gauza bera zela (zioen), eta nik ezetz. */ ber gisan igortan diar iri (10):* gisa berean bidaltzen diat hiri (postala).

ber 2 *(3, 4, 5)* : behintzat; -tzekotan; ber */ konzedi dazazu eskatan dena fan dein ber, zeren xiten baita irago eginez gore atzian (3):* emaiozu eskatzen duena joan dadin behintzat, zeren gure atzetik baitator oihu eginez. */ zeren erabiltan baizrei itxasoz eta lurrez konberti tzazein ber jentil bat (3):* zeren itsasoz eta lurrez ibiltzen baitzarete jentil bat konbertitzekotan. */ aren*

eskutik xin dein ber, izan deila komeni dena (4): haren eskutik etortzekotan, izan dadila komeni dena. */ on den ber (5):* ona izatekotan, ona bada.

ber 3 *(3)* : une beretik */ [orazionian] eska zinezein guziua, fede ekun zazein ber alkanzaten tzei (3):* otoitzean eska zenezaten guztia, fedea izango duzuen une beretik lortuko duzue.

ber 4 *(3, 4, 9)* : -xe, ber (indargarria) */ korrengatik ber biar emon ekuntu yon bankeruer ene deuria (3):* horrexegatik eman behar izan hien bakariei nire dirua. */ xarrekiten zren adexkidetarzun berartan (4):* adiskidetasun berartan jarraituko zuten. */ obe dun utz ber lekutan (9):* hobe dun ber lekuan uztea.

ber-ber *(4, 5)* : bost axola, berdin dio */ ber-ber! (4):* bost axola!, berdin dio!

bera 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : bera */ non baratu zen? krutxian, dibinitate berareki (2):* non geratu zen? gurutzean jainkotasun berarekin. */ manera berian egin zagon (2):* modu berean egin dezagun. */ bera kargatu da gore eriguetaz (3):* bera kargatu da gure gaixotasunez. */ arri errebusatu zeina fabrikazaliek, kori bera [izan] zen anguluaren giltza (3):* fabrikatzaileek errefusatu zuten harria, hori bera izan zen angeluaren giltza. */ urak gisa berian xarrekitu zizazkan (3):* haiek gisa berean atzetik joan zitzaizkion. */ neurri zenezein neurri berarekin izanen zrei xek neurtruk (3):* neur zenezaten neurri berarekin izanen zarete zuek neurtuak. */ berak eskatruk (4):* berak eskaturik. */ tenpra berian, gisa berian (4):* denbora berean, modu berean. */ kau bera, kori bera (5):* hau bera, hori bera. */ txut egoztan dionak zeuriari, beitartiara erorten zau berari (5):* txistua zerura botatzen duenari, aurpegira erortzen zaio berari. */ aurrak berareki tostatan dra (5):* haurrak berarekin jostatzen dira. */ kura bera (6):* hura bera. */ gisa berean, gisa berian (7):* modu berean. */ berareki (9):* berarekin. */ guziek guniezun apellidoa bera (10):* guztiok genuen deitura bera.

bera 2 *(4, 5)* : behera */ zûrak ugaltiaz bera [eramaiten dra] saltako lekiuetraino (4):* zurak ibaian behera eramaten dira saltzeko lekuetaraino. */ kurri bera, kurri gora (5):* kurrilo behera, kurrilo gora.

bera 3 *(10)* : bera (izen ordaina) */ bera xoaitan dun oyara anix goixtar (10):* bera oso goiztar doa ohera. */ arrapatan balin badur adarra, emonen diar berareki (10):* adarra harrapatzen baldin badut, berarekin emanen diat.

bera 4 *(5, 7, 9)* : bakarrik */ arri batek, berark, ez du parete egiten (5):* harri batek berak bakarrik ez du pareta egiten. */ xoan zia[n] bera Uruñara (7):* bakarrik joan zen Iruñera. */ kura xuan da bera (9):* hura bakarrik joan da. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

beragin *(5, 9)* : *(mit.)* sorgin */ beragina (5):* sorgina.

beraginkeria *(9)* : sorginkeria */ kaur beraginkeria [dun] (9):* hau sorginkeria dun.

berail *(5)* : berahil OH. Istripuz hil den aberea.

berak 1 *(9, 10)* : beraiek */ il tiala berak! (10):* hil daitezela beraiek!

berak 2 *(9)* : bakarrik */ kurak xin tun berak (9):* haiek bakarrik etorri ditun.

berandu *(5)* : berandutu

berant 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : berandu */ xa berant [izaitian], gizon abrats bat [xin zen] (3):* jada berandu zela, gizon aberats bat etorri zen. */ daigun aprilian edo maiatzian berantena (4):* datorren jorrailean edo lorailean beranduena. */ berantago (4):* beranduago. */ ez dago sekretorik goix edo berant xakiten ez denik (5):* ez dago sekreturik goiz edo berandu jakiten ez denik. */ erin nazaian berant nola erin nazaian goixtar, ez nuk [e]kusi bear (5):* hik ni berandu erein nola goiz erein, ez nauk ikusi behar. */ berant da (7):* berandu da. */ emaztek gero, berantago utzu zedein [uskara] (8):* emakumeek gero, beranduago utzi zuten euskara. */ berant [eltu dun]*

(9): berandu heldu dun. */ berantago, beranxago (9):* beranduago, beranduxeago. */ gizon kori berant [eltan dun] (10):* gizon hori berandu heltzen dun. */ amintto bat berantao (10):* pitin bat beranduago.

berant 2 *(5)* : berantiar, berankor, berant */ orobat goixtarrari nola berantari, emak zazoin ona aziari (5):* berdin goiztiarrari edo berantiarrari, emaiok sasoi ona haziari.

beranta *(5)* : berandu

berantu *(3)* : berandutu */ deus berantu bage, [eragurik] izan zen aren buriua [plater] batian (3):* batere berandutu gabe, haren burua plater batean ekarria izan zen. */ nola [senarrak] berantan baizion xitiaz, loakartu zren guziuak (3):* nola senarra etortzen berandutzen baitzen, guztiak lokartu ziren.

berartan 1 *(2)* : bertan */ [Kristok] berartan redimitu gutien (2):* Kristok bertan (gurutzean) berrerosi gintuen.

berartan 2 *(3)* : berean */ eta ordu berartan bere alaba sontotruk [baratu zen] (3):* eta ordu berean bere alaba sendaturik geratu zen.

berartrakari *(5)* : pareko, berdin */ aita ongi eginkari (xarrakiten zau) seme berartrakari (5):* aita ongi egilea(ri jarraitzen zaio) seme parekoa.

beratxarko *(5)* : *(nek.)* eskorta, artegi

berbana *(3)* : berbera */ bekatu berbanetan [erortan drenak] (3):* bekatu berberetan erortzen direnak. OH. Ikus Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak Erronkariera, 346. or.)

berber *(4, 9, 10)* : berbera */ bazkaltan gindauden artean, ostatuzalea berber maian ereinztan beizagon, gano txikireki xan gunien (5):* bazkaltzen ari ginen bitartean, ostalaria mahai berberean orrazten ari baitzen, gogo gutxirekin jan genuen. */ berber gisa (9, 10):* modu berberean.

berber gisan *(7)* : gisa berean, modu berean */ baduzu ur onki, bestela berber gisa (7):* urik baduzu ongi, bestela gisa berean.

berbera *(3)* : berbera */ gizonaren [etsaiak] izan dra bere[n] etse berbereko personak (3):* gizonaren etsaiak beren etxe berbereko pertsonak izan dira.

berberak *(4)* : berberak */ badago ele franko, erraiten baidra letra berberetaz bi (4):* badago hitz asko, letra berberekin bi (sinonimo) esaten direnak.

berberaz *(5)* : berez (bere ekimenez)

berberean *(5)* : berehala

berberlaneala *(5)* : era berberean, modu berberean

berdamin *(5)* : aza-zuku OH. Azkuek ´aza berde zukua´ esanahiarekin dokumentatua.

berdats *(5)* : berdexka

berde *(1, 10)* : berde, orlegi */ muga berdea (1):* muga berdea. */ olatze berdea (1):* saroi berdea. */ [bainetak] obeki ezik berdeak egostan tun (10):* lekak berdeak baino hobeki egoten ditun.

berdete *(5)* : tindu berde

berdin *(5)* : lau, berdin

berdoztatu *(5)* : irakin (janaria pixka batean) OH. Azkuek ´jakiak pixka bat irakitea´ esanahiarekin dokumentatua.

bere 1 *(7, 9)* : *(erai.)* ezkaratz, sarrera */ berea (7):* ataria. */ etxeara beretik sartan da (7):* etxera ezkaratzetik sartzen da. */ egor zan bere kori (9):* errazta ezan ezkaratz hori. */ beria (9):* ezkaratza, sarrera. */ beretik [xin nun] (9):* ezkaratzetik etorri naun.

bere 2 *(2, 3, 5, 7, 10)* : bere */ [Kristok] bere arima saintia [eman ziela] (2):* Kristok bere arima

santua eman zuela. */ nexar egiten baitu bere semengatik (3):* negar egiten baitu bere semeengatik. */ gizon bapanak badu beria (3):* gizon bakoitzak badu berea. */ bere tenpran xin zen orren karta (4):* bere denboran etorri zen berorren gutuna. */ [elurrak] bere tenprako mendi lanak arrapatu daizkugu erdi eginik (4):* elurrak bere garaiko mendi lanak erdi eginik harrapatu dizkigu. */ bapanak bere sanduari otoi egiten [dau] (5):* bakoitzak bere santuari otoitz egiten dio. */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino. */ bapanari berea (5):* bakoitzari berea. */ eskolan egon da eta bere etxeara [xoan da] (7):* eskolan egon da eta bere etxera joan da. */ alaba bat bere senarrareki (10):* alaba bat bere senarrarekin.

bere alte *(5)* : aldendu, bakartu (adj.)

bere izanaz *(5)* : bere izatez, bere izaeraz

bere kaboz *(4)* : bere kabuz, bere kasa */ [lerrak frutu bat] emoiten du bere kaboz (4):* pinuak fruitu bat ematen du bere kabuz. */ eztud bein ere entzun aretxa eta artakarroa exartu drela bere kaboz (4):* ez dut behin ere entzun haritza eta artea ihartu direnik beren kabuz.

bere oneara itzuli *(5)* : bere onera itzuli */ bere oneara itzuli zen (5):* bere onera itzuli zen.

bere ontan *(5)* : hementxe

berebaitatu *(4, 5)* : bereganatu */ gizon batek bere baitatu zion [seme] zarrena (4):* gizon batek seme zaharrena bereganatu zuen.

berebiziko *(5)* : berebiziko, ezin egokiago OH. Azkuek ´beste izenordain batzuekin ere esaten da neure bizikoa, eure bizikoa...´oharrarekin dokumentatua.

bereganakatu *(5)* : bereganatu */ eginbideak eginik eztu deusik bereganakatu (5):* eginbideak eginik ez du deusik bereganatu.

beregi *(5)* : berekoi

berek *(6)* : beraiek

bereka 1 *(5)* : fereka, laztan

bereka 2 *(5)* : *(alb.)* epizootia

berekatu 1 *(5)* : ferekatu, laztandu

berekatu 2 *(5)* : igurtzi

berekatu 3 *(5)* : irristatu

berekin *(3)* : beraiekin, eurekin */ [arengana] eltu zren gente anitx, eragutan zeilarik berekin mutu, utsi eta berze anitx (3):* harengana jende anitz etorri zen, beraiekin mutuak, itsuak eta bertze anitz zekartzatela.

beren *(3, 4, 5, 8, 9, 10)* : beren, euren */ izar ekusi zeina, faiten zen beren aintzinian (3):* ikusi zuten izarra beren aurrean joaten zen. */ zerengatik izan den, beren artian dakei ixilik (4):* zergatik izan den, beren artean daukate isilik. */ gero fan zren beren bide zameinez (4):* gero joan ziren zeramaten beren bidetik. */ barrak eta beltzuriak biek tei beren bazterrak (5):* barreak eta beltzuriak biek dituzte beren bazterrak (muturrak). */ gaiza guziuak beren tenpran (5):* gauza guztiak beren denboran. */ [gizonek] beren artian kastellanua (8):* gizonek beren artean gaztelania. */ xuan tiala beren lekietra (9):* joan daitezela beren lekuetara. */ amak gisatu dien beren baskaria (10):* amak gisatu din beren bazkaria.

berenez *(5)* : berez

berenez bere *(5)* : burujabe */ berenez beren [dra] Orreaga ta Auritze (5):* burujabe dira Orreaga eta Auritz.

berentako 1 *(9)* : beraientzat, berendako

berentako 2 *(3)* : beren baitarako */ erakuszale banek erran zein bertan berentako (3):* irakasle batzuek erran zuten berehala beren baitarako.

berere *(3, 5, 9)* : behintzat, bederen */ ene semia berere errespetaten dei (3):* ene semea behintzat errespetatuko dute. */ fan ezitian berere gaiaz (3):* joan ez zitezen gauez behintzat. */ bein berere (9):* behin bederen.

beretar 1 *(5)* : beretar, kide

beretar 2 *(5)* : herrikide

bereter *(1, 2, 5)* : *(erl.)* apaiz */ bereterra (1):* apaiza. */ jeinaren bereterrak (2):* jaunaren apaizak. */ bereter korrek biotza andiarazten daikugu bere sermoneki; beilagarri da (5):* apaiz horrek bihotza hunkitzen digu bere sermoiekin; hunkigarria da.

beretergo *(5)* : *(erl.)* apaizgo

beretter *(5)* : *(erl.)* eliz mutil, beretter

berettergo *(5)* : berettergo

beretu *(5)* : beretu OH. Azkuek ´etxe bateko zorrak ordaindu´ esanahiarekin ere dokumentatua.

berexi *(3, 4, 5)* : bereizi */ artzaînak berextan tion gisa ardiak añetarik (3):* artzainak ardiak arkumeetatik bereizten dituen bezala. */ [alaba bere amarenganik] berextra xin naz (3):* alaba bere amarengandik bereiztera etorri naiz. */ berexiz faiten dra (3):* bereiziz joaten dira. */ berexirik daude (3):* bereizirik daude. */ [banak berzetarik] berexen tu (3):* batzuk bertzeetatik bereiziko ditu. */ jangeikuak xuntatu diona etzala berex gizonak (3):* jaungoikoak elkartu duena ez dezala bereiz gizonak. */ yiketzian berextan digu gizakia emaztekitik (4):* hiketan gizakia emaztekiagandik bereizten dugu. */ ezin buruz berexi dra (5):* ezin burutuz bereizi egin dira.

berextarzun *(3)* : bereizketa, bereiztasun */ nornaidenek despedi lezan bere emaztia, emon dazaula berextarzunaren kartilla (3):* bere emaztea bidal lezan edozeinek, eman diezaiola bereizketa liburuxka.

berez bere *(5)* : burujabe */ berez beren (5):* burujabe(ak).

berezale *(5)* : bakarzale (pertsona eta aberea) */ ardi berezalea, gizon berezalea (5):* ardi bakarzalea, gizon bakarzalea.

berezi 1 *(5)* : bereizi */ berezirik (5):* bereizirik.

berezi 2 *(5)* : salbuetsi

berezi 3 *(5)* : mugatu, zedarritu (lur sailak)

berezirik *(5)* : bereizirik

berezkatu *(5)* : bereizi

berezna *(5)* : *(zoo.)* sorgin-orratz, burruntzi

berezte *(5)* : bereizketa */ bereztea (5):* bereizketa.

berga *(5)* : adar-lotura OH. Zuhaitz adarrez egindako lotura.

bergaintu *(5)* : bereganatu */ elikatan dabila kura zerbait bergaintako (5):* bitartekoak jartzen dabil hura zerbait bereganatzeko.

beri *(5)* : *(erai.)* ezkaratz, sarrera OH. Ikus ´bede´ eta ´bere 1´ sarrerak.

berian *(3)* : bertan, berean */ eitzazu kan berian zore oberta altariaren antzinian (3):* utz ezazu han bertan zure eskaintza aldarearen aurrean. */ ordu kartan berian baratu zen sontotruk [mitila] (3):* ordu hartan bertan mutila sendaturik geratu zen. */ egun kartan berian xin zren saduzeuak (3):* egun hartan bertan saduzearrak etorri ziren.

berjin *(2, 3, 5, 10)* : birjina */ berjinaren [amorioa] (2):* birjinaren maitasuna. */ xakin zazei berjin batek erdiren diola seme bat (3):* jakin ezazue birjina bat seme batez erdiko dela. */ berjin kurak*

guziuak xagi zren (3): birjina haiek guztiak jaiki ziren. */ geruago xin zren berze berjinak [ere] (3):* geroago beste birjinak ere etorri ziren. */ amar berjinen parabola (3):* hamar birjinen parabola. */ amar berjini [semejatruk izanen da] (3):* hamar birjinaren antzekoa izango da. */ Ana, ama berjinaren ama (5):* Ana, ama birjinaren ama. */ ama berjina ñotto bateki (10):* ama birjina txiki batekin.

berjina *(2, 4)* : birjina */ zeren da amaberjinandria birjen erdiz lein? (2):* zergatik da ama birjina andrea birjina erdi baino lehen? */ [Gabriel] ama berjina andrearengana xatxi zenian (2):* Gabriel ama birjina andrearengana jaitsi zenean. */ Maria berjinadanik [sortu zen] (4):* Maria birjinagandik sortu zen.

berkain *(4, 7)* : edonola ere */ berkain eginen dur (7):* edonola ere egin egingo dut.

berkainz *(4)* : gutxitan */ berkainz xiten da kori (4):* gutxitan etortzen da hori.

bermatu *(5)* : lermatu OH. Jakiak egostean, adibidez.

bermugitu *(5)* : lekualdatu, tokiz aldatu

bernaje *(4)* : batere (ez) */ âlke bernajerik bage (4):* lotsa batere gabe.

bero *(2, 3, 4, 5, 7, 9)* : bero (iz. eta adj.) */ sua ta beroa, otza eta beroa (2):* sua eta beroa, hotza eta beroa. */ egunaren eta beruaren peziua [soportatu digu] (3):* egunaren eta beroaren pisua jasan dugu. */ eta estomaketik bero batek exikitan nindio[n] (4):* eta urdaileko bero batek pizten ninduen. */ suaren beroareki egiten dei ganzta (4):* suaren beroarekin egiten dute gazta. */ gero, xiten den iguzkiaz bero (5):* gero, etortzen den eguzkiaz bero. */ zer beroa (berua) (7):* zer beroa!

bero egin *(5, 7)* : bero egin */ bero egitan dionean on [da] sartea zaltu kartan (5):* bero egiten duenean on da mozkairu hartan (abereak) sartzea. */ udan bero egitan du (7):* udan bero egiten du. */ eztein txoriek kantatan, bero egitan bitu (7):* ez diten txoriek kantatzen, bero egiten baitu.

bero-bero egin *(5)* : bero-bero egin, animatu */ bero-bero egin da (5):* bero-bero egin da.

beroki *(1, 4, 5)* : *(geog.)* beroki, babesleku (naturala) */ axari berokia (1):* azeri berokia. */ otzak lotsatruk egonaz mokor-mokorrak beroki batian (4):* hotzak erabat beldurturik egonez beroki batean. */ aize otzaren berokia emonen dakad (5):* haize hotzaren berokia emanen diat (= ezer ez). OH. Berokiak haizetik babestutako lekuak izan ohi dira.

berokitu *(7)* : berokitu, aterpetu

beroneki *(9)* : beronekin

beronentako *(9)* : beronentzat, beronendako

berontan *(5)* : lasai */ berontan dago (5):* lasai dago.

berori 1 *(4, 6)* : berori */ [xakin nai nago], zertan daraman berorren lan andia (4):* jaki nahirik nago, zertan daraman berorren lan handia. */ orai artio erran daudanaz, berorren baitan erranen du ´zer abrats!´ (4):* orain arte erran diodanaz, berorren baitan erranen du ´zer aberats!´.

berori 2 *(5)* : berori, hori bera

berotu *(7)* : berotu

beroxko *(5)* : berotxo, bero samar

berra *(5)* : ferra

berrada *(5)* : ferreta, suil

berrarazi *(5)* : ferrarazi

berratu *(5, 7)* : ferratu

berrein *(5, 7, 8, 9, 10)* : berrehun */ berrein eta ogei (7):* berrehun eta hogei. */ zomat bar diar*

emon? berrein peseta (8): zenbat eman behar diat? berrehun pezeta.

berreta *(5, 10)* : ferreta, suil */ berreta bat ur (10):* ferreta bat ur. */ [ar] zan berreta eta eragi zan burian (10):* har ezan ferreta eta ekar ezan buruan.

berri 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 9, 11)* : berri */ parete berria (1):* pareta berria. */ zibi berria (1):* zubi berria. */ [Kristo] bere ama saintiak mortajatu zien mise berri batan (2):* Kristo haren ama santuak hiljantzi zuen mihise berri batean. */ ez dei egoxtan ardaû berria zagi xarretan (3):* ez dute botatzen ardo berria zahagi xaharretan. */ gaiza berriak eta zarrak (3):* gauza berriak eta zaharrak. */ eskribain berri bat, uskaldun (4):* eskribau berri bat, euskalduna. */ martxoan airea gorri, goizoro elur berri (5):* martxoan airea gorri, goizero elur berri. */ azpiek tripak ebilarazten tei obeki ezik kaltzero berriak (5):* urdaiazpikoek tripak hobeto ibilarazten dituzte oinetako berriek baino. */ emazte urule gaixtoari ezau ekustan atorra berririk (5):* emakume irule txarrari ez zaio ikusten atorra berririk. */ zati berri[a] (11):* zati berria.

berri 2 *(3, 4, 5, 7, 9)* : berri, albiste */ zeuriko berri ona (3):* zeruko berri ona. */ lasterka [fan zren] berriaren emoitra (3):* lasterka joan ziren berria ematera. */ biar daud berri bat isari (4):* berri bat jarri (idatzi) behar diot. */ berri gaixtoak betik erkitan dra egiak (5):* berri txarrak beti ateratzen dira egia. */ zer berri da? berri anitx (7):* zer berri da? berri anitz. */ eztiar obro berririk (7):* ez diat gehiago berririk. */ ez ganakien berri kori (9):* ez genekien berri hori.

berri 3 *(5)* : berri (aditzekin) */ mazte erdi berri kura (5):* emakume erdi berri hura.

berri emon *(7)* : berri eman OH. Estornesek ´berri emoin´ dokumentatua.

berri on *(3)* : *(erl.)* berri on */ ebanjeliuaren berri ona emoiten da pobrer (3):* ebanjelioaren berri ona ematen zaie behartsuei.

berrikari *(5)* : berriemaile

berrionzale *(5)* : *(zoo.)* tximeleta

berritan *(5)* : berritan (berria zenean)

berritan isari *(3)* : berritu */ Eliasek gunian berritan isaren tu gaiza guziuak (3):* Eliasek orduan gauza guztiak berrituko ditu.

berritu *(3, 4, 7)* : berritu */ [zu zra] jangeikuaren tenplua iror egunez berritan tzuna (3):* zu zara jainkoaren tenplua hiru egunez berritzen duena. */ berri zazu ñore entrañetan izpiritu xuxen bat (4):* berri ezazu neure barnean espiritu zuzen bat.

berriz *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : berriz */ Kristoren arima korpitzareki xuntatu zela, berriz ez iltako (2):* Kristoren arima gorputzarekin elkartu zela, berriz ez hiltzeko. */ berriz bekatian ez erortako (2):* berriz bekatuan ez erortzeko. */ eztudala berriz utzuli biar zore ofenditra (2):* ez zaitudala berriz mindu behar. */ [tesoro bat] erdeiten badu, estaltan du berriz (3):* altxor bat aurkitzen badu, berriz ezkutatzen du. */ berriz erran zaun aitak (4):* berriz erran zion aitak. */ berriz baratu gra maestrorik bage (4):* berriz geratu gara maisurik gabe. */ berriz xin artio! (7):* berriz etorri arte! */ erran zak berriz (8):* esan ezak berriz. */ berriz egin zazu (8):* egin ezazu berriz. */ xin bar ziela berriz (10):* berriz etorri behar zuela.

berro 1 *(1, 5, 9, 11)* : *(bot.)* lahar, sasi, berro */ Laurenti, berroari ilindi (5):* Laurendi, laharrari ilinti. */ berroan erratan (9):* berroa erretzen.

berro 2 *(1, 5)* : *(nek.)* lursail; labaki, luberri */ Maze ibar berrua (1):* Maze ibar lursaila. */ Ana[ko] berroa (1):* Anako lurberria.

berrogei *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : berrogei */ berrogei egun berrogei gaiekin (3):* berrogei egun berrogei gaurekin. */ berrogei eta bedratzu milla (4):* berrogeita bederatzi mila. */ nik aldi batez bago-zilo batan berrogei andre-gazna erden nien (5):* nik behin pago-zulo batean berrogei

andre-gazta aurkitu nituen. */ berrogei ta borz (7):* berrogeita bost. */ badiezu berrogeita bedratzu urte bordaltruk nagola (8):* badu berrogeita bederatzi urte ezkonduta nagoela.

berrogeitamar *(4, 5, 7, 8, 10)* : berrogeita hamar */ einta berrogeita amar autx (5):* ehun eta berrogeita hamar frantses. */ badu berrogeitamar urte (8):* badu berrogeita hamar urte. */ berrogeitamabi urte (10):* berrogieta hamabi urte.

berrogeitamargarnen *(4)* : berrogeita hamargarren */ berrogeitamargarnen salmua (4):* berrogeita hamargarren salmoa.

berrogoi *(7)* : berrogei */ zomat egunean? berrogoi peseta (7):* zenbat egunean (eguneko)? berrogei pezeta.

bertan *(3, 4, 5, 7, 10)* : berehala */ Herodesen [erioa] agituz bertan, aînguru bat aparezitu zen (3):* Herodesen heriotza gertatu eta berehala, aingeru bat agertu zen. */ konpoîn zte bertan zore kontrariuarekin (3):* konpon zaitez berehala zure aurkariarekin. */ eta bertan asi zren irago egiten (3):* eta berehala oihu egiten hasi ziren. */ etsera eltu zen bertan edo baikoz, utsiak [xin zizazkan] (3):* etxera heldu eta berehala edo bezain laster, itsuak etorri zitzaizkion. */ izeia egotx eta bertan isartan bada urpean, erranez naz eztela tustatan sekula´re (4):* izeia bota eta berehala urpean jartzen bada, esango nuke ez dela sekula ere usteltzen. */ bere ontarzunak bertan bear tu gastatu (5):* bere ondasunak berehala behar ditu gastatu. */ bertan [ekusiren du] (5):* berehala ikusiko du. */ bertan igortu ditiegu [platerak] (7):* berehala lehortu ditugu platerak. */ xin adi bertan morroieki bazkaltra (7):* joan hadi berehala mutikoekin bazkaltzera.

bertika *(5)* : argizari (eliz-kandelatxoa) OH. Elizan urtean lau aldiz eskaintzen zen kandelatxo fina.

berton *(2, 5, 10)* : berehala */ eliza militantetik triunfantiara berton draia igartan? (2):* eliza militantetik garailera berehala igarotzen al dira? */ San Juan egunian gentia goizan berton egutxara [xoaitan zen] eta zankoak ekuz, buria ere bai (10):* San Juan egunean jendea goizean berehala ibaira joaten zen eta hankak garbitzen (zituen), burua ere bai. OH. Testuinguruaren arabera, ´berehala´ edo ´goiz´ uler daiteke. Ikus ´bertan´ sarrera.

bertz *(4, 5, 8, 10)* : pertz */ zuku baratan dena egoxtan dei bertz batian (4):* geratzen den zukua pertz batean botatzen dute. */ bertza (8, 10):* pertza. */ bertz bat ureki plaztan (10):* pertz bat urarekin plazan.

bertzaiñez *(5)* : bestela, bertzenaz

bertze *(6)* : beste, bertze */ bertze kurak (6):* beste haiek.

bertze oboroz *(5)* : gainera

berxin *(5)* : birjina (eztia) */ ezti berxin[a] (5):* ezti birjina.

berxko *(5)* : perztxo

berz *(10)* : pertz */ zenbra gero egitan zeia berz batan (10):* gaztanbera gero pertz batean egiten zen.

berzain berze *(4)* : bestela, bertzenaz */ eztakid, berzain berze, nola entelegatan daitadan erraiten daudanen gaizetarik (4):* ez dakit, bestela, nola ulertzen dizkidan esaten dizkiodan gauzak.

berzainez *(4)* : bestela, bertzenaz */ eskerrak unguruneko emazter!, berzainez eztakid zer izanen zen kan (4):* eskerrak inguruneko emakumeei!, bestela ez dakit zer izango zen han.

berzainik *(5)* : bestela, bertzenaz

berzala *(3, 5)* : bestela, bertzenaz */ berzala erran daztazeid zer ekustra erkin zintzein (3):* bestela esadazue zer ikustera atera zineten.

berzalako *(5)* : bestelako, bertzelako

berze *(2, 3, 4, 5)* : beste, bertze */ gero berze mundian ekus eta goza dezan (2):* gero beste munduan ikus eta goza dezan. */ berton draia igartan? batak bai, berziak ez (2):* berehala igarotzen al dira? batzuk bai, besteak ez. */ berze bide batarik (3):* bertze bide batetik. */ utzul dazazu berzia (3):* itzul ezazu bertzea. */ kola bata eta berzia [koserbatan dra] (3):* horrela bata eta bestea kontserbatzen dira. */ ekunen du aburrimentu batari eta amorio berzeari (3):* bati gorrotoa izango dio eta amodioa besteari. */ zer da inbidia? berzenen onaren tristuria bat (3):* zer da inbidia? besteen onaren tristura bat. */ berze irur [gizon]ak daude ellotruk xaî-xaîa (4):* beste hiru gizonak guztiz eroturik daude. */ oraiko morroîtarik berze tenpra batez ezta faltaren gizon asto (4):* oraingo mutikoen artetik bertze denbora batez ez da faltako gizon astorik. */ berze itz banak ere isartan daud (4):* beste hitz batzuk ere jartzen dizkiot. */ guziuak [faiten dra] askaltra etse batra eta aigaltra berziara (4):* guztiak joaten dira askaltzera etxe batera eta afaltzera bestera. */ borta bat zerratan denean, berze bat [irikitan da] (5):* ate bat ixten denean, beste bat irekitzen da. */ berzen beiak errapea andiago (5):* besteen behiak errapea handiago.

besa-besaka *(5)* : eskutik eskura (eman gauzak) OH. Azkuek ´gauzak eskutik eskura eman, hala nola teilak´ oharrarekin dokumentatua.

besadar *(5)* : *(bot.)* besadar OH. Zuhaitzaren adar nagusia(k).

besagain *(5)* : *(anat.)* besaurre

besagarri *(5)* : maitagarri (umea)

besagune *(5)* : *(anat.)* besatxoko

besainki *(5)* : *(anat.)* ukondo

besainku *(5)* : *(anat.)* ukondo

besainku-giltz *(5)* : *(anat.)* ukondo-giltzadura */ besainku-giltz[a] (5):* ukondo-giltzadura.

besaire *(5)* : besaire OH. Bizitasuna besoa mugitzean.

besape *(2, 4, 9)* : *(anat.)* besape */ artu aizturrak besapean, eta etsera fan zen (4):* guraizeak besapean hartu, eta etxera joan zen. */ besapea (9):* besapea.

besarkañi *(10)* : besarkadatxo

besarkatu *(4)* : besarkatu */ boztario ekun nionaz, besarkatu nion (4):* eduki nuen pozaz, besarkatu egin nuen.

besata *(5)* : besakada

besataka *(5)* : gainazpika (borrokatzea) OH. Elkar lurrera botaz borrokatzea.

besazear *(5)* : besazehar (aizkora kolpe mota)

besezur *(5)* : *(anat.)* beso-hezur

beske *(4, 5)* : lika, biska */ [korostiaren] kaxalaz egiten dei beske txorien bizirik arrapatako (4):* gorostiaren azalaz lika egiten dute txoriak bizirik harrapatzeko.

beso 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : *(anat.)* beso */ bi besoak zabaltruk (2):* bi besoak zabaldurik. */ Jesusek, luzatian eskiua, artu zion besotik (3):* Jesusek, eskua luzatzean, besotik hartu zuen. */ [kemen] beso txiki dago zûr trabajatako (4):* hemen beso gutxi dago zura lantzeko. */ mainka luzeago ezik besoa (5):* mahuka luzeagoa besoa baino. */ besoa (6):* besoa. */ besoa autsirik dago (7):* besoa hautsirik dago. */ besoan min dur (7):* besoan mina dut. */ besoak (7):* besoak. */ beso eskia (9):* beso eskuina. */ artu ziezun aurra besoetra (9):* haurra besoetara jaso zuen. */ besoa (10):* besoa.

beso 2 *(5)* : *(bot.)* besadar */ beso[ak] (5):* besadarrak, adar nagusiak.

besogorri *(5)* : mahuka-hutsik

besogune *(5)* : *(anat.)* beso-konkordura */ besogunean erkin zau kari karbunko bat (5):* beso-

konkorduran atera zaio hari karbunko bat.

besoinka *(5)* : aztarrika

besomotz *(5)* : besamotz

besotxurru *(5)* : *(anat.)* ukondo

besoz beso *(5)* : besotik (helduta)

bestala *(10)* : bestela, bertzenaz */ bestala ez zia ebiltan (10):* bestela ez zen ibiltzen.

bestalte *(5)* : bestalde

beste *(5, 7, 9, 10)* : beste, bertze */ bat artu, bestea utzu (5):* bat hartu, bestea utzi. */ erleak, aurkoi bazrade, fan zte[i] beste lilitra (5):* erleak, haurkoiak bazarete, joan zaitezte beste loreetara. */ asunbeltzak txerriak ilten ditu, beste asunarekin naste xaten badei (5):* asunbeltzak txerriak hiltzen ditu, beste asunarekin nahasirik jaten badute. */ urte batetik besteara (7):* urte batetik bestera. */ bestearentako [da] (7):* bestearentzat da. */ peseta bat Migelentako eta bestia Mariarentako (7):* pezeta bat Migelentzat eta bestea Mariarentzat. */ banak mendiara [xuan ditzu] ta bestiak eguatxara (9):* batzuk mendira joan dira eta besteak ibaira. */ besteki, muttikueki (10):* besteekin, mutikoekin. */ besterik zer bar dur erran nik? (10):* besterik zer esan behar dut nik? OH. Zaraitzun bezala, Erronkaribarren ´berze´ forma nagusia bada ere, zenbaitetan ´beste´ ere ageri da.

bestela *(7, 8, 9)* : bestela, bertzenaz */ baduzu ur onki, bestela berber gisa (7):* urik baduzu ongi, bestela gisa berean. */ ixil adi, bestela katxete bat baduk (8):* isil hadi, bestela zaplastako bat baduk. */ eltzia biltu bar diaguk, bestela [bustiren duk] (9):* eultzia bildu behar diagu, bestela busti egingo duk.

beta *(2, 5, 9, 10)* : *(bot.)* zerba */ betak ogiaz xan tut (5):* zerbak ogiarekin jan ditut. */ lapatia da belar latz bat, betaren gisakoa, baia mearrago (5):* lapabelarra belar latz bat da, zerbaren gisakoa, baina estuagoa. */ anitx beta (9):* zerba asko.

betarro *(5)* : *(med.)* betxindor

betatu 1 *(1, 5)* : debekatu */ betatu artea, betatu erreka (1):* debekatu artea, debekatu erreka. */ betatu kartan bi axuri daude (5):* debekatu hartan bi axuri daude. OH. Tarteka erabiltzeko lursail jakin bati erraten zitzaion ´betatu(a)´.

betatu 2 *(10)* : bete */ [xerria il eta] gero zakutoa betatan etsetan (10):* txerria hil eta gero zakutoa betetzen (zen) etxeetan.

betatx *(5)* : adababaki

betatxe *(5)* : adababaki

betazal 1 *(5)* : *(anat.)* betazal

betazal 2 *(5)* : begi-lauso, gandu

bete 1 *(3, 4, 8, 9, 10)* : bete (adiera guztietan) */ lotsa saintuz beterik [baratu zren] (3):* beldur santuz beterik geratu ziren. */ sobratu zenetik biltu zein amabi zare beterik puskaz (3):* sobratu zenetik hamabi saski bildu zituzten, puskaz beterik. */ nola kartan papera bete baizitzaitadan, ez naun obro isari (4):* nola gutunaren papera bete baitzitzaidan, ez nion gehiago jarri. */ ni osagarriz beterik [nago] (4):* ni osasunez beterik nago. */ [kotta] kau perlaz beterik (8):* gona hau perlaz beterik. */ kez beterik [diozu] (9):* kez beterik dago. */ eta gero batsuka bere etsera, bolsoa beterik (10):* eta gero bakoitza bere etxera, zorroa beterik.

bete 2 *(3, 5)* : bete (adj.) */ Jesusek sontotan tu diabiuz beteak (3):* Jesusek deabruz beteak sendatzen ditu. */ ipokresiaz betiak (3):* itxurakeriaz beteak. */ [parabola], errede arrantzuz betiarna (3):* parabola, sare arrantzaz betearena. */ begi beteaz ek[u]si (5):* begi beteaz ikusi (=

zerbait oso ondo ikusi). */ urte onetan atzeak bete-beterik egoitan dra (5):* urte onetan zuhaitzak (fruituz) bete-beterik egoten dira.

bete 3 *(5)* : bete (bat-en ordezkoa, izenekin) */ astebete (5):* astebete.

bete 4 *(5)* : harro, burgoi

bete-betean *(5)* : bete-betean

betetu *(7)* : bete

beti *(2, 5, 6, 7, 8, 10)* : beti */ guzien gainetik aska beza beti [jeina] (2):* guztien gainetik lauda beza beti jauna. */ mazte ñoa beti gazte (5):* emazte txikia beti gazte. */ bortara [xitan denean], beti kantatan (7):* atera etortzen denean, beti kantatzen. */ otsaila txartxara, beti zaude gatxara (8):* otsaila ´txartxara´, beti zaude gaitzera (txarra).

betiere *(2)* : betiere */ andre dona Maria betiere birjina (2):* andre dona Maria betiere birjina. */ berjina erdiz lein, erdietan, erdizgero, betiere [berjina] (2):* birjina erdi baino lehen, erditzean, erdi ezkero, betiere birjina.

betiganik *(5)* : betidanik

betik *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : beti */ guzien gainetik aska zazei betik [jeina] (2):* guztien gainetik lauda ezazue beti jauna. */ aînguriuak betik ene aita [ekustan daude] (3):* aingeruak beti ene aita ikusten daude. */ pobriak dazkazei betik eskiuara, baia ni ez nakazei betik (3):* txiroak beti dauzkazue eskura, baina ni ez naukazue beti. */ betik baratan nazala gose andi bateki (4):* beti geratzen naizela gose handi batekin. */ eztagola betik urrutxa makila egiteko (4):* ez dagoela beti hurritza makila egiteko. */ betik emon zauden ankarren zarrak gazteki (4):* beti omen zeuden haserre zaharrak gazteekin. */ berri gaixtoak betik erkitan dra egiak (5):* berri txarrak beti ateratzen dira egia. */ betik atziri beira (5):* beti atzera begira. */ betik ekun diegu saldo (7):* beti eduki dugu saldoa (artaldea). */ betik [erranen dien] (7):* beti erranen din. */ mazte korrek zer egitan du betik aurer? (8):* emakume horrek zer egiten du beti alfer? */ betik lanian! (10):* beti lanean!

betik ere *(5)* : betiere

betiko 1 *(4, 7)* : betiko */ adios, betiko gisa (4):* agur, betiko moduan. */ betikoa (7):* betikoa.

betiko 2 *(5)* : betiereko, eternal

betikoz *(5)* : betiko, betirako

betikulun *(6)* : betilun, goibel

betor *(5)* : *(med.)* betxindor

bettatu *(9)* : bete */ ez betta (9):* ez (ezazu) bete.

bette 1 *(9)* : bete */ bette diar (9):* bete dut.

bette 2 *(5)* : harroxko

betulun *(5)* : goibel, triste, betilun

betzain *(5)* : *(anat.)* betazal-mintz OH. Betazal barneko mintz gorrixka.

beur *(1, 5, 7, 9, 10)* : *(zoo.)* behor */ ez diar ekustan ez beurrik ez beirik (7):* ez dut ikusten ez behorrik ez behirik. */ beur bat, beurra (9):* behor bat, behorra. */ guk ekun diaguzu beur et´ oro sotoetan (10):* guk eduki dugu behor eta dena ukuiluetan. */ [belar] beurrentako (10):* belarra behorrentzat.

beurtegi *(1)* : behortegi */ beurtegia (1):* behortegia.

beurtxori *(5)* : *(heg.)* araba-zozo */ beurtxoria[k] kantaten dianean, euria fite xinen da (5):* araba-zozoak kantatzen duenean, euria azkar etorriko da.

beurzai *(5)* : *(heg.)* ipar-bele

bexalde *(5)* : behi-talde
bexko *(5)* : perztxo
bezik 1 *(5)* : baizik (eta)
bezik 2 *(5)* : baino */ mitilari txikiago bezik aitari (5):* mutilari gutxiago aitari baino.
bezpera 1 *(4)* : bezpera */ erauntsiaren bezperan xin zen errena azken zûra saltruk (4):* erauntsiaren bezperan erraina etorri zen azken zura salduta. */ bezperatik drezatu ztion apario guziuak (4):* bezperatik prestatu zituen jatordu guztiak.
bezpera 2 *(4, 5)* : *(erl.)* bezpera */ bezperak erran (4):* bezperak erran. */ meza [an]diara, bezperatra, arrosarioara (5):* meza nagusira, bezperetara, arrosariora.
bezpra 1 *(7, 9)* : bezpera */ errege bezpran [akartan zrela] (7):* errege bezperan haserretzen zirela. */ Santiago bezpran (9):* Santiago bezperan. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
bezpra 2 *(9)* : *(erl.)* bezpera */ bezprak lauretan (9):* bezperak lauretan. */ bezpretan [egon nezu] (9):* bezperetan egon naiz.
bezte *(10)* : beste, bertze */ kaur Eibarren eta bezte bat Bilbauen (10):* hau Eibarren eta beste bat Bilbon. */ zer bar dur erran, bezte zer? (10):* zer behar dut erran, bertze zer? */ [anaxe bat] ilik, beztia´e ilik (10):* anaia bat hilik, bestea ere hilik.
beztido *(3)* : jantzi, arropa */ [Juanek] eragutan zion beztido bat kamellozko biloz (3):* Juanek gamelu ilez (eginiko) jantzi bat ekartzen zuen. */ nontik erkinen tzei beztido xen korpizaren estaltako? (3):* nondik aterako duzue jantzia zuen gorputza estaltzeko? */ bere beztiduak xuri [izari zren] elurra bikala (3):* haren jantziak zuri jarri ziren elurra bezala. */ ezteizko beztidorik bage (3):* ezteietako arroparik gabe.
beztidura *(3)* : jantzi, arropa */ emazte [batek] tokatu zion aren beztiduraren atzekua (3):* emakume batek haren jantziaren atzekoa ukitu zuen.
beztimenta *(5)* : janzkera */ jentea edertan du beztimentak (5):* jendea edertzen du janzkerak.
beztitu 1 *(2, 3, 4, 5, 8, 10)* : jantzi */ beleizien beztitia (2):* biluziak janztea. */ jangeikuak kola beztitan [du] belar bat (3):* jaungoikoak horrela janzten du belar bat. */ borzgarna, belainzurik dena beztitia (3):* bosgarrena, biluzik dagoena janztea. */ xengana [xiten dra] beztitruk ardi larruz (3):* zuengana ardi larruz jantzirik etortzen dira. */ [iñaute egunian elurragatik] ezen beztitu zipoterorik ere (4):* inauteri egunean elurragatik ez zen mozorrorik ere jantzi. */ gaxki beztitruk, erdi bilainzruk (4):* gaizki jantzirik, erdi biluzik. */ nork erranen zion artzain kori kain abrats dela? beztitan da orobat nola zarratrako bat (5):* nork erranen zuen artzain hori hain aberatsa dela? zarpailtsu bat bezala janzten da. */ aurra beztitu diar [eta] mezara (8):* haurra jantzi diat eta meza(ta)ra. */ [kola] beztitu da (8):* honela jantzi da. */ neskatuak kola beztitruk, kottak azkatruk (8):* neskatoak horrela jantzirik, gonak goraturik. */ xin bedi beztitra, eta gunian xagiren naz (8):* etor bedi (ni) janztera, eta orduan jaikiko naiz. */ bezti adi (8):* jantz hadi. */ gizonak beztitan zia maztez (10):* (inauterietan) gizonak emakume(z) janzten ziren. */ neskaxeak beztituk (10):* neskatxak jantzirik.
beztitu 2 *(5)* : hila jantzi, bestitu
bi *(2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 10)* : bi */ bi besoak zabaltruk (2):* bi besoak zabaldurik. */ zoin orazionereki? bietarik zoinaidioneki (2):* zein otoitzekin? bietatik zeinahirekin. */ aur guziuak, bi urtetarik apal, [iltako] (3):* haur guztiak, bi urtetik behera, hiltzeko. */ ñork ere ez doke zerbutxa bi nausiri (3):* inork ere ez dezake zerbitza bi nagusiri. */ bi txori saltan dra bi marabiditan (3):* bi txori saltzen dira bi marabedian. */ zoin bietarik nai tzei? (3):* bietako zein nahi duzue? */ ogeita bi milla (4):* hogeita bi milla. */ elizan ankartu zren bi emazte (4):* elizan haserretu ziren

bi emakume. */ urdu zaitad gaudela biak xunto (4):* biok elkarrekin gaudela iruditzen zait. */ gizona eltan da ekutra bi emazte (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da. */ nik badud ein eta bi [urte] (5):* nik badut ehun eta bi urte. */ nai badun izan ene emazte, biak bordalten gutun (5):* ene emaztea izan nahi badun, biak ezkonduko gaitun. */ yorea yire ta enea bien (5):* heurea hire eta enea bien. */ bi azatarik (5):* bi motako azak. */ bi gizon [ekusi dutur] (7):* bi gizon ikusi ditut. */ [ganbra bat] bi oireki (7):* logela bat bi oherekin. */ gerran ala bakean edo bietan (7):* gerran ala bakean edo bietan. */ peseta bat bedraka, bientako (7):* pezeta bat banaka, bientzat. */ bi urtez (8):* bi urtez. */ bi biarriak (9):* bi belarriak. */ bi gizonek ikusi dezei gore eliza (9):* bi gizonek ikusi dute gure eliza. */ bi alteketan (9):* bi alboetan. */ diela bi urte egon nindezun (10):* duela bi urte egon nintzen. */ biak meste mundiara (10):* biak beste mundura (joan dira).

biamen *(8)* : biharamun */ nobedaderik bage, iritzarri biamen goxan (8):* nobedaderik gabe iratzarri (zen) biharamun goizean.

biamenagoan *(5)* : biharamunago

biar 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : bihar (adb.) */ ez biarkoa eta etxikoa, baizi egunorozko[a] (2):* ez biharkoa eta etzikoa, egunerokoa baizik. */ egun alurrian loratan eta biar labiara egotxtan den belar bat (3):* gaur alorrean loratzen den eta bihar labera botatzen den belar bat. */ eziztei erabil kongojatruk biarko egunaz (3):* ez zaitezte beldurturik ibili biharko egunaz. */ egun eta biar kobraten (4):* gaur eta bihar kobratuko. */ zu eta ni xoanen gra biar (7):* zu eta ni joanen gara bihar. */ biar artio! (7):* bihar arte! */ biar xinen dun (9):* bihar etorriko dun. */ biar xuanen tun bi gizon (10):* bihar bi gizon joango ditun.

biar 2 *(2, 3, 4, 5, 6, 11)* : behar (iz.) */ urtian bein goresima[n] konfesa gitiala, edo leinago biarrik balimadigu (2):* urtean behin garizuman aitor gaitezela, edo lehenago beharrik baldin badugu. */ nestate edo biarrik bage (3):* beharrik gabe. */ biarra denian otoiak on (4):* beharra denean otoitzak on. */ biar bikala egin diak kau (5):* behar bezala egin diat hau. */ biarra (11):* beharra.

biar artio! *(10)* : bihar arte!

biar ekun *(2, 3, 4, 5, 8, 10)* : behar izan */ guk sinetsi eta egin biar tugun gaiza guziak (2):* guk sinetsi eta egin behar ditugun gauza guztiak. */ lagunak gu ofenditan bagutu, zer biar dugu egin? (2):* lagunak gu iraintzen bagaitu, zer egin behar dugu? */ xin biar ekunik ere, ez da oraino [xin] (3):* etorri behar izanik ere, ez da oraindik etorri. */ zomat aldiz biar ekunen dut parkatu ene anaxari? (3):* zenbat aldiz barkatu beharko diot nire anaiari? */ ura da salbatu biar diona bere iria (3):* hura da bere herria salbatu behar duena. */ galtegiten zabein non biar zion sortu [Kristok] (3):* galdetzen zien non jaio behar zuen Kristok. */ ene atzian xin biar diona (3):* nire atzean etorri behar duena. */ korrengatik akostunbratu biar zra zeinatra (3):* horregatik zeinatzera ohitu behar duzu. */ txerria il biar dud, xanaria akabatu baidud (4):* txerria hil behar dut, janaria bukatu baitut. */ gero orrek ekusen du zer egin biar dion (4):* gero berorrek ikusiko du zer egi behar duen. */ biar daud berri bat isari (4):* berri bat jarri (idatzi) behar diot. */ pensamentiuan artruk dakad biar daudala eskribitu (4):* gogoan harturik daukat idatzi egin behar diodala. */ zer komento biar duan ekun betik nago pensatan (5):* zer komentu eduki behar dudan beti nago pentsatzen. */ zer biar dur, ba, erran? (8):* zer esan behar dut, ba? */ xuan biar dur (8):* joan behar dut. */ biramenean xuan biar xorrara (9):* biharamunean jorrara joan behar. */ ba biar duzu, bai (10):* ba behar duzu, bai. */ biar ez diar biar erkin etserik (10):* bihar ez dut etxetik irten behar.

biardun *(4)* : behartsu, txiro */ gente biardunen neskato guziuak faiten dra Frantziara espartiñan*

trabajatan (4): jende behartsuaren neska guztiak joaten dira Frantziara espartinak egitera.

biari *(5)* : hari bihurritu

biarrezko *(3)* : beharrezko */ lein borzak biarrezkuak [dra] (3):* lehen bost (agindu)ak beharrezkoak dira.

biarri *(3, 4, 5, 8, 9, 10)* : *(anat.)* belarri */ biarri dionak entelegatako, entelega tzala (3):* belarria duenak ulertzeko, uler dezala. */ ezpata [erkiten ziolarik], mitil bati biarri bat [ebaki zaun] (3):* ezpata ateratzen zuela, mutil bati belarri bat ebaki zion. */ xaurien biarriekin [entzunen tzei] (3):* zeuen belarriekin entzungo dituzue. */ biarritik estiraten diar (8):* belarritik tira eginen diat. */ biarria (8, 10):* belarria. */ bi biarriak (9):* bi belarriak.

biarrian *(4)* : beharrean */ balle koni, mitilak [gerrara] eraman biarrian, pakarazi zein ogeita bi milla duro (4):* ibar honi, mutilak gerrara eraman beharrean, hogeita bi mila duro ordainarazi zioten.

biarriara erran *(3)* : belarrira esan, belarrira erran */ erraiten daidzeidana biarriara, predika zazei lurrezko sabaietarik (3):* belarrira erraten dizuedana, predika ezazue lurrezko teilatuetatik.

biarribelar *(5)* : *(bot.)* betibizi

biarrietra eltu *(3)* : belarrietara heldu */ kaur el baledi presidentiaren belarrietra (3):* hau presidentearen belarrietara helduko balitz.

biarrio *(5)* : auzoko, auzotar

biartarik *(6)* : bihartik

biartu *(10)* : behartu */ biartu ikastra (10):* behartu ikastera.

bibe *(5)* : *(nek.)* bahe (alanbrezkoa nahiz larruzkoa) */ bibia (5):* (larruzko) bahea, (alanbrezko) bahea.

bida *(5)* : bi */ bat, bida, iror, laur, otsoak Urunberrin gaur (5):* bat, bi, hiru, lau, otsoak Irunberrin gaur (gauean).

bida! *(4, 5, 10)* : eman biezat! (berorrek) */ astozar andia ni, bida garrotekaldi bat (10):* astozar handia ni, eman biezat makilaldi bat.

bidagune *(5)* : leku */ kalako bidagunean il zabein (5):* halako lekutan hil zuten.

bidaje *(4, 7)* : bidaia */ al banintza txori baten gisa bidajiak egin bolan (4):* txori baten gisa bidaiak hegan egin ahal banitu. */ bidaje on bat ekun tzeia? (7):* bidaia ona izan al duzue? */ bidajez (7):* bidaian.

bidan! *(10)* : emadan! */ bidan burkulla urun zadan (10):* emadan gorua irun dezadan.

Bidangoze *(2)* : *(geog.)* Bidankoze

bidangoztar *(7, 11)* : bidankoztar */ ni naz bidangoztar (7):* ni bidankoztarra naiz.

Bidankoze *(4, 7, 8)* : *(geog.)* Bidankoze */ Bidankoze, 1903ko martxoaren 15´na (4):* Bidankoze, 1903ko martxoaren 15.a. */ Bidankozen [egon naz] (8):* Bidankozen egon naiz.

bidari *(5)* : bidaiari

bidarte *(1)* : bidearte */ bidartea (1):* bideartea.

bidazei! *(5)* : emadazue!

bidazu! *(5)* : emadazu!

bide 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : bide */ bide xarra (1lm):* bide xaharra. */ autxpidea (1):* frantses(en) bidea. */ bei bidea (1):* behi bidea. */ zeuriko bidiara trasladatruk iza[n] gintzala (2):* zeruko bidera aldatuak izan ginela. */ zeuriarako bidian (2):* zerurako bidean. */ berze bide batarik (3):* bertze bide batetik. */ jeinaren bidia (3):* jaunaren bidea. */ bi utsi bidiaren altakan*

[xaseririk zauden] (3): bi itsu bidearen ondoan eseririk zeuden. */ bidetra erkitan [zren] (3):* bideetara ateratzen ziren. */ gero fan zren beren bide zameinez (4):* gero joan ziren zeramaten beren bidetik. */ bidiak elur anitxez daude zerratruk (4):* bideak elur anitzez itxita daude. */ bi orenen bidian (4):* bi orduko bidean. */ bide gaixtoak (5):* bide txarrak. */ bide ersi da kau! (5):* bide estua da hau! */ bide zabala (6):* bide zabala. */ bidean zomait [gizon] ekusiren dur (7):* bidean zenbait gizon ikusiko dut. */ bi oren bide dizu Sant´ Engraziara mugatik (8):* bi orduko bidea duzu Santa Graziara mugatik. */ bide ersi bat (9):* bide estu bat. */ bidia (10):* bidea. */ bidian sei gizon [ekusi diar] (10):* bidean sei gizon ikusi ditut. */ bidean [ekusi diar] (10):* bidean ikusi dut.

bide 2 *(2)* : bi */ zonbat gisaz biar dugu ikasi zeñetan? bidez (2):* zenbat modutan ikasi behar dugu zeinatzen? bitan.

bide 3 *(5)* : omen, bide */ kura bide xu errixko ontako alkatea (5):* hura bide duzu herrixka honetako alkatea. */ ez bide du (5):* ez omen du.

bide egin *(5)* : bide egin */ urak bide eginen du (5):* denbora joanen da, urak bide eginen du.

bide-xuntagune *(5)* : bidegurutze

bidei! *(8)* : eman biezat! (berorrek) */ ama berjina, bidei senar ona (8):* ama birjina, (berorrek) eman biezat senar ona.

bidelaster *(5)* : laburbide, lasterbide */ bidelasterra (5):* laburbidea, lasterbidea.

bidenabar erkin *(5)* : bidera irten */ bidenabar erkinen gutun, i ere erkin adi (5):* bidera itengo gaitun, hi ere irten hadi.

bideratu *(7)* : bideratu

bidin-badan *(11)* : din-dan (kanpai hotsa)

bigantxa *(2, 4)* : *(zoo.)* bigantxa (3-12 hilabetekoa) OH. Mendigatxak ´hiru urte arte deitzen zaio´ oharrarekin dokumentatua. Azkuek ´hamar hilabetekoa´ oharrarekin dokumentatua.

bigarnabentu *(2)* : abendu, gabonil

bigarnen *(3, 4, 7)* : bigarren */ bigarnen kapitulua (3):* bigarren kapitulua. */ bigarnen aldiz oiltu ztion zerbutxari[ak] (3):* bigarren aldiz bidali zituen zerbitzariak. */ bigarnari (3):* bigarrenari. */ azken garilaren ogeita bigarneko kartan (4):* azken uztailaren hogeta bigarreneko gutunean. */ leinian, bigarnian, irurgarnian, laurgarnian, borzgarnian (4):* lehenean, bigarrenean, hirugarrenean, laugarrenean, bosgarrenean. */ bigarnen ikasgei[a] (7):* bigarren ikasgaia. */ bigarna naz (7):* bigarrena naiz.

bigarren *(2, 3, 5, 8, 10)* : bigarren */ bigarren persona xatxi zela (2):* bigarren pertsona jaitsi zela. */ bigarna (2, 3):* bigarrena. */ bigarnari (3):* bigarrenari. */ xin gitian bigarniara (3):* etor gaitezen bigarrenera (bigarren gauzara). */ leina [eta] bigarna (5):* lehena eta bigarrena. */ bigarren urtian ez dien pagaten (8):* bigarren urtean ez diten ordainduko. */ andi balimada leina, bigarna andiagua (8):* lehena handia baldin bada, bigarrena handiagoa. */ bigarna (10):* bigarrena.

bigarren abentu *(5, 6, 8)* : abendu, gabonil */ bigarren abentiara eltuz geroz, elurra obroena gatzatan da (5):* abendura helduz gero, elur gehiena gatzatzen da. */ bigarren abentia (6, 8):* abendua.

bigarren maiatz *(8)* : ekain */ bigarren maiatza (8):* ekaina.

bigo *(5, 11)* : *(nek.)* sarde, biko OH. Aznarezek ´bi puntako sardea´ oharrarekin dokumentatua.

bigotz 1 *(5, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* bihotz */ bigotz guzia [erdiratan diztazu] (5):* bihotz osoa erdibitzen didazu. */ bigotz-bearriak eratzar itzak! (5):* bihotz-belarriak iratzar itzak! (= mugi hadi!) */ bigotza (7, 8, 9, 10):* bihotza.

bigotz 2 *(5, 8)* : biotz (erdikoa) */ urtarril otza, neguan bigotza (5):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ urteril [otza], negiaren bigotza (8):* urtarril hotza, neguaren bihotza.

bigotz-berats *(5)* : bihozbera */ bigotz-beratsa (5):* bihozbera.

bigotz-biarriak eratzarri *(5)* : ernatu, iratzarri */ bigotz-biarriak eratzar tzak! (5):* ernatu hadi!

bigotz-txarraka *(5)* : *(med.)* bihotzerre

bigotza erdiratu *(7)* : bihotza erdiratu

bigozmin *(5)* : *(med.)* epilepsia

bijilia *(4)* : *(erl.)* bijilia, haragi-uzte */ errekesuna gastatan da zukugarritako goreximan eta bijiliazko egunetan (4):* gaztanbera gisatua egiteko gastatzen da garizuman eta bijilia egunetan.

bikain *(4, 5)* : bezain */ kakeria bat, iturriko ura bikain argi (4):* beherakoa, iturriko ura bezain argia. */ aurten iñaute eguna gorexima egun baten bikain triste [izan da] (4):* aurten inauteri eguna garizuma egun bat bezain tristea izan da. */ tenpra digu negu minian bikain otz (4):* eguraldia negu minean bezain hotz dugu. */ laratza bikain segur (5):* laratza bezain seguru.

bikainbat *(4, 5)* : bezainbat */ txakur inzlari aztan dagonaren bikainbat xateko ganureki [nago] (4):* hazten ari den txakur ehiztariaren bezainbat jateko gogoz nago. */ [izeiak] bustirik izaintan du lerrezko koralak bikainbat (4):* izeiak bustirik pinuaren enbor-muinak bezainbat irauten du. */ yik bikainbat falta dionik ez dion pelota xokurik (5):* hik bezainbat falta duenik ez zagon pilota jokorik.

bikainbatez *(2)* : bezainbatean */ Kristo gizon dena bikainbatez izan zela konzebitruk (2):* Kristo gizon den bezainbatean sortua izan zela.

bikala *(2, 3, 4, 8)* : bezala */ Kristo berze gainiarako gizonak bikala [sortu zen] (2):* Kristo beste gainerako gizonak bezala sortu zen. */ gaiza guziak kreatu ztien bikala gobernatan tiela (2):* gauza guztiak sortu zituen bezala gobernatzen dituela. */ kristiai bikala sinestan [t]uzun gaizak (2):* kristau bezala sinesten dituzun gauzak. */ gore lagunaren [estimatako] giauren buria bikala (2):* gure laguna maitatzeko geure burua bezala. */ xen aita den bikala (3):* zuen aita den bezala. */ bea ztei nik oiltan daizeila ardi bikala otsuen artian (3):* begira ezazue nik bidaltzen zaituztedala ardiak bezala otsoen artean. */ gu bikala, ziek bikala ez (8):* gu bezala, zuek bezala ez.

bikalako *(4, 5)* : bezalako */ lerrak du ura bikalako gaiza bat, baitu izena ´errazia´ (4):* pinuak ura bezalako gauza bat du, ´erretxina´ izena duena. */ yi bikalako asto andien[tako] (5):* hi bezalako asto handientzat. */ orratzak bikalako punta anitz zorrotz tu (5):* orratzak bezalako punta anitz zorrotz ditu.

bikarte *(10)* : *(anat.)* aurpegi */ bikartia (10):* aurpegia.

bikin *(8)* : bezain */ gu bikin on (8):* gu bezain ona.

bikinbatez *(2)* : bezainbatean

bikla *(8)* : bezala */ gu bikla (8):* gu bezala.

bikor 1 *(5)* : ale */ garibikor[ra] (5):* gari alea.

bikor 2 *(5)* : *(bot.)* hazi

bikorrik (ez) *(5)* : alerik (ez), inor (ez)

biladun *(4)* : iledun (aberea) */ akerra biladuna (4):* akerra ileduna.

bilagente *(5)* : *(nek.)* azienda, ile-jende (iledun abereak) OH. Behiak, txerriak ahuntzak, zaldiak.

bilainz golli-golli *(5)* : biluzik, biluzgorri

bilainzruk *(4, 5)* : biluzik */ gaxki beztitruk, erdi bilainzruk (4):* gaizki jantzirik, erdi biluzik. */ betik goseak eta bilainzruk (5):* beti goseak eta biluzik.

bilainzu *(5)* : biluzi

bilaîzruk *(3)* : biluzik */ bilaîzruk nintzelarik estaltu nindaizein (3):* biluzik nengoenean estali ninduzuen.

bilakatu 1 *(5)* : harrapatu

bilakatu 2 *(5)* : ileetatik tira egin

bilaltatu *(5)* : ileberritu (ganadua)

bilarazi *(4)* : bilarazi */ diolarik bizpor egun asi da apeza eskolara bilarazten egun oro (4):* duela egun batzuk apaiza (umeak) ikastetxera egunero bilarazten hasi da.

Bilbabe *(4)* : *(geog.)* Bilbo */ ni ere bara nein eskribitiatik Bilbabera (4):* ni ere geldi nadin Bilbora gehiago idatzi gabe. */ eskribi beztad Bilbabetik bino naroxago (4):* idatz biezat Bilbotik baino maiztxoago.

Bilbau *(10)* : *(geog.)* Bilbo */ kaur Eibarren eta bezte bat Bilbauen (10):* hau Eibarren eta beste bat Bilbon.

bilbe *(5)* : *(oih.)* bilbe */ torneaz urut[an] dena bilbea [da] (5):* tornuaz iruten dena bilbea da. */ sei ze luzegoko bilbea (5):* sei zehe luzerako bilbea.

bilbil *(5)* : biribil

bilda *(5)* : uztarripeko (larrua) OH. Idiei uztarripean jartzen zaien larrua.

bildots *(5)* : *(zoo.)* arkume, bildots */ bildotsa da bizi denean, iltzen denean umerria (5):* bizi denean bildotsa da, hiltzen denean umerria.

bildu *(10)* : topatu

bildura 1 *(5)* : bilera

bildura 2 *(5)* : dar-dar (urduria)

bilgo *(5)* : bilketa txanda

bilgor *(5, 8, 9, 10)* : gantz, bilgor */ bilgorra (8, 9, 10):* gantza, bilgorra. */ bilgorra, txiki (9):* gantza, gutxi.

bilgorazu *(5)* : gantzatsu, bilgortsu

bilgorra *(9)* : gantz, bilgor */ anitx bilgorra (9):* bilgor asko. */ bilgorra-zopa (9):* bilgor zopa. */ eragu zan bilgorra (9):* ekar ezan gantza.

bilgu 1 *(5)* : bilera OH. Zaraitzun ere dokumentatua. Jatorriz artzainen mendiko bilerak omen ziren.

bilgu 2 *(5)* : *(suk.)* barruki (ardienak)

bilgune 1 *(4, 5)* : bilgune, biltoki */ gizon bilgune batian (4):* gizon bilgune batean. */ xaxgiua, ardien bilgunia xaxtako edo irauskitako edo erextako (4):* jetzitegia, ardien bilgunea jeizteko. */ afizione andia [dei] bilgunetra, xuntatako (5):* zaletasun handia dute bilguneetara, elkartzeko.

bilgune 2 *(5)* : *(anat.)* giltzadura, artikulazio

bili *(5, 9)* : *(bot.)* gari azal (alearena) */ eltzutik erkitan dena, autzaren atziritik, kau da bilia (5):* eultzitik ateratzen dena, ahotzaren atzetik, hau da gari azala. bili guzia (9): gari azal guztia. OH. Azkuek ´gari mota´ oharrarekin dokumentatua.

biligarro *(5)* : *(heg.)* birigarro

biligor *(5)* : gantz, bilgor */ urtarrilak xatan du biligorra (5):* urtarrilak bilgorra jaten du.

bilo 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : ile */ beztido bat kamellozko biloz (3):* gamelu ilezko jantzi bat. */ xaurien buruko biluak ere kontatruk [daude] (3):* zeuen buruko ileak ere zenbaturik daude. */ ene errenak ezion ikasi nai biloaren montxtan (4):* nire errainak ez zuen ikasi nahi ilea mozten. */ obro milla ezik bilo-punta durana (5):* ditudan ile-puntak baino milako gehiago. */ ene*

aitaniaren biloa zuri [da] (7): nire aitonaren ilea zuria da. */ neskatoek bazeina biluak luze? (7):* neskatoek ba al zuten ilea luze? */ bilua (8):* ilea. */ zer bilo ederra dien! (9):* zer ile ederra duen! */ biloa (9):* ilea. */ bilua (10):* ilea. */ biloak [eta] larria (10):* ileak eta azala.

bilo 2 *(4)* : pixka */ lan bilorik egin bage [baratu zen] (4):* lan pixka bat ere egin gabe geratu zen.

bilo-izpi *(5)* : ile-xerlo

biloara *(5)* : ile aldera

biloerreka *(5)* : artesi (burukoa)

bilogarro *(5)* : ile ongi orraztu(a) */ bilogarro[a] (5):* ile ongi orraztua.

bilondo *(5)* : txirikorda

biloz bilo (egin) *(5)* : trukatu (gauzak irabazirik gabe)

bilta *(5)* : uztarripeko (larrua) OH. Idiei uztarripean jartzen zaien larrua.

biltu 1 *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : bildu */ ez dionak enekin biltan, barriatan du (3):* ez duenak nirekin biltzen, barreiatzen du. */ biltan dreia ote mats arbole ñardunetarik? (3):* mahatsa biltzen ote dute zuhaixka lahardunetatik? */ nai etzazei bil ontarzun xentako lurrian (3):* ez ezazue ondasunik bildu nahi izan zuentzat lurrean. */ diszipulo biltra astan da (3):* ikasleak biltzen hasten da. */ nai tziua fan gitian aren biltra? (3):* nahi al duzu hura biltzera joan gaitezen? */ aurten biltu digu kosetxa ona (4):* aurten uzta ona bildu dugu. */ sontotu [naz], banua indarrak biltuz erdixkalki (4):* sendatu naiz, banoa indarrak bilduz erdizka. */ kosetxaren biltako tenpran (4):* uzta biltzeko denboran. */ kosetxa biltruk (4):* uzta bildurik. */ gore apez muturbeltza asun biltan ari zen (5):* gure apaiz muturbeltza asunak biltzen ari zen. */ eskuz emon ta zankoz ezin bil (5):* eskuz eman eta hankaz ezin bildu. */ indarrak biltruk obro doke ezik barriatruk (5):* indarrak bildurik gehiago dezake barreiaturik baino. */ eltzia biltu bar diaguk, bestela [bustiren duk] (9):* eultzia bildu behar diagu, bestela busti egingo duk. */ margo biltan (9):* masustak biltzen, masustatan. */ egurra, egun biltu zeina (10):* gaur bildu duzuen egurra. */ bar diagun xoan unr biltra (10):* hurrak biltzera joan behar dinagu.

biltu 2 *(3, 10)* : jaso */ gero [ikaszaliak] eltu zren korpizaren biltra eta ôrtzi zein (3):* gero ikasleak gorputza jasotzera etorri ziren eta ehortzi egin zuten. */ biltu dien, biltan dien (10):* jaso din, jasotzen din. */ morroia bordara [biltu zeia], borda bat bizagon (10):* mutila bordara jaso zuten, borda bat baitzegoen.

biltu 3 *(5)* : aurreztu

biltzale *(5)* : biltzaile */ aita biltzale, seme igortzale (5):* aita biltzaile, seme xahutzaile.

bilzale 1 *(3)* : biltzaile */ tributuaren bilzaliak (3):* zerga biltzaileak.

bilzale 2 *(5)* : aurreztaile

billo kontra *(5)* : ile kontra

billo-izpi *(5)* : ile-izpi

billur *(11)* : bilur (lotura) */ billurra (11):* bilurra. OH. Aznarezek ´bi langa lotzeko erabiltzen den egurrezko uztaia´ oharrarekin dokumentatua. Iparraldean ere dokumentatua.

binbilin-banbalan *(5, 11)* : din-dan (kanpai hotsa)

binkoan *(5)* : behingoan, aldi berean

bino *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : baino */ ni bino poderosoao [da] (3):* ni baino ahaltsuagoa da. */ anke ziola nik bino bi urte oboro, anixko jake [zegon] (4):* nahiz eta nik baino bi urte gehiago izan, nahikoa bizkor zegoen. */ ni bino gaiztoago (5):* ni baino gaiztoagoa. */ aur bat bino ñoago da gizon kori (5):* haur bat baino txikiagoa da gizon hori. */ ni zu bino zarrago [naz] (7):* ni zu baino zaharragoa naiz. */ ni bino zarrago (8):* ni baino zaharragoa. */ ni nun yi bino obe (9):* ni

hi baino hobea naun. */ aigal bino lein (9):* afaldu baino lehen. */ iror lloba geundezun lein, ni bino zarrago (10):* hiru iloba geunden lehen, ni baino zaharragoak.

biondo *(5)* : txirikorda (orrazkera mota)

biotx *(2)* : *(anat.)* bihotz */ zer da orazione egitia? jeinari biotxaren goratea (2):* zer da otoitz egitea? jaunari bihotza goratzea. */ biotxaz egiten duguna (2):* bihotzaz egiten dugun otoitza.

biotz 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 10)* : *(anat.)* bihotz */ parketan diazkazizud biotz guzioaz agrabio egin daizteidanak oro (2):* barkatzen dizkizuet bihotz guztiaz egin dizkidaten irainak oro. */ [krutxe baten egitea] borontetik biotzera (2):* gurutze bat egitea kopetatik bihotzera. */ [krutxe baten egitea] biotzetik ezkerreko soineara (2):* gurutze bat egitea bihotzetik ezkerreko sorbaldara. */ biotzez umilak (2):* bihotzez apalak. */ bere biotza urrin [dago] eneganik (3):* haren bihotza urrun dago niregandik. */ bere biotzian (3):* bere bihotzean. */ gizon prestiuak gaiza onak [erkitan tu] bere biotzaren ondo onetik (3):* gizon prestuak gauza onak ateratzen ditu bere bihotzaren hondo onetik. */ [kori] biotzetik erkiten da (3):* hori bihotzetik irteten da. */ maitaten tzu ziauren biotz guziuaz (3):* zeure bihotz osoaz maitatuko duzu. */ biotzez xaî drenak (3):* bihotzez garbiak direnak. */ biotz xaî bat (4):* biotz garbi bat. */ ene biotza lotsatan duk (4):* ene bihotza beldurtzen duk. */ maiatz otz, ez autz ez biotz (5):* maiatz hotz, ez ahotz ez bihotz. */ biotzean sartan zau (5):* bihotzean sartzen zaio. */ biotzez (5):* bihotzez. */ biotza ulun (6):* bihotza ilun. */ biotza baratu [zita] (9):* bihotza gelditu zait.

biotz 2 *(5, 8, 9)* : biotz (erdikoa) */ urtarril otza, neguaren biotza (5):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ San Bizente otza, neguaren biotza (5):* San Bizente hotza, neguaren bihotza. */ urteril otza, negiaren biotza (8):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ San Bizente otza, negiaren biotza (9):* San Bizente hotza, neguaren bihotza.

biotz-beilla *(5)* : bihozbera

biotz-bera *(5)* : bihozbera

biotz-on *(5)* : bihotz oneko, eskuzabal */ eska adi dion gogorrari eta ez eztion biotz-onari (5):* eska iezaiok duen gogorrari eta ez ez duen bihotz onekoari.

biotza anditu *(5)* : hunkitu */ bereter korrek biotza andiarazten daikugu bere sermoneki; beilagarri da (5):* apaiz horrek bihotza hunkitzen digu bere sermoiekin; hunkigarria da.

biotza erdiratu *(3)* : bihotza erdiratu */ biotza erdiratan zaitad pensatian zer izanen den ote nitaz (4):* bihotza erdiratzen zait, nitaz zer izanen ote den pentsatzean.

biotza erditik egin *(5)* : bihotza erdiratu

biotzeri *(5)* : *(anat.)* hatz luze

biotzez *(2, 3)* : bihotzez */ onki eta biotzez egitan bada (2):* ongi eta bihotzez egiten bada. */ aitagoria erraitan biotzez (3):* aitagurea bihotzez esaten. */ gisa kontan portaten da ene aita xekin, bapanak parka ez baleza biotzez bere anaxari (3):* modu honetan portatuko da ene aita zuekin, bakoitzak bihotzez barka ez baliezaio bere anaiari.

bioz *(2)* : *(anat.)* bihotz */ guzier parketan diazkazieud bioz guzioaz agrabio egin daizteidanak oro (2):* guztiei barkatzen dizkiet bihotz osoaz, egin dizkidaten irainak oro. OH. ´Bioz´ forma Gardekoa da. Ohikoena ´biotz´ da eta ´bigotz´ ere badago.

biozdun *(5)* : ausart, bihoztun

biozkanpo *(5)* : gogo txarrez, gogoz kontra

biozmin 1 *(5)* : atsekabe, nahigabe

biozmin 2 *(5)* : *(med.)* palpitazio

bira 1 *(2)* : bi */ zonbat maneraz da krutxe saintiaren señalia? birez (2):* zenbat modutan da

gurutze santuaren seinalea? bitan.

bira 2 *(5, 6)* : bina

bira 3 *(4)* : bira, buelta

bira-bira *(4)* : bira-bira, bueltaka-bueltaka

biraka *(5)* : binaka

biramen *(3, 4, 5, 7, 9)* : biharamun */ biramen goxan ekun zion gose (3):* biharamun goizean gosea eduki zuen. */ biramenian [xunto fan zren] (3):* biharamunean elkarrekin joan ziren. */ biramen goxan bere ordiuan fan zen (4):* biharamun goizean bere orduan joan zen. */ arrats odoi-gorri, biramenean eguzku gorri (5):* arrats hodei-gorri, biharamunean eguzki gorri. */ biramenean (7):* biharamunean. */ biramenean xuan biar xorrara (9):* biharamunean jorrara joan behar.

biramenago *(5)* : biharamunago */ biramenagoan, birameneanago (5):* biharamunagoan.

birameneanago *(5)* : biharamunago

biramon *(5)* : biharamun

biratx *(5)* : biki

birazka *(5)* : binaka

biribil *(9)* : biribil */ aprila biribila, xerria urdanteian ila (9):* apirila biribila, txerria txerritegian hila.

birika 1 *(7)* : *(anat.)* birika */ bularran ditiegu birikak (7):* bularrean birikak ditugu.

birika 2 *(5, 8, 10, 11)* : *(suk.)* birika-hesteki */ birika (5, 8, 10, 11):* birika-hestekia.

birjina *(2)* : birjina */ dona Maria betiere birjina (2):* donaMaria betiere birjina. */ andre dona birjinaganik [sortu zela] (2):* andre dona birjinagandik sortu zen.

birjinidade *(3)* : birjintasun */ birjinidadiaren damurik bage [erkin zen Mariaren sabeletik] (3):* birjintasunaren kalterik gabe atera zen Mariaren sabeletik.

birra-barra *(5)* : di-da, arin-arin OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

birristi-barrasta *(5)* : barrasta-barrasta (baldarki)

birtute *(2, 3, 5)* : bertute */ jeinaren birtute guziak (2):* jaunaren bertute guztiak. */ krutxeak badia birtuterik etsai korien kontra? (2):* gurutzeak ba al du bertuterik etsai horien aurka? */ nontik du krutxiak birtute kori? (3):* nondik du gurutzeak bertute hori? */ ekusurik birtute (5):* bertutea ikusirik.

biru *(5)* : hari-zuntz, albainu

birutan peara *(10)* : buruz behera

bisisturte *(5)* : urte bisustu

bisitatu *(3)* : bisitatu */ eriak bisitatia (3):* gaixoak bisitatzea. */ bisitatra fan (3):* bisitatzera joan. */ ekustra edo bisitatra [xin zen] (3):* ikustera edo bisitatzera etorri zen.

biskarre *(9)* : *(anat.)* sorbalda */ azka zan krima biskarreara (9):* altxa ezan zorroa sorbaldara.

bisusturte *(4)* : urte bisustu */ bisusturte batez (4):* urte bisustu batez.

bit- *(7, 8, 9, 10)* : bait- */ xin bitnaz (7):* etorri bainaiz. */ anitx euri egitan bitu (7):* anitz euri egiten baitu. */ bero egitan bitu (7):* bero egiten baitu. */ eskarrik anitx, xin bita ekustra (7):* eskerrik anitz, ikustera etorri baita. */ anitx xatan bizien, gero estomago minez (7):* anitz jaten baitzuen, gero urdaileko minez. */ egitan bidien bero (7):* bero egiten baitin. */ Maulen anitx onki [egon gintzian], entelegatan bigunien uskara (7):* Maulen oso ondo egon ginen, euskara ulertzen baikenuen. */ Erribran bizen kori, artzaieki (8):* Erriberan baitzen hori, artzaiekin. */ gizon bat juan zunien begi baten sendotra, min bizien begian (8):* gizon bat begi bat sendatzera joan zen, min baitzuen begian. */ aitagana juaitan nun, mendian bitago (9):* aitagana noan, mendian

baitago. */ [plaztan] gero beti luzatuk, mitilak ez biz[r]en erkitan dantzara (9):* plazan gero beti luzetsita, mutilak ez baitziren irteten dantzara. */ ez bitoker egin lan andirik (10):* ez baitezaket lan handirik egin. */ nik ez [dur] ezegunten, xar binaz (10):* nik ez dut ezagutuko, zaharra bainaiz. */ orai xin [dra] amaren ekustra, ekustan bitei xar nizala (10):* orain etorri dira ama ikustera, zaharra naizela ikusten baitute. */ il tiala gaztiak, gaixto bitra oro (10):* hil daitezela gazteak, gaiztoak baitira denak. */ lenao bizagon anitx asto eta zamari (10):* lehenago baitzegoen anitz asto eta zamari. */ orai xoan bar diar, ordia bitur xoaitako (10):* orain joan egin behar dut, joateko ordua baitut.

bitan *(5)* : bitan

bitarte *(10)* : *(anat.)* aurpegi OH. begitarte > bitarte.

bitartean *(5)* : bitartean */ kaur aurrek kantatan dei Uztarrotzen, eleak erran bitartean esku-xartaka (5):* hau haurrek kantatzen dute Uztarrozen, hitzak txaloka esan bitartean.

bitarteo 1 *(5)* : bitartean

bitarteo 2 *(5)* : bi artean

bitartio *(2, 3, 4, 7)* : bitartean */ mundu kontan gauden bitartio (2):* mundu honetan gauden bitartean. */ Herodes il zen bitartio [egon zen Jose Egipton] (3):* Herodes hil zen bitartean egon zen Jose Egipton. */ bitartio Herodes sobranio [irritatu zen] (3):* bitartean Herodes erabat haserretu zen. */ judiuak Babiloniara eraman izanik geroz, Kristo bitartio (3):* juduak Babiloniara eraman(ak) izan ezkero, Kristo bitartean. */ andi tiala bata eta berzia egitara bitartio (3):* handi daitezela bata eta bertzea egitara bitartean. */ bitartio Turpin apezkupu onak errezatan du (4):* bitartean Turpin apezpiku onak errezatzen du. */ bitartio ebili gaiza gaiztoreki (7):* bitartean ibili gauza gaiztoekin.

bitondo *(9)* : *(nek.)* bitondo, gari-pila (haizatu gabea) */ bitondoa (9):* bitondoa, gari-pila.

bitorrez *(4)* : garaile (adb.)

bitxi *(5)* : bitxi (bularrekoa)

bitxi-ondarreko *(5)* : bitxi-hondarreko OH. Bularreko bitxitik zintzilik jarritako apaingarria.

biurri 1 *(5)* : bihurri (bihurritua)

biurri 2 *(5)* : bihurri, maltzur

bixi *(4)* : bitxi */ bizi nazan tenpran onki bixi kostatruk izanen da (4):* bizi naizen denboran bitxi ongi kostatua izanen da (argazkia).

bixikarrotu *(4)* : bizkortu, suspertu

bixiko *(3)* : musu

bixiko emon *(3)* : musu eman */ nik bixiko emoitan duanari, kori da (3):* nik musu ematen diodana, hori da. */ bixiko emon zaun (3):* musu eman zion.

bixita *(2, 4)* : bisita */ erier bixiteta (2):* gaixoei bisita egitea. */ intenzionia dud bixita baten egiteko izaguntra (4):* bisita bat egiteko asmoa dut, ezagutzeko. */ guziuek estimatu zein orren alteko bixita (4):* guztiek estimatu zuten berorren aldeko bisita.

bixita egin *(4)* : bisita egin */ egin daud orren mertxedearen altez bixita apezari (4):* berorren partez bisita egin diot apezari.

bixitatu *(4)* : bisitatu */ erri konen bixitatako [intenzionia] (4):* herri hau bisitatzeko asmoa.

bixkar *(5, 10)* : *(geog.)* muino, bixkar (txikigarria)

bizar 1 *(4, 5, 6)* : bizar

bizar 2 *(2, 5)* : *(anat.)* kokots

bizar-kunkur *(5)* : *(anat.)* kokots-punta

bizarandi *(6)* : bizartsu

bizarreko bilo *(2)* : bizar

bizi 1 *(3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : bizi, bizitza */ zer xan erdeiteko kuidaduaz, mantenatako xen bizia (3):* zer jan aurkitzeko arduraz, zuen bizia mantentzeko. */ fan zte, zeren il baitra xa makinatan zeinak aurraren biziaren kontra (3):* zoaz, zeren jadanik hil baitira haurraren biziaren kontra jarduten zutenak. */ akaba ez deiteken bizia (3):* bukatu ezin den bizia. */ bizi gaxtotako gente anitx (3):* bizi txarreko jende anitz. */ bere biziaren emoitra [xin da] (3):* bere bizia ematera etorri da. */ biziz mutatia (3):* bizitzaz aldatzea. */ sekulako bizian [xinetstan dud] (4):* sekulako bizian sinesten dut. */ eztuk yire bizia izanen kain luze (4):* hire bizia ez duk hain luzea izango. */ korren bizia dun udan kanta eta kanta (4):* horren bizia dun udan kanta eta kanta. */ apezaren etsekoandre, ez dago bizi oberik (5):* apaizaren etxekoandre, ez dago bizi hoberik. */ bizi gaxtoareki bear du osagarria galtu (5):* bizi txarrarekin osasuna galdu behar du. */ ñore bizia [emoiten] baizur (5):* neure bizia ematen baitizut. */ ñabla bateki bizia gentu du (7):* labana batekin bizia kendu du. */ bizi luze bat (9):* bizi luze bat. */ bizi guzian nik izaguntu bi apez (10):* bizi osoan nik bi apaiz ezagutu (ditut). */ bizia triste ta gizonak anitx kontent (10):* bizia triste eta gizonak oso pozik.

bizi 2 *(2, 3, 5)* : bizi (adj.) */ fede bizi bateki [adoratzia] (2):* fede bizi batekin gurtzea. */ [sakramentiak], zoin baitrade bizienak (2):* bizienak diren sakramentuak (bizirik daudenenak). */ fede bizia eta fede ila (2):* fede bizia eta fede hila. */ ilen eta bizien juzgetra [xinen dela] (2):* hilak eta biziak epaitzera etorriko dela. */ jeinari ilez eta biziez otoi egitia (2):* jaunari hilez eta biziez otoitz egitea. */ jangeiko biziaren semia (3):* jaungoiko biziaren semea. */ kexu zrenak gatx eta dolore biziz (3):* kexu zirenak gaitz eta min biziz. */ indar bizi kaur egiten deinak (3):* indar bizi hau egiten dutenak. */ gaiza biziek ekusi eztiguna (4):* biziok ikusi ez dugun gauza. */ urtearen buruko obro xatan du ilak ezik biziak (5):* urtearen bururako gehiago jaten du hilak biziak baino. */ eskiuek eta biziek egiten tei iriak (5):* eskuek eta biziek egiten dituzte herriak.

bizi 3 *(4, 5)* : bizi (aditza) */ kemen irur eramu digu bizitako, kosetxa, zûra eta ardiak (4):* hemen hiru baliabide ditugu bizitzeko, uzta, zura eta ardiak. */ adexkiderik bage bizitea da orobat nola testigorik bage iltea (5):* adiskiderik gabe bizitzea lekukorik gabe hiltzea bezala da. */ xakuto bat ebiltako bortaz borta libosna eska, bizitako (5):* xakuto bat atez ate ibiltzeko limosna eske, bizitzeko.

bizi izan *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : bizi izan */ lurrian bizi grenek egin zagon (2):* lurrean bizi garenok egin dezagun. */ ama berjina non bizi zen ordian? (2):* ama birjina non bizi zen orduan? */ noiz bitartio biar dur bizi izan xekin? (3):* noiz arte bizi izan behar dut zuekin? */ Kristoren ama bizi izan zena gero? (3):* Kristoren ama bizi izan al zen gero? */ bizi izan bagintz giauren ait[aetam]en tenpran (3):* geure gurasoen denboran bizi izan bagina. */ bakian alkar bizi izan ditian (3):* bakean elkarrekin bizi izan daitezen. */ ez baitra bizi [keben] (3):* ez baitira hemen bizi. */ abisatruk, bizi izaitra [xin zen] (3):* abisaturik, bizi izatera etorri zen. */ ez solo ogiz bizi da gizona (3):* gizona ez da ogiz soilik bizi. */ [ene alaba] biziren tzu (3):* ene alaba biziko da. */ ungurunean ebastan yuanareki bizi yaz (4):* inguruan lapurtzen duanarekin bizi haiz. */ [bakian eta amorioan] bizi izaiteko, senar-emazte gisa (4):* bakean eta maitasunean bizi izateko, senar-emazteak bezala. */ bizi nazan tenpran (4):* bizi naizen denboran. */ sugarrestan, sugea gisa, bizi da gizon kori (5):* arrastaka, sugea bezala, bizi da gizon hori. */ kareki bordaltan bayaz, xunto bizi izanen gutun (5):* harekin ezkontzen bahaiz, elkarrekin bizi izango gaitun. */ barra eta beltzuria ez daizteke xunto bizi (5):* barrea eta beltzuria ez daitezke elkarrekin bizi.

/ non bizi zra? Izaban (7): non bizi zara? Izaban. */ [Uruñan] bizi zenian (7):* Iruñean bizi zenean. */ [Aragon] bizi nezu (9):* Aragoin bizi naiz. */ bizi izan balira kurak, betik egonen nindezun elerraitan eki (10):* haiek bizi izan balira, beti egonen nintzen haiekin hitz egiten. */ aber nola bizi ninden ni ortzik bage (10):* ea nola bizi nintzen ni hortzik gabe. */ nai noke bizi zomait urte obro (10):* zenbait urte gehiago bizi nahi nuke. */ bizi dia? (10):* bizi al da?

bizia erkin *(4)* : bizimodua atera, bizia atera */ anitxek bizia erkiten dei makila ketarik, ebaki ta saltan (4):* askok bizimodua ateratzen dute makila haietatik, ebaki eta salduz.

bizia gentu *(3)* : bizia kendu */ projimuari bizia gentan [dau]na (3):* lagun hurkoari bizia kentzen diona.

bizibide *(5)* : lanbide

bizigaillu *(5)* : elikagai(ak), bizigai(ak)

bizik *(10)* : bizirik */ bizik daude (10):* bizirik daude.

bizika *(5)* : pikor, pikorta (azalekoa)

bizikari *(5)* : biztanle

bizikarrotu 1 *(4)* : bizkortu, suspertu

bizikarrotu 2 *(5)* : ilea moztu (ardiei)

biziki *(5)* : biziki

bizikoi *(5)* : bizikor

bizimolde 1 *(3, 4, 5)* : bizimodu, bizimolde */ ezazei neur xen bizimoldia enarnaz (3):* ez ezazue neur zuen bizimoldea haienarenaz. */ karta kontan isartan daud balle kontako bizimoldiaz (4):* gutun honetan jartzen diot ibar honetako bizimodua.

bizimolde 2 *(5)* : lanbide OH. Iparraldean ere dokumentatua.

bizinai 1 *(5)* : bizizale

bizinai 2 *(5)* : aurreztaile

bizio *(3, 5)* : bizio */ zazpi bizio kuen kontra drade zazpi birtute (3):* zazpi bizio hauen aurka zazpi bertute dira. */ biziuen kausaz otzten da anitxen karitatia (3):* bizioen ondorioz askoren karitatea hoztuko da. */ aita lazoen umek ogi txiki eta anitx bizio (5):* aita laxoen umeek ogi gutxi eta bizio asko. */ yik bizio tuaneki (5):* hik dituan bizioekin.

bizirik *(2, 4, 6)* : bizirik */ iror orenez bizirik egon zela (2):* hiru orduz bizirik egon zela. */ [korostiaren] kaxalaz egiten dei beske txorien bizirik arrapatako (4):* gorostiaren azalaz lika egiten dute txoriak bizirik harrapatzeko. */ gizona bizirik [dago] (6):* gizona bizirik dago.

bizitarzun *(4)* : bizitasun */ [umen] aztako tenpra guziuan egon zen begireki, zoinek zion bizitarzun oberena (4):* umeak hazteko garaian adi egon zen, zeinek zuen bizitasun onena.

bizite *(3, 5)* : bizitza */ [bere bizitia Kafarnaunen] isartan du (3):* bere bizitza Kafarnaunen jartzen du.

bizitegi *(5)* : bizileku, bizitegi

bizitu *(2)* : bizitu */ ilen sakramentien medioz bizitu [biar du] (2):* hilen sakramentuen bidez, bizitu behar du (arimak).

bizitze *(2)* : bizitza */ bizitze fin bagian, bizitze fin gabean (2):* bizitza amaiera gabean.

bizkai *(5)* : mendi-mazela, hegal

bizkar 1 *(1, 2, 4, 5, 7, 8, 11)* : *(anat.)* bizkar */ [elurtiak] gizon guziuak gazka sukunetan, zankabizkarrak errerik (4):* elurteak gizon guztiak sutondoan gauzka, zango-bizkarrak erreta. */ bizkarrean zaman (5):* bizkarrean zeraman. */ bizkarra (8, 11):* bizkarra.

bizkar 2 *(1, 5)* : *(geog.)* bizkar */ bizkartza (1):* bizkartza, bizkar lekua. */ bizkar andia (1):* bizkar

handia. */ bizkartxo (5):* bizkartxo. */ bizkarrez bizkar (5):* bizkarrez bizkar.

bizkar 3 *(5, 11)* : *(erai.)* bizkar, gailur (teilatuarena) */ bizkarra (11):* (teilatuaren) gailurra.

bizkar-urri *(5)* : konkordun

bizkargune *(5)* : *(geog.)* muino, bizkar

bizkarki *(5, 11)* : *(suk.)* bizkarki

bizkarre *(9)* : *(anat.)* sorbalda */ bizkarreara (9):* sorbaldara.

bizkarregain *(7)* : *(anat.)* sorbalda */ bizkarregaina[k] (7):* sorbaldak.

bizkarrezur *(2, 4, 8, 10, 11)* : *(anat.)* bizkarrezur */ bizkarrezurra (10):* bizkarrezurra.

bizkarrêzur *(2)* : *(anat.)* bizkarrezur OH. ´Bizkarrenzur´ dokumentatua.

bizkarruts *(5)* : bizkarruts OH. Zaldi gainean zelarik gabe.

bizkartxo *(5)* : *(geog.)* muino, mendixka

bizkarxko *(5)* : *(geog.)* muino, mendixka

bizkor *(4, 11)* : bizkor (adj.) */ [ganu dud xakiteko] bizkor dagonez ama (4):* ama bizkor dagoen jakiteko gogoa dut.

bizkortu *(5)* : bizkortu (gorputzez)

bizpiror 1 *(8)* : bizpahiru */ bizpiror aldiz egon [nuzu] (8):* bizpahiru aldiz egon nauzu.

bizpiror 2 *(8)* : batzuk OH. Ikus ´bizpor 2´ sarrerako oharra.

bizpor 1 *(4, 5)* : bizpahiru */ tenpra digu euritsi, badu bizpor egun ez dela ixiltan odei marraka (4):* eguraldia euritsu dugu, badira bizpahiru egun ez dela trumoi hotsa isiltzen. OH. Ikus ´bizpor 2´ sarrera eta bertako oharra.

bizpor 2 *(4, 5, 7, 9)* : batzuk */ diolarik bizpor egun asi da apeza eskolara bilarazten egun oro (4):* duela egun batzuk apaiza (umeak) ikastetxera egunero bilarazten hasi da. */ bizpor abratsentako dra balleko ontarzun guziuak (4):* aberats batzuentzat dira ibarreko ontarzun guztiak. */ bizpor gizon, bizpor mazte, bizpor neskato (5):* gizon batzuk, emakume batzuk, neska batzuk. */ bizpor txakur (7):* txakur batzuk. */ burzegiak emon diztazu bizpor garrotekaldi (9):* nagusiak makilakada batzuk eman dizkit. */ bizpor xuan tun (9):* batzuk joan ditun. OH. Erronkaribarren ´bizpor´ literalki ´bizpahiru´ nahiz ´batzuk´ izan daiteke. Zaraitzun ´bizpur´ dokumentatua.

biztako *(5)* : *(zoo.)* txerrikume (esnekoa)

bizte 1 *(4)* : pizte

bizte 2 *(4)* : *(erl.)* piztuera */ aragiaren biztian [xinetstan dud] (4):* haragiaren piztueran sinesten dut.

biztitu *(10)* : jantzi

biztu 1 *(4, 7)* : piztu, berpiztu */ irurgarnen egunian biztu zen ilen artetik (4):* hirugarren egunean piztu zen hilen artetik.

biztu 2 *(5)* : sortu (umeak) */ aurra biztu zau (5):* haurra sortu du.

blanka *(5)* : *(zoo.)* bare OH. ´Baranka´ren aldaera.

bobo *(5)* : *(haur.)* logura

boboi *(2, 9)* : *(heg.)* urubi

boboî *(5)* : *(heg.)* hontz

bokazione *(3)* : bokazio */ Mateoren bokazionia (3):* Mateoren bokazioa.

bolan *(4, 5)* : hegan */ al banintza txori baten gisa bidajiak egin bolan (4):* txori baten gisa bidaiak hegan egin ahal banitu. */ obro balio du txori bat[ek] eskiuan ezik bi[k] bolan (5):* gehiago balio du txori batek eskuan, bik hegan baino. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

bolatu *(4, 5, 10)* : hegan egin */ bolatu dun (10):* hegan egin du. OH. Zaraitzun eta Aezkoan ere

dokumentatua.

boltsa *(5)* : poltsa */ etsea urrez, boltsa lurrez (5):* etxea urrez, poltsa lurrez.

bon-bon *(5)* : bon-bon */ dagonean bon-bon, eztagonean egon (5):* dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon.

bor-bor *(5)* : bor-bor (irakitearen onomatopeia) OH. Ikus ´borbelaka´ sarrerako adibidea.

borbelaka *(5)* : borborka (irakiten) */ ur erakiak egitan du ´pir-pir´ astan denean; ´bor-bor´ eta borbelaka anitx-anitx dagonean (5):* ur irakinak ´pir-pir´ egiten du hasten denean, ´bor-bor´ eta borborka asko-asko dagoenean.

borda 1 *(1, 3, 4, 7, 10, 11)* : *(erai.)* borda */ borda altea (1):* borda aldea. */ borda ederra (1):* borda ederra. */ borda errea (1):* borda errea. */ nor bere bordara [fan zen] (3):* nor bere bordara joan zen. */ etse edo borda egiteko, kemen txerkatan digu izeia (4):* etxeak edo bordak egiteko, hemen izeia bilatzen dugu. */ laur ilabete igari diezu bordan (7):* lau hilabete igaro ditu bordan. */ morroia bordara [biltu zeia], borda bat bizagon (10):* mutila bordara jaso zuten, borda bat baitzegoen. */ ene aita ilik [zagoa], kan bordan (10):* nire aita hilik zegoen, han bordan.

borda 2 *(5)* : *(nek.)* zaldi-saroi

bordalarazi *(3)* : ezkonarazi */ bordaltuz berak eta bordalarazten (3):* berak ezkonduz eta ezkonaraziz.

bordalaraztu *(5)* : ezkonarazi */ andre Farineta nai dei bordalaraztu gizon zar-zar bateki (5):* andre Farineta ezkonarazi nahi dute gizon zahar-zahar batekin.

bordalberri *(5)* : ezkonberri

bordalgarri *(5)* : ezkongai

bordalgei 1 *(5)* : ezkongai, andregai

bordalgei 2 *(5)* : ezkongai, senargai

bordalgu *(4)* : ezkontza */ irakatsiz gero, eitzi dei bordalgiua (4):* iragarri ezkero, ezkontza utzi egin dute. */ anitx alegratu nu dotore Brousainen bordalgiuak (4):* anitz poztu nau doktore Brousainen ezkontzak.

bordalsari *(5)* : ezkonsari (apaizari emana)

bordalte *(5)* : bordalde

bordaltu 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : ezkondu */ nola agitu zen andria bordal ledin? (2):* nola gertatu zen andrea ezkon ledin? */ zertako? bordaltako (2):* zertarako? ezkontzeko. */ bordaltan drenak (3):* ezkontzen direnak. */ zertako da bordaltako sakramentiua? (3):* zertarako da ezkontzeko sakramentua? */ Maria Joserekin bordaltruk [zegoen] (3):* Maria Joserekin ezkondurik zegoen. */ [berze emazte batekin] bordal baledi (3):* beste emazte batekin ezkonduko balitz. */ bordaltia (3):* ezkontzea. */ yik biar duk kalakoareki bordaltu (4):* hik halakoarekin ezkondu behar duk. */ erdaraz [erraiten daitad] konen amaseigarnian bordaltan dela (4):* (gutunean) erdaraz esaten dit (hil) honen hamaseigarrenean ezkontzen dela. */ eztud gogorik kareki bordaltako (4):* ez dut gogorik harekin ezkontzeko. */ badun ogeita borz urte eta bordaltu bear dun (5):* badun hogeita bost urte eta ezkondu behar dun. */ kareki bordaltan bayaz, xunto bizi izanen gutun (5):* harekin ezkontzen bahaiz, elkarrekin bizi izango gaitun. */ nai badun izan ene emazte, biak bordalten gutun (5):* ene emaztea izan nahi badun, biak ezkonduko gaitun. */ gitarrez erraiten digu bordaltako goreki (5):* gitarrez erraten dugu gurekin ezkontzeko. */ bordaltra [eltan bada] (5):* ezkontzera heltzen bada. */ alaba bat bordaltako orai (8):* alaba bat orain ezkontzeko. */ badiezu berrogeita bedratzu urte bordaltruk nagola (8):* badu berrogeita bederatzi urte ezkonduta nagoela. */ bordaltu dun (10):* ezkondu dun. */ bordaltako (10):* ezkontzeko. */ maztek eztakir*

zrenez bordaltuk ala zrenez neskato (10): emakumeak ez dakit ezkonduak ziren ala neskazaharrak ziren. OH. Ikus ´aur-ordez bordaltu´ sarrera.

bordaltu 2 *(2, 3)* : ezkondu (adj.) */ bordaltier grazia emoitako (2):* ezkonduei grazia emateko. */ bordaltiuer emoitako grazia (3):* ezkonduei grazia emateko.

borka *(5)* : txirikorda, zarta */ baratxuri-borka (5):* baratxuri-txirikorda.

borma *(1)* : *(erai.)* horma */ bormapea (1):* hormapea.

borogu *(5)* : froga

borontate *(2, 3, 4, 5, 7, 8)* : borondate */ egin bedi zore borontatea nola zeurian kala lurrean (2):* egin bedi zure borondatea nola zeruan hala lurrean. */ entelegia eta borontatia (2):* ulermena eta borondatea. */ egin deila zore borontatia nola zeurian kala lurrian (3):* egin dadila zure borondatea nola zeruan hala lurrean. */ ez nai ekutia berzen gaiza bere nausiaren borontatiaren kontra (3):* ez nahi izatea bertzeen gauza(k) bere nagusiaren borondatearen kontra. */ orrek eskribi beztad borontate dionian (4):* berorrek idatz biezat borondatea duenean. */ egin deila orren borontatia (4):* egin dadila berorren borondatea. */ borontate oneki [egin di[e]gu (7):* borondate onarekin egin dugu. */ borontatia (8):* borondatea.

borontate ekun *(4)* : borondatea izan, nahi izan */ xuntatan dra borontate [deinak] (4):* borondatea dutenak (nahi dutenak) elkartzen dira. OH. Orijinalean ´borontate dionak´.

borontatezko *(3)* : borondatezko */ berze biak borontatezkuak [dra] (3):* beste bi (agindu)ak borondatezkoak dira.

boronte *(2, 3, 4, 5, 7, 9)* : *(anat.)* kopeta */ borontean [krutxe egitan dugu] (2):* kopetan gurutzea egiten dugu. */ borontetik burarreara eskiaren iristea (2):* kopetatik bularrera eskua iristea. */ [krutxe baten egitea] borontetik biotzera (2):* gurutze bat egitea kopetatik bihotzera. */ zertako zeinatan zra borontian? (3):* zertarako zeinatzen zara kopetan? */ krutxe bat borontetik burarretraino (3):* gurutze bat kopetatik bularretaraino. */ boronte (sic) tokaten dau (4):* kopeta ukituko dio. */ bere krutxea borontean, debriak tenta etzan (5):* bere gurutzea kopetan, deabruak tenta ez zezan. */ borontea (7):* kopeta. */ boronte andi[a] (9):* kopeta handia. */ borontia (9):* kopeta.

borra *(5)* : ehun-ile, mihise-ile

borraiña *(5)* : *(bot.)* borraja

borro *(2, 4, 5, 8)* : *(zoo.)* ahari (urte batekoa) */ ein borro (8):* ehun ahari.

borroin *(5)* : *(bot.)* borraja

borrokaka 1 *(5)* : borrokan

borrokaka 2 *(5)* : gainazpika (borrokatzea) OH. Elkar lurrera botatzeko borroka.

borta *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(erai.)* ate */ borta zerratruk orazione egin zazu sekretuan (3):* atea itxita otoitz egin ezazu sekretuan. */ bortan dei zazei eta irikiren daizei (3):* atean dei ezazue eta irekiko zaizue. */ iburniko bortek ez deila prebaleziten (3):* infernuko ateak ez direla nagusituko. */ bortan [dagola] (3):* atean dagoela. */ [aretxak] materiala du anitx on borta egiteko (4):* haritzak oso material ona du ateak egiteko. */ bortan deitu zion (4):* atean deitu zuen. */ [zarrak] faiten emon zren gaztiak zauden etseko bortara (4):* zaharrak joaten omen ziren gazteak zeuden etxeko atera. */ emon dazan bortaz sudurrean (4):* emaion ateaz sudurrean. */ borta bat zerratan denean, berze bat [irikitan da] (5):* ate bat ixten denean, beste bat irekitzen da. */ uztupa su ondoan, peligroa borta-pasuran (5):* iztupa su ondoan, arriskua ate(ko) pasaeran. */ Paxkual, Antonio ezdeusa zore bortara eltu tzu (5):* Paxkual, Antonio ezdeusa zure atera heldu duzu (heldu da). */ iriki zazu borta, zerra zazu borta (7):* ireki ezazu atea, itxi ezazu atea. */ etse-borta*

gorri da (7): etxeko atea gorria da. */ etxeko bortak (7):* etxeko ateak. */ bortara [xitan denean], beti kantatan (7):* atera etortzen denean, beti kantatzen. */ bar dur orkitu bortan (8):* atean itxaron behar dut. */ xaix bazinte bortareino, gur nintezu lurriareino (8):* jaitsiko bazina ateraino, makurtuko nintzateke lurreraino. */ zerratu tzeia borta? (9):* itxi al duzue atea? */ ersi niezun borta (9):* atea itxi nuen.

bortabarne *(5)* : sarrera (etxekoa)

bortarri *(5)* : *(erai.)* ate-harri

bortaz borta *(5)* : atez ate */ xakuto bat ebiltako bortaz borta libosna eska, bizitako (5):* xakuto bat atez ate ibiltzeko limosna eske, bizitzeko.

bortt *(5)* : sasiko, bort

bortu *(4, 5, 7, 10)* : *(geog.)* bortu, goi-mendi, mortu */ bortuko ardiak San Pedroez gero [motxtan dra] (4):* bortuko ardiei San Pedro ezkero mozten zaie ilea. */ bortiua eta itxasoa ez dionak igari ez daki otoi egiten Jangeikoari (5):* bortua eta itsasoa ez dituenak igaro ez daki otoitz egiten jaungoikoari. */ bortua egari dud bi aldiz (7):* bortua bi aldiz igaro dut. */ bortian dago orai anix [elur] (10):* botuan orain anitz elur dago. */ txoriak karrikan elurra bortian (10):* txoriak karrikan elurra bortuan.

bortuztatu *(5)* : bortuztatu OH. Ganadua denboraldi batez bortuan egotea.

bortxa *(3, 5)* : bortxaz */ eramanarazten daizunari bortxa kargatruk milla urratsez, fan zte arekin berze bi millaz (3):* bortxaz kargaturik mila urratsez eramanarazten dizunarekin, joan zaitez beste bi milaz. */ ongatx daude aurten aranak, bortxa ontan dra (5):* heldugabe daude aurten aranak, bortxaz heltzen dira. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

bortxaz *(5)* : bortxaz

bortxu *(5)* : bortxa, bortxakeria

bortz *(5)* : bost, bortz

bortzein *(5)* : bostehun, bortzehun

borz *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : bost, bortz */ borz drade elizaren mandamentu saintiak (2):* bost dira elizaren agindu santuak. */ elizaren borzak (2):* elizaren bostak (bost aginduak). */ berze borzek [grazia emoitan daiguei] (2):* beste bost (sakramentu)ek grazia ematen digute. */ borz ogien milagrua (3):* bost ogien miraria. */ badu borz ilabete fan zitzaikugula maistroa (4):* badu bortz hilabete maisua joan zitzaigula. */ ogeita borz (4, 5):* hogeita bost. */ borz pezeta [erdeitan batzu] (9):* bost pezeta aurkitzen badituzu.

borz-zaintako *(4)* : *(bot.)* zainbelar, plantain */ borz-zaintakoa (4):* zainbelarra, plantaina.

borzain-belar *(5)* : *(bot.)* zain-belar, plantain

borzainetako belar *(5)* : *(bot.)* zainbelar, plantain

borzein *(8)* : bostehun, bortzehun

borzgarnen *(3, 4, 7)* : bosgarren, borzgarren */ borzgarnen kapitulua (3):* bosgarren kapitulua. */ borzgarnen gloria (4):* bosgarren aintza. */ konen borzgarneko karta (4):* (hil) honen bosgarreneko gutuna. */ [ilabete] konen borzgarnian (4):* hil honen bosgarrenean. */ borzgarnen ikasgei[a] (7):* borzgarren ikasgaia.

borzgarren *(2, 3, 10)* : bosgarren, borzgarren */ zoin da borzgarren [artiklua]? (2):* zein da bosgarren artikulua? */ borzgarna (2, 3):* bosgarrena. */ borzgarna keben, irian (10):* bosgarrena (alaba) hemen, herrian.

borzna *(4)* : bosna, borzna */ borzna eta erdi [pezeta irabazen dei] (4):* bosna eta erdi pezeta irabaziko dute.

borztan *(4, 5)* : bostetan, bortzetan (askotan) */ borztan guartan naz ortaz (4):* bostetan oroitzen naiz berorretaz.

bosgarren *(9)* : bosgarren, borzgarren */ ogeita bosgarnian (9):* hogeita bosgarrenean.

bost *(5, 8, 10)* : bost, bortz */ bost urtez espartiñak xostan (8):* bost urtez espartinak josten. */ irorogeita bost (8):* hirurogeita bost. */ orai ez rebañorik batre, laur edo bost beizik (10):* orain artalderik batere ez (dago), lau edo bost baizik. */ orai nuzu bost alabareki eta bi seme (10):* orain nauzu bost alabarekin eta bi seme(rekin). */ bostak [dra] (10):* bostak dira (ordua).

bostan *(5)* : bostetan, bortzetan (askotan) */ obro ezik bostan (5):* bostetan baino gehiagotan. */ bostan egon gara (5):* bostetan egon gara.

bostarrika *(5)* : bost-harrika (nesken jokoa)

bostein *(5, 8)* : bostehun, bortzehun

botana *(5)* : adabaki (zahato eta zahagiena)

bote 1 *(5)* : *(bot.)* ernamuin

bote 2 *(5)* : bote, punpa

bote 3 *(5)* : ale-ilara (galburukoa) OH. Azkuek ´bi, hiru, lau edo bost aleko ilara galburuan´ oharrarekin dokumentatua.

botiga *(4)* : *(erai.)* botika (denda) */ eskerrak botigako mereziner; kek sontotu nei (4):* eskerrak botikako medizinei; haiek sendatu naute.

boto *(3)* : *(erl.)* boto */ zeuri[aren] amodioz kastidadeko botoarekin (3):* zeruaren amodioz kastitate botoarekin.

botoi-txotx *(5)* : hari-botoi OH. Hariz egindako botoia.

botoin *(5)* : *(bot.)* ernamuin

bottakin *(5)* : okada, goitika

botxaska *(1, 11)* : *(geog.)* amildegitxo; mendilepo OH. ´Botxe´ edo ´botxu´ (= amildegia) hitzaren txikigarria. Ikus Nafarroako Gobernua 36. or. Bestetik, Aznarezek ´mendilepo´ esanahiarekin dokumentatua.

botxe 1 *(5, 11)* : *(geog.)* amildegi */ botxe da larrubide edo erorgu andiena, pikarra bigarrena, turrunberoa ñoago (5):* ´botxe´ amildegi edo amiltoki handiena da, ´pikarra´ bigarrena eta ´turrunbero´ txikiagoa.

botxe 2 *(5)* : *(zoo.)* astakume

botxi *(5)* : haitz, harkaitz

botz 1 *(5)* : poz

botz 2 *(5)* : pozik */ botz ñok (5):* pozik nagok.

botzik *(5)* : pozik

boxo *(5)* : ahoko (txahal edo txerrikumeena) OH. Txahalei edo txerrikumeei amaren titia kentzeko ahokoa.

boz *(7)* : ahots */ eztei entzutan ene boza (7):* ez dute entzuten ene ahotsa. */ ez diar kantaten, ez beitiar bozik (7):* ez diat kantatuko, ez baitiat ahotsik.

bozkari *(5)* : pozik, alai

bozkariatu *(7)* : poztu

bozkario *(4, 5)* : poz, bozkario */ bozkario batek artan nu orren letrak ekustan duan aldi oroz (4):* poz batek hartzen nau berorren letrak ikusten ditudan aldi oro. */ bozkario emoiten [dei arrotzek], faten drenean (5):* poz ematen dute arrotzek, joaten direnean.

boztari *(5)* : pozik, alai

boztario *(3, 4)* : poz, bozkario */ boztario artu nionak ez nu eiztan konxabatra, eskribitu bage (4):* hartu nuen pozak ez dit lasaitzen uzten, idatzi gabe. */ boztario ekun nionaz, besarkatu nion (4):* eduki nuen pozaz, besarkatu egin nuen. */ orren balle kontra xitiaren boztarioak naka airian (4):* ibar honetara(ko) berorren etorreraren pozak airean nauka.

boztu *(5)* : poztu

brogatu *(4)* : ezabatu */ broga zazu ene gaxtotarzuna (4):* ezaba ezazu ene gaiztotasuna. */ broga tzazu ñore gaxtakeria guziuak (4):* ezaba itzazu neure gaiztakeria guztiak.

brotoin *(4)* : *(bot.)* kimu */ urrutx zarrak ebaki, eta brotoin eta izorrek (sic) egoxten teinak ebakitan dra (4):* hurritza ebaki eta, kimuak eta sustraiak ateratzen zaizkienak ebakitzen dira.

brullo *(8, 9)* : gaztanbera */ brulloa (9):* gaztanbera.

brumo *(11)* : *(bot.)* azaburu

brusa *(10)* : brusa

budar *(5, 8, 10)* : *(anat.)* bular */ budarra (8, 10):* bularra. */ budar bat badiar anitx kargatuk (10):* bular bat oso kargaturik daukat. */ enplastua budarrean [izartan gunia] (10):* txaplata bularrean jartzen genuen. */ budarrarentako (10):* (lurrun beroa) bularrerako.

budar-aizpa *(5)* : bular-ahizpa */ budar-aizpak (5):* bular-ahizpak.

budar-anaia *(5)* : bular-anaia */ budar-anaiak (5):* bular-anaiak.

budin 1 *(5)* : *(suk.)* budin, flan

budin 2 *(5)* : budin (neurria) OH. 90 kilo inguruko kare neurria. Edo 29 kilo inguruko ale neurria.

budun *(5)* : budin (neurria) OH. Ikus ´budin 2´ sarrerako oharra.

buelta egin *(10)* : buelta egin */ ta kor, zubian, egitan zei buelta [prozesionian] (10):* eta hor, zubian, buelta egiten zuten prozesioan.

buelta emon *(3, 10)* : buelta eman */ [Jesus] gaiten zen buelta emoitan Galilea guzutik (3):* Jesus buelta emanez (eginez) zihoan Galilea osotik. */ kor emoitan zeia buelta (10):* hor buelta ematen zuten.

bueltatu *(3, 10)* : itzuli */ errezibitu baikoz lotan abiso bat zeuritik, bere[n] erriara bueltatu zren (3):* zerutik abisu bat lotan jaso bezain laster, beren herrira itzuli ziren. */ bueltaten naz ñore etse erkin nazaniara (3):* atera naizen neure etxera itzuliko naiz. */ zubutik bueltatan d[u]zu prozesionea goradraino (10):* zubitik itzultzen da prozesioa goraino.

bukata *(4, 5, 7, 10)* : lixiba, bokata (arropa garbiketa) */ Santo Tomas, bukata egin eta ogia nas (5):* San Tomas, lixiba egin eta ogia nahas (oratu). */ ene gaztezaroan bukata [egitan gunian autsaki] (7):* nire gaztaroan lixiba egiten genuen errautsarekin.

bukata egin *(4)* : lixiba egin */ emaztek bukata egiteko [autsa nastekatan dei] (4):* emakumeek lixiba egiteko errautsa nahasten dute.

bukata-ikuzle *(5)* : lixiba-garbitzaile

bular *(5, 7)* : *(anat.)* bular */ lein oputzean belain gainera, bigarren oputzean gerruntziara, irorgarrenean bularrera, azkenekotz soin gainera (5):* lehen ahaleginean belaun gainera, bigarrenean gerrira, hirugarrenean bularrera, azkenekoz sorbalda gainera. */ bularran ditiegu birikak (7):* bularrean birikak ditugu.

bulardun *(7)* : ugaztun */ [zamari]ak dra bulardunak (7):* zamariak ugaztunak dira.

bularretik egon *(5)* : bularretik egon, tisiko egon

bularretiko *(5)* : *(med.)* bularretiko, tisiko

buldarrain *(10)* : *(bot.)* kardu (mota bat) */ sartu nun buldarrain batan, eta sartu dun zankuetan et´oro, ezpartiñetan et´oro (10):* kardu batean sartu naun, eta oinetan eta dena sartu dun,

espartinetan eta dena.

bulka *(5)* : bultzada

bulkatu *(5, 8, 10)* : bultzatu */ bulkatu dien (10):* bultzatu din.

bulkiuak emon *(5)* : burutapena izan, ideia izan */ bulkiuak emon daitad karta korren eskribitea uskaraz (4):* euskaraz gutun hori idazteko burutapena izan dut.

bulko 1 *(5)* : burutapen, ideia

bulko 2 *(11)* : gutizia, guraria

bulku *(4, 5)* : burutapen, ideia

bultz egin *(7)* : bultz egin

bulur 1 *(5)* : suminkor

bulur 2 *(5)* : adar-lotura

bulur 3 *(5)* : uztarri-arte OH. Azkuek ´uztarriaren tarte zirkularra´ esanahiarekin dokumentatua.

bulurgo *(5)* : sumindura, haserre

bulurrandi *(5)* : seriokote, oso serio

buluzainki *(11)* : itzulipurdi OH. ´Buluzanki, buluzinki, bustainki´ aldaerak ere dokumentaturik.

bulzu *(5)* : *(geog.)* ur-jauzi

bullur *(9)* : bilorta (adarrezko lotura) */ bullura (9):* bilorta. OH. Hurritz-adarrezko lotura, almadien lema lotzekoa.

bullurta *(5, 9)* : bilorta (adarrezko lotura) OH. Hurritz-adarrezko lotura, almadien lema lotzekoa.

bunatu *(3, 5, 7, 11)* : ernamuindu */ [aziak] bertan bunatu zren, lurra arin zegolakoz (3):* haziak berehala ernamuindu ziren, lurra arin zegoelako.

buno *(5)* : *(bot.)* ernamuin

bup *(4)* : *(anat.)* masail

bur-bur-bur 1 *(5)* : bor-bor (irakitearen onomatopeia)

bur-bur-bur 2 *(5)* : bur-bur-bur (aurpegia garbitzearen onomatopeia)

burar 1 *(2, 3, 4, 5, 9)* : *(anat.)* bular */ bigarna burarretan [egitea] (2):* bigarren (gurutze)a bularrean egitea. */ irurgarna burarretan (3):* hirugarren (gurutze)a bularrean. */ krutxe bat borontetik burarretraino (3):* gurutze bat kopetatik bularreraino. */ lore urareki nastekatruk [edan eta] laxatan dra burarrak (4):* lore(a) urarekin nahasirik edan eta bularra laxatzen da. */ non tu burarreko gizenkiak? (4):* non ditu bularreko gizenkiak? */ burarra (4, 9):* bularra.

burar 2 *(5)* : uher (ura) */ ugaltea burar xastan duk, nonbait euri egin dik (5):* ibaia uher jaisten duk, nonbait euria egin dik.

burar min *(8, 9)* : bularreko min

burarre *(2)* : *(anat.)* bular */ borontetik burarreara eskiaren iristea (2):* kopetatik bularrera eskua iristea.

burarxilo *(5)* : *(alb.)* azal-hantura OH. Ganaduari azalean sortzen zaion hantura, barruan har bat dagoelako.

burarzilo *(5)* : *(alb.)* azal-hantura OH. Ikus ´burarxilo´ sarrerako oharra.

burbula *(5)* : burbuila

burbullu *(5, 11)* : ur-zirimola, ur-nahasi (uharrekoa) OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian ´burbullon´ forman dokumentatua, ´ur burbuila´ esanahiarekin.

burbuñoka *(5)* : burua mugituz OH. Zahardadeak eraginda (perlesiaz edo) nahiz bestela.

burbuza *(5)* : *(bot.)* gurbitz

burdulukatu 1 *(4)* : nahasi (orea, salda lodia denean)

burdulukatu 2 *(4)* : iraulkatu (txerriak lokatzetan)
burenegu *(7)* : burko (ohekoa) */ koltxa ta burenegua dra anitx bella (7):* koltxoia eta burkoa oso bigunak dira.
Burgi *(4, 7, 9)* : *(geog.)* Burgi */ Burgirik [xin nun] (9):* Burgitik etorri naun.
burgiar *(7, 9)* : burgiar */ koriek burgiar [dra] (7):* horiek burgiarrak dira. */ burgiarrak (9):* burgiarrak.
burgoi *(5)* : hantuste, burgoi
buria galtu *(10)* : *(psk.)* burua galdu */ buria galtu, [xuan] zenian bere zeriara (10):* burua galdu, bere zerura joan zenean. */ buria galtan, elez, anitx (10):* burua galtzen, hitzez, anitz.
burkide *(5)* : burkide
burkila *(5)* : goru
burkilla *(11)* : goru
burkuila 1 *(5)* : goru */ burkuilaz urutan dena zukuna da (5):* goruaz iruten dena irazkia da.
burkuila 2 *(5)* : argimutil (aste santukoa) OH. Hiruki formako 15 kandelako argimutila omen da.
burkulla *(10)* : goru */ bidan burkulla urun zadan (10):* emadan gorua irun dezadan.
burña *(2, 5, 9)* : *(meta.)* burdina */ aroztegian butz egin zak lein ezik burña ar (5):* erramenterian putz egin ezak burdina hartu baino lehen. */ burña gori bat (9):* burdina gori bat.
burñazali *(5)* : zali, burruntzali
burñia *(11)* : *(meta.)* burdina
burrufa *(5)* : gutxiespen, mespretxu
burrufada *(5)* : purrustada, marmar
burrunba 1 *(5)* : burrunba
burrunba 2 *(5, 11)* : haserre (pertsona) OH. Azkuek ´gizon haserrea´ oharrarekin dokumentatua. Aznarezek ´burrunbla´ eta ´barranbla´ ere dokumentatuak.
burrunblada *(5, 11)* : purrustada, marmar
burrunburutu *(5)* : zorabiatu, burtxoratu
burrundaka *(5)* : burrunbaka */ e[z]kila burrundaka ari da xei aintzin egunean (5):* kanpaia burrunbaka ari da jai aurreko egunean.
burruntu *(7)* : gaitzetsi */ ardi on batek bein ere ez dien burruntan bere [umea] (7):* ardi on batek behin ere ez din gaitzesten bere umea.
burruntzaki *(5)* : albo-kuxin OH. Emakumeek alboetan jartzen zuten kuxina, beren gonazpikoari eusteko.
burruñ-ur *(5)* : burdin-ur */ burruñ-ura (5):* burdin-ura.
burruña *(5, 6, 8, 9, 10)* : *(meta.)* burdina */ burruña-ziri[a] (5):* burdinazko ziria. */ oraigunian erosi zeia burruñak (10):* duela gutxi erosi zituzten (?) burdinak.
burruskil *(11)* : *(nek.)* artegi OH. Arkumeak ama gabe edukitzeko artegi berezia.
burruskilla *(5)* : *(nek.)* artegi OH. Arkumeak ama gabe edukitzeko artegi berezia.
burrustada *(5)* : purrustada, marmar
buru 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10, 11)* : *(anat.)* buru */ burua, buria (1):* burua. */ buruxuri (1):* buruxuri. */ buruia (1lm):* burua. */ buru, burioa (2):* buru, burua. */ xaurien buruko biluak ere kontatruk [daude] (3):* zeuen buruko ileak ere zenbaturik daude. */ bazion aspaldixko, bi pensamentu nazkala buriuan sartruk (4):* bazuen aspalditxo, bi pentsamendu neuzkala buruan sarturik. */ kaskuts erraiten digu gixon buru arinxka bati (5):* txoriburu esaten dugu gixon buruarin bat. */ burua bi bearrien artean ezarri (5):* burua bi belarrien artean ezarri (= norbait

zuzendu). */ bururik eztagon lekian zankorik ez (5):* bururik ez dagoen lekuan zangorik ez. */ txakurraren burua (buria) (7):* txakurraren burua. */ buruan (burian) diegu biloa (7):* buruan ilea dugu. */ gizon [konek] du odola burian (8):* gizon honek odola buruan du. */ kau tzu buria, kau tzu burea (9):* hau duzu burua. */ buruxuri (11):* buru zuri(a).

buru 2 *(2, 3)* : buru, nagusi */ nor da kongregazione konen buria? (2):* nor da kongregazio honen burua? */ kristiaî guziuen kongregazionia, zoinen buriua baita aita saintiua (3):* kristau guztien kongregazioa, zeinaren burua aita santua baita.

buru 3 *(1, 11)* : buru, goialde */ zabal burua (1):* zabal burua, zabaltza goialdea. */ torreburua, torreburieta (1):* dorre buru eta. */ guruburuia (1lm):* guru (?) goialdea. */ axpuria (11):* haitz burua. OH. ´Guruburuia´ leku izenaren lehen osagaiaz ikus Lopez-Mugartza, 407. or.

buru 4 *(2, 3, 5)* : buru (norbera) */ gore lagunaren [estimatako] giauren buria bikala (2):* gure laguna maitatzeko geure burua bezala. */ ñauren lagun guzioak [estimetan dutud] ñauren burioa bikala (2):* neure lagun guztiak estimatzen ditut neure burua bezala. */ barurtan tziuanian konpoîn zazu zore buriua (3):* barau egiten duzunean konpon ezazu zeure burua. */ baia fabrikatan zein bapanak bere buriuarekin (3):* baina bakoitzak bere buruarekin hitz egiten zuten. */ gore projimuak [moite ekutia] giauren buriua bikala (3):* gure lagun hurkoa maite izatea geure burua bezala. */ zomat buru kainbat gisa (5):* zenbat buru hainbat modu.

buru min *(4, 5, 7, 9, 10)* : buruko min */ eztud buru min bat eta ez eztul bat ekun (4):* ez dut buruko min bat eta ez eztul bat eduki. */ xostan badei, buru min (5):* josten badute, buruko mina. */ buru min ekun dur (7):* buruko mina izan dut. OH. Erronkari-Zaraitzuetan oso ohikoa da egitura hauek -ko atzizkia gabe eratzea.

buru-betezale *(5)* : bazter-nahastaile

buru-tximur *(5)* : buruxka-zimur

buruak emon *(5)* : bururatu

buruarat eman *(5)* : iruditu */ buruarat eman daitad gaur euria egin bear diola (5):* iruditu egin zait gaur euria egin behar duela.

buruas *(5)* : buruhas (burua estali gabe)

burubage *(5)* : burugabe

burubeltx *(5)* : burubeltx (txikigarria) */ gatu burubeltxak xan (5):* katu burubeltxak jan (du).

burudun *(5)* : zentzudun (pertsona)

buruezur *(5)* : *(anat.)* garezur, burezur

burugoi *(5)* : burgoi, hantuste

burugur *(5)* : burumakur

buruka *(3, 5)* : *(bot.)* buruxka (galburua) */ diszipuluak zeilarik gose, asi zren buruka biltan eta granuen xaten (3):* ikasleak, gosea zeukatela, buruxkak biltzen hasi ziren eta aleak jaten. */ garia lastotan eta buruka erkin puntiuan [zagolarik] (3):* garia lastotan eta buruxka ateratzeko puntuan zegoenean. OH. Azkuek ´uzta bildu ondoren alorrean geratzen diren buruxkak´ oharrarekin dokumentatua.

burukal *(5)* : buruko, bakoitzeko (hainbeste)

burukaldika *(5)* : burukaldika (abere borroka)

burukasta *(5)* : *(nek.)* labore-hondar OH. Azkuek ´gari, arto, mahats etabarren hondarrak´ esanahiarekin dokumentatua.

buruko *(5, 11)* : buruko (zapia)

burullo *(7, 9)* : gaztanbera

buruments *(5)* : ergel, tentel, memelo
burumo *(4)* : *(bot.)* azaburu
burumotx *(5)* : artaburu (azal gabea)
burumoztu *(5)* : ilea moztu
buruna *(5)* : ernamuin (zekaleena)
burunatu *(5)* : ernamuindu (garia) */ garia burunatan duk orai (5):* garia orain ernamuintzen da.
burunegi *(5, 10)* : burko (ohekoa) */ burunegia (10):* burkoa.
bururas *(5)* : buru hutsik (txapelik gabe)
burute *(5, 9, 10, 11)* : burute */ [bi] burute, burutia (9, 10):* bi burute, burutea. OH. Buru gainean gauzak eramatekoa.
burutik galdu *(5)* : eldarnioak izan, eldarniatu
burutikaldi *(5)* : zuhurtziagabe; zoro
burutxola *(5)* : buruarin, txoriburu
burutxut *(5)* : buruxut (alerik gabeko galburua)
buruxuri *(1, 11)* : buruzuri
buruz *(5)* : ondoren */ xinez buruz (5):* etorri ondoren.
buruz buru *(5)* : banan-banan
buruz peara *(10)* : buruz behera */ buruz peara erori dun (10):* buruz behera erori dun.
buruzagi *(5)* : buruzagi
buruzagisa *(5)* : buruzagi (andrea)
buruzagitu *(5)* : nagusitu, buruzagitu
buruzgaiñ *(5)* : buru gainetik (buelta eman)
buruzki *(5)* : burugogor, temati
buruzpiko *(10)* : buruz behera */ zomait aldiz, zomait [gizon] ere bai buruzpiko [erori zren] (10):* zenbait aldiz, zenbait gizon ere buruz behera erori ziren (almadietatik).
burzagi *(5, 9)* : buruzagi, nagusi */ burzagi bat, burzagia (9):* buruzagi bat, buruzagia.
burzegi *(5, 7, 8, 9, 10)* : buruzagi, nagusi */ burzegia nonko, askaziak kanko (5):* buruzagia nongo, senideak hango. */ burzegia eta etxekoanderea xin dra (7):* buruzagia (nagusia) eta etxekoandrea etorri dira. */ burzegia (8):* buruzagia. */ burzegiak emon diztazu bizpor garrotekaldi (9):* nagusiak makilakada batzuk eman dizkit. */ burzegia (10):* nagusia.
burzegitu *(5)* : nagusitu, buruzagitu
bustegi *(5, 7, 8)* : buruzagi, nagusi */ Urzainkiko mestara urtean bi aldiz bustegi bageko ardiak eragutan tei (5):* Urzainkiko mestara urtean bi aldiz nagusi gabeko ardiak ekartzen dituzte. */ bustegia (7):* buruzagia. */ gore bustegiak [egitan zian] (7):* gure buruzagiak egiten zinan. */ bustegia ta etxekuandria [xinen bitra] (8):* nagusia eta etxekoandrea etorriko baitira.
bustei *(9)* : buruzagi, nagusi */ erran zan non dagon busteia (9):* esan ezan non dagoen buruzagia. */ busteiak eman ditan olastaldi bat (9):* nagusiak jipoi bat eman dit.
busti 1 *(3, 4, 7, 8, 9)* : busti */ batek esponja bat busti zion ozpinian (3):* batek belaki bat busti zuen ozpinetan. */ eskiua [sartu] platerian ogia bustitako (3):* eskua sartu platerean ogia bustitzeko. */ [izeiak] bustirik izaintan du lerrezko koralak bikainbat (4):* izeiak bustirik pinuaren enbor-muinak bezainbat irauten du. */ bustiren nuzu eta izanen nuzu xaîtruk (4):* bustiko nauzu eta garbitua izanen naiz. */ bustiren gra (7):* bustiko gara. */ lurrak bustirik [daude] (7):* lurrak bustirik daude. */ biar euriari egonen dun ta eltzia bustiren dun (9):* bihar euria eginen dun eta eultzia bustiko dun.

busti 2 *(11)* : *(suk.)* busti (zopa mota bat)
busti-idor *(5)* : *(met.)* busti-lehor OH. Udako busti eta lehor aldiak, euria eginez eta ez eginez.
bustialdi *(5)* : xaboialdi (arropa garbitzekoa)
bustikoi *(11)* : zapi, zatar (sukaldekoa) */ bustikoi[a] (11):* (sukaldeko) zapia.
bustikoî 1 *(5)* : ipitz, espartzu (garbiketakoa)
bustikoî 2 *(5)* : belaun-zapi (sukaldekoa)
bustikoin *(5)* : arropa busti(ak)
bustitu *(7)* : busti
butu! *(5)* : ixo!
bututu! *(5)* : ixo!
butz 1 *(3, 4)* : putz
butz 2 *(5)* : putz (puzker mota)
butz egin *(3, 5, 7, 9)* : putz egin */ butz egin zien airek (3):* putz egin zuten haizeek. */ aroztegian butz egin zak lein ezik burña ar (5):* sutegian putz egin ezak burdina hartu baino lehen.
buzka *(5)* : puzka */ aizea buzka dabila (5):* haizea puzka dabil. */ buzka lotan dra lerrargiak (5):* puzka itzaltzen dira lerrargiak.
buztan 1 *(2, 5, 7, 8, 10)* : buztan */ txakurrak buztana ogiagatik erabiltan du (5):* txakurrak buztana ogiagatik erabiltzen du. */ [zezenek] buztan llabur [dei] (7):* zezenek buztan laburra dute. */ txakurraren buztana luze [dun] (7):* txakurraren buztana luzea dun. */ buztana (10):* buztana.
buztan 2 *(2)* : *(lag.)* buztan, zakil
buztan-motz *(5)* : buztan-motz
buztangaiñ *(5)* : buztangain (ganaduarena)
buztanluxe *(5)* : *(bot.)* iraka
buztanotx *(2, 5)* : *(zoo.)* urtxintxa, katagorri
buztanpeko *(5)* : buztanpeko (zamarien uhal mota)
buztarri 1 *(5)* : *(nek.)* uztarri
buztarri 2 *(5)* : ezkontza-belo
buztegi *(9)* : buruzagi, nagusi
buztin *(2)* : buztin
buztun *(5, 10)* : buztin */ buztun lur[ra] (5):* buztin lurra.
buztun-lur *(5)* : buztin-lur
buztundoi *(5)* : buztin leku */ buztundoi[a] (5):* buztin lekua.
buzuntz *(5)* : *(bot.)* lertxun OH. Zuberoan ´burzuntz´ dokumentatua.

D

da *(5)* : eta */ gaur da biar (5):* gaur (gauean) eta bihar.

dagoan *(7)* : datorren, heldu den */ dagoan urtean eginen diegu (7):* datorren urtean egingo dugu. */ agur jeinak, dagoan urte artio (7):* agur jaunak, datorren urtea arte.

daigun *(4)* : datorren, heldu den */ daigun udan xinen [da] kona (4):* datorren udan etorriko da hona. */ daigun aprilian edo maiatzian berantena (4):* datorren jorrailean edo lorailean beranduena. */ daigun ilabeteko kartan (4):* datorren hilabeteko gutunean. OH. Zaraitzun ´dagun´ dokumentatua. Ikus ´dagoan´ sarrera.

daillarri *(5)* : *(nek.)* sega-harri OH. Sega zorrozteko harria.

daillu *(5)* : *(nek.)* igitai

daldal 1 *(5)* : dardara

daldal 2 *(5)* : dardaraka

daldara *(5)* : dardara

dalitu *(5)* : ekin; tematu */ dalituz dalituz, emonez (5):* ekinez ekinez, emanez.

damu 1 *(3)* : kalte */ birjinidadiaren damurik bage [erkin zen Mariaren sabeletik] (3):* birjintasunaren kalterik gabe atera zen Mariaren sabeletik.

damu 2 *(5)* : atsekabe, nahigabe

damu egin *(3)* : kalte egin */ zonbati gisatra egitan damu projimuari (3):* zenbait modutan kalte egiten lagun hurkoari. */ kontan damu egitan dei (3):* honetan kalte egiten dute. */ satisfakzione emoitako projimuari, damu egin dabein guziuetaz (3):* lagun hurkoa pozik uzteko, egin dioten kalte guztiagatik.

damugarri *(5)* : kaltegarri

danda *(5)* : danda, kanpai-hots

dandaka *(5)* : dandaka, kanpai-hoska

dandan *(5)* : kanpaitxo, txilin

dangada *(5)* : danda, kanpai-hots

-danik *(4)* : -rengandik */ Luis Luziano Bonapartedanik badud bi erretrato onki guardatruk (4):* Luis Luziano Bonapartegandik baditut bi argazki ongi gorderik.

dantza *(5, 8, 9, 10, 11)* : dantza */ nolako soiñua, kalako dantza (5):* nolako soinua, halako dantza. */ dantzara (8):* dantzara. */ gore gaztegoan zer kontent ginden San Joan egunean dantzara xuaitako (9):* gure gaztaroan zer pozik ginen San Joan egunean dantzara joateko. */ xarrek ez [zein egitan] dantza korik (10):* zaharrek ez zituzten egiten dantza horiek. */ ttunttuna, oraiko dantzak mino ederrago (10):* tuntuna(rekin), oraingo dantzak baino ederragoa. */ karrikadantza (11):* karrikadantza.

dantza-sari *(5)* : dantza-sari OH. Dantzarientzako ordaina.

dantzalari *(5)* : *(jos.)* kuku-sagar (jostailu moduan hartua)

dantzari 1 *(5, 9)* : dantzari */ oillo gosea kantari, neska gosea dantzari (5):* oilo gosea kantari, neska gosea dantzari.

dantzari 2 *(5)* : *(jos.)* ziba

dantzatu *(5, 7, 9)* : dantzatu */ plaztara prisaka txuntxunean dantzatra [xuaitako] (9):* plazara presaka tuntunean dantzatzera joateko. */ ezan erran euri´re dantzatu girela plaztan (9):* ez iezaion inori erran plazan dantzatu garela. */ bekatu dia dantzatia mitileki? bai, bekatu da (9):*

bekatu al da mutilekin dantzatzea? bai, bekatu da. */ dantzatan gindenian, guziak ungurian (9):* dantzatzen ginenean, guztiak inguruan. */ orai eburnian gaure dantzatiagatik (9):* orain infernuan geure dantzatzeagatik. OH. Azkuek ´iragangaitza´ oharrarekin dokumentatua. Ikus ´danzatu´ sarrera eta bertako adibidea.

danzatu *(4)* : dantzatu */ aurrak eta emazteak danzatan dra Ibañetan (4):* haurrak eta emakumeak dantzatzen dira Ibañetan.

darga *(5)* : *(nek.)* ezpata, garba OH. Lihoa xehetzeko tresna.

ddanddan *(5)* : *(haur.)* kanpaitxo, txilin

ddanddar *(5)* : *(haur.)* eliza

ddinddi *(5)* : *(haur.)* diru

ddinddin *(5)* : kanpaitxo, txilin

ddunddu *(5)* : urdinxka

ddunddukoi *(5)* : urdinxkazale */ olli ta ddunddukoi dut loxka dagon nore aurra (5):* horitxo eta urdinxkazale dut loxka dagoen neure haurra.

ddundduxka *(5)* : urdinxka

debozione *(3)* : *(erl.)* debozio */ kristiaî oro da anixki obligatruk debozione ekutra (3):* kristau oro erabat behartua da debozioa edukitzera.

debru *(5, 9)* : *(erl.)* deabru */ debriak errezatan dionean engañatu nai yai (5):* deabruak errezatzen duenean engainatu nahi hau. */ debriareki dabilanak bear dik akilua luze (5):* deabruarekin dabilenak behar dik akuilua luze. */ utsusago ezik eburniko debria (9):* itsusiagoa infernuko deabrua baino. */ kori dun debria txutxuta (9):* hori deabrua dun zut-zuta.

defendatu *(2)* : defendatu */ zertako? fedearen defendatako (2):* zertarako? fedea defendatzeko.

defensa *(3)* : defentsa */ etzazei eraman makila edo berze armarik xaurien defensatako (3):* ez ezazue eraman makila edo beste armarik zeuen defentsarako.

degun *(8, 9)* : datorren, heldu den */ degun urtian (8):* datorren urtean, heldu den urtean. */ degun bedatserareino (8):* datorren udaberria arte. */ degun astean (9):* datorren astean.

dei *(2, 5)* : dei

dei egin *(5)* : dei egin */ eskuz naiz geiñuz naiz eleka edo iragoz dei egitan da (5):* eskuz nahiz keinuz nahiz hitzez edo oihuz dei egiten da.

deiez *(2)* : deika */ zuri gaudezu deiez, Ebaren ume desterratu kuek (2):* zuri deika gaude, Ebaren ume erbesteratu hauek.

deiru 1 *(3, 5, 7, 8, 9, 10)* : diru */ Jesusek pakatan du deiru edo deuri edo moneda batekin (3):* Jesusek diru edo txanpon batekin ordaintzen du. */ yire aitak eragi dien deirua (7):* hire aitak dirua ekarri din. */ deiru anitx (8):* diru asko. */ alabek ezteila deirurik (9):* alabek ez dutela dirurik. */ deiru txiki (10):* diru gutxi. */ gizon korrek emon dien anitx deiru (10):* gizon horrek diru asko eman din.

deiru 2 *(3)* : txanpon */ errezibitu dei zidarrezko ogeitamar deiriuak (3):* zilarrezko hogeita hamar txanponak jaso dituzte.

deitu *(3, 4, 5, 7, 10)* : deitu */ nik deitu nion Egiptotik ene semia (3):* nik deitu nuen Egiptotik ene semea. */ Simon, gero deitu zena Pedro (3):* Simon, gero Pedro deitu zena. */ [Jesusek] deitu ztion (3):* Jesusek deitu zituen. */ ziudade bat, deitan baizen Nazaret (3):* hiri bat, Nazaret deitzen zena. */ deitan dionari irikiren zau (3):* deitzen duenari irekiko zaio. */ [´Nazareno´] izanen da deitruk (3):* ´Nazaretarra´ deitua izanen da. */ bortan dei zazei eta irikiren daizei (3):* atean dei ezazue eta irekiko dizuete. */ anitx dra, bada, deitiuak; txiki baia eskojitiuak (3):* anitz

dira, bada, deituak; gutxi baina aukeratuak. */ bortan deitu zion (4):* atean deitu zuen. */ orai gunean deitu zaun (4):* duela gutxi deitu zion. */ eztau deitan, solo xei anditako mezan (4):* ez dio deitzen, jai handietako mezan soilik. */ deiten tigu orrek erraiten daizkigun gente adineko guziuak (4):* berorrek esaten dizkigun adineko pertsona guztiak deituko ditugu. */ alaba deitruk izan da (4):* alaba deitua izan da. */ deituz eramaten du (5):* deituz eramaten du. */ nola deitan zra? (7):* nola deitzen zara? */ mitilari deitako toka zak izkilanttoa (7):* zerbitzariari deitzeko jo ezak kanpaitxoa. */ deitan dur (7):* deitzen dut. */ deiten dur (7):* deituko dut. */ ttunttun deitan zein, ttunttuna (10):* tuntun deitzen zuten, tuntuna. */ aurra deitan dein (10):* haurra deitzen diten.

dekaitu *(5)* : ahuldu, makaldu

dekuma(k) *(2, 3)* : *(ekon.)* hamarren(ak) */ dekumak elizari pakatia (2):* hamarrenak elizari ordaintzea. */ dekumak [pakatan tzeinak] (3):* hamarrenak ordaintzen dituzuenak.

dela... dela... *(5, 7)* : dela... dela... */ dela kan dela kemen (5):* dela han dela hemen. */ dela kan dela keben (7):* dela han dela hemen.

delikatu *(3)* : delikatu */ gizon bat beztitruk arropa delikatu banekin (3):* gizon bat arropa delikatu batzuekin jantzia.

demantal *(5)* : mantal

den... den... *(5)* : dela... dela... */ den gizon den emazte (5):* dela gizona dela emakumea. */ den zeruan den lurrean (5):* dela zeruan dela lurrean.

dena dela *(5)* : dena dela

dena delakoa *(5)* : dena delakoa

denaz den *(4)* : edozertaz dela ere, denaz den */ kartetako papera aprobetxa tzadan, denaz den (4):* kartetako papera aprobetxa dezadan, edozertaz dela ere.

denbora *(5, 10)* : eguraldi */ keben denbora degu anitxi oz (10):* hemen eguraldia dugu anixko hotz. OH. Azkuek ´Hitz hau baztertu egin behar litzateke, eta herrian oraindik daudenak erabili´ oharrarekin dokumentatua.

dendari *(5)* : jostun

dendaritzu *(5)* : joskintza */ dendaritzua (5):* joskintza.

derden *(5)* : alfer, nagi

deseatu *(2, 3)* : desiratu */ berzen gizonak, berzen emazteak desea eztezagula (2):* besteen gizonak, besteen emakumeak ez ditzagula desiratu. */ berzen ontarzunik desea eztezagula (2):* besteen ondasunik ez dezagula desiratu. */ [berzen] emazterik ez deseatia (3):* besteen emazterik ez desiratzea.

desegin *(3, 4, 7)* : desegin */ nik desegin doked tenplua (3):* nik desegin dezaket tenplua. */ desegin ez daitekela (3):* ez daitekeela desegin. */ etsia ezen izan deseginik, zeren [eginik] baizagon arrizko zimentu gainian (3):* etxea ez zen desegina izan, zeren harrizko zimendu gainean eginik baitzegoen. */ erraiten du ez zela xin legiaren desegitra (3):* erraten du ez zela etorri legea desegitera. */ [guziua] desegiten dei (4):* guztia desegiten dute. */ paretia desegin bar diezu lurriaraino (7):* pareta lurreraino desegin behar duzu.

desegingo *(3)* : suntsipen, desegite */ [etsia] erori zen eta aren desegingua andi [izan zen] (3):* etxea erori zen eta haren suntsipena handia izan zen. */ antzinetik erraiten du Jesusek tenpluaren desegingua (3):* Jesusek tenpluaren suntsipena aurresaten du.

desegingu *(3)* : suntsipen, desegite */ Jerusalenen desegingiuaz [ele erraiten] (3):* Jerusalenen suntsipenaz hitz egiten.

desestali *(3)* : desestali */ [parabolak] desestaltan dazkabei apostoler (3):* parabolak desestaltzen dizkie apostoluei.

deskuidatu *(3)* : oharkabetu, deskuidatu */ aren bigarren xitiak ez dazabein arrapa deskuidatruk (3):* haren bigarren etorrerak ez ditzan oharkabetuta harrapa.

deslokatu *(5)* : *(med.)* dislokatu

desobeditu *(3)* : desobeditu */ zeren xauriek desobeditan tzei mandamentiua? (3):* zergatik desobeditzen duzue zeuek agindua?

desterratu *(2)* : erbesteratu, desterratu */ zuri gaudezu deiez, Ebaren ume desterratu kuek (2):* zuri deika gaude, Ebaren ume erbesteratu hauek.

deuri 1 *(3, 4, 5)* : diru */ Jesusek pakatan du deiru edo deuri edo moneda batekin (3):* Jesusek diru edo txanpon batekin ordaintzen du. */ erakus daztazeid deuria (3):* erakuts iezadazue dirua. */ etzazei eraman urrerik eta ez deus deuririk xaurien folletan (3):* ez ezazue eraman urrerik eta ez deus dirurik zeuen diruzorroetan. */ kainbat deuri erkiten dio arboletarik (4):* hainbat diru ateratzen du zuhaitzetatik. */ ezaitad deus ere, ez baizaitad deuririk kosta (4):* ez zait deus ere axola, ez baitzait deirurik kostatu. */ deuri emoitea da abratsena eta zarrek urdupena (5):* dirua ematea aberatsena da eta zaharrek iritzia. */ zor dion deuri andia paka dazaula tandaka (5):* zor duen diru handia ordain dezala epeka. */ lanaren ondorean xiten da deuria (5):* lanaren ondoren etortzen da dirua.

deuri 2 *(3)* : txanpon */ ein deuri zidarrezko [zor zaun] (3):* zilarrezko ehun txanpon zor zion. */ bi deuri errezibitu zion kark, [berze bi] irabazi zion (3):* bi txanpon jaso zituen hark, beste bi irabazi zituen.

deus *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : ezer, deus */ [berze banak] ekusi ztion oraino deus egin bage (3):* beste batzuk ikusi zituen oraindik ezer egin gabe. */ etziua deus errespondi tan? (3):* ez al duzu deus erantzuten? */ arek ez deusi ez[au]n errespondi tu (3):* hark deusi ez zion erantzun. */ [gatz gezak] deustako zerbutxatan ez du (3):* gatz gezak ezertarako ez du balio. */ ezaitad deus ere (4):* ez zait deus ere (axola). */ korrengatik ez dud erraiten deus ere (4):* horregatik ez dut deus ere erraten. */ goizteria igari dun deus egin bage (5):* goiza igaro dun ezer egin gabe. */ eginbideak eginik eztu deusik bereganakatu (5):* eginbideak eginik ez du deusik bereganatu. */ gizonek ez diegu ekun deus ere (7):* gizonok ez dugu eduki ezer ere. */ eztien balio deustako (7):* ez din balio ezertarako. */ deus egin bagetarik, solo xan eta lo (8):* deus egin gabe, jan eta lo soilik. */ morroiak ez [zian] entzutan deus ere (8):* mutikoak ez zuen entzuten deus ere. */ ez deus ere (8):* ezer ere ez. */ niri ezteitan erori deus ere (9):* niri ez zitzaidan erori deus ere. */ espartiñarik ez, oskirik ez, deuspabez (10):* espartinarik ez, zapatarik ez, ezer gabe. */ orai ez bitei xinestan deus ere (10):* orain ez baitute sinesten deus ere. */ eztokiar xan deus ere (10):* ez dezaket jan ezer ere. */ xoan nindian ebizagon deus ere xatako (10):* joan nintzen ez baitzegoen deus ere jateko.

deuseztu *(7)* : ezereztu, deuseztatu

-di *(5)* : -di */ ezpeldi (5):* ezpeldi.

diabu *(2, 3)* : *(erl.)* deabru */ diabiua [etsaia da] (3):* deabrua etsaia da. */ diabiuaren [lekiua] (3):* deabruaren lekua. */ Jesusek sontotan tu diabiuz beteak (3):* Jesusek deabruz beteak sendatzen ditu.

dibinitate *(2)* : jainkotasun */ zereki xatxi zen linbora? dibinitate saintiareki (2):* zerekin jaitsi zen linbora? jainkotasun santuarekin.

diebru *(9)* : *(erl.)* deabru

diela *(10)* : duela, badu (denborazkoa) */ diela bi urte egon nindezun (10):* duela bi urte egon nintzen. */ urte anitx diela xa ezela dantzatan gisa kartan (10):* duela urte anitz jada ez zela dantzatzen modu hartan. */ tenpra anitx diela eztela egin keben kori (10):* duela denbora asko ez da egin hemen hori.

dies *(2)* : ezer, deus */ dies ere [autsi] bagerik (2):* deus ere hautsi gabe. */ ´aita´ erraten dugunian, zer esketan grade? ez dies (2):* ´aita´ erraten dugunean, zer eskatzen dugu? deus ez.

dieta *(5)* : dieta */ obro sentotan du dietak (5):* gehiago sendatzen du dietak.

dieus *(3)* : ezer, deus */ zerengatik andre kura ezpaizien dieus ere kebrantatu (3):* zeren andre hura ez baitzuten deus ere kaltetu.

dilindon *(8)* : dilindan, zintzilik */ aizterkuak dilindon (8):* guraizeak zintzilik.

dina 1 *(4, 5)* : adina */ aldi bakotxian gatulu baten dina [edan] (4):* aldi bakoitzean katilu bat adina edan. */ belar kau da bi xeren dina luze (5):* belar hau bi arra adina luze da.

dina 2 *(5)* : ia

dinba-danba 1 *(11)* : dinbi-danba OH. Soinu biziaren edo kolpearen onomatopeia.

dinba-danba 2 *(4)* : etengabe OH. Oro har, ´dinbi-danba´ onomatopeiak, bai euskalkietan bai euskara batuan, soinu biziak edo kolpeak adierazten ditu (ikus ´dinbi-danba 1´ sarrera). Bidankozen ´dinba-danba´ elurra etengabe ari duela adierazteko dokumentaturik dago.

dindi *(5)* : *(haur.)* diru

dindin *(5)* : kanpaitxo, txilin

dinga-dinga edan *(5)* : danga-danga edan

dingolon-dangolon *(5)* : dingili-dangala (baldar ibiliz)

diolarik *(4)* : duela, badu (denborazkoa) */ diolarik bizpor egun asi da apeza eskolara bilarazten egun oro (4):* duela egun batzuk apaiza (umeak) ikastetxera egunero bilarazten hasi da.

dirdilka *(5)* : dirdiraka

dirdiratu *(4)* : dirdiratu */ urrinarat dirdiratan dei suek mendien erdian (4):* urrunean suek dirdiratzen dute mendien erdian. */ uskaldunen axkorek aretx artean dirdiratan dei (4):* euskaldunen aizkorek haritz artean dirdiratzen dute. */ iguzkiak mendietan dirdiratan du (4):* eguzkiak mendietan dirdiratzen du. OH. Campionen ´Orreaga´ argitalpenean ´brillatan´ dokumentatua.

dirdirtarzun *(7)* : distira */ izarren dirdirtarzuna (7):* izarren distira.

dirditasun *(5)* : distira

direzione *(4)* : helbide */ karta kontan direzionia berze gisatra isartan baitud, [eztakid] errezibitan tionez ote (4):* gutun honetan helbidea bestela jartzen baitut, ez dakit jasoko ote duen.

doi *(5)* : doi, justu */ etse, doia; lur, ekus ala (5):* etxea justua; lurra ikusi ahala. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

-doi *(1, 3, 4, 5, 9, 11)* : -di */ garagardoia, izeidoia, legardoia (1):* garagardia, izeidia, legardia. */ ariztoia, sarastoia (1):* hariztia, sahastia. */ lerdoia (1):* lerdia, pinudia. */ sagartoia, sagardoia (1):* sagardia. */ bagadoi[a], zumadoia (1):* pagadia, zumedia. */ arridoietan (3):* hardietan, harritzetan. */ xargadoi (4):* lahardi, sasidi. */ buztundoi, gaztañadoi, otakadoi, unpurdoi (5):* buztindi, gaztainadi, otadi, ipurudi. */ ezpeldoi, izeidoi, lerdoi (5):* ezpeldi, izeidi, pinudi. */ ñardoi (9):* lahardi. */ txapardoia (11):* txaparrodia.

doi-doia *(5)* : ozta-ozta */ doi-doia egartan tu zama ta abarraxe koriek (5):* ozta-ozta igarotzen ditu zama eta abar-sorta horiek.

doiki *(10)* : doiki, ozta */ zomaitek ekusiren dei zer egitan dien gentiak, onki ala doiki (10):* zenbaitek ikusiko dute zer egiten duen jendeak, ongi ala doiki.

doitarzun *(3)* : kopuru, zenbateko */ xan zeinen doitarzuna izan zen gizonezko borz milla (3):* jan zutenen kopurua bost mila gizonezko izan zen. */ gente doitarzun andi bati [xatra emoiten dau] (3):* jende kopuru handi bati jaten ematen dio.

dolatu *(5, 7)* : landu (egurra)

dolu 1 *(5)* : damu, sapite */ aza ta porru xan eta dolu (5):* aza eta porruak jan eta damu.

dolu 2 *(9)* : erruki */ eztien dolurik (9):* ez diten errukirik.

dolu ekun *(5)* : atsekabe izan, nahigabe(a) eduki */ bear zau dolu ekun nausirik ez dion gaizari (5):* atsekabe izan behar zaio nagusirik ez duen gauzari.

dolugarri *(5)* : damugarri (iz.)

dolukor 1 *(5)* : damukor

dolukor 2 *(5)* : errukitsu, gupidatsu

dolutu 1 *(5)* : damutu

dolutu 2 *(5)* : errukitu, gupidatu

domesaintu *(5)* : *(erl.)* santu guztien egun

dona *(1, 2)* : *(erl.)* santa, dona */ dona Maria zarra (1):* dona Maria zaharra. */ dona Maria betiere birjina (2):* donaMaria betiere birjina.

donadu *(5)* : mutilzahar, donado

done *(1)* : *(erl.)* santu, done */ done Bitxinti (1):* done Bixente. */ done Petri zarra (1):* done Pello zaharra.

dostatu *(5)* : jostatu, dibertitu

dotore *(3, 4, 5, 8, 9, 10)* : mediku, sendagile, doktore */ ez dutzu sanuak, beizik eri daudenak dotoriaz nestate deinak (3):* ez dituzu osasuntsuak, baizik eta gaixo daudenak medikuaren beharra dutenak. */ anitx alegratu nu dotore Brousainen bordalgiuak (4):* anitz poztu nau doktore Brousainen ezkontzak. */ eriarentako barbera berri, dotorea zar (5):* gaixoarentzat zirujaua berria, sendagilea zaharra. */ azken gatxarendako ez dago dotorerik sontotako (5):* azken gaitzerako ez dago medikurik sendatzeko. */ dotorearen ezteia (5):* sendagilearen ezteia. */ dotoria deitu (8):* medikua deitu. */ dotoriak [erran zaiozun] (8):* medikuak esan zion. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

dotoresa *(5)* : mediku (andrea)

dotrina *(4)* : *(erl.)* dotrina */ dotrinaren galtegiteko (4):* dotrina galdetzeko.

drezarazi *(4)* : prestarazi */ [emazter] aparioak drezaraz, ordu xakinetako (4):* emakumeei jatorduak prestarazi, ordu jakinetarako.

drezatu *(3, 4, 7, 8, 10)* : prestatu */ [ikaszaliek biar zena] drezatu zien bazkuarako edo bazkuako (3):* ikasleek behar zena prestatu zuten pazkorako. */ bezperatik drezatu ztion apario guziuak (4):* bezperatik prestatu zituen jatordu guztiak. */ [ur erauntsiak] ugaltian zûr drezatruk zauden guziuak eraman ztion (4):* ur erauntsiak ibaian prestaturik zeuden zur guztiak eraman zituen. */ xitan dreneko bar dur aigaria drezatu (8):* etortzen direnerako afaria prestatu behar dut. */ drezatu duna baskaria? (10):* prestatu al dun bazkaria?

drezu *(5)* : prest

drezu egon *(4, 5)* : prest egon */ noiznaiden egonen dela drezu eskribitako (4):* noiznahi egonen dela prest idazteko. */ eltan bada egoitra drezu zorri iltako (5):* prest egotera heltzen bada zorriak hiltzeko.

dudan egon *(7)* : dudan egon, zalantzan egon

duka *(5)* : berorika

duketz *(4, 7, 10)* : berorika */ apezkupiari duketz, ´orrek du´ (7):* gotzainari berorika, ´berorrek du´.

duketza *(4)* : beroriketa */ badaki gore uskarak irur tratamentu diola, duketza, zuketza eta yiketza (4):* badaki gure euskarak hiru trataera dituela, beroriketa, zuketa eta hiketa. */ duketza[z] mintzatan gra zarrer eta errespetoko gente guziuareki (4):* beroriketa zaharrei egiten diegu eta errespetuzko jende guztiarekin. */ bigarnian [ikustan da] nola mintzatan gren duketzian (4):* bigarrenean (laukitxoan) ikusten da nola mintzatzen garen beroriketan.

-dun *(3, 4, 5, 7, 9)* : -dun */ arbole ñardunetarik (3):* zuhaixka lahardunetatik. */ autsduna (3):* hausturaduna. */ lepradunak (3):* legendunak. */ familiadun, zordun (3):* familiadun, zordun. */ ardidun (4):* ardidun. */ uskaldun (4):* euskaldun. */ biladuna (4):* ileduna (aberea). */ iladuna (4):* artileduna (aberea). */ metaledun (5):* zintzarridun. */ uskalduna (7):* euskalduna. */ bulardunak, ezurdunak (7):* ugaztunak, hezurdunak. */ garidun (9):* garidun.

dundu *(1, 4, 5, 7, 9, 10)* : urdin */ osin dundua (1):* osin urdina. */ odoi-adar bat erkitan denean gorri ta dundu, euria eragutan du (5):* hodei-adar bat ateratzen denean gorri eta urdin, euria ekartzen du. */ zeurua (zeuria) da dundu (7):* zerua urdina da. */ enetako dundua (dundia) (7):* niretzat urdina. */ ene plumak du tinta dundurik (7):* nire idazlumak tinta urdina du. */ zeuria dundu diozu (9):* zerua urdin dago. */ bata dundu eta gañekoa gorri (10):* bata urdina eta gainekoa gorria.

dundun *(5)* : durundi (oihartzuna)

dunduska *(9)* : urdinxka

dunduxka *(7)* : urdinxka

dunduzka *(5)* : urdinxka

duntu *(5)* : jabetu (ondasunez batik bat) */ Ameriketara xoan aitzinean goiti zeuria ta apal lurra nitien, geroztik duntu naiz (5):* Ameriketara joan aurretik goian zerua eta behean lurra nituen, geroztik (ondasunez) jabetu naiz.

durrunda *(5)* : burrunba */ erle-durrundak e[z] kila-durrunda urdu du (5):* erle-burrunbak kanpai-burrunba dirudi.

E

eaztun *(5)* : eraztun (burdinazkoa eta handia)

ebaki 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9)* : moztu; ebaki */ berze banek ebakitan zein osto arboletarik (3):* beste batzuek hostoak ebakitzen zituzten zuhaitzetatik. */ zore eskoîneko eskiua ebaki zazu eta egotx zazu zutarik urrin (3):* zure eskuineko eskua ebaki ezazu eta bota ezazu zugandik urrun. */ arbole oro izanen da ebakirik eta suara egotxirik (3):* zuhaitz oro moztua izango da eta sutara botea. */ urrutx zarrak ebaki, eta brotoin eta izorrek (sic) egoxten teinak ebakitan dra (4):* hurritza ebaki eta, kimuak eta sustraiak ateratzen zaizkienak ebakitzen dira. */ argizagiaren goragoan ebakitan dra bago ta lerrak (5):* (ilargiaren) ilgoran pagoak eta lerrak mozten dira. */ mazte batek lepua ebaki ziozun (8):* emakume batek lepoa ebaki zuen (gizon batena). */ alurrian ebaki diaguzu belarra (9):* alorrean moztu dugu belarra.

ebaki 2 *(5)* : debekatu

ebakin *(5)* : txatal, oihalki

ebakiondo *(5)* : ebakiondo */ nik ler andi bat egotsi nion ta, akaitu bainintzen, xaxeri nintzen ebakiondoan (5):* nik pinu handi bat bota nuen eta, nekatu bainintzen, eseri egin nintzen ebakiondoan.

ebanjelio *(3)* : *(erl.)* ebanjelio */ gore jeinaren ebanjelio saintiua (3):* gure jaunaren ebanjelio santua. */ ebanjeliua [erakustan] (3):* ebanjelioa irakasten. */ ebanjeliuaren berri ona emoiten da pobrer (3):* ebanjelioaren berri ona ematen zaie behartsuei.

ebaren sagar *(5)* : *(anat.)* hioide

ebasgu *(3)* : lapurreta, ebasketa */ pensamentu gaxtuak, gizonen iltiak, ebasgiuak (3):* pentsamendu txarrak, gizonen hilketak, lapurretak.

ebaskeria *(5)* : lapurreta, ebasketa

ebasle *(4)* : lapur, ebasle */ azkontatan dabila nor izan den ebaslia (4):* jakin nahian dabil nor izan den lapurra.

ebastale *(5)* : lapur, ebasle */ ebastale batek zankoa austan dionean, erraitan da ´karek bere merexia ekun dik´ (5):* lapur batek hanka hausten duenean, esaten da ´hark bere merezia izan dik´.

ebaszale *(5, 8)* : lapur, ebasle

ebatsi *(2, 3, 7, 8, 10)* : lapurtu, ebatsi */ berzen gaizarik ezagola ebats (2):* besteen gauzarik ez dezagula ebats. */ ebatsi badugu, utzul zagola (2):* ebatsi badugu, itzul dezagula. */ gu lo gitzaudelarik, gaiaz [xin zren] eta ebatsi zein (3):* gu lo geundela, gauez etorri ziren eta lapurtu egin zuten. */ ebastan ditei (3):* lapurtzen dituzte. */ etzu ebatsen (3):* ez duzu lapurtuko. */ ez ebatstia (3):* ez lapurtzea.

ebatszale *(9)* : lapur, ebasle

ebilarazi *(5)* : ibilarazi */ azpiek tripak ebilarazten tei obeki ezik kaltzero berriak (5):* urdaiazpikoek tripak hobeto ibilarazten dituzte oinetako berriek baino.

ebilari *(5)* : ibiltari

ebili 1 *(3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : ibili */ gaxki dabilena (3):* gaizki dabilena. */ xek zabiltzei (3):* zuek zabiltzate. */ zu zinabiltzan (3):* zu zenbiltzan. */ [erri anitxetarik] ebilten bainaz, anitx ekustan dian (4):* herri(alde) askotatik ibiltzen bainaiz, asko ikusten dinat. */ [koralak] onki xîatruk balio du etsen eta karriketan ebiltako (4):* enbor-muinak ongi xeheturik etxean eta kaleetan

ibiltzeko balio du. */ kura dabila (4):* hura dabil. */ orai dabiltza, orai gabiltza (4):* orain dabiltza, orain gabiltza. */ ebil adi iritik, elika adi etsetik (5):* ibil hadi herritik, elika hadi etxetik. */ ez da ñor ere ebiltan (5):* ez da inor ere ibiltzen. */ pelotaria elizan ebilten da (5):* pilotaria elizan ibiltzen da. */ xakuto bat ebiltako bortaz borta libosna eska (5):* xakuto bat atez ate limosna eske ibiltzeko. */ nabila, yabila, dabila, gabiltza, zabiltza, zabiltzei, dabiltza (5):* nabil, habil, dabil, gabiltza, zabiltza, zabiltzate, dabiltza. */ kori zabillela (5):* hori zebilela. */ ebiltan zunien (6):* ibiltzen zen. */ gu ebili gra (7):* gu ibili gara. */ non ebiltan da ene aita? (7):* non dabil nire aita? */ [zu] zabiltza (7):* zu zabiltza. */ [ortutsik] ebiltan nun (9):* oinutsik ibiltzen naun. */ ebiltan bai, einoʹre aski onki (10):* ibiltzen bai, oraindik ere aski ongi. */ mendian leku batarik bestiara zankueki ebilik, azkar ebil! (10):* mendian leku batetik bestera hankekin ibilirik, bizikor ibil! */ ebiltan nazela (10):* ibiltzen naizela. */ [Korpus Kixte] egunean iri guzutik ebiltan da prozesionia (10):* Korpus Kristi egunean herri osoan ibiltzen da prozesioa.

ebili 2 *(7)* : ibili (makinak, gailuak) */ ene erlojua (erlojia) onki ebiltan da (7):* nire erlojua ongi ibiltzen da; dabil.

ebili 3 *(5)* : erabili */ mosarrea arri beltza da ta txastauen egiteko ta aiztoen zorroztako ebiltan dugu (5):* arbela harri beltza da eta garbiketak egiteko eta aiztoak zorrozteko erabiltzen dugu.

ebilkoi *(5)* : ibiltari

ebilzale *(5)* : ibiltari

eblerik *(7)* : oinez, ibiliz */ ez dion [mazterik] plaztan eblerik (7):* ez zagon emakumerik plazan oinez (ibiltzen).

ebli *(7)* : erabili

eborratu *(5)* : kardatu (artilea)

eburne *(2)* : *(erl.)* infernu */ eburneara kondenaturik [ginzaudela] (2):* infernura kondenaturik geundela.

eburni *(2, 5, 9)* : *(erl.)* infernu */ zeuritik deseretatuk, eburniko [seme egitan da] (2):* zerutik oinordegabeturik, infernuko seme egiten da. */ zer pena padezitan dei eburnian? (2):* zer zigor nozitzen dute infernuan? */ gastoer eburniko penak (2):* gaiztoei infernuko nekeak. */ orai eburnian gaure dantzatiagatik (9):* orain infernuan geure dantzatzeagatik. */ utsusago ezik eburniko debria (9):* itsusiagoa infernuko deabrua baino.

edago *(5)* : esekitoki (arropa lehortzekoa)

edagune *(5)* : esekitoki (arropa lehortzekoa)

edan 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : edan */ non erdenen digu zer xan eta edan? (3):* non aurkituko dugu zer xan eta edan? */ edan dokezeia pasioniaren kaliza nik edan biar duana? (3):* edan al dezakezue pasioaren kaliza, nik edan behar dudana? */ ene kaliza, bai, edanen baitzei (3):* ene kaliza, bai, edanen baituzue. */ xatako eta edatako apetito bat (3):* jateko eta edateko gogoa. */ urareki nastekatruk edaten bada (4):* urarekin nahasirik edaten bada. */ xan eta edatra [faiten dra] (4):* jan eta edatera joaten dira. */ artzaiak pelota xokuan onki xatan ta onki edatan (5):* artzainak pilota jokoan ongi jaten eta ongi edaten. */ ardaurik edan diegu (7):* ardoa edan dugu. */ nik edatan dud anitx ur (7):* nik ur asko edaten dut. */ edatan ezdu[k] nabarita[n] (8):* edanez ez duk aditzen (ahotsa). */ edan tzak, edatako (8):* edan ezak, edateko. */ xan eta edan (9):* jan eta edan. */ orrek edatan du anitx ardao (9):* berorrek ardo asko edaten du. */ ezazeila edan ur kortarik (10):* ez ezazuela edan ur horretatik. */ edan dien, edatan dien (10):* edan diten, edaten diten.

edan 2 *(5)* : edan (edaria) */ gaztelatxera fan zaitak edana (5):* glotisera joan zaidak edana.

edan-naiari izan *(5)* : edateko gogoa eduki, egarri izan */ edan-naiari naz (5):* edateko gogoa daukat.

edanarazi *(3)* : edanarazi, edaran */ ez daztazud edanaraz kaliz kaur (3):* ez iezadazu edanarazi kaliza hau.

edangu *(5)* : *(nek.)* aska, uraska

edaran *(5)* : edanarazi, edaran OH. Iparraldean ere dokumentatua.

edarate *(5)* : *(med.)* edarate (hatzetako gaitza) */ itzemina edaratea beino gaiztoago da ta axaxalpean sortan da (5):* itzemina edaratea baino txarragoa da eta azazkalpean sortzen da.

edate *(5)* : edate (likidoen zaporea)

edatra emon *(3, 7)* : edaten eman, edatera eman */ [txikerxko kuetarik bati] edatra emon (3):* txikitxo hauetariko bati edaten eman. */ egarri [ekun nion] eta emon zinaitein edatra (3):* egarria eduki nuen eta edatera eman zenidaten. */ noiz emon ginaizun edatra? (3):* noiz eman genizun edaten? */ egarri dionari edatra emoitia (3):* egarria daukanari edaten ematea. */ emon ditan edatra (7):* edaten eman zidan (noka).

edatu *(3, 5, 9)* : hedatu */ Jesusek [eskiua] edatan ziolarik (3):* Jesusek eskua hedatzen ziola. */ [baratxuri-belarra] alor guzian edatzen da (5):* aski-motza alor osoan hedatzen da. */ ongarri edatra (9):* ongarria hedatzera.

edazale *(5)* : hedatzaile

ede *(5)* : uhal, hede

edeik! *(4, 5, 8)* : emadak! */ edeik, arren (8):* emadak, bada.

edein! *(4, 5, 9)* : emadan! */ edein lu-mukulu kori (9):* emadan liho-pilatxo hori.

edeizu! *(4)* : emadazu!

edeki *(5)* : kendu OH. Zuberoan ere dokumentatua.

eder *(1, 4, 5, 7, 9, 10, 11)* : eder */ larrederreta (1):* larre eder eta. */ muga ederra (1):* muga ederra. */ [erostunak] erran zaitadan [sagar] gaxtoena zela ederrena (4):* erosleak erran zidan sagar txarra zela ederrena. */ kan ogi ederrik ezen (5):* han ogi ederrik ez zen. */ mendia eder [da] (7):* mendia ederra da. */ zer aur ederra! (7):* zer haur ederra! */ zer bilo ederra dien! (9):* zer ile ederra duen! */ kura ba, anitx eder (10):* hura bai, oso ederra. */ ttunttuna, oraiko dantzak mino ederrago (10):* tuntuna(rekin), oraingo dantzak baino ederragoa.

ederki *(5)* : ederki */ aitaderrak atsa ederki emon zaun aur koni (5):* aitabitxiak hatsa ederki eman zion haur honi (haur sendoez esana).

edertarzun *(5)* : edertasun */ ederta[r]zuna (5):* edertasuna.

edertu *(5, 7)* : edertu */ jentea edertan du beztimentak (5):* jendea edertzen du janzkerak.

edo *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : edo */ ekusi zuniena noiz il zen edo noiz igan zen zeuri[ara]? (2):* ikusi al zenuen noiz hil zen edo noiz igo zen zerura? */ giaur edo gore kristiai laguna (2):* geu edo gure lagun kristaua. */ urtian bein goresima[n] konfesa gitiala, edo leinago (2):* urtean behin garizuman aitor gaitezela, edo lehenago. */ iriko erakuszale edo eskribaîak (3):* herriko irakasle edo eskribauak. */ eztago xaurien eskiuan egitia xuri edo beltx bilo bakotx bat (3):* ez dago zeuen eskuan ile bakar bat zuri edo beltz egitea. */ akostunbratia erraitra bai edo ez (3):* bai edo ez esaten ohitzea. */ xiten bada edo xiten ez barimada (4):* etortzen bada edo etortzen ez baldin bada. */ urrutxak iror edo laur urtetakuan ebakitan dra (4):* hurritzak edo lau urtera ebakitzen dira. */ [xatan ez dionak] ez du ganurik edo ez du [zer xan] (5):* jaten ez duenak ez du gogorik edo ez du zer jan. */ ez dago sekretorik goix edo berant xakiten ez denik (5):* ez dago sekreturik goiz edo berandu jakiten ez denik. */ biar edo etzi xinen naz (7):* bihar edo etzi

etorriko naiz. / *onez edo gaizkiz (7):* onean edo txarrean. / *kastellanua edo erdara (8):* gaztelania edo erdara. / *irorogeita bost urte edo obro bordaltruk nagola... eskontruk (8):* hirurogeita bost urte edo gehiago ezkondurik nagoela... ezkonduta. / *orai ez rebañorik batre, laur edo bost beizik (10):* orain artalderik batere ez (dago), lau edo bost baizik. / *zortzian edo amarrian (10):* (hilaren) zortzian edo hamarrean.

edo... edo *(3)* : edo... edo / *ñork ere ez doke zerbutxa bi nausiri, zeren edo ekunen du aburrimentu batari eta amorio berzeari, edo sujetatan bada leinari, miraten du zeñurekin bigarnari (3):* inork ere ez dezake zerbitza bi nagusiri, zeren edo gorroto izango dio bati eta amodio besteari, edo lehenari lotzen bazaio, zeinuarekin begiratuko dio bigarrenari.

edonola *(5)* : edonola, nolanahi

edozoiñ *(5)* : edozein, zeinahi

edun *(2, 3, 4, 6, 7, 9, 10)* : edun / *sinestan dud (2):* sinesten dut. / *egin baitutud (2):* egin baititut. / *sinestan dugu (2):* sinesten dugu. / *ekusi zunien (2):* ikusi zenuen. / *baginien (2):* bagenuen. / *nik dur, nik duala (3):* nik dut, nik dudala. / *[ekusi] dutu (3):* ikusi ditu. / *ebastan ditei (3):* lapurtzen dituzte. / *il baizinein (3):* hil baitzenuten. / *nik dud (4):* nik dut. / *egin digu (4):* egin dugu. / *ekun banuntu (4):* eduki banitu. / *nai noke (4):* nahi nuke. / *ekun bazunu (4):* eduki bazenu. / *eratan diezt, eratan diez (6):* edaten dut. / *nik nai nukezu (6):* nik nahi nuke. / *dur, tzu, du (7):* dut, duzu, du. / *diegu, tzei, dei (7):* dugu, duzue, dute. / *dutur, dutzu, dutu (7):* ditut, dituzu, ditu. / *ditiegu, ditzei, ditei (7):* ditugu, dituzue, dituzte. / *nien, zunien, zien (7):* nuen, zenuen, zuen. / *gunien, zunein, zein (7):* genuen, zenuten, zuten. / *nitien, zuntien, zitien (7):* nituen, zenituen, zituen. / *guntien, zuntein, zitein (7):* genituen, zenituzten, zituzten. / *guniezun (7):* genuen. / *dur, duk ,dun ,dugu (9):* dut, duk, dun, dugu. / *banu, bayunu, bazunu, balu (9):* banu, bahu, bazenu, balu. / *bagunu, bazunei, balei (9):* bagenu, bazenute, balute. / *bar gunia (10):* behar genuen.

egal *(5)* : hego, hegal / *egalak autse ta papoa oso (5):* hegalak hautsi eta papoa osoa (= lan egin nahi ez eta ongi bizi nahi).

egargei *(5)* : *(erai.)* lata (teilatuko ohola)

egari 1 *(7)* : igaro, iragan / *bortua egari dud bi aldiz (7):* bortua bi aldiz igaro dut.

egari 2 *(5)* : ibili / *egartean guartu nintzen (5):* ibiltzean oroitu nintzen.

egari 3 *(5, 10)* : jasan / *konek egari dien, bai, mandoeki akarreatan! (10):* honek jasan du, bai, mandoekin garraioan!

egari 4 *(5)* : erabili / *egari ditut nik aitaren oskiak (5):* erabili ditut nik aitaren oskiak (zapatak).

egarri *(2, 3, 4, 7, 8, 10)* : egarri / *tenpra berian ekun dud egarri andia (4):* denbora berean egarri handia eduki dut. / *edan egarriareki (7):* edan egarriarekin. / *zer egarri! (8):* zer egarri! / *egarri [dien] (10):* egarria zaukin.

egarri ekun *(3, 4, 10)* : egarria eduki / *ekun nion egarri eta emon zinaitein edatra (3):* egarria eduki nuen eta edatera eman zenidaten. / *gose eta egarri deinak (3):* gosea eta egarria daukatenak. / *egarri dionari edatra emoitia (3):* egarria daukanari edaten ematea. / *ekun dien egarri (10):* egarria eduki din.

egarri izan *(2)* : egarri izan / *egarri denari eratra emoitia (2):* egarri denari edaten ematea.

egarriak agoniatu *(5)* : egarriak itotzen egon

egarridura *(5)* : egarri

egarritu *(5)* : egarritu

egarriz egon *(5, 7)* : egarriz egon / *egarriz nago (7):* egarriz nago.

egarriz il *(7)* : egarriz hil */ ilen dun egarriz (7):* egarriz hilko dun.
egatz 1 *(5)* : hegats, luma (luzea)
egatz 2 *(5)* : lasaiera (gona nahiz soinekoena)
egi *(1)* : *(geog.)* hegi */ egi luzea (1):* hegi luzea. */ arteko egia (1):* arteko hegia.
egia *(3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : egia */ egia da agiten drela gose eta lur-ikareria anitx lekutan (3):* egia da gosete eta lurrikarak gertatuko direla leku askotan. */ egia guziuarekin erraiten daizeid (3):* egia guztiarekin esaten dizuet. */ badakigu zu zrela egi-errailia (3):* badakigu zu egia-esalea zarela. */ egiarik bage (3):* egiarik gabe. */ ona kemen zuk maitatu tzula egia (4):* hona hemen zuk egia maitatu duzula. */ aur ta eroenganik egia (5):* haur eta eroengandik egia. */ berri gaixtoak betik erkitan dra egiak (5):* berri txarrak beti ateratzen dira egia. */ gezurtiari ezau xinestan egiarik (5):* gezurtiari ez zaio egiarik sinesten. */ egia dia kori? (7):* egia al da hori? */ kori egia da, baia erdika (7):* hori egia da, baina erdizka. */ egia bat (9):* egia bat. */ egia ukatu ziezun (9):* egia ukatu zuen. */ egia, guzia kori oro egia [da] (10):* egia, guztia hori oro egia da. */ zarrek gaxki anitx erraitan diaguzu, baia egiareki (10):* zaharrok gaizki anitz erraten dugu, baina egiarekin.
egia erran *(5)* : egia esan, egia erran */ egia erraitan dionak galtan du adexkidetarzuna (5):* egia esaten duenak adiskidetasuna galtzen du.
egiaren erraiteko *(4)* : egia esan, egia erran, egia esateko, egia errateko */ egiaren erraiteko, ene urdukalari, zartruk [dago] (4):* egia esan, nire iritziz, (berori) zaharturik dago.
egiatarzun *(3)* : egiatasun */ zomaitek ekun zei[n] beren dudak korpizaren egiatarzunaren gainian (3):* zenbaitek zalantza izan zuten (Jesusen) gorputzaren egiatasunaz.
egiaz *(3)* : egiaz */ egiaz batixatan [ztied] urekin, [penitenziara] mobiaraztako (3):* egiaz bataiatzen zaituztet urarekin, penitentziara mugiarazteko. */ egiaz erraiten daizied errezibitu zeila bere pakiua (3):* egiaz erraten dizuet jaso duzuela haren ordaina.
egiazki *(3)* : egiaz */ egiazki anitx [da] egitatako, baia egitariak txiki (3):* egiaz asko dago igitatzeko, baina igitariak gutxi. */ egiazki zu zra semia (3):* egiaz zu zara semea. */ gizon egiazkua, [kan] egiazki dagona (3):* gizon egiazkoa, han egiazki dagoena.
egiazko *(3)* : egiazko */ egiazko aita (3):* egiazko aita. */ jangeiko bat egiazko (3):* egiazko jaungoiko bat.
egikera *(5)* : jokaera, egikera
egile *(4, 6)* : egile */ zeuriaren eta lurraren egilia (4):* zeruaren eta lurraren egilea. */ egilia (6):* egilea.
egin 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : egin */ guk sinetsi eta egin biar tugun gaiza guziak (2):* guk sinetsi eta egin behar ditugun gauza guztiak. */ kristiaia egitan da benedizionearen seme (2):* kristaua bedeinkapenaren seme egiten da. */ eskuko eribiatxaz iror krutxeren egitia (2):* eskuineko erpuruaz hiru gurutze egitea. */ bigarren persona xatxi zela gizon egitra (2):* bigarren pertsona jaitsi zela gizon egitera. */ Josek egin zion ainguriuak manatu zauna (3):* Josek egin zuen aingeruak agindu ziona. */ nik eginen diez el ztein izaitra gizonen arrantzari (3):* nik eginen dut hel zaitezten gizonen arrantzale izatera. */ [lanak] eginik daude (3):* lanak eginik daude. */ egin zazu onki (4):* egin ezazu ongi. */ mertxede eskatu zitzauna egin balau (4):* eskatu zion mesedea egin balio. */ noizko eginen zion [lana] mitil andi karek? (4):* noizko eginen zuen lana mutil handi hark? */ eztagola betik urrutxa makila egiteko (4):* ez dagoela beti hurritza makila egiteko. */ gero egin bearrak egin zazkei orai (5):* gero egin beharrak egin itzazue orain. */ arri batek, berark, ez du parete egiten (5):* harri batek bakarrik ez du pareta egiten. */ itsusi dago*

eskoinezko lanak ezkerraz egitea (5): itsusi dago eskuineko lanak ezkerraz egitea. */ nik egin dur (7):* nik egin dut. */ beien larruareki (larriareki) egitan dra oskiak (7):* behien larruarekin egiten dira zapatak. */ ez egitea ñori gaizkirik (7):* inori gaitzik ez egitea. */ guk etxe bat eginen diegu (7):* guk etxe bat eginen dugu. */ eta orai lanak egin biar (8):* eta orain lanak egin behar. */ zer egitan dun? (8):* zer egiten dun? */ maiak zer eginen deiku? estorbu (8):* mahaiak zer eginen digu? traba. */ on dun konen egitia (9):* ona dun hau egitea. */ zer bar da egin? (10):* zer behar da egin? */ eztien egin deus ere (10):* ez diten egin deus ere. */ aur egin zienak, lan egin zia[n] (10):* haurrak egin zituenak, lana egin zuen (= haurrek lana ematen dute). */ etse bat egitan dien (10):* etxe bat egiten din.

egin 2 *(5)* : egin, eraiki */ etse bat egin biar dud (5):* etxe bat egin behar dut.

egin ala *(5)* : egin ahala

egin-eginak *(5)* : egin-egina(k), justu-justu, doi-doi

eginak eginik *(5)* : eginak eginik */ eginak eginik, parka (5):* eginak eginik, barka.

eginal *(4, 9)* : eginahal

eginala egin *(4, 9)* : eginahala egin, ahalegina egin */ eginala egin dud Arturo erkin ledin diputao (4):* eginahala egin dut Arturo diputatu atera ledin. */ eginala eginen diar (9):* eginahala eginen dut.

eginarazi *(3)* : eginarazi */ [Jesus erabiliz faiten zen, bere ikaszaliak] eltu zaizkionian kaso eginaraztako (3):* Jesus ibiliz zihoan, bere ikasleak etorri zitzaizkionean kasu eginarazteko.

eginbear *(5)* : eginbehar */ guk karen altxabean egin dugu eginbearra (5):* guk haren ezkutuan egin dugu eginbeharra.

eginbide(ak) *(5)* : *(zuz.)* eginbide(ak) */ eginbideak eginik eztu deusik bereganakatu (5):* eginbideak eginik ez du deusik bereganatu.

egingo *(5)* : *(erai.)* lantoki, tailer

egingu *(5)* : lantoki, tailer

eginzale *(5, 9)* : egile */ izan adi guziuer onki eginzale (5):* izan hadi guztiei on egilea. */ eginzale txiki (9):* ez oso egilea, ez oso langilea.

egisari *(5)* : ordain

egita 1 *(3, 4, 8, 9, 10)* : *(nek.)* igita */ andi tiala bata eta berzia egitara bitartio (3):* handi daitezela bata eta bertzea egitara bitartean. */ eska ztei egitarako nausiari oil tzala egitari bere alurriara (3):* eska iozue nagusiari egitarako bidal ditzala igitariak bere alorrera. */ egita tenpran ilabete batez edo obro (4):* igita garaian hilabetez edo gehiago (lanean). */ egitara [xuan] (8, 9):* igitara joan. */ biramen goxan egitara aitareki ta amareki (9):* biharamun goizean igitara aitarekin eta amarekin. */ gore egitara [xitan bizren laguntra] (10):* gure igitara laguntzera etortzen baitziren.

egita 2 *(5)* : igitari talde

egitai *(5, 8, 9, 10)* : *(nek.)* igitai */ egitaia (8, 9, 10):* igitaia.

egitari *(3, 5)* : *(nek.)* igitari */ egiazki anitx [da] egitatako, baia egitariak txiki (3):* egiaz asko dago igitatzeko, baina igitariak gutxi. */ egitatako tenpran nik erranen [dabet] egitarier (3):* igitaitzeko garaian nik erranen diet igitariei. */ egitarier aurerkeria gentako izan diteken obekiena (5):* igitariei alferkeria kentzeko izan daitekeen onena.

egitatu *(3, 4)* : igitatu */ [zeuriko txoriek ez dei] egitatan (3):* zeruko txoriek ez dute igitatzen. */ egitatan baitzu erin etzun lekiuan (3):* igitatzen baituzu erein ez duzun lekuan. */ egiazki anitx [da] egitatako, baia egitariak txiki (3):* egiaz asko dago igitatzeko, baina igitariak gutxi. */ egitatako tenpran (3):* igitaitzeko garaian. */ gariak zortzi edo amar egunen buriuan asen gra*

egitatan (4): gariak zortzi edo hamar egunen buruan hasiko gara igitatzen. */ oraino´ re etsekuek peonik obenena nakei egitatako (4):* oraindik ere etxekoek peoirik onena naukate igitatzeko. */ egitako lanaz akaitruk [nago] (4):* igitatzeko lanaz nekaturik nago.

egitazale *(3)* : *(nek.)* igitari */ eska ztei egitarako nausiari oil tzala egitari edo egitazale bere alurriara (3):* eska iozue nagusiari egitarako bidal ditzala igitariak bere alorrera. */ egitariak edo egitazaliak (3):* igitariak.

egite 1 *(2)* : egite

egite 2 *(5)* : antz */ egitea badei bi ana[x]e koriek (5):* antza badute bi anaia horiek.

ego 1 *(2, 7)* : *(met.)* hego-haize */ egoa diegu (7):* hego-haizea dugu.

ego 2 *(9)* : sargori, sapa */ egoa (9):* sargoria, sapa.

egoartu 1 *(5)* : oroitu, gogoratu */ kura xanztan duran aldi oroz egoartan naz Antoniotaz (5):* hura janzten dudan aldiro oroitzen naiz Antonioz. */ Jesukristotaz egoartan naz (5):* Jesukristoz oroitzen naiz.

egoartu 2 *(5)* : ohartu; ohartarazi

egoatx *(5, 7)* : *(geog.)* ibai, ugalde */ gaintikatu zaigu egoatxa ta zubu ta prexa berareki eraman ditu (5):* ibaia gainezkatu zaigu eta zubia eta presa berarekin eraman ditu. */ kapitulo kontan ikastan dra egoatxak (7):* kapitulu honetan ikasten dira ibaiak.

egoatxa *(5)* : *(geog.)* ibai, ugalde

egoatxa-txori *(5)* : *(heg.)* enara

egoatxarri *(5)* : ibai-harri, ugaldarri

egoiar *(5)* : solaskide

egoiargu *(5, 11)* : solasaldi leku

egoidiar 1 *(5)* : egoiliar

egoidiar 2 *(5)* : solaskide

egoidiargu *(5)* : solasaldi leku

egoite *(5)* : egote

egoitiazko *(3)* : egotezko */ bere egoitiazko ziudadiara [xin zen] (3):* bere egotezko hirira etorri zen.

egon 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : egon */ iror orenez bizirik egon zela (2):* hiru orduz bizirik egon zela. */ [kan] egonen da (2):* han egonen da. */ kan noiz artio egoitan dra? (2):* han noiz arte egoten dira? */ kala dago (2):* hala dago. */ gu gaude (2):* gu gaude. */ baitaude (2):* baitaude. */ non zegon? (2):* non zegoen? */ ginzaudela (2):* geundela. */ lein xunto egon bagetarik (3):* lehen elkarrekin egon gabe. [uluntruk] egonen tzu (3): ilundurik egonen da. */ izaririk dagola (3):* jarririk dagoela. */ xek zaudei (3):* zuek zaudete. */ ni nintzagon (3):* ni nengoen. */ kura ixilik egon da (4):* hura isilik egon da. */ ni nago, ni nagola (4):* ni nagoela. */ ori dagola (4):* berori dagoela. */ nola daude? (4):* nola daude? */ ni nengolarik (4):* ni nengoenean. */ gu ginaundelarik (4):* gu geundenean. */ ez du egon bear (5):* ez du egon behar. */ ez naz alkez egonen (5):* ez naiz lotsaz egongo. */ nago, yago, zaude, dago (5):* nago, hago, zaude, dago. */ gaude, zaudei, daude (5):* gaude, zaudete, daude. */ nindagon, yindagon, zindauden, zagon (5):* nengoen, hengoen, zeunden, zegoen. */ gindauden, zindaudein, zauden (5):* geunden, zeundeten, zeuden. */ egon naiareki nauzu (6):* egon nahiarekin nauzu. */ ez zaude, ez zaudia (6):* ez zaude. */ ez zinzeudian (6):* ez zeunden. */ non egon zrei? (7):* non egon zarete? */ nago, zaude, dago (7):* nago, zaude, dago. */ gaude, zaudei, daude (7):* gaude, zaudete, daude. */ onki zaudia? (7):* ongi al zaude? */ [onki] dagoa? (7):* ongi al dago? */ onki zaudeia? (7):* ongi al zaudete? */ ene aita egon zia[n]*

amintto bat edanik (8): ene aita pittin bat edanda egon zen. */ Anson egon tzu (9):* Anson egon da. */ eguart nezu atzo egon zela gizona (9):* oroitu naiz atzo egon zela gizona. */ sar tzan azak eta sua egon deila on (9):* sar itzan azak eta sua egon dadila ona. */ ez diezt tenprarik egoitako zureki (9):* ez dut denborarik zurekin egoteko. */ yago (9):* hago. */ nindagoa[n] (9):* nengoan. */ ez yindagon (9):* ez hengoen. */ gindauden (9):* geunden. */ bai, egon nuzu ekustan (10):* bai, ikusten egon naiz. */ Frantzian ere egon nindenez [galtatu zitazun] (10):* ea Frantzian ere egon nintzen galdetu zidan. */ [xoan artio] egonen naz (10):* joan arte egonen naiz. */ nago, yago, dago (10):* nago, hago, dago. */ zaude, gaude, zaudei, daude (10):* zaude, gaude, zaudete, daude. */ ni binindagon (10):* ni bainengoen. */ zagon, zagoa (10):* zegoen. */ gindauden, gindaudia (10):* geunden. */ zauden (10):* zeuden.

egon 2 *(4)* : egon, uste izan */ [Españara xinen zela erraiten zaitadan]; nola igari baidra bi ilabete, nago orai xa xinik dagola (4):* Espainiara etorriko zela esaten zidan; bi hilabete igaro direnez, nago orain jada etorrita dagoela.

egongu 1 *(4)* : egonleku */ [elizako] leku egongiuarengatik, ankartu zren bi emazte (4):* elizako egonlekuarengatik, bi emakume haserretu ziren.

egongu 2 *(5)* : *(erai.)* bizileku, egoitza

egordi *(7, 8, 9)* : erraztatu, ekortu */ egordi dur (7):* erraztatu dut. */ [sukaldia] egordi bage [erkin nun] (8):* sukaldea erraztatu gabe atera naun. */ [etse guzia] egordi diar (9):* etxe osoa erraztatu dut. */ egortan [nindagon] (9):* erraztatzen ari nintzen.

egorri *(5, 9)* : erraztatu, ekortu */ egor zan bede kori, beitago anitz xatx (5):* errazta ezan ezkaratz hori, zikinkeria asko baitago. */ egor zan bedea (9):* errazta ezan ezkaratza.

egortu *(3, 5)* : erraztatu, ekortu */ artra [bueltatian], onki egortruk [erdeitan du] (3):* (etxe) hartara itzultzean, ongi erraztaturik aurkitzen du. */ egor zan bede kori, beitago anitz xatx (5):* errazta ezan atari hori, zikinkeria asko baitago. */ saroietan, axuri saldo bat beretan egon ondoan, ezpelez egor edo xate ta biltan da zirria (5):* saroietan, axuri saldo bat bertan egon ondoan, ezpelez erraztatu edo garbitu eta biltzen da arkorotza.

egorzale *(3)* : botatzaile */ errede egorzale bat (3):* sare-botatzaile bat.

egosarazi *(5)* : egosarazi */ on da oian sartea ta izerdiz sudurretako estura egosaraztea (5):* ona da ohean sartzea eta hotzeria izerdiz egosaraztea.

egosbeila *(5)* : egosbera

egosi 1 *(4, 5, 7, 8, 9, 10)* : egosi */ zuku baratan dena egostan dei bertz batian (4):* geratzen den zukua pertz batean egosten dute. */ zukua egosiz geroz baratan da errebullokatruk (4):* salda egosiz gero pikorturik geratzen da. */ gatarro denian, lore kontarik egos (4):* katarroa denean, egosi lore honetatik. */ azteriaren erkinaraztako on da lapabelarraren ura egosita eznearekí nastean artea (5):* hazteria aterarazteko ona da lapabelarraren ura esnearekin egosita nahastean hartzea. */ esnea egosi dur (7):* esnea egosi dut. */ aintza xatxi diar [eta] esnia egosi diar (8):* ahuntza jetzi diat eta esnea egosi diat. */ esnia egosirik bello, ogi egotx eta xan (8):* esnea beroxka egosirik, ogia bota eta jan. */ nik bar nien egosi eznia? (9):* nik egosi behar nuen esnea? */ badakiar egosi deilla (9):* bazakiat egosi dutela. */ kastaña egosi edo sagar (10):* gaztaina egosi edo sagarra. */ [bainetak] obeki ezik berdeak egostan tun (10):* lekak berdeak baino hobeki egoten ditun.

egosi 2 *(5)* : digeritu, txegosi

egosi 3 *(5)* : bero (ume lodiena) OH. Azkuek ´ume lodiek eskumuturretan, kokospean etabarrean sentitzen duten beroa´ oharrarekin dokumentatua.

egotsi *(5)* : bota, egotzi */ nik ler andi bat egotsi nion ta, akaitu bainintzen, xaxeri nintzen ebakiondoan (5):* nik pinu handi bat bota nuen eta, nekatu bainintzen, eseri egin nintzen ebakiondoan.

egotxi 1 *(3, 4, 7, 8, 10)* : bota, egotzi */ arbole oro izanen da ebakirik eta suara egotxirik (3):* zuhaitz oro moztua izango da eta sutara botea. */ Simon eta Andres egoixtan erredia itxason (3):* Simon eta Andres sarea itsasoan botatzen. */ egun alurrian loratan eta biar labiara egotxtan den belar bat (3):* gaur alorrean loratzen den eta bihar labera botatzen den belar bat. */ baia egotxirik kanpo gentia, sartu zen (3):* baina jendea kanpora botata, sartu egin zen. */ egox zte kementik apal (3):* bota ezazu (zeure burua) hemendik behera. */ [suaren labiara] egotxen tei (3):* su-labera botako ditu. */ [paper guziuak] mai pera egoxten daizk (4):* paper guztiak mahai pera botatzen dizkik. */ izeia egotx (4):* izeia bota (moztu). */ esnia egosirik bello, ogi egotx eta xan (8):* esnea beroxka egosirik, ogia bota eta jan. */ egotxi duna? (10):* bota egin al dun? */ ta egoixtan zeia gazta kona (10):* eta gazta hona botatzen zuten. */ lerra egotx eta egurra egin (10):* pinua bota egurra egin. */ egotxiren dien (10):* botako din. */ egotxan! (10):* bota ezan!

egotxi 2 *(8)* : jaurti, bota */ txakur bati arri bat egotxi (8):* txakur bati harri bat jaurti. */ arri bat egotxi zia[n] (8):* harri bat bota zian.

egotxi 3 *(5)* : eraitsi, lurrera bota

egotzi *(5, 7)* : bota, egotzi (errua eta) */ urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa eta martxo gaisoari egozten dabei kulpa (5):* urtarrilak jaten du gurina, otsailak jaten du haragia eta martxo gaixoari botatzen diote errua.

egoxka *(5)* : lurrera botaka (mutikoen jolasa)

egoxte *(5)* : abortu

eguargi *(5)* : egun argi

eguartu *(6, 9, 10)* : oroitu, gogoratu */ eguartan egon (6):* gogoratzen egon. */ eguar zte (6):* oroi zaitez. */ enezu eguartu (9):* ez naiz oroitu. */ enun eguart egosi dugunetz (9):* ez naun oroitzen egosi dugun. */ eguart nezu atzo egon zela gizona (9):* oroitu naiz atzo egon zela gizona. */ eguartan nezu guzietaz (10):* guztiaz oroitzen naiz.

eguatxa *(2, 7, 8, 9, 10)* : *(geog.)* ibai, ugalde */ eguatxak (2):* ibaiak, ugaldeak. */ xoan adi eguatxara (7):* joan hadi ibaira. */ eguatxa karroiez kuajatruik (8):* ibaia izotzez jelaturik. */ arri andi kura erori dun eguatxara (9):* harri handi hura ugaldera erori dun. */ zoin eguatxatra? (9):* zein ibaitara? */ gaztiak xoaitan gitzia eguatxara zankuen ekuztra (10):* gazteak ibaira joaten ginen oinak garbitzera.

eguerdi 1 *(3, 5, 7, 8, 9)* : eguerdi */ berze bi aldiz erkin zen eguerdiko eta arrastriko iruretako ordu kuetan (3):* beste bi aldiz atera zen eguerdian eta arratsaldeko hiruretako orduetan. */ nola biar da barurtu? ez beizik bazkari bat egitan eguerdiz (3):* nola barautu behar da? bazkari bat baizik ez eginez eguerdiz. */ eguerdi da (7):* eguerdia da. */ bazkaria eguerdiz (7):* bazkaria eguerdiz. */ goxan askal, eguerdiz bazkal, arrestrian askal eta artsen aigal (8):* goizean gosal, eguerdiz bazkal, arratsaldean askal eta arratsean afal. */ eguerdiko bazkaria (8):* eguerdiko bazkaria. */ biar eguerdiz [elten dun] (9):* bihar eguerdian helduko dun.

eguerdi 2 *(2)* : hegoalde, hego

eguerdi-gai *(5)* : eguerdiko ordu bata */ eguerdi-gaia (5):* eguerdiko ordu bata.

eguerdi-garai *(5)* : eguerdiko ordu bata

eguerdialte *(3)* : hegoalde, hego */ eguerdialteko erreina (3):* hegoaldeko erregina.

egun 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : egun */ asteko sei egunak biar tugu (2):* asteko sei egunak behar

ditugu. */ zonbat egunez kreatu ztien gaizak? seirez (2):* zenbat egunez sortu zituen gauzak? seiz. */ kantik irorgarren egunian resuzitatu zen (2):* handik hirugarren egunera berpiztu zen. */ berrogei egun berrogei gaiekin (3):* berrogei egun berrogei gaurekin. */ egunaren eta ordiuaren gain ñork ere ez daki (3):* egunari eta orduari buruz inork ere ez daki. */ Noeren egunetan [agitu zena] (3):* Noeren egunetan gertatu zena. */ nausia [xinen da] orkitan eztion egunian (3):* nagusia etorriko da itxaroten ez duen egunean. */ egunazko obra guziuak (3):* eguneko ekintza guztiak. */ [kakeriak] irain daitad amaborz egunez (4):* beherakoak hamabost egunez iraun dit. */ iguzkia karakolentako da orobat nola eguna tximitxentako (5):* eguzkia barraskiloentzat eguna zimitzentzat bezala da. */ lû aziak San Markos egunean ez du egon bear zakutan (5):* liho haziak San Markos egunean ez du egon behar zakutan. */ egun batan (6):* egun batean. */ egun batez (6):* egun batez. */ zer egun da egun? (7):* zer egun da gaur? */ zomat egunean? berrogoi peseta (7):* zenbat egunean (eguneko)? berrogei pezeta. */ egunko eguna (8):* gaurko eguna. */ gore gaztegoan zer kontent ginden San Joan egunean dantzara xuaitako (9):* gure gaztaroan zer pozik ginen San Joan egunean dantzara joateko. */ o, zer egun ona egin zien! (10):* oi, zer egun ona egin zuen! */ letxuga izartan lurrian, kola eguna igar (10):* letxuga jartzen (landatzen) lurrean, horrela eguna igaro. */ Korpus egunian xitan dra zortzi Madrideko familiatik (10):* Korpus egunean zortzi etortzen dira Madrileko familiatik. */ kara xoan, Uruñara, eta zortzi egunetan irabaztan dein obeki (10):* hara joan, Iruñera, eta zortzi egunetan hobeki irabazten dinate. */ bi egunentako solo [xitan dra] (10):* bi egunetarako soilik etortzen dira. */ anitx egunez ardieki (10):* anitz egunez ardiekin.

egun 2 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : gaur, egun (adb.) */ zuk eguzu gore egunorozko ogia egun (2):* emaguzu zuk gure eguneroko ogia gaur. */ goxetik tenpestade izanen da egun (3):* goizetik ekaitza izango da gaur. */ egun alurrian loratan den belar bat (3):* gaur alorrean loratzen den belar bat. */ Sodoma iraîn zaitekian oraino´re egunko egunian (3):* Sodomak iraun zezakeen oraindik ere egungo egunean. */ fan adi egun trabajatra edo lan egitra ene ardauntziuan (3):* joan hadi gaur nire mahastian lan egitera. */ egun xa estaud obro isartan (4):* gaur jadanik ez diot gehiago jartzen. */ egun digu udako azken xeia (4):* egun dugu udako azken jaia. */ egun eta beti (5):* gaur eta beti. */ egun goxeko meza andian (5):* gaur goizeko meza handian. */ zer egun ogarri izan da egunkoa! (5):* zer egun beroa izan den gaurkoa! */ egunkoa, egunekoa (6):* gaurkoa, egungoa. */ egun ekusen gutzu (6):* gaur elkar ikusiko dugu. */ zer egun da egun? (7):* zer egun da gaur? */ egunko eguna (8):* gaurko eguna. */ etzu egosi egun eznea? (9):* ez duzu egosi egun esnea? */ egun xuaitan gutzu eltzuka (9):* egun eultzira goaz. */ egun zer da? orzelare (10):* gaur zer da? ostirala. */ badion egun goxan [karroin] andiau ezik etxakin ze (10):* bazagon gaur goizean izotz handiagoa ez jakin zer baino. */ egunko fiestaren igartra (10):* gaurko festa igarotzera. */ baskaria ein diagun egunko (10):* bazkaria egin dinagu gaurko.

egun eta beti *(5)* : egun eta beti, orain eta beti

egun eta betiko *(5)* : betiko, egun eta betiko */ egun eta betiko oiltan yaid etse kontarik (5):* egun eta betiko bidaltzen haut etxe honetatik.

egun on! *(7, 10)* : egun on! */ egun on! bai zuri ere (7):* egun on! baita zuri ere.

egun onik! *(7)* : egun on! */ egun onik! bai zuri ere (7):* egun on! baita zuri ere. OH. Zuberoan eta Zaraitzun ere dokumentatua.

egunaldi *(4, 5)* : eguraldi */ elur larriak elur andi, elur xêak egunaldi (4):* elur larriak elur handi, elur xeheak eguraldi (on). */ elur xeak elurte andi, elur larriak egunaldi (5):* elur xeheak elurte handi, elur larriak eguraldi (on).

egunaro *(5)* : egunero, egunoro
egunarte *(5)* : egunarte OH. Zereginik gabeko eguna.
egunaz *(5, 7)* : egunez */ gaiaz egitan dena egunaz agiri (5):* gauez egiten dena egunez ageri. */ [prisaka xoaitan,] egunaz [elten guzu] (7):* presaka joanez, egunez helduko gara.
egundaino *(5)* : egundaino
egundaino (ez) *(5)* : egundaino (ez)
egundraino *(6)* : gaur arte, egun arte
egunetik *(6)* : gaurtik, egundik
egunkal *(5)* : egunka
egunko egunian *(3, 4)* : gaur egun, egungo egunean */ egunko egunian ez dakid non dagon orren barapena (4):* gaur egun ez dakit non dagoen berorren egonlekua.
egunoro *(2, 3, 4, 7)* : egunero, egunoro */ zerengatik egunoro baitugu nestate (2):* zeren egunero baitugu beharra. */ egunoro nintzagon xaseririk xen artian (3):* egunero nengoen zuen artean eserita. */ egunoro meza entzutia (3):* egunero meza entzutea. */ diolarik bizpor egun asi da apeza eskolara bilarazten egun oro (4):* duela egun batzuk apaiza (umeak) ikastetxera egunero bilarazten hasi da. */ egun oro nago orkitan orren karta (4):* egunero nago berorren gutuna itxaroten. */ keben bar diezu euri ekun egunoro (7):* hemen euria egunero eduki behar duzu.
egunoroz *(3)* : egunero, egunoro
egunorozko *(2, 3, 4)* : eguneroko */ zuk eguzu gore egunorozko ogia egun (2):* emaguzu zuk gure eguneroko ogia gaur. */ gore egunorozko ogia emon dazaiguzu egun (3):* gure eguneroko ogia emaguzu gaur. */ emon dazkigu egun gore egunorozko ogia (4):* eman biezagu gaur gure eguneroko ogia.
egunozko *(2)* : eguneroko */ zuk iguzu gore egunozko ogia (2):* zuk emaguzu gure eguneroko ogia.
eguntainoko *(5)* : egundainoko, ezin egokiago
eguntarikas *(6)* : gaurtik, egundik
egur *(1, 2, 4, 5, 8, 9, 10)* : egur, su-egur */ gizon guziuak gaude neguko argi, egurren sartan (4):* gizon guztiak gaude negurako argi, egurrak sartzen. */ nolako egurra, kalako sua (5):* nolako egurra, halako sua. */ egurrak egin biar, negia xitan [da] (8):* egurrak egin behar, negua dator. */ egur egitan (9):* egurra egiten (mozten). */ mandueki ta astueki, etsera [eragutan da] egurra (10):* mandoekin eta astoekin, etxera ekartzen da egurra. */ lerra egotx eta egurra egin (10):* pinua bota egurra egin.
egur-arrailatzale *(5)* : *(heg.)* okil OH. Azkuek ´egur-arraillatxale´ ere dokumentatua.
egur-mokor *(5)* : egur-mokor (egur zatia)
egurbide *(1)* : egurbide */ egurbidea (1lm):* egurbidea.
egurgille *(5)* : egurgile
egurkan *(5)* : egurretan, egurketan
egurki *(5)* : egurki
egurtegi *(5)* : *(erai.)* egurtegi
egurtzea egin *(5)* : egurlana egin (negurako)
egutxa *(1, 9, 10)* : *(geog.)* ibai, ugalde */ egutxaltea (1):* ibai aldea. */ egutxa, bi egutxa (9):* ibaia, bi ibai. */ zer egutxatra xuan gra? (9):* zein ibaitara joan gara? */ Zarakozaradreino, egutxa barna (10):* Zaragozaraino, ibaian barrena. */ gentia goizan berton egutxara [xoaitan zen] eta zankoak ekuz (10):* jendea goizean berehala ibaira joaten zen eta hankak garbitzen (zituen).
eguzki *(2, 5, 8, 9)* : *(astr.)* eguzki */ eguzkia ta argizagia (2):* eguzkia eta ilargia. */ eguzkiaz*

juramento egitia bekatu [da] (2): eguzkiaz zin egitea bekatu da. */ eguzki gorri[a] (5):* eguzki latza. */ eguzkia (8):* eguzkia. */ euri egin gaian eguzkia erkin zia (9):* euria egin ondoren, eguzkia atera zen. */ eguzkiara diozu (9):* eguzkitan dago.

eguzkiarte *(5)* : *(met.)* eguzkiarte

eguzku *(5, 8, 10)* : *(astr.)* eguzki */ arrats odoi-gorri, biramenean eguzku gorri (5):* arrats hodei-gorri, biharamunean eguzki gorri. */ eguzku gorri[a] (5):* eguzki galda. */ eguzku, eguzkia (10):* eguzki, eguzkia.

eguzku gorri *(5)* : eguzki galda

eguzku-begi *(5)* : egutera, eguzkialde */ eguzku-begia lurbel dago, oxezkia astra elur agiri da (5):* egutera lurbeltz dago, laiotza aldiz elur(tsu) ageri da.

eia 1 *(5, 10)* : ea */ eia! (5, 10):* ea!

eia 2 *(5)* : ote */ nik eia? (5):* nik ote?

eialdi *(5)* : ehoaldi OH. Errotan ehotzeko ale kopurua.

eiatondo *(5)* : lixiba (likidoa)

eiatu *(5)* : kitzikatu

eik! *(5)* : emadak! */ obro balio du ´to´ batek ezik bi ´eik´ (5):* gehiago balio du ´to´ batek, bi ´emadak´ baino.

ein 1 *(3, 5, 7, 8, 10)* : ehun */ lur onian emon zein frutu, non batarik ein, non irorogei, non ogeita amar (3):* lur onean fruitua eman zuten, non batetik ehun, non hirurogei, non hogeita hamar. */ ein deuri zidarrezko [zor zaun] (3):* zilarrezko ehun diru zor zion. */ ein aldiz obro (3):* ehun aldiz gehiago. */ april on ekusi bear dionak ein urtez bear du bizi (5):* apiril ona ikusi behar duenak ehun urtez behar du bizi. */ einta berrogeita amar autx (5):* ehun eta berrogeita hamar frantses. */ ein begireki [ebili bear diagu] (7):* ehun begirekin ibili behar diagu. */ ein mila (7):* ehun mila. */ badiela ein urte (10):* duela ehun urte.

ein 2 *(4, 10)* : egin */ baskaria ein diagun egunko (10):* bazkaria egin dinagu gaurko.

ein! *(5)* : emadan!

einbeste *(7)* : hainbeste, hainbertze

eino *(9, 10)* : oraindik */ eino eztun eltu (9):* oraindik ez dun heldu. */ ebiltan bai, eino´re aski onki (10):* ibiltzen bai, oraindik ere aski ongi.

eintari *(3)* : *(mil.)* ehuntari */ Jesusek sontotan du eintariaren mitil zerbutxaria (3):* Jesusek ehuntariaren mutil zerbitzaria sendatzen du.

einturia *(3)* : *(mil.)* zenturia */ [Kafarnaunen] sartan zelarik, erkin zitzaun enkontriuara einturiako ofiziale bat (3):* Kafarnaunen sartzen zela, bidera atera zitzaion zenturiako ofizial bat.

einza *(5)* : ehiza

einza-txakur *(5)* : *(zoo.)* ehiza-txakur, untxari

einzlari *(5)* : ehiztari

einztari *(5)* : ehiztari

eio *(9)* : eho */ xoan gitean errotara gari eiotra (9):* joan gaitezen errotara garia ehotzera.

eiosari *(5)* : ehosari OH. Errotariak ehotzeagatik kobratzen duena.

eit! *(5)* : ba!, eit! (iseka adierazteko)

eitzarazi *(5)* : utzarazi

eitzi *(2, 3, 4, 5)* : utzi */ ez gitxazula eitz tentazionetan erortra (2):* ez gaitzazula utz tentaziotan erortzen. */ bekatiak ariman mantxa eiztan ditienen xaintako (2):* bekatuak ariman uzten dituen

orbanak garbitzeko. */ eta eiztan ztiolarik, fan zen (3):* eta uzten zituela, joan egin zen. */ ixilki eiztia [pensatu zion] (3):* isilik uztea pentsatu zuen. */ eitz nazazu egitra orai (3):* utzidazu orain egiten. */ korrengatik eitzen [dutu gizonak aita eta ama] (3):* horregatik utziko ditu gizonak aita eta ama. */ instantian biak, eitzirik errediak, xarrekitu zitzazkan (3):* berehala biek, sareak utzirik, jarraitu zioten. */ eitzazu nik erkin tzadan autzxko kori zore begitik (3):* utz ezazu nik atera dezadan ahoztxo hori zure begitik. */ bata izanen da libertatruk eta berzia eitzruk (3):* bata askatua izanen da eta bestea utzia. */ [kakeriak] eitzi bainu indar xotxik ere bage (4):* beherakoak indar zipitzik ere gabe utzi bainau. */ igartra eitzi bage eskribatan daud (4):* igarotzen utzi gabe idazten diot. */ emon balako karek manatu zauna, eitzen zion (4):* hark agindu ziona eman balio, utziko zuen. */ ez gitza eitz erortra tentazionian (4):* ez gaitza utz tentazioan erortzen. */ eltxano teste bear ez yuana eitzak eraki tzala (5):* dastatu behar ez duan eltzetxoa utz ezak irakin dezala. */ eitz nazak xagitra, as nein lan egitra (5):* utz nazak jaikitzen, lan egiten has nadin. */ eitz beztadei (5):* (beroriek) utz biezadate. */ eitz beztad (5):* (berorrek) utz biezat.

eitzu *(2, 3, 5)* : utzi */ Kristo gizon egin garaian, eitzu ziena juangeiko izaitia? (2):* Kristo gizon egin zen garaian, utzi al zuen jaungoiko izatea? */ korrekin eitzu zitzaun diabiuak (3):* horrekin utzi zuen deabruak [Jesus]. */ [jangeiko izaitia] eitzu bage (3):* jaungoiko izatea utzi gabe.

eixar *(5)* : ihar

êizatu *(5)* : ehizatu */ obro ellu êizatan da eztiaz ezik ez gibelminaz (5):* euli gehiago ehizatzen da eztiaz gibelminaz baino.

eizetu *(7)* : ehizatu

eizkin *(5)* : uzkin OH. Janari hondarrak nahiz traste zaharrak.

eizu! *(5, 7)* : emadazu!

ek *(3, 4, 7, 9, 10)* : haiek */ ek errespondítu zien (3):* haiek erantzun zuten. */ egitan digularik ekin, ek guri egin lezein nai ginokena (3):* haiekin egiten dugula, haiek guri egin liezaguten nahi genukeena. */ esposua ekin dagon bitartio (3):* senarra haiekin dagoen bitartean */ berze borz [deuri] obro irabazi baidutur ekin edo kekin (3):* bertze bortz txanpon gehiago irabazi baititut haiekin. */ testimonio emon zazein nitaz er eta nazioner (3):* testigantza eman dezazuen nitaz haiei eta nazioei. */ etarik bakotxa (3):* haietako bakoitza. */ zeren ena baita zeuriko reinua (3):* zeren haiena baita zeruko erreinua. */ zeren entako izanen baita zeuriko reinua (3):* zeren haientzat izanen baita zeruko erreinua. */ guziek estimatu zein bixita, erraiten zaitadeilarik nontik guartu den etaz (4):* guztiek estimatu zuten bisita, erraten zidatela nondik oroitu den haietaz. */ ek dra, ek ez dra, ek dreia? (7):* haiek dira, haiek ez dira, haiek al dira? */ ek erran daioei (9):* haiek esan diote. */ ek bai, baia guk ez (10):* haiek bai, baina guk ez. */ ek ez zei nai entzun (10):* haiek ez zuten entzun nahi.

eke *(5)* : ke

ekei *(5)* : hazgei OH. Azkuek ´handi hazteko itxura argia duen pertsona edo gauza´ oharrarekin dokumentaturik.

ekeigei *(5)* : gai (zerbaitetarako ona dena)

eki 1 *(1, 5)* : *(astr.)* eguzki */ eki ederra (1):* eguzki (leku) ederra. */ ekia (1):* eguzki (leku)a. */ eki gorri[a] (5):* eguzki galda. OH. Zuberoan ´ekhi´ eta ´eki´ dokumentatuak.

eki 2 *(10)* : haiekin */ bizi izan balira kurak, betik egonen nindezun elerraitan eki (10):* haiek bizi izan balira, beti egonen nintzen haiekin hitz egiten.

ekialte *(1, 4)* : egutera, eguzkialde */ ekialtea (1):* egutera. */ ekialterrea (1):* egutera errea.

ekiliki *(5)* : ogi-pitzadura OH. Azkuek ´ongi erretako ogi zurixkaren pitzadura´ esanahiarekin dokumentatua.

-eko *(8)* : -erako */ xitan dreneko bar dur aigaria drezatu (8):* etortzen direnerako afaria prestatu behar dut.

ekosi *(5)* : ikusi */ begi beteaz ekosi (5):* oso ongi ikusi.

ekun *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : eduki, ukan, izan */ zerengatik ezpaiz[i]en berze semerik ekun (2):* zeren ez baitzuen bertze semerik ukan. */ bear du ekun intenzione (2):* asmoa eduki behar du. */ ekun zazu nitaz piedade (2):* eduki ezazu nitaz erruki. */ zertako? notizia baten ekutako (2):* zertarako? berri bat ukateko (edukitzeko). */ gutaz miserikordia ekun dezan (2):* gutaz errukia izan dezan. */ esperanza ekutan dugularik (2):* itxaropena edukitzen dugunean. */ tentazione gasto ekutia on daia? (2):* tentazio txarrak edukitzea ona al da? */ seme-alabarik ekutan badei (2):* seme-alabarik izaten badute. */ etzazu errezelorik ekun, [Maria] rezibitako zore etsen (3):* ez ezazu errezelorik eduki, Maria zure etxean hartzeko. */ ez batzei ekutan amorio (3):* ez baduzue maitasunik edukitzen. */ ekunen tzu (3):* edukiko duzu. */ ez ekutia berzen gaiza (3):* ez edukitzea bertzeen gauza. */ [ardi bat] ekutian (3):* ardi bat edukitzean. */ xin zte parte ekutra zore jeinaren gozuan (3):* zatoz parte edukitzera zure jaunaren gozamenean. */ ñore mentian adexkiderik andien ekun duana (4):* neure gizaldian eduki dudan adiskiderik handiena. */ eztud ekun orren kartarik (4):* ez dut eduki berorren gutunik. */ [arbolek] ekuten dein frutiua (4):* zuhaitzek edukitzen duten fruitua. */ apezer errespeto andiago ekuteko (4):* apezei errespetu handiagoa edukitzeko. */ el gitian ekutra gore jeinaren prometimentiuak (4):* gure jaunaren agintzak edukitzera hel gaitezen. */ etzaiala ekun obro trato gaixtoareki (5):* ez ezaala tratu gehiago eduki gaiztoarekin. */ gizona eltan da ekutra bi emazte (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da. */ guartan ez denak ekun zala zanko (5):* oroitzen ez denak eduki dezala hanka. */ nik txakur bat ekun dur (7):* nik txakur bat eduki dut. */ gizonek ez diegu ekun deus ere (7):* gizonok ez dugu eduki ezer ere. */ nik ekutan dutur (7):* nik edukitzen ditut. */ nik ekunen dutur (7):* nik edukiko ditut. */ nik ekun baneza libro bat, emanen [nian] (9):* nik liburu bat eduki baneza, emango nuen. */ zerbeit ekun banu (9):* zerbait eduki banu. */ gero zortzi aur ekun [nien] (10):* gero zortzi haur eduki nituen. */ guk ekun diagu beur et´oro (10):* guk eduki dugu behorra eta dena. */ guziek guniezun apellidoa bera (10):* guztiok genuen deitura bera.

ekuntu *(3, 5)* : eduki, ukan, izan */ atzo arratsean lo ekuntu nion egin, andutsia zapartuz (5):* atzo arratsean lo egin ahal izan nuen erlakaiztena lehertuz.

ekuri *(4, 5, 7)* : geldi, ekuru */ erraiten daud badigula erratia ´ekuri´, baratruk dagon gaizaren (4):* (berorri) erraten diot badugula ´ekuru´ erratea, geldirik dagoen gauzaz. */ egon zte ekuri (5):* egon zaitez geldi. */ egon adi ekuri (7):* egon hadi geldi.

ekurik *(4)* : geldi, ekuru */ yi egon adi kemen ekurik (4):* hi egon hadi hemen geldi.

ekuritu 1 *(7)* : gelditu

ekuritu 2 *(5)* : geratu

ekuru 1 *(5, 9)* : geldi, ekuru */ abarrakiten yeir, ekuru ez bayago (5):* txikituko haut, geldi ez bahago. */ egon adi ekuru (9):* egon hadi geldi.

ekuru 2 *(5)* : lasai

ekusarazi *(4)* : ikusarazi */ ekusaraz bezau Jesus (4):* ikusaraz biezagu (berorrek) Jesus.

ekusgarri *(5)* : ikuskizun

ekusi *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : ikusi */ ekusi [zuniena] jeina noiz sortu zen? (2):* ikusi al zenuen jauna noiz jaio zen? */ gero berze mundian ekus dezan (2):* gero beste munduan ikus dezan. /

sekula ez da ekusi izan kalako gaiza Israelen (3): sekula ez da ikusi izan halako gauza Israelen. */ fan eta konta zazei [Juan] ekusi tzeina (3):* joan eta konta iozue Juani ikusi duzuena. */ [orai] utsiek ekustan dei (3):* orain itsuek ikusten dute. */ biotza argi deinek jangeikua ekusen baitei (3):* bihotza argi dutenek jaungoikoa ikusiko baitute. */ [kainbat gentetarzun] ekustian, sontotu ztion beren eriak (3):* halako jendetza ikustean, haien eriak sendatu zituen. */ errege konbidatiuen ekustra sartian (3):* erregea konbidatuak ikustera sartzean. */ ekusi dur, ekustan dur, ekusen dur (3):* ikusi dut, ikusten dut, ikusiko dut. */ eztud esprantza andirik ekusi biar daudala obrorik (4):* gehiagorik ikusi behar dudan itxaropen handirik ez dut. */ ekustan dud antzinatan diona (4):* ikusten dut aurreratzen duena. */ gero orrek ekusen du zer egin biar dion (4):* gero berorrek ikusiko du zer egi behar duen. */ ekus nrokezu [edo] ekus naztakezu (4):* ikus nazakezu. */ ekusirik nrokezu (4):* ikusirik izan nazakezu (nik uste). */ ekusen nu (4):* ikusiko nau. */ april on ekusi bear dionak ein urtez bear du bizi (5):* apiril ona ikusi behar duenak ehun urtez behar du bizi. */ egun ekusen gutzu (6):* gaur elkar ikusiko dugu. */ ene txakurra ekusi dur (7):* ene txakurra ikusi dut. */ zuk ekustan nuzua? ekustan ztur (7):* zuk ikusten al nauzu? ikusten zaitut. */ gaiaz goikoa ekustan da (7):* gauez ilargia ikusten da. */ guk ekusiren ginoke (7):* guk ikusiko genuke. */ a, ekus baleza! anitx pollit [da] (8):* a, ikus baleza! oso polita da. */ [gizonek] kaur ekusi dein (9):* gizonek hau ikusi diten. */ eztiar ekusi karrikan (9):* ez diat ikusi karrikan. */ ekusi dur ogartan drela nitaz (10):* nitaz oroitzen direla ikusi dut. */ keben ekusi niezun gizon bat (10):* hemen gizon bat ikusi nuen. */ bai, egon nuzu ekustan (10):* bai, ikusten egon naiz. */ orai xin [dra] amaren ekustra (10):* orain etorri dira ama ikustera. */ zomaitek ekusiren dei (10):* zenbaitek ikusiko dute.

ekuskari *(5)* : ikuskizun, ikuskari

ekusmen *(5)* : ikusmen

ekusmenean *(5)* : ikusmenean, ikusterrean (begiz ikusteko moduan)

ekuste *(3, 5)* : ikusmen, ikuste */ ekustia [emoitan du] bi utsiri (3):* ikustea ematen die bi itsuri. */ begi txikerrak du ekustea urrinago (5):* begi txikiak urrunago ikustea du.

ekusterrean *(5)* : ikusterrean (begiz ikusteko moduan) OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

ekustra emon *(3)* : ikustera eman */ [zeuriko zomait prodigio] ekustra emon lezabeila [eskatu zabein] (3):* zeruko zenbait mirari ikustera eman liezaiela eskatu zioten.

ekusu *(5)* : ikusi */ ekusurik birtute (5):* bertutea ikusirik.

ekuszale *(5)* : ikusle */ etse bat erretan zela, utsi zen ekuszalea (5):* etxe bat erretzen zela, itsua zen ikuslea.

ekute *(5)* : ohitura */ ekutea dud (5):* ohitura dut.

ekuzi *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : garbitu, ikuzi */ [eskiuak] ekuzi gabe xatiak, korrek ez [dio] zikintan (3):* eskuak garbi gabe jateak, horrek ez du zikintzen. */ [eskiuak] ekuzi ztion iriaren agerrian (3):* eskuak garbitu zituen herriaren agerian. */ ekuz onki zore begitartia (3):* garbitu ongi zure aurpegia. */ [eskiuak] ez ekuztean bazkaltan deinian (3):* eskuak ez garbitzean bazkaltzen dutenean. */ ekuztako tenpran (4):* ikuzteko garaian. */ ekuz naztazu obro eta obro ene gaxtotarzunetik (4):* garbi nazazu gero eta gehiago nire gaiztotasunetik. */ ekuzen nuzu eta elurra beino obro izanen nuzu xuritruk (4):* garbituko nauzu eta elurra baino gehiago izanen naiz zuritua. */ zuk ekuz onki zore begitartea (5):* zuk garbitu ongi zure aurpegia. */ ekuzi naz (7):* garbitu naiz, neure burua garbitu dut. */ goxan ekuztan nuzu (7):* goizean garbitzen naiz. */ eskuak ekuztan dutud (7):* eskuak garbitzen ditut. */ zazpietan xagi nun [eta] ekuzi nun (8):* zazpietan jaiki naun eta garbitu naun. */ ekuz adi (9):* garbi hadi. */ ontziak ekuzi tuna? (10):* ontziak garbitu

al ditun? */ ekuzi nindia (10):* garbitu nintzen. */ gentia egutxara [xoaitan zen] eta zankoak ekuz (10):* jendea ibaira joaten zen eta oinak garbitzen (zituen). */ zankoen ekuztan (10):* oinak garbitzen. */ gaztiak xoaitan gitzia eguatxara zankuen ekuztra (10):* gazteak ibaira joaten ginen oinak garbitzera. */ ekutzan ontziak! (10):* garbi itzan ontziak!

ekuzkin *(5)* : garbiketa-ur

ekuzle 1 *(5)* : garbitzaile

ekuzle 2 *(5)* : lixiba-garbitzaile

-ela kasoz *(4)* : -ela kausa */ aurten, tenpra dela kasoz, iñaute eguna gorexima egun baten bikain triste [izan da] (4):* aurten, eguraldia dela kausa, inauteri eguna garizuma egun bat bezain tristea izan da.

elaire *(5)* : mintzaera, mintzamolde

elakari *(5)* : berritsu, hitzontzi, eleketari

elaman *(10)* : eraman */ [kota xuri] lenao elamaitan gunia (10):* gona zuriak lehenago eramaten genituen.

elara *(10)* : laratz OH. ´Elaria´ aldaera ere dokumentatua. Orotariko Euskal Hiztegian ´elaratz´ dokumentatua.

elatsu *(4)* : berritsu, hitzontzi, eleketari */ zer elatsu dud adexkide kura! (4):* zer berritsu dudan adiskide hura!

elazi *(5)* : berritsu, hitzontzi, eleketari

elaztatu *(5)* : hitz egin, mintzatu

elbide *(5)* : baliabide

eldar *(5)* : lerde

elder *(2)* : lerde OH. Azkoitian ´erdel´ dokumentatua.

eldu *(5)* : heldu, iritsi

ele 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 10)* : hitz */ ele jangeikuaren autik erkitan den oro (3):* jaungoikoaren ahotik ateratzen den hitz oro. */ Jesusek ele bakotx bat ezaun erresponditu (3):* Jesusek hitz bakar bat ez zion erantzun. */ bere elia edo itzarekin egotxtan ztion espiritu gaxtoak (3):* bere ele edo hitzarekin espiritu gaiztoak botatzen zituen. */ erranik dazkazein eliak (3):* esanda dauzkazuen hitzak. */ zure elengatik biar ekunen tzu izan kondenatruk (3):* zure hitzengatik izan beharko duzu kondenatua. */ elez edo itzez (3):* hitzez. */ nola ez baitei ñon ere entzuten ele bat (4):* inon ere hitz bat entzuten ez dutenez. */ leinian, erdarazko elia [dago] (4):* lehenean (lehen laukitxoan), erdarazko hitza dago. */ batek ez badu elerik erran, karentako erraiten da (4):* batek ez badu hitzik esan, harentzat esaten da. */ elezko lista oiltu daitadana (4):* bidali didan hitz zerrenda. */ eztun elerik ez pensamenturik jangeikoak eztakiela (7):* ez dun hitzik ez pentsamendurik jaungoikoak ez dakienik. */ ezin erran eliak (8):* ezin hitzak esan. */ zemait ele [erraitan guniezun] (10):* zenbait hitz erraten genien. */ buria galtan orai, elez (10):* burua galtzen orain, hitzez.

ele 2 *(5)* : ipuin

ele egin *(5)* : hitz egin, mintzatu

ele erran *(3, 4, 7, 10)* : hitz egin, mintzatu */ ele erran zion edo mintzatu zen mutiua (3):* hitz egin zuen edo mintzatu zen mutua. */ mutu [bat] asi baizen ele erraiten (3):* mutu bat hitz egiten hasi baitzen. */ tenpra guziuan uskaraz ele erraiteko (4):* denbora guztian euskaraz hitz egiteko. */ uskaraz ele erraitan dein gizon-emazte guzuer (7):* euskaraz hitz egiten duten gizon-emakume guztiei. */ mia da ele erraitako (7):* mihia hitz egiteko da. */ ele erran zazu andiki (7):* hitz egin

ezazu ozen. */ [keben] ñoreki ezin da ele erran (10):* hemen inorekin ezin da hitz egin.

elealdi *(4, 5)* : elkarrizketa */ bisusturte batez elealdia [zein] (4):* urte bisustu batean elkarrizketa zuten.

elean etorri *(5)* : eztabaidan etorri

elegatx *(5)* : hitz-motel, totel

eleixilka *(5)* : ahopean, ahopeka

eleontzi *(5)* : berritsu, hitzontzi, eleketari

elerdi *(5)* : hitz erdi

elerraile *(9)* : berritsu, hitzontzi, eleketari

elerran *(5, 7, 8, 9, 10)* : hitz egin, mintzatu */ guk elerran diegu korieki (7):* guk horiekin hitz egin dugu. */ elerran zan amareki (7):* hitz egin ezan amarekin. */ mia dau elerraitako (7):* mihia hitz egiteko dago. */ ene aitatamek uskara elerraiten zezein (8):* nire aita-amek euskara hitz egiten zuten. */ nik ere elerraitan [dur] zerbeit (8):* nik ere hitz egiten dut zerbait. */ elerraitan da (8):* hitz egiten da. */ nik elerraitan diar obeki ezik ik (9):* nik hobeki hitz egiten diat hik baino. */ elerran dien (10):* hitz egin din. */ irurak xuntatan gindenian, anitx elerraitan gindezun uskaraz (10):* hirurak elkartzen ginenean, anitz hitz egiten genuen euskaraz.

elerranbide *(5)* : hizpide

elesta *(5)* : elkarrizketa

eletari *(5)* : hiztun, mintzatzaile

elexurika *(5)* : asmakizunetan (jolastu)

elexurikata *(5)* : asmakizunetan (jolastu)

elexuriketa *(5)* : asmakizun, igarkizun; hitz joko

elez *(5)* : hizketan, solasean

eli 1 *(5)* : talde

eli 2 *(3, 5, 9)* : pare */ kaltzero eli bat (3):* oinetako pare bat. */ oski eli bat (5):* zapata pare bat. */ kaltza eli bat (5):* galtzerdi pare bat. */ eli edo banaka (5):* pareka edo banaka, binaka edo banaka. */ eragi zan oski eli bat aitaren (9):* ekar ezan zapata pare bat aitarentzat. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

eli edo banaka *(5)* : pareka edo banaka

elia artu *(3)* : hitza hartu */ kemen Pedrok artan ziolarik elia, erran zaun (3):* hemen Pedrok hitza hartzen zuela, erran zion.

elikatu 1 *(5)* : elikatu */ ebil adi iritik, elika adi etsetik (5):* ibil hadi herritik, elika hadi etxetik.

elikatu 2 *(5)* : bitartekoak jarri (zerbait lortzeko) */ elikatan dabila kura zerbait bergaintako (5):* bitartekoak jartzen dabil hura zerbait bereganatzeko.

elikatura *(5)* : elikadura

elike gaizto! *(5)* : ez litzateke txarra!

eliza 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(erai.)* eliza */ eliza garaia (1):* eliza garaia. */ zonbat eliza? bat (2):* zenbat eliza? bat. */ elizan sartian (2):* elizan sartzean. */ etzei leitu nola [apezek] trabajatan dein elizan neskanegunian? (3):* ez duzue irakurri nola apaizek lan egiten duten elizan larunbatean? */ kemenko elizan [agitu zen], mezaren erraiteko tenpran (4):* hemengo elizan gertatu zen, meza esateko garaian. */ pelotaria elizan ebilten da saintuz saintu (5):* pilotaria elizan ibiltzen da santuz santu. */ igan zte elizara (7):* igo zaitez elizara. */ zur kau nai digu sartu elizan (8):* enbor hau elizan sartu nahi dugu. */ bi gizonek ikusi dezei gore eliza (9):* bi gizonek ikusi dute gure eliza. */ elizatik [xitan nezu] (9):* elizatik nator. */ elizara [xuaitan nun] (9):*

elizara noan. */ elizetako argiak (9):* elizetako argiak. */ egun bazagua batexu bat elizan (10):* gaur bazegoen bataio bat elizan. */ et´ ez kolako elizako gaizarik batre´ re, ene tenpran ez (10):* eta horrelako elizako gauzarik batere ez, ene garaian ez. */ eino´ re xoaitan nuk elizara (10):* oraindik ere joaten nauk elizara.

eliza 2 *(2)* : *(erl.)* eliza (erakundea) */ eliza ama saintia (2):* eliza ama santua. */ elizaren borzak (2):* elizaren bostak (bost aginduak).

elizakari *(5)* : elizkoi, jainkozale

elizako(ak) *(5)* : elizkizun(ak) */ illaren elizakoak (5):* hilaren elizkizunak.

elizakor *(5)* : *(erl.)* elizkoi, jainkozale

elizauri *(5)* : hilerri

elizione *(4)* : ikasgai */ solfaren eratsukitan lein elizionetarik (4):* solfa irakasten lehen ikasgatik.

eltu 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : heldu, iritsi */ arrazoiara eltu dren guziek [batixa drokeie] (2):* arrazoira heldu diren guztiek bataia dezakete. */ faiten denian eltuz gaia (3):* gaua helduz doanean. */ arrazoiara eltan denian (2):* arrazoira heltzen denean. */ [leproso bat] eltian, erran zaun (3):* legendun bat heltzean, esan zion. */ nik eginen diez el ztein izaitra gizonen arrantzari (3):* nik eginen dut hel zaitezten gizonen arrantzale izatera. */ el zitian jangeikuaren ekustra (3):* jaungoikoa ikustera hel zaitezen. */ [gentek] eltruk orkitan zabein lekiuara (3):* jendea heldurik itxaroten zien lekura. */ eltu gra tenprara, lanek pean arrapatu baigitei (4):* lanek pean harrapatu gaituzten garaira heldu gara. */ atzo eltu zitzaitadan orren erretratoa (4):* atzo heldu zitzaidan berorren argazkia. */ eltan bada egun kori (4):* egun hori heltzen bada. */ Paxkual, Antonio ezdeusa zore bortara eltu tzu (5):* Paxkual, Antonio ezdeusa zure atera heldu duzu (heldu da). */ gizona eltan da ekutra bi emazte (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da. */ laur gizon eltu dra [kona] (7):* lau gizon heldu dira hona. */ [erronkariar bat] eltu zunien (8):* erronkariar bat heldu zen. */ ez bada eltan (8):* ez bada heltzen. */ [berant] eltu dun (9):* berandu heldu dun. */ [biar eguerdiz] elten dun (9):* bihar eguerdian helduko dun. */ eino´ re... urte kuetra eltu [naz] (10):* oraindik ere... urte hauetara heldu naiz. */ orai eltu dun gizon kori etsera (10):* orain heldu dun gizon hori etxera. */ eltan banaz urteberrira, [laurogeita] zazpi (10):* urteberrira heltzen banaiz, laurogeita zazpi. */ [gizon kori berant] eltan dun (10):* gizon hori berandu heltzen dun.

eltu 2 *(3)* : etorri */ arrastria[n] diszipuluak eltu zizazkaun erraiten (3):* arratsaldean ikasleak etorri zitzaizkion esaten. */ [arengana] eltu zren gente anitx, eragutan zeilarik berekin mutu, utsi eta berze anitx (3):* harengana jende anitz etorri zen, beraiekin mutuak, itsuak eta bertze anitz zekartzatela. */ [Jesus erabiliz faiten zen, bere ikaszaliak] eltu zaizkionian kaso eginaraztako (3):* Jesus ibiliz zihoan, bere ikasleak etorri zitzaizkionean kasu eginarazteko.

eltu bada *(5)* : beharbada

eltuberri *(5)* : heldu izanaren berri

eltxano 1 *(5, 7, 9, 10)* : eltze, lapiko */ eltxano erakian ez da ellurik sartan (5):* eltze irakinean ez da eulirik sartzen. */ ezau faltatan eltxano bapanari bere eltzabaldia (5):* ez zaio faltatzen eltze bakoitzari bere estalkia. */ eltxanoa gaintikan da (5):* eltzea gainezka dago. */ mitil erkin zak eltxano! (7):* mutil, atera ezak etzea! */ izar zan suan eltxanoa (9):* jar ezan sutan eltzea. */ izar zan eltxano bat ur (9):* jar ezan eltze bat ur. */ eltxanoa (10):* eltzea. */ eltxanko, eltxanoxko (10):* eltzetxo.

eltxano 2 *(5)* : *(suk.)* eltzekari

eltxanoka *(5)* : lapikozarka (haur jolasa) OH. Lapiko zaharrak erabiliz eta puskatuz egiten den

jolasa. Arrasaten ´lapikozarka´ dokumentatua.

eltxanotapa *(5)* : eltzetxo-estalki

eltxar *(5)* : *(zoo.)* eltxar OH. Jaki zaharretako har zuria.

eltxe *(5)* : *(zoo.)* eltxo

eltxu *(5)* : *(zoo.)* eltxo

eltzabaldi *(5)* : estalki */ ezau faltatan eltxano bapanari bere eltzabaldia (5):* ez zaio faltatzen eltze bakoitzari bere estalkia. OH. Ikus Orotariko Euskal Hiztegian ´eltzabaldi´ sarrera eta bertako oharra.

eltzanoka *(5)* : lapikozarka (haur jolasa) OH. Lapiko zaharrak erabiliz eta puskatuz egiten den jolasa. Arrasaten ´lapikozarka´ dokumentatua.

eltzar *(5)* : *(zoo.)* eltxar */ anrak eltzarretarik [egitan dra] (5):* harrak eltxarretatik egiten dira. OH. Jaki zaharretako har zuria.

eltzari *(3, 5)* : *(suk.)* eltzekari, lekari */ [azi xê da], baia anditian xiten da izaitra andiago ezik eltzari guziuak (3):* hazi xehea da, baina haztean eltzari guztiak baino handiago egiten da.

eltzaur *(5)* : *(bot.)* intxaur

eltzeutsi *(5)* : itsulapiko, eltzeitsu */ eltzeutsia (5):* itsulapikoa.

eltzu *(4, 5, 9, 10)* : *(nek.)* eultzi */ eltziua zer xe dago! (4):* eultzia zer xehe dagoen! */ eltziuak llarnetan egon zren elurrez tapatruk (4):* eultziak larrainetan elurrez estalirik egon ziren. */ eltziuak xiatu (5):* eultziak xehetu. */ eltzu anitx (9):* eultzi anitz. */ biar euriari egonen dun ta eltzia bustiren dun (9):* bihar euria eginen dun eta eultzia bustiko dun. */ orai bar diauzu axatu eltzea (9):* orain eultzia haizatu behar dugu. */ eltziara noan (9):* eultzira noan.

eltzuka *(4, 9)* : *(nek.)* eultzian */ orai gaude eltzuka, tenprak laguntan badaikugu, fite akabaten digu (4):* orain eultzian ari gara, eguraldiak laguntzen badigu, azkar bukatuko dugu. */ egun xuaitan gutzu eltzuka (9):* egun eultzira goaz.

eltzukatu *(5, 10)* : eultzitu, garia jo

eltzutu *(5)* : eultzitu, garia jo

elur *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : *(met.)* elur */ karroia eta elurra (2):* izotza eta elurra. */ bere beztiduak xuri [izari zren] elurra bikala (3):* haren jantziak zuri jarri ziren elurra bezala. */ xuri elurraren gisa (3):* zuria elurra bezala. */ ez digu negu guziuan ekusi kainbat elur nola orai dagona (4):* ez dugu negu osoan ikusi hainbat elur nola orain dagoena. */ elur larriak elur andi, elur xêak egunaldi (4):* elur larriak elur handi, elur xeheak eguraldi. */ egun kontan xin zitzaukun elurra abantxu iriaraino (4):* egun honetan elurra etorri zitzaigun ia herriraino. */ eltziuak llarnetan egon zren elurrez tapatruk (4):* eultziak larrainetan elurrez estalirik egon ziren. */ tenpra digu elurreki (4):* eguraldia elurrarekin dugu. */ elur xeak elurte andi, elur larriak egunaldi (5):* elur xeheak elurte handi, elur larriak eguraldi (on). */ elur-telada, elurra (5):* elur geruzatxoa, elurra. */ elur ari du (7):* elurra ari du. */ elurra [xitan tzu] (9):* elurra dator. */ elurrean (9):* elurretan. */ elurra (10):* elurra.

elur busti *(5)* : *(met.)* elur busti

elur-kana *(5)* : *(met.)* elur-maluta

elur-pelota *(5)* : elur-jausi

elur-zafla *(5)* : *(met.)* elur-maluta (handiak)

elurpirrin *(5)* : *(met.)* elur malutatxo

elurrari egon *(4)* : elurra ari izan, elurtsu egon */ dago elurrari ezin obroz (4):* elurra ari du (elurtsu dago) ezin gehiagoz. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

elurri *(1)* : *(bot.)* elorri, arantza */ elurria, elurriaga (1):* elorria, elorri lekua. */ elurri bakotxa (1lm):* elorri bakarra.

elurridoi *(1)* : *(met.)* elordi */ elurridoia (1):* elordia. OH. Ikus ´elurri´ eta ´ellurridoi´ sarrerak.

elurte *(4, 5)* : *(met.)* elurte */ badu ogei egun, elurte andi batek pean gazkala (4):* badu hogei egun, elurte handi batek pean gauzkala. */ elur xeak elurte andi, elur larriak egunaldi (5):* elur xeheak elurte handi, elur larriak eguraldi (on).

elurzilo *(5)* : elurzulo

ello 1 *(4, 5)* : erotxo, eroxka, bakun

ello 2 *(4)* : eroki, ero moduan */ zarrek xei oro, ello, xurifikatan emon ztein makilakaldiz [mitil gaztiak] (4):* zaharrek jaiero, eroki, jipoitzen omen zituzten makilakaldiz mutil gazteak.

ellotu *(4)* : erotu (txikigarria) */ berze irur [gizon]ak daude ellotruk xaî-xaîa (4):* beste hiru gizonak guztiz eroturik daude.

elloxka *(5)* : ergeltxo, tenteltxo

ellu *(2, 4, 5, 8, 9, 10)* : *(zoo.)* euli */ ñaurek gentan tiat ellu kuek (4):* neronek kentzen ditut euli hauek. */ ak ezozkeila elluak gen (4):* hark ez zitzakeela euliak kendu. */ altakan elluen oiltako bear ztein lakaioak (4):* ondoan euliak bidaltzeko behar zituen lekaioak. */ obro ellu êizatan da eztiaz ezik ez gibelminaz (5):* euli gehiago ehizatzen da eztiaz gibelminaz baino. */ eltxano erakian ez da ellurik sartan (5):* eltze irakinean ez da eulirik sartzen. */ emeretzu ellu (8):* hemeretzi euli. */ ellu kori gen zan (10):* ken ezan euli hori. */ elleak (10):* euliak.

ellu-kaka 1 *(5)* : euli-kaka

ellu-kaka 2 *(5)* : *(zoo.)* har-larba

ellurri *(1)* : *(bot.)* elorri, arantza

ellurridoi *(1)* : elorridi */ ellurridoia (1lm):* elorridia.

emagin *(5)* : emagin

emak! *(5)* : emaiok! */ orobat goixtarrari nola berantari, emak zazoin ona aziari (5):* berdin goiztiarrari edo berantiarrari, emaiok sasoi ona haziari.

emakume *(5)* : emakume

emakume lazo *(5)* : emakume laxo, emakume lotsagabe

emakunde *(5)* : *(erl.)* emakunde */ emakunde egun[a] (5):* emakunde eguna (sexagesima osteguna).

eman *(7, 9)* : eman */ jeina, eman bakea (bakia) (7):* jauna, eman bakea. */ gizon ederrari peseta bat emanen diar (7):* gizon ederrari pezeta bat emango diot. */ nik ekun baneza libro bat, emanen [nian] (9):* nik liburu bat edukiko banu, emango nuen.

emaro *(4, 5)* : poliki, emeki */ eri artetan [arrapatan dayanian], fanen zain laxatuz emaro-emaroa (4):* hatz artean harrapatzen hauenean, emeki-emeki laxatuz joango zain. */ emaro-emaro [x]iten da elurra (5):* poliki-poliki etortzen da elurra.

ematxar 1 *(5)* : emagaldu, urdanga

ematxar 2 *(9)* : atso

ematzar *(2)* : atso

emazte 1 *(2, 3, 5, 7, 10)* : emazte */ berzen emaztiak desea est[i]zagula (2):* ez ditzagula desiratu besteen emazteak. */ Uriasen emazte izan zenaganik (3):* Uriasen emaztea izan zengarengandik. */ Maria zore emaztia (3):* Maria zure emaztea. */ emaztek [ezbaitei] arten senarrik (3):* emazteek ez baitute senarrik hartuko. */ ezaizu lizito [Herodias] erokitia emaztetako (3):* ez zaizu zilegi Herodias emaztetzat edukitzea. */ ezteietan txikien xatan diona emazte berria (5):*

ezteietan gutxien jaten duena emazte berria. */ gizona eltan da ekutra bi emazte (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da. */ obro iraintan du barridean emazte gaixtoak ezik martxokoan elurrak (5):* gehiago irauten du auzoan emazte txarrak, martxokoan elurrak baino. */ senarrak emazteari orobat [yiketz] (7):* senarrak emazteari berdin hika.

emazte 2 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : emakume */ benedikatia [zu] emazte guzien artean (2):* bedeinkatua zu emakume guztien artean. */ emazte bat odol usurtiua batarik [libratan du] (3):* (Jesusek) emakume bat odol isuri batetik libratzen du. */ emazteak eta aurrak (3):* emakumeak eta haurrak. */ emazten semen artetik ez [da] sortu bakotxik Juan beino andiago (3):* emakumeen semeen artetik ez da bakarrik jaio Juan baino handiagorik. */ elizan ankartu zren bi emazte (4):* elizan bi emakume haserretu ziren. */ aurrak eta emazteak danzatan dra Ibañetan (4):* haurrak eta emakumeak dantzatzen dira Ibañetan. */ emaztiak xaxeri izan zren (4):* emakumeak eseri izan ziren. */ ´ttik´ erraiten zen emaztek saintiuer egiten zein erreberenziari (4):* ´ttik´ esaten zitzaion emakumeek santuei egiten zieten erreberentziari. */ emazte urule gaixtoari ezau ekustan atorra berririk (5):* emakume irule txarrari ez zaio ikusten atorra berririk. */ emazte zreia? (7):* emakumeak al zarete? */ zuek ekusi ditzei emazteak (7):* zuek emakumeak ikusi dituzue. */ ez dago emazterik (7):* ez dago emakumerik. */ gizon bat eta emazte bat (8):* gizon bat eta emakume bat. */ emaztek gero, berantago utzu zedein [uskara] (8):* emakumeek gero, beranduago utzi zuten euskara. */ emazte batek erran zion gizon bati (10):* emakume batek esan zion gizon bati.

emazte galtu *(3)* : emagaldu, urdanga */ egiaz erraten daizeid emazte galtiuak xen antzinetik [fanen drela] (3):* egiaz erraten dizuet emagalduak zuen aitzinetik joanen direla.

emazte urdin *(5)* : emakume gaizto

emazte-atorra *(5)* : alkandora (emakumezkoa)

emaztegei *(5)* : emaztegai OH. Zuberoan ere dokumentatua.

emaztegente *(5)* : emakumejende, emakume talde

emazteki *(3, 4, 5)* : emakume, emazteki, emakumezko */ laur milla gizon, aurrak [kontatu bage] ez emaztekiak ere (3):* lau mila gizon, haurrak zenbatu gabe ez(ta) emakumezkoak ere. */ kemen emaztekia orobat trabajatan da nola gizakia, mendi lanetan (4):* hemen emakumezkoak orobat gizasemeak bezala lan egiten du, mendi lanetan. */ yiketzian berextan digu gizakia emaztekitik (4):* hiketan gizakia emaztekiagandik bereizten dugu. */ emazteki lanetan (5):* emakumezko(en) lanetan. */ emazteki korrek baditu berrogei axkixalu (5):* emakume horrek baditu berrogei azazkal (20 bereak eta 20 sabeleko haurrarenak).

emaztekoi *(5)* : andrezale, gonazale

emendakin *(5)* : emendakin

emendallu *(5)* : txirikorda-zinta (ilekoa)

emendallu-muxko *(5)* : txirikorda-zinta mutur

emendatu *(2, 5)* : zuzendu (aferak) */ bere bekatiez dolore egiazko bat [ekun biar du], propositorekin biziz emendatako (2):* bere bekatuez egiazko mina eduki behar du, bizia zuzentzeko asmoarekin. */ [esprantxareki niozu emonen] diztazula emendatako grazia (5):* itxaropenez nago zuzentzeko grazia emango didazula.

emerdi *(5)* : erdi berri

emeretzu *(3, 5, 7, 8, 9, 10)* : hemeretzi

emeretzugarnen *(3, 7)* : hemeretzigarren */ emeretzugarnen kapitulua (3):* hemeretzigarren kapitulua. */ emeretzugarnen ikasgei[a] (7):* hemeretzigarren ikasgaia.

emezortzi *(3, 4, 7, 8, 10)* : hemezortzi */ [mitilak gerrako] emezortzi urtetarik, aiketa ogeita ezdakid zomatradraino (4):* mutilak gerrarako hemezortzi urtetik, harik eta hogeita ez dakit zenbateraino. */ irorogeita emezortzi (8):* hirurogeita hemezortzi.

emezortzigarnen *(3, 7)* : hemezortzigarren */ emezortzigarnen kapitulua (3):* hemezortzigarren kapitulua. */ emezortzigarnen ikasgei[a] (7):* hemezortzigarren ikasgaia.

emoile 1 *(2, 5)* : emaile */ sinets gloriaren emoile [dela] (2):* sinetsi aintza emailea dela. */ gloria emoile (2):* aintza emaile(a). */ barra egiten dena arte[an], biotzean sartan zau emoileari (5):* hartzean egiten den barrea bihotzean sartzen zaio emaileari.

emoile 2 *(5)* : emankor

emon 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : eman */ emon deinak (2):* eman dutenak. */ emon [biar dugu] (2):* eman behar dugu. */ zoin sakramentuk emoitan daigu lein grazia? (2):* zein sakramentuk ematen digu lehen grazia? */ zer emonen daiguei? (2):* zer emango diegu? */ bordaltier grazia emoitako (2):* ezkonduei grazia emateko. */ zer nai daitazeid emon? (3):* zer eman nahi didazue? */ gaiza kuek guziuak emonen daizud (3):* gauza hauek guztiak emanen dizkizut. */ kalakoak emon dau kalako gaiza kalakoari (4):* halakoak eman dio halako gauza halakoari. */ emon naun, emon naizun, emon nayan (4):* eman nion, eman nizun, eman nian (eta) eman ninan. */ [jangeikuak] emon daztan iltea on bat (4):* jaungoikoak heriotza on bat eman diezadan. */ [gariak] ez daikugu emonen biltako gastu egiten digunarentako (4):* gariak ez digu emango egiten dugun gasturako biltzeko. */ bozkario emoiten [dei arrotzek], faten drenean (4):* poz ematen dute arrotzek, joaten direnean. */ ñore konfesoreak emon diztein penitenzia (5):* neure aitorleak eman didan penitentzia. */ ez dei emoiten ardaû (5):* ez dute ardo(rik) ematen. */ aize otzaren berokia emonen dakad (5):* haize hotzaren berokia emanen diat (= ezer ez). */ bapanari berea emoitako (5):* bakoitzari berea emateko. */ ardiak ilea emoitan du (7):* ardiak artilea ematen du. */ zomat bar diar emon? (8):* zenbat eman behar diat? */ ez dei emonen (8):* ez dute emanen. */ [kaur] emon deiztan aitaren (9):* hau aitarentzat eman zidaten. */ emon bezita niri (9):* eman biezat niri. */ gizon korrek emon dien anitx deiru (10):* gizon horrek diru asko eman din. */ aur guziak etsetra xuan eta emoitan ziziein gaiza (10):* haur guztiak (eskean) etxeetara joan eta gauzak ematen zizkieten.

emon 2 *(7)* : eman, iruditu */ anitx zar emoitan du (7):* oso zaharra ematen du.

emon 3 *(4, 5, 10)* : omen */ kemenko mitilek egiten emon zein bi kuadrilla (4):* hemengo mutilek bi laguntalde egiten omen zituzten. */ zarrek xei oro xurifikatan emon ztein makilakaldiz [mitil gaztiak] (4):* zaharrek jaiero jipoitzen omen zituzten makilakaldiz mutil gazteak. */ lerdoi kartan [zazpiein gizon] emon zakan (4):* pinudi hartan zazpiehun gizon omen zeuzkan (lanean). */ alabatu emon dayein (5):* laudatu omen haute. */ aberatsa emon zen, baia [k]ura ere apaltu da takez (5):* aberatsa omen zen, baina hura ere apaldu da guztiz. */ Habana aldean xinalka euria egitan emon du (5):* Habana aldean aldizka euria egiten omen du. */ erraitan emon zeia maztek (10):* emakumeek esaten omen zuten.

emondu *(5)* : higatu, saretu (arropa)

emonik *(5)* : doan, musutruk

emontarzun *(3)* : opari */ fan zte apezarengana eta ofrezi zazu emontarzun Moisesek manatu ziona (3):* joan zaitez apaizarengana eta eskain ezazu Moisesek agindu zuen oparia. OH. Azkuek ´zerga´ esanahian itzulia eta Deiker-en ´Bonaparte ondarea Erronkariera´ liburuan ´dohai, opari´ esanahian.

emonzale *(5)* : emaile */ ardun duk, baia emonzale ez (5):* hartzailea duk, baina ez emailea.

en *(3, 10)* : haien */ Jesus en sinagogan [sartu zen] (3):* Jesus haien sinagogan sartu zen. */ en alaba bat (10):* haien alaba bat.

-en 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : -en (erlatibozkoa) */ zer da fedia? gaiza ekustan eztugunaren sinestia (2):* zer da fedea? ikusten ez dugun gauza sinestea. */ ark eta zuk sinestan duzien gaiza korik (2):* hark eta zuk sinesten dituzuen gauza horiek. */ ezpaigra baliatan arek medio izarri ztienetaz (2):* ez baikara baliatzen hark jarri zituen baliabideez. */ bekatu egin tugunien parkatako (2):* egin ditugun bekatuak barkatzeko. */ judiuak Babiloniara eraman izan zren tenpra[n] (3):* juduak Babiloniara eraman(ak) izan ziren garaian. */ autzak erreren tu il ez deiteken su batian (3):* hil ez daitekeen su batean erreko ditu ahotzak. */ ulunguan eroririk zagon iri konek ekusi du argi andi bat (3):* iluntasunean eroririk zegoen herri honek argi handi bat ikusi du. */ bueltaten naz ñore etse erkin nazaniara (3):* atera naizen neure etxera itzuliko naiz. */ paka daztadak zor daitadayana! (3):* ordain iezadak zor didaana! */ mendi Jesusek señalatu zabeiniara [fan zren] (3):* Jesusek seinalatu zien mendira joan ziren. */ mertxede eskatu zitzauna egin balau (4):* eskatu zion mesedea egin balio. */ baratruk ekusten nion erbi baten arrapatra [fan nintzen] (4):* geldituta ikusten nuen erbi bat harrapatzera joan nintzen. */ txakur inzlari aztan dagonaren bikainbat xateko ganureki [nago] (4):* hazten ari den txakur ehiztariaren bezainbat jateko gogoz nago. */ ez zren erkiten etse biltan zrenetik (4):* ez ziren ateratzen biltzen ziren etxetik. */ otsoak arrapatan dion aragia on zau enbrari xatea (5):* otsoak harrapatzen duen haragia ona zaio emeari jatea. */ arri tiratan denak ez du begirik (5):* botatzen den harriak ez du begirik. */ eltxano teste bear ez yuana eitzak eraki tzala (5):* dastatu behar ez duan eltzetxoa utz ezak irakin dezala. */ obro milla ezik bilo-punta durana (5):* ditudan ile-puntak baino milako gehiago. */ xin den gizon kori ene aita [da] (7):* etorri den gizon hori nire aita da. */ xin dena ene ama [da] (7):* etorri dena nire ama da. */ nai durana (7):* nahi dudana. */ [eraman ogia] mazteak dauden lekuara (lekiara) (7):* eraman ogia emakumeak dauden lekura. */ uzkuzilotik erkitan den gaiza kaka (8):* uzkitik irteten den gauza kaka (da). */ galtegin zan nai dian guzia (9):* galdegin ezan nahi dunan guztia. */ igar den urtian (10):* igaro den urtean. */ keben egon den kori (10):* hemen egon den hori. */ etse amaño ziena, amañoen ziena (10):* gertu zuen etxea, gertuen zuena. */ gizon xin zena atzo, eri [zagua] (10):* atzo etorri zen gizona gaixorik zegoen.

-en 2 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : -en, -ko (geroaldia) */ nola xakinen dugu zer bear dugun? (2):* nola jakinen dugu zer behar dugun? */ nik eginen diez el ztein izaitra arrantzari (3):* nik eginen dut hel zaitezten arrantzale izatera. */ noizko eginen zion [lana] mitil andi karek? (4):* noizko eginen zuen lana mutil handi hark? */ eztu xinetsen (4):* ez du sinetsiko. */ mundu guzutik fanen naz orreki (4):* mundu osotik joanen naiz berorrekin. */ maiatziaraz gero, [laurna pezeta] irabazen dei (4):* maiatza ezkero, launa pezeta irabaziko dute. */ ekuzen nuzu eta elurra beino obro izanen nuzu xuritruk (4):* garbituko nauzu eta elurra baino gehiago izanen naiz zuritua. */ kasu egiten eztionak etaxur bati, eginen du etse guziuari (5):* itogin bati kasu egiten ez dionak, etxe osoari eginen dio. */ egiñen du (5):* eginen du. */ kota onki konpontan badun, urtea igaren dun (5):* gona ongi konpontzen badun, urtea igaroko dun. */ argintzioan fanen gutuk (5):* egunsentian joanen gaituk. */ ez niezu xanen (6):* ez nuen (?) jango. */ zomait xinen dra (7):* zenbait etorriko dira. */ ilen naz, ilen dur (7):* hilko naiz, hilko dut. */ biar xinen dun (9):* bihar etorriko dun. */ gu xoanen gitzu (10):* gu joanen gara. OH. Ikus ´-ren 1´ sarrera.

enauke *(5)* : deseroso, gozagaitz

enborratu *(5)* : kardatu (artilea)

enbuti *(10)* : inbutu, onil

endezera *(5)* : bazter, inguru, paraje */ endezera kartan agitu zaitad mando baten erortea (5):* inguru hartan gertatu zait mando bat erortzea.

endone *(2)* : *(erl.)* done, san (ark.) */ endone Mikle, endone Juane, endone Petri (2):* done Mikel, done Ibane, done Petri. OH. Berez, ´endone´ hitza ´jaun done´ren aldaera da, ´juandone´, ´jondoni´ etabar bezala.

endura *(4)* : miseria, lazeria */ udan kanta eta kanta, gero negiuan endura (4):* udan kanta eta kanta, gero neguan miseria.

ene *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : nire, ene */ ene jeian zrena (2):* ene jauna zarena. */ Israeleko ene iria (3):* Israeleko ene herria. */ nik deitu nion Egiptotik ene semia (3):* nik deitu nuen Egiptotik ene semea. */ ene atzian xin biar diona (3):* nire atzean etorri behar duena. */ ez du merexi izan enia (3):* ez du merezi izan ene (maitasun)a. */ obroena barregarritako izanen zazka ene astakeriak (4):* gehiena barregarritarako izanen zaizkio ene astakeriak. */ ene gaztezutiuan (4):* nire gaztaroan. */ ene begiak ekusi deina ene miak erranen (5):* ene begiak ikusi duena ene mihiak erranen. */ yorea yire ta enea bien (5):* heurea hire eta enea bien. */ ene txakurra ekusi dur (7):* ene txakurra ikusi dut. */ kau enea (enia) da (7):* hau nirea da. */ ene tenpran guziak uskaldun (8):* ene garaian guztiak euskaldunak (ziren). */ ene aîzpa zen kura (8):* hura ene ahizpa zen. */ et´ez kolako elizako gaizarik batre´re, ene tenpran ez (10):* eta horrelako elizako gauzarik batere ez, ene garaian ez.

Enea *(11)* : Enea (etxe izenetan) */ Kabila Enea (11):* Kabila Enea.

enegana *(3)* : niregana, enegana */ zu xitan zra enegana! (3):* zu etortzen zara niregana!

eneganik *(3, 4, 9)* : niregandik, enegandik */ bere biotza urrin [dago] eneganik edo nitarik (3):* haren bihotza urrun dago niregandik. */ ez zazu gen eneganik zure espiritu saintiua (4):* ez ezazu ken niregandik zure espiritu santua.

enegatik *(9)* : niregatik, enegatik

eneki *(4, 5, 6, 7, 9, 10)* : nirekin, enekin */ erreza zazei eneki (4):* otoitz egizue nirekin. */ egin nai yuana eneki (5):* egin nahi duana nirekin. */ txakurra eneki xitan da (7):* txakurra nirekin dator. */ yi xitan yaz eneki (7):* hi nirekin etortzen haiz. */ xan zazei eneki (9):* jan ezazue nirekin. */ arek nai zia xoan eneki (10):* hark nirekin joan nahi zuen.

enekin *(3)* : nirekin, enekin */ ez dionak enekin biltan, barriatan du (3):* ez duenak nirekin biltzen, barreiatzen du. */ kaur egin zinein aldioroz ene anaxe zomaitekin, enekin egin zinein (3):* nire anaia zenbaitekin hau egin zenuten aldi oro, nirekin egin zenuten.

enetako *(3, 5, 7, 9)* : niretzat, enetako */ yi enetako guziuetarik maitena [yaz] (5):* hi niretzat haiz guztietan maiteena. */ norentako eragu tzu? enetako eragu dur (7):* norentzat ekarri duzu? niretzat ekarri dut.

enetakotu *(5)* : nireganatu

engañatu *(5)* : engainatu */ debriak errezatan dionean engañatu nai yai (5):* deabruak errezatzen duenean engainatu nahi hau.

engañu *(3)* : engainu, iruzur */ azken engañua gaxtuago [izan dein] ezik leina (3):* azken engainua gaiztoagoa izan dadin lehena baino. */ abratstarzunen engañuak sofokatan dei (3):* aberastasunen engainuek itotzen dute.

engatik *(3)* : haiengatik */ fariseuek entelegatu zein mintzatan zela engatik (3):* fariseuek ulertu zuten haiengatik mintzatzen zela.

engointik *(5)* : dagoeneko

engoxan *(4)* : goizean */ engoxan antze zaikugu llarne mantria sotoaren erdian (4):* goizean larraineko izara ukuiluaren erdian ahaztu zaigu.

enkaratu *(5)* : *(erai.)* karez zuritu (horma, pareta)

enkontru *(3)* : topo egite, topatze

enkontru emon *(3)* : topo egin, topatu */ bedratziuen ordiuari abantxu, enkontru emon zion berze banekin (3):* ia bederatzi orduetan, beste batzuekin topo egin zuen.

entakatu *(5)* : ase, asebete

entako *(3)* : haientzat, haiendako */ zeren entako baita zeuriko reinua (3):* zeren haientzat baita zeruko erreinua.

entelegatra emon *(3, 4)* : aditzera eman */ [zomait grazia eskatu nai daula] emoiten entelegatra (3):* zenbait grazia eskatu nahi diola aditzera emanez. */ ele kuek [izari zabein], entelegatra emoitan baizein sentenziaren kausa (3):* hitz hauek jarri zituzten, epaiaren arrazoia aditzera ematen zutenak. */ kaur, xardokitu bage, eztakid nola entelegatra emon (4):* hau, hitz egin gabe, ez dakit nola aditzera eman. */ obeki emonen naun entelegatra itzez (4):* hobeki emanen nion aditzera hitzez. */ entelegatra emoiteko (4):* aditzera emateko.

entelegatu *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : ulertu */ entelegatu tzeia onki gaiza kuek oro? (3):* ongi ulertu dituzue gauza hauek denak? */ zer entelegatan tzu? (3):* zer ulertzen duzu? */ ek entzutian ez baitei entelegatan (3):* haiek entzutean ez baitute ulertzen. */ Jesusek entelegatian erran zabein (3):* Jesusek ulertzean esan zien. */ biarri dionak entelegatako, entelega tzala (3):* belarria duenak ulertzeko, uler dezala. */ entelega zazei onki kaur (3):* uler ezazue ongi hau. */ xinistian [nago] arek ere ez diola entelegaten ene uskara (4):* sinetsita nago hark ere ez duela ulertzen nire euskara. */ geroxago xainki entelegatako nola biar dion izan (4):* geroxeago garbiki ulertzeko nola izan behar duen. */ entelega tzan gore uskara (4):* gure euskara uler dezan. */ gaizki [erran zeian], ez zeia[n] entelegatu (7):* gaizki esan zinan, ez zinan ulertu. */ ez entzutan ez entelegatan (8):* (ez zuen) ez entzuten ez ulertzen. */ baia guk ez digu entelegatan onki orien uskara (8):* baina guk ez dugu ongi ulertzen berorien euskara. */ zemait ele [erraitan guniezun], baia ez entelegatan guziak (10):* zenbait hitz erraten genien, baina ez (zituzten) ulertzen guztiak.

entelegi *(2)* : ulermen */ zertako eman zaigun entelegia? aren izaguntako (2):* zertarako eman zigun ulermena? haren ezagutzeko (hura ezagutzeko)

entiparratu *(5)* : *(alb.)* idortu (abereak)

entokatu *(5)* : *(erai.)* entokatu, luzitu

entxanume *(9)* : eltzetxo, lapiko */ zer dun entxanume kortan? (9):* zer dun eltzetxo horretan?

entzagur *(5, 9)* : *(bot.)* intxaur

entzun *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : entzun */ entzutan dienak [zer egin biar du]? (2):* entzuten duenak zer egin behar du? */ entzun tzei erranik izan zela (3):* errana izan zela entzun duzue. */ kaur entzun baikoz erregiari, partitu zren (3):* erregeari hau entzun bezain laster, abiatu egin ziren. */ [mintzuak] entzun zren (3):* mintzoak entzun ziren. */ etziua entzuten? (3):* ez al duzu entzuten? */ entzutan deinek (3):* entzuten dutenek. */ meza entzutia igante oro (3):* meza entzutea igandero. */ Jesusek kaur entzutian, [erretiratu zen] (3):* Jesus, hau entzutean, aldendu egin zen. */ lurraren bazterretarik [xin baizen] entzutako (3):* lurraren bazterretatik etorri baitzen entzuteko. */ entzunik zaudei (3):* entzunda zaudete. */ [xaurien biarriekin] entzunen tzei (3):* zeuen belarriekin entzungo dituzue. */ entzun nazazei eta entelega zazei onki kaur (3):* entzun nazazue eta uler ezazue ongi hau. */ egun entzun dud Otxagabira xin dela eskribain berri bat*

(4): gaur entzun dut Otsagabiara eskribau berri bat etorri dela. */ kari ezau mintzorik entzun (4):* hari ez zaio mintzorik entzun. */ nola ez baitei ñon ere entzuten ele bat (4):* inon ere hitz bat entzuten ez dutenez. */ ayik entzun nai ez diona ez deila fan gerrara (5):* airik entzun nahi ez duena ez dadila gerrara joan. */ beazaleak entzuten tu bere gatxak (5):* behatzaileak bere gaitzak entzuten ditu. */ bearriak xai tun yik, entzun yoke aiñamerma baten urratsa (5):* belarriak garbi ditun hik, armiarma baten urratsa entzun dezaken. */ kori entzun zeinian (7):* hori entzun zutenean. */ sonua (sonia) entzutan dur (7):* soinua entzuten dut. */ bearriak dra entzutako (7):* belarriak entzuteko dira. */ ez diar entzutan (8):* ez diat entzuten. */ nik eztur entzun keben uskaraz kantarik (10):* nik ez dut entzun hemen euskaraz kanturik. */ ek ez zei nai entzun (10):* haiek ez zuten entzun nahi. */ eurkek ere ezia entzutan (10):* inork ere ez zuen entzuten.

entzuntu *(10)* : aditu, entzun, hartu (usaina) */ entzuntu duna kioa? (10):* aditu al dun usaina?

entzunzale *(3)* : entzule */ Jesusek Juanen gainian [erran zabena] bere entzunzaler (3):* Jesusek Juani buruz esan ziena bere entzuleei.

entzute *(4)* : entzute */ ene entzutiari emonen dauzu gozo (4):* nire entzuteari gozamena emango diozu.

entzuterrean *(5)* : entzuterrean (belarriz entzuteko moduan) OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

entzutiaz ekun *(4)* : entzutea izan, aditzea izan */ nik entzutiaz dud izeiak eta lerrak irurein urteren bizia deila (4):* nik entzutea dut izeiek eta lerrek hirurehun urteko bizia dutela.

enuxatu *(4)* : haserretu */ ezren enuxaten (4):* ez ziren haserretuko.

enuxu egon *(9)* : haserre egon */ ama enuxu dion dantzatu bigra (9):* ama haserre zagon dantzatu egin baikara.

enzur *(4, 5)* : *(anat.)* hezur */ guk belaineko enzurrari erraiten digu zankabizkarra (4):* guk belauneko hezurrari ´belaunezur´ esaten diogu.

eñurreriatu *(5)* : inurritu (gorputz atalak)

eñurri *(5)* : *(bot.)* elorri (fruitua)

eñurriatze *(5)* : *(bot.)* elorriondo

eortzi *(7)* : ehortzi, lurperatu

ep! *(5)* : ep! OH. Estualdian esaten den oihuxka.

epel 1 *(5)* : epel */ ur epelean (5):* ur epeletan.

epel 2 *(5)* : epel (adore gabea)

epel-autse *(5)* : bero samar

eper *(1, 2, 5, 9)* : *(heg.)* eper */ eper alorra (1):* eper alorra. */ eper masto[a] (5):* eper arra. */ eperraren umea mendikari (5):* eperraren umea mendizale. */ eperra (9):* eperra.

eper-txakur *(5)* : *(zoo.)* eper-txakur

eperki *(5)* : *(suk.)* eperki */ arki eta eperkiz aserik (5):* ahariki eta eperkiz aserik.

er *(3, 10)* : haiei */ er ejenplo on emoitia (3):* haiei jarraibide ona ematea. */ ni er baninden (10):* ni haiei banintzen.

erabaki 1 *(7)* : erabaki

erabaki 2 *(5)* : ebaki

erabe *(5)* : erabetasun

erabili 1 *(3)* : ibili */ [orai] mainkiuak erabiltan dra (3):* orain herrenak ibiltzen dira. */ [gaiza kuen atzian] erabiltan baitra (3):* gauza hauen atzean ibiltzen baitira. */ xagi eta erabil zte (3):* jaiki eta ibil zaitez. */ Jesus xin zen erabiliz itxasuaren gainetik (3):* Jesus etorri zen itsasoaren gainean ibiliz. */ [txiki] erabil baidaiteke (3):* gutxi ibil baidaiteke. */ [mandamentiuen bidetarik]*

erabil zitian (3): aginduen bideetatik ibil zaitezen.

erabili 2 *(3, 5)* : erabili */ errota[ko] arri asto batek erabiltan dion korietarik bat (3):* asto batek erabiltzen duen errotako harri horietako bat. */ [persegituz] erabilen ditzei ziudade batarik berziara (3):* jarraituz erabiliko dituzue hiri batetik bestera. */ kaur erabili da judiuen artian egunko eguniarartio (3):* hau erabili da juduen artean gaur egun arte. */ txakurrak buztana ogiagatik erabiltan du (5):* txakurrak buztana ogiagatik erabiltzen du.

erabilkatu *(5)* : erabili, nahasi

eradugu *(3)* : ekarri */ nork ere naidion eradugu dezan jeina zonbait gaizatan testigotako (3):* nornahik jauna ekar dezan zenbait gauzaren lekuko gisa.

erager egin *(10)* : igeri egin */ bañatako egitan dein anitx erager (10):* bainatzeko igeri anitz egiten diten.

eragi *(5, 7, 9, 10)* : ekarri */ yire aitak eragi dien deirua (7):* hire aitak dirua ekarri din. */ kau eragi diar gizonentako (7):* hau ekarri dut gizonentzat. */ [ene amarentako] eragitan diar (7):* nire amarentzako ekartzen diat. */ eragi zan oski eli bat aitaren (9):* ekar ezan zapata pare bat aitarentzat. */ nik eragitan diar (9):* nik ekartzen diat. */ eragi dien, eragitan dien (10):* ekartzen din. */ eragi zan kona arraultze banak gore arixkidearentako (10):* ekar itzan hona arrautza batzuk gure adiskidearentzat.

eragu *(2, 3, 5, 7, 9, 10)* : ekarri */ zengatik? zerengatik jeina testigo eragutan baitugu (2):* zergatik? zeren jauna lekuko ekartzen baitugu. */ [Juanek] eragutan zion beztido bat kamellozko biloz (3):* Juanek gamelu ilez (eginiko) jantzi bat ekartzen zuen. */ bakiaren eragutra [xin naz] (3):* bakea ekartzera etorri naiz. */ [Pilatosek] manatu zion eragu lezeila ur (3):* Pilatosek ura ekar liezaiotela agindu zuen. */ biarko egunak aski kuidado eraguen du berarekin (3):* biharko egunak aski ardura ekarriko du berarekin. */ [aren buriua plater batian] eragurik [izan zen] (3):* haren burua plater batean ekarria izan zen. */ odoi-adar bat erkitan denean gorri ta dundu, euria eragutan du (5):* hodei-adar bat ateratzen denean gorri eta urdin, euria ekartzen du. */ aurra, eragu zak bi marabedisen kara-kona (5):* haurra, ekar ezak bi marabediko hara-hona (= joan hadi eta eman zak bakea). */ eraguz eraguz (5):* ekartzearen ekartzeaz, ekartzearen poderioz. */ erran eraguz (5):* esan (iezaiozu) ekartzeko. */ gazta, aragia eta ardaua eragu ditiegu (7):* gazta, haragia eta ardoa ekarri ditugu. */ eragu dur, eragutan dur (7):* ekarri dut, ekartzen dut; dakart. */ zuk eraguten tzu (7):* zuk ekartzen duzu; dakarzu. */ orai eragunen (sic) dur (7):* orain ekarriko dut. */ xaxtan bazra, eragu zazu libroa (7):* jaisten bazara, eraman ezazu liburua. */ eragu zazei (9):* ekar ezazue. OH. Ikus Azkueren hiztegian, Z hizkiaren sarreran ´erran eraguz´ esamolde bitxi dokumentatua.

eraitxi *(10)* : eraitsi (norbaitek zerbait jaitsi) */ eta [etserik] eraixtan zia kopak eta inzagur (10):* eta etxetik eraisten zituzten kopak eta intxaurrak.

erakari *(5)* : ekarle

eraki *(5)* : irakin */ ez eraki bai eraki (5):* ez irakin bai irakin (= irakiteko zorian). */ eltxano erakian ez da ellurik sartan (5):* eltze irakinean ez da eulirik sartzen. */ eltxano teste bear ez yuana eitzak eraki tzala (5):* dastatu behar ez duan eltzetxoa utz ezak irakin dezala. */ eraki ondo erkin zan eltxanoa (5):* irakin ondoren atera ezan eltzetxoa. OH. Zuberoan ere dokumentatua.

erakialdi *(5)* : irakinaldi

erakitu *(5)* : irakin

erakuste *(3)* : irakaspen */ Jesusek erakustia kuek [emoitiaz akabatu zion] (3):* Jesusek irakaspen

hauek ematen bukatu zuen.

erakuszale *(3)* : irakasle */ iriko erakuszale edo eskribaîak (3):* herriko irakasle edo eskribauak. */ erakuszale bat [abañatan zitzaularik], erran zaun (3):* irakasle bat hurbiltzen zitzaiola, esan zion. */ erakuszalek ekustian (3):* irakasleek ikustean.

erakutsdun *(3)* : irakasle */ legiaren erakutsdun (3):* legearen irakasle.

erakutsi 1 *(3, 8, 10)* : erakutsi */ nork erakutsi daizei? (3):* nork erakutsi dizue? */ mia erakutsi ziezun (8):* mihia erakutsi zien. */ kolaxet, uzkiaren erakustako (10):* honelaxe, ipurdia erakusteko.

erakutsi 2 *(3, 7)* : irakatsi */ [Jesus] faiten zen Galilea guzutik erakustan eta predikatan (3):* Jesus Galilea osotik joaten zen irakasten eta predikatzen. */ ez eskribaî eta fariseuek erakustan zein gisa (3):* ez eskribauek eta fariseuek irakasten zuten moduan. */ leina, ez dakionari erakutstia (3):* lehena, ez dakienari irakastea. */ [gizoner] erakuts baleza egitra gaiza bera (3):* gizonei irakats baliezaie gauza bera egiten. */ libro zerratruk ez du ñori erakustan (7):* liburu itxiak ez dio inori irakasten.

erakutszale *(3)* : irakasle */ legiaren erakutszale [batek] galtegin zaun tentatiagatik (3):* lege irakasle batek galdetu zion tentatzeagatik.

eraman 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : eraman */ [linboko] arimak [paradisoko gloriara] eraman zitiela (2):* linboko arimak paradisuko aintzara eraman zituela. */ bai, eramaitan balimadra pazienziaz (2):* bai, pazientziaz eramaten baldin badira. */ pazienziaz eramaitea, pazienziaz eramaitia (2):* pazientziaz eramatea. */ judiuak Babiloniara eraman izan zren (3):* juduak Babiloniara eraman(ak) izan ziren. */ ni enaz [dino] ari eramaiteko sandaliak (3):* ni ez naiz duin hari sandaliak eramateko. */ okasione kartan Jesus izan zen eramanik desiertuara (3):* aldi hartan Jesus basamortura eramana izan zen. */ erreketarik xuntatu zen urbultziuak [zûr] ugaltian zaudenak eraman ztion (4):* erreketatik elkartu zen uholdeak ibaian zeuden zurak (enborrak) eraman zituen. */ eramaiten du (4):* eramaten du. */ badaramatzagu (4):* badaramatzagu. */ zamein (4):* zeramaten. */ [ainguriek] eraman nintzein uturriara (5):* aingeruek iturrira eraman ninduten. */ eramanen duk (5):* eramanen duk. */ saroietan biltan da zirria, alur batera edo baratzen batera eramaitako (5):* saroietan biltzen da arkorotza, alor batera edo baratzeren batera eramateko. */ zer daramayan! (5):* zer daramaan! */ betik dama (5):* beti darama. */ bizkarrean zaman (5):* bizkarrean zeraman. */ eramaten naizeir, eramaitan dezein (sic) (6):* eramaten naute. */ [Pedrok] eraman zia (7):* Pedrok eraman zian. */ eraman zan ogi kori (10):* eraman ezan ogi hori. */ lenao eramaitan zeia guzia almadiek (10):* lehenago [zur] guztia eramaten zuten almadiek.

eraman 2 *(5)* : eraman, jasan

eramanarazi *(3)* : eramanarazi */ eramanarazten daizunari bortxa kargatruk milla urratsez, fan zte arekin berze bi millaz (3):* bortxaz kargaturik mila urratsez eramanarazten dizunarekin, joan zaitez beste bi milaz.

eramankin *(5)* : eramankin OH. Azkuek ´arrastaka eramandako gauzen hondarrak´ esanahiarekin dokumentatua.

eramu *(4)* : baliabide */ kemen irur eramu digu bizitako, kosetxa, zûra eta ardiak (4):* hemen hiru baliabide ditugu bizitzeko, uzta, zura eta ardiak.

eran *(2, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : edan */ ardaûaren erateko (4):* ardoa edateko. */ eratra [juanen da] (4):* edatera joango da. */ eran balu (6):* edan balu. */ eratan diezt, eratan diez (6):* edaten dut. */ eratra [xuan] (6):* edatera joan. */ yik eranen [yena]? (7):* hik edango al huen? */ [txorta bat] eran diar*

(9): zurrutada bat edan diat (; dut). */ arek eratan dien ur (10):* hark ura edaten du.

erantzun *(5)* : errieta egin, agiraka egin */ amak erantzuten du gaizki biz den semea (5):* amak errieta egiten dio gaizki bizi den semeari.

eratra emon *(2)* : edaten eman, edatera eman */ egarri denari eratra emoitia (2):* egarri denari edaten ematea.

eratsuki 1 *(2, 4, 5)* : erakutsi */ eratsuki du (4):* erakutsi du. */ lepoko gorbatak berark eratsukitan du nola dakan utsik gizenkiaren lekiua (4):* lepoko gorbatak berak erakusten du nola daukan hutsik gizenkiaren lekua. */ eratsuken tu (4):* erakutsiko ditu. */ eratsuk tzan (4):* erakuts dezan.

eratsuki 2 *(2, 4, 5)* : irakatsi */ eztakienari eratsukitea (2):* ez dakienari irakastea. */ [organista] asi zau solfaren eratsukitan (4):* organista solfeoa irakasten hasi zaio. */ kark eztoke eratsukitia on ekun (4):* hark ez dezake irakaste ona izan. */ uskara emon du, orrek eratsukirik (4):* euskara eman du, berorrek irakatsirik. */ nai dionak eratsuki, lein bear du ikasi (5):* irakatsi nahi duenak lehenik ikasi egin behar du. */ liburu zerratiuak ez du ñori eratsukitan (5):* liburu itxiak ez dio inori irakasten. */ maistroek ene tenpran zakiein txikiago ezik oraikoek, baia eratsukitan zein obro, zafratan baigintien (5):* maisuek ene garaian gutxiago zekiten oraingoek baino, baina gehiago irakasten zuten, (bortitz) jotzen baikintuzten.

eratsuku 1 *(2, 4)* : erakutsi */ kala eratsukuten baitaigu (2):* hala erakusten baitigu. */ zertako? guri fede saintuko misterioen eratsukutako (2):* zertarako? guri fede santuko misterioak erakusteko. */ eratsuku [dai] kuzu zore sabeleko frutia (2):* erakuts iezaguzu zure sabeleko fruitua. */ [gaxtuer zure bidiak] eratsuken dazkabeizud (4):* gaiztoei zure bideak erakutsiko dizkiet.

eratsuku 2 *(2)* : irakatsi */ guri orazione egitan eratsukutako (2):* guri otoitz egiten irakasteko.

eratxiki 1 *(3)* : jo */ norbaitek eratxikitan badaizu eskoîneko maxelan, utzul dazazu berzia ere (3):* norbaitek eskuineko masailean jotzen bazaitu, itzul ezazu bestea ere. */ eratxiki dazak ik ere kari (5):* erantzun iok hari hik ere joz.

eratxiki 2 *(5)* : kolpe

eratxuki 1 *(2)* : erakutsi */ desterro kau igariz gero eratxuki diazaguzu frutua (2):* erbesteratze hau igaro ezkero erakuts iezaguzu fruitua.

eratxuki 2 *(2)* : irakatsi */ eztakienari eratxukitia (2):* ez dakienari irakastea.

eratzarri *(5)* : esnatu, iratzarri */ bigotz-bearriak eratzar itzak! (5):* bihotz-belarriak iratzar itzak! (= mugi hadi!)

erauntsi *(2, 4, 5)* : *(met.)* erauntsi */ orai bi urte, arri erauntsi batek eraman zaikugun kosetxa (4):* orain bi urte, harri erauntsi batek uzta eraman zigun. */ atzo zortzi erori zen ur erauntsi andi bat, eta ugaltian zûr zauden guziuak eraman ztion (4):* atzo zortzi erori zen ur erauntsi handi bat, eta ibaian zeuden zur guztiak eraman zituen. */ erauntsiaren bezperan xin zen errena azken zûra saltruk (4):* erauntsiaren bezperan erraina etorri zen azken zura salduta.

erauntzi *(5)* : jaitsi, eraitsi (norbaitek zerbait)

erauski *(5)* : edoski, titia hartu

erautsi *(5)* : erori */ pilpilka elurra erausten da (5):* elurra malutaka erortzen da.

-erazi *(5)* : -arazi */ arrerazi (5):* harrarazi.

eraztu *(5)* : zirrara izan */ otso baten ekusteari eraztu naz (5):* otso bat ikustean zirrara izan dut.

eraztun 1 *(9)* : eraztun

eraztun 2 *(5)* : saski-helduleku

erbi *(2, 4, 5, 7)* : *(zoo.)* erbi */ baratruk ekusten nion erbi baten arrapatra [fan nintzen] (4):* geldituta ikusten nuen erbi bat harrapatzera joan nintzen. */ kau dun gatu, eztun erbi (7):* hau

katua dun, ez dun erbia.

erdara *(2, 4, 5, 7, 8, 10)* : *(hizk.)* erdara */ aita Scioren erdaratik Bidangozeko uskarara utzulia (2):* aita Scioren erdaratik Bidankozeko euskarara itzulia. */ erkin ztei karrikara eta ikasen tzei gore makilen erdara (5):* atera zaitezte kalera eta ikasiko duzue gure makilen erdara (= jipoia hartuko duzue). */ karta dun eskribitruk erdaraz (7):* gutuna erdaraz idatzia dun. */ kastellanua edo erdara (8):* gaztelania edo erdara.

erdaraz *(4, 10)* : erdaraz */ orai asen naz errespuesten emoiten erdaraz (4):* orain erantzunak erdaraz ematen hasiko naiz. */ nik betik areki uskaraz eta beste aurrideki erdaraz (10):* nik beti harekin euskaraz eta beste haurridekin erdaraz.

erdarazko *(4)* : erdarazko */ leinian, erdarazko elia [dago] (4):* lehenean (lehen laukitxoan), erdarazko hitza dago

erdarerri *(5)* : erdalerri, atzerri

erdel *(7)* : erdal

erden 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9)* : aurkitu, ediren */ [aurra] erden zein Maria bere amarekin (3):* haurra aurkitu zuten bere ama Mariarekin. */ [aurra] erdenez geroz abiso emon aztazeid (3):* haurra aurkituz gero, abisu emadazue. */ [Judea guzutik] zuatzan aren erdeitra gentiak (3):* Judea osotik zihoazen jendeak hura aurkitzera. */ zer xan erdeiteko kuidaduaz, mantenatako xen bizia (3):* zer jan aurkitzeko arduraz, zuen bizia mantentzeko. */ non erdenen digu zer xan eta edan? (3):* non aurkituko dugu zer xan eta edan? */ [milagrosoki] erdenik (3):* mirariz aurkiturik. */ ez badoke Parisen erden paperik eskribitako, nik oilten daud (4):* ez badezake Parisen idazteko paperik aurkitu, nik bidaliko diot. */ orrek erran beztad ya non erdeiten dren (4):* horren esan biezat ea non aurkitzen diren. */ ezta estrañu izanen zerbait liferenzia erden tzan gunetik konat ene uskaran (4):* ez da arraroa izango ezberdintasunik aurki dezan ordutik hona nire euskaran. */ nik aldi batez bago-zilo batan berrogei andre-gazna erden nien (5):* nik behin pago-zulo batean berrogei andre-gazta aurkitu nituen. */ oilo errule gaixtoak ez du abia onik erdeiten (5):* oilo errule txarrak ez du habia onik aurkitzen. */ onki xin! onki erden! (7):* ongi etorri! ongi aurkitu! */ mai pean [pelotak] erden ditei (7):* mahai pean pilotak aurkitu dituzte. */ erden zezein mia falta zela (8):* mihia falta zela aurki zezaten. */ [borz pezeta] erdeitan batzu (9):* bost pezeta aurkitzen badituzu. */ erden dein (10):* aurkitu diten. */ xoan dun aber erdeitan dienez zomait tronkoixko (10):* joan dun ea zenbait enbortxo aurkitzen duten.

erden 2 *(5)* : sartu, kabitu */ ekun duka lotsarik eztiola erdenen? (5):* beldur izan al haiz ez zela kabituko?

erdensari *(5)* : edirensari OH. Zerbait aurkitzen duenari ematen zaion ordaina.

erdentu *(7)* : aurkitu, ediren

erdi 1 *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : erdi */ Salomon, bere andigua guziuaren erdian, [ez zen beztitu kain onki] (3):* Salomon, bere handitasun guztiaren erdian, ez zen hain ongi jantzi. */ eztare Israelen erdian ere erden duala fede bat kain andi (3):* Israelen erdian ere ez dut aurkitu fede hain handirik. */ borzna eta erdi [pezeta irabazen dei] (4):* bosna eta erdi pezeta irabaziko dute. */ goazen kebentik, iriaren erditik (4):* goazen hemendik, herriaren erditik. */ urrinarat dirdiratan dei suek mendien erdian (4):* urrunean suek dirdiratzen dute mendien erdian. */ [elurrak] mendi lanak arrapatu daizkugu erdi eginik (4):* elurrak mendi lanak erdi eginik harrapatu dizkigu. */ ñore begi minareki, erdi utsitruk [baratu naz] (4):* neure begiko minarekin, erdi itsuturik geratu naiz. */ goazen kementik, iriaren erditik (5):* goazen hemendik, herriaren erditik. */ borz t' erdiak dra (7):* bost eta erdiak dira. */ oren erdi bat (7):* oren erdi bat. */ guazen kebentik,*

iriaren erditik (7): goazen hemendik, herriaren erditik. */ iriaren erdian [plazta dion] (7):* herriaren erdian plaza zagon. */ xuan deila zeuriaren erdiara! (8):* joan dadila zeruaren erdira! */ etse erdiak eroriik [daudezu] (10):* etxe erdiak eroririk daude. */ oren bakotx et´ erdia (10):* ordu bata eta erdi.

erdi 2 *(2, 3)* : erdi, haurra izan */ zeren da amaberjinandria birjen erdiz lein? (2):* zergatik da ama birjina andrea birjina erdi baino lehen? */ amaberjinandria birjen [da] erdietan (2):* ama birjina andrea birjina da erditzean. */ eta kola erdiren dizu seme bat (3):* eta horrela erdiko da seme batez.

erdi-erdian *(4)* : erdi-erdian (indargarria) */ al banu, eskuta batez sar nazake buruko unen erdi-erdian gore uskararen mintza moldia (4):* ahal banu, eskutada batez sar niezaioke (?) buruko muinen erdi-erdian gure euskararen mintzamoldea.

erdialdi *(5)* : erditze

erdibaratu *(5)* : harritu */ erdibaratu naz (5):* harritu naiz.

erdiberri *(5)* : erdiberri

erdika *(5, 7)* : erdizka */ kori egia da, baia erdika (7):* hori egia da, baina erdizka.

erdikatu *(5)* : erdibitu, erdikatu

erdimin(ak) *(5)* : erdimin(ak)

erdiondo *(5)* : erdiondo

erdira egin *(9)* : erdika egin

erdiragarri *(5)* : erdiragarri

erdiratu *(5)* : erdibitu, erdiratu */ [bigotz guzia] erdiratan diztazu (5):* bihotz osoa erdibitzen didazu.

erdiraz *(9)* : erdibana */ erdiraz [biltu diegun] (9):* erdibana bildu dinagu.

erditik egin *(5)* : hunkitu */ biotza erditik egin zion (5):* bihotza hunkitu zitzaion.

erditsu *(5)* : erdi itsu

erditu *(7)* : erdi, haurra izan

erdixkal *(4)* : erdizkako */ iror gisatako [sagarrak], on, erdixkal eta gaxto (4):* hiru modutako sagarrak, onak, erdizkakoak eta txarrak. OH. ´Erdiskal´ ere dokumentaturik. Ikus ´erdixkalki´ sarrera.

erdixkalki *(4)* : erdizka */ sontotu [naz], banua indarrak biltuz erdixkalki (4):* sendatu naiz, banoa indarrak bilduz erdizka.

erdiz gora *(5)* : erdiz gora (inausi) OH. Azkuek ´adarraren erdian v bat eginez´ oharrarekin dokumentatua.

erdizola *(5)* : zola-erdi

erdizolatu *(5)* : zola-erdiak jarri

erdizpesta *(5)* : zola-erdi

erdizpestatu *(5)* : zola-erdiak jarri

erdoi *(5)* : herdoil

ere 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : ere */ ñeurk ere laguntu bagerik (2):* inork ere lagundu gabe. */ [jeina] berze leku guzietan faltaturik ere, ezpaitateke zeurian falta (2):* jauna beste leku guztietan falta izanik ere, ez baidaiteke zeruan falta izan. */ [norbait] txikerrago urdu izanik ere, ezdeustako [ekunik izanen da] (3):* norbait txikiagoa iruditurik ere, ezereztzat edukia izango da. */ xaurien buruko biluak ere kontatruk [daude] (3):* zeuen buruko ileak ere zenbaturik daude. */ ñork ere ezabein al ekun errespondítu ele bat ere (3):* inork ere ez zion erantzun ahal izan hitz bat ere.

/ lloba solfistak ere eztu esturiatan obro solfa (4): biloba solfistak ere ez du gehiago solfeoa ikasten. */ nola ez baitei ñon ere entzuten ele bat (4):* inon ere hitz bat entzuten ez dutenez. */ berze itz banak ere isartan daud (4):* beste hitz batzuk ere jartzen dizkiot. */ eskribaîari [bixita egin daud] eta Frantxiska Ligikoari ere bai (4):* eskribauari bisita egin diot eta Frantziska Ligikoari ere bai. */ iduriak idurieki, ni ere keki (5):* antzekoak antzekoekin, ni ere haiekin. */ zetatxutik igartan dena yik ere bear dun igari (5):* galbahetik igarotzen dena hik ere behar dun igaro. */ egun onik! bai zuri ere (7):* egun on! baita zuri ere. */ asteazkena xei egun da, igantea ere bai (7):* asteazkena jai eguna da, igandea ere bai. */ ni Sant´Engrazian [izan nuzu] eta Maulen ere bai (8):* ni Santa Grazin izan naiz eta Maulen ere bai. */ ´askaria´ goxan eta arrastrian ere bai (8):* ´askaria´ goizean eta arratsaldean ere bai. */ nik ere elerraitan [dur] zerbeit (8):* nik ere hitz egiten dut zerbait. */ Frantzian ere egon nindenez [galtatu zitazun] (10):* ea Frantzian ere egon nintzen galdetu zidan. */ ni Sansebastianen egon naz, eta Igelduan ere bai (10):* ni Donostian egon naiz, eta Igeldon ere bai.

ere 2 *(3)* : ere (kontzesiboa) */ [xaurien begiekin] ekusirik ere, etzei beiraten (3):* zeuen begiekin ikusirik ere ez duzue begiratuko. */ zore aitak ekustan baitu sekretuena izanik ere (3):* zure aitak ikusten baitu sekretuena izanik ere. */ kola erran dazaizeinian ere ´txezei kemen Mesias dagola´, etzazei xinets (3):* honela erran diezazuenean ere ´begira hemen Mesias dagoela´, ez ezazue sinetsi.

eregotxi *(5)* : segatu

ereik! *(5)* : emadak! */ ereik ara kori, arakaldi bat emon dezadan (5):* emadak zarta (makila) hori, zartakaldi bat eman diezaadan.

erein *(5)* : erein */ argizagiaren goragoan biltan da ongarri ta ereitan dra aziak (5):* (ilargiaren) ilgoran ongarria biltzen da eta haziak ereiten dira.

ereindura *(5)* : esne-zurrusta (behia jeztean)

ereinzi *(5)* : orraztu

ereinztatu *(5)* : orraztu */ bazkaltan gindauden artean, ostatuzalea berber maian ereinztan beizagon, gano txikireki xan gunien (5):* bazkaltzen ari ginen bitartean, ostalaria mahai berberean orrazten ari baitzen, gogo gutxirekin jan genuen.

ereixi *(8, 9)* : orraztu */ altatu nun eta ereixi nun (8):* (arropaz) aldatu naun eta orraztu naun. */ ereixi ta gero, egor (8):* orraztu eta gero, erraztatu. */ ereixi bar diar (9):* orraztu behar dut. */ ereixi diar neskaxea (9):* neskatxa orraztu dut.

ereizi *(7)* : orraztu */ ereizi naz (7):* orraztu naiz. */ berak[k] ereiztan tzu trenzak (7):* berak txirikordak orrazten ditu.

ereman *(10)* : eraman */ [kotta kurak] eremaitan zeia (10):* gona haiek eramaten zituzten.

erenegun *(5, 7, 8)* : herenegun

erenxi *(5)* : orraztu (artilea)

eresu *(5)* : irausi (ahardia, txerri emea ar eske)

eretseku *(9)* : erakutsi */ eretseku zan gaiz´on (9):* erakuts ezan gauza ona (etsenplu ona).

eretxi 1 *(4)* : jetzi */ xaxgiua, ardien bilgunia xaxtako edo irauskitako edo erextako (4):* jetzitegia, ardien bilgunea jeizteko.

eretxi 2 *(5, 9, 10)* : jaitsi, eraitsi (norbaitek zerbait) */ eretxak gora[ik] (5):* jaits ezak goitik. */ eretxan argizaintun bat (9):* jaits ezan argimutil bat. */ aita eretxi zeia etsera (10):* aita etxera eraitsi zuten (menditik). OH. Azpeitian ´eratsi´ dokumentatua.

erexi *(4)* : eratzi (esnea emakumeari)

erezi *(10)* : jaitsi, eraitsi (norbaitek zerbait)

ereztun *(5, 9)* : eraztun */ nik diar ereztun bat zidarrez (9):* nik zilarrezko eraztun bat dut.

ergi *(5)* : *(zoo.)* zezenko

eri 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* hatz, eri */ eskoîneko eskuko bi eriez krutxe bat egitia (3):* eskuineko eskuko bi hatzez gurutze bat egitea. */ eri artetan [arrapatan dayanian], fanen zain laxatuz emaro-emaroa (4):* hatz artean harrapatzen hauenean, emeki-emeki laxatuz joango zain. */ bi eriren artetik igari bear zren exurkoak (5):* bi hatzen artetik igaro behar ziren tortolosak. */ eriak (7):* hatzak, eriak. */ eskuko eriak (8):* eskuko hatzak, eskuko eriak. */ eria (9):* hatza, eria. */ [aizpari] eri batan min erkin, eta eskia moztu (10):* ahizpari hatz batean min atera, eta eskua moztu (zioten).

eri 2 *(8)* : *(anat.)* behatz */ zankoko eriak (8):* oineko behatzak.

eri 3 *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : gaixo, eri (adj.) */ erier bixiteta (2):* gaixoei bisita egitea. */ eri anitx xarrekitu zizazkaun eta oro sontotu ztion (3):* gaixo askok jarraitu zioten eta denak sendatu zituen. */ eriak bisitatia (3):* gaixoak bisitatzea. */ noiz ekusi ginaizun eri? (3):* noiz ikusi zintugun gaixo? */ sonto zazei eriak (3):* senda itzazue gaixoak. */ anitx eri iltako ordiuan (4):* gaixo asko hiltzeko orduan. */ [txirikota] emoiten dei erremediotako anitx eriri (4):* gazura sendagai gisa ematen diete gaixo askori. */ eriarentako barbera berri, dotorea zar (5):* gaixoarentzat zirujaua berria, sendagilea zaharra.

eri 4 *(7, 10)* : gaixorik, eri */ eri nago (7):* gaixorik nago, eri nago. */ gizon xin zena atzo, eri [zagua] (10):* atzo etorri zen gizona gaixorik zegoen.

eri 5 *(5)* : gaixotasun, eritasun */ otakak martxoan lore, ez da faltaren eri eta dolore (5):* otakak martxoan lore, ez da faltako gaixotasun eta min.

eri andi *(5, 8)* : *(anat.)* erpuru, hatz lodi */ eri andia (8):* erpurua, hatz lodia.

eri gizen *(8)* : *(anat.)* erpuru, hatz lodi

eri ñotto *(8)* : *(anat.)* hatz txiki */ eri ñottua (8):* hatz txikia.

eri txinkar *(4, 5)* : *(anat.)* hatz txiki

eri txipi *(8)* : *(anat.)* hatz txiki

eri-kosko *(5)* : *(anat.)* hatz-koskor

eri-kunkur *(5)* : *(anat.)* hatz-koskor

eri-mutur *(5)* : *(anat.)* hatz-mutur, eri-mutur */ eri-muturrak (5):* hatz-muturrak.

eriarteko *(5)* : *(alb.)* eriarteko OH. Azkuek ´ganaduaren orpopeko gaixotasuna´ esanahiarekin dokumentatua.

eribeatz *(2, 4)* : *(anat.)* erpuru, hatz lodi

eribeila *(5)* : gaixobera, eribera */ kori orai eribeila da, baia andigoan etzion deus minik ekun (5):* hori orain eribera da, baina helduaroan ez zuen deus minik eduki.

eriberatx *(5)* : gaixobera, eribera */ eriberatx ilgatx (5):* gaixobera hilgaitz, hiltzen zaila.

eribiatx *(2)* : *(anat.)* erpuru, hatz lodi */ eskuko eribiatxaz iror krutxeren egitia (2):* eskuineko erpuruaz hiru gurutze egitea.

eribiatz *(2, 3, 8, 9)* : *(anat.)* erpuru, hatz lodi */ zer da zeinatia? eribiatzaz iror krutxe egitia (3):* zer da zeinatzea? erpuruaz hiru gurutze egitea. */ eribiatza (8, 9):* erpurua, hatz lodia.

eribiotz *(5)* : *(anat.)* hatz luze

eribizar *(5)* : hazpizar

eriereztun *(5)* : *(anat.)* hatz nagi

erigo *(3, 4, 5)* : gaixotasun, eritasun */ [Jesus] faiten zen sontotan zoin-naiden erigua irikuer (3):*

Jesus herrikoei zeinahi gaixotasun sendatuz zihoan. */ eriguarekin zauden guziuak [presentatan zabein] (3):* gaixotasunarekin zeuden guztiak aurkezten zizkioten. */ bera kargatu da gore eriguetaz (3):* bera kargatu da gure gaixotasunez. */ iltea on bat, erigoa luzerik bage (4):* heriotza on bat, gaixotasun luzerik gabe.

erigogor *(5)* : sendo, mardul, indartsu

eriko *(5, 9, 10)* : titare */ edeik eriko kori, xos tzadan (5):* emadak titare hori, jos dezadan. */ erikoa (9, 10):* titarea.

erile *(5)* : ereile

erimuntxo *(5)* : *(anat.)* hatz-mami, eri-mami

erin *(3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : erein */ egitatan baitzu erin etzun lekiuan (3):* igitatzen baituzu erein ez duzun lekuan. */ [Jesus] alor erin altaka banetarik [igari zen] (3):* Jesus alor erein batzuen albotik igaro zen. */ txezei zeuriko txoriek nola ez dein eritan (3):* begira ezazue zeruko txoriek nola ez duten ereiten. */ bein erinzale bat eritra [erkin zen] (3):* behin ereile bat ereitera atera zen. */ erinik izan dena (3):* ereinik izan dena. */ lurra zazoin ontan [dago] eriteko (4):* lurra sasoi onetan dago ereiteko. */ erin zak baratzean azazi (5):* erein ezak baratzean aza hazia. */ eritan (6):* ereiten. */ [alurra] erin diaguzu (9):* alorra erein dugu. */ guk eritan diagun azia (10):* guk hazia ereiten dinagu.

erinko *(5)* : *(anat.)* hatz txiki */ nar bat sartu da ene erinkoan (5):* arantza bat sartu da ene hatz txikian.

erintzale *(6)* : ereile */ erintzalia (6):* ereilea.

erintzu *(4)* : *(nek.)* ereintza (labore-uzta) */ nestatia oboroagotan da ungurunetan, noiz ta karrontek galaraztan teinian erintziuak (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan, noiz eta izozteek galarazten dituztenean ereintzak (labore-uztak).

erinzale *(3)* : ereile */ bein erinzale bat eritra [erkin zen] (3):* behin ereile bat ereitera atera zen. */ entzun zazei orai erinzaliaren parabola (3):* entzun ezazue orain ereilearen parabola.

erinzaro *(5)* : *(nek.)* ereingarai

eriño *(5)* : *(anat.)* hatz txiki

erio *(2)* : heriotza, herio */ krutxian igari ziela erioa eta pasionia (2):* gurutzean igaro zituela herioa eta pasioa.

eriondo *(5)* : gaixondo, eriondo, susperraldi */ gizon [k]ori eriondo da (5):* gizon hori eriondo da (= suspertzen ari da).

eriotze *(5)* : heriotza

eritu *(7, 10)* : gaixotu, eritu

eritxume *(5)* : *(anat.)* hatz txiki

erizale 1 *(6)* : ereile

erizale 2 *(5, 9)* : gaixobera, eribera

erkale egon *(5)* : negarguraz egon */ ez asiren bai asiren nexarrez dagonean, ´aur kori erkale dago edo izkin dago´ erraitan dugu (5):* ez hasiko bai hasiko negarrez dagoenean, ´haur hori erkale (negarguraz) dago edo izkin dago´ esaten dugu.

erkida *(5)* : erkide (adb.)

erkile *(4)* : ateratzaile */ geroztik xuan erranez nabaja-erkilia ezokela lixiri tripa mina (4):* geroztik, labana-ateratzailea esanez zihoan ez zezakeela digeritu tripako mina.

erkin 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : irten, atera */ etxerik erkitian (2):* etxetik irtetean. */ batixatu baikoz, Jesus uretik erkin zen istantian (3):* bataiatu bezain laster, Jesus uretatik irten zen

berehala. */ ele jangeikuaren autik erkitan den oro (3):* jaungoikoaren ahotik ateratzen den hitz oro. */ ezrela kantik erkinen azken marabidia paka´ tzazun bitartio (3):* ez zarela handik aterako azken marabedia ordain dezazun bitartean. */ ek, kantik erkitian, publikatu zein unguru guzutik (3):* haiek, handik irtetean, inguru osoan zabaldu zuten. */ kuek erkinik, mutu bat [xin zen] (3):* hauek irtenda, mutu bat etorri zen. */ ez zren erkiten etse biltan zrenetik (4):* ez ziren ateratzen biltzen ziren etxetik. */ gaizak onki erkiten bazazkau (4):* gauzak ongi ateratzen bazaizkio. */ erkin aroztegitik eta ikaztegian sar (5):* errementeriatik atera eta ikaztegian sartu. */ kan erkin zen Bizente (5):* han atera zen Bizente. */ ardi xurienetik erkitan dra axuri beltxenak (5):* ardi zurienetik ateratzen dira axuri beltxenak. */ Frantzia famatutik erkiten dra (5):* Frantzia ospetsutik ateratzen dira. */ ezin erkinez ler adi, zapart adi (5):* ezin atereaz leher hadi, zaparta hadi. */ ez zrei erkinen (5):* ez zarete irtengo. */ eraki ondo erkin zan eltxanoa (5):* irakin ondoren atera ezan eltzetxoa. */ ulunpetik argiara erkin (6):* ilunpetik argitara atera. */ gizona erkin da (7):* gizona atera da. */ bedatzen (sic) liliak erkitan dra (7):* udaberrian loreak ateratzen dira. */ erkin adi, erkin bedi (7):* atera hadi, atera bedi. */ etxetik erkitean (7):* etxetik irtetean. */ uzkuzilotik erkitan den gaiza kaka (8):* uzkitik irteten den gauza kaka (da). */ erkin adi xokaltetik (9):* atera hadi sukaldetik. */ asi dutzu erkitan xixak (9):* perretxikoak (; zizak) ateratzen hasi dira. */ [aizpari] eri batan min erkin (10):* ahizpari hatz batean min atera (zitzaion). */ erkitan dun argizagi[a] (10):* ilargia ateratzen da. */ [ama] erkitan dun (10):* ama irteten dun. */ e´giteken erkin (10):* ez gintezkeen irten. */ ez gitun erkinen len ezik amar egun (10):* ez gaitun aterako hamar egun baino lehen. */ erkin adi (10):* atera hadi.

erkin 2 *(3, 4, 5, 8, 9, 10)* : atera */ eitzazu nik erkin tzadan autzxko kori zore begitik (3):* utz ezazu nik atera dezadan ahoztxo hori zure begitik. */ [gizon prestiuak gaiza onak] erkitan tu bere biotzaren ondo onetik (3):* gizon prestuak gauza onak ateratzen ditu bere bihotzaren hondo onetik. */ zore begia okasione [bada] bekatiuan erortako, erkin zazu (3):* zure begia bide bada bekatuan erortzeko, atera ezazu. */ nontik erkinen tzei beztido xen korpizaren estaltako? (3):* nondik aterako duzue jantzia zuen gorputza estaltzeko? */ [tejaduan] dagona ez deila xatx gaiza erkitra bere etsetik (3):* teilatuan dagoena ez dadila jaitsi, bere etxetik gauzak ateratzera. */ karek eztu atsik erkin (4):* hark ez du hatsik atera (ez du hitzik esan). */ emazte zarrak erkin zaun nabaja gaztiari (4):* emakume zaharrak labana atera zion gazteari. */ kainbat deuri erkiten dio arboletarik (4):* hainbat diru ateratzen du zuhaitzetatik. */ [zali] erraiten digu ere tumorxko gogor esk[i]uetan erkiten drener (5):* ´zali´ esaten diegu eskuetan ateratzen diren tumoretxo gogorrei ere. */ zer erkitan da? (8):* zer ateratzen da? */ maztiak erkin ziezun follatik mia (8):* emakumeak zorrotik mihia atera zuen. */ [atzo] ardiak erkin guntiezun txaisgutik (9):* atzo ardiak atera genituen artegitik. */ erkin zan sutik eltxanoa (9):* atera ezan sutatik eltzetxoa. */ ongarri erkitra (9):* ongarria ateratzera. */ [aurrak] nexar egitan balin bazien, titia erkin eta kor egon adi oian (10):* haurrak negar egiten baldin bazuen, titia atera eta hor egon hadi ohean. */ lurra anix aseri dago patata erkitako (10):* lurra oso ase(ta) dago patata ateratzeko.

erkinarazi 1 *(5)* : aterarazi */ azteriaren erkinaraztako on da lapabelarraren ura egosita eznearekі nastean artea (5):* hazteria aterarazteko ona da lapabelarraren ura esnearekin egosita nahastean hartzea.

erkinarazi 2 *(5)* : esanarazi, erranarazi

erkingu *(3, 5)* : irteera, irten leku */ zeren guk ekusi baitigu iguzkiaren erkinguiuan bere izarra (3):* zeren guk haren izarra ikusi baitugu eguzkiaren irten lekuan (ekialdean). */ iguzkiaren erkingutik [xinen dra] (3):* eguzkiaren irten lekutik (sortaldetik) etorriko dira. */ fan ztei bidien*

erkingiuetra (3): zoazte bideetako irteeretara.
erkinzale *(5)* : ateratzaile */ emazte[ak] dra alkar falta-erkinzale (5):* emakumeak elkarren akats-ateratzaileak dira.
erko *(5)* : titare
erkoatu *(5)* : itxaron */ erkoa beza (5):* itxaron beza.
erkuatu *(9)* : itxaron */ erkuatan (9):* itxaroten. */ erkua tzeila (9):* itxaron dezatela.
erlamando *(5)* : *(zoo.)* erlamando
erlas *(5)* : erlats, zakar (ahotsa)
erlastu *(5)* : erlastu, zakartu (ahotsa)
erlategi *(1)* : erlategi */ erlategia (1lm):* erlategia.
erle 1 *(1, 5, 7, 9, 10)* : *(zoo.)* erle */ erle-durrundak e[z]kila-durrunda urdu du (5):* erle-burrunbak kanpai-burrunba dirudi. */ margu lili artean erleak naro ebiltan dra (5):* marrubi lore artean erleak sarri ibiltzen dira. */ kan anitx erle [dago] (7):* han erle asko dago. */ erlea (10):* erlea. */ erleetarik bat [erreina da] (10):* erleetako bat erregina da.
erle 2 *(9)* : karkaxa OH. ´Lerde´ hitzaren aldaera dirudi, hedadura semantikoarekin. Azkoitian ´erdel´ dokumentatua.
erle-abia *(5)* : erle-habia OH. Azkuek ´liztor-habia´ esanahiarekin dokumentatua.
erleume *(5)* : erlekume
erloju *(7)* : erloju */ erlojua (erlojia) (7):* erlojua.
erman *(7, 9)* : eraman */ ogi bat erman zazu etsera (7):* eraman ezazu ogi bat etxera. */ erman diar (9):* eraman dut. */ erman zazu etsera (10):* eraman ezazu etxera.
ernai *(5)* : *(erai.)* jazena, gatzari (zutabe nagusia) OH. Ikus ´arnai´ sarrera.
êrnai *(5)* : *(erai.)* jazena, gatzari (zutabe nagusia)
ernaltu *(5)* : ernaldu
ernari 1 *(4)* : ernari (aberea umedun)
ernari 2 *(4)* : adi, erne */ betik baratan naz ernari, noiz artio irainen daun korko lana[k] (4):* beti geratzen naiz erne, noiz arte iraungo dion horko lanak.
ero *(3, 5, 7, 9, 10)* : ero, zoro */ gizon ero [batek egin] zion bere etsia âria gainian (3):* gizon ero batek bere etxea harearen gainean egin zuen. */ baladrea sendoen ilgarri, eroen sendogarri (5):* otsababa sendoen hilgarri, eroen sendogarri. */ aur ta eroenganik egia (5):* haur eta eroengandik egia. */ ero bat egotzi dun puziara (7):* ero batek bere burua putzura bota du. */ ero banak eginik (10):* zeharo eroturik.
erogo *(5)* : erokeria, zorakeria
eroki 1 *(2, 3, 4, 5)* : eduki */ [Kristok] kan eroki ztiela beira santuen arimak (2):* Kristok han begira eduki zituela santuen arimak. */ ezaizu lizito [Herodias] erokitia emaztetako (3):* ez zaizu zilegi Herodias emaztetzat edukitzea. */ nik dakad (3):* nik daukat. */ ark daka (3):* hark dauka. */ guk dakagu (3):* guk daukagu. */ xek dakazei (3):* zuek daukazue. */ dazkanak, dazkazunak, dazkazeinak (3):* dauzkanak, dauzkazunak, dauzkazuenak. */ ez nakazei (3):* ez naukazue. */ konek ez zakan (3):* honek ez zeukan. */ guziuek zakein (3):* guztiek zeukaten. */ nik dakad (4):* nik daukat. */ dakana, dakazuna, dakayana (4):* daukana, daukazuna, daukaana (eta) daukanana. */ baidazkad (4):* baitauzkat. */ pean gazkala (4):* pean gauzkala. */ ni nakei (4):* ni naukate. */ kura tripabage bat da; ez dozke gaizak ixilean eroki (5):* hura ahozabal bat da; ez ditzake gauzak isilean eduki. */ gizona eltan da ekutra bi emazte; leina erokitan badu ezpel, bigarna eroken du andre (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da; lehena edukitzen badu erratz, bigarrena

edukiko du andre. */ gogoan nakan (5):* gogoan neukan. */ daukaz, dokezt (6):* daukat.

eroki 2 *(5)* : eduki (barnean) */ oraino obro eroken zion (5):* oraindik gehiago edukiko zuen (barnean). OH. Ontziek-eta zerbait barruan edukitzea.

eroraldi *(5)* : zanpateko, bizkarreko

erorgu *(5)* : *(geog.)* amildegi, amiltoki */ botxe da larrubide edo erorgu andiena, pikarra bigarrena, turrunberoa ñoago (5):* ´botxe´ amildegi edo amiltoki handiena da, ´pikarra´ bigarrena eta ´turrunbero´ txikiagoa.

erori *(2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 10)* : erori */ berriz bekatian ez erortako (2):* berriz bekatuan ez erortzeko. */ ez gitxazula eitz tentazionetan erortra (2):* ez gaitzazula utz tentaziotan erortzen. */ [euriak] erori zren (3):* euria erori zen. */ ulunguan eroririk zagon (3):* iluntasunean eroririk zegoen. */ [ardi bat zilo batian] erortan bada (3):* ardi bat zulo batean erortzen bada. */ bekatiuan erortako (3):* bekatuan erortzeko. */ ez gitzazu eitz tentazionian erortra (3):* ez gaitzazu utz tentazioan erortzen. */ ez dela eroren lurriara (3):* ez dela eroriko lurrera. */ eror deila aren odola gore gain (3):* eror dadila haren odola gure gainera. */ au bazterretarik erorten zitzauzkaun (4):* aho bazterretatik erortzen zitzaizkion (janari hondarrak). */ otz egiten dionaz, pluma erorten zaitad eskutik (4):* egiten duen hotzez, idazluma eskutik erortzen zait. */ txut egoztan dionak zeuriari, beitartiara erorten zau berari (5):* txistua zerura botatzen duenari, aurpegira erortzen zaio berari. */ ez eroren bai eroren (5):* eroriko ez eroriko. */ suara erori (6):* sutara erori. */ suara erortia (6):* sutara erortzea. */ ez naitekezu erori, ez naitekezu eror (6):* ez naiteke eror. */ ortzak erortan bitra (8):* hortzak erortzen baitira. */ arri andi kura erori dun eguatxara (9):* harri handi hura ugaldera erori dun. */ buruz peara erori dun (10):* buruz behera erori dun. */ erortan balin bada, azkatu bar diagun (10):* erortzen baldin bada, altxatu egin behar dinagu. */ etse erdiak eroriik [daudezu] (10):* etxe erdiak eroririk daude.

erorka 1 *(5)* : lurrera botaz (borrokan)

erorka 2 *(5)* : zabuka, kulunkari (adb.)

erorte *(5)* : eroriko

erorti *(5)* : erorkor, jauskor

erosgo *(5)* : erosketa

erosi *(3, 4, 7, 8, 9, 10)* : erosi */ [dakan guziua] saltan du eta [alur kura] erostan du (3):* daukan guztia saltzen du eta alor hura erosten du. */ gente koriek fan ditian irietra erostra zer xan (3):* jende hori herrietara joan dadin, zer jan erostera. */ xiten dra eta erostan dei mendi guziua (4):* etortzen dira eta mendi osoa erosten dute. */ erran duan gobernuko korrek [lerdoi bat] erosirik zakan (4):* esan dudan gobernuko horrek pinudi bat erosita zeukan. */ yire aitak erosiren dein etsea (7):* hire aitak etxea erosiko din. */ [laurogei axuru] erosi dur (8):* laurogei arkume erosi ditut. */ [bi zartegia] erosi diar (9):* bi zartagin erosi ditut. */ oraigunian erosi zeia burruñak (10):* duela gutxi erosi zituzten (?) burdinak.

eroski *(5)* : jetzi

erosle *(5)* : erosle

eroste *(3)* : erosketa */ ontziegile baten alorraren erostian [enpleatu ztein deuriak] (3):* ontziegile baten alorraren erosketan erabili zituzten txanponak.

erostun *(4)* : erosle */ erostun bat [xin zaitad erostra] (4):* erosle bat etorri zait erostera.

errabero *(5)* : esne (jetzi berria)

erraberri *(5)* : *(suk.)* erreberri (erreki egin berria)

errada *(5)* : arrasean

erradaki *(5)* : arrasean
erradatu 1 *(5)* : hustu; agortu (guztiz aprobetxatu zerbait)
erradatu 2 *(5)* : berdindu, lautu
erraditu *(10)* : berdindu, lautu
erragune *(4, 5)* : gaitzondo, erresumin */ ez badu nai eskribitu, ezaitad baraten deus erragunerik (4):* ez badu idatzi nahi, ez zait batere gaitzondorik geratzen.
errai 1 *(6, 9)* : *(anat.)* errai(ak)
errai 2 *(5)* : *(anat.)* birika
errai 3 *(7)* : errain
errai 4 *(5)* : amorratu (adj.)
errai 5 *(10)* : errai (gardarra) */ erraiak (10):* erraiak, gardarrak. OH. Artolak ´uztarroztarrek gardarrekiko goitizen gisa erabiltzen zuten hitza´ oharrarekin dokumentatua.
erraikrutxe *(2)* : *(anat.)* gerruntze
erraile *(3, 5)* : esale, errale */ badakigu zu zrela egi-errailia (3):* badakigu zu egia-esalea zarela.
erraingiltz *(5)* : *(anat.)* ipurtezur-giltzadura, errainezur-giltzadura
erraiñ *(5)* : *(anat.)* giltzurrun
erraiñetako *(5)* : *(alb.)* erraietako, heste-koliko (behiena) OH. Zaraitzun ´erraietako´ dokumentatua.
erraiten deinaz *(5)* : esaten dutenez, diotenez
erraizo *(5)* : *(met.)* tximista
errak *(10)* : esan ezak, erran ezak
erraki *(5)* : *(suk.)* erreki (haragi errea)
errakîo *(5)* : erre usain
erramin *(5)* : errapemin (?)
erramu 1 *(3, 5)* : *(bot.)* erramu */ berze banek ebakitan zein erramu edo osto arboletarik (3):* beste batzuek erramua edo hostoak ebakitzen zituzten zuhaitzetatik.
erramu 2 *(5)* : *(erl.)* erramu-egun */ lazaroz txoria arrapatu zien, erramuz pelatu, bazkoz jan (5):* pasio-igandean txoria harrapatu zuten, erramu egunez lumatu, pazkoan jan.
erran 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : esan, erran */ zer erran bia dugu? (2):* zer esan behar dugu? */ zerengatik erraitan zu [kori]? (2):* zergatik erraten duzu hori? */ jeinak antzinetik erran ziona profetaren medioz (3):* jaunak aurretik esan zuena profetaren bidez. */ Joseri erraiten zaun (3):* Joseri erraten zion. */ Erronkari balle kontako zomait iritan erraitan den gisa (3):* Erronkari ibar honetako zenbait herritan erraten den moduan. */ entzun tzei erranik izan zela (3):* errana izan zela entzun duzue. */ karek eztu ele bat erran (4):* hark ez du hitz bat esan. */ erraiten dud (4):* erraten dut. */ erranen daud zerbait (4):* esango diot zerbait. */ ez baitakid zer dakadan erranik (4):* ez baitakit zer daukadan erranik. */ erran dazan (4):* esaion. */ ez dazak erran lagunari nai ez yuana erran dayazan yauri (5):* ez iezaiok esan lagunari, heuri esan diezaan nahi ez duana. */ gitarrez erraiten digu bordaltako goreki (5):* gitarrez erraten dugu gurekin ezkontzeko. */ erranen dur, erranen (5):* erranen dut, erranen. */ erranak erranik, parka (5):* erranak erranik, baka. */ guk [guzua] erran diegu (7):* guk guztia esan dugu. */ erran zazu bedra-bedra (7):* erran ezazu banan-banan. */ ez diagu erraitan (7):* ez dugu erraten. */ [betik] erranen dien (7):* beti erranen din. */ erran zan, erran (8):* esan ezan, esan. */ [morroiak] erraitan ziezun (8):* mutikoak esaten zion. */ Pedrok erran diezu (9):* Pedrok erran du. */ erran zan non dagon busteia (9):* esan ezan non dagoen buruzagia. */ orrek erran daio kori Pedrori (9):* berorrek hori esan dio Pedrori.

/ [ñaurek] erranen diar (9): neuk esango diat. */ kola erran zitan (10):* horrela esan zidan. */ bat banakiela erran niozun (10):* bat banekiela erran nion. */ [zemait ele] erraitan guniezun (10):* zenbait hitz erraten genien.

erran 2 *(3, 4, 5)* : esan, erran (iz.) */ gisa kontan profeten errana [kunplitan zen] (3):* modu honetan profeten esana betetzen zen. */ errana badigu kemen ´eztagola betik urrutxa makila egiteko´ (4):* esana badugu hemen, ´ez dagoela beti hurritza makila egiteko´. */ yire erranari ñok (5):* hire erranari nagok.

erran nai ekun *(2, 3, 5)* : esan nahi izan, erran nahi izan */ zer erran nai du ´kristiaia[k]´? Kristoren gizona (2):* zer esan nahi du ´kristauak´? Kristoren gizona. */ zer erran nai du Jesusek? salbazalia (3):* zer erran nahi du Jesus hitzak? salbatzailea. */ Emanuel, zoinek bueltatruk nai du erran ´jangeikua goreki´ (3):* Emanuel, itzulirik ´jaungoikoa gurekin´ esan nahi duena. */ xek onki xakin bazinezei zer nai dion erran (3):* zuek ongi jakin bazenute zer erran nahi duen. */ ´hazeldama´, nai baitu erran ´odolaren alorra´ (3):* ´hazeldama´, ´odolaren alorra´ erran nahi duena. */ otz eta aire eta guzietarik izatan dela erran nai du (5):* (otsailean) hotz eta haize eta guztietatik izaten dela esan nahi du.

erran naiz egon *(5)* : esatekotan egon, erran nahiz egon */ erran naiz nago eztela tustatan sekula´re (5):* esatekotan nago ez dela sekula ere usteltzen.

erranak erranik *(5)* : esanak esan, erranak erran(ik) */ erranak erranik, parka (5):* esanak esan barka, erranak erranik barka.

erranbide *(5)* : esanbide, erranbide

errantxo *(4)* : arrantxo (janaria) */ ez emon zein xaten baizik bi errantxo arroz (4):* ez omen zuten jaten bi arrantxo arroz baizik.

errape *(5)* : errape */ berzen beiak errapea andiago (5):* besteen behiak errapea handiago. OH. ´Rape´ aldaera ere dokumentatua.

errapen *(5)* : esaera

errarin *(5)* : *(suk.)* errearin OH. Labean arinki errea.

errarin 2 *(5)* : egur txiki(ak)

erratea izan *(5)* : esatea izan, esan */ uturrietan ebiltan dan sugeño bikalako bat, aria gisa, ez lodiago; bilotik sortan dela erratea da (5):* iturrietan ibiltzen den sugetxo bezalako bat, haria bezalakoa, ez lodiagoa; iletik sortzen dela esaten da (esatea da).

errats *(5)* : erraz, aise

erratulu *(5)* : erretilu (plater handia)

erratzarri *(5)* : esnatu, iratzarri

erraustu *(4)* : haustu */ arri erauntsi andi bat [erori zitzaikugun], kartxiri guziuak erraustu baidutu (4):* txingor erauntsi handi bat erori zitzaigun, baratze guztiak haustu baititu. */ autza erraustan dun airiarentako (4):* ahotza hausten dun airearentzat.

errauts *(2, 3, 5)* : hauts */ idarraus zazei xaurien zankuetako errautsa (3):* astin ezazue zeuen oinetako hautsa. */ ez duk bear llarneara arrimatu, ez baduk nai errautsik artu (5):* ez duk larrainera hurbildu behar, ez baduk hautsik hartu nahi.

errautz *(5)* : *(geog.)* amildegi, amiltoki

errauztu *(5)* : amildu

errayo *(10)* : *(met.)* tximista */ [bi anaxe, ta] bata errayo batek il (10):* bi anaia, eta bata tximista batek hil (zuen).

erraza *(3)* : arraza */ suge erraza (3):* suge arraza.

errazia *(4, 5)* : erretxina */ [lerrak] du ura bikalako gaiza bat, baitu izena ´errazia´ (4):* pinuak ura bezalako gauza bat du, ´erretxina´ izena duena. */ erraziaz egiten da pikia (4):* erretxinaz bikea egiten da.

erre 1 *(1, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : erre */ suan erretan (3):* sutan erretzen. */ autzak erreren tu il ez deiteken su batian (3):* hil ez daitekeen su batean erreko ditu ahotzak. */ erre du, erretan du, erreren du, erre tzan (4):* erre du, erretzen du, erreko du, erre dezan. */ [elurtiak] gizon guziuak gazka sukunetan, zankabizkarrak errerik (4):* elurteak gizon guztiak sutondoan gauzka, zango-bizkarrak erreta. */ erreren ztu (4):* erreko zaitu. */ etse bat erretan zela, utsi zen ekuszalea (5):* etxe bat erretzen zela, itsua zen ikuslea. */ ni sukalte zokoan sudur-muturrak errerik (5):* ni sukalde zokoan sudur-muturrak errerik. */ erretan naz beroz! (7):* erretzen naiz beroz! */ berroan erratan (9):* berroa erretzen. */ sagarrak erre biar eta surik ez (10):* sagarrak erre behar eta surik ez. */ erre dien, erratan dien egurra(10):* erre din, erretzen din egurra. */ erra zan! (10):* erre ezan!

erre 2 *(5, 7)* : *(suk.)* erre */ izarkian gaztaiñak erre (5):* erraustaturik gaztainak erre. */ axuru erre[a] (7):* arkume errea.

erre 3 *(3)* : erre (surik gabe) */ iguzkia erkiti[an, aziak] erre zren, zeren ez baizein izorrorik (3):* eguzkia irtetean, haziak erre egin ziren, zeren ez baitzuten sustrairik.

erre 4 *(5)* : eskarmentatu

erre 5 *(1)* : erre (adj.) */ borda errea (1):* borda errea. */ ekialterrea (1):* egutera errea.

erreal *(5)* : erre ahal

erreberenzia *(4)* : erreberentzia, agur */ ´ttik´ erraiten zen emaztek saintiuer egiten zein erreberenziari (4):* ´ttik´ (erreberentzia) esaten zitzaion emakumeek santuei egiten zieten erreberentziari.

errebullo *(4)* : pikor (likidoetako bolatxoa) */ agorxaliaz biltan dei errebulloak (4):* bitsaderaz biltzen dituzte pikorrak.

errebullokatu *(4)* : pikortu, pikorrak egin */ zukua egosiz geroz baratan da errebullokatruk (4):* salda egosiz gero pikorturik geratzen da.

errebusatu *(3)* : errefusatu */ arri errebusatu zeina fabrikazaliek, kori bera [izan] zen anguluaren giltza (3):* fabrikatzaileek errefusatu zuten harria, hori bera izan zen angeluaren giltza.

errede *(3)* : sare */ [parabola], errede arrantzuz betiarna (3):* parabola, sare arrantzaz betearena. */ Simon eta Andres egoixtan erredia itxason (3):* Simon eta Andres sarea itsasoan botatzen. */ instantian biak, eitzirik errediak, xarrekitu zitzazkan (3):* berehala biek, sareak utzirik, jarraitu zioten. */ Santiago eta Juan bere[n] erredien konpoîntan (3):* Santiago eta Juan beren sareak konpontzen.

errege *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : errege */ Dabid erregek enjendratu zion (3):* Dabid erregeak sorrarazi zuen. */ non dago judiuen erregia? (3):* non dago juduen erregea? */ errege Karlomagnok erran zaun (4):* Karlomagno erregeak esan zion. */ utsien errian okerra errege (5):* itsuen herrialdean begibakarra errege. */ errege bezpran [akartan zrela] (7):* errege bezperan haserretzen zirela. */ erregia (8):* erregea. */ erregea (9):* erregea. */ gore erregia (10):* gure erregea.

errege egun *(4)* : errege egun */ urte zarreko egunak, urte berri eta errege egunetako xeiak (4):* urte zaharreko egunak, urte berri eta errege eguneko jaiak.

errege izan *(7)* : errege izan

errege-sudur *(5)* : sudurluze

erregetxori *(5)* : *(heg.)* erregetxo

erregosi *(5)* : frijitu
erregune *(1)* : erreleku, erregune */ erregunia (1):* errelekua, erregunea.
erreguridade *(3)* : gogortasun, laztasun */ [Jesusek] kondenatan du fariseuen erreguridade sobra andia (3):* Jesusek gaitzesten du fariseuen gogortasun handiegia.
erreina *(3, 4, 10)* : erregina */ eguerdialteko erreina (3):* hegoaldeko erregina. */ [Maria] ama eta erreina (4):* Maria ama eta erregina. */ [erleetarik bat] erreina (10):* erleetako bat erregina (da).
erreka 1 *(1, 2, 4, 9)* : *(geog.)* erreka */ Izedoiko erreka (1):* Izedoiko erreka. */ erreka gatxa (1):* erreka gaitza. */ erreketarik xuntatu zen urbultziuak [zûr] ugaltian zaudenak eraman ztion (4):* erreketatik elkartu zen uholdeak ibaian zeuden zurak (enborrak) eraman zituen.
erreka 2 *(5)* : *(nek.)* ildo (lurrekoa)
erreka 3 *(5)* : artesi (burukoa)
errekagune *(5)* : *(geog.)* sakonune, zokogune
errekan *(5)* : ilaran
errekardari *(5)* : birsaltzaile
errekatu *(5)* : lurra eraman (uholdeak)
errekaxka *(5)* : *(geog.)* errekatxo
errekesta *(5)* : erakargarritasun (pertsonena eta gauzena)
errekesun *(4)* : gaztanbera, zenbera */ zortzi edo amar onza errekesun (4):* zortzi edo hamar ontza gaztanbera. */ errebulloak [biltu] eta kartaz egiten dei errekesuna (4):* pikorrak bildu eta harekin gaztanbera egiten dute. */ errekesunetik baratan den zukiuari erraiten dabei ´txirikot´ (4):* gaztanberatik geratzen den saldari ´gazur´ esaten diote.
erreketero *(5)* : *(erl.)* eliz mutil, beretter
errekin *(5)* : errekin (mendi errea)
errekiñatu *(5)* : erre gustua eduki */ ezne kau errekiñatruk da (5):* esne honek erre gustua dauka.
errekiño 1 *(5)* : erre usain
errekiño 2 *(5)* : erre gustu
errekustu *(5)* : erruteari utzi
erremediatu *(4)* : konpondu, erremediatu */ [ardidunak] lotsareki daude, jangeikoak ez badu erremediatan tenprareki (4):* ardidunak beldurrez daude, jaungoikoak ez badu garaiz erremediatzen (ardien egoera txarra).
erremedio 1 *(2, 3, 4, 5)* : konponbide, erremedio */ zer erremedio dago? (2, 3):* zer konponbide dago? */ eztago erremediorik (4):* ez dago erremediorik. */ erremediorik bage (4):* erremediorik gabe. */ permentina bilten da erremediotako (4):* permentina erremediotarako biltzen da. */ erremedioara orduz, peligroara tentuz (5):* erremediora garaiz, arriskura tentuz. */ eginarentako eztago erremediorik (5):* eginarentzako ez dago erremediorik.
erremedio 2 *(4)* : sendagai, erremedio */ [txirikota] emoiten dei erremediotako anitx eriri (4):* gazura sendagai gisa ematen diete gaixo askori.
erremienta *(4)* : erreminta */ artakarroa zûrginek txerkatan dei erremientez isartako (4):* artea(ren egurra) zurginek erremintetan jartzeko bilatzen dute.
erren *(2, 3, 4, 5)* : errain */ errena (2):* erraina. */ errena bere amagiarrebaganik [berextra xin naz] (3):* erraina bere amaginarrebagandik bereiztera etorri naiz. */ erauntsiaren bezperan xin zen errena azken zûra saltruk (4):* erauntsiaren bezperan erraina etorri zen azken zura salduta. */ ene errenak ezion ikasi nai biloaren montxtan (4):* nire errainak ez zuen ikasi nahi ilea mozten. */ iror mazte, ama, alaba ta errena (5):* hiru emakume, ama, alaba eta erraina.

erreparatu *(4)* : erreparatu, konturatu */ eztud dudarik erreparatu diola itz batez mintzatan grela bi gisatako elen (4):* ez dut zalantzarik erreparatu diola hitz batez mintzatzen garela bi modutako hitzetan (sinonimoetan ?). OH. Ikus Mendigatxaren esaldian ´erreparatu diola´ jartzen duela, hots, ´erreparatu duela´. Euskara batuan nor-nori-nork hobesten da.

errepartitu *(3)* : banatu, partitu */ [arrantziuak] errepartitu ztein (3):* arrainak banatu zituzten. */ [beren artian aren beztiduak] errepartitu ztien (3):* beren artean haren jantziak banatu zituzten.

erreparto *(5)* : *(ekon.)* kontribuzio */ sugal egotxi deikuei errepartoa (5):* sukaldeka egotzi digute kontribuzioa.

errepatan *(5)* : artzain-mutil

errepetitu *(3)* : errepikatu */ [ele berak] errepetitan ztiolarik (3):* hitz berak errepikatzen zituela.

erresitu *(5)* : eztitu, moderatu

erreskatatu *(3)* : erreskatatu */ kautibua erreskatatia (3):* gatibua erreskatatzea.

erresoluzione *(3)* : ebazpen */ ez dra guziuak kapaz erresoluzione kontako (3):* ez dira guztiak gauza ebazpen honetarako.

errespetatu *(3)* : errespetatu */ ene semia berere errespetaten dei (3):* ene semea behintzat errespetatuko dute.

errespeto *(4)* : errespetu */ duketza[z] mintzatan gra zarrer eta errespetoko gente guziuareki (4):* beroriketa zaharrei egiten diegu eta errespetuzko jende guztiarekin.

errespeto ekun *(4)* : errespetua eduki, errespetua izan */ apezer errespeto andiago ekuteko (4):* apezei errespetu handiagoa edukitzeko.

errespondatu *(4)* : erantzun */ errespondatu zaun (4):* erantzun zion.

erresponditu *(3, 4)* : erantzun */ ek erresponditu zien (3):* haiek erantzun zuten. */ Jesusek erresponditu zion erraiten (3):* Jesusek erantzun zuen erranez. */ Jesusek erresponditu zaun (3):* Jesusek erantzun zion. */ arek erresponditu zabein (3):* hark erantzun zien. */ etziua deus errespondítan? (3):* ez al duzu deus erantzuten? */ xakinen tei errespondítan (3):* erantzuten jakingo dute. */ Jesusek errespondítian erran zion (3):* Jesusek erantzutean esan zuen. */ semiak erresponditu zaun (4):* semeak erantzun zion.

errespuesta *(3, 4)* : erantzun (iz.) */ kalako errespuesta entzutian (3):* halako erantzuna entzutean. */ errespuestatan erran zion (3):* erantzun gisa esan zuen. */ Jesusek eman zaun errespuestatako (3):* Jesusek erantzun gisa eman zion. */ kalako errespuestarekin baratu zren (3):* halako erantzunarekin geratu ziren. */ kontan oiltan daud errespuesta (4):* (gutun) honetan erantzuna bidaltzen diot. */ eskribitu zaitadan, baia eztaud errespuestarik egin (4):* idatzi zidan, baina ez diot erantzunik egin.

erresu *(5)* : arradaki, arrasera (okinarena)

erresupinatu *(5)* : erori (modu edo jarrera txarrean)

erresurrekzione *(3)* : *(erl.)* berpizkunde */ saduzeuak, erresurrekzionia ukatan deinak (3):* saduzearrak, berpizkundea ukatzen dutenak. */ doktrina erresurrekzioniaren gainian (3):* berpizkundeari buruzko dotrina.

erresuzitatu *(3)* : berpiztu */ [ilobiak] iriki zren eta anitx sainturen korpiz, il baizrenak, erresuzitatu zren (3):* hilobiak ireki ziren eta hil ziren santu askoren gorputzak berpiztu ziren. */ ilak erresuzitatan dra (3):* hilak berpizten dira. */ eta ilen dei eta erresuzitaten da (3):* eta hilko dute eta berpiztuko da. */ [irorgarren egunian] erresuzitaten da (3):* hirugarren egunean berpiztuko da.

erreten *(1)* : *(nek.)* ubide */ erretenea, erreteneko urria (1):* ubidea, ubideko urria (?).

erretiratu *(3)* : alde egin */ [Egiptora] erretiratu zen (3):* Egiptora alde egin zuen.

erretiro *(4)* : bakartze */ onla da ganztaren egiteko eta artzaien erretiroarentako (4):* txabola gazta egiteko da eta artzainen bakartzerako.

erretrato 1 *(4)* : argazki */ Luis Luziano Bonapartedanik badud bi erretrato onki guardatruk (4):* Luis Luziano Bonapartegandik baditut bi argazki ongi gorderik. */ etseko familiak otoi egiten daitad, erran dazaudala oil dazkigun orren erretratoa (4):* etxeko familiak erregutzen dit esan diezaiodala bidal diezagun berorren argazkia.

erretrato 2 *(4)* : erretratu

errezatu *(2, 3, 4, 5, 10)* : otoitz egin, errezatu */ [orazione bokala], miaz errezatan duguna (2):* ahozko otoitza, mihiaz errezatzen duguna. */ errezatan tzeinian etzei izan biar ipokriten gisa (3):* otoitz egiten duzuenean, ez duzue izan behar itxuratien antzera. */ arrosariua errezatia (3):* arrosarioa errezatzea. */ bitartio Turpin apezkupu onak errezatan du (4):* bitartean Turpin apezpiku onak errezatzen du. */ erreza zazei eneki (4):* otoitz egizue nirekin. */ debriak errezatan dionean engañatu nai yai (5):* deabruak errezatzen duenean engainatu nahi hau. */ zer egitan duk? errezatan (5):* zer egiten duk? errezatzen. */ eta ni errezatan (10):* eta ni errezatzen.

errezelo *(3)* : errezelo, mesfidantza */ etzazu errezelorik ekun, [Maria] rezibitako zore etsen (3):* ez ezazu errezelorik eduki, Maria zure etxean hartzeko.

errezibitu *(3, 4, 5)* : jaso, hartu */ errezibitu baikoz lotan abiso bat zeuritik, bere[n] erriara bueltatu zren (3):* zerutik abisu bat lotan jaso bezain laster, beren herrira itzuli ziren. */ [Jordanian] errezibitan zein arenganik batixua (3):* Jordanen hartzen zuten harengandik bataioa. */ [sakramentu saintu guziuak] errezibitu ztion (4):* sakramentu santu guztiak jaso zituen. */ karta kontan direzionia berze gisatra isartan baitud, [eztakid] errezibitan tionez ote (4):* gutun honetan helbidea bestela jartzen baitut, ez dakit jasoko ote duen. */ nik nor errezibitu bear dud? Jesus bera (5):* nik nor hartu behar dut? Jesus bera.

-erri *(1, 4, 5)* : leku, -tegi */ tipulaerria (1):* tipula lekua. */ peñaerrietan (4):* haitz lekuetan. */ garierri, oloerri (5):* gari leku (galsoroa), olo leku (olosoroa).

erri 1 *(3, 4, 5, 7)* : *(geog.)* herri, herrialde, lurralde */ errezibitu baikoz abiso bat, bere[n] erriara bueltatu zren (3):* abisu bat jaso bezain laster, beren herrira itzuli ziren. */ argi xin dena argitra zaudener itzaletako errian (3):* argia, itzaletako lurraldean zeudenak argitzera etorri dena. */ gero Jesus Zesareako erriara [xitian] (3):* gero Jesus Zesareako lurrera etortzean. */ erri urrintra [faiten zen] (3):* herrialde urrunetara joaten zen. */ beren erritik xin zren lerdoiara eta lerdoietik fan zren beren errietra (4):* beren herri(alde)tik etorri ziren pinudira eta pinuditik beren herrietara joan ziren. */ utsien errian okerra errege (5):* itsuen herrialdean begibakarra errege. */ zer erri polit da kori! (7):* zer herrialde polita den hori! OH. Ikus ´iri 1´ sarrera.

erri 2 *(3)* : herri, jende */ Sodomako erria juizioko egunian izanen da gaztigatruk (3):* Sodomako herria epaiketa egunean zigortua izanen da.

erri 3 *(1, 2, 4)* : lur; lurralde; leku */ erri gorria (1):* lur gorria. */ erriberri (1):* lur(ralde) berri(a). */ tipulaerria (1):* tipula lekua. */ erri nejarrezko kontan (2):* negarrezko herri (lur) honetan. */ artakarroa peña errietan [aztan da] (4):* artea haitz lekuetan hazten da. */ arbole kuek sortan dren errian (4):* zuhaitz hauek sortzen diren lurrean. OH. Antzina ´erri´ hitzak ´lekua´ edo ´lur(raldea)´ adierazten zuen, ´Euskal Herria´ edo ´Iruñerria´ izenetan bezala.

erri 4 *(5)* : *(nek.)* alor, soro */ garierri[a] (5):* galsoroa. */ oloerri[a] (5):* olo-soroa. OH. ´Erri´ batez ere soro ereina da.

erriada *(3)* : uholde */ ugaltetako erriadak [xin zren] (3):* ibaietako uholdeak etorri ziren.

errial *(4)* : erreal (txanpona) */ errekesuna saltan dei bira errial libra (4):* gaztanbera saltzen dute libra bi errealean. */ xaz eltu zren irabaztra ogeita zazpira errial (4):* iaz heldu ziren hogeita zazpina erreal irabaztera.

erribera *(5)* : *(geog.)* ibar, erribera

erribra *(3, 4)* : ibaiertz, erribera */ Jordaneko erribra guzutik [zuatzan gentiak] (3):* Jordaneko erribera osotik zihoan jendea. */ [Jesus] erabiltan zelarik itxasuaren erribran, [bi anaxe] ekusi zion (3):* Jesus itsas erriberan zebilela, bi anaia ikusi zituen. */ [ardiek] erribra zolan urik ere ez emon dokei alkanza (4):* ardiek ibaiertz zoruan ere ez omen dezakete urik atzeman.

Erribraa (gero kendu azken a) *(4, 5, 8, 10)* : *(geog.)* Erribera */ zûrak saltra [eraman] Erribrara (4):* zurak saltzera eraman Erriberara. */ Erribratik iganik daude salduak montoinzka (4):* Erriberatik igota daude artaldeak pilaka. */ barra eta beltzuria dra orobat nola iparra eta Erribrako lantxerra (5):* barrea eta beltzuria, iparra eta Erriberako lainoa bezalakoak dira. */ Erribran bizen kori, artzaieki (8):* Erriberan baitzen hori, artzaiekin. */ Zankozarik igartan [dra] Erribrara (10):* Zangozatik igarotzen dira Erriberara. */ aita´re xitan dun Erribratik (10):* aita ere Erriberatik zatorren.

errikoka *(5)* : hatz-kolpetxo, eri-kolpetxo OH. Erpuru-mamian beste hatz baten azazkalarekin ematen den kolpetxoa, azazkala irristaraziz.

errile *(5)* : errule */ emazte kura oilo errile gaiztoa da (5):* emakume hura oilo errule txarra da (= ez da lasaitzen).

errin *(5)* : errun

erro 1 *(2)* : errape

erro 2 *(5)* : karkaxa */ ez du berze ontarzunik baizik txintxa eta erro franko (5):* ez du beste ondasunik baizik mukia eta karkaxa franko.

erro 3 *(5)* : *(bot.)* sustrai, erro

erroi *(2, 5)* : *(heg.)* erroi; bele */ erroia bino ñoxago da txori kau, [beurzaia] (5):* erroia baino txikiagoa da txori hau, ipar-belea.

erroibaratxuri *(5)* : *(bot.)* basabaratxuri

erroibelar *(5)* : *(bot.)* erroibelar OH. Azkuek ´artadietan (arte basoetan) sortzen den landarea´ oharrarekin dokumentatua.

Erroldan *(4)* : *(hist.)* Errolan */ urrinxago Erroldan Fuertiak xaitan du ezpata famatiua Durandarte (4):* urrunxeago Errolan Zangarrak Durandarte ezpata ospetsua garbitzen du.

Erroma *(3, 5)* : *(geog.)* Erroma */ Erromako eliza santiuak dazkanak (3):* Erromako eliza santuak dauzkanak. */ mi diona Erromara faiten da (5):* mihia duena Erromara joaten da.

Erronkari 1 *(3, 5, 7, 9)* : *(geog.)* Erronkaribar, Erronkari */ Erronkari balle kontako zomait iritan erraitan den gisa (3):* Erronkari ibar honetako zenbait herritan erraten den moduan. */ iparrak irur dra Erronkarin; ipar beltza, ipar fina ta ipar gorria (5):* iparrak hiru dira Erronkarin; ipar beltza, ipar fina eta ipar gorria. */ Erronkariko irietan uskararen arima salbatu deiner (7):* Erronkariko herrietan euskararen arima salbatu dutenei.

Erronkari 2 *(2, 4, 7, 9)* : *(geog.)* Erronkari (herria) */ orai berian igari dud Erronkarin amaborz egun (4):* oraintxe bertan igaro ditut Erronkarin hamabost egun. */ gore balletik [xiten bada], Erronkariraino [dago karretera] (4):* gure ibarretik etortzen bada, Erronkariraino dago errepidea. */ Urzainkirik eta Erronkarira bideak on dira (5):* Urzainkitik eta Erronkarira bideak onak dira. */ Erronkarin dago Julian Gaiarreren korpitza (7):* Erronkarin dago Julian

Gaiarreren gorputza.

erronkariar *(7, 8, 9)* : erronkariar */ gu gra erronkariar (7):* gu erronkariarrak gara. */ ez bada eltan erronkariarra, oino kola daudezu (8):* ez bada heltzen erronkariarra, oraindik horrela daude.

erronkaritar *(5)* : erronkariar */ erronkaritarrak bearnesen kontra burzegitu zrelakoz (5):* erronkariarrak biarnotarren aurka buruzagitu zirelako.

erroña *(3)* : herdoil */ [ontarzunak konsumitan] dutu erroñak (3):* herdoilak ondasunak suntsitzen ditu. */ zeurian ez[ta] erroña konsumi dozkeinik (3):* zeruan ez da suntsi ditzakeen herdoilik.

errosario *(5)* : *(erl.)* arrosario */ [baratxuri-belarra] molkoka, errosarioa bikala, aztan da (5):* aski-motza multzoka, arrosarioa bezala, hazten da.

errota *(1, 3, 8, 9, 10)* : *(erai.)* errota */ Erratxuko errota altea (1):* Erratxuko errota aldea. */ errota[ko] arri asto batek erabiltan dion korietarik bat (3):* asto batek erabiltzen duen errotako harri horietako bat. */ bi emazte errota batian eyotan (3):* bi emakume errota batean ehotzen. */ gu ilik ere, fanen tuk bai zakuak errotara (5):* gu hilik ere, joanen dituk bai zakuak errotara. */ xoan gitean errotara gari eiotra (9):* joan gaitezen errotara garia ehotzera.

errotari *(5)* : errotari

erruda *(5)* : *(bot.)* bortusain, erruda usaindun

errule *(5)* : errule */ oilo errule gaixtoak ez du abia onik erdeiten (5):* oilo errule txarrak ez du habia onik aurkitzen.

errun *(5, 7)* : errun */ oiloak erruteko nai du abiatsakia (5):* oiloak erruteko nahi du habia-aitzakia. */ olloak errutan dutu arrautzak (7):* oiloak arrautzak erruten ditu.

errunaldi *(5)* : errunaldi

ersdura *(5)* : estutasun, estualdi, larrialdi

ersean *(5)* : hilzorian

ersi 1 *(9)* : itxi, hetsi */ ersi niezun borta (9):* atea itxi nuen.

ersi 2 *(9)* : estutu, hertsi */ ersan oropiloa (9):* estutu ezan korapiloa.

ersi 3 *(1, 3, 5, 9)* : estu, hertsi */ lapitz ersia (1):* arbel (leku) estua. */ karrika ersia (1lm):* kale estua. */ zoin ersi den zeuriko bidia! (3):* zein estua den zeruko bidea! */ sar ztei borta ersitik (3):* sar zaitezte ate estutik. */ bide ersi da kau! (5):* bide estua da hau! */ bide ersi bat (9):* bide estu bat.

ersitu 1 *(5)* : hesitu

ersitu 2 *(5)* : premiatu, hertsatu, presatu

erstu *(4, 5, 7)* : estutu, hertsatu */ matoia aro edo kaxal bat [isartan dei], erstuz suaren beroareki (4):* gaztanbera uztai edo azal batean jartzen dute, suaren beroarekin estutuz.

erstura *(5)* : estutasun, estualdi, larrialdi

ersuts *(5)* : *(anat.)* heste-itsu

ertsakai *(5)* : begizta (laboreak lotzekoa) OH. Zaraitzun ´ertsaki´ dokumentatua.

ertsatu *(5)* : estutu

ertse *(7)* : *(anat.)* heste */ ertsiak tun luze eta bellak (7):* hesteak luzeak eta bigunak ditun.

ertsigo *(5)* : estutasun, herstura

ertu *(5)* : hertu, ibitu, gutxitu */ antura ertu zaba? (5):* hantura hertu (ibitu) zaio?

ertzaro *(5)* : ertzaro OH. Ardiak erditzeko aroa.

ertze *(5)* : *(anat.)* zilbor-heste

Erunberri *(7)* : *(geog.)* Irunberri */ erran zeia[n] anitx onki xoaitan ziola Erunberrin (7):*

Irunberrin oso ongi zihoakiola esan zidan.

erxe *(5, 7, 8, 9)* : *(anat.)* heste */ sabrian estomaka, gibela, erxeak [ditiegu] (7):* sabelean urdaila, gibela, hesteak ditugu. */ erxia (8):* hestea.

erzarteko *(5)* : *(anat.)* hestearteko, peritoneo

erze *(2, 10)* : *(anat.)* heste */ erziak (10):* hesteak.

erzegorri *(5)* : *(anat.)* hestegorri

es *(2, 4)* : ez */ ñor il estezagula, gaizarik ebats estezagula (2):* ez dezagula inor hil, ez dezagula gauzarik ebatsi. */ egun xa estaud obro isartan (4):* gaur jadanik ez diot gehiago jartzen. OH. Ohikoa da ´es´ forma aditz laguntzaileei loturik dagoenean txandaka agertzea ´ez´ formarekin.

eseka *(5)* : zabuka, balantzaka

esemeseka *(5)* : zabuka, balantzaka

eska *(4, 5)* : eske, eskean */ libosna eska (4, 5):* limosna eske. */ iñurriaren etsera eska fan zen llerezna (5):* sorgin-orratza eskean joan zen inurriaren etxera.

eskai *(5)* : txatal, oihalki

eskaler-xabalko *(4)* : eskailera-buru */ eskaler-xabalkoa (4):* eskailera-burua.

eskandalizatu *(3)* : eskandalizatu; asaldatu */ ez dakiziua fariseuak eskandalizatu drela kontaz? (3):* ez al dakizu fariseuak honetaz eskandalizatu direla?

eskandalo *(3)* : eskandalu */ ai eskandalua emoitan dion gizon kartaz! (3):* ai eskandalua ematen duen gizon hartaz!

eskandalozko *(3)* : eskandaluzko */ eskandalozko bekatiuaz (3):* eskandaluzko bekatuaz.

eskarapin *(5)* : txapin, galtzoin OH. Oinak berotzekoa.

eskaratz *(5)* : *(erai.)* ezkaratz, sarrera

eskari *(5)* : eskale

eskarmilla! *(10)* : esker mila!

eskarrik anitx *(7, 10)* : eskerrik asko, eskerrik anitz */ eskarrik anitx, xin bita ekustra (7):* eskerrik anitz, ikustera etorri baita.

eskatu 1 *(3, 4, 5, 7)* : eskatu */ eskatan daizunari emon dazazu (3):* eskatzen dizunari eman iezaiozu. */ eska zazei eta emonen daizei (3):* eska ezazue eta emanen zaizue. */ eskatan den orok errezibitan du (3):* eskatzen duen orok jasotzen du. */ konek [prodigio bat] eskatan du (3):* honek mirari bat eskatzen du. */ zer eskatan zra? (3):* zer eskatzen duzu? */ ez dakizei zer eskatan zrein (3):* ez dakizue zer eskatzen duzuen. */ mertxede eskatu zitzauna egin balau (4):* eskatu zitzaion mesedea egin balio. */ berak eskatruk (4):* berak eskaturik. */ naro eskatan naz gore jeinari usur ditzan orren gain bere bendizioniak (4):* maiz eskatzen diot gure jaunari isur ditzan berorren gain bere bedeinkapenak. */ ezaitad anztan ñore otoi txikietan eskatea gore jeinari orren osagarriaz (4):* ez zait ahazten neure otoi urrietan gure jaunari eskatzea berorren osasunaz. */ asa eskatan? (5):* berriro eskatzen?, atzera eskatzen? */ eska adi dion gogorrari eta ez eztion biotz-onari (5):* eska iezaiok duen gogorrari eta ez ez duen bihotz onekoari. OH. Ikus ´otoizkatu 2´ sarreran ere ´izan´ aditz laguntzailea erabiltzen dela.

eskatu 2 *(5)* : askatu

eskazale *(5)* : eskale

eske *(5, 10)* : eske */ limosna eske (10):* limosna eske.

eske ebili *(5)* : eske ibili */ arrastirian mutiko ta neskatxeak ebiltan dra eske [gairon egunean] (5):* arrastirian mutiko eta neskatoak eske ibiltzen dira gabon egunean.

eskeintu *(7)* : eskaini */ [libro kau] eskeintan dabei[d] (7):* liburu hau eskaintzen diet.

esker 1 *(3, 4, 5, 8, 10)* : esker */ eskerrak botigako merezineR; kek sontotu nei (4):* eskerrak botikako medizinei; haiek sendatu naute. */ eskerrak unguruneko emazter!, berzainez eztakid zer izanen zen kan (4):* eskerrak inguruneko emakumeei!, bestela ez dakit zer izango zen han. */ egun, eskerrak niri, bere ofizioa [daki] ñork bino obeki (4):* egun, niri eskerrak, bere ofizioa daki inork baino hobeki. */ onki, jangeikuari eskerrak (7):* ongi, jaungoikoari eskerrak. */ jangeikoari eskerrak (10):* jaungoikoari eskerrak.

esker 2 *(9)* : ezker */ beso eskerra (9):* beso ezkerra.

esker anitx *(10)* : eskerrik asko, esker anitz */ esker anitx ogarteaz (10):* eskerrik asko oroitzeagatik.

esker mila! *(6)* : esker mila!

eskerbage *(4)* : eskergabe (adj.) */ lan daramanareki aborritruk eskerbage bateki (4):* daraman lanarekin eskergabe batekin nazkaturik.

eskerrak emon *(3)* : eskerrak eman */ gero jeinari emon eskerrak mertxede kain anditaz (3):* gero jaunari eman eskerrak hain mesede handiengatik. */ eskerrak emon dozke jangeikoari, ez baizen izan andiago (4):* eskerrak eman diezazkioke jaungoikoari, ez baitzen handiagoa izan.

eskerrik anitx! *(5, 6, 8)* : eskerrik asko!, eskerrik anitz! OH. Intzak ´eskerik hanitx´ ere dokumentatua.

eskete 1 *(5)* : eskaera

eskete 2 *(5)* : eskakizun (handia, bizia)

esketu *(2, 5, 9, 10)* : eskatu */ grazia esketan grelarik (2):* grazia eskatzen dugunean. */ ´aita´ erraten dugunian, zer esketan grade? ez dies (2):* ´aita´ erraten dugunean, zer eskatzen dugu? deus ez. */ esketan grena ezpaigrade giaurentako solo esketan (2):* eskatzen duguna ez baitugu geuretzat soilik eskatzen. */ zer esketan gra? izan dadila mundu guzutik izaguntruk (2):* zer eskatzen dugu? mundu osoan ezaguna izan dadila. */ parkamentu esketu biar dugu (2):* barkamendua eskatu behar dugu. */ esketako (2):* eskatzeko. */ esketu nun anaxaren (9):* anaiarentzat eskatu dinat. */ eltu zenian esketu zia ur (10):* heldu zenean ura eskatu zuen.

eski 1 *(10)* : eskuin */ ene eskiara badion aintz bat (10):* nire eskuinera bazagon ahuntz bat. */ eskiko azpia (10):* eskuineko hanka.

eski 2 *(10)* : eskuineko esku */ eskia (10):* eskuineko eskua.

eskia emon *(5)* : lagundu, eskua eman

eskina *(3)* : izkina */ karriken eskinetan izan tian ekusirik (3):* kale izkinetan ikusiak izan daitezen.

eskintoki *(5)* : *(erai.)* kartzela, presondegi

eskiuara eroki *(3)* : eskura eduki */ pobriak dazkazei betik eskiuara, baia ni ez nakazei betik (3):* txiroak beti dauzkazue eskura, baina ni ez naukazue beti.

eskiura *(5)* : eskura, eskueran */ ene eskiura (5):* ene eskura.

esklabo *(3)* : esklabo */ [xen artian leina izan nai dionak] izan biar du xen esklabua (3):* zuen artean lehena izan nahi duenak zuen esklaboa izan behar du.

eskoî *(5)* : eskuineko esku

eskoin *(2, 5, 7)* : eskuin */ [krutxe baten egitea] ezkerrekotik eskoinekoara (2):* gurutze bat egitea ezkerreko (sorbalda)tik eskuinekora. */ itsusi dago eskoinezko lanak ezkerraz egitea (5):* itsusi dago eskuineko lanak ezkerraz egitea. */ eskoina (7):* eskuina.

eskoîn *(3, 4)* : eskuin */ aita[ren] eskoînan (3):* aitaren eskuinean. */ zore eskoîneko begia (3):* zure eskuineko begia. */ bata zore eskoînara eta berzia zore ezkerriara (3):* bata zure eskuinera eta bertzea zure ezkerrera. */ xaseririk [dago] eskoîneko altian (4):* eseririk dago eskuineko aldean.

eskokatu *(5)* : eskokatu (aitzurrarekin)

eskola 1 *(4, 7)* : eskola */ geroztik neabe guziua dago karriketarik eskolarik bage (4):* geroztik gaztetxo guztiak kaleetan daude eskolarik gabe.

eskola 2 *(4, 5)* : *(erai.)* ikastetxe */ diolarik bizpor egun asi da apeza eskolara bilarazten egun oro (4):* duela egun batzuk apaiza (umeak) ikastetxera egunero bilarazten hasi da. */ ozkumez ozkume edo altxabeaz altxabea ebilten dra aurrak, eskolara joan nai ezteinean (5):* ezkutalekuz ezkutaleku edo ezkutatokiz ezkutatuko ibiltzen dira haurrak, ikastetxera joan nahi ez dutenean.

eskolte *(5)* : hesola, taket (mahastikoa)

eskontu *(8)* : ezkondu */ irorogeita bost urte edo obro bordaltruk nagola... eskontruk (8):* hirurogeita bost urte edo gehiago ezkondurik nagoela... ezkonduta.

eskopeta *(5)* : eskopeta */ min egiteko mia eta eskopeta txiki eramaiten dra (5):* min egiteko mihiak eta eskopetak ez dute alde handirik.

eskopre *(5)* : *(tek.)* eskoplo

eskribai *(5)* : eskribau */ eskribaia abrastan da pluma bakotx bateki (5):* eskribaua (idaz)luma bakar batekin aberasten da.

eskribaî *(3, 4)* : eskribau */ iriko erakuszale edo eskribaîak (3):* herriko irakasle edo eskribauak. */ ez eskribaî eta fariseuek erakustan zein gisa (3):* ez eskribauek eta fariseuek irakasten zuten moduan. */ eskribaîari [bixita egin daud] eta Frantxiska Ligikoari ere bai (4):* eskribauari bisita egin diot eta Frantziska Ligikoari ere bai.

eskribatu *(10)* : idatzi */ periodikoan nork eskribatan zien? (10):* egunkarian nork idazten zuen?

eskribaû *(3)* : eskribau */ ez bada xen justizia eskribaûena beino osoago, ezrei sarten zeurien (3):* zuen justizia ez bada eskribauena baino osoagoa, ez zarete zeruan sartuko.

eskribitu *(3, 4, 7, 10)* : idatzi */ zeren kola eskribitu baizion profetak (3):* zeren honela idatzi baitzuen profetak. */ eskribitruk dago, eskribitruk diozu (3):* idatzirik dago. */ biar daudala eskribitu (4):* idatzi behar diodala. */ eskribitan daud, eskribiten daud (4):* idazten diot, idatziko diot. */ orrek eskribi beztad borontate dionian (4):* berorrek idatz biezat borondatea duenean. */ noiznaiden egonen dela drezu eskribitako (4):* noiznahi egonen dela prest idazteko. */ azken ilabetiaren 22n. eskribitiua (4):* azken hilabetearen 22.ean idatzia. */ eskribi zazu, eskribitan dur (7):* idatz ezazu, idazten dut. */ karta dun eskribitruk erdaraz (7):* gutuna erdaraz idatzita zagon. */ eskribitu duna? (10):* idatzi al dun? */ eskribitan dun (10):* idazten dun. */ eskribi zan (10):* idatz ezan.

esku 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : *(anat.)* esku */ eskuiko eskiaz [krutxearen egitia] (2):* eskuineko eskuaz gurutzea egitea. */ eskiua azkatan dabeinek (3):* eskua altxatzen dutenek. */ eskoîneko eskuko bi eriez krutxe bat egitia (3):* eskuineko eskuko bi hatzez gurutze bat egitea. */ ark daka bere eskiuetan sardia (3):* hark dauka bere eskuetan sardea. */ [Jesusek] eskutik artu [zion] eta nexkaxia txutitu zen (3):* Jesusek eskutik hartu zuen eta neskatoa zutitu egin zen. */ eskiuetarik lotruk (3):* eskuetatik loturik. */ eskiez tokatia (3):* eskuez ukitzea. */ kek eskiua arrapatu zabein eta gentu nabaja (4):* haiek eskua harrapatu zioten eta labana kendu. */ aren eskutik xin dein (4):* haren eskutik etor dadin. */ eztud esprantza andirik el dein karta kaur orren eskiuetra (4):* ez dut itxaropen handirik gutun hau hel dadin berorren eskuetara. */ eskia kako, etserako (5):* eskua kako, etxerako. */ eskiuek eta biziek egiten tei iriak (5):* eskuek eta biziek egiten dituzte herriak. */ [ainguriek] artu nintzein eskutik (5):* aingeruek eskutik hartu ninduten. */ eskua, eskia, eskuan, eskian, eskietan (6):* eskua, eskuan, eskuetan. */ eskuak ekuztan dutud (7):* eskuak garbitzen

ditut. */ eskuko eriak (8):* eskuko hatzak. */ espartiñak xostan eskiaz, ez, makinaz (8):* espartinak josten eskuaz, ez, makinaz. */ esku bat, eskua (10):* esku bat, eskua. */ [aizpari] eri batan min erkin, eta eskia moztu (10):* ahizpari hatz batean min atera, eta eskua moztu (zioten).

esku 2 *(2, 8, 9)* : eskuin */ alte ezkerreko soinetik alte eskukoara (2):* ezker aldeko sorbaldatik eskuin aldekora. */ eskuko eribiatxaz iror krutxeren egitia (2):* eskuineko erpuruaz hiru gurutze egitea. */ kau eskua ta kau ezkerra (8):* hau eskuina eta hau ezkerra. */ eskuko besoa, beso eskua, beso eskia (9):* eskuineko besoa, beso eskuina. */ ar zan karrika eskiara (9):* har ezan kalea eskuinera.

esku 3 *(5)* : eskuineko esku

esku 4 *(5)* : eskumen */ burzegia ilte[an] emon zitien ortzeara saldoak, lensemea eskiara xin arteo (5):* buruzagia hiltzean erdira (migodoin) eman zituzten artaldeak, lehen semea eskumenera (adinera) etorri arte.

esku artu *(5)* : esku hartu, parte hartu

esku zerratu *(2)* : ukabil

esku-kako *(5)* : eskuluze, lapur

esku-xarta *(5)* : txalo, esku-zarta

esku-xartaka *(5)* : txaloka, esku-zartaka */ kaur aurrek kantatan dei Uztarrotzen, eleak erran bitartean esku-xartaka (5):* hau haurrek kantatzen dute Uztarrozen, hitzak txaloka esan bitartean.

esku-zarta *(5)* : txalo, esku-zarta

eskualdi 1 *(5)* : trebetasun, gaitasun

eskualdi 2 *(5)* : zori, zorte

eskuarri *(5)* : zorroztarri

eskubarne *(5)* : *(anat.)* ahur, esku-ahur

eskuersi *(5)* : ukabil

eskugo *(5)* : eskumen

eskui *(2)* : eskuin */ eskuiko eskiaz [krutxearen egitia] (2):* eskuineko eskuaz gurutzea egitea.

eskukoi *(5)* : otzan, apal

eskuluze *(5)* : eskuzabal OH. Azkuek Uztarrozen ´eskuluze (= eskuzabal)´ dokumentatua.

eskumen *(5)* : eskutada, sorta

eskuntzean *(5)* : ezkutuan */ karen eskuntzean egin dut ñore egitekoa (5):* haren ezkutuan egin dut neure egitekoa.

eskupalma *(2)* : *(anat.)* ahur, esku-ahur

eskupeko *(5)* : eskupeko

eskupetik *(5)* : eskupetik (ezkutuan)

eskuta *(4)* : eskutada */ al banu, eskuta batez sar nazake buruko unen erdi-erdian gore uskararen mintza moldia (4):* ahal banu, eskutada batez sar niezaioke (?) buruko muinen erdi-erdian gure euskararen mintzamoldea.

eskutxatar *(5)* : eskuoihal, xukadera

eskuxai *(5)* : eskugarbi (lapurtzen ez duena)

eskuxuri *(5)* : alfer, nagi

eskuz esku *(5)* : eskutik eskura

eskuz igari *(5)* : jabez aldatu

eskuzare *(5)* : esku-saski

eskuzarta *(5)* : zarta, zartada

eskuzikin *(5)* : eskuluze, lapur

eskuztatu *(5)* : eskukatu, eskuztatu */ eskuzta zak kandela kori suara, beilatako (5):* eskuzta ezak kandela hori sutondoan, beratzeko.

esne *(2, 7, 8)* : esne */ esnea egosi dur (7):* esnea egosi dut. */ arroz esneareki (7):* arroza esnearekin. */ aintza xatxi diar [eta] esnia egosi diar (8):* ahuntza jetzi diat eta esnea egosi diat. */ sua egin ondo, esnia izar askaltako (8):* sua egin ondoan, esnea jarri gosaltzeko.

espal 1 *(3)* : ezpal */ bil zazei xatsa eta artaz egin zazei espal suarentako (3):* bil ezazue iraka eta harekin egin itzazue ezpalak sutarako.

espal 2 *(5)* : sorta, azao

espaldu *(5)* : sortak egin, azaoak egin

espartin *(5, 10)* : espartin */ gazte gindenian xoaitan gindezun espartiñara (10):* gazteak ginenean joaten ginen espartinara (espartinak egitera). */ non tzuk espartiñak? beste leku batan (10):* non dituk espartinak? beste leku batean.

espartiñ *(4, 5, 8)* : espartin */ gente biardunen neskato guziuak faiten dra Frantziara espartiñan trabajatan (4):* jende behartsuaren neska guztiak joaten dira Frantziara espartinak egitera. */ soil da emazteki kori, ezbaitioke ikas espartiñen egiten (5):* gaitasungabea da emakume hori, ez baitezake ikas espartinak egiten. */ bost urtez espartiñak xostan (8):* bost urtez espartinak josten.

esperanza *(2, 3)* : itxaropen */ esperanzazkoa (2):* itxaropenezkoa.

esperanza ekun *(2, 3)* : itxaropena eduki */ esperanza ekutan dugularik (2):* itxaropena edukitzen dugunean. */ esperanza goria (2):* itxaropen gurea. */ esperanza ekunez fede biziarekin (3):* itxaropena edukiz fede biziarekin.

esperarik *(10)* : zain (adb.) */ ta kola gaude, esperarik (10):* eta horrela gaude, zain.

espiritu *(2, 3, 4, 5)* : espiritu */ zer dra aingriak? espiritu banak (2):* zer dira aingeruak? espiritu batzuk. */ espiritiak eta arimak (2):* espirituak eta arimak. */ bere itzarekin egotxtan ztion espiritu gaxtoak (3):* bere hitzarekin espiritu gaiztoak botatzen zituen. */ espiritu zikinak [egotxteko potestade] emon zabein (3):* izpiritu zikinak botatzeko ahalmena eman zien. */ ez zazu gen eneganik zure espiritu saintiua (4):* ez ezazu ken niregandik zure espiritu santua. */ espiritu saint[ia] (5):* espiritu santua.

esplikazione *(3, 4)* : azalpen */ legiari esplikazione falsu emoiten deinetaz (3):* legeari azalpen faltsua ematen diotenez. */ kaur, esplikazionerik bage, eztakid nola entelegatra emon (4):* hau, azalpenik gabe, ez dakit nola aditzera eman.

esprantxa *(4, 5)* : itxaropen */ esprantxa goria (4):* gure itxaropena. */ esprantxa andireki niozu (5):* itxaropen handiarekin nagozu.

esprantza *(3, 4)* : itxaropen */ espranzaren eta karitatearen kontra (3):* itxaropenaren eta karitatearen aurka. */ eztud esprantza andirik ekusi biar daudala obrorik (4):* gehiagorik ikusi behar dudan itxaropen handirik ez dut. */ eztigu esprantzarik xinen zaikula maistrorik negu guziuan (4):* ez dugu itxaropenik, negu osoan maisurik etorriko zaigunik.

estakuru *(5)* : aitzakia OH. Iparraldean ere dokumentatua.

estali *(5)* : estali */ morroiner begiak estaltzen ziozkan maisuak (5):* mutilei begiak estaltzen zizkien maisuak.

estalki 1 *(5, 9)* : estalki (orokorrean) */ basta-estalki[a] (5):* basta-estalkia. */ [eltxano]-estalki[a] (9):* eltzetxo(aren) estalkia.

estalki 2 *(4)* : gutun-azal */ ez badoke Parisen erden paperik eskribitako, nik oilten daud paper*

eta estalki (4): ez badezake Parisen idazteko paperik aurkitu, nik bidaliko diot paper eta gutunazal.

estalkitu *(9)* : orratzez lotu, botoiz lotu */ estalki zan kotta (9):* lotu ezan gona orratzez. */ estalkitu nun (sic) (9):* orratzez lotu dinat (gona).

estaltu 1 *(3)* : estali */ bilaîzruk nintzelarik estaltu nindaizein (3):* biluzik nengoenean estali ninduzuen. */ [oladek barka] estaltan zein (3):* olatuek txalupa estaltzen zuten. */ nontik erkinen tzei beztido xen korpizaren estaltako? (3):* nondik aterako duzue jantzia zuen gorputza estaltzeko? */ zeren deus ere ez baitago estaltruk (3):* zeren deus ere ez baitago estalirik. */ oraino konbersazionian [zegon], odei argi bat xin zenian en estaltra (3):* oraindik hizketan zegoen, hodei argi bat etorri zenean haiek estaltzera.

estaltu 2 *(3)* : gorde */ zeren ekun baidutzu estaltruk edo altxatruk gaiza kuek sabiuer, eta [erran baitabezu] txiker kuer (3):* zeren gordeta eduki baitizkiezu gauza hauek jakintsuei, eta esan baitizkiezu txiki hauei.

estaltu 3 *(3)* : ezkutatu */ [tesoro bat] erdeiten badu, estaltan du berriz (3):* altxor bat aurkitzen badu, berriz ezkutatzen du.

estazain *(5)* : *(anat.)* tartso

estazione *(7)* : geltoki */ Uruñako estazioneara eltu gra (7):* Iruñeko geltokira heldu gara.

este *(5)* : *(anat.)* heste

este! *(5)* : arre! (behijendeari esana) OH. Behiei esana, bidean aurrera egin dezaten. Zaraitzun ere dokumentatua.

esteki *(5)* : lotu

estiguei *(11)* : lizar OH. Orotariko Euskal Hiztegian ´ustugei´ dokumentaua. Azkuek ´ustugai´ (= sahats ?) esanahiarekin dokumentatua.

estilkatu *(9)* : jaso (zerbait gora) */ estilka zan kotta, estilkatu diar (9):* jaso ezan gona, jaso dut.

estimatu *(2, 4, 5)* : estimatu */ eztu xinetsen zomat estimatu dion [bisita] (4):* ez du sinetsiko zenbat estimatu duen bisita. */ guziuek estimatu zein, zoinek obroz, orren alteko bixita (4):* guztiek estimatu zuten, nork baino nork gehiago, berorren aldeko bisita. */ gaizak estimatruk izan tian, bear dei akabatu obenenean (5):* gauzak estimatuak izan daitezen, onenean bukatu behar dute.

estimazione *(4)* : estimu, estimazio */ yire estimazione guziua sotokoetan diok (4):* hire estimu guztia ukuilukoengan zagok.

estimetu *(4)* : estimatu */ nik onoresi eta estimetan zutud gaiza guzien gainetik (2):* nik onetsi eta estimatzen zaitut gauza guztien gainetik.

estoilla *(5)* : *(nek.)* uztondo, galtzu

estomak *(7, 8)* : *(anat.)* urdail */ estomak min dur (7):* urdaileko mina dut. */ sabrian estomaka, gibela, erxeak [ditiegu] (7):* sabelean urdaila, gibela, hesteak ditugu. */ estomaka (8):* urdaila.

estomake *(2, 4, 8, 10)* : *(anat.)* urdail */ eta estomaketik bero batek exikitan nindio[n] (4):* eta urdaileko bero batek pizten ninduen. */ estomakia (8, 10):* urdaila. */ guziek badiagun estomake bat (10):* guztiok badinagu urdail bat. */ badiar min bat estomakian (10):* badut min bat urdailean.

estrañu *(4)* : arraro */ ezta estrañu izanen ez dazaudan eskribi ilabete oroz (4):* ez da arraroa izango ez diezaiodan idatz hilabetero.

estrapaluzio *(5)* : zalaparta, iskanbila

estupila *(5)* : iztupa (fina)

estura *(5)* : estutasun, estualdi, larrialdi

esturiatu *(4)* : ikasi, estudiatu */ lloba solfistak ere eztu esturiatan obro solfa (4):* biloba solfistak ere ez du gehiago solfeoa ikasten.

et´ *(8, 10)* : eta */ Uriña anitx pollit [tzu] et´orai anitxez pollitago (8):* Iruñea oso polita da eta orain askoz politagoa. */ guk ekun diagu beur et´oro (10):* guk eduki dugu behorra eta dena.

eta *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : eta */ guk sinetsi eta egin biar tugun gaiza guziak (2):* guk sinetsi eta egin behar ditugun gauza guztiak. */ eta sinestan zia misterio korik? (2):* eta sinesten dituzu misterio horiek? */ eta kola erdiren dizu seme bat (3):* eta horrela erdiko da seme batez. */ anitx nexar eta irago [entzun zren] (3):* negar eta oihu asko entzun ziren. */ eska zazei eta emonen daizei (3):* eska ezazue eta emanen zaizue. */ eta nola daude osagarriz? (4):* eta nola daude osasunez? */ [merezinek] sontotu nei, eta isari xateko ganu on batian (4):* medizinek sendatu naute, eta jateko gogo onean jarri. */ agorrileko ura da zafran, ezti eta ardau (5):* agorrileko ura safrana, eztia eta ardoa da. */ egun eta beti (5):* egun eta beti. */ galte eginez eta ñardetsiz (7):* galdeginez eta erantzunez. */ onki zaudia? anitx onki, eta zu? (7):* ongi al zaude? oso ongi, eta zu? */ sei eta bi zortzi dra (7):* sei eta bi zortzi dira. */ gunian kasino eta gaiza txiki (8):* orduan (Donostian) kasinoa eta gauza gutxi. */ axuriak kiñuetan gaintik eta artzaiak pelota-xokian (9):* arkumeak lursailetan gaindi eta artzainak pilota-jokoan. */ ase zea[n] eta lertu zea[n] (9):* ase zen eta lehertu zen. */ eta galtatu zitazun´orrek dakia uskara?´ (10):* eta galdetu zidan´berorrek (ba) al daki euskara?´. */ gu ginden laur aurride, bi muttiko eta bi neskatilla (10):* gu lau haurride ginen, bi mutiko eta bi neskatila.

etarik *(3, 4)* : haietatik

etaxur *(5)* : itogin, itaxur */ kasu egiten eztionak etaxur bati, eginen du etse guziuari (5):* itogin bati kasu egiten ez dionak, etxe osoari eginen dio.

etaz *(3)* : haietaz */ onki daki xen aitak etaz nestate tzeina (3):* ongi daki zuen aitak haietaz beharra duzuela. */ gente kurak [ekustian], konpadezitan zen etaz (3):* jende haiek ikustean, haietaz errukitzen zen.

eten *(5)* : eten

eternidade *(2)* : eternitate */ nontik? eternidadetik (2):* nondik? eternitatetik.

etiketan *(5)* : liskarrean, sesioan

etra *(3)* : haietara */ konbidatiuak ezren dino etra [fan] litian (3):* konbidatuak ez ziren egokiak (eztei) haietara joan zitezen.

etsagur *(5)* : *(bot.)* intxaur

etsai *(2, 4, 5)* : etsai */ mundu kontako etsaiak goitruk (2):* mundu honetako etsaiak garaiturik. */ ene etsaia (4):* nire etsaia.

etse *(1, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : etxe */ etsabakotxa (1):* etxe bakarra. */ etsazarreta (1):* etxe zahar eta. */ etsia arrizko zimientu gainian [egin zion] (3):* etxea harrizko zimendu gainean egin zuen. */ etzazu errezelorik ekun, [Maria] rezibitako zore etsen (3):* ez ezazu errezelorik eduki, Maria zure etxean hartzeko. */ etsian sartian, erden zein aurra (3):* etxean sartzean, haurra aurkitu zuten. */ argia, argi tzan etseko guziuer (3):* argia, argi diezaien etxeko guztiei. */ gizon karen etsiara [fan zen] (3):* gizon haren etxera joan zen. */ etse edo borda egiteko (4):* etxea edo borda egiteko. */ yik biar duk etseko izan (4):* hik etxeko izan behar duk. */ azkazi eta adexkiden etsetan (4):* senide eta adiskideen etxeetan. */ txitxitera negiuan iñurriaren etsera [fan zen] (4):* txitxarra neguan inurriaren etxera joan zen. */ etse onak txinkar ona (5):* etxe onak txingar ona. */ arotzaren etsen sukaldarreko pala zurez (5):* errementariaren etxean supazterreko pala zurez.

/ etseko ardaunetik ez da ñor ere orditan (5): etxeko ardotik ez da inor ere mozkortzen. */ ebil adi iritik, elika adi etsetik (5):* ibil hadi herritik, elika hadi etxetik. */ eskia kako, etserako (5):* eskua kako, etxerako. */ eztud etserik (7):* ez dut etxerik. */ yire aitak erosiren dein etsea (7):* hire aitak etxea erosiko din. */ ogi bat erman zazu etsera (7):* eraman ezazu ogi bat etxera. */ etseara el ondo eginen diezt (7):* etxera heldu ondoren egingo dut. */ etse guzia [egordi diar] (9):* etxe osoa erraztatu diat. */ nork manatan du etse kontan? (9):* nork agintzen du etxe honetan? */ ni etsen nago (9):* ni etxean nago. */ etserik [xuan dun] (9):* etxetik joan dun. */ etse amaño ziena, amañoen ziena (10):* gertu zuen etxea, gertuen zuena. */ etsen [egon], bai, onki (10):* etxean egon, bai, ongi. */ bi edo irur etsetan (10):* bi edo hiru etxetan. */ aur guziak etsetra xuan eta emoitan ziziein gaiza (10):* haur guztiak (eskean) etxeetara joan eta gauzak ematen zizkieten. */ etsia (10):* etxea. OH. Zaraitzun ere dokumentatua. Ikus, norberaren etxera edo etxe ezagun batera joatean, ´etsera´ esan daitekeela. Zaraitzun berdin.

etseborta *(9)* : *(erai.)* atari */ etseborta (9):* ataria.

etsegain *(5)* : *(erai.)* teilatu

etsegoiztako *(9)* : legamia */ etsegoiztakoa (9):* legamia.

etsegoki *(5)* : maizter, etxetiar

etsegozki *(5)* : etxepeko, etxekoneko OH. Ondoko bizilaguna, eraikin (etxepe) berean.

etseko *(4)* : etxeko, familiakide */ oraino´ re etsekuek peonik obenena nakei egitatako (4):* oraindik ere etxekoek peoirik onena naukate igitatzeko. */ etsekuer urdu zabei zartruk dagola (4):* etxekoei iruditu zaie zaharturik dagoela.

etsekoandere *(9)* : etxekoandre */ etsekoanderia nonko, azkaziak kanko (9):* etxekoandrea nongo, senideak hango.

etsekoandre *(5)* : etxekoandre */ apezaren etsekoandre, ez dago bizi oberik (5):* apaizaren etxekoandre, ez dago bizi hoberik.

etsezai *(5)* : etxezain, otsein-buru

etsi 1 *(4)* : etsi (adj.) */ xateko ganurik bage [nago], etsi-etsia (4):* jateko gogorik gabe nago, etsi-etsia.

etsi 2 *(5)* : legamia; hartzigarri

etsi 3 *(9)* : legamiatu; hartzitu */ eztiozu etsi [ogia] (9):* ez da legamiatu ogia.

etsigo *(5)* : *(biol.)* hartzidura

etsigoiztako *(5)* : legamia

etsimin *(5)* : garraztasun (ogiarena, legamiatzean)

etsimintu *(5)* : garraztu (ogia legamiatzean)

etsitu 1 *(3, 8)* : legamiatu, harrotu */ [orantza irinekin baratu zen] etsitruk (3):* orantza irinarekin legamiatuta geratu zen. */ ogia etsitu denian (8):* ogia legamiatu denean.

etsitu 2 *(5)* : hartzitu

etsokandre *(10)* : etxekoandre */ etsokandria (10):* etxekoandrea.

etsukandre *(5, 9)* : etxekoandre */ anixko beatan dion etsukandreak txiki urutan du (5):* askotxo begiratzen duen etxekoandreak gutxi iruten du. */ etsukandrea nonko, azkaziak kanko (9):* etxekoandrea nongo, senideak hango.

etxagur *(5)* : *(bot.)* intxaur

etxagurratze *(5)* : *(bot.)* intxaurrondo */ etxagurratzeak (5):* intxaurrondoak.

etxakin! *(8)* : ez jakin! OH. Zaraitzun ´etxauna´ (= ez jauna) dokumentatua.

etxako 1 *(5)* : *(erai.)* txabola

etxako 2 *(5)* : ondoko etxetxo OH. Norbera bizi den etxearen ondoko etxetxoa.
etxalaba *(5)* : oinordeko, etxealaba OH. Etxeko alaba jabegaia, jaraunslea.
etxamitil 1 *(5)* : etxemutil (familiako semea)
etxamitil 2 *(5)* : morroi
etxe *(1, 2, 5, 6, 7, 8, 11)* : etxe */ etxea (1lm):* etxea. */ seits etxea (1lm):* saihets etxea. */ etxerik erkitian (2):* etxetik irtetean. */ etxeko ez ta jauregiko (5):* etxeko ez eta jauregiko (= txikiena ezin eta handiena nahi). */ [bi] etxe andi (6):* bi etxe handi. */ etxera [xuaitan nezu] (6):* etxera noa. */ etxiak, etxe banak (7):* etxeak, etxe batzuk. */ ox etxeara! (7):* goazen etxera! */ etxian aitatameki uskara (8):* etxean aita-amekin euskara(z). */ etxe txiker, ezker etxea (11):* etxe txiki (etxea), ezker etxea.
etxebazter *(kk)* : *(erai.)* bazterretxe
etxegain *(7, 8)* : *(erai.)* teilatu */ etxegainean egon naz (7):* teilatuan egon naiz. */ olez eginik etxegaina (8):* oholez eginik teilatua.
etxegaine *(7)* : *(erai.)* teilatu */ etxegainea gorri [da] (7):* teilatua gorria da.
etxegein *(7)* : *(erai.)* teilatu */ etxegeinean nago (7):* teilatuan nago.
etxeko(ak) *(7)* : etxeko(ak) */ etxekoak onki daudea? (7):* etxekoak ongi al daude? */ etxekoak onki dreia? (7):* etxekoak ongi al dira?
etxekoandere *(7)* : etxekoandre */ burzegia eta etxekoanderea xin dra (7):* buruzagia (jabea) eta etxekoandrea etorri dira.
etxekojaun *(5)* : etxekojaun
etxekojein *(7)* : etxekojaun */ etxekojeina (7):* etxekojauna.
etxekuandre *(8)* : etxekoandre */ etxekuandre batek artu zien neska bat (8):* etxekoandre batek neskame bat hartu zuen. */ bustegia ta etxekuandria [xinen bitra] (8):* jabea eta etxekoandrea etorriko baitira.
etxetiar *(5)* : etxezulo
etxezai *(5)* : etxezain
etxi *(2)* : etzi */ ez biarkoa eta etxikoa, baizi egunorozko[a] (2):* ez biharkoa eta etzikoa, egunerokoa baizik.
etzagur *(5)* : *(bot.)* intxaur */ agimin-etzagur (5):* intxaur (mota bat).
etzan *(7)* : etzan
etzangio *(5)* : *(nek.)* ohe, azpi (ganaduarena)
etzangu 1 *(5, 7)* : logela */ etzangua, etzangia (7):* logela.
etzangu 2 *(5)* : *(nek.)* ohe, azpi (ganaduarena)
etzatez xuan *(9)* : gau eta egun joan (lanera) */ xuaitan gutun etzatez (9):* (lanera) gau eta egun joaten gaitun. OH. Izagirrek ´mendira lanera bertan lo eginez joatea´ oharrarekin dokumentatua.
etzi *(4, 5, 6, 7, 8)* : etzi */ etzi eta etzidamu (4):* etzi eta etzidamu. */ etzitarik (5):* etzidanik, etzitik aurrera. */ etzi zer egun izanen da? (7):* etzi zer egun izanen da? */ biar edo etzi xinen naz (7):* bihar edo etzi etorriko naiz.
etziaste *(5)* : etziaste (lau egun geroago)
etziasteago *(5)* : etziasteago (bost egun geroago)
etzidamiuago *(4)* : etzidamuago
etzidamu *(4, 5, 8)* : etzidamu */ etzidamutarik (5):* etzidamudanik, etzidamutik aurrera.
etzin *(3, 5, 9)* : etzan */ ene mitil zerbutxari bat dago etzinik etsen, perletikatruk (3):* ene mutil

zerbitzari bat etxean etzanik dago, elbarriturik. */ perletikatu bat etzinik oi batian (3):* elbarritu bat ohe batean etzanik. */ aurreki etziten dena xagitan da kakaz nasirik (5):* haurrekin etzaten dena kakaz nahasirik jaikitzen da. */ etzinik (9):* etzanda.

etziramu *(5)* : etzidamu

etzitarikas *(6)* : etzitik

etzulukaka *(10)* : itzulipurdika */ belaizurik egutxan sar kan guziak, etzulukaka, kori gaiza itsusia! (10):* biluzik ibaian sartu han guztiak, itzulipurdika, hori gauza zatarra! OH. Artolak ´etzulikaka´ ere dokumentatua.

eugule *(3)* : egile */ traizione eugulia (3):* traizio egilea.

eula (ez) *(5)* : inola (ez)

eula ere (ez) *(5)* : inola ere (ez)

eulki *(9)* : itxaron */ eulki zan amintto bat (9):* itxaron ezan pixkatxo batean. */ eulki tzala (9):* itxaron dezala.

eultze *(5)* : *(nek.)* eultzi

eun (ez) *(5)* : inon (ez)

eunr (ez) *(5)* : inor (ez)

euntik (ez) *(5)* : inondik (ez) */ euntik eztur karen berririk (5):* inondik ez dut haren berririk.

eur (ez) *(7, 9, 10)* : inor (ez) */ eurk eztoken [erran] (7):* inork ez zezaken esan. */ noreki obro? eureki ere (7):* norekin gehiago? inorekin ere ez. */ eurkek ere ezakia[n] gaiza kaur (9):* inork ere ez zekien gauza hau. */ ezan erran euri´re dantzatu girela plaztan (9):* ez iezaion inori erran plazan dantzatu garela. */ eureki [ez] (10):* inorekin ez. */ eurkek ere ezia entzutan (10):* inork ere ez zuen entzuten.

eûr (ez) *(5)* : inor (ez)

eur ere (ez) *(5, 7, 9)* : inor ere (ez) */ ez dago eur ere (7):* ez dago inor ere. */ eur ere ez da xitan etxeara (7):* inor ere ez dator etxera. */ egun ez yaz eur ere (7):* egun ez haiz inor ere. */ eztion eurere (9):* ez zagon inor ere.

eura (ez) *(5)* : inora (ez)

eura ere (ez) *(5)* : inora ere (ez)

euri *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(met.)* euri */ euri ta aguada guziak (2):* euri eta ihintz guztiak. */ euriak [erori zren] eta ugaltiak erkin zren marjinetarik (3):* euria erori zen eta ibaiak ertzetatik atera ziren. */ euria ta iguzkia karakolaren ezteia (5):* euria eta eguzkia barraskiloaren ezteia. */ odoi-adar bat erkitan denean gorri ta dundu, euria eragutan du (5):* hodei-adar bat ateratzen denean gorri eta urdin, euria ekartzen du. */ euri ari du (7):* euria ari du. */ euria (7, 8):* euria. */ odoiaren atzean euria (9):* hodeiaren atzean euria. */ lan egitako dago anix euri (10):* lan egiteko euri anitz dago.

euri egin *(7, 9)* : euria egin */ anitx euri egin du (7):* anitz euri egin du. */ anitx euri egitan bitu (7):* anitz euri egiten baitu. */ biar euri eginen du (7):* bihar euria eginen du. */ euri egin gaian eguzkia erkin zia (9):* euria egin ondoren, eguzkia atera zen.

euri-erauntsi *(5)* : *(met.)* euri-erauntsi

euria egin *(5)* : euria egin */ buruarat eman daitad gaur euria egin bear diola (5):* iruditu egin zait gaur euria egin behar duela. */ Habana aldean xinalka euria egitan emon du (5):* Habana aldean aldizka euria egiten omen du.

euriari *(4)* : euritsu */ tenpra digu euriari (4):* eguraldi euritsua dugu. OH. Orotariko Euskal Hiztegian ´eurilari´ dokumentatua.

euriari egon *(5, 7, 9, 10)* : euria ari izan, euria egin */ euriari dagoa? (5):* euria ari al du? */ tenpra dago euriari (7):* eguraldia euritsu dago, euria ari du. */ iror egun euriari dagola (7):* hiru egun euria ari duela. */ biar euriari egonen dun ta eltzia bustiren dun (9):* bihar euria eginen dun eta eultzia bustiko dun. */ euriari dion (10):* euria ari din. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

euritsu *(4)* : euritsu */ tenpra digu euritsu (4):* eguraldia euritsu dugu.

euritxapar *(9)* : *(met.)* zaparrada */ euritxapar bat (9):* zaparrada bat.

eurki *(5)* : itxaron

eurkitu *(9)* : itxaron */ zerengatik eurkitu dun kinbeste tenpra[n]? (9):* zergatik itxaron dun hainbeste denboran?

eurt! *(5)* : atzera! (ganaduari esana)

eurte *(5)* : oztopo

eurtu *(5)* : oztopatu, atzera eginarazi */ turrunberora xoaitan zelarik eurtu nian beixkoa (5):* amildegira joaten zenean, behitxoari atzera eginarazi nion (behitxoa oztopatu nuen).

euskaldun *(10)* : euskaldun */ iror lloba [gindezun], euskaldun (10):* hiru iloba ginen, euskaldun. OH. Anaut andreak ´lloba´ hitza ´lehengusu´ esanahian erabiltzen zuen.

exar *(5)* : lehor

exararri *(1)* : *(tek.)* errotarri */ exararria (1):* errotarria.

exarte *(5)* : *(met.)* lehorte

exartu *(3, 4, 5, 8, 9)* : ihartu */ [figo-arbolia] nola exartu da istante batian? (3):* pikondoa nola ihartu da istant batean? */ iguzkia erkiti[an, aziak] exartu zren, zeren ez baizein izorrorik (3):* eguzkia irtetean, haziak ihartu ziren, zeren ez baitzuten sustrairik. */ eskiua idortruk edo exartruk zakan (3):* eskua lehorturik edo iharturik zeukan. */ gizon bat, baizakan esku bat exartruk (3):* gizon bat, esku bat iharturik zeukana. */ gaiza tierno guziuak exartu dra (4):* (baratzeko) gauza samur guztiak ihartu dira. */ eztud bein ere entzun aretxa eta artakarroa exartu drela bere kaboz (5):* ez dut behin ere entzun haritza eta artea bere kabuz ihartu direla. */ arbolia exartu da (8):* zuhaitza ihartu da.

exer *(9, 10)* : eder, edder (txikigarria) */ bai, orai guzia exerrago, guzia exer (10):* bai, orain guztia edderrago, guztia edder.

exera *(1)* : *(erai.)* errota */ exeraberrieta (1lm):* errota berri eta. OH. Iparraldeko ´eihera´ eta mendebaldeko ´igara´ arkaikoaren Erronkariko formak dira ´exera´ eta ´ixera´.

exiki *(4, 9)* : piztu */ eta estomaketik bero batek exikitan nindio[n] (4):* eta urdaileko bero batek pizten ninduen. */ exik´an sua (9):* piztu ezan sua.

exiltu *(9)* : isildu */ exil adi, alkebage! (9):* isil hadi, lotsagabe!

exker *(10)* : ezker */ exkerra (10):* ezkerra. */ zanko exkerra (10):* oin ezkerra, ezkerreko oina.

exkinka *(5)* : kisketa, txinget

expeligo *(2)* : *(bot.)* izpiliku

êxur *(2)* : hezur (fruituena)

exur 1 *(5)* : izur, toles (arropena)

exur 2 *(7)* : *(anat.)* hezur */ xixariek ez dein exurrik (7):* zizareek ez diten hezurrik.

exur 3 *(2)* : hezur (fruituena)

exurko *(5)* : *(jos.)* tortolos, kurkulux */ bi eriren artetik igari bear zren exurkoak eta mosarri bat azkatan zen gora (5):* bi hatzen artetik igaro behar ziren tortolosak eta jolas-harri bat goratzen zen gora. */ exurkoara (5):* tortolosetan, kurkuluxetan.

eyo *(3, 8, 10)* : eho */ bi emazte errota batian eyotan (3):* bi emakume errota batean ehotzen. */ eyo*

diar (8): eho diat. */ eyotra [eraman] (8):* ehotzera eraman. */ eyotu diar, eyotan diar (10):* ehotu dut, ehotzen dut.

eyotu *(10)* : eho */ eyotu diagun (10):* eho dinagu.

ez -la *(4, 5)* : ez -ela (aginterazkoa) */ etzaiala xinets korri (4):* ez iezaioala sinetsi horri. */ ez kan, bai kan (5):* ez han, bai han. */ etzaiala ekun obro trato gaixtoareki (5):* ez ezaala tratu gehiago eduki gaiztoarekin.

ez -ren bai -ren *(5)* : ez -ko bai -ko */ ez asiren bai asiren nexarrez (5):* ez hasiko bai hasiko negarrez.

ez 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : ez */ eztago mundu kontan bekatu parka eztaitek[e]nik (2):* ez dago mundu honetan barka ez daitekeen bekaturik. */ Kristoren arima korpitzareki xuntatu zela, berriz ez iltako (2):* Kristoren arima gorputzarekin elkartu zela, berriz ez hiltzeko. */ ez solo ogiz bizi da gizona (3):* gizona ez da ogiz soilik bizi. */ ez dakizei zer eskatan zrein (3):* ez dakizue zer eskatzen duzuen. */ ez dokei ikas ñolako gisan (3):* ez dezakete inolako modutan ikasi. */ eztagola betik urrutxa makila egiteko (4):* ez dagoela beti hurritza makila egiteko. */ [xatan ez dionak] ez du ganurik edo ez du [zer xan] (5):* jaten ez duenak ez du gogorik edo ez du zer jan. */ ayik entzun nai ez diona ez deila fan gerrara (5):* airik entzun nahi ez duena ez dadila gerrara joan. */ enaiana erraiten eyezala gaiza kori egin? (5):* ez al nian esaten ez hezala gauza hori egin? */ eztoke (6):* ez dezake, ezin du. */ eztaki, ez balaki, ezpalaki (6):* ez daki, ez baleki. */ ez gra, ez gutzu (6):* ez gara. */ ez zen [il] (6):* ez zen hil. */ libro zerratruk ez du ñori erakustan (7):* liburu itxiak ez dio inori irakasten. */ ni enaz gizon, mitil naz (7):* ni ez naiz gizona, mutila naiz. */ kori ezta txakur bat (7):* hori ez da txakur bat. */ kori eztoker egin (7):* hori ez dezaket egin. */ zuek ez zrei [kebenko] (7):* zuek ez zarete hemengoak. */ ez, Gipuzkuan ez [nuzu izan] (8):* ez, Gipuzkoan ez naiz izan. */ ez dur nik ikasi kori (8):* ez dut ikasi hori. */ enezu eguartu (9):* ez naiz oroitu. */ ez niozu gizen (9):* ez nago gizen. */ ziek etzei egosi (9):* zuek ez duzue egosi. */ ez ganakien berri kori (9):* ez genekien berri hori. */ espartiñarik ez, oskirik ez, deuspabez (10):* espartinarik ez, zapatarik ez, ezer batere ez. */ zomait ele bai, baia kori eztu aski (10):* zenbait hitz bai, baina hori ez du aski.

ez 2 *(2)* : ez (iz.) */ akostunbratia erraitra eza ez, eta baia bai (2):* eza ez eta baia bai erratera ohitzea.

ez bada *(4)* : ez bada */ eztago arbole frutuzkorik, ez bada zomait arantze eta itzagurtze (4):* ez dago fruitu-arbolarik, ez bada zenbait arantza (elorri) eta intxaurrondo.

ez baizik ere! *(5)* : bai horixe! */ yi yaz gaizki-erraile bat, ez baizik ere! (5):* hi mihigaiztoa haiz, bai horixe!

ez buru ta ez belarri *(5)* : ez ur ez ardo, ez bata ez bestea

ez da zeren *(7)* : ez horregatik

ez deustako *(10)* : ez horregatik

ez ekun zer -tu *(3)* : ez eduki zer -tu */ etzei zer pensa ni [lurriara] xin nintzala bakiaren eragutra (3):* ez duzue zer pentsa ni lurrera etorri nintzela bakea ekartzera. */ xek etzei zer lotsarik ekun (3):* zuek ez duzue zer beldurrik izan.

ez ekun zertaz -tu *(3)* : ez eduki zertaz -tu */ etzie, bada, zertaz lotsa ekun (3):* ez duzue, bada, zertaz beldur izan.

ez eroren bai eroren *(5)* : eroriko ez eroriko

ez jina! *(2)* : ez jauna!

ez merexi ekun *(4)* : ez merezi izan */ eztu merexi isar bakotxaren izenik (4):* ez du merezi

(zuhaitz) bakoitzaren izena jartzea.

ez ur ez ardo *(5)* : ez ur ez ardo, ez bata ez bestea

ez... bai... *(4, 5)* : ez... bai... */ garia ez zori bai zori dagonean (4):* garia ez heldu(ko) bai heldu(ko) dagoenean. */ ez eraki bai eraki (5):* ez irakin(go) bai irakin(go). */ ez ulun bai ulun dagonean (5):* ez ilun bai ilun dagoenean. */ ez eroren bai eroren dabil gizon gaixo kori (5):* ez erori(ko) bai erori(ko) dabil gizon gaixo hori.

ez... ere *(3)* : ez... ere */ uts andirekin zabiltzei, etzeilakoz entelegatan eskriturak, ez jangeikuaren podera ere (3):* huts handiarekin zabiltzate, ez dituzuelako ulertzen idatziak, ez jaungoikoaren boterea ere. */ ñork ere ez daki, ez zeuriko aînguriuek ere (3):* inork ere ez daki, ez zeruko aingeruek ere.

ez... eta ez... *(2, 3, 4, 5, 10)* : ez... eta ez... */ ez gatxik desea ez itzez eta ez [pensamentuz] (2):* ez gaitzik opa ez hitzez eta ez pentsamenduz. */ ez baidakizei ez eguna eta ez ordiua (3):* ez baitakizue ez eguna eta ez ordua. */ kemen eztago azkurik, ez eskolako xuntan, ez ezinotxian eta ez aitetan ere (4):* hemen ez dago azkurarik, ez ikastetxeko batzordean, ez udaletxean eta ez gurasoengan ere. */ eztigu esprantzarik biltu biar digula ez garirik eta ez autzik (4):* ez dugu itxaropenik bilduko dugun ez garirik eta ez ahotzik. */ ez dadak eitzen ez ariko eta ez artxorik (4):* ez didak (?) utziko ez aharitxo eta ez artxorik. */ debriak tenta etzan ez gaiz ta ez egunaz (5):* deabruak tenta ez zezan ez gauez eta ez egunez. */ ezneak erran zaun ardaûari ´nik bear bayaid testatu, ez duk izan bear ez min eta ez t[u]statu´ (5):* esneak esan zion ardoari ´nik dastatu behar bahaut, ez duk izan behar ez min eta ez ustel´. */ o, zer egun ona egin zien! ez bero et´ ez otz (10):* oi, zer egun ona egin zuen! ez bero eta ez hotz.

ez... ez... *(4, 5, 7)* : ez... ez... */ eztago goikorik ez izarrik zeurian (4):* ez dago ilargirik ez izarrik zeruan. */ azken gatxik sontotako ez dago dotorerik ez merezinarik (5):* azken gaitzik sendatzeko ez dago sendagilerik ez medizinarik. */ lû aziak San Markos egunean ez du egon bear ez sortruk ez zakutan (5):* liho haziak San Markos egunean ez du egon behar ez sorturik ez zakutan. */ ez dur ekusi ez beorrik ez beirik (7):* ez dut ikusi ez behorrik ez behirik. */ eztud ez etserik ez aitarik (7):* ez dut ez etxerik ez aitarik.

ezagumentu *(5)* : ezagumendu

ezagunarazi *(5)* : ezagutarazi

ezarri *(5)* : jarri */ burua bi bearrien artean ezarri (5):* burua bi belarrien artean jarri (= norbait zuzendu). */ gerruntzea emaztekiek ezarten dei soinaren ondarretik anken anditako ta kotak eztian apal eror (5):*gerri-kuxintxoa emakumeek jartzen dute soinaren hondarretik aldakak handitzeko eta gonak ez daitezen behera erori.

ezautu *(8)* : ezagutu */ mendi zagon, Igeldua (sic) ere ezauzen (8):* mendia zegoen, Igeldo ere ezagutzen.

ezbada *(7)* : ez bada, baizik */ eurk eztakien ezbada Pedrok (7):* inork ez zakin, Pedrok baizik (ez bada Pedrok).

ezbaian *(5)* : ezbaian (zerbait ez ezezkoan eta ez baiezkoan) */ ulun-ezbaian dagonean, e[z]kila burrundaka ari da xei aintzin egunean (5):* ilun ezbaian dagoenean, kanpaia burrunbaka ari da jai aurreko egunean.

ezdeus 1 *(3)* : ezerez, ezdeus (iz.) */ zeren ez deustarik egin baiztion gaiza guziuak (3):* zeren ezerezetik gauza guztiak egin baitzituen.

ezdeus 2 *(3, 5)* : ezerez, ezdeus (adj.) */ norbaitek auts baleza mandamentu kuetarik bat, izanen da ekunik ezdeustako (3):* norbaitek agindu hauetako bat hauts baleza, ezereztzat edukia izanen

da. */ Paxkual, Antonio ezdeusa zore bortara eltu tzu (5):* Paxkual, Antonio ezdeusa zure atera heldu duzu (heldu da).

ezdeusdun *(5)* : gauzaez, ezdeus (pertsona)

ezdeustu *(5)* : ezereztu, ezdeustu

ezdies *(2)* : ezerez, ezdeus (iz.) */ zeuriko eta lurreko gaiza guziak [kreatu ztiela] ezdiestarik (2):* zeruko eta lurreko gauza guztiak [sortu zituela] ezdeusetik.

ezdieus *(2)* : ezerez, ezdeus */ ezdieustari[k kreatu zien] (2):* ezerezetik sortu zuen.

ezdura *(5)* : gutxitze (galtzerdien puntuak) OH. Galtzerdien puntuak gutxitzea, estuago eginez joateko.

eze *(5)* : heze

ezeguntu *(10)* : ezagutu */ nik ez [dur] ezegunten, xar binaz (10):* nik ez dut ezagutuko, zaharra bainaiz.

ezegur *(7)* : *(bot.)* intxaur

ezenuste *(5)* : ezuste, ustekabe

ezenustean *(5)* : ezustean, ustekabean

ezeri *(5)* : eseri */ ezer adi (5):* eser hadi. */ ezer zte (5):* eser zaitez.

ezetz *(7, 10)* : ezetz */ erran diar ezetz (7):* ezetz esan diat. */ ber gaiza zela, eta nik ezetz (10):* gauza bera zela (zioen), eta nik ezetz.

ezi 1 *(5)* : hezi

ezi 2 *(8, 9, 10)* : baino */ zarrago ezi ni (8):* ni baino zaharragoa. */ obiago ezi bestia (8):* besta baino hobea. */ ardau kori obe tzu ezi bestia (8):* ardo hori hobea duzu bestea baino. */ kura dun oino meago ezi ni (9):* hura are meheagoa dun ni baino. */ len ezi xuan Ameriketra (10):* Ameriketara joan baino lehen. */ orai gu gition obeki ezi lenao (10):* gu orain hobeki gauden lehenago baino.

ezik 1 *(4)* : ezik, izan ezik */ nola ez baitei ñon ere entzuten ele bat ezik nik erraiten dabeidanak (4):* inon ere hitz bat entzuten ez dutenez, nik esaten dizkiedanak izan ezik.

ezik 2 *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : baino */ [lein] faltaten [dra zeuria eta lurra], ezik bara dein kunplitu bage legian [dagon] guziua (3):* lehenago faltako dira zerua eta lurra, legean dagoen guztia bete gabe gera dadin baino. */ obe dazaizu galtia [begi] bat, ezik ez zore korpiz guziua fan dein iburniara (3):* hobe duzu begi bat galtzea, zure gorputz osoa infernura joatea baino. */ zer, ez dia korpizak obro balio ezik beztiduak? (3):* zer, ez al du gorputzak gehiago balio jantziak baino? */ ez da diszipulua obro ezik bere maistrua (3):* ez da ikaslea gehiago bere maisua baino. */ [gentiak] zopatako naiago du errekesuna ezik orioa (4):* jendeak zopatarako nahiago du gaztanbera olioa baino. */ etse edo borda egiteko, kemen lein txerkatan digu izeia, ezik lerra (4):* etxea edo borda egiteko, hemen lehenago bilatzen dugu izeia, pinua baino. */ lein ezik tenpra anitx, asen da gentia kontatan nestate (4):* denbora asko baino lehen, jendea (bere) beharrak kontatzen hasiko da. */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino. */ obro ezik ein mendioillar il ditu aurten jein batek gore idian (5):* ehun argioilar baino gehiago hil ditu aurten jaun batek gure herrian. */ ni naz zarrago ezik zu (7):* ni zu baino zaharragoa naiz. */ lein ezik yik [egin diar] (7):* hik baino lehenago egin diat. */ nik elerraitan dur obeki ezik orrek (9):* nik hobeki hitz egiten dut berorrek baino. */ alabana dun obe ezik semiana (9):* labarena hobea dun semearena baino. */ badion egun goxan [karroin] andiau ezik etxakin zer (10):* bazagon gaur goizean izotz handiagoa ez jakin zer baino. */ ez gitun erkinen len ezik amar egun (10):* ez

gaitun aterako hamar egun baino lehen. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

ezikusiarna egin *(5)* : ezikusiarena egin

ezin 1 *(3, 5, 7, 8, 9, 10)* : ezin, ezin izan */ eskuz emon ta zankoz ezin bil (5):* eskuz eman eta hankaz ezin bildu. */ ezin erkinez ler adi, zapart adi (5):* ezin atereaz leher hadi, zaparta hadi. */ [ortzik bagerik] ezin erran eliak (8):* hortizk gabe ezin hitzak esan. */ ezin baratuz (9):* ezin geldituz. */ [keben] ñoreki ezin da ele erran (10):* hemen inorekin ezin da hitz egin. */ ezin egon obro, bere laniara [xoan biar dei] (10):* ezin gehiago egon, beren lanera joan behar dute.

ezin 2 *(4)* : ezin (iz.) */ [eskribitan] xarrekiten naz, aiketa zomait ezinek arrapa nazan artio (4):* idazten jarraitzen dut, harik eta zenbait ezinek harrapa nazan arte.

ezin buruz *(5)* : ezin burutuz, jasan ezinik */ ezin buruz berexi dra (5):* ezin burutuz bereizi egin dira.

ezin obeki *(3)* : ezin hobeto, ezin hobeki */ ezin obeki [xainten du] bere llarnia (3):* ezin hobeto zaintzen du bere larraina.

ezin obro *(3)* : ezin gehiago, gehiago ezin */ [tristuriaz bete zren] ezin obro (3):* tristuraz bete ziren ezin gehiago.

ezin obroz *(4)* : ezin gehiagoz */ elurrari [dago] ezin obroz (4):* elurra ari du (elurtsu dago) ezin gehiagoz.

ezinbertze *(5)* : ezinbeste, ezinbertze

ezinotxe 1 *(5)* : zinegotzi

ezinotxe 2 *(4)* : *(erai.)* udaletxe */ kemen eztago azkurik, ez eskolako xuntan, ez ezinotxian (4):* hemen ez dago azkurarik, ez ikastetxeko batzordean, ez udaletxean.

eziñekuri *(5)* : urduri, artega

ezkapatu *(3, 4, 5, 8)* : ihes egin */ ezkapatu zren (3):* ihes egin zuten. */ persegitan daizeinian ziudade batian, ezkapa ztei berziara (3):* hiri batean jarraitzen dizuetenean, ihes egizue beste batera. */ [Judean daudenak] ezkapa tiala mendietra (3):* Judean daudenek ihes egin dezatela mendietara. */ ayan, ezkapatan yazanian, ez yai ekusen lasterrari emoiten (4):* agian, ihes egiten duanean, ez hau ikusiko korrikari ematen. */ yik izaguntan yuanian laxoxko yagola, ostikaldi batez ezkapa yiteke (4):* hik ezagutzen duanean laxotxo hagoela, ostiko batez ihes egin hezake. */ axuri saldo batarik zuatzan bi arzatz ezkapatruk (4):* arkume saldo batetik zihoazen bi ahari ihes eginik. */ oilloak oillojalearen uxtuaren sendite[an] ezkapatan dra (5):* oiloek miruaren txistua sentitzean ihes egiten dute. */ lotsa dionarentako uluna zau argi ezkapatako (5):* beldurra duenarentzako iluna zaio argi ihes egiteko.

ezker *(2, 3, 5, 7, 8, 9, 10, 11)* : ezker */ alte ezkerreko soinetik alte eskukoara (2):* ezker aldeko sorbaldatik eskuin aldekora. */ [krutxe baten egitea] biotzetik ezkerreko soineara (2):* gurutze bat egitea bihotzetik ezkerreko sorbaldara. */ zore ezkerreko eskiua (3):* zure ezkerreko eskua. */ bata zore eskoînara eta berzia zore ezkerriara (3):* bata zure eskuinera eta bertzea zure ezkerrera. */ itsusi dago eskoinezko lanak ezkerraz egitea (5):* itsusi dago eskuineko lanak ezkerraz egitea. */ kau eskua ta kau ezkerra (8):* hau eskuina eta hau ezkerra. */ ezkerreko besoa (9):* ezkerreko besoa. */ ezker etxea (11):* ezker etxea.

ezki *(1, 2, 5)* : *(bot.)* ezki */ ezkiaga, ezki zarra (1):* ezki lekua, ezki zaharra.

ezkila *(5, 7, 11)* : kanpai, ezkila */ eguerdi-ezkila (5):* eguerdi-kanpaia, eguerdi-ezkila. */ ezkilanto (5, 11):* kanpaitxo. */ ezkilak (7):* kanpaiak. OH. Azkuek zenbaitetan ´eskila´ dokumentatua.

ezkilanto *(5)* : kanpai txiki OH. Kanpandorreko kanpai txikiena.

ezkilon *(5)* : kanpaitzar OH. Kanpandorreko kanpai handia.

ezkondu *(7)* : ezkondu OH. ´Ezkontu´ espero zitekeen. Ikus ´ezkontu´ eta ´eskontu´ sarrerak.
ezkongabe 1 *(10)* : neskato
ezkongabe 2 *(10)* : mutil OH. Zaraitzun ´mutil´ (= ezkongabe) dokumentatua.
ezkontu *(10)* : ezkondu */ alaba bat ezkontuk (10):* alaba bat ezkondurik.
ezkor *(5)* : ezkor
ezkur 1 *(1, 4)* : *(bot.)* ezkur */ ezkurra (1):* ezkurra, ezkur lekua. */ ezkur den urtian eramaiten dra txerriak ezkurriara (4):* ezkurra dagoen urtean txerriak ezkurretara eramaten dira. OH. Erronkarieraz ´ezkur´ izen orokorra da; ikus ´magalla´, ´zî´ eta ´artazi´ sarrerak.
ezkur 2 *(5)* : elikagai (ardi eta behiena) OH. Azkuek bere hiztegiko ´ezkur´ sarreraren 4. adieran ´ardi eta behi jendearen edozein elikagai´ esanahiarekin dokumentatua.
ezkurriara *(4)* : ezkurretara */ ezkur den urtian eramaiten dra txerriak ezkurriara (4):* ezkurra dagoen urtean txerriak ezkurretara eramaten dira.
ezlokatu *(5)* : dislokatu
ezmendu *(5)* : ezezko
eznari *(5)* : esnari OH. Esne asko ematen duen abere emea.
eznatxerri *(5)* : txerrikume
ezne 1 *(3, 4, 5, 9, 10)* : esne */ eznia olaberratara [biltan dei] (4):* esnea ontzietan biltzen dute. */ ezneak erran zaun ardaûari (5):* esneak esan zion ardoari. */ anitx eznetako gazta (5):* esne askotako gazta. */ eznia (6):* esnea. */ nik bar nien egosi eznia? (9):* nik egosi behar nuen esnea? */ etzu egosi egun eznea? (9):* ez duzu egosi egun esnea? */ bei kaur dun ñotto, baia eragitan dien anitx ezne (10):* behi hau txikia dun, baina esne asko ´ekartzen´ din. */ eznia (10):* esnea. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
ezne 2 *(5)* : *(bot.)* izerdi */ bedatsean, ostazaroan, izeia eznean isartan da (5):* udaberrian, hostaldian, izeia izerditan jartzen da.
ezne-purpullu *(4)* : esne-zurrusta OH. Umedun amari berez ateratzen zaion esnea.
ezne-telada *(5)* : *(suk.)* esnegain, nata
eznebelar *(5)* : *(bot.)* esnebelar OH. Txerrientzako belarrak omen dira.
eznedun *(5)* : esnedun, esnesaltzaile
eznegin *(5)* : esnari OH. Azkuek ´esne asko ematen duen behia´ esanahiarekin dokumentatua.
ezneki *(5)* : *(suk.)* esneki
eznetarzun *(3)* : *(suk.)* esneki */ ez xatako arraultze eta eznetarzun goreximan (3):* garizuman ez jateko arrautza eta esnekirik.
eznezur *(5)* : esne gutxiko (behia)
ezpada *(5)* : *(zoo.)* ezpara
ezpain 1 *(2, 3, 4, 10)* : *(anat.)* ezpain */ iri konek onratan nu ezpainekin (3):* herri honek ezpainekin ohoratzen nau. */ ene ezpainak [iriken dutzu] (4):* nire ezpainak irekiko dituzu. */ ezpaina (10):* ezpaina.
ezpain 2 *(5)* : baratxuri-sustraixka
ezpain min *(9)* : *(med.)* perletxe
ezpal 1 *(5)* : ezpal
ezpal 2 *(2, 4)* : *(anat.)* betazal
ezpal 3 *(5)* : *(nek.)* azao, sorta */ irur aurmenez egitan da ezpala (5):* hiru eskukadaz egiten da azaoa.
ezpaleko bilo *(2)* : betile

ezpalka *(5)* : azaoka, sortaka

ezpalkatu *(5)* : azaoak egin, sortak egin

ezpartin *(10)* : espartin */ ezpartiñak (10):* espartinak. */ sartu nun buldarrain batan, eta sartu dun zankuetan et´oro, ezpartiñetan et´oro (10):* kardu batean sartu naun, eta oinetan eta dena sartu dun, espartinetan eta dena.

ezpata 1 *(3, 4)* : ezpata */ ezpata eta makilarekin [armatruk] (3):* ezpata eta makilarekin armaturik. */ ezpata [erkiten ziolarik], mitil bati biarri bat [ebaki zaun] (3):* ezpata ateratzen zuela, mutil bati belarri bat ebaki zion. */ zerbutxa [liten] guziuak ezpataz, ezpataz ilen dra (3):* ezpataz balia litezen guztiak, ezpataz hilen dira. */ amintto urrinxago Roldan Azkarrak xaîtan du ezpata (4):* pittin bat urrunxeago Errolan Azkarrak ezpata garbitzen du.

ezpata 2 *(5)* : *(nek.)* garba, garrama (liho-ezpata) OH. Lihoa jotzeko tresna.

ezpatabelar *(4)* : *(bot.)* ezpatabelar

ezpatapeko *(5)* : *(nek.)* ezpatapeko OH. Lihoa jo ondoan geratzen den lasto hondarra. Ikus ´ezpata 2´ sarrera.

ezpein *(8, 9)* : *(anat.)* ezpain */ ezpeina (8, 9):* ezpaina.

ezpel 1 *(1, 2, 4, 5, 9, 10, 11)* : *(bot.)* ezpel */ ezpel ondoa (1):* ezpel ondoa. */ ezpela, illurria, korostia eta otaka (4):* ezpela, elorria, gorostia eta otaka dira. */ ezpelaz egiten dei kuxare [eta] orraxe (4):* ezpelaz koilarak eta orraziak egiten dituzte. */ ezpelatzeak (5):* ezpel zuhaitzak. */ saroietan, axuri saldo bat beretan egon ondoan, ezpelez egor edo xate ta biltan da zirria (5):* saroietan, axuri saldo bat bertan egon ondoan, ezpelez erraztatu edo garbitu eta biltzen da arkorotza. OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian ´izpelko´ dokumentatua.

ezpel 2 *(5, 9, 10)* : erratz */ gizona eltan da ekutra bi emazte; leina erokitan badu ezpel, bigarna eroken du andre (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da; lehena edukitzen badu erratz, bigarrena edukiko du andre. */ llarrenetako ezpela eragi zan (9):* larraineko erratza ekarri ezan. */ lexoara eltu ezpel bateki (10):* leihora heldu erratz batekin.

ezpeldi *(5)* : ezpeldi

ezpeldoi *(5, 9, 10)* : ezpeldi

ezpere *(5)* : bestela, ezperen

ezperian *(2, 5)* : bestela, ezperen */ korpitzaren osagarriaren, ezperian arimaren, salbazioniaren alkanzatako (2):* gorputzaren osasunaren, bestela arimaren, salbazioa lortzeko.

ezploî *(5)* : *(zoo.)* eulitzar, euli beltz

ezponda *(5, 9, 11)* : ezponda OH. Aznarezek ´espuenda, espondon´ aldaerak dokumentaturik dauzka.

eztal *(4)* : *(anat.)* orkatila

eztañu *(2)* : *(kim.)* eztainu

eztare *(2, 3, 5)* : ezta ere */ nôri ere falso testimoniorik gora eztezagula, eztare gezurrik erran (2):* inori ere ez diezaiogula lekukotza faltsurik altxatu, ezta gezurrik esan ere. */ ni, eztare, dino enaz ari eramaiteko sandaliak (3):* ni, ezta ere, ez naiz duin hari sandaliak eramateko.

eztarri *(5)* : *(anat.)* eztarri, zintzur

eztazaî *(5)* : *(anat.)* belaunpe, iztezain

eztazain *(4)* : *(anat.)* tendoi, zurda

eztei *(3, 4, 5, 7, 9)* : eztei */ semiaren ezteiak (3):* semearen ezteiak. */ errege bere semiaren ezteietra konbitatu zionaren parabola (3):* bere semearen ezteietara konbidatu zuen erregearen parabola. */ disponimentiuak ezteietako eginik daude (3):* eginkizunak ezteietarako eginik

daude. */ jangeikoak nai diola egin ditzein ezteiak (4):* jaungoikoak nahi dezala ezteiak egin ditzaten. */ eltan bada faitra ezteietra, emon bezkau noranbuena (4):* ezteietara joaten bada, zoriondu bitza. */ euria ta iguzkia karakolaren ezteia (5):* euria eta eguzkia barraskiloaren ezteia. */ ezteietan txikien xatan diona emazte berria (5):* ezteietan gutxien jaten duena emazte berria. */ ezteiak (7):* ezteiak.

ezteiliar *(5)* : ezteiliar

ezteitiar *(5, 9)* : ezteiliar */ ezteitiar [egon nezu] (9):* ezteiliar egon naiz.

ezten *(5)* : ezten

ezti 1 *(2, 3, 5, 9, 10)* : ezti */ bere bazkaria zen mendiko ezti (3):* haren bazkaria mendiko eztia zen. */ agorrileko ura da zafran, ezti eta ardau (5):* agorrileko ura safrana, eztia eta ardoa da. */ etzen egin eztia astoaren abarentako (5):* ez zen egin eztia astoaren ahoarentzat. */ ez dago eztirik gibelmin bagerik (5):* ez dago eztirik behazunik gabe. */ obro ellu êizatan da eztiaz ezik ez gibelminaz (5):* euli gehiago ehizatzen da eztiaz gibelminaz baino. */ ezti berxin[a] (5):* ezti birjina. */ eztia (10):* eztia.

ezti 2 *(5)* : ezti (adj.)

eztialdi *(5)* : eztialdi, barealdi

eztikeria *(5)* : eztikeria, lausengu

eztu zeren *(7)* : ez horregatik

eztul *(2, 4, 5, 6, 7, 9)* : eztul */ eztud buru min bat eta ez eztul bat ekun (4):* ez dut buruko min bat eta ez eztul bat eduki. */ eztulka, eztulez (6):* eztulka, eztulez. */ eztula beillatu zita (7):* eztula beratu zait. */ eztula (9):* eztula.

eztul egin *(7)* : eztul egin

eztul mormu *(5)* : *(med.)* kukutxeztul, txakur-eztul

eztulka *(6)* : eztulka

ezur *(2, 3, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* hezur */ il drenen ezurrez [beterik daude] (3):* hil direnen hezurrez beterik daude (hilobiak). */ ezurra (9, 10):* hezurra.

êzur *(2, 4, 5)* : *(anat.)* hezur */ ñore êzur abatitiuak (4):* neure hezur nekatuak. */ guk belaineko êzurrari erraiten digu zankabizkar (5):* guk belauneko hezurrari belaun-hezur esaten diogu.

ezur berriak ekun *(5)* : haurdun egon OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

ezur-un *(5)* : hezur-muin

ezurbage *(7)* : *(zoo.)* ornogabe */ ezurbageak (7):* ornogabeak.

ezurdun *(7)* : hezurdun */ [zamari]ak dra ezurdunak (7):* zamariak hezurdunak dira.

ezuste *(5)* : ezusteko, ustekabeko

ezustean egin *(5)* : ustekabean egin, pentsatu gabe egin

ezxe *(10)* : *(anat.)* heste */ ezxiak (10):* hesteak.

F

fabrikatu 1 *(3)* : fabrikatu, egin */ [etsia âria gainian] fabrikatu zion (3):* etxea harea gainean fabrikatu zuen.

fabrikatu 2 *(3)* : hitz egin */ [orazioniaren gainian] fabrikatan du (3):* otoitzari buruz hitz egiten du. */ baia fabrikatan zein bapanak bere buriuarekin (3):* baina bakoitzak bere buruarekin hitz egiten zuten. */ fabrikatan arekin padezitu biar zionaz (3):* harekin hitz egiten sufritu behar zuenaz.

fabrikazale *(3)* : fabrikatzaile, egile */ arri errebusatu zeina fabrikazaliek, kori bera [izan] zen anguluaren giltza (3):* fabrikatzaileek errefusatu zuten harria, hori bera izan zen angeluaren giltza.

fago *(1)* : *(bot.)* pago

failo *(5)* : ahul */ failo nago (5):* ahul nago.

falagera *(10)* : *(bot.)* iratze, garo */ falagerak (10):* irak, garoak.

falka *(5)* : *(erai.)* falka (burdinazko ziria)

falsu *(3)* : faltsu */ zomait delitu falsu edo egiazko (3):* zenbait delitu faltsu edo egiazko. */ legiari esplikazione falsu emoiten deinetaz (3):* legeari azalpen faltsua ematen diotenez. */ profeta falsuetaz [fabrikatan du] (3):* profeta faltsuez hitz egiten du. */ testimonio falsurik etzu azkaten (3):* lekukotza faltsurik ez duzu altxatuko.

falta *(2)* : falta, huts */ bere faltaz ezt[a] fin kau konsegitu (2):* bere faltaz ez da helburu hau lortu.

falta izan *(3, 5, 8)* : falta izan */ zer obro falta zaitad? (3):* zer gehiago falta zait? */ zaindunago [balitz], izanen zen kori soldado on bat; buru anitx [du] eta ez zau falta biotz ere (5):* kementsuagoa balitz, hori soldadu ona izanen zen; buru anitz du eta ez zaio falta bihotzik ere. */ erden zezein mia falta zela (8):* mihia falta zela aurki zezaten.

faltatu *(2, 3, 4, 5)* : faltatu */ [jeina] berze leku guzietan faltaturik ere, ezpaitateke zeurian falta (2):* jauna beste leku guztietan faltaturik ere, ez baidaiteke zeruan falta izan. */ zeuria eta lurra igaren dra, baia ene eliak eztra faltaten (3):* zerua eta lurra igaroko dira, baina ene hitzak ez dira faltatuko. */ oraiko morroîtarik ezta faltaren gizon asto (4):* oraingo mutikoen artetik ez da faltako gizon astorik. */ ezau faltatan eltxano bapanari bere eltzabaldia (5):* ez zaio faltatzen eltzetxo bakoitzari bere estalkia. */ otakak martxoan lore, ez da faltaren eri eta dolore (5):* otakak martxoan lore, ez da faltako gaixotasun eta min.

fama *(3)* : ospe, fama */ fama anditako bat, izenez ziona Barrabas (3):* fama handiko bat, izenez Barrabas zena.

famatu *(4, 5)* : ospetsu, famatu */ urrinxago Erroldan Fuertiak xaitan du ezpata famatiua Durandarte (4):* urrunxeago Errolan Zangarrak Durandarte ezpata ospetsua garbitzen du. */ Frantzia famatutik erkiten dra (5):* Frantzia ospetsutik ateratzen dira.

familia *(3, 4, 8, 10)* : familia, sendi */ familia[ko] aita bat [urdu du] (3):* familiako aita bat dirudi. */ etseko familiak otoi egiten daitad (4):* etxeko familiak erregutzen dit. */ anixko ganu dud xakiteko zerbait orren familiatik (4):* gogo handia dut berorren familiatik zerbait jakiteko. */ familia onki, ta xena? (8):* familia ongi, eta zuena? */ Korpus egunian xitan dra zortzi Madrideko familiatik (10):* Korpus egunean zortzi etortzen dira Madrileko familiatik.

familiadun *(3)* : familiadun */ aita familiadun batek balaki zer ordutan biar zaun [xin ebaszalia] (3):* aita familiadun batek baleki lapurra zer ordutan etorri behar zaion, (adi legoke).

fan *(3, 4, 5, 8)* : joan */ fan zte Israeleko lurriara (3):* joan zaitez Israeleko lurrera. */ izar ekusi zeina, faiten zen beren antzinian (3):* ikusi zuten izarra beren aurrean joaten zen. */ ni fanen nuzu eta sontoten dauz (3):* ni joanen naiz eta sendatuko dut. */ lotsatu zen kara faitra (3):* hara joateaz beldurtu zen. */ badu borz ilabete fan zitzaikugula maistroa (4):* badu bortz hilabete maisua joan zitzaigula. */ [zarrak] faiten emon zren gaztiak zauden etseko bortara (4):* zaharrak joaten omen ziren gazteak zeuden etxeko atera. */ mundu guzutik fanen naz orreki (4):* mundu osotik joanen naiz berorrekin. */ eltan bada faitra Frantziara, mezu oil beztad (4):* heltzen bada Frantziara joatera, bidal biezat mezua. */ nola xin, kala fan (5):*nola etorri hala joan. */ bozkario emoiten [dei arrotzek], faten drenean (5):* poz ematen dute arrotzek, joaten direnean. */ mi diona Erromara faiten da (5):* mihia duena Erromara joaten da. */ mitil bat lasterka faitan zen (5):* mutil bat lasterka joaten zen. */ gu ilik ere, fanen tuk bai zakuak errotara (5):* gu hilik ere, joanen dituk bai zakuak errotara. OH. Zaraitzueraz eta bizkaieraz ere dokumentatua. Aditz trinkoetarako, ikus ´xoan´ sarrera.

fan adi! *(4)* : joan hadi!

fan bedi! *(4)* : joan bedi! (berori)

fan zte! *(4)* : joan zaitez!

fardel *(5)* : nagi; narras

farfaila *(5)* : berritsu ulergaitz OH. Azkuek ´azkar hitz egin eta ongi ulertzen ez zaion pertsona´ oharrarekin dokumentatua.

farrasta *(5)* : barrasta (edonola) */ farrasta-farrasta egitan tu lanak (5):* barrasta-barrasta egiten ditu lanak

farrastatu *(5)* : sakabanatu (aleak) OH. Aleak sakabanatu, garbitzeko.

fast *(5)* : zast OH. Arma puntaduna sartzearen onomatopeia.

faxa 1 *(5)* : gerriko, faxa

faxa 2 *(5)* : *(nek.)* soro, alor (estua eta luzea)

fazilki *(3)* : erraz, aise */ blasfemia ez [da] parkaten kain fazilki (3):* biraoa ez da hain erraz barkatuko.

fede *(2, 3)* : fede */ zertako? guri fede saintuko misterioen eratsukutako (2):* zertarako? guri fede santuko misterioak erakusteko. */ zer da fedia? gaiza ekustan eztugunaren sinestia (2):* zer da fedea? ikusten ez dugun gauza sinestea. */ zertako? fedearen defendatako (2):* zertarako? fedea defendatzeko. */ fedezkoa (2):* fedezkoa. */ fede txikitako gizona (3):* fede gutxiko gizona. */ emaztia, andi tzu zore fedia (3):* emakumea, handia da zure fedea. */ artikulo fedezkuak (4):* fedezko artikuluak.

ferrutzina *(5)* : ile txukun (ongi orraztua) */ ferrutzina (5):* ile txukuna, ongi orraztua.

festa *(3, 8)* : festa, jai */ Herodesen urtebetiaren festan (3):* Herodesen urtebetetzeko festan. */ kebenko festak (8):* hemengo festak.

fierrundaka *(5)* : pirritan (lurrean bueltaka)

figa *(5)* : huts, oker OH. Azkuek ´pilota gelditu edo jo nahi izatea eta huts egitea´ oharrarekin dokumentatua.

figo *(2, 3, 5)* : *(bot.)* piku */ biltan dreia ote figo xargatzetarik? (3):* biltzen ote dira pikuak lahardietatik? */ kemen ez figoa eztare matsa, ez dra sasointan sekula (5):* hemen ez pikua ezta mahatsa ere, ez dira sekula sasoitzen.

figo-arbole *(3)* : *(bot.)* pikondo */ figo-arbole bat [maradikatan du] (3):* pikondo bat madarikatzen du. */ figo-arbolia bertan exartruk [baratu zen] (3):* pikondoa berehala iharturik

geratu zen.

fil-fil-fil *(5)* : fil-fil-fil */ fil-fil-fil jaistan da papera leiotik lurreraino (5):* fil-fil-fil jaisten da papera leihotik lurreraino.

filotx *(5)* : luma-orratz, luma-zain

fin 1 *(5)* : fin */ ipar fina (5):* ipar haize fina.

fin 2 *(8)* : fin, xehe

fingabezun *(2)* : amaigabe */ nik diezud zutan esperanza andi bat, ziauren miserikordia fingabezun korrengatik (2):* nik zugan itxaropen handia dut, zeure erruki amaigabe horrengatik.

finitu *(9)* : bukatu */ fini deila lan kori fite (9):* bukatu dadila lan hori azkar.

firili-faraila *(5)* : firili-faraila (eguraldi nahasia) */ otsaila, firili-faraila (5):* otsaila, firili-faraila.

firrintaka *(5)* : pirritan (lurrean bueltaka) OH. Zaraitzun ´firrindaka´ dokumentatua.

firrita *(5)* : ziztu, burrunba (harri batena) OH. Zaraitzun ´firrinda´ dokumentatua.

firrundaka *(5)* : pirritan (lurrean bueltaka)

fite 1 *(3, 4, 5, 9, 10)* : azkar, bizkor, zalu */ ene nausia ezta xiten kain fite (3):* nire nagusia ez da hain azkar etortzen. */ beurtxoria[k] kantaten dianean, euria fite xinen da (5):* araba-zozoak kantatzen duenean, euria azkar etorriko da. */ fini deila lan kori fite (9):* bukatu dadila lan hori azkar. */ nai dei aigal fite ta oiara xoan (9):* azkar afaldu nahi dute eta ohera joan. */ zer fite xin [den] Pedro! (9):* zer bizkor etorri den Pedro.

fite 2 *(4, 7, 10)* : laster */ orai gaude eltzuka, tenprak laguntan badaikugu, fite akabaten digu (4):* orain eultzian ari gara, eguraldiak laguntzen badigu, azkar bukatuko dugu. */ [treina] erkinen dia fite? (7):* trena laster aterako al da? */ fite xaunen da elurra (7):* laster garbituko da elurra. */ biak aski fite il [zren] (10):* biak aski laster hil ziren. */ ekustan bitei xar nizala eta xoanen nazela fite (10):* zaharra naizela ikusten baitute eta laster joango naizela.

fiteka *(10)* : lasterka */ fiteka [xitan dun] (10):* lasterka zatorren.

fizadura 1 *(5)* : suge-hozkada

fizadura 2 *(5)* : ziztada (intsektuena)

fizatu 1 *(5)* : hozka egin (sugeak)

fizatu 2 *(5)* : zizt egin

flako *(3)* : ahul */ espiritiua egonik ere alert, aragia dago flako (3):* espiritua erne egonik ere, haragia ahul dago.

flokada *(11)* : sorta OH. Iparraldeko ´floka´ (= sorta) eta Azkuek Erronkarin bildutako ´floko´ (= lakio-begia), antza, Erronkariko ´flokada´ren jatorria dira, Aznarezek, hedadura semantikoz, ´zuhaitz multzoa´ esanahian dokumentatu duena.

floko *(5)* : lakio-begi OH. Iparraldean ´floka´ (= lakioa) dokumentatua.

flore *(2, 10)* : lore */ floreak, flore xuri korik (10):* loreak, lore zuri horiek.

foila 1 *(5)* : poltsiko

foila 2 *(5)* : irekigune (azpikogonakoa)

folla *(3, 5, 8)* : diruzorro; zorro */ etzazei eraman urrerik eta ez deus deuririk xaurien folletan (3):* ez ezazue eraman urrerik eta ez deus dirurik zeuen diruzorroetan. */ follara sartu [ziozun] (8):* zorrora sartu zuen. */ maztiak erkin ziezun follatik mia (8):* emakumeak zorrotik mihia atera zuen.

fordela *(5)* : kriskitin (hatzez egina)

forkai *(5)* : botoi-zulo ertz OH. ´Forkaia´ botoi-zuloei josten zaien ertza da, ehuna ez dadin litsatu.

forkatx *(5, 11)* : eustoin (zuhaitzen adarrena) */ forkatxa (11):* (zuhaitzen) eustoina.
foru *(6)* : *(hist.)* foru */ foruak (6):* foruak.
fotografia *(7)* : argazki
fotografian egin *(8)* : argazkia egin */ ze egitan dik kor, karrika kortan? bada, fotografian egitan (8):* zer egiten dik hori, kale horretan? bada, argazkia egiten. OH. ´Fotografian egitan´ = fotografiaren egitan.
franko 1 *(4, 5)* : asko, franko */ urrutxaz egiten dra xoraltiak, eta berze gaiza franko (4):* hurritzaz lepokoak egiten dira, eta beste gauza asko. */ bizi denak, aurtengo negiuaz, ekunen du kontu franko (4):* bizi denak, aurtengo neguaz, kontu franko edukiko du. */ ez du berze ontarzunik baizik txintxa eta erro franko (5):* ez du beste ondasunik baizik mukia eta karkaxa franko.
franko 2 *(4)* : *(hist.)* franko (herri germaniarra) */ frankoek kantatan dei irian (4):* frankoek herrian kantatzen dute.
Frantzia *(4, 5, 6, 10)* : *(geog.)* Frantzia */ nik ere erraiten daud Frantziako Laurentxek erraiten zauna (4):* nik ere erraten diot Frantziako Laurentxek erraten ziona. */ eltan bada faitra Frantziara, mezu oil beztad (4):* heltzen bada Frantziara joatera, bidal biezat mezua. */ Frantzia famatutik erkiten dra (5):* Frantzia ospetsutik ateratzen dira. */ Frantzian egon nindezun (10):* Frantzian egon nintzen.
fresko *(4)* : fresko (janaria) */ ganzta saltan dei, freskuan, ogeita zazpira pezeta arroba (4):* gazta saltzen dute, freskoan, hogeita zazpi pezetan arroa.
fruitu *(3)* : fruitu */ ez duala edanen xa obro oraidanik mats fruitu kontarik (3):* ez dudala jada gehiago edango oraindanik mahats fruitu honetatik.
fruta *(2, 5)* : fruta */ arbolek fruta [emoiten dei] (5):* fruitu-arbolek fruta ematen dute.
frutu *(2, 3, 4, 10)* : fruitu */ zore sabel birjinaleko frutua (2):* zure sabel birjinako fruitua. */ benedikatu duzu zore sableko frutia (2):* bedeinkatua duzu zure sabeleko fruitua. */ lur onian emon zein frutu (3):* lur onean fruitua eman zuten. */ frutiuetaz izaguntan [da] arbolia (3):* fruituetatik ezagutzen da arbola. */ aurten frutu urte (4):* aurten fruitu urte. */ [lerraren] frutu konek du izena ´mura´ (4):* pinuaren fruitu honek izena du ´pinazia´. */ [arbolek] ekuten dein frutiua (4):* zuhaitzek edukitzen duten fruitua. */ frutua (10):* fruitua.
frutuzko *(4)* : fruitudun, fruitu- */ eztago arbole frutuzkorik, ez bada zomait arantze eta itzagurtze (4):* ez dago fruitu-arbolarik, ez bada zenbait arantza (elorri) eta intxaurrondo.
fuina *(2)* : *(zoo.)* lepazuri
fultziaka *(5)* : purrustaka, marmarka
fungo *(2, 5)* : *(bot.)* onddo
funts *(5)* : funts
funtsgabe *(5)* : funsgabe
furrentaka *(5)* : purrustaka, marmarka
furrugila *(5)* : *(jos.)* furrun (makila-haria) OH. Bi eskuekin hari bati eutsita, mutur batetik zintzilikatutako makilatxoa jirarazteko den jostailua.
furrullo *(11)* : morroilo
furrun 1 *(5)* : furrun OH. Ardatzaren soinua, irutean.
furrun 2 *(5)* : *(jos.)* furrun (makila-haria) OH. Bi eskuekin hari bati eutsita, mutur batetik zintzilikatutako makilatxoa jirarazteko den jostailua.
furrundaka *(5)* : purrustaka, marmarka
furrundeatu *(11)* : firrindan bota (airean) OH. Aditz honen lekukotasuna ibarreko gaztelanian

gordetako ´furrundear´ aditzean dago.
furrundela *(5)* : maratila (leiho eta ateetakoa)
furrungila *(5)* : *(jos.)* ziba
furruntaka *(5)* : purrustaka, marmarka
furruntzale *(5)* : sentikor, gaitzikor
furruskatu *(5)* : muturtu
furrustada *(11)* : purrustada, marmar
furtxeta *(7)* : sardexka

G

gaar *(1)* : *(bot.)* garagar
gaardoi *(1)* : garagardi */ gaardoia (1):* garagardia.
gabe *(5, 9)* : gabe */ Santa Luzia eguna, argia gabe uluna (5):* Santa Luzia eguna, argia gabe iluna.
gabetarik *(10)* : gabe */ ene aita il zian txakin gabetarik il zela morroia (10):* nire aita hil zen jakin gabe mutila hil zela.
gabete *(10)* : krisket (arropetakoa) */ gabetereki [lotetu] (10):* krisketarekin lotu.
gabill *(8)* : *(bot.)* ezkur */ gabilla (8):* ezkurra, haritz-ezkurra.
gador *(5)* : apar, bits
gafa 1 *(5)* : *(nek.)* gako (ezpondako sasiak kentzekoa)
gafa 2 *(5)* : kizki (ibaiko egurketan egurrari eustekoa)
gafete *(10)* : krisket (arropetakoa) */ [xipoia] izartan gunia gafete baneki (10):* jipoia krisket batzuekin jartzen genuen.
gai 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : gau */ gaiak eta egunak (2):* gauak eta egunak. */ antzinatruk xa neskanegun gaia (3):* aurreraturik jada larunbat gaua. */ barurik antzineko gaiko amabi ornetarik landa (3):* baraurik aurreko gaueko hamabi orduak eta gero. */ berrogei egun berrogei gaiekin (3):* berrogei egun berrogei gaurekin. */ gaia goikorik eta izarrik bage [dago] (4):* gaua ilargirik eta izarrik gabe dago. */ gai alegreak ondo tristea (5):* gau alaiak ondoren tristea. */ zazpi gai eta zazpi egun (5):* zazpi gau eta zazpi egun. */ gaian, gaitikas, gaikoa, gaiera, gaiko (6):* gauean, gauetik, gauekoa, gauera, gauerako. */ aigaria gaiaz (7):* afaria gauez. */ gaian (7):* gauean. */ gaikua, aigaria (8):* gauekoa, afaria. */ ez balimazagon gai kartako, guziek erostan gunia (10):* gau hartarako ez baldin bazegoen, guztiok erosten genuen. */ gaia Izaban [igari diegu] (10):* gaua Izaban igaro dugu. */ gaiaz [xitan tzu], ameketan (10):* gauez etortzen da, hamaiketan. OH. Ikus ´gaialte´ eta ´lengai´ sarrerak.
gai 2 *(5)* : gai (materia) */ uxtigai (5):* txilibituak egiteko gaia (= lizarren adarrak).
gai 3 *(3)* : garai */ faite denean eltuz gaia, erraiten zei aldizka (3):* garaia helduz joaten denean, aldika erraten duzue.
gai eta egun *(4)* : gau eta egun */ ezta baratan gentia gai eta egun (4):* ez da geratzen jendea gau eta egun.
gai on! *(7, 9)* : gabon! */ gai on! gisa berean (9):* gabon! berdin.
gai onik! *(5, 6, 7, 10)* : gabon! OH. Zuberoan eta Zaraitzun ere dokumentatua.
gai unik! *(5)* : gabon!
gai-lan *(5)* : gau-lan
gaiaiñara *(5)* : *(zoo.)* saguzar
gaialdi *(5)* : gaualdi
gaialte *(5)* : gaualde */ gaialtean (5):* gaualdean.
gaian *(5, 9)* : ondoren */ ardiak igan gaian, artzanorak ere igaitan dra (5):* ardiak igo ondoren, arditxakurrak ere igotzen dira. */ eraki gaian erkin zan eltxanoa (5):* irakin ondoren atera ezan eltzetxoa. */ euri egin gaian eguzkia erkin zia (9):* euria egin ondoren, eguzkia atera zen.
gaiañari *(2)* : *(zoo.)* saguzar
gaiato *(5, 10)* : suburdina (txingarrak bizitzekoa) */ sukalteko burruña, gayatoa (10):* sukaldeko burdina, suburdina. OH. Azkuek ´gaiatu´ dokumentatua.

gaiaz *(3, 5, 6, 7)* : gauez */ [Josek aurra artu zion, eta bere ama], gaiaz (3):* Josek haurra hartu zuen, eta haren ama, gauez. */ erraiten daidzeidana gaiaz, erran zazei egunaren argiara (3):* gauez erraten dizuedana, erran ezazue egunaren argitan. */ fan ezitian berere gaiaz (3):* joan ez zitezen gauez behintzat. */ gu lo gitzaudelarik, gaiaz [xin zren] eta ebatsi zein (3):* gu lo geundela, gauez etorri ziren eta lapurtu egin zuten. */ gaiaz egitan dena egunaz agiri (5):* gauez egiten dena egunez ageri. */ gaiaz [elten guzu] mallo ebiltan bagra (7):* gauez helduko gara poliki ibiltzen bagara.

gaienez *(3)* : gauez */ gaienez konzenziaren examinatia (3):* gauez kontzientzia aztertzea. OH. Uhalde jaunak, zenbaitetan, -en- ertizkia erabiltzen zuen ´goxenetik´ (= goizetik) eta ´gaienez´ (= gauez) idaztean.

gaierdi *(3, 4, 5, 6, 7, 8)* : gauerdi */ eltruk gaierdia, entzun izan zen mintzo bat irago egiten (3):* gauerdia heldurik, mintzo bat entzun zen oihu egiten. */ gaierdia da (4):* gauerdia da. */ gaierdi da (7):* gauerdia da. */ gaierdiz, bi orenetan edo kola (8):* gauerdiz, ordu bietan-edo.

gaikari *(5)* : gauzale, gautxori

gailume *(5)* : gari txiki OH. Gutxi hazten den garia.

gailla *(5)* : ferra */ mandoa gailla batekin dago, bestea erori zau (5):* mandoa ferra batekin dago, bestea erori egin zaio.

gaillagin *(5)* : ferratzaile

gain 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 9, 11)* : gain */ Txardakako gaina (1):* Txardakako gaina. */ gaineko Berreinze (1lm):* gaineko Berreinze. */ gainian dauden ur guziak (2):* gainean dauden ur guztiak. */ gaiza guzien gainetik (2):* gauza guztien gainetik. */ ez deiteke altxa ziudade bat mendi baten gainian (3):* ez daiteke ezkuta hiri bat mendi baten gainean. */ naro eskatan naz gore jeinari usur ditzan orren gain bere bendizioniak (4):* maiz eskatzen diot gure jaunari isur ditzan berorren gain bere bedeinkapenak. */ gunian izaren tizei zure altare gainian xerreruak (4):* orduan jarriko dituzte zure aldare gainean aratxeak. */ oil erle kuek kartxeritik gain kartra (5):* bidali erle hauek baratzetik gain hartara. */ jeina onetsitan baitur gaiza guzien gainetik (5):* jauna maite baitut gauza guztien gainetik. */ iguzkia Ezkaurre gaintik erkitan da (7):* eguzkia Ezkaurre gainetik ateratzen da. */ gain kartarik erori dun pe kontra (9):* gain hartatik erori dun pe honetara. */ idian gainean (9):* herriaren gainean. */ altapa gaina (11):* aldapa gaina.

gain 2 *(5)* : esnegain

gain bera *(3)* : goitik behera */ tenpluaren belua urratu zen bi zatitan gain bera (3):* tenpluko errezela bi zatitan urratu zen goitik behera.

gain kartan *(5)* : bitartean

gainara *(4)* : gainera */ gainara, guziuek trabajatan dei dokeina (4):* gainera, guztiek lan egiten dute ahal dutena.

gainarako *(2, 3)* : gainerako */ berze gainarakuek [mitilak] arrapatu ztein eta il ztein (3):* beste gainerakoek morroiak harrapatu eta hil zituzten.

gainaran *(3)* : gainerakoan

gainarateko *(4)* : gainerako */ zuketzaz manifestatan digu alkar digula maitetarzuna andiago, ezik gainaratekueki (4):* zuketaz adierazten dugu elkarri maitasun handiagoa diogula, gainerakoekin baino.

gainbarna *(9)* : goitik behera */ atzo gainbarna [xatxi gindezun] (9):* atzo goitik behera jaitsi ginen.

gainen gainenka *(5)* : gailurrez gailur

gaineran *(5)* : gainerakoan */ eguerdia[n] arinten da, beste gaineran egun guzian euria egonen da (5):* eguerdian atertuko du, beste gainerakoan egun osoan euria egonen da.
gainiara *(6)* : gainera
gainiarako *(2)* : gainerako */ aitagorea eta berze gainiarako orazioneak [dazkigularik] (2):* aitagurea eta gainerako beste otoitzak dakizkigunean. */ Kristo berze gainiarako gizonak bikala [sortu zen] (2):* Kristo beste gainerako gizonak bezala sortu zen.
gainkapeka *(5)* : gainazpika (bueltaka)
gainkazko *(5)* : zaldizko */ bi gainkazko igari dra (5):* bi zaldizko igaro dira.
gainkin *(5)* : *(ekon.)* irabazi (iz.) */ karek gentu nai daztar gainkinak (5):* hark irabaziak kendu nahi dizkit.
gainorako *(6)* : gainerako */ gainorakoa (6):* gainerakoa.
gainpeka *(5)* : gainazpika OH. Elkar lurrera botaz borrokatzea.
gainpezka *(4)* : gainazpika OH. Gizakiak edo txakurrak borrokan, oraintxe gainean eta oraintxe azpian egotea.
gaintik *(5)* : gaindi; zehar */ axuriak kiñoetan gaintik, artzaiak pelota xokuan onki xatan ta onki edatan (5):* arkumeak lursailetan gaindi, artzainak pilota jokoan ongi jaten eta ongi edaten. */ karrika gaintik guatza mitilak musikareki (5):* kalea gaindi goaz mutilak musikarekin.
gaintika 1 *(3)* : gainezka
gaintika 2 *(5)* : abantailaz
gaintikan *(5)* : gainezka */ eltxanoa gaintikan da (5):* eltzetxoa gainezka dago.
gaintikatu *(5)* : gainezkatu, gainezka egin */ gaintikatu zaigu egoatxa ta zubu ta prexa berareki eraman ditu (5):* ibaia gainezkatu zaigu eta zubia eta presa berarekin eraman ditu.
gaintu *(4, 5)* : gailendu */ gero, tenprareki gaintu emon zren gaztiak zarretaz (4):* gero, denborarekin gailendu omen zitzaizkien gazteak zaharrei. */ gaintu zau (5):* gailendu zaio.
gainzgora *(5)* : gainzgora, ahari-jauzi (haur jolasa) */ gainzgora (5):* gainzgora, ahari-jauzia.
gainzuri *(5)* : *(bot.)* gari bizargabe
gaiñ *(3, 5)* : gain */ [Pedro barkotik] xaistian, faiten zen erabiltan uraren gaiñ, eltako Jesusengana (3):* Pedro txalupatik jaistean, uraren gainean ibiltzen zihoan, Jesusengana heltzeko. */ gaiñean (5):* gainean.
gaiñaran 1 *(5)* : gainera
gaiñaran 2 *(5)* : gainerakoan
gaiñartu *(5)* : gaina hartu, nagusitu
gaiñazpeka *(5)* : gainazpika (borrokatzea) OH. Elkar lurrera botaz borrokatzea.
gaiñazpekatu *(5)* : gainazpikatu (gainazpika borrokatu)
gaiñebeta *(5)* : aizto
gaiñerateko *(5)* : gainerako
gaiñez gain *(5)* : gailurrez gailur
gaiñezko *(5)* : gaineko */ gaiñezko[a] (5):* gainekoa.
gaion *(7)* : gabon gau */ gaiona (7):* gabon gaua.
gaioro *(6)* : gauero
gairon *(5)* : *(erl.)* gabon */ gairon egunean (5):* gabon egunean. */ gairon gairona, sortu da jein ona (5):* gabon gabona, sortu da jaun ona.
gaiski *(5, 9)* : gaizki */ gaiski [egin zian] (9):* gaizki egin zuen.
gaiski erran *(9)* : errieta egin, agiraka egin */ amandrea, zeren erraitan du (sic) gaiski? (9):* ama,

zergatik egiten dit (berorrek) errieta?

gaisokatu *(5)* : gaixoa kontsolatu OH. Azkuek ´gaixoa kontsolatzen saiatu´ esanahiarekin dokumentatua.

gaisondo *(5)* : gaixondo, eriondo, susperraldi

gaisto 1 *(2, 9)* : gaizto */ gaistoak iburneaz gaztigetan [tuzula sinestan dud] (2):* gaiztoak infernuaz zigortzen dituzula sinesten dut.

gaisto 2 *(9)* : txar */ uda gaisto (9):* uda txarra. */ paper kau anitx gaisto [dun] (9):* paper hau oso txarra dun. */ gaistoago ezik arri-erautsi bat (9):* harri-jasa bat baino txarragoa.

gaitikas *(6)* : gauetik

gaitu *(5)* : gautu

gaitz *(5, 10)* : gaitz */ tximilindrona, bataren gaitza, besteren ona (10):* tximilindrona (?), baten gaitza besteen ona.

gaitzetsi *(5)* : gaitzetsi

gaitzitu *(5)* : gaitzitu, haserretu

gaitzuru *(5, 9)* : lakari (ale neurria) */ garia eztien egartan gaitzurian (9):* garia ez diten igarotzen (?) lakarian.

gaiume *(5)* : gauzale, gautxori

gaixki *(3, 4, 10)* : gaizki */ bertan asi zren gaixki tratatra puñutikaldika (3):* berehala hasi ziren gaizki tratatzen ukabilka. */ gaiza galtegiten daitadanetarik, zomait gaixki daude (4):* galdetzen dizkidan gauzetatik, zenbait gaizki daude. */ gazte guziek ogia xatan bitei gaixki gaixki merexiturik (10):* gazte guztiek ogia jaten baitute gaizki merezita. */ arek erraitan dien anix gaixki (10):* hark oso gaizki erraten din.

gaixki erraitan *(5)* : gaizki esaka */ mazte xarrak gaixki erraitan (5):* emakume zaharrak gaizki esaka.

gaixo *(5)* : gaixo, errukarri */ martxo gaixoari egozten dabei kulpa (5):* martxo gaixoari botatzen diote errua. */ txirilintxon pelaka dabil gizon gaixo kori (5):* erortzeko zorian dabil gizon gaixo hori.

gaixokatu *(7)* : laztandu, ferekatu

gaixto 1 *(3, 5, 7, 9, 10)* : gaizto */ guziuak, onak eta gaixtuak (3):* guztiak, onak eta gaiztoak. */ gaixtuer sekulako pena [emoitako] (3):* gaiztoei sekulako zigorra emateko. */ apartatan bayaz gaixtotik, apartatan yaz gatxetik (5):* gaiztoagandik aldentzen bahaiz, gaitzetik aldentzen haiz. */ etzaiala ekun obro trato gaixtoareki (5):* ez ezaala tratu gehiago eduki gaiztoarekin. */ il tiala gaztiak, gaixto bitra oro (10):* hil daitezela gazteak, gaiztoak baitira denak.

gaixto 2 *(3, 5, 7, 8)* : txar */ pensamentu gaixtuetarik [libra gitzan] (3):* pentsamendu txarretatik libra gaitzan. */ onearako eta gaixtoarako (5):* onerako eta txarrerako. */ berri gaixtoak betik erkitan dra egiak (5):* berri txarrak beti ateratzen dira egia. */ emazte urule gaixtoari ezau ekustan atorra berririk (5):* emakume irule txarrari ez zaio ikusten atorra berririk. */ bide gaixtoak (5):* bide txarrak. */ [tenpra] on ala gaixto? (7):* eguraldi ona ala txarra? */ berri on ala gaixto? (7):* berri onak ala txarrak? */ trabajari gaixto bat (8):* langile txar bat.

gaixur *(5)* : gazur

gaiz *(6)* : gaitz, handi

gaiza *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : gauza */ guk sinetsi eta egin biar tugun gaiza guziak (2):* guk sinetsi eta egin behar ditugun gauza guztiak. */ non zegon jeina mundu kontako gaizak kreatu bagerik? (2):* non zegoen jauna mundu honetako gauzak sortu gabe? */ zertako ordenatu zien oliazione*

saintia? iror gaizatako (2): zertarako agindu zuen oliadura santua? hiru gauzatarako. */ gaiza kuek guziuak emonen daizud (3):* gauza hauek guztiak emanen dizkizut. */ [parabolen medioz] mintzatu zen anitx gaizataz (3):* parabolen medioz mintzatu zen anitz gauzaz. */ [uskaraz eskribitan dionetarik] zernaiden gaiza arten dud (4):* euskaraz idazten duenetik edozer gauza hartuko dut. */ gaizak onki erkiten bazazkau (4):* gauzak ongi ateratzen bazaizkio. */ elizan kantatan dein gaizetarik ensaiatra [deitan dau] (4):* elizan kantatzen dituzten gauzetatik entseatzera deitzen dio. */ gaiza guziuak beren tenpran (5):* gauza guztiak beren denboran. */ bear zau dolu ekun nausirik ez dion gaizari (5):* atsekabe izan behar zaio nagusirik ez duen gauzari. */ uzkuzilotik erkitan den gaiza kaka (8):* uzkitik irteten den gauza kaka (da). */ enin ikusi kolako gaizarik (8):* ez nuen ikusi horrelako gauzarik. */ ber gaiza zela, eta nik ezetz (10):* gauza bera zela (zioen), eta nik ezetz. */ aur guziak etsetra xuan eta emoitan ziziein gaiza (10):* haur guztiak (eskean) etxeetara joan eta gauzak ematen zizkieten. */ gaiza kuek (10):* gauza hauek.

gaizki 1 *(5, 7, 8)* : gaizki */ [zarrek] gazten ogia xatan baitei gaizki merexitruk (5):* zaharrek gazteen ogia jaten baitute gaizki merezirik. */ amak erantzuten du gaizki biz den semea (5):* amak errieta egiten dio gaizki bizi den semeari. */ aitareki anitx onki, baia amareki gaizki (7):* aitarekin oso ongi, baina amarekin gaizki. */ gaizki [erran zeian], ez zeia[n] entelegatu (7):* gaizki esan zinan, ez zinan ulertu.

gaizki 2 *(7)* : gaitz, gaizki */ ez egitea ñori gaizkirik (7):* inori gaitzik ez egitea.

gaizki-erraile *(5)* : ahozikin, mihigaizto */ yi yaz gaizki-erraile bat, ez baizik ere! (5):* hi mihigaiztoa haiz, bai horixe!

gaizkide *(5)* : gaizkide

gaizkin *(5)* : gaizkile

gaizkotu *(7)* : gaiztotu

gaizo *(5)* : gaixo, errukarri

gaiztakin *(5)* : gaizkile

gaizto 1 *(5, 7, 8, 10)* : gaizto */ onaren bakea gaiztoak nai dion artio (5):* onaren bakea gaiztoak nahi duen arte. */ itz gaiztoz talatu nu barridetarrak (5):* hitz gaiztoz gortu nau auzotarrak. */ ni bino gaiztoago (5):* ni baino gaiztoagoa. */ zu gaizto [zra], etzu deus ere on (7):* zu gaiztoa zara, ez duzu deus ere onik. */ yire anaxa gaizto [dun] (7):* hire anaia gaiztoa dun. */ zer gaizto gente gaztia mundian! (10):* zer gaizto jende gaztea munduan!

gaizto 2 *(5, 7, 8)* : txar */ aurkintze gaiztoa din korrek (5):* horrek asmo txarra din. */ emazte kura oilo errile gaiztoa da (5):* emakume hura oilo errule txarra da (= ez da lasaitzen). */ nik badur jenio gaizto (7):* nik badut jenio txarra. */ lur-lana da anitx gaizto (7):* lur-lana oso txarra da. */ ardau kori gaiztuago tzu ezi bestia (8):* ardo hori txarragoa duzu bestea baino.

gaizto 3 *(5)* : *(erl.)* deabru */ gaiztoak (5):* deabruak.

gaiztoarazi *(5)* : galbideratu, okerbideratu

gaiztogoz egon *(5)* : asmo txarrez ibili, txarrean egon */ gaiztogoz dago (5):* asmo txarrez dabil, txarrean dago.

gaiztotu *(7)* : txartu; gaiztotu (okerragotu) */ tenpra gaiztotu da (7):* eguraldia txartu da.

gal-gal *(5)* : bor-bor (irakitearen onomatopeia)

galandi *(5)* : galandi (gari bizartsua)

galarazi *(3, 4)* : galarazi */ galaraztako (3):* galarazteko. */ nestatia oboroagotan da ungurunetan, noiz ta karrontek galaraztan teinian erintziuak (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan, noiz

eta izozteek galarazten dituztenean ereintzak (labore-uztak).

galarzi *(4)* : galarazi */ nestatia oboroagotan da ungurunetan, noiz ta karrontek galarztan teinian erintziuak (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan, noiz eta izozteek galarazten dituztenean ereintzuak (labore-uztak).

galbae *(5)* : *(nek.)* galbahe

galbe 1 *(5)* : *(nek.)* galbahe

galbe 2 *(5)* : *(nek.)* zabor-sareta (ubideetakoa) OH. Ubideetako sareta, orbela-eta igarotzea galarazten duena.

galbekulko *(5)* : gari zikin OH. Azkuek ´galbahetik igarotzen ez den gari zikina´ esanahiarekin dokumentatua.

galbelar *(5)* : *(bot.)* galbelar

galberri *(5)* : galberri (gauza galdu berria)

galbide 1 *(5)* : galbide

galbide 2 *(5)* : gari-bide OH. Galsoroetan egiten zen bidexka, hobeto segatzeko.

galbidetan ebili *(5)* : galbidetan ibili */ galbidetan dabila (5):* galbidetan dabil.

gale *(7)* : gale, gogo */ nik dur gale ona (7):* nik gale ona dut.

galegita *(5)* : *(nek.)* galigita (garia igitatzea)

galfor *(2)* : *(heg.)* gabirai

galirabazi(ak) *(5)* : galdu-irabazi(ak)

galmendi *(5)* : labirinto, galmendi */ oixan kortan artzai banek bidea badakei; beste banentako, eztakeinentako, galmendi da (5):* oihan horretan artzain batzuek badakite bidea; beste batzuentzat, ez dakitenentzat, labirintoa da.

galtakeria *(3)* : eralketa, alferrik galtze */ zertra galtakeria kaur, prezio anditan al ekuntu zenian kaur saltu? (3):* zertara (dator) eralketa hau, prezio handian sal zitekeenean hau?

galtatu *(10)* : galdetu */ eta galtatu zitazun´ orrek dakia uskara?´ (10):* eta galdetu zidan ´berorrek (ba) al daki euskara?´.

galte 1 *(5)* : galdera

galte 2 *(5)* : galera, galtze

galte egin *(4, 5, 7)* : galdetu, galdegin */ galte eginez eta ñardetsiz (7):* galdeginez eta erantzunez. OH. Ikus ´galtegin´ sarrera.

galtegin 1 *(3, 4, 8, 9, 10)* : galdetu, galdegin */ [Jesusi] galtegin zabein lizito zenez sontotia neskanegunian (3):* Jesusi galdetu zioten ea zilegi zen larunbatean sendatzea. */ galtegiten zabein non biar zion sortu [Kristok] (3):* galdetzen zien non jaio behar zuen Kristok. */ galtegitan dur (3):* galdetzen dut. */ zore anaxak kor daudezu, zutaz galtegiten (3):* zure anaiak hor daude, zutaz galdezka. */ kontaz galteginez (3):* honetaz galdetuz. */ galteginez eta [ñardetsiz] (3):* galdetuz eta erantzunez. */ bere [ikaszale] tarik bi [oiltu ztion] ari galtegitra (3):* bere ikasleetako bi bidali zituen hari galdetzera. */ gaiza galtegiten daitadanetarik, zomait gaixki daude (4):* galdetzen dizkidan gauzetatik, zenbait gaizki daude. */ aprilian galteginen daud ya xin biar dionez (4):* apirilean galdetuko diot ea etorri behar duen. */ dotrinaren galtegiteko (4):* dotrina galdetzeko. */ galtegin dezala orai onek (8):* galdegin dezala orain honek. */ [gizon kek] galtegin dein (9):* gizon haiek galdetu diten. */ galtegin dien, galtegitan dien (10):* galdegin din, galdegiten din. */ galtegin zan (10):* galdegin ezan. OH. Mendigatxa jaunaren gutunetan maiz ´galte egin´ dokumentatua.

galtegin 2 *(3)* : eskatu */ [Jesusi] galtegin zabein erdeiteko motibo ari akusatako (3):* Jesusi

eskatu zioten hura salatzeko arrazoia aurkitzeko.

galtegingu *(3)* : galdera */ [Jesusengana] abañatu zren eta egin zabein galtegingu kaur (3):* Jesusengana hurbildu ziren eta galdera hau egin zioten.

galtu 1 *(2, 3, 5, 6, 7, 8, 9)* : galdu */ zertako? grazia galtiaren rekobratako (2):* zertarako grazia galdua berreskuratzeko. */ zer [balio] du mundu guziuaren irabaztia[k], galtan badu bere arima? (3):* zer balio du mundu osoa irabazteak, bere arima galtzen badu? */ obe dazaizu galtia [begi] bat, ezik ez zore korpiz guziua fan dein iburniara (3):* hobe duzu begi bat galtzea, zure gorputz osoa infernura joatea baino. */ jina, salba gitzazu, galtruk baigra (3):* jauna, salba gaitzazu, galduak baikara. */ [bere bizia] nai lezanak salbatu, galten du (3):* bere bizia salbatu nahi lezanak, galduko du. */ bizi gaxtoareki bear du osagarria galtu (5):* bizi txarrarekin osasuna galdu behar du. */ egia erraitan dionak galtan du adexkidetarzuna (5):* egia esaten duenak adiskidetasuna galtzen du. */ galtako ordian (6):* galtzeko orduan. */ artzai bat galtu [zen] mendian (7):* artzain bat galdu zen mendian. */ gizonek lein galtu zezein (8):* gizonek lehenago galdu zuten. */ xuan zunien zertuz, uskara galtuz (8):* zertuz joan zen, euskara galduz. */ eznia galtu tzu (9):* esnea (alferrik) galdu duzu.

galtu 2 *(3)* : galdu, hondatu */ kaur egiten bada, zagiak edo larriuak galtan dra (3):* hau egiten bada, zahagiak edo larruak galtzen dira.

galtzar *(5)* : galdu zahar (aspaldi galdua)

galtzas *(5)* : oinutsik

galtze *(5)* : galera, galtze

ganbara *(11)* : logela

ganbaratxo *(11)* : gelatxo (eskailerapekoa) OH. Esanahi ugariko hitza da. Eskailerapeko gelatxoa, jakitokia, txerritegia, oilolekua... ´Granbatxo´ eta ´granbatto´ aldaerak ere dokumentatuak.

ganbella *(11)* : *(nek.)* aska, ganbela

ganbra *(5, 7, 11)* : logela */ ganbratik erkin da (7):* logelatik atera da. */ ganbran lotan gra (7):* logelan lo egiten dugu. */ oi batako ganbra (7):* ohe bateko logela. OH. Aznarezek etxe izen moduan dokumentatua, deituratik ziurrenik.

ganduru *(5)* : eztarri, zintzur (irudizkoa ?) */ zer ganduru du karek! sar bikala faiten da zintzurretik igariz (5):* zer eztarri duen hark! sartu bezala joaten da zintzurretik igaroz.

gangail *(5)* : *(anat.)* gingil, aho-gingil */ gangaila, gangailla (5):* aho-gingila.

ganiua gentu *(4)* : gogoa kendu */ niri´re ganiua gentu zaitad (4):* niri ere gogoa kendu zait.

gano *(5, 8)* : gogo (nahia) */ bazkaltan gindauden artean, ostatuzalea berber maian ereinztan beizagon, gano txikireki xan gunien (5):* bazkaltzen ari ginen bitartean, ostalaria mahai berberean orrazten ari baitzen, gogo gutxirekin jan genuen. */ ez ganorik xagitako (8):* jaikitzeko gogorik ez.

gantxar *(5)* : gantz, bilgor

gantxar zuku *(5)* : *(suk.)* bilgor salda

gantz 1 *(5)* : gantz, bilgor

gantz 2 *(5)* : *(anat.)* sabel handi, tripa handi

gantzopil 1 *(5)* : *(suk.)* gantzopil (gantz orea)

gantzopil 2 *(5)* : *(anat.)* sabel handi, tripa handi

gantzutu *(5)* : gantzutu, igurtzi

ganu *(4, 5, 7)* : gogo (nahia) */ xateko ganurik bage [nago], etsi-etsia (4):* jateko gogorik gabe

nago, etsi-etsia. */ [merezinek] sontotu nei, eta isari xateko ganu on batian (4):* medizinek sendatu naute, eta jateko gogo onean jarri. */ txakur inzlari aztan dagonaren bikainbat xateko ganureki [nago] (4):* hazten ari den txakur ehiztariaren bezainbat jateko gogoz nago. */ [xatan ez dionak] ez du ganurik edo ez du [zer xan] (5):* jaten ez duenak ez du gogorik edo ez du zer jan. */ xan ganuareki (ganiareki) (7):* gogoarekin jan.

ganu ekun *(4)* : gogoa izan, gogoa eduki */ anixko ganu dud xakiteko zerbait orren familiatik (4):* gogo handia dut berorren familiatik zerbait jakiteko.

ganzgeza *(5)* : *(suk.)* gantz (urtu gabea) */ buriua ganzgezaz balin baduk, ez yadi izan labazain (5):* burua gantzez(koa) baldin baduk, ez hadi izan labezain.

ganzta *(4, 5, 9)* : gazta */ ganzta onletan [egiten da] (4):* gazta txaboletan egiten da. */ ´xaxgu´ urteoro egiten deina, ganztaren egiteko [onla da] (4):* ´jetzitegia´, urtero egiten dena, gazta egiteko txabola da. */ ganzta bat (9):* gazta bat.

gañ *(1, 2, 10)* : gain */ gaña (1):* gaina. */ ardibide gañea (1):* ardibide gaina. */ guzien gañetik (2):* guztien gainetik. */ bata dundu eta gañekoa gorri (10):* bata urdina eta gainekoa gorria.

gar *(2, 5)* : gar, sugar

garagar *(1, 2, 4, 9, 10)* : *(bot.)* garagar */ gari, olo, garagar, xeuri, eta zalge, guziuetarik [biltu digu] (4):* garia, oloa, garagarra, xerua eta zalkea, denetik bildu dugu. */ garagarrak zoritruk daude (4):* garagarra heldua da. */ garagarra [eta] oloa (10):* garagarra eta oloa.

garagardoi *(1)* : garagardi */ garagardoia (1):* garagardia.

garagartzaro *(6)* : ekain */ garagartzaroaren zazpigarrena, garagartzaroaren zazpigarna (6):* ekainaren zazpigarrena.

garagarzaro *(2, 4, 5, 7, 10)* : ekain */ garagarzaroan (4):* ekainean. */ garagarzarokoa (4):* ekainekoa. */ 1904ko garagarzaroaren 29´na (4):* 1904 ekainaren 29.a. */ garagarzaroa (7, 10):* ekaina.

garai 1 *(2)* : garai, denbora */ Kristo gizon egin garaian, eutzi ziena juangeiko izaitia? (2):* Kristo gizon egin zen garaian, utzi al zuen jaungoiko izatea? */ medratxu ilabete kunplitu garaian sortu zela (2):* bederatzi hilabete bete zituen garaian sortu zela.

garai 2 *(1)* : garai (adj.) */ argaraieta (1):* harkaitz garai eta. */ eliza garaia (1):* eliza garaia.

garaian *(5)* : ondoren */ idor garaian (5):* lehortu ondoren. */ lan kau egin garaian fanen nuk kara (5):* lan hau egin ondoren joanen nauk hara.

garaika *(5)* : borrokan (mutikoak)

garaitu *(5)* : garaitu */ kura garaitu da beste kartaz (5):* hark beste hura garaitu du.

garando *(4)* : *(anat.)* garondo

garandozilo *(5)* : *(anat.)* kokote, garondo-zulo

garar *(1)* : *(bot.)* garagar

garardoi *(1)* : garagardi */ garardoi gibela (1):* garagardi atzea. */ garardoia (1):* garagardia.

garate *(1)* : *(geog.)* ate, ataka */ krutx[e] garatea (1):* gurutze atea. OH. Ikus Nafarroako Gobernua, 168. eta 226. or.

garatulu *(5)* : *(tek.)* daratulu (eskuzkoa)

garba *(5)* : olo-jan (behientzakoa) */ garba (5):* olo-jana.

garbi *(5)* : garbi, xahu

garbitasun *(5)* : garbitasun

garbitze *(5)* : garbiketa

garda *(5)* : negozio (ona; mauka) */ garda egin du (5):* negozio (ona) egin du.

gardabera *(2, 4, 11)* : *(bot.)* kardabera
gardar *(7, 9)* : gardar */ gu gardar [gra] (7):* gu gardarrak gara. */ gardarrak (9):* gardarrak.
Garde *(2, 6, 7, 9)* : *(geog.)* Garde */ Garderik [xuan da] (6):* Gardetik joan da. */ Garderadraino [xuan gutzu] (9):* Garderaino joan gara. */ Garderik [xin nun] (9):* Gardetik etorri naun.
gardu *(4, 5)* : *(bot.)* kardu
garga *(5)* : *(nek.)* garba, garrama (liho-ezpata)
gargail *(5, 11)* : *(anat.)* aho-gingil OH. Aznarezek ´gargalleta[-ra edan]´ esamolde dokumentatua du, ´aho-gingilera edan´ esanahiarekin.
gargailla *(5)* : *(alb.)* hanka-ahulezia (abereena) OH. Azkuek ´ganaduaren gaitza, hanka-ahulezia eragiten duena´ esanahiarekin dokumentatua.
gargailletara edan *(5)* : zanga-zanga edan, aho-gingilera edan */ gargailletara edan diak ardaun txorta bat (5):* zanga-zanga (aho-gingilera) edan diat ardo pixka bat.
gargara *(5)* : hilzori-koroka
gargeroz *(5)* : gaurgero, aurrerantzean
gargoro *(5)* : gaurgero, aurrerantzean
gari *(2, 3, 4, 5, 9, 10)* : *(bot.)* gari */ bere garia sarten du graneruan (3):* bere garia aletegian sartzen du. */ gari, olo, garagar, xeuri, eta zalge, guziuetarik [biltu digu] (4):* garia, oloa, garagarra, xerua eta zalkea, denetik bildu dugu. */ azazi, gari azi, olo azi (5):* aza hazia, gari hazia, olo hazia. */ xoan gitean errotara gari eiotra (9):* joan gaitezen errotara garia ehotzera. */ garia (9, 10):* garia.
gariazi *(5)* : *(bot.)* gari-hazi
garibae *(5)* : *(nek.)* galbahe
garibikor *(5)* : gari-ale
gariburu *(2)* : galburu
garidun *(9)* : garidun */ xale bagez garidun (9):* jatun(ik) gabe (egotean) gariduna (izan).
garieper *(2, 5)* : *(heg.)* galeper OH. Azkuek ´ttorttola´ ere dokumentaturik dauka ´galeper´ esanahian.
garierri *(5)* : *(nek.)* galsoro
gariil *(5)* : uztail
garil *(2, 4, 5, 6, 7, 8)* : uztail */ 1904ko garilaren 25´na (4):* 1904ko uztailaren 25.a. */ azken garilaren ogeita bigarneko kartan (4):* azken uztailaren hogeta bigarreneko gutunean. */ adios garilekoaraino, jangeikoak nai badu (4):* agur uztailekoa arte, jaungoikoak nahi badu. */ garila (6, 7, 8):* uztaila.
garilar *(5)* : *(bot.)* zalke
garimiñare *(5)* : *(zoo.)* saguzar
gariorratz *(5)* : *(bot.)* gari-ernamuin
garitsu *(5)* : garitsu */ alur kori len garitsu zen (5):* alor hori lehen garitsua zen.
garitu *(10)* : mehetu, mirrindu */ [zenbra] garitan zia (10):* gaztanbera mehetzen zen.
garixale *(9)* : *(zoo.)* oti
garixoma *(5)* : *(erl.)* garizuma
garizakar *(5)* : *(bot.)* garizakar (gari bizarduna)
garizori *(5)* : garizori (gari zoritua, heldua)
garkeru *(5)* : erre usain; erre gustu
garkerutu *(5)* : erre, kiskali (haragia)

garkila *(5)* : algara, barre-algara
garkilaka *(5)* : algaraka, barre-algaraka
garnatxa *(5)* : *(bot.)* mahats (mota bat) OH. Azkuek ´ale txikiko mahats mota, ardo ez oso gorria egiten duena´ oharrarekin dokumentatua.
-garnen *(3, 4, 5, 7)* : -garren */ bigarnen (3, 4, 5, 7):* bigarren. */ irurgarnen (3, 4):* hirugarren. */ laurgarnen (3, 4, 7):* laugarren. */ zortzigarnen (7):* zortzigarren. */ ogeitairorgarnen (7):* hogeita hirugarren.
garo *(5)* : makila, zarta
garondo *(5, 9, 11)* : *(anat.)* garondo
garondoxilo *(5)* : *(anat.)* kokote, garondo-zulo
garrafoin *(6)* : txanbil
garrando *(2)* : *(anat.)* garondo
garrantxa *(9, 11)* : saski-esekitoki (zurezkoa) */ garrantxa (9):* saski-esekitokia.
garraska *(3, 11)* : karraska (hortzena) */ kan izanen da nexarra eta ortzez garraska egitia (3):* han izanen da negarra eta hortzez karraska egitea. */ ezbaita izanen beizik marraka eta ortzen garraska (3):* ez baita izanen oihu eta hortzen karraska baizik.
garratx *(5)* : *(bot.)* isuski-garratz
garratz *(5)* : garratz
garraztulu *(4, 5, 8, 9)* : *(nek.)* eskuare, arrastelu */ garraztulia (8):* eskuarea, arrastelua.
-garren *(2, 3, 5)* : -garren */ laugarren, laugarna (2):* laugarren, laugarrena. */ zorzigarren (2):* zortzigarren. */ borzgarren (2, 3):* bosgarren. */ irorgarren (2, 5):* hirugarren. */ bigarren (2, 3, 5):* bigarren.
-garri *(5)* : -garri */ damugarri (5):* kaltegarri.
garrotekaldi *(10)* : makilaldi */ astozar andia ni, bida garrotekaldi bat (10):* astozar handia ni, eman biezat makilaldi bat.
gastatu *(4, 5)* : gastatu, xahutu */ koral errazia anixko diona kemen gastatan digu argitako (4):* erretxina dezente duen pinu-muina hemen argitarako gastatzen dugu. */ bere ontarzunak bertan bear tu gastatu (5):* bere ondasunak berehala behar ditu gastatu.
gastazale *(5)* : gastatzaile, xahutzaile */ aita irabazale, semea gastazale (5):* aita irabazle, semea gastatzaile.
gasto 1 *(2)* : gaizto */ gasto [izan bazen], eburniara eternidad batentako (2):* gaiztoa izan bazen, infernura eternitate baterako. */ jeina xinen dela onen eta gastoen juzgatra (2):* jauna etorriko dela onak eta gaiztoak epaitzera. */ gastuer iburniko penak (2):* gaiztoei infernuko nekeak.
gasto 2 *(2)* : txar */ tentazione gasto guzien goitako indar emon dazagun (2):* tentazio txar guztiak garaitzeko indar eman diezagun. */ tentazione gasto ekutia on daia? bai, goitan badrade (2):* tentazio txarrak edukitzea ona al da? bai, garaitzen badira. */ gaiza gastoa (2):* gauza txarra.
gastu *(4)* : gastu */ biziek egiten digu gastu andia (4):* biziok gastu handia egiten dugu. */ [gariak] ez daikugu emonen biltako gastu egiten digunarentako (4):* gariak ez digu emango egiten dugun gasturako biltzeko.
gatarratu *(5)* : katarroa harrapatu, marrantatu */ artzaiek ezpalitzei eraman tapatruk polpak zagonez, oboro aldiz [egonen zren] gatarratruk (5):* artzainek ez palituzte izterrak ziraz estalita eraman, gehiagotan egongo ziren marrantaturik.
gatarro *(4)* : *(med.)* katarro, marranta */ gatarro denian, lore kontarik egos (4):* katarroa denean, egosi lore honetatik.

gatillo *(5)* : katilu

gattume *(9, 10)* : *(zoo.)* katakume */ gattumia (10):* katakumea.

gatu *(2, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(zoo.)* katu */ gatu burubeltxak xan (5):* katu burubeltxak jan (du). */ anitx daki sagiuak, baia obro gatiuak (5):* anitz daki saguak, baina gehiago katuak. */ azitik ozioa, trunkutik apurkina, gatiaren umea atzaparkina (5):* hazitik ernamuina, enborretik ezpala, katuaren umea atzaparkaria. */ zarzapenera eltuz geroz sua on zaikugu orobat nola gatuer (5):* zahartzarora heldu ezkero sua ona zaigu katuei bezala. */ kau da gatu, ez da leproi (7):* hau katua da, ez da erbia. */ eztun gatu (7):* ez dun katua. */ txakur eta gatua (gatia) gisa [dauden] (7):* txakurra eta katua bezala zauden. */ gatiak (8):* gatuak. */ maipean diozu gatia (9):* mahaipean dago katua. */ gatu [bat], gatia (10):* katu bat, katua.

gatuenbra *(2)* : *(zoo.)* kateme

gatulu *(4, 5, 9)* : katilu */ aldi bakotxian gatulu baten dina [edan] (4):* aldi bakoitzean katilu bat adina edan. */ klakez autse zaitad gatulua (5):* klakez (talkadan) hautsi zait katilua. OH. Izagirrek ´plater sakona´ oharrarekin dokumentatua.

gatume *(10)* : *(zoo.)* katakume */ gatumia (10):* katakumea.

gatuxpelko *(5)* : *(bot.)* isuski-garratz

gatx 1 *(2, 3, 4, 5)* : gaitz, gaixotasun */ jeinak libra gitzan korpitzaren gatx konbeni ezten guzietarik (2):* jaunak libra gaitzan komeni ez diren gorputzaren gaitz guztietatik. */ libra gitzazu gatx guzietarik (2):* libra gaitzazu gaitz guztietatik. */ libra gitzazu gatxetarik (2):* libra gaitzazu gaitzetatik. */ kexu zrenak gatx eta dolore biziz (3):* kexu zirenak gaitz eta min biziz. */ zernaiden gisatako min eta gatxak [sontotako] (3):* edozer gisatako min eta gaitzak sendatzeko. */ libra gitzazu gatxetik (3):* libra gaitzazu gaitzetik. */ kaur guziua ez da beizik gatxen prinzipiua (3):* hau guztia ez da gaitzen hasiera baizik. */ libra gitza gatxetik (4):* libra gaitza gaitzetik. */ sorzaroko falta, bere menteko gatxa (5):* sortzaroko falta, bere bizialdiko gaitza. */ beazaleak entzuten tu bere gatxak (5):* behatzaileak bere gaitzak entzuten ditu. */ azken gatxarendako ez dago dotorerik sontotako (5):* azken gaitzerako ez dago medikurik sendatzeko. */ apartatan bayaz gaixtotik, apartatan yaz gatxetik (5):* gaiztoagandik aldentzen bahaiz, gaitzetik aldentzen haiz.

gatx 2 *(7, 8)* : gaitz */ tenpra kanbia[ten] dizu oneara edo gatxera (7):* eguraldia aldatuko da onera edo gaitzera. */ otsaila txartxara, beti zaude gatxara (8):* otsaila ´txartxara´, beti zaude gaitzera (txarra).

gatx 3 *(1)* : gaitz, handi */ arrigatxaga (1):* harri gaitz lekua. */ basagatxa, mendi gatxa (1):* baso gaitza, mendi gaitza. */ sagar gatxa (1):* sagardi gaitza.

gatxiaraztu *(5)* : mindu, iraindu

gatxil *(5)* : gatzil (gatz gabea)

gatxitu 1 *(5)* : higuina izan

gatxitu 2 *(4, 5, 10)* : gaitzitu, haserretu */ ez gra gatxiten noranai fan dein (4):* ez gara gaitzituko noranahi joan dadin. */ nago ezaula gatxiten gaiza kuek oil dazkaudan (4):* (ni) nago ez zaiola gaitzitzen gauza hauek bidal diezazkiodan. */ gatxiara (10):* haserretzera (?).

gatxitu 3 *(5)* : mindu, iraindu

gatz *(2, 3, 7, 8, 9, 10)* : gatz */ gatza egitan bada geza, [zerekin] bueltaten zitzaud saboria? (3):* gatza geza egiten bada, zerekin itzuliko zaio zaporea? */ gatza (7):* gatza. */ gatza [egoixtan zeia] (10):* gazta botatzen zuten.

gatzagi *(5)* : gatzagi

gatzarri *(5)* : *(min.)* gatzarri OH. Azkuek ´ganaduari mihia igurtzi eta sendatzeko harri zurixka eta latza´ esanahiarekin ere dokumentatua.

gatzatu *(5)* : mamitu, gatzatu */ bigarren abentiara eltuz geroz, elurra obroena gatzatan da (5):* abendura helduz gero, elur gehiena gatzatzen da.

gatzatun *(5)* : *(suk.)* mami, gatzatu

gatzik *(7)* : gazi */ ur kau gatzik [dun] (7):* ur hau gazia dun.

gatzil *(5)* : gatzil (gatzik gabe)

gatzilxka *(5)* : gatziltxo (ia geza)

gatzontzi *(5)* : gatz-biltegi

gaur *(3, 5, 8, 10)* : gaur (gauean) */ xek guziuek gaur abandonaten naizei (3):* zuek guztiok gaur (gauean) abandonatuko nauzue. */ bat, bida, iror, laur, otsoak Urunberrin gaur (5):* bat, bi, hiru, lau, otsoak Irunberrin gaur (gauean). */ gaur banua ni etxera (8):* gaur (iluntzean) banoa ni etxera.

gaure *(9)* : geure */ orai eburnian gaure dantzatiagatik (9):* orain infernuan geure dantzatzeagatik.

gaxki 1 *(3, 4)* : gaizki (adb.) */ ez dela gaxki pensatu biar (3):* ez dela gaizki pentsatu behar. */ ene alaba anitx gaxki [dago] (3):* ene alaba oso gaizki dago. */ as baledi gaxki tratatra bere laguner (3):* bere lagunak gaizki tratatzen has baledi. */ eztakid gaxki ala onki eskribitan daudan (4):* ez dakit gaizki ala ongi idazten diodan. */ ´axolabage´ da morroin gaxki azi bat (4):* ´axolagabe´ mutiko gaizki hazia da. */ gaxki beztitruk, erdi bilainzruk (4):* gaizki jantzirik, erdi biluzik. */ ezaitadan kain gaxki urdutan yire urdukala (4):* ez zaidan hain gaizki iruditzen hire iritzia.

gaxki 2 *(4, 10)* : gaizki (iz.) */ gaxkia [egin diez] zure antzinian (4):* gaizkia egin dut zure aitzinean. */ zarrek gaxki anitx erraitan diaguzu, baia egiareki (10):* zaharrok gaizki anitz erraten dugu, baina egiarekin.

gaxkitako artu *(3)* : txartzat hartu */ zomaitek, kaur [ekustian], artu zein anitx gaxkitako (3):* zenbaitek, hau ikustean, oso txartzat hartu zuten.

gaxo *(3, 5, 7, 8, 10)* : gaixo, errukarri */ [inozenten ilte] gaxoa (3):* errugabeen hilketa gaixoa (errukarria). */ [andre Farinetak] gaxo izan bear baitu (5):* andre Farinetak gaxoa izan behar baitu. */ gaxo morroia! (7):* mutiko gaixoa! */ gaxo gizona! (7):* gizon gaixoa! */ gaxoa! (7):* gaixoa! */ ene aita, gaxua, egon zia[n] amintto bat edanik (8):* ene aita, gaixoa, pittin bat edanda egon zen. */ biak il [zuntien], gaxoak (10):* biak hil ziren, gaixoak.

gaxokatu *(5)* : laztandu, ferekatu

gaxtakeria *(4)* : gaiztakeria */ broga tzazu ñore gaxtakeria guziuak (4):* ezaba itzazu neure gaiztakeria guztiak. */ beira zazu izan nazala konzebitruk gaxtakerietan (4):* begira ezazu gaiztakerietan sortua izan naizela.

gaxtakide *(3)* : gaizkide */ ez gintzen izanen beren gaxtakidiak profeten ilgiuan (3):* ez ginen haien gaizkideak izanen profeten hilketan.

gaxto 1 *(2, 3, 4, 10)* : gaizto */ zoin drade itz gaxtoak? (2):* zein dira hitz gaiztoak? */ iguzkia onen eta gaxtuen gainian [sor dein egitan du] (3):* eguzkia onen eta gaiztoen gainean sor dadin egiten du. */ bere itzarekin egotxtan ztion espiritu gaxtoak (3):* bere hitzarekin espiritu gaiztoak botatzen zituen. */ gaztigu [emonen dau], gaxtuer emoiten dena (3):* zigorra emango dio, gaiztoei ematen zaiena. */ gaxtuer zure bidiak [eratsuken dazkabeizud] (4):* gaiztoei zure bideak erakutsiko dizkiet. */ mundia gaxto orai (10):* mundua gaizto orain.

gaxto 2 *(1, 2, 3, 4, 5, 10)* : txar */ utur gaxtoa (1):* iturri txarra. */ pensamentu gaxto guzietarik [libratzeko] (2):* pentsamendu txar guztietatik libratzeko. */ arbole gaxto [guziuek eragutan dei]*

frutu gaxtua (3): zuhaitz txar guztiek dakarte fruitu txarra. */ arbole on batek ez doke emon frutu gaxtorik (3):* zuhaitz on batek ez dezake eman fruitu txarrik. */ bizi gaxtotako gente anitx (3):* bizi txarreko jende anitz. */ kalidade gaxtotakuak [egotxtan dei] (3):* kalitate txarrekoak botatzen dituzte (arrainak). */ tenpra digu anixko gaxto (4):* eguraldi anixko txarra dugu. */ [balle kontan] aministrazione gaxto bat [dago] (4):* ibar honetan administrazio txarra dago. */ [izeiak] sua du lerrak bino gaxtoago (4):* izeiak sua pinuak baino txarragoa du. */ egun dago negu guziuan ekun digun egunik gaxtoena (4):* egun dago negu osoan eduki dugun egunik txarrena. */ bizi gaxtoareki bear du osagarria galtu (5):* bizi txarrarekin osasuna galdu behar du. */ tenpra gaxto (10):* eguraldi txarra.

gaxtotarzun *(3, 4)* : gaiztotasun */ gaxtotarzunaren obrazaliak (3):* gaiztotasun egileak. */ broga zazu ene gaxtotarzuna (4):* froga ezazu ene gaiztotasuna. */ ekuz naztazu obro eta obro ene gaxtotarzunetik (4):* garbi nazazu gero eta gehiago nire gaiztotasunetik.

gaxur *(5)* : gazur

gazbeila *(5)* : geza, gazgeza

gazeta *(4)* : egunkari */ banaki zoin gazetatan dauden [orren artikuloak] (4):* berorren artikuluak zein egunkaritan dauden baneki.

gazgeza *(5)* : geza, gazgeza

gazi *(9)* : gazi

gazik *(7)* : gazi */ ur kau gazik [da] (7):* ur hau gazia da.

gazitegi *(5)* : gazitegi, gatzun-aska

gazixka *(5)* : gatziltxo (ia geza)

gazmorra *(5)* : gazi-gazi

gazna *(5)* : gazta

gazna-begi *(5)* : gazta-begi

gazoi *(9)* : gazi */ apario kau diagun gazoi (9):* apairu hau gazi dinagu.

gazoitu *(9)* : gazitu */ gazoitu diar (9):* gazitu dut. */ aragi konen gazoitra noan (9):* haragi hau gazitzera noan.

gazta *(5, 7, 8, 9, 10, 11)* : gazta */ anitx eznetako gazta (5):* esne askotako gazta. */ gazta, aragia eta ardaua eragu ditiegu (7):* gazta, haragia eta ardoa ekarri ditugu. */ orai ez egitan gaztarik batere (10):* orain ez da batere gaztarik egiten. */ gazta zarra (11):* gazta zaharra. OH. ´Anitx eznetako gazta´ pertsona muturluzeez esana.

gâzta *(8)* : gazta

gaztaegile *(5)* : gaztagile

gaztagi *(5)* : gatzagi

gaztagin *(10)* : gaztagile

gaztaiña *(5)* : *(bot.)* gaztaina

gaztaiñadoi *(5)* : gaztainadi

gaztaiñatze *(5)* : *(bot.)* gaztainondo

gaztanbera *(7, 8, 11)* : gaztanbera

gaztangaxur *(5)* : gazur

gaztaña *(5)* : *(bot.)* gaztaina */ gaztaña zumaila (5):* gaztaina zimela. */ gaztañak erra ta xan, zartana batan suian (10):* gaztainak erre eta jan, zartagin batean sutan.

gaztañadoi *(5)* : gaztainadi

gazte *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : gazte */ gizon gazte bat [abañatu zitzaun] (3):* gizon gazte bat

hurbildu zitzaion. */ gaztiak [erraiten dau] (3):* gazteak erraten dio. */ emazte zarrak erkin zaun nabaja gaztiari (4):* emakume zaharrak labana atera zion gazteari. */ bi kuadrilla [egiten zein] ; bata zarrek eta berzia gaztek (4):* bi laguntalde egiten zituzten; bata zaharrek eta bestea gazteek. */ betik emon zauden ankarren zarrak gazteki (4):* beti omen zeuden haserre zaharrak gazteekin. */ gaztearnian (4):* gaztearenean (gaztearen buruan). */ mazte ñoa beti gazte (5):* emazte txikia beti gazte. */ [zarrek] gazten ogia xatan baitei gaizki merexitruk (5):* zaharrek gazteen ogia jaten baitute gaizki merezirik. */ zomait gazte [xin da] (7):* gazteren bat etorri da. */ alaba gaztena naz (7):* alaba gazteena naiz. */ keben ni gaztena, Antonia gaztiago (8):* hemen ni gazteena, Antonia gazteagoa. */ orai juaiten tzu gaztiak (8):* orain gazteak joaten dira. */ gazte gindenian (10):* gazteak ginenean. */ gaztiak xoaitan gitzia eguatxara zankuen ekuztra (10):* gazteak ibaira joaten ginen oinak garbitzera. */ [anitx xoaitan] ikusi dur, ni mino gaztiago (10):* anitz joaten ikusi ditut, ni baino gazteagoak.

gaztegi *(5)* : *(erai.)* gatz-biltegi

gaztego *(9)* : gaztaro */ gore gaztegoan zer kontent ginden San Joan egunean dantzara xuaitako (9):* gure gaztaroan zer pozik ginen San Joan egunean dantzara joateko.

gaztei *(5)* : *(erai.)* gatz-biltegi

gazteixko *(6)* : gaztetxo

gaztela *(2)* : mendebalde, sartalde

gaztelatx *(5)* : *(anat.)* glotis */ gaztelatxera fan zaitak edana (5):* glotisera joan zaidak edana.

gaztelaxa *(2)* : *(met.)* mendebal-haize */ gaztelaxa (2):* mendebal-haizea.

gaztelu *(1)* : *(erai.)* gaztelu */ gaztelu altea (1):* gaztelu aldea. */ gaztelu zarra (1):* gaztelu zaharra.

gaztetan *(7)* : gaztetan */ ni egon nindenian gaztetan Uriñan, guzia zagua[n] zerratruk, murallatruk (8):* ni gaztetan Iruñean egon nintzenean, guztia itxita zegoen, hesituta.

gaztetarik *(5)* : gaztetandik

gaztetarzun *(5)* : gaztetasun

gaztezaro *(5, 7)* : gaztaro */ ene gaztezaroan bukata [egitan gunian autsaki] (7):* nire gaztaroan lixiba egiten genuen errautsarekin.

gaztezitu *(5)* : gaztaro */ gaztezituan ez dena lasterkatu, zarzapenean bear du galopatu (5):* gaztaroan ez dena lasterkatu, zahartzaroan hark behar du lauhazkatu.

gaztezutu *(3, 4, 5)* : gaztaro */ korik guziuak guardatu tur ñore gaztezutudanik (3):* horiek guztiak neure gaztarotik gorde ditut. */ ene gaztezutiuan (4):* nire gaztaroan.

gaztigar *(5)* : *(bot.)* astigar

gaztigatu *(3)* : zigortu */ Sodomako erria juizioko egunian izanen da gaztigatruk (3):* Sodomako herria epaiketa egunean zigortua izanen da.

gaztigetu *(2)* : zigortu */ gaistoak iburneaz gaztigetan [tuzula sinestan dud] (2):* gaiztoak infernuaz zigortzen dituzula sinesten dut.

gaztigu *(2, 3)* : zigor */ gaztigu bihar dionari korrejitia (2):* zigorra behar duena zuzentzea. */ gaztigu [emonen dau], gaxtuer emoiten dena (3):* zigorra emango dio, gaiztoei ematen zaiena. */ ontarzun guziuak ez deus gaztigurik bage (3):* ontasun guztiak, batere zigorrik gabe.

gaztulu *(1, 5)* : *(erai.)* gaztelu */ gaztulu zarra (1):* gaztelu zaharra. */ gaztulia iriaren geinian [diaun] (9):* gaztelua herriaren gainean dinagu.

Gaztulu Zarra *(9)* : *(geog.)* Gazteluberri

gedar *(2, 5)* : kedar

-gei *(5)* : -gai */ bordalgei, senargei (5):* ezkongai, senargai.

gei *(5, 10)* : gai OH. Azkuek ´zerbait egiteko materiala´ esanahian dokumentatua. Artolak ´elkarrizketarako gaia´ esanahian dokumentatua.

geide *(5)* : hurko, lagun hurko

geien 1 *(10)* : gehien */ kuek geienak gisa (10):* hauek gehienak bezala.

geien 2 *(5)* : nagusi, behinen

gein *(7, 9)* : gain */ mai geinian izarri diegu (7):* mahai gainean jarri dugu. */ gaztulia iriaren geinian [diaun] (9):* gaztelua herriaren gainean dinagu.

geine *(5)* : irin-baheko makila

geiñu *(5)* : keinu */ eskuz naiz geiñuz naiz eleka edo iragoz dei egitan da (5):* eskuz nahiz keinuz nahiz hitzez edo oihuz dei egiten da.

geiza *(2)* : gauza */ geiza guzietan (2):* gauza guztietan.

gelki *(2)* : *(suk.)* haragiki (giharra)

gemantal *(5)* : mantal, amantal

gente 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : jende */ Kristo da gente anitxez xarrekitruk (3):* Kristo jende anitzek jarraitua da. */ [Judea guzutik] zuatzan, bada, gentiak (3):* Judea osotik zihoazen, bada, jendeak. */ ona kemen bizi gaixtotako genten adexkide [bat] (3):* hona hemen bizi txarreko jendearen adiskide bat. */ genter [emon] (3):* jendeei eman, jendeari eman. */ kanpoko gente anixko xiten da fiesta kontra (4):* kanpoko jende dezente etortzen da festa honetara. */ ezta baratan gentia gai eta egun (4):* ez da geratzen jendea gau eta egun. */ artazia gentek ere xaten dei kastañen gisa (4):* arte-hazia jendeak ere jaten du gaztainak bezala. */ etse bat erretan zela, mutu [zen] gente deitan ziona (5):* etxe bat erretzen zela, mutua zen jendea deitzen zuena. */ zomat gente xin da[?] (7):* zenbat jende etorri da? */ gentiak erraitan du (7):* jendeak erraten du. */ [menditik] gentea xin da, akaitu[k] (9):* menditik jendea etorri da, nekaturik. */ gentia (10):* jendea. */ zomaitek ekusiren dei zer egitan dien gentiak (10):* zenbaitek ikusiko dute zer egiten duen jendeak.

gente 2 *(4)* : pertsona */ deiten tigu orrek erraiten daizkigun gente adineko guziuak (4):* berorrek esaten dizkigun adineko pertsona guztiak deituko ditugu.

gente 3 *(5)* : talde */ gizongente, maztegente (5):* gizon talde(a), emakume talde(a).

gentetarzun *(3)* : jendetza */ kainbat gentetarzun [ekustian] sontotu ztion beren eriak (3):* (Jesusek) halako jendetza ikustean, haien eriak sendatu zituen.

gentu *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : kendu */ [eskiua] tokatan zaularik, [kalentura] gentu zitzaun (3):* eskua ukitzen ziola, sukarra kendu zitzaion. */ gentruk [izanen zabei esposua] (3):* kendua izanen zaie senarra. */ [bekatiuaren obrazale dren oro] genten dei (3):* bekatu egileak diren guztiak kenduko ditu. */ ez gentia berzen gaiza (3):* ez kentzea bertzeen gauza. */ bekatu orijinalaren gentako (3):* jatorrizko bekatua kentzeko. */ [tunika] gen dazaizun (3):* tunika ken diezazun. */ gen akida antzinetik Satanas! (3):* ken hakit aurretik, Satanas! */ gentu naun, gentu nauzun, gentu nayan (4):* kendu nion, kendu nizun, kendu nian (eta) kendu ninan. */ kek eskiua arrapatu zabein eta gentu nabaja (4):* haiek eskua harrapatu zioten eta labana kendu. */ ardi bapanari gentan dabei iror edo laur libra ganzta (4):* ardi bakoitzari hiru edo lau libra gazta kentzen diote. */ [korostiari] kaxalaren gentako (4):* gorostiari azala kentzeko. */ ez zazu gen eneganik zure espiritu saintiua (4):* ez ezazu ken niregandik zure espiritu santua. */ gen akida ene antzinetik sekulako (4):* ken hakit nire aurretik sekulako. */ atsegile bat badud, ezbaidoked gentu (5):* azkura badut, ez baitezaket kendu. */ tenprak emoitan diona tenprak gentan du (5):* denborak ematen duena denborak kentzen du. */ kura gentan duran aldi oroz (5):* hura kentzen

dudan aldi oroz. */ ardi zarrari gentan zau bearria (5):* ardi zaharrari belarria kentzen zaio. */ gentze kebentik (5):* ken zaitezte hemendik. */ xauna, gen bedi kortik (6):* jauna, ken bedi hortik. */ ez baldin badun emoitan, genten di[n]ar (7):* ez badidan ematen, kendu egingo dinat. */ mia gentu ziozun autik (8):* mihia kendu zuen ahotik. */ ez diar krutxia gentan buelta yain artio (8):* ez diat gurutzea kentzen itzul hadin arte. */ tiojeina, mertxedez gen [be]za kori (8):* osaba, mesedez ken beza hori. */ ellu kori gen zan (10):* ken ezan euli hori.

geratu *(5)* : geratu */ illotzi geratu da (5):* hilotz geratu da, bat-batean hil da.

gerezi *(5, 9, 10)* : *(bot.)* gerezi */ gereziak (10):* gereziak.

gerezitze *(5)* : *(bot.)* gereziondo

gergizko(ak) *(5)* : galtza (motzak) */ gergizkoak apaltu (5):* galtza motzak beheratu. */ tarrakatu tud gergizkoetako buztinak (5):* galtza motzetako buztinak (lokatza) arraspatu ditut. OH. Belaunetarainoko galtza motzak. Azkuek ´gergizkoak´ eta ´gergiskoak´ dokumentatuak.

gerne *(5)* : bahe-makila */ irinen irolzkitako makoak ´gernea´ du izena (5):* irina bahetzeko makilak ´gernea´ (bahe-makila) du izena.

gero *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : gero */ gero berze mundian ekus eta goza dezan (2):* gero beste munduan ikus eta goza dezan. */ gero, [Juan enkarzelatruk izan zela] entzutian, erretiratu zen (3):* gero, Juan espetxeratu zutela entzutean, aldendu egin zen. */ gero utzulen zra (3):* gero itzuliko zara. */ Kristoren ama bizi izan zena gero? (3):* Kristoren ama bizi izan al zen gero? */ gero orrek ekusen du zer egin biar dion (4):* gero berorrek ikusiko du zer egi behar duen. */ gero egin bearrak egin zazei orai (5):* gero egin beharrak egin itzazue orain. */ emaztek gero, berantago utzu zedein [uskara] (8):* emakumeek gero, beranduago utzi zuten euskara. */ gero arrastrian plaztan sonia (9):* gero arratsaldean plazan soinua (egoten zen). */ gero zortzi aur ekun [nien] (10):* gero zortzi haur eduki nituen. */ eskia moztu [zein], lein eria eta gero eskia (10):* eskua moztu zuten, lehenik hatza eta gero eskua.

geroago *(7)* : geroago */ geroago bañaten naz (7):* geroago bainatuko naiz.

geroago eta -ago *(7)* : gero eta -ago(a) */ geroago eta zarrago izanen zra (7):* gero eta zaharragoa izango zara.

geroago eta oboroago *(4)* : gero eta gehiago

geroxago *(4)* : geroxeago */ geroxago xainki entelegatako nola biar dion izan alkar eskribiten gra (4):* geroxeago garbiki ulertzeko nola izan behar duen elkarri idatziko diogu.

geroz *(3)* : ezkero (denborazkoa) */ judiuak Babiloniara eraman izanik geroz, Kristo bitartio (3):* juduak Babiloniara eraman(ak) izan ezkero, Kristo bitartean.

gerozaz *(2)* : geroztik */ krutxeak badia birtuterik? bai jeina, Kristok goituz gerozaz (2):* gurutzeak ba al du bertuterik? bai jauna, Kristok garaituz geroztik.

geroztik *(3, 4, 5, 10)* : geroztik */ geroztik neabe guziua dago karriketarik eskolarik bage (4):* geroztik gaztetxo guztiak kaleetan daude eskolarik gabe. */ geroztik xuan erranez nabaja-erkilia ezokela lixiri tripa mina (4):* geroztik, labana-ateratzailea esanez zihoan ez zezakeela digeritu tripako mina. */ Ameriketara xoan aitzinean goiti zeuria ta apal lurra nitien, geroztik duntu naiz (5):* Ameriketara joan aurretik goian zerua eta behean lurra nituen, geroztik (ondasunez) jabetu naiz.

gerra *(4, 5, 7)* : gerra, guda */ Karlosen gerran, karlisten deitu zteinian mitilak (4):* Karlosen gerran, karlistetarako mutilak deitu zituztenean. */ arroitu andi kori uskaldunen gerrako kantia [da] (4):* zarata handi hori euskaldunen gerrako kantua da. */ ayik entzun nai ez diona ez deila fan gerrara (5):* airik entzun nahi ez duena ez dadila gerrara joan. */ gerran ala bakean edo*

bietan (7): gerran ala bakean edo bietan. */ gerran [gition] (10):* gerran gauden. */ gerratan dauden (10):* gerratzan zauden.

gerremus *(9)* : ifrentzu, atzealde (oihalena) */ kotta kori gerremusiara [izarri dun] (9):* gona hori ifrentzuz jarri dun.

gerren *(11)* : burruntzi, gerren OH. Artzibar, Auritz, Goñerri, Izarbeibar, Oltza, Zaraitzu eta Iparraldean dokumentatua.

gerrentu *(5)* : laztu (ilea)

gerrentze *(5)* : gerri

gerruntze *(5)* : gerri-kuxintxo */ gerruntzea emaztekiek ezarten dei soinaren ondarretik anken anditako ta kotak eztian apal eror (5):* gerri-kuxintxoa emakumeek jartzen dute soinaren hondarretik aldakak handitzeko eta gonak ez daitezen behera erori. */ lein oputzean belain gainera, bigarren oputzean gerruntziara, irorgarrenean bularrera, azkenekotz soin gainera (5):* lehen ahaleginean belaun gainera, bigarrenean gerrira, hirugarrenean bularrera, azkenekoz sorbalda gainera.

gertatu *(5)* : gertatu, agitu

geruago *(3)* : geroago */ geruago xin zren berze berjinak [ere] (3):* geroago beste birjinak ere etorri ziren.

gesal 1 *(1)* : gesal, gatzun */ gesala (1lm):* gesala.

gesal 2 *(4)* : *(met.)* gesal (elur erdi urtua) */ egun gesal bateki [gaude] karriketan (4):* gaur kaleetan gesala dugula gaude.

geza *(3, 5)* : geza, gazgeza */ gatza egitan bada geza, [zerekin] bueltaten zitzaud saboria? (3):* gatza geza egiten bada, zerekin itzuliko zaio zaporea?

geztera *(5)* : geztera (zorroztarria)

gezur *(2, 3, 5, 7, 9, 10)* : gezur */ gezurra delarik (2):* gezurra denean. */ utsian edo gezurrian [eroren baizren] (3):* hutsean edo gezurrean eroriko baitziren. */ senditan dionaren kontra eta gezurrareki (3):* sentitzen duenaren aurka eta gezurrarekin. */ lein arrapatan da gezurra ezik zankamakurra (5):* lehenago harrapatzen da gezurra herrena baino. */ atsa ere gezurra du (5):* hatsa ere gezurra du. */ adexkideak eztakizei gezurra ala egia den (7):* adiskideak ez dakizue gezurra ala egia den. */ kura gezurra z[en]a? bai, gezurra [zen] (7):* hura gezurra al zen? bai, gezurra zen. */ gezurra (9):* gezurra. */ guzia gezur [erraitan dien] (10):* guztia gezurra esaten din.

gezur-ile *(5)* : ileorde */ gezur-ileak (5):* ileordeak.

gezur-iraki *(5)* : gezur-irakin (gezurrezko irakitea)

gezur-ortz *(5)* : hortzorde

gezurra erran *(2, 3, 10)* : gezurra esan, gezurra erran */ ez gezurrik erran! (2):* ez gezurrik erran! */ ezagula gezurrik erran (2):* ez dezagula gezurrik esan. */ gezurra erraitan (3):* gezurra erraten. */ gezurrik ez erraitia, ez gezurrik erraitia (3):* gezurrik ez esatea, ez gezurrik esatea.

gezurrandi *(7)* : gezurti */ ala eztakin ala yaz gezurrandi (7):* edo ez dakin edo gezurtia haiz.

gezurrontzi *(5)* : gezurrontzi

gezurti *(5)* : gezurti */ gezurtiari ezau xinestan egiarik (5):* gezurtiari ez zaio egiarik sinesten.

gezurxuri *(5)* : elezuri, faltsu (pertsona)

-gi *(1)* : leku */ sargia (1):* sarlekua. */ erregia (1):* erre lekua.

gia *(5)* : *(bot.)* altsuma OH. Lurretik sortzen diren adar berriak.

gianso *(5, 9, 10)* : *(suk.)* urdai, xingar */ giansoa (9):* urdaia, xingarra. */ morroier emoitan gunia*

edo gianso edo txistor (10): mutikoei ematen genien edo urdaia edo txistorra.

giârre *(5)* : gihar

giaso *(9)* : *(suk.)* urdai, xingar */ giaso gorri[a] (9):* urdai gorria (giharra). */ giaso xuri[a] (9):* urdai zuria (gantza).

giaur 1 *(2, 3, 5, 9, 10)* : geu, guhaur */ giaur edo gore kristiai laguna (2):* geu edo gure lagun kristaua. */ [orazione] giauren baitan biotxaz egiten duguna (2):* geure baitan bihotzaz egiten dugun otoitza. */ esketan grena ezpaigrade giaurentako solo esketan (2):* eskatzen duguna ez baitugu geuretzat soilik eskatzen. */ bizi izan bagintz giauren ait[aetam]en tenpran (3):* geure gurasoen denboran bizi izan bagina. */ gore projimuak [moite ekutia] giauren buriua bikala (3):* gure lagun hurkoa maite izatea geure burua bezala. */ giaur, giaurek (5):* geu, geuk. */ gu giaurek ikusi diauzu (9):* guk geuk ikusi dugu. */ pesa tzugula giaurek (9):* geuk pisa ditzagula. */ guzia uskara giauren artian (10):* guztia euskara geure artean.

giaur 2 *(9)* : bakarrik */ gu xoan gutzu giaur (9):* gu bakarrik joan gara.

giaurtu *(5)* : oroitu, gogoratu

giazale *(3)* : gidari */ giazale utsiak (3):* gidari itsuak.

gibel 1 *(1, 2, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* gibel */ sabrian estomaka, gibela, erxeak [ditiegu] (7):* sabelean urdaila, gibela, hesteak ditugu. */ gibela (8, 9, 10):* gibela.

gibel 2 *(1, 10)* : atze, gibel */ argibela (1):* harkaitz atzea. */ torre gibelea (1):* dorre atzea. */ gibelekoan bat (10):* atzeko (arraunean gizon) bat.

gibel 3 *(5)* : gibel, patxada

gibel-arri *(5)* : *(med.)* gibel-harri

gibeleko *(9, 10, 11)* : eltzeondoko (burdinak) */ eragi zan gibelekoa eta sar tzan azak eta sua egon deila on (9):* ekar ezan gibelekoa eta sar itzan azak eta sua egon dadila ona. */ gibelekoak (10):* eltzeondoakoak. OH. Aznarezek ´gibiliko´ aldaera dokumentatua.

gibelmin *(2, 3, 5)* : *(anat.)* behazun, gibelmin */ kan emon zabein edatra ardaû, nastekatruk gibelminekin (3):* han ardoa eman zioten edaten, behazunarekin nahasirik. */ ez dago eztirik gibelmin bagerik (5):* ez dago eztirik behazunik gabe. */ obro ellu êizatan da eztiaz ezik ez gibelminaz (5):* euli gehiago ehizatzen da eztiaz gibelminaz baino.

gibeltu *(5)* : atzeratu, gibelatu

gible *(1)* : atze, gibel */ torre giblea (1):* dorre atzea.

gidail *(5)* : gidail (abereen atzeko hankak) */ gidaila (5):* gidaila.

gidatu *(4)* : bideratu, zuzendu */ azken kartan erran naun gisa, gidatan daud zerxkobait gore uskaratik (4):* azken gutunean esan nion bezala, gure euskaratik zertxobait bideratzen diot. */ uste dud ez daitadala ukaten mezu gidatia (4):* uste dut ez didala ukatuko mezua bideratzea.

gietz *(5)* : higatu (adj.) */ txotxika-matsareki anitxek beltxagia soiñeko gietzentako egitan dei (5):* intsusa-fruituarekin askok tindu beltza egiten dute arropa higatuentzat.

giltz 1 *(3, 5, 8, 9)* : giltza */ zuri emonen daizud giltzak (3):* zuri emango dizkizut giltzak. */ arri errebusatu zeina fabrikazaliek, kori bera [izan] zen anguluaren giltza (3):* fabrikatzaileek errefusatu zuten harria, hori bera izan zen angeluaren giltza. */ maiatza, urtearen giltza (5):* maiatza, urtearen giltza. */ giltzak eskuan (5):* giltzak eskuan.

giltz 2 *(5)* : *(anat.)* giltzadura, artikulazio */ besainku-giltz[a] (5):* ukondo(ko) giltzadura. */ soin-giltz[a] (5):* sorbalda(ko) giltzadura.

giltzatu 1 *(5)* : giltzatu

giltzatu 2 *(5)* : *(erai.)* giltzatu (giltzarria jarri arkuan)

giltzurrin *(2, 4)* : *(anat.)* giltzurrun
gilzmii *(5)* : morroilo-mihi
-gille *(5)* : -gile */ egurgille, sokagille (5):* egurgile, sokagile.
gimurzi *(5)* : ifrentzu, atzealde (oihalena) */ begitartea ta gimurzia (5):* aurkia eta ifrentzua, aurrealdea eta atzealdea. */ gimurziara [ezarri] (5):* ifrentzuz jarri.
gimurziara *(5)* : iruntzitara, barrukoz kanpora
-gin *(3, 4, 5)* : -gin, -gile */ zurgin (3, 4):* zurgin. */ umagin (5):* umegile.
ginarako *(3)* : gainerako */ berze ginarakuek arrapatu ztein mitilak eta il ztein (3):* beste gainerakoek harrapatu zituzten morroiak eta hil egin zituzten.
ginbarna *(7, 8, 9)* : goitik behera */ adinak ginbarna (8):* adinak goitik behera (eramaten gaitu).
gineran *(10)* : gainerakoan */ baia beste gineran ze? (10):* baina beste gainerakoan zer?
gingila *(5)* : *(med.)* eskrofula, umorotz
-gintza *(5)* : -gintza */ teillagintza (5):* teilagintza.
Gipuzkua *(8)* : *(geog.)* Gipuzkoa */ ez, Gipuzkuan [enuzu izan] (8):* ez, Gipuzkoan ez naiz izan.
girgilleta *(5)* : zirrindola, zirgilo, uztai
girgillete *(5)* : zirrindola, zirgilo, uztai
girmurziara *(5)* : iruntzitara, barrukoz kanpora
girmuzi *(5)* : iruntzi, ifrentzu, atzealde
gisa 1 *(2, 3, 4, 5, 10)* : modu, gisa */ gisa kortan laur persona dugu Trintate saintian (2):* modu horretan lau pertsona ditugu Hirutasun santuan. */ zonbat gisaz biar dugu ikasi zeñetan? bidez (2):* zenbat modutan ikasi behar dugu zeinatzen? bitan. */ Kristoren sortiua izan zen gisa kontan (3):* Kristoren sorrera modu honetan izan zen. */ zernaiden gisatako min eta gatxak [sontotako] (3):* edozer gisatako min eta gaitzak sendatzeko. */ kalako gisatan (3):* halako moduan. */ zonbati gisatra egitan damu projimuari (3):* zenbait modutan kalte egiten lagun hurkoari. */ badia berze gisatazko graziarik, kontarik landa? (3):* ba al da beste gisatako graziarik, honetaz gain? */ gisa berian (4):* modu berean. */ ez dokei ikas ñolako gisan (4):* ez dezakete inolako modutan ikasi. */ plaztara [fan naz] iror gisatako sagar saltra (4):* plazara joan naiz, hiru modutako sagarrak saltzera. */ zomat buru kainbat gisa (5):* zenbat buru hainbat modu. */ kukuak kantatan dion gisan (5):* kukuak kantatzen duen gisan. */ txarra mendioillarraren gisako txoria da, baia ñoago (5):* eskilasoa argioilarraren gisako txoria da, baina txikiagoa. */ urte anitx diela xa ezela dantzatan gisa kartan (10):* duela urte anitz jada ez zela dantzatzen modu hartan.
gisa 2 *(3, 4, 5, 7, 10)* : bezala */ [on] izatian, dena gisa (3):* ona izatean, den bezala. */ ortzei eta izar zazei urdu zaizein gisa (3):* zoazte eta jar ezazue iruditzen zaizuen bezala. */ aren begitartiak argitan zion iñazturak gisa (3):* haren aurpegiak tximistak bezala argitzen zuen. */ zeren Jesukristo ez baizen sortu berze gizonen gisa (3):* zeren Jesukristo ez baitzen jaio bertze gizonak bezala. */ iragoak egiten ztien, karrikan egon balidra gisa (4):* oihuak egiten zituzten, kalean egon balira bezala. */ azken kartan erran naun gisa, gidatan daud zerxkobait gore uskaratik, berorren gobernioarentako (4):* azken gutunean esan nion bezala, gure euskaratik zertxobait bideratzen diot, berorren gobernurako. */ apezaren zopen gisa goxo izaiteko (5):* apaizaren zopak bezala goxoa izateko. */ egun gisa (5):* gaur bezala. */ sugarrestan, sugea gisa, bizi da gizon kori (5):* arrastaka, sugea bezala, bizi da gizon hori. */ txakur eta gatua (gatia) gisa [dauden] (7):* txakurra eta katua bezala zauden. */ Pedro ilen dun gizon guzuen gisa (7):* Pedro gizon guztiak bezala hilko da. */ keben erraitan degun gisa (10):* hemen esaten dugun bezala. */ orai nagon gisa bai (10):* orain nagoen bezala bai. */ gentia ez [da] xoaitan lein gisa (10):*

jendea ez da joaten lehen bezala.

gisa 3 *(5)* : bezalako */ bagoaren gisa da atze kau, baia ñoago ta me (5):* pagoa bezalakoa da zuhaitz hau, baina txikiagoa eta mehea. */ uturrietan ebiltan dan sugeño bikalako bat, aria gisa, ez lodiago (5):* iturrietan ibiltzen den sugetxo bezalako bat, haria bezalakoa, ez lodiagoa.

gisatu *(10)* : gisatu */ amak gisatu dien beren baskaria (10):* amak gisatu din beren bazkaria.

gita 1 *(2)* : *(heg.)* ahate

gita 2 *(5)* : makila, zarta

gitarra *(5)* : *(mus.)* gitarra */ gitarrez erraiten digu bordaltako goreki (5):* gitarrez erraten dugu gurekin ezkontzeko.

gixon *(5)* : gixon (txikigarria) */ kaskuts erraiten digu gixon buru arinxka bati (5):* txoriburu esaten dugu gixon buruarin bat.

gizagente 1 *(5)* : gizateria

gizagente 2 *(5)* : gizatasun

gizaki *(2, 3, 4, 5)* : gizaki, gizaseme */ baia nori konparaten dur nik gizaki kasta kaur? (3):* baina norekin alderatuko dut nik gizaki kasta hau? */ kemen emaztekia orobat trabajatan da nola gizakia, mendi lanetan (4):* hemen emakumeak orobat gizasemeak bezala lan egiten du, mendi lanetan. OH. Azkuek ´pertsona´ esanahiarekin ere dokumentatua.

gizakigende *(5)* : gizateria

gizakin *(5)* : senarzale OH. Azkuek ´senarra ongi zaintzen duen emakumea´ esanahiarekin dokumentatua.

gizakume 1 *(5)* : gizaseme, gizakume

gizakume 2 *(5)* : mutiko

gizakunde *(5)* : *(erl.)* gizakunde (eguna)

gizalan *(5)* : gizalan, gizon-lan (lan zakarra)

gizatarzun *(5)* : gizateria

gizatzar 1 *(5)* : gizontzar, gizakote

gizatzar 2 *(5)* : gizatxar, zital

gizen 1 *(3, 7, 8, 9, 10)* : gizen */ ene aitatamak gizen [dra] (7):* nire aita-amak gizenak dira. */ ´piltzo´ odolon gizen bat [dun], gizenena (8):* ´piltzo´ odolki gizen bat dun, gizenena. */ ez niozu gizen (9):* ez nago gizen. */ bi aur gizen (10):* bi haur gizen. */ anix gizen [sortu dun] (10):* oso gizen jaio dun. */ nik gizenagu izaguntan dur orai ori (10):* nik gizenago ezagutzen dut orain berori.

gizen 2 *(8)* : gizen (haragi mamitsua)

gizen 3 *(5)* : gizen (lurra eta)

gizenki *(4)* : gizenki */ non tu tripako, burarreko eta soingaineko gizenkiak? (4):* non ditu tripako, bularreko eta sorbaldetako gizenkiak? */ lepoko gorbatak berark eratsukitan du nola dakan utsik gizenkiaren lekiua (4):* lepoko gorbatak berak erakusten du nola daukan hutsik gizenkiaren lekua.

gizentu *(3, 4, 7)* : gizendu */ ilarazi dutur ene xâlak eta berze animale gizentiuak (3):* hilarazi ditut nire txahalak eta beste animalia gizenduak. */ txirikotaz gizentan tei txerriak (4):* gazuraz txerriak gizentzen dituzte. */ txerrietaz gizenten gra, orobat nola urak gizentu baidra gutaz (4):* txerriez gizenduko gara, orobat, haiek gutaz gizendu diren bezala. */ [anitx] xatan balinbadun, gizenten yaz (7):* anitz jaten baldin badun, gizenduko haiz. OH. Estornesek ´gizendu´ ere dokumentatua.

gizon 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11)* : gizon */ [juangeikoak] zertako kreatu ztien gizona eta aingriak? (2):* jaungoikoak zertarako sortu zituen gizona eta aingeruak? */ zer erran nai du ´kristiaia[k]´? Kristoren gizona (2):* zer esan nahi du ´kristauak´? Kristoren gizona. */ berzen gizonak desea eztezagula (2):* besteen gizonak ez ditzagula desiratu. */ gizonen semiak (2):* gizonen semeak. */ ez solo ogiz bizi da gizona (3):* gizona ez da ogiz soilik bizi. */ egin zazei xek gizonekin [nai] tzein guziua (3):* egin ezazue zuek gizonekin nahi duzuen guztia. */ iriko gizon guziuetarik eztud baizik laur zarrago (4):* herriko gizon guztietatik lau baizik ez dut zaharrago. */ gizonek atxiki ekun dei (4):* gizonek jo izan dute. */ gizon ttipi arrabots andi (5):* gizon txiki harrabots handi. */ guarpen ona du gizon korrek (5):* oroimen ona du gizon horrek. */ gizona eltan da ekutra bi emazte (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da. */ gizona bizirik [dago] (6):* gizona bizirik dago. */ gizoner (6):* gizonei. */ laur gizon eltu dra (7):* lau gizon heldu dira. */ xin dren gizonak (7):* etorri diren gizonak. */ gizonek ez diegu ekun deus ere (7):* gizonok ez dugu eduki ezer ere. */ gizon bateki [xatxi nuk] (8):* gizon batekin jaitsi nauk. */ bai, gizonak ere bai (8):* bai, gizonak ere bai. */ kaur ekusi dein gizonek (9):* gizonek hau ikusi diten. */ emazte batek erran zion gizon bati (10):* emakume batek esan zion gizon bati. */ bizia triste ta gizonak anitx kontent (10):* bizia triste eta gizonak oso pozik.

gizon 2 *(10)* : senar */ [ene] gizona (10):* nire senarra.

gizon zar *(2)* : agure

gizon-atorra *(5)* : gizon-alkandora

gizon-emazte(ak) *(7)* : gizon-emakume(ak) */ uskaraz ele erraitan dein gizon-emazte guzuer (7):* euskaraz hitz egiten duten gizon-emakume guztiei.

gizonezko *(3)* : gizonezko */ xan zeinen doitarzuna izan zen gizonezko borz milla (3):* jan zutenen kopurua bost mila gizonezko izan zen.

gizongei *(5)* : gizongai OH. Azkuek ´etorkizun handiko mutil gaztea´ oharrarekin dokumentatua.

gizongente 1 *(5)* : gizon-jende (gizon taldea, gizonak)

gizongente 2 *(5)* : gizatasun

gizongin *(5)* : gizonzale

gizongisa 1 *(5)* : gizon gisa

gizongisa 2 *(5)* : zintzoki

gizonkari *(5)* : gizonzale

gizonkende *(5)* : gizateria

gizonkeria *(5)* : gizonkeria (mutil gazteak egina)

gizonkoi *(5)* : gizonzale

gizonlege *(5)* : gizalege

gizonlegetan *(5)* : gizalegez */ gizonlegetan erraitan diar (5):* gizalegez esaten diat.

gizontarzun *(3)* : gizontasun

gizonxko *(5)* : gizontxo

glarima *(4)* : malko */ nexarrez, glarimazko balle kontan (4):* negarrez, malko haran honetan. OH. Garesen ere dokumentatua.

glibe *(1)* : atze, gibel */ Arain glibea (1):* Arain atzea.

goaitari *(5)* : zelatari

goaitatu *(5)* : zelatatu

goaitazale *(5)* : zelatari

goaitiatu *(5)* : zelatatu

goar *(7)* : ohar

goarpen *(5)* : pentsamendu

goartu 1 *(5)* : pentsatu */ goartan (5):* pentsatzen.

goartu 2 *(5, 7)* : oroitu, gogoratu

goazen! *(5, 7)* : goazen! */ goazen kementik! (5):* goazen hemendik! */ goazen gu ere, biotzez berere, arpe kartara (5):* goazen gu ere, bihotzez bederen, harpe hartara. */ goazen treinaren artra (7):* goazen trena hartzera.

gobernatu *(2, 3)* : gobernatu */ gaiza guziak kreatu ztien bikala gobernatan tiela (2):* gauza guztiak sortu zituen bezala gobernatzen dituela. */ nontik erkin biar baitu kaudillo gobernatu biar diona[k] (3):* nondik gobernatu behar duen buruzagiak irten behar baitu.

gobernazale *(3)* : gobernatzaile */ ene kausaz izanen zrei eramanik gobernazalien antziniara (3):* ene zioz eramanak izanen zarete gobernatzaileen aitzinera. */ [Jesus lotruk eraman zabein] gobernazaliari (3):* Jesus lotuta eraman zioten gobernatzaileari.

gobernu 1 *(3, 4)* : gobernu (ekintza) */ bere gain [eitzen dau] bere azienda guziuaren goberniua (3):* haren gain utziko du bere azienda guztiaren gobernua. */ seme ez deinek obedezitan aita eta amari etsearen gobernuko (3):* etxearen gobernurako aitari eta amari obeditzen ez dieten semeak. */ oraidanik erraiten daud berorren goberniuarentako, karreterarik ezta eltan kona (4):* oraindanik erraten diot berorren gobernurako, errepiderik ez da heltzen hona. */ etseko goberniuarentako (4):* etxeko gobernurako. */ berorren gobernioarentako (4):* berorren gobernurako.

gobernu 2 *(4)* : gobernu (erakundea) */ gobernuko bati [lerrak saltako] (4):* gobernuko bati pinuak saltzeko. */ erran duan gobernuko korrek lerdoi bat [erosirik zakan] (4):* esan dudan gobernuko horrek pinudi bat erosita zeukan.

godale *(5)* : *(suk.)* ardo-salda

godalet *(7)* : edontzi */ godaletak (7):* edontziak.

goen *(5)* : goien

goen-barren *(5)* : gora eta behera, goien-barren */ goen-barren zabillelarik, [abre] kori turrunbero kortan larrutu [zen] (5):* gora eta behera zebilela, abere hori amildegi horretan larrutu zen.

gogaltsu *(5)* : gogotsu (borondate handikoa)

gogatu *(5)* : gogatu, limurtu OH. Zuberoan ere dokumentatua.

gogo 1 *(3, 4, 7)* : gogo (nahia) */ eztud gogorik kareki bordaltako (4):* ez dut gogorik harekin ezkontzeko.

gogo 2 *(5)* : gogo (oroimena) */ guneko gogoan nakan aitaderraren izengatxa (5):* ordurako gogoan neukan aitabitxiaren izengoitia.

gogo 3 *(5, 7)* : gogo (espiritua; umorea) */ gogo argia (5):* gogo argia, umore alaia. */ gogoa beila du (5):* gogoa ahula du.

gogo ekun *(3, 4)* : gogoa eduki */ etzazei gogo ekun anitx xardokitako (3):* ez ezazue asko hitz egiteko gogorik izan. */ eztud gogorik kareki bordaltako (4):* ez dut gogorik harekin ezkontzeko.

gogo onez *(7)* : gogo onez */ libro kau [eskeintan dabeid] gogo onez (7):* liburu hau eskaintzen diet gogo onez.

gogoa azkatu *(5)* : hunkitu, bihotza hautsi */ alarguntsa kura nexarrez zagolarik, niri ere gogoa azkatu zitan (5):* alargun hura negarrez zegoela, ni ere hunkitu nintzen.

gogoan eroki *(4, 5)* : gogoan eduki */ xeiak igar ditzan kain alegre nola nik gogoan baidazkad*

(4): jaiak igaro ditzan nik gogoan ditudan bezain alai. */ guneko gogoan nakan aitaderraren izengatxa (5):* ordurako gogoan neukan aitabitxiaren izengoitia.

gogor *(3, 5, 7, 9, 10)* : gogor */ xinestako gogor (3):* sinesteko gogorra. */ kondizione gogortako gizon bat [zra] (3):* izaera gogorreko gizon bat zara. */ eska adi dion gogorrari eta ez eztion biotz-onari (5):* eska iezaiok duen gogorrari eta ez ez duen bihotz onekoari. */ ogi gogorrari ortzak zorrotz (5):* ogi gogorrari hortzak zorrotz. */ ezurrak tun gogor (7):* hezurrak gogorrak dira. */ gogorra (9):* gogorra.

gogor egon *(5)* : gogor egon, irmoa izan */ gogor egon zte (5):* egon zaitezte gogor, izan zaitezte irmoak.

gogordura *(5)* : gogordura (gorputz atalena)

gogortarzun *(3)* : gogortasun */ xen biotzaren gogortarzuna (3):* zuen bihotzaren gogortasuna.

gogortu *(3, 7)* : gogortu */ zeren gogortu baitu iri konek bere biotza (3):* zeren gogortu baitu herri honek bere bihotza.

gogotan artu *(5)* : gogo handiz hartu

gogotik *(4, 7)* : gogotik, gustura */ a zer gogotik! (4):* a zer gogotik!, bai gustura! */ gogotik baraten nintzen (7):* gustura geratuko nintzen. */ bazkaltu zeia? bai, gogotik (7):* bazkaldu al duzu? bai, gustura.

gogoz *(5)* : buruz

goi *(1)* : goi, goiti */ goiko lezea (1lm):* goiko leizea.

goiarka *(5)* : gainazpika (borrokatzea)

goiartu *(5)* : garaitu, gailendu

goibeltu *(5)* : goibeldu, hodeitu (zerua) OH. Azkuek ´goibeldu´ ere dokumentatua.

goien *(1, 3, 5)* : goien */ landa goiena (1):* soro goiena. */ [diabiuak Jesus] isari zitzaun tenploaren goienian (3):* deabruak Jesus tenpluaren goienean jarri zuen.

goienbarren *(5)* : aldapa behera

goiko 1 *(5)* : goiko

goiko 2 *(2, 3, 4, 5, 7, 8)* : *(astr.)* ilargi */ goikoa [eta] iguzkia (2):* ilargia eta eguzkia. */ iguzkia ulunten da, goikuak ez du argiten (3):* eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argituko. */ eztago goikorik ez izarrik zeurian (4):* ez dago ilargirik ez izarrik zeruan. */ gaia goikorik bage [dago] (4):* gaua izarrik gabe dago. */ zerengatik goikua ulunten baizen (4):* zeren eta ilargia ilunduko baitzen. */ urteberriko goikoa dun guziuetarik argiena (5):* urteberriko ilargia dun guztietan argiena. */ goikoaren llarniak agortan tu urtsiuak (5):* ilargiaren ziskuak agortzen ditu iturburu txikiak. */ goikoa lurriaren amaño [dago] (7):* ilargia lurretik hurbil dago. */ goiko berria (8):* ilberria. */ goikua anditu dun (8):* ilargia handitu dun. */ goikua beterik (8):* ilargia beterik, ilbetea.

goiko 3 *(5)* : *(tek.)* kalapatxa, tobera

goikoargi *(2)* : ilargi-argi

goikoberri *(5, 8)* : *(astr.)* ilberri */ goiko berria (8):* ilberria.

goikozar *(5)* : *(astr.)* ilbete, ilargi bete

goillaran *(5)* : *(bot.)* hesilahar

goillaranezpel *(5)* : hesilahar-erratz OH. Hesilahar landareaz egindako erratza.

goiñibi *(5, 11)* : *(erai.)* etxabe; sotoko gela (tresnak, aleak, jakiak gordetzekoa) OH. Aznarezek ´goñibi´ forman dokumentatua. Zaraitzun ere dokumentatua. Ikus ´goiñube´ sarrera.

goiñube *(11)* : eskailerape OH. Eskailerapeko gelaxka, nahiz etxabea (etxearen beheko aldea)

izan daiteke. Aznarezek ´goñebi, goñibe, goñibi´ aldaerak dokumentatu zituen. Zaraitzun ere dokumentatua.

goiti 1 *(1)* : goi, goiti */ baratzeta goitia (1):* baratzeta goitia.

goiti 2 *(5)* : goian */ Ameriketara xoan aitzinean goiti zeuria ta apal lurra nitien, geroztik duntu naiz (5):* Ameriketara joan aurretik goian zerua eta behean lurra nituen, geroztik (ondasunez) jabetu naiz.

goiti 3 *(5)* : hondar (janari hondarrak)

goitikatu *(5)* : botaka egin, goitika egin */ goitikatu naz (5):* botaka egin dut, goitika egin dut.

goitikin *(5)* : hondar

goitiko *(5)* : okada, goitika

goitikoin *(5)* : okada, goitika OH. Iparraldean ere dokumentatua.

goititu *(5)* : goratu, goititu

goitu *(2, 5, 7)* : garaitu, gailendu */ krutxeak badia birtuterik? bai jeina, Kristok goituz gerozaz (2):* gurutzeak ba al du bertuterik? bai jauna, Kristok garaituz geroztik. */ nola goitan da mundia? (2):* nola garaitzen da mundua? */ mundu kontako etsaiak goitruk (2):* mundu honetako etsaiak garaiturik. */ tentazione gasto guzien goitako indar emon dazagun (2):* tentazio txar guztiak garaitzeko indar eman diezagun. */ logaleak goitu [nu] (5):* logurak garaitu nau.

goix 1 *(2, 6, 9, 10)* : goiz (iz.) */ goixko laurak (6):* goizeko laurak. */ goix luze bat (9):* goiz luze bat. */ goix t´egunian (10):* goizean eta egunean (?). */ goixan berton (10):* goizean goiz.

goix 2 *(5)* : goiz (adb.) */ ez dago sekretorik goix edo berant xakiten ez denik (5):* ez dago sekreturik goiz edo berandu jakiten ez denik.

goixko *(5)* : goiztxo

goixtar 1 *(5)* : goiztiar (adj.) */ orobat goixtarrari nola berantari, emak zazoin ona aziari (5):* berdin goiztiarrari edo berantiarrari, emaiok sasoi ona haziari.

goixtar 2 *(5, 10)* : goiz, goiztiar (adb.) */ erin nazaian berant nola erin nazaian goixtar, ez nuk [e]kusi bear (5):* hik ni berandu erein nola goiz erein, ez nauk ikusi behar. */ gizon kori azkatu dun anix goixtar (10):* gizon hori oso goiztiar jaiki da. */ bera xoaitan dun oyara anix goixtar (10):* bera oso goiztar doa ohera.

goiz *(5, 10)* : goiz (iz.) */ goiz odei-gorri, arrats itur-begi (5):* goiz hodei-gorri, arrats itur-begi. */ San Juan egunian gentia goizan berton egutxara [xoaitan zen] eta zankoak ekuz (10):* San Juan egunean jendea goizean berehala ibaira joaten zen eta hankak garbitzen (zituen).

goizibi *(5)* : *(erai.)* goi-habe

goizien *(5)* : goizean goiz OH. Azkuek ´egunsenti ondoan, goizaren lehen erdia´ oharrekin dokumentatua.

goizik *(5)* : goiz, goizik

goizoro *(5)* : goizero */ martxoan airea gorri, goizoro elur berri (5):* martxoan airea gorri, goizero elur berri.

goiztar *(5, 7, 9)* : goiztiar */ goiztar zabiltza (7):* goiztiar zabiltza. */ goiztar [xuan tzu] (9):* goiztiar joan dira.

goiztar neskato *(5)* : irtirin (emakumea)

goizteri 1 *(5)* : egunsenti, goiztiri

goizteri 2 *(5)* : goiz, egunsenti ondo */ goizteria igari dun deus egin bage (5):* goiza igaro dun ezer egin gabe.

goizteri apal *(5)* : egunsenti ondo (goizeko 6etatik 9etara) */ goizteri apala (5):* egunsenti ondoa.

golare *(10)* : koilara */ [mendian artzaiek egitan zezein] golaria (10):* mendian artzainek koilara egiten zuten (ezpelez).

goldabearri *(5)* : *(nek.)* golde-belarri OH. Goldeak ezker-eskuin erantsita dauzkan zurezko bi piezak dira ´goldabearriak´.

goldabuztan *(5)* : *(nek.)* golde-buztan

goldanabar *(8)* : *(nek.)* nabar, golde-mutur

goldarapo *(5)* : *(nek.)* golde-gider

goldarrain *(5, 11)* : *(bot.)* goldarrain (kardu mota)

golde *(5, 11)* : *(nek.)* golde

golde-buztan *(5)* : *(nek.)* golde-buztan

goldenabar *(5)* : *(nek.)* golde

golgo *(2, 5, 9)* : *(anat.)* kolko

golpe *(3, 5)* : kolpe */ burarretan golpe emoiteaz (3):* bularretan kolpeak emateaz. */ betik golpearen pean (5):* beti kolpearen pean.

golpezkatu *(3)* : kolpatu, jo */ golpezkatan diona (3):* (laguna) kolpatzen duena.

gollaran *(2)* : *(bot.)* oilaran

gollare *(5, 7, 9, 10)* : koilara */ gollarea (7):* koilara. */ bi gollare, xatako (9):* bi koilara, jateko. */ platerak, gollareak, ogia eta xakoa (9):* platerak, koilarak, ogia eta zahatoa. */ gollaria (9):* koilara. */ bidan gollare bat (10):* emadan koilara bat. */ artzaiek egitan zezein gero labore gollariari (10):* artzainek egiten zioten gero (irudi) lanketa koilarari.

golli *(5)* : gorrimin, gorri bizi

gomen *(4, 5)* : aginte, aginpide */ noren gomenean dago zore semea iri kartan? (4):* noren agintepean dago zure semea herri hartan?

gomendiu *(4)* : gomendio */ nekextruk Ponzio Pilatosen gomendiuaren pean (4):* zigorturik Pontzio Pilatosen gomendioaren pean.

gonka *(5, 10)* : anega erdi (ale neurria) */ guk, eltzia egitan gunienak, bueltatan gunia gonkak, garia! (10):* guk, eultzia egiten genuenak, garia iraultzen genuen anegak (eta anegak)!

gonkatxiki *(9)* : anega erdi (ale neurria) */ gonkatxiki korrek eztiozu itxikitan garia (9):* anega erdi horretan ez da garia kabitzen.

gonkerdi *(5)* : anega laurden (ale neurria)

gor-gor *(11)* : bor-bor (irakitearen onomatopeia)

gora 1 *(4, 5, 7, 9, 10)* : gora */ balle guzuko lerrak [saltako] kalako lodigiuatik gora (4):* ibar osoko lerrak saltzeko halako lodieratik gora. */ iñurria igan zen gora (4):* inurria gora igo zen. */ kurri bera, kurri gora (5):* kurrilo behera, kurrilo gora. */ pikarraz gora aintzak faten zazka (5):* haitzartean gora ahuntzak joaten zaizkio. */ gora ta apal (5):* gora eta behera. */ gora naiz apal, yoa inguruz (5):* gora nahiz behera, hoa inguruka. */ petik gora (7):* petik gora. */ igan adi gora (9):* igo hadi gora. */ udan xoaitan tun eguatxa korrez gora (10):* udan ibai horretan gora joaten ditun. */ lenao xoaitan zia karrika gora kortik (10):* lehenago kalean gora joaten zen hortik. */ gizon kori igan dun anix gora (10):* gizon hori oso gora igo dun. */ zubutik bueltatan d[u]zu prozesionea goradraino (10):* zubitik itzultzen da prozesioa goraino.

gora 2 *(3, 5, 10)* : altu, garai */ diabiuak [Jesus] mendi gora batra [igan zitzaun] (3):* deabruak Jesus mendi altu batera igo zuen. */ Jesusek berarekin Pedro eta Juan mendi gora batra [igaitian] (3):* Jesusek berarekin Pedro eta Juan mendi garai bat igotzean. */ txokorroa, kain zabal nola gora, bi xeren gorago du lore oria (5):* goldarraina, zabala bezain altua, bi arra

gorago du lore horia. */ zer gora [den] gizon kori! (9):* zer altua den gizon hori! OH. Iparraldean ere dokumentatua.

gora 3 *(4, 9, 10)* : goi; goian */ ele lista oiltu zaitadana gora erranik dakadan kartan (4):* goian erranik daukadan gutunean bidali zidan hitz zerrenda. */ gora dago (9):* goian dago. */ goraganik (sic) apaldreino (9):* goitik beheraino. */ gore jeinaren etsia kan gora dion (10):* gure jaunaren etxea han goian zagon.

gora isari *(4)* : bero jarri, arreske jarri (abere emeak) */ karta kontan oiltan daud nola erraiten zabein enbrer gora isartan drenian (4):* gutun honetan bidaltzen diot nola esaten zaien emeei arreske jartzen direnean.

gorabera *(5)* : gorabehera */ bapanak daki bere etsean zer gorabera dion (5):* bakoitzak daki bere etxean zer gorabehera duen.

gorago 1 *(3, 5)* : altuera */ hosanna zeurien goraguan (3):* hosanna zeruko altueran (zeru gorenean).

gorago 2 *(5)* : *(astr.)* ilgora */ argizagiaren goragoan ebakitan dra bago ta lerrak (5):* (ilargiaren) ilgoran pagoak eta lerrak mozten dira.

goragune *(5)* : altuera

goraintzi(ak) *(4)* : goraintzi(ak), eskumuin(ak) */ [emon] milla karga goraintzi (4):* eman goraintzi mordo bat.

goraintziak emon *(4)* : goraintziak eman */ emon bezkabei ene goraintziak nitaz aipatan dabein guziuer (4):* eman biezazkio nire goraintziak nitaz aipatzen duten guztiei. */ emon betza ene goraintziak Ligin egon zren irur apezer (4):* mean biezazkio ene goraintziak Ligin egon ziren hiru apaizei.

goraki 1 *(3)* : goraki, altuki

goraki 2 *(5)* : goitik

goralgo *(5)* : altuera

goratu *(2, 5, 7)* : goratu, altxatu */ zer da orazione egitia? jeinari biotxaren goratea (2):* zer da otoitz egitea? jaunari bihotza goratzea. */ nôri ere falso testimoniorik gora eztezagula (2):* inori ere ez diezaiogula lekukotza faltsurik altxatu. */ soiñak goratu (5):* sorbaldak altxatu (zerbait ez jakitean, ez edukitzean).

goratze *(5)* : goratze, altxatze

gorazkatu *(5)* : laudatu, goratu

gorbata *(4)* : gorbata */ lepoko gorbatak berark eratsukitan du nola dakan utsik gizenkiaren lekiua (4):* lepoko gorbatak berak erakusten du nola daukan hutsik gizenkiaren lekua.

gorde *(7)* : gorde */ otoi! otoi! zertako [kori]? gordetako (7):* mesedez! mesedez! zertarako hori? gordetzeko.

gordegu *(5)* : gordailu

gordin *(5)* : gordin (izaeraz) */ nai dioa [x]akin zoin naiagoren nion nik, gizon sobra zainil bat edo emazte sobra gordin bat? nik ez bat eta ez berze (5):* jakin nahi al du zein nahiago izango nuen nik, gizon geldoegi bat edo emakume gordinegi bat? nik ez bat eta ez beste.

gordiñ *(5)* : gordin

gore *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : gure */ gore arimaren salbazionearentako (2):* gure arimaren salbamenerako. */ esperanza goria (2):* itxaropen gurea. */ gore jeinaren ebanjelio saintiua (3):* gure jaunaren ebanjelio santua. */ gore balletik [xiten bada], Erronkariraino [dago karretera] (4):* gure ibarretik etortzen bada, Erronkariraino dago errepidea. */ aita goria zeuri[an] dagona*

(4): aita gurea zeruan dagoena. */ beinaz bein, xin bedi baratra gorian (4):* behintzat, etor bedi gurean (etxean) geratzera. */ goreara (5):* gure (etxe)ra. */ gore mertxez (6):* gure mesedez, gure alde. */ kau gore aitaren etxea da (7):* hau gure aitaren etxea da. */ gore apez Uztarrotzekua xin dun (7):* gure apaiz Uztarrozekoa etorri dun. */ gore uskara (8):* gure euskara. */ bi gizonek ikusi dezei gore eliza (9):* bi gizonek ikusi dute gure eliza. */ gore erregia (10):* gure erregea. */ eragi zan kona arraultze banak gore arixkidearentako (10):* ekar itzan hona arrautza batzuk gure adiskidearentzat.

gore jein *(10)* : *(erl.)* gure jaun, jaungoiko */ gore jeinaren etsia kan gora dion (10):* gure jaunaren etxea han goian zagon.

goregana *(2, 3, 9, 10)* : guregana */ xin daila goregana (2):* etor dadila guregana. */ utzul zazu goregana begi koriek (3):* itzul itzazu guregana begi horiek. */ goregana eltu [da] anix onki (10):* guregana oso ongi heldu da.

goreganik *(3, 9)* : guregandik */ aragia ez dokegu egotx goreganik (3):* haragia ez dezakegu guregandik bota.

goregatik *(3, 9)* : guregatik */ otoi egin zazu goregatik (3):* otoitz egin ezazu guregatik.

goreki *(3, 5, 9)* : gurekin */ Emanuel, zoinek bueltatruk nai du erran ´jangeikua goreki´ (3):* Emanuel, itzulirik ´jaungoikoa gurekin´ esan nahi duena. */ gitarrez erraiten digu bordaltako goreki (5):* gitarrez erraten dugu gurekin ezkontzeko.

gorekin *(3)* : gurekin */ igualatu dutuk gorekin (3):* gurekin berdindu dituk.

goren *(5)* : goren

gorena egin *(5)* : gorena egin, txarrena pasatu OH. Gaixoaldi bateko txarrena pasatu.

gorenaz (ere) *(5)* : gehienez (ere) OH. Iparraldean ere dokumentatua.

gorenean izana (izan) *(5)* : gorenean izana izan, maldan behera hasi */ gorenean izana duk (5):* gorenean izana duk (= maldan behera hasi duk, indarrean, ospean, zorian).

goresima *(2)* : *(erl.)* garizuma */ urtian bein goresima[n] konfesa gitiala, edo leinago biarrik balimadigu (2):* urtean behin garizuman aitor gaitezela, edo lehenago beharrik baldin badugu.

goretako *(5, 7, 8, 9)* : guretzat, guretako */ mai kau goretako egin dei (7):* mahai hau guretzat egin dute. */ kori ezta goretako (7):* hori ez da guretzat. */ guzia goretako (8):* guztia guretzat.

goretar *(5)* : guretar

gorexima *(3, 5)* : *(erl.)* garizuma */ ez xatako arraultze eta eznetarzun goreximan (3):* garizuman ez jateko arrautza eta esnekirik. */ goreximako bazkuetan (3):* garizumako pazkoetan.

gorexima-bazko *(5)* : *(erl.)* garizuma-pazko

gorezima *(5)* : *(erl.)* garizuma */ gorezimako ortzilaretan aragi xateatik bagetan naz (5):* garizumako ostiraletan haragia jatetik gabetzen naiz.

gori 1 *(9)* : gori */ burña gori bat (9):* burdina gori bat.

gori 2 *(4)* : irakitear (ura)

gori 3 *(4)* : iel (behorra edo astemea arreske)

gori 4 *(7)* : guri */ nori? gori ez, zuer (zier) bai (7):* nori? guri ez, zuei bai.

gorietarik *(10)* : horietatik; horietakoak */ ez, ekusi, gaiza gorietarik ene tenpran ez (10):* ez, ikusi, gauza horietatik nire garaian ez. OH. Zaraitzun ere dokumentatu dira zenbait erakusle g-dun.

gorixka *(4)* : epel bero

gorko *(5)* : abere-aterpe */ kara kan ardi saldo bat gorkoan (5):* hara han artalde bat (abereen) aterpean. OH. Zuhaiztiko abereentzako aterpea, babeslekua.

gorku *(5)* : abere-aterpe OH. Ikus ´gorko´ sarrera.
gorku egin *(5)* : aterpetu */ gorku egin dei egun g[o]re aziendak (5):* aterpetu egin dira gaur gure aziendak.
gorkuagi *(5)* : aterpe
goroldi *(5)* : *(bot.)* goroldio
gorosti *(1, 11)* : *(bot.)* gorosti */ gorostia (1lm):* gorostia, gorosti lekua.
goroxima *(5)* : *(erl.)* garizuma
gorputzaldi *(5)* : gorputzaldi
gorra *(5)* : *(med.)* karkaxa
gorri 1 *(1, 4, 5, 7, 9, 10, 11)* : gorri */ alor gorria, leza gorria (1):* alor gorria, leize gorria. */ arrigorrieta (1):* haitz gorri eta. */ Karlomagno ezkapatan da bere kapa gorriareki (4):* Karlomagnok ihes egiten du bere kapa gorriarekin. */ arrats odoi-gorri, biramenean eguzku gorri (5):* arrats hodei-gorri, biharamunean eguzki gorri. */ begi gorriak (5):* begi gorriak. */ odola gorri da (7):* odola gorria da. */ etxe gorriak ekusi dutur (7):* etxe gorriak ikusi ditut. */ ez diagun ez ogi xurik ez ardau gorrik (7):* ez dinagu ez ogi zuririk ez ardo gorririk. */ oski gorriak (9):* zapata gorriak. */ kotak azkatan gunia, kaur bigunia gorriz (10):* gonak altxatzen genituen, hau baikenuen gorriz. */ leze gorria (11):* leize gorria.
gorri 2 *(5)* : gorri, fin */ martxoan airea gorri, goizoro elur berri (5):* martxoan airea gorri, goizero elur berri.
gorri 3 *(5)* : gorri, latz */ ankar gorri[a] (5):* ahakar gorria, liskar latza. */ barur gorri[a] (5):* barau gorria, latza. */ bear gorri[a] (5):* behar gorria. */ eguzki gorri[a] (5):* eguzki latza. */ gose gorria (5):* gose gorria, latza.
gorrigo *(5)* : gorritasun (?)
gorringo *(4, 5, 9)* : gorringo */ azukarreki edo arraultze gorringoareki onki batitruk (4):* azukrearekin edo arrautza gorringoarekin ongi irabiaturik. */ arraultzeak gorringoa, zuringoa ta mintza dauzki (5):* arrautzak gorringoa, zuringoa eta mintza dauzka.
gorrinko *(5)* : gorringo
gorrintxa *(10)* : *(zoo.)* behi gorri */ gorrintxa (11):* behi gorria.
gorrintze 1 *(5)* : gorrimin, gorri bizi
gorrintze 2 *(5)* : *(med.)* sukar
gorriña *(5)* : gorrina (landareena)
gorriñatu *(5)* : gorrindu (landareak)
gorriska *(5)* : gorrixka
gorritu *(7)* : gorritu
gorrixka *(7, 9)* : gorrixka
gorrizkatu *(5)* : gorriztatu
gorronera *(5)* : erro, gontz (ate eta leihoena)
gorte *(5)* : *(nek.)* ukuilu, korta
Gorza *(4)* : *(geog.)* Gorza */ Zaitzutik [xiten bada], Gorzaraino [dago] (4):* Zaraitzutik etortzen bada, (errepidea) Gorzaraino dago.
gosailo *(5)* : tripontzi, jatun
gosailu *(5)* : tripontzi, jatun
gose *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : gose */ egia da agiten drela gose eta lur-ikareria anitx lekutan (3):* egia da gosete eta lurrikarak gertatuko direla leku askotan. */ gose [ekun nion] eta emon zinaiten*

xatra (3): gosea eduki nuen eta jaten eman zenidaten. */ gosia (3):* gosea. */ betik baratan nazala gose andi bateki (4):* beti geratzen naizela gose handi batekin. */ gose gorria (5):* gose gorria, latza. */ goseak ez du pensamentu onik (5):* goseak ez du pentsamendu onik. */ betik goseak eta bilainzruk (5):* beti goseak eta biluzik. */ gosearekі (gosiareki) anitx xatan da (7):* gosearekin anitz jaten da. */ gose [diar] (10):* goseak nago, gosea dut.

gose ekun *(3, 5, 10)* : gosea eduki */ berrogei egun berrogei gaiekin barurtuz geroz, [gose] ekun zion (3):* berrogei egunez berrogei gaurekin barautu ezkero, gosea eduki zuen. */ gose eta egarri deinak (3):* gosea eta egarria daukatenak. */ diszipuluak zeilarik gose, asi zren buruka biltan eta xaten (3):* ikasleak, gosea zeukatela, buruxkak biltzen hasi ziren eta jaten. */ gose dionari xatra emoitia (3):* gosea daukanari jaten ematea. */ gose dionean tripak erraiten dau txintxurriari (5):* gose duenean tripak erraten dio zintzurrari. */ ekun dien gose (10):* gosea eduki din.

gose izan *(2)* : gose izan */ gose denari xatra emoitia (2):* gose denari jaten ematea.

gose txirrinta *(5)* : gose txiki */ gose txirrinta (5):* gose txikia.

gosea il *(5)* : gosea kendu */ gosea ilxe dugu (5):* gosea kendu-edo egin dugu (= bazkaldu dugu). OH. Ikus Azkueren hiztegian ´bazkarizka´ sarrera, ´bazkaldu dugu´ baieztapena esamoldetan ikusteko.

goseak argillatu *(5)* : goseak hil, goseak amorratu */ ´gosea bera jaki´ kau erraiten da bat goseak argillatuk dagolarik (5):* ´gosea bera jaki´ hau esaten da bat goseak amorratzen dagoenean.

gosegarri 1 *(5)* : gose handi

gosegarri 2 *(5)* : tripontzi, jatun

gosez (egon) *(5, 7)* : gosez (egon) */ gosez nago (7):* gosez nago.

gosez il *(7)* : gosez hil */ ilen dun gosez (7):* gosez hilko dun.

gotor *(5)* : gotor OH. Gorputz oneko pertsona nahiz animalia.

gox *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : goiz (iz.) */ eltu baikoz goxa, iriko zarrek ekun zein konzeju Jesus ilaraztako (3):* goiza heldu bezain laster, herriko zaharrek batzarra izan zuten Jesus hilarazteko. */ biramen goxan ekun zion gose (3):* biharamun goizean gosea eduki zuen. */ goxetik tenpestade izanen da egun (3):* goizetik ekaitza izango da gaur. */ ar deitekia zerbait goxenetik? (3):* har (jan) al daiteke zerbait goizean? */ orazione ofrezitako goxenetik egunazko obra guziuak (3):* otoitza, eguneko ekintza guztiak goizetik eskaintzeko. */ bi goxez erori zen izotz bat kartxirietan (4):* bi goizez izotza egin zuen baratze ureztatuetan. */ barda otso nintzan, goxan egarri (5):* bart otso nintzen, goizean egarri. */ egun goxeko meza andian (5):* gaur goizeko meza handian. */ gu kebentik ebili gra goxan (7):* gu hemendik ibili gara goizean. */ askaria goxan (7):* askaria goizean. */ nobedaderik bage, iritzarri biamen goxan (8):* nobedaderik gabe iratzarri (zen) biharamun goizean. */ biramen goxan egitara aitareki ta amareki (9):* biharamun goizean igitara aitarekin eta amarekin. */ goxoro (9):* goizero. */ badion egun goxan [karroin] andiau ezik etxakin ze (10):* bazagon gaur goizean izotz handiagoa ez jakin zer baino.

goxanik *(10)* : goizetik, goizean goiz */ [gaiza] kuek egitan tiagun, suaren egoitako goxanik (10):* gauza hauek egiten ditinagu, goizetik sua egoteko.

goxo *(5, 9, 10, 11)* : goxo */ apezaren zopen gisa goxo izaiteko (5):* apaizaren zopen gisa goxoa izateko. */ marzuzak anitx goxo daudezu (9):* marrubiak oso goxoak daude. */ gaiza goxo [xatan degu] (10):* gauza goxoak jaten ditugu. */ goxua (11):* goxoa.

goxtar *(4)* : goiztiar */ nola maiatza fan baizen on, kosetxa xiten zaikugu goxtarxago (4):* nola maiatza ona joan zen, uzta goiztarxeago datorkigu.

goxtre *(5)* : egunsenti, goiztiri */ goxtre oroz mezara (5):* egunsentiro meza(ta)ra.

gozailu *(5)* : *(tek.)* gozatu, tenplatu (adj.) */ aizkora gozailua (5):* aizkora ongi gozatua.

gozatu *(2, 3)* : gozatu */ gero berze mundian ekus eta goza dezan (2):* gero beste munduan ikus eta goza dezan. */ [aingriak zeurian daude] jeinataz gozatan (2):* aingeruak zeruan daude jaunaz gozatzen. */ jein kartaz gozatian (2):* jaun hartaz gozatzean. */ zeren ek gozaten baitei lurra (3):* zeren haiek gozatuko baitute lurra.

gozogabe *(5)* : gozogabe, desatsegin (pertsona)

gozotu *(7)* : gozatu (azukrez eta)

grado *(7)* : gradu */ termometroa sei grado igan da (7):* termometroa sei gradu igo da. */ amabi gradoaraino xatxi da (7):* (termometroa) hamabi graduraino jaitsi da.

graian *(9)* : ondoren */ baskalgraian (9):* bazkaldu ondoren, bazkalondoan.

gramatto *(5)* : jakitoki; gelatxo */ lur-ileko gramatto ulunetan jansoa ta lukainkak itxikitan tugu, zumail egon tean (5):* lur-zoruko (?) jakitoki ilunetan urdaia eta lukainkak atxikitzen ditugu, fresko egon daitezen.

granbatto *(5)* : gelatxo; jakitoki OH. Ikus ´ganbaratxo´ sarrera eta bertako oharra.

granbatxo *(11)* : gelatxo (eskailerapekoa) OH. Ikus ´ganbaratxo´ sarrera eta bertako oharra.

grazia *(2, 4)* : grazia (dohaina) */ jangeikoak emon dazabeila osagarri eta grazia (4):* jaungoikoak eman diezaiela osasuna eta grazia. */ gore Jeinak nai diola igar tzagun Urte Zarra bere grazia saintiuan (4):* gure jaunak nahi duela urte zahar eguna igaro dezagun bere grazia santuan.

greda *(2)* : klera, klarion

gu *(2, 3, 7, 8, 9, 10)* : gu */ guk sinetsi eta egin biar tugun gaiza guziak (2):* guk sinetsi eta egin behar ditugun gauza guztiak. */ gutaz miserikordia ekun dezan (2):* gutaz errukia izan dezan. */ guri [emoitako] (3):* guri emateko. */ guk egosi diagun (9):* guk egosi dinagu. */ zuk nontik dakizu gu gindela kuek? (10):* zuk nondik dakizu gu ginela (argazkiko) hauek? */ guziek aizpari uskaraz, eta arek guri [ere bai] (10):* guztiek ahizpari euskaraz, eta hark guri ere bai.

guardatu *(4, 5)* : gorde */ Luis Luziano Bonapartedanik badud bi erretrato onki guardatruk (4):* Luis Luziano Bonapartegandik baditut bi argazki ongi gorderik. */ zartagia bear dei xakin guardatan (5):* zartagina gordetzen jakin behar dute.

guarpen *(5)* : oroimen */ guarpen ona du gizon korrek (5):* oroimen ona du gizon horrek. */ guarpenari ezau akabatan tenpra (5):* oroimenari ez zaio bukatzen denbora.

guart emon *(3)* : antzeman, igarri */ zuk limosna emoitan tziuanian, egin zazu zore ezkerreko eskiuak etzan guart emon zore eskoînak egiten diona (3):* zuk limosna ematen duzunean, egin ezazu zure ezkerreko eskuak ez diezaion antzeman zure eskuinak egiten duenari. */ etzu guart emoitan? (3):* ez diozu antzematen?

guartu 1 *(2, 3, 4, 5, 10)* : oroitu, gogoratu */ [altareko] kari miru egitan dugularik, zeurikoaz guar gitian (2):* aldareko hari begiratzen diogunean, zerukoaz oroit gaitezen. */ konekin guartu zen Pedro Jesusek erran zaun[az] (3):* honekin oroitu zen Pedro Jesusek esan zionaz. */ ezreia guartan borz ogi [errepartitruk] izan zrenetaz? (3):* ez al zarete oroitzen banatuak izan ziren bost ogiez? */ [zomait gaiza ontaz] guartan grelarik (3):* zenbait gauza onez oroitzen garenean. */ ura ekustian guart gitian zeurian dagonaz (3):* hura ikustean, zeruan dagoenaz oroit gaitezen. */ egun ketan guartu nintzen ortaz (4):* egun haietan berorretaz oroitu nintzen. */ borztan guartan naz ortaz (4):* bostetan oroitzen naiz berorretaz. */ erri konek nexar egitan du gutaz guartan denean (4):* lur honek negar egiten du gutaz oroitzen denean. */ guartan ez denak ekun zala zanko (5):* oroitzen ez denak eduki dezala hanka. */ guzietaz guartan nezu (10):* guztiaz oroitzen naiz.

guartu 2 *(2, 3)* : ohartu */ kan guartan bazra zore anaxak diola zomait kexu zore kontra (3):* han ohartzen bazara zure anaiak zenbait kexu duela zure aurka.

guazen! *(7, 8, 11)* : goazen! */ guazen kebentik, iriaren erditik (7):* goazen hemendik, herriaren erditik. */ guazen aingurieki, arkanxelieki (8):* goazen aingeruekin, arkanjeluekin.

gullurdi *(9)* : *(bot.)* basaran (elorri zuriarena) */ gullurdi xatra (9):* basaranak jatera.

-gune *(5)* : -gune

gune 1 *(1, 5)* : gune, leku */ erregunia (1):* errelekua, erregunea.

gune 2 *(4, 5)* : ordu */ gunian, gunetik (4):* orduan, ordutik.

gunean 1 *(5)* : orduan */ oillokunde-egunean, oilloa makila baten puntan lotruk, morroiner begiak estaltzen ziozkan maisuak; gunean, iru makilukaldi aldi bapanean emon ta iltan ziona maisuakin faitan zen oilloaren [x]atra (5):* oilakunde egunean, oiloa makila baten puntan loturik, mutilei begiak estaltzen zizkien maisuak; orduan, hiru makilakada aldi bakoitzean eman eta hiltzen zuena maisuarekin joaten zen oiloa jatera.

gunean 2 *(5)* : beraz

gunearen guneko *(5)* : betiko, betikoz

guneaz geroz *(5)* : orduz gero, harrezkero

guneko *(5)* : ordurako */ guneko gogoan nakan aitaderraren izengatxa (5):* ordurako gogoan neukan aitabitxiaren izengoitia.

gunetik konat *(4)* : ordutik hona */ ezta estrañu izanen zerbait liferenzia erden tzan gunetik konat ene uskaran (4):* ez da arraroa izango ezberdintasunik aurki dezan ordutik hona nire euskaran.

gunian *(3, 4, 7, 8, 10)* : orduan */ gunian ekusi zen kunplitruk antzinetik erran ziona Jeremiasek (3):* orduan beterik ikusi zen Jeremiasek aurretik erran zuena. */ gunian, tentazalia [abañatan zelarik], erran zaun (3):* orduan, tentatzailea hurbiltzen zela, erran zion. */ erkin zazu leinik [autzxkoa], eta gunian ekusen tzu (3):* atera ezazu lehenik ahoztxoa, eta orduan ikusiko duzu. */ semia xaseren da gunian (3):* semea eseriko da orduan. */ gunian edo ordiuan biar deia ilek resuzitatu? (3):* orduan berpiztu behar al dute hildakoek? */ bada gunian fan adi zarrarniara (4):* bada orduan joan hadi zaharrarenera (burura). */ gunian ni xoan nun amarengana (7):* orduan ni amarengana joan naun. */ xin bedi beztitra, eta gunian xagiren naz (8):* etor bedi (ni) janztera, eta orduan jaikiko naiz.

guniara bitartio *(3)* : ordura arte

guniaz geroz *(3, 5)* : orduz gero, harrezkero */ guniaz geroz Jesus predikatan [asi zen] (3):* orduz gero Jesus predikatzen hasi zen. */ [Judas] guniaz geroz erabiltan zen txerkatan okasione bat (3):* Judas harrezkero abagune bila ibiltzen zen.

gur-gur 1 *(9)* : makur-makur; uzkur-uzkur */ xas adi gur-gurra (9):* jar hadi makur-makur.

gur-gur 2 *(5)* : gur-gur (tripa hotsaren onomatopeia)

gur-gur 3 *(11)* : gur-gur (burbuilen onomatopeia) OH. Ikus ´gor-gor´ sarrera.

gure *(6)* : gure */ gure alte (6):* gure alde.

gurgale *(5)* : harro, burgoi

gurgullo *(11)* : burbuila (iturburuetakoa) OH. Orotariko Euskal Hiztegian ere dokumentatua.

gurka 1 *(5)* : agur, erreberentzia

gurka 2 *(5)* : zurrutada, zurrut OH. Azkuek ´zurrutada edo ahamena´ oharrarekin dokumentatua.

gurka-gurka *(5)* : zurrutadaka

gurkatu *(5)* : irentsi

gurriaran *(10, 11)* : *(bot.)* gurriaran */ gurriarana (10):* gurriarana. OH. Baratzeko aran mota.

gurrillon *(10, 11)* : *(bot.)* elorri zuri

gurrumus *(5, 9)* : ifrentzu, atzealde (oihalena) */ gurrumuseara beztitu zra (9):* ifrentzua kanpora (jarrita) jantzi zara.

gurrumux *(5)* : ifrentzu, atzealde (oihalena)

gurtu *(5, 8, 9)* : makurtu */ xaix bazinte bortareino, gur nintezu lurriareino (8):* jaitsiko bazina ateraino, makurtuko nintzateke lurreraino. */ gurtu nun (9):* makurtu naun. */ gur adi (9):* makur hadi.

guruan *(5)* : ondoren */ xan guruan, xin guruan (5):* jan ondoren, etorri ondoren.

gurume *(5)* : buru (landareena) */ azagurume[a] (5):* azaburua.

gustatu *(3, 5, 7, 10)* : gustatu, atsegin izan */ kainbat gustatu zitzaun (3):* hainbat gustatu zitzaion. */ irurak gustatan zaizkad, kau xa (5):* hirurak gustatzen zaizkit, batez ere hau. */ aber gustatu zaioinetz oraiguneko fiesta (10):* ea gustatu zaion duela gutxiko festa. */ oraikuak ez gustatan (10):* oraingoak ez (zaizkit) gustatzen.

gutti *(10)* : gutxi */ oai bei solo keben, ardirik txiki, gutti, gutti! (10):* orain beiak bakarrik hemen, ardi gutxi, gutxi, gutxi!.

guzi *(6, 10)* : guzti; dena */ guzia uskara giauren artian (10):* guztia euskara geure artean. */ zemait ele [erraitan guniezun], baia ez entelegatan guziak (10):* zenbait hitz erraten genien, baina ez (zituzten) ulertzen guztiak. */ guziek aizpari uskaraz (10):* guztiek ahizpari euskaraz.

guzu 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : guzti; dena */ izan daila mundu guzutik izaguntruk (2):* izan dadila mundu osotik ezaguna. */ ñauren lagun guzioak (2):* neure lagun guztiak. */ guzioaz, iburneaz [eta] zeuriaz (2):* guztiaz, infernuaz eta zeruaz. */ guk sinetsi eta egin biar tugun gaiza guziak (2):* guk sinetsi eta egin behar ditugun gauza guztiak. */ pensamentu gaxto guzietarik [libratzeko] (2):* pentsamendu txar guztietatik libratzeko. */ kasta guzutako arrantziuak (3):* kasta guztietako arrantzuak. */ Belenen eta unguru guziuan aur zauden guziuak [iltako] (3):* Belenen eta inguruan guztian zeuden haur guztiak hiltzeko. */ geroztik neabe guziua dago karriketarik (4):* geroztik gaztetxo guztiak kaleetan daude. */ al dionian oil dazaula nai dion guziua (4):* ahal duenean bidal diezaiola nahi duen guztia. */ al dokedan tenpra guziuaz (4):* ahal dudan denbora guztiaz. */ yiketzaz berze guziueki [mintzatan gra] (4):* hiketan beste guztiekin mintzatzen gara. */ emon bezkabei ene goraintziak guziuer (4):* eman biezazkio nire goraintziak guztiei. */ karta oiltu daudan guziuetan (4):* bidali dizkiodan gutun guztietan. */ guziuetarik [biltu digu] (4):* guztitik (denetik) bildu dugu. */ gaiza guziuak beren tenpran (5):* gauza guztiak beren denboran. */ izan adi guziuer onki eginzale (5):* izan hadi guztiei on egilea. */ urteberri zereki, urteko eguberri guzuak kareki (5):* urteberri zerekin, urteko egun berri guztiak harekin. */ guziuez komeni da xakin tzan ez dakienak (5):* ez dakienak guztiaz jakin dezan komeni da. */ otz eta aire eta guzietarik izatan [da] (5):* hotz eta haize eta guztietatik izaten da (otsailean). */ urteberriko goikoa dun guziuetarik argiena (5):* urteberriko ilargia dun guztietan argiena. */ artz, otso, idi, ardi eta aintz, guzuen iragoari erraiten digu´marraka´ (5):* hartz, otso, idi, ardi eta ahuntz, guztien oihuari esaten diogu ´marraka´. */ xutik, guzuak (guziak) xutik! (7):* zutik, guztiak zutik! */ guzuetako (guzietako) (7):* guztirako, denerako. */ guzuentako (guzientako) (7):* guztientzat. */ ene tenpran guziak uskaldun (8):* ene garaian guztiak euskaldunak (ziren). */ etxe guzietarik [juaiten tzu] (8):* etxe guztietatik joaten dira. */ arreseki mendian, mendi guzutik (10):* ardiekin mendian, mendi guztitik. */ xatan zia guzutik? (10):* denetik jaten duzu?

guzu 2 *(3, 4, 5, 9, 10)* : oso (adj.) */ Judea guzutik [zuatzan, bada, aren erdeitra gentiak] (3):* Judea osotik zihoazen, bada, jendeak hura aurkitzera. */ [Jesus] faiten zen Galilea guzutik*

erakustan eta predikatan (3): Jesus Galilea osotik joaten zen irakasten eta predikatzen. */ [kek] publikatu zein unguru guzutik (3):* haiek inguru osoan zabaldu zuten. */ [Herodesek] kaur entzun zionian, turbatu zen eta arekin Jerusalen guziua (3):* Herodesek hau entzun zuenean, aztoratu zen eta harekin Jerusalen osoa. */ mundu guzutik fanen naz orreki (4):* mundu osotik joanen naiz berorrekin. */ txutxika loria bedatsian biltan da urte guzuko (4):* sabuka lorea udaberrian biltzen da urte osorako. */ Frantziara [faiten dra] negu guzuko (4):* Frantziara joaten dira negu osorako. */ ez digu negu guziuan ekusi kainbat elur nola orai dagona (4):* ez dugu negu osoan ikusi hainbat elur nola orain dagoena. */ kasu egiten eztionak etaxur bati, eginen du etse guziuari (5):* itogin bati kasu egiten ez dionak, etxe osoari eginen dio. */ kontu bil, mundu guzutik barriatako (5):* kontuak bildu, mundu osotik barreiatzeko. */ etse guzia [egordi diar] (9):* etxe osoa erraztatu diat. */ egun guzia (9):* egun osoa. */ egun guzuko (9):* egun osorako. */ [Korpus Kixte] egunean iri guzutik ebiltan da prozesionia (10):* Korpus Kristi egunean herri osoan ibiltzen da prozesioa. */ Simona izaguntan zezein Uriña guzian (10):* Simona ezagutzen zuten Iruñea osoan.

guzuetan *(7)* : -ero, guztietan */ oren erdi guzuetan (guzietan) batzu [treina] (7):* ordu erdiro baduzu trena.

guzuz *(3)* : guztiz */ gaxki [erran dazazeinian] guzuz xen kontra (3):* gaizki erran diezazuenean guztiz zuen aurka.

I

i *(8, 9, 10)* : hi */ i [andi] yaz (9):* hi handia haiz. */ ik erran daion (9):* hik esan diok. */ kau duk iria (9):* hau hirea duk. */ iretako (9):* hiretzat.

ia *(7)* : lixiba (likidoa) OH. Estornesek ´ea´ eta ´ia´ dokumentatuak.

iauri *(5, 10)* : heu, hihaur */ egon adi iauren baiten (5):* egon hadi heure baitan. */ ar zan iaurek (10):* har ezan herorrek.

iaûsi 1 *(5)* : zaunka

iaûsi 2 *(4, 5)* : irausi (ahardia, txerri emea arreske)

iaûsika *(5)* : zaunkaka

Ibañeta *(4)* : *(geog.)* Ibañeta */ uskaldunek xorroxtan dei beren axkorak Ibañetako arrietan (4):* euskaldunek beren aizkorak zorrozten dituzte Ibañeta haitzetan. */ aurrak eta emazteak danzatan dra Ibañetan (4):* haurrak eta emakumeak dantzatzen dira Ibañetan.

ibar *(1, 5, 11)* : *(geog.)* ibar */ ibar goiti[a], ibar goiena (1):* ibar goitia, ibar goiena. */ ibar andia, ibar beltza (1):* ibar handia, ibar beltza. */ Bela ibarra (1):* Bela ibarra. */ lantxerrak ibarraz, ordek lanoara idietaz (5):* lainoa ibarrean, hoa lurra lantzera idiekin. */ ibarra (11):* ibarra.

ibax *(7)* : *(geog.)* ibar OH. Uztarrozen ´belar > belax´, ´ur > ux´ eta ´urte > uxte´ dokumentaturik daude. Baliteke ´ibar > ibax´ bilakaera ere gertatu izana. Ikus ´uxte´ sarrera. Ikus, era berean, ´ibar´ sarrera.

ibentze *(5)* : *(nek.)* uztondo

ibi *(5)* : ildo-arte OH. Azkuek ´landutako lur artean landu gabe garatzen den lurra´ oharrarekin dokumentatua.

iburne *(2)* : *(erl.)* infernu */ guzioaz, iburneaz [eta] zeuriaz (2):* guztiaz, infernuaz eta zeruaz. */ gaistoak iburneaz gaztigetan [tuzula sinestan dud] (2):* gaiztoak infernuaz zigortzen dituzula sinesten dut.

iburni *(2, 3, 5)* : *(erl.)* infernu */ gastuer iburniko penak (2):* gaiztoei infernuko nekeak. */ iburni bat beino obro dagua? (3):* infernu bat baino gehiago al dago? */ iburniko bortak (3):* infernuko ateak. */ lotsa ekun zazei korpiza iburniara [egotx dokenari] (3):* beldurra eduki iozue gorputza infernua bota dezakeenari.

idago *(5)* : oihu, garrasi

idan! *(7)* : emadan! */ idan ogia (7):* emadan ogia.

idarrausi 1 *(3, 5)* : astindu, inarrosi */ idarraus zazei xaurien zankuetako errautsa (3):* astin ezazue zeuen oinetako hautsa.

idarrausi 2 *(5)* : erori (fruta heldua, berez)

idi 1 *(2, 5, 8, 9)* : *(zoo.)* idi */ artz, otso, idi, ardi eta aintz (5):* hartz, otso, idi, ardi eta ahuntz. */ lantxerrak ibarraz, ordek lanoara idietaz (5):* lainoa ibarrean, hoa lurra lantzera idiekin. */ idiak (9):* idiak.

idi 2 *(5, 7, 9, 10)* : herri */ obro ezik ein mendioillar il ditu aurten jein batek gore idian (5):* ehun argioilar baino gehiago hil ditu aurten jaun batek gure herrian. */ gore iditik alegiaraz igari zen (5):* gure herritik txantxetan (txantxak eginez) igaro zen. */ anitx gose [dago] idian (7):* gose handia dago herrian. */ idia, idian gainean (9):* herria, herriaren gainean. */ Aragoko idietan (9):* Aragoiko herrietan. */ idi kuetarik (9):* herri hauetatik. */ apeza idi kontra [xitan zia] (10):* apaiza herri honetara zetorren. */ idiara [xuan] (10):* herrira joan.

idigelki *(5)* : *(suk.)* idiki
idigi *(5)* : kendu; atera
idiki *(5, 9)* : ireki */ idiki zan borta (9):* ireki ezan atea.
idoi *(1)* : *(geog.)* idoi, urmael */ Adazi[ko] idoia (1):* Adaziko idoia, Adaziko urmaela.
idoki *(2, 5)* : atera */ [linbuetra] xautsi zela [eta] kantik idoki ztiela kuen arimak (2):* linbora jaitsi zela eta handik atera zituela hauen arimak. OH. Iparraldean ere dokumentatua.
idor *(3, 5, 7, 9)* : lehor */ [kan-kemenka] erabilten da leku idorretaz txerkatan (3):* han-hemenka ibiltzen da leku lehorren bila. */ tenpra anitx idor [dago] (7):* eguraldia oso lehor dago.
idoregari *(5)* : esekitoki (arropa lehortzekoa)
idorte *(5)* : lehorte
idortu 1 *(3, 5, 9, 10)* : lehortu, idortu */ eskiua idortruk edo exartruk zakan (3):* eskua lehorturik edo iharturik zeukan. */ idor garaian (5):* lehortu ondoren. */ [zenbra] idortan zia kor (10):* gaztanbera hor lehortzen zen. */ lili[ak] idor sabaian zreila amintto bat (10):* loreak belarganbaran lehor zitezela pitin bat.
idortu 2 *(5)* : gogortu (lurra) OH. Lurra gogortu, elurragatik nahiz izotzagatik.
iduri *(5, 9)* : antzeko */ iduriak idurieki, ni ere keki (5):* antzekoak antzekoekin, ni ere haiekin. */ kurak tun iduri (9):* haiek antzekoak ditun.
iduri izan *(3)* : antzekoa izan */ [nornai ene dotrina entzuten diona] izanen da iduri gizon kuerdo bati (3):* ene dotrina entzuten duen edozein, gizon zentzudun baten antzekoa izanen da.
ies *(5)* : ihes
îes *(5)* : ihes
ies egin *(5, 7)* : ihes egin
îes egin *(3)* : ihes egin */ nola îes egitan da mundiuaren ganik? (3):* nola ihes egiten da mundutik?
îes in *(3)* : ihes egin */ Jesusen Egiptora îes itia (3):* Jesusen Egiptora ihes egitea.
iêsi *(3)* : ihes egin */ iêsi ez deiztekenian arin (3):* arin ihes egin ez dezaketenean.
îesi *(5)* : ihesi, iheska
îesitu *(3)* : ihes egin */ txerrizaînak îesitu zren eta, eltu baikoz ziudadiara, [agitan zen guziua] kontatu zein (3):* txerrizainak ihesi joan ziren eta, hirira heldu bezain laster, gertatzen zen guztia kontatu zuten. */ eriten dur artzaîa eta îesten dra saldoko ardiak (3):* artzaina zaurituko dut eta saldoko ardiek ihes egingo dute.
îestu *(5)* : ihes egin */ kau xiten denean lotsaz îestan da (5):* hau etortzen denean, beldurrez ihes egiten du.
iêtstu *(3)* : ihes egin */ xen iêtstia ez deila izan negiuan (3):* zuen ihes egitea ez dadila izan neguan.
igan 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : igo */ ekusi zuniena noiz igan zen? (2):* ikusi al zenuen noiz igo zen? */ [Kristo zeuriara] igan zela (2):* Kristo zerura igo zela. */ [Jesus mendi batra] igan zen (3):* Jesus mendi batera igo zen. */ naskiro pensatan tzu biar tzinala igan zeuria[draino] (3):* ziurrenik pentsatzen duzu zeruraino igo behar zenuela. */ ekusi zuniona [Jesus] zeuriara igaitan? (3):* ikusi al zenuen Jesus zerura igotzen? */ [mendi batra] igaitian, [kan] xaseri zen (3):* mendi batera igotzean, han eseri zen. */ iñurria igan zen gora (4):* inurria gora igo zen. */ menditarren irrintziriak zeuriaraino igaitan dra (4):* menditarren irrintziak zeruraino igotzen dira. */ igan adi (4):* igo hadi. */ igaitea (5):* igotzea. */ zu igan zra (7):* zu igo zara. */ termometroa sei grado igan da (7):* termometroa sei gradu igo da. */ treinetik xaixtan, treiniara igaitan (7):* trenetik jaisten, trenera igotzen. */ igaitea aixa da (7):* igotzea erraza da. */ [gizon bateki] igan naz (8):* gizon batekin igo naiz. */ ez neiteken igan altepa gora (9):* ez naiteke igo aldapa(n)

gora. */ igan ztei ziek baskaltra (9):* igo zaitezte zuek bazkaltzera. */ gizon kori igan dun anix gora (10):* gizon hori oso gora igo dun. */ ez neiteken igan altepa gora (10):* ez naiteken igo aldapa(n) gora. */ igaitan dun (10):* igotzen dun. */ [Izabarik] igantan zreia (10):* Izabatik igotzen ziren.

igan 2 *(4)* : igaro, iragan */ igan den ilabetian agitu zen (4):* igaro den hilabetean gertatu zen.

igante *(2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10)* : igande */ igante eta xeiak beigratan dutu (2):* igande eta jaiak begiratzen ditu. */ igantia (2):* igandea. */ meza igante oro [entzutia] (3):* meza igandero entzutea. */ astiaren lein eguna edo igantia (3):* asteko lehen eguna edo igandea. */ igantetan eta xeietan (4):* igandeetan eta jaietan. */ igantia (6):* igandea. */ igantea (7):* igandea. */ ez diegu lan egitan igantean (7):* ez dugu lan egiten igandean. */ igantia (8):* igandea. */ igantioro (9):* igandero.

igantekari *(5)* : igande-artzain OH. Artaldea utzita, igandeetan etxera joaten ziren artzainak.

igar den urtian *(10)* : iaz, igaro den urtean */ igar den urtian egon zuntian keben (10):* igaro den urtean egon ziren hemen.

igara *(1)* : *(erai.)* errota */ igaraberrieta (1lm):* errota berri eta. OH. Ikus ´ixera´ eta ´exara´ sarrerak eta haietako oharrak.

igaran *(5)* : igaro, pasatu */ igaran urtean (5):* igarotako urtean.

igarangu *(5)* : pasabide, ibi OH. Zuberoan ´igarangü´ dokumentatua.

igarantza *(5)* : igarotze, pasatze, igaroera */ igarantzan ekusi naun (5):* igarotzean (igaroeran) ikusi nuen.

igaren *(9)* : igaro, pasatu */ igaren gaian amestu nun (9):* igarotako gauean amets egin dinat.

igargu 1 *(5)* : igarobide, pasabide

igargu 2 *(5)* : *(erai.)* korridore (etxekoa)

igari 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : igaro, pasatu */ krutxian igari ziela erioa eta pasionia (2):* gurutzean igaro zituela herioa eta pasioa. */ alte ezkerreko soinetik alte eskukoara eskiaren igartian (2):* ezker aldeko sorbaldatik eskuin aldekora eskua igarotzean. */ zoin dra igartan dienak? (2):* zeintzuk dira igarotzen dutenak? */ desterro kau igariz gero eratxuki diazaguzu frutua (2):* erbesteratze hau igaro ezkero erakuts iezaguzu fruitua. */ zeuria eta lurra igaren dra, baia ene eliak eztra faltaten (3):* zerua eta lurra igaroko dira, baina ene hitzak ez dira faltatuko. */ ezbaizen ñor ere atrebitan igartra bide kartarik (3):* ez baizen inor ere ausartzen bide hartatik igarotzera. */ ordiua xa igaririk (3):* ordua jada igarota. */ bi oren igaririk (3):* bi ordu igarota. */ irur egun igari zion oian (4):* hiru egun igaro zituen ohean. */ azken uda igarian (4):* igarotako azken udan. */ igartra eitzi bage eskribatan daud (4):* igarotzen utzi gabe idazten diot. */ [xiteko intenzionia dio], uda aspaldixko baten igartra (4):* etortzeko asmoa du, uda alditxo bat igarotzera. */ xeiak igar ditzan kain alegre nola nik gogoan baidazkad (4):* jaiak igaro ditzan nik gogoan ditudan bezain alai. */ bortiua eta itxasoa ez dionak igari ez daki otoi egiten Jangeikoari (5):* bortua eta itsasoa ez dituenak igaro ez daki otoitz egiten jaungoikoari. */ bi gainkazko igari dra (5):* bi zaldizko igaro dira. */ goizteria igari dun deus egin bage (5):* goiza igaro dun ezer egin gabe. */ bi eriren artetik igari bear zren exurkoak (5):* bi hatzen artetik igaro behar ziren tortolosak. */ kota onki konpontan badun, urtea igaren dun (5):* gona ongi konpontzen badun, urtea igaroko dun. */ laur ilabete igari diezu bordan (7):* lau hilabete igaro ditu bordan. */ gai on igar zazu (7):* gau ona igaro ezazu. */ kan igari diez amiror urte (8):* han igaro ditut hamahiru urte. */ gai ona igar (8):* gau ona igaro. */ uda igari dun (9):* uda igaro dun. */ eztiteken igar borta kontarik (9):* ez daiteken igaro ate honetatik. */ igar den urtian (10):* iaz,

igaro den urtean. */ [ene amak laur azken urtiak] igari xaseririk (10):* ene amak laur azken urteak eseririk igaro (zituen). */ prozesione bat igartan duzu karrika barna (10):* prozesio bat kalean barrena igarotzen da.

igari 2 *(4)* : gertatu, agitu */ aitak ekustan baitu igartan dena sekretuan (3):* aitak ikusten baitu sekretuan gertatzen dena. */ badakian zer igarten den (4):* badakin zer gertatzen den.

igari 3 *(5)* : irentsi, klaskatu (mauka-mauka jan)

igarika *(5)* : igerian, igerika

igarikatu *(5, 7)* : igeri egin

igarkin *(5)* : kafe-hondar

igatu *(5)* : higatu

igatzarri *(3, 5)* : esnatu, iratzarri */ abañatan zrelarik diszipuluak, igatzarri zabein (3):* ikasleak hurbiltzen zirela, esnatu zuten.

igel *(5, 9)* : *(zoo.)* igel */ igela (9):* igela.

igoin *(4, 5)* : kirten */ [txutxikaren] materiala on [da] axkora igointako (4):* sabukaren materiala ona da aizkora kirtenetarako. */ [zartagia] igoinetik arrapatruk (5):* zartagina kirtenetik harrapatuta.

igoiñ *(5)* : kirten

igorri *(10)* : bidali, igorri */ ber gisan igortan diar iri (10):* gisa berean bidaltzen diat hiri (postala).

igortu *(7)* : lehortu

igortzale *(5)* : gastatzaile, xahutzaile */ aita biltzale, seme igortzale (5):* aita biltzaile, seme xahutzaile.

igual *(5)* : zori, zorion

iguzki *(2, 3, 4, 5, 7)* : *(astr.)* eguzki */ goikoa [eta] iguzkia (2):* ilargia eta eguzkia. */ iguzkia onen eta gaxtuen gainian [sor dein egitan du] (3):* eguzkia onen eta gaiztoen gainean sor dadin egiten du. */ iguzkia erkiti[an] (3):* eguzkia irtetean. */ iguzkia [sartruk] (3):* eguzkia sarturik. */ iguzkiaren gisa (3):* eguzkiaren moduan. */ iguzkia ekustan du (4):* eguzkia ikusten du. */ iguzkiak mendietan dirdiratan du (4):* eguzkiak mendietan dirdiratzen du. */ euria ta iguzkia karakolaren ezteia (5):* euria eta eguzkia barraskiloaren ezteia. */ nai dionak osagarri, lotsa ekun bear du martxoko iguzkiari (5):* osasuna nahi duenak beldur izan behar dio martxoko eguzkiari. */ gero, xiten den iguzkiaz bero (5):* gero, etortzen den eguzkiaz bero. */ iguzkia lurretik urrin dago (7):* eguzkia lurretik urrun dago.

iguzki-erkingu *(3, 5, 7)* : ekialde, sortalde */ mago banak xin zren iguzki-erkingutik Jerusalenera (3):* mago batzuk etorri ziren ekialdetik Jerusalenera. */ iguzki-erkingua, iguzki-erkingia (7):* ekialdea, sortaldea.

iguzki-sargu *(5, 7)* : mendebalde, sartalde */ iguzki-sargua, iguzki-sargia (7):* mendebaldea, sartaldea.

iguzkia erkin *(7)* : eguzkia atera */ iguzkia erkin da (7):* eguzkia atera da. */ iguzkia erkitan da (7):* eguzkia ateratzen da. */ arratsian iguzkia erkinen da (7):* arratsean eguzkia aterako da.

iguzkiaxa *(2)* : *(met.)* ekialdeko haize, eguzki-haize */ iguzkiaxa (2):* ekialdekoa haizea, eguzki-haizea.

iguzkierkite *(2)* : ekialde, sortalde */ iguzkierkitia (2):* ekialdea, sortaldea.

iguzu! *(2)* : emaguzu! */ zuk iguzu gore egunozko ogia (2):* zuk emaguzu gure eguneroko ogia.

iize *(5)* : ehiza

îîze *(5)* : ehiza
iizlari *(5)* : ehiztari
ika *(5)* : hika
ikaratu *(3, 5)* : ikaratu */ lurra ikaratu zen (3):* lurra ikaratu zen.
ikare *(3)* : ikara, izu */ aînguriak izanen dra ikarez (3):* aingeruak ikaraz izanen dira.
ikareria *(3)* : ikareria, ikara, izu */ ikareria andi batekin [baratu zren] (3):* ikareria handi batekin geratu ziren. */ lurraren ikareria [ekustian] bete zren lotsa anditaz (3):* lurraren ikara ikustean, beldur handiz bete ziren.
ikasarazi *(4)* : ikasarazi */ erraiten daud ez nazala trebe llober uskararen ikasaraztra (4):* erraten diot ez naizela ausartzen bilobei euskara ikasarazten.
ikasgei *(7)* : ikasgai */ lein ikasgei[a] (7):* lehen ikasgaia. */ bigarnen ikasgei[a] (7):* bigarren ikasgaia. */ irorgarnen ikasgei[a] (7):* hirugarren ikasgaia.
ikasgo *(5)* : ikaskuntza
ikasgu 1 *(4, 5, 7)* : ikastetxe */ morroiak xoan dra ikasguara (ikasgiara) (7):* mutikoak ikastetxera joan dira.
ikasgu 2 *(4, 5)* : ikaskuntza */ ez al dago Nefarro guziuan iri kain lazorik nola kaur ikasgiuaren gainian (4):* ezin da egon Nafarroa osoan hau bezalako herri arduragaberik ikaskuntzari buruz.
ikasi *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : ikasi */ zonbat gisaz biar dugu ikasi zeñetan? bidez (2):* zenbat modutan ikasi behar dugu zeinatzen? bitan. */ fan zte ikastra zer [erran nai] dion (3):* zoazte zer erran nahi duen ikastera. */ ez dokei ikas ñolako gisan (3):* ez dezakete inolako modutan ikasi. */ ene errenak ezion ikasi nai biloaren montxtan (4):* nire errainak ez zuen ikasi nahi ilea mozten. */ ikasi bear baduk, zurra bear duk (5):* ikasi behar baduk, zuhurra behar duk. */ anixko lo egiten dionak txiki ikastan du (5):* askotxo lo egiten duenak gutxi ikasten du. */ erkin ztei karrikara eta ikasen tzei gore makilen erdara (5):* atera zaitezte kalera eta ikasiko duzue gure makilen erdara (= jipoia hartuko duzue). */ orai ikastan nago (7):* orain ikasten nago. */ ikasgiara zerbait ikastra [xoatan naz] (7):* ikastetxera zerbait ikastera joaten naiz. */ aitajina! ikasi dur biarnesa! (8):* aita! biarnoera ikasi dut! */ ez dur nik ikasi kori (8):* ez dut ikasi hori. */ baziezun irurogei urte ikasi niela nik (10):* baziren hirurogei urte ikasi nuela nik. */ ikasi bitugu zerbaiten egitan (10):* zerbait egiten ikasi baitugu. */ koriek zer bar dei egin, ikasi bage lan egitan? (10):* horiek zer egin behar dute, lan egiten ikasi gabe? */ ikastan dien (10):* ikasten din.
ikasle *(7)* : ikasle */ ikaslea (7):* ikaslea.
ikastaldi *(7)* : ikastaldi */ bigarnen ikastaldia (7):* bigarren ikastaroa.
ikaste *(3)* : argibide, ikaste */ Jesusek emon [zabein] instruzioniak edo ikastiak (3):* Jesusek eman zizkien argibideak edo ikasteak.
ikatz *(2, 7, 9)* : ikatz */ ikatza (9):* ikatza.
ikatz-errauts *(5)* : ikatz-hauts, ikatz xehe
ikazbizi *(5)* : txingar
ikazgin *(5)* : ikazkin
ikazlabe *(5)* : ikaztobi, txondor
ikaztegi *(5)* : *(erai.)* ikaztegi */ erkin aroztegitik eta ikaztegian sar (5):* sutegitik atera eta ikaztegian sartu.
ikerle *(5)* : aditu, peritu
ikertu 1 *(5)* : ikertu
ikertu 2 *(5)* : aztertu

iketz *(9)* : hika */ nik elerraitan diar iketz (9):* nik hika hitz egiten diat.
iki *(5)* : *(astr.)* eguzki OH. Zuberoan ´ekhi´ eta ´eki´ dokumentatuak.
ikialte 1 *(5)* : ekialde, sortalde
ikialte 2 *(4)* : egutera, eguzkialde */ aretxa ikialtetan [aztan da] (4):* haritza eguteran hazten da.
ikusarazi *(5)* : jasanarazi
ikusi *(8, 9, 10)* : ikusi */ enin ikusi kolako gaizarik (8):* ez nuen ikusi horrelako gauzarik. */ bi gizonek ikusi dezei gore eliza (9):* bi gizonek ikusi dute gure eliza. */ [anitx xoaitan] ikusi dur, ni mino gaztiago (10):* anitz joaten ikusi ditut, ni baino gazteagoak.
ikuskari 1 *(5)* : ikuskizun, ikuskari
ikuskari 2 *(5)* : opari (emakume erdi berriari emana)
ikuzkin *(5)* : garbiketa-ur OH. Azkuek ´txerriari ematen zaion garbiketako ura´ esanahiarekin dokumentatua.
ikuztarri *(5)* : ikuztarri (arropa garbitzeko harria)
il 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : hil (norbera) */ ekusi zuniena noiz il zen? (2):* ikusi al zenuen noiz hil zen? */ irorgarren orenian il zela (2):* hirugarren orduan hil zela. */ iltan denari iror personek emonen dabeila bere gloria (2):* hiltzen denari hiru pertsonek emanen diotela bere aintza. */ ordian iltan balimada, zeuriara xuanen dela (2):* orduan hiltzen baldin bada, zerura joanen dela. */ Herodes il zen bitartio [egon zen Jose Egipton] (3):* Herodes hil zen bitartean egon zen Jose Egipton. */ il drenen ezurrez [beterik daude] (3):* hil direnen hezurrez beterik daude (hilobiak). */ ekusi zuniona [Jesus] iltan? (3):* ikusi al zenuen Jesus hiltzen? */ iltako peligrorik [badu] (3):* hiltzeko arriskurik badu. */ [ñore adexkidia] il zitzaitadan (4):* neure adiskidea hil zitzaidan. */ [minik bage] il zen (4):* minik gabe hil zen. */ anitx eri iltako ordiuan (4):* gaixo asko hiltzeko orduan. */ aurten zarrak il balite onki konfesatruk! (5):* aurten zaharrak ongi aitorturik hil balira! */ ni gaur iltan banaz, zazpi tortxeki argi ditazu (5):* ni gaur (gauean) hiltzen banaiz, zazpi zuzirekin argi iezadazu (bidea). */ adexkiderik bage bizitea da orobat nola testigorik bage iltea (5):* adiskiderik gabe bizitzea lekukorik gabe hiltzea bezala da. */ odola erkiten denean aotik, señale ilteko ezkapatan dela korpizetik (5):* odola ahotik ateratzen denean, seinale hiltzeko ateratzen dela gorputzetik. */ il da, ila [da] (6):* hil da, hila da. */ iltan [da], iltzan [da] (6):* hiltzen da. */ il deila (6):* hil dadila. */ iltan naz otzez! (7):* hotzez hiltzen naiz! */ [gizon kura] il dela (8):* gizon hura hil dela. */ ixklak nabaritan tun, nor il da? (9):* kanpaiak aditzen ditun, nor hil da? */ il dun (10):* hil dun. */ hil zia (10):* hil zen. */ abrats bat... guziak begira ilen [den] (10):* aberats bat... guztiak begira hilko den. */ biak aski fite il [zren] (10):* biak aski laster hil ziren. */ il tiala berak! (10):* hil daitezela beraiek!
il 2 *(2, 3, 4, 7, 8, 9, 10)* : hil, erail */ ñor il estezagula (2):* ez dezagula inor hil. */ il lezana izanen [da] kondenatruk ilik izaitra (3):* hil lezana hila izatera kondenaturik izanen da. */ eta ilen dei eta erresuzitaten da (3):* eta hilko dute eta berpiztuko da. */ borzgarna, ñor ez iltia (3):* bosgarrena inor ez hiltzea. */ txerria il biar dud, xanaria akabatu baidud (4):* txerria hil behar dut, janaria bukatu baitut. */ [guk] txerri iltako (4):* guk txerriak hiltzeko. */ juan gitian untxiaren iltra (4):* joan gaitezen untxia hiltzera. */ negu kontan beste txerri bat ilen digu (7):* negu honetan beste txerri bat hilko dugu. */ gero ez zezein nai sinetsi maztiak il ziela gizona (8):* gero ez zuten sinetsi emakumeak hil zuela gizona. */ norengatik il dei? anaxarengatik (9):* norengatik hil dute? anaiarengatik. */ [gaiski] egin zia[n] gizon baten iltia (9):* gaizki egin zinan gizon bat hiltzean. */ xerria il eta lokeinkak egin (10):* txerria hil eta lukainkak egin. */ ziek il zeia? (10):* zuek hil al duzue? */ ziek iltan zei (10):* zuek hiltzen duzue. */ nork oltu du zakurraren iltra?*

(10): nork bidali du zakurra hiltzera?

il 3 *(2, 5, 9)* : hil (adj.) */ fede bizia eta fede ila (2):* fede bizia eta fede hila. */ asto ilari uzkutik zuku (5):* asto hilari ipurditik zopa. */ asto ilari uzkutik olo (9):* asto hilari ipurditik oloa.

il 4 *(2, 3, 4, 5)* : hil, hildako */ ilen sakramentiak (2):* hilen sakramentuak. */ ilen artetik resuzitatu zela (2):* hilen artetik berpiztu zela. */ ilen eta bizien juzgetra [xinen dela] (2):* hilak eta biziak epaitzera etorriko dela. */ jeinari ilez eta biziez otoi egitia (2):* jaunari hilez eta biziez otoitz egitea. */ eitzazu ilek, edo gente ez deinek fediaren bizia, ôrz´tzein beren illak (3):* utz itzazu hilak, edo fedearen bizia ez duen jendeak, ehortz ditzaten beren hilak. */ ilak erresuzitatan dra (3):* hilak berpizten dira. */ irurgarnen egunian biztu zen ilen artetik (4):* hirugarren egunean piztu zen hilen artetik. */ urtearen buruko obro xatan du ilak ezik biziak (5):* urtearen bururako gehiago jaten du hilak biziak baino. */ ilak eta fanak dra lein anztan drenak (5):* hilak eta joanak dira lehenik ahazten direnak.

il 5 *(3, 5)* : itzali */ eman dazaiguzei xaurien oriotik, zeren gore lanparak iltan baitra (3):* emaiguzue zeuen oliotik, zeren gure lanparan itzaltzen ari baitira.

il-ersean *(5)* : hilzorian

ilabelar *(4)* : *(bot.)* irabelar

ilabete *(2, 4, 5, 8, 9, 10)* : hil, hilabete */ medratxu ilabete kunplitu garaian sortu zela (2):* bederatzi hilabete bete zituen garaian sortu zela. */ badu borz ilabete fan zitzaikugula maistroa (4):* badu bortz hilabete maisua joan zitzaigula. */ ilabete oro, ilabete oroz (4):* hilabetero. */ igan den ilabetian agitu zen (4):* igaro den hilabetean gertatu zen. */ fan den ilabetian eltu zitzaitadan (4):* joan den hilabetean heldu zitzaidan (gutuna). */ azken ilabetiaren 22n. eskribitiua (4):* azken hilabetearen 22.ean idatzia. */ maiatzeko zazpi egun zazpi ilabeteren lagun (5):* maiatzeko zazpi egun zazpi hilabeteren lagun. */ maiatzeko ilabetian nik ere kantatan dud (5):* maiatzeko hilabetean nik ere kantatzen dut. */ xiten dan ilabeteko (6):* datorren hilabeterako. */ badiezu zortzi ilabete ezturala ekusi (7):* badira zortzi hilabete ez dudala ikusi. */ ilabete baten burian (8):* hilabete baten buruan. */ ilabetia (8):* hilabetea. */ ilabetea (9):* hilabetea. */ beste ilabete batan (10):* beste hilabete batean. */ irur ilabete nolanai igartan tiagun keben (10):* hiru hilabete nolanahi igarotzen ditinagu hemen. */ amar ilabeteren barnian [il zen] (10):* hamar hilabeteren barnean hil zen.

ilabete oro *(5)* : hilero, hilabetero

ilabeteko *(5)* : hileko (odolaldia)

ilabizar *(5)* : bibotetxo (nerabeen lehena)

iladun *(4)* : artiledun (aberea) */ iladuna (4):* (abere) artileduna.

ilagente *(5)* : *(nek.)* artile-jende (artiledun abereak)

ilagin *(5)* : ilagin (artile lanean dabilena)

ilain *(5)* : muka, ilaun OH. Kandela nahiz metxaren zati errea.

ilaintu *(5)* : beratu, umeldu (fruituak) */ ilaintruk daude gariak (5):* umeldurik daude gariak. OH. Azkuek ´uzta gehiegi heldu, helduegi jarri´ esanahian dokumentatua.

ilamalta *(5)* : artile-mataza

ilar 1 *(2, 9, 10)* : *(bot.)* ilar */ ilarra[k] (10):* ilarrak.

ilar 2 *(1)* : *(bot.)* txilar */ ilar burua (1):* txilar goialdea. */ ilar andia (1):* txilar (leku) handia.

ilarazi *(3)* : hilarazi */ Herodesek [Juan] onki nai zion ilarazi (3):* Herodesek Juan ongi hilarazi nahi zuen. */ ilarazi dutur ene xâlak eta berze animale gizentiuak (3):* hilarazi ditut nire txahalak eta beste animalia gizenduak. */ [Mesias] ilaraztan tzei (3):* Mesias hilarazten duzue. */ zeren

Herodesek txerkaten baitu aurra ilaraztako (3): zeren Herodesek haurra bilatuko baitu hilarazteko. */ [Jesustaz] apoderaten zren eta ilarazen zein (3):* Jesusez jabetuko ziren eta hilaraziko zuten.

ilari *(5)* : artilezko oihal-bazter

ilarri *(1)* : hilarri */ ilarria (1lm):* hilarria.

ilasagar *(2, 5)* : *(bot.)* irasagar

ilaurri *(2)* : *(bot.)* txilar

ilaxaga *(2, 4, 5, 11)* : *(heg.)* belatxinga */ ilaxagaren uxtiuari oiloek emoiten dei lasterrari (5):* belatxingaren txistua (entzutean), oiloek lasterrari ematen diote. OH. Aznarezek ´illaxaga´ aldaera dokumentatu zuen.

ilberri 1 *(5)* : *(astr.)* ilberri

ilberri 2 *(5)* : hileta-berri, hileta-albiste

ildagi *(5)* : *(nek.)* aitzurketa (lana) OH. Azkuek ´leku malkarrean goldearekin egiterik ez dagoelako, aitzurrarekin egiten den lana´ esanahian dokumentatua.

ildarte *(5)* : ildo-arte OH. Azkuek ´landutako lur artean landu gabe garatzen den lurra´ oharrarekin dokumentatua.

ildo *(5)* : *(nek.)* ildo

ildoara erin *(5)* : ildoka erein

ildoerreka *(5)* : *(nek.)* ildo

ildoka *(5)* : *(nek.)* ildo

ildotxori *(5)* : *(heg.)* buztanikara

ile *(2, 5, 7, 8, 9, 10)* : artile */ ile xaia (5):* artile garbitua, artile ikuzia. */ ile xuria bera argi (5):* artile zuria bera argia (da). */ ardi moxtuak ilea xuri (5):* ardi moztuak artilea zuri. */ ardiak ilea emoitan du (7):* ardiak artilea ematen du. */ [oia] ilezko mantareki (7):* ohea artilezko mantarekin. */ [badu] ile ardi korrek (9):* badu artilea ardi horrek. */ ile, ilia (10):* artile, artilea.

ile-ari *(5)* : artile-hari */ pasteillaka allikatan diez nik ile-aria (5):* albainuka harilkatzen dut nik artile-haria.

ilenti *(9)* : ilinti

ilgarri *(5)* : hilgarri */ baladrea sendoen ilgarri, eroen sendogarri (5):* otsababa sendoen hilgarri, eroen sendogarri.

ilgatx *(5)* : hilgaitz, hiltzen zail */ eriberatx ilgatx (5):* gaixobera hilgaitz, hiltzen zaila.

ilgu *(3)* : hilketa */ ez gintzen izanen beren gaxtakidiak profeten ilgiuan (3):* ez ginen haien gaizkideak izanen profeten hilketan.

ilik *(2, 3, 4, 10)* : hilik */ gore jeina zonbat egunez egon zen ilik? irorez (2):* gure jauna zenbat egunez egon zen hilik? hiru egunez. */ bekatian dagon bitartio, arima egoitan [da] ilik (2):* bekatuan egon bitartean, arima hilik egoten da. */ aurra edo nexkaxia [ez dago] ilik (3):* haurra edo neskatoa ez dago hilik. */ kor eror yeila ilik! (3):* (hi) hor eror hadila hilik! */ anaxe ilik dauden[en] arima guziuentako (4):* hilik dauden anaien arima guzientzat. */ [anaxe bat] ilik, beztia´e ilik (10):* anaia bat hilik, bestea ere hilik. */ badakiar anix gizon izan drela ilik (10):* badakit gizon asko hilik izan direla. */ ene aita ilik [zagoa], kan bordan (10):* nire aita hilik zegoen, han bordan.

iliki *(5)* : geldo, zainil (pertsona)

ilikitu *(5)* : geldotu; kikildu

ilindi *(5)* : ilinti */ Santo Laurenti, berroari ilindi (5):* San Laurendi, laharrari ilinti.

ilinti *(2, 5)* : ilinti
ilkor *(5)* : hilkor
ilmalta *(5)* : *(met.)* euri-hodei (handia)
ilobi *(1, 5)* : hilobi */ ilobieta (1):* hilobi eta.
iloe *(5)* : hil-ohe (eramangarria)
iloial *(5)* : hil-oihal (hilobikoa) OH. Azkuek ´elizako hilobi oihala´ oharrarekin dokumentatua.
ilotz *(5)* : hilotz
iloza *(5)* : izur, toles (arropena)
iloztu *(5)* : hiloztu, hilotz bihurtu
iltari *(5)* : hilotz-laguntzaile (hiletetan)
ilte 1 *(3, 4, 6)* : hiltze, heriotza */ Jesusek [antzinetik] erraiten du bere iltia (3):* Jesusek aitzinetik erraten du bere hiltzea. */ [jangeikuak] emon daztan iltea on bat (4):* jaungoikoak hiltze on bat eman diezadan. */ iltearen iragoa [urdu dik] (4):* heriotzaren oihua zirudik. */ iltia (6):* hiltzea, heriotza.
ilte 2 *(3)* : hilketa */ pensamentu gaxtuak, gizonen iltiak, ebasgiuak (3):* pentsamendu txarrak, gizonen hilketak, lapurretak.
iltu *(7)* : hil, erail */ iltu bar diar yi (7):* hil behar haut hi.
iltzale *(6)* : hiltzaile
iltzatu *(7)* : iltzatu
ilxe *(5)* : hil-edo, pixka bat kendu (goseaz ari garela) */ gosea ilxe dugu (5):* gosea hil-edo egin dugu.
ilzale *(3, 5, 6)* : hiltzaile */ gente ilzale kuekin (3):* jende hiltzaile hauekin. */ profeten ilzalen seme [zreila] (3):* profeten hiltzaileen semeak zaretela. */ lotsarik etzazei ekun korpizaren ilzaler (3):* beldurrik ez iezue izan gorputzaren hiltzaileei.
ilzorro *(5)* : ile-zain
ill 1 *(2)* : hil (norbera)
ill 2 *(2)* : hil, erail */ ez ñeurere ill (2):* ez inor ere hil. */ ezagula ñeurere ill (2):* ez dezagula inor ere hil.
ill 3 *(3, 5)* : hil, hildako */ eitzazu ilek, edo gente ez deinek fediaren bizia, ôrz´tzein beren illak (3):* utz itzazu hilak, edo fedearen bizia ez duen jendeak, ehortz ditzaten beren hilak. */ gizon illak sudurra otz (5):* gizon hilak sudurra hotz (= hildakoek lagunik ez dute). */ illaren elizakoak (5):* hilaren elizkizunak.
illar *(4)* : *(bot.)* ilar
illarraka *(11)* : *(bot.)* ilarraka
illaurri *(5, 11)* : *(bot.)* txilar
ille *(5)* : artile */ ille xaia (5):* artile garbia.
ille-ailliko *(5)* : artile-harilko
illik *(10)* : hilik */ abantxu illik (10):* ia hilik.
illindi *(5)* : ilinti */ Laurendi, berroari illindi (5):* Laurendi, berroari ilinti.
illoe *(5)* : hilkutxa (estalki gabea)
illotzi geratu *(5)* : hilotz geratu, bat-batean hil */ illotzi geratu da (5):* hilotz geratu da, bat-batean hil da. OH. Azkuek ´illotzi (sic)´ idatzirik.
illun *(3)* : ilun
illun-millunka *(5)* : iluntzean

illungarai *(5)* : iluntze

illungu *(3)* : iluntasun, ilunbe */ ulunguan eroririk zagon iri konek ekusi du argi andi bat (3):* iluntasunean eroririk zegoen herri honek argi handi bat ikusi du.

illurri *(2, 4, 5)* : *(bot.)* elorri, arantza */ ezpela, illurria, korostia eta otaka (4):* ezpela, elorria, gorostia eta otaka dira. */ illurriak ere su ona [egiten du] (4):* elorriak ere su ona egiten du.

imitatu *(3)* : imitatu */ [al tzein guziua] imitatan dauzeilarik (3):* ahal duzuen guztia imitatzen duzuela.

imitazale *(3)* : imitatzaile */ izan [ztei] xen aita zeurian dagonaren imitazaleak (2):* izan zaitezte zeruan dagoen zuen aitaren imitatzaileak.

inaztura *(5)* : *(met.)* tximistargi, oinaztargi

inbidia *(3)* : inbidia, bekaizkeria */ zer da inbidia? berzenen onaren tristuria bat (3):* zer da inbidia? besteen onaren tristura bat. */ inbidiaz (3):* bekaizkeriaz.

inbullikatu *(5)* : mukurutu

indandobi *(5)* : *(geol.)* leize, amildegi

indar 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : indar */ [jentiler] urdutan zabei entzunik izan biar deila ele anitxen indarrez (3):* jentilei iruditzen zaie entzunak izan behar dutela hitz askoren indarrez. */ airiaren indarra [ekustian], lotsatu zen (3):* haizearen indarra ikustean, beldurtu egin zen. */ [airek] emon zein indarrekin kalako etsiaren kontra (3):* haizeek indarrarekin jo zuten halako etsearen kontra. */ sontotu [naz], banua indarrak biltuz erdixkalki (4):* sendatu naiz, banoa indarrak bilduz erdizka. */ orren kartaren indarrareki, urrinaraz [dutud] pensamentu guziuak (4):* berorren gutunaren indarrarekin, pentsamendu guztiak urrunarazi ditut. */ indarrak biltruk obro doke ezik barriatruk (5):* indarrak bildurik gehiago dezake barreiaturik baino. */ astoek eta zamariek dei anitx indar (7):* astoek eta zamariek indar handia dute. */ ardauak ainbeste indar diela (8):* ardoak hainbeste indar duela. */ suaren indarra (9):* suaren indarra. */ kan egitan zeia, zer indar!, erkitako (10):* han (almadian) egiten zuten, zer indar!, ateratzeko.

indar 2 *(7)* : indartsu */ zer arroitu indarra! (7):* zer zarata indartsua!

indar egin *(3)* : indar egin */ indar bizi kaur egiten deinak (3):* indar bizi hau egiten dutenak

indar emon *(2, 3)* : indar(ra) eman */ tentazione gasto guzien goitako indar emon dazagun (2):* tentazio txar guztiak garaitzeko indar eman diezagun. */ arimari indar emoitako (3):* arimari indarra emateko.

indarbagetu *(5)* : indargabetu

indarraldi *(5)* : indarraldi, oldar

indartsu *(4)* : indartsu */ [yi] indartsu yaz (4):* hi indartsua haiz. */ [zu] indartsu zra (4):* zu indartsua zara.

indartxiki *(8)* : ahul, indar gutxiko

indarzka *(3)* : indarrean, bortxaz */ profeten indarzka iltiaz [ele erraiten] (3):* profetak indarrean hiltzeaz hitz egiten.

induria *(5)* : trebetasun

infekzione *(10)* : *(med.)* infekzio */ infekzionereki xoan [zen] mundutik (10):* infekzioarekin joan zen mundutik.

infezione *(10)* : *(med.)* infekzio */ infezione bat artu [zein] eri batan (10):* infekzio bat hartu zuen hatz batean.

informatu *(3)* : informatu */ informa ztei agitan denaz aur konen gainian (3):* informa zaitezte haur honen inguruan gertatzen denaz. */ informatruk xuntatu zren (3):* informaturik elkartu

ziren.

ingla *(2, 5)* : *(bot.)* gerezi */ ingla (2, 5):* gerezia.

-ingo *(11)* : -txo */ pattattingo (11):* patatatxo. OH. Ikus ´-nko´ sarrera. Euskara batuan ´-ngo´ atzizkia ´zuringo´ eta ´gorringo´ hitzetan gorde da.

inguru 1 *(5)* : inguru

inguru 2 *(5)* : inguru, ia, gutxi gorabehera

inguruz *(5)* : inguruka */ gora naiz apal, yoa inguruz (5):* gora nahiz behera, hoa inguruka.

inkatu *(5)* : galkatu, sakatu

inkulusada *(5)* : olatutxo OH. Uretan emandako kolpea, horren eraginez sortutako olatutxoak almadia ibairatzen lagun dezan. Zaraitzun ere dokumentatua.

inskiri *(5)* : intziri (txakurrena)

integi *(5)* : lantoki, tailer

intenzio *(3)* : asmo */ nola biar du batixatu? batixatako intenziorekin [erraitan] ´nik batixatan daizur´ (3):* nola bataiatu behar du? bataiatzeko asmoz erranez ´nik bataiatzen zaitut´.

intenzione *(2, 3, 4)* : asmo */ bear du ekun intenzione (2):* asmoa eduki behar du. */ gore intenzionia[k] biar diola izan xuxen (3):* gure asmoak zuzena izan behar duela. */ ekusten dud diola intenzione xiteko bakazionetan (4):* oporretan etortzeko asmoa duela ikusten dut. */ intenzionia dud bixita baten egiteko izaguntra (4):* bisita bat egiteko asmoa dut, ezagutzeko.

interes *(3)* : *(ekon.)* interes */ nik kupra nezan ñore interesa [irabazi] ekin (3):* nik neure interesa kobra nezan irabaziekin.

intsiri *(5)* : intziri, oihu

intz *(5)* : *(met.)* ihintz

intzagur *(8, 9, 10)* : *(bot.)* intxaur */ intzagurra (8, 9):* intxaurra.

intzagurratze *(8)* : *(bot.)* intxaurrondo */ intzagurratzia (8):* intxaurrondoa.

intzagurtze *(8)* : *(bot.)* intxaurrondo

intzantu *(5)* : hantu, puztu (abereak)

intzantura *(5)* : hantura

intzirrin *(4)* : intziri, aiene */ intzirrin bat [urdu du] (4):* intziri bat dirudi.

inzagur *(10)* : *(bot.)* intxaur

inzensu *(3)* : intsentsu */ urre, inzensu eta mirrazko presentiak (3):* urrea, intsentsua eta mirra opari.

inzkuru *(4)* : arnasots */ inzkuru da gizon batek atsaz arroitu egiten diona (4):* gizon batek hatsaz egiten duen zarata arnasotsa da.

inzlari *(4)* : ehiztari */ txakur inzlari aztan dagona (4):* hazten ari den txakur ehiztaria.

iñar 1 *(5)* : *(heg.)* sorbeltz

iñar 2 *(5)* : tanta

iñarri *(1)* : txilardi */ iñarria (1):* txilardia.

iñausi *(5)* : irausi (ahardia, txerri emea arreske)

iñaute *(4, 5)* : inauteri, inaute */ karta kontan isartan daud iñaute egunaz (4):* gutun honetan inauteri egunaz jartzen diot.

iñaztura 1 *(2, 3, 5, 9)* : *(met.)* tximista */ iñaztura erkiten den gisa (3):* tximista ateratzen den moduan. */ aren begitartiak argitan zion iñazturak gisa (3):* haren aurpegiak tximistak bezala argitzen zuen. */ kalako aurkintzean, ene abaño iñaztura bat erori zen (5):* halako abagunean, nigandik hurbil tximista bat erori zen. */ amar iñaztura (9):* hamar tximista. OH. ´Iñastura´ ere

dokumentatua.

iñaztura 2 *(5)* : *(astr.)* ozar-izar

iñes *(5)* : ihes

iñesi *(6)* : ihesi, iheska

iñesiz *(5)* : ihesi, iheska

iñurri *(2, 4, 5, 10)* : *(zoo.)* inurri */ txitxitera ta iñurria (4):* txitxarra eta inurria. */ txitxitera negiuan iñurriaren etsera [fan zen] (4):* txitxarra neguan inurriaren etxera joan zen.

ior (ez) *(5)* : inor (ez)

ipar 1 *(2, 5, 7, 9)* : ipar */ iparrintz[a] (2):* ipar-lanbroa. */ iparra [eta] pekoa (7):* iparra eta hegoa. */ iparreko koartoa (9):* iparreko logela.

ipar 2 *(2, 5, 7, 9)* : *(met.)* ipar-haize */ ipar beltza, ondoan latza (5):* ipar beltza, ondoren latza. */ barra eta beltzuria dra orobat nola iparra eta Erribrako lantxerra (5):* barrea eta beltzuria, ipar-haizea eta Erriberako lainoa bezalakoak dira. */ iparrak irur dra Erronkarin; ipar beltza, ipar fina ta ipar gorria (5):* iparrak hiru dira Erronkarin; ipar beltza, ipar fina eta ipar gorria. */ iparra [asi tzu] (7):* ipar-haizea hasi da. */ iparra (9):* ipar-haizea. */ [gaztaren egitako] iparra balin ba[z]ein, onki (10):* gazta egiteko, iparra baldin bazen, ongi. */ iparra xitan zenian (10):* ipar-haizea zetorrenean.

ipar beltz *(5)* : *(met.)* ipar beltz, mendebal-haize */ ipar beltza (5):* ipar beltza, mendebala.

ipar fin *(5)* : *(met.)* ipar fin (ipar-ekialdekoa) */ ipar fina (5):* ipar fina (ipar-ekialdekoa).

ipar gorri *(5)* : *(met.)* ipar gorri, ipar-haize */ ipar gorria (5):* ipar gorria, ipar-haizea.

iparrintz *(2, 5)* : *(met.)* ipar-lanbro

ipurdi *(11)* : *(anat.)* ipurdi

ipurtxauska *(5)* : ipur-jauzika, ipur-saltoka

irabazale *(5)* : irabazle */ aita irabazale, semea gastazale (5):* aita irabazle, semea gastatzaile.

irabazbide *(5)* : irabazpide, lanbide

irabazi *(2, 3, 4, 7, 10)* : irabazi */ berze gainiarako gatxetan, zeuriarako irabaz daitekia? (2):* beste gainerako gaitzetan, zerurako irabaz al daiteke? */ [induljenziak] nola biar dra irabazi? (3):* nola irabazi behar dira induljentziak? */ bi deuri errezibitu zion kark, [berze bi] irabazi zion (3):* bi txanpon jaso zituen hark, beste bi irabazi zituen. */ zer [balio] du mundu guziuaren irabaztia[k], galtan badu bere arima? (3):* zer balio du mundu osoa irabazteak, bere arima galtzen badu? */ berze borz [deuri] obro irabazi baidutur ekin edo kekin (3):* bertze bortz txanpon gehiago irabazi baititut haiekin. */ orai berian irabaztan du kostiua eta irur pezeta (4):* oraintxe irabazten du kostua eta hiru pezeta. */ maiatziaraz gero, [laurna pezeta] irabazen dei (4):* maiatza ezkero, launa pezeta irabaziko dute. */ xaz eltu zren irabaztra ogeita zazpira errial (4):* iaz heldu ziren hogeita zazpina erreal irabaztera. */ irabaz tzazun juzgatruk [zrenian] (4):* epaitua zarenean irabaz dezazun. */ morroiek irabaztan zei anitx (10):* mutilek anitz irabazten zuten. */ eztakiar azkenean zer egitan gunien irabaztako (10):* ez dakit azkenean zer egiten genuen irabazteko.

irabazitu *(10)* : irabazi */ irabazitu diar! (10):* irabazi dut!

irabazka *(5)* : borrokan */ mitil koriek irabazka ari dra (5):* mutil horiek borrokan ari dira.

iradoki *(5)* : zirikatu, tentatu

irago *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : oihu, garrasi */ anitx nexar eta irago [entzun zren] (3):* negar eta oihu asko entzun ziren. */ ek azkatan zein obro iragua (3):* haiek gehiago altxatzen zuten oihua. */ urak asi zren irago andiago egitra (3):* haiek oihu handiagoak egiten hasi ziren. */ iltearen*

iragoa [urdu dik] (4): hiltzearen oihua zirudik. */ irago baten bidean (5):* oihu baten bidean (oihuka entzuteko moduan). */ iriko iragoa zeuriko iragoa (5):* herriko oihua zeruko oihua. */ eskuz naiz geiñuz naiz eleka edo iragoz dei egitan da (5):* eskuz nahiz keinuz nahiz hitzez edo oihuz dei egiten da.

irago egin *(3, 4, 7, 9, 10)* : oihu egin */ lotsaz beterik asi zren irago egiten (3):* beldurrez beterik oihu egiten hasi ziren. */ ñork ere ez du entzunen aren irago egitia plaztetan (3):* inork ere ez du entzungo haren oihu egitea plazetan. */ kalako gisan izan zen ankarra, iragoak egiten ztien (4):* halako moduan izan zen haserrea, oihuak egiten zituzten. */ irago egin zan (9):* oihu egin ezan. */ irago egin dien, irago egitan dien (10):* oihu egin din, oihu egiten din.

iragoka *(3, 7)* : oihuka */ [Jesus igartan zela entzutian], asi zren iragoka (3):* Jesus igarotzen zela entzutean, oihuka hasi ziren. */ iragoka [ebiltan dun] karrikan (7):* oihuka zabilen kalean.

irain *(3, 4, 5)* : iraun */ [txiki] iraintan du (3):* gutxi irauten du. */ zoinaiden etse berexirik ez du irainen (3):* edozein etxe bereiziak ez du iraungo. */ [kakeriak] irain daitad amaborz egunez (4):* beherakoak hamabost egunez iraun dit. */ betik baratan naz ernari, noiz artio irainen daun korko lana[k] (4):* beti geratzen naiz erne, noiz arte iraungo dion horko lanak. */ obro iraintan du barridean emazte gaixtoak ezik martxokoan elurrak (5):* gehiago irauten du auzoan emazte txarrak, martxokoan elurrak baino.

iraîn *(3)* : iraun */ Sodoma iraîn zaitekian oraino´re egunko egunian (3):* Sodomak iraun zezakeen oraindik ere egungo egunean.

irakaste *(5)* : ezkondei

irakaszale *(7)* : irakasle */ irakaszalea (7):* irakaslea.

irakatsaldi *(5)* : irakatsaldi (?) */ apezak leitu din paperetik yire lein irakatsaldia (5):* apaizak paperetik irakurri din hire lehen irakatsaldia (?).

irakatsi 1 *(7)* : irakatsi

irakatsi 2 *(4, 5)* : iragarri (ezkontzak) */ irakatsiz gero, eitzi dei bordalgiua (4):* iragarri ezkero, ezkontza utzi egin dute. */ irakatsiak igaririk bordaltu zen (5):* iragarriak igarota ezkundu zen.

irakin *(5)* : irakin */ azak eltxanoan atatan tur ura irakitan dagonean (5):* azal eltzetxoan sartzen ditut ura irakiten dagoenean.

irasagar *(5)* : *(bot.)* irasagar

iraski *(5)* : itzali

irasko 1 *(5, 10, 11)* : *(zoo.)* antxume irendu */ irasko[a] (5, 10):* antxume irendua. OH. Aznarezek ´aker´ esanahiarekin dokumentatua.

irasko 2 *(11)* : zamar (larruzkoa) OH. Aznarezek ´almadiazainek eta artzainek bizkarrean jartzen zuten ahuntz-larruz eginiko estalkia´ oharrarekin dokumentatua.

Irati *(4)* : *(geog.)* Irati */ Iratiko usiaren ostoak airiareki mobitan baidra (4):* Iratiko basoko hostoak haizearekin mugitzen baitira.

iratz *(2, 4, 5, 9)* : *(bot.)* iratze, garo

iratzarri *(3, 8)* : esnatu, iratzarri */ iratzartiari, [Josek] egin zion ainguriuak manatu zauna (3):* esnatzean, Josek egin zuen aingeruak agindu ziona. */ abañatan zrelarik diszipuluak, iratzarri zabein (3):* ikasleak hurbiltzen zirela, esnatu zuten.

iratzi *(5)* : iragazki

irauski *(4)* : jetzi */ xaxgiua, ardien bilgunia xaxtako edo irauskitako edo erextako (4):* jetzitegia, ardien bilgunea jeizteko. OH. Mendigatxak argiturik, ardiak, ahuntzak edo behiak irauskitzen dira. Edo arkume, antxume edo txahal bati esnea ahora jezten diotenean.

irazarzale *(7)* : iratzargailu */ irazarzalea izariren dur (7):* iratzargailua jarriko dut.
irazi *(3)* : iragazi */ [edaten tzein guziua] iraztan baitzei, badagonez ote zomait muxkito (3):* edaten duzuen guztia iragazten baituzue, ba ote dagoen zenbait eltxo.
irazka *(5)* : iratzetara (joan), garotara (joan); iratzetan (ibili)
irazkegi *(5)* : ehundegi
irazki 1 *(3, 5)* : ehundu, bilbatu */ eta [ñardun korona bat] irazkitan zeilarik, buriuaren gainian [izari zabein] (3):* eta lahardun koroa bat bilbatzen ziotela, buruaren gainean jarri zioten.
irazki 2 *(5)* : iragazki
irazkin *(5)* : ehule-askari
irazkitoi *(5)* : iraztoki OH. Ikus ´iraztoki´ sarrerako oharra.
irazkitu *(5)* : ehundu, bilbatu
irazmeta *(5)* : *(nek.)* iratze-meta, garo-meta
iraztoi *(1)* : iraleku, garoleku */ iraztoi buria (1):* iraleku goialdea.
iraztoki *(5)* : iraztoki OH. Ehungailuaren zurezko atala, ehunari eusteko ezker-eskuin jartzen dena.
iregotxi *(5)* : eultzitu, garia jo
iresi *(5)* : orraztu
iretsi *(9)* : irentsi */ eztokezu irets (9):* ez dezakezu irents.
iri 1 *(1, 3, 4, 5, 7, 10)* : herri; hiri */ iri berri[a], iri luzea (1):* herri berria, herri luzea. */ iri buria, iri ondoa (1):* herri goialdea, herri ondoa. */ ura da salbatu biar diona bere iria (3):* hura da bere herria salbatu behar duena. */ iriko erakuszale edo eskribaîak (3):* herriko irakasle edo eskribauak. */ [Jesus] faiten zen sontotan zoin-naiden erigua irikuer (3):* Jesus herrikoei zeinahi gaixotasun sendatuz zihoan. */ gente koriek fan ditian irietra erostra zer xan (3):* jende hori herrietara joan dadin, zer jan erostera. */ Erronkari balle kontako zomait iritan erraitan den gisa (3):* Erronkari ibar honetako zenbait herritan erraten den moduan. */ frankoek kantatan dei irian (4):* frankoek herrian kantatzen dute. */ iriko gizon guziuetarik eztud baizik laur zarrago (4):* herriko gizon guztietatik lau baizik ez dut zaharrago. */ egun kontan xin zitzaukun elurra abantxu iriaraino (4):* egun honetan elurra etorri zitzaigun ia herriraino. */ eskiuek eta biziek egiten tei iriak (5):* eskuek eta biziek egiten dituzte herriak. */ iriko iragoa zeuriko iragoa (5):* herriko oihua zeruko oihua. */ ebil adi iritik, elika adi etsetik (5):* ibil hadi herritik, elika hadi etxetik. */ Erronkariko irietan uskararen arima salbatu deiner (7):* Erronkariko herrietan euskararen arima salbatu dutenei. */ nora zoatza? iriara (7):* nora zoaz? herrira. */ borzgarna keben, irian (10):* bosgarrena (alaba) hemen, herrian. OH. Antzina ´iri´ hitzak gaur egungo ´herri´ (= etxe multzoa) erran nahi zuen. Ikus ´erri 1´ sarrera.
iri 2 *(3)* : herri, jende */ azkenik, akabatu baikoz Jesusek diskurrimentu kaur, entzutan zabein iriek [admiratan zabein] aren dotrina (3):* azkenik, Jesusek pentsamendu hau bukatu bezain laster, entzuten zuen herriak haren doktrina miresten zuen. */ Jesusek erran [zaun] iriari ´zer ekustra erkin zrei?´ (3):* Jesusek erran zion herriari ´zer ikustera atera zarete?´. */ ura iriari [platikatan zagon] (3):* hura herriari hitz egiten zegoen. */ [eskiuak] ekuzi ztion iriaren agerrian (3):* eskuak garbitu zituen herriaren agerian.
iriki 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : ireki */ zeuriak iriki zitzazkan (3):* zeruak ireki zitzaizkion. */ iriki dazaguzu [borta]! (3):* ireki iezaguzu atea! */ [bere au dibinoa] irikitan (3):* bere jainko ahoa irekitzean. */ bortan dei zazei eta irikiren daizei (3):* atean dei ezazue eta irekiko zaizue. */ iriken dur ñore aua, mintzatako parabolekin (3):* neure ahoa irekiko dut, parabolaz mintzatzeko. /

irikirik bere kofriak (3): beren kutxak irekirik. */ irikirik izan tian gore begiak (3):* irekiak izan daitezen gure begiak. */ [ene ezpainak] iriken dutzu (4):* nire ezpainak irekiko dituzu. */ borta bat zerratan denean, [berze bat] irikitan da (5):* ate bat ixten denean, beste bat irekitzen da. */ irik zazu lexoa (7):* ireki ezazu leihoa. */ aua irik (8):* ahoa ireki. */ iriki tzeia borta? (9):* ireki al duzue atea? */ agoa iriki (10):* ahoa ireki.

iriki 2 *(4)* : labakitu, lanberritu (mendiak) */ [mendia] irikirik [dago] (4):* mendia labakituta dago.

iriki 3 *(4)* : *(alb.)* bularra laxatu (zaldiei, mandoei)

iriki 4 *(5)* : pitzatu, arraildu OH. Azkuek, adibide gisa, ´gaztaina´ dio.

irikotxi *(9)* : eultzitu, garia jo */ irikotxi diegun, irikoixtako (9):* eultzitu dinagu, eultzitzeko.

irin 1 *(3, 5, 8, 9, 10)* : irin */ [orantza] nastekatu iror almute irinekin (3):* legamia nahasi hiru almute irinekin. */ irina (9, 10):* irina.

irin 2 *(3, 5)* : iraun */ betik irinen dion bizian [xinestan dud] (3):* beti iraungo duen bizian sinesten dut. */ anitx irin du (5):* anitz iraun du.

irin-errauts *(5)* : irin-hauts

irintu *(5)* : irindu

irisko *(5)* : *(zoo.)* idisko

iritsi *(2)* : iritsi, heldu */ borontetik burarreara eskiaren iristea (2):* kopetatik bularrera eskua iristea.

iritzarri *(8, 9)* : esnatu, iratzarri */ nobedaderik bage, iritzarri biamen goxan (8):* nobedaderik gabe iratzarri (zen) biharamun goizean. */ lo dagona iritzar (8):* lo dagoena iratzarri. */ iritzar ari (9):* iratzar hadi.

irixko 1 *(5)* : herrixka OH. ´Irisko´ ere dokumentatua.

irixko 2 *(5)* : *(zoo.)* idisko; zezenko (hiru urtekoa)

iriztu *(5)* : beratu, umeldu (frutak)

irla *(5)* : iturburu-leku

iroltu *(5)* : abortatu, hilaurtu */ iroltu da (5):* abortatu egin du.

iroltzi *(5, 9)* : bahetu (irina) */ irinen irolzkitako makoak ´gernea´ du izena (5):* irina bahetzeko makilak ´gernea´ du izena. */ irin irolztan nindagoa (9):* irina bahetzen nengoen. */ iroltzi diar [irina] (9):* bahetu dut irina. */ irin iroltzi[a] (9):* irin bahetua.

irolzki *(5)* : bahetu */ irinen irolzkitako makoak ´gernea´ du izena (5):* irina bahetzeko makilak ´gernea´ du izena.

iror *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : hiru */ iror zaldo (1):* hiru zaldu (?). */ irormaieta (1lm):* hiru maileta (?). */ eskuko eribiatxaz iror krutxeren egitia (2):* eskuineko erpuruaz hiru gurutze egitea. */ iror etsaiak [baitrade] (2):* hiru etsaiak baitira. */ lein irorak (2):* lehen hirurak. */ bi edo iror [aldiz] (3):* bi edo hiru aldiz. */ urrutxak iror edo laur urtetakuan ebakitan dra (4):* hurritzak edo lau urtera ebakitzen dira. */ bat, bida, iror, laur (5):* bat, bi, hiru, lau. */ iroretan (5):* hiruretan (ordua). */ irortra [eltuz] geroz ez da sekretorik (5):* hiruretara helduz gero ez da sekreturik. */ iror miisetarik (5):* hiru motako izarak. */ irorek moite dei anitx [amani] (7):* hirurek oso maite dute amona. */ irorak alargun [gra] (8):* hirurak alargunak gara. */ iror sugekandra (9):* hiru sugandila. */ iror uskaldun (10):* hiru euskaldun. */ guk irorek erdara (10):* guk hirurok erdara. */ irorak [dra] (10):* hirurak dira (ordua).

irorein *(7, 8, 9, 10)* : hiruehun */ lurretik goikoaraino irorein eta larogeita borz mila kilometro dago (7):* lurretik ilargiraino hiruehun eta laurogeita bost mila kilometro dago.

irorgarnen *(3, 4, 7)* : hirugarren */ irorgarnen egunian (3):* hirugarren egunean. */ gaiza bera agitu*

zitzaun irorgarnari (3): gauza bera gertatu zitzaion hirugarrenari. */ irorgarnen gloria (4):* hirugarren aintza. */ irorgarnen ikasgei[a] (7):* hirugarren ikasgaia. */ Beñat izan da irorgarna (7):* Beñat izan da hirugarrena.

irorgarren *(2, 5, 10)* : hirugarren */ irorgarren artikloa (2):* hirugarren artikulua. */ lein oputzean belain gainera, bigarren oputzean gerruntziara, irorgarrenean bularrera, azkenekotz soin gainera (5):* lehen ahaleginean belaun gainera, bigarrenean gerrira, hirugarrenean bularrera, azkenekoz sorbalda gainera. */ irorgarna (10):* hirugarrena.

irorogei *(3, 4, 7, 8, 10)* : hirurogei */ lur onian emon zein frutu, non batarik ein, non irorogei (3):* lur onean fruitua eman zuten, non batetik ehun, non hirurogei. */ irorogei ta zortzi urte (4):* hirurogeita zortzi urte. */ irorogei urte badizu (8):* badu hirurogei urte. */ orai diez irorogeita bost [urte] (8):* orain hirurogeita bost urte ditut. */ irorogei urte (10):* hirurogei urte. */ irorogeita amazortzi urte (10):* hirurogeita hemezortzi urte.

irorogeitamar *(3, 7, 8, 10)* : hirurogeita hamar */ irorogeitamar aldiz (3):* hirurogeita hamar aldiz.

iroski *(5)* : eradoski, edoskiarazi (abereei)

irrimuntio *(5)* : *(anat.)* hatz-mami, eri-mami

irrintziri 1 *(5)* : irrintzi (zaldiena)

irrintziri 2 *(4)* : irrintzi */ menditarren irrintziriak zeuriaraino igaitan dra (4):* menditarren irrintziak zeruraino igotzen dira.

iru *(5)* : hiru */ iru makilukaldi aldi bapanean emon (5):* hiru makilakada aldi bakoitzean eman.

iruñatar *(6)* : iruindar */ iruñatarra (6):* iruindarra.

iruñetar *(6)* : iruindar */ iruñetarrak (6):* iruindarrak.

irur *(1, 2, 3, 4, 5, 10)* : hiru */ irurmaieta (1lm):* hiru maileta (?), hiru mahai eta (?). */ irur egun eta irur gai (3):* hiru egun eta hiru gau. */ lein irurak eta berze zazpiak (3):* lehen hiruak eta beste zazpiak. */ kementik irur urteren buruko (4):* hemendik hiru urteren buruko. */ berze irurak (4):* beste hirurak. */ iparrak irur dra Erronkarin; ipar beltza, ipar fina ta ipar gorria (5):* iparrak hiru dira Erronkarin; ipar beltza, ipar fina eta ipar gorria. */ irurak gustatan zaizkad, kau xa (5):* hirurak gustatzen zaizkit, batez ere hau. */ irurez eginen dugu (5):* hiru modutan eginen dugu. */ irurak xuntatan gindenian, anitx elerraitan gindezun (10):* hirurak elkartzen ginenean, anitz hitz egiten genuen.

irurein *(4)* : hirurehun */ nik entzutiaz dud izeiak eta lerrak irurein urteren bizia deila (4):* nik entzutea dut izeiek eta lerrek hirurehun urteko bizia dutela.

irurgarnen *(3, 4)* : hirugarren */ irurgarnen kapitulua (3):* hirugarren kapitulua. */ leinian, bigarnian, irurgarnian, laurgarnian, borzgarnian (4):* lehenean, bigarrenean, hirugarrenean, laugarrenean, bosgarrenean.

irurgarren *(2, 3, 5)* : hirugarren */ irurgarren egunian (2):* hirugarren egunean. */ irurgarna (2, 3):* hirugarrena. */ irurgarren oina (5):* hirugarren solairua.

irurogei *(10)* : hirurogei */ baziezun irurogei urte ikasi niela nik (10):* baziren hirurogei urte ikasi nuela nik.

irurzu *(4)* : ahunzkara (ahuntza arreske)

isabar *(6)* : izabar */ isabarrak (6):* izabarrak.

isari 1 *(3, 4, 5)* : jarri */ [diabiuak Jesus] isari zitzaun tenploaren goienian (3):* deabruak Jesus tenpluaren goienean jarri zuen. */ [bere bizitia Kafarnaunen] isartan du (3):* bere bizitza Kafarnaunen jartzen du. */ edo isartan bada [meza]ren ez entzutako peligrotan (3):* edo meza ez entzuteko arriskuan jartzen bada. */ [Jesusen unguriuan] isaririk (3):* Jesusen inguruan

jarririk. */ [merezinek] sontotu nei, eta isari xateko ganu on batian (4):* medizinek sendatu naute, eta jateko gogo onean jarri. */ egun xa estaud obro isartan (4):* gaur jadanik ez diot gehiago jartzen. */ [antzineko itzetan bikala] isaren dud (4):* aurreko hitzetan bezala jarriko dut. */ gu isaren gutuk (4):* gu jarriko gaituk. */ urrutxaz egiten da xoraltiak, aziender lepuetan txintxerreki isartako (4):* hurritzaz lepokoak egiten dira, aziendei lepoan zintzarriekin jartzeko. */ sekula gari anit[x] izaiteak ez du isartan urte gaxtorik (5):* sekula gari asko izateak ez du jartzen urte txarrik. */ bedatsean, ostazaroan, izeia eznean isartan da (5):* udaberrian, hostaldian, izeia izerditan jartzen da.

isari 2 *(5)* : ezarri

isarle *(5)* : teilagin OH. Azkuek ´teila handiak eta adreiluak eguzkitan jartzen dituen teilagina´ esanahiarekin dokumentatua.

isi *(5)* : burugogorkeria, tema

isi! *(5)* : ixo!

isigogor *(5)* : burugogor, tematı

isiki *(5, 7)* : piztu */ sua isiki dur (7):* sua piztu dut.

isil *(5)* : isil (adj.) */ isilaren gaiza guziuak dra sekreto (5):* isilaren gauza guztiak dira sekretu.

isilara *(5)* : isilean

isilik *(5)* : isilik */ isilik egon yaiteke (5):* isilik egon haiteke.

isilki *(5)* : isil, isilkor (pertsona)

isilskara *(5)* : isilean

isiltu *(5)* : isildu

isitu *(5)* : burugogortu, tematu

iskilima *(5)* : orratz

iskilinba *(5)* : orratz OH. Iparraldean ere dokumentatua.

iskintegi *(5)* : *(erai.)* kartzela, presondegi

istante *(3)* : istant, une */ [figo-arbolia] nola exartu da istante batian? (3):* pikondoa nola ihartu da istant batean? */ istante berian (3):* une berean.

istezain *(5)* : *(anat.)* belaunpe, iztezain

istondo *(5)* : *(anat.)* iztai, izterrondo

isuri 1 *(5)* : isuri

isuri 2 *(5)* : fruitugabetu (arbolari fruituak kendu)

itain 1 *(5)* : *(zoo.)* akain, kapar

itain 2 *(5)* : landare-ilara

itaixur *(5)* : itogin, itaxur

italdi *(5)* : anega (ale neurria)

itaxur *(9)* : itogin, itaxur */ itaxur bat, itaxurak (9):* itogin bat, itoginak.

itixur *(9)* : itogin, itaxur */ itixura (9):* itogina, itaxura.

ito *(9)* : ito

itotu 1 *(3, 5, 7)* : ito */ lepotik [arrapatan zaularik], itotan zaun (3):* lepotik harrapatzen zuela, ito egiten zuen. */ [txerriak] baratu zren itotruk uretan (3):* txerriak itota geratu ziren uretan. */ karek ele gaiztoz itotu du beste kura (5):* hark hitz gaiztoz beste hura ito du. */ [puzian] itotu dun (7):* putzuan ito dun.

itotu 2 *(5)* : ito (lanean)

itsaso *(10)* : *(geog.)* itsaso */ eta itsasuan... igirikan (10):* eta itsasoan... igerian.

itsunizka *(5)* : itsu-itsuka (jolasa)

itsusi *(5, 10)* : itsusi, zatar */ itsusi dago jentearen aitzinean eskoinezko lanak ezkerraz egitea (5):* itsusi dago jendearen aitzinean eskuineko lanak ezkerraz egitea. */ orai itsusiago [da dantza] (10):* orain zatarragoa da dantza. */ belaizurik egutxan sar kan guziak, etzulukaka, kori gaiza itsusia! (10):* biluzik ibaian sartu han guztiak, itzulipurdika, hori gauza zatarra!

itsustarzun *(3)* : itsustasun */ bekatiuaren itsustarzunagatik (3):* bekatuaren itsustasunagatik.

itsustu *(5)* : itsustu, zatartu */ jentea itsustan dei (5):* jendea itsusten dute. OH. Azkuek ´itxustan´ dokumentatua.

itsutsi *(5)* : itsutu

ittilton *(10)* : dilindan, zintzilik */ ittilton idortan zia kor zenbra (10):* dilindan hor lehortzen zen zenbra.

iturbegi *(5)* : iturburu

iturri *(1, 2, 4, 5)* : iturri */ iturri zarra, iturria (1):* iturri zaharra, iturria. */ iturriak (2):* iturriak. */ kakeria bat, iturriko ura bikain argi (4):* beherakoa, iturriko ura bezain argia.

iturribegi *(5)* : iturburu

itxaso *(2, 3, 4, 5, 8)* : *(geog.)* itsaso */ itxasoak eta ugatxak (2):* itsasoak eta ibaiak. */ itxaso bazterrian [xaseririk zagon] (3):* itsas bazterrean eseririk zegoen. */ Kafarnaun itxasoko ziudade, Zabulonen altakan (3):* Kafarnaun itsasoko hiria Zabulonen alboan. */ [Jesus] erabiltan zelarik itxasuaren erribran (3):* Jesus itsas erriberan zebilenean. */ Tiberiadeseko itxasuara [faiten da] (3):* Tiberiadeseko itsasora joaten da. */ txuti izaririk, manatu [zabein] airer eta itxasoari aplaka litiala (3):* zutik jarririk, haizeei eta itsasoari bare litezela agindu zien. */ kantik itxasoz fan zen (3):* handik itsasoz joan zen. */ itxasoa bino andiago (4):* itsasoa baino handiagoa. */ itxasoaz ere eramaiten dei nai dein lekiuetra (4):* itsasoz ere eramaten dute nahi duten lekuetara. */ bortiua eta itxasoa ez dionak igari ez daki otoi egiten Jangeikoari (5):* bortua eta itsasoa ez dituenak igaro ez daki otoitz egiten jaungoikoari. */ ni eninden sarten itxasoan, obro milla ezik bilo-punta durana bekinbat emonik ere (5):* ni ez nintzen itsasoan sartuko, ditudan ile-puntak baino milako gehiago emanik ere. */ mendia eta itxasua, anitx pollit (8):* mendia eta itsasoa, oso politak.

itxeki *(5)* : atxiki */ begia itxeki (5):* begia atxiki. OH. ´Begia atxikitzea´ edo eranstea, adi-adi egotea.

itxiki 1 *(5, 9)* : atxiki, eduki */ lur-ileko gramatto ulunetan jansoa ta lukainkak itxikitan tugu, zumail egon tean (5):* lur-zoruko (?) jakitoki ilunetan urdaia eta lukainkak atxikitzen ditugu, fresko egon daitezen. */ xako konek zomat pinta itxikiren al du? (5):* zahato honek zenbat pinta eduki ahal ditu? */ no, itxiki zan (9):* no, eduki ezan.

itxiki 2 *(5, 6, 9)* : kabitu, sartu */ gonkatxiki korrek eztiozu itxikitan garia (9):* anega erdi horretan ez da garia kabitzen.

itxosu *(7)* : itsusi */ zar eta itxosu (7):* zaharra eta itsusia.

itxura 1 *(5)* : itxura OH. Azkuek ´eraikinen itxura, pertsonena´ oharrarekin dokumentatua.

itxura 2 *(5)* : itsuka

itxusi *(5)* : itsusitu

itz *(2, 3, 4, 5, 6)* : hitz */ zoin drade itz gaxtoak? (2):* zein dira hitz gaiztoak? */ klaroagoki erran zaran itz kuetan (2):* argiago erran dezadan hitz hauetan. */ tenpra berian errata´tielarik itzak (2):* denbora berean hitzak esaten dituela. */ izan gitiala xai itzez [eta] pensamentuz (2):* garbiak izan gaitezela hitzez eta pentsamenduz. */ itz bat [entzun zen] (3):* hitz bat entzun zen. */ mana*

beza orren itzaz (3): agindu beza berorren hitzaz. */ bere elia edo itzarekin egotxtan ztion espiritu gaxtoak (3):* bere ele edo hitzarekin espiritu gaiztoak botatzen zituen. */ berze itz banak ere isartan daud (4):* beste hitz batzuk ere jartzen dizkiot. */ kunplitiagatik ñore itza (4):* neure hitza betetzeagatik.

itz eman *(5)* : hitz eman

itz emon *(6)* : hitz eman

itz-jale *(5)* : hitz-jale OH. Hitza jaten duena, atzera egiten duena.

itza emon *(3, 7)* : hitza eman */ emoiten daidzeid ñore itza ez diola galten bere pakiua (3):* neure itza ematen dizuet ez duela galduko bere ordaina.

itza jan *(5)* : hitza jan

itzadura 1 *(5)* : suge-hozkada

itzadura 2 *(5)* : pozoi

itzagur *(2, 4, 5)* : *(bot.)* intxaur */ zer emon dabei? itzagurrak emon dabei (4):* zer eman diate? intxaurrak eman dizkiate.

itzagurratze *(5)* : *(bot.)* intxaurrondo

itzagurtze *(4)* : *(bot.)* intxaurrondo */ eztago arbole frutuzkorik, ez bada zomait itzagurtze (4):* ez dago fruitu-arbolarik, ez bada zenbait intxaurrondo.

itzal 1 *(2, 9, 10)* : itzal */ itzalara diozu (9):* itzalean dago.

itzal 2 *(5)* : itzal, errespetu

itzal 3 *(5)* : funts, mami */ egunko sermonak etzion itzalik (5):* egungo sermoiak ez zuen mamirik.

itzal andiko *(5)* : itzal handiko, errespetagarri */ itzal andikoa (5):* itzal handikoa, errespetagarria.

itzalgune *(5)* : itzalgune

itzalkio *(5)* : itxi-usain

itzalkîo *(5)* : itxi-usain OH. Zaraitzun ´itzalurrin´ dokumentatua.

itzalotz *(5)* : gauzaez (pertsona)

itzartu *(5)* : hitz hartu, konprometitu */ nik kalakoa itzartu dakad (5):* nik halakoa hitz hartua daukat.

itzatu 1 *(5)* : zizt egin

itzatu 2 *(5)* : hozka egin (sugeak)

itze 1 *(4, 5, 8, 9)* : iltze */ itzia sartruk dakad (4):* iltzea sarturik daukat. */ itze bat (8, 9):* iltze bat.

itze 2 *(5)* : *(tek.)* ezten

itzegile *(5)* : iltzegile

itzel *(9)* : itzal */ ots itzelara (9):* goazen itzalera. */ itzelan (9):* itzalean.

itzemin *(5)* : *(med.)* itzemin, erpuruko (hatzetako gaitza) */ itzemina edaratea beino gaiztoago da ta axaxalpean sortan da (5):* itzemina edaratea baino txarragoa da eta azazkalpean sortzen da.

itzetik ortzera *(5)* : hitzetik hortzera, berehala

itzigur *(9)* : *(bot.)* intxaur */ itzigur xatra (9):* intxaurrak jatera.

itzuki *(5)* : kabitu, sartu

itzuli *(5)* : mindu, garraztu (esnea)

ixa *(5)* : *(med.)* negal (azalekoa)

ixal *(10)* : itzal */ ixala (10):* itzala.

ixara *(1)* : *(erai.)* errota */ ixaraberrieta (1lm):* errota berri eta. OH. Ikus ´ixera´ eta ´exara´ sarrerak eta haietako oharrak.

ixatu 1 *(5)* : *(haur.)* egosi

ixatu 2 *(5)* : *(haur.)* erre (labean)
ixeki *(5)* : erre (sutan egon)
ixera *(1)* : *(erai.)* errota */ ixeraberrieta (1):* errota berri eta. OH. Iparraldeko ´eihera´ eta mendebaldeko ´igara´ arkaikoaren Erronkariko formak dira ´exera´ eta ´ixera´.
ixigi *(4)* : piztu */ kalenturak ixigitan nu (4):* sukarrak pizten nau.
ixiki 1 *(3, 5, 8, 9, 10)* : piztu */ ixiki ere ez deiteke argia izartako almute baten pean (3):* argia piztu ere ezin da egin, almute baten pena jartzeko. */ tenpestade izanen da egun, zeren zeuria baitago ixikirik (3):* gaur ekaitza izanen da, zeren zerua pizturik baitago. */ sua lotu zunien eta ezezen nai ixiki (5):* sua itzali zitzaien eta ez zuten piztu nahi. */ ñork ezion sua ixiki (5):* inork ez zuen sua piztu. */ sua ixiki, sua egin (8):* sua piztu, sua egin. */ bi bela ixikirik izari (8):* bi kandela pizturik jarri. */ [sua] ixiki dur (9):* sua piztu dut. */ argi bat ixikirik (9):* zuzi bat pizturik.
ixiki 2 *(5, 9)* : erre (sutan egon) */ ixikitan (9):* erretzen, sutan.
ixikigei *(5)* : pizgarri, suspergarri
ixikitu 1 *(5)* : piztu */ txaramilla ixikitu (5):* tximinia piztu. */ udan ixikitan gra ta negiuan karroia (5):* udan pizten (erretzen) gara eta neguan izotza.
ixikitu 2 *(5, 9)* : erre */ ixikitan (9):* erretzen, sutan.
ixikor *(5)* : sukoi, suharbera
ixil 1 *(6)* : isil
ixil 2 *(6)* : isilik
ixil egon *(6)* : isilik egon
ixilarazi *(4)* : isilarazi */ ixilaraztako, esku zeñuareki erraiten zaun ´txiflete bat emoyen [n]oke´ (4):* isilarazteko, esku keinu batekin esaten zion ´zaplastako bat emango niake´.
ixildu *(6)* : isildu
ixilean *(5)* : isilean */ kura tripabage bat da; ez dozke gaizak ixilean eroki (5):* hura ahozabal bat da; ez ditzake gauzak isilean eduki.
ixilik *(3, 4, 11)* : isilik */ gentek ankar egiten zabein, ixilik egon litian (3):* jendeak errieta egiten zien, isilik egon litezen. */ kura ixilik egon da (4):* hura isilik egon da. */ zerengatik izan den, beren artian dakei ixilik (4):* zergatik izan den, beren artean daukate isilik.
ixilka *(5, 6)* : isilka
ixilkean *(5)* : isilpean
ixilki 1 *(3)* : isilik */ ixilki [eiztia pensatu zion] (3):* isilik uztea pentsatu zuen.
ixilki 2 *(7)* : ahopean, isilki */ ele erranen diagu ixilki (7):* ahopean hitz eginen diagu.
ixiltarzun *(4)* : sekretu */ urliak kontatu zaun sandiari ixiltarzun guziua (4):* urliak sandiari sekretu osoa kontatu zion. */ zer arroitu da kori, austan baitu gaiazko ixiltarzuna? (4):* zer zarata da hori, gaueko isiltasuna hausten duena?
ixiltu *(3, 4, 7, 8, 9)* : isildu */ âlkez ixiltan diona zomait bekatu (3):* zenbait bekatu lotsaz isiltzen duena. */ txiflete bat emoyen doke[d], ez bayaz ixiltan (4):* zaplastako bat emango diat, ez bahaiz isiltzen. */ ixil ztei (4):* isil zaitezte. */ ixil zte! (7):* isil zaitez! */ ixil adi, bestela katxete bat baduk (8):* isil hadi, bestela zaplastako bat baduk. */ ixil adi (9):* isil hadi.
ixitor *(5)* : sukoi, suharbera
ixkilla *(9)* : kanpai, ezkila
ixkla *(9)* : kanpai, ezkila */ laur ixkla (9):* la ezkila. */ ixklak nabaritan tun, nor il da? (9):* kanpaiak aditzen ditun, nor hil da?

-ixko *(10)* : -txo */ zopaixkoak (10):* zopatxoak. */ txortaixko bat (10):* zurrutadatxo bat.
ixurri *(5)* : *(biol.)* guruin
iza *(5)* : ehiza
îza-txakur *(5)* : *(zoo.)* ehiza-txakur
Izaba *(4, 7, 9, 10)* : *(geog.)* Izaba */ Izaba mendiko mugan egon zren trabajatan (4):* Izaba mendiko mugan egon ziren lanean. */ non bizi zra? Izaban (7):* non bizi zara? Izaban. */ [gu] Izabako gra (7):* gu Izabakoak gara. */ non egon da egun? Izaban (9):* non egon da gaur? Izaban. */ Izabarik [xin nun] (9):* Izabatik etorri naun. */ Izabaradreino (10):* Izabaraino.
izabar *(6, 7, 9, 11)* : izabar */ izabarra (6):* izabarra. */ ni naz izabar (7):* ni izabarra naiz. */ izabarrak (9):* izabarrak.
izagumentu 1 *(3, 5)* : ezagutza */ oraino´re izagumenturik bage zaudeia? (3):* oraindik ere ezagutzarik gabe al zaudete?
izagumentu 2 *(5)* : esker on
izagumentubage *(5)* : esker txarreko
izagun *(5)* : ageriko, nabari
izagunmentu *(3)* : ezagutza */ nola? baita xek ere zaudei izagunmentu kain txikirekin? (3):* nola? zuek ere hain ezagutza gutxirekin zaudete? (baita zuek ere).
izaguntra emon *(3)* : ezagutzera eman */ gunian emoitan da izaguntra jangeikuaren semea [dela] (3):* orduan ezagutzera ematen da jaungoikoaren semea dela. */ [gizoner barurten deila] emoiteko izaguntra (3):* barau egiten dutela ezagutzera emateko gizonei.
izaguntu *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : ezagutu */ zertako eman zaigun entelegia? aren izaguntako (2):* zertarako eman zigun ulermena? haren ezagutzeko (hura ezagutzeko) */ zer esketan gra? izan dadila mundu guzutik izaguntruk (2):* zer eskatzen dugu? mundu osoan ezaguna izan dadila. */ izaguntu bage (3):* ezagutu gabe. */ frutiuetaz izaguntan [da] arbolia (3):* fruituetatik ezagutzen da arbola. */ jangeikuari argi [eskatu] izaguntako bere kulpak (3):* jaungoikoari argia eskatu bere erruak ezagutzeko. *./ izena izan deila izaguntruk (3):* izena izan dadila ezagutua. */ izagun dozkezei (3):* ezagut ditzakezue. */ zeren nik izaguntan diez ñore gaxtotarzuna (4):* zeren nik ezagutzen baitut neure gaiztotasuna. */ ene mente guziuan kemen izaguntan da zûrezko trafik[u]a (4):* nire bizialdi osoan hemen zur trafikoa ezagutzen da. */ intenzionia dud bixita baten egiteko izaguntra (4):* bisita bat egiteko asmoa dut, ezagutzeko. */ goseak ez du izaguntan alkea (5):* goseak ez du ezagutzen lotsa. */ bizi guzian nik izaguntu bi apez (10):* bizi osoan nik bi apaiz ezagutu (ditut). */ Simona izaguntan zezein Uriña guzian (10):* Simona ezagutzen zuten Iruñea osoan.
izagunzale *(5)* : ezagutzaile
izagur *(10)* : *(bot.)* intxaur
izai *(5)* : *(bot.)* izei
izain *(4)* : iraun */ koralezko materialak izaintan du millaka urtiak (4):* enbor-muinezko materialak milaka urtez irauten du. */ [izeiak] bustirik izaintan du lerrezko koralak bikainbat (4):* izeiak bustirik pinuaren enbor-muinak bezainbat irauten du.
izaite 1 *(2, 5)* : izate
izaite 2 *(5)* : antz
izaitea *(5)* : eite, antz */ izaitea guziua du karena (5):* eite osoa harena du.
izan 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : izan */ aita izan dakigun otoiegile (2):* aita izan dakigun otoizlari. */ juangeiko izaitia (2):* jaungoiko izatea. */ estimaturik izaiteko (2):* estimatua izateko. */ zu zra,

zu zarade (2): zu zara. */ drenak, drade, dirade (2):* direnak, dira. */ iza[n] gintzela (2):* izan ginela. */ Kristoren sortiua izan zen gisa kontan (3):* Kristoren sorrera modu honetan izan zen. */ Jose bere senarra izaitian (3):* Jose bere senarra izatean. */ nik eginen diez el ztein izaitra arrantzari (3):* nik eginen dut hel zaitezten arrantzale izatera. */ ni naz, ni enaz (3):* ni naiz, ni ez naiz. */ kaur da (3):* hau da. */ zu zra (3):* zu zara. */ amar drade (3):* hamar dira. */ izan zen (3):* izan zen. */ gu gintzen (3):* gu ginen. */ xek zintzein (3):* zuek zineten. */ izan bagintz (3):* izan bagina. */ yik biar duk etseko izan (4):* hik etxeko izan behar duk. */ zer izanen den ote nitaz [pensatian] (4):* nitaz zer izanen ote den pentsatzean. */ artzain edo labrari izaiteko, badaki aski [solfa] (4):* artzaina edo nekazaria izateko, badaki nahikoa solfeo. */ da, yaz, zra (4):* da, haiz, zara. */ gu gra (4):* gu gara. */ ni nintzen (4):* ni nintzen. */ [izan] balidra (4):* izan balira. */ izan adi guziuer onki eginzale (5):* izan hadi guztiei on egilea. */ otz eta aire eta guzietarik izatan [da] (5):* hotz eta haize eta guztietatik izaten da (otsailean). */ apezaren zopen gisa goxo izaiteko (5):* apaizaren zopen gisa goxoa izateko. */ yi yaz (5):* hi haiz. */ biak dra (5):* biak dira. */ ni nintzen (5):* ni nintzen. */ yi ez yaz (6):* hi ez haiz. */ ez zra izan (6):* ez zara izan. */ ez gra, ez gutzu (6):* ez gara. */ ez zen [on] (6):* ez zen ona. */ [ama] balitz (6):* ama balitz. */ Beñat izan da irorgarna (7):* Beñat izan da hirugarrena. */ zer ordu izanen da] (7):* zer ordu izanen da? */ ni naz, yi yaz, zu zra, kura da (7):* ni naiz, hi haiz, zu zara, hura da. */ gu gra, zuek zrei ek dra (7):* gu gara, zuek zarete, haiek dira. */ nintzen, zintzen, zen (7):* nintzen, zinen, zen. */ gintzen, zintzein, zren (7):* ginen, zineten, ziren. */ banintz, bazintz, balitz (7):* banintz, bazina, balitz. */ bagintz, bazintzei, balidra (7):* bagina, bazinete, balira. */ ni naz (8):* ni naiz. */ gindela (8):* ginela. */ ni naz, nuk, nun (9):* ni naiz, nauk, naun. */ joan gra (9):* joan gara. */ banitz, baintz, bazina, baliz (9):* banintz, bahintz, bazina, balitz. */ bagina, bazinei, balira (9):* bagina, bazinate, balira. */ izan dun, izanen dun (10):* izan dun, izanen dun. */ izan balitz mitil ona, eginen zia sua (10):* mutil ona izan balitz, sua eginen zuen. */ izan deila bazkua anitx on (10):* izan dadila pazkoa oso ona. */ ni naz, yi yaz (10):* ni naiz, hi haiz. */ ziek zrei (10):* zuek zarete. */ ni ninden, yi yinden, zu zinden, gu ginden (10):* ni nintzen, hi hintzen, zu zinen, gu ginen.

izan 2 *(5)* : izan, eduki */ sekula gari anit[x] izaiteak ez du isartan urte gaxtorik (5):* sekula gari asko izateak ez du jartzen urte txarrik. */ [opil bero] izan balu, ezion xanen gore orantza (5):* opil beroa izan balu, ez zuen jango gure legamia.

izan 3 *(10)* : izan, egon */ bar degu izan sutondoan (10):* sutondoan izan behar dugu.

izan onki! *(7)* : ongi izan!

izan-molde *(3)* : izaera */ gizon karen azken izan-moldia xiten da izaitra lastimosuago ezik leina (3):* gizon haren azken izaera negargarriagoa da lehena baino.

izangu *(5)* : erresistentzia */ [zare bat xostan zagon], kostura ezaman pollit, baia izangiua zinez (5):* saski bat josten ari zen, jostura ez zeraman polit, baina erresistentzia zinez. OH. Azkuek ´lehen aldia da, eta bakarra, ´izangu´ hitz bitxia ´erresistentzia´ esanahian entzun dudana´ oharrarekin dokumentatua.

izar 1 *(2, 3, 4, 7, 9, 10)* : *(astr.)* izar */ zeuriko izarrak (2):* zeruko izarrak. */ izar ekusi zeina, faiten zen beren antzinian (3):* ikusi zuten izarra beren aurrean joaten zen. */ zeren guk ekusi baitigu bere izarra (3):* zeren guk haren izarra ikusi baitugu. */ izarrak eroren dra zeuritik (3):* izarrak zerutik eroriko dira. */ eztago goikorik ez izarrik zeurian (4):* ez dago ilargirik ez izarrik zeruan. */ zeuruan (zeurian) anitx izar [dago] (7):* zeruan izar asko dago. */ izarrak gaiaz ekustan dra (7):* izarrak gauez ikusten dira. */ izarren dirdirtarzuna (7):* izarren distira. */ izarretan (9):* izarretan. */ izarrak (10):* izarrak.

izar 2 *(5)* : *(med.)* begi-lauso, gandu

izari *(3, 4, 5, 7, 8, 10)* : jarri */ ixiki ere ez deiteke argia izartako almute baten pean (3):* argia piztu ere ezin da egin, almute baten pean jartzeko. */ beira zazei axkora izaririk dagola xa arbolien izorroara (3):* begira ezazue aizkora jada jarririk dagoela zuhaitzaren sustraian. */ seme bat, zoini izaren baitzu izenez Jesus (3):* seme bat, zeini Jesus izena jarriko baitiozu. */ gunian izaren tizei zure altare gainian xerreruak (4):* orduan jarriko dituzte zure aldare gainean aratxeak. */ burua bi bearrien artean izari (5):* burua bi belarrien artean jarri (= norbait zuzendu). */ irazarzalea izariren dur (7):* iratzargailua jarriko dut. */ sua egin ondo, esnia izar askaltako (8):* sua egin ondoan, esnea jarri gosaltzeko. */ bi bela ixikirik izari (8):* bi kandela pizturik jarri. */ rafiak bar tiagun izari (10):* teilatu-hegalak jarri behar ditinagu. */ letxuga izartan lurrian (10):* letxuga jartzen (landatzen) lurrean. */ ezin bil karpintero bat kristalen izartra (10):* ezin bildu zurgin bat kristalak jartzera.

izarki *(5, 9)* : erraustatu, errautsez estali */ izarki tzea sua? (9):* errautsez estali al duzu sua?

izarkian *(5)* : erraustaturik */ izarkian gaztaiñak erre (5):* erraustaturik gaztainak erre.

izarkitu *(5)* : erraustatu, errautsez estali */ [sua] izarkitu dian (5):* sua erraustatu dinat.

izarri 1 *(2, 7, 8, 9, 10)* : jarri */ non izarri ztien [zazpi sakramentiak]? (2):* non jarri zituen zazpi sakramentuak? */ mai geinian izarri diegu (7):* mahai gainean jarri dugu. */ bertan izarriren dutur (7):* berehala jarriko ditut. */ bi ollo biar dur izarri altekan (8):* bi oilo jarri behar ditut alboan. */ kotta kori gerremusiara [izarri dun] (9):* gona hori ifrentzuz jarri dun. */ izartako (9):* jartzeko. */ orai xa izarri da guzia kain kario (10):* orain jada guztia hain garesti jarri da.

izarri 2 *(5)* : ezarri

izartsu *(5)* : izartsu

izeba *(7)* : izeba

izei *(1, 2, 4, 5, 9)* : *(bot.)* izei */ izei luzea (1):* izei (leku) luzea. */ izei bakotxa (1):* izei bakarra. */ izeia andiago [da], baia txiki [dago] (4):* izeia handiagoa da, baina gutxi dago. */ lerrak [eta] izeiak (4):* lerrak (pinuak) eta izeiak. */ bedatsean, ostazaroan, izeia eznean isartan da (5):* udaberrian, hostaldian, izeia izerditan jartzen da. */ iz[e]iatzeak (5):* izei zuhaitzak. */ izeixko[a] (5):* izeitxoa. */ izeia (9):* izeia.

izeidoi *(1, 5)* : izeidi */ izeidoiko erreka (1lm):* izeidiko erreka. */ izeidoia (1, 5):* izeidia.

izen *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9)* : izen */ jeinaren izen saintia (2):* jaunaren izen santua. */ nola du izena? (2):* nola du izena? */ aita eta amaren izenian (2):* aitaren eta amaren izenean. */ aitaren izenean eta semearnean (2):* aitaren izenean eta semearenean. */ zore izena (3):* zure izena. */ amabien izenak dra kuek (3):* hamabien izenak dira hauek. */ ez digua egin guk anitx milagro zore izenian? (3):* ez al dugu guk egin mirari anitz zure izenean? */ seme bat, izenez Jesus (3):* seme bat, izenez Jesus (dena). */ antze zaitad izena (4):* izena ahaztu zait. */ kemen aztan dren arbole[n] izenak (4):* hemen hazten diren zuhaitzen izenak. */ orren izenian (4):* berorren izenean. */ eztu merexi isar bakotxaren izenik (4):* ez du merezi (zuhaitz) bakoitzaren izena jartzea. */ nola duk izena? (5):* nola duk izena? */ nola da zore izena? (7):* nola da zure izena? */ Altapazar da dien bere izena (7):* Altapazar da (Galipentzuk) duen bere izena. */ santifika bedi xore izena (8):* santu izan bedi zure izena. */ uskara[z] ez du izenik (8):* euskaraz ez du izenik. */ badakiar amaren izena (9):* bazakiat amaren izena.

izena ekun *(3, 4)* : izena eduki */ ekunen du izena ´Nazareno´ (3):* izena edukiko du ´Nazaretarra´. */ karta kontan oiltan daud nola dein izena aitek (4):* gutun honetan bidaltzen diot nola duten izena aitek (abere arrek).

izena izari *(3)* : izena jarri */ izari zaun Jesusen izena (3):* Jesus izena jarri zion. */ seme bat, zoini izaren baitzu izenez Jesus (3):* seme bat, zeini Jesus izena jarriko baitiozu.
izenburu *(5, 7)* : abizen, deitura */ nola da zore izena? eta izenburia? (7):* nola da zure izena? eta abizena?
izengain *(3)* : izengoiti, ezizen */ Simon, izengainez Pedro (3):* Simon, izengoitiz Pedro.
izengatx *(5)* : izengoiti, ezizen */ guneko gogoan nakan aitaderraren izengatxa (5):* ordurako gogoan neukan aitabitxiaren izengoitia.
izerdi 1 *(2, 5, 10)* : izerdi */ on da oian sartea ta izerdiz sudurretako estura egosaraztea (5):* ona da ohean sartzea eta hotzeria izerdiz egosaraztea. */ izerditan (10):* izerditan.
izerdi 2 *(5)* : *(bot.)* izerdi
izerdi egon *(5, 10)* : izerditan egon */ izerdi nago (5):* izerditan nago. */ izerdi dion (10):* izerditan zagon.
izerdi uarrez *(5)* : izerdi patsetan
izerdi ur-urean *(5)* : izerdi patsetan
izerdi-ats *(5)* : izerdi-lurrun
izerdi-txorta *(5)* : izerdi-tanta
izerdi-uar *(5)* : izertza
izerditan egon *(5)* : izerditan egon */ izerditan nago (5):* izerditan nago.
izerdixka *(5)* : izerditxo
izerdizka *(5)* : izerditxo
izerpulpul *(5)* : izerdi-tanta
izert *(4)* : izerdi
izertagatx *(5)* : izerdigaitz OH. Nekez izerditzen den pertsona.
izertakoi *(5)* : izerbera, izerdikor
izertaldi *(5)* : izerdialdi
izertatu *(5, 7)* : izerdia egin; izerditu
izertazale *(5)* : izerbera, izerdikor
izertu *(9)* : izerditu */ nola izertan den gizon [kau]! (9):* nola izerditzen den gizon hau! OH. Gipuzkoan ere dokumentatua.
izexka *(5)* : izerditxo
izi *(5)* : izu, ikara
izikor *(5)* : izuti, izukor
iziti *(5)* : izuti, izukor
izka *(5)* : liskar, ika-mika
izkatu 1 *(5)* : liskartu, sesiotan ibili
izkatu 2 *(5)* : hoztu (adiskidetasuna)
izkilantto *(7)* : kanpaitxo, ezkilatxo */ mitilari deitako toka zak izkilanttoa (7):* zerbitzariari deitzeko jo ezak kanpaitxoa.
izkimizki ebili *(5)* : izkimizki ibili OH. Batetik bestera ibili galdezka nahiz kontakatilu.
izkin *(5)* : zaputz, muzin
izkin egon *(5)* : zaputz egon; negarguraz egon */ ez asiren bai asiren nexarrez dagonean, ´aur kori erkale dago edo izkin dago´ erraitan dugu (5):* ez hasiko bai hasiko negarrez dagoenean, ´haur hori erkale dago edo izkin (negarguraz) dago' esaten dugu.
izko *(5)* : pixka, zatitxo

izlari *(5)* : ehiztari
izorra berri *(5)* : haurdun berri, izorra berri
izorro *(2, 3, 4, 5, 9)* : *(bot.)* sustrai, zain, erro */ uturri eta izorro bikala [sortan dra] (3):* iturri eta sustrai bezala sortzen dira. */ beira zazei axkora izaririk dagola xa arbolien izorroara (3):* begira ezazue aizkora jada jarririk dagoela zuhaitzaren sustraian. */ iguzkia erkiti[an, aziak] exartu zren, zeren ez baizein izorrorik (3):* eguzkia irtetean, haziak ihartu ziren, zeren ez baitzuten sustrairik. */ urrutx zarrak ebaki, eta brotoin eta izorrek (sic) egoxten teinak ebakitan dra (4):* hurritza ebaki eta, kimuak eta sustraiak ateratzen zaizkienak ebakitzen dira. */ erkin zan izorrotik (9):* atera ezan errotik.
izorroz *(5)* : errotik; funtsean
izotz 1 *(2, 5)* : *(met.)* izotz */ izotza eta otza (2):* izotza eta hotza.
izotz 2 *(5)* : *(met.)* antzigar
izotz 3 *(5)* : *(met.)* ihintz
izotz 4 *(5)* : laino-ur OH. Erronkaribarren, eta batez ere Uztarrozen, ´izotz´ hitzak hedadura handia izan zuen meteorologian. Ikus ´izotz 2´ eta ´izotz 3´ sarrerak.
izotz-babada *(5)* : *(met.)* antzigar
izozko *(5)* : hozbera
izpe *(5)* : isilpe
izpean *(5)* : isilpean
izpelko *(9)* : *(bot.)* izpiliku
izpi 1 *(5)* : izpi, argi izpi
izpi 2 *(4)* : izpi (landareena) */ gariak me eta enredatruk, zomat izpi kainbat alte (4):* gariak mehe eta nahasirik, zenbat izpi hainbat alde (?). OH. Jose Estornes jaunak esaldiko ´alte´ hitza ´ale´ itzuli zuen.
izpiko *(5)* : *(bot.)* izpiliku
izpiritu *(2, 4)* : espiritu */ izpiritu saintiuaren grazia (4):* espiritu santuaren grazia. */ berri zazu ñore entrañetan izpiritu xuxen bat (4):* berri ezazu neure barnean espiritu zuzen bat.
izpixko *(5)* : mordotxo, lukutxo (berezko frutu sortatxoa)
iztal *(5)* : *(anat.)* aztal-hezur
iztarri *(5)* : *(anat.)* eztarri, zintzur
iztarte *(5)* : aurpegiera, begitarte */ zer iztarte zuri-gorri eder du morroin korrek! (5):* zer begitarte zuri-gorri ederra duen mutil horrek!
iztazai *(5)* : *(anat.)* belaunpe, iztezain
iztazaî *(5)* : *(anat.)* belaunpe, iztezain
iztazain *(2)* : *(anat.)* belaunpe, iztezain
iztezain *(5)* : *(anat.)* belaunpe, iztezain
izur *(9)* : *(anat.)* hezur */ meakako izurra (9):* aldaka(ko) hezurra.

J

ja *(4)* : tut, zipitz */ karek eztu erran jarik (4):* hark ez du tutik esan. OH. Hego nafarreraz ere maiz dokumentatua.
jabe *(5)* : jabe
jabegai *(5)* : oinordeko, jabegai
jabego *(5)* : jabego
Jabier *(6)* : *(geog.)* Xabier */ Jabierrerik [xuan da] (6):* Xabiertik joan da.
jagi *(5)* : jaiki */ argi-txirrintan jagi nintzen (5):* argi-urratzean jaiki nintzen.
jaiki *(5)* : jaiki
jaingeiko *(2, 7)* : *(erl.)* jaungoiko */ jaingeikoa anitx on [da] (7):* jaungoikoa oso ona da. */ onki, jangeikuari eskerrak (7):* ongi, jaungoikoari eskerrak.
jainkoaizun *(5)* : sasijainko
Jaka *(5)* : *(geog.)* Jaka */ odeia Jakara, tenpra kakara (5):* hodeia Jakara, eguraldia kakara.
jake *(4)* : bizkor, indartsu */ anke ziola nik bino bi urte oboro, anixko jake [zegon] (4):* nahiz eta nik baino bi urte gehiago izan, nahikoa bizkor zegoen.
jaki *(5)* : jaki */ ´gosea bera jaki´ kau erraiten da bat goseak argillatuk dagolarik (5):* ´gosea bera jaki´ hau esaten da bat goseak amorratzen dagoenean.
jan *(5)* : jan */ urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa eta martxo gaisoari egozten dabei kulpa (5):* urtarrilak jaten du gurina, otsailak jaten du haragia eta martxo gaixoari botatzen diote errua. OH. Mendigatxak ´xan´ idazten zuen lekuan, Azkuek zenbaitetan ´jan´ idazten zuen. B. Estornesek beti ´xan´ dauka hiztegian. Zaraitzueraz bada ´jango´ (= jangela) lekukotasuna.
janari *(5)* : janari
janere *(5)* : elikagai(ak)
jangeiko *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : *(erl.)* jaungoiko */ jangeiko jeinak salba zitzala, ama (2):* jaungoiko jaunak salba zaitzala, ama. */ jangeiko aita (3):* jaungoiko aita. */ biotza argi deinek jangeikua ekusen baitei (3):* bihotza argi dutenek jaungoikoa ikusiko baitute. */ jangeiko ene osagarriarna (4):* jaungoiko nire osasunarena. */ jangeikoak ez badu erremediatan tenprareki (4):* jaungoikoak ez badu garaiz erremediatzen. */ Maria jangeikoaren ama (4):* Maria jaungoikoaren ama. */ eskerrak emon dozke jangeikoari (4):* eskerrak eman diezazkioke jaungoikoari. */ ez daki otoi egiten jangeikoari (5):* ez daki otoitz egiten jaungoikoari. */ jangeikoarentako (5):* jaungoikoarentzat. */ jangeikoaren ama (7):* jaungoikoaren ama. */ jangeikua (8):* jaungoikoa. */ jangeikoak nai dien artio (10):* jaungoikoak nahi duen arte. */ jangeikoari eskerrak (10):* jaungoikoari eskerrak.
jangoiko *(2, 3)* : *(erl.)* jaungoiko */ jangoiko bat (2):* jaungoiko bat. */ jangoikua (3):* jaungoikoa.
jangu *(5)* : jantoki
jankin *(5)* : janari-hondar OH. Zuberoan ere dokumentatua.
janordu *(5)* : jatordu (ordua bera)
janso 1 *(5)* : txerri hil (hildako txerria)
janso 2 *(5)* : *(suk.)* urdai, xingar */ lur-ileko gramatto ulunetan jansoa ta lukainkak itxikitan tugu, zumail egon tean (5):* lur-zoruko (?) jakitoki ilunetan urdaia eta lukainkak atxikitzen ditugu, fresko egon daitezen.

janso-alme *(5)* : *(suk.)* txerri-bular
janso-lepaki *(5)* : *(suk.)* txerri-solomo
jansoazpi *(5)* : *(suk.)* urdaiazpiko
jantzu *(5)* : *(suk.)* urdai, xingar
janurri 1 *(5)* : dieta, jan-neurri
janurri 2 *(5)* : jangartxu, jan-urri
jardoki *(5)* : hitz egin, jardun
jarraki *(5)* : jarraitu, jezarri
jaseri *(2)* : eseri */ jaseririk [dago] (2):* eseririk dago.
jast egin *(5)* : zast egin (arma puntazorrotzez)
jaûnsi *(5)* : zaunka
jaûnsiz *(5)* : zaunkaka
jauregi *(1, 5, 11)* : *(erai.)* jauregi */ jauregi zabala (1):* jauregi zabala. */ etxeko ez ta jauregiko (5):* etxeko ez eta jauregiko (= txikiena ezin eta handiena nahi).
jauztu *(5)* : jauzi egin (gainera) */ jauztu zauk (5):* gainera jauzi egin dio.
jaxeri *(2)* : eseri */ kan dagola jaxeririk (2):* han dagoela eseririk.
jazo *(5)* : gertatu, agitu OH. Bizkaian eta Zaraitzun ere dokumentatua.
jein 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : jaun */ jein kartaz gozatian (2):* jaun hartaz gozatzean. */ gore jeina [zarade] (2):* gure jauna zara. */ anitxek erranen daitei´jeina, jeina!´ (3):* anitzek erranen didate ´jauna, jauna!´. */ maitagarrizko jeina (4):* jaun maitagarria. */ obro ezik ein mendioillar il ditu aurten jein batek gore idian (5):* ehun argioilar baino gehiago hil ditu aurten jaun batek gure herrian. */ Anaut jeina (7):* Anaut jauna. */ ez jeina, eztu xan (7):* ez jauna, ez du jan. */ agur jeinak, dagoan urte artio (7):* agur jaunak, datorren urtea arte. */ jeina (8, 10):* jauna. */ apez jeina (9):* apaiz jauna.
jein 2 *(2, 3, 4, 5, 10)* : *(erl.)* jaun (jaungoikoa) */ juangeiko jeinaren grazia (2):* jaungoiko jaunaren grazia. */ gore jeinaren ebanjelio saintiua (3):* gure jaunaren ebanjelio santua. */ gore Jeinak nai diola igar tzagun Urte Zarra bere grazia saintiuan (4):* gure jaunak nahi duela urte zahar eguna igaro dezagun bere grazia santuan. */ ezaitad anztan ñore otoi txikietan eskatea gore jeinari orren osagarriaz (4):* ez zait ahazten neure otoi urrietan gure jaunari eskatzea berorren osasunaz. */ gure jeinak ur benedikatu (5):* gure jaunak ur bedeinkatua (eman biezagu). */ [prozesionea] gore jeinareki (10):* prozesioa gure jaunarekin.
jenerazione *(3)* : belaunaldi */ kola dra amalaur jenerazione (3):* horrela dira hamalau belaunaldi.
jenio *(7)* : jenio */ nik badur jenio gaizto (7):* nik badut jenio txarra.
jente *(5)* : jende */ jentea edertan du beztimentak (5):* jendea edertzen du janzkerak. */ itsusi dago jentearen aitzinean eskoinezko lanak ezkerraz egitea (5):* itsusi dago jendearen aitzinean eskuineko lanak ezkerraz egitea.
jentil *(3)* : jentil */ etzazei gogo ekun anitx xardokitako, jentilek egiten dein bikala (3):* ez ezazue asko hitz egiteko gogorik izan, jentilek egiten duten bezala. */ ez ziztei fan orai jentilen lurriara (3):* ez zaitezte joan orain jentilen lurrera. */ Jesus [entregaten dabei] jentiler, izan dein kruzifikatruk (3):* Jesus jentilei emango diete, gurutziltzatu dezaten.
jesus 1 *(5)* : momentu, une */ jesus batean (5):* momentu batean. */ jesusean fan zen (5):* momentuan joan zen.
jesus 2 *(5)* : alfabeto OH. Bizkaian ´jesus-abezea´ dokumentatua.
jesusian *(3, 4)* : amen batean, berehala */ [gizona] jesusian fan zen (3):* gizona amen batean joan

zen. */ urak erkin zren instantian edo jesusian (3):* haiek istantean edo berehala atera ziren. */ jesusian egin zein arzatzek akzionia (4):* amen batean egin zuten ahariek azioa.

jijau *(5)* : sudurkari

jin 1 *(3, 5, 7)* : jaun */ jina, permeti naztazu fan nein ñore aitaren ôrztra (3):* jauna, utzidazu joan nadin neure aita ehorztera. */ jina, salba gitzazu, galtruk baigra (3):* jauna, salba gaitzazu, galduak baikara. */ etxean dagoa? bai, jina (7):* etxean al dago? bai, jauna.

jin 2 *(5)* : etorri */ oraiño ezabei jin nabardura biloan basa[u]ntzer (5):* oraindik ez zaie etorri nabardura ilean basahuntzei.

joaile *(5)* : joale (joaten dena)

joaingoiko *(2)* : *(erl.)* jaungoiko */ joaingoiko jeinari ilez eta biziez otoi egitea (2):* jaungoiko jaunari hilez eta biziez otoitz egitea.

joan *(5, 9)* : joan */ ozkumez ozkume edo altxabeaz altxabea ebilten dra aurrak, eskolara joan nai ezteinean (5):* ezkutalekuz ezkutaleku edo ezkutatokiz ezkutatuko ibiltzen dira haurrak, eskolara joan nahi ez dutenean. */ zer egutxatra joan gra? (9):* zein ibaitara joan gara? OH. Ikus ´xoan´ sarrera, adizkiak ikusteko.

joangeiko *(2)* : *(erl.)* jaungoiko */ joangeiko jeinaren [legia] (2):* jaungoiko jaunaren legea.

joangoiko *(2)* : *(erl.)* jaungoiko */ gore etsaietatik libra gitzazu, joangoiko gorea (2):* gure etsaietatik libra gaitzazu, jaungoiko gurea.

joare *(5)* : *(nek.)* zintzarri, joare

joko *(5)* : joko */ joko kontan batak besteari oillaba emoitan d[au] (5):* joko honetan batak besteari ardagaia ematen dio.

joralte *(5)* : *(nek.)* zintzarri-lepoko

jornalari *(3)* : *(nek.)* jornalari */ [aita bat erkin zen] jornalari txerka bere ardauntzuko (3):* aita bat bere mahastirako jornalari bila atera zen.

josgu *(5)* : jostundegi

juan *(4, 8, 9)* : joan */ alorretra juan da (4):* alorretara joan da. */ usiara juan dein (4):* basora joan dadin. */ juan gitian untxiaren iltra (4):* joan gaitezen untxia hiltzera. */ juaiten [ekusi du] (4):* joaten ikusi du. */ [eratra] juanen da (4):* edatera joango da. */ juan gintzezun (8):* joan ginen. */ [neskatxi anitx ere] juaiten tzu (8):* neskatxa anitz ere joaten dira. */ kek erran deiku[ei] juan gindeala (9):* haiek esan digute joan gaitezela. */ aitagana juaitan nun, mendian bitago (9):* aitagana noan, mendian baitago. OH. Aditz trinkoetarako, ikus ´xoan´ sarrera.

juangeiko *(2, 8, 9)* : *(erl.)* jaungoiko */ juangeiko jeinaren grazia (2):* jaungoiko jaunaren grazia. */ juangeikua (8):* jaungoikoa. */ juangeiko jeina (9):* jaungoiko jauna.

juangoiko *(2)* : *(erl.)* jaungoiko

juare *(5)* : *(nek.)* zintzarri, joare

judu *(3)* : judu */ judiuak Babiloniara eraman izan zren tenprari abantxu (3):* juduak Babiloniara eraman(ak) izan ziren garaitik hurbil (ia garaian). */ zu zreia judiuen erregia? (3):* zu al zara juduen erregea?

juramentu *(3)* : juramentu, zin

juramentu egin *(3)* : juramentu egin */ altariaz juramentu egiten badu (3):* aldareaz juramentu egiten badu. */ juramentu egiten urriaz (3):* juramentu egiten urreaz.

justifikatu *(4)* : justifikatu */ izan ztian justifikatruk zure eletan (4):* zure hitzetan justifikatua izan zaitezen.

justizia *(3, 4)* : justizia */ ez bada xen justizia eskribaûena beino osoago, ezrei sarten zeurien (3):*

zuen justizia ez bada eskribauena baino osoagoa, ez zarete zeruan sartuko. */ ene mîak azkaten dizu zure justizia (4):* ene mihiak goratuko du zure justizia. */ sakrifizio justiziazkua (4):* justiziazko sakrifizioa.

K

kabale 1 *(5)* : abere
kabale 2 *(5)* : abere-talde
kabale 3 *(5)* : dirutza */ korrek kabale egin du (5):* horrek dirutza egin du.
kabila 1 *(5)* : *(tek.)* larako, kabila, ziri
kabila 2 *(5)* : balazta OH. Makila lodia eta luzea, gurpila trabatuz balaztatzen duena.
kabillera *(5)* : *(tek.)* azpil (ertaina)
kaden *(5)* : karen, selaun
kadera *(5)* : hanka (abereena)
kaek *(10)* : hark */ zer karidade egin zien gizon kaek! (10):* zer karitate egin zuen gizon hark!
kafe *(6, 7, 10)* : kafe */ kaferik [ez] (6):* kaferik ez. */ kafea (10):* kafea.
kafetaesne *(7)* : kafesne */ askaltako kafetaesne (7):* gosaltzeko kafesnea. OH. Artzibarren ´kafetesne´ dokumentatua.
kai *(7)* : *(naut.)* portu */ kaian bizpor ontzi ekusi ditiegu (7):* portuan itsasontzi batzuk ikusi ditugu.
kaieki *(5)* : haiekin */ uduriak udurieki, ni ere kaieki (5):* antzekoak antzekoekin, ni ere haiekin.
kaiku *(11)* : kaiku (zurezko ontzia)
kailles *(5)* : erronkariar OH. Ingurukoek erronkariarrei esaten zieten ezizena.
Kailless (((((kendu 2. esea))))) *(5)* : *(geog.)* Erronkaribar, Erronkari */ Kaillesean (5):* Erronkaribarren.
kain 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : hain */ izanik zu kain onik (2):* zu hain ona izanik. */ eztare Israelen erdian ere erden duala fede bat kain andi (3):* Israelen erdian ere ez dut aurkitu fede hain handirik. */ ene nausia ezta xiten kain fite (3):* nire nagusia ez da hain azkar etortzen. */ eztuk yire bizia izanen kain luze (4):* hire bizia ez duk hain luzea izango. */ ezaitadan kain gaxki urdutan yire urdukala (4):* ez zaidan hain gaizki iruditzen hire iritzia. */ eztu kain aixa (7):* ez du hain erraza. */ kain on (8):* hain ona. */ orai xa izarri da guzia kain kario (10):* orain jada guztia hain garesti jarri da.
kain 2 *(5)* : tentel, inozo
kain 3 *(5)* : karen-txerri OH. ikus ´kain-txerri´ sarrera eta bertako oharra.
kain bait- *(3, 4)* : hain 0 */ [itxasuan] azkatu zen tenpestade bat kain andi, estaltan baizein oladek barka (3):* itsasoan altxatu zen ekaitz bat hain handia, olatuek txalupa estaltzen zuten. */ eta yaz kain basto, maiak ez baiyai ezaguntan (4):* eta hain zakarra haiz, mahaiak ez hau ezagutzen (ez haiz mahaian egoten).
kain nola *(3, 5, 8)* : bezain */ kalarik ere, Salomon [ez zen beztitu] kain primorosoki nola lili kuetarik bat (3):* hala ere, Salomon ez zen jantzi lore hauetako bat bezain dotore. */ [eskiua] baratu zen kain sano nola berzia (3):* eskua bestea bezain osasuntsu geratu zen. */ txokorroa, kain zabal nola gora, bi xeren gorago du lore oria (5):* goldarraina, zabala bezain altua, bi arra gorago du lore horia. */ ni nezu kain on nola zu (8):* ni zu bezain ona naiz.
kain nola bait- *(4)* : bezain */ xeiak igar ditzan kain alegre nola nik gogoan baidazkad (4):* jaiak igaro ditzan nik gogoan ditudan bezain alai.
kain-txerri *(5)* : *(zoo.)* karen-txerri OH. Azkena jaiotako txerrikumea, karenarekin batera.
kainbat *(2, 3, 4, 5)* : hainbat */ zerengatik [egin] biar dugu kainbat aldiz? (2):* zergatik egin behar dugu hainbat aldiz? */ jeinak izarri baztien remediak, nola kainbat kondenatan da? (2):* jaunak

erremedioak jarri bazituen, nola kondenatzen da hainbat? */ kainbat gustatu zitzaun (3):* hainbat gustatu zitzaion. */ ez digu negu guziuan ekusi kainbat elur nola orai dagona (4):* ez dugu negu osoan ikusi hainbat elur nola orain dagoena. */ kainbat deuri erkiten dio arboletarik (4):* hainbat diru ateratzen du zuhaitzetatik. */ kainbat balio duk nola yoana (5):* hainbat balio duk, daukaanak bezala (daukaanak adina balio duk). */ zomat asto kainbat uzker (5):* zenbat asto hainbat uzker. */ zomat buru kainbat gisa (5):* zenbat buru hainbat modu. */ zerengatik kainbat aldiz? (5):* zergatik hainbat aldiz?

kaînbat *(3)* : hainbat */ ogi aski emoitako xatra biar dein guziua kaînbat genteri (3):* nahikoa ogi hainbat jenderi behar duen guztia jaten emateko. */ jangeikuak kaînbat maitatan badau, libra dazaula orai (3):* jaungoikoak hainbat maite badu, libra dezala orain.

kainbertze *(3)* : hainbeste, hainbertze

kainbeste *(7, 10)* : hainbeste, hainbertze */ iror ardiek eztei xatan kainbeste (7):* hiru ardik ez dute jaten hainbeste. */ nik banu kainbeste zor, ilen nintzia[n] alkez (7):* nik hainbeste zor banu, lotsak hilko nintzateke. */ orai ez kainbeste (10):* orain ez hainbeste.

kainola *(5)* : hala nola

kaintxerri *(5)* : tentel, inozo

kaka 1 *(2, 4, 5, 8, 10)* : kaka */ apezak eginen du kaka me (5):* apaizak kaka mehea egingo du. */ aurreki etziten dena xagitan da kakaz nasirik (5):* haurrekin etzaten dena kakaz nahasirik jaikitzen da. */ odeia Jakara, tenpra kakara (5):* hodeia Jakara, eguraldia kakara. */ uzkuzilotik erkitan den gaiza kaka (8):* uzkitik irteten den gauza kaka (da). */ kak´egitian [anrak] xoaitan zia kakan (10):* kaka egitean heste-zizareak kakatan joaten ziren.

kaka 2 *(5)* : *(haur.)* kaka (gauza zikin edo txar oro)

kaka egin *(10)* : kaka egin */ kaka egin dien (10):* kaka egin din.

kakamarro *(5)* : *(zoo.)* kakalardo

kakaraka *(5)* : kakaraka (oiloa)

kakazaldi *(5)* : *(zoo.)* kakalardo

kakazi *(5)* : ezko (belarri barnekoa) */ bearriak xai tun yik, kakazi bage dozken; entzun yoke aiñamerma baten urratsa (5):* belarriak garbi ditun hik, ezkorik gabe dauzkan; armiarma baten urratsa entzun dezaken.

kakaztatu *(5)* : alferrik galdu

kakeria *(4)* : *(med.)* beherako */ xakin bage zertarik, kakeria bat [asi zitzaitadan] (4):* zertatik jakin gabe, beherakoa hasi zitzaidan.

kako 1 *(5)* : kako */ eskia kako, etserako (5):* eskua kako, etxerako.

kako 2 *(5)* : adartxo (orkatzena) OH. Ikus ´addarko´ sarrera eta bertako oharra.

kakolo *(11)* : kokolo (eta txikitxoa)

kakontzi *(5)* : kakontzi

kakotu *(5)* : sorgortu (hotzez) */ esk[i]ak kakotu otzez (5):* eskuak sorgortu hotzez.

kakuntzi *(5)* : kakontzi

kakur *(5)* : *(haur.)* txakurtzar */ ttatturrak yau-yau, kakurrak au-au (5):* txakurtxoak txau-txau, txakurtzarrak au-au.

kala *(2, 3, 4, 5, 7, 9)* : hala */ kala eratsukuten baitaigu (2):* hala erakusten baitigu. */ kala da (3):* hala da. */ saltruk [izan litian], eta paka zedin kala zorra (3):* salduak izan litezen, eta hala ordain zedin zorra. */ kala da, jeina (4):* hala da, jauna. */ nola bear, kala nai (5):* nola behar, hala nahi. */ nola xin, kala xoan (5):* nola etorri, hala joan.

kala ere *(3)* : hala ere, halarik ere

kala nola 1 *(3)* : hala nola */ [jeinaganik] alkanzatia ontarzun kala arimaren nola korpizaren (3):* jaunagandik ontasuna erdestea hala arimarena nola gorputzarena.

kala nola 2 *(2)* : bezala */ zerengatik kainbat konfianzareki biar baitugu esketu, kala nola gorea balitz (2):* zeren hainbat konfiantzarekin eskatu behar baitugu, gurea balitz bezala.

kala nola bait- *(2, 3)* : bezala, hala nola -n */ kala nola esketan baigra (2):* eskatzen dugun bezala. */ ontarzun guziuak ez deus gaztigurik bage, kala nola iburnian baidaude gaztigu guziuak ez deus ontarzunik bage (3):* ontasun guztiak, batere zigorrik gabe, hala nola infernuan zigor guztiak ontasunik gabe dauden.

kala-kala *(5)* : hala-hala

kalaber *(2, 5)* : halaber */ kalaber, sinestan diezud berze gainarako [guzian] (2):* halaber, beste gainerako guztian sinesten dizut.

kalako 1 *(3, 4, 5)* : halako */ erabili zren airiak eta emon zein indarrekin kalako etsiaren kontra (3):* haizea ibili zen eta indarrez jo zuen halako etxearen kontra. */ sekula ez da ekusi izan kalako gaiza Israelen (3):* sekula ez da ikusi izan halako gauza Israelen. */ nontik xin zau koni kalako sabiduria? (3):* nondik etorri zaio honi halako jakituria? */ kalako gisan izan zen ankarra, iragoak egiten ztien (4):* halako moduan izan zen haserrea, oihuak egiten zituzten. */ nolako egurra, kalako sua (5):* nolako egurra, halako sua.

kalako 2 *(3, 4, 5)* : halako (zehazgabea) */ fan ztei ziudadiara, kalako personaren etsiara, eta emon dazazei arrakaitu kaur (3):* zoazte hirira, halako pertsonaren etxera, eta emaiozue enkargu hau. */ obe izan lekion kalakuari ez balitz sekula´ re sortu (3):* hobe litzaioke halakoari ez balitz sekula ere sortu. */ balle guzuko lerrak [saltako] kalako lodigiuatik gora (4):* ibar osoko lerrak saltzeko halako lodieratik gora. */ kalakoak emon dau kalako gaiza kalakoari (4):* halakoak eman dio halako gauza halakoari. */ yik biar duk kalakoareki bordaltu (4):* hik halakoarekin ezkondu behar duk. */ auteman dut kalako saldoan dagola ene ardia (5):* ene ardia halako saldoan dagoela hauteman dut. */ nik kalakoa itzartu dakad (5):* nik halakoa hitz hartua daukat. */ kalakok emon [dau] kalako gaiza kalakoari (5):* halakok halako gauza eman dio halakoari.

kalakotu *(5)* : halakotu (halakoa egin)

kalamoko *(5, 11)* : *(met.)* antzigar */ bizpur gairen buruko [elur gisa] biltan den arrosada da kalamokoa (5):* bizpahiru gauren buruan elur gisa biltzen den ihintza da antzigarra. OH. Aznarezek ´laino eta hezetasun hotzekin azaltzen den izotz zuria´ oharrarekin dokumentatua.

kalamu *(2)* : *(bot.)* kalamu

kalarik ere *(3)* : hala ere, halarik ere */ ek, kalarik ere, kantik erkitian publikatu zein unguru guzutik (3):* haiek, hala ere, handik irtetean, inguru osoan zabaldu zuten. */ etzei leitu nola [apezek] trabajatan dein elizan neskanegunian, eta kalarik ere ez [dein] bekaturik egiten? (3):* ez duzue irakurri nola apaizek lan egiten duten elizan larunbatean, eta hala ere ez duten bekaturik egiten?

kalaxe *(7)* : halaxe

kalaxet *(9)* : halaxe

kalaz *(4)* : halaz, halatan */ kalaz, eitzi digu alte bat (4):* halaz, alde batera utzi dugu (kontu hori).

kalba *(5)* : bola-joko (mota bat)

kaldu *(5)* : kolpe

kalentura *(2, 3)* : *(med.)* sukar */ Jesus Pedroren etsera [fatian], ekusi zion konen amagiarreba*

oian kalenturarekin (3): Jesus Pedroren etxera joatean, honen amaginarreba ohean sukarrarekin ikusi zuen. */ kalenturak ixigitan nu (4):* sukarrak pizten nau.

kalere *(5)* : hala ere, halarik ere

kaleta *(5)* : langa, erromara

kalidade *(3)* : kalitate */ kalidade gaxtotakuak [egotxtan dei] (3):* kalitate txarrekoak botatzen dituzte (arrainak). */ frutiuaz izaguntan baita arboliaren kalidadia (3):* fruitutik ezagutzen baita zuhaitzaren kalitatea.

kaliza *(3)* : kaliza */ edan dokezeia pasioniaren kaliza nik edan biar duana? (3):* edan al dezakezue pasioaren kaliza, nik edan behar dudana?

kalize *(3, 5)* : kaliza */ Jesukristo dagua ostian eta kalizian? (3):* Jesukristo al dago ostian eta kalizan? */ ardaû ona kalizearako (5):* ardo ona kalizarako. OH. Azkuek ´kalitzearako´ dokumentatua.

kalka 1 *(5)* : hesola, taket (lurrean sartua) */ ardia kalkan dakagu (5):* ardia hesolan (lotuta) daukagu.

kalka 2 *(5)* : jostorratz-zulo

kalkatu 1 *(4)* : galkatu

kalkatu 2 *(5)* : galkatu, gizendu, beitatu (indioilarrak, kapoiak)

kalkatu 3 *(5)* : sartu */ orratzari begitik kalka dazadak aria (5):* orratzari begitik sar iezadak haria.

kalkolka *(5)* : trostan

kalpizar *(11)* : galbizar (gari bizarra)

kaltza *(5)* : galtzerdi */ kaltza eli bat (5):* galtzerdi pare bat.

kaltzada *(5)* : *(erai.)* galtzada

kaltzari *(5)* : galtzari (galtzerdiei eustekoa) OH. Azkuek ´kalzari´ ere dokumentatua.

kaltzero *(3, 5)* : oinetako */ kaltzero eli bat (3):* oinetako pare bat. */ azpiek tripak ebilarazten tei obeki ezik kaltzero berriak (5):* urdaiazpikoek tripak hobeto ibilarazten dituzte oinetako berriek baino.

kaltzin *(5)* : kare, gisu

kaltzorratz *(5)* : galtzorratz

kamamilla *(5)* : kamamila

kame 1 *(3)* : gordeleku, zulo (animaliena) */ axariek dei kamia eta txoriek abia (3):* azeriek gordelekua dute eta txoriek habia.

kame 2 *(5)* : ohe, etzaleku (artzainena) OH. Adarrez egina.

kamelu *(5)* : *(zoo.)* gamelu

kamu *(5)* : artile-amuko

kan *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : han */ [E]rromakoak keben eta kebekoak kan (2):* Erromakoak hemen eta hemengoak han. */ [Kristok] kan eroki ztiela beira santuen arimak (2):* Kristok han begira eduki zituela santuen arimak. */ zore tesorua dagon lekiuan, kan diozu zore biotza (3):* zure altxorra dagoen lekuan, han duzu zure bihotza. */ tenplotik [egotxtan tu] kan saltan zaudenak (3):* tenplutik botatzen ditu han saltzen ari zirenak. */ eztakid zer izanen zen kan (4):* ez dakit zer izango zen han. */ orak non mina kan mia (5):* txakurrak non mina han mihia. */ kan ogi ederrik ezen (5):* han ogi ederrik ez zen. */ kan anitx belar [dago] (7):* han belar asko dago. */ belaizurik egutxan sar kan guziak, etzulukaka (10):* biluzik ibaian sartu han guztiak, itzulipurdika.

kan konpon! *(3, 4)* : hor konpon! */ kan konpon zte! (3):* hor konpon zaitez!

kan ta keben *(7)* : han-hemenka, han eta hemen */ yi ebiltan yaz kan ta keben (7):* hin han eta hemen ibiltzen haiz.

kan-keben *(7)* : han-hemenka, han eta hemen

kan-kebenka *(5)* : han-hemenka, han eta hemen */ kan-kebenka erkitan dren odoi me kurak odoi-adarrak dra (5):* han-hemenka ateratzen diren hodei mehe haiek hodei-adarrak dira.

kan-kemen *(5)* : han-hemenka, han eta hemen

kan-kemenka *(3)* : han-hemenka, han-hemen */ espiritu zikina erabilten da kan-kemenka leku idorreta[n], txerkatan non egin asiento (3):* espiritu zikina han-hemenka ibiltzen da leku lehorretan, non gelditu bilatzen.

kanario *(2)* : *(heg.)* kanario

kandela *(5)* : kandela */ eskuzta zak kandela kori suara, beilatako (5):* eskuzta ezak kandela hori sutondoan, beratzeko.

kandelera *(5)* : *(erl.)* kandelerio

kandra *(2, 5, 9, 10)* : kandela

kanko *(2, 5, 9)* : hango */ [linboan] kanko arimak [paradisoko gloriara] eraman zitiela (2):* linboan hango arimak paradisuko aintzara eraman zituela. */ burzegia nonko, askaziak kanko (5):* buruzagia nongo, senideak hango. */ paradusuko zabala, kanko ûrra sagarra (5):* paradisuko zabalera, hango hurra sagarra (da). */ etsekoanderia nonko, azkaziak kanko (9):* etxekoandrea nongo, senideak hango.

kanpo 1 *(2, 3, 4, 7, 8)* : kanpo */ leku iriz kanpo batra [fan zen] (3):* herritik kanpoko leku batera joan zen. */ egotxirik [izanen dra] kanpo ulungiuetra (3):* boteak izanen dira kanpoko iluntasunera. */ kanpuarako altetik basua eta platera [xaîtan tzeinak] (3):* kanpoko aldetik edontzia eta platera garbitzen dituzuenak. */ kanpokua izan dein xaî (3):* kanpokoa garbia izan dadin. */ kanpoko gente anixko xiten da fiesta kontra (4):* kanpoko jende dezente etortzen da festa honetara. */ gu kanpoko gra (7):* gu kanpokoak gara. */ oitik kanpora (8):* ohetik kanpora. */ kanpoko [da] (8):* kanpokoa.

kanpo 2 *(3, 10)* : kanpora; kanpoan */ [Jesusek] egotxi ztion kantik kanpo (3):* Jesusek handik kanpora bota zituen. */ azka eta erkin kanpo! (3):* altxa eta atera kanpora! */ [Jesusen ama eta anaxak] kanpo [zauden] (3):* Jesusen ama eta anaiak kanpoan zeuden. */ zore ama eta zore anaxak kor kanpo daudezu (3):* zure ama eta zure anaiak hor kanpoan daude. */ xuan deila kanpo zakurra (10):* joan dadila kanpora txakurra. */ kanpo dion (10):* kanpoan zagon.

kanpo-lan *(5)* : kanpo-lan

kanta *(10)* : kantu, abesti */ nik eztur entzun keben uskaraz kantarik (10):* nik ez dut entzun hemen euskaraz kanturik.

kantatu *(3, 4, 5, 7, 10)* : kantatu, abestu */ instantian kantatu zion ollarrak (3):* istantean oilarrak kantatu zuen. */ [kantxoîn alegre] kantatu daiguzei, eta ezrei lantzatu (3):* kantu alaia kantatu dizuegu, eta ez zarete dantzatu. */ kantatan deinek gaiza torpe [bekatu egitan dei] (3):* gauza dorpeak kantatzen dituztenek bekatu egiten dute. */ ollarrak kanta zan beino lein (3):* oilarrak kanta dezan baino lehen. */ frankoek kantatan dei irian (4):* frankoek herrian kantatzen dute. */ kantatra [faiten emon zren] (4):* kantatzera joaten omen ziren. */ korren bizia dun udan kanta eta kanta (4):* horren bizia dun udan kanta eta kanta. */ kukuak kantatan dion gisan (5):* kukuak kantatzen duen gisan. */ bortara [xitan denean], beti kantatan (7):* atera etortzen denean, beti kantatzen. */ ez diar kantaten, ez beitiar bozik (7):* ez diat kantatuko, ez baitiat ahotsik. */ orrek kantatu du guk kantatan deguna gisa (10):* berorrek abestu du guk abesten dugun bezala. /

kanta beza, [ta] kantatu niezun (10): abes beza, eta abestu nuen.

kantidade *(3)* : kantitate */ deuri kantidade andi bat (3):* diru kantitate handi bat.

kantik *(2, 3, 4, 5, 10)* : handik */ kantik irorgarren egunian resuzitatu zen (2):* handik hirugarren egunera berpiztu zen. */ kantik biar du xin (3):* handik etorri behar du. */ ezrela kantik erkinen (3):* ez zarela handik aterako. */ ez urrin kantik, txerri saldo andi bat [zagon] (3):* handik ez urrun, txerri saldo handi bat zegoen. */ kantik xin biar du (4):* handik etorri behar du.

kantixet *(9)* : handixe, hantxetik

kantu *(4)* : kantu, abesti */ arroitu andi kori uskaldunen gerrako kantia [da] (4):* zarata handi hori euskaldunen gerrako kantua da. OH. ´Kantua´ eta ´kantia´ dokumentatuak.

kanturro *(5)* : ogi-azal

kantxoi *(5, 10)* : kantu, abesti */ kantxoiz doa (5):* kantuz doa, kantatuz doa. */ muttikoek kantatzen [zein], bea nik orai ez ogart nola den kantxoya (10):* mutikoek kantatzen zuten, baina ni orain ez naiz oroitzen nola den kantua.

kantxoin *(4)* : kantu, abesti */ eskribitako ez kantxoin bat, anitx obro (4):* kantu bat idazteko ez, askozaz gehiago. */ gero kantatan emon zein kantxoin xunto oiltan daudana (4):* gero kantatzen omen zuten honekin batera bidaltzen diodan kantua.

kantxoîn *(3)* : kantu, abesti */ kantxoîn alegre [kantatu daiguzei], eta ezrei lantzatu (3):* kantu alaia kantatu dizuegu, eta ez zarete dantzatu.

kanu *(5)* : artile-amuko

kaña *(3, 5)* : *(bot.)* kanabera */ ez du zatikaten kaña autserik dagona (3):* ez du zatikatuko hautsirik dagoen kanabera. */ zumebelarra belar luze bat da, kaña gisa du zankoa (5):* zumebelarra belar luze bat da, kainabera gisa du zurtoina.

kañutobelar *(4)* : *(bot.)* azeribuztan

kapa *(4)* : kapa */ Karlomagno ezkapatan da bere kapa gorriareki (4):* Karlomagnok ihes egiten du bere kapa gorriarekin.

kapar *(5, 11)* : *(zoo.)* akain, kapar */ kaparra (11):* akaina, kaparra.

kaparroî *(5)* : *(bot.)* kaparrondo (?)

kaparron *(5)* : *(bot.)* kaparrondo (?) */ olomoloa belar luze bat da, kaparron ta patata artean a[z]tan da (5):* olo gaiztoa belar luze bat da, kaparrondo (?) eta patata artean hazten da.

kapaxo *(5)* : txori-tranpa

kapaz izan *(3)* : gauza izan, gai izan */ kontako kapaz izan deitekena izan deila (3):* honetarako gauza izan daitekeena izan dadila. */ ez dra guziuak kapaz erresoluzione kontako (3):* ez dira guztiak gauza ebazpen honetarako.

kapazu *(5)* : *(nek.)* kapazu (espartzuzko saskitxoa) OH. Ereiteko aleak eramateko erabilia.

kapel *(1, 11)* : kapela OH. Izengoiti gisa erabilia.

kapiron *(5, 11)* : *(erai.)* gapirio

kapitulu *(3)* : kapitulu */ lein kapitulua (3):* lehen kapitulua. */ zortzigarnen kapitulua (3):* zortzigarren kapitulua.

kapon *(2)* : *(heg.)* kapoi (oilasko irendua)

kaponada *(5)* : bero goxo (eguzkiarena, suarena)

kaposote *(5)* : murgiltze, pulunpa

kapulpe *(5)* : *(erai.)* teilape

kapulu *(5)* : azal (zuhaitzena eta)

kapusai *(5)* : kapusai

kaputs egin *(5)* : dirua bukatu; dirua xahutu (jokoan)
kaputz *(5)* : murgiltze, pulunpa
kaputzete *(5)* : murgiltze, pulunpa
kara 1 *(5)* : itxura
kara 2 *(3, 5, 9, 10)* : hara */ Arkelaok manatan ziola [entzutian], lotsatu zen kara faitra (3):* Arkelaok agintzen ziola entzutean, hara joateaz beldurtu zen. */ kementik kara (3):* hemendik hara. */ lan kau egin garaian fanen nuk kara (5):* lan hau egin ondoren joanen nauk hara. */ kebentik kara amar urrats [dion] (9):* hemendik hara hamar urrats zagon. */ kara xoan, Uruñara, eta zortzi egunetan irabaztan dein obeki (10):* hara joan, Iruñera, eta zortzi egunetan hobeki irabazten dinate.
kara kan *(5)* : hara han */ kara kan ardi saldo bat gorkoan (5):* hara han artalde bat aterpean.
kara-kona *(5)* : hara-hona */ aurra, eraguzak bi marabedisen kara-kona (5):* haurra, ekar ezak bi marabediko hara-hona (= joan hadi eta eman ezak bakea).
kara-konat *(7)* : hara-hona */ yi ebiltan yaz kara-konat (7):* hi hara-hona ibiltzen haiz.
karaino *(5)* : haraino */ begiak noraino, naia karaino (5):* begiak noraino, nahiak haraino. */ martxoan lantxerra noraino, aprilean elurra karaino (5):* martxoan lainoa noraino, apirilean elurra haraino.
karaiño *(5)* : haraino
karaka *(5)* : karaka (oiloen hotsa) */ kurrinka eta beee, karaka eta muuu (5):* kurrinka eta beee, karaka eta mu.
karakari *(5)* : karakari
karakiatu *(9)* : kakara egin (oiloek) */ karakiatan (9):* kakara egiten.
karako 1 *(5)* : harako (norako)
karako 2 *(5)* : harako (hura)
karantz *(5)* : itxura */ karantza berekoak [dra] koiek (5):* itxura berekoak dira horiek.
karat *(7, 8)* : harantz; hara */ gizonak xuaiten bizren karat, konat (8):* gizonak joaten baitziren hara, hona. */ Uriñatik enuzu karatago xuan (8):* Iruñetik ez naiz harantzago joan.
karatago *(3, 7, 9)* : harago */ xaser ztei kemen, ni karatago faiten nazan arte kontan (3):* eser zaitezte hemen, ni harago joaten naizen tarte honetan. */ ortzu karatago, bestela... (9):* zoaz harago, bestela...
karats 1 *(5)* : mingots, mikatz
karats 2 *(5)* : arbuiatu, gaitzesi (gurasoek); zapuztu (abereek) (adj.) */ ama-karats (5):* (ume) amak arbuiatu(a). */ aita-karats (5):* (ume) aitak arbuiatu(a). */ aur kori aita-karats da ta beste kura ama-karats; ez ditei moite (5):* haur hori aitak arbuiatua da eta beste hura amak arbuiatua; ez dituzte maite.
karatxa *(5)* : karaka (oiloen hotsa) */ zopak ona izaiteko bear du kurrinka eta muu, karatxa eta bee (5):* zopak ona izateko behar du kurrinka eta muu, karaka eta bee (= txerrikia, txahalkia, oilokia, ardikia).
kardabera *(5)* : *(bot.)* kardabera
kardatu *(5)* : kardatu (artilea)
kardelina *(2)* : *(heg.)* karnaba
kardin *(5)* : *(heg.)* karnaba
kardu-ziza *(5)* : *(bot.)* kardu-ziza
karek *(3, 4, 5, 7, 9)* : hark */ karek [kriatu zion mundiua] (3):* hark sortu zuen mundua. */ emon*

balako karek manatu zauna, eitzen zion (4): hark agindu ziona eman balio, utziko zuen. */ karek badu bai aize! (5):* hark badu bai nahikari (eta gogo)! */ karek txintxa tilinton daka (5):* hark mukia zintzilik dauka. */ karek bino obro din korrek (5):* hark baino gehiago din horrek. */ karek xan du (7):* hark jan du. */ karek erranen du (7):* hark erranen du. */ karek egosia dia? bai, karek (9):* hark egosi du? bai, hark. */ gizon karek egin dien kau (9):* gizon hark egin din hau.

kareki *(4, 5, 7, 9)* : harekin */ eztud gogorik kareki bordaltako (4):* ez dut gogorik harekin ezkontzeko. */ zereki argi, kareki ulun (5):* zerekin argi, harekin ilun. */ kareki bordaltan bayaz, xunto bizi izanen gutun (5):* harekin ezkontzen bahaiz, elkarrekin bizi izango gaitun. */ kareki [ele erran nai dur] (7):* harekin hitz egin nahi dut. */ ez zan traturik ekun kareki (7):* ez ezan harremanik izan harekin.

karekin *(3)* : harekin */ karekin badakizei adibinatan (3):* harekin badakizue asmatzen.

karen *(3, 5)* : haren */ gizon karen etsiara [fan zen] (3):* gizon haren etxera joan zen. */ izaitea guziua du karena (5):* eite osoa harena du.

karengana *(9)* : harengana

karenganik *(9)* : harengandik

karengatik *(9)* : harengatik

karentako *(4, 7, 9)* : harentzat, harendako */ batek ez badu elerik erran, karentako erraiten da (4):* batek ez badu hitzik esan, harentzat esaten da. */ nik ez dur egin karentako (7):* nik ez dut egin harentzat.

karga *(3, 5)* : zama, karga */ jeinaren karga arin [da] (3):* jaunaren zama arina da. */ mandoari eta astoari karga atziri (5):* mandoari eta astoari zama atzean.

kargatu *(3, 10)* : zamatu, kargatu */ bera kargatu da gore eriguetaz (3):* bera kargatu da gure gaixotasunez. */ ez dena kargatan bere krutxiareki (3):* ez dena kargatzen bere gurutzearekin. */ kargatruk milla urratsez (3):* mila urratsez (urratsetan) kargaturik. */ budar bat badiar anitx kargatuk (10):* bular bat oso kargaturik daukat.

kari *(3, 4, 5, 9)* : hari */ kari ezau mintzorik entzun (4):* hari ez zaio mintzorik entzun. */ liburu bat oiltu zaun kari (4):* liburu bat bidali zion hari. */ gizon kari aurpegiak erkin zazka (5):* gizon hari betzuloak atera zaizkio.

karidade *(10)* : karitate */ zer karidade egin zien gizon kaek! (10):* zer karitate egin zuen gizon hark!

kario *(4, 7, 10)* : garesti */ korrengatik kemenko peona kario [da] (4):* horregatik hemengo peoia garestia da. */ enetako kario [da] (7):* niretzat garestia da. */ arraya orai on ta kario, eta ezin el xatra (10):* arraina orain ona eta garestia, eta ezin heldu jatera. */ kario saltan [da], anitx kario, laurogei pezeta kiloa (10):* garesti saltzen da, oso garesti, laurogei pezeta kiloa. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

karitate *(2, 3)* : *(erl.)* karitate */ karitatezkoa (2):* karitatezkoa. */ fedea eta karitatia (2):* fedea eta karitatea. */ karitatiaren gainian [fabrikatan du] (3):* karitateari buruz hitz egiten du. */ akto karitatezkuak (3):* karitatezko ekintzak.

kark *(3, 4, 9)* : hark */ bi deuri errezibitu zion kark, [berze bi] irabazi zion (3):* bi txanpon jaso zituen hark, beste bi irabazi zituen. */ kark eztoke eratsukitia on ekun (4):* hark ez dezake irakaste ona izan. */ kark egotxi diztazu txutx begiara (9):* hark txistua bota dit begira.

karkar *(5)* : *(med.)* koroka

karkila *(5)* : algara, barre-algara

karlista *(4)* : karlista */ Karlosen gerran, karlisten deitu zteinian mitilak (4):* Karlosen gerran,

karlistetarako mutilak deitu zituztenean.

karnazera *(5)* : kilo eta erdi, hiru libra (pisu neurria) */ karnazera bat aragi (5):* hiru libra haragi (kilo eta erdi).

karraka 1 *(5)* : karraka-hauts, karrakadura

karraka 2 *(5)* : aztarrika

karraka egin *(9)* : karrakatu, arraspatu

karrakatu *(5, 11)* : karrakatu, arraspatu OH. Aznarezek ´aztarrika egin´ adieran dokumentatua.

karranka 1 *(5)* : karranka, kirrinka OH. Gurdiaren nahiz ate baten karranka.

karranka 2 *(5)* : liho-zakar

karrankla *(5)* : garranga, karrankla (txakurren lepokoa)

karrask *(5, 11)* : karrask

karraska 1 *(11)* : *(mus.)* karraka OH. Aznarezek dokumentaturiko aldaerak > ´klazka, karraska, karrutxa, karraskla, kurruskla´.

karraska 2 *(5)* : karraska (hortzena)

karraxka *(5)* : zalaparta, harrabots

karrazka *(5)* : eztanda

karriazale *(5)* : garraiatzaile */ etse bat erretan zela, mainku [zen] ur-karriazalea (5):* etxe bat erretzen zela, maingua zen ur-garraiatzailea.

karrika *(1, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : kale, karrika */ karrikabide (1):* karrika bide(a). */ karrika luxea, karrika ersia (1lm):* kale luxea, kale itxia. */ karrika ziloa (1lm):* karrika zuloa. */ ipokritek karriketan edo plaztetan [egiten dein bikala] (3):* itxuratiek kaleetan edo plazetan egiten duten bezala. */ karriken eskinetan izan tian ekusirik (3):* kale izkinetan ikusiak izan daitezen. */ iragoak egiten ztien, karrikan egon balidra gisa (4):* oihuak egiten zituzten, kalean egon balira bezala. */ usin dagonaz, ez dokegu lexoetarik karrikara kukurik egin (4):* dagoen bisutsaz, ez dezakegu leihoetatik kalera kukurik egin. */ geroztik neabe guziua dago karriketarik eskolarik bage (4):* geroztik gaztetxo guztiak kaleetan daude eskolarik gabe. */ karrika gaintik guatza mitilak musikareki (5):* kalea gaindi goaz mutilak musikarekin. */ erkin ztei karrikara (5):* irten zaitezte kalera. */ ox karrikara! (7):* goazen kalera! */ ikasguara xoaitako, karrikatik [xoaitan gra] (7):* ikastetxera joateko, karrikatik joaten gara. */ iragoka [ebiltan dun] karrikan (7):* oihuka zabilen kalean. */ ar zan karrika eskiara (9):* har ezan kalea eskuinera. */ karrika kori geintik, altesku (9):* kale horretatik, eskuin(era). */ ez iena ikusi karrikan? (9):* ez al huen ikusi kalean? */ prozesione bat igartan duzu karrika barna (10):* prozesio bat kalean barrena igarotzen da. */ karrikak dauden guziak karroi mondo-mondoa (10):* kaleak zauden guztiak izotz mordoa (eginik). */ txoriak karrikan elurra bortian (10):* txoriak karrikan elurra bortuan.

karrikaburu *(5)* : kaleburu, karrikaburu

karrikadantza *(11)* : kalejira, karrikadantza

karroatu *(8, 9)* : *(met.)* izoztu */ [eguatxa] karroatruk (8):* ibaia izozturik. */ karroatu nun (9):* izoztu naun.

karroi *(2, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(met.)* izotz */ karroia eta elurra, karroiek eta elurrek (2):* izotza eta elurra. */ udan ixikitan gra ta negiuan karroia (5):* udan pizten (erretzen) gara eta neguan izotza. */ tenpra dago karroi (7):* izotz-eguraldia dago. */ eguatxa karroiez kuajatruik (8):* ibaia izotzez jelaturik. */ karroi mondo-mondoa (10):* izotz mordoa. OH. Azkuek ´karroa´ idatzia. Ikus ´karroatu´ sarrera.

karroî *(5)* : *(met.)* izotz

karroin *(10)* : *(met.)* izotz

karroite *(2)* : *(met.)* izozte */ karroitia eta otzak (3):* izoztea eta hotzak.

karronte *(4, 9)* : *(met.)* izozte */ nestatia oboroagotan da ungurunetan, noiz ta karrontek galarztan teinian erintziuak (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan, noiz eta izozteek galarazten dituztenean ereintzuak (labore-uztak). */ zer karronte zagon! (9):* zer izozte zegoen!

karruate *(2, 5)* : *(met.)* izozte */ karruatia (2):* izoztea, izozte aldia.

kartako 1 *(9)* : hartako

kartako 2 *(5, 10)* : hartarako */ ez balimazagon gai kartako, guziek erostan gunia (10):* gau hartarako ez baldin bazegoen, guztiok erosten genuen.

kartako 3 *(5)* : gai (pertsona)

kartakoz *(5)* : beraz, hortaz

kartan *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : hartan */ tenpra kartan (3):* garai hartan. */ anitxek erranen daitei juizioko egun kartan´jeina, jeina!´ (3):* anitzek erranen didate epaiketako egun hartan´jauna, jauna!´. */ kuek oriuaren erostra faiten zren arte kartan, [senarra] xin zen (3):* hauek olioa erostera joaten ziren tarte hartan, senarra etorri zen. */ lerdoi kartan zazpiein gizon [emon zakan] (4):* pinudi hartan zazpiehun gizon omen zeuzkan (lanean). */ bero egitan dionean on [da] sartea zaltu kartan (5):* bero egiten duenean on da mozkairu hartan (abereak) sartzea. */ endezera kartan agitu zaitad mando baten erortea (5):* inguru hartan gertatu zait mando bat erortzea. */ mendi kartan badion anitx belax (7):* mendi hartan bazagon belar asko. */ urte anitx diela xa ezela dantzatan gisa kartan (10):* duela urte anitz jada ez zela dantzatzen modu hartan.

kartarik *(3, 5, 9)* : hartatik */ ezbaizen ñor ere atrebitan igartra bide kartarik (3):* ez baizen inor ere ausartzen bide hartatik igarotzera. */ leku kartarik [fatian] (3):* leku hartatik joatean. */ sagar kartarik xan lezana jeinaren seme ta alaba (5):* sagar hartatik jan lezana jaunaren seme eta alaba. */ gain kartarik erori dun pe kontra (9):* gain hartatik erori dun pe honetara.

kartaz *(2, 3, 6)* : hartaz */ jein kartaz gozatian (2):* jaun hartaz gozatzean. */ kartaz [juramentu egiten diona] (3):* hartaz juramentu egiten duena.

kartaz landa *(5)* : hartaz gain, gainera

kartra *(3, 4, 5, 9)* : hartara */ artzain eltu zrenek muga kartra [ekusi zitein] (4):* muga hartara heldu ziren artzainek ikusi zituzten (langileak). */ oil erle kuek kartx[i]ritik gain kartra (5):* bidali erle hauek baratzetik gain hartara. */ gain kartra (9):* gain hartara.

kartxeri *(5)* : *(nek.)* baratze (ureztatua)

kartxiri *(4, 5)* : *(nek.)* baratze (ureztatua) */ arri erauntsi andi bat [erori zitzaikugun], kartxiri guziuak erraustu baidutu (4):* txingor erauntsi handi bat erori zitzaigun, baratze guztiak haustu baititu. */ bi goxez erori zen izotz bat kartxirietan (4):* bi goizez izotza egin zuen baratze ureztatuetan. */ kartxiriak alubia [emoiten du] (5):* baratzeak babarruna ematen du. */ oil erle kuek kartx[i]ritik gain kartra (5):* bidali erle hauek baratzetik gain hartara.

kasik *(8)* : ia */ mugan kasik (8):* ia mugan.

kaska *(5)* : talka, talkada

kaskabillo *(5)* : kaskabilo

kaskatu *(5)* : ahuldu (asko ahuldu, indartsua dena)

kasko 1 *(2, 4)* : *(anat.)* burezur, kaskezur

kasko 2 *(5)* : zati

kasko 3 *(5)* : *(nek.)* galondar (gari-ale azala)

kaskuts *(5)* : buruarin, txoriburu */ kaskuts erraiten digu gixon buru arinxka bati (5):* txoriburu

esaten dugu gixon buruarin bat.

kaso egin *(3)* : kasu egin */ [zore anaxak] ez baleza kasorik egin zutaz, balia zte bi personataz (3):* zure anaiak ez balu zutaz kasurik egingo, balia zaitez bi pertsonaz. */ ek ezein egin kasorik (3):* haiek ez zuten kasurik egin.

kaspa *(5)* : *(nek.)* galondar (gari-ale azala) */ kaspa (5):* galondarra.

kastaiña *(5)* : *(bot.)* gaztaina

kastaña *(4)* : gaztaina */ artazia gentek ere xaten dei kastañen gisa (4):* arte-hazia jendeak ere jaten du gaztainak bezala.

kastidade *(3)* : kastitate */ zeuri[aren] amodioz kastidadeko botoarekin (3):* zeruaren amodioz kastitate botoarekin.

kastulu *(1)* : *(erai.)* gaztelu */ kastulu zarra (1lm):* gaztelu zaharra.

kasu egin *(5)* : kasu egin */ kasu egiten eztionak etaxur bati, eginen du etse guziuari (5):* itogin bati kasu egiten ez dionak, etxe osoari eginen dio.

katabut *(5, 11)* : hilkutxa */ katabuta (5, 11):* hilkutxa.

katalinbelar *(5)* : *(bot.)* katalinbelar (?)

katamora *(10)* : *(mus.)* gatanbore; atanbora */ amanderrak emoitan zien katamora; neskatiler muñeko gisa eta mutikoer redondo (10):* amabitxiak atanbora ematen zuen; neskatilei panpina gisakoa eta mutikoei biribila. OH. Ezin zehaztu ´katamora´ euskara batuko ´gatanborea´ (= danbortxoa) den ala trikitilarien ´atanbora´. Artolak ´gozakiz egin jateko gauza bat, zenbait era eta irudi ezberdinez moldatzen dena´ oharrarekin dokumentatua. Jatorriz gatanbore formako gozokia ote?

katedra *(3, 9)* : aulki */ [xaseririk daude] Moisesen katedran edo xaserlekiuan (3):* eserita daude Moisesen aulkian edo eserlekuan. */ iror katedra (9):* hiru aulki.

katoselika *(5)* : txirikilan (haur jokoa)

katrera *(8)* : aulki

katulu *(5)* : katilu

katxet *(5)* : tatxet (iltze mota) OH. Azkuek dio guraizen bi zatiak batzen dituen iltzetxoa ere badela.

katxutxa *(5)* : txano

kau *(2, 5, 7, 8, 9)* : hau */ kristiaiak non [entzun] zien lege kau? (2):* kristauak non entzun zuen lege hau? */ lan kau egin garaian fanen nuk kara (5):* lan hau egin garaian (= egin eta gero) joanen naiz hara. */ kau kantatan dei (5):* hau kantatzen dute. */ libro kau [eskeintan dabeid] (7):* liburu hau eskaintzen diet. */ [kotta] kau perlaz beterik (8):* gona hau perlaz beterik. */ kau erran dein gizonek (9):* hau erran diten gizonek.

kaur *(3, 4, 5, 9, 10)* : hau */ kaur da ene seme maitia (3):* hau da ene seme maitea. */ kaur entzun baikoz erregiari, partitu zren (3):* erregeari hau entzun bezain laster, abiatu egin ziren. */ kaur dia ote Dabiden semia? (3):* hau ote da Dabiden semea? */ mertxede kaur egin daiguk (4):* mesede hau egin diguk. */ kaur [emon deiztan aitaren] (9):* hau aitarentzat eman zidaten. */ kaur beraginkeria [dun] (9):* hau sorginkeria dun. */ kaur Eibarren eta bi alaba Madriden (10):* hau Eibarren eta bi alaba Madrilen. */ noren da etse kaur? (10):* norena da etxe hau?

kausera *(5)* : *(suk.)* kausera

kausitu 1 *(3, 4, 5, 8, 9, 10)* : aurkitu, ediren */ zer txiki dra arekin kausitzen deinek! (3):* zer gutxi diren harekin aurkitzen direnak! */ zeren anitx itzen onki kausitako, biar dud pensamentiua eraman antzinadeneko trenpetra (4):* zeren hitz asko ongi aurkitzeko, antzinako garaietara

eraman behar baitut pentsamendua. */ ez dokei kausi (5):* ez dezakete aurki. */ maizterra ezin kausi (8):* maizterra ezin aurkitu. OH. Iparraldetik Gareseraino dokumentatua.

kausitu 2 *(5, 9, 10)* : asmatu, igarri */ kausitu diar (9):* asmatu dut. */ eztakiar kausiten duranetz (9):* ez dakit asmatuko dudan. */ eztun kausiten (9):* ez dun asmatuko.

kausitu 3 *(5)* : jo, eman (jomugan)

kautibu *(2)* : gatibu */ kautibuen reskateta (2):* gatibuak erreskatatzea.

kaxa *(5)* : antoisin, txolet

kaxal 1 *(2, 4, 5, 7, 8, 10)* : azal (landareena eta) */ [korostiari] kaxalaren gentako (4):* gorostiari azala kentzeko. */ lerrak du kaxaletik berze material bat (4):* pinuak azalean beste material bat du. */ [korostiaren] kaxalaz egiten dei beske txorien bizirik arrapatako (4):* gorostiaren azalaz lika egiten dute txoriak bizirik harrapatzeko. */ antzinetik alabatan yaianak nai yai kaxalez, eta atzirikoak biotzez (5):* aurretik laudatzen hauenak azalez maite hau, eta atzekoak bihotzez. */ libro[aren] kaxala gorri da (7):* liburuaren azala gorria da. */ aritze-kaxala, intzagur-kaxala, ler-kaxala, unr-kaxala (8):* haritz azala, intxaurrondo azala, pinu azala, hur azala (hurritz azala). */ kaxal banak (10):* azal batzuk.

kaxal 2 *(10)* : gazta-uztai */ kaxala (10):* gazta-uztaia. OH. Gazta egiteko erabiltzen den uztaia.

kaxeta *(5)* : antoisin, txolet

kaxkal *(5)* : *(suk.)* ogi kaskar (gaizki harrotua)

kaxkamar *(5)* : hazpizar

kaxola *(5)* : kazola zapal OH. Burdinazko kazola zapala, hiru hankaduna.

kaxtana *(2)* : *(bot.)* gaztaina

kazal *(9)* : azal (landareena eta)

kazkabillo *(5)* : *(bot.)* klaudia aran */ kazkabillo[ak] (5):* klaudia aranak.

kazkarria *(5, 11)* : kazkarria (artileko zikinkeria)

kazola *(9, 10)* : kazola

ke *(5, 7, 9)* : ke */ kea xoatan da txamidratik (7):* kea tximiniatik joaten da. */ kea (9, 10):* kea.

ke-min *(5)* : ke kaltegarri, ke-min OH. Begiei kaltegarria zaien kea.

keben *(2, 4, 6, 7, 8, 9, 10)* : hemen */ [E]rromakoak keben eta kebekoak kan (2):* Erromakoak hemen eta hemengoak han. */ keben dagua? (4):* hemen al dago? */ keben dago etxekoanderea (7):* hemen dago etxekoandrea. */ keben ni gaztena (8):* hemen ni gazteena. */ uste niezun keben zaudela (9):* uste nuen hemen zeudela. */ keben berean (9):* hementxe. */ igar den urtian egon zuntian keben (10):* igaro den urtean egon ziren hemen. */ keben ekusi niezun gizon bat (10):* hemen gizon bat ikusi nuen.

kebenko *(5, 7, 8)* : hemengo */ zuek kebenko zrei (7):* zuek hemengoak zarete. */ ´gisa berian´ da kebenkua, ´ber gisan´ beste altekoa (7):* ´gisa berean´ hemengoa da, ´ber gisan´ beste aldekoa (Zuberokoa). */ ama kebenko, aita´re kebenko, bai (8):* ama hemengoa, aita ere hemengoa, bai.

kebentik *(4, 5, 6, 7, 9, 10)* : hemendik */ goazen kebentik, iriaren erditik (4):* goazen hemendik, herriaren erditik. */ gentze kebentik (5):* ken zaitezte hemendik. */ kebentik Uztarrotzera laur kilometro [daude] (7):* hemendik Uztarrozera lau kilometro daude. */ ox kebentik (7):* goazen hemendik. */ kebentik kara amar urrats [dion] (9):* hemendik hara hamar urrats zagon. */ xoanen zrei kebentik biar? (10):* hemendik joango zarete bihar?

kebentik aintzina *(7)* : hemendik aurrera, aurrerantzean */ eskitan diar kebentik aintzina ezan elerik erran korreki (7):* hemendik aurrera horrekin ez hitz egiteko eskatzen di(n)at.

kebentik as *(5, 7)* : hemendik aurrera, aurrerantzean OH. Estornesek ´kebentikas´ ere

dokumentatua.

kei *(2, 3)* : ke */ argi oraino keitan dagona (3):* argia (kandela) oraindik ketan dagoena.

kei-kio *(5)* : ke-usain; mingostasun OH. Jaki keztatuen mingostasuna.

kein *(8)* : hain */ kein on nola gu (8):* hain ona, gu bezain ona.

keitaztu *(5)* : ketu, keztatu

keixu *(5)* : estutasun, estualdi

kek *(3, 4, 6, 7, 9)* : haiek */ berze borz [deuri] obro irabazi baidutur ekin edo kekin (3):* bertze bortz txanpon gehiago irabazi baititut haiekin. */ kek eskiua arrapatu zabein eta gentu nabaja (4):* haiek eskua harrapatu zioten eta labana kendu. */ kek [txakurra] ekusi dei (7):* haiek txakurra ikusi dute. */ kek bazekezeina? (9):* haiek ba al zekiten? */ gizon kek [galtegin dein] (9):* gizon haiek galdetu diten. */ kek egosi zeina? (9):* haiek egosi al zuten?

keki *(5, 9, 10)* : haiekin */ iduriak idurieki, ni ere keki (5):* antzekoak antzekoekin, ni ere haiekin. */ erran deitekela erraite keki (10):* erran daitekeela errate haiekin.

keleta *(1, 5, 10, 11)* : *(nek.)* langa, erromara OH. Aezkoan eta Oibarerrin ere dokumentatua.

kemalta *(5)* : ke-malta OH. Azkuek ´zuzen (eta lodi) gora doan kea´ esanahiarekin dokumentatua.

kemen *(3, 4, 10)* : hemen */ kemen Pedrok artan ziolarik elia, erran zaun (3):* hemen Pedrok hitza hartzen zuela, erran zion. */ errana badigu kemen ´eztagola betik urrutxa makila egiteko´ (4):* esana badugu hemen, ´ez dagoela beti hurritza makila egiteko´. */ kemen dagua? (4):* hemen al dago? */ kemen ez nien [ikasi] (10):* hemen ez nuen ikasi.

kemen edo kan *(3)* : hemen edo han */ erraiten badeizei ´Kristoa dago kemen edo kan´, ez dazazei xinets (3):* esaten badizuete ´Kristo hemen edo han dago´, ez ezazue sinetsi.

kemen eta kan *(3)* : hemen eta han */ gaxki paratruk [zeuden], barriatruk kemen eta kan, ardiak artzaîn bage bikala (3):* gaizki geraturik zeuden, hemen eta han barreiaturik, ardiak artzain gabe bezala.

kemenko *(4)* : hemengo */ kemenko elizan [agitu zen], mezaren erraiteko tenpran (4):* hemengo elizan gertatu zen, meza esateko garaian. */ kemenko mitilek egiten emon zein bi kuadrilla (4):* hemengo mutilek bi laguntalde egiten omen zituzten. */ korrengatik kemenko peona kario [da] (4):* horregatik hemengo peoia garestia da.

kementik *(3, 4, 5)* : hemendik */ egotxtan bagutzu kementik, oil gitzazu txerri saldo kortra (3):* hemendik botatzen bagaituzu, bidal gaitzazu txerri saldo horretara. */ kementik partitu zelarik (3):* hemendik abiatu zenean. */ kementik kara (3):* hemendik hara. */ os, bada, azka ztei edo xagi ztei, fan gitian kementik (3):* goazen, bada, altxa edo jaiki zaitezte, joan gaitezen hemendik. */ kementik fan dra Nabaskozeko merkatiuara iror emazte (4):* hemendik joan dira Nabaskozeko merkatura hiru emakume. */ kementik irur urteren buruko (4):* hemendik hiru urteren buruko. */ goazen kementik (5):* goazen hemendik.

kementik antzina *(4)* : hemendik aurrera, aurrerantzean */ kementik antzina ez naz xinen etxera (4):* hemendik aitzina ez naiz etorriko etxera. */ ekun beza pazienzia kemendik antzina (4):* eduki beza pazientzia hemendik aurrera.

ken *(5, 9)* : haien */ ken kontra (5):* haien aurka. */ ken amak [lotetu du] (9):* haien amak lotu du.

kengana *(9)* : haiengana

kenganik *(9)* : haiengandik

kengatik *(9)* : haiengatik

kentako 1 *(9)* : haientzat, haiendako

kentako 2 *(9)* : haietarako

kentu *(5)* : kendu */ belar koni urte guziuan ezau kentan lorea (5):* belar honi urte osoan ez zaio kentzen lorea.

ker *(7, 9)* : haiei

ker-ker *(5)* : ker-ker (lerro zuzenean) */ ker-ker daude mendi kortako lerrak (5):* ker-ker daude mendi horretako pinuak.

kereta *(5)* : langa, erromara OH. ´Kaleta, keleta, kereta´ formak ohikoak dira Nafarroa Garaian eta Iparraldean. Aragoiko Oskan ere ´keleta´ dokumentatua.

-keria *(5, 9)* : -keria */ tutulukeria (5):* tentelkeria. */ txarkeria (5):* txarkeria. */ xikinkeria (5):* xikinkeria. */ zentzugabekeria (5):* zentzugabekeria. */ beraginkeria (9):* sorginkeria.

kerren *(5)* : gerren (haragia erretzekoa)

keru *(5)* : kirats

ketan *(2, 4, 5)* : haietan */ iror egun ketan non egon zen? (2):* hiru egun haietan non egon zen? */ egun ketan guartu nintzen ortaz (4):* egun haietan berorretaz oroitu nintzen. */ aprilian edo tenpra ketan galteginen daud ya xin biar dionez (4):* apirilean edo denbora haietan galdetuko diot ea etorri behar duen. */ ketan bietan (5):* haietan bietan.

ketarik *(4, 9)* : haietatik */ anitxek bizia erkiten dei makila ketarik, ebaki ta saltan (4):* askok bizimodua ateratzen dute makila haietatik, ebaki eta salduz.

ketaz 1 *(4)* : haietaz

ketaz 2 *(4)* : haiekin (instrumentala) */ ketaz lotan dra zûrak, saltra eramaiteko (4):* (hurritz-adar) haiekin zurak lotzen dira, saltzera eramateko.

ketra *(9)* : haietara

kexagarri *(5)* : kezkagarri

kexakor *(5)* : bihurri

kexatu 1 *(3)* : kexatu */ kexatan zren guziuak [sontotu ztion] (3):* kexatzen ziren guztiak sendatu zituen.

kexatu 2 *(4)* : urduritu; kezkatu */ Karlomagnok, kexatruk, eztu lorik egitan (4):* Karlomagnok, urdurituta, ez du lorik egiten.

kexu *(3, 5)* : kexu, kexa */ kan guartan bazra zore anaxak diola zomait kexu zore kontra (3):* han ohartzen bazara zure anaiak zenbait kexu duela zure aurka. */ emazte [bapanak] kexu minik bage (5):* emazte batzuk kexu minik gabe.

kexu izan *(3)* : kexu izan */ kexu zrenak gatx eta dolore biziz (3):* kexu zirenak gaitz eta min biziz.

keztatu *(5)* : ketu, keztatu

-ki 1 *(2, 3, 5)* : -ki (adberbio atzizkia) */ klaroagoki erran zadan (2):* argiago(ki) erran dezadan. */ justoki [egin] zein (2):* zuzenki egin zuen. */ anitxki regozijatu (3):* izugarri(ki) poztu. */ gaxki erran (3):* gaizki erran. */ egiazki anitx da (3):* egiazki anitz da. */ mozki (5):* zakarki.

-ki 2 *(2, 10)* : -ki (jaki atzizkia) */ arki, axuriki, ainzki, olloki, txerriki (2):* ahariki, arkumeki, ahunzki, oiloki, txerriki. */ ollarkoki (10):* oilaskoki.

-ki 3 *(5)* : -ki (egur atzizkia) */ ñarreki (5):* zurgizenki.

kiatu *(8)* : usaindu, usaina izan */ balin leinak kiatan badu, bigarnak obro (8):* baldin lehenak usaintzen badu, bigarrenak gehiago.

kîatu 1 *(8)* : kirastu

kîatu 2 *(5)* : hondatu (janaria)

kiaztatu *(5, 7)* : lurrindatu, usain(a) eman

kidal *(5)* : adinkide
kikoso *(2, 4, 5, 9, 10)* : *(zoo.)* arkakuso */ zorria eta kikosoa (4):* zorria eta arkakusoa. */ kikoso korrek ezdaitad pikatan (5):* arkakuso horrek ez dit zizt egiten.
kikoso beragin *(5)* : *(zoo.)* arkakuso txiki (mota bat) */ kikoso beragina (5):* arkakuso txikia (mota bat). OH. Literalki ´arkakuso sorgina´.
kilikatu *(5)* : kilikatu
kilikor *(5)* : kilikabera, kilikor
kilin *(5)* : zurda, kima (zaldiena)
kilinko *(9, 10)* : *(anat.)* zakil */ kilinkua (9, 10):* zakila.
kilometro *(7)* : kilometro */ lurretik goikoaraino irorein eta larogeita borz mila kilometro dago (7):* lurretik ilargiraino hiruehun eta laurogeita bost mila kilometro dago.
killikor *(9)* : kilika, kilima */ anitx killikor diar (9):* kilima asko daukat.
kinbeste *(9)* : hainbeste, hainbertze */ zerengatik eurkitu dun kinbeste tenpra[n]? (9):* zergatik itxaron dun hainbeste denboran?
kinkistaño *(11)* : *(zoo.)* sugandila
kinkûn *(5)* : sudurkari
kiño *(5, 9)* : *(nek.)* lursail (herriak auzokoei utzia) */ axuriak kiñoetan gaintik, artzaiak pelota xokuan onki xatan ta onki edatan (5):* arkumeak lursailetan gaindi, artzainak pilota jokoan ongi jaten eta ongi edaten. */ axuriak kiñuetan gaintik eta artzaiak pelota-xokian (9):* arkumeak lursailetan gaindi eta artzainak pilota-jokoan. */ kiño bat, kiñuetan (9):* lursail bat, lursailetan.
kiñon *(5)* : *(nek.)* lursail (herriak auzokoei utzia)
kiñonada *(5)* : lursail-banaketa
kio *(7, 10)* : usain */ zer kio gaizto! (7):* zer usain txar! */ zer kioa (kiua)! (7):* zer usaina! */ entzuntu duna kioa? (10):* aditu al dun usaina?
kîo 1 *(3, 5, 8)* : usain */ ardaûaren kîua, koloria [eta] saboria (3):* ardoaren usaina, kolorea eta zaporea. */ kîo gaizto (8):* usain txarra.
kîo 2 *(5, 8)* : kirats */ kîo gaizto bat (8):* kirats txar bat.
kîo 3 *(5)* : gustu txar
kio egin *(5, 7, 10)* : usaindu, usain egin */ sudurra da kio egitako (7):* sudurra usaintzeko da. */ kio egin dien (10):* usain egin diten.
kîo egin 1 *(3, 5)* : usaindu, usain egin */ sudurrez kîo egitia (3):* sudurrez usaintzea.
kîo egin 2 *(5)* : kiratsa eduki
kiotu *(10)* : usaindu */ kiotan dien (10):* usaintzen diten.
kirkila *(5)* : txintxirrin (umeena)
kirkilla *(11)* : belarritako
kirkir *(5)* : *(zoo.)* kilker
kiromarro *(5)* : muturtu, zapuztu (adj.)
kiromarroka *(5)* : tirriki-tarraka (nekez ibiliz)
kirrika *(5)* : irrika, grina
kirrikagarri *(5)* : irrikagarri
kirrikago *(5)* : irrika, grina
kirrikan *(5)* : irrikan, irrikitan
kirrinka *(5)* : karranka, kirrinka
kirromarroka *(5)* : tirriki-tarraka (nekez ibiliz)

kiska-kaska *(5)* : kiski-kaska (norbait jotzearen onomatopeia)
kiskili *(5)* : *(haur.)* haur, ume
kiskinta *(5, 11)* : kisketa, txinget OH. Aznarezek ´kiskenta´ aldaera ere dokumentatua du.
kiskorratu *(11)* : kiskali (jakiak eta) OH. Aditz honen lekukotasuna ibarreko gaztelanian gordetako ´quiscorriar´ aditzean dago.
kixkolte *(5)* : *(anat.)* zilbor OH. Zaraitzun ´kixkolde´ dokumentatua.
kizkirri *(5)* : *(med.)* sarkoma
klaberina *(2)* : *(bot.)* krabelin */ klaberina (2):* krabelina.
klak *(5)* : klak (talkadaren onomatopeia) */ klakez autse zaitad gatulua (5):* klakez (talkadan) hautsi zait katilua.
klak egin *(5, 7)* : talka egin
klakada *(5)* : talka, talkada
klakaka xan *(5)* : mauka-mauka jan
klakatu *(5)* : irentsi, mauka-mauka jan
klakez *(5)* : kolpetik, bat-batean
klask *(5)* : klask OH. Hozkadaren, desitsastearen eta hausturaren onomatopeia.
klausk *(5)* : klausk (hozkadaren onomatopeia)
klika-klaka xan *(5)* : mauka-mauka jan
klixket 1 *(5)* : kisketa, txinget
klixket 2 *(5)* : *(mus.)* kriskitin, kastaineta
kloka *(5)* : kolpetxo
klunklun *(5)* : *(zoo.)* apo, zapo OH. Goñerrin eta Oltzan ´kunkun´ dokumentatua.
-ko 1 *(1, 2, 3)* : -ko (nongoa) */ Erratxuko errota altea (1):* Erratxuko errota aldea. */ gaineko Berreinze (1lm):* gaineko Berreinze. */ goiko lezea (1):* goiko leizea. */ kristiaia zeuriko heredero [da] (2):* kristaua zeruko oinordeko da. */ kan dagola xaseririk bere aitaren alteskoieko altian (2):* han dagoela eseririk bere aitaren eskuineko aldean. */ Jordaneko erribra guzutik [zuatzan gentiak] (3):* Jordaneko erribera osotik zihoan jendea. */ Jordanen berze alteko [gente anitx] (3):* Jordanen bertze aldeko jende anitz.
-ko 2 *(1, 4, 10, 11)* : -txo, -ko (txikigarria) */ arankoa (1lm):* ibartxoa. */ larrenkoa (1lm):* larraintxoa. */ zabalkoa (1):* zabaltzatxoa. */ manyoko (4):* mandotxo. */ allurko (10):* alortxo. */ apozarko (11):* apotxo (= zapaburu).
-ko 3 *(9, 10)* : -rako */ ene etseko (9):* nire etxerako. */ aurzaroko (9):* haurtzarorako. */ alurreko bidea (9):* alorrerako bidea. */ laneko bar du xan onki (10):* lanerako ongi jan behar du.
koarto *(9)* : logela */ iparreko koartoa (9):* iparreko logela.
koba *(1)* : *(geol.)* haitzulo */ nabar koba (1):* nabar koba.
kobenietu *(3)* : komeni izan */ lein irorak jeinari kobenietan denak (3):* lehen hirurak jaunari komeni zaizkionak.
kobesatu *(7, 8)* : aitortu */ kobesatra [xoan naz] (7):* aitortzera joan naiz. */ kobes ondo (7):* aitortu ondoan. */ kobesatu nun [eta] atxixatu nun (8):* aitortu naun eta jaunartu dinat. */ biek kobesaten gindela oian (8):* biak aitortzen ginela ohean.
kobesondo *(7)* : *(erl.)* aitortzeondo */ lein kobesatra eta kobesondo atxezatra (7):* lehenik aitortzra eta aitortzeondoan jaunartzera.
kobratu *(4)* : kobratu */ egun eta biar kobraten (4):* gaur eta bihar kobratuko.
kobre *(2, 10)* : *(kim.)* kobre */ kobria (10):* kobrea.

kobretse *(9)* : *(erai.)* udaletxe */ kobretsea (9):* udaletxea.
kobretxe *(5)* : *(erai.)* udaletxe
koek *(5)* : hauek */ koek gloriak tun (5):* hauek gloriak ditun.
-koi *(5)* : -koi */ ardaukoi, aurkoi (5):* ardokoi, haurkoi. */ ddunddukoi (5):* urdintxokoi, urdintxozale.
koitia *(4)* : hil-hasperen */ koitia da anitx eriri, iltako ordiuan ats azmoldiari (4):* hil-hasperena gaixo askoren hiltzeko orduko hats azmoldea (?) da.
koitta *(5)* : gona */ ortzakatu koittak (5):* oxkarratu gonak.
koka 1 *(5)* : ardatz-burdina OH. Ardazteko ardatzaren burdina kiribila.
koka 2 *(5, 11)* : kaskarreko
kokaiñi *(5)* : liho-zati OH. Azkuek ´goru-burutik ateratzen den liho zatia´ esanahiarekin dokumentatua.
kokatu *(5)* : kabitu, sartu
kokitu 1 *(5)* : karkaildu, gainbeheratu */ kokituaz yoa (5):* karkailduz hoa, gainbeheratuz hoa.
kokitu 2 *(5)* : karkaildu, okitu (adj.) */ zar kokitua (5):* zahar karkaildua, zahar okitua.
koko *(5)* : *(haur.)* ñañan, janari
kokots 1 *(5)* : lepo (alkandorarena)
kokots 2 *(5)* : buru, adimen
kokots 3 *(5)* : *(bot.)* kaliza (lorearena)
kokots-andi *(5)* : lotsagabe, mutur-handi (emakumea)
kola 1 *(3, 4, 8, 9, 10)* : honela */ zeren kola eskribitu baizion profetak (3):* zeren honela idatzi baitzuen profetak. */ kola erran dazaizeinian ere´ txezei kemen Mesias dagola´, etzazei xinets (3):* honela erran diezazuenean ere´begira hemen Mesias dagoela´, ez ezazue sinetsi. */ orratza sar eta ariak kola (8):* orratza sartu eta hariak honela. */ kola [sentoten dela] (10):* honela sendatuko dela.
kola 2 *(3, 4, 8, 9)* : horrela */ kola dra amalaur jenerazione (3):* horrela dira hamalau belaunaldi. */ eta kola erdiren dizu seme bat (3):* eta horrela erdiko da seme batez. */ kola izan deila (3):* horrela izan dadila. */ kola [beztitu da] (8):* horrela jantzi da.
kolako 1 *(3)* : honelako
kolako 2 *(3, 8, 10)* : horrelako */ [gloria] emon zein jangeikuari, emon ziolakoz kolako potestade gizoner (3):* jaungoikoa goretsi zuten, horrelako ahalmena eman zielako gizonei. */ enin ikusi kolako gaizarik (8):* ez nuen ikusi horrelako gauzarik. */ et´ ez kolako elizako gaizarik batre´re, ene tenpran ez (10):* eta horrelako elizako gauzarik batere ez, ene garaian ez.
kolaxe *(7, 10)* : horrelaxe */ kolaxe urdu da (7):* horrelaxe dirudi.
kolaxet *(8, 9, 10)* : horrelaxe */ espada bateki, kolaxet, krutxea [egitan zeia] (10):* gaztaezpata batekin, horrelaxe, gurutzea egiten zen.
koleto *(5)* : txaleko, koratilo
kolore *(3, 4, 7)* : kolore, margo */ ardaûaren kîua, koloria [eta] saboria (3):* ardoaren usaina, kolorea eta zaporea. */ zeuri kolore (4):* zeru kolore. */ koloreak (7):* koloreak, margoak.
koltxa 1 *(7)* : koltxoi */ koltxa ta burenegua dra anitx bella (7):* koltxoia eta burkoa oso bigunak dira.
koltxa 2 *(5)* : kutun (jostorratzak edukitzekoa)
komeni izan *(4, 5)* : komeni izan */ aren eskutik xin dein ber, izan deila komeni dena (4):* haren eskutik etortzekotan, izan dadila komeni dena. */ ñork ere eztaki obeki, gaizak nola komeni*

zazkan (4): inork ere ez daki hobeto, gauzak nola komeni zaizkion. */ guziuez komeni da xakin tzan ez dakienak (5):* ez dakienak guztiaz jakin dezan komeni da.

komenitu *(4)* : adostu */ zer egunez fanen zen komenitruk (4):* zer egunez joanen zen adosturik.

komento *(5)* : *(erai.)* komentu */ zer komento biar duan ekun betik nago pensatan (5):* zer komentu eduki behar dudan beti nago pentsatzen.

komunitate *(9)* : komun

komunkixe *(4)* : normalean */ naro eskatan naz gore jeinari bendizioniak, baia, komunkixe, aiketa buelta dein artio etsera (4):* maiz eskatzen dizkiot gure jaunari bedeinkapena, baina, normalean, harik eta etxera itzul dadin arte.

kona *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : hona */ eragu daztazeid kona (3):* ekar iezazkidazue hona. */ zertra xin zra kona? (3):* zertara etorri zara hona? */ daigun udan xinen [da] kona (4):* datorren udan etorriko da hona. */ nagi kona! (7):* etorri hona! */ aita, xin bedi kona (9):* aita, etor bedi hona. */ xi´ztei guziak kona (9):* zatozte guztiak hona. */ mayatzan xitan [dra] kona (10):* maiatzean etortzen dira hona. */ xizte kona (10):* etor zaitez hona. */ ta egoixtan zeia gazta kona (10):* eta gazta hona botatzen zuten.

konadreino *(9)* : honaino

konaino *(7, 10)* : honaino

konako *(5)* : honako (hau)

konat *(7, 8, 10)* : honantz; hona */ gizonak xuaiten bizren karat, konat (8):* gizonak joaten baitziren hara, hona.

konatago *(9)* : honantzago */ xin adi konatago (9):* etor hadi honantzago.

konbeni izan *(2, 3)* : komeni izan */ jeinak libra gitzan korpitzaren gatx konbeni ezten guzietarik (2):* jaunak libra gaitzan komeni ez diren gorputzaren gaitz guztietatik. */ konbeni bada, korpitzaren osagarriaren alkanzatako (2):* komeni bada, gorputzaren osasuna lortzeko. */ zeren kola konbeni baita (3):* zeren horrela komeni baita. */ onki erraitan tzu konbeni dela kontu emoitia gaiza guziuez (3):* ongi erraten duzu kontu ematea komeni dela gauza guztiez. */ [erraten asi zen] konbeni zela ura fan zedin (3):* esaten hasi zen komeni zela hura joan zedin. */ ez da konbeni egin dein kaur xei egunian (3):* ez da komeni hau jai egunean egin dadin. */ korpizari osagarri emoitako, konbeni bazau (3):* gorputzari osasuna emateko, komeni bazaio.

konbersazione *(10)* : elkarrizketa */ konbersazione [kori eragun deila] (10):* elkarrizketa hori eraman dutela. */ ezin konbersazionia segi (10):* ezin elkarrizketa jarraitu.

konbertitu *(3)* : *(erl.)* konbertitu, aldatu, bihurtu */ zeren erabiltan baizrei itxasoz eta lurrez konberti tzazein ber jentil bat (3):* zeren itsasoz eta lurrez ibiltzen baitzarete jentil bat konbertitzekotan.

konbidatu 1 *(3)* : konbidatu */ [bidian] erdeiten tzein guziuak konbida ditzazei ezteietra (3):* bidean aurkitzen dituzuen guztiak konbida itzazue ezteietara.

konbidatu 2 *(3)* : konbidatu (adj.) */ zerbutxariak [oiltu ztion] konbidatiuen deitra ezteietra (3):* zerbitzariak bidali zituen konbidatuak ezteietara deitzera. */ bigarnen aldiz oiltu zion zerbutxari, ordenurekin erraiteko aren partez konbidatiuer (3):* bigarren aldiz bidali zuen zerbitzaria, bere partez konbidatuei esateko aginduarekin.

konbietu *(3)* : komeni izan */ lein irorak jeinari konbietan dena[k] (3):* lehen hirurak jaunari komeni zaizkionak.

konbit *(3)* : gonbidapen, gonbit */ konbitetan lein xaserlekiuak [maitatan tei] (3):* gonbiteetan lehen eserlekuak maite dituzte.

konbitatu 1 *(3, 7)* : konbidatu */ errege bere semiaren ezteietra konbitatu zionaren parabola (3):* bere semearen ezteietara konbidatu zuen erregearen parabola. */ konbitatu zitazun bazkaltra (7):* bazkaltzera konbidatu zuen.

konbitatu 2 *(3)* : konbidatu (adj.) */ konbitatiuen atenzionez manatu zion emon lezabeila (3):* konbidatuen onbeharrez, eman liezaiotela agindu zuen.

kondenatu *(2, 3)* : kondenatu */ eburneara kondenaturik [ginzaudela] (2):* infernura kondenaturik geundela. */ il lezana izanen [da] kondenatruk ilik izaitra (3):* hil lezana hila izatera kondenaturik izanen da. */ [aita edo ama] maradika lezana izan deila kondenatruk iltra (3):* aita edo ama madarika lezana hiltzera kondenatua izan dadila.

koneino *(9)* : honaino

konek *(2, 3, 4, 8, 9, 10)* : honek */ eliza konek zonbat parte du? (2):* eliza honek zenbat zati ditu? */ konek ez du egoixtan (3):* honek ez du botatzen. */ konek ez zakan zerekin paka (3):* honek ez zeukan zerekin ordaindu. */ konek urdu du badiola obroxago azku eratsukitako (4):* [maisu] honek ematen du baduela gogo gehixeago irakasteko. */ [lerraren] frutu konek du izena´mura´ (4):* pinuaren fruitu honek izena du ´pinazia´. */ erri konek nexar egitan du gutaz guartan denean (4):* lur honek negar egiten du gutaz oroitzen denean. */ konek egin dien (8):* honek egin du. */ konek ere ikasi zia (10):* honek ere ikasi zuen.

koneki *(4, 8, 9)* : honekin */ koneki adios, ez bada oboroagoko nobedaderik (4):* honekin agur, ez bada gehiagoko berririk. */ beste koneki (8):* beste honekin.

koneki xunto *(4)* : honekin batera */ koneki xunto oiltan daud [ele lista] oiltu zaitadana (4):* (gutun) honekin batera, (berorrek) bidali zidan hitz zerrenda bidaltzen diot.

konekin *(3)* : honekin

konen 1 *(2, 3, 9)* : honen */ nor da kongregazione konen buria? (2):* nor da kongregazio honen burua? */ mandamentu konen kontra (2):* manamendu honen aurka. */ arri konen gainian (3):* harri honen gainean. */ Jesus Pedroren etsera [fatian], ekusi zion konen amagiarreba (3):* Jesus Pedroren etxera joatean, honen amaginarreba ikusi zuen. */ [ilabete] konen borzgarneko karta (4):* hil honen bosgarreneko gutuna. */ onki dun konen egitia (8):* ongi dun honen egitea (hau egitea).

konen 2 *(5)* : honen (konparatiboa) */ konen [ñorik eztur] (5):* honen txikirik ez dut. */ konen andia (5):* honen handia.

konengana *(9)* : honengana

konenganik *(9)* : honengandik

konengatik 1 *(4)* : honegatik */ konengatik dago emaztekien zerbutxiua galtruk (4):* honegatik dago emakumeen zerbitzua galdurik.

konengatik 2 *(4, 9)* : honengatik

konentako *(9)* : honentzat, honendako

konez *(4)* : honekin (instrumentala) */ yiketzian berextan digu gizakia emaztekitik letra konez k (4):* hiketan gizakia emaztekiagandik bereizten dugu letra honekin k.

konfesore *(5)* : aitorle */ ñore konfesoreak emon diztein penitenzia (5):* neure aitorleak eman didan penitentzia.

konfianza *(2, 3)* : konfiantza */ zerengatik kainbat konfianzareki biar baitugu esketu, kala nola gorea balitz (2):* zeren hainbat konfiantzarekin eskatu behar baitugu, gurea balitz bezala. */ mertxediak eskatako konfianzarekin (3):* mesedeak eskatzeko konfiantzarekin.

konfianza ekun *(3)* : konfiantza eduki */ konfianza biar diguna ekun (3):* eduki behar dugun

konfiantza. */ ekun zazu konfianza, ene semia (3):* eduki ezazu konfiantza, ene semea.

konforme *(4)* : ados, konforme */ [llobaren gainian orrek erraiten daikigunaz] konforme gaude (4):* bilobari buruz berorrek esaten digunaz konforme gaude.

kongo *(5)* : ume-txano (artilezkoa)

kongregazione *(2, 3)* : *(erl.)* kongregazio */ nor da kongregazione konen buria? aita saintia (2):* nor da kongregazio honen burua? aita santua. */ kristiaî guziuen kongregazionia, zoinen buriua baita aita saintiua (3):* kristau guztien kongregazioa, zeinaren burua aita santua baita.

koni *(3, 9)* : honi */ nontik xin zau koni kalako sabiduria? (3):* nondik etorri zaio honi halako jakituria? */ nik emon nai diez koni (3):* nik honi eman nahi diot.

konkarka *(5)* : anega erdi (ale neurria)

konkela-kaskaka *(5)* : zangalatrau, hankalatraba

konkili *(5)* : zangalatrau, hankalatraba

konklakaizka *(5)* : zangalatrau, hankalatraba

konparatu *(3)* : alderatu, konparatu */ baia nori konparaten dur nik gizaki kasta kaur? (3):* baina norekin alderatuko dut nik gizaki kasta hau?

konparazione *(3)* : alderaketa, konparazio */ etzeia xek en beino anitx obro balio konparazionerik bage? (3):* ez al duzue zuek haiek baino askoz gehiago balio konparaziorik gabe?

konpoîntu *(3)* : konpondu */ Santiago eta Juan bere anaxa, bere[n] erredien konpoîntan (3):* Santiago eta haren anaia Juan, beren sareak konpontzen. */ konpoîn zte bertan zore kontrariuarekin (3):* konpon zaitez berehala zure aurkariarekin. */ barurtan tziuanian konpoîn zazu zore buriua (3):* barau egiten duzunean konpon ezazu zeure burua.

konpontu *(5)* : konpondu */ kota onki konpontan badun, urtea igaren dun (5):* gona ongi konpontzen badun, urtea igaroko dun.

konpotu *(7)* : konpondu */ apezak eta eta alkatek konpotu ziteia (7):* apaizak eta alkateak konpondu zinaten. */ yik eta nik konpoten diagu (7):* hik eta nik konpunduko diagu.

konsejo *(2)* : aholku */ konsejo biar diona (2):* aholku behar duena.

konsejo emon *(2)* : aholku eman, aholkatu */ konsejo biar dionari konsejo emoitia (2):* aholku behar duenari aholku ematea.

konserbatu *(2, 3, 4)* : kontserbatu */ fede rezibitu ginienaren konserbatako (2):* jaso genuen fedea kontserbatzeko. */ ard[a]û berria egotxtan dei zagi berrietan eta kola konserbatan [dra] bata eta berzia (3):* ardo berria zahagi berrietan botatzen da eta horrela bata eta bestea kontserbatzen dira. */ konserba zak gutaz asetako ganiua (4):* kontserba ezak gurekin asetzeko gogoa.

konsolatu *(3)* : kontsolatu */ triste denaren konsolatia (3):* triste dagoena kontsolatzea. */ konsolatra [xin zintzein] (3):* kontsolatzera etorri zineten.

kontako 1 *(2, 3, 8, 9)* : honetako */ non zegon jeina mundu kontako gaizak kreatu bagerik? (2):* non zegoen jauna mundu honetako gauzak sortu gabe? */ mundu kontakoa (2):* mundu honetakoa. */ Erronkari balle kontako zomait iritan erraitan den gisa (3):* Erronkari ibar honetako zenbait herritan erraten den moduan. */ ni etxe kontako ume [naz] (8):* ni etxe honetako alaba naiz.

kontako 2 *(3, 4, 7, 9)* : honetarako */ erraiten du ez digula ontarzun xuntatu biar mundu kontako, baizik zeuriko (3):* erraten du ez dugula ondasunik elkartu behar mundu honetarako, zerurako baizik. */ kontako arten digu obro tenpra (4):* honetarako denbora gehiago hartuko dugu. */ biaje kontako ez diar bear [kori] (7):* bidaia honetarako ez diat behar hori.

kontan *(2, 3, 4, 7, 9)* : honetan */ zer dugu artiklo kontan? (2):* zer dugu artikulu honetan? */ zonbat*

egunez egon zen mundu kontan? (2): zenbat egunez egon zen mundu honetan? */ baia Kristoren sortiua izan zen gisa kontan (3):* baina Kristoren sorrera modu honetan izan zen. */ nola al ekunen digu erden leku kontan ogi aski? (3):* nola aurkitu ahal izango dugu leku honetan nahikoa ogi? */ kontan oiltan daud errespuesta (4):* (gutun) honetan erantzuna bidaltzen diot. */ joko kontan batak besteari oillaba emoitan d[au] (5):* joko honetan batak besteari ardagaia ematen dio. */ negu kontan beste txerri bat ilen digu (7):* negu honetan beste txerri bat hilko dugu. */ oi kontan onki lo egitan da (7):* ohe honetan ongi lo egiten da. */ nork manatan du etse kontan? (9):* nork agintzen du etxe honetan?

kontarik *(3, 4, 5, 6, 9)* : honetatik */ kontarik igartan dena izorro gaxtotarik xiten da (3):* honetatik igarotzen dena sustrai txarretatik etortzen da. */ anitx dra sartan drenak bide kontarik (3):* anitz dira bide honetatik sartzen direnak. */ gatarro denian, lore kontarik egos (4):* katarroa denean, egosi lore honetatik. */ egun eta betiko oiltan yaid etse kontarik (5):* gaur eta betiko bidaltzen haut etxe honetatik. */ oren kontarik (6):* ordu honetatik. */ eztiteken igar borta kontarik (9):* ez daiteken igaro ate honetatik.

kontarik landa *(3)* : honetaz gain, honetaz kanpo */ badia berze gisatazko graziarik, kontarik landa? (3):* ba al da beste gisatako graziarik, honetaz gain?

kontatu 1 *(3, 4, 5)* : kontatu */ txerrizaînak îesitu zren eta [agitan zen guziua] kontatu zein (3):* txerrizainak ihesi joan ziren eta gertatzen zen guztia kontatu zuten. */ [agitu guziua beren nausiari] kontatra [fan zren] (3):* gertatutako guztia beren nagusiari kontatzera joan ziren. */ fan eta konta zazei Juani ekusi tzeina (3):* joan eta konta iozue Juani ikusi duzuena. */ ene ama zenak kontatan zaitadan (4):* nire ama zenak kontatzen zidan. */ biar daud erran ez nazala adexkide kontu baten bi aldiz kontatako (4):* (berorri) esan behar diot ez naizela adiskide kontu bat bi aldiz kontatzeko. */ agitan dena kontatan du (5):* gertatzen dena kontatzen du. */ kontatu dien, kontatan dien (10):* kontatu din, kontatzen din.

kontatu 2 *(3, 4, 7)* : zenbatu */ xaurien buruko biluak ere kontatruk [daude] (3):* zeuen buruko ileak ere zenbaturik daude. */ [oren igartan drenak] kontatako (4):* igarotzen diren orduak zenbatzeko. */ ez deiteke konta (7):* ez daiteke zenbatu.

kontaz 1 *(3, 6)* : honetaz */ ez dakiziua fariseuak eskandalizatu drela kontaz? (3):* ez al dakizu fariseuak honetaz eskandalizatu direla? */ kontaz [galteginez] (3):* honetaz galdetuz.

kontaz 2 *(4)* : honekin (instrumentala) */ yiketzian berextan digu emaztekia gizakitik [letra] kontaz n (4):* hiketan emaztekia gizakiagandik bereizten dugu letra honekin n.

kontaz edo kartaz *(5)* : honetaz edo hartaz

kontent *(7, 9)* : pozik */ anitx kontent [eginen dut] (7):* oso pozik egingo dut. */ gore gaztegoan zer kontent ginden San Joan egunean dantzara xuaitako (9):* gure gaztaroan zer pozik ginen San Joan egunean dantzara joateko. */ mitilak xiten zrenean zer kontent gu! (9):* mutilak etortzen zirenean zer pozik gu! */ eta zer kontent (10):* eta zer pozik!

kontiua erkin *(4)* : kontua atera */ ya erkiten dionez kontiua zomana saltu tein [arraultziak merkatiuan] (4):* ea kontua ateratzen duen zenbana saldu dituzten arrautzak merkatuan.

kontra 1 *(2, 3, 4, 5)* : aurka, kontra */ joangeiko jeinaren legearen kontra xitan drenak (2):* jaungoiko jaunaren legearen aurka etortzen direnak. */ mandamentu konen kontra (2):* manamendu honen aurka. */ fan zte, zeren il baitra xa makinatan zeinak aurraren biziaren kontra (3):* joan zaitez, zeren jadanik hil baitira haurraren biziaren kontra jarduten zutenak. */ zore zankua eztein tropeza arri zomaiten kontra (3):* zure oina ez dadin behaztopatu zenbait harriren kontra. */ kuek zore kontra [erraiten deina] (3):* hauek zure kontra erraten dutena. */ zure*

kontra solo egin diez bekatu (4): zure aurka bekatua soilik egin dut. */ erronkaritarrak bearnesen kontra burzegitu zrelakoz (5):* erronkariarrak biarnotarren aurka buruzagitu zirelako.

kontra 2 *(3, 4, 9, 10)* : honetara */ graziak emoitan daizur, utzu nidaizkos eltra egun kontra (3):* eskerrak ematen dizkizut, egun honetara heltzen utzi nauzulako (?). */ kanpoko gente anixko xiten da fiesta kontra (4):* kanpoko jende dezente etortzen da festa honetara. */ balle kontra ez daiteke xin (4):* ibar honetara ez daiteke etorri. */ gain kartarik erori dun pe kontra (9):* gain hartatik erori dun pe honetara. */ etse kontra (9):* etxe honetara. */ apeza idi kontra [xitan zia] (10):* apaiza herri honetara zetorren.

kontrizione *(2, 3)* : *(erl.)* kontrizio */ kontrizionezkoa (2):* kontrizionezkoa. */ konfesione on baten egitako, biar da kontrizionezkua? (3):* aitortza on bat egiteko, kontrizionezko mina behar da?

kontu 1 *(2, 3, 4, 5, 8)* : kontu */ biar daud erran ez nazala adexkide kontu baten bi aldiz kontatako (4):* (berorri) esan behar diot ez naizela adiskide kontu bat bi aldiz kontatzeko. */ bizi denak, aurtengo negiuaz, ekunen du kontu franko (4):* bizi denak, aurtengo neguaz, kontu franko edukiko du. */ karta kontan oiltan daud kontu bat (4):* gutun honetan kontu bat bidaltzen diot. */ kontu bil, mundu guzutik barriatako (5):* kontuak bildu, mundu osotik barreiatzeko. */ ez durala konturik batrere nik (8):* ez dudala konturik batere nik. */ bestela erranen gunian, bai, zomeit kontu (8):* bestela esango genituen, bai, zenbait kontu. */ kontu bat amintto bat luzexka (10):* kontu bat luze samarra.

kontu 2 *(3, 7)* : kontu, arreta */ baia konturekin bizi ztei kolako gizonekin (3):* baina konturekin bizi zaitezte horrelako gizonekin. */ ni ebiltan naz kontureki (7):* ni kontuz ibiltzen naiz.

kontu 3 *(4, 7, 10)* : *(mat.)* kontu */ ya erkiten dionez kontiua (4):* ea kontua ateratzen duen. */ kontua (kontia) zomat [da]? (7):* kontua zenbat da? */ xuxen kontuentako (7):* zuzena (ona da) kontuetarako. */ eramaitan gunia kontia (10):* kontua eramaten genuen.

kontu artu *(3)* : kontu hartu */ [errege bat], zoinek nai ekun baizion kontiuak artu bere zerbutxari mitiler (3):* errege bat, zeinek bere zerbitzari morroiei kontuak hartu nahi izan baitzizkien.

kontu emon *(2, 3)* : kontu eman */ ele aurer zernaiden erran lezeinetaz gizonek biar deila emon kontu (3):* gizonek esan lezaten edozein hitz alferrez kontu eman behar dutela. */ onki erraitan tzu konbeni dela kontu emoitia gaiza guziuez (3):* ongi erraten duzu kontu ematea komeni dela gauza guztiez. */ [nausiak zerbutxariak] deitu ztion kontiuen emoitra (3):* nagusiak zerbitzariak deitu zituen kontuak emateko.

konxabatu *(4)* : lasaitu, baretu */ ez naiteke konxaba xakin naiz noiz izanen den txiki gorabera (4):* ez naiteke lasaitu jakin nahirik noiz izango den (hori) gutxi gorabehera. */ boztario artu nionak ez nu eiztan konxabatra, eskribitu bage (4):* hartu nuen pozak ez dit lasaitzen uzten, idatzi gabe.

kopor *(5, 11)* : gopor, opor (ontzitxoa) OH. Aznarezek gaztelanian gordetako ´coporro´ = ´adarrez eginiko edalontzia´ esanahiarekin dokumentatua.

kor *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : hor */ zer sinestan dugu kor? (2):* zer sinesten dugu hor? */ kor ene zerbutxaria (3):* hor nire zerbitzaria. */ kor izanen da ortzez garraska egitia (3):* hor izanen da hortzez karraska egitea. */ kor dago, kor diozu, kor diok, kor dion (4):* hor dago, hor dagozu, hor zagok, hor zagon. */ tartakerio bat badokei kor (5):* elkarrizketa txepel bat badaukate hor. */ kor tzu oia, mixiak zuri ta xai [dra] (7):* hor duzu ohea, izarak zuriak eta garbiak dira. */ zer egitan tzei kor? (8):* zer egiten duzue hor? */ bertz bat ureki eta sagar bat flotatzen kor (10):* pertz bat urarekin eta sagar bat ur gainean hor. */ xas adi kor (10):* eser hadi hor.

kor konpon! *(3, 4)* : hor konpon! */ kor edo kan konpon ztei xek! (3):* hor konpon zuek! */ kor*

konpon Marianton! (4): hor konpon Marianton!

koral *(4)* : egur-gihar (pinuena) */ lerrak biotzetik eramaiten du material bat, baitu izena koral (4):* pinuak bihotzean material bat darama, izena ´koral´ (egur-giharra) duena. */ koral errazia anixko diona kemen gastatan digu argitako (4):* erretxina dezente duen egur-giharra hemen argitarako gastatzen dugu. */ koralezko materialak iraintan du millaka urtiak (4):* egur-gihar materialak milaka urtez irauten du.

korbora *(5)* : atabaka (elizakoa)

kori 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : hori */ kori izanen da ekunik anditako (3):* hori handitzat edukia izango da. */ kori bera egotxtan zabein begitarteara (3):* hori bera aurpegiratzen zioten. */ eitzazu nik erkin tzadan autzxko kori zore begitik (3):* utz ezazu nik atera dezadan ahoztxo hori zure begitik. */ zer arroitu da kori? (4):* zer zarata da hori? */ onki atatruk dago etse kori (5):* altzariz ongi horniturik dago etxe hori. */ sorzaroz da gizon kori utsi (5):* jaiotzaz (jaiotzez) da gizon hori itsua. */ zer da kori? kori [txakurra] da (7):* zer da hori? hori txakurra da. */ kori ez da kebenko (7):* hori ez da hemengoa. */ kori biar dien izan (8):* hori izan behar du (hilabeteak). */ orrek bazakiena atzo kori? (9):* berorrek ba al zekien atzo hori? */ ez ganakien berri kori (9):* ez genekien berri hori. */ zomait ele bai, baia kori eztu aski (10):* zenbait hitz bai, baina hori ez du aski. */ keben egon den kori (10):* hemen egon den hori. */ kori, kori! (10):* hori, hori!

kori 2 *(10)* : hori (harridurazkoa) */ belaizurik egutxan sar kan guziak, etzulukaka, kori gaiza itsusia! (10):* biluzik ibaian sartu han guztiak, itzulipurdika, hori gauza zatarra!

koriek *(3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : horiek */ gente koriek fan ditian irietra (3):* jende horiek herrietara joan daitezen. */ utzul zazu goregana begi koriek (3):* itzul itzazu guregana begi horiek. */ begi koriek (4):* begi horiek. */ zer algar dren miise ta oi-oixal koriek! (5):* zer gardenak diren izara eta ohe-oihal horiek! */ koriek ardi dra (7):* horiek ardiak dira. */ ele koriek erran zan bedra-bedra (7):* hitz horiek esan itzan banan-banan. */ koriek egosi dei ote eznea? (9):* horiek egosi ote dute esnea? */ bai, koriek gisa (10):* bai, horiek bezala. */ koriek zer bar dei egin, ikasi bage? (10):* horiek zer egin behar dute, ikasi gabe? */ neskaxi koriek zartu tun anitx (10):* neskatxa horiek anitz zahartu dira.

korieki *(7, 9, 10)* : horiekin */ guk elerran diegu korieki (7):* guk horiekin hitz egin dugu. */ bi mazte xuanen tun gizon korieki (10):* bi emakume joango ditun gizon horiekin.

korien *(2, 5, 9)* : horien */ krutxeak badia birtuterik etsai korien kontra? (2):* gurutzeak ba al du bertuterik etsai horien aurka? */ [erle] korien eztia gore aurrak ñola ezin doke murtxa (5):* erle horien eztia gure haurrak inola ezin du murtxikatu.

koriengana *(9)* : horiengana

korienganik *(9)* : horiengandik

koriengatik *(9)* : horiengatik

korientako 1 *(7, 9)* : horientzat, horiendako

korientako 2 *(9)* : horietarako

korier *(9)* : horiei

korietan *(10)* : horietan; hor(tik) zehar; hor nonbait */ ori egon da korietan (10):* berori (leku) horietan egon da.

korietarik 1 *(9, 10)* : horietatik

korietarik 2 *(10)* : horietakoak */ korietarik muttikoek kantatzen [zein] (10):* horietakoak mutikoek kantatzen zituzten.

korietra *(9)* : horietara */ ez aiela eror [xarga] korietra, suge bitago (9):* ez hadila eror sasi

horietara, sugeak baitaude.

korik *(2, 3, 6, 10)* : horiek */ zer [etsai] drade korik? (2):* zer etsai dira horiek? */ eta sinestan zia misterio korik? (2):* eta sinesten dituzu misterio horiek? */ zore begi miserikordiazko korik (2):* zure begi errukizko horiek. */ korik guziuak guardatu tur ñore gaztezutudanik (3):* horiek guztiak neure gaztarotik gorde ditut. */ erran zazu arri korik buelta tiala ogitan (3):* esan ezazu harri horiek bihur daitezela ogi. */ gure abogada, zuri diazkuzu zore begi korik (3):* gure abokatua, itzul iezazkiguzu zure begi horiek. */ xarrek ez [zein egitan] dantza korik (10):* zaharrek ez zituzten egiten dantza horiek. */ floreak, flore xuri korik (10):* loreak, lore zuri horiek.

korko *(4)* : horko */ betik baratan naz ernari, noiz artio irainen daun korko lana[k] (4):* beti geratzen naiz erne, noiz arte iraungo dion horko lanak.

korkoil 1 *(5)* : *(zoo.)* pipi (egurjalea)

korkoil 2 *(5)* : *(zoo.)* urdai-har

korkoil 3 *(5)* : ile-bolatxo, hauts-bolatxo

korosti *(1, 2, 4)* : *(bot.)* gorosti */ korosti muga (1):* gorosti muga. */ korostia (1, 2):* gorostia. */ ezpela, illurria, korostia eta otaka (4):* ezpela, elorria, gorostia eta otaka dira. */ korostiaren ostoa on [da] aintz eta ardientako (4):* gorostiaren hostoa ona da ahuntz eta ardientzat.

korostidoi *(1)* : gorostidi

korpitz *(5, 7)* : gorputz */ Erronkarin dago Julian Gaiarreren korpitza (7):* Erronkarin dago Julian Gaiarreren gorputza.

korpiz *(2, 3, 4, 5, 8, 9)* : gorputz */ korpiza non baratu zen? krutxian (2):* gorputza non geratu zen? gurutzean. */ zore korpiz guziua fan dein iburniara (3):* zure gorputz osoa infernura joan dadin. */ zore korpizaren argia zore begiak dutzu (3):* zure gorputzaren argia zure begiak dituzu. */ libra gitzala korpizeko gatx guziuetarik (3):* libra gaitzala gorputzeko gaitz guztietatik. */ emon dazkigula korpizeko konbeni den mantenimentiua (3):* eman diezagula gorputzerako komeni den mantenua. */ korpiz me bat edo mear bat (4):* gorputz mehe edo estu bat. */ mia da korpizaren gia (5):* mihia da gorputzaren gidaria. */ korpiza (8, 9):* gorputza.

korra *(7, 10)* : horra */ korra [xoan nintzia] (7):* horra joan nintzen. */ e´ztei xoan korra! (10):* ez zaitezte joan horra! */ krima, biltan gunia garia korra (10):* zakua, garia biltzen genuen horra.

korrako *(5)* : horrako (hori)

korrek *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : horrek */ [eskiuak] ekuzi gabe xatiak, korrek ez [dio] zikintan (3):* eskuak garbi gabe jateak, horrek ez du zikintzen. */ erran duan gobernuko korrek lerdoi bat [erosirik zakan] (4):* esan dudan gobernuko horrek pinudi bat erosita zeukan. */ kikoso korrek ezdaitad pikatan (5):* arkakuso horrek ez dit zizt egiten. */ guarpen ona du gizon korrek (5):* oroimen ona du gizon horrek. */ zer kio ona dien lili korrek! (7):* zer usain ona duen lore horrek! */ zomat balio du korrek? (9):* zenbat balio du horrek? */ [badu] ile ardi korrek (9):* badu artilea ardi horrek. */ korrek egitan dien bedeginkeria (9):* horrek sorginkeria egiten din. */ korrek ekusi dien txori bat (10):* horrek txori bat ikusi din.

korreki *(4, 7, 8, 9, 10)* : horrekin */ korreki oiltu zion (4):* horrekin bidali zuen. */ eskitan diar kebentik aintzina ezan elerik erran korreki (7):* hemendik aurrera horrekin ez hitz egiteko eskatzen di(n)at. */ neskatuak kola beztitruk, traje korreki, kottak azkatruk (8):* neskatoak horrela jantzirik, jantzi horrekin, gonak goraturik. */ esku korreki (10):* esku horrekin.

korrekin *(3)* : horrekin */ korrekin eitzu zitzaun diabiuak (3):* horrekin utzi zuen deabruak [Jesus].

korren 1 *(2, 4, 5)* : horren */ korren bizia dun udan kanta eta kanta (4):* horren bizia dun udan

kanta eta kanta. / *unratze korren ostoak txurruxtaka itzak (5):* erauzi itzak hurritz horren hostoak.

korren 2 *(5)* : horren (konparatiboa) / *korren ñorik eztur (5):* horren txikirik ez dut. / *korren andia (5):* horren handia.

korrengana *(9)* : horrengana

korrenganik *(9)* : horrengandik

korrengatik *(2, 3, 4, 5, 9)* : horregatik / *ziauren miserikordia korrengatik (2):* zeure erruki horregatik. / *[saria] emonen daizu korrengatik (3):* saria emango dizu horregatik. / *korrengatik kostatan zaiztad orren kartak (4):* horregatik kostatzen zaizkit berorren gutunak. / *ez adi lotsa korrengatik (9):* ez hadi beldurtu horregatik.

korrentako *(9)* : horrentzat, horrendako

korri *(3, 4, 5)* : horri / *[´lekuz muta zte´] erran dokezei mendi korri (3):* ´alda zaitez lekuz´ esan diezaiokezue mendi horri. / *etzaiala xinets korri (4):* ez iezaioala sinetsi horri.

korrikolari *(11)* : korrikalari

korrok egin 1 *(5)* : hitza ez bete

korrok egin 2 *(5)* : hautsi; puskatu

korrokada 1 *(5)* : hitz hauste

korrokada 2 *(5)* : haustura

kortako 1 *(4, 5, 8, 9)* : horretako / *ker-ker daude mendi kortako lerrak (5):* ker-ker daude mendi horretako pinuak. / *triste nazela kortako (8):* triste naizela horretarako (kontuak esateko).

kortako 2 *(4, 9)* : horretarako / *kortako, [obeki entelega tzan] (4):* horretarako, hobeto uler dezan.

kortakoz *(3)* : hortakotz, horregatik / *kortakoz otoi egitan dur Maria betik birjenari (3):* hortakotz otoitz egiten diot Maria beti birjinari.

kortan *(2, 5, 7, 8, 9)* : horretan / *gisa kortan laur persona dugu Trintate saintian (2):* modu horretan lau pertsona ditugu Hirutasun santuan. / *goen-barren zabillelarik, [abre] kori turrunbero kortan larrutu [zen] (5):* gora eta behera zebilela, abere hori amildegi horretan larrutu zen. / *kortan ez du obenik (7):* horretan ez du errurik. / *ze egitan dik kor, karrika kortan? bada, fotografian egitan (8):* zer egiten dik hori, kale horretan? bada, argazkia egiten. / *zer dun entxanume kortan? (9):* zer dun eltzetxo horretan?

kortarik *(9, 10)* : horretatik / *ezazeila edan ur kortarik (10):* ez ezazuela edan ur horretatik.

kortaz *(3, 6)* : horretaz / *zomat gisatra usatan du kristiaîak señale kortaz? (3):* zenbat modutan baliatzen da kristaua seinale horretaz?

kortik *(3, 4, 6, 10)* : hortik / *aparta adi kortik, Satanas! (3):* ken hadi hortik, Satanas! / *kortik oil beztad direzionia, nora biar daudan eskribitu (4):* hortik bidal biezat helbidea, nora idatzi behar diodan. / *xauna, gen bedi kortik (6):* jauna, ken bedi hortik. / *lenao xoaitan zia karrika gora kortik (10):* lehenago kalean gora joaten zen hortik.

kortra *(3, 9)* : horretara / *egotxtan bagutzu kementik, oil gitzazu txerri saldo kortra (3):* hemendik botatzen bagaituzu, bidal gaitzazu txerri saldo horretara. / *ortzei [iri] xaurien aurkian agiri den kortra (3):* zoazte zeuen aurrean ageri den herri horretara. / *ez adi sar [ñardoi] kortra (9):* ez hadi sar sasidi horretara.

kortxe *(5)* : hortxe / *kortxeko[a] (5):* hortxekoa.

kosino *(2, 3, 7, 8, 9, 10)* : lehengusu / *ez dreia bere kosino Santiago eta Judas? (3):* ez al dira bere lehengusuak Santiago eta Judas? / *kosino ditun (10):* lehengusuak ditun.

koska *(11)* : kaskarreko
kosko 1 *(5)* : oskol */ arraultze-kosko[a] (5):* arrautza-oskola.
kosko 2 *(5)* : *(bot.)* leka
kosko 3 *(5)* : mutxikin
kosko 4 *(11)* : kosko (buruaren goiko aldea)
koskor *(11)* : koskor, ogi-koskor OH. Hitz honen lekukotasuna ibarreko gaztelanian gordetako ´coscorro´ hitzean dago.
kostatu *(4)* : kostatu */ ezaitad deus ere, ez baizaitad deuririk kosta (4):* ez zait deus ere axola, ez baitzait deirurik kostatu. */ kainbat kostatan zaunian (4):* hainbat kostatzen zaionean. */ korrengatik kostatan zaiztad orren kartak (4):* horregatik kostatzen zaizkit berorren gutunak.
kostu *(4)* : kostu */ orai berian irabaztan du kostiua eta irur pezeta (4):* oraintxe irabazten du kostua eta hiru pezeta.
kota *(5, 6, 9, 10)* : gona; azpiko gona */ kota onki konpontan badun, urtea igaren dun (5):* gona ongi konpontzen badun, urtea igaroko dun. */ gerruntzea emaztekiek ezarten dei soinaren ondarretik anken anditako ta kotak eztian apal eror (5):*gerri-kuxintxoa emakumeek jartzen dute soinaren hondarretik aldakak handitzeko eta gonak ez daitezen behera erori. */ kota konen malogua (6):* gona honen mendela (barrena).
kota-pellota *(5)* : gonazpiko, azpiko gona
kotaxuri *(10)* : gonazpiko, azpiko gona */ kotaxuria (10):* azpiko gona.
kotexa *(5)* : harilkai, astalkai
kotexatu *(5)* : harilkatu, astalkatu
kotillezko *(9)* : gona (artilezkoa)
kotta *(6, 8, 10)* : gona; azpiko gona */ kotta kuek (6):* gona hauek. */ neskatuak kola beztitruk, kottak azkatruk (8):* neskatoak horrela jantzirik, gonak goraturik. */ kotta kurak [eremaitan zeia] (10):* gona haiek eramaten zituzten.
kotxe *(8)* : auto, kotxe */ zer, kotxian xin zria? (8):* zer, kotxean etorri al zara?
kotxegi *(5)* : harilkai, astalkai
kotxesa *(5)* : harilkai, astalkai
kotxu *(5)* : *(nek.)* sega-poto
koxalena *(9)* : lehengusina */ bi koxalena (9):* bi lehengusina.
koxina 1 *(5)* : edredoi
koxina 2 *(5)* : albo-kuxin OH. Emakumeek gerri alboetan jartzen zuten kuxina, beren gonazpikoari eusteko.
koxkolte *(5)* : *(anat.)* zilbor OH. Zaraitzun ´kixkolde´ dokumentatua.
kozatu *(5)* : kutsatu
kozka 1 *(5)* : kaskarreko
kozka 2 *(5)* : kuluxka, lo-kuluxka
kozkor 1 *(5)* : *(anat.)* giltzadura, artikulazio
kozkor 2 *(5)* : *(anat.)* burezur
kozkor 3 *(11)* : koskor */ kozkorra (11):* koskorra. OH. ´Lur gogorra´ esanahiarekin ere dokumentatua.
kozkor 4 *(11)* : ausardia
kozolda *(5)* : *(med.)* zarakar OH. Gaixotasun baten ondoren azalean sortzen den zarakarra.
kozu 1 *(5)* : *(med.)* kutsatze

kozu 2 *(5)* : *(med.)* izurri

kozukor *(5)* : kutsakor

kozuzko *(5)* : kutsakor

kredo *(2)* : *(erl.)* kredo */ nork erran zien kredoa? apostolo saintiek (2):* nork erran zuen kredoa? apostolu santuek. */ kredoan daudian misterioak (2):* kredoan dauden misterioak.

kriazale *(2)* : sortzaile */ lurraren kriazale (2):* lurraren sortzaile.

krima *(5, 9, 10)* : zaku, zorro */ azka zan krima biskarreara (9):* altxa ezan zorroa sorbaldara. */ krima, biltan gunia garia korra (10):* zakua, garia biltzen genuen horra.

krisk *(5)* : krisk (gauza txikien hausturaren onomatopeia)

krisket *(5)* : kisketa, txinget

kristal *(10)* : kristal */ aurrek, arrikaldika, autse dein kristal guziak (10):* haurrek, harrika, kristal guztiak hautsi ditinate. */ ezin bil karpintero bat kristalen izartra (10):* ezin bildu zurgin bat kristalak jartzera.

kristale *(3)* : kristal */ nola iguzkiaren rayua erkitan baita kristale batarik kaur autse eta zikintu bage (3):* eguzki izpia kristal batetik ateratzen den bezala, hau hautsi eta zikindu gabe.

kristiai *(2, 5)* : *(erl.)* kristau */ kristiai guzien [eliza] (2):* kristau guztien eliza. */ giaur edo gore kristiai laguna (2):* geu edo gure lagun kristaua. */ zer da doktrina kristiaia? (2):* zer da dotrina kristaua? */ nor da kristiaia? persona batixatia (2):* nor da kristaua? pertsona bataiatua.

kristiaî *(3, 4)* : *(erl.)* kristau */ kristiaî oro da anixki obligatruk debozione ekutra (3):* kristau oro erabat behartua da debozioa edukitzera. */ [elurragatik ezbaizaiken] kristiaîk erkin [karrikara] (4):* elurragatik ez baitzitekeen kristaurik irten kalera.

kristiaingu *(4)* : *(erl.)* kristautasun */ kristiaingiuaren eliza saintiuan [xinetstan dud] (4):* kristautasunaren eliza santuan sinesten dut.

krutxate *(5)* : *(met.)* mendebal, haizete, aldagoi

krutxatu *(3)* : gurutzatu */ [plaztan] zauden, eskiuak krutxatruk (3):* plazan zeuden, eskuak gurutzaturik.

krutxe *(1, 2, 3, 5, 8, 9, 10, 11)* : gurutze */ krutxe xarra (1):* gurutze xaharra. */ krutxepea (1lm):* gurutzepea. */ krutxetoa (1):* gurutzetxoa. */ krutxe saintia (2):* gurutze santua. */ krutxian kruzifikatruk (2):* gurutzean gurutziltzaturik. */ nontik du krutxiak birtute kori? (3):* nondik du gurutzeak bertute hori? */ ez dena kargatan bere krutxiareki (3):* ez dena kargatzen bere gurutzearekin. */ semia izanen dela entregatruk krutxian iltra (3):* semea emana izanen dela gurutzean hiltzeko. */ bere krutxea borontean, debriak tenta etzan (5):* bere gurutzea kopetan, deabruak tenta ez zezan. */ ez diar krutxia gentan buelta yain artio (8):* ez diat gurutzea kentzen itzul hadin arte. */ zomat anaxeren da krutxe kaur? (9):* zenbat anaiarena da gurutze hau? */ espada bateki, kolaxet, krutxea [egitan zeia] (10):* gaztaezpata batekin, horrelaxe, gurutzea egiten zen. */ krutxaga (11):* gurutze lekua (?).

krutze *(6)* : gurutze */ krutzia (6):* gurutzea.

kuasik *(3)* : ia (ark.) */ Juan xin [da], kuasik ez baitu xaten ez ere edaten (3):* Juan etorri da, ia ez baitu jaten ezta edate ere.

kuek *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : hauek */ zertako drade artikulo kuek? notizia baten ekutako (2):* zertarako dira artikulu hauek? berri bat ukateko (edukitzeko). */ zer drade itz kuek? (2):* zer dira hitz hauek? */ [jangeikua poderoso da] egiteko arri kuek sor´tian (3):* jaungoikoa ahaltsua da harri hauek sor daitezen eragiteko. */ kuek erkinik, mutu bat [xin zen] (3):* hauek irtenda, mutu bat etorri zen. */ gaiza kuek xin biar badei, nai noke xakin antzinadanik (4):* gauza hauek etorri

behar badute, aldez aurretik jakin nahi nuke. */ arbole kuek sortan dren errian (4):* zuhaitz hauek sortzen diren lurrean. */ oil erle kuek kartx[i]ritik gain kartra (5):* bidali erle hauek baratzetik gain hartara. */ kuek anaxarrebak dra (7):* hauek anai-arrebak dira. */ kuek beltz, baia kura gorri (8):* hauek beltzak, baina hura gorria. */ gizon kuek [xin tun] (9):* gizon hauek etorri ditun. */ kuek dutun bi eskiak (9):* hauek ditun bi eskuak. */ zuk nontik dakizu gu gindela kuek? (10):* zuk nondik dakizu gu ginela (argazkiko) hauek? */ [gaiza] kuek egitan tiagun, suaren egoitako goxanik (10):* gauza hauek egiten ditinagu, goizetik sua egoteko.

kueki *(9)* : hauekin

kuekin *(3)* : hauekin */ gente ilzale kuekin (3):* jende hiltzaile hauekin.

kuen *(2, 3, 6, 9)* : hauen */ krutxeko tormentu kuen medioz (2):* gurutzeko tormentu hauen bidez. */ birtute kuen akto egitako (3):* bertute hauen ekintza egiteko. */ zaipeko kuen bazterra (6):* gonazpiko hauen.

kuengana *(9)* : hauengana

kuenganik *(9)* : hauengandik

kuengati *(2)* : hauengatik */ bekatu kuengati pena merexi tugunak parka dazkagun (2):* bekatu hauengatik merezi ditugun zigorrak barka diezazkigun.

kuengatik *(5, 9)* : hauengatik */ mitil gazte kuengatik (5):* mutil gazte hauengatik.

kuentako 1 *(9, 10)* : hauentzat, hauendako

kuentako 2 *(9)* : hauetarako

kuer *(3, 9)* : hauei */ zeren ekun baidutzu estaltruk edo altxatruk gaiza kuek sabiuer, eta [erran baitabezu] txiker kuer (3):* zeren gordeta eduki baitizkiezu gauza hauek jakintsuei, eta esan baitizkiezu txiki hauei.

kuetako *(3)* : hauetako */ tenpra kuetako señale argiak (3):* garai hauetako seinale argiak.

kuetan *(3, 4)* : hauetan */ tenpra kuetan (3):* garai hauetan. */ bi mandamentu kuetan dago lege guziua (3):* bi agindu hauetan dago lege guztia. */ egun kuetan nago sendimentu pikor bateki (4):* egun hauetan sentimendu pixka batekin nago.

kuetarik 1 *(2, 3, 9)* : hauetatik */ zoin da etsai kuetarik andiena? (2):* zein da etsai hauetatik handiena? */ mandamentu kuetarik bat (3):* agindu hauetatik bat. */ gaiza kuetarik zernaiden egiten dein[ak dra] (4):* gauza hauetatik edozein egiten dutenak (dira). */ idi kuetarik (9):* herri hauetatik.

kuetarik 2 *(3)* : hauetariko */ txikerxko kuetarik bati [edatra emon] (3):* txikitxo hauetariko bati edaten eman.

kuetaz 1 *(3)* : hauetaz

kuetaz 2 *(3)* : hauekin (instrumentala) */ obra kuetaz zer konsegitan du? (3):* ekintza hauekin zer lortzen du?

kuetra *(9, 10)* : hauetara */ etxe kuetra [xin gutzu] (9):* etxe hauetara etorri gara. */ einoˊre... urte kuetra eltu [naz] (10):* oraindik ere... urte hauetara heldu naiz.

kuidamentu *(3)* : kontu, arreta */ Herodesek xakin zion kuidamenturekin (3):* Herodesek arretaz jakin zuen.

kuka 1 *(5)* : kliska, begi-keinu

kuka 2 *(5, 10)* : txorimalo

kukatu *(5)* : kliskatu, keinu egin (begiaz)

kukil 1 *(2, 5)* : gandor */ kukila (2, 5):* gandorra.

kukil 2 *(5)* : gailur */ mendi-kukila (5):* mendi gailurra.

kuku *(2, 5)* : *(heg.)* kuku */ kukuak kantatan dion gisan (5):* kukuak kantatzen duen gisan.
kuku egin *(4)* : kuku egin (burua atera) */ usin dagonaz, ez dokegu lexoetarik karrikara kukurik egin (4):* dagoen bisutsaz, ez dezakegu leihoetatik kalera kukurik egin.
kuku-sagar *(5)* : *(bot.)* kuku-sagar (haritzena eta)
kukuadar *(5)* : kukuadar OH. Behetik moztuta, beste baten kontra tente geratzen den zuhaitza.
kukuak xo *(5)* : erlastu, eztarria itxi
kukuak yo *(5)* : erlastu, eztarria itxi
kukula 1 *(1, 11)* : *(geog.)* gailur OH. Iparraldean ere dokumentatua.
kukula 2 *(5)* : *(lag.)* buru */ kukula txut du emazte [karek] (5):* burua xut du emakume hark.
kukumarroka *(5)* : ezkutaketan
kukurkatu *(5)* : kokoriko jarri, kukubilko jarri
kukurrukatu *(9)* : uzkurtu */ kukurrukatuk (9):* uzkurturik.
kukurruku *(5)* : kukurruku
kukuruku *(5)* : kukurruku
kukutu *(5)* : makurtu (zeharo)
kukuzka *(5)* : zelatan
kukuztatu *(5)* : zelatatu
kulikadera *(5)* : teilatu-askari OH. Langileek teilatua egiten bukatzean ematen zaien askaria.
kulpa *(5)* : erru
kulpa egotzi *(5)* : errua bota */ martxo gaixoari egozten dabei kulpa (5):* martxo gaixoari botatzen diote errua.
kullanda *(5)* : *(erai.)* muntaga (?)
kume *(5)* : kume
kunkur 1 *(5)* : *(anat.)* giltzadura, artikulazio */ belain-kunkur[ra] (5):* belaun-giltzadura. */ eri-kunkur[ra] (5):* hatz-giltzadura, hatz-koskorra.
kunkur 2 *(5)* : konkordun
kunkur 3 *(5)* : ukabilkada (bizkarrean)
kuntxurri *(5)* : *(anat.)* eztarri, zintzur
-kuntze *(5)* : -zale, -koi */ aurkuntze (5):* haurzale.
kuñata *(2, 10)* : koinata
kuñate *(2, 10)* : koinatu */ kuñatiak (10):* koinatuak.
kupa *(4, 5)* : upel */ [aretxak] materiala du anitx on ardaû kupa egiteko (4):* haritzak oso material ona du ardo upelak egiteko. */ [gizon kori] mokordo bat da, kupa-tapoîn bat (4):* gizon hori mokordo bat da, upel-tapoi bat.
kupa-tapoîn *(4)* : upel-tapoi, zipotz
kupi 1 *(5)* : burumakur (adj.)
kupi 2 *(5)* : konkordun
kupida *(5)* : eragozpen */ eztur kupidarik norinai zernaien erraiteko (5):* ez dut eragozpenik edonori edozer esateko.
kupitu *(5)* : kopatu, konkortu, kakotu */ sudur kupitua (5):* sudur kakotua.
kupratu *(3)* : kobratu */ lurreko erregek norenganik kupratan tei sentzak? (3):* lurreko erregeek norengandik kobratzen dituzte zergak? */ nik kupra nezan ñore interesa [irabazi] ekin (3):* nik neure interesa kobra nezan irabaziekin.
kura *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : hura */ andre kura (2):* andre hura. */ [Elias] bera da xin biar zion*

kura (3): Elias bera da etorri behar zuen hura. */ [dakan guziua] saltan du eta alur kura [erostan du] (3):* daukan guztia saltzen du eta alor hura erosten du. */ kura ixilik egon da (4):* hura isilik egon da. */ zer elatsu dud adexkide kura! (4):* zer berritsu dudan adiskide hura! */ antzatsu dago lur kura (5):* landua dago lur hura. */ kura bera (6):* hura bera. */ kuek beltz, baia kura gorri (8):* hauek beltzak, baina hura gorria. */ gizon kura [il dela] (8):* gizon hura hil dela. */ kura ba, anitx eder (10):* hura bai, oso ederra.

kurak *(2, 3, 4, 5, 6, 9, 10)* : haiek (ez ergatiboa) */ zer egin zien? arima kurak santifikatu ztien (2):* zer egin zuen? arima haiek santutu zituen. */ gente kurak [ekustian], konpadezitan zen etaz (3):* jende haiek ikustean, haietaz errukitzen zen. */ ez balite llabur egun kurak (3):* egun haiek ez balira laburrak. */ berjin kurak guziuak xagi zren (3):* birjina haiek guztiak jaiki ziren. */ kurak [beterik] daude (4):* haiek beterik daude. */ kan-kebenka erkitan dren odoi me kurak odoi-adarrak dra (5):* han-hemenka ateratzen diren hodei mehe haiek hodei-adarrak dira. */ gizon kurak eltu tun (9):* gizon haiek heldu ditun. */ kurak xin tun berak (9):* haiek bakarrik etorri ditun. */ bizi izan balira kurak, betik egonen nindezun elerraitan eki (10):* haiek bizi izan balira, beti egonen nintzen haiekin hitz egiten. */ kotta kurak [eremaitan zeia] (10):* gona haiek eramaten zituzten. OH. Euskara batuan ´haiek dira, haiek dute´ erraten bada ere, Zaraitzu-Erronkarietan ´kurak dra, kaiek die´ dokumentaturik daude.

kurka *(5)* : zurrutada, zurrut

kurkumitu *(5)* : kikildu

kurra *(5, 11)* : adarbakar (adar bateko aberea)

kurri *(2, 4, 5)* : *(heg.)* lertsun, kurrilo */ kurri bera, kurri gora (5):* kurrilo behera, kurrilo gora.

kurrinka *(5)* : kurrinka (txerrien hotsa) */ kurrinka eta bee, karaka eta muuu (5):* kurrinka eta bee, karaka eta mu.

kurro *(5, 11)* : besomotz, maingu

kurrumino *(5)* : arrain-saski

kurrupiltu *(9)* : zimurtu */ kurrupiltuk dion (9):* zimurtuta zagon.

kurrusku *(5)* : ogi-azal

kurrusti *(1, 11)* : *(bot.)* gorosti

kurrustidoi *(1, 11)* : gorostidi */ kurrustidoia (1lm):* gorostidia.

kurruxkaka xan *(5)* : karraska jan

kurtsurio *(5)* : harilkai-estrabe

kurtzuri *(5)* : harilkai-estrabe

kurua *(5)* : izur, toles (arropena)

kurupilkatu *(5)* : zanpatu

kuruta *(5)* : izur, toles (arropena)

kurutze *(1)* : gurutze */ kurutze jarra (1):* gurutze zaharra.

kuruzuri *(5)* : harilkai-estrabe

kurzulu *(9)* : harilkai-estrabe

kurzuri *(5)* : harilkai-estrabe

kurzuru *(5)* : harilkai-estrabe

kusa *(5)* : izur, toles (arropena)

kuskuillo *(5)* : kaskabilo

kuskuillu *(5)* : *(bot.)* kuku-sagar, kuskuila (haritzena eta)

kuskuleria *(5)* : kaskabileria

kuskuli *(5)* : baba, maskuilo (azalekoa)
kuskulin *(11)* : poxpolin (ume atsegina) */ kuskuliña (10):* poxpolina.
kuskulu *(5)* : kaskabilo
kuskulubitate *(11)* : *(bot.)* kuku-sagar, kuskuila OH. Aznarezek ´haritzaren kuskuilu huts lehorrak, puxtarrietan jostatzeko erabiltzen zirenak´ oharrarekin dokumentatua. ´Kuzkulumeta´ aldaera ere bai.
kuskulla *(1)* : *(bot.)* abaritz, txaparro */ kuskulleta (1):* abaritz eta.
kuskullo 1 *(11)* : kaskabilo
kuskullo 2 *(11)* : txintxirrin, arranbera
kuskurrukot *(5)* : kokoriko, kukubilko
kusturio *(5)* : harilkai-estrabe
kutto-kutto *(5)* : *(haur.)* txerri OH. ´Kuto-kuto´ ere dokumentatua.
kux-kux-kux *(11)* : kux-kux-kux OH. Kumeei deitzeko, txakurkumeei bereziki.
kuxala *(2)* : lehengusina
kuxalen *(5)* : lehengusu
kuxalena *(8, 10)* : lehengusina */ kuxalena bateki (10):* lehengusina batekin. */ kuxalenak (10):* lehengusinak.
kuxanla *(3)* : lehengusina */ bere kuxanla[k] ez dreia bizi guziua[n] giauren artian? (3):* haren lehengusinak ez al dira bizi osoan geure artean?
kuxare *(4)* : koilara */ ezpelaz egiten dei kuxare [eta] orraxe (4):* ezpelaz koilarak eta orraziak egiten dituzte.
kuxela *(9)* : lehengusina */ kuxela bat (9):* lehengusina bat.
kuxin 1 *(5)* : burko (ohekoa)
kuxin 2 *(5)* : kuxin (joskintzakoa)
kuxkulu 1 *(5)* : kaskabilo
kuxkulu 2 *(5)* : txintxirrin (umeena)
kuxkurrukot *(9)* : kokoriko
kuxkurrukot egon *(9)* : kokoriko egon */ kuxkurrukot naiaun (9):* kokoriko nagon.
kuxkuxero *(11)* : kuxkuxero
kuxu egon *(4)* : kezkaz egon, kezkatuta egon */ ardidunak daude anixko kuxu, saldoak daudela flako eta axuri txiki (4):* ardidunak nahikoa kezkatuta daude, saldoak ahul daudela eta arkume gutxi.
kuzkurrukot *(11)* : kukubilko; uzkur OH. Ikus ´kukurrukatu´ sarrera.
kuzkuz 1 *(5)* : zelata
kuzkuz 2 *(11)* : kuxkuxero
kuzkuzeatu *(11)* : kuxkuxean ibili OH. Aditz honen lekukotasuna ibarreko gaztelanian gordetako ´cuzcucear´ eta ´cuzcundiar´ aditzetan dago.
kuzkuzka *(5)* : zelatan

L

-la egon *(5)* : -la egon, uste izan */ zomaitentako Juanak [dra], ni nago drela Mariak obenenak (5):* zenbaitentzat Juanak dira, ni nago Mariak direla onenak.

labaldi *(5)* : labealdi

labasari *(5)* : labesari OH. Azkuek ´herri-labea erabiltzeko alokairua´, nahiz ´labezainaren ordaina´ esanahiekin dokumentatua.

labatsaki *(5)* : labatsaki (labe-erratza)

labazaî *(5)* : labezain */ buriua ganzgezaz balin baduk, ez yadi izan labazaî (5):* burua gantzez(koa) baldin baduk, ez hadi izan labezain.

labazorri *(5)* : *(zoo.)* gurgurio

labe *(3, 10)* : labe */ egun alurrian loratan eta biar labiara egotxtan den belar bat (3):* gaur alorrean loratzen den eta bihar labera botatzen den belar bat. */ suaren labiara [egotxen tei] (3):* su-labera botako ditu. */ labe, labe, ogiak erre bage, sagarrak erre biar eta surik ez (10):* labe, labe, ogiak erre gabe, sagarrak erre behar eta surik ez. OH. ´Labe, labe´ jolas kanta bat da.

labio *(5)* : *(med.)* begi-lauso, gandu

laborari *(1)* : nekazari */ laboraria (1):* nekazaria.

labrari *(3, 4)* : nekazari, laborari */ bere ardauntziua [arrendaten du] berze labrari baner (3):* bere mahastia errentan emango die beste nekazari batzuei. */ artzain edo labrari izaiteko, badaki aski [solfa] (4):* artzaina edo nekazaria izateko, badaki nahikoa solfeo.

labur *(5)* : doilor, zital

laburbide *(5)* : laburbide, lasterbide

laburkeri *(5)* : doilorkeria, zitalkeria

lafa-lafa *(5)* : lafa-lafa OH. Txakurrak jatean ateratzen duen zarata.

lagun 1 *(2, 3, 5, 10)* : lagun */ giaur edo gore kristiai laguna (2):* geu edo gure lagun kristaua. */ kristiai lagunarentako (2):* lagun kristauarentzat. */ yik ere ekun yezan konpadezimentu yore lagunaz (3):* hik ere erruki eduki hezan hire lagunaz. */ bere lagunekin (3):* bere lagunekin. */ bere lagunetarik bat [erden zion] (3):* bere lagunetako bat aurkitu zuen. */ as baledi gaxki tratatra bere laguner (3):* bere lagunak gaizki tratatzen has baledi. */ den negu nola den uda, betik da arropa lagun (5):* negua izan edo uda izan, beti da arropa lagun. */ laguna ebiltan ekusi [nai baduk] (5):* laguna ibiltzen ikusi nahi baduk.

lagun 2 *(5)* : lagun, pertsona

lagun-nai *(5)* : atsegin, sinpatiko

lagunbage *(5)* : lagungabe */ lagunbagea (5):* lagungabea.

lagundu *(5)* : lagundu */ sanduer otoi egin bear nagun, lagun gatzaien (5):* santuei otoitz egin behar zienagu, lagun gaitzaten.

lagungo 1 *(3, 5)* : laguntza */ Herodesek deitan ztiolarik lagunguarik bage maguak, xakin zion (3):* Herodesek laguntzarik gabe magoei deitzen ziela, jakin egin zuen.

lagungo 2 *(3, 5)* : laguntasun, konpainia */ arekin lagunguarik bage [zaudelarik] (3):* harekin konpainiarik gabe zeudenean.

lagungu *(4, 5)* : laguntza */ erran daitad arek lagungu txikia egin dokela orri lan daramanian (4):* erran dit hark laguntza gutxi egin diezaiokeela berorri, daraman lanean. */ ene eta iror edo lauren lagungiuareki (4):* nire eta hiru edo lauren laguntzarekin.

laguntsu *(5)* : eskuzabal

laguntu *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : lagundu */ ñeurk ere laguntu bagerik (2):* inork ere lagundu gabe. */ laguntan zabeinak (3):* laguntzen zienak. */ orai gaude eltzuka, tenprak laguntan badaikugu, fite akabaten digu (4):* orain eultzian ari gara, eguraldiak laguntzen badigu, azkar bukatuko dugu. */ nik osagarrireki lagunten daud al duanaz (4):* nik osasunarekin lagunduko diot ahal dudanaz. */ negiuan xagitan laguntako (5):* neguan jaikitzen laguntzeko. */ guzier laguntan tzu erkitra (7):* guztiei laguntzen diezu ateratzen. */ ama berjina Idoikoa (Idoikua), lagun zan! (7):* ama birjina Idoikoa, lagun ezan! */ ama berjinak lagunten [yai] (8):* ama birjinak lagunduko hau. */ aitajeina, xin bedi laguntra (9):* aita, etor bedi laguntzera. */ [gore egitara] xitan bizren laguntra (10):* gure igitara laguntzera etortzen baitziren.

lai *(5)* : *(nek.)* laia

laian *(5)* : *(nek.)* laian, laiaketan

laiari *(5)* : *(nek.)* laiari

laiatu *(5)* : laiatu

laixai *(7)* : laxo, arduragabe */ lana egiten du laixai (7):* lana laxo egiten du.

laka 1 *(5)* : elkargune (ibaiena eta)

laka 2 *(5)* : ur-zurrunbilo

lakaio *(4)* : lekaio */ errege bat bi lakaiorekin bizi zen (4):* errege bat bi lekaiorekin bizi zen. */ altakan elluen oiltako bear ztein lakaioak (4):* ondoan euliak bidaltzeko behar zituen lekaioak.

lakatu *(5)* : kobratu (ehotze-eskubideak)

laketu *(5)* : atsegin hartu, laketu */ laketuxe [egon] (5):* laketuxe egon.

-lakotz *(5, 10)* : -lako */ ogi kau, aiñariaz naste dielakotz, ubel erkin da (5):* ogi hau, zekalez nahasi dutelako, beltzaran atera da. */ karretera dagolakotz, uste dei egitan den onki (10):* errepidea dagoelako uste dute ongi egiten dela.

-lakoz *(3, 5)* : -lako */ [gloria] emon zein jangeikuari, emon ziolakoz kolako potestade gizoner (3):* jaungoikoa goretsi zuten, horrelako ahalmena eman zielako gizonei. */ [aziak] bertan bunatu zren, lurra arin zegolakoz (3):* haziak berehala ernamuindu ziren, lurra arin zegoelako. */ kaur erraiten du ogirik eragu ez digulakoz (3):* hau erraten du ez dugulako ogirik ekarri. */ ni nazalakoz on (3):* ni ona naizelako. */ erronkaritarrak bearnesen kontra burzegitu zrelakoz (5):* erronkariarrak biarnotarren aurka buruzagitu zirelako.

laku *(1)* : *(geog.)* laku, urmael */ lakuaga (1):* laku lekua, urmael lekua.

lamikatu *(5)* : miazkatu, milikatu

laminduria 1 *(11)* : gozoki, litxarreria

laminduria 2 *(5)* : gozozaletasun (?) */ xanarian laminduria (5):* janarian gozozaletasuna (?).

laminuria *(11)* : gozoki, litxarreria

laminurri *(5)* : gozoki, litxarreria

lamiti *(5)* : gozozale

lan *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10, 11)* : lan */ ekustan dud antzinatan diona uskarazko lan andi daramanian (4):* ikusten dut aurreratzen duena daraman euskarazko lan handian. */ [elurrak] mendi lanak arrapatu daizkugu erdi eginik (4):* elurrak mendi lanak erdi eginik harrapatu dizkigu. */ eltu gra tenprara, lanek pean arrapatu baigitei (4):* lanek pean harrapatu gaituzten garaira heldu gara. */ ni ere akaitruk nago ñore lanetaz (4):* ni ere nekaturik nago neure lanetaz. */ lan eginak ez du orkitakorik (5):* lan eginak ez du itxarotekorik. */ itsusi dago eskoinezko lanak ezkerraz egitea (5):* itsusi dago eskuineko lanak ezkerraz egitea. */ lanaren ondorean xiten da deuria (5):*

lanaren ondoren etortzen da dirua. */ emazteki lanetan (5):* emakumezko(en) lanetan. */ lana egiten du laixai (7):* lana laxo (arduragabe) egiten du. */ eta orai lanak egin biar (8):* eta orain lanak egin behar. */ fini deila lan kori fite (9):* bukatu dadila lan hori azkar. */ ta zer lan egin dei kor? (9):* eta zer lan egin dute hor? */ etse batra xoan eta kor egon lanareki (10):* etxe batera joan eta hor egon lanarekin. */ betik lanian! (10):* beti lanean! */ ezin egon obro, bere laniara [xoan biar dei] (10):* ezin gehiago egon, beren lanera joan behar dute. */ auzolan, ondalan (11):* auzolan(a), hondalan(a).

lan egin *(3, 4, 5, 7, 10)* : lan egin */ fan adi egun trabajatra edo lan egitra ene ardauntziuan (3):* joan hadi gaur nire mahastian lan egitera. */ nola ez baidokegu lanik egin, aprobetxatan dud eskribitako (4):* ezin dugunez lanik egin, idazteko aprobetxatzen dut. */ eitz nazak xagitra, as nein lan egitra (5):* utz nazak jaikitzen, lan egiten has nadin. */ ez diegu lan egitan igantean (7):* ez dugu lan egiten igandean. */ lan egitan dein Uruñan (7):* Iruñean lan egiten diten. */ mendian lan egin, guzietarik (10):* mendian lan egin, denetik. */ ez bitoker egin lan andirik (10):* ez baitezaket lan handirik egin. */ koriek zer bar dei egin, ikasi bage lan egitan? (10):* horiek zer egin behar dute, lan egiten ikasi gabe?

lan eginzale *(10)* : langile

lan-porroketan *(5)* : lanean nekatu, lanean akitu

landa 1 *(1)* : *(geog.)* landa

landa 2 *(1, 5, 11)* : *(nek.)* alor, landa */ Oteiza landa (1):* Oteiza(ren) alorra. */ landa goiena (1):* landa goiena. */ Dolores landa (11):* Dolores(en) landa.

landa 3 *(5)* : -z kanpo; ondoren */ oillar-mezatik landa etsean egiten den aparío ño bat da xurgin-aigaria (5):* oilar-meza ondoren etxean egiten den jatordu txiki bat da sorgin-afaria.

landrilla *(5)* : *(suk.)* gibelerrai, errai (arkumeenak)

lanegile *(5)* : langile

langar *(11)* : *(met.)* langar, lanbro-euri */ langarra (11):* langarra.

langile *(9)* : langile

lankor *(5)* : langile (saiatua)

lano *(5)* : *(met.)* lanbro

lanoa *(5)* : *(nek.)* laborantza */ lanoan nago (5):* laborantzan nago, laborantzan ari naiz. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

lanoatu *(5)* : lurra landu, laboratu */ lantxerrak ibarraz, ordek lanoara idietaz (5):* lainoa ibarrean, hoa lurra lantzera idiekin.

lanpara *(3)* : lanpara */ amar [berjin] beren lanparak artan (3):* hamar birjina beren lanparak hartzen. */ eman dazaiguzei xaurien oriotik, zeren gore lanparak iltan baitra (3):* emaiguzue zeuen oliotik, zeren gure lanparan itzaltzen ari baitira. */ lanparekin batian eraman zein orio beren ontzietan (3):* lanparekin batera, beren ontzietan olioa eraman zuten.

lanpustu *(5)* : kamustu

lanputs *(5)* : hitz-motel, totel

lânputs *(5)* : hankaoker

lantarazi *(5)* : lan eginarazi

lantare *(2, 5, 9, 10)* : landare */ lurrian sortzen dren lantare guziek (2):* lurrean sortzen diren landare guztiak. */ aza-lantare[a] (8):* aza-landarea. */ axa-lantare[a] (10):* aza-landarea.

lantatu *(5, 10)* : landatu */ lantatu [t]una letxugak? (10):* landatu al ditun letxugak? */ letxuga lantatra [xoan da] (10):* letxugak landatzera joan da.

lantro *(5)* : baldar, trakets
lantu *(5)* : *(nek.)* luberritu, labakitu (lur sail elkorrak)
lantxara *(7)* : *(met.)* laino, lantxurda
lantxer *(2, 5)* : *(met.)* laino, lantxurda */ martxoan lantxerra noraino, aprilean elurra karaino (5):* martxoan lainoa noraino, apirilean elurra haraino. */ lantxerrak ibarraz, ordek lanoara idietaz (5):* lainoa ibarrean, hoa lurra lantzera idiekin.
lantxurda *(2, 11)* : *(met.)* langar, lantxurda
lantza *(3, 5)* : dantza */ laurean lantza, gatiuak xan du gore orantza (5):* lauretan dantza, katuak jan du gure orantza. */ ene emaztea plaztan lantzan (5):* ene emaztea plazan dantzan.
lantzar *(9)* : *(met.)* laino, lantxurda
lantzara *(5)* : *(met.)* antzigar
lantzari *(5)* : dantzari */ ainguria lantzari (5):* aingerua dantzari.
lantzaro 1 *(5, 9)* : *(nek.)* lugorri, latzin
lantzaro 2 *(5, 9)* : *(nek.)* ereintzaro, ereite aro */ lantzaroaren egitra (9):* ereintzaroa egitera.
lantzatu *(3, 5, 10)* : dantzatu */ kantxoîn alegre [kantatu daiguzei], eta ezrei lantzatu (3):* kantu alaia kantatu dizuegu, eta ez zarete dantzatu. */ [Herodiasen alaba] erkin zen lantzatra (3):* Herodiasen alaba atera zen dantzatzera. */ kantatan eta lantzatan (5):* kantatzen eta dantzatzen. */ zanko eginik daudenak lantzatra (5):* dantzatzera eginda dauden hankak. */ lantzatu ere bai? kori ez (10):* dantzatu ere bai? hori ez.
lantzurda *(5)* : *(met.)* zirimiri
lantzute *(5)* : *(nek.)* lugorri, latzin
lantzutu 1 *(5)* : *(nek.)* laboratze, lur lanketa */ lantzutua egin digu (5):* lur lanketa egin dugu.
lantzutu 2 *(5)* : laboratze aro OH. Lurra aitzurtzeko garaia.
lanuatu *(3)* : lurra landu, laboratu */ [liliak] ez dezei ez lanuatan, ez urutan ere (3):* loreak ez dituzue laboratzen, ezta iruten ere.
lanzaro *(5)* : *(nek.)* ereintzaro, ereite aro
lapabelar *(5)* : *(bot.)* lapabelar */ azteriaren erkinaraztako on da lapabelarraren ura egosita eznearekí nastean artea (5):* hazteria aterarazteko ona da lapabelarraren ura esnearekin egosita nahastean hartzea.
lapagarratz *(5)* : *(bot.)* lapagarratz OH. Lapabelarraren fruitua.
lapar *(5)* : *(bot.)* lahar, sasi
lapati *(5)* : *(bot.)* lapabelar */ lapatia da belar latz bat, betaren gisakoa, baia mearrago (5):* lapabelarra belar latz bat da, zerbaren gisakoa, baina estuagoa.
lapitz *(1, 11)* : *(min.)* arbel, lapitz */ lapitza, lapizpea (1):* arbela, arbelpea. */ lapitz ersia (1):* arbel (leku) itxia. OH. Iparraldean ere dokumentatua.
lapur *(5)* : gozozale
laratz 1 *(5)* : laratz */ laratza bikain segur (5):* laratza bezain seguru.
laratz 2 *(5)* : *(nek.)* lugorri, latzin
lardatu *(5)* : lardatu, koipeztatu
lardegin *(5)* : larrutu */ lardegiten du (5):* larrutzen du.
lardekitu 1 *(5)* : larrutu
lardekitu 2 *(4)* : pitzatu, zartatu */ emaztek ez badei nastekatan [artakarro-autsa] berze zomait autseki, eskiuak lardekitan zazkabei (4):* emakumeek ez badute arte-errautsa beste zenbait errautsekin nahasten, eskuak zartatzen zaizkie.

-lari *(4, 9)* : -lari, -ari */ inzlari (4):* ehiztari. */ uxtulari (9):* txistulari.

-larik 1 *(2, 3, 4, 8, 9)* : -enean */ grazia esketan grelarik (2):* grazia eskatzen dugunean. */ [altareko] kari miru egitan dugularik, zeurikoaz guar gitian (2):* aldareko hari begiratzen diogunean, zerukoaz ohar gaitezen. */ gizonak lo zaudelarik, [aren etsai bat xin zen] (3):* gizonak lo zeudenean, haren etsai bat etorri zen. */ orreki nengolarik (4):* berorrekin nengoenean. */ ni gazte nindelarik (8):* ni gaztea nintzenean. */ ni neskato nindelarik (9):* ni neskatoa nintzenean.

-larik 2 *(2, 3, 4, 5, 8)* : -la (bitartean) */ tenpra berian errata´tielarik itzak (2):* denbora berean hitzak esaten dituela. */ [gore jeinareki] mintzetan grelarik (2):* gure jaunarekin mintzatzen garela. */ ura pensamentu kontan zagolarik, aîguru bat aparezitu zitzaun (3):* hura pentsamendu honetan zegoela, aingeru bat agertu zitzaion. */ [guziuak] xuntatan ziolarik, galtegiten zabein (3):* guztiak elkartzen zituela, galdetzen zien. */ gunian, [tentazalia] abañatan zelarik, erran zaun (3):* orduan, tentatzailea hurbiltzen zela, erran zion. */ aztaparkatruk zaudelarik, zarrak erkin zaun nabaja gaztiari(4):* atzaparkaturik zeudela, (andre) zaharrak labana atera zion gazteari. */ guziek estimatu zein bixita, erraiten zaitadeilarik nontik guartu den etaz (4):* guztiek estimatu zuten bisita, erraten zidatela nondik oroitu den haietaz. */ goen-barren zabillelarik, [abre] kori turrunbero kortan larrutu [zen] (5):* gora eta behera zebilela, abere hori amildegi horretan larrutu zen. */ gu keben gaudelarik il da kori (5):* gu hemen gaudela hil da hori. */ amazazpi urte zielarik, orai ogeita amazazpi (8):* hamazazpi urte zituela, orain (dela) hogeita hamazazpi.

larogei *(7)* : laurogei */ lurretik goikoaraino irorein eta larogeita borz mila kilometro dago (7):* lurretik ilargiraino hiruehun eta laurogeita bost mila kilometro dago. */ zertako [fotografia erkin] larogei urtetan? (7):* zertarako argazkia egin laurogei urterekin?

larogeitamar *(7)* : laurogeita hamar

larrain *(11)* : *(nek.)* larrain */ larrain ondoa (11):* larrain ondoa.

larrapo 1 *(5)* : *(zoo.)* apo, zapo

larrapo 2 *(5)* : bidankoztar (goitizena)

larratxisko *(5)* : *(nek.)* baratzetxo

larratz 1 *(1, 5)* : *(nek.)* larratz (landu gabeko lurra) */ larratz ordokia (1):* larratz ordokia. */ larratza (1):* larratza. OH. Euskara batuan ere erabilia.

larratz 2 *(5)* : *(bot.)* larratz-gari OH. Azkuek ´beste uzta baten ondoren eskuratutako garia´ esanahiarekin dokumentatua.

larraz *(5)* : *(nek.)* larratz (landu gabeko lurra)

larre *(1)* : larre */ larregorri (1):* larre gorri(a). */ larrearte (1):* larre arte(a). */ larraburua (1):* larre goialdea.

larren *(1)* : *(nek.)* larrain */ larren zarra, larrenkoa (1lm):* larrain zaharra, larraintxoa.

larri *(4, 5, 8)* : larri, handi */ elur larriak elur andi, elur xêak egunaldi (4):* elur larriak elur handi, elur xeheak eguraldi. */ elur xeak elurte andi, elur larriak egunaldi (5):* elur xeheak elurte handi, elur larriak eguraldi (on).

larru 1 *(2, 3, 5, 7, 9, 10)* : larru */ larruzko korrea bat (3):* larruzko uhal bat. */ xengana [xiten dra] beztitruk ardi larruz (3):* zuengana ardi larruz jantzirik etortzen dira. */ kaur egiten bada, zagiak edo larriuak galtan dra (3):* hau egiten bada, zahagiak edo larruak galtzen dira. */ larrua, larria (5):* larrua. */ beien larruareki (larriareki) egitan dra oskiak (7):* behien larruarekin egiten dira zapatak. */ larru bat, larria, larrea (9):* larru bat, larrua. */ larria gen (9):* larrua kendu, larrutu.

/ larrearen gentan diozu (9): larrua kentzen dago (ari da). */ larria (10):* larrua.

larru 2 *(5, 8, 10)* : *(anat.)* azal, larru */ asunbeltzak eztu larriua mintan (5):* asunbeltzak ez du azala erretzen. */ larria (8):* azala. */ biloak [eta] larria (10):* ileak eta azala.

larrubide *(5)* : amildegi */ botxe da larrubide edo erorgu andiena, pikarra bigarrena, turrunberoa ñoago (5):* ´botxe´ amildegi edo erorleku handiena da, ´pikarra´ bigarrena eta ´turrunbero´ txikiagoa.

larruki *(5)* : larruki

larrulazo *(5)* : arduragabe, gibel-handi

larrumintz *(5)* : larruazal, larmintz (aurpegikoa)

larrumittiri *(5)* : larruazal fineko

larrutu 1 *(5)* : amildu */ goen-barren zabillelarik, [abre] kori turrunbero kortan larrutu [zen] (5):* gora eta behera zebilela, abere hori amildegi horretan amildu zen.

larrutu 2 *(5)* : larrutu

lasa *(5)* : pozik (eginarekin, egoerarekin)

lasatu *(5)* : lasaitu, arindu (barnea)

laskorka *(5)* : hizketan lasterka */ kura faitan zen laskorka (5):* hura hizketan lasterka joaten zen.

laskortu *(5)* : hitz egin (lasterka)

laso 1 *(5)* : laxo

laso 2 *(5)* : pozik (eginarekin, egoerarekin)

lastabal *(5)* : azao, sorta

lastaira *(5)* : lastaira

lastaka *(5)* : *(nek.)* lastaka OH. Eultzi erdi eultzitua.

lastategi *(1)* : *(erai.)* lastategi */ lastategia (1):* lastategia.

laster 1 *(4, 10)* : laster, korrikaldi (iz.) */ lasterra dian llabur eta txiker (4):* lasterra dinat laburra eta txikia. */ laster txikiz biar [dud] altxatu (4):* laster gutxi eginik ezkutatu behar dut.

laster 2 *(10)* : laster, arin (adb.) */ [dantzan] anitx laster plaztan (10):* dantzan oso arin plazan.

laster 3 *(5)* : laster, arin (adj.)

laster egin *(3, 4, 5, 9, 10)* : lasterka egin, korrika egin */ laster egin zion (3):* lasterka egin zuen. */ [txerri saldoak] laster egin zion zauzi egitra turrunpero batarik itxasuara (3):* txerri saldoak korrika egin zuen jauzi egiteko amildegi batetik itsasora. */ plumak ere laster egiten daitad, zomait letra isari bage (4):* idazlumak ere lasterka egiten dit, zenbait letra jarri gabe. */ laster egiteko (5):* korrika egiteko. */ laster egin zak (9):* lasterka egin ezak. */ egin dien laster, egitan dien laster (10):* korrika egin din, korrika egiten din. */ xarrek nola bar zein egin laster? (10):* zaharrek nola egin behar zuten lasterka? */ laster egiteaz akaitu (10):* lasterka egiteaz nekatu. */ lasterregin dien, lasterregitan dien (10):* korrika egin din, korrika egiten din.

laster-salda *(5)* : *(suk.)* laster-salda, baratxuri-salda OH. Baratxuriz eta olioz arin egindako salda.

lasterbide *(5)* : laburbide, lasterbide

lastergo *(5)* : lasterketa

lasterka *(3, 5)* : lasterka, korrika */ lasterka [fan zren] berriaren emoitra (3):* lasterka joan ziren berria ematera. */ mitil batek, berze bati zerbait emon, ta lasterka faitan zen (5):* mutil batek bertze bati zerbait eman, eta lasterka joaten zen. OH. ´Lasterkaka´ ere dokumentatua.

lasterkatu 1 *(5)* : lasterkatu, azkar ibili */ gaztezituan ez dena lasterkatu, zarzapenean bear du galopatu (5):* gaztaroan ez dena lasterkatu, zahardadean hark behar du lauhazkatu. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

lasterkatu 2 *(5)* : lasterka harrapatu

lasterrari emon *(4, 5)* : lasterrari eman, korrikari eman */ ayan, ezkapatan yazanian, ez yai ekusen lasterrari emoiten (4):* agian, ihes egiten duanean, ez hau ikusiko korrikari ematen. */ ilaxagaren uxtiuari oiloek emoiten dei lasterrari (5):* belatxingaren txistua (entzutean), oiloek lasterrari ematen diote.

lasterreka *(9, 10)* : lasterka, korrika */ zaipekoak xaintz eta lasterreka plaztara (9):* gonazpikoak jantzi eta lasterka plazara. */ morroiak eta neskatxiak lasterreka (10):* mutikoak eta neskatxak korrika.

lasterreria *(5)* : *(med.)* beherako

lasterrian *(4)* : lasterka, korrika

lasteskuta *(5)* : lasto-eskutada

lasto *(2, 3, 5)* : lasto */ garia lastotan eta buruka erkin puntiuan [zagolarik] (3):* garia lastotan eta buruxka ateratzeko puntuan zegoenean.

lastobala *(5)* : *(nek.)* lasto-sorta

lastra *(5)* : lastaira

lata *(5)* : *(erai.)* lata (teilatuko ohola)

lataitze *(5)* : *(erai.)* lata-iltze OH. Teilatuko lata oholak josteko iltzea.

latitze *(5)* : *(erai.)* lata-iltze

lats *(1)* : *(geog.)* erreka */ Garde latsa (1lm):* Garde latsa. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

latsun *(2, 5, 8)* : kare, gisu */ latsuna (8):* karea, gisua.

latsun-ur *(5)* : karesne

latsunabi *(5)* : karobi, gisu-labe

latsunbeltz *(5)* : zementu, porlan

latx *(11)* : *(zoo.)* latx (ardi mota) */ latxa (11):* latxa.

latxizo *(5)* : *(med.)* lupus, lupu (ultzera mota)

latz *(5, 8, 9)* : latz */ lapatia da belar latz bat, betaren gisakoa, baia mearrago (5):* lapabelarra belar latz bat da, zerbaren gisakoa, baina estuagoa. */ ipar beltza, ondoan latza (5):* ipar beltza, ondoren latza.

latzikara *(5)* : laztura, izuikara

laun *(2)* : lagun */ launari (2):* lagunari.

launaka *(5)* : launaka

launakatu *(5)* : launakatu

laur *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : lau */ laur milla gizonentako (3):* lau mila gizonentzat. */ laur adarmetako zidarrezko puska bat (3):* lau drakmako zilarrezko puska bat (txanpona). */ iriko gizon guziuetarik eztud baizik laur zarrago (4):* herriko gizon guztietatik lau baizik ez dut zaharrago. */ lauretarik bata dago utsitruk (4):* lauetatik bata itsuturik dago. */ bat, bida, iror, laur (5):* bat, bi, hiru, lau. */ lauretan (5):* lauretan (ordua). */ goixko laurak (6):* goizeko laurak. */ laurak eta borz [dra] (7):* laurak eta bost dira. */ laur urtez, laur neguz [izan nuzu Maulen] (8):* lau urtez, lau neguz izan naiz Maulen. */ gu ginden laur aurride, bi muttiko eta bi neskatilla (10):* gu lau haurride ginen, bi mutiko eta bi neskatila. */ laurak [dra] (10):* laurak dira (ordua).

lauratzez *(5)* : lauhazka, laugain (zaldiak eta) */ lauratzez (5):* lauhazka, laugain (zaldiak eta). OH. Zuberoan ere dokumentatua.

laurazka *(5)* : lauhazka, laugain (zaldiak eta)

laurden *(5)* : laurden

laurdenegun *(4, 5)* : herenegun-aurre, herenegun-aitzin */ laurdenegun goxan onrzi zein (4):* herenegun-aurre ehortzi zuten. OH. Izarbeibarren ´laurenegu´ dokumentatua.

laureanka *(5)* : lauhazka, laugain (zaldiak eta)

laureankatu *(5)* : lauhazka ibili, lauhazkatu

laurein *(6, 7, 8)* : laurehun

Laurenti *(5)* : Laurendi, Lorenzo */ Santo Laurenti, berroari ilindi (5):* San Laurendi, laharrari ilinti.

laurenza *(5)* : *(tek.)* kalapatxa, tobera

laurgarnen *(3, 4, 7)* : laugarren */ laurgarnen kapitulua (3):* laugarren kapitulua. */ laurgarnen gloria (4):* laugarren aintza. */ leinian, bigarnian, irurgarnian, laurgarnian, borzgarnian (4):* lehenean, bigarrenean, hirugarrenean, laugarrenean, bosgarrenean. */ laurgarnen ikasgei[a] (7):* laugarren ikasgaia.

laurgarren *(2)* : laugarren */ laurgarren [artiklua] (2):* laugarren artikulua. */ laurgarna (2):* laugarrena.

laurna *(4)* : launa */ maiatziaraz gero, laurna pezeta [irabazen dei] (4):* maiatza ezkero, launa pezeta irabaziko dute.

laurogei *(3, 7, 8, 10)* : laurogei */ ez dia eitzen laurogeita emeretziak mendietan? (3):* ez al ditu utziko laurogeita hemeretzi (ardi)ak mendietan? */ laurogei urtetra [eltu zenian] utsitruk [baratu zen] (7):* laurogei urteetara heldu zenean, itsuturik geratu zen. */ laurogeita laur (8):* laurogeita lau. */ laurogeita sei (10):* laurogeita sei.

laurogeieta amar *(10)* : laurogeita hamar */ laurogei eta amar urtetra eltu (10):* laurogeita hamar urtetara heldu.

laurogeitamar *(8, 10)* : laurogeita hamar */ ene ama eltu [zen] laurogeita ameka [urtera] (10):* ene ama laurogeita hamaika urtera heldu zen.

laurtako *(5, 9, 10)* : txakur txiki (txanpona) */ laurtakoa (9):* txakur txikia. */ laurtako bat (10):* txakur txiki bat. OH. Artolak ´lau marabediko txanpona, bost zentimo´ oharrarekin dokumentatua.

laxatu *(4)* : laxatu */ lore urareki nastekatruk [edan eta] laxatan dra burarrak (4):* lore(a) urarekin nahasirik edan eta bularra laxatzen da. */ eri artetan [arrapatan dayanian], fanen zain laxatuz emaro-emaroa (4):* hatz artean harrapatzen hauenean, emeki-emeki laxatuz joango zain.

laxoxko *(4)* : laxotxo */ yik izaguntan yuanian laxoxko yagola, ostikaldi batez ezkapa yiteke (4):* hik ezagutzen duanean laxotxo hagoela, ostiko batez ihes egin hezake.

lazakeri *(5)* : zabarkeria, arduragabekeria, laxotasun OH. Ikus ´lazotasun´ sarrera.

lazaro-igante *(5)* : *(erl.)* pasio-igande OH. Lazaroren berpizkunde ebanjelioa irakurtzen deneko pasio-igandea.

lazaroz *(5)* : *(erl.)* pasio-igandean */ lazaroz txoria arrapatu zien, erramuz pelatu, bazkoz jan (5):* pasio-igandean txoria harrapatu zuten, erramu egunez lumatu, pazkoan jan.

lazatu 1 *(5)* : zabartu, ez arduratu (betebeharraz)

lazatu 2 *(5)* : zabartu, arduragabe bihurtu

lazo 1 *(4, 5)* : zabar, arduragabe, laxo */ ez al dago Nefarro guziuan iri kain lazorik nola kaur ikasgiuaren gainian (4):* ezin da egon Nafarroa osoan hau bezalako herri arduragaberik irakaskuntzari buruz. */ aita lazoen umek ogi txiki eta anitx bizio (5):* aita laxoen umeek ogi gutxi eta bizio asko.

lazo 2 *(5)* : alfer, nagi
lazo 3 *(5)* : baldar, trakets
lazogo *(5)* : alferkeria, nagikeria
lazokeri *(5)* : alferkeria, nagikeria
lazoki *(5)* : zabarki, arduragabe (adb.)
lazotasun *(5)* : zabarkeria, arduragabekeria, laxotasun OH. Ikus ´lazakeri´ sarrera.
laztatu *(5)* : izutu
laztu *(5)* : laztu (ilea)
laztura *(5)* : izu, laztura OH. Iparraldean ere dokumentatua.
lazu *(9)* : laxo
leatu *(7, 10)* : irakurri */ lea zazu, leatan dur (7):* irakur ezazu, irakurtzen dut. */ leatu diar, leatan diar (10):* irakurtzen dut, irakurtzen dut. */ lea zan (10):* irakur ezan.
legar *(1)* : legar
legardoi *(1)* : legardi, legar toki */ legardoia (1):* legardia, legar tokia.
lege 1 *(2, 3, 5, 6)* : lege */ kristiaiak non [entzun] zien lege kau? (2):* kristauak non entzun zuen lege hau? */ persona batixatia jeinaren legian (2):* pertsona bataiatua jaunaren legean. */ legeko lein mandamentiua (3):* legeko lehen agindua. */ zeren kaur baita legiak eta profetek erran dein llaburtiua (3):* zeren hau baita legeak eta profetek esan duten laburpena. */ erraiten du ez zela xin legiaren desegitra (3):* erraten du ez zela etorri legea desegitera. */ ez dago legerik ez dokenarentako (5):* ez dago legerik ez dezakenarentzat. */ legia (6):* legea.
lege 2 *(5)* : adeitasun */ yire legean egin diak gauza kau (5):* hirekiko adeitasunez egin diat gauza hau.
lege izan *(5)* : zilegi izan
lege ontako *(5)* : ongile, mesedegile
lege(a) autsi *(7)* : legea hautsi
legezko *(2)* : legezko */ amar mandamentuiak, legezkoak (2):* hamar aginduak, legezkoak.
legun *(5)* : leun OH. Gipuzkeraz ere dokumentatua.
leia *(5)* : lehia */ alkarren leian (5):* elkarren lehian.
lein 1 *(4, 5, 7, 8, 9, 10)* : lehen (adb.) */ aigal bino lein (9):* afaldu baino lehen. */ lein anitx [egitan zen] (10):* lehen (gazta) asko egiten zen. */ gentia ez [da] xoaitan lein gisa (10):* jendea ez da joaten lehen bezala.
lein 2 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : lehen (adj.) */ lein persona aita [da] (2):* lehen pertsona aita da. */ leina, gore jeinaren pasione saintia (2):* lehena, gure jaunaren pasio santua. */ zazpietako leina (2):* zazpietako lehena. */ lein kapitulua (3):* lehen kapitulua. */ [itxasuan] arrapa zazu lein arrantzu erkin ledina (3):* itsasoan harrapa ezazu atera ledin lehen arraina. */ leinari [sujetatan bada] (3):* lehenari lotzen bazaio. */ solfaren eratsukitan lein elizionetarik (4):* solfa irakasten lehen ikasgatik. */ leinian, bigarnian, irurgarnian, laurgarnian, borzgarnian (4):* lehenean, bigarrenean, hirugarrenean, laugarrenean, bosgarrenean. */ apezak leitu din paperetik yire lein irakatsaldia (5):* apaizak paperetik irakurri din hire lehen irakatsaldia (?). */ leina [eta] bigarna (5):* lehena eta bigarrena. */ lein atxezua (atxezia) (7):* lehen jaunartzea. */ ni leina izan naz (7):* ni lehena izan naiz. */ andi balimada leina, bigarna andiagua (8):* lehena handia baldin bada, bigarrena handiagoa. */ urterila leina da (8):* urtarrila lehena da. */ ni eta aizpa leinak [gindezun] (10):* ahizpa eta ni lehenak ginen.
lein 3 *(4, 5, 7, 8)* : lehenago */ etse edo borda egiteko, kemen lein txerkatan digu izeia, ezik lerra*

(4): etxea edo borda egiteko, hemen lehenago bilatzen dugu izeia, pinua baino. */ lein ezik tenpra anitx, asen da gentia kontatan nestate (4):* denbora asko baino lehen, jendea (bere) beharrak kontatzen hasiko da. */ aroztegian butz egin zak lein ezik burña ar (5):* erramenterian putz egin ezak burdina hartu baino lehenago. */ ez dago obisporik lein apez izan bagerik (5):* ez dago gotzainik lehenago apaiz izan gaberik. */ lein egon zia[n] ene otxaba (7):* lehenago ene osaba egon huan. */ gizonek lein galtu zezein (8):* gizonek lehenago galdu zuten.

lein 4 *(5, 10)* : lehenik */ ilak eta fanak dra lein anztan drenak (5):* hilak eta joanak dira lehenik ahazten direnak. */ nai dionak eratsuki, lein bear du ikasi (5):* irakatsi nahi duenak lehenik ikasi egin behar du. */ leina lein (5):* lehena lehenik. */ eskia moztu [zein], lein eria eta gero eskia (10):* eskua moztu zuten, lehenik hatza eta gero eskua.

lein bekin lein *(5)* : lehenbailehen

leinabentu *(2)* : azaro

leinago *(2)* : lehenago */ urtian bein goresima[n] konfesa gitiala, edo leinag (2):* urtean behin garizuman aitor gaitezela, edo lehenago.

leinagoko *(3)* : lehenagoko */ leinagoko bizi gaxtuaren mantxa gentako (3):* lehenagoko bizi gaiztoaren orbana kentzeko.

leinaz lein *(3)* : lehenbailehen */ obligazionerekin [baratan dra] leinaz lein restituzionia egitako (3):* lehenbailehen lehengoratzeko beharra dutela geratzen dira.

leinbikilein *(9)* : lehenbailehen

leinbinolein *(5)* : lehenbailehen

leinbiñolein *(5)* : lehenbailehen

leineko *(4)* : lehengo */ leineko zarrer entzutiaz digu gaiza kaur isaririk zegola ankartruk zeudenen bakian isartako (4):* lehengo zaharrei entzutea dugu gauza hau jarrita zegoela haserre zeudenak bakean jartzeko.

leinerran *(5)* : atsotitz, esaera zahar */ leinerranak (5):* atsotitzak, esaera zaharrak.

leingai *(5)* : lehengau (gaueko lehen orduak)

leinik *(3, 5)* : lehenik */ fan zte leinik [bakiak egitra] zore anaxarekin (3):* joan zaitez lehenik zure anaiarekin bakeak egitera. */ erkin zazu leinik [autzxkoa], eta gunian ekusen tzu (3):* atera ezazu lehenik ahoztxoa, eta orduan ikusiko duzu. */ orrek ar beza leinik eta gero txiki emon beztad (5):* berorrek har beza lehenik eta gero gutxi eman biezat.

leinik lein *(7)* : lehenbailehen */ egin zan leinik lein (7):* egin ezan lehenbailehen.

leintarik 1 *(4)* : lehendik

leintarik 2 *(4)* : lehenagotik */ ene mente guziuan eta anitxez leintarik (4):* nire bizialdi osoan eta askoz lehenagotik.

leintu 1 *(5)* : aurreratu

leintu 2 *(5)* : leundu

leio *(5)* : *(erai.)* leiho */ fil-fil-fil yaistan da papera leiotik lurreraino (5):* fil-fil-fil jaisten da papera leihotik lurreraino.

leitu *(3, 4, 5)* : irakurri */ etzeia leitu Dabidek egin ziona? (3):* ez al duzue irakurri Dabidek egin zuena? */ [amoriozko istoria bat] leitan du (4):* maitasunezko istorio bat irakurtzen du. */ ene karten leitako (4):* nire gutunak irakurtzeko. */ eztozked akaba leitiaz (4):* ez ditzaket irakurtzen bukatu. */ apezak leitu din paperetik yire lein irakatsaldia (5):* apaizak paperetik irakurri din hire lehen irakatsaldia (?).

leixo *(5, 9)* : *(erai.)* leiho */ txoriak xitan ditzu leixoara (9):* txoriak leihora datoz. */ txoriak xitan*

ditzu leixoetra (9): txoriak leihoetara datoz.

leixume 1 *(5)* : *(erai.)* leihotxo */ leixo ñottoa ere leixumea [da] (5):* leiho txikitxoa ere leihotxoa da.

leixume 2 *(5)* : *(erai.)* leiho-begi */ leixoaren begiak leixumeak dra (5):* leihoaren begiak leiho-begiak dira.

lejar *(1)* : legar */ lejarra (1):* legarra, legar lekua.

lejione *(3)* : *(mil.)* legio */ amabi beino obro aînguruzko lejione (3):* hamabi aingeru legio baino gehiago.

leka *(11)* : *(bot.)* leka

lekeda 1 *(5)* : itsasgarri, lekeda

lekeda 2 *(5)* : lirdinga (bare, barraskilo eta harrena)

lekeda 3 *(5)* : ur-zikinkeria OH. Ur geldituaren gainean geratzen den zikinkeria.

lekedatu *(5)* : itsatsi */ eriak lekedatu zaiztad (5):* hatzak itsatsi zaizkit.

leku *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : leku */ leku eta tenpra guzietan (2):* leku eta garai guztietan. */ zeurian eta leku guzietan (2):* zeruan eta leku guztietan. */ leku kartarik [fatian] (3):* leku hartatik joatean. */ egia da agiten drela gose eta lur-ikareria anitx lekutan (3):* egia da gosete eta lurrikarak gertatuko direla leku askotan. */ aurra zagon lekiuaren aurkiara (3):* haurra zegoen lekuaren aurrera. */ zore tesorua dagon lekiuan, kan diozu zore biotza (3):* zure altxorra dagoen lekuan, han duzu zure bihotza. */ zûrak ugaltiaz bera [eramaiten dra] saltako lekiuetraino (4):* zurak ibaian behera eramaten dira saltzeko lekuetaraino. */ itxasoaz ere eramaiten dei nai dein lekiuetra (4):* itsasoz ere eramaten dute nahi duten lekuetara. */ lekian, lekiuan (5):* lekuan. */ leku bat anitx [on] (7):* leku bat oso ona. */ [eraman ogia] mazteak dauden lekuara (lekiara) (7):* eraman ogia emakumeak dauden lekura. */ xuan tiala beren lekietra (9):* joan daitezela beren lekuetara. */ mendian leku batarik bestiara zankueki ebilik, azkar ebil! (10):* mendian leku batetik bestera hankekin ibilirik, indartsu ibil!

leloka *(5)* : lelo, tentel

len *(10)* : lehen (adj.) */ lena (10):* lehena.

len bekin len *(5)* : lehenbailehen

lenabentu *(5)* : azaro

lenao *(10)* : lehenago */ lenao bizagon anitx asto eta zamari (10):* lehenago baitzegoen anitz asto eta zamari. */ orai gu gition obeki ezi lenao (10):* gu orain hobeki gauden lehenago baino.

lenbreiña *(5)* : sabelzapal (aberea) OH. Sabela oso zapala edo sartua daukan aberea.

lendarik *(7)* : lehendik */ banakia nik lendarik (7):* banekian nin lehendik.

lengai *(5)* : lehengau OH. Gaueko lehen orduak.

lenganik *(5)* : lehendik

lenganikas *(5)* : lehendik

lenseme *(5)* : lehen seme, seme zaharren, oinordeko */ burzegia ilte[an] emon zitien ortzeara saldoak, lensemea eskiara xin arteo (5):* buruzagia hiltzean erdira (migodoin) eman zituzten artaldeak, lehen semea eskura (adinera) etorri arte.

leon *(10)* : *(zoo.)* lehoi */ leona (10):* lehoia.

lepape *(5, 11)* : lepape (txerriarena)

lepatziri *(5)* : *(anat.)* lepo

lepaxilo *(5)* : *(anat.)* lepazulo OH. Eztarri ondoko zuloa.

lepazaki *(5)* : *(anat.)* lepozaki

lepezur *(9)* : *(anat.)* lepondo */ lepezurra (9):* lepondoa.

lepo 1 *(1, 2, 3, 4, 7, 8, 10)* : *(anat.)* lepo */ lepotik [arrapatan zaularik], itotan zaun (3):* lepotik harrapatzen zuela, ito egiten zuen. */ urrutxaz egiten dra xoraltiak, aziender lepuetan txintxerreki isartako (4):* hurritzaz lepokoak egiten dira, aziendei lepoan zintzarriekin jartzeko. */ lepoko gorbatak berark eratsukitan du nola dakan utsik gizenkiaren lekiua (4):* lepoko gorbatak berak erakusten du nola daukan hutsik gizenkiaren lekua. */ lepoa (7):* lepoa. */ mazte batek lepua ebaki ziozun (8):* emakume batek lepoa ebaki zuen (gizon batena). */ lepoa (10):* lepoa.

lepo 2 *(1)* : *(geog.)* mendilepo, lepo */ Betzula meekako lepoa (1):* Betzula meharreko mendilepoa.

lepondo *(4)* : *(anat.)* lepondo

lepradun *(3)* : *(med.)* legendun */ lepradunak baratan dra xaî (3):* legendunak garbi geratzen dira.

leproi *(5, 7, 9)* : *(zoo.)* erbi */ kau da gatu, ez da leproi (7):* hau katua da, ez da erbia.

lepustei *(5)* : *(anat.)* sorbalda-hezur

ler *(1, 2, 4, 5, 10)* : *(bot.)* pinu, ler */ lerregi, ler egi ondoa (1):* ler hegi(a), ler hegi ondoa. */ lerra da obroen aztan dena (4):* pinua gehien hazten dena da. */ lerrak balio du zernaiden etse egiteko (4):* pinuak edozein etxe egiteko balio du. */ kemen dago trafiko andia lerretan (4):* hemen trafiko handia dago lerretan (pinuetan). */ izei, bago eta lertan ogeita bi milla duro (4):* izei, pago eta lerretan 10.000 pezeta. */ argizagiaren goragoan ebakitan dra bago ta lerrak (5):* (ilargiaren) ilgoran pagoak eta lerrak mozten dira. */ lerratzeak (5):* ler zuhaitzak. */ lerra egotx eta egurra egin (10):* pinua bota egurra egin. */ lerrak, kan, mendian [daudezu] (10):* lerrak, han, mendian daude.

ler edo zaparta *(5)* : leher edo zapart, kosta ahala kosta */ ler edo zaparta, lan kau bear dugu egin (5):* leher edo zapart, lan hau behar dugu egin.

ler egin *(5)* : leher egin */ ler ta zapart egiteko zorian (5):* leher eta zapart egiteko zorian.

lerdoi *(1, 4, 5)* : pinudi, lerdi */ lerdoia (1):* lerdia, pinudia. */ erran duan gobernuko korrek lerdoi bat [erosirik zakan] (4):* esan dudan gobernuko horrek pinudi bat erosita zeukan. */ beren erritik xin zren lerdoiara eta lerdoietik fan zren beren errietra (4):* beren herri(alde)tik etorri ziren pinudira eta pinuditik beren herrietara joan ziren.

lerki *(5)* : ler-zuzi, pinu-zuzi OH. Pinu adarrez egindako zuzia.

lerrargi *(5)* : erretxina-kandela */ buzka lotan dra lerrargiak (5):* puzka itzaltzen dira erretxina-kandelak.

lerrazi *(2)* : *(bot.)* pinazi

lerroi *(7)* : pinudi, lerdi */ kebentik anitx onki ekustan dun lerroia (7):* hemendik oso ongi ikusten da pinudia.

lerrondo *(5)* : *(bot.)* pinu, ler

lertu 1 *(3, 5, 9)* : lehertu, zapartatu */ kaur egiten bada, lertan da zagia eta usurtan ardaûa (3):* hau egiten bada, zahagia lehertzen da eta ardoa isurtzen. */ ezin erkinez ler adi, zapart adi (5):* ezin atereaz leher hadi, zaparta hadi. */ ase zea[n] eta lertu zea[n] (9):* ase zen eta lehertu zen.

lertu 2 *(5)* : lehertu, abaildu (nekearen nekez)

lerxagarko *(2)* : pinazi (jatekoa)

letxuga *(2, 10)* : *(bot.)* uraza, letxuga */ letxuga izartan lurrian (10):* letxuga jartzen (landatzen) lurrean.

lexar *(1)* : legar */ lexarra (1):* legarra, legar lekua.

lexo *(4, 7, 8, 9, 10)* : *(erai.)* leiho */ usin dagonaz, ez dokegu lexoetarik karrikara kukurik egin (4):*

dagoen bisutsaz, ez dezakegu leihoetatik kalera kukurik egin. */ etxeko lexoa (lexua) da (7):* etxeko leihoa da. */ lexotik [mendia] ekustan da (7):* leihotik mendia ikusten da. */ lexua (8):* leihoa. */ lexoa (9):* leihoa. */ orai auts[e da] lexo bat eta eztokiagu arrapatu karpintero bat (10):* orain leiho bat hautsi da eta ez dezakegu zurginik harrapatu. */ lexoak betik zerratuk (10):* leihoak beti itxita.

lexome *(7)* : *(erai.)* leihatila */ lexomea ezkerran dago (7):* leihatila ezkerrean dago.

lexope *(11)* : leihope OH. Hitz honen lekukotasuna gaztelanian desitxuraturik gordetako ´echope´ hitzean dago.

lexume *(9)* : *(erai.)* leihatila */ eztezei lexumerik (9):* ez duzue leihatilarik.

leza *(1)* : *(geol.)* leize */ leza gorria (1):* leize gorria. */ leza dena (1):* leizea dagoen (leku)a. */ lezapea (1):* leizepea.

leze *(1, 11)* : *(geol.)* leize */ goiko lezea (1lm):* goiko leizea. */ leze gorria (1, 11):* leize gorria.

libosna *(4, 5)* : limosna, amoina */ xakuto bat ebiltako bortaz borta libosna eska, bizitako (5):* xakuto bat atez ate ibiltzeko limosna eske, bizitzeko.

libosna eskatu *(4)* : limosna eskatu */ libosna eskatu zitzaun berzeak (4):* limosna eskatu zion bertzeak.

libra *(4)* : libra (neurria) */ ardi bapanari gentan dabei iror edo laur libra ganzta (4):* ardi bakoitzari hiru edo lau libra gazta kentzen diote. */ arrain bi libratakua [arrapatu banu], zinezago emonen nazkan ortzikaldiak (4):* bi librako arraina harrapatu banu, egiazkiago eginen nizkion hozkadak.

libraka *(5)* : *(bot.)* iraka

libratu 1 *(2, 3, 4, 7)* : libratu, askatu */ libra gitzazu gatxetarik (2):* libra gaitzazu gaitzetatik. */ [emazte bat odol usurtiua batarik] libratan du (3):* (Jesusek) emakume bat odol isuri batetik libratzen du. */ ekus zagun xiten zaunez Elias libratra (3):* ikus dezagun Elias askatzera etortzen zaion. */ libra gitzala korpizeko gatx guziuetarik (3):* libra gaitzala gorputzeko gaitz guztietatik. */ libra naztazu odoletarik (4):* libra nazazu odoletatik. */ ontarik libratu dun (7):* onetik (ederretik) libratu dun.

libratu 2 *(3)* : erdi, haurra izan */ kaur birjen [zelarik] libratu antzinian, libratian eta libratuz gero (3):* hau birjina zela erdi aurretik, erditzean eta erdi ezkero.

libro *(3, 7, 9)* : liburu */ zerengatik manatu zion Moisesek emoitia libroxkua? (3):* zergatik agindu zuen Moisesek liburutxoa emateko? */ libro kau [eskeintan dabeid] (7):* liburu hau eskaintzen diet. */ ar zazu libroa (7):* har ezazua liburua. */ nik ekun baneza libro bat, emanen [nian] (9):* nik liburu bat edukiko banu, emango nuen.

libru *(5)* : liburu

librusantxa *(5)* : gatzagi (ganaduarena) OH. Zuberoan ´librüsantxa´ dokumentatua.

liburu *(4, 5)* : liburu */ liburu bat oiltu zaun kari (4):* liburu bat bidali zion hari. */ liburu zerratiuak ez du ñori eratsukitan (5):* liburu itxiak ez dio inori irakasten.

liferenzia *(4)* : ezberdintasun */ ezta estrañu izanen zerbait liferenzia erden tzan gunetik konat ene uskaran (4):* ez da arraroa izango ezberdintasunik aurki dezan ordutik hona nire euskaran.

ligarza *(5, 10, 11)* : azao-lokarri, sorta-lokarri

lika *(5)* : lika (txoriak harrapatzekoa)

lili *(2, 3, 4, 5, 7, 10, 11)* : lore, lili */ kalarik ere, Salomon [ez zen beztitu] kain primorosoki nola lili kuetarik bat (3):* hala ere, Salomon ez zen jantzi lore hauetako bat bezain dotore. */ txezei alurreko liliak nola anditan dren eta loratan (3):* begira ezazue alorreko loreak nola handitzen

diren eta loratzen. */ margu lili artean erleak naro ebiltan dra (5):* marrubi lore artean erleak sarri ibiltzen dira. */ erleak, aurkoi bazrade, fan zte[i] beste lilitra (5):* erleak, haurkoiak bazarete, joan zaitezte beste loreetara. */ zer kio ona dien lili korrek! (7):* zer usain ona duen lore horrek! */ bedatzen (sic) liliak erkitan dra (7):* udaberrian loreak ateratzen dira. */ lilia (10):* lilia. */ guziak lilir[e]ki (10):* guztiak loreekin.

liliarrosa *(5)* : *(bot.)* arrosa

lilibitxi *(5)* : *(bot.)* kamamila

lilimailu *(5, 11)* : *(bot.)* lilimailu OH. Lore horiko sendabelarra. Aznarezek ibarreko gaztelanian ´lilimayo´ dokumentatua.

lilipopa *(5, 11)* : *(bot.)* lilipa, nartziso

lilitu *(7)* : loratu, lilitu

lilixuri *(4)* : *(bot.)* kamamila

lime 1 *(5)* : hondar (botila hondokoa eta)

lime 2 *(5)* : lirdinga (intsektuena)

limon *(2)* : *(bot.)* limoi

limosna *(3)* : limosna, amoina

limosna emon *(3)* : limosna eman */ emoitan tzunian limosna, etzazula nai publika tronpeta sonuz (3):* limosna ematen duzunean, ez ezazula zabaldu nahi izan tronpeta soinuz.

linbo *(2)* : *(erl.)* linbo */ aurren linbua (3):* haurren linboa. */ jeina il garaian, aren arima xatxi zela linbo[ra] (2):* jauna hil garaian, haren arima linbora jaitsi zela.

linu *(1)* : *(bot.)* liho */ linueta (1lm):* liho eta.

lir-lar *(5)* : dir-dir, dirdiraka (eguzkia) OH. Azkuek ´eguzkiaren dirdiraren onomatopeia, adibidez zelai batean´ esanahiarekin dokumentatua.

lirdikatu *(5)* : zanpatu (frutak eta)

lirin 1 *(5)* : narras, zarpail */ mazte lirina da kori (5):* emakume zarpaila da hori.

lirin 2 *(5)* : goibel, triste, betilun

liro *(5)* : goibel, triste, betilun */ begiak liro zazkan atzo Peiok, argi Antxikok (5):* begiak goibel zeuzkan atzo Pellok, argi Patxik.

lirta *(5)* : luizi, lurta

lisagune *(5)* : zipide OH. Ikus ´zipide´ sarrerako oharra.

lisatu *(5, 11)* : irristatu

lito *(5)* : sakonune OH. Azkuek ´leku sakona´ esanahiarekin dokumentatua.

litro *(7)* : litro */ zomat litro? ogei (7):* zomat litro? hogei.

lixiritu *(4)* : digeritu, txegosi */ geroztik xuan erranez nabaja-erkilia ezokela lixiri tripa mina (4):* geroztik, labana-ateratzailea esanez zihoan ez zezakeela digeritu tripako mina.

lo *(3, 4, 5, 8, 9, 10, 11)* : lo */ lo [baratu zren] (3):* lo geratu ziren. */ loarako ordiuan (3):* lotarako orduan. */ gosеareki eta lotsareki lo txiki (5):* gosearekin eta beldurrarekin lo gutxi. */ deus egin bagetarik, solo xan eta lo (8):* deus egin gabe, jan eta lo soilik. */ loa (9):* loa. */ lo-lo (11):* lo-lo.

lo egin *(3, 4, 5, 7)* : lo egin */ lo egin zazei orai (3):* lo egin ezazue orain. */ Jesus lo egiten [zagon] (3):* Jesus lo egiten ari zen, lo zegoen. */ ai, eztoked lorik egin (4):* ai, ez dezaket lorik egin. */ Karlomagnok eztu lorik egitan (4):* Karlomagnok ez du lorik egiten. */ anixko lo egiten dionak txiki ikastan du (5):* askotxo lo egiten duenak gutxi ikasten du. */ atzo arratsean lo ekuntu nion egin, andutsia zapartuz (5):* atzo arratsean lo egin ahal izan nuen erlakaiztena lehertuz. */ oi kontan onki lo egitan da (7):* ohe honetan ongi lo egiten da. */ Pedro[k] lo egiten dien (7):*

Pedrok lo egiten din. */ korrek lo egitan dien (10):* horrek lo egiten din.

lo egon *(3, 5, 6, 7, 8)* : lo egon */ gizonak lo zaudelarik, [aren etsai bat xin zen] (3):* gizonak lo zeudela, haren etsai bat etorri zen. */ gu lo gitzaudelarik, gaiaz [xin zren] eta ebatsi zein (3):* gu lo geundela, gauez etorri ziren eta lapurtu egin zuten. */ lo al beizagon (5):* lo egon zitekeen. */ lo dago (6):* lo dago. */ Antonio lo dio[n] (7):* Antonio lo zagon. */ lo dagona iritzar (8):* lo dagoena iratzarri.

lo-klunka *(5)* : lo-kuluxka

lo-kuluxka *(5)* : lo-kuluxka

lo-su *(5)* : logura (handia)

lo-suz egon *(5)* : logura handia izan */ lo-suz nago (5):* logura handiz nago, logura handia dut.

lo-zaku *(5)* : loti

lo-zurrunka *(5)* : lo-zurrunga

loak artu *(3)* : loak hartu, lokartu */ aurra edo nexkaxia [ez dago] ilik, beizik loak artruk (3):* haurra edo neskatoa ez dago hilik, loak hartuta baizik. */ gero berze buelta bat [emon zion] eta erden ztion loak artruk (3):* gero beste buelta bat egin zuen eta loak hartuta aurkitu zituen.

loak atarratu *(5)* : loguratu

loakartu *(3, 4, 5)* : loak hartu, lokartu */ nola [senarrak] berantan baizion xitiaz, loakartu zren guziuak (3):* nola senarra etortzen berandutzen baitzen, guztiak lokartu ziren. */ [bere ikaszal]engana utzuli zen gero eta loakartruk [erden ztion] (3):* bere ikasleengana itzuli zen gero eta lokarturik aurkitu zituen. */ loakartruk, ezaun erresponditu (4):* lokarturik, ez zion erantzun. */ loakartu nai noke (5):* lokartu nahi nuke.

loarin *(5)* : loarin

loasma *(5)* : logura

loba *(5)* : biloba

lobarro *(5)* : *(alb.)* satar, karbunko (mandoena) OH. Azkuek ´hilgarria´ oharrarekin dokumentatua.

lobelar *(5)* : *(bot.)* lobelar

lodi 1 *(3, 4, 5)* : lodi */ ñork ere ez [dau izartan] tapallu bat oxal lodiz beztido xar bati (3):* inork ere ez dio jartzen adabaki bat oihal lodiz jantzi xahar bati. */ llarnean olabeaz igarten da garia, autz lodiarekin naste dagoanean (5):* larrainean olabeaz igarotzen da garia, ahotz lodiarekin nahasturik dagoenean.

lodi 2 *(4)* : lodi (likidoak) */ eznia isartan dei zuku lodi batian (4):* esnea salda lodi moduan jartzen dute.

lodigo *(5)* : lodiera

lodigu *(4)* : lodiera */ balle guzuko lerrak [saltako] kalako lodigiuatik gora (4):* ibar osoko lerrak saltzeko halako lodieratik gora.

loegale *(5)* : loguratsu (logura duena)

logale 1 *(5, 7, 9)* : logura */ zer logale! (7):* zer logura! */ logale diezt (9):* logura dut. */ logale txiki diar (9):* logura gutxi dut.

logale 2 *(5)* : loguratsu (logura duena)

logaleak gorritu *(5)* : logurak gorritu, logurak erretzen egon

loi 1 *(2, 5, 7, 9)* : lokatz, lohi */ aurrak ziki[n]tan dutzu loian (7):* haurrak lokatzetan zikintzen dira.

loi 2 *(5, 8)* : zikin, lohi

loidoi *(5)* : lokazti, lohitze
loitu *(5)* : zikindu, lohitu
loitze *(5, 11)* : lokazti, lohitze */ loitzeta (11):* lohitze eta.
loka *(5)* : oilaloka
lokainka *(10)* : *(suk.)* lukainka */ lokainka puska bat (10):* lukainka puska bat.
lokari *(5)* : itzaltzaile
lokarrarazi *(5)* : lokarrarazi
lokartu *(4)* : loak hartu, lokartu */ pajea[k], xa lokartruk, ezaun errespondítu (4):* zerbitzariak, jada lokarturik, ez zion erantzun.
lokatu *(5)* : lokatu (oiloa)
lokeinka *(10)* : *(suk.)* lukainka */ xerria il eta lokeinkak egin (10):* txerria hil eta lukainkak egin.
loketu *(8)* : lotu */ fizela zinturan izar, keben loketruk (8):* fizela (?) gerrian jarri, hemen loturik.
lokun *(5)* : *(anat.)* loki
lokune *(2, 4, 5)* : *(anat.)* loki OH. Orotariko Euskal Hiztegian ´logune = loki´ dokumentatua.
lolo 1 *(5)* : *(haur.)* lolo
lolo 2 *(5)* : *(haur.)* esne
lomorko *(5)* : logura (txikia)
longaiñ *(5)* : longain (kapa antzekoa) */ longaiña (5):* longaina.
lonpipa *(5)* : papao, mamu OH. Haurrak mehatxuz beldurtzekoa.
loo *(3)* : logura; lo */ loak artruk [erden ztion], zeren beren begiak baizauden looz beterik (3):* loak hartuta aurkitu zituen, zeren haien begiak loguraz beterik baitzauden.
lopesu *(5)* : lozorro, lo astun, lo pisu
loratu *(3)* : loratu, lilitu */ txezei alurreko liliak nola anditan dren eta loratan (3):* begira ezazue alorreko loreak nola handitzen diren eta loratzen.
lore *(4, 5, 7)* : *(bot.)* lore */ gatarro denian, lore kontarik egos (4):* katarroa denean, egosi lore honetatik. */ txutxika loria bedatsian biltan da urte guzuko (4):* intsusa lorea udaberrian biltzen da urte osorako. */ otakak martxoan lore, ez da faltaren eri eta dolore (5):* otakak martxoan lore, ez da faltako gaixotasun eta min. */ belar koni urte guziuan ezau kentan lorea (5):* belar honi urte osoan ez zaio kentzen lorea.
lorexuri *(4)* : *(bot.)* bitxilore
lorik *(5)* : lo */ badakian ez yaola lorik (5):* bazekinat ez hagoela lo.
lotaillu *(5)* : lokarri
lotan *(3, 10)* : lotan */ errezibitu baikoz lotan abiso bat zeuritik, bere[n] erriara bueltatu zren (3):* zerutik abisu bat lotan jaso bezain laster, beren herrira itzuli ziren.
lotetu 1 *(5, 7, 9, 10)* : lotu */ noren amak lotetu du? (9):* noren amak lotu du? */ lotetu dien, lotetan dien (10):* lotu din, lotzen din.
lotetu 2 *(5)* : itzali
lotra juan *(9)* : lotara joan */ jua´ztei xe[k] lotra (9):* joan zaitezte zuek lotara.
lotsa *(3, 4, 5, 6, 7, 10)* : beldur */ lotsa saintuz beterik [baratu zren] (3):* beldur santuz beterik geratu ziren. */ Herodesek [Juan] onki nai zion ilarazi, baia ezen atrebitan iriaren lotsaz (3):* Herodesek Juan ongi hilarazi nahi zuen, baina ez zen ausartzen herriaren beldurrez. */ lotsaz beterik asi zren irago egiten (3):* beldurrez beterik oihu egiten hasi ziren. */ lurraren ikareria [ekustian] bete zren lotsa anditaz (3):* lurraren ikara ikustean, beldur handiz bete ziren. */ [ardidunak] lotsareki daude, jangeikoak ez badu erremediatan tenprareki (4):* ardidunak

beldurrez daude, jaungoikoak ez badu garaiz erremediatzen (ardien egoera txarra). */ ez dadak lotsarik ene axurientako (4):* ez zaukeat beldurrik nire arkumeentzako. */ lotsa dionari ezau mira egiten atziri (5):* beldurra duenari ez zaio atzera begiratzen. */ lotsak zankoak arintan tu (5):* beldurrak hankak arintzen ditu. */ gosearekі eta lotsarekі lo txiki (5):* gosearekin eta beldurrarekin lo gutxi. */ batzua (batzia) lotsarik? nik ez dur lotsarik (7):* ba al duzu beldurrik? nik ez dut beldurrik. */ badut lotsa anitx andi (7):* oso beldur handia dut.

lotsa ekun *(3, 5, 10)* : beldurra eduki, beldur izan */ baia korrengatik ez dazauzei ekun lotsa (3):* baina horregatik ez ezazue beldurrik eduki. */ lotsarik etzazei ekun korpizaren ilzaler (3):* beldurrik ez iezue izan gorputzaren hiltzaileei. */ lotsa ekun zazei korpiza iburniara [egotx dokenari] (3):* beldurra eduki iozue gorputza infernua bota dezakeenari. */ nai dionak osagarri, lotsa ekun bear du martxoko iguzkiari (5):* osasuna nahi duenak beldur izan behar dio martxoko eguzkiari. */ lotsa dionak betik dama begi bata atziri beira (5):* beldurra duenak beti darama begi bat atzera begira. */ zer lotsa gunien! (10):* zer beldur genuen!

lotsa izan *(5, 7)* : beldurra eduki, beldur izan */ ardiak otsoen lotsa drelarik, oidura bat egitan dei (5):* ardiak otsoen beldur direnean, asaldura izaten dute.

lotsa sartu *(4)* : beldurra sartu */ kalako gisan sartu emon zitzabein lotsa, ez baizren erkiten etse biltan zrenetik (4):* halako moduan sartu omen zitzaien beldurra, ez baitziren ateratzen biltzen ziren etxetik.

lotsagarri *(7)* : beldurgarri, ikaragarri

lotsaldi 1 *(5)* : izualdi, ikara */ emazteak artan dionean lotsaldi bat ustebagerik, egiten du txalanpa (5):* emakumeak ustekabean izualdi bat hartzen duenean, oihu egiten du.

lotsaldi 2 *(5)* : errieta, agiraka */ lotsaldi bat emon (5):* errieta egin, agiraka egin.

lotsatarzun *(3)* : beldur */ jangeikuaren lotsatarzunaren dona (3):* jaungoikoaren beldurraren dohaina.

lotsatu *(3, 4, 5, 7, 9)* : beldurtu */ Arkelaok manatan ziola [entzutian], lotsatu zen kara faitra (3):* Arkelaok agintzen ziola entzutean, hara joateaz beldurtu zen. */ zertaz lotsatan zrei? (3):* zertaz beldurtzen zarete? */ aur maitea, ene biotza lotsatan duk (4):* haur maitea, ene bihotza beldurtzen duk. */ [olloak] lotsatu ztea[n] (9):* oiloak beldurtu zituen. */ ez adi lotsa korrengatik (9):* ez hadi beldurtu horregatik.

lotsor *(5)* : herabe

lotu 1 *(3, 4, 5)* : lotu */ ez badu leinik onki lotan [gizona] (3):* ez badu lehenik ongi lotzen gizona. */ [Juan kadenekin] lotruk (3):* Juan kateekin loturik. */ zankuetarik eta eskiuetarik lotruk (3):* oinetatik eta eskuetatik loturik. */ zuk lot zinezan guziua (3):* zuk lot zenezan guztia. */ ketaz lotan dra zûrak, saltra eramaiteko (4):* (hurritz-adar) haiekin zurak lotzen dira, saltzera eramateko. */ zûr egiten eta lot lan (4):* zura lantzen eta lotzeko lanean. */ oilloa makila baten puntan lotruk (5):* oiloa makila baten puntan loturik.

lotu 2 *(5, 7, 9, 10)* : lo egin */ onki lotan dionak onki lasatan du (5):* ongi lo egiten duenak ongi laxatzen (?) da. */ onki lotu zeria? (7):* ongi lo egin al duzu? */ lotu tzua (tzia) onki? (7):* ongi lo egin al duzu? */ anitx onki lotu dur (7):* oso ongi lo egin dut. */ ganbran lotan gra (7):* logelan lo egiten dugu. */ lo adi (9):* lo egin ezak. */ lotu dun, lotan dun (10):* lo egin din, lo egiten din. */ lotu yaza? (10):* lo egiten duk?

lotu 3 *(5, 7, 10)* : itzali */ sua lotu zunien eta ezezen nai ixiki (5):* sua itzali zitzaien eta ez zuten piztu nahi. */ buzka lotan dra lerrargiak (5):* puzka itzaltzen dira lerrargiak. */ lot[e]n dura? (5):* itzaliko al dut? */ loten dur argia (7):* argia itzaliko dut. */ [sua] lotu dur (10):* sua itzali dut. /

zeren lotu dun sua? (10): zergatik itzali dun sua? */ [argia] lotan dien (10):* argia itzaltzen din. */ lotzan sua! (10):* itzal ezan sua!

lotxa *(2)* : beldur */ seme-alabarik ekutan badei, jeinaren lotxan az liztxein (2):* seme-alabarik izaten badute, jaunaren beldurrean haz litzaten.

lotza *(3)* : beldur */ iburniko penen lotzaz (3):* infernuko nekeen beldurrez.

lotzaki *(5)* : lotura

loxka *(5)* : loxka (txikigarria) */ olli ta ddunddukoi dut loxka dagon nore aurra (5):* horitxo eta urdinxkazale dut loxka dagoen neure haurra.

loza *(5)* : toles, izur (soinekoena)

lozale *(5)* : itzaltzaile OH. Ikus ´lotu 3´ sarrera.

lu *(5, 8, 9)* : *(bot.)* liho */ lua bera ori tzu (5):* lihoa bera horia duzu. */ lua (8, 9):* lihoa. */ edein lumukulu kori (9):* emadan liho-pilatxo hori.

lû *(2, 5)* : *(bot.)* liho */ lû aziak San Markos egunean ez du egon bear ez sortruk ez zakutan (5):* liho haziak San Markos egunean ez du egon behar ez sorturik ez zakutan.

lukainka *(5, 10)* : *(suk.)* lukainka */ lur-ileko gramatto ulunetan jansoa ta lukainkak itxikitan tugu, zumail egon tean (5):* lur-zoruko (?) jakitoki ilunetan urdaia eta lukainkak atxikitzen ditugu, fresko egon daitezen. */ lukainkak orioan, guardatako (10):* lukainkak oliotan, gordetzeko.

lumeri *(5)* : *(alb.)* lumeri (oiloen gaitza)

lumero *(4)* : zenbaki */ baita´ re oiltan daud ele galtegiten daiztadanak, bapana bere lumeroareki (4):* galdetzen dizkidan hitzak ere bidaltzen dizkiot, bakoitza bere zenbakiarekin. OH. Gipuzkoan ere dokumentatua, zaharkitua.

lûn *(4)* : *(bot.)* liho

lupe *(5)* : *(med.)* lupus, lupu (ultzera mota) */ lupea sentogatx da (5):* lupua sendagaitza. da.

lupi *(5)* : *(med.)* lupus, lupu (ultzera mota)

lur 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : lur */ lur gorria (1):* lur gorria. */ zeuriko eta lurreko gaiza guziak (2):* zeruko eta lurreko gauza guztiak. */ nola zeurian kala lurrean (2):* nola zeruan hala lurrean. */ lurra zazoin ontan [dago] eriteko (4):* lurra sasoi onetan dago ereiteko. */ pezu andi baten azkatako lurretik soinaraino (4):* pisu handi bat altxatzeko lurretik sorbaldaraino. */ nola zeurian kala lurrian (4):* nola zeruan hala lurrean. */ zeuriaren eta lurraren egilia (4):* zeruaren eta lurraren egilea. */ buztun lur[ra] (5):* buztin lurra. */ txoriak lurrean ebiltako azpixkoak eta zankoak [dozke] (5):* txoriak lurrean ibiltzeko izterrak eta eta hankak dauzka. */ etsea urrez, boltsa lurrez (5):* etxea urrez, poltsa lurrez. */ paretia desegin bar diezu lurriaraino (7):* pareta lurreraino desegin behar duzu. */ lurriara egoixtan (8):* lurrera botatzen. */ lurra anix aseri dago patata erkitako (10):* lurra oso ase(ta) dago patata ateratzeko. */ letxuga izartan lurrian (10):* letxuga jartzen (landatzen) lurrean.

lur 2 *(3)* : lur, lurralde */ fan zte Israeleko lurriara (3):* joan zaitez Israeleko lurrera. */ lur Jordanaren berze altian daudenetra [xin zen] (3):* Jordanen beste aldean dauden lurretara etorri zen.

lur 3 *(3, 7)* : *(astr.)* lur */ zeuria eta lurra igaren dra, baia ene eliak eztra faltaten (3):* zerua eta lurra igaroko dira, baina ene hitzak ez dira faltatuko. */ goikoa lurriaren amaño [dago] (7):* ilargia lurretik hurbil dago. */ iguzkia lurretik urrin dago (7):* eguzkia lurretik urrun dago.

lur 4 *(7)* : lur, zoru */ lurra dun arriz (7):* lurra (zorua) harrizkoa dun.

lur-arras lo egin *(5)* : lurrean lo egin */ lur-arras lo egin du (5):* lurrean lo egin du.

lur-ikareria *(3)* : lurrikara */ egia da agiten drela gose eta lur-ikareria anitx lekutan (3):* egia da gosete eta lurrikarak gertatuko direla leku askotan.
lur-il 1 *(5)* : *(erai.)* lur-zoru OH. Azkuek ´etxeko behe solairuko lur-zorua´ esanahiarekin dokumentatua.
lur-il 2 *(5)* : *(erai.)* behe solairu
lurbel *(5)* : lurbeltz, lurmen (elurrik gabe) */ eguzku-begia lurbel dago, oxezkia astra elur agiri da (5):* egutera lurbeltz dago (lurmenduta), laiotza aldiz elur(tsu) ageri da.
Lurdes *(6)* : *(geog.)* Lurdes */ Lurdesekoa (6):* Lurdeskoa. */ Lurdeserik [xuan da], Lurdesetik [xuan da] (6):* Lurdestik joan da.
lurkara *(5)* : lurkara OH. Lur antzekoa, lur kolorekoa.
lurpeko *(2)* : *(zoo.)* luhartz
lurra emon *(5)* : lurperatu, lur eman
lurra galdu *(5)* : emigratu
lurrak artu *(5)* : girotu (bertako girora moldatu)
lurrarras *(5)* : *(erai.)* lur-zoladura
lurras *(5)* : *(erai.)* lur-zoladura
lurrera erori *(5)* : lur jo, porrot egin
lurreratu *(7)* : lurreratu
lursagu *(5)* : *(zoo.)* ur-satitsu
lurta 1 *(5, 11)* : luizi, lurta
lurta 2 *(5)* : elur-jausi
lurtatu *(11)* : lurtatu (eraikina erori)
luto 1 *(3)* : luto, dolu */ lutozko musika sonazaliak (3):* lutozko musika soinulariak.
luto 2 *(1)* : barreneko, sakon */ lutoa (1):* barrenekoa, sakona. OH. ´Lutoa´ amildegi izena da. Zuberoan ´luthoa´ adjektiboa dokumentatua.
luxe *(1)* : luxe (txikigarria) */ karrika luxea (1lm):* karrika luxea.
luzabide *(5)* : berandutze, luzatze
luzakari *(5)* : berandutzen den(a)
luzakeria *(5)* : luzamendu, berandutze
luzara *(5)* : luzetara
luzara egon *(5)* : luzetara egon, hedaturik egon */ luzara dago (5):* luzetara dago, hedaturik dago.
luzatu 1 *(3)* : luzatu */ luza zazu esku kori (3):* luza ezazu esku hori. */ Jesusek, luzatian eskiua, artu zion besotik (3):* Jesusek, eskua luzatzean, besotik hartu zuen.
luzatu 2 *(9)* : luzatu, luzetsi */ [plaztan] gero beti luzatuk, mitilak ez biz[r]en erkitan dantzara (9):* plazan gero beti luzetsita, mutilak ez baitziren irteten dantzara.
luzaz *(5)* : luzaro
luze *(1, 3, 4, 5, 6, 9, 10)* : luze */ arri luzea (1):* harri luzea, haitz luzea. */ egi luze burua (1):* hegi luze goialdea. */ luziago [eramaiten tei] beren beztiduen atzekuak (3):* luzeago eramaten dituzte beren jantzien atzekoak. */ tenpra luzez [eiztan] (3):* denbora luzez uzten. */ iltea on bat, erigoa luzerik bage (4):* heriotza on bat, gaixotasun luzerik gabe. */ xinen da berze tenpra bat, izanen bainaiz luziago (4):* beste aldi bat etorriko da, luzeago izango naizena (luzeago idatziko dudana). */ debriareki dabilanak bear dik akilua luze (5):* deabruarekin dabilenak behar dik akuilua luze. */ luzia (6):* luzea. */ bizi luze bat (9):* bizi luze bat.
luzeara *(5)* : luzera, epe luzera

luzego *(3, 5)* : luzera */ nor[k] xetarik añadi doke kodo bat bere luzeguari? (3):* zuetako nork gehi diezaioke pixka bat bere luzerari? */ sei ze luzegoko bilbea (5):* sei zehe luzerako bilbea.
luzetu *(10)* : luzatu */ luzetu dun (10):* luzatu dun.
luzexka *(5)* : luzexka

LL

llabe *(10)* : labetxo

llabur *(3, 4, 7, 9, 10)* : labur */ ez balite llabur egun kurak (3):* egun haiek ez balira laburrak. */ nola tenpra baidigu llabur, aprobetxatiagatik (4):* denbora laburra dugunez, aprobetxatzeagatik. */ karta kaur llaburrago oilta daud (4):* gutun hau laburrago bidaltzen diot. */ ele bat [isartan daud], llaburren eta aisenetarik (4):* hitz bat jartzen diot, laburren eta errazenetakoa. */ [zezenek] buztan llabur [dei] (7):* zezenek buztan laburra dute. */ zamariaren buztana llabur [dun] (7):* zaldiaren buztana laburra dun.

llaburbide *(5)* : laburbide, lasterbide

llaburtu 1 *(3, 4, 7)* : laburtu */ llaburtu zion, llaburtu zunion, llaburtu yon (4):* laburtu zuen, laburtu zenuen, laburtu huen.

llaburtu 2 *(4)* : laburpen */ zeren kaur baita legiak eta profetek erran dein llaburtiua (3):* zeren hau baita legeak eta profetek esan duten laburpena.

llalla *(5)* : *(haur.)* koilara

llapar *(5)* : makar

llardeki *(5)* : larrutu

llarne 1 *(1, 3, 4, 5, 9)* : *(nek.)* larrain */ llarne ederra (1):* larrain ederra. */ beurllarneta (1lm):* behor larrain eta. */ ezin obeki [xaîten du] bere llarnia (3):* ezin hobeto garbitzen du bere larraina. */ eltziuak llarnetan egon zren elurrez tapatruk (4):* eultziak larrainetan elurrez estalirik egon ziren. */ ez duk bear llarneara arrimatu, ez baduk nai errautsik artu (5):* ez duk larrainera hurbildu behar, ez baduk hautsik hartu nahi. */ llarnia ñoto [dun] (9):* larraina txikia dun. */ llarniara noan (9):* larrainera noan. */ llarnetik xitan nun (9):* larrainetik natorren. */ llarnian [dion] (9):* larrainean zagon.

llarne 2 *(5)* : *(astr.)* zisku (ilargiarena) */ goikoaren llarniak agortan tu urtsiuak (5):* ilargiaren ziskuak agortzen ditu iturburu txikiak. */ goikoa llarneareki dago (5):* ilargia ziskuarekin dago.

llarnenko *(11)* : lau, zelai (lekua) OH. Leku laua, behiek gaua igarotzeko aproposa. ´Llarne´ (= larrain) hitzetik eratorria dirudi.

llarren *(1, 9, 10)* : *(nek.)* larrain */ llarren zarra, llarrenkoa (1lm):* larrain zaharra, larraintxoa. */ laur llarren (9):* lau larrain. */ llarrenean diauzu eltzea (8):* larrainean eultzia dago. */ llarrenera [xuaitan nezu] (9):* larrainera noa. */ llarrenetako ezpela eragi zan (9):* larrainetako erratza ekarri ezan. */ llarrenetik xitan nezu (9):* larrainetik nator. */ llarrena (10):* larraina.

lleproi *(7, 9)* : *(zoo.)* erbi */ mendian badion lleproi (7):* mendiak bazagon erbi(rik). */ lleproia, lleproi banak (9):* erbia, erbi batzuk.

llerezna *(5)* : *(zoo.)* sorgin-orratz, burruntzi */ iñurriaren etsera eska fan zen llerezna (5):* sorgin-orratza eskean joan zen inurriaren etxera.

llerko *(5)* : *(bot.)* pinutxo, lertxo */ obeki egonen nintzen Bardeako llerkopetan (5):* hobeki egonen nintzen Bardeako pinutxopeetan.

lloba 1 *(2, 9, 10)* : iloba */ lloba bat (9):* iloba bat. */ iror lloba geundezun lein, ni bino zarrago (10):* hiru iloba geunden lehen, ni baino zaharragoak. OH. Anaut andreak ´lloba´ hitza ´lehengusu´ esanahian ere erabiltzen zuen.

lloba 2 *(2, 4, 7, 8, 10)* : biloba */ lloba solfistak ere eztu esturiatan obro solfa (4):* biloba solfistak ere ez du gehiago solfeoa ikasten. */ erraiten daud ez nazala trebe llober uskararen ikasaraztra*

(4): erraten diot ez naizela ausartzen bilobei euskara ikasarazten. */ llobaren gainian [orrek erraiten daikiguna] (4):* bilobari buruz berorrek esaten diguna. */ ai, ene lloba ñoa! (7):* ai, nire biloba txikia! */ gaztek [Uruñan] daudezu, senarremaztiak, eta bi... lloba (10):* gazteak Iruñean daude, senar-emazteak, eta bi... biloba.

llollo 1 *(5)* : *(haur.)* lolo

llollo 2 *(5)* : esne (ama-esnea ez dena)

llollo 3 *(5)* : *(bot.)* iraka

llollu *(2, 4)* : *(bot.)* iraka

M

Madrid *(6)* : *(geog.)* Madril */ Madridekoa (6):* Madrilgoa.
Madrile *(5)* : *(geog.)* Madril
magal 1 *(5)* : altzo, magal
magal 2 *(2, 3, 5)* : hego, hegal */ biltu edo mokorkatu, olluak mokorkatan tion bikala bere txitxaxkuak magalen pean (3):* bildu edo pilatu, oiloak bere txitatxoak hegalen pean biltzen dituen bezala. */ txoriak airean ebiltako magalak dozke (5):* txoriak airean ibiltzeko hegoak dauzka.
magal 3 *(5)* : mendel, barren (arropena)
magal-autsi *(5)* : hegal-hautsi */ magal-autsia (5):* (emakume) hegal-hautsia. OH. Azkuek ´politki mugitzen den emakumea´ esanahiarekin dokumentatua.
magalpeko *(5)* : alaba gazteen, seme gazteen; alaba maiteen, seme maiteen
magalla *(4, 5, 10)* : *(bot.)* pagatxa, pagazi */ bagoarnari ´magalla´ [erraiten zaio] (4):* pagoaren (fruitu)ari ´pagatxa´ esaten zaio.
magarda 1 *(5, 10, 11)* : *(bot.)* hesilahar OH. Artolak ´hesilaharraren fruitua, antza´ oharrarekin dokumentatua. Aznarezek ´basoko arrosa landarearen fruitua´ oharrarekin dokumentatua.
magarda 2 *(11)* : arkakarats
magarda-lili *(5)* : *(bot.)* hesilahar-lore
magardatze *(5)* : *(bot.)* hesilahar */ magardatzeak pintxo anitx ditu (5):* hesilaharrak arantza anitz ditu.
magurri *(10)* : *(bot.)* mugurdi */ magurria (10):* mugurdia.
magutxa *(5, 11)* : *(bot.)* leka
mai *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : mahai */ gizon bat xaseririk mai batian (3):* gizon bat mahai batean eserita. */ maian [egonen dra] Jakobekin (3):* mahaian egonen dira Jakobekin. */ maian [izari zren arekin] bazkalta[n] (3):* mahaian jarri ziren harekin bazkaltzen. */ txakurxkuek xaten dei beren nausien maitik erortan dren apurretarik (3):* txakurtxoek jaten dute beren nagusien mahaitik erortzen diren apurretatik. */ maiara [nua] (3):* mahaira noa. */ [aretxak] materiala du anitx on mai egiteko (4):* haritzak oso material ona du mahaiak egiteko. */ [paper guziuak] mai pera egoxten daizk (4):* paper guztiak mahai pera botatzen dizkik. */ maietik, maitikas (6):* mahaitik. */ maian, maira, maikoa (6):* mahaian, mahaira, mahaikoa. */ mai bat [da] (7):* mahai bat da. */ mai geinian izarri diegu (7):* mahai gainean jarri dugu. */ mai pean [pelotak] erden ditei (7):* mahai pean pilotak aurkitu dituzte. */ maiak zer eginen deiku? estorbu (8):* mahaiak zer eginen digu? traba. */ maya (10):* mahaia.
mai-estalki *(7)* : mahai-oihal */ mai-estalkia (7):* mahai-oihala.
maia izari *(9)* : mahaia jarri */ izar zan maia, platerak, gollareak, ogia eta xakoa (9):* jar ezan mahaia, platerak, koilarak, ogia eta zahatoa.
maiatz *(4, 5, 6, 7, 8)* : maiatz, lorail */ maiatza fan baizen on (4):* maiatza ona joan baitzen. */ 1904ko maiatzaren 22´na (4):* 1904ko maiatzaren 22.a. */ daigun maiatzian berantena (4):* datorren lorailean beranduena. */ betik baratan naz gisa berian, aiketa maiatzekuaraino (4):* beti geratzen naiz modu berean, harik eta maiatzekoa arte. */ maiatziaraz gero, [laurna pezeta] irabazen dei (4):* maiatza ezkero, launa pezeta irabaziko dute. */ maiatz otz, ez autz ez biotz (5):* maiatz hotz, ez ahotz ez bihotz. */ maiatza, urtearen giltza (5):* maiatza, urtearen giltza. /

maiatzeko zazpi egun zazpi ilabeteren lagun (5): maiatzeko zazpi egun zazpi hilabeteren lagun. */ maiatza (6, 7, 8):* maiatza.

maiatz-len *(5)* : maiatzaren lehen(a)

maiatzeko bazko *(5)* : *(erl.)* pazko maiatzeko, maiatz-pazko, mendekoste-jai

mailla 1 *(5)* : nabar (animalia)

mailla 2 *(5)* : *(med.)* begi-lauso */ mailla (5):* begi-lausoa.

maillo-maillo *(5)* : poliki-poliki, emaro-emaro

mainka *(5, 10)* : mahuka */ mainka luzeago ezik besoa (5):* mahuka luzeagoa besoa baino. */ mainka-zabal (5):* mahuka-zabal. */ mainkak [g]oradraino (10):* mahukak goraino.

mainkerdi *(5)* : mahuka-erdi OH. Ukondorainoko eskularru itxurako arropa, lanerako dena.

mainkeria *(5)* : herren, herrentasun, maingutasun

mainko *(5)* : eserleku

mainku 1 *(3, 5)* : herren, maingu */ [orai] mainkiuak erabiltan dra (3):* orain herrenak ibiltzen dira. */ etse bat erretan zela, mainku [zen] ur-karriazalea (5):* etxe bat erretzen zela, maingua zen ur-garraiatzailea.

mainku 2 *(5)* : besomotz, maingu

mainku-dangala *(5)* : maingu-dangala, oso herren (adb.)

mainkuka *(5)* : herrenka, mainguka

mainkuzka *(5)* : herrenka, mainguka

maiñari *(5)* : *(zoo.)* saguzar

maipe 1 *(5, 9)* : mahaipe */ maipetik uxti (5):* mahaipetik txistu. */ maipean diozu gatia (9):* mahaipean dago katua.

maipe 2 *(5)* : jateke, jan gabe */ eztatorrenari maipe (5):* ez datorrena jan gabe (geratuko da).

maipetik uxti (egin) *(5)* : jan gabe utzi (norbait) OH. ´Maipetik uxti´ esamoldeak norbait berandu etorri delako jan gabe uztea esan nahi du. Zaraitzun ´maipetik txuxtu´ dokumentatua.

mairu *(1)* : mairu */ mairuturria (1):* mairu iturria.

maisaran *(5)* : *(bot.)* basaran

maister *(1)* : maizter */ maisterra, maisterrea (1):* maizterra.

maistru *(3, 6)* : maisu */ ez da diszipulua obro ezik bere maistrua (3):* ez da ikaslea gehiago bere maisua baino. */ nola da, xen maistruak xaten baitu bekatariekin? (3):* nola da zuen maisuak jaten duela bekatariekin? */ maistrua (6):* maisua.

maisu *(5)* : maisu */ morroiner begiak estaltzen ziozkan maisuak (5):* mutilei begiak estaltzen zizkien maisuak. */ maisuakin faitan zen oilloaren [x]atra (5):* maisuarekin joaten zen oiloa jatera.

maita ekun *(4)* : nahi izan */ noiznaiden maita dein, kortik oil beztad direzionia (4):* nahi dezan edonoiz, hortik bidal biezat helbidea. OH. Gaztelaniazko ´querer´ aditzaren itzulpen literala dirudi.

maitagarrizko *(4)* : maitagarri */ maitagarrizko jeina (4):* jaun maitagarria.

maitatu *(3, 4)* : maitatu */ [konbitetan lein xaserlekiuak] maitatan tei (3):* gonbiteetan lehen eserlekuak maite dituzte. */ maitaten tzu ziauren biotz guziuaz (3):* zeure bihotz osoaz maitatuko duzu. */ maita ditzazei xen [etsaiak] (3):* maita itzazue zuen etsaiak. */ ona kemen zuk maitatu tzula egia (4):* hona hemen zuk egia maitatu duzula.

maite *(3, 4, 5)* : maite */ kaur da ene seme maitia (3):* hau da ene seme maitea. */ aur maitea, ene biotza lotsatan duk (4):* haur maitea, ene bihotza beldurtzen duk. */ yi enetako guziuetarik*

maitena [yaz] (5): hi niretzat haiz guztietan maiteena.

maite ekun *(3)* : maite izan */ maite ekun zazu zore projimua ziaur bikala (3):* maite izan ezazu zure lagun hurkoa zeu bezala. */ leina, jangeikua maite ekutia (3):* lehena, jaungoikoa maite izatea. */ jangeikua maite ekutian (3):* jaungoikoa maite izatean.

maite ekuntu *(5)* : maite izan OH. Azkuek ´maitekuntu´ dokumentatua.

maitetarzun *(4)* : maitasun */ zuketzaz manifestatan digu alkar digula maitetarzuna andiago, ezik gainaratekueki (4):* zuketaz adierazten dugu elkarri maitasun handiagoa diogula, gainerakoekin baino.

maixka *(5)* : *(zoo.)* zizare

maixtru *(3)* : maisu */ zer, ez dia pakatan xen maixtruak? (3):* zer, ez al du ordaintzen zuen maisuak?

maizkur *(5)* : *(suk.)* ogi ailis, otil (legamia gabekoa) */ maizkur[ra] (5):* ogi ailisa, otila. OH. Ikus euskara batuko ´otila´ren esanahia ´ogi hila´ izan litekeela.

maizter *(8, 11)* : maizter */ maizterra ezin kausi (8):* maizterra ezin aurkitu. */ maizterra (11):* maizterra.

majestade *(2)* : maiestate */ majestadiaren [amorioa] (2):* maiestatearen maitasuna. */ kala dagola zeuriko tronoan anitx majestadeki (2):* hala dagoela zeruko tronuan maiestate askorekin (handiarekin).

makila *(3, 4)* : makila */ etzazei eraman makila edo berze armarik xaurien defensatako (3):* ez ezazue eraman makila edo beste armarik zeuen defentsarako. */ ezpata eta makilarekin [armatruk] (3):* ezpata eta makilarekin armaturik. */ eztagola betik urrutxa makila egiteko (4):* ez dagoela beti hurritza makila egiteko.

makilakaldi *(4)* : makilaldi */ zarrek xei oro xurifikatan emon ztein makilakaldiz [mitil gaztiak] (4):* zaharrek jaiero jipoitzen omen zituzten makilaldiz mutil gazteak. */ [gizona] emonik baidago lanari, orobat nola astoa makilakaldier (4):* gizona lanari emanda baitago, astoa makilaldiei bezala.

makilastatu *(3)* : jipoitu, makilatu */ arrendatariek enprenditan zrelarik zerbutxarien kontra, makilastatu zein bat (3):* errentatzaileek zerbitzarien aurka ekiten ziotela, bat makilatu zuten.

makilla 1 *(11)* : makila

makilla 2 *(11)* : esku-makila

makina *(8)* : makina */ espartiñak xostan eskiaz, ez, makinaz (8):* espartinak josten eskuaz, ez, makinaz.

mako 1 *(5)* : makila */ irinen irolzkitako makoak ´gernea´ du izena (5):* irina bahetzeko makilak ´gernea´ du izena.

mako 2 *(5)* : artzain-makila

makur 1 *(1, 9, 11)* : oker */ alor makurra (1):* alor okerra. */ makurra (11):* okerra.

makur 2 *(9)* : makur

makur 3 *(5)* : oker, erratu (arrazoi gabea)

makurbide *(5)* : azpijoko, azpikeria

makurka *(5)* : zeiharka

makurtu *(5)* : nahasi, erratu, tronpatu

malardatz *(5)* : *(tek.)* malardatz OH. Bi hari batean txirikordatzeko tresna.

malda *(1)* : *(geog.)* malda */ Bagosa malda (1):* Bagosa malda.

maledikatu *(3)* : madarikatu */ gizonek ene[gatik] maledika zaizintzeinian (3):* gizonek niregatik

madarika zaituztetenean.

malima- *(10)* : baldin ba- */ ez malimazagon (10):* ez baldin bazegoen.

malkar *(5)* : lasto-hondar OH. Gesalatz, Goñerri, Ollaran, Izarbeibar, Oibarerri eta Zaraitzun ere dokumentatua.

malma *(5)* : *(bot.)* malba, ziguin

malmetitu *(5)* : gutxietsi, mespretxatu

malogu *(6)* : barren, mendel */ kota konen malogua (6):* gona honen mendela (barrena).

malpika *(2)* : *(heg.)* mika, sugetxori

malta 1 *(5)* : multzo; pila */ odoi malta bat (5):* hodei pila bat.

malta 2 *(5, 8)* : *(bot.)* mulu */ itzal on ekuteko, arrima adi malta andiari (5):* itzal ona edukitzeko, gertura hadi mulu handira. */ lotsa dionari malta guziuak zaizka otso (5):* beldurra duenari mulu guztiak zaizkio otso. */ mendiara, maltetra [eramaten nu] (8):* mendira, muluetara eramaten nau.

mallo *(7)* : poliki, emaro */ gaiaz [elten guzu] mallo ebiltan bagra (7):* gauez helduko gara poliki ibiltzen bagara. OH. Zaraitzun ´emallo´ dokumentatua.

mallo-mallo *(7, 10)* : poliki-poliki, emaro-emaro */ mallo-mallo erkinen da onki (7):* poliki-poliki ongi aterako da.

mallo-malloa *(10)* : poliki-poliki, emaro-emaro

mami *(5)* : mami (barne biguna, orokorrean)

mamoxo *(5)* : *(zoo.)* gurgurio

mamuka *(5)* : *(nek.)* txorimalo

mamul *(5)* : mami (haragiarena)

manatu *(2, 3, 4, 5, 7, 9)* : agindu */ elizak manetan tien egunak barur dezagula (2):* elizak agintzen dituen egunetan barau egin dezagula. */ Josek egin zion ainguriuak manatu zauna (3):* Josek egin zuen aingeruak agindu ziona. */ gunian manatu zaun gentiari xaser litian lurrian (3):* orduan jendeari agindu zion lurrean eser litezen. */ zerengatik manatu zion Moisesek emoitia libroxkua? (3):* zergatik agindu zuen Moisesek liburutxoa emateko? */ Arkelaok manatan ziola [entzutian], lotsatu zen (3):* Arkelaok agintzen ziola entzutean, beldurtu egin zen. */ zu bazra, mana daztazu fan nein zoregana (3):* zu bazara, agindu idazu zuregana joan nadin. */ manatu naun, manatu naizun, manatu nayan (4):* agindu nion, agindu nizun, agindu nian. */ emon balako karek manatu zauna, eitzen zion (4):* hark agindu ziona eman balio, utziko zuen. */ manatu diegu xitra (7):* etortzeko agindu dugu. */ nork manatan du etse kontan? (9):* nork agintzen du etxe honetan?

mandaberra *(5)* : xafla (oso zabala) OH. Hitzak ´mando-ferra´ osagaiak ditu.

mandamentu *(2, 3)* : *(erl.)* agindu, manamendu */ jeinaren legiaren amar mandamentu saintiak (2):* jaunaren legearen hamar agindu santuak. */ [elizaren zazpi] mandamentiak (2):* elizaren zazpi aginduak. */ amar mandamentuiak (2):* hamar aginduak. */ amar drade mandamentioak (2):* hamar dira manamenduak. */ mandamentu kuetarik bat (3):* agindu hauetako bat.

mandar 1 *(5, 9, 11)* : mantal, amantal */ mandarra (9, 11):* mantala, amantala.

mandar 2 *(8)* : alkandora, atorra

mandatzar *(5)* : *(zoo.)* mandotzar

mandazai *(5)* : mandazain

manddoko *(5)* : *(zoo.)* mandako

mandellu *(5)* : *(zoo.)* mandeuli

mando 1 *(2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : *(zoo.)* mando */ mando andi batian edo mandatzar batian (4):* mando handi batean edo mandatzar batean. */ mandoxko batian (4):* mandotxo batean. */ nontiknaiden xin dein, nik oilten daud mandua zainareki (4):* nonahitik etor dadin, nik mandoa bidaliko diot zainarekin. */ endezera kartan agitu zaitad mando baten erortea (5):* inguru hartan gertatu zait mando bat erortzea. */ mandoari eta astoari karga atziri (5):* mandoari eta astoari zama atzean. */ mando masto[a] (5):* mandarra. */ mandoño (6):* mandotxo. */ Uruñara iror mando [oiltu nian] (7):* Iruñera hiru mando bidali nituen. */ mandua (8):* mandoa. */ mandoa (9, 10):* mandoa. */ laur mando edo zazpi mando (10):* lau mando edo zazpi mando. */ mandueki ta astueki, etsera [eragutan da] egurra (10):* mandoekin eta astoekin, etxera ekartzen da egurra.

mando 2 *(5)* : *(med.)* erroitz (eskukoa, orpokoa)

mandoxko *(5)* : *(zoo.)* mandako

mandozaî *(4)* : mandazain */ orrek erraiten dion lekiuan orkiten zau mandozaîareki (4):* berorrek esaten duen lekuan itxarongo zaio mandazainarekin.

mantar *(5, 9, 10)* : alkandora (emakumezkoa) */ mantarra (9, 10):* emakumezko alkandora.

mantar-egal *(5)* : alkandora-hegal

mantar-soin *(5)* : alkandora-soin

mantarras *(5)* : alkandora-hutsik (emakumea)

mantaxko *(11)* : mantatxo

mantenatu *(3)* : mantendu */ [txezei] nola mantenatan tion [txoriak] xen aitak (3):* begira ezazue nola mantentzen dituen txoriak zuen aitak. */ zer xan erdeiteko kuidaduaz, mantenatako xen bizia (3):* zer jan aurkitzeko arduraz, zuen bizia mantentzeko. */ trabajatan dionak merexi du mantena dazabein (3):* lan egiten duenak merezi du manten dezaten.

mantenimentu *(3)* : mantenu */ emon dazkigula korpizeko konbeni den mantenimentiua (3):* eman diezagula gorputzerako komeni den mantenua.

mantio *(5)* : *(nek.)* mantio OH. Garia jo ondoren osorik geratu den galburua.

mantre *(3, 4, 5)* : izara, maindire */ Josefek, bada, Jesusen korpiza [artan ziolarik], ungrukatu zion mantre xaî batian (3):* Josefek, bada, Jesusen gorputza hartzen zuela, izara garbi batean bildu zuen. */ engoxan antze zaikugu llarne mantria sotoaren erdian (4):* goizean larraineko izara ukuiluan ahaztu zaigu.

mantxu *(5)* : besomotz, maingu

manu 1 *(5)* : botere, aginpide, esku

manu 2 *(5)* : mandatu, enkargu */ manu egitan tionak xatan tu gaiza onak (5):* enkarguak egiten dituenak jaten ditu gauza onak.

manu egin *(5)* : mandatu(ak) egin, enkargu(ak) egin */ manu egitan tionak xatan tu gaiza onak (5):* enkarguak egiten dituenak jaten ditu gauza onak.

manugogor *(5)* : esan txarreko, managaitz, desobeditzaile

manukor *(5)* : esaneko, obeditzaile

manukortu *(5)* : esaneko bihurtu

manyoko *(4)* : *(zoo.)* mandako OH. Bidankozen ´mandoxko´ eta ´manyoko´ dokumentatuak.

mañari *(9, 10)* : saguzar */ mañari bat, mañaria (9):* saguzar bat, saguzarra.

maño *(5)* : *(haur.)* mando

marabedi *(5)* : marabedi (antzinako txanpona) */ txirimiri, marabedi guziak niri! (5):* txirimiri, marabedi guztiak niri!

marabidi *(3)* : marabedi (antzinako txanpona) */ ezrela kantik erkinen azken marabidia*

paka´tzazun bitartio (3): ez zarela handik aterako azken marabedia ordain dezazun bitartean. */ bi txori saltan dra bi marabiditan (3):* bi txori saltzen dira bi marabedian.

maradikatu *(3)* : madarikatu */ figo-arbole bat [maradikatan du] (3):* pikondo bat madarikatzen du. */ [aita edo ama] maradika lezana izan deila kondenatruk iltra (3):* aita edo ama madarika lezana hiltzera kondenatua izan dadila.

maradizione *(2)* : madarikazio */ [kristiaia ezta] maradizionearen seme (2):* kristaua ez da madarikazioaren seme.

maratilla *(5)* : maratila

marda *(5)* : *(anat.)* sabel, tripa (handia)

marda-andi *(5)* : sabel-handi, tripa-handi (pertsona)

mardano *(4, 10)* : *(zoo.)* ahari, marro */ mardanoa (10):* aharia, marroa. OH. Artolak ´ahari aita´ oharrarekin dokumentatua.

mardo 1 *(5)* : mardul, sendo

mardo 2 *(5)* : bigun; leun

marfuka *(5)* : *(med.)* hotzeri, katarro

margin *(5, 11)* : ertz, bazter */ ugalteak erkin zren marginetarik (5):* ibaiak bazterretatik atera ziren. OH. Aznarezek ´bi eremuren arteko muga´ esanahiarekin dokumentatua.

margo *(9)* : *(bot.)* masusta */ margo biltan (9):* masustak biltzen, masustatan.

margu 1 *(2, 4, 5, 9)* : *(bot.)* marrubi */ margiuak xan drozkezu (4):* marrubiak jan ditzakezu. */ margu lili artean erleak naro ebiltan dra (5):* marrubi lore artean erleak sarri ibiltzen dira. */ margu biltra [noan] (9):* marrubiak biltzera noan, marrubitara noan.

margu 2 *(5, 8, 10)* : *(bot.)* masusta */ margu gorri[a] (5):* masusta gorria. */ nai duna xoan margu txerka? (10):* joan nahi al dun masusta bila? (= masustatara)

mari-mutilka *(5)* : *(lag.)* mari-mutil

mari-urdin *(5)* : mari-zikin (emakume daldaxa, zikina)

mari-zikin *(5)* : mari-zikin (emakume daldaxa, zikina)

maribarna 1 *(5)* : sabel-handi, tripa-handi (pertsona)

maribarna 2 *(10)* : *(suk.)* mondongo (odolki handia)

marmar *(5, 11)* : marmar */ marmarra (5):* marmara.

marmuka *(5)* : purrustada, marmar

marraka 1 *(3)* : oihu */ ezbaita izanen beizik marraka eta ortzen garraska (3):* ez baita izanen oihu eta hortzen karraska baizik. */ artz, otso, idi, ardi eta aintz, guzuen iragoari erraiten digu ´marraka´ (5):* hartz, otso, idi, ardi eta ahuntz, guztien oihuari esaten diogu ´marraka´. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

marraka 2 *(4, 9)* : hots, burrunba */ tenpra digu euritsi, badu bizpor egun ez dela ixiltan odei marraka (4):* eguraldia euritsu dugu, badira bizpahiru egun ez dela trumoi hotsa isiltzen. */ odeia marrakaz (9):* trumoia burrunbaka.

marraka 3 *(4)* : bee, marraka */ ardi saldoen marraka (4):* artaldeen marraka.

marraka 4 *(5)* : marru

marraka 5 *(4)* : ulu

marraka 6 *(5)* : arrantza (astoarena)

marraka 7 *(11)* : miau, marraka

marraka 8 *(5)* : *(med.)* korroka, gurgur, tripa-hots

marraka egin *(4)* : ulu egin */ otsoek marraka egitan dei Altobizkarrian (4):* otsoek ulu egiten

dute Astobizkarren.

marrakaz *(3)* : oihuka */ nexar eginen dei marrakaz (3):* negar eginen dute oihuka.

marro *(5, 7, 11)* : zomorro; intsektu */ marroak (7):* zomorroak; intsektuak.

marroskatu *(5, 6)* : igurtzi, marruskatu (eskuak)

marruskatu 1 *(5)* : eskukatu, eskuztatu

marruskatu 2 *(11)* : igurtzi

marrusket *(5)* : arrabota, marrusketa (arotzaren tresna)

martta *(2)* : *(zoo.)* lepahori

martxal *(5)* : *(zoo.)* txerri (urtebete baino gutxiagokoa)

martxo *(2, 4, 5, 7, 8)* : martxo, epail */ martxoan (4):* martxoan, epailean. */ Bidankoze, 1903ko martxoaren 15´na (4):* Bidankoze, 1903ko martxoaren 15.a. */ martxoan airea gorri, goizoro elur berri (5):* martxoan airea gorri, goizero elur berri. */ urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa eta martxo gaisoari egozten dabei kulpa (5):* urtarrilak jaten du gurina, otsailak jaten du haragia eta martxo gaixoari botatzen diote errua. */ nai dionak osagarri, lotsa ekun bear du martxoko iguzkiari (5):* osasuna nahi duenak beldur izan behar dio martxoko eguzkiari. */ martxua (6, 8):* martxoa.

martxogari *(5)* : *(nek.)* martxogari

marzuza 1 *(2)* : *(bot.)* masusta

marzuza 2 *(7, 8, 9)* : *(bot.)* marrubi */ marzuzak (7):* marrubiak. */ marzuzak anitx goxo daudezu (9):* marrubiak oso goxoak daude.

masanko *(5)* : matsalko, mahats-mordo

mastekatu *(4)* : mastekatu, mamurtu */ ñiski-ñaska arroitu egiten zion mastekatako tenpran (4):* ñiski-ñaska zarata egiten zuen mamurtzeko garaian.

mastellaka *(5)* : harilko (mota bat)

masto *(1, 2, 5, 8, 10)* : abere ar (zamaria, txerria eta) */ masto zarra (1):* abere ar zaharra. */ txerri masto[a], mando masto[a], eper masto[a] (5):* txerri arra, mandarra, eper arra. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

mastuzar *(11)* : mastozar (abere ar zaharra) */ mastuzarra (11):* mastozarra. OH. Izengoitia da.

mata *(5)* : malta

mataxaka *(5)* : harilko (mota bat)

material *(4)* : material */ lerrak du kaxaletik berze material bat (4):* pinuak azalean beste material bat du. */ lerrak du bi gisatako materiala (4):* pinuak bi gisatako materiala du. */ zurginek gastatan dei berze materialetan adornu isartako (4):* zurginek bertze materialetan gastatzen dute apaingarriak jartzeko.

matoi *(5, 10)* : esne gatzatu, esne mamitu */ biltan zeia matoi guzia (10):* esne mamitua biltzen zen.

matoî *(4)* : gaztanbera, zenbera */ matoîa erkiten dei xura batra (4):* gaztanbera zura batera ateratzen dute.

matraka *(5)* : zintzarrots

mats *(2, 3, 5, 10)* : *(bot.)* mahats */ biltan dreia ote mats arbole ñardunetarik? (3):* mahatsa biltzen ote dute zuhaixka lahardunetatik? */ ez duala edanen xa obro oraidanik mats fruitu kontarik (3):* ez dudala jada gehiago edango oraindanik mahats fruitu honetatik. */ kemen ez figoa eztare matsa, ez dra sasointan sekula (5):* hemen ez pikua ezta mahatsa ere, ez dira sekula sasoitzen. */ matsak (10):* mahatsak.

matsalko *(5)* : matsalko, mahats-mordo
matsanko *(5)* : matsalko, mahats-mordo
matto *(5, 7)* : musu, muin */ emo[n] matto bat! (7):* eman musu bat! */ emon nia[n] amari eta aitari matto bapanari (7):* aitari eta amari eman niean musu bakoitzari. OH. Azkuek ´eskuan emana´ oharrarekin dokumentatua. Estornesek orokorrean darabil.
matxar *(5)* : matxarda OH. Gaztainen morkotsak irekitzeko egurrezko matxarda.
matxarde *(5)* : *(nek.)* adar-euskarri OH. Adar makurtuei eusteko euskarria.
mau *(5)* : *(haur.)* lapurreta
mauka *(5)* : miauka
Maule *(7, 8)* : *(geog.)* Maule */ Maulen anitx onki [egon gintzian], entelegatan bigunien uskara (7):* Maulen oso ondo egon ginen, euskara ulertzen baikenuen. */ ni Sant´ Engrazian [izan nuzu] eta Maulen ere bai (8):* ni Santa Grazin izan naiz eta Maulen ere bai.
mauts *(5)* : *(bot.)* leka
maxal *(5)* : *(zoo.)* txerrikume (esnekoa)
maxaran *(2, 5)* : *(bot.)* basaran
maxel *(2, 3, 8)* : *(anat.)* masail */ maxela (2):* masaila. */ eskoîneko maxelan (3):* eskuineko masailean. */ maxela (8):* masaila.
maxela *(4, 7, 9)* : *(anat.)* masail */ maxela (9):* masaila.
maxelakaldika *(3)* : masailekoka, zartadaka
maxelakaldikatu *(3, 5)* : masailekoa eman, zartakoa eman */ maxelakaldikatan zein (3):* masailekoak ematen zizkioten.
maxkaro *(5)* : maxkaro OH. Begitik gertu orbanak dauzkan aberea.
maxkur *(5)* : *(suk.)* ogi kaskar (gaizki egina)
maxkuru *(5)* : baba, maskuilo (azalekoa)
mayatz *(2, 10)* : maiatz, lorail */ mayatzan xitan [dra] kona (10):* maiatzean etortzen dira hona.
mazapla *(5)* : besape-oihal OH. Jostunek besapean jartzen duten oihalkia.
mazkaratu *(5)* : kedartu, belztu
mazkaro *(5)* : kedartu (adj.)
mazte 1 *(5, 7, 10)* : emazte */ mazte ñoa beti gazte (5):* emazte txikia beti gazte. */ mazteak senarrari yiketz (7):* emazteak senarrari hika. */ keben egon den kori, maztia (10):* hemen egon den hori, emaztea
mazte 2 *(5, 7, 8, 10)* : emakume */ sua ta iror mazte (5):* sua eta hiru emakume. */ mazte xarrak gaixki erraitan (5):* emakume zaharrak gaizki esaka. */ eztun ez gizon ez mazte, zer da arren? (7):* ez dun ez gizona ez emakumea, zer da bada? */ mazte batek lepua ebaki ziozun (8):* emakume batek lepoa ebaki zuen (gizon batena). */ gero ez zezein nai sinetsi maztiak il ziela gizona (8):* gero ez zuten sinetsi emakumeak hil zuela gizona. */ egun goxan xin dun mazte bat (10):* gaur goizean emakume bat etorri dun.
maztegente *(5)* : emakume-jende (emakume taldea, emakumeak)
maztekari *(5)* : andrezale, gonazale
mazueka *(5)* : mahats (kalitate gorenekoa) OH. Zuberoan ´manzeinka´ dokumentatua.
mazura *(5)* : *(bot.)* marrubi
mazurka *(5)* : ume-txano (artilezkoa)
mazuza 1 *(5)* : *(bot.)* masusta
mazuza 2 *(10)* : *(bot.)* marrubi */ mazuza biltra (10):* marrubiak biltzera. */ mazuzak (10):*

marrubiak.

me *(4, 5, 8, 9)* : mehe */ gariak me eta enredatruk (4):* gariak mehe eta nahasirik. */ korpiz me bat edo mear bat (4):* gorputz mehe edo estu bat. */ apezak eginen du kaka me (5):* apaizak kaka mehea egingo du. */ bagoaren gisa da atze kau, baia ñoago ta me (5):* pagoa bezalakoa da zuhaitz hau, baina txikiagoa eta mehea. */ semeak (semiak) me [daude] (7):* semeak mehe daude. */ oino meago (8):* are meheagoa. */ ari mea (9):* hari mehea. */ meago [niozu] (9):* meheago nago.

meaka 1 *(2)* : *(anat.)* albo, mehaka

meaka 2 *(9)* : *(anat.)* aldaka */ meakako izurra (9):* aldaka(ko) hezurra.

meaka 3 *(1)* : *(geog.)* haitzarte, mehaka */ bazter meaka (1):* bazter(reko) haitzartea.

meako *(4)* : *(anat.)* mehaka, sarkutz

mealkatu *(5)* : albaindu, bastatu

mear *(3, 4, 5, 6, 9)* : estu, mehar */ o, zer mear da bidia eramaitan diona akaba ez deiteken biziara! (3):* o, zer estua den bidea, bukatu ezin den bizira daramana! */ korpiz me bat edo mear bat (4):* gorputz mehe edo estu bat. */ bide mearra (6, 9):* bide meharra.

meatx *(5)* : *(suk.)* haragi-opil; arrain-opil OH. Haragi nahiz arrain pixka batekin egindako opila.

meatxa *(5)* : lits

medratxu *(2)* : bederatzi */ medratxu ilabete kunplitu garaian sortu zela (2):* bederatzi hilabete bete zituen garaian sortu zela.

medrazu *(2)* : bederatzi */ medrazu eta amargarrenean (2):* bederatzi eta hamargarrenean. OH. ´Medraza´ dokumentatua, zalantzaz. Ikus ´Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Erronkariera´, 162. or.

mee 1 *(5)* : mehe, argal

mee 2 *(5)* : mehe (ez emankorra) */ [leku] mee[a] (5):* leku mehea, leku ez emankorra.

meego *(5)* : mehetasun, argaltasun

meeka *(1)* : estu, mehar */ Betzula meekako lepoa (1):* Betzula meharreko mendilepoa.

meki *(5)* : estu, larri (bizi)

melena *(11)* : belena OH. Etxe arteko igarolekua, kalexka.

melenge *(5)* : meleka, melenga (gozoegia) OH. Iparraldean ´melenga´ dokumentatua.

melon *(2)* : *(bot.)* meloi

men *(3)* : menpe, mende */ ez bainaz beizik gizon bat izaririk berzen meniara (3):* besteen mendean jarritako gizon bat baizik ez bainaiz.

menddere *(5)* : milika, milinga

mendekatu *(3)* : mendekatu */ mendekatako apetito bat (3):* mendekatzeko gogoa.

mendel *(5)* : hutsal (gauza)

mendemal *(5)* : mendebal

mendi *(1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : *(geog.)* mendi */ mendi beltza (1):* mendi beltza. */ Astiko mendia (1):* Astiko mendia. */ jeina kruzifika lezeila mendi Kalbarian (2):* jauna gurutziltza lezatela Kalbarioko mendian. */ Jesus mendi batra [igan zen] (3):* Jesus mendi batera igo zen. */ bere bazkaria zen mendiko ezti (3):* haren bazkaria mendiko eztia zen. */ ez dia eitzen laurogeita emeretziak mendietan? (3):* ez al ditu utziko laurogeita hemeretzi (ardi)ak mendietan? */ [Judean daudenak] ezkapa tiala mendietra (3):* Judean daudenek ihes egin dezatela mendietara. */ [elurrak] mendi lanak arrapatu daizkugu erdi eginik (4):* elurrak mendi lanak erdi eginik harrapatu dizkigu. */ Izaba mendiko mugan egon zren trabajatan (4):* Izaba

mendiko mugan egon ziren lanean. / *urrinarat dirdiratan dei suek mendien erdian (4):* urrunean suek dirdiratzen dute mendien erdian. / *menditik xin nintzen (4):* menditik etorri nintzen. / *mendi[e]k egiten deinean sonu, tenprak euri (5):* mendiek soinu egiten dutenean, eguraldiak euri. / *mendi batan (6):* mendi batean. / *mendiara [xoatan naz], menditik xitan naz (7):* mendira noa, menditik nator. / *mendi zagon, Igeldua (sic) ere ezauzen (8):* mendia zegoen, Igeldo ere ezagutzen. / *nora zoatza? mendiara (9):* nora zoaz? mendira. / *mendian altekan (9):* mendiaren ondoan. / *ots mendiara! (9):* goazen mendira! / *mendian lan egin, guzietarik (10):* mendian lan egin, denetik. / *arreseki mendian, mendi guzutik (10):* ardiekin mendian, mendi guztitik.

mendikari *(5)* : mendizale / *eperraren umea mendikari (5):* eperraren umea mendizale.

mendioillar *(5)* : *(heg.)* argi-oilar / *obro ezik ein mendioillar il ditu aurten jein batek gore idian (5):* ehun argi-oilar baino gehiago hil ditu aurten jaun batek gure herrian. / *txarra mendi-oillarraren gisako txoria da, baia ñoago (5):* eskilasoa argioilarraren gisako txoria da, baina txikiagoa.

menditar *(4)* : menditar / *menditarren irrintziriak zeuriaraino igaitan dra (4):* menditarren irrintziak zeruraino igotzen dira. OH. Campionen ´Orreaga´ argitalpenean ´montañesen irrintziriak´ dokumentatua.

menditxut *(5)* : mendizut OH. Aldapa handiko mendia.

mendiume *(5)* : basapiztia

mendiuso *(5)* : *(heg.)* pagauso

mendixko *(5)* : *(geog.)* muino

menean *(5)* : zorian / *atzemateko men-menean (5):* hartzeko zorian.

menpekotarzun *(5)* : menpekotasun

mens *(5)* : falta, gabezia

mente *(4, 5)* : bizialdi, gizaldi / *orai gunean il zitzaitadan ñore mentian adexkiderik andien ekun duana (4):* duela gutxi hil zait neure bizialdian eduki dudan adiskiderik handiena. / *ene mente guziuan kemen izaguntan da zûrezko trafik[u]a (4):* nire bizialdi osoan hemen zur trafikoa ezagutzen da. / *sorzaroko falta, bere menteko gatxa (5):* sortzaroko falta, bere bizialdiko gaitza.

mentu *(5)* : adimen, burubide

-mentu *(2, 3, 4, 5)* : -mendu / *mereximentien medioz (2):* merezimenduen bidez. / *mandamentu, parkamentu, pensamentu (2):* manamendu, barkamendu, pentsamendu. / *pensamentiua (3):* pentsamendua. / *mobimenturik ez (3):* mugimendurik ez. / *pensamentu (4):* pentsamendu. / *ezagumentu (5):* ezagumendu.

meresimentu *(2)* : merezimendu

merexi *(5)* : merezi / *karek bere merexia ekun dik (5):* hark bere merezia izan dik.

merexi izan *(2, 3, 5)* : merezi izan / *bekatu kuengati pena merexi tugunak parka dazkagun (2):* bekatu hauengatik merezi ditugun zigorrak barka diezazkigun. / *ez du merexi izan enia (3):* ez du merezi izan ene (maitasun)a. / *trabajatan dionak merexi du mantena dazabein (3):* lan egiten duenak merezi du manten dezaten. / *gore jeinaren promesak merexi tzagun (3):* gure jaunaren promesak merezi ditzagun. / *[sekulako bizia] merexi dokegu (3):* sekulako bizia merezi izan dezakegu. / *[zarrek] gazten ogia xatan baitei gaizki merexitruk (5):* zaharrek gazteen ogia jaten baitute gaizki merezirik.

merexidun *(3)* : merezidun / *iburniko suaren merezidun [izanen da] (3):* infernuko suaren merezidun izango da.

mereximentu *(2)* : merezimendu */ ez nore mereximentien medioz, baizi Kristo jeinaren mereximentien medioz (2):* ez neure merezimenduen bidez, baizik eta Kristo jaunaren merezimenduen bidez.

merexitarzun *(3)* : merezimendu */ obra on eginak bekatu mortalian daudenenganik ez baidra merexitarzun (3):* bekatu larrian daudenek eginiko ekintza onak ez baitira merezimendu.

merexitu *(3, 10)* : merezi izan */ nola merexitu gunien kori? (3):* nola merezi izan genuen hori? */ nornaidenek ar´tzan ojadiza bere anaxari, merexiten du juezak kondena dazan (3):* bere anaiari ezinikusia har diezaion edozeinek, epaileak kondena dezan merezi izango du. */ etsiak merexitan badu, xen bakia [xinen da] arengana (3):* etxeak merezi badu, zuen bakea etorriko da hartara. */ [ontarzu] merexitia (3):* ontasuna merezi izatea. */ gazte guziek ogia xatan bitei gaixki gaixki merexiturik (10):* gazte guztiek ogia jaten baitute gaizki merezita.

merexizale *(3)* : merezitzaile, merezient */ ni ez naz merexizale ori sar dein ene etsen (3):* ni ez naiz merezitzaile berori nire etxean sar dadin.

merezima *(5)* : *(med.)* enema

merezimentu *(5)* : merezimendu

merezina *(4, 5)* : medizina */ eskerrak botigako mereziner; kek sontotu nei (4):* eskerrak botikako medizinei; haiek sendatu naute. */ azken gatxik sontotako ez dago dotorerik ez merezinarik (5):* azken gaitzik sendatzeko ez dago sendagilerik ez medizinarik.

merkatari *(3, 5)* : merkatari

merkatu 1 *(4)* : azoka, merkatu */ kementik fan dra Nabaskozeko merkatiuara iror emazte (4):* hemendik joan dira Nabaskozeko merkatura hiru emakume.

merkatu 2 *(7)* : merketu

merke *(7, 11)* : merke */ merkeago? ogoi ta sei pesetako (7):* merkeagoa? hogeita sei pezetakoa.

mertxe *(6)* : mesede */ gore mertxez (6):* gure mesedez, gure alde.

mertxede 1 *(2, 3, 4, 5)* : mesede */ arenganik mertxede [artako] (2):* harengandik mesede jasotzeko. */ gero jeinari emon eskerrak mertxede kain anditaz (3):* gero jaunari eman eskerrak hain mesede handiengatik.

mertxede 2 *(4)* : berori */ ´mertxede´ da apezer errespeto andiago ekuteko, ezik berze gizoner (4):* ´berori´ da apezei errespetu handiagoa edukitzeko, beste gizonei baino. */ zer lan andi al den orren mertxediak daramana (4):* zer lan handia izan ahal den berorrek daramana.

mertxede egin *(4)* : mesede(a) egin */ mertxede kaur egin daiguk, yik guri egin nai onaren paku (4):* mesede hau egin diagu, hik guri egin nahi (higun) onaren ordain.

mertxedea(k) eskatu *(3, 4)* : mesedea(k) eskatu */ zer da otoi egitia? jangeikuari mertxediak eskatia (3):* zer da otoitz egitea? jainkoari mesedeak eskatzea. */ mertxede eskatu zitzauna egin balau (4):* eskatu zion mesedea egin balio.

mertxedez *(4, 7)* : mesedez, otoi */ mertxedez, erraiten daud, oil beztad direkzionia (4):* mesedez, esaten diot, bidal biezat helbidea.

mertzede *(5)* : berori */ zore mertzedearen ekustra (5):* berori ikustera.

mesta 1 *(5)* : bilera OH. Azkuek ´edozein bilera´ esanahiarekin dokumentatua. Ikus ´mesta 2´ sarrera.

mesta 2 *(5)* : *(hist.)* mesta */ Urzainkiko mestara urtean bi aldiz bustegi bageko ardiak eragutan tei (5):* Urzainkiko mestara urtean bi aldiz jabe gabeko ardiak ekartzen dituzte. OH. ´Mesta´ antzinako abeltzain elkarte bat zen.

meste *(10)* : beste, bertze

mestura *(5)* : *(suk.)* lekari, egoskari
meta *(5)* : *(nek.)* meta */ irazmeta (5):* iratze-meta.
metale *(5)* : *(nek.)* zintzarri (behiena)
metaledun *(5)* : zintzarridun, joaldun
metu *(7)* : mehetu
metxa *(5)* : metxa
meza *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : *(erl.)* meza */ meza entzutia igante oro (3):* meza entzutea igandero. */ xei anditako mezan (4):* jai handietako meza(ta)n. */ goxtre oroz mezara (5):* egunsentiro meza(ta)ra. */ meza [an]diara, bezperatra, arrosarioara (5):* meza nagusira, bezperetara, arrosariora. */ mezara xuan (6):* meza(ta)ra joan. */ bazkoen (bazkuen) xoanen gitun mezara (7):* pazkoan meza(ta)ra joanen gaitun. */ aurra beztitu diar [eta] mezara (8):* haurra jantzi diat eta meza(ta)ra. */ mezara xuaitan naz (8):* meza(ta)ra noa. */ banoan mezara (9):* banoan meza(ta)ra. */ gero arratsen ollar meza, mezara (10):* gero arratsean oilar meza, meza(ta)ra.
meza entzun *(2, 8, 9)* : meza entzun */ nork beigratan du [igantea]? zoin-naidionek entzun dezan meza (2):* nork zaintzen du igandea? meza entzuten duen edozeinek. */ igante xei oro meza entzun dezagula (2):* igande jaiero meza entzun dezagula. */ entzun dur meza (8):* meza entzun dut. */ meza entzun nia[n] (9):* meza entzun nian. */ neskatoak mitileki meza entzutra [juaitan gutzu] (9):* neskak mutilekin meza entzutera joaten gara.
meza erran *(4)* : meza esan, meza erran */ kemenko elizan [agitu zen], mezaren erraiteko tenpran (4):* hemengo elizan gertatu zen, meza esateko garaian.
mezu *(4, 5, 9)* : mezu */ eltan bada faitra Frantziara, mezu oil beztad (4):* heltzen bada Frantziara joatera, bidal biezat mezua. */ uste dud ez daitadala ukaten mezu gidatia (4):* uste dut ez didala ukatuko mezua bideratzea. */ oiltu diar mezu (9):* mezua bidali diat.
mezudun *(5)* : mezulari
mezuka *(5)* : mezuka
mi *(2, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* mihi */ [orazione bokala], miaz errezatan duguna (2):* ahozko otoitza, mihiaz errezatzen duguna. */ mi diona Erromara faiten da (5):* mihia duena Erromara joaten da. */ orak non mina kan mia (5):* txakurrak non mina han mihia. */ miaz egiten den mina da azken sontotan dena (5):* mihiaz egiten den mina da azken sendatzen dena. */ mia da ele erraitako (7):* mihia hitz egiteko da. */ mia gentu ziozun autik (8):* mihia kendu zuen ahotik. */ mia (9, 10):* mihia.
mî *(2, 4)* : *(anat.)* mihi */ mîa tokatan du (4):* mihia ukitzen du. */ ene mîak azkaten dizu zure justizia (4):* ene mihiak goratuko du zure justizia.
mi-xain *(5)* : mihi-garbi OH. Garbi edo libre hitz egiten duena.
mia ebili *(10)* : mihia erabili */ etse batra xoan eta kor egon lanareki eta mia ebil firme (10):* etxe batera joan eta hor egon lanarekin eta mihia erabili irmo.
miar *(1)* : estu, mehar */ ola miarra (1lm):* txabola estua.
miatu *(5)* : xaxatu, aizkatu (txakurrak eta)
miauka *(5)* : miauka
miazetu *(5)* : miazkatu, milikatu
mier *(1)* : estu, mehar */ olla mierra (1lm):* txabola estua.
mierdi *(5)* : hitz-motel, totel
mii 1 *(5)* : *(anat.)* mihi

mii 2 *(5)* : *(tek.)* mihi */ gilzmii[a] (5):* morroilo-mihia.
miiluze *(5)* : mihiluze
miise *(5)* : izara, maindire */ zer algar dren miise ta oi-oixal koriek! (5):* zer gardenak diren izara eta ohe-oihal horiek! */ iror miisetarik (5):* hiru motako izarak. OH. Iparraldean ´mihise´ dokumentatua.
miise-bazter *(5)* : oihal-bazter
Mikle *(3)* : Mikel */ ni konfesatan nuzu endone Mikle arkanguari (3):* ni aitortzen natzaio done Mikel goiaingeruari.
miko 1 *(5)* : *(med.)* erditze-sukar OH. Erditze ondoko sukarra.
miko 2 *(5)* : *(alb.)* satar, karbunko
mikor 1 *(5)* : pikor (txikia) */ zai mikor[ra] (5):* zahi pikorra (txikia). OH. ´Mikor = pikor (txikia)´ batez ere aleez ari garela erabilia da.
mikor 2 *(5)* : *(med.)* pikor (azalekoa)
mila *(7)* : mila */ lurretik goikoaraino irorein eta larogeita borz mila kilometro dago (7):* lurretik ilargiraino hiruehun eta laurogeita bost mila kilometro dago. */ ein mila (7):* ehun mila.
milina *(5)* : kikil, lotsati
militu *(5)* : blaitu
miluz *(8)* : berritsu, mihiluze
milla *(3, 4, 7, 10)* : mila */ kargatruk milla urratsez (3):* mila urratsez (urratsetan) kargaturik. */ berze bi milla (3):* beste bi mila. */ laur milla gizon, borz milla, amar milla (3):* lau mila gizon, bost mila, hamar mila. */ ogeita bi milla (4):* hogeita bi mila. */ milla peseta (7):* mila pezeta.
milla karga *(4)* : mordo bat, asko eta asko */ [emon] milla karga goraintzi (4):* eman goraintzi mordo bat.
millaka *(4)* : milaka */ koralezko materialak iraintan du millaka urtiak (4):* enbor-muinezko materialak milaka urtez irauten du.
milloi *(7)* : milioi */ iror milloi (7):* hiru milioi.
mimen *(5)* : zume
mimenar *(5)* : zume latz OH. Azkuek ´zume latza eta hauskorra´ esanahiarekin dokumentatua. ´Bilbon Mimenarreta izeneko lekua dago´ oharra gehiturik.
mimi *(5, 11)* : *(haur.)* pupa, mimi
min 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : min */ zernaiden gisatako min eta gatxak [sontotako] (3):* edozer gisatako min eta gaitzak sendatzeko. */ tripa mina (4):* tripako mina. */ ni osagarriz beterik [nago], eztud ñontik minik sendi (4):* ni osasunez beterik nago, ez dut inondik minik sentitzen. */ minik bage [il zen] (4):* minik gabe hil zen. */ miaz egiten den mina da azken sontotan dena (5):* mihiaz egiten den mina da azken sendatzen dena. */ kori orai eribeila da, baia andigoan etzion deus minik ekun (5):* hori orain eribera da, baina helduaroan ez zuen deus minik eduki. */ mina, min zurria (7):* mina, min bizia. */ non sentan (sic) tzu mina? (7):* non sentitzen duzu mina? */ gizon bat juan zunien begi baten sendotra, min bizien begian (8):* gizon bat begi bat sendatzera joan zen, min baitzuen begian. */ [aizpari] eri batan min erkin, eta eskia moztu (10):* ahizpari hatz batean min atera, eta eskua moztu (zioten). */ aginmin, burumin, tripamin (10):* haginetako mina, buruko mina, tripako mina.
min 2 *(5)* : min, mingots */ ezneak erran zaun ardaûari ´nik bear bayaid testatu, ez duk izan bear ez min eta ez t[u]statu´ (5):* esneak esan zion ardoari ´nik dastatu behar bahaut, ez duk izan behar ez min eta ez ustel´.

min 3 *(5)* : behazun, gibelmin */ urzo[e]k eztei minik (5):* usoek ez dute gibelminik.
min 4 *(5)* : min, kuttun */ adixkide min[a] (5):* adiskide mina.
min 5 *(5)* : min */ negu min[a] (5):* negu mina.
min artu *(4)* : min hartu */ min artu zionaz gero, [eztud ekun orren kartarik] (4):* min hartu zuen ezkero, ez dut eduki berorren gutunik.
min egin *(5)* : min egin */ min egiteko mia eta eskopeta txiki eramaiten dra (5):* min egiteko mihiak eta eskopetak ez dute alde handirik.
min emon *(5)* : min eman */ min emoiten daian agina arranka zak (5):* min ematen dian hagina atera ezak.
min-ori *(5)* : *(med.)* min hori, ikterizia
minbizi *(5)* : *(med.)* minbizi
minduru *(5)* : mingostasun, samintasun
mingor *(5)* : garratz, mingots
mingortu *(5)* : garraztu, mindu
mingotx *(2, 4)* : *(bot.)* mingarratz
minki *(5)* : garrazki, mingoski
minkor *(5)* : minbera (pertsona)
mino *(10)* : baino */ [anitx xoaitan] ikusi dur, ni mino gaztiago (10):* anitz joaten ikusi ditut, ni baino gazteagoak. */ bazakin bai, nik mino obeki (10):* bazekien bai, nik baino hobeki.
minondoko *(5)* : *(anat.)* mihipeko, mihi-hari
minontzi *(5)* : minontzi (oso gaixobera)
mintto *(8)* : pitin, amiñi */ mintto bat edanik (8):* pitin bat edanda.
mintu 1 *(5)* : mindu (norbera)
mintu 2 *(5)* : mindu (esnea)
mintu 3 *(7)* : min egin */ mintan dua (dia)? (7):* min egiten al du? */ mintan du, eztu mintan (7):* min egiten du, ez du min(ik) egiten. */ minten du (7):* min egingo du.
mintu 4 *(5)* : erre (landareek) */ asunbeltzak eztu larriua mintan (5):* asunbeltzak ez du larrua erretzen.
mintx 1 *(5)* : zipitz, tut
mintx 2 *(5)* : irrika
mintxar *(11)* : *(zoo.)* muxar */ mintxarra (11):* muxarra.
mintz *(5, 11)* : mintz (arrautzena, tipulena) */ arraultzeak gorringoa, zuringoa ta mintza dauzki (5):* arrautzak gorringoa, zuringoa eta mintza dauzka. */ minza (11):* mintza.
mintzamolde 1 *(3, 4, 5)* : mintzamolde */ xen mintzamoldia (3):* zuen mintzamoldea. */ Galileako zore mintzamolde berak deskubritan baiztu (3):* Galileako zure mintzamoldeak berak salatzen baitzaitu. */ gore uskararen mintza moldia (4):* gure euskararen mintzamoldea.
mintzamolde 2 *(5)* : esamolde OH. Azkuek ´normalean zentzu txarrean´ oharrarekin dokumentatua.
mintzatu *(2, 3, 4)* : mintzatu */ [gore jeinareki] mintzetan grelarik (2):* gure jaunarekin mintzatzen garela. */ [xengatik edo xen lekiuan] mintzatan da (3):* zuengatik edo zuen lekuan mintzatzen da. */ norekin mintzatan zra? (3):* norekin mintzatzen zara? */ ele erran zion edo mintzatu zen mutiua (3):* hitz egin zuen edo mintzatu zen mutua. */ gunian fariseuetarik zomait mintzatu zitzazkabein (3):* orduan fariseuetako zenbait mintzatu zitzaizkien. */ gunian entelegatu zein mintzatu zaizkiola Juan bautistaz (3):* orduan ulertu zuten Juan bataiatzaileaz mintzatu

zitzaiela. */ kuek fan baikoz, asi zen Jesus mintzatan Juantaz (3):* hauek joan eta berehala, Jesus Juanez mintzatzen hasi zen. */ [parabolen medioz] mintzatu zen anitx gaizataz (3):* parabolen medioz mintzatu zen anitz gauzaz. */ iriken dur ñore aua, mintzatako parabolekin (3):* neure ahoa irekiko dut, parabolaz mintzatzeko. */ itz batez mintzatan grela (4):* hitz batez mintzatzen garela. */ alaba eta ni alkar mintzaten gra uskaraz (4):* alaba eta ni elkarrekin mintzatuko gara euskaraz.

mintzerdi *(5)* : hitz erdi

mintzi *(5)* : mintz (arrautzena, tipulena)

mintzo *(3, 4, 5)* : mintzo; ahots */ [kola] kunplitu zen jeinak erran ziona profetaren mintzoz (3):* horrela bete zen jaunak profetaren mintzoz erran zuena. */ mintzuak [entzun zren], mintzua erraiten (3):* mintzoak entzun ziren, mintzoa erraten. */ ñork ere ez du entzunen aren mintzua (3):* inork ere ez du entzunen haren mintzoa. */ mintzo andi eta oxen batekin (3):* ahots handi eta ozen batekin. */ kari ezau mintzorik entzun (4):* hari ez zaio mintzorik entzun. */ mintzo bat aditu dut (5):* ahots bat aditu dut. */ mintzoa (6):* mintzoa.

mintzo izan *(2)* : mintzo izan */ noreki mintzo gra? (2):* norekin mintzo gara?

minxko *(5)* : minontzi (gaixobera)

minzatu *(5)* : hitz egin, mintzatu

minzko *(5)* : gaixobera

minzo *(5)* : mintzo, mintzamen */ minzoa badu (5):* mintzo da.

miñiña *(5)* : *(haur.)* katu

miño *(5)* : *(haur.)* katu

mipeko *(5)* : *(anat.)* mihipeko, mihi-hari */ zer mixain du korrek! onki gentu zabein, bai, mipekoa (5):* zer mihi arina duen horrek! ongi kendu zioten, bai, mihipekoa.

mira egin *(3, 5)* : begiratu */ mira egitan zaularik, erran zaun (3):* begiratzen ziola, esan zion. */ lotsa dionari ezau mira egiten atziri (5):* beldurra duenari ez zaio atzera begiratzen.

mirall *(7)* : domina */ apezak emon zia[n] mazter mirall bana (7):* apaizak emakumeei domina bana eman zien.

miratu *(5, 8)* : miatu, aztertu */ miratu dur (5):* miatu dut. */ xuan litiala miratra gizon ari aua (8):* gizon hari ahoa miatzera joan litezela.

miraz *(5)* : begira

mirllakatu *(5)* : milikatu (ezpainak) OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

miru egin *(2)* : begiratu */ [altareko] kari miru egitan dugularik, zeurikoaz guar gitian (2):* aldareko hari begiratzen diogunean, zerukoaz ohar gaitezen.

mis-mis-mis *(11)* : mix-mix-mix (katuari deitzeko)

mise *(2, 5, 10)* : izara, mihise */ [Kristo] bere ama saintiak mortajatu zien mise berri batan (2):* Kristo haren ama santuak hil-jantzi zuen mihise berri batean. */ miseak, misiak (10):* izarak.

misegain *(10)* : izara (gainekoa) */ misegaina (10):* gaineko izara.

misepe *(10)* : izara (azpikoa) */ misepea (10):* azpiko izara.

misterio *(2, 3)* : misterio */ zer misterio dago krutxe saintian? (2):* zer misterio dago gurutze santuan? */ zoin azionetan dago Trinitate saintuko misterioa? (2):* zein ekintzatan dago Hirutasun santuko misterioa? */ kredoan daudian misterioak (2):* kredoan dauden misterioak. */ zeuriko misteriuak (3):* zeruko misterioak.

misto *(10)* : pospolo */ arek zebatu dien misto bat (10):* hark pospolo bat piztu din.

mitil 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : mutil */ Jesusek sontotan du eintariaren mitil zerbutxaria (3):*

Jesusek ehuntariaren mutil zerbitzaria sendatzen du. */ noizko eginen zion [lana] mitil andi karek? (4):* noizko eginen zuen lana mutil handi hark? */ kemenko mitilek egiten emon zein bi kuadrilla (4):* hemengo mutilek bi laguntalde egiten omen zituzten. */ Karlosen gerran, karlisten deitu zteinian mitilak (4):* Karlosen gerran, karlistetarako mutilak deitu zituztenean. */ mitil gazte kuengatik (5):* mutil gazte hauengatik. */ karrika gaintik guatza mitilak musikareki (5):* kalea gaindi goaz mutilak musikarekin. */ mitila (6):* mutila. */ ni enaz gizon, mitil naz (7):* ni ez naiz gizona, mutila naiz. */ mitila sartu da (7):* mutila sartu da. */ mitilak egin dutu (7):* mutilak egin ditu. */ kori neskatua eta ni mitila (8):* hori neska eta ni mutila. */ gore mitila (8):* gure mutila. */ neskatoak mitileki meza entzutra [juaitan gutzu] (9):* neskak mutilekin meza entzutera joaten gara. */ noreki [dantzatu dra]? mitileki (9):* norekin dantzatu dira? mutilekin. */ mitilak eta neskattuak (10):* mutilak eta neskatoak. */ mitilak sartan zria etse guzietan (10):* mutilak etxe guztietan sartzen ziren. OH. Artolak ´mutil ezkongaia ere izan daiteke´ oharrarekin dokumentatua.

mitil 2 *(3, 5, 7, 8, 9, 10)* : morroi */ etseko nausiaren mitilak edo zerbutxariak (3):* etxeko nagusiaren morroiak edo zerbitzariak. */ [errege bat], zoinek nai ekun baizion kontiuak artu bere zerbutxari mitiler (3):* errege bat, zeinek bere zerbitzari morroiei kontuak hartu nahi izan baitzizkien. */ amaboska saria emoitan zau gore mitilari (5):* hamaboska saria (ordaina) ematen zaio gure morroiari. */ nik eztur egin etxea, mitilek egin dei (7):* nik ez dut egin etxea, morroiek egin dute. */ ura´re mitil (8):* hura ere morroi.

mitil 3 *(7)* : zerbitzari */ mitilari deitako toka zak izkilanttoa (7):* zerbitzariari deitzeko jo ezak kanpaitxoa.

mitra *(5)* : kapusai

mitxa *(5)* : metxa

mix-mix-mix *(11)* : mix-mix-mix (katuari deitzeko)

mixain *(5)* : mihi arin */ zer mixain du korrek! onki gentu zabein, bai, mipekoa (5):* zer mihi arina duen horrek! ongi kendu zioten, bai, mihipekoa.

mixe *(7)* : izara, mihise */ kor tzu oia, mixiak zuri ta xai [dra] (7):* hor duzu ohea, izarak zuriak eta garbiak dira.

miz-miz-miz *(5)* : mix-mix-mix (katuari deitzeko)

mizabal *(5)* : zizipaza (pertsona)

mizorro *(5)* : *(anat.)* mihipeko, mihi-hari

mizpera *(5)* : *(bot.)* mizpira

mobiarazi *(3)* : mugiarazi */ egiaz batixatan [ztied] urekin, [penitenziara] mobiaraztako (3):* egiaz bataiatzen zaituztet urarekin, penitentziara mugiarazteko. */ berek nai ez deinian eztare arrimatu eri punta mobiaraztako (3):* eurek hatz punta ere hurbildu nahi ez dutenean mugiarazteko.

mobimentu *(3)* : mugimendu */ irarik ez deinek eta ez ere ullan iraren mobimenturik (3):* amorrurik ez dutenak eta ia amorruaren mugimendurik ere ez.

mobitu *(2, 3, 4, 7, 10)* : mugitu */ ballenak eta uretan mobitan dren guziak (2):* baleak eta uretan mugitzen diren guztiak. */ xek ezintzein mobitu penitenzia egitra (3):* zuek ez zineten mugitu penitentzia egitera. */ [gore borontatiak] mobitan baitu (3):* gure borondateak mugitzen baititu. */ [nausia] mobitruk (3):* nagusia mugiturik. */ Iratiko usiaren ostoak airiareki mobitan baidra (4):* Iratiko basoko hostoak haizearekin mugitzen baitira. */ ez ditun ostoak mobitan, bero egitan bitu (7):* ez ditun hostoak mugitzen, bero egiten baitu. */ zankoak mobitan (10):* hankak

mugitzen. */ ezin mobi oitik azkatako (10):* ezin mugitu ohetik jaikitzeko.

moite *(5)* : maitasun

moite ekun *(3, 5, 7)* : maite izan */ jangeikua moite ekutia (3):* jaungoikoa maite izatea. */ [ama] moite ekutako (3):* ama maite izateko. */ nork moite du jangeikua? (3):* nork maite du jaungoikoa? */ aur kori aita-karats da ta beste kura ama-karats; ez ditei moite (5):* haur hori aitak arbuiatua da eta beste hura amak arbuiatua; ez dituzte maite. */ nik anitx moite dur ene ama (7):* nik anitz maite dut ene ama. */ zuk moite nuzua? moite ztur (7):* zuk maite al nauzu? maite zaitut. */ anitx moite gindezun alkar guzuak (7):* anitz maite genuen elkar guztiok.

moite izan *(5)* : maite izan

moitego *(3, 5)* : maitasun */ doloria sortan baita jangeikuari moitegua digunetik (3):* mina sortzen baita jainkoari diogun maitasunetik.

moixle *(5, 9)* : moztaile */ arres-moixle bat (9):* ardi-moztaile bat.

moixzale *(9)* : moztaile */ ardi-moixzale[a] (9):* ardi-moztailea.

moiztu *(5)* : inausi

moko-begian *(5)* : iraizteko zorian (arrautzak nahiz kaka)

mokor *(5)* : bildu, uzkur (zuhaitza) OH. Azkuek ´zuhaitz ia biribilean bildua, uzkurra´ esanahiarekin dokumentatua.

mokor-mokor *(4)* : erabat, guztiz */ ordi mokor-mokorra dago (4):* erabat mozkor dago. */ otzak lotsatruk egonaz mokor-mokorrak beroki batian (4):* hotzak erabat beldurturik egonez beroki batean.

mokordo 1 *(4)* : mokordo OH. Mendigatxak ´kaka motza eta gogorra´ oharrarekin dokumentatua.

mokordo 2 *(4)* : mokordo (adj.) */ [gizon kori] mokordo bat da, kupa-tapoîn bat (4):* gizon hori mokordo bat da, upel-tapoi bat. OH. Mendigatxak ´pertsona txikia, motza´ oharrarekin dokumentatua.

mokorkatu *(3, 4, 5, 11)* : pilatu, metatu, bildu */ agitan dena da faiten drela biltan edo mokorkatan karga pezatiuak (3):* gertatzen dena da zama astunak pilatuz joaten direla. */ biltu edo mokorkatu, olluak mokorkatan tion bikala bere txitxaxkuak magalen pean (3):* bildu edo pilatu, oiloak bere txitatxoak hegalen pean biltzen dituen bezala. */ ardiak ñor bage axuria mokorkatu du (4):* ardiak inor gabe arkumea bildu du (mendian erditzean).

mokortu 1 *(5)* : kikildu

mokortu 2 *(5)* : lodikote, potolo

molde *(3)* : molde, modu, era */ mintzamolde, izan-molde (3):* mintzamolde, izaera.

moldedun *(5)* : trebe

moldegabe *(5)* : baldar

moldegaizki *(5)* : baldarki

moldegatx *(5)* : baldar

molkoka *(5)* : multzoka */ [baratxuri-belarra] molkoka, errosarioa bikala, aztan da (5):* aski-motza multzoka, arrosarioa bezala, hazten da.

molu *(5)* : *(bot.)* mihilu

molumentu *(3)* : monumentu */ molumentiuak (3):* monumentuak.

mollko *(5)* : gandor (argi-oilarrena)

momo 1 *(5)* : *(haur.)* zorri

momo 2 *(5)* : *(haur.)* arkakuso

momoxo *(5)* : *(zoo.)* gurgurio OH. Laboreetako zomorro kaltegarria.

mondo *(10)* : pila, mordo */ karroi mondo-mondoa (10):* izotz mordoa.
montoi *(8)* : pila, mordo */ plaztan neskato montoi [bat] (8):* plazan neska pila bat (egoten da). OH. Zaraitzun ´montio´ dokumentatua.
montoin *(4)* : pila, mordo
montoinzka *(4)* : pilaka, mordoka */ Erribratik iganik daude salduak montoinzka (4):* Erriberatik igota daude artaldeak pilaka.
montoñ *(1)* : pila, mordo */ arri montoña (1):* harri pila. OH. Zaraitzun ´montio´ dokumentatua.
montxtu *(4)* : moztu */ ene errenak ezion ikasi nai biloaren montxtan (4):* nire errainak ez zuen ikasi nahi ilea mozten.
mordoska *(5)* : taldetxo, saldotxo (abereena)
mormo *(5)* : *(alb.)* mukieri
morrale *(5)* : muturreko
morraña *(2)* : *(bot.)* borraja
morro *(5)* : mutil nerabe
morroi 1 *(5, 7, 8, 10)* : mutiko */ morroiek laster [egiten dei] (5):* mutikoek korrika egiten dute. */ morroi[e]k egitan tei lanak maestroari arau (5):* mutikoek maisuaren arabera egiten dituzte lanak. */ morroiak errege bezpran [akartan zrela] (7):* mutikoak errege bezperan haserretzen zirela. */ morroi eta nexkaxik xoan tun (7):* mutikoak eta neskatxak joan ditun. */ gizonak, morroiak eta guziak (8):* gizonak, mutikoak eta guztiak. */ morroi ñotto bat (8):* mutiko txiki bat. */ morroi banak (10):* mutiko batzuk. */ morroiek bar zizein [sagarra] artu auareki (10):* mutikoek behar zuten sagarra hartu ahoarekin. OH. Azkuek ´mutikoa, hamabost urte arte´ esanahiarekin dokumentatua. Eta ´Batzuek ´morroin´ diote´ informazioa gehiturik.
morroi 2 *(8)* : mutil */ aurten morroi bat izan da apez (8):* aurten mutil bat izan da apaiza.
morroî 1 *(4, 5)* : mutiko */ oraiko morroîtarik berze tenpra batez ezta faltaren gizon asto (4):* oraingo mutikoen artetik bertze denboraldi batez ez da faltako gizon astorik. OH. Azkuek ´mutikoa, hamabost urte arte´ oharrarekin dokumentatua.
morroî 2 *(4)* : mutil */ berze morroîak erkiten du berze zedula bat eta emoiten dau alkateri (4):* beste mutilak beste zedula bat ateratzen du eta alkateari ematen dio.
morroin 1 *(2, 4, 5)* : mutiko */ ´axolabage´ da morroin gaxki azi bat (4):* ´axolagabe´ mutiko gaizki hazia da. OH. Azkuek ´mutikoa, hamabost urte arte´ oharrarekin dokumentatua.
morroin 2 *(5)* : mutil */ morroin zumaila (5):* mutil zaila (zaildua). */ morroiner begiak estaltzen ziozkan maisuak (5):* mutilei begiak estaltzen zizkien maisuak. */ nerabe-gentea edo morroiñak eta neskaxeak (5):* gazte jendea edo mutilak eta neskak.
morroin 3 *(5)* : gizonezko
morroixko *(8)* : mutikotxo */ morroixko bat (8):* mutikotxo bat.
morroizko *(5)* : mutiltxo
morrosko *(11)* : morrosko OH. Ikus ´morro´ sarrera.
mortairu *(5)* : motrailu, almeriz
mosarre *(5)* : *(min.)* arbel */ mosarrea arri beltza da ta txastauen egiteko ta aiztoen zorroztako ebiltan dugu (5):* arbela harri beltza da eta garbiketak egiteko eta aiztoak zorrozteko erabiltzen dugu.
mosarre-arri *(5)* : *(min.)* arbel
mosarri *(5)* : *(jos.)* jolas-harri */ bi eriren artetik igari bear zren exurkoak eta mosarri bat azkatan zen gora (5):* bi hatzen artetik igaro behar ziren tortolosak eta jolas-harri bat goratzen zen gora.

OH. ´Tortolosatan´ jokoan erabilitako harriak, adibidez. Ikus ´moxarri´ sarrera.

mosta *(5)* : artalde (txikia) OH. Azkuek ´100 edo 200 ardiko artaldetxoa´ esanahiarekin dokumentatua.

mostaxko *(5)* : artalde (txikitxoa)

motel 1 *(5)* : motel (soinua)

motel 2 *(4)* : totel, hitz-motel

moteldu *(5)* : moteldu (soinua) OH. Azkuek ´kanpai baten soinua´ oharrarekin dokumentatua.

motto *(5)* : motots, gandor

motx *(11)* : motx (txikigarria) */ motxa (11):* motxa (adarrik gabeko ahuntza).

motxgu *(4, 5)* : ile-mozte, motzaldi (ardiena) */ motxgiuaz eztakid zer erran, abriak motxtan dra laur aldiz urtian (4):* ile-mozteaz ez dakit zer esan, abereak urtean lau aldiz mozten dira.

motxtu *(4)* : moztu (ilea ardiei) */ motxgiuaz eztakid zer erran, abriak motxtan dra laur aldiz urtian (4):* ile-mozteaz ez dakit zer esan, abereak urtean lau aldiz mozten dira. */ bortuko ardiak San Pedroez gero [motxtan dra] (4):* bortuko ardiei San Pedro ezkero mozten zaie ilea.

moxarri *(5)* : *(jos.)* puxtarri, kanika OH. Azkuek ´neskek jolasteko harritxoak´ eta ´arriskoak mutikoenak dira´ oharrekin dokumentatua. Bestetik, ´mosarri´ ere dokumentatua.

moxkor *(8)* : mozkor, hordi */ gaxua, moxkorra [ziezun] (8):* gaixoa, mozkorra zegoen.

moxkortu *(5)* : mozkortu, horditu

moxtu *(5)* : moztu (ilea ardiei) */ ardi moxtuak ilea xuri (5):* ardi moztuak artilea zuri.

mozkairu *(1)* : mozkairu */ mozkairua (1):* mozkairua. OH. ´Mozkairua´ ganaduak loalditxoa egiteko zuhaizpea da.

mozki *(5)* : zakarki, zakartasunez (?)

mozkin *(5)* : mozkin OH. Moztutako zuhaitzaren mozkinak.

mozkor *(11)* : mozkor, mozkorraldi */ mozkorra (11):* mozkorra, mozkorraldia.

mozkorratu *(10)* : mozkortu, horditu */ mozkorratu dun, mozkorratan dun (10):* mozkortu dun, mozkortzen dun.

mozkorro 1 *(5)* : buru hutsik (txapelik gabe)

mozkorro 2 *(5)* : ilea moztuta (zeharo)

mozorro *(5)* : mamu

moztu *(10)* : moztu */ [aizpari] eri batan min erkin, eta eskia moztu (10):* ahizpari hatz batean min atera, eta eskua moztu (zioten).

mu 1 *(5)* : *(haur.)* behi

mu 2 *(5)* : *(haur.)* idi

muermo *(5)* : *(alb.)* mukieri

muga *(1, 4, 7, 8, 11)* : muga */ muga ederra, muga zarra (1):* muga ederra, muga zaharra. */ Izaba mendiko mugan egon zren trabajatan (4):* Izaba mendiko mugan egon ziren lanean. */ mugaren beste altekuak [d]itun gu gisa uskaldunak (7):* mugaren beste aldekoak gu bezala euskaldunak ditun. */ mugan kasik (8):* ia mugan. */ bi oren bide dizu Sant´ Engraziara mugatik (8):* bi orduko bidea duzu Santa Graziara mugatik.

mugailla *(5)* : *(erai.)* murru, horma

mugakin *(5)* : mugakide */ mugakin gra xuberotarrekin (5):* mugakide gara zuberotarrekin.

mugante *(3)* : mugakide */ Kafarnaun itxasoko ziudade, Zabulonen mugante edo altakan (3):* Kafarnaun itsasoko hiri Zabulonen mugakide edo alboan.

mugarri *(1)* : mugarri */ mugarria (1lm):* mugarria.

mugatar *(5)* : mugako (biztanlea)
mugurdi *(5, 11)* : *(bot.)* mugurdi
mugurri 1 *(10)* : *(bot.)* mugurdi
mugurri 2 *(5, 10)* : *(bot.)* mugurri */ ozekiatan gunia lurra [eta] mugurriak erkitan zria gainiara (10):* lurrean aztarrika egiten genuen eta mugurriak gainera ateratzen ziren.
muka *(5)* : muka, ilaun OH. Kandela nahiz metxaren zati errea.
mukatu *(5)* : mukatu, muka kendu (kandelari)
mukita *(5)* : muka, ilaun OH. Kandela nahiz metxaren zati errea.
mukueri *(5)* : *(med.)* mukieri
mukultu *(5)* : mukurutu
mukulu 1 *(4, 5)* : pilatxo, mordotxo; bolatxo */ edein lu-mukulu kori (9):* emadan liho-pilatxo hori.
mukulu 2 *(5)* : zati
mukulu 3 *(5)* : koskor
mukuluka *(5)* : multzoka (multzo handitan)
mukuluxko *(5)* : *(geog.)* muino, mendixka
mukullu *(5)* : koskor; pilatxo */ [olomoloak] a[z]ia anixko ta mukullu-mukullu du (5):* olo gaiztoak hazia askotxo eta pilatxotan du.
mulitu *(5)* : blaitu
mulu-mulu *(5)* : zurrumurru, esames
mullo *(5)* : *(bot.)* mirubelar
mullu *(2)* : *(bot.)* mirubelar
mundu *(2, 3, 4, 5, 10)* : mundu */ mundu kontako gaizak (2):* mundu honetako gauzak. */ mundia, demonioa eta aragia (2):* mundua, deabrua eta haragia. */ mundiaren [ona] (2):* munduaren ona. */ gero berze mundian ekus eta goza dezan (2):* gero beste munduan ikus eta goza dezan. */ erraiten du ez digula ontarzun xuntatu biar mundu kontako (3):* erraten du ez dugula ondasunik elkartu behar mundu honetarako. */ xek zrei mundiuaren argia (3):* zuek munduaren argia zarete. */ ez deiteke zerbutxa jangeikuari eta mundiuari (3):* ez daiteke zerbitza jaungoikoari eta munduari. */ mundu guzutik fanen naz orreki (4):* mundu osotik joanen naiz berorrekin. */ mundiuak [ekus tzan] (4):* munduak ikus dezan. */ kontu bil, mundu guzutik barriatako (5):* kontuak bildu, mundu osotik barreiatzeko. */ nai dionak anixko ekusi bear du mundutik ebili (5):* dezente ikusi nahi duenak mundutik ibili behar du. */ zer gaizto gente gaztia mundian! (10):* zer gaizto jende gaztea munduan! */ infekzionereki xoan [zen] mundutik (10):* infekzioarekin joan zen mundutik. */ meste mundiara (10):* beste mundura.
munduko *(5)* : bikain */ mundukoa (5):* bikaina.
muntio *(5)* : *(anat.)* hatz-mami, eri-mami
mur *(5)* : oker
mura *(4)* : *(bot.)* pinazi */ [lerraren] frutu konek du izena ´mura´ (4):* pinuaren fruitu honek izena du ´pinazia´.
murkilla *(5)* : goru
murkullu *(1)* : harri pila */ murkullua (1):* harri pila.
murmur *(11)* : marmar
murmuta *(5)* : murmurio, marmar
murri 1 *(5)* : zital, doilor

murri 2 *(9)* : uzta-lokarri (zekalezkoa)
murri 3 *(5)* : belar-pila (segalariaren ezkerrekoa segatzean)
murru *(5)* : koskor
murrukatu 1 *(5)* : pilatu, metatu, bildu
murrukatu 2 *(5)* : zimurtu
murruskada *(5)* : purrustada
murruskatu *(11)* : marraskatu, xehatu, birrindu OH. Aditz honen lekukotasuna ibarreko gaztelanian gordetako ´murrusquear´ eta ´marrusquiar´ aditzetan dago.
murrutx *(5)* : zaputz, betizu (pertsona)
murruxtu *(5)* : muturtu
murtekatu 1 *(5)* : atximur egin
murtekatu 2 *(5)* : bihurritu (sokak eta) */ ile beltxa tira eta murteka (5):* artile beltza tiratu eta bihurritu.
murtu 1 *(4)* : bihurritu */ [urrutxa da] zail murteko (4):* hurritza zuntzezkoa da, bihurritzeko. */ zarrak murten yai kalako gisan, aiketa alte guziuetarik zaparta dazaian artio (4):* zaharrak bihurrituko hau halako moduan, harik eta alde guztietatik zaparta hazan arte.
murtu 2 *(5)* : okertu
murtu 3 *(5)* : belarra pilatu (segalariaren ezkerrean)
murtu 4 *(5)* : txanbihurtu (haria, soka)
murtxatu *(5)* : mastekatu, mamurtu */ [erle] korien eztia gore aurrak ñola ezin doke murtxa (5):* erle horien eztia gure haurrak inola ezin du mamurtu.
muru *(1)* : *(erai.)* harresi, murru */ muru zorrotza (1):* murru zorrotza. */ Mazeko murua (1):* Mazeko murrua.
musika *(3, 5)* : musika */ lutozko musika sonazaliak (3):* lutozko musika soinulariak. */ karrika gaintik guatza mitilak musikareki (5):* kalea gaindi goaz mutilak musikarekin.
muskentra *(5)* : *(zoo.)* sugandila
muskilda *(11)* : muskin, muskil OH. Neska isila, txepela. Orotariko euskal hiztegian ´muskin, muskil´ dokumentatuak.
musta *(5)* : taldetxo (abereena)
musukatu *(11)* : musukatu OH. Aditz honen lekukotasuna Izabako gaztelanian gordetako ´musuquear´ aditzean dago.
musurka 1 *(5)* : uxarka, muturka
musurka 2 *(5)* : uxartze, muturka egite
musurkari *(5)* : musurkari, induskari
musurkin *(5)* : uxartze, muturka egite
musurteka *(5)* : uxarka, muturka */ musurtekatan (5):* uxarka, muturka.
mutatu *(3, 4)* : aldatu */ [´lekuz muta zte´] erran dokezei mendi korri, eta lekuz mutaten da (3):* ´alda zaitez lekuz´ esan diezaiokezue mendi horri, eta lekuz aldatuko da. */ biziz mutatia (3):* bizitzaz aldatzea. */ biziz mutatako propositua (3):* biziz aldatzeko asmoa. */ [leku batetik berziara] mutatan da (4):* leku batetik bestera aldatzen da.
mutiko *(5, 10)* : mutiko */ arrastirian mutiko ta neskatxeak ebiltan dra eske [gairon egunean] (5):* arrastirian mutiko eta neskatoak eske ibiltzen dira gabon egunean. */ mutikoak eta neskatilak (10):* mutikoak eta neskatilak.
mutil 1 *(5, 11)* : mutil */ zubiadarraren petik igartea[n] neskatxak mutil eta mutilak neskatxa*

egitan drela erraiten daioei aurrer (5): ostadarraren petik igarotzean neskatxak mutil eta mutilak neskatxa egiten direla esaten diete haurrei. OH. Hitz honen lekukotasuna ibarreko gaztelanian gordetako ´mutilon´ hitzean dago.

mutil 2 *(5)* : morroi

mutil 3 *(5)* : udaltzain, herri-mutil

muttiko *(10)* : mutiko */ gu ginden laur aurride, bi muttiko eta bi neskatilla (10):* gu lau haurride ginen, bi mutiko eta bi neskatila. */ besteki, muttikueki (10):* besteekin, mutikoekin.

mutu 1 *(3, 5)* : mutu */ bi utsi [sontotan tu] eta endemoniatu mutu bat (3):* bi itsu sendatzen ditu eta deabrudun mutu bat. */ kuek erkinik, mutu bat [xin zen] (3):* hauek irtenda, mutu bat etorri zen. */ ele erran zion edo mintzatu zen mutiua (3):* hitz egin zuen edo mintzatu zen mutua. */ etse bat erretan zela, mutu [zen] gente deitan ziona (5):* etxe bat erretzen zela, mutua zen jendea deitzen zuena.

mutu 2 *(5)* : kamuts

mutur 1 *(2, 5)* : mutur */ [Antoniok] apotzar mutur tzu (5):* Antoniok apo muturra du. */ ni sukalte zokoan sudur-muturrak errerik (5):* ni sukalde zokoan sudur-muturrak errerik. */ ire muturrendako! (5):* hire muturrentzat!

mutur 2 *(5)* : muturturik, haserre

mutur-gaizto *(5)* : gozozale

mutur-zuku *(5)* : liskar (senar-emazteen artekoa)

mutur-zuri *(5)* : gozozale

muturbeltz *(5)* : muturbeltz */ gore apez muturbeltza asun biltan ari zen (5):* gure apaiz muturbeltza asunak biltzen ari zen.

muturrez *(5)* : muturturik, haserre

muturrez barna *(9)* : ahuspez

mututu *(3)* : mututu */ baia ura mututu zen (3):* baina hura mututu egin zen.

mutzulu *(5)* : zaputz, betizu (pertsona)

mutzurketa *(5)* : uxarka, muturka

muxar *(11)* : *(zoo.)* muxar */ muxarra (11):* muxarra.

muxkito *(3)* : eltxo */ [edaten tzein guziua] iraztan baitzei, badagonez ote zomait muxkito (3):* edaten duzuen guztia iragazten baituzue, ba ote dagoen zenbait eltxo.

muzka *(5)* : milika, minge (adj.)

muzker *(2)* : *(zoo.)* musker

muzter *(5)* : *(anat.)* hestegorri

N

-na *(4, 5, 9)* : -na (zenbana) */ laurna, borzna (4):* launa, bosna. */ bederatzuna, bedratzuna (5):* bederatzina. */ bapanak diazu irorna, laurna, borzna, amekana sagar (9):* bakoitzak du hiruna, launa, bosna, hamaikana sagar.

naastaile *(5)* : nahastaile, bazter-nahastaile

naastekari *(5)* : nahastaile, bazter-nahastaile

naba *(5)* : *(geog.)* lautada, ordoki OH. Azkuek ´lautada handia, menditik hurbil´ esanahiarekin dokumentatua.

nabaitu 1 *(5)* : nabaritu

nabaitu 2 *(5)* : entzun

nabar 1 *(1)* : nabar */ nabar koba (1):* nabar koba. */ arri nabar[ra] (5):* harri nabarra.

nabar 2 *(5)* : *(nek.)* nabar, golde-mutur

nabar 3 *(5)* : *(nek.)* nabar-ildo OH. Nabarrarekin egindako ildoa.

nabarben *(5)* : nabarmen

nabardura *(5)* : nabardura (kolore nabarra) */ oraiño ezabei jin nabardura biloan basa[u]ntzer (5):* oraindik ez zaie etorri nabardura ilean basahuntzei.

nabari izan *(5)* : nabari izan

nabaritu *(8, 9)* : aditu */ erraitan nia[n], baia edatan ezdu[k] nabarita[n] (8):* esaten nian, baina edanez ez duk aditzen (ahotsa). */ ixklak nabaritan tun, nor il da? (9):* kanpaiak aditzen ditun, nor hil da?

nabarreri *(2, 5)* : *(med.)* nafarreri

nabarreria *(9)* : *(med.)* nafarreri */ nabarreria guziak (9):* nafarreri guztiak.

nabas *(5)* : *(nek.)* golde

Nabaskoze *(4, 9)* : *(geog.)* Nabaskoze */ kementik fan dra Nabaskozeko merkatiuara iror emazte (4):* hemendik joan dira Nabaskozeko merkatura hiru emakume. */ Nabaskozen [diozu] (9):* Nabaskozen dago.

nabastatu *(5)* : goldatu

Nabazkoitze *(5)* : *(geog.)* Nabaskoze */ Bidankoze otzago [da] ezik Nabazkoitze (5):* Bidankoze hotzagoa da Nabaskoze baino.

nabitate *(7)* : eguberri */ nabitateak (7):* eguberriak.

nagi! *(5, 7, 9)* : etorri! */ nagi kona! (7, 9):* etorri hona!

nai *(5, 6)* : nahi */ begiak noraino, naia karaino (5):* begiak noraino, nahiak haraino. */ egon naiareki nauzu (6):* egon nahiarekin nauzu.

nai ekun *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : nahi izan */ [arekin] egin zein nai ekun zein guziua (3):* harekin egin zuten nahi izan zuten guztia. */ zerengatik il nai ekun zion krutxian? (3):* zergatik hil nahi izan zuen gurutzean? */ ez nai ekutia berzen gaiza (3):* ez nahi izatea bertzeen gauza. */ nai daizunari isari pleitu (3):* auzia jarri nahi dizunari. */ nai etzazei bil ontarzun xentako lurrian (3):* ez ezazue ondasunik bildu nahi izan zuentzat lurrean. */ nai tziua fan gitian xorratra? (3):* nahi al duzu jorratzera joan gaitezen? */ nai ekun bazunu (4):* nahi izan bazenu. */ nai dut xarreki tian onki (4):* (osasunez) ongi jarrai dezaten nahi dut. */ ez nai naun erran deus ere (4):* ez nion deus ere erran nahi. */ artaz xakin nai diona (4):* hartaz jakin nahi duena. */ nai noke anitx gaiza erran (4):* gauza anitz erran nahi nuke. */ nai dionak anixko ekusi bear du mundutik ebili (5):*

dezente ikusi nahi duenak mundutik ibili behar du. */ ayik entzun nai ez diona ez deila fan gerrara (5):* airik entzun nahi ez duena ez dadila gerrara joan. */ nai badun izan ene emazte, biak bordalten gutun (5):* ene emaztea izan nahi badun, biak ezkonduko gaitun. */ loakartu nai noke (5):* lokartu nahi nuke. */ nai diezt [xin], nai diez xin (6):* etorri nahi dut. */ nik nai ekun dur xan (7):* nik jan nahi izan dut. */ nik nai dur, nik ez dur nai (7):* nik nahi dut, nik ez dut nahi. */ zuk nai tzunean (7):* zuk nahi duzunean. */ zur kau nai digu sartu elizan (8):* enbor hau elizan sartu nahi dugu. */ nai duna xin? (9):* etorri nahi al dun? */ nai diar xuan (9):* joan nahi diat. */ nai ekun diar (10):* nahi izan dut. */ jangeikoak nai dien artio (10):* jaungoikoak nahi duen arte. */ gizon korrek nai ekunen zia eneki xoan (10):* gizon horrek nirekin joan nahi izango zuen. */ nai noke bizi zomait urte obro (10):* zenbait urte gehiago bizi nahi nuke.

nai ekuntu *(3, 4)* : nahi izan */ Jesusek nai ekuntu zion izan batixatruk (3):* Jesusek bataiatua izan nahi izan zuen. */ kuek ez zein nai ekuntu xin (3):* hauek ez zuten etorri nahi izan. */ kemen nai ekuntu dei bi etsetakuek ezteiak egin ordiara (4):* hemen bi etxetakoek ezteiak ordeaz (?) egin nahi izan dituzte. */ semiak nai ekuntu zion il (4):* semeak hil nahi izan zuen.

nai-beda -la *(5)* : nahiz eta */ nai-beda enazala abrats, bear diak erosi (5):* nahiz eta ez naizen aberatsa, erosi egin behar diat.

naiago izan *(3, 4, 5, 7)* : nahiago izan */ naiago dur miserikordia sakrifiziua [bino] (3):* nahiago dut errukia sakrifizioa baino. */ nai dioa [x] akin zoin naiagoren nion nik, gizon sobra zainil bat edo emazte sobra gordin bat? nik ez bat eta ez berze (5):* jakin nahi al du zein nahiago izango nuen nik, gizon geldoegi bat edo emakume gordinegi bat? nik ez bat eta ez beste. */ naiago dur beroa (7):* nahiago dut beroa. */ ardaorik (ardaurik) ala [urik]? naiago diegu ardaorik (7):* ardoa ala ura? nahiago dugu ardoa.

naigabe *(5)* : nahigabe, atsekabe

naikere *(4)* : badarik ere (?)

naikeri *(5)* : gutizia

naikin *(5)* : lehiakide; aurkari

naitu *(5)* : nahi izan

naiz *(5)* : nahiz */ eskuz naiz geiñuz naiz eleka edo iragoz dei egitan da (5):* eskuz nahiz keinuz nahiz hitzez edo oihuz dei egiten da. */ gora naiz apal, yoa inguruz (5):* gora nahiz behera, hoa inguruka.

napur *(5)* : gozozale

nar 1 *(5)* : *(bot.)* lahar, sasi

nar 2 *(5)* : arantza */ nar bat sartu da ene erinkoan (5):* arantza bat sartu da ene hatz txikian.

nar-nar *(5)* : nar-nar (minsorraren onomatopeia)

naranja *(2)* : *(bot.)* laranja

narnakatu *(5)* : inurritu (gorputz atalak) */ zankoa narnakatu zaitad (5):* hanka inurritu zait.

naro *(3, 4, 5)* : askotan, sarri */ jangeiko jeinari otoi egiten daud naro (4):* jaungoiko jaunari otoitz egiten diot sarri. */ naro eskatan naz gore jeinari usur ditzan orren gain bere bendizioniak (4):* maiz eskatzen diot gure jaunari isur ditzan berorren gain bere bedeinkapenak. */ gaztia orraxtatan [da] naroago (4):* gaztea maizago orrazten da. */ margu lili artean erleak naro ebiltan dra (5):* marrubi lore artean erleak sarri ibiltzen dira.

naroder *(4)* : askotan, oso maiz */ al banintza txori baten gisa bidajiak egin bolan, naroder ekusen nindion orren altakan (4):* txori baten gisa bidaiak hegan egin ahal banitu, oso maiz ikusiko ninduen berorren alboan.

naroki *(3)* : askotan, sarri */ zeren guk barurtan digunian naroki, ez [dei] barurtan zore diszipuluek? (3):* zergatik guk sarri barautzen dugunean, ez dute barautzen zure ikasleek?

narotan *(3)* : askotan, sarri */ ene semia anitx narotan erortan tzu suara (3):* ene semea askotan erortzen da sutara.

narotasun *(5)* : maiztasun

naroz *(5)* : askotan, sarri

narria *(5)* : eskorga OH. Harri handiak garraiatzeko eskorga.

narsosa *(5)* : *(bot.)* mahats (mota bat) OH. Azkuek ´gehien irauten duen mahats mota, negu osoan kontserbatzen dena´ oharrarekin dokumentatua

nasai *(5, 8, 9, 10)* : alkandora (emakumezkoa) */ zomat nasaya dun? txiki, txiki ta zar (10):* zenbat alkandora ditun? gutxi, gutxi eta zaharrak. OH. Azkuek a itsasirik gabe dokumentatua.

nasakatu *(5)* : iraulkatu (lur gainean)

nasgarri *(5)* : burruntzali OH. Azkuek ´burruntzalia eta ore likidoa edo erdi likidoa nahasteko balio duen edozein objektu´ oharrarekin dokumentatua.

nasi 1 *(5, 9)* : nahasi */ aurreki etziten dena xagitan da kakaz nasirik (5):* haurrekin etzaten dena kakaz nahasirik jaikitzen da. */ Santo Tomas, bukata egin eta ogia nas (5):* San Tomas, lixiba egin eta ogia nahas (oratu). */ ogia nasi [nai nizun] ta eztiezt al ekuntu (9):* ogia nahasi nahi nuen eta ez dut ahal izan.

nasi 2 *(5)* : oratu (ogia)

naskari *(5)* : *(suk.)* ogi zahidun */ on zau goseari anke dela naskari (5):* on zaio goseari, ogi zahiduna bada ere. OH. Gari eta zekalezko ogia.

naski 1 *(5)* : noski

naski 2 *(5)* : ziurrenik, segur aski

naskiro *(3)* : ziurrenik, segur aski */ naskiro pensatan tzu biar tzinala igan zeuria[draino] (3):* ziurrenik pentsatzen duzu zeruraino igo behar zenuela. */ ez dia, naskiro, zurginaren semia? (3):* ez al da, ziurrenik, arotzaren semea?

naste 1 *(5)* : nahasi */ ogi kau, aiñariaz naste dielakotz, ubel erkin da (5):* ogi hau, zekalez nahasi dutelako, beltzaran atera da.

naste 2 *(5)* : nahasirik */ asunbeltzak txerriak ilten ditu, beste asunarekin naste xaten badei (5):* asunbeltzak txerriak hiltzen ditu, beste asunarekin nahasirik jaten badute. */ llarnean olabeaz igarten da garia, autz lodiarekin naste dagoanean (5):* larrainean olabeaz igarotzen da garia, ahotz lodiarekin nahasturik dagoenean.

nasteka-masteka *(5)* : nahasteka-mahasteka OH. Jendea nahastuz.

nastekatu *(3, 4, 5, 7, 10)* : nahasi */ [orantza] nastekatu iror almute irinekin (3):* legamia nahasi hiru almute irinekin. */ bazkalaldi batian ez nastekatako aragi eta [arrantzu] (3):* bazkalaldi batean ez nahasteko haragia eta arraina. */ kan emon zabein edatra ardaû, nastekatruk gibelminekin (3):* han ardoa eman zioten edaten, behazunarekin nahasirik. */ emaztek ez badei nastekatan [artakarro-autsa] berze zomait autseki, eskiuak lardekitan zazkabei (4):* emakumeek ez badute arte-errautsa beste zenbait errautsekin nahasten, eskuak zartatzen zaizkie. */ urareki nastekatruk edaten bada (4):* urarekin nahasirik edaten bada. */ nastekatu diar guzia (10):* guztia nahastu dut.

nata 1 *(3)* : izpi, fits */ zer begitartereki izartan zra beiratra nata zore anaxaren begian? (3):* zer aurpegirekin jartzen zara izpia begiratzen zure anaiaren begian?

nata 2 *(5)* : orezta

nata 3 *(5)* : orban

natibitate *(5, 10)* : *(erl.)* eguberri */ natibitate gaian (5):* eguberri gauean, gabon gauean. */ ollar mezara natibitatez (10):* oilar mezara eguberritan.

natura *(5)* : natura OH. Behien edo txakur emeen alua.

nausi 1 *(3, 4, 5, 8)* : nagusi */ sinagogako nausi bat [eltu zenian] (3):* sinagogako nagusi bat heldu zenean. */ ardauntziuaren nausiak erran zion (3):* mahastiaren nagusiak esan zuen. */ etseko nausiaren mitilak edo zerbutxariak (3):* etxeko nagusiaren morroiak edo zerbitzariak. */ ñork ere ez doke zerbutxa bi nausiri (3):* inork ere ez dezake zerbitza bi nagusiri. */ yaur yaz nausi, ar zak nai yoana (4):* heu haiz nagusia, har ezak nahi duana. */ Eduardo, ostatu ekun zioneko nausiari [bixita egin daud] (4):* Eduardo, ostatua eduki zuen nagusiari bisita egin diot. */ bear zau dolu ekun nausirik ez dion gaizari (5):* atsekabe izan behar zaio nagusirik ez duen gauzari. */ ariak, maiatza elteari, ´deuri, deurí´ erraten dau nausiari (5):* ahariak, maiatza heltzean, ´diru, diru´ esaten dio nagusiari. */ nausia (8):* nagusia.

nausi 2 *(4)* : nagusi, jabe */ orai dabiltza nausiak zûr eramanen biltan (4):* orain jabeak enbor eramanak biltzen dabiltza.

nausigei *(5)* : jabegai, oinordeko

nausitasun *(5)* : nagusitasun

nazierde! *(5)* : zatoz! */ nazierde tal-tal (5):* zatoz tipi-tapa.

nazierdei! *(5)* : zatozte!

nazione *(3)* : nazio */ nazione guziuen [testimoniotan] (3):* nazio guztien testigantzan.

neabe 1 *(4)* : mutil, gaztetxo */ geroztik neabe guziua dago karriketarik eskolarik bage (4):* geroztik gaztetxo guztiak kaleetan daude eskolarik gabe.

neabe 2 *(5)* : ezkongabe (gaztea)

-nean *(4, 5, 7, 9)* : -enean */ erri konek nexar egitan du gutaz guartan denean (4):* lur honek negar egiten du gutaz oroitzen denean. */ bozkario emoiten [dei arrotzek], faten drenean (4):* poz ematen dute arrotzek, joaten direnean. */ mendi[e]k egiten deinean sonu, tenprak euri (5):* mendiek soinu egiten dutenean, eguraldiak euri. */ odoi-adar bat erkitan denean gorri ta dundu, euria eragutan du (5):* hodei-adar bat ateratzen denean gorri eta urdin, euria ekartzen du. */ [bañatu] nai tzunean, ur beroreki (7):* bainatu nahi duzunean, ur beroarekin. */ egitan dunean (7):* egiten duenean. */ xitan denean (7):* etortzen denean. */ amalaur urte izanen duturanean (7):* hamalau urte (izango) ditudanean. */ mitilak xiten zrenean zer kontent gu! (9):* mutilak etortzen zirenean zer pozik gu!

nefar *(5)* : nafar OH. Zuberoan ere dokumentatua.

Nefarro *(4)* : *(geog.)* Nafarroa */ ez al dago Nefarro guziuan iri kain lazorik nola kaur ikasgiuaren gainian (4):* ezin da egon Nafarroa osoan hau bezalako herri arduragaberik irakaskuntzari buruz.

negar *(5)* : negar

negar-marraka *(5)* : aiene, intziri

negar-zurrusta *(5)* : negar-jario

negoziatu *(3)* : negoziatu */ negoziatan zio[n] (3):* negoziatzen zuen.

negu *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : negu */ xen iêtstia ez deila izan negiuan (3):* zuen ihes egitea ez dadila izan neguan. */ ez digu negu guziuan ekusi kainbat elur nola orai dagona (4):* ez dugu negu osoan ikusi hainbat elur nola orain dagoena. */ negiua gaxto dua (4):* negua txarra doa. */ gizon guziuak gaude neguko egurren sartan (4):* gizon guztiak gaude negurako egurrak sartzen.

/ bizi denak, aurtengo negiuaz, ekunen du kontu franko (4): bizi denak, aurtengo neguaz, kontu franko edukiko du. */ den negu nola den uda, betik da arropa lagun (5):* negua izan edo uda izan, beti da arropa lagun. */ udan ixikitan gra ta negiuan karroia (5):* udan pizten (erretzen) gara eta neguan izotza. */ negua (negia) (7):* negua. */ laur urtez, laur neguz [izan nuzu Maulen] (8):* lau urtez, lau neguz izan naiz Maulen. */ egurrak egin biar, negia xitan [da] (8):* egurrak egin behar, negua dator. */ urteril otza, negiaren biotza (8):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ negia (9):* negua. */ negu, negia, negea (10):* negu, negua. */ gazte gindenian xoaitan gindezun trabajatra negun (10):* gazteak ginenean joaten ginen neguan lan egitera.

negu min *(4)* : negu min */ negu minian gaudena gisa digu tenpra´re (4):* negu minean gauden bezala dugu eguraldia ere. */ tenpra digu negu minian bikain otz (4):* eguraldia negu minean bezain hotz dugu.

negu-lein *(5)* : negu hasiera

negu-sagar *(5)* : negu-sagar OH. Ganbaran kontserbatutako sagarra.

neguara *(5)* : ezkutaketan (jolasa)

neguazken *(5)* : negu-hondar

nejar *(2, 3)* : negar

nejarrez *(2)* : negarrez

nejarrezko *(2)* : negarrezko */ erri nejarrezko kontan (2):* negarrezko herri (lur) honetan.

nekatx 1 *(5)* : *(met.)* euri-ekaitz

nekatx 2 *(5)* : *(met.)* haize-ekaitz

nekextu *(4)* : zigortu */ nekextruk Ponzio Pilatosen gomendiuaren pean (4):* zigorturik Pontzio Pilatosen gomendioaren pean.

nekez *(3, 8)* : nekez */ nekez sarten da abrats bat zeuri[ko] reinuan (3):* nekez sartuko da aberats bat zeruko erreinuan.

nekezia *(5)* : miseria, lazeria

nerabe 1 *(5)* : nerabe, gaztetxo OH. Erronkarierazko ´ne(r)abe´ eta euskara batuko ´nerabe´ ez dira sinonimo zehatzak. Erronkarin ´neabea´, gaztetxoa izateaz gain, mutil ezkongabea ere bada eta umea ere bai.

nerabe 2 *(5)* : ezkongabe (gaztea)

nerabe-gente *(5)* : gazte jende */ nerabe-gentea edo morroiñak eta neskaxeak (5):* gazte jendea edo mutilak eta neskak.

neska 1 *(3, 5, 9, 10, 11)* : neska */ neska bat [abañatan zen] (3):* neska bat hurbiltzen zen. */ oillo gosea kantari, neska gosea dantzari (5):* oilo gosea kantari, neska gosea dantzari. */ erran zan xin denetz neska (9):* erran ezan (ea) etorri den neska. */ neska polita (11):* neska polita.

neska 2 *(8, 9, 10)* : neskame */ etxekuandre batek artu zien neska bat (8):* etxekoandre batek neskame bat hartu zuen.

neskanegun *(2, 3, 5, 6, 7, 8, 10)* : larunbat */ [Jesus] neskanegun batez alor erin altaka banetarik [igari zen] (3):* Jesus larunbat batean alor erein batzuen albotik igaro zen. */ neskaneguna (3):* larunbata. */ neskanegunaren preparazionia (3):* larunbataren prestakuntza. */ neskanegunian ez dena lizito [egitan dei] (3):* larunbatean zilegi ez dena egiten dute. */ ortzilare, neskanegun; zereki argi, kareki ulun (5):* ostiral, larunbat; zerekin argi, harekin ilun. */ neskaneguna (7, 8, 9, 10):* larunbata. */ neskanegunean (9):* larunbatean.

neskatila *(10)* : neskatila */ igar den urtian egon zuntian keben neskatila banak (10):* igaro den urtean neskatila batzuk egon ziren hemen.

neskatilla *(10)* : neskatila */ gu ginden laur aurride, bi muttiko eta bi neskatilla (10):* gu lau haurride ginen, bi mutiko eta bi neskatila.

neskato 1 *(2, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : neskato, neska */ gente biardunen neskato guziuak faiten dra Frantziara espartiñan trabajatan (4):* jende behartsuaren neska guztiak joaten dira Frantziara espartinak egitera. */ neskato bat [oiltu nian kara] (5):* neskato bat bidali nian hara. */ bizpor neskato (5):* neska batzuk. */ neskatoa, idan ogia (7):* neskatoa, ekar ezan ogia. */ neskato guziak espartiñak xostra, [ala!] (8):* neska guztiak espartinak jostera, ala! */ kori neskatua eta ni mitila (8):* hori neska eta ni mutila. */ neskatuak kola beztitruk, kottak azkatruk (8):* neskatoak horrela jantzirik, gonak goraturik. OH. Izagirrek ´neska koskortua´ oharrarekin dokumentatua. Artolak ´ezkongabeko emaztekia´ oharrarekin dokumentatua.

neskato 2 *(5)* : neskame

neskato 3 *(4, 5, 10)* : neskazahar */ ya bordaltu drenez ala neskato dauden [xakiteko] (4):* ea ezkondu diren ala neskazahar dauden jakiteko. */ neskato karek kota talango dama (5):* neskazahar hark gona talango darama. */ maztek eztakir zrenez bordaltuk ala zrenez neskato (10):* emakumeak ez dakit ezkonduak ziren ala neskazaharrak ziren.

neskatto *(10)* : neskato, neska */ mitilak eta neskattuak (10):* mutilak eta neskatoak.

neskatxa *(5)* : neskatxa, neskato */ zubiadarraren petik igartea[n] neskatxak mutil eta mutilak neskatxa egitan drela erraiten daioei aurrer (5):* ostadarraren petik igarotzean neskatxak mutil eta mutilak neskatxa egiten direla esaten diete haurrei.

neskatxe *(5, 10)* : neskatxa, neskato */ arrastirian mutiko ta neskatxeak ebiltan dra eske [gairon egunean] (5):* arrastirian mutiko eta neskatxak eske ibiltzen dira gabon egunean. */ morroiak eta neskatxiak lasterreka (10):* mutikoak eta neskatxak korrika.

neskatxekari *(5)* : neskatxazale

neskatxi *(8)* : neskatxa, neskato */ neskatxi anitx ere [juaiten tzu] (8):* neskatxa anitz ere joaten dira.

neskatzar *(9)* : neska narras

neskaxe *(2, 9)* : neskatxa, neskato */ nerabe-gentea edo morroiñak eta neskaxeak (5):* gazte jendea edo mutilak eta neskatxak. */ neskaxeak erran diela (9):* neskatxak erran duela. */ neskaxi[a] (9):* neskatxa. OH. Izagirrek ´hamahiru urte arteko neska txikia´ oharrarekin dokumentatua.

neskaxi *(9, 10)* : neskatxa, neskato */ neskaxi ñotto kau (9):* neskatxa txikitxo hau. */ neskaxi koriek zartu tun anitx (10):* neskatxa horiek anitz zahartu dira.

nestate *(2, 3, 4, 9)* : behar (iz.) */ zerengatik egunoro baitugu nestate (2):* zeren egunero baitugu beharra. */ non zegon jeina? bere baitan, ñeuren nestaterik bagerik (2):* non zegoen jauna? bere baitan, inoren beharrik gabe. */ zer nestate digu? (3):* zer behar daukagu? */ onki daki xen aitak etaz nestate tzeina (3):* ongi daki zuen aitak haietaz beharra duzuela. */ ez dutzu sanuak, beizik eri daudenak dotoriaz nestate deinak (3):* ez dituzu osasuntsuak, baizik eta gaixo daudenak medikuaren beharra dutenak. */ nestaterik bage (3):* beharrik gabe. */ nestate edo biarrik bage (3):* beharrik gabe. */ lein ezik tenpra anitx, asen da gentia kontatan nestate (4):* denbora asko baino lehen, jendea (bere) beharrak kontatzen hasiko da. */ nestatia oboroagotan da ungurunetan (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan. */ nestate diar (9):* beharra diat. */ nik eztiar gizon korren nestate (9):* nik ez dut gizon horren beharrik.

-netz *(9, 10)* : ea -en, -netz */ enun eguart egosi dugunetz (9):* ez naun oroitzen egosi dugun. */ erran zan xin denetz neska (9):* erran ezan (ea) etorri den neska. */ eztakiar kausiten duranetz (9):* ez dakit asmatuko dudan. */ aber banakienetz (10):* ea banekien. */ aber gustatu zaioinetz*

oraiguneko fiesta (10): ea gustatu zaion duela gutxiko festa.

neurri *(3, 5, 6)* : neurri */ neurri zenezein neurri berarekin izanen zrei xek neurtruk (3):* neur zenezaten neurri berarekin izanen zarete zuek neurtuak. */ bete zazei xen [aitaetamen gaxtotarzunen] neurria (3):* bete ezazue zuen gurasoen gaiztakeriaren neurria. */ neurria (6):* neurria.

neurritu *(3)* : neurtu

neurtu *(3, 5, 9)* : neurtu */ ezazei neur xen bizimoldia enarnaz (3):* ez ezazue neur zuen bizimoldea haienarenaz. */ neurtan (9):* neurtzen.

nexar 1 *(3, 4, 5, 7, 10)* : negar */ kan izanen da nexarra eta ortzez garraska egitia (3):* han izanen da negarra eta hortzez karraska egitea.

nexar 2 *(5)* : txakur-intziri

nexar egin *(3, 4, 7, 10)* : negar egin */ nexar egiten baitu bere semengatik (3):* negar egiten baitu bere semeengatik. */ nexar egiten deinak, nexar egitan deinak (3):* negar egiten dutenak. */ nexar eginen dei marrakaz (3):* negar eginen dute oihuka. */ nexar egin zion (3):* negar egin zuen. */ [xek] etzei nexar egin (3):* zuek ez duzue negar egin. */ erri konek nexar egitan du gutaz guartan denean (4):* lur honek negar egiten du gutaz oroitzen denean. */ nexar egitan dien (10):* negar egiten diten. */ [aurrak] nexar egitan balin bazien, titia erkin eta kor egon adi oian (10):* haurrak negar egiten baldin bazuen, titia atera eta hor egon hadi ohean.

nexar eginarazi *(5)* : negar eginarazi

nexargarri *(3)* : negargarri */ esposuaren adexkidiak erabil deitekeia ote nexargarri, esposua ekin dagon bitartio? (3):* senarraren adiskideak negargarri ibil ote daitezke, senarra haiekin dagoen bitartean?

nexarmin *(5)* : negar-intziri

nexarrez *(4, 5, 7)* : negarrez */ nexarrez, glarimazko balle kontan (4):* negarrez, malko haran honetan. */ nexarrez [asi zren] (4):* negarrez hasi ziren. */ nexarrez dagonean (5):* negarrez ari denean. */ nexarrez [xoan nitzian] aitagana (7):* negarrez joan ninduan aitagana.

nexarrez egon *(9)* : negarrez egon */ nexarrez egon nezu (9):* negarrez egon naiz.

nexarrontzi *(4)* : negarrontzi */ berze [ume] bat zion nexarrontzi (4):* beste ume bat negarrontzi zuen.

nexkato *(10)* : neskato, neska */ orai xoaitan tun nexkatoak eta mitilak´uziak (10):* orain joaten ditun neskatoak eta mutilak guztiak. OH. ´Neska gazteak´ oharrarekin dokumentatua.

nexkaxa *(7)* : neskatxa, neskato

nexkaxe *(3, 5)* : neskatxa, neskato */ aurra edo nexkaxia [ez dago] ilik (3):* haurra edo neskatoa ez dago hilik. */ [Juanen buriua] nexkaxiari emonik (3):* Juanen burua neskatxari emanik.

nexkaxi *(7, 10)* : neskatxa, neskato */ nexkaxi dun, eztun morroi (7):* neskatxa dun, ez dun mutikoa. */ mitil batek nexkaxi bati yiketz (7):* mutil batek neskatxa bati hika. */ morroi eta nexkaxik xoan tun (7):* mutikoak eta neskatxak joan ditun.

-nez *(9, 10)* : ea -en, -netz */ badakienez nor xin den (9):* ea badakien nor etorri den. */ ez dakiar egosi deinez (9):* ez zakiat egosi duten. */ Frantzian ere egon nindenez [galtatu zitazun] (10):* ea Frantzian ere egon nintzen galdetu zidan. */ maztek eztakir zrenez bordaltuk ala zrenez neskato (10):* emakumeak ez dakit ezkonduak ziren ala neskazaharrak ziren.

ni *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : ni */ aurra, nik [batixatan ztur] (2):* haurra, nik bataiatzen zaitut. */ ni nazalakoz on (3):* ni ona naizelako. */ nik deitu nion Egiptotik ene semia (3):* nik deitu nuen Egiptotik ene semea. */ kori ez nizazu niri galtegin (3):* hori ez idazu niri galdetu. */ niri´re*

ganiua gentu zaitad (4): niri ere gogoa kendu zait. */ ni ere akaitruk nago ñore lanetaz (4):* ni ere nekaturik nago neure lanetaz. */ zer izanen den ote nitaz [pensatian] (4):* nitaz zer izanen ote den pentsatzean. */ uduriak udurieki, ni ere kaieki (5):* antzekoak antzekoekin, ni ere haiekin. */ nik badud ein eta bi [urte] (5):* nik badut ehun eta bi urte. */ nik nai nukezu xin (6):* nik etorri nahi nuke. */ ni xitan naz (7):* ni etortzen naiz. */ nik ekusi dur (7):* nik ikusi dut. */ ni [kan izan nuzu] (8):* ni han izan naiz. */ ni nun yi bino obe (9):* ni hi baino hobea naun. */ nik bar nien egosi eznia? (9):* nik egosi behar nuen esnea? */ nik [uskara dakir] keben erraitan degun gisa (10):* nik euskara dakit hemen esaten dugun bezala.

-nian *(2, 3, 4, 6, 7, 8, 10)* : -enean */ kristiaiak, batixatan denian, zer [ar]tan du? (2):* kristauak, bataiatzen denean, zer hartzen du? */ kredoan erraitan dugunian (2):* kredoan (hori) erraten dugunean. */ arrazoîaren usuara eltan denian (3):* arrazoia erabiltzera heltzen denean. */ errezatan tzeinian (3):* otoitz egiten duzuenean. */ [eskiuak] ez ekuztean bazkaltan deinian (3):* eskuak ez garbitzean bazkaltzen dutenean. */ orrek eskribi beztad borontate dionian (4):* berorrek idatz biezat borondatea duenean. */ gatarro denian, lore kontarik egos (4):* katarroa denean, egosi lore honetatik. */ ayan, ezkapatan yazanian, ez yai ekusen lasterrari emoiten (4):* agian, ihes egiten duanean, ez hau ikusiko korrikari ematen. */ il zrenian (6):* hil zirenean. */ xuaiten zrenian (8):* joaten zirenean. */ nik amasei urte niezun [Maulera] xuan nindenian (8):* nik hamasei urte nuen Maulera joan nintzenean. */ xitan yazenian, [ardaua] biar diar testatu nik (8):* etortzen haizenean, ardoa dastatu behar diat nik. */ gazte gindenian (10):* gazteak ginenean. */ eltu zenian esketu zia ur (10):* heldu zenean ura eskatu zuen.

niaur *(6)* : neu, nihaur

nigar-iturri *(5)* : negarti

nigarti *(5)* : negarti

ninika *(5)* : *(bot.)* ernamuin OH. Aza zurtoinekoa nahiz arbi zurtoinekoa.

niñaur *(6)* : neu, nihaur

niri *(4, 7, 9)* : niri */ [besugo] kartarik niri oiltu zaitadan amintto bat (4):* bisigu hartatik niri pitin bat bidali zidan. */ emon bezita niri (9):* eman biezat niri.

nisnaska *(5)* : arrapaladan, arrapataka

-nko *(5, 6, 9, 10)* : -txo */ xibinko (5):* zubitxo. */ txerrinko (5, 6):* txerritxo. */ xerrinko (9):* txerritxo. */ txerrinkuak (10):* txerritxoak.

no! 1 *(5, 6, 9)* : no!, aizan! */ no, itxiki zan (9):* no, eduki ezan.

no! 2 *(4, 10)* : no!, har ezan! */ no kaur (10):* har ezan hau.

nobedade *(4, 8)* : berri, nobedade */ koneki adios, ez bada oboroagoko nobedaderik (4):* honekin agur, ez bada gehiagoko berririk. */ nobedaderik bage, iritzarri biamen goxan (8):* nobedaderik gabe iratzarri (zen) biharamun goizean.

noiz *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : noiz */ ekusi [zuniena] jeina noiz sortu zen? (2):* ikusi al zenuen jauna noiz jaio zen? */ kan noiz artio egoitan dra? (2):* han noiz arte egoten dira? */ noiz agiten da kori? (3):* noiz gertatuko da hori? */ noiz egin biar tzu señale kori? (3):* noiz egin behar duzu seinale hori? */ betik baratan naz ernari, noiz artio irainen daun korko lana[k] (4):* beti geratzen naiz erne, noiz arte iraungo dion horko lanak. */ noiz artio dagon erri kortan [xakiteko] (4):* herri(alde) horretan noiz arte dagoen jakiteko. */ noiz xinen zra? amabietan puntuan (7):* noiz etorriko zara? hamabietan puntuan. */ noiz da negua? xitan denean (7):* noiz da negua? etortzen denean. */ noiz artio? (9):* noiz arte? */ ni ainoʹre keben, [e]tzakin noiz artio (10):* ni oraindik ere hemen, ez jakin noiz arte.

noiz -en *(8)* : -enean */ noiz biar dien, erran zan ´aski´ (8):* behar denean, erran ezan ´aski´.
noiz nola *(5)* : noiz nola (txandaka)
noiz ta -enian *(4)* : noiz eta -enean */ nestatia oboroagotan da ungurunetan, noiz ta karrontek galaraztan teinian erintziuak (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan, noiz eta izozteek galarazten dituztenean ereintzak (labore-uztak).
noizaz geroz *(5)* : noiztik
noizdanik *(6)* : noizdanik
noizko *(4)* : noizko */ noizko eginen zion [lana] mitil andi karek? (4):* noizko eginen zuen lana mutil handi hark? */ al barimadu ñolare eskribi beztad noizko akabaten dion korko lana (4):* ahal baldin badu inola ere idatz biezat noiz bukatuko duen horko lana.
noiznaiden *(4)* : edonoiz, noiznahi */ noiznaiden egonen dela drezu eskribitako (4):* noiznahi egonen dela prest idazteko.
noiztanka *(5)* : noizbehinka
noiztarik *(5)* : noiztik
noiztarik as *(5)* : noiz hasita
noka *(5)* : noka (emakumezkoekiko hika) OH. Ikus ´nokez´ sarrera.
nokez *(5)* : noka
nola *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : nola */ nola xakinen dugu zer bear dugun? (2):* nola jakinen dugu zer behar dugun? */ nola du izena? (2):* nola du izena? */ txezei zeuriko txoriek nola ez dein eritan (3):* begira ezazue zeruko txoriek nola ez duten ereiten. */ kola da nola arbole on orok eragutan dion frutu ona (3):* horrela da nola zuhaitz on orok dakarren fruitu ona. */ etzei leitu nola [apezek] trabajatan dein elizan neskanegunian? (3):* ez duzue irakurri nola apaizek lan egiten duten elizan larunbatean? */ eta nola daude osagarriz? (4):* eta nola daude osasunez? */ oraigunian guartu nintzen nola ene ama zenak kontatan zaitadan (4):* duela gutxi oroitu naiz nola nire ama zenak kontatzen zidan. */ nola bear, kala nai (5):* nola behar, hala nahi. */ nola xin, kala xoan (5):* nola etorri, hala joan. */ nola duk izena? (5):* nola duk izena? */ nola da zore izena? (7):* nola da zure izena? */ nola? ardirik ez eta ola? (7):* nola? ardirik ez eta txabola? */ nola erraiten da? (8):* nola esaten da? */ nola yaz? anitx onki (8):* nola haiz? oso ongi. */ nola izertan den gizon [kau]! (9):* nola izerditzen den gizon hau! */ xarrek nola bar zein egin laster? (10):* zaharrek nola egin behar zuten lasterka?
nola bait- 1 *(3, 4)* : nola -en, -enez (kausazkoa) */ nola ekustan baizion xitan aren batixuara fariseo anitx, erran zabein (3):* nola fariseu asko ikusten baitzuen haren bataiora etortzen, esan zien. */ eta izaguntu nola baizein kan bizi zrenek, oiltu zein abiso (3):* eta han bizi zirenek ezagutu zituztenez, oharra bidali zuten. */ nola [senarrak] berantan baizion xitiaz, loakartu zren guziuak (3):* nola senarra etortzen berandutzen zen, guztiak lokartu ziren. */ nola ez baidokegu lanik egin, aprobetxatan dud eskribitako (4):* ezin dugunez lanik egin, idazteko aprobetxatzen dut. */ nola kartan papera bete baizitzaitadan, ez naun obro isari (4):* nola gutunaren papera bete baitzitzaidan, ez nion gehiago jarri. */ nola maiatza fan baizen on, kosetxa xiten zaikugu goxtarxago (4):* nola maiatza ona joan zen, uzta goiztarxeago datorkigu.
nola bait- 2 *(3)* : -en bezala (moduzkoa) */ nola iguzkiaren rayua erkitan baita kristale batarik kaur autse eta zikintu bage (3):* eguzki izpia kristal batetik ateratzen den bezala, hau hautsi eta zikindu gabe.
nola... kala... *(2, 3)* : nola... hala... */ egin bedi zore borontatea nola zeurian kala lurrean (2):* egin bedi zure borondatea nola zeruan hala lurrean. */ egin deila zore borontatia nola zeurian kala*

lurrian (3): egin dadila zure borondatea nola zeruan hala lurrean. */ egin deila orren borontatia nola zeurian kala lurrian (4):* egin dadila berorren borondatea nola zeruan hala lurrean.

nola... kola *(3)* : nola... horrela */ nola xen fedia, kola eginik izan dakiziela (3):* nola zuen fedea, horrela eginik izan dakizuela.

nolabait *(5, 9)* : nolabait

nolako *(4, 5, 10)* : nolako */ oil dazkigun orren erretratoa, ekus tzein nolako den (4):* berorren argazkia bidal diezagun, nolakoa den ikus dezaten. */ nolako egurra, kalako sua (5):* nolako egurra, halako sua. */ nolako soiñua, kalako dantza (5):* nolako soinua, halako dantza. */ nolako apario [xatan degun nai dei xakin] (10):* nolako apairua jaten dugun jakin nahi dute.

nolanai *(5, 10)* : edonola, nolanahi */ irur ilabete nolanai igartan tiagun keben (10):* hiru hilabete nolanahi igarotzen ditinagu hemen.

nolare -n *(2)* : zeren (eta) bait- */ ene jein zrena, nik diezud dolore andi bat, nolare izanik zu kain onik ofenditu zutudan (2):* ene jauna zarena, nik min handia dizut, zeren zu hain ona izanik iraindu baitzaitut.

nolaz *(3)* : nolaz, nolatan */ nolaz edo zerengatik ez digu guk ekun poderik [demoniu]aren egoxtako? (3):* nolaz edo zergatik ez dugu guk botererik izan deabrua botatzeko?

non *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : non */ non zegon jeina mundu kontako gaizak kreatu bagerik? (2):* non zegoen jauna mundu honetako gauzak sortu gabe? */ korpitza non baratu zen? krutxian (2):* gorputza non geratu zen? gurutzean. */ ama berjina non bizi zen ordian? (2):* ama birjina non bizi zen orduan? */ non dago judiuen erregia? (3):* non dago juduen erregea? */ non erdenen digu zer xan eta edan? (3):* non aurkituko dugu zer xan eta edan? */ non da gure jeina? (3):* non da gure jauna? */ orrek erran beztad ya non erdeiten dren (4):* horren esan biezat ea non aurkitzen diren. */ orak non mina kan mia (5):* txakurrak non mina han mihia. */ ni non egon naz? Jesuseki (5):* ni non egon naiz? Jesusekin. */ non ebiltan da ene aita? (7):* non dabil nire aita? */ eztakir non dan (7):* ez dakit non den. */ non egon zrei? (7):* non egon zarete? */ non egon yaz? (8):* non egon haiz? */ non tzu semia? (8):* non duzu semea? */ non egon da egun? Izaban (9):* non egon da gaur? Izaban. */ erran zan non dagon busteia (9):* esan ezan non dagoen buruzagia. */ non tzuk espartiñak? beste leku batan (10):* non dituk espartinak? beste leku batean.

non eta ez -n *(3)* : non (eta) ez -n */ barurik antzineko gaiko amabi ornetarik landa, non eta eztion atizatu biar eri bikala (3):* baraurik aurreko gaueko hamabi orduak eta gero, non eta ez duen jaunartu behar gaixo bezala.

non-naiden *(3, 5)* : edonon, nonahi */ non-naiden egon ledin korpiza, kan xuntaten dra agilak (3):* nonahi egon ledin gorputza, han elkartuko dira arranoak.

nonai *(10)* : edonon, nonahi

nonaiden *(9)* : edonon, nonahi

nonbait *(5)* : nonbait */ ugaltea burar xastan duk, nonbait euri egin dik (5):* ibaia uher jaisten duk, nonbait euria egin dik.

nonbeit *(9)* : nonbait */ nonbeit al diaun (9):* nonbait izango ahal dinagu.

nonko 1 *(4, 5, 9)* : nongo */ eztakid nonko den (4):* ez dakit nongoa den. */ burzegia nonko, askaziak kanko (5):* buruzagia nongo, senideak hango. */ etsukandrea nonko, azkaziak kanko (9):* etxekoandrea nongo, senideak hango.

nonko 2 *(9)* : norako */ kau nonko da? etxe kontako (9):* hau norako da? etxe honetarako.

nonta *(3)* : non eta; zer eta */ ura pensamentu kontan zagolarik, nonta aîguru bat aparezitu zitzaun ametstan (3):* hura pentsamendu honetan zegoela, zer eta aingeru bat agertu zitzaion

ametsetan.

nonti *(10)* : nondik

nontik *(2, 3, 4, 7, 9, 10)* : nondik */ nontik? eternidadetik (2):* nondik? eternitatetik. */ nontik ekun zunien [izen] kori? gore jeinaganik (2):* nondik eduki zenuen izen hori? gure jaunagandik. */ nontik du krutxiak birtute kori? (3):* nondik du gurutzeak bertute hori? */ nontik xin zau koni kalako sabiduria? (3):* nondik etorri zaio honi halako jakituria? */ nontik erkin biar baitu kaudillo gobernatu biar diona[k] (3):* nondik gobernatu behar duen buruzagiak irten behar baitu. */ guziek estimatu zein bixita, erraiten zaitadeilarik nontik guartu den etaz (4):* guztiek estimatu zuten bisita, erraten zidatela nondik oroitu den haietaz. */ nontik? kebentik (7):* nondik? hemendik. */ nontik erkitan tzu kori? (7):* nondik ateratzen duzu hori? */ zuk nontik dakizu gu gindela kuek? (10):* zuk nondik dakizu gu ginela (argazkiko) hauek? */ nontik xitan da? alurretik (10):* nondik dator? alorretik.

nontiknaiden *(4)* : edonondik, nonahitik */ nontiknaiden xin dein, nik oilten daud mandua zainareki (4):* nonahitik etor dadin, nik mandoa bidaliko diot zainarekin.

nontsu *(5)* : nontsu

nor 1 *(2, 3, 5, 6, 7, 9, 10)* : nor */ nork erran zien aitagorea? Kristok (2):* nork erran zuen aitagurea? Kristok. */ noreki mintzo gra? (2):* norekin mintzo gara? */ xek nor erraten tzei nazala ni? (3):* zuek nor erraten duzue naizela ni? */ nor bere bordara [fan zen] (3):* nor bere bordara joan zen. */ nork erakutsi daizei? (3):* nork erakutsi dizue? */ lurreko erregek norenganik kupratan tei sentzak? (3):* lurreko erregeek norengandik kobratzen dituzte zergak? */ noren seme da? (3):* noren semea da? */ norna da imajen kaur? jangeikuarna (3):* norena da irudi hau? jainkoarena. */ norekin mintzatan zra? (3):* norekin mintzatzen zara? */ nik nor errezibitu bear dud? Jesus bera (5):* nik nor hartu behar dut? Jesus bera. */ norentako da atxezea? (5):* norentzat da jaunartzea? */ nor da kori? ene aita (7):* nor da hori? ene aita. */ nori? gori ez, zuer (zier) bai (7):* nori? guri ez, zuei bai. */ badakia nor xin den? (9):* ba al daki nor etorri den? */ nork manatan du etse kontan? (9):* nork agintzen du etxe honetan? */ nor xin zen atzo gore etsetra? (10):* nor etorri zen atzo gure etxeetara? */ periodikoan nork eskribatan zien? (10):* egunkarian nork idazten zuen?

nor 2 *(3, 6, 9)* : nortzuk, nor */ nor dra bekatu egitan deinak? (3):* nortzuk dira bekatu egiten dutenak? */ nor xin dra? (9):* nortzuk etorri dira? */ eztakiauzu nor dren (9):* ez dakigu nortzuk diren.

nor izan *(5)* : nor izan; gauza izan */ nor balitz (5):* nor balitz.

nora *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : nora */ kortik oil beztad direzionia, nora biar daudan eskribitu (4):* hortik bidal biezat helbidea, nora idatzi behar diodan. */ nora yoa? (4):* nora hoa? */ ni nora noa? Jesusengana (5):* ni nora noa? Jesusengana. */ nora xoatan zra? (7):* nora zoaz? */ nora zoatza? iriara (7):* nora zoaz? herrira. */ nora yua, morroia? ardau txerka (8):* nora hoa, mutiko? ardo bila. */ nora xuaitan zra antxume? (9):* nora zoaz oinutsik? */ nora doa [ori] (9):* nora doa berori? */ nora bar dugu guk xoan? (10):* nora joan behar dugu guk? */ bueltatan zrenian, eztakiar nora, sartu zia apez bat kotxian (10):* itzultzen zirenean, ez dakit nora, apaiz bat sartu zen autoan.

norabait *(9)* : norabait

noraino *(5)* : noraino */ begiak noraino, naia karaino (5):* begiak noraino, nahiak haraino. */ martxoan lantxerra noraino, aprilean elurra karaino (5):* martxoan lainoa noraino, apirilean elurra haraino.

noranai *(4, 6)* : edonora, noranahi */ ez gra gatxiten noranai fan dein (4):* ez gara gaitzituko noranahi joan dadin.

noranaiden *(3)* : edonora, noranahi */ ni xarrekiten naizu noranaiden fan zitian (3):* nik jarraituko dizut, noranahi joan zaitezen.

norat *(5)* : norantz */ norat yoa? (5):* norantz hoa?

noraz *(5)* : norantz */ noraz yoa? (5):* norantz hoa?

norbait *(3, 7, 9)* : norbait */ norbait iltan bada semerik bage, anaxa bordal deila bere emaztiarekin (3):* norbait semerik gabe hiltzen bada, anaia ezkon dadila bere emaztearekin. */ norbaitek auts baleza mandamentu kuetarik bat, izanen da ekunik ezdeustako (3):* norbaitek agindu hauetako bat hauts baleza, ezereztzat edukia izanen da. */ norbait [xinen dun] (7):* norbait etorriko dun.

norbera *(5)* : norbera */ bapanari norberena (5):* bakoitzari norberarena.

nore *(2, 5)* : neure */ ez nore mereximentien medioz (2):* ez neure merezimenduen bidez. */ nore faltaz, nore falta andiz (2):* neure hutsez, neure huts handiz. */ olli ta ddunddukoi dut loxka dagon nore aurra (5):* horitxo eta urdinxkazale dut loxka dagoen neure haurra. */ nore etxiala (5):* neure etxera.

noreki *(7, 9)* : norekin */ noreki ebili zra? (7):* norekin ibili zara? */ noreki obro? eureki ere (7):* norekin gehiago? inorekin ere ez. */ noreki [dantzatu dra]? mitileki (9):* norekin dantzatu dira? mutilekin.

noren *(9, 10)* : noren */ noren amak lotetu du? (9):* noren amak lotu du? */ kori norna da? (9):* hori norena da? */ noren da etse kaur? (10):* norena da etxe hau?

norengana *(9)* : norengana */ norengana? anaxagana, neskaxearengana (9):* norengana? anaiarengana, neskarengana.

norenganik *(9)* : norengandik

norengatik *(9)* : norengatik */ norengatik il dei? anaxarengatik (9):* norengatik hil dute? anaiarengatik.

norentako *(7, 9)* : norentzat, norendako */ norentako eragu tzu? enetako eragu dur (7):* norentzat ekarri duzu? niretzat ekarri dut. */ norentako da atxezua? (7):* norentzat da jaunartzea? */ norentako da? konentako, korrentako, karentako (9):* norentzat da? honentzat, horrentzat, harentzat.

nori *(9)* : nori */ nori? niri, iri, zuri, kari, guri, xer, ker (9):* nori? niri, hiri, zuri, kari, guri, zuei, haiei.

norinai *(5)* : edonori, nornahiri */ eztur kupidarik norinai zernaien erraiteko (5):* ez dut eragozpenik edonori edozer esateko.

nornai *(5)* : edonor, nornahi

nornaiden *(3)* : edonor, nornahi */ nornaidenek ar´ tzan ojadiza bere anaxari, merexiten du juezak kondena dazan (3):* bere anaiari ezinikusia har diezaion edonork, epaileak kondena dezan merezi izango du.

nornaidion *(2)* : edonor, nornahi

-nto *(5, 11)* : -txo */ ezkilanto (5, 11):* kanpaitxo.

nula *(8)* : nola */ nula etzia[n] erraitan? erraitan nia[n]! (8):* nola ez hidan esaten? esaten nian!

nun *(7, 8)* : non */ nun dago aita? (7):* non dago aita? */ nun daude eriak? eskian (7):* non daude hatzak? eskuan. */ nun dago? (8):* non dago?

nunzio *(5)* : udaltzain, herri-mutil

nuzio *(2)* : *(erl.)* nuntzio */ juezaren eskiuetan eta nuziuarenetan (2):* epailearen eskuetan eta nuntzioarenetan.

Ñ

ñabar *(5)* : nabar
ñabarska *(5)* : nabarxka
ñabla *(5, 7, 8, 10)* : labana */ ñabla bateki bizia gentu du (7):* labana batekin bizia kendu du.
ñana *(5)* : *(haur.)* apaiz OH. Azkuek ´apaiza edo pertsona errespetagarri bat´ oharrarekin dokumentatua.
ñañi (egin) *(5)* : tati egin (umeei) OH. Umeei zerbait eskaini eta ez eman.
ñaño *(5)* : ipotx, nano
ñapur *(5)* : gozozale (pertsonak eta abereak)
ñapurtu *(5)* : gozozaletu
ñar 1 *(2, 3, 9)* : *(bot.)* lahar, sasi */ biltan dreia ote mats arbole ñardunetarik? (3):* mahatsa biltzen ote dute zuhaixka lahardunetatik? */ ñarra (9):* laharra.
ñar 2 *(5)* : egur-izpi
ñardetsi *(3, 4, 5, 7, 9)* : erantzun, ihardetsi */ [galteginez eta] ñardetsiz (3):* galdetuz eta erantzunez. */ ´jeina´ ñardetsi zaun pajeak (4):* ´jauna´ erantzun zion zerbitzariak. */ galte eginez eta ñardetsiz (7):* galdeginez eta erantzunez. */ ñardetsi diar (9):* ihardetsi diat. */ ñardets´an amari (9):* erantzun iezaion amari.
ñardoi *(9)* : lahardi, sasidi
ñarre 1 *(5)* : gihar (haragiarena)
ñarre 2 *(5)* : *(bot.)* zurgizen
ñarreki 1 *(5)* : *(suk.)* giharki
ñarreki 2 *(5)* : zurgizenki, egurki (zurgizenaren egur zatia)
ñarro *(5, 11)* : ñarro, baxu (pertsona) OH. Iparraldean ere dokumentatua.
ñarrotu *(5)* : erdi itxi, txilotu (begiak)
ñartxatxori *(5)* : *(heg.)* erregetxo
ñartzadoi *(5)* : lahardi, sasidi
ñartze *(5)* : lahardi, sasidi
ñasta *(5)* : ñasta (mamurtzearen onomatopeia) */ ñasta-ñasta [xan] (5):* gogorik gabe jan. OH. Ikus ´ñiska-ñaska´ eta ´ñiski-ñaska´ sarrerak.
ñaunsi *(5)* : zaunka
ñaunsi egin *(5, 7)* : zaunka egin */ txakurrak ñaunsi egiten du (5):* txakurrak zaunka egiten du.
ñaur 1 *(2, 3, 4, 5, 9, 10)* : neu, nihaur */ ñauren lagun guzioak [estimetan dutud] ñauren burioa bikala (2):* neure lagun guztiak estimatzen ditut neure burua bezala. */ ñaur errezibitan nu (3):* neu hartzen nau. */ ñaurek baitur soldado ene ordeniuara (3):* neuk soldadua baitut ene aginduetara. */ ez daizeid izaguntu ñaurnak (3):* ez zaituztet ezagutu neureak. */ ñaurek gentan tiat ellu kuek (4):* nihaurek kentzen ditut euli hauek. */ ñaurek [erranen diar] (9):* neuk esango diat. */ pesa tzurala ñaurek (9):* neuk pisa ditzadala. */ ñaurek ere eginen nia orai (10):* neuk ere egingo nuen orain.
ñaur 2 *(7, 9)* : bakarrik */ baratu nintzen ñaur etxean (7):* etxean bakarrik geratu nintzen. */ ñaur [xin naz] (9):* bakarrik etorri naiz. */ ñaurek [xan diar] (9):* bakarrik jan dut. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
ñaurentu *(5)* : neuretu

ñaursik *(7)* : bakarrik */ zar eta ñaursik [nun] (7):* zahar eta bakarrik naun.
ñausi *(8)* : zaunka OH. Mitxelenak ´zaunka egin´ adieran ere dokumentatua.
ñaztura *(5)* : *(met.)* tximistargi, oinaztargi
ñeora (ez) *(5)* : inora (ez)
ñeur (ez) *(2)* : inor (ez) */ ñeurk ere laguntu bagerik (2):* inork ere lagundu gabe. */ ñeuren nestaterik bagerik (2):* inoren beharrik gabe. */ aita, zoinek ezpaitu ñeurenganik prozeditan (2):* aita, zein ez baita inorengandik e(ra)tortzen. */ ñeurí re ezagola ebats (2):* inori ere ez diezaiogula ebats.
-ñi *(8, 10)* : -txo */ amañi (8):* amona(txo). */ besarkañi (10):* besarkadatxo.
ñierri *(5)* : *(nek.)* liho-sail, liherri
ñika 1 *(5)* : begirada
ñika 2 *(5)* : begi-keinu
ñika-ñaka *(5)* : ñika-ñaka (begiak kliskatzen)
ñikatu 1 *(5)* : begiratu
ñikatu 2 *(5)* : begi-keinua egin
ñikatu 3 *(5)* : kliskatu (begiak)
ñiki-ñaka 1 *(5)* : xaxaka, zirika
ñiki-ñaka 2 *(5)* : bultzaka
ñiki-ñakaka 1 *(5)* : haserre, suminez
ñiki-ñakaka 2 *(5)* : bultzaka, ukondokadaka
ñiñi 1 *(5)* : *(haur.)* haur, ume
ñiñi 2 *(5)* : *(haur.)* jostailu
ñirro-ñarro *(5)* : miope
ñiska-ñaska *(5)* : ñiski-ñaska (mamurtzearen onomatopeia) OH. Ikus ´ñasta´ sarrera.
ñiski-ñaska *(4, 5)* : ñiski-ñaska (mamurtzearen onomatopeia) */ ñiski-ñaska arroitu egiten zion mastekatako tenpran (4):* ñiski-ñaska zarata egiten zuen mamurtzeko garaian.
ño *(5, 7, 10)* : txiki */ oillar-mezatik landa etsean egiten den apario ño bat da xurgin-aigaria (5):* oilar-meza ondoren etxean egiten den jatordu txiki bat da sorgin-afaria. */ mazte ñoa beti gazte (5):* emazte txikia beti gazte. */ bagoaren gisa da atze kau, baia ñoago ta me (5):* pagoa bezalakoa da zuhaitz hau, baina txikiagoa eta mehea. */ ño eta andi (5):* txiki eta handi (denak). */ ni ñoara [xoanen nun] (7):* ni (herri) txikira joango naun. */ tupla ñoa (10):* tipula txikia. */ ñoak (10):* txikiak.
-ño *(1, 2, 5, 6, 9)* : -ño, -txo */ bizkarñoa (1lm):* bizkartxoa. */ mendiak eta mendiñoak, mendiek eta mendiñuek (2):* mendiak eta menditxoak. */ adarño, sugeño (5):* adartxo, sugetxo. */ mandoño (6):* mandotxo. */ aurño bat (9):* haurtxo bat. */ alabañoa (9):* alabatxoa.
ño-ño *(5)* : ño-ño (ardiei deitzeko)
ñodanik *(6)* : txikitandik
ñoiz (ez) *(3, 5)* : inoiz (ez) */ etzeia, bada, ñoiz ere leitu? (3):* ez al duzue, bada, inoiz ere irakurri? */ ñoiz ez sekula ere sor ez deila frutu yitarik (3):* inoiz ere ez dadila fruiturik sor higandik. */ ñoiz ere ez sekula ofenditako (3):* inoiz ere ez iraintzeko.
ñoiz ere ez *(5)* : inoiz ere ez
ñokorro *(5)* : kakanarru, baxu (pertsona)
ñola (ez) *(5)* : inola (ez) */ [erle] korien eztia gore aurrak ñola ezin doke murtxa (5):* erle horien eztia gure haurrak inola ezin du murtxikatu.

ñola´re *(4)* : inola ere, nolabait */ al barimadu ñola´re eskribi beztad noizko akabaten dion korko lana (4):* ahal baldin badu inola ere idatz biezat noiz bukatuko duen horko lana.

ñola´re ez *(3, 9)* : inola ere (ez) */ ñola´re etzazeila juramentorik egin (3):* inola ere ez ezazuela juramenturik egin. */ eztiteken [igar] ñolareko gisa (9):* ez daiteken igaro inola ere.

ñolako *(4)* : inolako */ ez dokei ikas ñolako gisan (3):* ez dezakete inolako modutan ikasi.

ñolaz ere ez *(3)* : inola ere (ez)

ñon ere (ez) *(4, 5, 9, 10)* : inon ere (ez) */ nola ez baitei ñon ere entzuten ele bat (4):* inon ere hitz bat entzuten ez dutenez. */ minik ñon ere bage (4):* minik gabe inon.

ñontik *(4)* : inondik */ ni osagarriz beterik [nago], eztud ñontik minik sendi (4):* ni osasunez beterik nago, ez dut inondik minik sentitzen.

ñoño 1 *(5)* : *(haur.)* nini

ñoño 2 *(5)* : *(haur.)* lo-lo

ñoño 3 *(5)* : *(haur.)* logura

ñor (ez) *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : inor (ez) */ ñor il estezagula (2):* inor ez dezagula hil. */ ezbaizen ñor ere atrebitan igartra bide kartarik (3):* ez baizen inor ere ausartzen bide hartatik igarotzera. */ egunaren eta ordiuaren gain ñork ere ez daki (3):* egunari eta orduari buruz inork ere ez daki. */ ez da porfiatan ñorekin ere (3):* ez da inorekin ere tematzen. */ gunian mandatu zion ñori´re ez lezeila erran (3):* orduan agindu zuen inori ere ez liezaiotela erran. */ badakigu ñork ere eztakiola obeki (4):* badakigu inork ere ez dakiela hobeto. */ egun bere ofizioa [daki] ñork bino obeki (4):* egun bere ofizioa daki inork baino hobeki. */ etseko ardaunetik ez da ñor ere orditan (5):* etxeko ardotik ez da inor ere mozkortzen. */ libro zerratruk ez du ñori erakustan (7):* liburu itxiak ez dio inori irakasten. */ ez egitea ñori gaizkirik (7):* inori gaitzik ez egitea. */ nor xin da? ñor ez (7):* nor etorri da? inor ez. */ orai ñor ere ez [da] xoaitan egutxara (10):* orain inor ere ez da joaten ibaira.

ñor ere (ez) *(5, 9)* : inor ere (ez) */ ñor ere eztiaun (9):* inor ere ez zagon.

ñora (ez) *(5)* : inora (ez)

ñore *(2, 3, 4, 5)* : neure */ ñore faltaz, ñore falta andiz (2):* neure hutsez, neure huts handiz. */ jina, permeti naztazu fan nein ñore aitaren ôrztra (3):* jauna, utzidazu joan nadin neure aita ehorztera. */ bueltaten naz ñore etse erkin nazaniara (3):* atera naizen neure etxera itzuliko naiz. */ ez dokeda ote nik egin ñoriataz nai duana? (3):* ez ote dezaket nik egin neureaz nahi dudana? */ kunplitiagatik ñore itza (4):* neure hitza betetzeagatik. */ ni ere akaitruk nago ñore lanetaz (4):* ni ere nekaturik nago neure lanetaz. */ xaî naztazu ñore bekatutik (4):* garbi nazazu neure bekatutik. */ altapan eitz nazak ñore urratsean (5):* aldapan utz nazak neure urratsean. */ ñore konfesoreak emon diztein penitenzia (5):* neure aitorleak eman didan penitentzia.

ñorentako (ez) *(4)* : inorentzat (ez), inorendako (ez) */ aigaltuz gero eziola ñorentako xostan [erran zaun] (4):* afalduz gero ez zuela inorentzat josten esan zion.

ñoretu *(5)* : neuretu

ñotarik *(5)* : txikitandik

ñoto *(9)* : txiki */ llarnia ñoto [dun] (9):* larraina txikia dun.

ñototu *(5)* : larriagotu (gaixoa)

ñotto *(5, 6, 7, 8, 9, 10)* : txikitxo */ leixo ñottoa ere leixumea [da] (5):* leiho txikitxoa ere leihotxoa da. */ aur ñotto-ñottoer erraiten zabei kaur (5):* haur txiki-txikiei esaten zaie hau. */ aur ñotto bat urte batako (7):* haur txikitxo bat urte batekoa. */ beste [ganbra] bat ñottoago badiegu (7):* beste logela txikitxoago bat badugu. */ morroi ñotto bat (8):* mutiko txikitxo bat.

/ ñottua (8): txikitxoa. */ ñotto tzu, baia pollit (9):* txikitxoa da, baina polita. */ ñottoa (9):* txikitxoa. */ bei kaur dun ñotto, baia eragitan dien anitx ezne (10):* behi hau txikia dun, baina esne asko ´ekartzen´ din. */ etse ñottoa (10):* etxe txikia.

ñottorik *(10)* : txikitandik

ñottotarik *(10)* : txikitandik

ñottotarikas *(6)* : txikitandik

ñottotu *(5)* : larriagotu (gaixoa, eria)

ñotu 1 *(5)* : txikitu, txikiagotu

ñotu 2 *(5)* : erdi itxi, txilotu (begiak)

ñoxago *(5)* : txikixeago */ erroia bino ñoxago da txori kau, [beurzaia] (5):* erroia baino txikiagoa da txori hau, ipar-belea.

O

oale *(5)* : txerri-jan

oarka! *(5)* : atzera! (ganaduari esana)

oartu *(8)* : oroitu, gogoratu */ ez dra oar[tan] (8):* ez dira oroitzen.

obe *(3, 4, 5, 7, 8, 9)* : hobe */ obe da fan ztein eta eros zazein (3):* hobe da joan zaitezten eta eros dezazuen. */ obe dazaizu galtia [begi] bat (3):* hobe duzu begi bat galtzea. */ obe izanen zaun (3):* hobe izanen zitzaion. */ obe da, obe tzu, obe duk, obe dun (4):* hobe da, hobe duzu, hobe duk, hobe dun. */ [bagoak] sua du anitx obe ezik lerrak (4):* pagoak sua askoz hobea du pinuak baino. */ [azukar eta gorringo], bietarik barimadu, obe (4):* azukrea eta gorringoa, bietatik baldin badu, hobe. */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino. */ apezaren etsekoandre, ez dago bizi oberik (5):* apaizaren etxekoandre, ez dago bizi hoberik. */ obe zunien ez egin kori (7):* hobe zenuen ez egitea hori. */ ardau kori obe tzu ezi bestia (8):* ardo hori hobea duzu bestea baino. */ ni nun yi bino obe (9):* ni hi baino hobea naun. */ alabana dun obe ezik semiana (9):* labarena hobea dun semearena baino.

obeago *(7)* : hobe */ obeago izanen da guk ekus tzagun (7):* hobe izango da guk ikus ditzagun.

obedezitu *(3)* : obeditu */ nor da kaur, zoini airek eta itxasuak obedezitan baitabei? (3):* nor da haizeek eta itsasoak obeditzen dioten hau? */ seme ez deinek obedezitan aita eta amari etsearen gobernuko (3):* etxearen gobernurako aitari eta amari obeditzen ez dieten semeak.

obeki *(3, 4, 5, 9, 10)* : hobeto, hobeki */ zertako dra mandamentu kuek? jangeikuaren legekuen obeki guardatako (3):* zertarako dira agindu hauek? jainkoaren legekoak hobeki gordetzeko. */ obeki emonen naun entelegatra itzez (4):* hobeki emanen nion aditzera hitzez. */ egun bere ofizioa [daki] ñork bino obeki (4):* egun bere ofizioa daki inork baino hobeki. */ azpiek tripak ebilarazten tei obeki ezik kaltzero berriak (5):* urdaiazpikoek tripak hobeto ibilarazten dituzte oinetako berriek baino. */ obeki egonen nintzen Bardeako llerkopetan (5):* hobeki egonen nintzen Bardeako pinudipeetan. */ nik elerraitan diar obeki ezik ik (9):* nik hobeki hitz egiten diat hik baino. */ bazakin bai, nik mino obeki (10):* bazekien bai, nik baino hobeki. */ kara xoan, Uruñara, eta zortzi egunetan irabaztan dein obeki (10):* hara joan, Iruñera, eta zortzi egunetan hobeki irabazten dinate.

obeki nai *(4)* : hobeto nahian, hobeki nahian; on beharrez */ ez dud uste gatxiten zaula gaiza kuen oiltra (sic), bada guziua egiten dud obeki nai (4):* ez dut uste gaitzitzen zaionik gauza hauek igortzea, bada guztia egiten dut hobeki nahian.

oben *(5, 7)* : erru, hoben */ kortan ez du obenik (7):* horretan ez du errurik. */ yik duk obena ez nik (7):* hik dun errua ez nik.

obena! *(5)* : ahal...!, nahiago nuke... ba-!

obenen *(3, 4, 5)* : onen, hoberen */ orazionetarik zoin da obenena? (3):* otoitzetatik zein da onena? */ obrarik obenenak (3):* ekintzarik onenak. */ oraino´ re etsekuek peonik obenena nakei egitatako (4):* oraindik ere etxekoek peoirik onena naukate igitatzeko. */ [artakarroak] sua du arbole guziuetarik obenena (4):* arteak sua du zuhaitz guztietan onena. */ zomaitentako Juanak [dra], ni nago drela Mariak obenenak (5):* zenbaitentzat Juanak dira, ni nago Mariak direla onenak. */ gaizak estimatruk izan tian, bear dei akabatu obenenean (5):* gauzak estimatuak izan daitezen, onenean bukatu behar dute.

oberta 1 *(3)* : eskaintza */ zore oberta altarian presentatan tzun tenpran (3):* zure eskaintza aldarean aurkezten duzun garaian. */ oberta nik ñore partez ofrezi nezana zore probetxutan [izanen da] (3):* nik neure partez eskain nezan eskaintza zure probetxutan izanen da.

oberta 2 *(5)* : *(erl.)* eskaintza-ogi

obetu *(10)* : hobetu */ obetako (10):* hobetzeko.

obi 1 *(1, 2, 5)* : hobi */ obieta (1):* hobi eta.

obi 2 *(2)* : hilobi */ obian [egon zen korpitza] (2):* hilobian egon zen gorputza.

obiago *(8)* : hobe */ obiago ezi bestia (8):* bestea baino hobea.

obiratu *(5)* : hobiratu, lurperatu

oboro *(4, 5)* : gehiago, haboro */ anke ziola nik bino bi urte oboro, anixko jake [zegon] (4):* nahiz eta nik baino bi urte gehiago izan, nahikoa bizkor zegoen. */ eztaud eskribitan oboro (4):* ez diot gehiago idazten. */ koneki adios, ez bada oboroagoko nobedaderik (4):* honekin agur, ez bada gehiagoko berririk.

oboroago *(4)* : gehiago */ oboroago lan xunta dazakion (4):* lan gehiago pila diezaioan (hik hari).

oboroagotan *(4)* : gehiagotan */ nestatia oboroagotan da ungurunetan, noiz ta karrontek galarztan teinian erintziuak (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan, noiz eta izozteek galarazten dituztenean ereintzuak (labore-uztak).

obrazale *(3)* : egile */ [bekatiuaren obrazale dren oro] genten dei (3):* bekatu egileak diren guztiak kenduko ditu.

obro *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : gehiago, haboro */ Kristo gizon dena bekin batez, lurreko kriatura guziak beino obro [da] (2):* Kristo gizon den bezainbatean, lurreko izaki guztiak baino gehiago da. */ zertako obro [daude]? (2):* zer gehiagotarako daude? */ nik erraiten daizeid obro (3):* nik gehiago esaten dizuet. */ zer, ez dia korpizak obro balio ezik beztiduak? (3):* zer, ez du gorputzak gehiago balio jantziak baino? */ ez da diszipulua obro ezik bere maistrua (3):* ez da ikaslea gehiago bere maisua baino. */ iburni bat beino obro dagua? (3):* infernu bat baino gehiago al dago? */ ez obrorik bekatiuara utzultako (3):* ez gehiago bekatura itzultzeko. */ zerengatik obro? (3):* zer gehiagogatik? */ lloba solfistak ere eztu esturiatan obro solfa (4):* biloba solfistak ere ez du gehiago solfeoa ikasten. */ badu ogei edo obro urte (4):* duela hogei urte edo gehiago. */ obro tenpra [ekunen dud] (4):* denbora gehiago edukiko dut. */ eztud esprantza andirik ekusi biar daudala obrorik (4):* gehiagorik ikusi behar dudan itxaropen handirik ez dut. */ anitx daki sagiuak, baia obro gatiuak (5):* anitz daki saguak, baina gehiago katuak. */ etzaiala ekun obro trato gaixtoareki (5):* ez ezaala tratu gehiago eduki gaiztoarekin. */ indarrak biltruk obro doke ezik barriatruk (5):* indarrak bildurik gehiago dezake barreiaturik baino. */ irorogeita bost urte edo obro bordaltruk nagola, eskontruk (8):* hirurogeita bost urte edo gehiago ezkondurik nagoela, ezkonduta. */ balin leinak kiatan badu, bigarnak obro (8):* baldin lehenak usaintzen badu, bigarrenak gehiago. */ urte bat edo kola, ez obro (8):* urte bat-edo, ez gehiago. */ obroxago (9):* gehixeago. */ ezin egon obro, bere laniara [xoan biar dei] (10):* ezin gehiago egon, beren lanera joan behar dute. */ nai noke bizi zomait urte obro (10):* zenbait urte gehiago bizi nahi nuke. */ yik badakin obro ezi nik, elerraitan (10):* hik nik baino gehiago dakin, hizketan.

obro eta obro *(4)* : gero eta gehiago */ ekuz naztazu obro eta obro ene gaxtotarzunetik (4):* garbi nazazu gero eta gehiago nire gaiztotasunetik.

obroago bage *(5)* : besterik gabe, gehiagokorik gabe

obroen *(4, 5)* : gehien */ obroena barregarritako izanen zazka ene astakeriak (4):* gehiena

barregarritarako izanen zaizkio ene astakeriak. */ lerra da obroen aztan dena (4):* pinua gehien hazten dena da. */ otakak obroena du ogei urteren bizia (4):* otakak gehienez hogei urteko bizia du. */ bigarren abentiara eltuz geroz, elurra obroena gatzatan da (5):* abendura helduz gero, elur gehiena gatzatzen da.

obroenaz *(5)* : gehienez

obrotako *(3)* : gehiago (adj.) */ kemen tzei Salomon beino obro dena edo obrotako dena (3):* hemen duzue Salomon baino gehiago dena.

obroxago *(4)* : gehixeago */ konek urdu du badiola obroxago azku eratsukitako (4):* [maisu] honek ematen du baduela gogo gehixeago irakasteko.

obroxao *(10)* : gehixeago

obruago *(3)* : gehiago */ [zarrek] obruago akusatan zabeilarik ere, deus ezion errespondítu (3):* zaharrek gehiago salatzen zutela ere, ezer ez zuen erantzun.

oddolko *(5, 10)* : *(suk.)* odolki

oddoltsu *(5)* : *(bot.)* odolki

odei 1 *(2, 3, 5, 7)* : *(met.)* hodei */ iñazturak eta odeiak (2):* tximistak eta hodeiak. */ odei argi bat xin zen (3):* hodei argi bat etorri zen. */ zeuriko odeien gainian (3):* zeruko hodeien gainean. */ goiz odei-gorri, arrats itur-begi (5):* goiz hodei-gorri, arrats itur-begi. */ odeia Jakara, tenpra kakara (5):* hodeia Jakara, eguraldia kakara. */ odeiak (7):* hodeiak.

odei 2 *(2, 4, 8, 9)* : *(met.)* trumoi, ostots */ tenpra digu euritsi, badu bizpor egun ez dela ixiltan odei marraka (4):* eguraldia euritsu dugu, badira bizpahiru egun ez dela trumoi hotsa isiltzen. */ odeia marrakaz (9):* trumoia burrunbaka.

odei-erori *(5)* : *(met.)* behe hodei OH. Mendiak ukituz igarotzen diren behe hodeiak.

odei-malta *(5)* : *(met.)* hodei beltz

odei-marraka *(5, 8)* : *(met.)* trumoi, ostots

odei-saka *(5)* : *(met.)* hodei beltz (handia)

odeitu *(9)* : hodeitu */ odeitu dun (9):* hodeitu dun.

odeiztatu *(3)* : *(met.)* hodeiztatu */ tenpestade izanen da egun, zeren zeuria baitago odeiztatruk (3):* gaur ekaitza izanen da, zeren zerua hodeiztaturik baitago.

odeizu *(5, 7)* : *(met.)* hodeitsu */ orai eztago odeizu (7):* orain ez dago hodeitsu.

odi *(1)* : hodi */ odieta (1):* hodi eta. OH. toponimian ´odia´ hitzak ´sakana´ edo ´mendiarte´ esanahiak ere izan ditzake.

odoi 1 *(5, 9)* : *(met.)* hodei */ arrats odoi-gorri, biramenean eguzku gorri (5):* arrats hodei-gorri, biharamunean eguzki gorri. */ odoi-adar bat erkitan denean gorri ta dundu, euria eragutan du (5):* hodei-adar bat ateratzen denean gorri eta urdin, euria ekartzen du. */ zer beltz xitan [den] odoia! (9):* zer beltz datorren hodeia! */ odoiaren atzean euria (9):* hodeiaren atzean euria.

odoi 2 *(5, 9, 10)* : *(met.)* trumoi, ostots */ odoia sendi tzu (9):* trumoia sentitzen da. */ odoia [senditan dun] (10):* trumoia sentitzen dun.

odoi-adar *(5)* : *(met.)* hodei-adar, hodeitxo */ kan-kebenka erkitan dren odoi me kurak odoi-adarrak dra (5):* han-hemenka ateratzen diren hodei mehe haiek hodei-adarrak dira.

odoi-malta *(5)* : *(met.)* hodei beltz (handia)

odoizu *(9)* : hodeitsu */ odoizu diozu (9):* hodeitsu dago.

odol 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : odol */ odol usuri den guziua lurraren gainian (3):* lurraren gainean isuri den odol guztia. */ aragia eta odola (3):* haragia eta odola. */ ene odola izanen baita usuririk anitxengatik (3):* nire odola anitzengatik isuria izango baita. */ libra naztazu odoletarik (4):* libra

nazazu odoletatik. */ odola erkiten denean aotik, señale ilteko ezkapatan dela korpizetik (5):* odola ahotik ateratzen denean, seinale hiltzeko ateratzen dela gorputzetik. */ odola gorri da (7):* odola gorria da. */ gizon [konek] du odola burian (8):* gizon honek odola buruan du. */ odola (10):* odola.

odol 2 *(10)* : *(suk.)* odolki */ xerria il eta lokeinkak egin, ta odolak, eta xan (10):* txerria hil eta lukainkak egin, eta odolkiak, eta jan.

odol usurtu *(3)* : *(med.)* odol jario, odol isuri */ [Jesusek] emazte bat odol usurtiua batarik [libratan du] (3):* Jesusek emakume bat odol isuri batetik libratzen du.

odol zuri *(7)* : zaraitzuar OH. Uztarrozekoek zaraitzuarrei jarritako izengoitia da.

odol-oztu *(5)* : senide hondar (urruna) */ odol-oztuak (5):* senide hondarrak.

odol-yoaite *(5)* : odol jario, odol isuri

odola burutu *(5)* : odola gatzatu

odolbelar *(4)* : *(bot.)* odolur

odolburutu *(5)* : odola gatzatu */ odolburutua (5):* odol gatzatua.

odoldi *(5)* : *(bot.)* goroldio

odoleztatu *(5)* : odoleztatu

odolki *(5)* : *(suk.)* mondongo (odolki mota)

odolko *(5, 10)* : *(suk.)* odolki */ odolko xuri[a] (5):* odolki zuria (odolik gabe egina). */ lukainka, gianso eta odolko (10):* lukainka, xingarra eta odolkia.

odolon *(8)* : *(suk.)* odolki (handia) */ ´piltzo´ odolon gizen bat [dun], gizenena (8):* ´piltzo´ odolki gizen bat dun, gizenena.

odoloztu *(5)* : lasaitu

odoluri *(5)* : ubeldura, ubelune (azalekoa)

odolustu *(7)* : odolustu

odolutsu *(5)* : *(suk.)* odolki

ofiziale *(3)* : *(mil.)* ofizial */ [Kafarnaunen] sartan zelarik, erkin zitzaun enkontriuara einturiako ofiziale bat (3):* Kafarnaunen sartzen zela, bidera atera zitzaion zenturiako ofizial bat. */ eta replikatu zion einturiako ofizialiak (3):* eta zenturiako ofizialak erantzun zuen.

ofizio *(4)* : lanbide, ofizio */ egun bere ofizioa [daki] ñork bino obeki (4):* egun bere ofizioa daki inork baino hobeki.

ogale *(5)* : txerri-jan OH. Azkuek ´txerri-jana edo beste abere batzuena´ oharrarekin dokumentatua.

ogara *(4)* : altan (txakur emea arreske)

ogarri *(5)* : bero (eguraldiaz) */ zer egun ogarri izan da egunkoa! (5):* zer egun beroa izan den gaurkoa!

ogartu 1 *(8, 9, 10)* : oroitu, gogoratu */ ogartu naz (8):* oroitu naiz, gogoratu dut. */ ogartu nun (9):* oroitu naun. */ orai ez nun ogart (9):* orain ez naun oroitzen. */ muttikoek kantatzen [zein], bea nik orai ez ogart nola den kantxoya (10):* mutikoek kantatzen zuten, baina ni orain ez naiz oroitzen nola den kantua. */ ekusi dur ogartan drela nitaz (10):* nitaz oroitzen direla ikusi dut. */ esker anitx ogarteaz (10):* eskerrik asko oroitzeagatik.

ogartu 2 *(5)* : handiarena egin (mutikoek) OH. Azkuek ´adibidez, zigarroa errez´ adibidearekin dokumentatua.

ogartu 3 *(5)* : bizi, bizkor (adj.) (adimenez) */ morroin ogartua (5):* mutiko bizia, bizkorra (adimenez)

ogei *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : hogei */ ogeita bat (3):* hogeita bat. */ otakak obroena du ogei urteren bizia (4):* otakak gehienez hogei urteko bizia du. */ ogeita borz milla (4):* hogeita bost mila. */ ogeita zazpi pezeta (4):* hogeita zazpi pezeta. */ ogeita zazpira errial (4):* hogeita zazpina erreal. */ orobat balio ekun dei Antoniaren amar arraultzek, nola Petraren ogeiek (4):* berdin balio izan dute Antoniaren hamar arrautzek eta Petraren hogeiek. badun ogeita borz urte eta bordaltu bear dun (5): badun hogeita bost urte eta ezkondu behar dun. */ ogei ta iror (7):* hogeita hiru. */ ogeiť iror (8):* hogeita hiru. */ ogeita bost [urte] (8):* hogeita bost urte. */ ogeita bat, ogeita bi, ogeitiror (10):* hogeita bat, hogeita bi, hogeita hiru. */ ogeita sei urte (10):* hogeita sei urte.

ogeigarnen *(3, 7)* : hogeigarren */ ogeigarnen kapitulua (3):* hogeigarren kapitulua. */ ogeigarnen ikasgei[a] (7):* hogeigarren ikasgaia.

ogeitabatgarnen *(3, 7)* : hogeitabatgarren */ ogeitabatgarnen kapitulua (3):* hogeitabatgarren kapitulua. */ ogeitabatgarnen ikasgei[a] (7):* hogeitabatgarren ikasgaia.

ogeitamar *(3, 7, 8, 10)* : hogeita hamar */ lur onian emon zein frutu, non batarik ein, non irorogei, non ogeitamar (3):* lur onean fruitua eman zuten, non batetik ehun, non hirurogei, non hogeita hamar. */ ogeitamar urtetan baratu alargun (8):* hogeita hamar urterekin geratu (nintzen) alargun. */ ogaitamazazpi (8):* hogeita hamazazpi. */ ogeitamar urte Madriden (10):* hogeita hamar urte Madrilen.

ogen *(5, 7, 9, 10)* : erru, hoben */ kortan eztion ogenik (7):* horretan ez zagon hobenik. */ yik dun ogena (9):* hik dun errua. */ nork diegu ogena, e? (10):* nork du errua, e?

ogi 1 *(2, 3, 5, 7, 9, 10)* : ogi */ zuk eguzu gore egunorozko ogia egun (2):* emaguzu zuk gure eguneroko ogia gaur. */ ez solo ogiz bizi da gizona (3):* gizona ez da ogiz soilik bizi. */ gore egunorozko ogia emon dazaiguzu egun (3):* gure eguneroko ogia emaguzu gaur. */ borz ogiak [artu ztion] (3):* bost ogiak hartu zituen. */ [ez daizeid erran] ogiagatik (3):* ez dizuet erran ogiagatik. */ kaur erraiten du ogirik eragu ez digulakoz (3):* hau erraten du ez dugulako ogirik ekarri. */ aita lazoen umek ogi txiki eta anitx bizio (5):* aita laxoen umeek ogi gutxi eta bizio asko. */ [zarrek] gazten ogia xatan baitei gaizki merexitruk (5):* zaharrek gazteen ogia jaten baitute gaizki merezirik. */ betak ogiaz xan tut (5):* zerbak ogiarekin jan ditut. */ [kek] ogiak artu ditei (7):* haiek ogiak hartu dituzte. */ eztei erden ogirik (7):* ez dute ogirik aurkitu. */ ogia nasi [nai nizun] ta eztiezt al ekuntu (9):* ogia nahasi nahi nuen eta ez dut ahal izan. */ eraman zan ogi kori (10):* eraman ezan ogi hori. */ gazte guziek ogia xatan bitei gaixki gaixki merexiturik (10):* gazte guztiek ogia jaten baitute gaizki merezita. */ ene ama tsaistan zia etsera, ogiaren egitra (10):* ene ama (menditik) etxera jaisten zen ogia egitera.

ogi 2 *(5)* : *(bot.)* gari */ alorrak ogia [emoiten du] (5):* alorrak garia ematen du.

ogi ñotto *(7)* : *(suk.)* opil

ogi-askari *(5)* : askari arin

ogi-begi *(5)* : ogi-begi

ogi-bigi *(5)* : *(bot.)* gari-ale

ogi-bizardun *(5)* : galburu bizardun

ogi-kurrusku *(5)* : ogi-azal

ogi-ore *(5)* : gari-ore

ogi-zerra *(5)* : ogi-xerra

ogibide *(5)* : ogibide, lanbide

ogiburu *(5)* : *(bot.)* galburu

ogierre *(5)* : *(suk.)* gari-ogi

oginarzale *(7)* : okin */ Gillermo dun oginarzale (7):* Gillermo okina dun.
ogitza *(5)* : garitza (gari-ale pila)
ogoi *(4, 7)* : hogei */ ogoita zortzi (4):* hogeita zortzi. */ nik ogoi urte dutur (7):* nik hogei urte ditut.
oi *(2, 3, 5, 7, 8, 9, 10)* : ohe */ oitik xaigitian [eta] oiara xoaitian [krutxearen señalia egin] (2):* ohetik jaikitzean eta ohera joatean gurutzearen seinalea egin. */ perletikatu bat etzinik oi batian (3):* elbarritu bat ohe batean etzanik. */ xagi zte, ar zazu ziauren oia eta fan zte (3):* jaiki zaitez, har ezazu zeure ohea eta joan zaitez. */ [Jesusek ekusi zion Pedroren] amagiarreba oian kalenturarekin (3):* Jesusek Pedroren amaginarreba ikusi zuen ohean sukarrarekin. */ irur egun igari zion oian (4):* hiru egun igaro zituen ohean. */ badakian oian yagola (5):* bazekinak ohean hagoela. */ on da oian sartea (5):* ona da ohean sartzea. */ oi batako ganbra (7):* ohe bateko logela. */ xagi naz [eta] oia egin dur (7):* jaiki naiz eta ohea egin dut. */ oian nago (7):* ohean nago. */ bi oireki (7):* bi oherekin. */ guk gizona oian [diegu] (8):* guk gizona ohean dugu. */ oitik kanpora (8):* ohetik kanpora. */ oiera (8):* ohera. */ nai dei aigal fite ta oiara xoan (9):* azkar afaldu nahi dute eta ohera joan. */ oya (10):* ohea. */ oyara [xoan dun], pausatra (10):* ohera [joan dun], atseden hartzera. */ aurra oiara (10):* haurra ohera. */ ezin mobi oitik azkatako (10):* ezin mugitu ohetik jaikitzeko. */ oiko manta (10):* oheko manta.
oi! *(8)* : oi! */ oi! arren... bai, bai! (8):* oi, bada... bai, bai! */ oi! zer onki! (8):* oi! zer ongi!
oi-oixal *(5)* : ohe-oihal; burusi, manta (?)
oia egin *(8)* : ohea egin, ohea zuzendu */ zazpietan xagi, [eta] oia egin [dur] (8):* zazpietan jaiki, eta ohea egin dut. OH. Hiztegi honen egilea, Zumarragan, baserritar bati entzunda dago ´ohea ez dela egiten, baizik eta zuzendu egiten dela´. Argibide moduan ´ohea arotzek egiten dute´ ere entzunda dago.
oiada *(5)* : *(geog.)* mendiarte, haizpitarte OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
oial *(5)* : oihal
oian *(1)* : *(geog.)* baso */ oian artea (1lm):* baso artea.
oidura *(5)* : aztoramen, asaldura */ ardiak otsoen lotsa drelarik, oidura bat egitan dei (5):* ardiak otsoen beldur direnean, asaldura izaten dute. OH. Azkuek ´artaldeen mugimendua´ esanahian ere dokumentatua.
oieski *(5)* : mendebalde, sartalde
oiezki *(1)* : laiotz, ospel */ oiezkia (1lm):* laiotza, ospela.
oikaxal *(5)* : koltxoi-azal
oikazal *(5)* : koltxoi-azal
oilarko *(5)* : *(heg.)* oilasko
oilo *(5)* : *(heg.)* oilo */ oilo errule gaixtoak ez du abia onik erdeiten (5):* oilo errule txarrak ez du habia onik aurkitzen. */ oiloak erruteko nai du abiatsakia (5):* oiloak erruteko nahi du habia-aitzakia.
oilokunde *(5)* : oilakunde (oilo eguna) OH. Ikus ´oillokunde´ sarrera eta bertako adibidea.
oilotata *(5)* : aztarrika-hots (oiloena) OH. Oiloek aztarrika egitean ateratzen duten zaratatxoa.
oilozale *(5)* : *(hegk.)* belatz OH. Zaraitzun ´olloxale´ dokumentatua.
oiltu 1 *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : bidali, igorri */ amabi kuek oiltu ztion Jesusek (3):* hamabi hauek bidali zituen Jesusek. */ ni oiltu nindion bera [da] (3):* ni bidali ninduen bera da. */ bea ztei nik oiltan daizeila ardi bikala otsuen artian (3):* begira ezazue nik bidaltzen zaituztedala ardiak bezala otsoen artean. */ egotxtan bagutzu kementik, oil gitzazu txerri saldo kortra (3):* hemendik botatzen bagaituzu, bidal gaitzazu txerri saldo horretara. */ eska ztei egitarako nausiari oil tzala*

egitari bere alurriara (3): eska iozue nagusiari egitarako bidal ditzala igitariak bere alorrera. */ semiak [bere aînguriuak] oilten tu (3):* semeak bere aingeruak bidaliko ditu. */ oiltian (3):* bidaltzean. */ karta oiltu daudanetan kainbat xardokitu daud (4):* bidali dizkiodan gutunetan hainbat hitz egin diot. */ nontiknaiden xin dein, nik oilten daud mandua zainareki (4):* nonahitik etor dadin, nik mandoa bidaliko diot zainarekin. */ al dionian oil dazaula nai dion guziua (4):* ahal duenean bidal diezaiola nahi duen guztia. */ [neskato bat] oiltu nian kara (5):* neskato bat bidali nian hara. */ banian zerbait aizina deuri oilten zaitadala (5):* banian zerbait itxaropen dirua bidaliko zidala. */ oil erle kuek kartx[i]ritik gain kartra (5):* bidali erle hauek baratzetik gain hartara. */ zuek oiltan tzei (7):* zuek bidaltzen duzue. */ oiltu diar mezu (9):* mezua bidali diat. */ baskaria mendiara [oiltu diar] (9):* bazkaria mendira bidali diat. */ oiltan [zien] (10):* bidaltzen zuen. OH. Zuberoan ´ohildü´ eta ´ohiltü´ dokumentatuak, adiera gorabeherekin.

oiltu 2 *(4, 5)* : bidali, bota */ altakan elluen oiltako bear ztein lakaioak (4):* ondoan euliak bidaltzeko behar zituen lekaioak. */ egun eta betiko oiltan yaid etse kontarik (5):* gaur eta betiko bidaltzen haut etxe honetatik.

oiltu 3 *(5)* : uxatu, bidali

oillaba *(5)* : ardagai

oillaka *(5)* : otzal, altan (txakur emea arreske)

oillanta *(5)* : *(heg.)* oilanda

oillar *(5)* : oilar */ oillarra, txuria (5):* oilarra, zuria.

oillar-meza *(5)* : *(erl.)* oilar-meza */ oillar-mezatik landa etsean egiten den aparío ño bat da xurgin-aigaria (5):* oilar-meza ondoren etxean egiten den jatordu txiki bat da sorgin-afaria.

oillarko *(5)* : *(heg.)* oilasko

oillobusti *(5)* : oilobusti, koldar

oillojale *(5)* : *(heg.)* miru */ oilloak oillojalearen uxtuaren sendite[an] ezkapatan dra (5):* oiloek miruaren txistua sentitzean ihes egiten dute.

oillokunde *(5)* : oilakunde (oilo eguna) */ oillokunde-egunean, oilloa makila baten puntan lotruk, morroiner begiak estaltzen ziozkan maisuak; gunean, iru makilukaldi aldi bapanean emon ta iltan ziona maisuakin faitan zen oilloaren [x]atra (5):* oilakunde egunean, oiloa makila baten puntan loturik, mutilei begiak estaltzen zizkien maisuak; orduan, hiru makilakada aldi bakoitzean eman eta hiltzen zuena maisuarekin joaten zen oiloa jatera.

oillóloka *(5)* : oilaloka

oillozale *(5)* : *(heg.)* miru

oin 1 *(3, 5, 7)* : *(anat.)* oin */ [genteak] xarrekitan zazkau[n] oinez lurraz (3):* jendea atzetik zihoakion oinez lurretik. */ bere zankuetra edo oinetra [izari ztien eriak] (3):* haren oinetara jarri zituzten gaixoak. */ oinez arroitu egiten diona (5):* oinez egiten duen zarata. */ oin min dur (7):* oinetako mina dut. */ oinak (7):* oinak.

oin 2 *(5)* : *(erai.)* solairu, pisu */ lein oina, bigarren oina (5):* lehen solairua, bigarren solairua.

oin 3 *(5)* : *(bot.)* zuhaitz-landare */ ein lerroin (5):* ehun pinu-landare.

oin-buruak *(5)* : hanka-buruak (txerriarenak)

oindo *(5)* : onddo */ unre-oindo[a] (5):* urre-onddoa.

oineri *(5)* : *(anat.)* behatz

oinestu *(5)* : oinustu

oinez *(6, 9)* : oinez */ xarreki adi oinez (9):* jarrai ezak oinez.

oinez oin *(7)* : orpoz orpo

oinka 1 *(5)* : oinka (neurtuz)
oinka 2 *(5)* : oinez
oinkatu *(7)* : zapaldu
oino 1 *(8)* : oraindik */ oino kola daudezu (8):* oraindik horrela daude.
oino 2 *(8, 9)* : are */ oino meago (8):* are meheagoa. */ kura dun oino meago ezi ni (9):* hura are meheagoa dun ni baino.
oinoztura *(5)* : *(met.)* tximista
oinpeko *(5)* : *(tek.)* ehundegi-pedal
oiñez oin *(5)* : orpoz orpo
oiñezko *(5)* : oinezko
oiolko *(5)* : *(suk.)* odolki
oiolkoxuri *(5)* : *(suk.)* odolki zuri OH. Azkuek ´odolik gabe egindako hestekia´ oharrarekin dokumentatua.
oiondarpeko *(5)* : ohe-hondarpeko OH. Koltxoiaren behealdeko bordatua.
oipe *(5)* : ohepe
oipeko *(5)* : pixontzi
oitaztu *(5)* : ohealdi luzea egin
oiu *(5)* : oihu */ gizon txipi oiu andi (5):* gizon txiki oihu handi.
oixal *(5)* : oihal */ oixal puska (5):* oihal puska.
oixan *(5)* : *(geog.)* baso */ atze andiak daude oixanean (5):* zuhaitz handiak daude basoan.
oixatu *(5)* : uxatu
oixeski *(5)* : laiotz, ospel
oixezki *(5)* : laiotz, ospel
oixtu *(5)* : uxatu
oizanko *(5)* : ohe-oinalde
oiztatu *(5)* : ohealdi luzea egin
ojan *(1)* : *(geog.)* baso */ urrutiko ojana (1):* urrutiko basoa.
okagaka *(5)* : okadaka (botaguraz)
okaka *(5)* : okadaka (botaguraz)
okakatu *(5)* : nazkatu, okaztatu OH. Iparraldean ´okaztatu´ dokumentatua.
okasione *(3)* : aldi */ okasione kartan Jesus izan zen eramanik desiertuara (3):* aldi hartan Jesus basamortura eramana izan zen.
oker *(4, 5)* : begibakar */ utsien errian okerra errege (5):* itsuen herrialdean begibakarra errege.
okin *(5)* : okin */ okinean saltan da ogi (5):* okinarenean ogia saltzen da.
okitu *(5)* : nazkatu, okaztatu
ol 1 *(5, 8)* : ohol */ olez eginik etxegaina (8):* oholez eginik teilatua.
ol 2 *(5)* : *(erai.)* teila-oholtxo OH. Teila ordez erabiltzen ziren oholtxoak.
ôla *(5)* : *(erai.)* txabola, ola (artzainena eta)
ola 1 *(1, 5)* : *(erai.)* txabola, ola (artzainena eta) */ urdain ola (1):* txerrizain(en) txabola.
ola 2 *(8, 9)* : *(erai.)* jetzitegi (txabola, lekua) */ bi ola (8):* bi jetzitegi. */ olara noan (9):* olara noan.
olabe *(5)* : *(nek.)* galbahe */ llarnean olabeaz igarten da garia, autz lodiarekin naste dagoanean (5):* larrainean olabeaz igarotzen da garia, ahotz lodiarekin nahasturik dagoenean.
olabeor *(4, 5)* : *(bot.)* iraka */ olabeorrak erran zaun garagarrari (4):* irakak garagarrari esan zion.
olaberrata *(4)* : ontzi, treska, olaferrata */ eznia olaberratara [biltan dei] (4):* esnea ontzietan

biltzen dute. OH. Zurezkoa eta esnea gordetzekoa.

olaberreta *(5)* : ontzi, treska, olaferrata OH. Zurezkoa eta esnea gordetzekoa.

olada *(3)* : olatu, uhin */ [itxasuan] azkatu zen tenpestade bat kain andi, estaltan baizein oladek barka (3):* itsasoan altxatu zen ekaitz bat hain handia, olatuek txalupa estaltzen zuten. */ Jesusek egiten du erabil dein Pedro itxasoko ur oladen gainian (3):* Jesusek Pedrori itsasoko ur olatuen gainean ibilarazten dio.

olamai *(5)* : oramahai

olasta *(5)* : jotze, kolpealdi

olastaldi *(9)* : jipoi */ busteiak eman ditan olastaldi bat (9):* nagusiak jipoi bat eman dit.

olastazale *(8)* : jotzaile, kolpatzaile

olatza *(1)* : *(nek.)* eskorta, saroi */ iri olatza (1):* herri(ko) saroia.

olatze *(1)* : *(nek.)* eskorta, saroi */ olatze berdea (1):* saroi berdea.

olazi *(5)* : *(nek.)* olo-ereite */ olazia egin dugu ongi (5):* olo-ereitea ongi egin dugu.

oliatu *(5)* : *(erl.)* oliatu

oliazione *(2, 3)* : *(erl.)* oliadura */ zertako ordenatu zien oliazione saintia? iror gaizatako (2):* zertarako agindu zuen oliadura santua? hiru gauzatarako. */ borzgarna, oliazionia (2, 3):* bosgarrena, oliadura. */ zertako da oliazionezko sakramentiua? (3):* zertarako da oliadura sakramentua?

olo *(2, 4, 5, 9, 10)* : *(bot.)* olo */ gari, olo, garagar, xeuri, eta zalge, guziuetarik [biltu digu] (4):* garia, oloa, garagarra, xerua eta zalkea, denetik bildu dugu. */ azazi, gari azi, olo azi (5):* aza hazia, gari hazia, olo hazia. */ Oloronen [izan nintzen] olo txerka mandoen[tako] (5):* Oloronen izan nintzen olo bila mandoentzat. */ asto ilari uzkutik olo (9):* asto hilari ipurditik oloa. */ garagarra [eta] oloa (10):* garagarra eta oloa.

olo beltx *(5)* : *(bot.)* olo beltz

oloak emon *(5)* : egurra eman

oloerri *(5)* : *(nek.)* olo-soro

olomolo *(5, 11)* : *(bot.)* olo gaizto, olo zoro */ olomoloa belar luze bat da, kaparron ta patata artean a[z]tan da (5):* olo gaiztoa belar luze bat da, kaparrondo (?) eta patata artean hazten da.

olozoro *(5)* : olo gaizto, olo zoro

oloztatu 1 *(5)* : oloz elikatu

oloztatu 2 *(5)* : jipoitu

oltu *(10)* : bidali, igorri */ nork oltu du zakurraren iltra? (10):* nork bidali du zakurra hiltzera? */ oltan dien (10):* bidaltzen diten.

olla *(1)* : ola, txabola (artzainena eta) */ olla miarra (1lm):* txabola estua.

ollanta *(2, 9)* : *(heg.)* oilanda */ ollantak (9):* oilandak.

ollar *(2, 3, 7, 8, 9, 10)* : *(heg.)* oilar */ ollarrak kanta zan beino lein (3):* oilarrak kanta dezan baino lehen. */ instantian kantatu zion ollarrak (3):* istantean oilarrak kantatu zuen. */ ollarra (7, 8, 9):* oilarra. */ gero arratsen ollar meza (10):* gero arratsean oilar meza. */ ollarra (10):* oilarra.

ollarko *(2, 9, 10)* : *(heg.)* oilasko

ollarkoki *(10)* : *(suk.)* oilaskoki OH. Berez, Artolak akastzat jotzen duen ´ollarkuaki´ forman dokumentatua.

olli *(5)* : horixka */ olli ta ddunddukoi dut loxka dagon nore aurra (5):* horixka eta urdinxkazale dut loxka dagoen neure haurra.

ollo *(2, 3, 7, 8, 9, 10)* : *(heg.)* oilo */ biltu edo mokorkatu, olluak mokorkatan tion bikala bere*

txitxaxkuak magalen pean (3): bildu edo pilatu, oiloak bere txitatxoak hegalen pean biltzen dituen bezala. */ olloak errutan dutu arrautzak (7):* oiloak arrautzak erruten ditu. */ axariak xatan dutu olloak (7):* azeriak oiloak jaten ditu. */ bi ollo biar dur izarri altekan (8):* bi oilo jarri behar ditut alboan. */ ollua (8):* oiloa. */ olloak [lotsatu ztean] (9):* oiloak beldurtu zituen. */ olloa (10):* oiloa.

ollo zuku *(7)* : *(suk.)* oilo zopa

ollokaka *(9)* : zirin

olloki *(2)* : *(suk.)* oiloki

on 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : on */ tentazione gasto ekutia on daia? bai, goitan badrade (2):* tentazio txarrak edukitzea ona al da? bai, garaitzen badira. */ zerengatik? oner onki egitiagatik (2):* zergatik? onei ongi egiteagatik. */ jeina xinen dela onen juzgatra (2):* jauna etorriko dela onak epaitzera. */ oner emonen diola paraduiso[ko] gloria (2):* onei paradisuko aintza emango diela. */ izanik zu kain onik (2):* zu hain ona izanik. */ on izan leiteke (3):* ona izan liteke. */ gaiza ona da egon gitian kemen (3):* gauza ona da hemen egon gaitezen. */ zeuriko berri ona (3):* zeruko berri ona. */ iguzkia onen gainian [sor dein egitan du] (3):* eguzkia onen gainean sor dadin egiten du. */ lur onian emon zein frutu (3):* lur onean fruitua eman zuten. */ oner emoitako gloria (3):* onei aintza emateko. */ zomait gaiza ontaz [guartan grelarik] (3):* zenbait gauza onez oroitzen garenean. */ zomait gaiza onen egitako (3):* zenbait gauza on egiteko. */ iltea on bat, erigoa luzerik bage (4):* heriotza on bat, gaixotasun luzerik gabe. */ badakik on zaunaz yire uskara (4):* badakik ona zaiona hire euskara. */ bitartio Turpin apezkupu onak errezatan du (4):* bitartean Turpin apezpiku onak errezatzen du. */ etse onak txinkar ona (5):* etxe onak txingar ona. */ eztud onik bakotxik ekusi (5):* ez dut onik bakar bat ere ikusi. */ goseak ez du pensamentu onik (5):* goseak ez du pentsamendu onik. */ ez zra on (6):* ez zara ona. */ zu gaizto [zra], etzu deus ere on (7):* zu gaiztoa zara, ez duzu deus ere onik. */ jaingeikoa on da (7):* jaungoikoa ona da. */ borontate oneki [egin di[e]gu (7):* borondate onarekin egin dugu. */ ama berjina, bidei senar ona (8):* ama birjina, eman biezat senar ona. */ kaur dun on (9):* hau ona dun. */ andre ona (9):* andre ona. */ arraya orai on ta kario, eta ezin el xatra (10):* arraina orain ona eta garestia, eta ezin heldu jatera. */ o, zer egun ona egin zien! (10):* oi, zer egun ona egin zuen!

on 2 *(1, 11)* : on */ On Pedro, On Roman (1lm, 11):* On Pedro, On Roman.

on egin! *(5)* : on egin (daizula)!

ona *(3)* : hona (adb.) */ ona, bada, xen etsia duala baratra utsirik (3):* hona, bada, zuen etxea hutsik geratzera doala (hutsik geratuko dela).

ona kemen *(3, 4)* : hona hemen */ ona kemen bizi gaixtotako genten adexkide [bat] (3):* hona hemen bizi txarreko jendearen adiskide bat. */ borz deuri [eman] zinaitadan, ona kemen berze borz obro (3):* bost txanpon eman zenizkidan, hona hemen beste bost gehiago. */ ona kemen zuk maitatu tzula egia (4):* hona hemen zuk egia maitatu duzula.

onai! *(3)* : hator! */ erraiten dur ´onai!´ edo ´xin adi!´ eta xiten da (3):* erraten dut ´hator!´ edo ´etor hadi!´ eta etortzen da.

onaik! *(5)* : hator! (mutila)

onain! *(5)* : hator! (neska)

onartu *(7)* : onartu

ondagora *(2, 4)* : *(anat.)* orpo

ondalan *(5, 11)* : *(nek.)* hondalan

ondalan egin *(5)* : hondalana egin

ondar 1 *(5, 9, 11)* : hondar */ ondarrak (9):* hondarrak.
ondar 2 *(5)* : senide hondar (urruna)
ondar 3 *(5)* : hondar (azken zatia edo atala) */ gerruntzea emaztekiek ezarten dei soinaren ondarretik anken anditako ta kotak eztian apal eror (5):*gerri-kuxintxoa emakumeek jartzen dute soinaren hondarretik aldakak handitzeko eta gonak ez daitezen behera erori.
ondar-mondarrak *(5)* : hondar-mondarrak
ondarbe *(5)* : *(nek.)* bahetze, baheketa */ [garia xaintakoa da kau], ondarbea (5):* garia garbitzeko da hau, bahetzea.
ondarkin *(5)* : hondar
ondatu *(5)* : hondatu
onderze *(5)* : *(anat.)* hondeste
ondo 1 *(1, 3, 5, 11)* : ondo, albo, aldamen */ ezpel ondoa, zugar ondoa (1):* ezpel ondoa, zumar ondoa. */ mendi onduara [eltu zren] (3):* mendi ondora heldu ziren. */ uztupa su ondoan, peligroa borta-pasuran (5):* iztupa su ondoan, arriskua ate(ko) pasaeran. */ larrain ondoa (11):* larrain ondoa.
ondo 2 *(3)* : hondo */ gizon prestiuak gaiza onak [erkitan tu] bere biotzaren ondo onetik (3):* gizon prestuak gauza onak ateratzen ditu bere bihotzaren hondo onetik. */ kola izan ledin sumerjitruk itxasuaren onduan (3):* horrela murgildua izan ledin itsasoaren hondoan.
ondo 3 *(5, 7, 8)* : ondoren, ondoan */ eraki ondo erkin zan eltxanoa (5):* irakin ondoren atera ezan eltzetxoa. */ etseara el ondo eginen diezt (7):* etxera heldu ondoren egingo dut. */ xakin zeia[n] urtearen ondo (7):* urtebete ondoren jakin ziaten. */ ereix ondo, egor, egor ondo, sua ixik, sua egin ondo esnia izar askaltako (8):* orraztu ondoan, erraztatu, erraztatu ondoan, sua piztu, sua egin ondoan esnea jarri gosaltzeko.
ondo 4 *(5)* : ondorio, ondoren */ gai alegreak ondo tristea (5):* gau alaiak ondoren tristea.
ondo 5 *(5)* : motzondo (zuhaitzena)
ondo 6 *(5)* : hondar
ondo-mokor *(5)* : zehatz-mehatz */ azkenaren buruan urliak kontatu zaun sandiari [ixiltarzun] guziua ondo-mokor (5):* azken buruan urliak zehatz-mehatz kontatu zion sandiari sekretu osoa.
ondoan *(5)* : ondoren, ondoan */ ipar beltza, ondoan latza (5):* ipar beltza, ondoren latza.
ondoertze *(5)* : *(anat.)* hondeste
ondoerze *(5)* : *(anat.)* hondeste
ondogora *(9)* : *(anat.)* orpo OH. Izagirrek ´galtzerdiaren orpoa´ oharrarekin dokumentatua.
ondogra *(9)* : *(anat.)* orpo
ondoko *(5)* : karen, selaun (emakumeena)
ondore 1 *(5)* : ondorio, ondoren
ondore 2 *(5)* : gaixondo, eriondo, susperraldi
ondorean *(5)* : ondoren */ lanaren ondorean xiten da deuria (5):* lanaren ondoren etortzen da dirua.
ondorian *(3)* : ondoren */ azkenik edo ondorian aparezitu zren bi testigo falsu (3):* azkenik edo ondorean bi lekuko faltsu agertu ziren.
ondotik *(5)* : ondoren, jarraian
ondu *(5)* : heldu, ondu
onean *(5)* : onean, asmo onez */ bere onean (5):* bere onean, asmo onez.
oneara *(5)* : onera (onerako prest)

onek *(8)* : honek */ galtegin dezala orai onek (8):* galdegin dezala orain honek.
oneretsi *(2, 3)* : maitatu, onetsi */ jeina oneretsi eta onratia (2):* jauna maitatu eta ohoratzea. */ izanik zu kain onik oneretsi izaiteko (3):* zu hain ona izanik maitatua izateko.
oneretxi *(2)* : maitatu, onetsi
onetsi *(5)* : maitatu, onetsi */ jeina onetsitan baitur gaiza guzien gainetik (5):* jauna maite baitut gauza guztien gainetik.
onez edo gaizkiz *(7)* : onean edo txarrean */ onez edo gaizkiz bear tzu egin (7):* onean edo txarrean egin behar duzu.
onez on *(5)* : onean, asmo onez
ongarri *(4, 5, 9, 10)* : *(nek.)* ongarri */ nausiak ongarriz onki berotu bear yai (4):* nagusiak ongarriz ongi berotu behar hau. */ argizagiaren goragoan biltan da ongarri ta ereitan dra aziak (5):* (ilargiaren) ilgoran ongarria biltzen da eta haziak ereiten dira. */ ongarri-telada (5):* ongarri geruzatxoa. */ ongarri edatra (9):* ongarria hedatzera. */ ongarri erkitra (9):* ongarria ateratzera. */ ongarrireki (10):* ongarriarekin.
ongarrimarro *(5)* : *(zoo.)* kakalardo
ongatx *(5)* : heldugabe, berde */ ongatx daude aurten aranak, bortxa ontan dra (5):* heldugabe daude aurten aranak, bortxaz (nekez) heltzen dira.
ongi 1 *(6)* : ongi, ondo */ ez niauzu ongi (6):* ez nago ongi.
ongi 2 *(5)* : ongi, on (iz.) */ aita ongi eginkari (xarrakiten zau) seme berartrakari (5):* aita ongi egilea(ri jarraitzen zaio) seme parekoa.
onki *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : ongi, ondo */ zerengatik? oner eta guri onki egitiagatik (2):* zergatik? onei eta guri ongi egiteagatik. */ bai, onki eta biotzez egitan bada (2):* bai, ongi eta bihotzez egiten bada. */ egin zazei onki aburritan daizeiner (3):* egin iezaiezue ongi gorrotatzen dituzunei. */ onki daki xen aitak etaz nestate tzeina (3):* ongi daki zuen aitak haietaz beharra duzuela. */ onki erraitan tzu (3):* ongi erraten duzu. */ onki dokegu (3):* ongi dezakegu. */ nai dut xarreki tian onki (4):* (osasunez) ongi jarrai dezaten nahi dut. */ eztakid gaxki ala onki eskribitan daudan (4):* ez dakit gaizki ala ongi idazten diodan. */ kota onki konpontan badun, urtea igaren dun (5):* gona ongi konpontzen badun, urtea igaroko dun. */ aurten zarrak il balite onki konfesatruk! (5):* aurten zaharrak ongi aitorturik hil balira! */ ez niozu onki (6):* ez nago ongi. */ onki zaudia? anitx onki, eta zu? (7):* ongi al zaude? oso ongi, eta zu? */ baia guk ez digu entelegatan onki orien uskara (8):* baina guk ez dugu ongi ulertzen berorien euskara. */ onki dion (9):* ongi zagon. */ etsen [egon], bai, onki (10):* etxean egon, bai, ongi. */ eztoker xan onki (10):* ez dezaket jan ongi.
onki izate *(3)* : ongi izate */ zeren bienabenturanza etan baitago bizi kontan onki izaitia (3):* zeren dohatsutasun haietan baitago bizi hontan ongi izatea.
onki xin! *(5, 7, 11)* : ongi etorri! */ onki xin! onki erden! (5, 7):* ongi etorri! ongi aurkitu! */ onki xin (11):* ongi etorri.
onkiegile *(5)* : ongile
onkijin *(5)* : ongietorri (iz.)
onkijina egin *(5)* : ongietorria egin (norbaiti)
onkixin *(5)* : ongietorri (iz.)
onkixina egin *(5)* : ongietorria egin (norbaiti)
onkixka *(5)* : ongitxo, politki
onla *(4)* : *(erai.)* txabola, ola (artzainena eta) */ onla da ganztaren egiteko eta artzaien*

erretiroarentako (4): ola gazta egiteko da eta artzainen bakartzerako. */ ganzta onletan [egiten da] (4):* gazta txaboletan egiten da.

onoretsi *(2)* : maitatu, onetsi */ nik onoresi eta estimetan zutud gaiza guzien gainetik (2):* nik onetsi eta estimatzen zaitut gauza guztien gainetik.

onrzi *(4)* : ehortzi, lurperatu */ laurdenegun goxan onrzi zein (4):* herenegun-aurre ehortzi zuten.

ontarzun 1 *(2, 3, 4)* : ontasun */ ontarzun fin bage bat baizrade (2):* ontasun amai gabea baitzara. */ [jeinaganik] alkanzatia ontarzun kala arimaren nola korpizaren (3):* jaunagandik ontasuna erdestea hala arimarena nola gorputzarena. */ ontarzun guziuak ez deus gaztigurik bage (3):* ontasun guztiak, batere zigorrik gabe. */ a, ontarzuna! (4):* a, ontasuna!

ontarzun 2 *(2, 3, 4, 5, 8, 9)* : ondasun */ berzen ontarzunik desea estezagula (2):* ez dezagula besteen ondasunik desiratu. */ ontarzun espiritual[ak] (3):* ondasun espiritualak. */ ez digula ontarzun xuntatu biar mundu kontako (3):* ez dugula ondasunik elkartu behar mundu honetarako. */ ez dokezei zerbutxa jangeikuari eta ontarzuner (3):* ez dezakezue zerbitza jaungoikoari eta ondasunei. */ bizpor abratsentako dra balleko ontarzun guziuak (4):* aberats batzuentzat dira ibarreko ontarzun guztiak. */ ez du berze ontarzunik baizik txintxa eta erro franko (5):* ez du beste ondasunik baizik mukia eta karkaxa franko. */ ontarzunak (5, 9):* ondasunak. OH. ´Ontarzonik´ ere dokumentatua.

ontson *(5)* : lasaitasun; lasaialdi, atsedenaldi

ontu *(5)* : heldu, ondu */ ongatx daude aurten aranak, bortxa ontan dra (5):* heldugabe daude aurten aranak, nekez heltzen dira. OH. Azkuek ´heltzen hasi´ eta ´batez ere pikuez eta mahatsaz esaten da´ oharrekin dokumentatua.

ontza *(5)* : ontza (enborren neurria)

ontzar *(6)* : on huts, on puska

-ontzi *(5)* : -ontzi */ kakontzi, zorrontzi (5):* kakontzi, zorrontzi (zordun handia). */ minontzi (5):* minontzi (oso gaixobera). */ nexarrontzi, putzontzi, utzontzi (5):* negarrontzi, putzontzi. */ gezurrontzi (5):* gezurrontzi.

ontzi 1 *(3, 5, 8, 10)* : ontzi */ lanparekin batian eraman zein orio beren ontzietan (3):* lanparekin batera, beren ontzietan olioa eraman zuten. */ ontziak (8, 10):* ontziak.

ontzi 2 *(7)* : *(naut.)* itsasontzi, ontzi */ ontzia (barkua) gizonengatik xin da (7):* itsasontzia gizonengatik etorri da.

ontziak ekuzi *(10)* : harrikoa egin, ontziak garbitu */ ontziak ekuzi tuna? (10):* ontziak garbitu al ditun?

ontziegile *(3)* : ontziegile */ ontziegile baten alorra [erosi zein] (3):* ontziegile baten alorra erosi zuten.

ontzitegi *(5)* : arasa, ontzitegi

oña-oña *(5)* : on-ona (gauza) OH. Txikigarria da.

opil *(5, 9, 10, 11)* : *(suk.)* opil */ opil bero [izan balu], ezion xanen gore orantza (5):* opil beroa izan balu, ez zuen jango gure legamia. */ txokorrakin opil[a] (9):* bilgor-hondar opila. */ opila (10):* opila. */ txotopil (11):* txotopil (opil mota).

opus *(5)* : ahalegin (pisua altxatzean)

oputz *(5)* : ahalegin (pisua altxatzean) */ lein oputzean belain gainera, bigarren oputzean gerruntziara, irorgarrenean bularrera, azkenekotz soin gainera (5):* lehen ahaleginean belaun gainera, bigarrenean gerrira, hirugarrenean bularrera, azkenekoz sorbalda gainera.

or *(5)* : *(zoo.)* txakur */ orak non mina kan mia (5):* txakurrak non mina han mihia. OH.

Iparraldean ere dokumentatua.

orai 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : orain */ orai korpitz eta arima duguneki resuzitatuk biar dugu izan (2):* orain ditugun gorputz eta arimekin berpiztuak izan behar dugu. */ orai eta gore il ordian (2):* orain eta gure hil orduan. */ eitz nazazu egitra orai (3):* utzidazu orain egiten. */ ez ziztei fan orai jentilen lurriara (3):* ez zaitezte joan orain jentilen lurrera. */ ez digu negu guziuan ekusi kainbat elur nola orai dagona (4):* ez dugu negu osoan ikusi hainbat elur nola orain dagoena. */ xinistian nago orai xa, sontotruk al dagola (4):* sinetsita nago orain jada, sendaturik egon ahal dela. */ gero egin bearrak egin zazkei orai (5):* gero egin beharrak egin itzazue orain. */ orai eltu gra (7):* orain heldu gara. */ orai eragunen (sic) dur (7):* orain ekarriko dut. */ eztiezt tenprarik orai xoaitako (7):* ez dut denborarik orain joateko. */ orai diez irorogeita bost [urte] (8):* orain hirurogeita bost urte ditut. */ orai bar diauzu axatu eltzea (9):* orain eultzia haizatu behar dugu. */ ta nik zer bar dur erran orai? (10):* eta nik zer behar dut erran orain?

orai 2 *(4, 8)* : orain, orain dela */ orai bi urte, arri erauntsi batek eraman zaikugun kosetxa (4):* orain bi urte, harri erauntsi batek uzta eraman zigun. */ amazazpi urte zielarik, orai ogeita amazazpi (8):* hamazazpi urte zituela, orain (dela) hogeita hamazazpi.

orai artio *(4)* : orain arte */ orai artio erran daudanaz, berorren baitan erranen du ´zer abrats!´ (4):* orain arte erran diodanaz, berorren baitan erranen du ´zer aberats!´.

orai berean *(7, 9)* : oraintxe bertan, orain berean

orai berian *(4, 5, 7)* : oraintxe bertan, orain berean */ orai berian dago elurra paupaka (4):* oraintxe bertan elurra ari du mara-mara. */ orai berian irabaztan du kostiua eta irur pezeta (4):* oraintxe bertan irabazten du kostua eta hiru pezeta. */ orai berian eltu dun (7):* oraintxe heldu dun.

orai berrian *(5)* : berriki, duela gutxi

orai-geroka *(5)* : txandaka, orain-geroka

oraidanik *(3, 4)* : oraindanik, aurrerantzean */ ez duala edanen xa obro oraidanik mats fruitu kontarik (3):* ez dudala jada gehiago edango oraindanik mahats fruitu honetatik. */ oraidanik erraiten daud berorren goberniuarentako, karreterarik ezta eltan kona (4):* oraindanik erraten diot berorren gobernurako, errepiderik ez da heltzen hona.

oraiganik *(5, 6)* : oraindanik, aurrerantzean

oraiguneago *(5)* : aspalditxo

oraigunean *(4, 5)* : duela gutxi */ orai gunean il zitzaitadan ñore mentian adexkiderik andien ekun duana (4):* duela gutxi hil zait neure mendean eduki dudan adiskiderik handiena. */ orai gunean deitu zaun (4):* duela gutxi deitu zion. */ oraigunekoak (5):* duela gutxikoak.

oraiguneko *(10)* : duela gutxiko; arestiko */ aber gustatu zaioinetz oraiguneko fiesta (10):* ea gustatu zaion duela gutxiko festa.

oraigunian *(4, 10)* : duela gutxi */ oraigunian guartu nintzen nola ene ama zenak kontatan zaitadan (4):* duela gutxi oroitu naiz nola nire ama zenak kontatzen zidan. */ oraigunian erosi zeia burruñak (10):* duela gutxi erosi zituzten (?) burdinak.

oraiko *(4, 10)* : oraingo */ oraiko morroîtarik berze tenpra batez ezta faltaren gizon asto (4):* oraingo mutikoen artetik bertze denboraldi batez ez da faltako gizon astorik. */ ttunttuna, oraiko dantzak mino ederrago (10):* tuntuna(rekin), oraingo dantzak baino ederragoa. */ oraikuak ez gustatan (10):* oraingoak ez (zaizkit) gustatzen.

orain gunean 1 *(5)* : oraintxe bertan, orain berean

orain gunean 2 *(5)* : arestian, duela gutxi

oraino *(3, 4, 5, 7)* : oraindik */ [berze banak] ekusi ztion oraino deus egin bage (3):* beste batzuk ikusi zituen oraindik ezer egin gabe. */ oraino´re diabiuak [Jesus] mendi gora batra [igan zion] (3):* oraindik ere deabruak Jesus mendi altu batera igo zuen. */ argi oraino keitan dagona (3):* argia (kandela) oraindik ketan dagoena. */ oraino konbersazionian [zegon], odei argi bat xin zenian en estaltra (3):* oraindik hizketan zegoen, hodei argi bat etorri zenean haiek estaltzera. */ oraino´re etsekuek peonik obenena nakei egitatako (4):* oraindik ere etxekoek peoirik onena naukate igitatzeko. */ arrats utsitruk eta oraino ere lanean (5):* arrats itsuturik (= ilundurik) eta oraindik ere lanean.

orainore *(6, 9)* : oraindik */ orainore gazte nezu (9):* oraindik (ere) gaztea naiz.

oraiño *(5)* : oraindik */ oraiño ezabei jin nabardura biloan basa[u]ntzer (5):* oraindik ez zaie etorri nabardura ilean basahuntzei.

oraitarik as *(5)* : oraindanik, aurrerantzean

oraiz lein *(4, 5)* : orain baino lehen, aurretik */ badaki oraiz lein erranik daukadanaz (4):* badaki orain baino lehen erranik daukadanaz.

oramai *(5)* : oramahai

orantstatu *(3)* : legamiatu, harrotu, altxatu */ [orantza irinekin baratu zen] orantstatruk (3):* orantza irinarekin legamiatuta geratu zen.

orantza *(3, 5)* : legamia, orantza */ [parabola], orantzarna (3):* parabola, legamiarena. */ laurean lantza, gatiuak xan du gore orantza (5):* lauretan dantza, katuak jan du gure orantza.

oraparro *(5)* : ore-hondar (oramahaikoa)

orapillatu *(5)* : korapilatu */ ari orapillatua ezta sekula oso (5):* hari korapilatua ez da sekula oso.

orapillo *(5)* : korapilo

orataldi *(5)* : oraldi, oratze (ogia egiteko)

oratu *(2)* : ohoratu */ eta oratan du gaiza guzien gainetik (2):* eta gauza guztien gainetik ohoratzen du.

oratxe 1 *(5)* : *(met.)* ekaitz

oratxe 2 *(11)* : *(met.)* giro txar

orazione *(2, 3)* : *(erl.)* otoitz */ aitagorea eta berze gainiarako orazioneak [dazkigularik] (2):* aitagurea eta gainerako beste otoitzak dakizkigunean. */ orazioniak [erakustan baidra] (3):* otoitzak irakasten baitira. */ orazionetarik zoin da obenena? (3):* otoitzetatik zein da onena?

orazione egin *(2, 3)* : otoitz egin, errezatu */ guri orazione egitan eratsukutako (2):* guri otoitz egiten irakasteko. */ zer da orazione egitia? jeinari biotzaren goratea (2):* zer da otoitz egitea? jaunari bihotza goratzea. */ borta zerratruk orazione egin zazu sekretuan (3):* atea itxita otoitz egin ezazu sekretuan. */ orazione egitra [igan zen] mendi batian (3):* otoitz egitera igo zen mendi batera.

ordañ *(10)* : ordain, ordezko */ ordaña (11):* ordaina, ordezkoa.

ordañez emon *(7)* : mailegatu

orde *(5, 11)* : ordain; ordezkatze */ ordea (11):* ordaina.

ordea *(5)* : ordea (ezkontza) OH. Etxe bateko anaien eta beste etxe bateko ahizpen arteko ezkontza.

ordek! *(4, 5, 9)* : hoa! (mutila) */ lantxerrak ibarraz, ordek lanoara idietaz (5):* lainoa ibarrean, hoa lurra lantzera idiekin. */ ordek lotra (9):* hoa lotara.

orden! *(4, 7, 9, 10)* : hoa! (neska) */ orden uzkiuara (4):* hoa ipurdira. */ orden zii biltra (7):* hoa ezkurrak biltzera. */ orden kebentik! (7):* hoa hemendik! */ orden urtutsik (9):* hoa oinutsik. /

orden zamaria eragutra! (10): hoa zamaria ekartzera!

ordenu *(3)* : agindu (iz.) */ bigarnen aldiz oiltu zion zerbutxari, ordenurekin erraiteko aren partez konbidatiuer (3):* bigarren aldiz bidali zuen zerbitzaria, bere partez konbidatuei esateko aginduarekin. */ [iriko zarren] ordenuz [oiltruk xiten baizren] (3):* herriko zaharren aginduz bidalirik etortzen baitziren.

ordenu emon *(3)* : agindua eman */ ordenu emon zion iltako (3):* hiltzeko agindua eman zion. */ menditik xaistian emon zabein Jesusek ordenu (3):* menditik jaistean Jesusek agindua eman zien.

ordezei! *(5)* : zoazte!

ordezu! *(5)* : zoaz!

ordi *(3, 4)* : mozkor, hordi */ as baledi xatra eta edatra ordiekin (3):* mozkorrekin jaten eta edaten hasiko balitz. */ ordi mokor-mokorra dago (4):* erabat mozkor dago.

ordi zuku *(5)* : *(suk.)* hordi salda (mozkorren salda)

ordial *(1)* : *(nek.)* garagar soro

ordian *(2, 9, 10)* : orduan */ ama berjina non bizi zen ordian? (2):* ama birjina non bizi zen orduan?

ordiara *(4)* : ordeaz (?) */ kemen nai ekuntu dei bi etsetakuek ezteiak egin ordiara (4):* hemen bi etxetakoek ezteiak ordeaz (?) egin nahi izan dituzte.

ordien *(10)* : orduan

ordin *(10)* : orduan

orditu *(3, 5)* : mozkortu, horditu */ orditan dena (3):* mozkortzen dena. */ etseko ardaunetik ez da ñor ere orditan (5):* etxeko ardotik ez da inor ere mozkortzen.

ordiuan *(3)* : orduan */ ordiuan biar deia ilek resuzitatu? (3):* orduan berpiztu behar al dute hildakoek?

ordiuarartio *(3)* : ordura arte */ ordiuarartio jangeiko baizik ez zena, gizon eginik [baratu zen] (3):* ordura arte jaungoiko baizik ez zena, gizon eginik geratu zen.

ordoki *(1, 2, 5, 9)* : *(geog.)* ordoki, lautada */ izeiordoki (1):* izei ordoki(a), izei lautada. */ ordokiara (5):* ordokira, lautadara. */ Belabarzeko ordokietan (5):* Belabartzeko ordokietan.

ordokilla *(5)* : *(geog.)* ordokitxo, lautadatxo

ordu *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : ordu, oren */ zer orduz eraman zieien [gore jeina]? amabietan (2):* zer ordutan eraman zuten gure jauna? hamabietan. */ zer orduz il zen? iroretan (2):* zer ordutan hil zen? hiruretan. */ zer ordutraino egon zen? seietraino (2):* zer ordu arte egon zen? seiak arte. */ nork batixa droke nestate ordian? (2):* nork bataia dezake behar(ra dagoen) orduan? */ ordiua xa igaririk (3):* ordua jada igarota. */ berze bi aldiz erkin zen eguerdiko eta arrastriko iruretako ordu kuetan (3):* beste bi aldiz atera zen eguerdian eta arratsaldeko hiruretako orduetan. */ bedratziuen ordiuari abantxu (3):* ia bederatzi orduetan. */ aita batek balaki zer ordutan biar zaun [xin ebaszalia] (3):* aita batek baleki lapurra zer ordutan etorri behar zaion, (adi legoke). */ anitx eri iltako ordiuan (4):* gaixo asko hiltzeko orduan. */ arimaren ordua (5):* arimaren ordua. */ iltako orduan (5):* hiltzeko orduan. */ iltako ordiaraino (5):* hiltzeko ordua arte. */ galtako ordian (6):* galtzeko orduan. */ badakizua (badakizia) zer ordu den? (7):* ba al dakizu zer ordu den? */ zer ordutakoa? zortzietakoa (7):* zer ordutakoa? zortzietakoa (trena). */ ordu dun xitako etserat (9):* etxera etortzeko ordua dun. */ zer ordu da xa? (10):* zer ordu da jadanik? */ azka adi! ordia dun! (10):* jaiki hadi, ordua dun!

orduan 1 *(7)* : orduan */ orduan zu izanen zinaizteke (7):* orduan zu izango zinateke.

orduan 2 *(5)* : beraz, orduan
ordudanik *(5)* : ordutik, ordudanik
ordudun *(5)* : ordudun, metodiko
ordun *(9)* : peoi, langile */ ordun [juan bar diar] (9):* peoi joan behar dut.
orduz *(5)* : garaiz */ erremedioara orduz, peligroara tentuz (5):* erremediora garaiz, arriskura tentuz.
ore 1 *(5)* : ore
ore 2 *(5)* : ohore
ore 3 *(5)* : hileta
ôre 1 *(5)* : ore */ ôrea ezta jin (5):* orea ez da harrotu.
ôre 2 *(5)* : ohore
ôre 3 *(5)* : hileta, hileta elizkizunak
oren *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : ordu, oren */ iror orenez bizirik egon zela (2):* hiru orduz bizirik egon zela. */ irorgarren orenian il zela (2):* hirugarren orenean hil zela. */ azken kuek ez dei trabajatu ez beizik oren bat (3):* azken hauek ordu bat baizik ez dute egin lanean. */ bi oren igaririk (3):* bi ordu igarota. */ ez bada eltan bi orentra (3):* ez bada bi ordutara heltzen. */ barurik antzineko gaiko amabi ornetarik landa (3):* baraurik aurreko gaueko hamabi orduak eta gero. */ oren igartan drenak [kontatako] (4):* igarotzen diren orduak zenbatzeko. */ bi orenen bidian (4):* bi orduko bidean. */ oren bakotxa, bi orenak (5):* ordu bata, ordu biak. */ oren erdi (5):* ordu erdi. */ oren kontarik (6):* ordu honetatik. */ zer oren da? irorak (7):* zer ordu da? hirurak. */ oren bat, oren erdi bat (7):* oren bat, oren erdi bat. */ badu orena xoaitako etseara (7):* badu etxera joateko ordua. */ gaierdiz, bi orenetan edo kola (8):* gauerdiz, ordu bietan-edo. */ oren bakutxa [da] (10):* ordu bata da. */ bi orenak [dra], bi ornak (10):* ordu biak dira, ordu biak. */ bi ornetan (10):* ordu bietan.
oreñ *(2)* : *(zoo.)* orein
organbide *(1)* : gurdibide */ organbidea (1):* gurdibidea.
Ori *(5)* : *(geog.)* Ori */ Oriko txoriak Orira nai (5):* Oriko txoriak Orira nahi.
ori 1 *(1, 5, 7, 10)* : hori (kolorea) */ egi oria (1):* hegi horia. */ lua bera ori tzu (5):* lihoa bera horia duzu. */ txokorroa, kain zabal nola gora, bi xeren gorago du lore oria (5):* goldarraina, zabala bezain altua, bi arra gorago du lore horia. */ iguzkia ori da (7):* eguzkia horia da.
ori 2 *(3, 4, 5, 9, 10)* : berori */ ni ez naz merexizale ori sar dein ene etsen (3):* ni ez naiz merezitzaile berori nire etxean sar dadin. */ ganureki nago, xakin nai, ya ori sontotu denez (4):* gogoarekin nago, jakin nahian ea berori sendatu den. */ orrek eskribi beztad borontate dionian (4):* berorrek idatz biezat borondatea duenean. */ bere tenpran xin zen orren azken otsailaren 17ko karta (4):* bere denboran etorri zen berorren azken otsailaren 17ko gutuna. */ borztan guartan naz ortaz (4):* bostetan oroitzen naiz berorretaz. */ orri deitan dagu (4):* berorri deitzen diogu. */ sainta Ana , erraiten dei orrentako ama berjinaren ama dela (5):* santa Ana, berorretaz erraten dute ama birjinaren ama dela. */ orrek edatan du anitx ardao (9):* berorrek ardo asko edaten du. */ nik erran daior orri (9):* nik esan diot berorri. */ orrengana (9):* berorrengana. */ ori egon da korietan (10):* berori (leku) horietan egon da. */ nik gizenagu izaguntan dur orai ori (10):* nik gizenago ezagutzen dut orain berori. */ eta galtatu zitazun´ orrek dakia uskara?´ (10):* eta galdetu zidan ´berorrek (ba) al daki euskara?´.
ori 3 *(8)* : hori (erakuslea) */ a! ori xa ez (8):* a! hori jada ez.
ori! *(4)* : tori!, har ezazu!

oriaire *(5)* : horixka
oridundu *(7)* : berde, orlegi
oriei! *(3)* : hartzazue!, har ezazue! */ oriei eta xan zazei, kaur da ene korpiza (3):* hartzazue eta jan ezazue, hau da ene gorputza.
oriek *(8)* : beroriek */ [xitan den urtian] bizi neila, eta oriek ere bai (8):* datorren urtean bizi nadila, eta beroriek ere bai (= zuek ere bai).
orien *(8)* : berorien */ baia guk ez digu entelegatan onki orien uskara (8):* baina guk ez dugu ongi ulertzen berorien euskara.
orientako *(8)* : berorientzat */ orai orientako (8):* orain berorientzat.
origorri *(5)* : gorrixka
orio *(2, 3, 4, 5, 9, 10)* : olio */ lanparekin batian eraman zein orio beren ontzietan (3):* lanparekin batera, beren ontzietan olioa eraman zuten. */ eman dazaiguzei xaurien oriotik, zeren gore lanparak iltan baitra (3):* emaiguzue zeuen oliotik, zeren gure lanparan itzaltzen ari baitira. */ kuek oriuaren erostra faiten zren arte kartan, [senarra] xin zen (3):* hauek olioa erostera joaten ziren tarte hartan, senarra etorri zen. */ [gentiak] zopatako naiago du errekesuna ezik orioa (4):* jendeak zopatarako nahiago du gaztanbera olioa baino. */ tiendan saltan da orio (4):* dendan olioa saltzen da. */ lukainkak orioan, guardatako (10):* lukainkak oliotan, gordetzeko.
orio-zuku *(5)* : *(suk.)* olio-salda
oriska *(5)* : horixka
oritu *(5)* : horitu
oriurdin *(5)* : berde, orlegi
orizka *(5, 9)* : horixka
orkai *(5)* : oihal-zerrenda
orkak! *(4)* : itxaron ezak!, hago!
orkatz *(4)* : *(zoo.)* orkatz OH. Mendigatxak Azkueri argiturik, orkatz arra ´basaintz´ da eta orkatz emea ´orkatz´.
orki egon *(5)* : zain egon */ orki dago (5):* zain dago.
orki! *(5)* : itxaron!
orkitu *(3, 4, 5, 7, 8, 10)* : itxaron */ [gentek] eltruk orkitan zabein lekiuara (3):* jendea heldurik itxaroten zien lekura. */ zerbutxariaren nausia [xinen da] orkitan eztion egunian (3):* zerbitzariaren nagusia etorriko da itxaroten ez duen egunean. */ orki zazei kemen (3):* itxaron ezazue hemen. */ bear digu orkitu xiten denari (4):* etortzen denari itxaron behar diogu. */ egun oro nago orkitan orren karta (4):* egunero nago berorren gutuna itxaroten. */ orrek erraiten dion lekiuan orkiten zau mandozaîareki (4):* berorrek esaten duen lekuan itxarongo zaio mandazainarekin. */ eztu gosea izaguntan orkitan dionak jan (sic) (5):* ez du gosea ezagutzen jatea itxaroten duenak. */ lan eginak ez du orkitakorik (5):* lan eginak ez du itxarotekorik. */ orki zak, orkak (5):* itxaron ezak. */ orkitan gaude (7):* itxaroten gaude, itxaroten ari gara. */ bar dur orkitu bortan (8):* atean itxaron behar dut.
orma *(1)* : *(erai.)* horma */ ormapea (1lm):* hormapea.
ornigon *(5)* : *(suk.)* ahi, morokil
ornikatu *(4)* : zeken, zuhur (adj.) */ anixko xur eta ornikatu (4):* nahikoa zuhur eta zeken(a).
oro 1 *(2, 3, 5, 7, 10)* : dena, guzti, oro */ orori bere [saria ematia] (2):* orori bere saria ematea. */ jeina ororen aita [da] (2):* jauna denen aita da. */ guzier parketan diazkazieud bioz guzioaz agrabio egin daizteidanak oro (2):* guztiei barkatzen dizkiet bihotz osoaz, egin dizkidaten

irainak oro. */ diskurrimentu kuek oro (3):* gogoeta hauek denak. */ orotaz zerbutxa ginezan (3):* guztiarekin zerbitza genezan. */ oro tuntun izaiteko (5):* denak tentelak izateko. */ oro biltu (7):* dena bildu. */ Juanen etsean oro duzu artzai (7):* Juanen etxean denak dituzu artzainak. */ espartiña eta oro (10):* espartina eta dena. */ xarrek orai ezin xan, ortzak oro xoan (10):* zaharrek orain ezin jan, hortz guztiak joan. */ il tiala gaztiak, gaixto bitra oro (10):* hil daitezela gazteak, gaiztoak baitira denak. OH. Adibideko ´orotaz´ instrumentala da.

oro 2 *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : -ero, oro */ igante xei oro meza entzun dezagula (2):* igande jaiero meza entzun dezagula. */ igante eta xei oroz meza entzun dezagula (2):* igande eta jaiero meza entzun dezagula. */ meza igante oro [entzutia] (3):* meza igandero entzutea. */ egun oro meza entzutia (3):* egunero meza entzutea. */ ilabete oro (4):* hilabetero. */ asteoro, urteoro (5):* astero, urtero. */ arrasti oro borzetan (7):* arratsero bostetan. */ urte oro xuaitan tzu Aragora (9):* urtero joaten da Aragoira. */ igantioro, gaioro, goxoro (9):* igandero, gauero, goizero. */ arrastrioro, egunoro, igantioro (10):* arratsaldero, egunero, igandero.

orobat *(2, 3, 4, 5, 8, 9, 10)* : berdin, orobat */ orobat egin biar tzu berze saintiuen imajener (3):* berdin egin behar diezu beste santuen irudiei. */ orobat balio ekun dei Antoniaren amar arraultzek, nola Petraren ogeiek (4):* berdin balio izan dute Antoniaren hamar arrautzek eta Petraren hogeiek. */ orobat da arriaz pitxerari nola pitxeraz arriari (5):* berdin da harriaz pitxerrari edo pitxerraz harriari. */ badina ux onki, bestela orobat (7):* ura badun ongi, bestela berdin. */ guk kantatan deguna gisa, orobat (10):* guk kantatzen dugun bezala, berdin. */ aparioak nola bar dra egin? orobat (10):* jatorduak nola egin behar dira? berdin.

orobat nola *(2, 4, 5)* : bezala, orobat nola */ orobat nola zazpigarrenian (2):* berdin, zazpigarren (agindu)an bezala. */ kemen emaztekia orobat trabajatan da nola gizakia, mendi lanetan (4):* hemen emakumeak orobat gizasemeak bezala lan egiten du, mendi lanetan. */ iguzkia karakolentako da orobat nola eguna tximitxentako (5):* eguzkia barraskiloentzat eguna zimitzentzat bezala da. */ nork erranen zion artzain kori kain abrats dela? beztitan da orobat nola zarratrako bat (5):* nork erranen zuen artzain hori hain aberatsa dela? zarpailtsu bat bezala janzten da.

oroldi *(5)* : *(bot.)* goroldio

oron *(5)* : ordu, oren */ San Sebastian, oron bat obro egunean (5):* San Sebastian, ordu bat gehiago egunean.

oropilo *(9)* : korapilo */ ersan oropiloa (9):* estutu ezan korapiloa.

orots *(5)* : ordots (abere arra; txerria gehienbat)

orrabarro *(5)* : ore-hondar (oramahaikoa)

orraizkatu *(5)* : orraztu

orratxontxi *(5)* : orratzontzitxo

orratz 1 *(3, 5, 8, 9, 10)* : orratz */ aisago da igartia kamello bat orratz baten begitik, ezik [zeurian] sar dein abrats bat (3):* errazagoa da gamelu bat orratz baten begitik igarotzea, aberats bat zeruan sartzea baino. */ orratzak bikalako punta anitz zorrotz tu (5):* orratzak bezalako punta anitz zorrotz ditu. */ orratzari begitik kalka dazadak aria (5):* orratzari begitik sar iezadak haria. */ orratza sar eta ariak kola (8):* orratza sartu eta hariak honela. */ zereki? orratzareki [xostan] (8):* zerekin? orratzarekin josten (genuen). */ orratza (9, 10):* orratza.

orratz 2 *(5)* : *(bot.)* galorratz

orratzak! *(5)* : ken ezak! */ orratzak, astoa, yore ostikoa Jesus aurrari (5):* ken iezaiok, astoa, heure hanka Jesus haurrari.

orratzontzi *(5)* : orratzontzi
orraxa *(5)* : orrazi
orraxe *(4)* : orrazi */ ezpelaz egiten dei kuxare [eta] orraxe (4):* ezpelaz koilarak eta orraziak egiten dituzte.
orraxi *(5)* : abaraska, eztiorraze
orraxko *(5)* : luma-orratz, luma-zain
orraxtatu *(4)* : orraztu */ gaztia orraxtatan [da] naroago (4):* gaztea maizago orrazten da.
orraze *(5)* : txarrantxa, kardama (artilea kardatzekoa)
orren *(3, 7)* : berorren */ ni enaz merexizale, baia mana beza orren itzaz, eta ene mitila sontotruk [baraten da] (3):* ez dut merezi, baina agindu beza (berorrek) berorren hitzaz, eta ene mutila sendaturik geratuko da. */ orren uskara entelegatan dur (7):* berorren euskara ulertzen dut.
orren baitan *(5)* : horri buruz
orri *(2, 9)* : orri */ orria (9):* orria.
orrogu *(5)* : ulu (otsoena)
orropilo *(9, 10)* : korapilo
orropilo egin *(10)* : korapiloa egin */ [keben] egitan zeia orropilo bat (10):* hemen korapilo bat egiten zuen.
orru *(8)* : orro */ orria (8):* orroa.
orrugu *(5)* : ulu (otsoena)
ortainzu *(5)* : oinustu
ortainzurik *(5)* : oinutsik
ortuts *(5)* : oinutsik
ortutsik *(5, 9)* : oinutsik */ ortutsik [ebiltan nun] (9):* oinutsik ibiltzen naun.
ortx *(5)* : *(haur.)* hortz
ortz 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* hortz */ kan izanen da nexarra eta ortzez garraska egitia (3):* han izanen da negarra eta hortzez karraska egitea. */ ogi gogorrari ortzak zorrotz (5):* ogi gogorrari hortzak zorrotz. */ gezur-ortz[ak] (5):* hortzordeak. */ ortzak (7):* hortzak. */ ortzak erortan bitra (8):* hortzak erortzen baitira. */ ortzik bagerik ezin erran (8):* hortzik gabe ezin erran. */ ortzak (9):* hortzak. */ xarrek orai ezin xan, ortzak oro xoan (10):* zaharrek orain ezin jan, hortz guztiak joan. */ aber nola bizi ninden ni ortzik bage (10):* ea nola bizi nintzen ni hortzik gabe.
ortz 2 *(5)* : oxkar (oihaletakoa)
ortz-aginak *(5)* : hortz-haginak (hortzak eta haginak)
ortzakatu *(5)* : oxkarratu (oihalak) */ ortzakatu koittak (5):* oxkarratu gonak.
ortze *(5)* : itxura
ortze! *(5)* : zoaz!
ortzeara *(5)* : erdira; migodoin, ameteria(n) */ burzegia ilte[an] emon zitien ortzeara saldoak, lensemea eskiara xin arteo (5):* buruzagia hiltzean erdira (migodoin) eman zituzten artaldeak, lehen semea eskura (adinera) etorri arte.
ortzegun *(6)* : ostegun
ortzei! *(3, 5)* : zoazte! */ ortzei [iri] xaurien aurkian agiri den kortra (3):* zoazte zeuen aurrean ageri den herri horretara. */ ortzei sekulako suara! (3):* zoazte sekulako sutara!
ortzekaldi *(5)* : hozkada
ortzekaldi egin *(5)* : hozka egin, kosk egin

ortzekaldikari *(5)* : hozkari
ortzekin sortu *(5)* : hortzekin jaio, hortzekin sortu */ ortzekin sortu da (5):* hortzekin jaio da. OH. Norbait aurrera egiten trebea dela adierazteko esamoldea.
ortzez egin *(5)* : hozka egin, kosk egin
ortzi *(2, 6)* : ehortzi, lurperatu */ [Kristo obi berri batan] ortzi zein (2):* Kristo hilobi berri batean ehortzi zuten. */ orztia (6):* ehorztea, lurperatzea.
ôrtzi *(2, 3, 5)* : ehortzi, lurperatu */ il eta ôrtzi [zein] (2):* hil eta ehortzi zuten. */ zazpigarna, ilen ôrztia (3):* zazpigarrena, hilak ehorztea. */ jina, permeti naztazu fan nein ñore aitaren ôrztra (3):* jauna, utzidazu joan nadin neure aita ehorztera. */ ilik eta ôrtzrik [izan zen] (3):* hila eta ehortzia izan zen.
ortzikaldi *(4, 8)* : hozkada */ arrain bi libratakua [arrapatu banu], zinezago emonen nazkan ortzikaldiak (4):* bi librako arraina harrapatu banu, egiazkiago eginen nizkion hozkadak. */ ortzikaldi egin ditarat txakurrak (8):* hozka egin dit txakurrak.
ortzikaldi egin *(5)* : hozka egin, kosk egin
ortzikaldikari *(5)* : hozkari
ortzikari *(5)* : hozkari
ortzikatu *(5, 7)* : hozka egin, kosk egin
ortziko 1 *(5)* : *(anat.)* hortz
ortziko 2 *(5)* : *(anat.)* hagin
ortzilare *(5, 6)* : ostiral */ ortzilare, neskanegun; zereki argi, kareki ulun (5):* ostiral, larunbat; zerekin argi, harekin ilun. */ ortzilari[a] (5):* ostirala. */ ortzilaria (6):* ostirala.
ortzirri 1 *(5)* : irribarre
ortzirri 2 *(5)* : irribarretsu, irribera
ortzirri 3 *(5)* : hortzirri (hortz irtenak dituena)
ortzokaldi egin *(9)* : hozka egin, kosk egin */ txakurrak ortzokaldi egin dien buztanean (9):* txakurrak hozka egin din buztanean.
ortzorde *(5)* : hortzorde
ortzu! *(3, 5, 9)* : zoaz! */ ortzu edo fan zte, eta agi dakizula xinetsi tziuan bikala (3):* zoaz edo joan zaitez, eta gerta dakizula sinetsi duzun bezala. */ ortzu mendiarat (9):* zoaz mendira(ntz). */ ortzu karatago, bestela... (9):* zoaz harago, bestela...
orzale *(5)* : lurperatzaile, ehorzle
ôrzale *(5)* : hilotz-laguntzaile (hiletetan)
orzargi 1 *(5)* : egunsenti, goiztiri
orzargi 2 *(5)* : zeruko argi
orzegun *(2)* : ostegun
orzelare *(10)* : ostiral */ egun zer da? orzelare (10):* gaur zer da? ostirala. */ orzelaria (10):* ostirala.
orzi *(5, 8, 10)* : ehortzi, lurperatu */ orzi dein, orzitan dein (10):* ehortzi diten, ehorzten diten.
ôrzi *(4, 5)* : ehortzi, lurperatu */ ilik eta ôrzirik [izan zen] (4):* hila eta ehortzia izan zen.
orzidu *(10)* : ehortzi, lurperatu */ orzidu diagun (10):* ehortzi dinagu.
orzilare *(2, 5, 7, 8)* : ostiral */ orzilaria (7, 8):* ostirala.
orzkatu *(5)* : hozka egin, kosk egin
orzmarro *(5)* : hortzirri (hortz irtenak dituena)
orzondo *(5)* : egunsenti, goiztiri
orzu! *(7)* : zoaz! */ orzu kebentik! (7):* zoaz hemendik!

orzundo *(5)* : egunsenti, goiztiri

os! *(3)* : goazen! */ os, bada, azka ztei edo xagi ztei, fan gitian kementik (3):* goazen, bada, altxa edo jaiki zaitezte, joan gaitezen hemendik.

osagarri *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : osasun */ konbeni bada, korpizaren osagarriaren alkanzatako (2):* komeni bada, gorputzaren osasuna lortzeko. */ korpizari osagarri emoitako, konbeni bazau (3):* gorputzari osasuna emateko, komeni bazaio. */ osagarri eta gloria Dabiden semeari (3):* osasuna eta aintza Dabiden semeari. */ lotsaz, nik emon daudazan osagarria (3):* beldurrez, nik osasuna eman diezaiodan. */ erakuts zazei osagarriaren bidia (3):* erakuts ezazue osasunaren bidea. */ eta nola daude osagarriz? (4):* eta nola daude osasunez? */ nik osagarrireki lagunten daud al duanaz (4):* nik osasunarekin lagunduko diot ahal dudanaz. */ ni ere osagarrireki [nago] (4):* ni ere osasunez nago. */ utzul daztazud zure osagarriaren alegria (4):* itzul iezadazu zure osasunaren poza. */ jangeiko ene osagarriarna (4):* jaungoiko nire osasunarena. */ ezaitad anztan ñore otoi txikietan eskatea gore jeinari orren osagarriaz (4):* ez zait ahazten neure otoi urrietan gure jaunari eskatzea berorren osasunaz. */ nai dionak osagarri, lotsa ekun bear du martxoko iguzkiari (5):* osasuna nahi duenak beldur izan behar dio martxoko eguzkiari. */ bizi gaxtoareki bear du osagarria galtu (5):* bizi txarrarekin osasuna galdu behar du. */ bazkal txiki eta aigaria txikiago on [dun] osagarriari (7):* gutxi bazkaltzea eta gutxiago afaltzea ona da osasunerako. */ badiagun anitx osagarri (10):* badinagu osasun handia. */ orai nago onki osagarriz (10):* orain ongi nago osasunez.

osatu *(3)* : irendu */ eunuko berak osatu baizren zomait gisatan (3):* eunukoak eurak irendu baitziren zenbait modutan. */ eunuko [daude] osatruk izan baizren (3):* eunukoak daude, irenduak izan zirenak. OH. Zaraitzueraz eta hego nafarreraz ere dokumentatua.

osazale *(5)* : *(alb.)* irentzaile */ txerri-osazaleak (5):* txerri-irentzaileak.

osin *(1)* : *(geol.)* osin */ osin ugaltea (1):* osin ibaia.

oska *(11)* : koska, hozka

oski *(5, 7, 9, 10)* : zapata, oski */ oski eli bat (5):* zapata pare bat. */ egari ditut nik aitaren oskiak (5):* erabili ditut nik aitaren oskiak (zapatak). */ beien larruareki (larriareki) egitan dra oskiak (7):* behien larruarekin egiten dira zapatak. */ eragi zan oski eli bat aitaren (9):* ekar ezan zapata pare bat aitarentzat. */ espartiñarik ez, oskirik ez, deuspabez (10):* espartinarik ez, zapatarik ez, ezer batere ez. */ oskiak (10):* zapatak. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

oso *(3, 5, 10)* : oso (adj.) */ ez bada xen justizia eskribaûena beino osoago, ezrei sarten zeurien (3):* zuen justizia ez bada eskribauena baino osoagoa, ez zarete zeruan sartuko. */ ari orapilatua ezta sekula oso (5):* hari korapilatua ez da sekula oso. */ egalak autse ta papoa oso (5):* hegalak hautsi eta papoa osoa (= lan egin nahi ez eta ongi bizi nahi).

oso-osoa *(4)* : osorik */ xeiak eta igantiak, kurak igartan tud oso-osoa, [leitan] (4):* jaiak eta igandeak, haiek igarotzen ditut osorik, irakurtzen.

osoki 1 *(3)* : osorik */ zor guziua osoki [paka lezan bitartio] (3):* zor guztia osorik ordain lezan bitartean.

osoki 2 *(3)* : osoki */ ene arima konplazitu baita osoki (3):* ene arimak atsegin hartu baitu osoki. */ arimak osoki purgatruk izanez gero [linbora faitan zren] (3):* arimak osoki garbiturik izanez gero (zuzenen) linbora joaten ziren.

osorik *(3, 7, 9, 10)* : osorik */ aren unguriuan kohorte guziua osorik [xuntatu zein] (3):* haren inguruan kohortea osorik elkartu zuten. */ meza osorik entzutan diona (3):* meza osorik entzuten duena. */ guziua osorik baratan da (3):* guztia osorik geratzen da. */ urte bat osorik (7):* urte bat

osorik. */ osorik [tustatu dun] (9):* osorik usteldu dun. */ bi egun osorik (10):* bi egun osorik.

ospa! *(11)* : ospa!, alde!

ostalari *(5)* : ostalari

ostatu 1 *(2, 3, 4, 5, 7)* : *(erai.)* ostatu */ informa ztei nor den gizon prestu errezibi dazaizein ostatuz (3):* informa zaitezte (herrian) nor den gizon prestua ostatuz har zaitzaten. */ Eduardo, ostatu ekun zioneko nausia (4):* Eduardo, ostatua eduki zuen nagusia. */ Urzainkiko ostatuara (ostatiara) [xoanen gra] (7):* Urzainkiko ostatura joanen gara. */ ostatuan (ostatian) (7):* ostatuan.

ostatu 2 *(5)* : hostatu, hostailatu

ostatu emon *(2, 3)* : ostatu eman */ pelegrinuer ostatu emoitia (2):* erromesei ostatu ematea. */ ostatu emon zinaitein (3):* ostatua eman zenidaten.

ostatutar *(5)* : ostalari, arrotz

ostatuzai *(5)* : ostalari

ostatuzale *(5)* : ostalari */ bazkaltan gindauden artean, ostatuzalea berber maian ereinztan beizagon, gano txikireki xan gunien (5):* bazkaltzen ari ginen bitartean, ostalaria mahai berberean orrazten ari baitzen, gogo gutxirekin jan genuen.

ostazaro *(5)* : hostaldi (hostoberritze aldia) */ bedatsean, ostazaroan, izeia eznean isartan da (5):* udaberrian, hostaldian, izeia izerditan jartzen da.

ostegun *(7, 8)* : ostegun */ osteguna (7, 8):* osteguna.

ostia *(5)* : *(erl.)* ostia */ ogi ona ostiarako (5):* ogi ona ostiarako.

ostikaldi *(4)* : ostiko */ yik izaguntan yuanian laxoxko yagola, ostikaldi batez ezkapa yiteke (4):* hik ezagutzen duanean laxotxo hagoela, ostiko batez ihes egin hezake.

ostiko 1 *(5, 7, 9)* : *(anat.)* hanka */ orratzak, astoa, yore ostikoa Jesus aurrari (5):* ken iezaiok, astoa, heure hanka Jesus haurrari. */ gentan balin badun, xonen di[n]ar ostiko bat (7):* kentzen baldin badidan, ostiko bat joko dinat. */ ostiko bat (9):* ostiko bat. OH. Estornesen adibidean ´xoren´ espero zitekeen.

ostiko 2 *(5)* : zuhaitz-enbor

ostikopunta *(5, 11)* : ostiko

ostilare *(9)* : ostiral

osto 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : hosto */ berze banek ebakitan zein erramu edo osto arboletarik (3):* beste batzuek erramua edo hostoak ebakitzen zituzten zuhaitzetatik. */ adarrak daudenian tierno eta erkiten drenian ostuak, abaño dago uda (3):* adarrak samur daudenean eta hostoak irteten direnean, hurbil dago uda. */ Iratiko usiaren ostoak airiareki mobitan baidra (4):* Iratiko basoko hostoak haizearekin mugitzen baitira. */ patatak ostorik bage [daude] (4):* patatak hostorik gabe daude. */ unratze korren ostoak txurruxtaka itzak (5):* erauzi itzak hurritz horren hostoak. */ ez ditun ostoak mobitan, bero egitan bitu (7):* ez ditun hostoak mugitzen, bero egiten baitu. */ arbolak dien osto (7):* zuhaitzak hostoak ditin. */ osto biltra [xuaitan nun] (9):* hostoak biltzera joaten naun. */ xoan adi osto biltra (10):* joan hadi hostoak (orbela) biltzera.

osto 2 *(7)* : orri (paperezkoa) */ libroak anitx osto dutu (7):* liburuak orri asko ditu.

ostope *(5)* : hostope (hostoen itzala)

ostrale *(7, 8, 9)* : ostiral */ biar ostralia izanen da (7):* bihar ostirala izango da. */ ostralia (8):* ostirala.

osun *(1)* : *(geol.)* osin */ osun ugaltea (1):* osin ibaia.

otaka *(2, 4, 5)* : *(bot.)* otaka, ote */ arbole apaletarik obroen aztan drenetarik dra ezpela, illurria,*

korostia eta otaka (4): zuhaitz baxuetan, gehien hazten direnetakoak ezpela, elorria, gorostia eta otaka dira. */ otakak martxoan lore, ez da faltaren eri eta dolore (5):* otakak martxoan lore, ez da faltako gaixotasun eta min.

otakadoi *(5)* : otadi

ote 1 *(3, 4, 5, 9)* : ote */ ez deia ote egitan kaur paganuek? (3):* ez ote dute hau egiten paganoek? */ badagua ote xen artian norbait? (3):* ba ote dago zuen artean norbait? */ biltan dreia ote mats arbole ñardunetarik? (3):* mahatsa biltzen ote dute zuhaixka lahardunetatik? */ ez dokeda ote nik egin ñoriataz nai duana? (3):* ez ote dezaket nik egin neureaz nahi dudana? */ [edaten tzein guziua] iraztan baitzei, badagonez ote zomait muxkito (3):* edaten duzuen guztia iragazten baituzue, ba ote dagoen zenbait eltxo. */ jeina, ni naza ote? (3):* jauna, ni ote naiz? */ biotza erdiratan zaitad pensatian zer izanen den ote nitaz (4):* bihotza erdiratzen zait, nitaz zer izanen ote den pentsatzean. */ betik nago xakin nai, sontotu zenez ote (4):* beti nago sendatu ote zen jakin nahian. */ badoaia ote? (5):* ba ote doa? */ koriek egosi dei ote eznea? (9):* horiek egosi ote dute esnea? */ xin dia ote? (9):* etorri ote da?

ote 2 *(5)* : *(bot.)* ale-ilara (galburukoa) OH. Ikus ´bote 3´ sarrerako oharra.

otoi 1 *(2, 3, 4, 5)* : *(erl.)* otoitz */ orazione edo otoi (3):* otoitz. */ ezaitad anztan ñore otoi txikietan eskatea gore jeinari orren osagarriaz (4):* ez zait ahazten neure otoi urrietan gure jaunari eskatzea berorren osasunaz. */ biarra denian otoiak on (4):* beharra denean otoitzak on. */ bearra dionak saintiuer otoiak on (5):* beharra duenak santuei otoitz onak.

otoi 2 *(7)* : mesedez, otoi */ otoi! otoi! zertako [kori]? gordetako (7):* mesedez! mesedez! zertarako hori? gordetzeko.

otoi 3 *(3)* : erregu

otoi egin 1 *(2, 3, 4, 5, 7)* : otoitz egin, errezatu */ otoi egin ezazu (2):* otoitz egin ezazu. */ jeinari ilez eta biziez otoi egitia (2):* jaunari hilez eta biziez otoitz egitea. */ otoi egitako (2):* otoitz egiteko. */ otoi egin zazu goregatik (3):* otoitz egin ezazu guregatik. */ zer da otoi egitia? jangeikuari mertxediak eskatia (3):* zer da otoitz egitea? jainkoari mesedeak eskatzea. */ jangeikoari otoi egin bage (4):* jaungoikoari otoitz egin gabe. */ jangeiko jeinari otoi egiten daud (4):* jaungoiko jaunari otoitz egiten diot. */ otoi egin beza gutaz (4):* otoitz egin beza gutaz. */ bapanak bere sanduari otoi egiten [dau] (5):* bakoitzak bere santuari otoitz egiten dio. */ sanduer otoi egin bear nagun, lagun getzaien (5):* santuei otoitz egin behar zienagu, lagun gaitzaten. */ otoi egin zazei bere arimaren altez (7):* otoi egin ezazue haren arimaren alde. */ otoi egitea on [da] (7):* otoitz egitea ona da.

otoi egin 2 *(3, 4, 5, 6, 7)* : erregutu */ einturiako ofiziale [batek] otoi egitan zaun (3):* zenturiako ofizial batek erregutzen zion. */ otoi egitan zaun erraiten´ekun zazu pazienzia amîntto bat´ (3):* erregutzen zion esanez ´eduki ezazu pazientzia pixkatxo bat´. */ etseko familiak otoi egiten daitad, erran dazaudala oil dazkigun orren erretratoa (4):* etxeko familiak erregutzen dit esan diezaiodala bidal diezagun berorren argazkia.

otoiegile *(2)* : otoizlari */ aita izan dakigun otoiegile orai eta gore il ordian (2):* aita izan dakigun otoizlari orain eta gure heriotzako orduan.

otoiez *(2)* : otoizka */ otoiez [nago] Maria birjinari (2):* otoizka nago Maria birjinari.

otoika *(3)* : erreguka */ nik parkatu naian zor guziua, zeren otoika eskatu baininyon (3):* nik zor guztia barkatu nian, zeren erreguka eskatu baihuen.

otoikatu *(5)* : erregutu

otoitu *(5)* : erregutu */ otoitu da, otoitu du (5):* erregutu du.

otoitz *(2)* : *(erl.)* otoitz

otoitz egin *(2)* : otoitz egin, errezatu */ saintier biar dugua otoitz egin? (2):* santuei otoitz egin behar al diegu?

otoizka 1 *(3)* : otoizka

otoizka 2 *(3)* : erreguka

otoizkatu 1 *(3)* : otoitz egin, errezatu

otoizkatu 2 *(3)* : erregutu */ otoizka ztei egitarako nausiari, oil tzala egitari bere alurriara (3):* erregu iezaiozue nagusiari, igitarako bidal ditzala igitariak bere alorrera. OH. Ikus ´eskatu´ sarreran ere ´izan´ aditz laguntzailea erabiltzen dela.

otordu *(5)* : otordu

otosia *(10)* : *(med.)* autopsia */ otosia egin zeia, eta zertako? (10):* autopsia egin zuten, eta zertarako? OH. ´Autosia´ ere dokumentatua.

ots eman *(5)* : hots eman (ganadua bideratu, zuzendu) */ ots eman idier (5):* hots eman idiei. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

ots! 1 *(5)* : ea!

ots! 2 *(4, 9, 10)* : goazen! */ ots mendiara! (9):* goazen mendira! */ ots arrizkuara tostatzea (10):* goazen tortolosetan jolastera.

otsail *(2, 4, 5, 6, 7, 8)* : otsail */ bere tenpran xin zen orren azken otsailaren 17ko karta (4):* bere denboran etorri zen berorren azken otsailaren 17ko gutuna. */ otsailxko (4):* otsailtxo. */ otsaila, firili-faraila (5):* otsaila, firili-faraila. */ urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa eta martxo gaisoari egozten dabei kulpa (5):* urtarrilak jaten du gurina, otsailak jaten du haragia eta martxo gaixoari botatzen diote errua. */ otsaila (6, 7, 8):* otsaila. */ otsaila txartxara, beti zaude gatxara (8):* otsaila ´txartxara´, beti zaude gaitzera (txarra).

otsaporru *(5)* : *(bot.)* basaporru OH. Azkuek dionez, ´otsaporru´ = ´basaporru´ eta ´otsoporrua´ = ´anbulu zuria´.

otsil *(5)* : otsail

otso 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : *(zoo.)* otso */ otso gorri gaina (1):* otso gorri gaina. */ otsobieta (1):* otso ibi eta. */ bea ztei nik oiltan daizeila ardi bikala otsuen artian (3):* begira ezazue nik bidaltzen zaituztedala ardiak bezala otsoen artean. */ usi batan igartia[n], otso bat [erkin zitzabein] (4):* baso batean igarotzean, otso bat atera zitzaien. */ arzatzak eta otsoa (4):* ahariak eta otsoa. */ otsoek marraka egitan dei Altobizkarrian (4):* otsoek ulu egiten dute Astobizkarren. */ lotsa dionari malta guziuak zaizka otso (5):* beldurra duenari mulu guztiak zaizkio otso. */ otsoak arrapatan dion aragia on zau enbrari xatea (5):* otsoak harrapatzen duen haragia ona zaio emeari jatea. */ bat, bida, iror, laur, otsoak Urunberrin gaur (5):* bat, bi, hiru, lau, otsoak Irunberrin gaur (gauean). */ ardiak otsoen lotsa drelarik, oidura bat egitan dei (5):* ardiak otsoen beldur direnean, asaldura izaten dute. */ otsoa (9, 10):* otsoa. OH. Ikus Nafarroako Gobernua 125. or.

otso 2 *(5)* : mozkor, hordi

otso 3 *(5)* : mamu

otso egon *(9)* : mozkor egon; mozkor egon (oso) */ otso daun (9):* mozkor zagon, oso mozkor.

otso izan *(5)* : mozkor izan */ barda otso nintzan, goxan egarri, non izan banintzan guzion barregarri (5):* bart mozkor nintzen, goizean egarri, non izan banintzen guztion barregarri.

otsobaba *(4)* : *(bot.)* otsababa

otsolepogo *(5)* : *(med.)* tortikoli, lepamin

otsondo *(5)* : biharamun, bestondo (mozkortu ondokoa)
otsondore *(5)* : biharamun, bestondo (mozkortu ondokoa)
otsoporru *(5)* : *(bot.)* anbulu zuri OH. Azkuek dionez, ´otsaporru´ = ´basaporru´ eta ´otsoporrua´ = ´anbulu zuria´.
otsoputs *(5)* : *(bot.)* otsaputz
otsouts *(5)* : *(bot.)* otsaputz
otsoxko *(5)* : *(zoo.)* otsokume, otsoko
otx *(1)* : hotx (txikigarria) */ iturrotxa (1):* iturri hotxa.
otxaba *(7)* : osaba */ lein egon zia[n] ene otxaba (7):* lehenago ene osaba egon huan. OH. Ikus ´oxaba´ sarrera.
Otxagabi *(4)* : *(geog.)* Otsagabia */ egun entzun dud Otxagabira xin dela eskribain berri bat (4):* gaur entzun dut Otsagabiara eskribau berri bat etorri dela.
otxoxko *(5)* : *(zoo.)* otsokume, otsoko
otz *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : hotz (iz. eta adj.) */ otza eta beroa (2):* hotza eta beroa. */ baso bat ur otz (3):* edontzi bat ur otz. */ betik digu tenpra otz (4):* beti dugu eguraldi hotza. */ maiatz otz, ez autz ez biotz (5):* maiatz hotz, ez ahotz ez bihotz. */ gizon illak sudurra otz (5):* gizon hilak sudurra hotz (= hildakoek lagunik ez dute). */ urtarril otza, neguan bigotza (5):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ Bidankoze otzago [da] ezik Nabazkoitze (5):* Bidankoze hotzagoa da Nabaskoze baino. */ zer otz! (7):* zer hotz! */ orai xinen dra otzak (7):* orain hotzak etorriko dira. */ urteril otza, negiaren biotza (8):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ o, zer egun ona egin zien! ez bero et´ez otz (10):* oi, zer egun ona egin zuen! ez bero eta ez hotz.
otz egin *(4, 7)* : hotz egin */ otz egiten dionaz, pluma erorten zaitad eskutik (4):* egiten duen hotzez, idazluma eskutik erortzen zait. */ otz egitan du (7):* hotz egiten du.
otz igari *(10)* : hotza igaro, hotzak egon */ elur ekus eta otz igar (10):* elurra ikusi eta hotza igaro.
otzamar *(5)* : hotz samar, fresko
otzez il *(7)* : hotzez hil */ iltan naz otzez! (7):* hotzez hiltzen naiz!
otzikalditu *(5)* : ebaki (gaztainak) OH. Gaztainak ebaki, erretzean ez daitezen lehertu.
otztu *(3)* : hoztu */ biziuen kausaz otzten da anitxen karitatia (3):* bizioen ondorioz askoren karitatea hoztuko da.
ox! 1 *(5)* : uxa! (oiloak uxatzeko)
ox! 2 *(7)* : goazen! */ ox karrikara! (7):* goazen kalera! */ ox kebentik (7):* goazen hemendik.
oxa! *(11)* : uxa! (oiloak uxatzeko) OH. ´Ox!´ eta ´otxa!´ aldaerak ere dokumentatuak.
oxaba *(7)* : osaba
oxaba-izebak *(7)* : osaba-izebak
oxakatu *(9)* : uxatu
oxal *(3, 8, 9)* : oihal */ ñork ere ez [dau izartan] tapallu bat oxal lodiz beztido xar bati (3):* inork ere ez dio jartzen adabaki bat oihal lodiz jantzi xahar bati. */ xanzle bagez oxaldun (9):* jostun(ik) gabe (egonda) oihalduna (izan).
oxan *(1, 5)* : *(geog.)* baso */ oxan artegia (1):* baso(ko) artegia. */ oxanea (1):* basoa.
oxen *(3, 5)* : ozen */ mintzo andi eta oxen batekin (3):* ahots handi eta ozen batekin. OH. Azkuek dio ´oxen´ gauza txikiak direnean erabiltzen dela.
oxeski 1 *(1, 5)* : laiotz, ospel */ oxeski ederra (1):* laiotz ederra.
oxeski 2 *(5)* : mendebalde, sartalde
oxezki *(4, 5, 11)* : laiotz, ospel */ izeia eta lerra aztan dra oxezkietan (4):* izeia eta lerra leku

laiotzetan hazten dira. */ eguzku-begia lurbel dago, oxezkia astra elur agiri da (5):* egutera lurbeltz dago, laiotza aldiz elur(tsu) ageri da. */ oxezki altea (11):* laiotz aldea. */ oxezkia (11):* laiotza, ospela.

oxka 1 *(7)* : hotx (adj.) */ oxka dago (7):* hotxa dago.

oxka 2 *(5)* : hozkirri, hotx (txikigarria)

oxke *(5)* : hozka, koska (abereen belarrikoa)

oxko *(5)* : fresko (eguraldia)

oxkotu *(5)* : freskatu (eguraldia) */ oxkotu da trenpa (5):* freskatu da eguraldia.

oxotu *(5)* : uxatu

oxtu *(5)* : uxatu

oyolko *(10)* : *(suk.)* odolki */ lukainka, gianso eta oyolko (10):* lukainka, xingarra eta odolkia.

oz *(5)* : hotz

ozaita *(5)* : aitabitxi

ozargi *(5)* : *(met.)* oskarbi

ozartu *(5)* : erraustatu, errautsez estali

ozbera *(5)* : hozbera

ozekiatu *(10)* : aztarrika egin (?) */ ozekiatan gunia lurra [eta] mugurriak erkitan zria gainiara (10):* lurrean aztarrika egiten genuen eta mugurriak gainera ateratzen ziren.

ozen *(5)* : ozen

ozio *(5)* : *(bot.)* hozi, ernamuin */ azitik ozioa, trunkutik apurkina, gatiaren umea atzaparkina (5):* hazitik hozia, enborretik ezpala, katuaren umea atzaparkaria.

ozka *(5)* : izurdura (ilearena)

ozkamiñ *(5)* : hozki, kirri, hozkamin

ozkara *(5)* : *(met.)* hozkirri, freskura

ozkatu 1 *(5)* : hozka egin, kosk egin

ozkatu 2 *(5)* : hozkia eman

ozkatu 3 *(5)* : akastu, hozkatu (segak, aiztoak eta)

ozke 1 *(5)* : hozka, koska (abereen belarrikoa)

ozke 2 *(5)* : izurdura (ilearena)

ozkeala saltu *(5)* : epeka saldu */ ez ozkeala sal (5):* ez epeka saldu.

ozkidura *(5)* : hozki, kirri, hozkamin

ozkume *(5)* : ezkutaleku */ bere saintiua bagerik ez da ñor ere ebiltan bere ozkumetik (5):* bere santua gabe ez da inor ere ibiltzen (ateratzen) bere ezkutalekutik. */ gore iriko etseak banak ager-agerrean daude ta besteak ozkumean edo altxabean (5):* gure herriko etxeak batzuk ageri-agerian daude eta besteak ezkutalekuan edo ezkutuan. */ ozkumez ozkume edo altxabeaz altxabea ebilten dra aurrak, eskolara joan nai ezteinean (5):* ezkutalekuz ezkutaleku edo ezkutatokiz ezkutatuko ibiltzen dira haurrak, eskolara joan nahi ez dutenean.

ozkumez *(5)* : ezkutuan */ ozkumez dago ekus gonozkenetz (ekus ginozkenez) (5):* ezkutuan dago, ea ikus gintzakeen.

ozmin *(5, 11)* : hozmin (hotz handia)

ozpera *(5)* : hozbera

ozpin 1 *(3, 6, 7)* : ozpin */ batek esponja bat busti zion ozpinian (3):* batek belaki bat busti zuen ozpinetan. */ ozpina (6):* ozpina.

ozpin 2 *(5)* : ozpin (adj.) */ begitarte ozpina (5):* aurpegi ozpina.

ozpinbelar *(5, 9)* : *(bot.)* mingarratz handi
ozte *(5, 7)* : ehorzketa, lurperatze, hobiratze */ oztea (7):* ehorzketa, lurperatzea.
oztu *(7)* : hoztu */ tenpra oztu da (7):* eguraldia hoztu da.

P

pagatu *(7, 8)* : ordaindu */ idan eta pagaten di[n]ar (7):* emadan eta ordainduko dinat. */ bigarren urtian ez dien pagaten (8):* bigarren urtean ez diten ordainduko.

pakarazi *(4)* : ordainarazi */ balle koni, mitilak [gerrara] eraman biarrian, pakarazi zein ogeita bi milla duro (4):* ibar honi, mutilak gerrara eraman beharrean, hogeita bi mila duro ordainarazi zioten.

pakatu *(3, 4, 5, 10)* : ordaindu */ [bekatiuengatik] biar baita pakatu mundu kontan edo berzian (3):* bekatuengatik ordaindu behar baita mundu honetan edo bestean. */ Jesusek pakatan du deiru edo deuri edo moneda batekin (3):* Jesusek txanpon batekin ordaintzen du. */ nik pakaten daizud guziua (3):* nik dena ordainduko dizut. */ ezrela kantik erkinen azken marabidia paka´tzazun bitartio (3):* ez zarela handik aterako azken marabedia ordain dezazun bitartean. */ zor korren pakatiagatik saltu dra kainbat arbole (4):* zor hori ordaintzeagatik hainbat zuhaitz saldu dira. */ on zauna xatean, gaixto zau pakatean (5):* on zaiona jatean, txarra zaio ordaintzean. */ zor dion deuri andia paka dazaula tandaka (5):* zor duen diru handia ordain dezala epeka. OH. Zuberoan ere dokumentatua.

pake *(5)* : bake

pako *(5)* : laiotz, ospel

paku *(3, 4)* : ordain */ egiaz erraiten daizied errezibitu zeila bere pakiua (3):* egiaz erraten dizuet jaso duzuela haren ordaina. */ emoiten daidzeid ñore itza ez diola galten bere pakiua (3):* neure itza ematen dizuet ez duela galduko bere ordaina. */ mertxede kaur egin daiguk, yik guri egin nai onaren paku (4):* mesede hau egin diagu, hik guri egin nahi (higun) onaren ordain.

pala *(5)* : pala */ arotzaren etsen sukaldarreko pala zurez (5):* errementariaren etxean supazterreko pala zurez.

palastatu *(5)* : sakabanatu (gari sortak) OH. Gari sortak sakabanatu, intsektuek ez ditzaten kaltetu.

panpa (egin) *(5)* : *(haur.)* pan-pan egin, jo

panpaka 1 *(5)* : gainazpika (borrokatzea)

panpaka 2 *(5)* : atekadaka, leiho kolpeka (haizearekin)

pantika 1 *(5)* : urdail (abereena)

pantika 2 *(5)* : *(zoo.)* bare

pantor *(5)* : *(suk.)* txahalki gisatu OH. Txerri gantzatan gisatutako txahalki txikitua.

papa *(10)* : *(haur.)* ogi */ zer xanen dugu gaur? papa ta txitxi (10):* zer jango dugu gaur (gauean)? ogia eta txitxia.

papamexa *(5)* : meza-ogi OH. Elizan banatzen den ogi bedeinkatua.

papeleta *(5)* : *(biol.)* guruin

paper *(4, 5, 7, 9)* : paper */ nola kartan papera bete baizitzaitadan, ez naun obro isari (4):* nola gutunaren papera bete baitzitzaidan, ez nion gehiago jarri. */ ez badoke Parisen erden paperik eskribitako, nik oilten daud paper eta estalki (4):* ez badezake Parisen idazteko paperik aurkitu, nik bidaliko diot paper eta gutun-azal. */ fil-fil-fil yaistan da papera leiotik lurreraino (5):* fil-fil-fil jaisten da papera leihotik lurreraino. */ apezak leitu din paperetik yire lein irakatsaldia (5):* apaizak paperetik irakurri din hire lehen irakatsaldia (?). */ papera dundu [da] (7):* papera urdina da. */ paper kau anitx gaisto [dun] (9):* paper hau oso txarra dun. */ autse da papera (9):*

hautsi da papera.

papo *(5)* : *(anat.)* papo, paparo */ egalak autse ta papoa oso (5):* hegalak hautsi eta papoa osoa (= lan egin nahi ez eta ongi bizi nahi).

papu *(5)* : txerri-papo

papur *(5, 11)* : apur, papur (ogi-apurrak)

papurkatu *(5)* : papurkatu (ogia)

paputx *(5)* : *(suk.)* ogi-xerra (zopatakoa)

parabola *(3)* : parabola */ amar berjinen parabola (3):* hamar birjinen parabola. */ Jesusek parabolatan [predikatan du] (3):* Jesusek parabolatan predikatzen du.

paradiso *(2)* : *(erl.)* paradisu */ kanko arimak paradisoko gloriara [eraman zitiela] (2):* hango arimak paradisuko aintzara eraman zituela. */ oner emonen diela paradisoko gloria (2):* onei paradisuko aintza emanen diela.

paradisu *(2, 5)* : *(erl.)* paradisu */ paradisuk[o] saintu guzier (2):* paradisuko santu guztiei.

paradusu *(5)* : *(erl.)* paradisu */ paradusuko zabala, kanko ûrra sagarra (5):* paradisuko zabalera, hango hurra sagarra (da).

paratu *(3)* : geratu */ gaxki paratruk [zeuden], barriatruk kemen eta kan, ardiak artzaîn bage bikala (3):* gaizki geraturik zeuden, hemen eta han barreiaturik, ardiak artzain gabe bezala.

pardanpu *(5)* : mugimendu desorekatu(a) (goruarena)

pardanpu izan *(5)* : desorekatuta mugitu (gorua irutean) */ ardatz kau pardanpu da (5):* ardatz hau desorekatua da, desorekatuta mugitzen da.

pare *(5)* : berankor (azkena iristen)

parete *(1, 4, 5, 7, 8, 9)* : *(erai.)* pareta */ parete berria (1):* pareta berria. */ parete xuritan dei (4):* paretak zuritzen dituzte. */ arri batek, berark, ez du parete egiten (5):* harri batek bakarrik ez du pareta egiten. */ pareteak (5):* paretak. */ paretia desegin bar diezu lurriaraino (7):* pareta lurreraino desegin behar duzu. */ pareteak zuri [dra] (7):* paretak zuriak dira. */ etxeko paretiak zuri [dra] (7):* etxeko paretak zuriak dira. */ parete kau (8):* pareta hau.

Paris *(4)* : *(geog.)* Paris */ ez badoke Parisen erden paperik eskribitako, nik oilten daud (4):* ez badezake Parisen idazteko paperik aurkitu, nik bidaliko diot.

parkamentu *(2, 3, 4, 5)* : barkamendu, barkamen */ parkamentu esketu biar dugu (2):* barkamendua eskatu behar dugu. */ gore bekatiaren parkamentia (2):* gure bekatuaren barkamendua. */ parkamentu [eskatan] (3):* barkamendua eskatzen. */ parkamentiuan [xinestan dud] (3):* barkamenduan sinesten dut. */ ene odola izanen baita usuririk bekatiuen parkamentiutako (3):* nire odola isuria izango baita bekatuen barkamenerako. */ bekatiuen parkamentiuan [xinetstan dud] (4):* bekatuen barkamenean sinesten dut.

parkamentu-eske *(5)* : barkamendu-eske (iz.)

parkatu *(2, 3, 5, 7)* : barkatu */ bekatia parkatan diena (2):* bekatua barkatzen duena. */ gore lagunari parkatan [dutugu ofensak] (2):* gure lagunari barkatzen dizkiogu laidoak. */ guzier parketan diazkazieud (2):* guztiei barkatzen dizkiet. */ parka dazkaguzu gore zorrak (2):* barka iezazkiguzu gure zorrak. */ eztago mundu kontan bekatu parka eztaitek[e]nik (2):* ez dago mundu honetan barka ez daitekeen bekaturik. */ Adanenganik bekatu heretatu ginienaren parkatako (2):* Adanengandik oinordetzan hartu genuen bekatua barkatzeko. */ [ñore bekatiak] parkaten daiztazudala (2):* neure bekatuak barkatuko dizkidazula. */ [zorra] parkatu zaun (3):* zorra barkatu zion. */ guk parkatan digun bikala (3):* guk barkatzen dugun bezala. */ aitak parkaten daizei xaurien bekatiuak (3):* aitak barkatuko dizkizue zeuen bekatuak. */ batixatuz*

gero bekatu egin digunen parkatako (3): bataiatu ezkero egin ditugun bekatuak barkatzeko. */ parkatruk zaitzu zore bekatiuak (3):* barkatuak zaizkizu zure bekatuak. */ parka daizkiguzu gore zorrak (3):* barka iezazkiguzu gure zorrak. */ parka beztad, ez daud obro isartan (4):* barka biezat, ez diot gehiago jartzen. */ erranak erranik, parka (5):* esanak esan, barka.

parra *(5)* : *(bot.)* masustondo

parrapatu 1 *(10)* : xehatu */ losa batan parrapatan zeia gatza (10):* lauza batean xehatzen zuten gatza.

parrapatu 2 *(9, 11)* : aztarrika egin

parrapiatan *(9)* : aztarrika

parrasta *(5)* : parrasta

parrastada *(5)* : parrastada

parrastaka *(5)* : parrastaka

parrastan *(5)* : eskukadaka (erein)

parrutxo *(5)* : *(bot.)* parrutxo (onddo mota bat)

partitu 1 *(2, 3)* : abiatu */ kaur entzun baikoz erregiari, partitu zren (3):* erregeari hau entzun bezain laster, abiatu egin ziren. */ kementik partitu zelarik (3):* hemendik abiatu zenean.

partitu 2 *(4)* : banatu */ [besugo] amintirrina bana partitu dabeid (4):* bisigu pitintxo bana banatu diet.

pasione *(2, 3)* : *(erl.)* pasio */ leina, gore jeinaren pasione saintia (2):* lehena, gure jaunaren pasio santua. */ krutxian igari ziela erioa eta pasionia (2):* gurutzean igaro zituela herioa eta pasioa. */ edan dokezeia pasioniaren kaliza nik edan biar duana? (3):* edan al dezakezue pasioaren kaliza, nik edan behar dudana?

paste *(5)* : begizta

pasteilla 1 *(5)* : harizpi */ pasteillaka aillakatan diez nik ile-aria (5):* harizpika harilkatzen dut nik artile-haria.

pasteilla 2 *(5)* : mataza-hari

pastu *(8)* : *(bot.)* ezkur */ pastua (8):* ezkurra.

pasu 1 *(3)* : urrats, pauso */ antzinatan zelarik zomait pasuz edo urratsez (3):* zenbait pauso edo urrats aurreratzen zela.

pasu 2 *(5)* : pasaera */ uztupa su ondoan, peligroa borta-pasuran (5):* iztupa su ondoan, arriskua ate(ko) pasaeran.

pasu 3 *(5)* : hesi OH. Zuberoan ´pasü´ dokumentatua.

patar *(5)* : aldapa, patar (aldapa txarra)

patarraka *(5)* : oihuka

patarsu *(5)* : aldapatsu, patartsu

patata *(4, 5, 10)* : *(bot.)* patata */ patatak ostorik bage [daude] (4):* patatak hostorik gabe daude. */ olomoloa belar luze bat da, kaparron ta patata artean a[z]tan da (5):* olo gaiztoa belar luze bat da, kaparrondo (?) eta patata artean hazten da. */ lurra anix aseri dago patata erkitako (10):* lurra oso ase(ta) dago patata ateratzeko.

patategi *(11)* : patatategi OH. Patatak gordetzeko etxeko lekua.

patenoster *(5)* : perla-lepoko OH. Azkuek ´emakume erronkariarrek jantzi ohi zituzten lepoko perlak´ oharrarekin dokumentatua.

patera *(10)* : *(alb.)* maingueri, sukar aftoso

patin *(5)* : etxaurre OH. Etxaurreko lekua, lanerako erabilia.

patron *(4)* : patroi, santu */ eltu gra osagarrireki san Pedro gore patronaren eguniarat (4):* osasunez heldu gara san Pedro gure patroiaren egunera.
pattatta *(11)* : *(bot.)* patata */ pattattingo (11):* patatatxo.
pattattegi *(11)* : patatategi
patxaka *(11)* : *(bot.)* basaka
patxar *(11)* : pattar */ patxarra (11):* pattarra.
patxaran 1 *(11)* : patxaran (edaria)
patxaran 2 *(11)* : *(bot.)* basaran
Patxiko *(5)* : Patxi OH. Bizkaian-eta ´Patxiku´ dokumentatua.
Paue *(8)* : *(geog.)* Paue */ Oloronen izan nuzu, Pauen ez (8):* Oloronen izan naiz, Pauen ez.
paupaka *(4)* : mara-mara */ orai berian dago elurra paupaka (4):* oraintxe bertan elurra ari du mara-mara.
pausatu *(5)* : pausatu, atseden hartu
paxaran *(5, 8, 10)* : *(bot.)* basaran */ paxaran anitx, gari txiki (5):* basaran anitz, gari gutxi. */ paxarana (10):* basarana.
paxarantze *(8)* : *(bot.)* elorri beltz */ paxarantzia (8):* elorri beltza.
pazar *(11)* : pattar */ pazarra (11):* pattarra.
pazienzia *(2, 4, 10)* : pazientzia, eroapen */ bai, eramaitan balimadra pazienziaz (2):* bai, pazientziaz eramaten baldin badira. */ badakik badiola buru eta pazienzia [lan] guziuer beatako (4):* badakik baduela burua eta pazientzia lan guztiei arreta jartzeko.
pazienzia ekun *(4)* : pazientzia eduki */ ekun beza pazienzia kemendik antzina (4):* eduki beza pazientzia hemendik aurrera.
pe 1 *(1, 2, 3, 4, 7, 9, 10, 11)* : pe; azpi */ bormapea (1):* hormapea. */ krutxepea (1lm):* gurutzepea. */ lezapea (1):* leizepea. */ sekretoaren pean (2):* sekretu pean. */ ixiki ere ez deiteke argia izartako almute baten pean (3):* argia piztu ere ezin da egin, almute baten pean jartzeko. */ eltu gra tenprara, lanek pean arrapatu baigitei (4):* lanek pean harrapatu gaituzten garaira heldu gara. */ badu ogei egun, elurte andi batek pean gazkala (4):* badu hogei egun, elurte handi batek pean gauzkala. */ [paper guziuak] mai pera egoxten daizk (4):* paper guztiak mahai pera botatzen dizkik. */ betik golpearen pean (5):* beti kolpearen pean. */ petik gora (7):* petik gora. */ gain kartarik erori dun pe kontra (9):* gain hartatik erori dun pe honetara. */ arrian pean (9):* harri(aren) pean. */ kor daude lotan, manta baten pean (10):* hor daude lotan, manta baten pean. */ petik (10):* petik, azpitik. */ lexope (11):* leihope(a). */ txulapeko (11):* urdaipeko (txerri atala). */ Garjonpekoa (11):* Garjonpekoa.
pe 2 *(3)* : menpe, mende */ Pilatosen poderaren pean (3):* Pilatosen boterearen menpean.
pe 3 *(5)* : zoru
peilla *(5)* : *(bot.)* brokoli
Peio *(5)* : Pello, Peru, Betiri */ begiak liro zazkan atzo Peiok, argi Antxikok (5):* begiak goibel zeuzkan atzo Pellok, argi Patxik.
peko *(7)* : *(met.)* hego, hego-haize */ iparra [eta] pekoa (7):* iparra eta hegoa.
pekoaire *(2)* : *(met.)* hego-haize
pelegrinu *(2)* : erromes */ pelegrinuer ostatu emoitia (2):* erromesei ostatu ematea. OH. ´Peregrinu´ ere dokumentatua.
pelota *(5, 7, 9)* : pilota */ yik bikainbat falta dionik ez dion pelota xokurik (5):* hik bezainbat falta duenik ez zagon pilota jokorik. */ ene pelota ekustan dur (7):* nire pilota ikusten dut. */ axuriak*

kiñuetan gaintik eta artzaiak pelota-xokian (9): arkumeak lursailetan gaindi eta artzainak pilota-jokoan.

pelotari *(5)* : *(kir.)* pilotari */ pelotaria elizan ebilten da saintuz saintu (5):* pilotaria elizan ibiltzen da santuz santu.

-pen *(3, 5, 9)* : -pen */ urdupenian (3):* irudipenean. */ zarzapen (5):* zahartzapen, zahardade. */ txartxapen (9):* zahartzapen, zahardade.

penatu *(8)* : penatu, nahigabetu */ zu oian ta ni bortan, biak giutzu penatan (8):* zu ohean eta ni atean, biak gara penatan.

penitenzia *(3, 5)* : *(erl.)* penitentzia */ aspaldian eginik ekunen [zein] penitenzia (3):* aspaldi eginik edukiko zuten penitentzia. */ zeren ek penitenzia [egin baizein], Jonasen predikazionia [entzutian] (3):* zeren haiek penitentzia egin baitzuten, Jonasen predikua entzutean. */ egiaz batixatan [ztied] urekin, penitenziara [mobiaraztako] (3):* egiaz bataiatzen zaituztet urarekin, penitentziara mugiarazteko. */ ñore konfesoreak emon diztein penitenzia (5):* neure aitorleak eman didan penitentzia. OH. Azkuek ´penitentzia´ dokumentatua.

pensamentiuan artu *(3)* : gogoan hartu, pentsamenduan hartu */ pensamentiuan artruk dakad biar daudala eskribitu (4):* gogoan harturik daukat idatzi egin behar diodala.

pensamentu *(2, 3, 4, 5, 7)* : pentsamendu */ pensamentu gaxto guzietarik [libratzeko] (2):* pentsamendu txar guztietatik libratzeko. */ izan gitiala xai itzez [eta] pensamentuz (2):* garbiak izan gaitezela hitzez eta pentsamenduz. */ pensamentu gaixtuetarik [libra gitzan] (3):* pentsamendu txarretatik libra gaitzan. */ beren pensamentiuak [ekustian] (3) beren pentsamenduak ikustean. / bazion aspaldixko, bi pensamentu nazkala buriuan sartruk (4):* bazuen aspalditxo, bi pentsamendu neuzkala buruan sarturik. */ anitx aldiz xiten zaitad pensamentiuara (4):* anitz aldiz etortzen zait pentsamendura. */ biar dud pensamentiua eraman antzinadeneko trenpetra (4):* antzinako garaietara eraman behar baitut pentsamendua. */ goseak ez du pensamentu onik (5):* goseak ez du pentsamendu onik. */ betik yakad pensamentiuan (5):* beti haukat pentsamenduan. */ eztun elerik ez pensamenturik jangeikoak eztakiela (7):* ez dun hitzik ez pentsamendurik jaungoikoak ez dakienik.

pensatu *(2, 3, 4, 5)* : pentsatu */ artan pensatako (2):* hartan pentsatzeko. */ [ixilki eiztia] pensatu zion (3):* isilik uztea pentsatu zuen. */ ez dela gaxki pensatu biar (3):* ez dela gaizki pentsatu behar. */ erraitia, egitia, pensati[a] legiaren kontra (3):* esatea, egitea, pentsatzea legearen aurka. */ biotza erdiratan zaitad pensatian zer izanen den ote nitaz (4):* bihotza erdiratzen zait, nitaz zer izanen ote den pentsatzean. */ pensa beza, pensa zazu, pensa zak, pensa zan (4):* pentsa beza, pentsa ezazu, pentsa ezak, pentsa ezan. */ zer komento biar duan ekun betik nago pensatan (5):* zer komentu eduki behar dudan beti nago pentsatzen.

peon *(4)* : peoi, langile */ Aragoko lein irietarik anitx peon [xiten dra zûr trabajatako] (4):* Aragoiko lehen herrietatik peoi asko etortzen dira egurrean lan egiteko. */ korrengatik kemenko peona kario [da] (4):* horregatik hemengo peoia garestia da. */ oraino´re etsekuek peonik obenena nakei egitatako (4):* oraindik ere etxekoek peoirik onena naukate igitatzeko.

perexil *(5)* : *(bot.)* perrexil

perkax *(5)* : arduratsu, prestu

perkox *(5)* : akitu, nekatu (adj.)

perkoxtu *(5)* : akitu, nekatu

perletikatu *(3)* : elbarritu, perlesiatu */ perletikatiuak sontotan ztion (3):* elbarrituak sendatzen zituen. */ ene mitil zerbutxari bat dago etzinik etsen, perletikatruk (3):* ene mutil zerbitzari bat

etxean etzanik dago, elbarriturik.
permentin *(5)* : *(kim.)* trementina
pernazkaka *(5)* : jauzika, saltoka (jolasean)
perraxil *(2, 4, 5)* : *(bot.)* perrexil
perretxiko *(11)* : perretxiko
perrote 1 *(11)* : *(erai.)* perrote OH. Teilatu-hegalari eusten dioten gapirioak.
perrote 2 *(5)* : usaimen
perruka *(2, 5)* : garatxo
persona *(2, 3)* : pertsona */ nor da kristiaia? persona batixatia (2):* nor da kristaua? pertsona bataiatua. */ gizonaren [etsaiak] izan dra bere[n] etse berbereko personak (3):* gizonaren etsaiak beren etxe berbereko pertsonak izan dira.
pertika *(5)* : txirikila, txirikila-makila (haur jolasekoa) */ pertikara (5):* txirikilan (jolastu).
pesatu *(9)* : pisatu */ pesa tzurala ñaurek (9):* neuk pisa ditzadala. */ pesa tzugula giaurek (9):* geuk pisa ditzagula.
petar *(5)* : petar (behealdeko biztanlea) OH. Azkuek ´Maule inguruko zuberotarrei hala deitzen diete´ oharrarekin dokumentatua.
petigora *(9)* : aldapa
Petiri Santz *(5)* : Petiri Santz (gosea pertsonifikaturik) OH. Zuberoan ere dokumentatua.
petral *(5)* : zingila, petral (zamarien sabel aldeko uhala)
Petri *(1)* : Pello, Peru, Betiri */ done Petri zarra (1):* done Pello zaharra.
pettarro *(5)* : *(med.)* betxindor
petxa *(5)* : *(ekon.)* petxa (zerga)
peza *(10)* : pisutsu, astun
pezatu *(3, 10)* : pisatu */ karga pezatiuak [biltan faiten dra] (3):* zama astunak bilduz joaten dira. */ pezatan dien anitx (10):* asko pisatzen diten.
pezeta *(4)* : pezeta */ ganzta saltan dei ogeita zazpira pezeta arroba (4):* gazta saltzen dute hogeita zazpi pezetan arroa.
pezu 1 *(3, 4)* : pisu */ egunaren eta beruaren peziua [soportatu digu] (3):* egunaren eta beroaren pisua jasan dugu. */ pezu andi baten azkatako lurretik soinaraino (4):* pisu handi bat altxatzeko lurretik sorbaldaraino.
pezu 2 *(5)* : handi, galant (pertsona)
piadera *(5)* : presatxo OH. Arrantzatzeko egiten den presatxoa.
pikar 1 *(5, 11)* : *(geog.)* haitzarte, haizpitarte */ pikarraz gora aintzak faten zazka (5):* haitzartean gora ahuntzak joaten zaizkio. */ botxe da larrubide edo erorgu andiena, pikarra bigarrena, turrunberoa ñoago (5):* ´botxe´ amildegi edo amiltoki handiena da, ´pikarra´ bigarrena eta ´turrunbero´ txikiagoa. */ pikarra (11):* haitzartea.
pikar 2 *(5)* : pinu-gihar OH. Argi onena egiten duen pinuaren zatia.
pikatu *(1)* : moztu */ Maze muga pikatua (1):* Maze muga moztua. OH. Zubereraz ere dokumentatua.
pike *(4)* : bike */ erraziaz egiten da pikia (4):* erretxinaz bikea egiten da.
piko 1 *(1)* : aldapatsu, piko */ ardibide pikua (1):* ardibide aldapatsua.
piko 2 *(5)* : ebaki (aiztoz-eta egina)
pikor 1 *(5)* : ale, pikor
pikor 2 *(4, 5)* : pixka */ egun kuetan nago sendimentu pikor bateki (4):* egun hauetan sentimendu

pixka batekin nago. */ pikorrik ez (5):* pixka bat ere ez, ezer ez.
pikotx *(5, 11)* : pikotx */ pikotxa (11):* pikotxa. OH. Aznarezek ´heldulekua duen tresna´ oharrarekin dokumentatua.
pil-pil *(5)* : pil-pil (bihotz taupaden onomatopeia)
pila *(5)* : *(tek.)* pila, bola OH. Zapiak jotzeko edo garbitzeko makina.
pilatu *(5)* : pilaz jo, garbitu OH. Zapiak jo edo garbitu ´pila´ izeneko makinan. Azkuek ´pillatu´ ere dokumentatua.
pilpilka *(5)* : malutaka */ pilpilka elurra erausten da (5):* elurra malutaka erortzen da.
piltxo 1 *(5)* : papo, paparo (hegaztiena)
piltxo 2 *(5)* : urdail (abereena) OH. ´Piltzo´ hitzaren txikigarria da.
piltxun-piltxun *(5)* : pilota-jaurtiketa (haur jolasa) OH. Pilota elkarri jaurtitzea. Azkuek ´pitxon´ izena ere dokumentatua.
piltzo 1 *(5, 7)* : urdail (abereena) OH. Bernardo Estornesek ´hausnarkarien laugarren urdaila´ argibidearekin dokumentatua. Oibarerrin, Aezkoan eta Zaraitzun ere dokumentatua.
piltzo 2 *(8, 9)* : *(suk.)* mondongo, odolki (handia) */ piltzo odolon gizen bat [dun], gizenena (8):* ´piltzo´ odolki gizen bat dun, gizenena.
piltzo 3 *(8, 9)* : zaraitzuar OH. Erronkariarrek zaraitzuarrei jarritako izengoitia da.
pillista *(5)* : taldetxo (abereena)
pillota *(5)* : pilotatxo
pinotx *(2, 4)* : pinazi (jatekoa) */ pinotxa (4):* pinazia.
pinpili-ponpa *(10)* : pinpili-panpa (kulunkatzearen onomatopeia) OH. Orotariko Euskal Hiztegian ´pinpili-panpa(la)´.
pinpin *(5)* : *(jos.)* txistu (landarez egina)
pinpintxori *(2)* : *(heg.)* txonta, neguta
pintika *(5)* : *(anat.)* urdail OH. Azkuek ez zuen zehaztu ´piltzo´ren sinonimoa den ala ez.
piopio 1 *(2)* : *(zoo.)* arrabio
piopio 2 *(5)* : *(zoo.)* eskorpioi
pipatu *(10)* : tabakoa erre */ pipatra [xoan] (10):* tabakoa erretzera joan.
piper *(2, 5, 9, 10)* : *(bot.)* piper */ piper bat (9):* piper bat. OH. Izagirrek ´pipermin´ esanahian ere dokumentatua.
piper egin *(5)* : piper egin (eskolara ez joatea)
piper egon *(5)* : parrandan ibili */ piper dago (5):* parrandan dabil.
piper-zuku *(5)* : *(suk.)* piper-zopa OH. Azkuek ´gazta, baratxuri eta piperrez egindako zopa´ esanahiarekin dokumentatua.
piperbeltx *(10)* : *(bot.)* piperbeltz
piperbeltz *(2)* : *(bot.)* piperbeltz
piperkoilla *(5)* : *(met.)* txingor, kazkabar
piperrada *(5, 11)* : *(suk.)* piperrada OH. Aznarezek ´piparrada´ aldaera dokumentatu zuen.
piperraldi *(10)* : *(suk.)* piperrada
pipi *(5)* : *(haur.)* pipi OH. Oilarra, oiloa eta hegazti guztiak.
pipin *(11)* : *(bot.)* ezpel-aletxo
pipiño *(5)* : *(bot.)* ezpel-aletxo */ pipiño urte, gari urte (5):* ezpel-aletxo urte, gari urte.
pipirkolla 1 *(9)* : *(met.)* txingor, kazkabar
pipirkolla 2 *(9)* : bixi (pertsona) OH. Pertsona txikitxoa eta bixia, mugikorra.

pipita *(5)* : pipita
pipiz *(5)* : *(haur.)* pixa
pipol *(5)* : upa-ohol
pir-pir *(5)* : pir-pir (irakite txikiaren onomatopeia) */ ur erakiak egitan du ´pir-pir´ astan denean; ´bor-bor´ eta borbelaka anitx-anitx dagonean (5):* ur irakinak ´pir-pir´ egiten du hasten denean, ´bor-bor´ eta borborka asko-asko dagoenean.
pirra *(5)* : pirra (hariaren onomatopeia) OH. Hariaren onomatopeia gorutik irtetean.
pirrin 1 *(5)* : txingar
pirrin 2 *(5)* : txinpart
pirrina *(5)* : *(met.)* elur malutatxo
pirrinttankaka *(5)* : irrintzika (mutilak)
pirrist *(5)* : pirrist, parrast OH. Bat-bateko ur zurrustaren onomatopeia.
pista *(1)* : pista, mendibide */ pista burua, pistapea, pista zarra (1):* pista goialdea, pistapea, pista zaharra.
pistela *(5)* : harilkai-listoi, pistela
pit *(5)* : pitin, pixka */ pitik eztu sakelan (5):* pixka bat ere ez du sakelan.
pitar *(5, 11)* : pitar (ardo eskasa) */ pitarra (11):* pitarra. OH. Azkuek ´ardo eskasa´ oharrarekin dokumentatua. Aznarezek ´etxeko ardoa´ oharrarekin dokumentatua.
pito *(5)* : kriskitin (hatzez egina)
pitter *(10)* : pitxer, txarro */ pitterka bat ur (10):* pitxerkada bat ur.
pittor *(5)* : *(med.)* betxindor
pitxer *(5)* : pitxer, txarro */ orobat da arriaz pitxerari nola pitxeraz arriari (5):* berdin da harriaz pitxerrari edo pitxerraz harriari. */ ura pitxeran (5):* ura pitxerrean. OH. Pitxerraren esamoldearen parekoa da Azpeitiko ´Buruekin harriye jo edo harriyekin burue jo...´ esamoldea.
pitxeranto *(5)* : pitxertxo
pitxontzi *(9)* : maskuri, puxika */ pitxontzia (9):* maskuria, puxika.
pitz *(5)* : zipitz, tut
pix *(5)* : pixa
pix egin *(5)* : pixa egin */ pix egiten bara adi (5):* gera hadi pixa egiten. OH. Azkuek ´pis egiten´ dokumentatua.
pixa *(2, 4, 10, 11)* : pixa
pixa egin *(10)* : pixa egin */ pixa egin dien, [pixa] egitan dien (10):* pixa egin din, pixa egiten din.
pixagorri *(5)* : *(alb.)* pixagorri
pixeden *(5)* : *(alb.)* pixagorri
pixegile *(10)* : pixagura */ pixegile [diar] (10):* pixagura dut. */ pixegilia (10):* pixagura.
pixkin *(5)* : egurki-hondar
pixkolte *(2, 4, 5, 8, 9, 10)* : *(anat.)* zilbor */ pixkoltia (8, 10):* zilborra.
pixontzi 1 *(2, 9, 10)* : *(anat.)* maskuri, puxika */ pixontzia (10):* maskuria, puxika.
pixontzi 2 *(11)* : *(jos.)* maskuri, puxika
pixuntzi 1 *(11)* : pixontzi OH. Hitz honen lekukoktasuna Burgiko gaztelanian gordetako ´pichunchi´ hitzean dago.
pixuntzi 2 *(5)* : *(anat.)* maskuri, puxika
piz *(7)* : pixa
piz egin *(7)* : pixa egin

piz-piz *(5)* : *(haur.)* pixa

pizontzi *(9)* : *(jos.)* maskuri, puxika */ an zan pizontzi kori (9):* puztu (hantu) ezan puxika hori.

pizt *(5)* : tut, fits */ eztu piztik erran (5):* ez du tutik erran.

plantaiñ *(11)* : *(bot.)* zainbelar, plantain */ plantaiña (11):* zainbelarra, plantaina.

plantxarte *(5)* : *(nek.)* plantxarte OH. Zuhaitzetara igotzeko ziridun haga sendo zuloduna.

plater *(3, 7, 9)* : plater */ emon daiztazud plater batian Juanen buriua (3):* eman iezadazu plater batean Juanen burua. */ kanpuarako altetik basua eta platera [xaîtan tzeinak] (3):* kanpoko aldetik edontzia eta platera garbitzen dituzuenak. */ bere eskiua platerian [sartan diona] (3):* bere eskua platerean sartzen duena. */ platerak xatatu ditiegu (7):* platerak garbitu ditugu. */ plater bat, platerak (9):* plater bat, platerak.

plazta *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : plaza */ ipokritek karriketan edo plaztetan [egiten dein bikala] (3):* itxuratiek kaleetan edo plazetan egiten duten bezala. */ ñork ere ez du entzunen aren irago egitia plaztetan (3):* inork ere ez du entzungo haren oihu egitea plazetan. */ plaztan [zauden, eskiuak krutxatruk] (3):* plazan zeuden, eskuak gurutzaturik. */ plaztara [fan naz] iror gisatako sagar saltra (4):* plazara joan naiz, hiru modutako sagarrak saltzera. */ ene emaztea plaztan lantzan (5):* ene emaztea plazan dantzan. */ ez dion [mazterik] plaztan eblerik (7):* ez zagon emakumerik plazan oinez (ibiltzen). */ plaztan neskato montoi [bat] (8):* plazan neska pila bat (egoten da). */ plaztara prisaka txuntxunean dantzatra [xuaitako] (9):* plazara presaka tuntunean dantzatzera joateko. */ [dantzan] anitx laster plaztan (10):* dantzan oso arin plazan.

pobre *(3, 5)* : txiro, behartsu */ pobriak dazkazei betik eskiuara, baia ni ez nakazei betik (3):* txiroak beti dauzkazue eskura, baina ni ez naukazue beti. */ obro du abratsak pobretan denean, ezik pobreak abrasten denean (5):* gehiago du aberatsak txirotzen denean, txiroak baino aberasten denean.

pobretu *(5)* : txirotu, behartsu egin */ obro du abratsak pobretan denean, ezik pobreak abrasten denean (5):* gehiago du aberatsak txirotzen denean, txiroak baino aberasten denean.

poixko *(10)* : puxka (txikigarria) */ poixko bat (10):* puxka bat.

poliki *(11)* : poliki */ poliki-poliki (11):* poliki-poliki.

polit *(7, 11)* : polit */ zore alaba anitx polit [da] (7):* zure alaba oso polita da. */ axarien larrua (larria) anitx polit [da] (7):* azerien larrua oso polita da. */ [ganbra] xai ta polit dago (7):* logela garbi eta polit dago. */ neska polita (11):* neska polita.

polpa 1 *(5, 11)* : haragi (hezur gabea) */ urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa eta martxo gaisoari egozten dabei kulpa (5):* urtarrilak jaten du gurina, otsailak jaten du haragia eta martxo gaixoari botatzen diote errua.

polpa 2 *(5, 11)* : *(anat.)* izter */ artzaiek ezpalitzei eraman tapatruk polpak zagonez, oboro aldiz [egonen zren] gatarratruk (5):* artzainek ez palituzte izterrak ziraz estalita eraman, gehiagotan egongo ziren marrantaturik.

polsera *(5)* : adats, ile-adats (luzea)

polli *(5)* : polit

pollit *(3, 7, 8, 9, 10)* : polit; pollit (txikigarria) */ kanpoko altetik urdu baitei pollit (3):* kanpoko aldetik politak baitirudite. */ [zare bat xostan zagon], kostura ezaman pollit, baia izangiua zinez (5):* saski bat josten ari zen, jostura ez zeraman polit, baina erresistentzia zinez. */ yire alaba [anitx pollit dun] (7):* hire alaba oso pollita dun. */ Uriña anitx pollit [tzu] et´orai anitxez pollitago (8):* Iruñea oso polita da eta orain askoz politagoa. */ ñotto tzu, baia pollit (9):* txikitxoa da, baina polita. */ zer pollit! (10):* zer polita!

pollitasun *(5)* : liraintasun, txairotasun
pollitu *(5)* : politu, edertu
ponitu *(5)* : ordaindu
ponpitu *(5)* : *(haur.)* erori
ponpox *(5)* : panpox, apain, txukun
ponpoxtu *(5)* : apaindu, txukundu (pertsona)
pontxa *(5)* : panpina
pontxo *(5)* : dotore
popa *(5)* : talkada (ahari eta idiena)
popaka *(5)* : talkadaka
popina *(5, 11)* : panpina */ popiña (11):* panpina.
popolo *(5)* : potolo
porkatu *(5)* : hozkia eman
porrakatu *(5)* : akitu, porrokatu (nekearen nekez)
porrekiñatu *(5)* : suntsitu, txikitu
porrokatu 1 *(3, 4)* : txikitu, porrokatu, txiki-txiki egin */ arri berak porrokaten du [kura], zoinen gainian eror ledin (3):* harri berak txikituko du hura, zeinaren gainean eror ledin. */ [txerriek mantria isari dei] zatika, porroka, xerbiga, xigote, portteka-porttekatruk (4):* txerriak izara zatika utzi dute, puskaka, xehaturik, birrinduta, txiki-txiki eginda.
porrokatu 2 *(5)* : akitu, porrokatu (nekearen nekez)
porroketan *(5)* : nekatu, akitu (jardun batean)
porru *(2, 4, 5)* : *(bot.)* porru */ aza ta porru xan eta dolu (5):* aza eta porruak jan eta damu.
porta *(1)* : *(geog.)* ate, ataka */ porta zabalea (1lm):* ataka zabala.
portatu *(3)* : portatu */ gisa kontan portaten da ene aita xekin (3):* modu honetan portatuko da ene aita zuekin.
porttekatu *(4)* : txikitu, zatikatu, txiki-txiki egin */ [txerriek mantria isari dei] zatika, porroka, xerbiga, xigote, portteka-porttekatruk (4):* txerriak izara zatika utzi dute, puskaka, xehaturik, birrinduta, txiki-txiki eginda.
posible izan *(3)* : posible izan, litekeena izan */ nola da posible norbait sar dein etsian eta ebats dazan? (3):* nola da posible norbait etxean sar dadin eta ebats dezan? */ nola da posible xek aipa zazein gaiza onik? (3):* nola da posible zuek gauza onik aipa dezazuen? */ posible dia etzeila al ekuntu bijila oren bat enekin? (3):* posible al da ez duzuela nirekin ordu batez zaindu ahal izan?
postuma *(5)* : *(med.)* itzemin, erpuruko (hatzetako gaitza)
poto *(11)* : poto OH. Aznarezek ´ardoa gordetzeko artzainek, abelbidean zihoazenean, egiten zituzten ontzixoak, arkumeen larruekin eginak´ argibidearekin dokumentatua.
potolo *(11)* : potolo, lodikote
potre *(2)* : botere */ Ponzio Pilatosen potrearen pean (2):* Pontzio Pilatosen boterearen pean.
potreta *(10)* : argazki; erretratu
potreta erkin *(10)* : argazkia egin, argazkia atera */ Eibarko batek erkin zitazun potreta kaur (10):* Eibarko batek egin zidan argazki hau.
potxolo *(11)* : potxolo
potxunko *(5)* : putzu, potxingo OH. Bidekoa nahiz karrikakoa.
potzolo *(5)* : potolo, potzolo

poxunko *(5)* : putzu, potxingo OH. Bidekoa nahiz karrikakoa.
pozale *(5)* : txongil, potin
pozka *(5)* : garratz, mingar
pran-pran *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)
predikatu *(3)* : predikatu */ [Juanek] predikatan du eta batixatan (3):* Juanek predikatzen du eta bataiatzen. */ guniaz geroz Jesus predikatan [asi zen] (3):* orduz gero Jesus predikatzen hasi zen.
predikazione *(3)* : *(erl.)* prediku, sermoi */ zeren ek [penitenzia] egin baizein, Jonasen predikazionia [entzutian] (3):* zeren haiek penitentzia egin baitzuten, Jonasen predikua entzutean.
presa *(1)* : *(erai.)* presa */ presa zarra (1):* presa zaharra.
preso *(3)* : preso (iz.)
preso egin *(3)* : preso egin */ ñoiz ere enintzizein preso egin (3):* inoiz ere ez ninduzuen preso egin. */ [makilekin] erkin zrei ni preso egitra (3):* makilekin atera zarete ni preso egitera.
prestu *(3)* : prestu */ informa ztei nor den gizon prestu errezibi dazaizein ostatuz (3):* informa zaitezte (herrian) nor den gizon prestua ostatuz har zaitzaten. */ gizon prestiuak gaiza onak [erkitan tu] bere biotzaren ondo onetik (3):* gizon prestuak gauza onak ateratzen ditu bere bihotzaren hondo onetik.
prexa *(5)* : *(erai.)* presa */ gaintikatu zaigu egoatxa ta zubu ta prexa berareki eraman ditu (5):* ibaia gainezkatu zaigu eta zubia eta presa berarekin eraman ditu.
prezio *(3, 4)* : prezio */ zertra galtakeria kaur, prezio anditan al ekuntu zenian kaur saltu? (3):* zertara (dator) eralketa hau, prezio handian sal zitekeenean hau? */ irorek saltu tei prezio batra [arraultziak] (4):* hirurek prezio batean saldu dituzte arrautzak. */ prezio beriara saltuz (4):* prezio berean salduz. */ yiretako ez dion preziorik (4):* hiretzat ez zagon preziorik.
primal *(5)* : *(zoo.)* ahari (bi urtekoa)
primala *(4)* : *(zoo.)* ardi (bi urte artekoa)
prisaka *(7, 9)* : presaka */ prisaka [xoaitan, egunaz elten guzu] (7):* presaka joanez, egunez helduko gara. */ plaztara prisaka txuntxunean dantzatra [xuaitako] (9):* plazara presaka tuntunean dantzatzera joateko.
probetxu *(3, 4)* : probetxu */ oberta nik ñore partez ofrezi nezana zore probetxutan [izanen da] (3):* nik neure partez eskain nezan eskaintza zure probetxutan izanen da. */ ezaitad antzeren erraitia zer probetxu emoiten dein orobat lerrak nola izeiak (4):* ez zait ahaztuko esatea zer probetxu ematen duten orobat lerrak (pinuak) nola izeiak.
probetxu emon *(4)* : probetxu eman */ eztu merexi isar bakotxaren izenik, ez baitei probetxurik emoiten (4):* ez du merezi (zuhaitz) bakoitzaren izena jartzea, ez baitute probetxurik ematen.
profeta *(3)* : profeta */ jeinak antzinetik erran ziona profetaren medioz (3):* jaunak aurretik esan zuena profetaren bidez.
profetizatu *(3)* : profetizatu */ arrazônekin profetizatu zion xetaz Isaiasek (3):* arrazoiarekin profetizatu zuen zuetaz Isaiasek
prometimentu *(4)* : agintza, promes */ el gitian ekutra gore jeinaren prometimentiuak (4):* gure jaunaren agintzak edukitzera hel gaitezen.
prozesione *(10)* : *(erl.)* prozesio */ prozesione txiki [egitan da] keben orai (10):* prozesio gutxi egiten da hemen orain. */ [Korpus Kixte] egunean iri guzutik ebiltan da prozesionia, baia besterik ez (10):* Korpus Kristi egunean herri osoan ibiltzen da prozesioa, baina besterik ez.

puiu *(1)* : puiu */ puiu arria (1lm):* puiu haitza. OH. ´Puiu´ toponimian latinezko ´podium´ hitzaren euskal forma da. Orbaibarren ere dokumentatua.
pultsu *(2)* : pultsu
punpa *(5)* : punba (erortzearen onomatopeia)
punpa-panpaka *(5)* : punbaka, zabuka erorka
punpuilla *(5)* : burbuila
punta *(1, 3, 5)* : punta */ puntarri (1):* punta harri(a). */ berek nai ez deinian eztare arrimatu eri punta mobiaraztako (3):* eurek hatz punta ere hurbildu nahi ez dutenean mugiarazteko. */ orratzak bikalako punta anitz zorrotz tu (5):* orratzak bezalako punta anitz zorrotz ditu. */ obro milla ezik bilo-punta durana (5):* ditudan ile-puntak baino milako gehiago. */ oilloa makila baten puntan lotruk (5):* oiloa makila baten puntan loturik.
puntiual *(4)* : puntual
puntiualki *(4)* : puntualki */ [emazter] aparioak drezaraz, puntiualki ordu xakinetako (4):* emakumeei jatorduak prestarazi, puntualki ordu jakinetarako.
punttu *(5)* : muturtu (adj.)
puntu *(3)* : puntu */ guziua dago bere puntiuan (3):* guztia bere puntuan dago. OH. Ikus ´-tu puntiuan´ sarrera.
puntuan *(7)* : puntuan (orduan) */ noiz xinen zra? amabietan puntuan (7):* noiz etorriko zara? hamabietan puntuan.
puntxa *(9)* : arantza */ puntxa bat (9):* arantza bat.
puñutikaldika *(3)* : ukabilka */ bertan asi zren gaixki tratatra puñutikaldika (3):* berehala hasi ziren gaizki tratatzen ukabilka.
pupa *(11)* : *(haur.)* pupa, mimi
pupiña *(11)* : panpina
pupu 1 *(5)* : *(haur.)* arkakuso
pupu 2 *(5)* : *(haur.)* zorri
pupulunga *(11)* : *(zoo.)* apo, zapo
pupullakatu *(5)* : guztiz bete, gainezka egon (arbola fruituz)
pupullukatu *(4, 5)* : guztiz bete, gainezka egon (arbola fruituz) */ sagartzia dago sagarrez pupullukatruk (4):* sagarrondoa sagarrez guztiz beteta dago. */ urrutxtzia dago ûrrez pupullukatruk (4):* hurritza hurrez gainezka dago. OH. Iparraldean ´purpurikatu´ dokumentatua.
pur-pur-pur *(10)* : pur-pur-pur OH. mukiak tantaka erortzearen onomatopeia.
purpullukatu *(4)* : mindu (esnea)
purpurka *(5)* : irristaka (haur jolasa) OH. Aldapa batean irristaka ibiltzea.
purra *(5)* : barra-barra (ugari isuri)
purra-purra *(5, 11)* : purra-purra (oiloei deitzeko) */ purra-purra! (5, 11):* purra-purra!
purraka *(5)* : parrastaka erein (hazia eskuz botata)
purrinta *(5)* : kraska, klaska OH. Harriena, makilena, zartailuena.
purrunduka *(10)* : itzulipurdika
purrusalda 1 *(11)* : *(suk.)* porru-salda
purrusalda 2 *(11)* : porrusalda (dantza)
puska *(3, 5, 10)* : puska */ laur adarmetako zidarrezko puska bat (3):* lau drakmako zilarrezko puska bat (txanpona). */ sobratu zenetik biltu zein amabi zare beterik puskaz (3):* sobratu zenetik hamabi saski bildu zituzten, puskaz beterik. */ tenpluaren belua urratu zen bi puska edo*

zatitan gain bera (3): tenpluko errezela bi puska edo zatitan urratu zen goitik behera. */ oixal puska (5):* oihal puska. */ lokainka puska bat (10):* lukainka puska bat.

puskakatu *(5)* : puskatu, zatikatu

puskatu *(5)* : puskatu

puspuska *(5)* : ahopean, ahopeka

putxu *(4, 10)* : *(zoo.)* moxal */ putxu, putxia, putxea (10):* moxal, moxala.

putz *(5, 9)* : puzker, uzker */ putza (9):* puzkerra.

putz egin *(5)* : puzker egin, uzker egin

putzontzi *(5)* : putzontzi

putzu *(1, 2, 5)* : putzu */ putzuko erreka (1lm):* putzuko erreka.

putzuka *(5)* : hanpatu, puztu (adj.)

putzukatu *(5)* : hanpatu, puztu

puxka *(4, 10)* : puxka (txikigarria) */ ene adexkide bati, berze adexkide batek, besugo puxka bat [oiltu zaun] (4):* nire adiskide bati, bertze adiskide batek, bisigu puxka bat bidali zion.

puxta *(5)* : giltza (iturriena)

puzu *(7)* : putzu */ ero bat egotzi dun puziara (7):* ero batek bere burua putzura bota du.

R

-ra *(4, 5, 9)* : -na (zenbana) */ zazpira (4):* zazpina. */ amabira, emezortzira (5):* hamabina, hemezortzina. */ bakotxek dein amabira sagar (9):* bakoitzak din hamabina sagar. */ bakotxek dein bira, seira, zazpira, zortzira, bedratzura (9):* bakoitzak din bina, seina, zazpina, zortzina, bederatzina.

-radraino *(3, 4, 9, 10)* : -raino */ [mitilak gerrako] emezortzi urtetarik, aiketa ogeita ezdakid zomatradraino (4):* mutilak gerrarako hemezortzi urtetik, harik eta hogeita ez dakit zenbateraino. */ Garderadraino [xuan gutzu] (9):* Garderaino joan gara. */ mendiaradraino, mendietraino (9):* mendiraino, mendietaraino. */ karrika barna, karreteradraino (10):* kalean barrena errepideraino. */ etseradraino [xin dun] (10):* etxeraino etorri dun. */ Kordobaradraino [xoan gintzia ekustra] (10):* Kordobaraino joan ginen ikustera.

-radreino *(9, 10)* : -raino */ Garderadreino [xuan gutzu] (9):* Garderaino joan gara. */ Zarakozaradreino, egutxa barna (10):* Zaragozaraino, ibaian barrena.

rafe *(5, 10)* : *(erai.)* teilatu-hegal */ rafiak bar tiagun izari (10):* teilatu-hegalak jarri behar ditinagu.

-raino *(4, 5)* : -raino */ Zaitzutik [xiten bada, karretera] dago Gorzaraino (4):* Zaraitzutik etortzen bada, errepidea Gorzaraino dago. */ gore balletik [xiten bada], Erronkariraino [dago karretera] (4):* gure ibarretik etortzen bada, Erronkariraino dago errepidea. */ fil-fil-fil yaistan da papera leiotik lurreraino (5):* fil-fil-fil jaisten da papera leihotik lurreraino.

-raka *(5)* : -naka (zenbanaka) */ biraka (5):* binaka.

-rako *(3)* : -rako */ Jesus bidian [isartan zelarik] Jerusalenerako, bere amabi [ikaszaliak artu ztion] (3):* Jesus Jerusalenerako bidean jartzen zela, bere amabi ikasleak hartu zituen. */ loarako ordiuan (3):* lotarako orduan.

rantxilo *(5)* : irrintzi (pertsonena)

rape *(5, 9)* : errape

-rat *(9)* : -rantz */ etserat, mendiarat (9):* etxerantz, mendirantz. OH. Izagirrek ´ziurtasun osorik eman gabe, baina (hiztunek) batak besteari entzun gabe´ oharrarekin dokumentatua.

-raz *(5)* : -rantz */ mendiraz yoaia? (5):* mendirantz al hoa? */ ugalteraz zoatzaia? (5):* ibairantz al zoaz?

-razka *(5)* : -naka (zenbanaka) */ birazka (5):* binaka.

-reino *(8)* : -raino */ xaix bazinte bortareino, gur nintezu lurriareino (8):* jaitsiko bazina ateraino, makurtuko nintzateke lurreraino.

reinu *(3)* : erreinu */ txerka zazei leinik jangeikuaren reinua (3):* bila ezazue lehenik jaungoikoaren erreinua. */ kori da sarten dena zeuri[ko] reinuan (3):* hori da zeruko erreinuan sartuko dena.

-reki 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : -rekin */ zereki xatxi zen linbora? dibinitate saintiareki (2):* zerekin jaitsi zen linbora? jainkotasun santuarekin. */ senditan dionaren kontra eta gezurrareki (3):* sentitzen duenaren aurka eta gezurrarekin. */ betik emon zauden ankarren zarrak gazteki (4):* beti omen zeuden haserre zaharrak gazteekin. */ yik biar duk kalakoareki bordaltu (4):* hik halakoarekin ezkondu behar duk. */ badu amaborz egun nagola begi min gaxto bateki (4):* badira hamabost egun begiko min txar batekin nagoela. */ aurreki etziten dena xagitan da kakaz nasirik (5):* haurrekin etzaten dena kakaz nahasirik jaikitzen da. */ debriareki dabilanak bear*

dik akilua luze (5): deabruarekin dabilenak behar dik akuilua luze. */ ni non egon naz? Jesuseki (5):* ni non egon naiz? Jesusekin. */ ene txakurra pelotaki xitan da (7):* ene txakurra pilotarekin dator. */ aitareki anitx onki, baia amareki gaizki (7):* aitarekin oso ongi, baina amarekin gaizki. */ etxian aitatameki uskara (8):* etxean aita-amekin euskara(z). */ [gizonak] ardieki [xuaiten zuntien] (8):* gizonak ardiekin joaten ziren. */ artzaiak ardieki [xuaitan tun] (9):* artzainak ardiekin joaten ditun. */ zoin ainzpareki? (9):* zein ahizparekin? */ biramen goxan egitara aitareki ta amareki (9):* biharamun goizean igitara aitarekin eta amarekin. */ nik betik uskara aizpareki (10):* nik beti euskara ahizparekin. */ besteki, muttikueki (10):* besteekin, mutikoekin. */ ama berjinareki, ama berjina ñotto bateki (10):* ama birjinarekin, ama birjina txiki batekin.

-reki 2 *(2, 3, 4, 7, 10)* : -rekin (instrumentala) */ zoin orazionereki [esketan da]? bietarik zoinaidioneki (2):* zein otoitzekin eskatzen da? bietatik zeinahirekin. */ ez dena kargatan bere krutxiareki (3):* ez dena kargatzen bere gurutzearekin. */ aski sentimentureki erraiten daud (4):* aski sentimendurekin erraten diot. */ azukarreki edo arraultze gorringoareki onki batitruk (4):* azukrearekin edo arrautza gorringoarekin ongi irabiaturik. */ ungurunean ebastan yuanareki bizi yaz (4):* inguruan lapurtzen duanarekin bizi haiz. */ borontate oneki [egin di[e]gu (7):* borondate onarekin egin dugu. */ [bañatu] nai tzunean, ur beroreki (7):* bainatu nahi duzunean, ur beroarekin. */ mendian leku batarik bestiara zankueki ebilik, azkar ebil! (10):* mendian leku batetik bestera hankekin ibilirik, azkar ibil!

-reki batian *(2)* : -rekin batera, -rekin batean */ gore obroneki batian zeuria alkanzat[a]n dugu (2):* gure ekintza onekin batera zerua eskuratzen dugu.

-rekin 1 *(3, 5)* : -rekin */ Maria Joserekin [bordaltruk zegoen] (3):* Maria Joserekin ezkondurik zegoen. */ [aurra] erden zein Maria bere amarekin (3):* haurra aurkitu zuten bere ama Mariarekin. */ fan zte leinik [bakiak egitra] zore anaxarekin (3):* joan zaitez lehenik zure anaiarekin bakeak egitera. */ nola da, xen maistruak xaten baitu bekatariekin? (3):* nola da zuen maisuak jaten duela bekatariekin? */ maisuakin faitan zen oilloaren [x]atra (5):* maisuarekin joaten zen oiloa jatera.

-rekin 2 *(3, 8)* : -rekin (instrumentala) */ egiaz batixatan [ztied] urekin, [penitenziara] mobiaraztako (3):* egiaz bataiatzen zaituztet urarekin, penitentziara mugiarazteko. */ bere elia edo itzarekin egotxtan ztion espiritu gaxtoak (3):* bere ele edo hitzarekin espiritu gaiztoak botatzen zituen. */ zereki? orratzareki [xostan] (8):* zerekin? orratzarekin josten (genuen).

-rekin batian *(3)* : -rekin batera, -rekin batean */ lanparekin batian eraman zein orio beren ontzietan (3):* lanparekin batera, beren ontzietan olioa eraman zuten. */ zer birtute emoitan dei sakramentiuek graziarekin batian? (3):* zer bertute ematen dute sakramentuek graziarekin batera? */ egin zionarekin batian (3):* egin zuenarekin batera.

-rekin konpoîntu *(3)* : -rekin konpondu */ konpoîn zte bertan zore kontrariuarekin, oraino´re arekin bidian [zaudelarik] (3):* konpon zaitez berehala zure aurkariarekin, oraindik ere harekin bidean zaudela.

-rekin xunto *(3)* : -rekin batera */ agi ez dein arrankatian xatsa, arranka zazein arrekin xunto garia (3):* gerta ez dadin iraka erauztean, harekin batera garia erauz dezazuen.

relijione *(2)* : erlijio */ zer da relijionia? (2):* zer da erlijioa?

-ren 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 10)* : -ko (geroaldia) */ xakin zazei berjin batek erdiren diola seme bat (3):* jakin ezazue birjina bat seme batez erdiko dela. */ seme bat, zoini izaren baitzu izenez Jesus (3):* seme bat, zeini Jesus izena jarriko baitiozu. */ autzak erreren tu il ez deiteken su batian (3):* hil ez daitekeen su batean erreko ditu ahotzak. */ biotza argi deinek jangeikua ekusen baitei (3):*

bihotza argi dutenek jaungoikoa ikusiko baitute. */ biarko egunak aski kuidado eraguen du berarekin (3):* biharko egunak aski ardura ekarriko du berarekin. */ izar zazu eskiua [ene alaba]ren gainian eta biziren tzu (3):* jar ezazu eskua ene alaba (hila)ren gainean eta biziko da. */ ezaitad antzeren erraitia (4):* ez zait ahaztuko esatea. */ bustiren nuzu eta izanen nuzu xaîtruk (4):* bustiko nauzu eta garbitua izanen naiz. */ otakak martxoan lore, ez da faltaren eri eta dolore (5):* otakak martxoan lore, ez da faltako gaixotasun eta min. */ ikusiren dugu (5):* ikusiko dugu. */ bidean zomait [gizon] ekusiren dur (ekusen dur) (7):* bidean zenbait gizon ikusiko dut. */ eroriren naz (7):* eroriko naiz. */ bustiren gra (7):* bustiko gara. */ oraí re utziren diagu orobat (7):* orain ere berdin utziko diagu. */ xin bedi beztitra, eta gunian xagiren naz (8):* etor bedi (ni) janztera, eta orduan jaikiko naiz. */ zomaitek ekusiren dei (10):* zenbaitek ikusiko dute. */ egotxiren dien (10):* botako din. OH. Ikus ´-en 2´ sarrera.

-ren 2 *(4)* : -ko (banatzailea) */ obeki entelega tzan, isartan daud abezedarioko letra bakotxaren ele bat (4):* hobeto uler dezan, alfabetoko letra bakoitzeko hitz bat jartzen diot.

-ren 3 *(9)* : -rentzat, -rendako */ eragi zan oski eli bat aitaren (9):* ekar ezan zapata pare bat aitarentzat. */ [kaur] emon deiztan aitaren (9):* hau aitarentzat eman zidaten. */ esketu nun ene (9):* niretzat eskatu dinatt. */ esketu nun anaxaren (9):* anaiarentzat eskatu dinat.

-ren alte *(4)* : -ren aldean, -rekin alderatuta */ izeia andiago [da], baia txiki [dago] lerren alte (4):* izeia handiagoa da, baina gutxi dago pinuen aldean.

-ren altez *(4, 7)* : -ren partez */ orren mertxedearen altez bixita [egin daud] apezari (4):* berorren partez bisita egin diot apezari. */ Otxagabin egin dabeid bixita orren altez (4):* Otsagabian bisita egin diet berorren partez. */ ene altez emon bezkau noranbuena (4):* nire partez zoriondu bitza. */ otoi egin zazei bere arimaren altez (7):* otoi egin ezazue haren arimaren alde.

-ren baitan 1 *(2, 3, 5)* : -rengan, -ren baitan */ non zegon jeina? bere baitan, ñeuren nestaterik bagerik (2):* non zegoen jauna? bere baitan, inoren beharrik gabe. */ [orazione] giauren baitan biotxaz egiten duguna (2):* geure baitan bihotzaz egiten dugun otoitza. */ eiztei erraitiaz xen baitan ´Abrahan aitatako dakagu´ (3):* utz iezaiozue zuen baitan esateari ´Abrahan aitatzat daukagu´. */ berorren baitan erranen du ´zer balle abrats al da kura?´ (4):* berorren baitan erranen du ´zer ibar aberats´ (izan) ahal da hura?´. */ benedikatu da orren baitan dagon frutiua (4):* bedeinkatua da berorrengan dagoen fruitua. */ ene baitan, ñauren baitan (5):* niregan. */ gizonen baitan (5):* gizonengan, gizonen baitan.

-ren baitan 2 *(4)* : -ren etxean, -ren baitan */ ene baitan dago orren azken ilabetiaren 25´ko karta (4):* ene etxean dago berorren azken hilabetearen 25eko gutuna. */ ene baitan dago orren karta, konen amaseigarnekoa (4):* ene etxean dago berorren gutuna, (hil) honen hamaseigarrenekoa.

-ren barna *(10)* : -an barrena */ almadiak, egutxaren barna, Zarakozara (10):* almadiak, ibaian barrena, Zaragozara. OH. ´Egutxaren barna´ eta ´egutxa barna´ biak dokumentaturik.

-ren bat *(5)* : -ren bat */ saroietan biltan da zirria, alur batera edo baratzen batera eramaitako (5):* saroietan biltzen da arkorotza, alor batera edo baratzeren batera eramateko.

-ren burian *(7, 10)* : -ren buruan */ ilabete baten burian (8):* hilabete baten buruan. */ biak urur urteren burian il [zren] (10):* biak hiru urteren buruan hil ziren.

-ren buriuan *(3, 4)* : -ren buruan */ tenpra anitxen buriuan nausia [utzuli zen] (3):* denbora anitzen buruan nagusia itzuli zen. */ bi egunen buriuan (3):* bi egunen buruan. */ gariak zortzi edo amar egunen buriuan asen gra egitatan (4):* gariak zortzi edo hamar egunen buruan hasiko gara igitatzen.

-ren buruan *(5)* : -ren buruan */ urtearen buruan ardi bekinbat axuri ilten da (5):* urtearen buruan

ardi bezainbat arkume hiltzen da.

-ren buruko 1 *(5)* : -ren buruan */ urtearen buruko obro xatan du ilak ezik biziak (5):* urtearen buruan gehiago jaten du hilak biziak baino. */ bizpur gairen buruko [elur gisa] biltan den arrosada da kalamokoa (5):* bizpahiru gauren buruan elur gisa biltzen den ihintza da antzigarra.

-ren buruko 2 *(4)* : -ren bururako */ kementik irur urteren buruko, zer izanen [da] nitaz? (4):* hemendik hiru urteren bururako, zer izango da nitaz?

-ren eskiuan egon *(3)* : -ren eskuan egon */ eztago xaurien eskiuan egitia xuri edo beltx bilo bakotx bat (3):* ez dago zeuen eskuan ile bakar bat zuri edo beltz egitea.

-ren fabore egon *(3)* : -ren alde egon */ ez dagona ene fabore, ene kontra [dago] (3):* ene alde ez dagoena ene aurka dago.

-ren gain 1 *(5)* : -ren gain */ [ene] gain (5):* nire gain.

-ren gain 2 *(3)* : -ri buruz */ egunaren eta ordiuaren gain ñork ere ez daki (3):* egunari eta orduari buruz inork ere ez daki.

-ren gain artu *(3)* : -ren gain hartu */ berak artu du[tu] beraren gain gore eriguak (3):* berak hartu ditu beraren gain gure gaixotasunak.

-ren gainian *(3, 4)* : -ri buruz */ fan eta informa ztei agitan denaz aur konen gainian (3):* joan eta informa zaitezte haur honi buruz gertatzen denaz. */ orazioniaren gainian [fabrikatan du] (3):* otoitzari buruz hitz egiten du. */ Jesusek Juanen gainian [erran zabena] bere entzunzaler (3):* Jesusek Juani buruz esan ziena bere entzuleei. */ ez al dago Nefarro guziuan iri kain lazorik nola kaur ikasgiuaren gainian (4):* ezin da egon Nafarroa osoan hau bezalako herri arduragaberik irakaskuntzari buruz. */ llobaren gainian [orrek erraiten daikiguna] (4):* bilobari buruz berorrek esaten diguna. */ uskararen gainian [xardokitu zion orrek] (4):* euskarari buruz hitz egin zuen berorrek.

-ren legean (+ aditza) *(5)* : aintzakotzat hartuta */ yire legean egin diak [gaiza] kau (5):* hi aintzakotzat hartuta egin diat gauza hau.

-ren lotsa izan *(5)* : -ren beldur izan */ ardiak otsoen lotsa drelarik, oidura bat egitan dei (5):* ardiak otsoen beldur direnean, asaldura izaten dute.

-ren medioz *(2, 3)* : -ren bidez */ zeren medioz zarade [kristiai]? (2):* zeren bidez zara kristau? */ ez nore mereximentien medioz, baizi Kristo jeinaren mereximentien medioz (2):* ez neure merezimenduen bidez, baizik eta Kristo jaunaren merezimenduen bidez. */ jeinak antzinetik erran ziona profetaren medioz (3):* jaunak aurretik esan zuena profetaren bidez. */ parabolen medioz [mintzatu zen anitx gaizataz] (3):* parabolen medioz mintzatu zen anitz gauzaz.

-ren partez *(3)* : -ren partez */ oberta nik ñore partez ofrezi nezana zore probetxutan [izanen da] (3):* nik neure partez eskain nezan eskaintza zure probetxutan izanen da.

-ren, -an, -n *(1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10, 11)* : -ren (norena) */ Mearen alorra (1):* Mearen alorra. */ juangeiko jeinaren grazia (2):* jaungoiko jaunaren grazia. */ umanidade saintiarnak (2):* gizatasun santuarenak. */ aitaren izenean eta semearnean (2):* aitaren izenean eta semearenean. */ gore jeinaren ebanjelio saintiua (3):* gure jaunaren ebanjelio santua. */ Uriasen emazte[a] (3):* Uriasen emaztea. */ amabien izenak dra kuek (3):* hamabien izenak dira hauek. */ goazen kebentik, iriaren erditik (4):* goazen hemendik, herriaren erditik. */ mendien erdian (4):* mendien erdian. */ jangeiko ene osagarriarna (4):* jaungoiko nire osasunarena. */ fan adi zarrarniara (4):* joan hadi zaharrarenera (burura). */ iltearen iragoa [urdu dik] (4):* hiltzearen oihua zirudik. */ aintzaren umea aintzume (5):* ahuntzaren umea antxume. */ maiatza, urtearen giltza (5):*

maiatza, urtearen giltza. */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino. */ aitarenak, aitarnak (5):* aitarenak. */ urtarril otza, neguan bigotza (5):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ amarena, amarna (6):* amarena. */ senarrana (6):* senarrarena. */ aitaren txakurra da (7):* aitaren txakurra da. */ amaren ama [amani da] (7):* amaren ama amona da. */ Pedron etsean oro duzu labrador (7):* Pedroren etxean denak dituzu nekazariak. */ badakiar amaren izena (9):* bazakiat amaren izena. */ kau dun aitarna (9):* hau aitarena dun. */ alabana dun obe ezik semiana (9):* labarena hobea dun semearena baino. */ senarraren anaxe bat (10):* senarraren anaia bat. */ Montxonena (11):* Montxonena (etxea).

-rengana *(2, 3, 5, 7, 9)* : -rengana */ [Gabriel] ama berjina andrearengana xatxi zenian (2):* Gabriel ama birjina andrearengana jaitsi zenean. */ fan zte apezarengana (3):* joan zaitez apaizarengana. */ [ikaszaliak] abañatu zren Jesusengana (3):* ikasleak Jesusengana hurbildu ziren. */ ni nora noa? Jesusengana (5):* ni nora noa? Jesusengana. */ gizonarengana, gizonengana (7):* gizonarengana, gizonengana. */ ene aitarengandik amagana xoan naz (7):* ene aitarengandik amarengana joan naiz. */ nexarrez [xoan nitzian] aitagana (7):* negarrez joan ninduan aitagana. */ gunian ni xoan nun amarengana (7):* orduan ni amarengana joan naun. */ anaxarengana [xin dun] (9):* anaiarengana etorri dun. */ yiregana [xin dun] (9):* hiregana etorri dun.

-rengandik *(7)* : -rengandik */ ene aitarengandik amagana xoan naz (7):* ene aitarengandik amarengana joan naiz.

-renganik *(2, 3, 5, 7)* : -rengandik */ aitaren eta semearenganik (2):* aitaren eta semearengandik. */ aita, zoinek ezpaitu ñeurenganik prozeditan (2):* aita, zein ez baita inorengandik e(ra)tortzen. */ Adanenganik bekatu heretatu ginienaren parkatako (2):* Adanengandik oinordetzan hartu genuen bekatua barkatzeko. */ nontik ekun zunien [izen] kori? gore jeinaganik (2):* nondik eduki zenuen izen hori? gure jaunagandik. */ Tamarenganik [enjendratu zion] (3):* Tamarengandik sortu zuen. */ alaba bere amarenganik [berextra xin naz] (3):* alaba bere amarengandik bereiztera etorri naiz. */ Maria birjinaganik sortu [zen] (3):* (Jesus) Maria birjinagandik sortu zen. */ aur ta eroenganik egia (5):* haur eta eroengandik egia. */ gizonarenganik, gizonenganik (7):* gizonarengandik, gizonengandik.

-rengatik *(2, 3, 4)* : -rengatik */ gore bekatiengatik (2):* gure bekatuengatik. */ zoregatik (2):* zuregatik. */ Jesusek pakatan du Pedrorengatik (3):* Jesusek Pedrorengatik ordaintzen du. */ [elizako] leku egongiuarengatik, ankartu zren bi emazte (4):* elizako egonlekuarengatik, bi emakume haserretu ziren. */ zore onarengatik [egitan dur] (7):* zure onarengatik egiten dut, zure hobe beharrez egiten dut. */ gizonarengatik, gizonengatik (7):* gizonarengatik, gizonengatik.

-rentako 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 10)* : -rentzat, -rendako */ esketan grena ezpaigrade giaurentako solo esketan (2):* eskatzen duguna ez baitugu geuretzat soilik eskatzen. */ nai etzazei bil ontarzun xentako lurrian (3):* ez ezazue ondasunik bildu nahi izan zuentzat lurrean. */ laur milla gizonentako (3):* lau mila gizonentzat. */ bat zuretako, berze bat Moisesentako eta berzia Eliasentako (3):* bat zuretzat, beste bat Moisesentzat eta bestea Eliasentzat. */ gizonentako [eta] jangeikuarentako (3):* gizonendako eta jaungoikoarendako. */ ez deila agi kau ez deila aski izan goretako eta xentako (3):* ez dadila gerta hau ez dadila aski izan guretzat eta zuentzat. */ korostiaren ostoa on [da] aintz eta ardientako (4):* gorostiaren hostoa ona da ahuntz eta ardientzat. */ bizpor abratsentako dra balleko ontarzun guziuak (4):* aberats batzuentzat dira ibarreko ontarzun guztiak. */ jangeikuarentako tzu (4):* jaungoikoarentzat duzu. */ iguzkia*

karakolentako da orobat nola eguna tximitxentako (5): eguzkia barraskiloentzat eguna zimitzentzat bezala da. */ ´eskia kako´ erraitan da zûr andi batentako (5):* ´eskua kako´ esaten da zuhur (zeken) handi batentzat. */ amarentako (6):* amarentzat, amarendako. */ senarrarentako (6):* senarrarentzat. */ gizonentako (7):* gizonentzat, gizonendako. */ guzuentako (guzientako):* guztientzat. */ zomaitentako (7):* zenbaitentzat. */ peseta bat Migelentako eta bestia Mariarentako (7):* pezeta bat Migelentzat eta bestea Mariarentzat. */ zientako (9, 10):* zuentzat. */ xarrentako deus (10):* zaharrentzat ezer ez. */ eragi zan kona arraultze banak gore arixkidearentako (10):* ekar itzan hona arrautza batzuk gure adiskidearentzat.

-rentako 2 *(2, 4, 5, 9)* : -rako */ gasto [izan bazen], eburniara eternidad batentako (2):* gaiztoa izan bazen, infernura eternitate baterako. */ lerrak balio du zunrezko material biar dein guziuarentako (4):* pinuak zurezko materiala behar duten guztirako balio du. */ [gariak] ez daikugu emonen biltako gastu egiten digunarentako (4):* gariak ez digu emango egiten dugun gasturako biltzeko. */ akabantxarentako (4):* amaierarako. */ azken gatxaren[t]ako ez dago dotorerik sontotako (5):* azken gaitzerako ez dago medikurik sendatzeko. */ kaur suarentako (9):* hau sutarako.

resuma *(5)* : su-marka (ardien muturrekoa) OH. Jatorriz ´erresuma´ izanen zela pentsa liteke.

rezi *(5)* : erretxin-gai, gai erretxinatsu

-ri emonik egon *(4)* : -ri emanda egon, -ri emanik egon */ [gizona] emonik baidago lanari, orobat nola astoa makilakaldier (4):* gizona lanari emanda baitago, astoa makilakadei bezala.

-ri orki izan *(5)* : -ren zain egon */ urliari orki niak (5):* urliaren zain negok.

-rik *(2, 4, 5, 9, 10)* : -tik */ etxerik erkitian (2):* etxetik irtetean. */ uskaraz eskribitan dionetarik [zernaiden gaiza arten dud] (4):* euskaraz idazten duenetik edozer gauza hartuko dut. */ aparta zazu zure beitartia ene bekatiuetarik (4):* alden ezazu zure aurpegia nire bekatuetatik. */ Urzainkirik eta Erronkarira bideak on [dra] (5):* Urzainkitik eta Erronkarira bideak onak dira. */ Aragorik xitan nezu (9):* Aragoitik nator. */ Uruñarik [xitan nun] (9):* Iruñetik natorren. */ Zankozarik xitan nun (9):* Zangozatik natorren. */ biar ez diar biar erkin etserik (10):* bihar ez dut etxetik irten behar. OH. ´-tik´ ere maiz dokumentatua.

-rik ere *(5)* : -rik ere, nahiz eta */ ortzegun saintu izanik ere, tanbora tokatu (sic) bear dela (5):* ostegun santua izanik ere, danborra jo behar dela. */ gu ilik ere, fanen tuk bai zakuak errotara (5):* gu hilik ere, joanen dituk bai zakuak errotara.

-rik landa 1 *(3)* : -tik landa, eta gero */ barurik antzineko gaiko amabi ornetarik landa (3):* baraurik aurreko gaueko hamabi orduak eta gero. OH. Euskara batuan ere erabilia.

-rik landa 2 *(3)* : -z gain, -z kanpo */ zer izanen zabei konbeniente egin, erran drein gaizetarik landa? (3):* zer izango zaie komenigarria egitea, esan diren gauzez gain?

rizia *(5)* : *(nek.)* galsoro (segatua)

rosada *(10)* : *(met.)* antzigar */ badion rosada bat andiao ezik etxakin zer, urdu dun elurra dagola (10):* antzigar handiagoa dago ez jakin zer baino, elurra dagoela zirudin. OH. Ikus ´arrosada´ sarrera eta bertako oharra.

S

-sa *(5)* : -sa (atzizki femeninoa) */ alargunsa, alarguntsa (5):* alarguntsa. */ arginesa (5):* harginaren emaztea. */ dotoresa (5):* medikua, mediku andrea.

saaitziar *(8)* : zaraitzuar */ saaitziarra (8):* zaraitzuarra.

sabai 1 *(5, 9, 10, 11)* : *(erai.)* belar-ganbara, sabai; lastotegi (ukuilukoa) */ sabaia (9):* belar-ganbara. */ [autza] eragitan gunia etsera, korra gaina, sabaiara (10):* ahotza etxera ekartzen genuen, horra gainera, belar-ganbarara. OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian gordetako ´sabaiao´ aldaera dokumentaturik.

sabai 2 *(3)* : *(erai.)* teilatu */ erraiten daidzeidana biarriara, predika zazei lurrezko sabaietarik (3):* belarrira erraten dizuedana, predika ezazue lurrezko teilatuetatik.

sabel *(2, 7, 9)* : *(anat.)* sabel */ zore sabel birjinaleko frutua (2):* zure sabel birjinako fruitua. */ sabela (7):* sabela.

sabel-tximika *(5)* : orin

sabel-zorri *(5)* : tripa-zorri, gose

sabelaldi *(5)* : haurdunaldi

sabiborta *(11)* : *(erai.)* sabaiate OH. Kalera ematen duen belar-ganbarako atea.

sable *(2, 9)* : *(anat.)* sabel */ benedikatu duzu zore sableko frutia (2):* bedeinkatua duzu zure sabeleko fruitua.

sabli *(5)* : *(suk.)* barruki OH. Abere barrukiak, oro har.

sabore *(3)* : zapore, gustu */ gatza egitan bada geza, [zerekin] bueltaten zitzaud saboria? (3):* gatza geza egiten bada, zerekin itzuliko zaio zaporea? */ ardaûaren kîua, koloria [eta] saboria (3):* ardoaren usaina, kolorea eta zaporea.

sabuko *(10)* : *(bot.)* sabuka, intsusa */ sabukoa erraitan bigunien (10):* sabuka esaten baikenuen.

sagar *(2, 4, 5, 7, 9, 10)* : *(bot.)* sagar */ plaztara [fan naz] iror gisatako sagar saltra (4):* plazara joan naiz, hiru modutako sagarrak saltzera. */ sagartzia dago sagarrez pupullukatruk (4):* sagarrondoa sagarrez guztiz beteta dago. */ paradusuko zabala, kanko ûrra sagarra (5):* paradisuko zabalera, hango hurra sagarra (da). */ nik sagarrak artu dutur (7):* nik sagarrak hartu ditut. */ bakotxek dein amabira sagar (9):* bakoitzak din hamabina sagar. */ bertz bat ureki eta sagar bat flotatzen kor (10):* pertz bat urarekin eta sagar bat ur gainean hor. */ gizon karek emon dien yire amari sagarra (10):* gizon hark eman zion hire amari sagarra. */ labe, labe, ogiak erre bage, sagarrak erre biar eta surik ez (10):* labe, labe, ogiak erre gabe, sagarrak erre behar eta surik ez. OH. ´Labe, labe´ jolas kanta bat da.

sagar-zain *(5)* : sagar-mutxikin

sagara *(5)* : *(erl.)* sagarapen, mezerdi(ko), sagara

sagarbiotz *(5)* : *(suk.)* sagarzuku (labean erretzean botatzen duena)

sagardoi *(1)* : sagardi */ sagardoia (1):* sagardia.

sagarko *(5, 11)* : *(bot.)* basasagar

sagarkoatze *(5)* : *(bot.)* basasagarrondo

sagarroi *(5)* : *(zoo.)* triku, sagarroi

sagarroî *(2)* : *(zoo.)* triku, sagarroi

sagarroin *(2)* : *(zoo.)* triku, sagarroi

sagartoi *(1)* : sagardi */ sagartoieta (1):* sagardi eta.

sagartze *(1, 4, 9)* : *(bot.)* sagarrondo */ sagartzea (1):* sagarrondoa. */ sagartzia dago sagarrez pupullukatruk (4):* sagarrondoa sagarrez gainezka dago. */ sagartze bat (9):* sagarrondo bat.

sagra *(5)* : *(erl.)* sagarapen, mezerdi(ko), sagara

sagu *(2, 5, 8)* : *(zoo.)* sagu */ anitx daki sagiuak, baia obro gatiuak (5):* anitz daki saguak, baina gehiago katuak.

sagu-txakur *(5)* : *(zoo.)* sagu-txakur, arratoi-txakur

saias *(5)* : mahuka-hutsik

saiets 1 *(1)* : *(anat.)* saihets

saiets 2 *(1)* : albo, saihets */ saiesandia, saiesederra (1):* saihets handia, saihets ederra.

sail 1 *(5)* : *(nek.)* sail (baratzeko laukia)

sail 2 *(5)* : makal, ahul

sailian *(6)* : sailean, etengabe

sainta 1 *(2, 4, 5)* : *(erl.)* santa, dona */ saintu eta sainta guzier (2):* santu eta santa guztiei. */ sainta ama (4):* santa ama. */ sainta Ana, erraiten dei orrentako ama berjinaren ama dela (5):* santa Ana, berorretaz erraten dute ama birjinaren ama dela.

sainta 2 *(2)* : santa (adj.) */ eliza ama sainta (2):* eliza ama santua.

saintu 1 *(2, 3, 4, 5, 7)* : *(erl.)* santu, done */ saintiaren [señalia] (2):* santuaren seinalea. */ saintier biar dugua otoitz egin? (2):* santuei otoitz egin behar al diegu? */ sakramentu saintu guziuak [errezibitu ztion] (4):* sakramentu santu guztiak jaso zituen. */ ´ttik´ erraiten zen emaztek saintiuer egiten zein erreberenziari (4):* ´ttik´ esaten zitzaion emakumeek santuei egiten zieten erreberentziari. */ bearra dionak saintiuer otoiak on (5):* beharra duenak santuei otoitz onak. */ ogi saintua (saintia):* ogi santua.

saintu 2 *(2, 3, 5)* : santu (adj.) */ krutxe saintia (2):* gurutze santua. */ [batixu] saintian (3):* bataio santuan. */ ortzegun saintu izanik ere, tanbora tokatu (sic) bear dela (5):* ostegun santua izanik ere, danborra jo behar dela.

saintu 3 *(5)* : garbitu, xahutu

saintu 4 *(5)* : egia esan, bihotza ireki

saiñete *(5)* : gustu

saisgo *(5)* : jetzitegi (txabola, lekua)

saita *(8)* : aulki (bizkar gabea)

saits *(1)* : albo, saihets */ ardansaitsa (1):* mahasti saihetsa. */ iri goien saitsa (1):* herri goien saihetsa.

Saitzerri *(9)* : Zaraitzu */ Saitzerria (9):* Zaraitzu herria (lurra). */ Saitzerriara [xuaitan nun] (9):* Zaraitzura joaten naun. OH. Ikus ´Zaiztierri´ sarrera eta bertako oharra.

sakola *(5)* : sakela */ deirua sakolan (5):* dirua sakelan. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

sakramentu *(2, 4)* : *(erl.)* sakramentu */ zazpi sakramentiak (2):* zazpi sakramentuak. */ sakramentu saintu guziuak [errezibitu ztion] (4):* sakramentu santu guztiak jaso zituen.

sakrifizio *(4)* : sakrifizio */ sakrifizio justiziazkua (4):* justiziazko sakrifizioa.

sakristai *(9)* : *(erl.)* sakristau */ sakristai bat (9):* sakristau bat.

salatari *(5)* : salatari

salba-zeinari *(5)* : orin

salbatu *(2, 3, 7)* : salbatu */ juangeikoak salba zitzala (2):* jaungoikoak salba zaitzala. */ ura da salbatu biar diona bere iria (3):* hura da bere herria salbatu behar duena. */ [bere bizia] nai lezanak salbatu, galten du (3):* bere bizia salbatu nahi lezanak, galduko du. */ perseberatan dena*

azken ordiuarartio, kaur salbaten da (3): azken ordua arte irauten duena, hau salbatuko da. */ semia xin da galtu zenaren salbatra (3):* semea etorri da galdu zena salbatzera. */ gu bekatariak salbatiagatik (3):* gu bekatariak salbatzeagatik. */ Erronkariko irietan uskararen arima salbatu deiner (7):* Erronkariko herrietan euskararen arima salbatu dutenei.

salbazale *(2, 3, 5)* : salbatzaile */ salbazalea (2):* salbatzailea. */ salbazaliaren uturriak [dra sakramentiak] (2):* salbatzailearen iturriak dira sakramentuak. */ salbazalia [dela xinetstia] (3):* salbatzailea dela sinestea. */ Jesukristo gore salbazaliaren sortiako bazkoak (4):* Jesukristo gure salbatzailearen sortzeko pazkoak. */ ene aita, salbazalea (5):* ene aita, salbatzailea.

salbazione *(2)* : salbamen, salbazio */ gore arimaren salbazionearentako (2):* gure arimaren salbamenerako. */ korpitzaren osagarriaren, ezperian arimaren, salbazioniaren alkanzatako (2):* gorputzaren osasunaren, bestela arimaren, salbazioa lortzeko.

salbeta *(2)* : salbatze

salda *(5, 11)* : *(suk.)* salda */ laster-salda (5):* baratxuri-salda (olioarekin). */ purrusalda (11):* porru-salda.

saldo *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : saldo, talde (abereena) */ ez urrin kantik, txerri saldo andi bat [zagon], alatan (3):* handik ez urrun, txerri talde handi bat zegoen, bazkatzen. */ eriten dur artzaîa eta îesten dra saldoko ardiak (3):* artzaina zaurituko dut eta saldoko ardiek ihes egingo dute. */ axuri saldo batarik zuatzan bi arzatz ezkapatruk (4):* arkume saldo batetik zihoazen bi ahari ihes eginik. */ Erribratik iganik daude salduak montoinzka (4):* Erriberatik igota daude saldoak (artaldeak) pilaka. */ burzegia ilte[an] emon zitien ortzeara saldoak, lensemea eskiara xin arteo (5):* buruzagia hiltzean erdira (migodoin) eman zituzten artaldeak, lehen semea eskura (adinera) etorri arte. */ xerri saldo [bat] (5):* txerri saldo bat. */ betik ekun diegu saldo (7):* beti eduki dugu saldoa (artaldea). */ saldo bat arres [xin da] (7):* saldo bat ardi-azienda etorri da. */ ardi-saldo [bat], ardi-saldoak (10):* ardi saldo bat, ardi saldoak. OH. Ikus ´talde´ sarrerako oharra.

saldun *(5)* : saltzaile

salerosgo *(5)* : salerosketa

salerosle 1 *(5)* : salerosle

salerosle 2 *(5)* : kontakatilu

salgei *(5)* : salgai

salikokili *(4)* : zangalatrau

salita *(5, 9)* : aulki (zurezkoa) */ eragi zan salita (9):* ekar ezan aulkia.

salitanko *(5)* : aulkitxo (zurezkoa)

salkari *(5)* : saltzaile

salkin *(5)* : salgai

saltatxa *(5)* : *(bot.)* lertxun

saltu *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : saldu */ [dakan guziua] saltan du eta [alur kura] erostan du (3):* daukan guztia saltzen du eta alor hura erosten du. */ bi txori saltan dra bi marabiditan (3):* bi txori saltzen dira bi marabedian. */ saltruk [izan litian], eta paka zedin kala zorra (3):* salduak izan litezen, eta hala ordain zedin zorra. */ saltzazu tziuan guziua (3):* sal ezazu daukazun guztia. */ irorek saltu tei prezio batra [arraultziak] (4):* hirurek prezio batean saldu dituzte arrautzak. */ zor korren pakatiagatik saltu dra kainbat arbole (4):* zor hori ordaintzeagatik hainbat zuhaitz saldu dira. */ ganzta saltan dei ogeita zazpira pezeta arroba (4):* gazta saltzen dute hogeita zazpi pezetan arroa. */ zûrak saltra eramaiteko (4):* zurak saltzera eramateko. */ zûrak ugaltiaz bera*

[eramaiten dra] saltako lekiuetraino (4): zurak ibaian behera eramaten dira saltzeko lekuetaraino. */ prezio beriara saltuz (4):* prezio berean salduz. */ erauntsiaren bezperan xin zen errena azken zûra saltruk (4):* erauntsiaren bezperan erraina etorri zen azken zura salduta. */ tiendan saltan da orio (4):* dendan olioa saltzen da. */ xez saltan dei kek (5):* haiek txikizka saltzen dute. */ artzaia, sal zak axuru bat (7):* artzaina, sal ezak axuri bat. */ kario saltan [da], laurogei pezeta kiloa (10):* garesti saltzen da, laurogei pezeta kiloa. */ saltra [xoan] (10):* saltzera joan.

saltzale *(5, 7)* : saltzaile */ kura tzu aragi saltzale (7):* hura haragi saltzailea da.

salutatu *(3, 6)* : agurtu, agur egin */ [plaztan] salutatruk [izaitia] (3):* (atsegin dute) plazan agurtuak izatea. */ arkainguru Gabriel xin zenian anderia Mariaren salutatra (3):* Gabriel goiaingerua etorri zenean Maria andrea agurtzera.

salutazione *(3)* : agur */ etsian sartia[n], salutazionia (3):* etxean sartzean, agurra.

samanta 1 *(5)* : *(nek.)* samanta OH. Ganaduarentzako neguko hosto hornidura.

samanta 2 *(5)* : ahari-larru

samar *(5)* : begi-lauso

samur 1 *(5)* : hauskor

samur 2 *(5)* : haserrekor

samurkor *(5)* : haserrekor

samurraldi *(5)* : haserrealdi

samurtu *(5)* : haserretu

sanbarranban *(5)* : papao, mamu OH. Haurrak mehatxuz beldurtzeko mamua. Azkuek ´sanbarranban´ eta ´sanbarranbau´ dokumentatuak.

sandalia *(3)* : sandalia */ ni, eztare, dino enaz ari eramaiteko sandaliak (3):* ni, ezta ere, ez naiz duin hari sandaliak eramateko.

sandia *(4, 5)* : sandia */ urliak kontatu zaun sandiari ixiltarzun guziua (4):* urliak sandiari sekretu osoa kontatu zion.

sandu *(1, 5)* : *(erl.)* santu, done */ sanduarena (1lm):* santuarena. */ bapanak bere sanduari otoi egitan dau (5):* bakoitzak bere santuari otoitz egiten dio. */ sanduer otoi egin bear nagun, lagun getzaien (5):* santuei otoitz egin behar zienagu, lagun gaitzaten.

sanjoanekoarko *(2)* : *(met.)* ostadar

sanjuanlili *(11)* : *(bot.)* sanjuanlili (intsusaren lorea)

sanka *(5, 8)* : arrantza (astoarena)

sankari 1 *(5)* : oihulari

sankari 2 *(5)* : arrantza egile (astoa)

sankaz *(5)* : arrantzaka

santu *(4)* : *(erl.)* santu, done */ altareko sakramentu santian dagola (2):* altareko sakramentu santuan dagoela.

sapai *(5)* : *(erai.)* ganbara

sapast *(5)* : zapast (ontzi barruko ur mugituaren onomatopeia) OH. Euskara batuan ´zapasta´ zipriztina da.

sapite *(5)* : damu, sapite

sar-erkin *(5)* : sartu-atera

sarastoi *(1)* : sahasti */ sarastoia (1):* sahastia.

sarats *(1)* : *(bot.)* sahats

sarbide *(5)* : sarbide, sarrera

sarde *(3, 9, 11)* : *(nek.)* sarde */ ark daka bere eskiuetan sardia (3):* hark dauka bere eskuetan sardea. */ sarde bat (9):* sarde bat.

sardina *(2)* : *(zoo.)* sardina

sarga *(5)* : *(bot.)* lahar, sasi

sargatze *(5)* : lahardi, sasidi

sargi *(1)* : sarrera, sarleku */ Arra sargia (1):* Larrako(ko) sarrera. */ landa sargia (1):* soro(ko) sarrera.

sargu 1 *(1, 3)* : sarrera, sarleku */ sargua (1):* sarrera, sarlekua. */ iguzkiaren sargutik [xinen dra] (3):* eguzkiaren sarlekutik (sartaldetik) etorriko dira. */ iguzkiaren erkingutik sargiuara (3):* eguzkiaren irtenlekutik sarlekura.

sargu 2 *(5)* : mendebalde, sartalde

sargune 1 *(4)* : sarrera, sarleku

sargune 2 *(4)* : aterpe, babesleku */ Erribratik iganik daude salduak montoinzka, ez gayazko´re ez dokei sargunerik alkanza (4):* Erriberatik igota daude artaldeak pilaka, gauerako ere ez dezakete aterperik lortu.

sari 1 *(3)* : sari */ [emaztiak] ekunen du saria (3):* emakumeak izango du saria.

sari 2 *(3, 5)* : ordain */ ezta lizito sar ditzagun [deuriak] tenpluaren tesoruan, izaitian odolaren saria (3):* ez da zilegi dirua tenpluko altxorrean sar dezagun, odolaren ordaina izatean. */ zidarrezko ogeitamar deir[u errezibitu dei], saltako izari zenaren saria (3):* zilarrezko hogeita hamar txanpon jaso dituzte, saltzeko jarri zenaren ordaina. */ amaboska saria emoitan zau gore mitilari (5):* hamaboska ordaina ematen zaio gure morroiari.

sarkarazi *(5)* : aurka egin

sarmentu *(2)* : *(bot.)* aihen, xirmendu

saroî *(5)* : biltoki (artzainena)

saroi 1 *(5, 9)* : *(nek.)* artegi, saroi, eskorta */ saroietan, axuri saldo bat beretan egon ondoan, ezpelez egor edo xate ta biltan da zirria, alur batera edo baratzen batera eramaitako (5):* saroietan, axuri saldo bat bertan egon ondoan, ezpelez erraztatu edo garbitu eta biltzen da arkorotza, alor batera edo baratzeren batera eramateko. */ saroiara [xuaitan nun] (9):* saroira noan. */ saroitik [xitan nun] (9):* saroitik natorren.

saroi 2 *(5)* : biltoki (artzainena)

sarrastada *(5)* : zarrasta

sarri 1 *(3, 10)* : ondoren */ barkuara igan izan zren sarri, sosegatu zen airia (3):* haiek txalupara igo ondoren, haizea baretu zen. */ gari orai deus ere, eta sarri gose (10):* orain garirik deus ere ez, eta ondoren gosea. OH. Zaraitzun ´sarri´ = gero. Ikus ´sarri 2´ sarrera.

sarri 2 *(3)* : azkar, agudo */ Pedroren konfesionia, zoin sarri gero da reprenditruk (3):* Pedroren aitortza, azkar gero demanda egina dena. */ sarri edo bertan ez naizei ekusen obro (3):* azkar edo berehala ez nauzue gehiago ikusiko. OH. Ikus ´sarri 1´ sarrerako oharra.

sarrio *(10)* : *(zoo.)* sarrio

sarro *(5)* : hondar (botila hondokoa eta)

sartagin *(5)* : danbolin (gaztainak erretzekoa)

sarte 1 *(3, 5)* : sarrera, sarleku */ arri andi bat [arrimatan ziolarik, ilobia]ren aua edo sartia [zerratu zion] (3):* harri handi bat gerturatzen zuela, hilobiko sarrera itxi zuen.

sarte 2 *(5)* : entretenimendu, olgeta

sartekatu *(5)* : *(erai.)* entokatu, luzitu

sartu 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : sartu */ elizan sartian (2):* elizan sartzean. */ adexkidia, nola sartu zra zu kemen? (3):* adiskidea, nola sartu zara zu hemen? */ Jesus sartan da (3):* Jesus sartzen da. */ ezrei sarten zeurien (3):* ez zarete zeruan sartuko. */ [irorgarren egunian] sartako bere glorian (3):* hirugarren egunean bere aintzan sartzeko. */ [iguzkia] sartruk (3):* eguzkia sarturik. */ sar ztei borta ersitik (3):* sar zaitezte ate estutik. */ etsian sartian (3):* etxean sartzean. */ etzei eiztan sartra sar al zaiztekener (3):* ez diezue sartzen uzten sar zitezkeenei. */ gizon guziuak gaude neguko egurren sartan (4):* gizon guztiak gaude negurako egurrak sartzen. */ bazion aspaldixko, bi pensamentu nazkala buriuan sartruk (4):* bazuen aspalditxo, bi pentsamendu neuzkala buruan sarturik. */ barra egiten dena arte[an], biotzean sartan zau emoileari (5):* hartzean egiten den barrea bihotzean sartzen zaio emaileari. */ erkin aroztegitik eta ikaztegian sar (5):* errementeriatik atera eta ikaztegian sartu. */ sartu zrei (7):* sartu zarete. */ etxeara beretik sartan da (7):* etxera ezkaratzetik sartzen da. */ sar adi, sar bedi (7):* sar hadi, sar bedi. */ etxean sartean (7):* etxean sartzean. */ zur kau nai digu sartu elizan (8):* enbor hau elizan sartu nahi dugu. */ ez adi sar [ñardoi] kortra (9):* ez hadi sar sasidi horretara. */ mitilak sartan zria etse guzietan (10):* mutilak etxe guztietan sartzen ziren. */ belaizurik egutxan sar kan guziak, etzulukaka, kori gaiza itsusia! (10):* biluzik ibaian sartu han guztiak, itzulipurdika, hori gauza zatarra! */ ar adi (10):* sar hadi. */ sar bitei (10):* sar bitez.

sartu 2 *(4)* : sartu (aiztoa, iltzea eta) */ [eskerrak!, nabaja] ezaun sartu tripatik (4):* eskerrak!, labana ez zion sartu tripatik. */ itzia sartruk dakad (4):* iltzea sarturik daukat.

saseri *(2)* : eseri */ Kristo zeurian saseririk dagoa? (2):* Kristo zeruan eseririk dago?

saski *(5)* : saski

sasointu *(5)* : sasoitu */ kemen ez figoa eztare matsa, ez dra sasointan sekula (5):* hemen ez pikua ezta mahatsa ere, ez dira sekula sasoitzen. OH. Ikus ´sazoin´ eta ´sazoî´ sarrerak.

satandre *(5)* : *(zoo.)* erbinude

satarra *(5)* : *(alb.)* pasmo, haratustel

satarte *(5)* : satarte, sagutegi

satartze *(5)* : satarte, sagutegi

sator *(2, 5)* : *(zoo.)* sator

sator gorri *(5)* : *(zoo.)* basasagu (mota bat)

sator-lur *(5)* : sator-lur, lorrin

sator-mukulu *(5)* : sator-lur, lorrin

sator-mukurru *(5)* : sator-lur, lorrin

sats *(5)* : zikinkeria OH. Bizkaian ´sats (= zimaur)´ dokumentatua.

satuts *(9)* : *(zoo.)* sator OH. Izagirrek ´(sic)´ oharrarekin dokumentatua.

sazoî *(3)* : sasoi, garai */ frutiuen sazoîa (3):* fruituen sasoia.

sazoin *(3)* : sasoi, garai */ sazoin kontan (3):* sasoi honetan.

segailla *(5)* : ahuntz (urte batekoa)

segalla *(11)* : segail, atsegin (umea nahiz aberea)

segitu *(3, 10)* : jarraitu, jarraiki */ ura xagitan zelarik bertan, segitu zitzaun (3):* hark, berehala jaikitzen zela, jarraitu zion. */ [gente multitud andiak] segitan zizazkan (3):* jende multzo handiek jarraitzen zioten. */ ezin konbersazionia segi (10):* ezin elkarrizketa jarraitu.

segur *(5)* : seguru */ laratza bikain segur (5):* laratza bezain seguru.

sei *(2, 6, 7, 8, 9, 10)* : sei */ asteko sei egunak biar tugu (2):* asteko sei egunak behar ditugu. /

zonbat egunez kreatu ztien gaizak? seirez (2): zenbat egunez sortu zituen gauzak? seiz. */ zer ordutraino egon zen? seietraino (2):* zer ordu arte egon zen? seiak arte. */ sei eta bi zortzi dra (7):* sei eta bi zortzi dira. */ seietan [xagi banitz] (9):* seietan jaiki banintz. */ ogeita sei urte (10):* hogeita sei urte. */ seiak [dra] (10):* seiak dira (ordua).

seiein *(8, 9)* : seiehun

seigarnen *(3, 7)* : seigarren */ seigarnen kapitulua (3):* seigarren kapitulua. */ seigarnen ikasgei[a] (7):* seigarren ikasgaia.

seigarren *(2, 9)* : seigarren */ seigarna (2):* seigarrena. */ ogeita seigarna (9):* hogeita seigarrena.

seira *(6)* : seina

seiraka *(5)* : seinaka

seita *(8)* : aulki (bizkar gabea)

seits *(1, 11)* : albo, saihets */ seitsa, seits etxea (1lm):* saihetsa, saihets etxea. OH. Aznarezek etxe izena den ´seisea´ toponimoan dokumentatua.

sekreta *(5)* : komun

sekreto *(2, 5)* : sekretu */ sekretoaren pean (2):* sekretu pean. */ isilaren gaiza guziuak dra sekreto (5):* isilaren gauza guztiak dira sekretu. */ ez dago sekretorik goix edo berant xakiten ez denik (5):* ez dago sekreturik goiz edo berandu jakiten ez denik.

sekretu *(3)* : sekretu */ borta zerratruk orazione egin zazu sekretuan (3):* atea itxita otoitz egin ezazu sekretuan. */ zore aitak ekustan baitu sekretuena izanik ere (3):* zure aitak ikusten baitu sekretuena izanik ere. */ leku sekretuetan (3):* leku sekretuetan.

sekula (ez) *(3, 5, 8)* : sekula (ez) */ sekula ere ez daizeid izaguntu (3):* sekula ere ez zaituztet ezagutu. */ sekula ez da ekusi izan kalako gaiza Israelen (3):* sekula ez da ikusi izan halako gauza Israelen. */ izeia egotx eta bertan isartan bada urpean, erranez naz eztela tustatan sekula´re (4):* izeia bota eta berehala urpean jartzen bada, esango nuke ez dela sekula ere usteltzen. */ ari orapilatua ezta sekula oso (5):* hari korapilatua ez da sekula oso. */ sekula gari anit[x] izaiteak ez du isartan urte gaxtorik (5):* sekula gari asko izateak ez du jartzen urte txarrik. */ kemen ez figoa eztare matsa, ez dra sasointan sekula (5):* hemen ez pikua ezta mahatsa ere, ez dira sekula sasoitzen. */ erran naiz nago eztela tustatan sekula´re (5):* esatekotan nago ez dela sekula ere usteltzen. */ baia sekula etzuitan uztan (8):* baina sekula ez zuen uzten.

sekulako 1 *(3, 4)* : sekulako (adj.) */ zer biar dur egin sekulako bizia konsegitako? (3):* zer egin behar dut sekulako bizia lortzeko? */ obe daidaizu sartia sekulako bizian maînku (3):* hobe zaizu sekulako bizian herren sartzea. */ ortzei sekulako suara! (3):* zoazte sekulako sutara! */ sekulako bizia [merexi dokegu] (3):* sekulako bizia merezi izan dezakegu. */ sekulako bizian [xinetstan dud] (4):* sekulako bizian sinesten dut.

sekulako 2 *(4)* : sekulako, betiko (adb.) */ gen akida ene antzinetik sekulako (4):* ken hakit nire aurretik sekulako.

sekulakoz *(3)* : sekulako, betiko (adb.) */ [arimak iburniara faiten baidra atormentatruk izaitako] sekulakoz (3):* arimak infernura joaten baitira oinazetuak izateko sekulako.

sekularo *(4, 5)* : *(erl.)* sokilaro (eguna) */ egunko egunak du izena´ sekularo eguna´ (abentiuaren 24´na [da]) (4):* gaurko egunak ´sokilaro eguna´ du izena (abenduaren 24.a da).

sekularo-egur *(5)* : sokilaro-egur */ sekularo-egurra (5):* sokilaro-egurra. OH. Eguberri eguneko sutako enborra.

sekularun *(5)* : *(erl.)* sokilaro (eguna)

sekulorunena *(5)* : sokilaro-egur */ sekulorunena (5):* sokilaro-egurra. OH. Eguberri eguneko sutako enborra.

seme 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : seme */ kristiaia jeinaren seme [egitan da] (2):* kristaua jaunaren seme egiten da. */ semea (2):* semea. */ gizonen semiak (2):* gizonen semeak. */ zerengatik ezpaiz[i]en berze semerik ekun (2):* zeren ez baitzuen bertze semerik ukan. */ aitaren izenean eta semearnean (2):* aitaren izenean eta semearenean. */ seme bat, izenez Jesus (3):* seme bat, izenez Jesus (dena). */ Jose, Dabiden semia (3):* Jose, Dabiden semea. */ nexar egiten baitu bere semengatik (3):* negar egiten baitu bere semeengatik. */ bere seme bakotx gore jeina (4):* haren seme bakar gure jauna. */ semiak errespondítu zaun (4):* semeak erantzun zion. */ sagar kartarik xan lezana jeinaren seme ta alaba (5):* sagar hartatik jan lezana jaunaren seme eta alaba. */ aita irabazale, semea gastazale (5):* aita irabazle, semea gastatzaile. */ ez diar semerik ez alabarik (7):* ez diat semerik ez alabarik. */ badu semia apez (7):* badu semea apaiz. */ semia eta alaba (8):* semea eta alaba. */ xarreki zte semeari (9):* jarrai iezaiozu anaiari. */ orai nuzu bost alabareki eta bi seme (10):* orain nauzu bost alabarekin eta bi seme(rekin). */ semiak (10):* semeak. */ bi mazte bere semeki [xuanen tun] (10):* bi emakume beren semeekin joanen ditun.

seme 2 *(3)* : seme (nondarra) */ xa berant [izaitian], gizon abrats bat [xin zen], Arimateako seme (3):* jada berandu zela, gizon aberats bat etorri zen, Arimateako semea.

seme-alaba(k) *(2)* : seme-alabak */ seme-alabarik ekutan badei, jeinaren lotxan az liztxein (2):* seme-alabarik izaten badute, jaunarne beldurrean haz litzaten.

semeder *(2, 5, 9)* : semebitxi, seme besoetako

semeizun *(5)* : semeorde */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino.

semekoi *(5)* : semezale (aita nahiz ama)

semexun *(2, 9)* : semeorde

sen *(5)* : sen

senar *(2, 3, 6, 7, 8, 10)* : senar */ Jose bere senarra izaitian (3):* Jose bere senarra izatean. */ emaztek [ezbaitei] arten senarrik (3):* emazteek ez baitute senarrik hartuko. */ senarrana, senarrarentako (6):* senarrarena, senarrarentzat. */ mazteak senarrari yiketz (7):* emazteak senarrari hika. */ ama berjina, bidei senar ona (8):* ama birjina, eman biezat senar ona. */ senarraren anaxe bat (10):* senarraren anaia bat. */ alaba bat bere senarrareki (10):* alaba bat bere senarrarekin.

senargei *(5, 7)* : senargai

senarremazte(ak) *(2, 4, 8, 9, 10)* : senar-emazteak */ bakian eta amorioan [bizi izaiteko], senarremazte gisa (4):* bakean eta maitasunean bizi izateko, senar-emazteak bezala. */ senarremaztiak (8):* senar-emazteak. */ senarremaztiak [Kordoban egon gintzia] (10):* senar-emazteak Kordoban egon ginen.

sendimentu *(4)* : sentimendu, sentipen */ egun kuetan nago sendimentu pikor bateki (4):* egun hauetan sentimendu pixka batekin nago. */ egun kuetan aski sendimentu [izan da] (4):* egun hauetan nahikoa sentimendu egon da. */ sendimentiua izan da, atzo zortzi erori zen ur erauntsi andi bat, eta ugaltian zûr zauden guziuak eraman ztion (4):* sentipena izan da, atzo zortzi erori zen ur erauntsi handi bat, eta ugaldean zeuden zur guztiak eraman zituen.

senditu 1 *(3, 4, 5, 9, 10)* : sentitu */ tenpra kontan senditu zen lurraren ikareria andi bat (3):* denbora honetan lurraren ikara handi bat sentitu zen. */ [zeuritik mintzo bat] senditu zen (3):* zerutik mintzo bat sentitu zen. */ ene arimak senditan du agonia (3):* nire arimak hilzoria

sentitzen du. */ senditan dionaren kontra (3):* sentitzen duenaren aurka. */ bekatu mortalian senditan dena[k] zer biar du egin? (3):* bekatu larrian sentitzen denak zer egin behar du? */ senditu dud, senditu diak, senditu dian (4):* sentitu dut, sentitu diat, sentitu dinat. */ anitx senditu nion (4):* anitz sentitu nuen. */ oilloak oillojalearen uxtuaren sendite[an] ezkapatan dra (5):* oiloek miruaren txistua sentitzean ihes egiten dute. */ odoia sendi tzu (9):* trumoia sentitzen da. */ [odoia] senditan dun (10):* trumoia sentitzen dun.

senditu 2 *(9)* : entzun */ senditu nia[n] (9):* entzun nuen. */ odoia sendi tzu (9):* trumoia entzuten da.

sendixun *(5)* : sentibera, sentikor (izaeraz)

sendo *(5)* : sendo */ baladrea sendoen ilgarri, eroen sendogarri (5):* otsababa sendoen hilgarri, eroen sendogarri.

sendogarri *(5)* : sendogarri */ baladrea sendoen ilgarri, eroen sendogarri (5):* otsababa sendoen hilgarri, eroen sendogarri.

sendor *(5)* : lodi (pertsona)

sendotu *(8, 10)* : sendatu */ gizon bat juan zunien begi baten sendotra, min bizien begian (8):* gizon bat begi bat sendatzera joan zen, min baitzuen begian. */ sendotu dien (10):* sendatu diten.

sentimentu *(3, 4)* : sentimendu */ zoregana gaude suspiratan sentimentuz eta nexarrez (3):* zuregana hasperenka gaude sentimenduz eta negarrez. */ aski sentimentureki erraiten daud ez nazala trebe llober uskararen ikasaraztra (4):* aski sentimendurekin erraten diot ez naizela ausartzen bilobei euskara ikasarazten.

sentogatx *(5)* : sendagaitz */ lupea sentogatx da (5):* lupua sendagaitza. da.

sentotu *(5, 10)* : sendatu */ obro sentotan du dietak (5):* gehiago sendatzen du dietak. */ azken gatxarendako ez dago dotorerik sentotako (5):* azken gaitzerako ez dago medikurik sendatzeko. */ min sentotako da (5):* mina sendatzeko da. */ sentotu diun gizona (10):* sendatu dinagu gizona. */ sentoten dela kola (10):* honela sendatuko dela. */ sentotu[k] dion (10):* sendaturik zagon.

sentza *(3)* : *(ekon.)* zerga */ lurreko erregek norenganik kupratan tei kontribuzioneak edo sentzak? (3):* lurreko erregeek norengandik kobratzen dituzte zergak?

señalatu *(3)* : seinalatu */ mendi Jesusek señalatu zabeiniara [fan zren] (3):* Jesusek seinalatu zien mendira joan ziren. */ señalatan arria (3):* harria seinalatzen. */ [bere ikaszaleak] señalatan ztiolarik eskiuaz erran zion´ kuek dra ene anaxak´ (3):* bere ikasleak eskuaz seinalatzen zituela, erran zuen ´hauek dira ene anaiak´.

señale *(2, 3, 5)* : seinale */ zer tenpraz bear dugu señalea usatu? (2):* zer denboraz erabili behar dugu seinalea? */ zoin da kristiaiaren señalia? krutxe saintia (2):* zein da kristauaren seinalea? gurutze santua. */ tenpra kuetako señale argiak (3):* garai hauetako seinale argiak. */ zoin izanen da zore xitiaren señalia? (3):* zein izanen da zure etorreraren seinalea? */ odola erkiten denean aotik, señale ilteko ezkapatan dela korpizetik (5):* odola ahotik ateratzen denean, seinale hiltzeko ateratzen dela gorputzetik.

señale -la *(4)* : seinale -ela, -en seinale */ kasilletan xuri erdeiten diona señale ez dakidala (4):* laukitxoetan zuri (idatzi gabe) aurkitzen duena seinale ez dakidala.

sera *(5)* : errota, hera (hegaztiena)

serbutxari *(2)* : zerbitzari */ jeinaren serbutxariak (2):* jaunaren zerbitzariak.

serbutxatu *(4)* : zerbitzatu */ balle kontra ez daiteke xin emaztekirik serbutxatra (4):* ibar honetara ez daiteke emakumerik etorri zerbitzatzera.

sermon *(3, 5)* : *(erl.)* sermoi, prediku */ sermonak (3):* sermoiak. */ egunko sermonak etzion itzalik*

(5): egungo sermoiak ez zuen mamirik. */ bereter korrek biotza andiarazten daikugu bere sermoneki; beilagarri da (5):* apaiz horrek bihotza hunkitzen digu bere sermoiekin; hunkigarria da.

setati *(5)* : setati, temati

setemer *(2, 4, 6, 7, 8, 9)* : irail */ 1903ko setemeraren 28´na (4):* 1903ko irailaren 28.a. */ setemera (6, 7, 8, 9):* iraila.

sî *(5)* : suhi

siats *(8)* : basatza, lokazti */ siatsa (8):* basatza, lokaztia.

sinagoga *(3)* : *(erai.)* sinagoga */ sinagogako nausi bat [eltu zenian] (3):* sinagogako nagusi bat heldu zenean. */ bere sortuerriko sinagogetan [erakustra izari zen] (3):* bere sorterriko sinagogetan irakasten jarri zen.

sinesgatx *(5)* : sinesgaitz, sinesgogor

sineskor *(5)* : sinesbera, sineskor

sinestamendu *(5)* : sinestamendu

sinestarazi *(5)* : sinetsarazi

sineste *(5)* : sineste

sinestor *(5)* : sineskor

sinestu *(7)* : sinetsi

sinetsi *(2, 5, 8, 9)* : sinetsi */ guk sinetsi eta egin biar tugun gaiza guziak (2):* guk sinetsi eta egin behar ditugun gauza guztiak. */ zer sinestan dugu kor? (2):* zer sinesten dugu hor? */ zer da fedia? gaiza ekustan eztugunaren sinestia (2):* zer da fedea? ikusten ez dugun gauza sinestea. */ sinetsi gore jeina gizon dena (2):* sinetsi gure jauna gizona dela. */ gero ez zezein nai sinetsi maztiak il ziela gizona (8):* gero ez zuten sinetsi emakumeak hil zuela gizona. */ sinetsi diar (9):* sinetsi dut. OH. ´Sinetsi -ena´ egitura gipuzkeraz ere dokumentatua.

sinetxi *(2)* : sinetsi */ leina, zer sinetxi bear dugun [xakitia] (2):* lehena, zer sinetsi behar dugun jakitea.

sinisgarri *(5)* : sinesgarri (pertsona)

siñu *(5)* : iseka, burla

sirrinapantika *(2)* : *(zoo.)* matxinsalto

-ska *(5)* : -xka */ ilunska (5):* ilunxka.

-sko *(5)* : -txo */ arrainsko (5):* arraintxo.

sobatu *(5)* : ondu, zurratu (larruak)

sobazale *(5)* : larruontzaile, zurratzaile

sobera *(5)* : gehiegi, sobera */ sobera [x] anez enaiteke andega (5):* gehiegi janez ez dezaket jasan.

sobra 1 *(5, 7, 10)* : gehiegi, sobera */ sobra [xan diar] (7):* gehiegi jan diat. */ [lan] sobra xarren egitan nela (10):* lan gehiegi zaharrentzat egiten nuela.

sobra 2 *(3, 4, 5, 10)* : -egi, sobra */ [Jesusek] kondenatan du fariseuen erreguridade sobra andia (3):* Jesusek gaitzesten du fariseuen gogortasun handiegia. */ nai dioa [x] akin zoin naiagoren nion nik, gizon sobra zainil bat edo emazte sobra gordin bat? nik ez bat eta ez berze (5):* jakin nahi al du zein nahiago izango nuen nik, gizon geldoegi bat edo emakume gordinegi bat? nik ez bat eta ez beste. */ sobra xar (10):* zaharregia. */ zazpiein, sobra kario (10):* zazpiehun, garestiegia.

sobranio *(3)* : erabat, guztiz */ bitartio Herodes sobranio [irritatu zen] (3):* bitartean Herodes erabat haserretu zen. */ aflijitruk sobranio, [galtegitra] asi zren (3):* erabat atsekabetuta,

galdetzen hasi ziren.

sobratu *(3)* : sobratu */ sobratu zenetik biltu zein amabi zare beterik puskaz (3):* sobratu zenetik hamabi saski bildu zituzten, puskaz beterik. */ dionari biar dion guziua emonen zau eta sobratruk [egonen da] (3):* duenari behar duen guztia emango zaio eta sobraturik egongo da.

sogin *(5)* : begiratu

soil 1 *(4)* : soil */ [bidietan] gente soila (4):* bideetan jende soila (dabil).

soil 2 *(5)* : gaitasungabe */ soil da emazteki kori, ezbaitioke ikas espartiñen egiten (5):* gaitasungabea da emakume hori, ez baitezake ikas espartinak egiten.

soin 1 *(2, 3, 4, 5, 8, 9)* : *(anat.)* sorbalda */ alte eskuko soinian (2):* eskuin aldeko sorbaldan. */ alte ezkerreko soinetik alte eskukoara (2):* ezker aldeko sorbaldatik eskuin aldekora. */ [krutxe baten egitea] biotzetik ezkerreko soineara (2):* gurutze bat egitea bihotzetik ezkerreko sorbaldara. */ ezkerreko soinetik eskoînekuaraino (3):* ezkerreko sorbaldatik eskuinekoraino. */ [kargak] izartan tei berzen soinetan (3):* kargak besteen sorbaldetan jartzen dituzte. */ pezu andi baten azkatako lurretik soinaraino (4):* pisu handi bat altxatzeko lurretik sorbaldaraino. */ astoari karga atziri, soin gainean zamariari (5):* astoari zama atzean, sorbalda gainean zamariari. */ soin-giltz[a] (5):* sorbalda(ko) giltzadura. */ lein oputzean belain gainera, bigarren oputzean gerruntziara, irorgarrenean bularrera, azkenekotz soin gainera (5):* lehen ahaleginean belaun gainera, bigarrenean gerrira, hirugarrenean bularrera, azkenekoz sorbalda gainera. */ soina (8, 9):* sorbalda.

soin 2 *(5)* : *(anat.)* soin */ gerruntzea emaztekiek ezarten dei soinaren ondarretik anken anditako ta kotak eztian apal eror (5):*gerri-kuxintxoa emakumeek jartzen dute soinaren hondarretik aldakak handitzeko eta gonak ez daitezen behera erori.

soin 3 *(5, 9)* : txaleko, koratilo (azpikoa) */ soina (9):* (azpiko) koratiloa.

soinburu 1 *(8, 9)* : *(anat.)* sorbalda; sorbalda-buru */ soinburia (8):* sorbalda. */ soinburia (9):* sorbalda-burua.

soinburu 2 *(5)* : *(anat.)* bizkar

soingain *(4, 5)* : *(anat.)* sorbalda */ non tu tripako, burarreko eta soingaineko gizenkiak? (4):* non ditu tripako, bularreko eta sorbaldetako gizenkiak?

soingainta *(5)* : sorbalda-zama OH. Sorbaldan eramaten den zama.

soinkide *(5)* : sorbaldakide OH. Zama eramateko laguna, kidea.

soinkin *(5)* : sorbaldakide OH. Zama eramateko laguna, kidea.

sointxunku *(5)* : *(anat.)* sorbalda-giltzadura

soiñ 1 *(5)* : gerruntze

soiñ 2 *(5)* : txaleko, koratilo

soiñak ertsi *(5)* : sorbaldak altxatu (zerbait ez jakitean, ez edukitzean) OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

soiñak goratu *(5)* : sorbaldak altxatu (zerbait ez jakitean, ez edukitzean)

soiñeko *(5)* : arropa */ txotxika-matsareki anitxek beltxagia soiñeko gietzentako egitan dei (5):* intsusa-fruituarekin askok tindu beltza egiten dute arropa higatuentzat.

soiñez-soin *(5)* : besotik besora OH. Pertsona batek beste bati zama (teilak, adreiluak etabar) emateko modua.

soiñu *(5)* : soinu, musika */ nolako soiñua, kalako dantza (5):* nolako soinua, halako dantza.

soka *(5, 9, 10)* : soka */ autse dun soka (9):* hautsi (eten) dun soka.

soka-laster *(5)* : soka-laster, saltorapilo

sokagille *(5)* : sokagile

soladura *(5)* : *(erai.)* zoladura

soldadu *(3)* : soldadu */ soldaduek Jesus belaîzruk [izari zien] (3):* soldaduek Jesus biluzik jarri zuten.

solfa *(4)* : *(mus.)* solfeo */ lloba solfistak ere eztu esturiatan obro solfa (4):* biloba solfistak ere ez du gehiago solfeoa ikasten. */ [organista] asi zau solfaren eratsukitan (4):* organista solfeoa irakasten hasi zaio.

solo 1 *(2, 3, 4, 7, 8, 10)* : soilik */ lein juangeiko solo zena orai juangeiko eta gizon (2):* lehen jaungoiko soilik zena orain jaungoiko eta gizon. */ Trinitate saintuko personak drade iror solo (2):* Hirutasun santuko pertsonak hiru soilik dira. */ esketan grena ezpaigrade giaurentako solo esketan (2):* eskatzen duguna ez baitugu geuretzat soilik eskatzen. */ gizon bat solo eta emazte bakotx bat (3):* gizon bat soilik eta emakume bakar bat. */ eztau deitan, solo xei anditako mezan (4):* ez dio deitzen, jai handietako mezan soilik. */ solo irur egun igari zion oian (4):* hiru egun soilik igaro zituen ohean. */ zure kontra solo egin diez bekatu (4):* zure aurka bekatua soilik egin dut. */ zomat pelota tzu? solo bat (7):* zenbat pilota dituzu? bat soilik. */ karentako esne solo (7):* harentzat esnea soilik. */ kori solo nai [duzia] (7):* hori soilik nahi al duzu? */ espartiñak xostan, ni bi urtez solo (8):* espartinak josten, ni bi urtez soilik. */ deus egin bagetarik, solo xan eta lo (8):* deus egin gabe, jan eta lo soilik. */ bi egunentako solo [xitan dra] (10):* bi egunetarako soilik etortzen dira.

solo 2 *(3)* : bakarrik */ Jesusek Pedro eta Juan berekin solo mendi gora batra [igaitian] (3):* Jesusek Pedro eta Juan berarekin bakarrik mendi garai bat igotzean.

sonari *(9)* : soinulari, musikari

sonasari *(5)* : soinusari OH. Soinu jotzaileari ematen zaion ordaina.

sonazale *(3)* : soinulari */ lutozko musika sonazaliak (3):* lutozko musika soinulariak.

sonto *(5)* : sendo

sontobelar *(3)* : sendabelar */ sonto belararnak (3):* sendabelarrenak (ordainak).

sontotarzun *(3)* : sendatze, sendaketa */ perletikatu baten sontotiua edo sontotarzuna (3):* elbarritu baten sendatzea.

sontotu 1 *(3, 4, 5)* : sendatu */ [kexatan zren guziuak] sontotu ztion (3):* kexatzen ziren guztiak sendatu zituen. */ perletikatiuak sontotan ztion (3):* elbarrituak sendatzen zituen. */ ni fanen nuzu eta sontoten dauz (3):* ni joanen naiz eta sendatuko dut. */ ene mitila sontotruk [baraten da] (3):* ene mutila sendaturik geratuko da. */ [Jesusi] galtegin zabein lizito zenez sontotia neskanegunian (3):* Jesusi galdetu zioten ea zilegi zen larunbatean sendatzea. */ eskerrak botigako mereziner; kek sontotu nei (4):* eskerrak botikako medizinei; haiek sendatu naute. */ ganureki nago, xakin nai, ya ori sontotu denez (4):* gogoarekin nago, jakin nahian ea berori sendatu den. */ xinistian nago orai xa, sontotruk al dagola (4):* sinetsita nago orain jada, sendaturik egon ahal dela. */ miaz egiten den mina da azken sontotan dena (5):* mihiaz egiten den mina da azken sendatzen dena. */ azken gatxarendako ez dago dotorerik sontotako (5):* azken gaitzerako ez dago medikurik sendatzeko. */ sontotu da, sontoten da (7):* sendatu da, sendatuko da.

sontotu 2 *(3)* : sendatze, sendaketa */ perletikatu baten sontotiua edo sontotarzuna (3):* elbarritu baten sendatzea.

sonu *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : *(mus.)* soinu */ emoitan tzunian limosna, etzazula nai publika tronpeta sonuz (3):* limosna ematen duzunean, ez ezazula zabaldu nahi izan tronpeta soinuz. */ tronpeta*

baten soniuara (3): tronpeta baten soinura. */ tanborin berriak soniua on (4):* danbolin berriak soinua on. */ mendi[e]k egiten deinean sonu, tenprak euri (5):* mendiek soinu egiten dutenean, eguraldiak euri. */ sonua (sonia) entzutan dur (7):* soinua entzuten dut. */ arrastrian plaztan sonia (9):* arratsaldean plazan soinua (egoten zen). */ plaztan sonia (10):* plazan soinua.

sopikon *(5)* : ergel, tentel

sor 1 *(5)* : sor, soraio

sor 2 *(4, 5, 9)* : gor, entzungor */ sor batek erran zaun utsi bati (5):* gor batek itsu bati erran zion. */ urdu du sor dagola (9):* gor dagoela dirudi.

soraio 1 *(5)* : sor, soraio OH. Iparraldean ere dokumentatua.

soraio 2 *(5)* : *(alb.)* soraio (txerri legena) OH. Iparraldean ere dokumentatua.

soraiotasun *(5)* : soraiotasun

soraiotu *(5)* : soraiotu

sorberri 1 *(4)* : jaioberri */ zuketzaz mintzatan gra bapana bere adinetakoetarik as, aiketa sorberrietraino (4):* zuketan mintzatzen gara bakoitza bere adinekoengandik hasita, harik eta sortu berrienganaino. */ sorberritik as, zar tian artio (4):* jaioberri(ta)tik hasita, zahar daitezen arte.

sorberri 2 *(9)* : erdiberri (ama)

sordun *(3)* : gor, entzungor */ [orai] sordunek entzuten dei (3):* orain gorrek entzuten dute.

sorgi 1 *(5)* : sorleku

sorgi 2 *(5)* : aberri OH. Azkuek ´sorgi = aberria, pertsonez ari garela´ adieran ere dokumentatua.

sorgi 3 *(5)* : sorburu (iturburua)

sorgu 1 *(5)* : sorleku

sorgu 2 *(5)* : aberri OH. Ikus ´sorgi 2´ sarrerako oharra.

sorgu 3 *(5)* : sorburu (iturburua)

sori *(5)* : zilegi, sori

soriegun *(5)* : soriegun OH. Haragia jatea zilegi (edo sori) den eguna.

soro 1 *(1)* : *(nek.)* alor, soro */ ardibide soroa (1):* ardibide(ko) soroa.

soro 2 *(5)* : *(nek.)* nabar, golde-mutur OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

sorregun *(4)* : sortegun */ jangeiko ume sor eguneko bazkoak (4):* jaungoiko ume sorteguneko pazkoak.

sorreri *(5)* : *(med.)* gortasun, gorreri

sorrortz *(5)* : *(anat.)* sor-hortz OH. Lehenbiziko hortza(k).

sortarzun *(3)* : jaiotza, sortze */ Jesukristoren sortarzuna (3):* Jesukristoren jaiotza.

sorte *(3, 4)* : jaiotza, sortze */ Kristoren sortiua izan zen gisa kontan (3):* Kristoren sortzea modu honetan izan zen. */ Jesukristo gore salbazaliaren sortiako bazkoak (4):* Jesukristo gure salbatzailearen sortzeko pazkoak.

sortetxe *(5)* : *(erai.)* jaiotetxe, sortetxe

sortu 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : jaio, sortu */ ekusi [zuniena] jeina noiz sortu zen? (2):* ikusi al zenuen jauna noiz jaio zen? */ [andre dona birjinaganik] sortu zela (2):* andre dona birjinagandik sortu zen. */ [Jesus] sortu zen (3):* Jesus sortu zen. */ galtegiten zabein non biar zion sortu [Kristok] (3):* galdetzen zien non jaio behar zuen Kristok. */ ekusi zunion zuk Jesukristo sortan? (3):* ikusi zenuen zuk Jeskristo sortzen? */ [Maria berjinadanik] sortu zen (4):* Maria birjinagandik sortu zen. */ sortu nintzen bakoitxean eta bietan batixatu (5):* sortu nintzen bakarrean (ordu batean) eta bietan bataiatu. */ gairon gairona, sortu da jein ona (5):*

gabon gabona, sortu da jaun ona. */ zer urtez sortu nintzen? (7):* zer urtez jaio nintzen? */ bi añu sortu diezu (9):* bi antxume sortu ditu. */ [anix gizen] sortu dun (10):* oso gizen jaio dun.

sortu 2 *(3, 4, 5, 10)* : sortu */ [iguzkia onen eta gaxtuen gainian] sor dein [egitan du] (3):* eguzkia onen eta gaiztoen gainean sor dadin egiten du. */ obe izan lekion kalakuari ez balitz sekula´re sortu (3):* hobe litzaioke halakoari ez balitz sekula ere sortu. */ doloria sortan baita jangeikuari moitegua digunetik (3):* mina sortzen baita jainkoari diogun maitasunetik. */ [uturri eta izorro bikala] sortan dra (3):* iturri eta sustrai bezala sortzen dira. */ gariak sortu dra onki (4):* gariak ongi sortu dira. */ arbole kuek sortan dren errian (4):* zuhaitz hauek sortzen diren lurrean. */ Anak sortu zion Maria eta Mariak Jesukristo (5):* Anak Maria sortu zuen eta Mariak Jesukristo. */ lû aziak San Markos egunean ez du egon bear ez sortruk ez zakutan (5):* liho haziak San Markos egunean ez du egon behar ez sorturik ez zakutan. */ sortu dien [seme bat] (10):* seme bat sortu din.

sortu 3 *(4, 10)* : gortu, gor geratu */ sortu dion (10):* gortuta zagon. */ anix sortu dun (10):* anitz gortu dun.

sortu 4 *(2)* : sortu, ernamuindu */ lurrian sortzen dren lantare guziek (2):* lurrean sortzen diren landare guztiak.

sortuberri *(7)* : jaioberri

sortuerri *(3, 5)* : sorterri */ [bere erriara] igartian, bere sortuerriko sinagogetan [erakustra izari zen] (3):* bere herri(alde)ra igarotzean, bere sorterriko sinagogetan irakasten jarri zen.

sorxka *(5)* : gortasuntxo, gorreritxo

sorzairu *(5)* : erditze */ sorzairu ona ekun du (5):* erditze ona izan du.

sorzaro *(5)* : sortzaro, jaiotza */ sorzaroko falta, bere menteko gatxa (5):* sortzaroko falta, bere bizialdiko gaitza. */ sorzaroz da gizon kori utsi (5):* jaiotzaz (jaiotzez) da gizon hori itsua.

sos *(8)* : sos, diru */ sos nai diena (8):* sosak nahi dituena, dirua nahi duena.

sotil 1 *(5)* : otzan, mantso

sotil 2 *(5)* : dotore

sotiltasun 1 *(5)* : otzantasun, mantsotasun

sotiltasun 2 *(5)* : dotoretasun (jokaeran)

sotiltasun 3 *(5)* : diskrezio, zuhurtasun

soto 1 *(5)* : *(erai.)* soto

soto 2 *(4, 5, 9, 10)* : *(nek.)* ukuilu, eskorta */ engoxan antze zaikugu llarne mantria sotoaren erdian (4):* goizean larraineko izara ukuiluaren erdian ahaztu zaigu. */ yire estimazione guziua sotokoetan diok (4):* hire estimu guztia ukuilukoengan zagok. */ soto bapanari on zaizka bere utzak (5):* ukuilu bakoitzari onak zaizkio bere putzak. */ guk ekun diaguzu beur et´oro sotoetan (10):* guk eduki dugu behor eta dena ukuiluetan. OH. Azkuek zehaztua da ´sotoa´ behi jende eta zaldi jendearentzako ukuilua dela.

sotopil *(5)* : *(suk.)* sutopil

sotoxar *(11)* : ukuilu xahar (leku txiki samarra)

sotu *(5)* : bigundu, beratu (haragia) OH. Azkuek ´sotu = haragia beratu eta hondatzen hasi´ oharrarekin dokumentatua.

soz *(5)* : begira

su *(2, 3, 4, 5, 6, 8, 9, 10)* : su */ sua ta beroa (2):* sua eta beroa. */ autzak erreren tu il ez deiteken su batian (3):* hil ez daitekeen su batean erreko ditu ahotzak. */ arbole oro izanen da ebakirik eta suara egotxirik (3):* zuhaitz oro moztua izango da eta sutara botea. */ iburniko suaren*

merezidun [izanen da] (3): infernuko suaren merezidun izango da. */ sutan dagon labiara [egotxi] (3):* sutan dagoen labera bota. */ bil zazei xatsa eta artaz egin zazei espal suarentako (3):* bil ezazue iraka eta harekin egin itzazue ezpalak sutarako. */ [izeiak] sua du lerrak bino gaxtoago (4):* izeiak sua pinuak baino txarragoa du. */ urrinarat dirdiratan dei suek mendien erdian (4):* urrunean suek dirdiratzen dute mendien erdian. */ suaren beroareki egiten dei ganzta (4):* suaren beroarekin egiten dute gazta. */ su berri, ur benedikatu (5):* su berria, ur bedeinkatua. */ nolako egurra, kalako sua (5):* nolako egurra, halako sua. */ suara erori (6):* sutara erori. */ suaren indarra (9):* suaren indarra. */ kaur suarentako (9):* hau sutarako. */ izar zan suan eltxanoa (9):* jar ezan sutan eltzetxoa. */ erkin zan sutik eltxanoa (9):* atera ezan sutatik eltzetxoa. */ sua [lotu dur] (10):* sua itzali dut. */ suan zankoak bello (10):* su ondoan hankak beroxka hor. */ suian bello (10):* su ondoan beroxka. */ [gaiza] kuek egitan tiagun, suaren egoitako goxanik (10):* gauza hauek egiten ditinagu, goizetik sua egoteko.

sû *(5)* : suhi

su emon *(5)* : sutu, zirikatu

su(a) egin *(8, 10)* : su(a) egin */ sua ixik, sua egin (8):* sua piztu, sua egin. */ su egin etsen eta bello (10):* su egin etxean eta beroxka (egoten da). */ egin duna sua? (10):* egin al dun sua? */ egitan dien sua (10):* sua egiten din. */ izan balitz mitil ona, eginen zia sua (10):* mutil ona izan balitz, sua eginen zuen.

su-ondo *(9)* : sutondo */ bello zte su-ondoan (9):* bero zaitez sutondoan.

suar *(5)* : sutsu, suhar

suâr *(5)* : *(zoo.)* ipurtargi

suargi *(5)* : suargi

suarri *(5)* : *(min.)* suharri

subazter *(5)* : sutondo, supazter

sube *(10)* : *(zoo.)* suge */ subia (10):* sugea. OH. Euskalkietan ohikoa da ´subea´ aldaera.

subikandra *(10)* : *(zoo.)* sugandila

subizgu *(5)* : sutondo, supazter

sudur *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : *(anat.)* sudur */ sudurrez kîo egitia (3):* sudurrez usaintzea. */ emon dazan bortaz sudurrean (4):* emaion ateaz sudurrean. */ itz anixtan pronunziatan digu sudurrez, letra isari bage (4):* hitz askotan sudurrez ahoskatzen dugu, letra jarri gabe. */ ni sukalte zokoan sudur-muturrak errerik (5):* ni sukalde zokoan sudur-muturrak errerik. */ sudur kupitua (5):* sudur kakotua. */ gizon illak sudurra otz (5):* gizon hilak sudurra hotz (= hildakoek lagunik ez dute). */ ire sudurrarendako! (5):* hire sudurrarentzat! */ sudurra da kio egitako (7):* sudurra usaintzeko da.

sudur konkor *(5)* : sudur konkor (adj.) OH. Sudur konkorra, irtena.

sudur kupitu *(5)* : sudur konkor (adj.) */ sudur kupitua (5):* sudur konkorra.

sudur makur *(5)* : sudur konkor (adj.) OH. Sudur konkorra, irtena.

sudur-bizkar *(5)* : *(anat.)* sudur-bizkar

sudur-kakazi *(5)* : muki lehor */ sudur-kakazia (5):* muki lehorra.

sudur-konkor *(5)* : *(anat.)* sudur-bizkar

sudur-mintzo *(5)* : sudurkari (hizkera)

sudur-uxtu *(5)* : haserre OH. Hitzez hitz ´sudur-txistua´ (soinua).

sudurraren eroki *(5)* : sudurrarentzat eduki (ez eman nahi izan) */ yire sudurraren dakadak (5):* hire sudurrarentzat zeukeat (ez diat eman nahi).

sudurretako estura *(5)* : *(med.)* hotzeri, katarro, marranta */ on da oian sartea ta izerdiz sudurretako estura egosaraztea (5):* ona da ohean sartzea eta hotzeria izerdiz egosaraztea.
sudurxilo *(2)* : *(anat.)* sudurzulo
sudurzain *(5)* : *(anat.)* sudurzain OH. Sudurreko kartilagoa.
sudurzilo *(5)* : *(anat.)* sudurzulo
sueri *(5)* : *(med.)* sukar (txikia)
sufritu *(7)* : sufritu */ zuk sufritan tzu (7):* zuk sufritzen duzu.
sugal *(5)* : sukaldeka */ sugal egotxi deikuei errepartoa (5):* sukaldeka egotzi digute kontribuzioa. OH. Herrian dauden sukaldeen (etxeen) artean banaturik edo zatiturik.
sugarrestan *(5)* : arrastaka, herrestan */ sugarrestan, sugea gisa, bizi da gizon kori (5):* arrastaka, sugea bezala, bizi da gizon hori.
suge *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : *(zoo.)* suge */ apozarrak [eta] sugeak (2):* apoak eta sugeak. */ eskatan bazau arraîn bat, suge bat [emonen du]? (3):* amuarrain bat eskatzen bazaio, suge bat emango du? */ sugien gisa eta urxuen bikala [izan biar tzei] (3):* sugeen gisa eta usoak bezalakoak izan behar duzue. */ suge iltan dei (4):* sugeak hiltzen dituzte. */ uturrietan ebiltan dan sugeño bikalako bat, aria gisa, ez lodiago (5):* iturrietan ibiltzen den sugetxo bezalako bat, haria bezalakoa, ez lodiagoa. */ sugeak (7):* sugeak. ez aiela eror [xarga] korietra, suge bitago (9): ez hadila eror sasi horietara, sugeak baitaude. */ suge [bat], sugia (10):* suge bat, sugea.
sugebilo *(5)* : *(zoo.)* ur-zizare (mota bat) */ uturrietan ebiltan dan sugeño bikalako bat, aria gisa, ez lodiago; bilotik sortan dela erratea da (5):* iturrietan ibiltzen den sugetxo bezalako bat, haria bezalakoa, ez lodiagoa; iletik sortzen dela esaten da.
sugei *(5)* : erregai
sugekandera *(5)* : *(zoo.)* sugandila
sugekandra *(9, 10)* : *(zoo.)* sugandila */ ikusi tzea sugekandra? (9):* ikusi al duzu sugandila?
sugendilla *(2)* : *(zoo.)* sugandila
sugerresta *(5)* : arraste, herrestatze (arrastaka eramatea)
sugeutsi *(2)* : *(zoo.)* sugeitsu
sugeutsu *(5)* : *(zoo.)* sugeitsu
sukal *(5)* : sukaldeka OH. Ikus ´sugal´ sarrera eta bertako oharra.
sukalda *(5)* : su-galda
sukaldar 1 *(5)* : sutondo, supazter */ arotzaren etsen sukaldarreko pala zurez (5):* errementariaren etxean supazterreko pala zurez.
sukaldar 2 *(5)* : txingar
sukalde *(7)* : sukalde */ sukaldia [egordi bage erkin nun] (8):* sukaldea erraztatu gabe atera naun.
sukaldiar *(5)* : sukaldari
sukalte *(4, 5, 7, 10)* : sukalde */ sukalte lanen antzatako (4):* sukaldeko lanak prestatzeko. */ ni sukalte zokoan sudur-muturrak errerik (5):* ni sukalde zokoan sudur-muturrak errerik. */ sukaltean (7):* sukaldean. */ bi sukalte, keben bat eta kan beste bat (10):* bi sukalde, hemen bat eta han beste bat. */ xate zan sukaltia! (10):* garbi ezan sukaldea!
sukapar *(5, 10, 11)* : sukapar OH. Azkuek eta Artolak ´sulekuaren eta hormaren arteko tartea´ esanahiarekin dokumentatua. Aznarezek ´sutondoaren atzean dagoen hutsunea, egurrik handienak sartzeko´ esanahiarekin dokumentatua. Aznarezek bildutako aldaerak > ´xukapar, sokapar, txukaparre´.
sukartu *(5)* : haserretu, sumindu

sukatu *(5)* : sutan egon, erre
sukoi *(5)* : sutondozale, supazterzale
suku *(5)* : *(alb.)* lanpara (ganaduarena)
sukune *(4, 5)* : supazter, sutondo */ [elurtiak] gizon guziuak gazka sukunetan, zankabizkarrak errerik (4):* elurteak gizon guztiak sutondoan gauzka, zango-bizkarrak erreta.
sumin *(5)* : haserre, sumin
sumindu 1 *(5)* : haserretu, sumindu
sumindu 2 *(5)* : sorgortu, hozmindu
sun *(2)* : suhi
sûñ *(5)* : suhi */ obe zaitad aitagiarrebaren etxea ezik sûñarena, deus berzegatik baizik bere zabalgoez (5):* hobe zait aitaginarrebaren etxea suhiarena baino, haren zabaleragatik baino ez.
suñu *(5)* : iseka, burla
suplizio *(3)* : suplizio */ sekulako supliziuara [fanen dra] (3):* sekulako supliziora joanen dira.
surgu *(1)* : surgu */ surgutzea (1):* surgu lekua. OH. ´Surgua´ zerbaiten muga edo muturra da, soro batena adibidez. Bizkaieraz ere dokumentatua.
surrunt *(5)* : purrustada, marmar
surruntaka *(5)* : purrustaka
susalgori *(5)* : susalgori OH. Arreske erraz jartzen den behia.
susare *(4)* : susara (behia arreske)
sutaintzineko *(5)* : suaurreko (egurra) OH. Sutan, aurrean jartzen den egurra, besteei eusteko.
sutarri *(5)* : *(min.)* kuartzo
sutondo *(10)* : sutondo */ bar degu izan sutondoan (10):* sutondoan izan behar dugu.
sutopil *(5)* : *(suk.)* sutopil OH. Errauts azpian egindako ogia.

T

-ta *(8)* : -ta */ ez lorik ekuta (8):* ez logurarik edukita.

ta *(2, 5, 7, 8, 9, 10)* : eta */ eguzkia ta argizagia (2):* eguzkia eta ilargia. */ sua ta beroa (2):* sua eta beroa. */ aur ta eroenganik egia (5):* haur eta eroengandik egia. */ aza ta porru xan eta dolu (5):* aza eta porruak jan eta damu. */ yorea yire ta enea bien (5):* heurea hire eta enea bien. */ kor tzu oia, mixiak zuri ta xai [dra] (7):* hor duzu ohea, izarak zuriak eta garbiak dira. */ zu oian ta ni bortan, biak giutzu penatan (8):* zu ohean eta ni atean, biak gara penatan. */ nai dei aigal fite ta oiara xoan (9):* azkar afaldu nahi dute eta ohera joan. */ ta zer lan egin dei kor? (9):* eta zer lan egin dute hor? */ ta nik zer bar dur erran orai? (10):* eta nik zer behar dut erran orain? */ zer xanen dugu gaur? papa ta txitxi (10):* zer jango dugu gaur (gauean)? ogia eta txitxia.

tabaion *(7)* : ezpain-zapi */ tabaiona (7):* ezpain-zapia.

tabako *(5)* : tabako

tabako-belar *(5)* : *(bot.)* tabako-belar

tabalon *(5)* : mahai-zapi

taberna *(5, 10, 11)* : taberna */ tabernan saltan da ardaû (5):* tabernan ardoa saltzen da. */ orai badu tenpra tabernara xoaitako xokatra (10):* orain badu denbora tabernara jokatzera joateko. */ tabernazar (11):* taberna zahar(ra).

Tafalla *(7)* : *(geog.)* Tafalla */ Tafallako ardaua dun anitx on (7):* Tafallako ardoa oso ona dun. */ Tafallarik [igaitan dun] (7):* Tafallatik igarotzen dun.

taika *(5)* : mantelina OH. Emakumeek elizarako buruan jartzen zutena.

tailleri *(5)* : *(nek.)* segatze, belar-mozte OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

taka 1 *(5)* : akats

taka 2 *(5)* : lastometa-makila

takez 1 *(5)* : takez (gelditu) OH. Ustekabean edo bat-batean gelditu.

takez 2 *(5)* : guztiz, erabat; seko */ aberatsa emon zen, baia [k]ura ere apaltu da takez (5):* aberatsa omen zen, baina hura ere apaldu da guztiz. */ gizon zar kura erori da takez (5):* gizon zahar hura seko erori da.

-tako 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : -tzeko */ zertako? fedearen defendatako (2):* zertarako? fedea defendatzeko. */ bekatu egin tugunien parkatako (2):* egin ditugun bekatuak barkatzeko. */ zeren Herodesek txerkaten baitu aurra ilaraztako (3):* zeren Herodesek haurra bilatzen baitu hilarazteko. */ guri otoi egitan erakustako (3):* guri otoitz egiten irakasteko. */ jangeikuari biotza azkatako eta mertxediak eskatako (3):* jainkoari bihotza goratzeko eta mesedeak eskatzeko. */ pezu andi baten azkatako lurretik soinaraino (4):* pisu handi bat altxatzeko lurretik sorbaldaraino. */ noiznaiden egonen dela drezu eskribitako (4):* noiznahi egonen dela prest idazteko. */ ñiski-ñaska arroitu egiten zion mastekatako tenpran (4):* ñiski-ñaska zarata egiten zuen mamurtzeko garaian. */ negiuan xagitan laguntako (5):* neguan jaikitzen laguntzeko. */ xakuto bat ebiltako bortaz borta libosna eska, bizitako (5):* xakuto bat atez ate ibiltzeko limosna eske, bizitzeko. */ min sentotako da (5):* mina sendatzeko da. */ ikasguara xoaitako, karrikatik [xoaitan gra] (7):* ikastetxera joateko, karrikatik joaten gara. */ bearriak dra entzutako (7):* belarriak entzuteko dira. */ aigaltako azak [daude] (7):* afaltzeko azak daude. */ ez ganorik xagitako (8):* jaikitzeko gogorik ez. */ urutako (9):* iruteko. */ obetako (10):* hobetzeko. OH. Bidankozen ´-teko´ ere maiz dokumentaturik dago.

-tako 2 *(2)* : -tzat */ nork ere naidion era[gu] dezan jeina zonbait gaizatan testigotako (2):* nornahik ekar dezan jauna zenbait gauzatan lekukotzat.

-tako 3 *(10)* : -tarako */ bi egunentako solo [xitan dra] (10):* bi egunetarako soilik etortzen dira. */ apeza kona [xitan zia] parrokotako (10):* apaiza hona zetorren parrokotarako.

-tako ekun *(3, 5)* : -tzat eduki */ norbaitek auts baleza mandamentu kuetarik bat, izanen da ekunik ezdeustako (3):* norbaitek agindu hauetako bat hauts baleza, ezereztzat edukia izanen da. */ kori izanen da ekunik anditako (3):* hori handitzat edukia izango da. */ Abrahan aitatako dakagu (3):* Abrahan aitatzat daukagu. */ arbolia balimadakazei gaixtotako, ekun zazei gaixtotako aren frutiua [ere] (3):* zuhaitza txartzat baldin badaukazue, eduki ezazue haren fruitua ere txartzat. */ amartako dakei (5):* lapurtzat daukate.

-tako eroki *(3)* : -tzat eduki */ ezaizu lizito [Herodias] erokitia emaztetako (3):* ez zaizu zilegi Herodias emaztetzat edukitzea. */ zeren guziuek baizakein Juan profetatako (3):* zeren guztiek baizeukaten Juan profetatzat.

tal-tal *(5)* : tipi-tapa */ nazierde tal-tal (5):* zatoz tipi-tapa. OH. Ikus ´ttal-ttal´ sarrera.

talangaka 1 *(5)* : zabuka, balantzaka */ talangaka ebiltan da mazte erdi berri kura (5):* zabuka ibiltzen da emakume erdi berri hura.

talangaka 2 *(5)* : talangaka OH. Azkuek ´idiak pertika aldera makurturik´ esanahiarekin dokumentatua.

talango 1 *(5)* : talango OH. Zama ondokoari botatzeko joera duen idia nahiz mandoa.

talango 2 *(5)* : talango (desorekaturik) */ neskato karek kota talango dama (5):* neskazahar hark gona talango darama. OH. Alde bat gorago bestea baino.

talar-loza *(5)* : soineko-izur

talatu 1 *(5)* : blaitu

talatu 2 *(5)* : gortu */ itz gaiztoz talatu nu barridetarrak (5):* hitz gaiztoz gortu nau auzotarrak.

talde *(5)* : talde (abereena) OH. Azkuek ´talde artalde txikia da eta saldo handia´ oharrarekin dokumentatua.

talentu *(3)* : talentu, adimen */ amar [berjin], zeinetarik borz zren talentu bagedunak (3):* hamar birjina, zeinetatik bost talentu gabeak baitziren.

talo *(11)* : *(suk.)* talo

taltal *(5)* : jo eta ke

taltal ebili *(5)* : hara eta hona ibili, batera eta bestera ibili

tan-tan-tan *(5)* : tan-tan-tan (tanta jarraikorren onomatopeia) */ tan-tan-tan erortan da etse zarretan ura (5):* tan-tan-tan erortzen da etxe zaharretan ura.

tanbora *(5)* : *(mus.)* danbor OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

tanborin 1 *(4)* : *(mus.)* danbolin */ tanborin berriak soniua on (4):* danbolin berriak soinua on.

tanborin 2 *(5)* : danbolin-jotzaile, danbolindari, danbolin

tanda 1 *(5)* : epe

tanda 2 *(5)* : jendetza

tanda 3 *(5)* : *(nek.)* talde, saldo

tandaka *(5)* : epeka */ zor dion deuri andia paka dazaula tandaka (5):* zor duen diru handia ordain dezala epeka.

tangala *(5)* : herren (iz.)

tangalaka *(5)* : herrenka */ gore gatua tangalaka dago (5):* gure katua herrenka dabil.

tango *(5)* : taupada(k), pultsu

tanka 1 *(5)* : tanta
tanka 2 *(5)* : pixka bat
tanka-tanka *(5)* : tanka-tanka OH. Txanponak banan-banan emanez ordaindu.
tankano *(5)* : alferrontzi, tankar
tanketz *(5)* : danga-danga edan, kolpetik edan
tantan *(5)* : temati, burugogor
tantan artu *(5)* : temati hartu */ kari, tantan artan diona, ñork ere ez dau gentan (5):* hari, temati hartzen duena, inork ere ez dio kentzen.
tanto *(5)* : kaka-baba, kaka-pinporta
tapa-tapa 1 *(5)* : taupa-taupa (bihotza) */ tapa-tapa doke pulsoa (5):* taupa-taupa(ka) dauka pultsua.
tapa-tapa 2 *(5)* : tipi-tapa
tapada *(5)* : taupada
tapagaillu *(5)* : estalki OH. Azkuek ´botilen estalkia´ oharrarekin dokumentatua.
tapaillaztatu *(5)* : adabatu
tapaillu 1 *(5)* : adabaki, txatal
tapaillu 2 *(5)* : estalki (lapikoena eta)
tapaillu 3 *(5)* : tapoi, zipotz
tapaka *(5)* : taupaka, taupadaka
tapallu *(3, 11)* : adabaki, txatal */ ñork ere ez [dau izartan] tapallu bat oxal lodiz beztido xar bati (3):* inork ere ez dio jartzen adabaki bat oihal lodiz jantzi xahar bati. OH. Aznarezek gaztelaniak desitxuratutako ´tapallo´ aldaera dokumentaturik.
tapatu 1 *(4, 8)* : estali */ eltziuak llarnetan egon zren elurrez tapatruk (4):* eultziak larrainetan elurrez estalirik egon ziren. */ ama berjina xinen duk ire tapatra (8):* ama birjina etorriko duk hi estaltzera.
tapatu 2 *(7)* : taupa egin
tapitu *(5)* : zapaldu, zanpatu
tapur *(11)* : apur, papur (ogi-apurrak)
tar-tar-tar *(5)* : tar-tar, txor-txor (hizketaren onomatopeia)
-tarik *(5)* : -danik */ biartarik (5):* bihardanik. */ etzitarik, etzidamutarik (5):* etzidanik, etzidamudanik. */ gaurtarik (5):* gaurdanik, gau honetatik.
-tarik landa *(9)* : -z gain; -taz gain */ nitarik landa badiaun beste bat (9):* nitaz gain badinagu beste bat.
-tarikas *(6)* : -tandik */ ñottotarikas (6):* txikitandik.
tarrakatu *(5)* : karrakatu, arraspatu */ tarrakatu tud gergiskoetako buztinak (5):* galtza motzetako buztinak (lokatza) arraspatu ditut.
tarrankada *(5)* : atzamarkada
tarranko *(11)* : motzondo (zuhaitzena nahiz azena) OH. Aznarezek ´-anko atzizki arkaikoa´ oharrarekin dokumentatua.
tarrantantan *(5)* : tarrantantan (gurdiaren onomatopeia)
tarrapata *(5)* : ipurtarin, geldiezin (pertsona)
tarrapataka *(5)* : tarrapataka, arrapaladan
tarrata *(11)* : tarratada, urratu
tarratada *(5)* : tarratada, urratu

tarrea *(8, 11)* : aztaluhal, buztanpeko (zamarien uhala)

-tarsun *(6)* : -tasun */ bellatarsuna (6):* biguntasuna.

tartaillatu *(5)* : isildu (kanpaia) */ eskila eta tzintzerria tartaillatu dra eta orai tartaillu [daude] (5):* kanpaia eta zintzarria isildu dira eta orain soinurik gabe daude.

tartaillu *(5)* : soinu gabe

tartakerio *(5)* : elkarrizketa (gatzgabea; txepela) */ tartakerio bat badokei kor (5):* elkarrizketa txepel bat badaukate hor.

tartar *(5, 11)* : berritsu, hitzontzi */ kura tartar bat da (5):* hura berritsu hutsa da.

tartara *(5)* : berritsu, hitzontzi

-tarzun 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8)* : -tasun */ ontarzun (2):* ondasun. */ berextarzun (3):* bereiztasun. */ anditarzuna, gogortarzuna, egiatarzuna (3):* handitasuna, gogortasuna, egiatasuna. */ itsustarzunagatik (3):* itsustasunagatik. */ adexkidetarzun, bizitarzun, maitetarzun (4):* adiskidetasun, bizitasun, maitasun. */ anixtarzuna, gaxtotarzuna, ontarzuna (4):* aniztasuna, gaiztotasuna, ontasuna. */ xagutarzun, xuxentarzun (5):* garbitasun, zuzentasun. */ zabaltarzun, zaletarzun (5):* zabaltasun, zaletasun.

-tarzun 2 *(3)* : -mendu */ merexitarzun (3):* merezimendu.

taska *(11)* : zohi (belarduna)

-tasun *(5)* : -tasun */ nausitasun, pollitasun (5):* nagusitasun, liraintasun. */ soraiotasun, sotiltasun (5):* soraiotasun, otzantasun.

tata *(5)* : tata, kafa (aztarrikaren onomatopeia) */ oillo-tata (5):* oilo-kafa (oiloaren aztarrika hotsa).

-taz *(2, 3, 4, 5, 6, 10)* : -az; -taz */ [aingriak zeurian daude] jeinataz gozatan (2):* aingeruak zeruan daude jaunaz gozatzen. */ ekun zazu nitaz piedade (2):* eduki ezazu nitaz erruki. */ profeta falsuetaz [fabrikatan du] (3):* profeta faltsuez hitz egiten du. */ bera kargatu da gore eriguetaz (3):* bera kargatu da gure gaixotasunez. */ ekun zazu konpasione gutaz (3):* eduki ezazu erruki gutaz. */ testimonio emon zazein nitaz er eta nazioner (3):* testigantza eman dezazuen nitaz haiei eta nazioei. */ ez dokeda ote nik egin ñoriataz nai duana? (3):* ez ote dezaket nik egin neureaz nahi dudana? */ legiari esplikazione falsu emoiten deinetaz (3):* legeari azalpen faltsua ematen diotenez. */ Jesustaz [apoderaten zren eta ilarazen zein] (3):* Jesusez jabetuko ziren eta hilaraziko zuten. */ zomait gaiza ontaz [guartan grelarik] (3):* zenbait gauza onez oroitzen garenean. */ ni ere akaitruk nago ñore lanetaz (4):* ni ere nekaturik nago neure lanetaz. */ kura xanztan duran aldi oroz egoartan naz Antoniotaz (5):* hura janzten dudan aldiro oroitzen naiz Antonioz. */ nitaz (6):* nitaz. */ ekusi dur ogartan drela nitaz (10):* nitaz oroitzen direla ikusi dut.

te *(10)* : *(bot.)* te */ tea (10):* tea.

-te *(2, 5)* : -te (eguraldi atzizkia) */ karruate (2):* izozte. */ elurte (4, 5):* elurte.

-tegi *(1, 5, 11)* : -tegi */ beurtegia (1):* behortegia. */ erlategia (1lm):* erlategia. */ lastategia (1):* lastategia. */ urdantegieta (1):* txerritegi eta. */ aroztegi, auztegi, ikaztegi (5):* aroztegi, ahoztegi, ikaztegi. */ bizitegi (5):* bizitegi (bizilekua). */ urxotegi, ontzitegi (5):* usategi, ontzitegi (arasa). */ bastegi, patategi, txerritegi (11):* bastegi, patatategi, txerritegi.

tegi 1 *(11)* : tegi, gordeleku OH. Aznarezek ´jakiak eta bestelako gauzak gordetzeko lekua´ esanahiarekin dokumentatua.

tegi 2 *(5, 11)* : *(nek.)* txerritegi

teilla 1 *(5)* : *(erai.)* teila

teilla 2 *(5)* : *(naut.)* mastaziri

teilla maizter *(5)* : *(erai.)* bizkar-teila
teillagin *(5)* : teilagin
teillagintza *(5)* : teilagintza
teixu *(5)* : lizun, lizunkoi, likits
teke-teke *(5)* : taka-taka (poliki joanez)
tekemeke *(5)* : zirika
-teko zorian *(5)* : -tzeko zorian */ ler ta zapart egiteko zorian (5):* leher eta zapart egiteko zorian.
telada *(5)* : geruzatxo */ elur-telada (5):* elur geruzatxoa. */ ongarri-telada (5):* ongarri geruzatxoa.
telebision *(10)* : telebista */ arek zebatu dien telebisiona (10):* hark telebista piztu du. OH. Gipuzkeraz ´telebisioa´ dokumentatua.
tella *(11)* : *(erai.)* teila */ tellagorri (11):* teilagorri (etxea).
-ten *(2, 3, 4, 7, 9, 10)* : -tuko, -turen */ [ñore bekatiak] parkaten daiztazudala (2):* neure bekatuak barkatuko dizkidazula. */ [aînguriek] arten daizei bere[n] eskiuetako palmetan (3):* aingeruak hartuko zaituzte beren esku ahurretan. */ etzu tentaten zore jeina (3):* ez duzu tentatuko zure jauna. */ [jeinari] solo zerbutxaten tzu (3):* jaunari soilik zerbitzatuko diozu. */ zeren ek gozaten baitei lurra (3):* zeren haiek gozatuko baitute lurra. */ ni fanen nuzu eta sontoten dauz (3):* ni joanen naiz eta sendatuko dut. */ iguzkia ulunten da, goikuak ez du argiten (3):* eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argituko. */ [uskaraz eskribitan dionetarik] zernaiden gaiza arten dud (4):* euskaraz idazten duenetik edozer gauza hartuko dut. */ deiten tigu orrek erraiten daizkigun gente adineko guziuak (4):* berorrek esaten dizkigun adineko pertsona guztiak deituko ditugu. */ arten dur, elten naz (7):* hartuko dut, helduko naiz. */ sontoten da (7):* sendatuko da. */ zer orduz bazkalten diegu? (7):* zer ordutan bazkalduko dugu? */ [biar eguerdiz] elten dun (9):* bihar eguerdian helduko dun. */ nik ez [dur] ezegunten, xar binaz (10):* nik ez dut ezagutuko, zaharra bainaiz. OH. Zaraitzun ´-tren´ eta ´-tien´ dokumentatuak.
tenore *(3)* : modu, era */ gunian emonen du pakiua bapanari bere obren tenoriara (3):* orduan ordaina emango dio bakoitzari, bere eginen moduan.
tenpestade *(3)* : *(met.)* ekaitz */ goxetik tenpestade izanen da egun (3):* goizetik ekaitza izango da gaur. */ [itxasuan] azkatu zen tenpestade bat kain andi, estaltan baizein oladek barka (3):* itsasoan altxatu zen ekaitz bat hain handia, olatuek txalupa estaltzen zuten.
tenplo *(3)* : *(erai.)* tenplu */ tenplotik [egotxtan tu] kan saltan zaudenak (3):* tenplutik botatzen ditu han saltzen ari zirenak. */ Jesus tenpluan [sartu zelarik] (3):* Jesus tenpluan sartu zenean. */ tenpluara [eltuz gero, arengana abañatu zren] (3):* tenplura heldu ezkero, harengana hurbildu ziren.
tenpora *(2)* : denbora */ dekumak bere tenporetan [osorik] egin ditzagula (2):* dekumak beren denboretan osorik egin ditzagula.
tenpra 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : denbora */ zer tenpraz bear dugu señalea usatu? tenpra guzian (2):* zer denboraz erabili behar dugu seinalea? denbora guztian. */ tenpra berian errata´ tielarik itzak (2):* denbora berean hitzak esaten dituela. */ tenpra berian eltu zren arengana tenpluan anitx utsi (3):* denbora berean heldu ziren harengana itsu asko. */ tenpra anitxez eiztia (3):* denbora anitzez uztea. */ tenpra luzez [eiztan] (3):* denbora luzez uzten. */ al dokedan tenpra guziuaz (4):* ahal dudan denbora guztiaz. */ bere tenpran xin zen orren karta (4):* bere denboran etorri zen berorren gutuna. */ tenprarik gal elezan (4):* denborarik gal ez lezan. */ gero, tenprareki gaintu emon zren gaztiak zarretaz (4):* gero, denborarekin gailendu omen zitzaizkien gazteak zaharrei. */ tenprak emoitan diona tenprak gentan du (5):* denborak ematen duena denborak kentzen du.

/ gaiza guziuak beren tenpran (5): gauza guztiak beren denboran. */ eztiezt tenprarik orai xoaitako (7):* ez dut denborarik orain joateko. */ badien anitx tenpra alargun nagola (9):* badin denbora anitz alargun nagoela. */ ez diezt tenprarik egoitako zureki (9):* ez dut denborarik zurekin egoteko. */ tenpra anitx diela eztela egin keben kori (10):* duela denbora asko ez da egin hemen hori. */ orai badu tenpra tabernara xoaitako xokatra (10):* orain badu denbora tabernara jokatzera joateko.

tenpra 2 *(2, 3, 4, 8, 10)* : garai */ leku eta tenpra guzietan (2):* leku eta garai guztietan. */ judiuak Babiloniara eraman izan zren tenprari abantxu (3):* juduak Babiloniara eraman(ak) izan ziren garaitik hurbil (ia garaian). */ tenpra kartan (3):* garai hartan. */ tenpra kuetako señale argiak (3):* garai hauetako seinale argiak. */ eltu gra tenprara, lanek pean arrapatu baigitei (4):* lanek pean harrapatu gaituzten garaira heldu gara. */ ene tenpran guziak uskaldun (8):* ene garaian guztiak euskaldunak (ziren). */ et´ ez kolako elizako gaizarik batre´ re, ene tenpran ez (10):* eta horrelako elizako gauzarik batere ez, ene garaian ez.

tenpra 3 *(4)* : denboraldi; aldi */ oraiko morroîtarik berze tenpra batez ezta faltaren gizon asto (4):* oraingo mutikoen artetik bertze denboraldi batez ez da faltako gizon astorik. */ xinen da berze tenpra bat, izanen bainaiz luziago (4):* beste aldi bat etorriko da, luzeago izango naizena (luzeago idatziko dudana).

tenpra 4 *(3, 4, 5, 7, 10)* : eguraldi */ tenpra on eginen du, zeren zeuria baitago argi (3):* eguraldi ona eginen du, zeren zerua argi baitago. */ tenpra digu anixko gaixto (4):* eguraldi anixko txarra dugu. */ tenpra digu euriari (4):* eguraldi euritsua dugu. */ orai gaude eltzuka, tenprak laguntan badaikugu, fite akabaten digu (4):* orain eultzian ari gara, eguraldiak laguntzen badigu, azkar bukatuko dugu. */ mendi[e]k egiten deinean sonu, tenprak euri (5):* mendiek soinu egiten dutenean, eguraldiak euri. */ zer tenpra dago? tenpra ona dago (7):* zer eguraldi dago? eguraldi ona dago. */ tenpra eder diegu (7):* eguraldi ona dugu. */ tenpra onik egitan badu [xoanen gra] (7):* eguraldi ona egiten badu, joango gara. */ tenpra anitx idor [dago] (7):* eguraldia oso lehor dago. */ tenpra degu anitxi gatxiara (10):* eguraldia dugu anixko haserretzera. */ tenpra orai gaxto dago (10):* eguraldi txarra dago orain.

tenpra batan *(10)* : aldi berean, denbora berean */ anditu gitun tenpra batan (10):* aldi berean handitu gaitun.

tenprareki *(4)* : garaiz */ [ardidunak] lotsareki daude, jangeikoak ez badu erremediatan tenprareki (4):* ardidunak beldurrez daude, jaungoikoak ez badu garaiz erremediatzen (ardien egoera txarra).

tentarazi *(3)* : tentarazi */ [fariseuak arengana eltu zren], tentaraztako (3):* fariseuak harengana etorri ziren, tentarazteko.

tentatu *(2, 3, 4, 5)* : tentatu */ tentatan baigutiei (2):* tentatzen baigaituzte. */ zerengatik tentatan naizei? (3):* zergatik tentatzen nauzue? */ etzu tentaten zore jeina (3):* ez duzu tentatuko zure jauna. */ [Kristo diabuak] tentatruk [izan ledin] (3):* Kristo deabruak tentaua izan ledin. */ legiaren erakutszale [batek] galtegin zaun tentatiagatik (3):* lege irakasle batek galdetu zion tentatzeagatik. */ tentatu naun, tentatu naizen, tentatu nayan (4):* tentatu nuen, tentatu zintudan, tentatu hindudan. */ bere krutxea borontean, debriak tenta etzan (5):* bere gurutzea kopetan, deabruak tenta ez zezan.

tentazale *(3)* : tentatzaile */ gunian, tentazalia [abañatan zelarik], erran zaun (3):* orduan, tentatzailea hurbiltzen zela, erran zion.

tentazione *(2, 3, 4)* : tentazio */ tentazione gasto guzien goitako indar emon dazagun (2):* tentazio

txar guztiak garaitzeko indar eman diezagun. */ ez gitxazula eitz tentazionetan erortra (2):* ez gaitzazula utz tentaziotan erortzen. */ Kristoren barura eta tentazionia (3):* Kristoren baraua eta tentazioa. */ ez gitzazu eitz tentazionian erortra (3):* ez gaitzazu utz tentazioan erortzen. */ ez gitza eitz erortra tentazionian (4):* ez gaitza utz tentazioan erortzen.

tente *(5)* : eustoin, euskarri

tentu *(5)* : tentu, zuhurtzia */ erremedioara orduz, peligroara tentuz (5):* erremediora garaiz, arriskura tentuz. */ tentuz ebil adi (5):* tentuz ibil hadi.

termometro *(7)* : termometro */ termometroa sei grado igan da (7):* termometroa sei gradu igo da.

terna *(5)* : txirikorda

terne *(5)* : berankor (azkena iristen)

terraje *(5)* : eguzki-izpi(ak) OH. Eguzkiaren izpiak, goizean eguzkia bera irten aurrekoak edo iluntzean sartu ondokoak.

terrexka *(5)* : mendi-malda OH. Egurra menditik eraisteko malda edo aldapa.

terteka 1 *(5)* : arrastaka, herrestan

terteka 2 *(5)* : txinalka, sakadiz (oinetakoak janzteko era)

tertekatu *(5)* : arrastaka eraman, herrestan eraman

terterka *(5)* : txinalka, sakadiz (oinetakoak janzteko era)

testamentu *(3)* : *(erl.)* itun, testamentu */ kaur da ene odola, testamentu berriaren sellua (3):* hau da ene odola, itun berriaren zigilua.

testatu *(3, 4, 5, 8, 9)* : dastatu */ [ardaûa] testatu ziolarik, ez nai ekuntu zion edan (3):* ardoa dastatu zuenean, ez zuen edan nahi izan. */ auaz testatia (3):* ahoaz dastatzea. */ guziuek besugo testatu digula [erraiteko] (4):* guztiok bisigua dastatu dugula esateko. */ ezneak erran zaun ardaûari ´nik bear bayaid testatu, ez duk izan bear ez min eta ez t[u]statu´ (5):* esneak esan zion ardoari ´nik dastatu behar bahaut, ez duk izan behar ez min eta ez ustel´. */ xitan yazenian, [ardaua] biar diar testatu nik (8):* etortzen haizenean, ardoa dastatu behar diat nik. */ zomat anaxek testatu zein? (9):* zenbat anaiek dastatu zuten?

teste 1 *(5)* : dastatu */ eltxano teste bear ez yuana eitzak eraki tzala (5):* dastatu behar ez duan eltzetxoa utz ezak irakin dezala.

teste 2 *(5)* : dastatze

ti *(5)* : *(haur.)* txerri

-ti *(5)* : -ti */ uzkerti (5):* uzkerti, puzkerti.

-tia´e! *(10)* : -tzea ere! */ erraitia´e ´xarrak oro il balite´! (10):* ´zahar guztiak hilko balira´ esatea ere!

-tiagatik *(4, 7, 9)* : -tzeagatik */ zor korren pakatiagatik saltu dra kainbat arbole (4):* zor hori ordaintzeagatik hainbat zuhaitz saldu dira. */ egun karta konen eskribitiagatik egin dut estazione bat txikiago elizan (4):* gaur gutun hau idazteagatik egonaldi bat gutxiago egin dut elizan. */ ez egitiagatik xoan dun (7):* (lana) ez egiteagatik joan dun. */ konen erraitiagatik (9):* hau esateagatik.

-tik *(2, 3, 4, 9)* : -tik */ Llarrenxarretik Palpatera (9):* Llarrenxarretik Palpatera. */ Berrobakotxetik Astegiara (9):* Berrobakotxetik Astegiara. */ Ezpandoitik Iribarnera (9):* Ezpandoitik Iribarnera.

-tikas *(7)* : -tik */ xin denetikas ez dur ekusi (7):* etorri denetik ez dut ikusi. OH. ´-tik´ dokumentatuagoa da ´-tikas´ baino.

tilin-talan *(11)* : din-dan (kanpai hotsa) OH. Gipuzkeraz ere dokumentatua.

tilindon *(8)* : dilindan, zintzilik */ aizterkuak tilindon (8):* guraizeak dilindan.
tilinga *(5)* : *(jos.)* zabu
tilingatu *(5)* : fruituz bete (arbola) OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
tilintalanka *(5)* : *(jos.)* zabu
tilinton *(5, 10)* : dilindan, zintzilik */ karek txintxa tilinton daka (5):* hark mukia zintzilik dauka. OH. Zaraitzun ere dokumentatua. Azkuek dio ´tilinton´ adarrak makurtzea ere badela, fruituen pisuagatik.
tiltil ebili *(5)* : hara eta hona ibili, batera eta bestera ibili
tinka 1 *(5)* : pitin, pixka (likidoak) */ nai duka ardau-tinka bat? (5):* nahi al duk ardo pitin bat?
tinka 2 *(5)* : urtsu samar
tinka-tinka edan *(5)* : zanga-zanga edan (zaratatsu)
tinkun-tankun *(5)* : tinkon-tankon (baldar ibiliz)
tinta *(7)* : tinta */ ene plumak du tinta dundurik (7):* nire idazlumak tinta urdina du. OH. Estornesek ´tintea´ ere dokumentatua.
tintilla *(5, 9, 10)* : belarritako */ tintilla bat, bi tintilla (9):* belarritako bat, bi belarritako. */ biarrietan tintillak (10):* belarrietan belarritakoak.
tintterko *(5)* : zintzarri OH. ´Tintterko = txintxarri´ behar lukeela badirudi ere, Azkuek ´zintzarri´ esanahiarekin dokumentatua.
tiojein *(8)* : osaba */ tiojeina, mertxedez gen [be]za kori (8):* osaba, mesedez ken beza hori.
tipi-tapa *(11)* : tipi-tapa
tipirrin-tipirrin *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)
tiplats *(5)* : tipula-hats
tipor *(5)* : pipor, potxolo, mozkote
tipula 1 *(1, 2, 5)* : *(bot.)* tipula */ tipulaerria (1):* tipula lekua. */ zer uste duk? zeuria tipulaz den? (5):* zer uste duk? zerua tipulaz dela?
tipula 2 *(5)* : baba, pusla (oinekoa)
tipula 3 *(5)* : zurki (biguna) OH. Enbor baten zati biguna, zuhaitza gaztea denean.
tirria *(5, 6)* : irrika, desira
tirriagarri *(5)* : irrikagarri, desiragarri
tirriatu *(5)* : irrikatu, desiratu
tirriko-tarrako *(5)* : tirriki-tarraka (nekez ibiliz, poliki ibiliz)
tirrit *(5)* : ezezko, gaitzespen
titi 1 *(2, 3, 5, 8, 9, 10)* : *(anat.)* titi */ ema[n] titi (8):* emaion titia. */ aurrari titiaren gentan (8):* haurrari titia kentzen. */ [aurrari] titiaren emoitra (8):* haurrari titia ematera. */ titia (9):* titia. */ [aurrak] nexar egitan balin bazien, titia erkin eta kor egon adi oian (10):* haurrak negar egiten baldin bazuen, titia atera eta hor egon hadi ohean. */ titiak (10):* titiak.
titi 2 *(4)* : *(anat.)* titimutur, titiburu
titi 3 *(5)* : *(haur.)* txerri */ titi, itxikirin! (5):* txerri, tori irina!
titi min *(8)* : titiko min, bularreko min
titi-mutu *(5)* : *(med.)* titi itxi (jario ezin duena)
titi-sagar *(5)* : *(anat.)* titi-guruin, ugatz-guruin
titiko aur *(3)* : titiko haur */ titiko aurren autik (3):* titiko haurren ahotik.
titimuxko *(2, 9, 10)* : *(anat.)* titiburu, titimutur */ titimuxkoa (10):* titiburua.
titipunta *(5)* : *(anat.)* titimutur, titiburu

-to *(1)* : -txo */ krutxetoa (1):* gurutzetxoa.
to! 1 *(6)* : to!, aizak!
to! 2 *(4, 5, 9)* : to!, tori! har ezak! */ obro balio du´to´ batek ezik bi´eik´ (5):* gehiago balio du ´to´ batek, bi ´emadak´ baino. */ to ogi puska kau askaltako (9):* tori ogi puska hau askaltzeko.
tobera *(5)* : sutegi-hauspo (burdinoletakoa)
toka *(5)* : toka (hika gizonezkoekin)
tokare *(5)* : kabestru
tokatu 1 *(3, 4, 7)* : ukitu */ emazte [batek] tokatu zion aren beztiduraren atzekua (3):* emakume batek haren jantziaren atzekoa ukitu zuen. */ Jesus eltu zen engana [eta] tokatu ztion (3):* Jesus haiengana heldu zen eta ukitu egin zituen. */ [eskiua] tokatan zaularik, [kalentura] gentu zitzaun (3):* eskua ukitzen ziola, sukarra kendu zitzaion. */ eskiez tokatia (3):* eskuez ukitzea. */ tokatu du (4):* ukitu du. */ bazter guziuak tokatu tuala [urdu zaitad] (4):* bazter guztiak ukitu ditudala iruditzen zait. */ mîa tokatan du (4):* mihia ukitzen du. */ boronte (sic) tokaten dau (4):* kopeta ukituko dio. */ toka tzan (4):* uki dezan. */ tokatia [on da] (4):* ukitzea ona da. */ toketan, toketako (4):* ukitzen, ukitzeko. */ eskiak tokatako [dra] (7):* eskuak ukitzeko dira.
tokatu 2 *(3)* : tokatu, suertatu */ ene eskoînara edo ezkerriara [xasertia] ezaita tokatan konzeditia xer (3):* ene eskuinean edo ezkerrean esertzea ez zait tokatzen zuei ematea.
toko *(5, 10)* : txirikila, txirikila-makila (haur jolasekoa) */ tokoa baratan zenian, [xotan] gunia kolaxet (10):* txirikila gelditzen zenean, honelaxe jotzen genuen.
tolare *(1)* : *(nek.)* dolare */ tolarea (1lm):* dolarea.
tonatu *(5)* : gezur beltza esan
topolo *(5, 11)* : potolo, lodikote
toporriko *(5)* : potolo, lodikote
tordintx *(2)* : *(heg.)* tordantxa
tormentu *(2)* : tormentu */ krutxeko tormentu kuen medioz (2):* gurutzeko tormentu hauen bidez.
tormu *(5)* : zokor, sokil OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
torne *(5)* : *(tek.)* tornu */ torneaz urut[an] dena bilbea [da] (5):* tornuaz iruten dena bilbea da.
torratu *(5)* : txigortu
torre *(1, 3, 5)* : *(erai.)* dorre */ torreberrieta (1):* dorre berri eta. */ torreburua, torreburieta (1):* dorre burua, dorre buru eta. */ torre bat [egin zion] (3):* dorre bat egin zuen.
torrintxa *(5)* : *(heg.)* tordantxa
tortailatu *(5)* : pitzatu (kanpaia)
tortilla *(5)* : *(suk.)* tortilla, arrautzopil */ arraultze batez zartagi andian ez daiteke tortilla andia egin (5):* arrautza batez zartagin handian ez daiteke tortilla handia egin.
tortxa *(5)* : zuzi */ ni gaur iltan banaz, zazpi tortxeki argi ditazu (5):* ni gaur (gauean) hiltzen banaiz, zazpi zuzirekin argi iezadazu (bidea).
toseta *(5)* : *(bot.)* galmotz (gari mota)
tosta *(5, 9, 10)* : josteta; jolas */ tosta (sic) egon nun (9):* jostetan ibili naun. */ ots arrixkuara, tostara (10):* goazen tortolosetara, jolasera. */ orai xoaitan gitun tostara, tzurrunpara (10):* orain jolas egitera goaz, tortolosetan.
tosta-porroketan *(5)* : jolasean nekaturik
tostakatu *(5)* : jostatu, dibertitu
tostan *(5)* : jostetan
tostatu *(5, 10)* : jostatu; jolastu */ antxamama ezpel-azi ttopolozkoa da ta aurrak berareki tostatan*

dra (5): ´antxamama´ ezpel-hazi potolotxoa da eta haurrak berarekin jostatzen dira. */ ots arrizkuara tostatzea (10):* goazen tortolosetan jolastera. OH. Zaraitzun ´dostatu´ dokumentatua.

total *(5)* : zabar, arduragabe (guztiz)

totale *(5)* : txintxirrin (umeena)

totolo *(5, 11)* : potolo, lodikote

totorro *(11)* : mutikotxo

totxada *(5)* : kolpe OH. Idiari garondoan ematen zaion kolpea, bertan hiltzeko.

-tra *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : -tzera */ juzgetra (2):* epaitzera. */ abisatruk, bizi izaitra [xin zen] (3):* abisaturik, bizi izatera etorri zen. */ balle kontra ez daiteke xin emaztekirik serbutxatra (4):* ibar honetara ez daiteke emakumerik etorri zerbitzatzera. */ bazkaltra! (4):* bazkaltzera! */ juan gitian untxiaren iltra (4):* joan gaitezen untxia hiltzera. */ gizona eltan da ekutra bi emazte (5):* gizona bi emazte edukitzera heltzen da. */ zore mertzedearen ekustra (5):* berori ikustera. */ ox aigaltra (7):* goazen afaltzera. */ kobesatra [xoan naz] (7):* aitortzera joan naiz. */ xin bedi beztitra, eta gunian xagiren naz (8):* etor bedi (ni) janztera, eta orduan jaikiko naiz. */ aitajeina, xin bedi laguntra (9):* aita, etor bedi laguntzera. */ igan ztei ziek baskaltra (9):* igo zaitezte zuek bazkaltzera. */ arrestrian [neskato] guziak dantzatra mitileki (9):* arratsaldean neska guztiak mutilekin dantzatzera. */ orden zamaria eragutra! (10):* hoa zamaria ekartzera! */ zamari bat ekustra [xoan] (10):* zaldi bat ikustera joan. OH. Zaraitzun ´-tzra´ dokumentatua.

trabajari *(8)* : langile */ trabajari gaixto bat (8):* langile txar bat.

trabajatu *(2, 3, 7, 10)* : lan egin */ azken kuek ez dei trabajatu ez beizik oren bat (3):* azken hauek ordu bat baizik ez dute egin lanean. */ trabajatan dionak merexi du mantena dazabein (3):* lan egiten duenak merezi du manten dezaten. */ etzei leitu nola [apezek] trabajatan dein elizan neskanegunian? (3):* ez duzue irakurri nola apaizek lan egiten duten elizan larunbatean? */ xei egunian eztadin trabaja nestaterik bage (3):* jai egunean ez dezan lan egin beharrik gabe. */ kemen emaztekia orobat trabajatan da nola gizakia, mendi lanetan (4):* hemen emakumeak orobat gizasemeak bezala lan egiten du, mendi lanetan. */ gainara, guziuek trabajatan dei dokeina (4):* gainera, guztiek lan egiten dute ahal dutena. */ zortzietarik as borz[ak artio trabajatan dein] (7):* zortzietan hasita bostak arte lan egiten diten. */ gazte gindenian xoaitan gindezun trabajatra negun (10):* gazteak ginenean joaten ginen neguan lan egitera.

trabajazale *(3)* : langile */ deitzazu trabajazaliak eta paka dazauzei jornala (3):* dei itzazu langileak eta ordain iezaiezu soldata.

trabaju *(3)* : lan */ ofrezitan daizur ene bizia eta trabajiuak (3):* nire bizia eta lanak eskaintzen dizkizut.

trabes *(5)* : trabeska */ San Andres, txerria askan trabes (5):* San Andres, txerria askan trabeska.

trabilla *(5)* : maratila; kisketa

trafiko *(4)* : trafiko */ kemen dago trafiko andia lerretan (4):* hemen trafiko handia dago lerretan (pinuetan).

traillu 1 *(5)* : *(nek.)* idaur OH. Larrainean garia joz alea ateratzeko makila.

traillu 2 *(5)* : *(erai.)* enbor (zerratzekoa) OH. Zoru-oholak egiteko erabiltzen den enborra.

traizione *(3)* : traizio */ xetarik batek eginen daitad traizione (3):* zuetariko batek traizio eginen dit. */ Judasen traizioniaz [mintzatan da] (3):* Judasen traizioaz mintzatzen da.

tramada 1 *(5)* : tramada (neurria) OH. 7 oin luze x 7 oin zabal.

tramada 2 *(5)* : *(nek.)* baratze-sail (karratua)

trankontzi *(5)* : bide malkartsu
tranku *(5)* : eskailera-maila (hormak igotzekoa)
trapa 1 *(5)* : arnasestu, arnasbehar, trapa
trapa 2 *(5)* : pilpira, bihotz-taupada
trapata 1 *(5)* : trapata OH. Errotako ur-emarian sobratzen den ura.
trapata 2 *(5)* : pilpira, bihotz-taupada
traska *(5)* : nagi OH. Azkuek ´nagia eta txiroa´ esanahiarekin dokumentatua.
traste *(3)* : jantzi, arropa */ [gentek] edatan ztein bidian beren beztiduak edo trastiak (3):* jendeak bidean hedatzen zituen beren arropak. OH. Hego nafarreraz ere dokumentatua.
tratalari *(5)* : tratulari
tratamentu 1 *(3, 4)* : tratamendu, trataera */ tramentiua (3):* tratamendua.
tratamentu 2 *(4)* : *(hizk.)* trataera (errespetu edo gizalegezkoa) */ badaki gore uskarak irur tratamentu diola, duketza, zuketza eta yiketza (4):* badaki gure euskarak hiru trataera dituela, beroriketa, zuketa eta hiketa.
tratatu *(3)* : tratatu */ [gisa berian] tratatu ztein (3):* gisa berean tratatu zituzten. */ [aski dakiola zerbutxariari] tratatruk izaitia bere nausiaren bikala (3):* aski dakiola zerbitzariari tratatua izatea bere nagusia bezala. */ fariseuak erretiratu zren tratatra beren artian (3):* fariseuak euren artean tratatzera joan ziren. */ as baledi gaxki tratatra bere laguner (3):* bere lagunak gaizki tratatzen has baledi.
tratu ekun *(7)* : harremana izan */ ez zan traturik ekun kareki (7):* ez ezan harremanik izan harekin.
trebe *(5)* : etxeko, familiako (pertsona oso ezaguna)
trebe izan *(3)* : ausartu */ erraiten daud ez nazala trebe llober uskararen ikasaraztra (4):* erraten diot ez naizela ausartzen bilobei euskara ikasarazten. */ [ni] trebe naz fatra deitan [dion] lekiuara (4):* ni ausartzen naiz deitzen duen lekura joaten. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
trebetasun *(5)* : etxekotasun, trebantzia (konfiantza)
trein *(7)* : tren */ trein kau xoatan dia xuxen Uruñara? (7):* tren hau zuzen Iruñera al doa? */ Uruñako treina [bear dur artu] (7):* Iruñeko trena hartu behar dut. */ goazen treinaren artra (7):* goazen trena hartzera. */ treinetik xaixtan, treiniara igaitan (7):* trenetik jaisten, trenera igotzen.
trenpa 1 *(2)* : denbora
trenpa 2 *(4)* : garai */ biar dud pensamentiua eraman antzinadeneko trenpetra (4):* antzinako garaietara eraman behar baitut pentsamendua.
trenpa 3 *(5)* : eguraldi */ oxkotu da trenpa (5):* freskatu da eguraldia.
trentxairu *(5)* : mataza-hari
tresna 1 *(5)* : jantzi, arropa OH. Hego nafarreraz ere dokumentatua.
tresna 2 *(5)* : ezkon-opari */ tresna[k] (5):* ezkon-opariak.
trimulu *(5)* : *(met.)* sargori, sapa
trinitate *(2)* : *(erl.)* hirutasun, trinitate */ zoin azionetan dago Trinitate saintuko misterioa? (2):* zein ekintzatan dago Hirutasun santuko misterioa?
trintate *(2)* : *(erl.)* hirutasun, trinitate */ gisa kortan laur persona dugu Trintate saintian (2):* modu horretan lau pertsona ditugu Hirutasun santuan.
tripa *(2, 3, 4, 5, 10, 11)* : *(anat.)* tripa */ auan sartan den guziua kantik [igartan da] tripa barniara (3):* ahoan sartzen den guztia handik igarotzen da tripa barnera. */ etsera fan zen tripa onki beterik (4):* etxera joan zen tripa ongi beterik. */ tripa mina (4):* tripako mina. */ [eskerrak!,*

nabaja] ezaun sartu tripatik (4): eskerrak!, labana ez zion sartu tripatik. */ non tu tripako gizenkiak? (4):* non ditu tripako gizenkiak? */ gose dionean tripak erraiten dau txintxurriari (5):* gose duenean tripak erraten dio zintzurrari. */ azpiek tripak ebilarazten tei obeki ezik kaltzero berriak (5):* urdaiazpikoek tripak hobeto ibilarazten dituzte oinetako berriek baino. */ tripak (10):* tripak. */ tripapeko (11):* tripapeko (txerri atala).

tripa min *(4, 7, 8, 10)* : tripako min */ geroztik xuan erranez nabaja-erkilia ezokela lixiri tripa mina (4):* geroztik, labana-ateratzailea esanez zihoan ez zezakeela digeritu tripako mina. */ tripa min [dur] (7):* tripako mina dut. OH. Erronkari-Zaraitzuetan oso ohikoa da egitura hauek -ko atzizkia gabe eratzea.

tripabage *(5)* : ahozabal, lotsagabe */ kura tripabage bat da; ez dozke gaizak ixilean eroki (5):* hura ahozabal bat da; ez ditzake gauzak isilean eduki.

tripandi *(11)* : tripaundi

tripapeko *(11)* : *(suk.)* tripapeko (txerri atala)

tripot *(5)* : *(suk.)* odolki, tripot

triska *(5)* : dantza

triska-traskatu *(5)* : borrokatu (bizi, sutsu)

triskiati *(10)* : gazur */ triskiatia (10):* gazura. OH. Adibidea ikusirik, hitz mugagabe ´triskiate´ ere izan liteke.

triste *(4, 8, 10)* : goibel, triste */ aurten iñaute eguna gorexima egun baten bikain triste [izan da] (4):* aurten inauteri eguna garizuma egun bat bezain tristea izan da. */ triste nazela kortako (8):* triste naizela horretarako (kontuak esateko). */ bizia triste ta gizonak anitx kontent (10):* bizia triste eta gizonak oso pozik.

tristure *(3)* : tristura, goibeltasun */ zer da inbidia? berzenen onaren tristuria bat (3):* zer da inbidia? besteen onaren tristura bat. */ tristuriaz bete zen erregia (3):* tristuraz bete zen erregea. */ tristuriaz beterik [erretiratu zen] (3):* tristuraz beterik joan zen.

trizkatu *(5)* : estutu, hertsatu

tro-tro-tro *(10)* : tro-tro-tro (trostaren onomatopeia)

troil *(5)* : ogi-koskor, ogi zati OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

trosu *(5)* : pixoihal, troxa

troxa 1 *(5, 11)* : pixoihal, troxa OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

troxa 2 *(5)* : gerriko, faxa (umeena)

troxatu *(5)* : pixoihala jarri, troxatu

trozatu 1 *(5)* : pixoihala jarri, troxatu

trozatu 2 *(5)* : arropa(k) jantzi (berotzeko)

-truk 1 *(2, 4, 5, 7, 8)* : -tuta, -turik */ krutxian kruzifikatruk (2):* gurutzean gurutziltzaturik. */ bi besoak zabaltruk (2):* bi besoak zabaldurik. */ Maria Joserekin bordaltruk [zegoen] (3):* Maria Joserekin ezkondurik zegoen. */ lauretarik bata dago utsitruk (4):* lauetatik bata itsuturik dago. */ [zarrek] gazten ogia xatan baitei gaizki merexitruk (5):* zaharrek gazteen ogia jaten baitute gaizki merezirik. */ gaizak estimatruk izan tian, bear dei akabatu obenenean (5):* gauzak estimaturik izan daitezen, onenean bukatu behar dute. */ karta dun eskribitruk erdaraz (7):* gutuna erdaraz idatzita zagon. */ fizela zinturan izar, keben loketruk (8):* fizela (?) gerrian jarri, hemen loturik. */ badiezu berrogeita bedratzu urte bordaltruk nagola (8):* badu berrogeita bederatzi urte ezkonduta nagoela. OH. Zaraitzun ´-trik´ dokumentatua.

-truk 2 *(2, 3)* : -tua; -tuak */ berriz biar dugu juzgatruk izan (2):* berriz izan behar dugu epaituak.

/ zer esketan gra? izan dadila mundu guzutik izaguntruk (2): zer eskatzen dugu? mundu osoan ezaguna izan dadila. */ Kristo gizon dena bikainbatez izan zela konzebitruk (2):* Kristo gizon den bezainbatean sortua izan zela. */ izanen da deitruk ´Nazareno´ (3):* ´Nazaretarra´ deitua izanen da. */ neurri zenezein neurri berarekin izanen zarete zuek neurtuak. */ jina, salba gitzazu, galtruk baigra (3):* jauna, salba gaitzazu, galduak baikara. */ izena izan deila izaguntruk (3):* izena izan dadila ezagutua.

truka *(5, 11)* : *(nek.)* zintzarri

trukamurkola *(5)* : truke

trukez truk *(5)* : truke egin, trukatu

truku *(5)* : ezkontza (bi familiako senide artekoa) OH. Etxe bateko anaiak beste bateko ahizpekin ezkontzea.

trunka *(5)* : *(nek.)* zintzarri (handia)

trunku 1 *(5)* : *(bot.)* enbor */ azitik ozioa, trunkutik apurkina, gatiaren umea atzaparkina (5):*hazitik ernamuina, enborretik ezpala, katuaren umea atzaparkaria.

trunku 2 *(2)* : *(anat.)* soin

truxa-murkola *(5)* : truke

tsaitsi *(10)* : jaitsi */ ene ama tsaistan zia etsera, ogiaren egitra (10):* ene ama (menditik) etxera jaisten zen ogia egitera.

tsantzi *(10)* : jetzi */ aitatamek mendian aintzak tsantz (10):* aita-amek mendian ahuntzak jez(ten zituzten).

tsats *(5)* : zikinkeria */ egor zan bede kori, beitago anitz xatx (5):* errazta ezan atari hori, zikinkeria asko baitago. OH. Ikus ´sats´ sarrerako oharra.

tsatsi *(10)* : jaitsi */ gizon kori tsatsi dun mallo-malloa (10):* gizon hori poliki-poliki jaitsi dun. */ tsaistan dun (10):* jaisten dun.

tserteka *(10)* : arrastaka */ al zien gisa, tserteka xoan [zen] (10):* ahal zuen moduan, arrastaka joan zen.

-tsu *(5)* : -tsu */ bardintsu (5):* berdintsu.

tsutik *(10)* : zutik */ tsutik dion (10):* zutik zagon. */ tsutik dagoa? (10):* zutik al dago?

ttaka-ttaka *(5)* : ttaka-ttaka (urrats txikiak eginez)

ttal-ttal *(5)* : pixkanaka */ nazierde ttal-ttal (5):* zatoz pixkanaka. OH. Ikus ´tal-tal´ sarrera.

ttalttal *(5)* : ttalttal (urratsez urrats) */ badoa kura ttalttal (5):* badoa hura ttalttal.

ttango *(5)* : tapoi

ttanka *(5)* : tanta

ttantta *(5)* : *(haur.)* gazta

ttapa-ttapa *(5)* : ttapa-ttapa (urrats txikiak eginez)

ttarrapatta *(5)* : kaskarin, buruarin

ttarro-ttarro *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)

ttarttaka *(5)* : berritsu, hitzontzi (emakumea)

ttatta *(5)* : *(haur.)* kaka

ttattarra 1 *(5)* : neskatxa (oso txikia)

ttattarra 2 *(5)* : berritsu, hitzontzi (emakumea)

ttattarro *(5)* : mutikotxo

ttattor *(5)* : hauskor

ttattur *(5)* : *(haur.)* txakurtxo */ ttatturrak yau-yau, kakurrak au-au (5):* txakurtxoak txau-txau,

txakurtzarrak au-au.

ttauttau 1 *(5)* : *(haur.)* txakur

ttauttau 2 *(5)* : zaunka

ttekemeke *(5)* : zirika (haurrei esana)

tten-tten-tten *(10)* : tterri-tterri (txerrikumeei deitzeko)

ttentte *(5)* : *(haur.)* ttentte

ttik *(4, 5)* : kilimusi (belauniko) */ ´ttik´ erraiten zen emaztek altarier eta saintiuer egiten zein erreberenziari (4):* ´ttik´ (kilimusia) esaten zitzaion emakumeek aldareei eta santuei egiten zieten erreberentziari.

ttik egin *(4, 5)* : kilimusi egin (belaunikatuz)

ttilintton 1 *(5)* : dilindan, zintzilik */ karek txintxa ttilintton daka (5):* hark mukia dilindan dauka.

ttilintton 2 *(5)* : *(anat.)* aho-gingil

ttinka *(5)* : pixka, pitin */ nai duka ardaun ttinka bat? (5):* nahi al duk ardo pixka bat?

ttinttirrin *(5)* : likore

ttipi *(5, 11)* : txiki */ gizon ttipi arrabots andi (5):* gizon txiki harrabots handi. */ Martin ttipi (11):* Martin txiki.

ttipi-ttapa *(11)* : tipi-tapa

ttipirrin-ttipirrin *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)

ttiple *(5)* : *(mus.)* gitarra

ttipri-ttipri *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)

ttirriko-ttarrako *(5)* : ttirriki-ttarraka (poliki eta nekez ibiliz)

ttitta *(5)* : *(haur.)* oilo (edo zeinahi hegazti)

ttitti *(5)* : *(haur.)* titi

ttok-ttok-ttok *(5)* : ttok-ttok-ttok OH. Azkuek ´zerbaiten bila dabilen pertsonaz esana´ argibidearekin dokumentatua.

ttontto 1 *(5)* : *(haur.)* apatx, eserita OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

ttontto 2 *(5)* : eseri

ttopolo *(5)* : potolo */ antxamama ezpel-azi ttopolozkoa da (5):* ´antxamama´ ezpel-hazi potolotxoa da.

ttottaka *(5)* : *(haur.)* jostetan

ttottale *(5)* : txintxirrin (umeena)

ttottari *(5)* : jostailu

ttottolo *(5)* : potolo, lodikote

ttottorro *(5)* : mutikotxo

ttuki-ttuki *(5)* : ezetza emate, errefusatze OH. Azkuek ´eskaerei ematen zaien ezetza´ esanahiarekin dokumentatua.

ttuku-ttuku *(5)* : ttaka-ttaka (urrats txikiak eginez)

ttunttun 1 *(4, 5)* : tuntun; tentel (adj.) */ aita ttunttun, ama ttunttun, ttunttun dun ere alaba; guziak ttunttun izaiteko ttunttun bear din senarra (5):* aita tentel, ama tuntun, tuntun dun alaba ere; guztiak tentel izateko tentel behar din (alabak) senarra.

ttunttun 2 *(5, 10)* : *(mus.)* ttunttun (txikigarria) */ ttunttun deitan zein, ttunttuna (10):* ttunttun deitzen zuten, tuntuna. */ ttunttuna, oraiko dantzak mino ederrago (10):* ttunttuna(rekin), oraingo dantzak baino ederragoa.

ttunttun 3 *(5)* : buruarin, txoriburu

tturriño *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko) OH. ´Txurrino´ ere dokumentatua.
ttutt *(5)* : *(haur.)* papo
ttutti *(5)* : *(haur.)* zutik
ttuttiko *(5)* : taka-taka (haurrak ibiltzekoa)
ttuttulu *(5)* : kutun (orratzak edukitzekoa)
ttuttulukatu *(5)* : *(haur.)* kikildu
ttxerri-ttxerri *(10)* : tterri-tterri (txerrikumeei deitzeko)
-tu puntiuan *(3)* : -tzeko zorian */ garia lastotan eta buruka erkin puntiuan [zagolarik] (3):* garia lastotan eta buruxka ateratzeko zorian zegoenean.
tueria *(5)* : tueri OH. Txistua sarri botatzeko joera.
tufarri *(8)* : *(geol.)* tuparri OH. Hitz honen lekukotasuna ibarreko gaztelanian gordetako ´tufa, tufarro, tufarrera´ hitzetan dago.
-tuk 1 *(2, 3, 9, 10)* : -tuta, -turik */ zatikatuk (3):* zatikatuta. */ [plaztan] gero beti luzatuk, mitilak ez biz[r]en erkitan dantzara (9):* plazan gero beti luzetsita, mutilak ez baitziren irteten dantzara. */ kukurrukatuk (9):* uzkurturik. */ alaba bat ezkontuk (10):* alaba bat ezkondurik. */ lexoak betik zerratuk (10):* leihoak beti itxita. */ maztiak baratu [zren] alketuk (10):* emakumeak lotsaturik geratu ziren.
-tuk 2 *(2)* : -tua; -tuak */ orai korpitz eta arima duguneki resuzitatuk biar dugu izan (2):* orain ditugun gorputz eta arimekin berpiztuak izan behar dugu.
tumor *(5)* : *(med.)* tumore */ [zali] erraiten digu ere tumorxko gogor esk[i]uetan erkiten drener (5):* ´zali´ esaten diegu eskuetan ateratzen diren tumoretxo gogorrei ere.
tuntun 1 *(5)* : tuntun; tentel, inozo */ aita tuntun, ama tuntun, tuntun dun ere alaba; oro tuntun izaiteko, tuntun bear dun senarra (5):* aita tentel, ama tuntun, tuntun dun alaba ere; denak tentel izateko, tentel behar dun (hik) senarra. OH. Euskara batuan ´tuntun´ emakumezkoei soilik dagokie; erronkarieraz, aldiz, orokorra da.
tuntun 2 *(11)* : *(mus.)* tuntun OH. ´Ttunttun´ eta ´txuntxun´ aldaerak ere dokumentatuak.
tuntun 3 *(5)* : *(suk.)* opil (berezia) OH. Azkuek ´opil berezia, geza´ esanahiarekin dokumentatua.
tupin *(5, 10)* : tupina, marmita */ tupina (10):* tupina, marmita.
tupla *(5, 10)* : *(bot.)* tipula */ tupla ñoa (10):* tipula txikia.
tupust *(5)* : tupust (ezustean topatzearen onomatopeia)
tupustean *(5)* : tupustean, bat-batean
tupusteko *(5)* : tupusteko, bat-bateko
-turik *(2, 10)* : -tuta, -turik */ eburneara kondenaturik [ginzaudela] (2):* infernura kondenaturik geundela.
-turik 2 *(2)* : -tua; -tuak */ ama, zoin izan beizen konzebiturik bekatu bage (2):* ama, zein bekatu gabe sortua izan baitzen.
turrino *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)
turrintxa *(5)* : *(jos.)* ziba
turrunbero *(5, 11)* : *(geog.)* amildegi (txikia) */ goen-barren zabillelarik, [abre] kori turrunbero kortan larrutu [zen] (5):* gora eta behera zebilela, abere hori amildegi horretan larrutu zen. */ turrunberora xoaitan zelarik eurtu nian beixkoa (5):* amildegira joaten zenean, behitxoari atzera eginarazi nion. */ botxe da larrubide edo erorgu andiena, pikarra bigarrena, turrunberoa ñoago (5):* ´botxe´ amildegi edo amiltoki handiena da, ´pikarra´ bigarrena eta ´turrunbero´ txikiagoa. OH. Azanarezek ´amildegi txikia´ oharrarekin dokumentatua. ´Turrunpero´ aldaera

ere badago, bertzeak bertze.

turrunpero *(3)* : amildegi (txikia) */ [txerri saldoak] laster egin zion zauzi egitra turrunpero batarik itxasuara (3):* txerri saldoak korrika egin zuen jauzi egiteko amildegi batetik itsasora. OH. Orotariko Euskal Hiztegian ´turrunbero´ hobetsia.

turrusta *(5)* : ur-jauzi, turrusta OH. Iparraldean ere dokumentatua.

turrut *(11)* : *(med.)* beherako */ turruta (11):* beherakoa.

turruxtatu *(5)* : ahuldu

turuta *(5)* : *(mus.)* turuta

tustatu *(4, 5, 8, 9, 10)* : usteldu */ izeia egotx eta bertan isartan bada urpean, erranez naz eztela tustatan sekula´re (4):* izeia bota eta berehala urpean jartzen bada, esango nuke ez dela sekula ere usteltzen. */ erran naiz nago eztela tustatan sekula´re (5):* esatekotan nago ez dela sekula ere usteltzen. */ tustatia (8):* ustela. */ [osorik] tustatu dun (9):* osorik usteldu dun.

tusto *(4, 5, 10)* : ustel

tut *(5)* : tut */ tutik [eztu] erran (5):* tutik ez du erran.

tuta 1 *(5)* : *(mus.)* turuta

tuta 2 *(5)* : anezka (ehungailuarena)

tutare *(5)* : titare

tutulu 1 *(5)* : ergel, tentel

tutulu 2 *(5)* : kutun (jostorratzak edukitzekoa)

tutulukatu *(5)* : kikildu

tutulukeria *(5)* : ergelkeria, tentelkeria

-tuz fan *(3, 4)* : ikus -z fan

tuzo *(5)* : aza-orpo, aza-zurtoin

tuztatu *(5, 7)* : usteldu OH. Zuberoan ere dokumentatua.

tuzto *(11)* : ustel

txabal *(11)* : xabal (txikigarria) */ txabalkua (11):* xabalkoa.

txabola *(5, 11)* : *(erai.)* txabola OH. Azkuek ´mugazainena´ oharrarekin dokumentaua. Aznarezek ´txikia´ oharrarekin dokumentatua.

txaflaka *(5)* : txaflaka OH. Harria ur-azalaren gainean ponpeka.

txagarko *(9, 11)* : sagartxo OH. Izagirrek ´sagar txikia eta garratza´ oharrarekin dokumentatua.

txainka *(5)* : zaunka

txainpa *(5)* : oihu (emakumezkoena)

txainpa egin *(5)* : oihu egin

txainpaka *(5)* : oihuka (deika)

txaintsi *(10)* : jetzi */ amak ere xaintan zia pantalona eta ardien txainstra (10):* amak ere prakak janzten zituen eta ardiak jeztera.

txairo *(5)* : lirain, lerden

txaisgi *(10)* : *(nek.)* jetzitegi (txabola, lekua) */ ene ama txaistan aitareki txaisgian (10):* ene ama jezten aitarekin jetzitegian.

txaisgu *(9)* : *(nek.)* jetzitegi (txabola, lekua) */ [atzo] ardiak erkin guntiezun txaisgutik (9):* atzo ardiak atera genituen jetzitegitik. */ txaisgia (9):* jetzitegia.

txaisle *(9)* : jezle (jezten duena) */ txaislia (9):* jezlea.

txaitsi *(10)* : jetzi */ ene ama txaistan aitareki txaisgian (10):* ene ama jezten aitarekin artegian (jeztokian). */ amak ere xaintan zia pantalona eta ardien txainstra (10):* amak ere prakak

janzten zituen eta ardiak jeztera.

txaka *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)

txakin *(10)* : jakin */ ene aita il zian txakin gabetarik il zela morroia (10):* nire aita hil zen jakin gabe mutila hil zela.

txakur *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 11)* : *(zoo.)* txakur */ etzazei emon txakurrer gaiza saintiuak (3):* ez izkiezue eman txakurrei gauza santuak. */ txakurxkuek xaten dei berere beren nausien maitik erortan dren apurretarik (3):* txakurtxoek jaten dute, behintzat, beren nagusien mahaitik erortzen diren apurretatik. */ txakur inzlari aztan dagona (4):* hazten ari den txakur ehiztaria. */ txakurraren xankinaren xaten nago (4):* txakurraren janari-hondarrak jaten ari naiz. */ ene txakurra ekusi dur (7):* ene txakurra ikusi dut. */ txakurrareki ebiltan naz (7):* txakurrarekin nabil. */ txakur bati arri bat egotxi (8):* txakur bati harri bat jaurti. */ ortzikaldi egin ditarat txakurrak (8):* hozka egin dit txakurrak. */ txakurrak ortzokaldi egin dien buztanean (9):* txakurrak hozka egin din buztanean. */ txakurra (11):* txakurra.

txakur-belar *(5)* : *(bot.)* basaolo

txakur-eztul *(5)* : *(med.)* txakur-eztul

txakur-mi *(4)* : *(bot.)* txakur-mihi

txakur-mii *(5)* : *(bot.)* txakur-mihi

txakurkoala *(5)* : txakurtxoka (haur jolasa) OH. Kokoriko jarrita, jauzika ibiltzea da.

txalanpa *(5)* : oihu */ emazteak artan dionean lotsaldi bat ustebagerik, egiten du txalanpa (5):* emakumeak ustekabean izualdi bat hartzen duenean, oihu egiten du.

txalanpa egin *(5)* : oihu egin */ emazteak artan dionean lotsaldi bat ustebagerik, egiten du txalanpa (5):* emakumeak ustekabean izualdi bat hartzen duenean, oihu egiten du.

txalanpaka *(5)* : oihuka (deika)

txalikonkili *(5, 11)* : zangalatrau OH. Aznarezek gaztelaniak desitxuratutako aldaerak dokumentatu ditu > ´chaliconcas, chiliconcas, riconcolis´ etabar.

txalin-txakur *(5)* : *(zoo.)* altzo-txakur, andere-txakur

txalinkonkili *(5)* : zangalatrau

txamar *(11)* : zamar, txamar (jantzia) */ txamarra (11):* zamarra, txamarra.

txamarra *(5)* : *(nek.)* mantal (segalariena)

txamarreta *(5, 11)* : txamarreta OH. Azkuek ´jaka luzea´ oharrarekin dokumentatua. Aznarezek ´erronkariar jaka´ oharrarekin dokumentatua.

txamidra *(7, 9)* : *(erai.)* tximinia */ kea xoatan da txamidratik (7):* kea tximiniatik joaten da. */ txamidra bat (9):* tximinia bat.

txamur *(5)* : mindu, erresumindu (adj.)

txanbra *(9, 10)* : jaka (emakumezkoa); brusa */ belaiz´ tei txanbra kori (9):* biluz zaitezte, kendu jaka hori. */ txanbra banak eragitan bitu (10):* brusa batzuk baitzekartzan.

txandrio *(5, 11)* : txandrio, azpijoko, jukutria

txandrio egin *(5)* : txandrio egin, azpijoko(a) egin

txangar *(11)* : txingo

txanka 1 *(5, 11)* : makulu

txanka 2 *(5)* : txanka (kartetako irudia)

txankarka *(5)* : txingoka, txingoan

txantxa *(9)* : txantxa

txantxara *(9)* : txantxetan

txantxari *(5)* : *(jos.)* ziba

txantxigor *(10, 11)* : *(suk.)* gantxigor OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian ´chanchigorri´ forman dokumentatua. Nafarroa Garaian gantxigor > chanchigor > chanchigorri bilakaera izan du. Aznarezek dokumentaturiko aldaerak > ´chanchigorri, chinchigorri, chocarraquin, chinchorropi´ eta ´chingorropi´.

txantxulit *(5)* : burugabe, txoriburu (gizontxoa)

txapa *(5)* : bolatxo

txapar 1 *(1, 2, 9, 10, 11)* : *(bot.)* txaparro */ txaparraren zia (9):* txaparroaren ezkurra.

txapar 2 *(4)* : txapar, mozkote, pipor */ txapar duk, txapar dun (4):* txaparra duk, txaparra dun.

txapar 3 *(5)* : barau-likore */ txaparra (5):* barau-likorea, baraurik hartzen den likorea.

txapardoi *(1, 11)* : txaparrodi */ txapardoia (1, 11):* txaparrodia.

txaparrada 1 *(11)* : *(met.)* zaparrada

txaparrada 2 *(5)* : *(met.)* elur malutatxo(ak)

txapel 1 *(11)* : txapel */ txapela (11):* txapela.

txapel 2 *(5)* : kapela OH. Azkuek ´belarri gainean jarritako kapela´ oharrarekin dokumentatua.

txapeli *(5)* : adimengabe, burugabe

txapitela *(5)* : *(erai.)* txapitula (teilatuko leihoa)

txar 1 *(5, 10)* : txar */ negu txarra aurtengoa azienda xearendako (5):* negu txarra aurtengoa ardi-aziendarentzat. */ amar ilabeteren barnian [il zen], suerte txarra (10):* hamar hilabeteren barnean hil zen, zorte txarra.

txar 2 *(5, 11)* : txiki, ttattar */ txori txarrak txinta txarra (5):* txori txikiak txio txikia. OH. Hego-nafarreraz ere dokumentatua. Aznarezek Erronkaribarko gaztelanian gordetako ´charro´ hitzean dokumentatua.

txar 3 *(11)* : *(heg.)* ipar-bele */ txarra (11):* ipar-belea.

txaramila *(10)* : *(erai.)* tximinia

txaramilagain *(10)* : *(erai.)* tximiniagain */ txaramilagaina erori dun eta azkatu bar diagun (10):* tximiniagaina erori dun eta altxatu egin behar dinagu. OH. Azkuek ´tximiniaren gaineko teilatutxoa´ oharrarekin dokumentatua.

txaramilla *(5)* : *(erai.)* tximinia */ txaramilla ixikitu (5):* tximinia piztu.

txaranbila *(5)* : *(erai.)* tximinia */ nik ere kantatan dud txaranbilaren pean (5):* nik ere kantatzen dut tximiniaren pean.

txarkeria *(5)* : txarkeria, jukutria

txarpaleta *(5, 11)* : *(met.)* elur-lapatx (erdi urtua) */ txarpaleta (5):* elur-lapatxa, elur erdi urtua.

txarra *(2)* : *(heg.)* eskilaso */ txarra mendioillarraren gisako txoria da, baia ñoago (5):* eskilasoa argioilarraren gisako txoria da, baina txikiagoa.

txarranada *(11)* : txandrio, azpijoko, jukutria

txarranpin *(5)* : *(med.)* elgorri, txarranpin

txarrantxa *(5)* : *(nek.)* txarrantxa (lihoa garbitzekoa)

txarrantxatu *(5)* : txarrantxatu

txarre *(5)* : azkura OH. Azkuek ´adibidez, asunek eragina´ oharrarekin dokumentatua.

txarrina *(5, 11)* : mirrin (umea) */ txarrina (5):* (ume) mirrina.

txarro 1 *(11)* : ñarro, txiki

txarro 2 *(5)* : doilor, zital

txarro-txarro *(10)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)

txartatu *(5)* : distirarazi, txartatu, leundu
txartxapen *(9)* : zahardade */ txartxapena (9):* zahardadea.
txaski *(5)* : saski
txasmista *(2)* : *(met.)* tximista */ txasmistek eta odeiek (2):* tximistak eta hodeiak.
txastadura *(5)* : distira
txastatu *(5)* : distirarazi, txartatu, leundu
txastau *(5)* : garbiketa (distiratsua ?) */ mosarrea arri beltza da ta txastauen egiteko ta aiztoen zorroztako ebiltan dugu (5):* arbela harri beltza da eta garbiketak egiteko eta aiztoak zorrozteko erabiltzen dugu.
txatar 1 *(5, 10)* : haur-oihal, pixoihal */ aurren txatarrak ekuztra (10):* haur-oihalak garbitzera.
txatar 2 *(5)* : adabaki, txatal
txatxa-txatxa *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)
txatxi *(10)* : jaitsi
txatxur *(5)* : *(haur.)* txakur
txek! *(5)* : begira ezak! */ txek non duan añabarbarina (5):* begira ezak non doan armiarma.
txelairu *(5, 10)* : horma-hobitxo (sukaldekoa) */ txelairea (10):* (sukaldeko) horma-hobitxoa. OH: Azkuek ´horma edo txoko bateko hobitxo irekia´ argibidearekin dokumentatua. Artolaren ´txelairea´ adibide mugatua ´txelairua > txelairia > txelairea´ bilakaeraz sortua izan liteke.
txeme *(5)* : txeme OH. Erpuruaren eta hatz erakuslearen arteko tartea, bereizita daudenean.
txemeko *(5)* : ahalegin (pisua altxatzean)
txen! *(5)* : begira ezan!
txentxairu *(5)* : mataza-hari
txerka *(3, 5, 7, 8, 10)* : bila */ Jesus Juanen txerka xin zen (3):* Jesus Juanen bila etorri zen. */ ziudade guziua erkin zen Jesusen txerka (3):* hiri osoa Jesusen bila atera zen. */ ez dia fanen galtu denaren txerka? (3):* ez al da joango galdu denaren bila? */ [aita bat erkin zen] jornalari txerka bere ardauntzuko (3):* aita bat bere mahastirako jornalari bila atera zen. */ Oloronen [izan nintzen] olo txerka mandoen[tako] (5):* Oloronen izan nintzen olo bila mandoentzat. */ urteroz Ernazera iror beiantxaren txerka xoaitan dra (5):* urtero Ernazera hiru bigantxaren bila joaten dira. */ nora xoatan zra? uturriara uren txerka (7):* nora zoaz? iturrira ur bila. */ nora yua, morroia? ardau txerka (8):* nora hoa, mutiko? ardo bila. */ nai duna xoan margu txerka? (10):* joan nahi al dun masusta bila?
txerkatu *(3, 4, 5, 7, 10)* : bilatu */ [kan-kemenka] erabilten da leku idorretaz txerkatan (3):* han-hemenka ibiltzen da leku lehorren bila. */ zeren Herodesek txerkaten baitu aurra ilaraztako (3):* zeren Herodesek haurra bilatuko baitu hilarazteko. */ txerka zazei eta erdenen tzei (3):* bila ezazue eta aurkituko duzue. */ biar dian txerkatu leku (4):* lekua bilatu behar dinat. */ etse egiteko, kemen lein txerkatan digu izeia, ezik lerra (4):* etxeak egiteko, hemen lehenago bilatzen dugu izeia, pinua baino. */ aritik txerkatan da allikoa (5):* haritik bilatzen da harilkoa.
txerra 1 *(5)* : zarpail, piltzar
txerra 2 *(5)* : liho-amuko
txerrenda *(5)* : *(nek.)* zerrenda OH. Zelaiko belar moztu berriaren zerrenda, adibidez.
txerri *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 10, 11)* : *(zoo.)* txerri */ txerri masto (2):* ordots(a), txerri ar(ra). */ ez urrin kantik, txerri saldo andi bat [zagon], alatan (3):* handik ez urrun, txerri saldo handi bat zegoen, bazkatzen. */ ez egotx xaurien perlak txerrier (3):* ez bota zeuen perlak txerriei. */ txerria il biar dud, xanaria akabatu baidud (4):* txerria hil behar dut, janaria bukatu baitut. */ ezkur den*

urtian eramaiten dra txerriak ezkurriara (4): ezkurra dagoen urtean txerriak ezkurretara eramaten dira. */ txerrietaz gizenten gra (4):* txerriez gizenduko gara. */ txerri-osazaleak (5):* txerri-irentzaileak. */ San Andres, txerria askan trabes (5):* San Andres, txerria askan trabeska. */ txerrinko (6):* txerritxo. */ txerria, txerrinkuak (10):* txerria, txerritxoak.

txerri gente *(4)* : *(zoo.)* txerri jende, txerriak */ txerri gentia (4):* txerri jendea, txerriak.

txerrikaxal *(5)* : *(suk.)* txerriazal

txerriki *(2)* : *(suk.)* txerriki

txerrinko *(5)* : *(zoo.)* txerrikume

txerritegi *(11)* : *(nek.)* txerritegi

txerritxino *(5)* : *(zoo.)* txerritxino (txerri mota) OH: Azkuek ´hanka, lepo eta gorputz motzeko txerri mota´ oharrarekin dokumentatua.

txerrizaîn *(3)* : txerrizain */ txerrizaînak îesitu zren eta, eltu baikoz ziudadiara, [agitan zen guziua] kontatu zein (3):* txerrizainak ihesi joan ziren eta, hirira heldu bezain laster, gertatzen zen guztia kontatu zuten.

txerroin *(5)* : liho-amuko

txestatu *(5)* : dastatu

txetu *(3, 5)* : begiratu */ txezu, txezei (3):* begira ezazu, begira ezazue. */ txek, txen, txezu, txezei (5):* begira ezak, begira ezan, begira ezazu, begira ezazue. OH. Zaraitzun ´txotu´ dokumentatua.

txezei! *(3, 5)* : begira ezazue! */ txezei, bada, nola biar tzein errezatu (3):* begira ezazue, bada, nola errezatu behar duzuen. */ txezei zeuriko txoriek nola ez dein eritan (3):* begira ezazue zeruko txoriek nola ez duten ereiten. */ txezei, ñork ere etzala xakin (3):* begira ezazue, inork ere ez dezala jakin.

txezu! *(3, 5)* : begira ezazu! */ txezu etzazula erran ñori´re (3):* begira ezazu ez iezaiozula erran inori ere.

txiflete *(4)* : zaplastako, zaflako */ ixilaraztako, esku zeñuareki erraiten zaun´ txiflete bat emoyen [n]oke´ (4):* isilarazteko, esku keinu batekin esaten zion ´zaplastako bat emango niake´.

txiker *(1, 2, 3, 4, 5, 11)* : txiki */ Urdazpe txikerra (1):* Urdazpe txikia. */ egi txikerra (1):* hegi txikia. */ arbole txiker[ra] (2):* zuhaixka. */ mendi txikerrak (2):* mendi txikiak. */ [norbait] txikerrago urdu izanik ere, ezdeustako [ekunik izanen da] (3):* norbait txikiagoa iruditurik ere, ezereztzat edukia izango da. */ txikerxko kuetarik bati [edatra emon] (3):* txikitxo hauetariko bati edaten eman. */ txikerren[ak] (3):* txikienak. */ eri txiker[ra] (4):* hatz txikia. */ lasterra dian llabur eta txiker (4):* lasterra dinat laburra eta txikia. */ lein utsitan da begi andia ezik txikerra (5):* lehenago itsutzen da begi handia txikia baino. */ begi txikerrak du ekustea urrinago (5):* begi txikiak urrunago ikustea du. */ etxe txiker (11):* etxe txiki (etxea).

txiki 1 *(3, 4, 5, 7, 8, 9, 10)* : gutxi */ fede txikitako gizonak (3):* fede gutxiko gizonak. */ zer txiki dra arekin kausitzen deinek! (3):* zer gutxi diren harekin aurkitzen direnak! */ arridoietan, nonta baizegon lur txiki (3):* harritzetan, non lur gutxi baitzegoen. */ txiki [iraintan du] (3):* gutxi irauten du. */ kemen milagro txiki [egin zion] (3):* hemen mirari gutxi egin zuen. */ anitx dra deitiuak; txiki baia eskojitiuak (3):* anitz dira deituak; gutxi baina aukeratuak. */ txiki [erabil baidaiteke] (3):* gutxi ibil baidaiteke. */ gaiza inportanzia txiki deinengatik (3):* garrantzi gutxi duten gauzengatik. */ erran daitad arek lagungu txikia egin dokela orri (4):* hark erran dit laguntza gutxi egin diezaiokeela berorri. */ izeia andiago [da], baia txiki [dago] lerren alte (4):* izeia handiagoa da, baina gutxi dago pinuen aldean. */ txiki dra egun igartan drenak ortaz guartu bage (4):* gutxi dira igarotzen diren egunak berorretan oroitu gabe. */ izen eskatan*

daitadanetarik, txikiz guar naz (4): eskatzen dizkidan izenetatik, gutxiz oroitzen naiz. */ anixko beatan dion etsukandreak txiki urutan du (5):* askotxo begiratzen duen etxekoandreak gutxi iruten du. */ anixko lo egiten dionak txiki ikastan du (5):* askotxo lo egiten duenak gutxi ikasten du. */ gosеareki eta lotsareki lo txiki (5):* gosearekin eta beldurrarekin lo gutxi. */ paxaran anitx, gari txiki (5):* patxaran anitz, gari gutxi. */ orrek ar beza leinik eta gero txiki emon beztad (5):* berorrek har beza lehenik eta gero gutxi eman biezat. */ maistroek ene tenpran zakiein txikiago ezik oraikoek, baia eratsukitan zein obro, zafratan baigintien (5):* maisuek ene garaian gutxiago zekiten oraingoek baino, baina gehiago irakasten zuten, (bortitz) jotzen baikintuzten. */ ebili zeria anitx? ez, txiki (7):* asko ibili al zara? ez, gutxi. */ gunian kasino eta gaiza txiki (8):* orduan (Donostian) kasinoa eta gauza gutxi. */ logale txiki diar (9):* logura gutxi dut. */ txiki anditan tzu (9):* gutxi hazten da. */ amintto bat txikiago (9):* pitin bat gutxiago. */ oai bei solo keben, ardirik txiki, gutti (10):* orain beiak bakarrik hemen, ardi gutxi, gutxi. */ deiru txiki, txikiao, txikiau (10):* diru gutxi, gutxiago.

txiki 2 *(1, 11)* : txiki */ Mendigatxa txikia (1):* Mendigatxa txikia.

txiki gorabera *(2, 4)* : gutxi gorabehera */ zer ordutraino? seietraino txiki gorabera (2):* zer ordu arte? seiak arte gutxi gorabehera. */ ez naiteke konxaba xakin naiz noiz izanen den txiki gorabera (4):* ez naiteke lasaitu jakin nahirik noiz izango den gutxi gorabehera.

txikiago *(4, 5)* : gutxiago */ egun karta konen eskribitiagatik egin dut estazione bat txikiago elizan (4):* gaur gutun hau idazteagatik egonaldi bat gutxiago egin dut elizan.

txikien *(3, 5)* : gutxien */ zeren ordu txikien pensatan tzeinian xinen baita (3):* zeren gutxien pentsatzen duzuen orduan etorriko baita. */ ordu txikien pensatan dionian (3):* gutxien pentsatzen duen orduan. */ ezteietan txikien xatan diona emazte berria (5):* ezteietan gutxien jaten duena emazte berria.

txikika *(5)* : txikizka (saltzea)

txikilon *(5, 11)* : arakoil OH. Barrabil bakarreko gizona. Aznarezek ´barrabil bakarra duten animaliak izendatzeko´ oharrarekin dokumentatua.

txikin *(5, 11)* : txiki OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

txikin-txakan *(11)* : herrenka

txikirriteri *(5)* : haurreria, umeteria (etxekoa)

txikitan *(5)* : gutxitan

txikiz-txikiz *(5)* : ekinaren ekinez

txikolo-txakolo *(5)* : zikinki, satsuki OH. Pertsona zikin ibiltzea.

txikoria *(2, 11)* : *(bot.)* txikoria

txilindron 1 *(5)* : *(suk.)* txilindron OH. Azkuek ´haragi gisatu mota bat´ esanahiarekin dokumentatua.

txilindron 2 *(5, 11)* : narras, zarpail (gizona)

txilindron 3 *(11)* : zintzilikario OH. Arropen zintzilikarioa edo gauza ebakiena (xaflena) gehienbat. ´Txilindrajo´ aldaera ere dokumentatua.

txilinga 1 *(11)* : *(jos.)* zabu

txilinga 2 *(11)* : *(anat.)* zakil (umeena bereziki)

txilinga 3 *(11)* : *(suk.)* txistor

txilingatu 1 *(5)* : makurtu (landareak eta) */ urte onetan atzeak bete-beterik egoitan dra ta abarrak txilingatruk (5):* urte onetan zuhaitzak (fruituz) bete-beterik egoten dira eta abarrak makurturik.

txilingatu 2 *(11)* : zintzilikatu

txilintxon *(5)* : dilindan, zintzilik OH. Zaraitzun ´tilinton´ dokumentatua.
tximikatu *(5)* : atximur egin
tximiko *(5, 9, 11)* : atximur
tximilinkor-imilinkor *(5)* : tximilinkor-imilinkor */ tximilinkor-imilinkor, kaur irea bada, itxikak kor (5):* tximilinkor-imilinkor, hau hirea bada, utz ezak hor. OH. Joko baten sarrerako hitzak.
tximirrikatu *(5)* : txikitu, suntsitu
tximitx 1 *(2, 5, 9)* : *(zoo.)* zimitz */ iguzkia karakolentako da orobat nola eguna tximitxentako (5):* eguzkia barraskiloentzat eguna zimitzentzat bezala da. */ tximitxa (9):* zimitza. OH. Azkuek ´tximitxa´ ere dokumentatua.
tximitx 2 *(5)* : zumitz OH. Upelen uztaiak egiteko adarrak.
tximur 1 *(5)* : muturtu (adj.)
tximur 2 *(5)* : zuhur, zeken
tximur 3 *(5)* : tolestura, izur (arropena)
tximur 4 *(5)* : txanbihur (hari edo sokena)
tximur egon *(5)* : muturtuta egon */ tximur gaude (5):* muturtuta gaude.
tximurdura *(5)* : zimur
tximurkatu *(5)* : txanbihurtu (haria, soka)
tximurtu 1 *(5)* : muturtu
tximurtu 2 *(5)* : txanbihurtu (haria, soka)
tximurtu 3 *(11)* : zimeldu OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian gordetako ´chimurrir, chumurrir´ aldaerak dokumentatu ditu. Biak ere ´usteldu, zimeldu´ oharrarekin dokumentatuak, batez ere landareez edo jakiez ari garela.
txinge *(11)* : txingo
txingin-txingin *(5)* : txingoka, txingoan
txingintegi *(5)* : ziega, leotz
txinizta *(5)* : *(bot.)* isats
txiniztezpel *(5)* : isats-erratz OH. Isats landarearekin egindako erratza.
txinkar 1 *(2, 5, 9)* : txingar */ etse onak txinkar ona (5):* etxe onak txingar ona. */ su-txinkarra (9):* su-txingarra.
txinkar 2 *(5)* : zirta, txinka (sugarrena)
txinkarka *(5)* : txingoka, txingoan
txinki-txanka *(11)* : herrenka
txinkin-txankinka *(5)* : herrenka
txinkor 1 *(5, 10)* : *(suk.)* urdai, xingar
txinkor 2 *(5)* : *(suk.)* txintxorta, gantxigor
txinkortu *(5)* : txigortu
txinta *(5)* : txio */ txori txarrak txinta txarra (5):* txori txikiak txio txikia.
txintx *(2, 5)* : muki */ ez du berze ontarzunik baizik txintxa eta erro franko (5):* ez du beste ondasunik baizik mukia eta karkaxa franko. */ karek txintxa tilinton daka (5):* hark mukia zintzilik dauka.
txintxer *(4)* : *(nek.)* zintzarri */ urrutxaz egiten dra xoraltiak, aziender lepuetan txintxerreki isartako (4):* hurritzaz lepokoak egiten dira, aziendei lepoan zintzarriekin jartzeko.
txintxerko 1 *(5)* : *(nek.)* zintzarritxo
txintxerko 2 *(11)* : ahots ozen OH. ´Txintxerko´ (= zintzarritxo) hitzetik eratorria, hedadura

semantikoz.
txintxerri *(9)* : *(nek.)* zintzarri */ txintxerria (9):* zintzarria.
txintxil *(5)* : *(bot.)* dilista
txintxila *(2, 4)* : *(bot.)* dilista */ txintxilen xaten [asi zen] (4):* dilistak jaten hasi zen.
txintxilla *(5)* : *(bot.)* dilista
txintxina *(11)* : zakil (umeena bereziki)
txintxingorri *(11)* : *(heg.)* txantxangorri
txintxontzi *(5)* : mukitsu
txintxur *(7)* : *(anat.)* eztarri, zintzur */ txintxur min [dur] (7):* eztarriko mina dut.
txintxurkatu 1 *(5)* : nahasi, desordenatu
txintxurkatu 2 *(5)* : txanbihurtu (haria, soka)
txintxurko *(5)* : txanbihur (hari edo sokena) OH. Harilkatzean-eta sortzen diren txanbihurriak.
txintxurri *(2, 4, 5)* : *(anat.)* eztarri, zintzur */ gose dionean tripak erraiten dau txintxurriari (5):* gose duenean tripak erraten dio zintzurrari.
txintz *(5)* : muki, zintz
txio *(7)* : txio
txio egin *(7)* : txio egin
txipa *(2, 9, 11)* : *(zoo.)* ezkailu */ iror txipa (9):* hiru ezkailu.
txipaosazale *(5)* : *(zoo.)* ur-zomorro (mota bat) OH. Hanka luzeen gainean uretan ibiltzen den zomorroa da.
txipi *(1, 5)* : txiki */ txipia (1):* txikia. */ gizon txipi oiu andi (5):* gizon txiki oihu handi.
txipi-txapa 1 *(11)* : plisti-plasta (uretan ibiliz)
txipi-txapa 2 *(11)* : txipi-txapa OH. Ur azalean jauzi egin dezaten jaurtiriko harrien onomatopeia.
txipilkatu *(11)* : hostokatu, hostoak kendu (adarrari)
txipiron *(2)* : *(zoo.)* txipiroi
txipizta *(5)* : zipriztin
txipla-txapla *(5)* : plisti-plasta (uretan ibiliz)
txiporriko *(5)* : potolo, lodikote
txiralkatu *(5)* : blaitu
txirdil 1 *(5)* : zarpail, zirtzil, pilda
txirdil 2 *(2)* : *(bot.)* txirdil OH. Mahats-bilketa ondoren geratzen den matsalkoa edo mahats-mordoa.
txiribi *(5)* : *(bot.)* txiribi
txirikonkila *(5)* : zangalatrau, hankalepo
txirikot 1 *(4)* : gazur */ errekesunetik baratan den zukiuari erraiten dabei ´txirikot´ (4):* gaztanberatik geratzen den saldari ´gazur´ esaten diote. */ txirikotaz gizentan tei txerriak (4):* gazuraz txerriak gizentzen dituzte.
txirikot 2 *(5)* : kakati, kakontzi OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
txirilintxon-pelaka *(5)* : erortzeko zorian */ txirilintxon-pelaka dabil gizon gaixo kori (5):* erortzeko zorian dabil gizon gaixo hori.
txirimiri *(11)* : *(met.)* zirimiri
txirimiri! *(5)* : txirimiri! */ txirimiri, marabedi guziak niri! (5):* txirimiri, marabedi guztiak niri! OH. Haurrek aitabitxiari errana, dirua eman ziezaien.
txirimizkatu *(5)* : ahopean esan, kirimikatu

txiringa *(5)* : xiringa
txirinta *(5)* : txirbil
txiripa *(11)* : txiripa, kasualitate
txirpa-txirpa *(5)* : plisti-plasta (uretan oinutsik)
txirri-mirri *(5)* : emakume zerrepel (erdi mozkorra)
txirrin 1 *(5)* : *(erai.)* kanpandorre, ezkiladorre
txirrin 2 *(5)* : txirrin OH. Azkuek ´artzainen musika tresna´ esanahiarekin dokumentatua.
txirrinapantika *(5)* : *(zoo.)* matxinsalto
txirrinta 1 *(5, 11)* : gogo, apeta OH. Aznarezek ´janariarekin lotua´ oharrarekin dokumentatua. ´Txirrintxa´ aldaera ere dokumentatua.
txirrinta 2 *(5)* : izpi, zirrinta
txirripi-txarrapa *(11)* : zirriki-marraka OH. Aznarezek ´azkar, arretarik gabe´ esanahiarekin dokumentatua.
txirristatu *(11)* : irristatu, labaindu
txirrizta *(5, 11)* : zurrusta (txikia)
txirtxil 1 *(5, 11)* : txirbil
txirtxil 2 *(5, 11)* : narras, zarpail (emakumea) */ txirtxila (11):* narrasa, zarpaila, zikina.
txirtxil 3 *(5)* : lits
txirtxiltu *(5)* : hariak atera (berez soinekoari) OH. Euskara batuan ´txirtxilatu = txiki-txiki egin´.
txirtxilleria *(5)* : haurreria, umeteria (etxekoa)
txirtxir *(11)* : *(met.)* zirimiri
txirula *(11)* : *(mus.)* txirula
txiska *(5)* : zanpatu (oinekin)
txiska-miskaka *(5)* : litxarreria bila
txiskagune *(5)* : mailatu, maspildura
txiskatu 1 *(5, 11)* : mailatu, maspildu
txiskatu 2 *(3, 5, 9, 11)* : zanpatu, zapaldu, galkatu */ ez deila izan [txerriek] txiska ditzein beren zankuez (3):* ez dadila izan txerriek zapal ditzaten (perlak) beren hankez.
txiskiltu *(5)* : txigortu
txispiltu *(5)* : txigortu
txistamista *(5)* : ahopean, ahopeka
txistor 1 *(10)* : *(suk.)* txistor */ morroier emoitan gunia edo gianso edo txistor (10):* mutikoei ematen genien edo urdaia edo txistorra.
txistor 2 *(5)* : atal (fruituena)
txistor 3 *(5)* : txiki; hutsal
txistor 4 *(11)* : kaka
txistu *(11)* : *(mus.)* txistu
txit! *(11)* : ixo! OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian gordetako ´chito´ interjekzioan dokumentatua.
txitxa *(2, 3, 5, 10)* : *(heg.)* txita */ biltu edo mokorkatu, olluak mokorkatan tion bikala bere txitxaxkuak magalen pean (3):* bildu edo pilatu, oiloak bere txitatxoak hegalen pean biltzen dituen bezala. */ txitxak (10):* txitak.
txitxakatu *(5)* : blaitu
txitxapur *(5)* : zotz, ezpal

txitxar *(11)* : *(zoo.)* txitxar */ txitxarra (11):* txitxarra.
txitxaxko *(3)* : *(heg.)* txitatxo
txitxi *(5, 7, 10, 11)* : *(haur.)* txitxi, haragia */ bazkaltako ogi ta txitxi (7):* bazkaltzeko ogia eta txitxia. */ zer xanen dugu gaur? papa ta txitxi (10):* zer jango dugu gaur (gauean)? ogia eta txitxia. OH. Garden helduen artean ere erabilia.
txitxikandra *(9, 11)* : *(zoo.)* sugandila
txitxikatu *(5)* : blaitu
txitxilkatu *(5)* : blaitu
txitxipapa *(5)* : janaldi (handia)
txitxitera *(4)* : *(zoo.)* txitxar */ txitxitera ta iñurria (4):* txitxarra eta inurria. */ txitxitera negiuan iñurriaren etsera [fan zen] (4):* txitxarra neguan inurriaren etxera joan zen.
txixaxko *(3)* : *(heg.)* txitatxo */ biltu edo mokorkatu, olluak mokorkatan tion bikala bere txitxaxkuak magalen pean (3):* bildu edo pilatu, oiloak bere txitatxoak hegalen pean biltzen dituen bezala.
txizkor *(5)* : *(suk.)* azpizun
-txo *(5, 11)* : -txo (txikigarria) */ bizkartxo (5):* bizkartxo, muinotxo. */ amatxo (11):* amatxo. */ Maritxo (11):* Maritxo. */ Pedrotxorna (11):* Pedrotxorena (etxea).
txo-txo *(11)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)
txoa *(2)* : *(heg.)* belatxinga
txokarra *(5)* : txigortu, erre (adj.)
txokarrakin 1 *(5)* : erre gustu (esne, arroz etabarrena)
txokarrakin 2 *(5, 11)* : pairugabe, txokarrakin (pazientzia gutxikoa) */ gizon txokarrakin[a] (5):* gizon pairugabea, gizon txokarrakina.
txokarratu 1 *(5, 7, 11)* : erreskaldatu, sugarastatu OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian gordetako ´chocarrau´ forman dokumentatua.
txokarratu 2 *(5)* : lehortu
txoko *(11)* : txoko
txokolate *(7)* : txokolate */ amari txokolatea (7):* amari (eman) txokolatea.
txokorrakin *(9)* : bilgor-hondar
txokorrakin opil *(9)* : *(suk.)* bilgor-hondar opil
txokorro 1 *(5, 11)* : *(bot.)* goldarrain (kardu mota) */ txokorroa, kain zabal nola gora, bi xeren gorago du lore oria (5):* goldarraina, zabala bezain altua, bi arra gorago du lore horia.
txokorro 2 *(5, 11)* : makila begitsu OH. Azkuek ´makila begitsua, adartxorik eta hostorik gabea´ esanahiarekin dokumentatua.
txola *(5)* : *(nek.)* txerritegi
txolarte *(5)* : txori-harrapagailu (zurezkoa) OH. ´Txolarte´ hitzak ´txori + arte´ dirudi; artea = harrapagailua.
txonpla *(5)* : mugikor */ ortz txonplek eztokei xan anitxik (5):* hortz mugikorrek ez dezakete askorik jan. OH. Ikus ´txurrunpa´ sarrera eta adibidea.
txopairatu *(5)* : blaitu
txopatu *(5)* : blaitu
txor-txor 1 *(11)* : tar-tar, txor-txor (hizketaren onomatopeia) OH. Gipuzkeraz ere dokumentatua.
txor-txor 2 *(11)* : bor-bor (irakitearen onomatopeia)
txori 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 10)* : txori */ bi txori saltan dra bi marabiditan (3):* bi txori saltzen dira bi

marabedian. */ txoriak xaxtan baitra eta erreposatan [arboliaren] adarretan (3):* txoriak jaisten baitira eta zuhaitzaren adarretan pausatzen. */ txezei zeuriko txoriek nola ez dein eritan (3):* begira ezazue zeruko txoriek nola ez duten ereiten. */ axariek dei kamia eta txoriek abia (3):* azeriek gordelekua dute eta txoriek habia. */ al banintza txori baten gisa bidajiak egin bolan (4):* txori baten gisa bidaiak hegan egin ahal banitu. */ obro balio du txori bat[ek] eskiuan ezik bi[k] bolan (5):* gehiago balio du txori batek eskuan, bik hegan baino. */ Oriko txoriak Orira nai (5):* Oriko txoriak Orira nahi. */ eztein txoriek kantatan, bero egitan bitu (7):* ez diten txoriek kantatzen, bero egiten baitu. */ txoriak karrikan elurra bortian (10):* txoriak karrikan elurra bortuan.

txori 2 *(5)* : txori (ileetakoa)

txori 3 *(5)* : *(med.)* hazizurri, golo */ txori bat elki zaut (5):* hazizurria atera zait. OH. Normalean pluralean.

txori-mats *(5)* : txori-mahats (mahats heldu gabea)

txoribazka *(5)* : *(bot.)* ezkerte

txoriburu 1 *(5)* : txoriburu, kaskarin

txoriburu 2 *(5)* : hari (lodiera ezberdinekoa)

txorierrege *(5)* : *(heg.)* erregetxo

txorizale *(5)* : *(heg.)* belatz

txorroi *(5)* : liho-amuko

txorrota *(1)* : zurrusta

txorrotada *(11)* : zurrusta

txorrotx *(1, 5)* : txorrotx (txikigarria) */ meaka txorrotxa (1):* (leku) mehar txorrotxa.

txorrotxarri *(1)* : txorrotxarri (txikigarria) */ txorrotxarria (1):* txorrotxarria. OH. ´Zorroztarri´ hitzaren txikigarria da.

txorrotz *(7)* : zorrotz */ [zezenek] adarrak txorrotz [ditei] (7):* zezenek adarrak zorrotz dituzte.

txorroxtu *(6)* : zorroztu

txorrust *(9)* : zorrotz

txorta 1 *(5, 8, 9)* : tanta */ ardaû txorta bat [edan diak] (5):* ardo tanta bat [edan diat]. */ txorta bat [eran diar] (9):* zurrutada bat edan diat (; dut). OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

txorta 2 *(5)* : pixka bat

txorta 3 *(5)* : malko

txorta 4 *(10)* : zurrutada */ txortaixko bat (10):* zurrutadatxo bat.

txortel 1 *(5)* : tanta

txortel 2 *(5)* : argizari tanta

txostabira *(5)* : zotz, ezpal (egur hondarkia)

txotx 1 *(5)* : txotx

txotx 2 *(5)* : hari-botoi OH. Azkuek ´botoi-txotx´ ere dokumentatua.

txotxatu *(4)* : txotxatu */ berze irur [gizon]ak daude txotxatiar ellotruk xaî-xaîa (4):* beste hiru gizonak txotxatuta daude, guztiz eroturik.

txotxika *(5)* : *(bot.)* sabuka, intsusa

txotxika-mats *(5)* : *(bot.)* intsusa-fruitu

txotxolo *(11)* : txotxolo OH. ´Txutxulo´ aldaera ere dokumentatua.

txotxotu *(5)* : txotxatu

txozne *(5)* : *(suk.)* txozne (ogi mota) OH. Urraul Goitin ere dokumentatua. ´Txosne´ aldaera ere

badago.
txukadera *(5, 7)* : eskuoihal, xukadera
txukadora *(5)* : eskuoihal, xukadera
txukatu *(5)* : lehortu
txukatu 2 *(4)* : garbitu, xahutu
txuku *(5)* : lehor
txuku-txuku *(5)* : txuku-txuku (txerriari deitzeko)
txula *(5, 10, 11)* : *(suk.)* urdai, xingar */ txulurina (10):* xingar gantza. OH. Artolak ´txula´ hitza ´urdai xafla´ oharrarekin dokumentatua.
txulapeko *(11)* : *(suk.)* urdaipeko, xingarpeko (txerri atala)
txulubi *(5)* : txilibitu
txulubita 1 *(5, 11)* : txilibitu
txulubita 2 *(5, 11)* : *(mus.)* txirula
txulubita 3 *(10)* : argal (oso) OH. Adiera honek ´txirula´ musika tresnaren izenetik eratorria dirudi.
txulubitari *(5)* : *(mus.)* txirulari
txume *(5)* : xume, txiki
txumil *(5)* : zimel
txumiltu *(5)* : zimeldu
txumur *(2, 5)* : zimur
txumurkatu *(5)* : zimurtu (berez)
txumurritu *(9)* : zimurtu
txungur *(11)* : txerri-hezur OH. Aznarezek ´urdaiazpikoaren hezurra, salda egiteko erabiltzen da´ oharrarekin dokumentatua. Zaraitzun ere dokumentatua.
txunku 1 *(4, 5)* : *(bot.)* ihi
txunku 2 *(4)* : *(anat.)* ukondo
txunku 3 *(5)* : *(anat.)* giltzadura, artikulazio
txunkur *(5)* : *(anat.)* giltzadura, artikulazio
txuntxun 1 *(6, 9)* : *(mus.)* tuntun */ plaztara prisaka txuntxunean dantzatra [xuaitako] (9):* plazara presaka tuntunean dantzatzera joateko.
txuntxun 2 *(11)* : tuntun, ttunttun (adj.) OH. Azpeitian ´zuntzuna´ dokumentatua, emakumeei esanda.
txuntxur *(5, 11)* : *(anat.)* eztarri, zintzur OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian ´chunchurro´ forman dokumentatua, zahato estalkiaren izen gisa.
txuntxur-mi *(5)* : *(anat.)* aho-gingil
txuntxurkatu *(5)* : txanbihurtu (haria, soka)
txur-txur *(11)* : bor-bor (irakitearen onomatopeia)
txuri *(1, 5)* : zuri */ krutxe txuria (1):* gurutze zuria. */ oillarra, txuria (5):* oilarra, zuria.
txuritu *(11)* : zuritu (fruituak eta)
txurki *(11)* : xuhurki OH. Aznarezek ´tentuz´ oharrarekin dokumentatua. Garden ´poliki´ adieran eta Izaban ´pixkanaka´ adieran dokumentatua. ´Zuhurki´ adberbioaren forma dirudi, hedadura semantiko ezberdinekin.
txurro 1 *(5, 11)* : txurro OH. Esku-makilaren nahiz euritakoaren atala.
txurro 2 *(5)* : *(kir.)* txurra OH. Golfaren antzeko mutilen jokoa.

txurroka *(5)* : txurraka OH. Makilen txurroarekin bolak joz egiten den jokoan jardunez.
txurru *(5)* : xurru OH. Errotako ale-gordailutxoa.
txurrunpa *(5)* : mugikor */ ortzak txurrunpa (5):* hortzak mugikor. OH. Ikus ´txonpla´ sarrera eta adibidea.
txurrunpatu *(5, 11)* : kulunkatu (sehaska)
txurrunpere *(2, 5)* : *(med.)* elgorri, txarranpin OH. Azkuek ´txurrunperi´ dokumentatua.
txurrunplu *(9)* : *(med.)* elgorri, txarranpin
txurrusta 1 *(1, 10, 11)* : *(geog.)* ur-jauzi */ urdu dun txurrusta bat (10):* ur-jauzi bat zirudin. OH. Artolaren adibidea malko ugariez ari da. Aznarezek ´txurrusta, txurruxta, txurruta, txorrota´ aldaerak dokumentaturik dauzka.
txurrusta 2 *(5)* : txirbil (handiak)
txurrusta 3 *(11)* : lubeta OH. Aznarezek ´haurrek jolasteko erabiltzen duten lubeta txikia´ oharrarekin dokumentatua. Gaztelanian gorderik, aldaera eta sinonimo ugari ditu > ´purrustelera, repustelera, churrustadero, churrusta, lisadera, lisandereta, lisadero, terristadero´.
txurrustatu *(9, 11)* : hostokatu, hostoak kendu (adarrari)
txurrutx *(5)* : *(bot.)* ezkerte
txurruxta 1 *(2)* : txurrusta (txikigarria)
txurruxta 2 *(5)* : *(geog.)* ur-jauzi
txurruxtakatu *(5)* : erauzi, atera */ unratze korren ostoak txurruxtaka itzak (5):* erauzi itzak hurritz horren hostoak.
txurruztatu *(5)* : aletu OH. Azkuek ´babarrunak, artoa aletu´ argibidearekin dokumentatua.
txurunperi *(5)* : *(med.)* elgorri, txarranpin
txurusta *(5)* : *(geog.)* ur-jauzi
txut 1 *(5)* : txistu, tu
txut 2 *(5, 11)* : xut */ kukula txut du emazte [karek] (5):* burua xut du emakume hark. */ mendi txut[a] (5):* mendi xuta (aldapa handikoa). OH. Aznarezek ibarreko gaztelanian gordetako ´chuto´ (= tente) adjektiboan dokumentatua.
txut 3 *(5)* : lirain, lerden
txut egotzi *(5)* : txistua bota, tu egin */ txut egoztan dionak zeuriari, beitartiara erorten zau berari (5):* txistua zerura botatzen duenari, aurpegira erortzen zaio berari.
txuti *(3)* : zutik */ txuti izaririk, manatu [zabein] airer eta itxasoari aplaka litiala (3):* zutik jarririk, haizeei eta itsasoari bare litezela agindu zien.
txutik *(9)* : zutik */ xas adi txutik (9):* jar hadi zutik.
txutikatu *(9)* : zutitu, zutik jarri */ tzutika zte! (9):* zutitu zaitez!
txutiko *(5)* : taka-taka (haurrak ibiltzekoa)
txutirik *(3)* : zutik
txutirik izari *(3)* : zutitu, zutik jarri */ gunian izartan zelarik txutirik, erran zaun (3):* orduan zutik jartzen zela, esan zion.
txutitu *(3, 5)* : zutitu, zutik jarri */ [Jesusek] eskutik artu [zion] eta nexkaxia txutitu zen (3):* Jesusek eskutik hartu zuen eta neskatoa zutitu egin zen.
txutx 1 *(2, 3, 10, 11)* : txistu, tu
txutx 2 *(11)* : zahato-mutur; txorrotatxo */ txutxa (11):* zahato-muturra.
txutx egin *(7, 9)* : txistua bota, tu egin */ txutx egitako (9):* txistua botatzeko.
txutx egotxi *(3, 9, 10)* : txistua bota, tu egin */ bertan asi zren ari txutx egoxtra begitartian (3):*

berehala hasi ziren hari txistua botatzen aurpegian. */ txutx egoxten (3):* txistua botatzen. */ kark egotxi diztazu txutx begiara (9):* hark txistua bota dit begira. */ egotxi dien txutx bat (10):* txistua bota din.

txutxa 1 *(5)* : txistu, tu

txutxa 2 *(5)* : karkaxa

txutxale *(5)* : txistuzale, txistu botazale

txutxika *(2, 4)* : *(bot.)* sabuka, intsusa */ kemen aztan dra txutxika eta urrutxa (4):* hemen sabuka eta hurritza hazten dira. */ txutxika loria bedatsian biltan da urte guzuko (4):* sabuka lorea udaberrian biltzen da urte osorako.

txutxu-mutxu *(5)* : txutxu-mutxu

txutxu-mutxu egin *(5)* : txutxu-mutxuka aritu, ahopeka hitz egin

txutxurru *(5)* : tontor, gailur */ mendi txutxurru[a] (5):* mendi gailurra. OH. ´Txutxurro´ ere dokumentatua.

txutxuta *(9)* : zut-zuta, tente */ kori dun debria txutxuta (9):* hori deabrua dun zut-zuta.

txuxmuxka *(5)* : txutxu-mutxuka

txuztaltu *(5)* : aletu OH. Azkuek ´babarrunak, artoa aletu´ argibidearekin dokumentatua.

tzakur *(6)* : *(zoo.)* txakur (handia)

-tzale *(5, 6, 7)* : -tzaile, -le */ saltzale (5):* saltzaile. */ iltzale (6):* hiltzaile. */ saltzale (7):* saltzaile.

tzapast *(5)* : zipriztin, zapasta OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

-tzar *(4, 6)* : -tzar (handigarria) */ mando andi batian edo mandatzar batian (4):* mando handi batean edo mandatzar batean. */ handitzar, ontzar (6):* handitzar, ontzar.

tze *(5)* : ugaritasun (atzizki moduan) */ zorritze[a] (5):* zorri ugaritasuna.

-tze 1 *(1)* : -tza, leku

-tze 2 *(4)* : -ondo (zuhaitz atzizkia) */ itzagurtze (4):* intxaurrondo.

tzikolo-takolo *(5)* : narras, saskil, zikinki

tzintz *(5, 10)* : muki, zintz */ ama, tzintzak! (10):* ama, mukiak!

tzintzer *(10)* : zintzarri

tzintzurri *(5)* : *(anat.)* eztarri, zintzur

tzintzurri-legun *(5)* : gozozale

tzintzurrimin *(5)* : *(med.)* zintzurmin, angina

tzirdil *(5)* : atzamarkada, harramazkada

tzirtzil *(5)* : lits

tzokorro *(5)* : mutil (hazitxoa)

tzorongo *(5)* : buru-zapi OH. Erronkariko agureen buru-zapia.

tzotziko *(5)* : *(lag.)* ziri, gezur

tzotzikoa sartu *(5)* : *(lag.)* ziria sartu, gezurra esan

tzuntzur *(5, 8, 9)* : *(anat.)* eztarri, zintzur */ tzuntzurra (8, 9):* eztarria, zintzurra.

tzuntzur-garañoi *(5)* : *(anat.)* zintzur-heste OH. Azkuek ´zintzur-hestearen goialdea´ zehaztapenarekin dokumentatua.

tzuntzur-lazo *(5)* : zintzur-laxo, zurrutari (edale handia)

tzuntzur-mi *(5)* : *(anat.)* aho-gingil

tzuntzurmin *(5)* : *(med.)* eztarriko min, angina

tzupust 1 *(5)* : topo egite

tzupust 2 *(5)* : talka

tzupust egin 1 *(5)* : topo egin
tzupust egin 2 *(5)* : talka egin
tzurrunpa *(10)* : tortolos, kurkulux */ orai xoaitan gitun tostara, tzurrunpara (10):* orain jolas egitera goaz, tortolosetan.

U

uar *(5)* : uher (uholde ura)
uarre *(5)* : uher (uholde ura)
uartu *(8)* : uhertu OH. Mitxelenak ´herdoildu´ esanahian dokumentatua. Ikus ´erdoi´sarrera.
uaxka *(5)* : oihuka
ubartu *(8)* : uhertu OH. Mitxelenak ´herdoildu´ esanahian dokumentatua; hedadura semantikoz, ziurrenik. Ikus ´erdoi´ sarrera.
ubel *(5)* : beltzaran, ilunkara */ ogi kau, aiñariaz naste dielakotz, ubel erkin da (5):* ogi hau, zekalez nahasi dutelako, beltzaran atera da.
ubeldura *(5)* : ubeldura, ubelune (azalekoa)
uda *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : uda */ eta erkiten drenian ostuak, abaño dago uda (3):* eta hostoak irteten direnean, hurbil dago uda. */ azken uda igarian (4):* igarotako azken udan. */ daigun udan xinen [da] kona (4):* datorren udan etorriko da hona. */ egun digu udako azken xeia (4):* egun dugu udako azken jaia. */ korren bizia dun udan kanta eta kanta (4):* horren bizia dun udan kanta eta kanta. */ den negu nola den uda, betik da arropa lagun (5):* negua izan edo uda izan, beti da arropa lagun. */ udan ixikitan gra ta negiuan karroia (5):* udan pizten (erretzen) gara eta neguan izotza. */ udan bero egitan du (7):* udan bero egiten du. */ uda gaisto (9):* uda txarra. */ udan xoaitan tun eguatxa korrez gora (10):* udan ibai horretan gora joaten ditun.
uda iragan *(7)* : uda igaro
udalein *(5)* : uda hasiera OH. Euskara batuan eta bizkaieraz ´udalehena = udaberria´; Azkuek Erronkarin ´uda hasiera´ dokumentatua.
udamin *(5)* : udamin
udazken *(5)* : uda amaiera
uduku 1 *(5, 9)* : eduki */ uduku zan (9):* eduki ezan.
uduku 2 *(5)* : kabitu, sartu
uduri *(5)* : antzeko */ uduriak udurieki, ni ere kaieki (5):* antzekoak antzekoekin, ni ere haiekin.
uek *(5)* : zuek */ uek erran dezei (5):* zuek esan duzue. */ uen[a] (5):* zuena. OH. Azkuek dio ´uek´ ´zu ergatiboa´ dela batetik eta ´zuek nominatiboa´ bestetik.
ufa *(11)* : putz (uzkerra)
ugaitz *(5)* : *(geog.)* ibai, ugalde
ugaltadar *(5)* : ibaiadar
ugaltarri *(5)* : ibai-harri, ugaldarri
ugalte *(1, 2, 3, 4, 5)* : *(geog.)* ibai, ugalde */ osin ugaltea (1):* osin ibaia. */ itxasoak eta ugalteak (2):* itsasoak eta ibaiak. */ euriak [erori zren] eta ugaltiak erkin zren marjinetarik (3):* euria erori zen eta ibaiak ertzetatik atera ziren. */ ugaltetako erriadak [xin zren] (3):* ibaietako uholdeak etorri ziren. */ mendiko ugaltea [da] (4):* mendiko ibaia da. */ atzo zortzi erori zen ur erauntsi andi bat, eta ugaltian zûr zauden guziuak eraman ztion (4):* atzo zortzi erori zen ur erauntsi handi bat, eta ibaian zeuden zur guztiak eraman zituen. */ zûrak ugaltiaz bera [eramaiten dra] (4):* zurak ibaian behera eramaten dira. */ ugaltea burar xastan duk, nonbait euri egin dik (5):* ibaia uher jaisten duk, nonbait euria egin dik. */ zurak eramaiten dra ugaltiaz bera (5):* zurak ibaian behera eramaten dira. */ ugalteraz zoatzaia? (5):* ibairantz al zoaz?
ugarre *(5)* : uher (uholde ura)

ugarte *(1)* : uharte */ Arrizibieta ugartea (1):* Hartzubi(ko) uhartea.

ugatx *(1, 2, 5)* : *(geog.)* ibai, ugalde */ ugatx altea (1):* ibai aldea. */ itxasoak eta ugatxak (2):* itsasoak eta ibaiak.

ugoitontzi *(5)* : ur-ontzi leku OH. Azkuek ´suilak edo murkoak eta pegarrak (edukitzeko) lekua´ esanahiarekin dokumentatua.

ugun *(5)* : nazka, higuin

uguntu 1 *(3, 5, 7, 9)* : gorrotatu */ anitxek ugunten [die] alkar (3):* anitzen elkar gorrotatuko dute. */ eta xek elten zrei uguntruk [izaitra] (3):* eta zuek gorrotatuak izatera helduko zarete. */ [mazte kori] uguntu diezt (9):* emakume hori gorroto dut.

uguntu 2 *(4, 5)* : gaitzetsi, arbuiatu */ eta yi yaz guziuen uguntiua (4):* eta hi guztiek gaitzetsia haiz.

uistu *(5)* : txistu (tresna)

ukabeil *(5)* : ukabilkada

ukaiña *(5)* : *(erai.)* presa-enbor OH. Azkuek ´presak egiteko erabiltzen diren habeak´ esanahiarekin dokumentatua.

ukakor *(5)* : ezkor

ukaldi 1 *(5)* : kolpe, ukaldi

ukaldi 2 *(5)* : aldi

ukaldika *(5)* : kolpeka, ukaldika

ukamentu *(3)* : ukapen */ san Pedroren ukamentiuak (3):* san Pedroren ukapenak.

ukarai *(2, 4, 8, 9)* : *(anat.)* eskumutur, ukarai */ ukaraia (4, 9):* eskumuturra, ukaraia.

ukatu *(3, 4, 9)* : ukatu */ ark ukatu zion guziuen antzinian (3):* hark ukatu zuen guztien aurrean. */ ukatan nindiona gizonen antzinian, nik ere ukaten [dur] ene aitaren antzinian (3):* gizonen aitzinean ukatzen ninduena nik ere ukatuko dut ene aitaren aitzinean. */ saduzeuak, erresurrekzionia ukatan deinak (3):* saduzearrak, berpizkundea ukatzen dutenak. */ nik ez daizud ukaten (3):* nik ez zaitut ukatuko. */ ez dazazu uka begitartia (3):* ez ezazu uka aurpegia. */ uste dud ez daitadala ukaten mezu gidatia (4):* uste dut ez didala ukatuko mezua bideratzea. */ egia ukatu ziezun (9):* egia ukatu zuen.

uko *(5)* : uko

uko egin 1 *(5)* : uko egin

uko egin 2 *(5)* : akitu, makaldu (jarraitu ezinik geratu)

uko egin 3 *(5)* : gogaitu (nor)

uko eragin *(5)* : gogaitu (nor-nork)

ukoan egon *(5)* : temati egon, ukoan egon

ulun 1 *(2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : ilun (adj.) */ tenpra digu ulun (4):* eguraldi iluna dugu. */ alargun, begi ulun (5):* alargun, begi ilun (goibel). */ ez ulun bai ulun (5):* ez ilun bai ilun (= erdi ilun). */ ulun, ulunago (7):* ilun, ilunago. */ gorri ulun[a] (7):* gorri iluna. */ zer ulun! (9):* zer ilun! */ ulunian (10):* ilunean.

ulun 2 *(2, 5, 8, 9)* : ilun, iluntasun */ argia eta uluna (2):* argia eta iluna. */ lotsa dionarentako uluna zau argi ezkapatako (5):* beldurra duenarentzako iluna zaio argi ihes egiteko. */ uluna xitan da (8):* iluna dator. */ xin ztei etserat, uluna duk (9):* etor zaitezte etxera, iluna duk.

ulun 3 *(6)* : ilun, goibel */ biotza ulun (6):* bihotza ilun.

ulun beltz *(5, 8)* : ilun beltz, gau ilun */ ulun beltzean (5):* ilun beltzean, gau ilunean. */ ulun beltza (8):* ilun beltza, gau iluna.

ulunabar *(2, 5)* : ilunabar OH. Azkuek ´ulun nabar´ dokumentatua.
Ulunberri *(9)* : *(geog.)* Irunberri
ulundura *(5)* : ahulezia (goseak sortua) OH. Zubereraz ´ülhündura´ dokumentatua.
ulungu *(3)* : iluntasun */ ulunguan eroririk zagon iri konek ekusi du argi andi bat (3):* iluntasunean eroririk zegoen herri honek argi handi bat ikusi du. */ ulungua balimada zutan, ulungua berak zer andi izanen dra! (3):* iluntasuna zugan badago, zer handia izanen den iluntasuna! */ egotxirik [izanen dra] kanpo ulungiuetra (3):* boteak izanen dira kanpoko iluntasunera.
ulunpe 1 *(5, 6, 9, 10)* : ilunpe */ ulunpetik argiara erkin (6):* ilunpetik argitara atera. */ ulunpea (10):* ilunpea.
ulunpe 2 *(5)* : serio (pertsona)
ulunska *(5)* : ilunxka
uluntu *(3, 4, 7, 10)* : ilundu */ iguzkia ulunten da, goikuak ez du argiten (3):* eguzkia ilunduko da, ilargiak ez du argituko. */ [zore begia] gaxki balimadakazu, zore korpiz guziua egonen tzu uluntruk (3):* zure begia gaizki baldin badaukazu, zure gorputz osoa ilundurik egonen da. */ zerengatik goikua ulunten baizen (4):* zeren eta ilargia ilunduko baitzen. */ bertan ulunten da (7):* berehala ilunduko du (da). */ uluntu[k] dion (10):* ilundurik zagon.
ullan 1 *(3, 5)* : hurbil, gertu
ullan 2 *(5)* : ia */ irarik ez deinek eta ez ere ullan iraren mobimenturik (3):* amorrurik ez dutenak eta ia amorruaren mugimendurik ere ez.
ullantu *(5, 9)* : hurbildu, gerturatu
umagin *(5)* : umegile
ume 1 *(2, 4, 5, 8, 10, 11)* : ume */ zuri gaudezu deiez, Ebaren ume desterratu kuek (2):* zuri deika gaude, Ebaren ume erbesteratu hauek. */ umien aztako tenpran (4):* umeak hazteko garaian. */ aita lazoen umek ogi txiki eta anitx bizio (5):* aita laxoen umeek ogi gutxi eta bizio asko. */ umiak (8):* umeak. */ umia (10):* umea.
ume 2 *(3, 8)* : seme; alaba (nongoa) */ gizon bat [erden zein], Zireneko ume (3):* gizon bat aurkitu zuten, Zireneko semea. */ ni etxe kontako ume [naz] (8):* ni etxe honetako alaba naiz.
ume 3 *(4, 5)* : *(zoo.)* kume, ume */ aintzaren umia aztaparkin (4):* ahuntzaren umea atzaparkari. */ aintzaren umea aintzume (5):* ahuntzaren umea antxume. */ gatiaren umea atzaparkina (5):* katuaren umea atzaparkaria. OH. Mendigatxak zehaztua da zaldia, astoa, mandoa eta zezena ere jaiotzean ´ume´ direla. Urtebetera bakoitzak bere izena du; ikus ´putxu´, ´attoko´, ´manyoko´ eta ´xâl´ sarrerak.
umeak arrerazi *(5)* : umeak harrarazi OH. Ardiak nahiz behiak bere umea maite ez duenean, umea amari lotu, hark maite izan dezan arte.
umeondoko *(5)* : karen, selaun
umeontzi *(5)* : umetoki (behiena)
umerri *(5)* : arkume, bildots (hila)
umexun *(5)* : semeorde
umil *(2)* : umil, apal */ biotzez umilak (2):* bihotzez apalak.
umore 1 *(5)* : umore (aldartea)
umore 2 *(2)* : *(med.)* erreuma, hezueri
umorotz *(5)* : *(med.)* umorotz, eskrofula
un 1 *(2, 4, 7, 8, 9)* : *(anat.)* garun, muin */ al banu, eskuta batez sar nazake buruko unen erdi-*

erdian gore uskararen mintza moldia (4): ahal banu, eskutada batez sar niezaioke (?) buruko muinen erdi-erdian gure euskararen mintzamoldea. */ gore uskara sar lakion buruko unetraino (4):* gure euskara sar lekion buruko muinetaraino. */ anitx gose igartan dionak nai du unak itzul dazkion erze (5):* gose handia pasatzen duenak nahi du muinak heste bihur dakizkion. */ unen aurkian atxiki dabei (5):* muinen parean jo dute. */ burian tiagun unak (7):* buruan muinak ditinagu. */ unak (8, 9):* muinak.

un 2 *(2)* : *(suk.)* muin

un 3 *(5)* : on */ gai unik! (5):* gabon!

un 4 *(5)* : muin (abereen adar barrukoa)

unai *(5)* : *(nek.)* unai, behizain

unbula *(5)* : *(tek.)* errota-turbina (?) OH. Azkuek ´turbina, errotarria´ esanahi(ar)ekin dokumentatua.

ungrukatu *(3)* : bildu */ Josefek, bada, Jesusen korpiza [artan ziolarik], ungrukatu zion mantre xaî batian (3):* Josefek, bada, Jesusen gorputza hartzen zuela, izara garbi batean bildu zuen.

unguratu *(5)* : inguratu

unguru *(3, 5, 8, 9)* : inguru */ Belenen eta unguru guziuan aur zauden guziuak [iltako] (3):* Belenen eta inguruan guztian zeuden haur guztiak hiltzeko. */ Jesusen unguriuan [isaririk] (3):* Jesusen inguruan jarririk. */ gizona antzinian [eta] ungurian (8):* gizona aurrean eta inguruan. */ dantzatan gindenian, guziak ungurian (9):* dantzatzen ginenean, guztiak inguruan.

unguruka *(5)* : inguruka

ungurun-buelta(ka) *(5)* : itzulipurdika

ungurune *(4)* : ingurune, inguru */ ungurunean ebastan yuanareki bizi yaz (4):* inguruan lapurtzen duanarekin bizi haiz. */ nestatia oboroagotan da ungurunetan, noiz ta karrontek galarztan teinian erintziuak (4):* beharra gehiagotan da inguruneetan, noiz eta izozteek galarazten dituztenean ereintzuak (labore-uztak). */ eskerrak unguruneko emazter!, berzainez eztakid zer izanen zen kan (4):* eskerrak inguruneko emakumeei!, bestela ez dakit zer izango zen han.

unkailo *(5)* : *(suk.)* ongailu, gozagarri

unkuruka *(5)* : negar-intzirika

unpurdoi *(5)* : ipurudi, orre leku

unpuru *(2, 5)* : *(bot.)* ipuru, orre

unr *(5, 7, 9, 10)* : *(bot.)* hur */ unrak (7):* hurrak. */ diagu unrik [xanen diagu] (7):* zenbait hur jango dugu. */ unra, amar unr (9):* hurra, hamar hur. */ bar diagun xoan unr biltra (10):* hurrak biltzera joan behar dinagu.

unratze *(5)* : *(bot.)* hurritz */ unratze korren ostoak txurruxtaka itzak (5):* erauzi itzak hurritz horren hostoak. */ unratzeak (5):* hurritzak.

unre-oindo *(5)* : *(bot.)* urre-onddo

untxe *(2, 4)* : *(zoo.)* untxi */ juan gitian untxiaren iltra (4):* joan gaitezen untxia hiltzera.

untxi 1 *(5)* : *(zoo.)* untxi

untxi 2 *(5)* : *(bot.)* huntz

untz-osto *(5)* : huntz-osto

untze *(2)* : *(bot.)* huntz

unude *(5)* : inude

unudeaur *(5)* : inude-haur

uñurri 1 *(9, 10)* : *(bot.)* abilurri OH. Elorri zuriaren fruitua.

uñurri 2 *(8)* : *(zoo.)* inurri
uñurritze *(9)* : *(bot.)* elorri zuri
upa! *(5)* : *(haur.)* aupa!
uparrata *(5)* : aupats, korrokada
upats *(5)* : aupats, korrokada
ûr *(2, 4, 5, 8)* : *(bot.)* hur */ urrutxtzia dago ûrrez pupullukatruk (4):* hurritza hurrez gainezka dago. */ paradusuko zabala, kanko ûrra sagarra (5):* paradisuko zabalera, hango hurra sagarra (da). */ ûrra (8):* hurra.
ur 1 *(1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11)* : ur */ ur zabala (1):* ur zabala. */ ur landa (1):* ur lursaila. */ ur xai (2):* ur garbi(a). */ ballenak eta uretan mobitan dren guziak (2):* baleak eta uretan mugitzen diren guztiak. */ baso bat ur otz (3):* edontzi bat ur otz. */ ur benedikatiuaz (3):* ur bedeinkatuaz. */ egiaz batixatan [ztied] urekin (3):* egiaz bataiatzen zaituztet urarekin. */ batixatu baikoz, Jesus uretik erkin zen istantian (3):* bataiatu bezain laster, Jesus uretatik atera zen berehala. */ ene semia aldi anitxez [erortan da] uriara (3):* ene semea anitz aldiz erortzen da uretara. */ iturriko ura bikain argi (4):* iturriko ura bezain argia. */ kemenko uren artra [xinen da] (4):* hemengo (senda-)urak hartzera etorriko da. */ [ardiek] erribra zolan urik ere ez emon dokei alkanza (4):* ardiek ibaiertz zoruan ere ez omen dezakete urik atzeman. */ su berri, ur benedikatu (5):* su berria, ur bedeinkatua. */ agorrileko ura da zafran, ezti eta ardau (5):* agorrileko ura safrana, eztia eta ardoa da. */ ura pitxeran (5):* ura pitxerrean. */ urez [bete] (6):* urez bete. */ [bañatu] nai tzunean, ur beroreki (7):* bainatu nahi duzunean, ur beroarekin. */ nora xoatan zra? uturriara uren txerka (7):* nora zoaz? iturrira ur bila. */ izar zan eltxano bat ur (9):* jar ezan eltzetxo bat ur. */ urean [diozu] (9):* uretan dago. */ ur ona, ura (10):* ur ona, ura. */ ezazeila edan ur kortarik (10):* ez ezazuela edan ur horretatik. */ bertz bat ureki plaztan (10):* pertz bat urarekin plazan. */ urondo (11):* ur ondo(a).
ur 2 *(5, 9)* : *(bot.)* hur */ urra (5, 9):* hurra.
ur 3 *(5)* : *(alb.)* porrila(k) OH. Ganaduaren hanketako ur-tumoreak.
ur bultzu *(5)* : ur laster */ ur bultz[ia] (5):* ur lasterra. OH. Errotakoa batez ere.
ur ezti *(5)* : ur geza */ ur eztia (5):* ur geza.
ur-berde *(5)* : *(anat.)* behazun, gibelmin OH. Azkuek ´pluralean erabiltzen da´ oharrarekin dokumentatua.
ur-bizar *(5)* : ur-bizar OH. Urak bere bidean uzten duen hondarkia.
ur-bulzu *(5)* : *(geog.)* ur-jauzi
ur-eramankin *(5)* : ur-eramankin OH. Azkuek ´lur jausia edo urak daramatzan hondakinak´ esanahiarekin dokumentatua.
ur-txakur *(5)* : *(zoo.)* ur-txakur
ur-xauzi *(5)* : ur-jauzi (errota-gurpilekoa)
ur-zurrusta *(5)* : *(geog.)* ur-jauzi
ura *(2, 3, 8, 10)* : hura */ ura baretan zelarik birjen erdiz lein (2):* hura birjina geratzen zela erdi baino lehen. */ ura da salbatu biar diona bere iria bere bekatiuetarik (3):* hura da bere herria bere bekatuetatik salbatu behar duena. */ ura´ re mitil (8):* hura ere morroi (zerbitzari).
urak *(3, 10)* : haiek (ez ergatiboa) */ urak gisa berian, eitzirik errediak, xarrekitu zizazkan (3):* haiek gisa berean, sareak utzirik, atzetik joan zitzaizkion. */ txerrietaz gizenten gra, orobat nola urak gizentu baidra gutaz (4):* txerriez gizenduko gara, orobat, haiek gutaz gizendu diren bezala.

urak bide egin *(5)* : denbora joan, urak bide egin */ urak bide eginen du (5):* denbora joanen da, urak bide eginen du.
urandi *(5)* : *(geog.)* ibai, ugalde
urbultzu *(4)* : uholde */ erreketarik xuntatu zen urbultziuak [zûr] ugaltian zaudenak eraman ztion (4):* erreketatik elkartu zen uholdeak ibaian zeuden zurak (enborrak) eraman zituen.
urdaiki *(5)* : *(suk.)* urdai, xingar
urdain *(1)* : txerrizain, urdain */ urdain ola (1):* txerrizain(en) txabola.
urdaki *(10)* : *(suk.)* urdai, xingar
urdanbelar *(5)* : *(bot.)* urdanbelar OH. Zehaztu gabeko landarea. Azkuek ´urdantxiribiri-ren aldaera´ oharrarekin dokumentatua.
urdantegi *(1)* : *(nek.)* txerritegi, urdandegi */ urdantegieta (1):* txerritegi eta.
urdantei *(9)* : *(nek.)* txerritegi, urdandegi */ aprila biribila, xerria urdanteian ila (9):* apirila biribila, txerria txerritegian hila.
urde 1 *(1, 5)* : *(zoo.)* txerri */ urdalezea (1):* urde leizea.
urde 2 *(5)* : zikin
urdin 1 *(1)* : gris, urdin */ arrurdineta (1):* haitz urdin eta, haitz gris eta. */ uturrurdineta (1):* iturri urdin eta.
urdin 2 *(5)* : ur arre, ur uher
urdin 3 *(5)* : zikin
urdindu 1 *(5, 7)* : uhertu (ura)
urdindu 2 *(5)* : zikindu
urdintu *(5)* : lizundu, urdindu
urdu 1 *(5, 10)* : iruditu */ urdu zit, urdu zio (5):* iruditzen zait, iruditzen zaio. */ urdu dun yi gisa (10):* hire gisakoa zirudin. */ badion rosada bat andiao ezik etxakin zer, urdu dun elurra dagola (10):* antzigar handiagoa dago ez jakin zer baino, elurra dagoela zirudin.
urdu 2 *(3, 7)* : antzeko
urdu izan 1 *(3, 4, 5, 7, 9)* : iruditu, eman */ [norbait] txikerrago urdu izanik ere, ezdeustako [ekunik izanen da] (3):* norbait txikiagoa iruditurik ere, ezereztzat edukia izango da. */ [familiako aita bat] urdu du (3):* familiako aita bat dirudi. */ urdu bazaizu, [egin] tzagun kemen iror [ola] (3):* iruditzen bazaizu, egin ditzagun hemen hiru txabola. */ zer urdu zaizu, Simon? (3):* zer iruditu zaizu, Simon? */ zer urdu zaizeid eginen diola? (3):* zer iruditzen zaizue eginen duela? */ erran daizguzu zer urdu zaizun kontaz (3):* esan iezaguzu zer iruditzen zaizun hau. */ kanpoko altetik urdu baitei pollit (3):* kanpoko aldetik politak baitirudite. */ ortzei eta izar zazei urdu zaizein gisa (3):* zoazte eta jar ezazue iruditzen zaizuen bezala. */ konek urdu du badiola obroxago azku eratsukitako (4):* [maisu] honek ematen du baduela gogo gehixeago irakasteko. */ urdu zaitad gaudela biak xunto, beitartez beitarte (4):* biok elkarrekin gaudela iruditzen zait, aurrez aurre. */ etsekuer urdu zabei zartruk dagola (4):* etxekoei iruditu zaie zaharturik dagoela. */ ezaitadan kain gaxki urdutan yire urdukala (4):* ez zaidan hain gaizki iruditzen hire iritzia. */ [iltearen iragoa] urdu dik (4):* heriotzaren oihua zirudik. */ yiri urdu zaik besten eltxanoa urrez eta yorea ez lurrez (5):* hiri iruditzen zaik besteen eltzetxoa urrez eta heurea ez lurrez. */ erle-durrundak e[z]kila-durrunda urdu du (5):* erle-burrunbak kanpai-burrunba dirudi. */ [anitx gazte] urdu da (7):* oso gaztea dirudi. */ kolaxe urdu da (7):* horrelaxe dirudi. */ urdu du sor dagola (9):* gor dagoela dirudi.
urdu izan 2 *(3, 7)* : antzekoa izan */ bigarna da koni urdu (3):* bigarrena honen antzekoa da. /

alaba urdu da amari (7): alaba amaren antzekoa da.

urdukal *(4)* : iritzi */ egiaren erraiteko, ene urdukalari, zartruk [dago] (4):* egia esan, nire iritziz, (berori) zaharturik dago. */ ezaitadan kain gaxki urdutan yire urdukala (4):* ez zaidan hain gaizki iruditzen hire iritzia. OH. Orotariko Euskal Hiztegian ere jasoa. Esanahiz, ´urdukal´ hitzak irudipenari lotua dirudi.

urdunputxa *(5)* : *(bot.)* ziape

urdupen *(3, 4, 5)* : iritzi */ gizon diskrezione deinen urdupenian (3):* zuhurtzia duten gizonen iritzian. */ elezko lista oiltu daitadana, ene urdupenian, obeki emonen naun entelegatra itzez (4):* bidali didan hitz zerrenda, ene iritziz, hobeki emanen nion aditzera hitzez. */ deuri emoitea da abratsena eta zarrek urdupena (5):* dirua ematea aberatsena da eta zaharrek iritzia.

urdutruk izan *(3)* : antzekoa izan */ zeuri[ko] reinua da urdutruk gizon erin ziona bati azi ona bere alurrian (3):* zeruko erreinua bere alorrean hazi ona erein zuen gizonaren antzekoa da.

urdutu 1 *(3, 4)* : iruditu */ onki urdutu zitzaun Herodesi (3):* Herodesi ongi iruditu zitzaion. */ [leinak] eltu zrenian, urdutu zabein emonen zitzabeila obro (3):* lehenak heldu zirenean, gehiago emango zitzaiela iruditu zitzaien. */ zer urdutan zaizei? (3):* zer iruditzen zaizue? */ ene familiari ezau onki andi urdutu ekus tzan mundiuak zer erraiten daitadan (4):* ene familiari ez zaio oso ongi iruditu munduak ikus dezan zer erraten diodan.

urdutu 2 *(3)* : iruditu, eman */ [jentiler] urdutan zabei entzunik izan biar deila ele anitxen indarrez (3):* jentilei iruditzen zaie entzunak izan behar dutela hitz askoren indarrez.

urgune *(5)* : *(geog.)* iturburu

urin *(2, 5, 8, 9, 10)* : gantz, bilgor; gurin */ urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa eta martxo gaisoari egozten dabei kulpa (5):* urtarrilak jaten du gurina, otsailak jaten du haragia eta martxo gaixoari botatzen diote errua. */ urina zîatruk [dago] (8):* gurina mamituta dago. */ urina, [anitx] urin (9, 10):* gantza, gantz asko. */ txulurina (10):* xingar gantza.

urin zuku *(5)* : *(suk.)* bilgor salda

Uriña *(5, 8, 10)* : *(geog.)* Iruñea */ Uriña, urnena Uriñan [izan nuzu] (8):* Iruñean, urrunena Iruñean izan naiz. */ Uriñatik enuzu karatago xuan (8):* Iruñetik ez naiz haratago joan. */ Simona izaguntan zezein Uriña guzian (10):* Simona ezagutzen zuten Iruñea osoan. */ [aizpari eskia] Uriñan moztu (10):* ahizpari eskua Iruñean moztu (zioten).

Uriñerri *(5)* : *(geog.)* Iruñerri

urizkitu 1 *(5)* : estutu (eskuekin)

urizkitu 2 *(5)* : ebaki, ebakia egin (ebakiz ireki)

urkagi *(1)* : urkaleku */ urkagieta (1):* urkaleku eta.

urkari *(5)* : urketari

urkatu *(3)* : urkatu */ Judas urkatu zen (3):* Judasek bere burua urkatu zuen.

urleku *(2)* : *(geog.)* urmael; urgune

urlia *(4, 5)* : urlia */ urliak kontatu zaun sandiari ixiltarzun guziua (4):* urliak sandiari sekretu osoa kontatu zion. */ urliari orki niak (5):* urliaren zain negok.

urlurtar *(7)* : *(zoo.)* urlehortar, anfibio */ urlurtarrak (7):* urlehortarrak, anfibioak.

urmegune *(5)* : *(geog.)* ibi, ubera

uroilo *(5)* : *(heg.)* martin arrantzale

urondar *(5)* : ur-hondar OH. Azkuek ´animaliei ematen zaien ur erabilia´ argibidearekin dokumentatua.

urpe *(4)* : urpe */ izeia egotx eta bertan isartan bada urpean, erranez naz eztela tustatan sekula´ re*

(4): izeia bota eta berehala urpean jartzen bada, esango nuke ez dela sekula ere usteltzen.

urrakoi *(5)* : hauskor OH. Azkuek ´oihalez eta paperaz esaten da´ oharrarekin dokumentatua.

urrats *(3, 5, 9)* : urrats, pauso */ kargatruk milla urratsez (3):* mila urratsez (urratsetan) kargaturik. */ antzinatan zelarik zomait pasuz edo urratsez (3):* zenbait pauso edo urrats aurreratzen zela. */ bearriak xai tun yik, entzun yoke aiñamerma baten urratsa (5):* belarriak garbi ditun hik, armiarma baten urratsa entzun dezaken. */ altapan eitz nazak ñore urratsean (5):* aldapan utz nazak neure urratsean. */ kebentik kara amar urrats [dion] (9):* hemendik hara hamar urrats zagon. */ ezaiela urrats gaistorik egin (9):* ez ezazula urrats txarrik egin.

urratsez urrats *(5)* : urratsez urrats

urratu 1 *(3, 4)* : urratu (aditza) */ [oxala] urratan du (3):* oihala urratzen du. */ [apez nausiak] urratu ztion bere beztidurak (3):* apaiz nagusiak bere jantziak urratu zituen. */ tenpluaren belua urratu zen bi zatitan gain bera (3):* tenpluko errezela bi zatitan urratu zen goitik behera.

urratu 2 *(3)* : urratu (izena) */ andiago egiten da urratiua (3):* handiago egiten da urratua.

urratze *(5)* : *(bot.)* hurritz

urre *(2, 3, 5, 8, 9)* : urre */ urre, inzensu eta mirrazko presentiak (3):* urrea, intsentsua eta mirra opari. */ etzazei eraman urrerik eta ez deus deuririk xaurien folletan (3):* ez ezazue eraman urrerik eta ez deus dirurik zeuen diruzorroetan. */ juramentu egiten urriaz (3):* juramentu egiten urreaz. */ zoinek balio du obro, urriak edo tenpluak? (3):* zeinek balio du gehiago, urreak edo tenpluak? */ etsea urrez, boltsa lurrez (5):* etxea urrez, poltsa lurrez. */ urria (8):* urrea.

urre-aire *(5)* : urre antzeko OH. Azkuek ´kobre berriaz, distiratsuaz esaten da´ oharrarekin dokumentatua.

urri 1 *(5)* : koskor (burukoa)

urri 2 *(5)* : konkordun

urri-urri *(5)* : mukuru beteta

urriaran *(5, 10)* : *(bot.)* gurriaran */ urriarana (10):* gurriarana. OH. Baratzeko aran mota bat.

urrieta 1 *(2, 4, 7, 10)* : udazken */ negiua, bedatsia, uda eta urrieta (4):* negua, udaberria, uda eta udazkena.

urrieta 2 *(2, 4, 6, 7)* : urri (hilabetea) */ 1903ko urrietakoaren 29´na (4):* 1903ko urriaren 29.a. */ 1904ko urrietaren 29´na (4):* 1904ko urriaren 29.a.

urrietaka *(9)* : ereitera */ urrietaka [xoan tun] (9):* ereitera joan ditun.

urrietara *(9)* : ereitera */ urrietara [xoan tun] (9):* ereitera joan ditun.

urrin *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 9)* : urrun */ zore eskoîneko eskiua ebaki zazu eta egotx zazu zutarik urrin (3):* zure eskuineko eskua ebaki ezazu eta bota ezazu zugandik urrun. */ ez urrin kantik, txerri saldo andi bat [zagon], alatan (3):* handik ez urrun, txerri saldo handi bat zegoen, bazkatzen. */ erri urrintra [faiten zen] (3):* herrialde urrunetara joaten zen. */ kan urriniarat anitx emazte [zauden] (3):* han, urrunera, emakume anitz zeuden. */ urrinarat dirdiratan dei suek mendien erdian (4):* urrunean suek dirdiratzen dute mendien erdian. */ urrinxago Erroldan Fuertiak ezpata [xaitan du] (4):* urrunxeago Errolan Zangarrak ezpata garbitzen du. */ begi txikerrak du ekustea urrinago (5):* begi txikiak urrunago ikustea du. */ urringanik (5):* urrundik. */ iguzkia lurretik urrin dago (7):* eguzkia lurretik urrun dago. */ urrinago [xoan da] (7):* urrunago joan da. */ urrin, urrinago, urrinena (9):* urrun, urrunago, urrunena. */ urrinen dagona (9):* urrunen dagoena. */ urrin, urrinao (10):* urrun, urrunago. OH. Azkuek ´urringanik oso gutxi erabilia´ oharrarekin dokumentatua. Eta Uztarrozen ´urrin = urrun, urrundik´ dokumentatua.

urrinarazi *(4)* : urrunarazi */ orren kartaren indarrareki, urrinaraz [dutud] pensamentu guziuak*

(4): berorren gutunaren indarrarekin, pentsamendu guztiak urrunarazi ditut. OH. ´Urrinaraztu dud´ dokumentaturik.

urrindanik *(6)* : urrundik

urrindu *(7)* : urrundu OH. ´Urrintu´ espero zitekeen.

urringanik *(6)* : urrundik

urringo *(5)* : urruntasun

urrinki *(3)* : urrundik */ Pedro faiten zitzaun xarrekituz urrinki (3):* Pedro urrundik jarraituz joaten zitzaion.

urrintu *(9)* : urrundu */ urrintu dun (9):* urrundu dun.

urritx *(1, 9)* : *(bot.)* hurritz */ urritxa (1, 9):* hurritza.

urritz *(1)* : *(bot.)* hurritz

urriziza *(11)* : *(bot.)* urriziza

urriztoi *(1)* : hurrizti */ urriztoia (1):* hurriztia.

urruputx *(5)* : *(bot.)* arbi (hazitarakoa)

urruti *(1)* : urruti */ urrutiko oxana (1):* urrutiko basoa. OH. ´Urruti´ hitzak toponimian ´-az bestalde´ erran nahi izaten du.

urrutx *(1, 2, 4, 9)* : *(bot.)* hurritz */ urrutxpuria (1):* hurritz goialdea. */ eztagola betik urrutxa makila egiteko (4):* ez dagoela beti hurritza makila egiteko. */ kemen aztan dra txutxika eta urrutxa (4):* hemen sabuka eta hurritza hazten dira. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

urrutxtze *(4)* : *(bot.)* hurritz */ urrutxtzia dago ûrrez pupullukatruk (4):* hurritza hurrez gainezka dago.

urruxkide *(4)* : baketze-otorduko mahaikide */ urruxkideak (4):* baketze-otorduko mahaikideak.

urso *(7)* : *(heg.)* uso */ ursoa (7):* usoa.

ursorgu *(5)* : iturburu

urtabe *(5)* : urtabe on OH. Urtabea euskara batuan ´urtebeteko denboraldia´ da. Azkuek Erronkarin ´urte ona, emankorra´ esanahiarekin dokumentatua.

urtadar *(5)* : urtadar (zuhaitz baten urteko adarrak)

urtaldi *(5)* : urtaldi on (uzta onekoa) OH. Urtaldia euskara batuan ´urtebeteko denboraldia´ da. Azkuek Erronkarin ´urte ona, uztatsua´ esanahiarekin dokumentatua.

urtari *(5)* : urtari (urteko hornidura) OH. Iparraldean ere dokumentatua.

urtaro *(5)* : urtaldi on (uzta onekoa)

urtarril *(2, 4, 5, 6, 7, 8)* : urtarril */ 1904ko urtarrilaren 10gn (4):* 1904ko urtarrilaren 10.a. */ urtarril otza, neguan bigotza (5):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ urtarrilak jaten du urina, otsailak jaten du polpa eta martxo gaisoari egozten dabei kulpa (5):* urtarrilak jaten du gurina, otsailak jaten du haragia eta martxo gaixoari botatzen diote errua. */ urtarrila (6, 7, 8):* urtarrila.

urtatu *(7)* : bainatu

urtaur *(5)* : urte-haur (urte berean jaiotako haurrak)

urtaztu *(5)* : uretan jarri OH. Azkuek ´Lihoa uretan edukitzea, bizarrak bereizteko´oharrarekin dokumentatua.

urte *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : urte */ urtian bein goresima[n] konfesa gitiala (2):* urtean behin garizuman aitor gaitezela. */ urtian bein bedrere (3):* urtean behin bederen. */ aur guziuak, bi urtetarik apal, [iltako] (3):* haur guztiak, bi urtetik behera, hiltzeko. */ irorogei ta zortzi urte (4):* hirurogeita zortzi urte. */ urteko bigerren ilebetea (4):* urteko bigarren hilabetea. */ ezkur den urtian eramaiten dra txerriak ezkurriara (4):* ezkurra dagoen urtean txerriak ezkurretara

eramaten dira. */ kementik irur urteren buruko (4):* hemendik hiru urteren buruko. */ nik entzutiaz dud izeiak eta lerrak irurein urteren bizia deila (4):* nik entzutea dut izeiek eta lerrek hirurehun urteko bizia dutela. */ kota onki konpontan badun, urtea igaren dun (5):* gona ongi konpontzen badun, urtea igaroko dun. */ maiatza, urtearen giltza (5):* maiatza, urtearen giltza. */ april on ekusi bear dionak ein urtez bear du bizi (5):* apiril ona ikusi behar duenak ehun urtez behar du bizi. */ xoan dan urtea[n], xitan dan urtea[n] (7):* joan den urtean, datorren urtean. */ egun betatan dutur urteak (7):* gaur urteak betetzen ditut. */ bost urtez espartiñak xostan (8):* bost urtez espartinak josten. */ xitan den urtian bizi neila (8):* datorren urtean bizi nadila. */ urtia (10):* urtea. */ igar den urtian egon zuntian keben (10):* igaro den urtean egon ziren hemen. */ laurogei eta amar urtetra eltu (10):* laurogeita hamar urtetara heldu. */ nik amiror urtetan ikasi nia (10):* nik hamahiru urterekin ikasi nuen.

urte berri *(4)* : urte berri */ urte zarreko egunak, urte berri eta errege egunetako xeiak (4):* urte zaharreko egunak, urte berri eta errege eguneko jaiak.

urtea ta eguna *(5)* : denbora luzea

urtea ta egunen mentean *(5)* : inoiz ez */ urtea ta egunen mentean etzaitadak antzeren partida gaizto egin daitadanaz (5):* inoiz ez zait ahaztuko egin didan partida txarra.

urteak betatu *(7)* : urteak bete */ egun betatan dutur urteak (7):* gaur betetzen ditut urteak.

urteaur *(5)* : urte-haur (urte berean jaiotako haurrak)

urteberri *(5, 7, 8, 10)* : urteberri */ urteberri zereki, urteko xai andiak kareki (5):* urteberri zerekin, urteko jai handiak harekin. */ urteberri zereki, urteko eguberri guzuak kareki (5):* urteberri zerekin, urteko egun berri guztiak harekin. */ urteberriko goikoa dun guziuetarik argiena (5):* urteberriko ilargia dun guztietan argiena. */ urtearen lein eguna urteberri da (7):* urtearen lehen eguna urteberri da. */ urteberriz xinen zrei gore etxeara (7):* urteberriz gure etxera etorriko zarete. */ urteberrira [eltan banaz, laurogeita] zazpi (10):* urteberrira heltzen banaiz, laurogeita zazpi.

urtebete *(3)* : urtebetetze */ Herodesen urtebetiaren festan (3):* Herodesen urtebetetzeko festan.

urtebetegun *(5)* : urtebetetze egun

urtegiro *(5)* : urtaldi on (uzta onekoa)

urtemuga *(5)* : urtemuga

urteoro *(4)* : urtero */ ´xaxgu´ urteoro egiten deina, ganztaren egiteko [onla da] (4):* ´jetzitegia´, urtero egiten dena, gazta egiteko txabola da.

urterik urteara *(7)* : urtetik urtera, urtez urte

urteril *(8)* : urtarril */ urteril otza, negiaren biotza (8):* urtarril hotza, neguaren bihotza. */ urterila leina da (8):* urtarrila lehena da.

urteroz *(5)* : urtero */ urteroz Ernazera iror beiantxaren txerka xoaitan dra (5):* urtero Ernazera hiru bigantxaren bila joaten dira.

urterril *(8, 9)* : urtarril */ urterrila (8):* urtarrila. */ urterril otza, negiaren biotza (9):* urtarril hotza, neguaren bihotza.

urtezar *(4, 5, 7)* : urtezahar (eguna) */ gore Jeinak nai diola igar tzagun Urte Zarra bere grazia saintiuan (4):* gure jaunak nahi duela urtezahar eguna igaro dezagun bere grazia santuan.

urtiki *(5, 8, 9)* : jaurti; bota */ urtikitan nai (8):* botatzen nau. */ urtiki zan suara (9):* jaurti ezan sutara.

urtoski *(5)* : iturburu

urtsu *(5)* : iturburu (txikia) */ goikoaren llarniak agortan tu urtsiuak (5):* ilargiaren ziskuak

agortzen ditu iturburu txikiak.

urtsutu *(5)* : urtsutu, ura bota (likido bati)

urtu *(7)* : urtu

urtuxi 1 *(5)* : oinustu

urtuxi 2 *(5)* : oinutsik, ortozik

urtxori *(5)* : *(heg.)* buztanikara

Urtzainki *(6)* : *(geog.)* Urzainki */ Urtzainkirik [xuan da] (6):* Urzainkitik joan da.

urtzainkiar *(6)* : urzainkiar */ urtzainkiarra (6):* urzainkiarra.

uruku *(6)* : eduki

urule *(5)* : irule */ emazte urule gaixtoari ezau ekustan atorra berririk (5):* emakume irule txarrari ez zaio ikusten atorra berririk.

urun *(3, 5, 9, 10)* : irun, ardaztu */ beztidua´re dela kasoz, ez dezei ez lanuatan, ez urutan ere (3):* jantzia ere dela eta, ez duzue laboratzen, ezta iruten ere. */ anixko beatan dion etsukandreak txiki urutan du (5):* askotxo begiratzen duen etxekoandreak gutxi iruten du. */ burkuilaz urutan dena zukuna da (5):* goruaz iruten dena irazkia da. */ uruten dei (5):* iruten dute. */ urutako (9, 10):* iruteko. */ urunen diar (10):* irungo dut. */ bidan burkulla urun zadan (10):* emadan gorua irun dezadan.

Urunberri *(5, 9)* : *(geog.)* Irunberri */ bat, bida, iror, laur, otsoak Urunberrin gaur (5):* bat, bi, hiru, lau, otsoak Irunberrin gaur (gauean). */ Urunberrira [xuaitan nun] (9):* Irunberrira noan.

Uruña *(5, 6, 7, 9, 10)* : *(geog.)* Iruñea */ Uruñakoa (6):* Iruñekoa. */ [ek] Uruñako dra (7):* haiek Iruñekoak dira. */ trein kau xoatan dia xuxen Uruñara? (7):* tren hau zuzen Iruñera al doa? */ Uruñako estazioneara eltu gra (7):* Iruñeko geltokira heldu gara. */ Uruñara iror mando [oiltu nian] (7):* Iruñera hiru mando bidali nituen. */ Uruñarik [xitan nun] (9):* Iruñetik natorren. */ kara xoan, Uruñara, eta zortzi egunetan irabaztan dein obeki (10):* hara joan, Iruñera, eta zortzi egunetan hobeki irabazten dinate.

Uruñerri *(5)* : *(geog.)* Iruñerri

urur *(10)* : hiru */ biak urur urteren burian il [zren] (10):* biak hiru urteren buruan hil ziren. */ urur aurride (10):* hiru haurride.

urxo *(3, 5)* : *(heg.)* uso */ urxo saltan [zeinak] (3):* usoak saltzen zituztenak. */ [zeuritik] xaisten [ekusi zion] urxua (3):* zerutik jaisten ikusi zuen usoa. */ sugien gisa eta urxuen bikala [izan biar tzei] (3):* sugeen gisa eta usoak bezalakoak izan behar duzue. OH. Azkuek txikigarria ere badela dio.

urxotegi *(5)* : usategi

Urzainki *(2, 5, 7)* : *(geog.)* Urzainki */ Urzainkirik eta Erronkarira bideak on dira (5):* Urzainkitik eta Erronkarira bideak onak dira. */ Urzainkiko ostatiara [xoanen gra] (7):* Urzainkiko ostatura joanen gara.

urzankiar *(1, 6)* : urzainkiar

urzo *(2, 5, 8)* : *(heg.)* uso */ urzua (8):* usoa.

urzondo 1 *(2)* : egunsenti, goiztiri

urzondo 2 *(5)* : *(met.)* ihintz

urzoume *(5)* : *(heg.)* usakume

urztatu *(5)* : ureztatu

urzu *(9)* : *(heg.)* uso */ urzu bat (9):* uso bat.

urzume *(5)* : *(bot.)* zume jator

urzutegi *(5)* : *(erai.)* usategi
usai *(5)* : usin, dominstiku
usaî *(5)* : usin, dominstiku
usain *(5, 9)* : usin, dominstiku
usain egin *(5)* : usin egin, dominstiku egin
usardi *(5)* : ausardia, adore
usarte *(5)* : tartean sartze, tartean nahaste
usartu *(5)* : tartean sartu, tartean nahasi
use *(2, 5)* : *(geog.)* baso OH. Azkuek ´Bonap(arte)´ oharrarekin dokumentatua.
usi 1 *(2, 4)* : *(geog.)* baso */ usi batan igartia[n], otso bat [erkin zitzabein] (4):* baso batean igarotzean, otso bat atera zitzaien. */ Iratiko usiaren ostoak airiareki mobitan baidra (4):* Iratiko basoko hostoak haizearekin mugitzen baitira. */ usian azkatu baitud [edo] baidud (4):* basoan goratu baitut. */ usiara juan dein (4):* basora joan dadin.
usi 2 *(5)* : lodi (likidoak)
usi 3 *(5)* : maiz, usu
usi 4 *(5)* : ugari */ biloa algar du korrek, usi eztu (5):* ilea barbana du horrek, ugaria ez du.
usin 1 *(1)* : *(geol.)* osin */ uturrusina (1lm):* iturri osina.
usin 2 *(4, 11)* : *(met.)* bisuts, lauso */ usin dagonaz, ez dokegu lexoetarik karrikara kukurik egin (4):* dagoen bisutsaz, ez dezakegu leihoetatik kalera kukurik egin. OH. Zaraitzun ´auso´ dokumentatua.
usin 3 *(5)* : elur-jausi
usin 4 *(9)* : usin, dominstiku
uskaldun *(4, 5, 7, 9, 10)* : euskaldun */ eskribain berri bat, uskaldun (4):* eskribau berri bat, euskalduna. */ uskaldunek xorroxtan dei beren axkorak (4):* euskaldunek beren aizkorak zorrozten dituzte. */ bai, uskalduna naz (7):* bai, euskalduna naiz. */ mugaren beste altekuak [d]itun gu gisa uskaldunak (7):* mugaren beste aldekoak gu bezala euskaldunak ditun. */ uskalduna (9):* euskalduna. */ iror uskaldun (10):* hiru euskaldun.
Uskaldun Erri *(4)* : *(geog.)* Euskal Herri */ eztago xa estranjerorik Uskaldun Errian (4):* ez dago jada atzerritarrik Euskal Herrian. OH. Mendigatxa jaunaren ´Orreaga´ itzulpenean Campionek ´Uskaldu-Errian´ handiz, eta ´Erronkariko uskara´ ikasliburuan Jose Estornesek ´uskaldun erria´ txikiz dokumentatua.
Uskalerri *(5, 6)* : *(geog.)* Euskal Herri */ Uskalerria (6):* Euskal Herria.
uskara *(2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : *(hizk.)* euskara */ aita Scioren erdaratik Bidangozeko uskarara utzulia (2):* aita Scioren erdaratik Bidankozeko euskarara itzulia. */ gore uskara sar lakion buruko unetraino (4):* gure euskara sar lekion buruko muinetaraino. */ erraiten daud ez nazala trebe llober uskararen ikasaraztra (4):* erraten diot ez naizela ausartzen bilobei euskara ikasarazten. */ ezta estrañu izanen zerbait liferenzia erden tzan gunetik konat ene uskaran (4):* ez da arraroa izango ezberdintasunik aurki dezan ordutik hona nire euskaran. */ orren uskara entelegatan dur (7):* berorren euskara ulertzen dut. */ Erronkariko irietan uskararen arima salbatu deiner (7):* Erronkariko herrietan euskararen arima salbatu dutenei. */ xuan zunien zertuz, uskara galtuz (8):* zertuz joan zen, euskara galduz. */ baia guk ez digu entelegatan onki orien uskara (8):* baina guk ez dugu ongi ulertzen berorien euskara. */ eta galtatu zitazun´ orrek dakia uskara?´ (10):* eta galdetu zidan ´berorrek (ba) al daki euskara?´. */ zien uskara (10):* zuen euskara.

uskaraz *(2, 4, 7, 9, 10)* : euskaraz */ doktrina uskaraz, [orazioneak] uskaraz (2):* dotrina euskaraz, otoitzak euskaraz. */ uskaraz eskribitan dionetarik [zernaiden gaiza arten dud] (4):* euskaraz idazten duenetik edozer gauza hartuko dut. */ tenpra guziuan uskaraz ele erraiteko (4):* denbora guztian euskaraz hitz egiteko. */ alaba eta ni alkar mintzaten gra uskaraz (4):* alaba eta ni elkarrekin mintzatuko gara euskaraz. */ uskaraz ele erraitan dein gizon-emazte guzuer (7):* euskaraz hitz egiten duten gizon-emakume guztiei. */ elerran diagun uskaraz (9):* euskaraz hitz egin dinagu. */ irurak xuntatan gindenian, anitx elerraitan gindezun uskaraz (10):* hirurak elkartzen ginenean, anitz hitz egiten genuen euskaraz.

uskarazko *(4)* : euskarazko */ ekustan dud antzinatan diona uskarazko lan andi daramanian (4):* ikusten dut aurreratzen duena daraman euskarazko lan handian.

usma *(5)* : usaimen

usman *(5)* : usainka

usmatu 1 *(5)* : usaindu, usnatu

usmatu 2 *(5)* : iragarri, profetizatu

Ustarroze *(6)* : *(geog.)* Uztarroze */ Ustarrozerik [xuan da] (6):* Uztarrozetik joan da.

ustarroztar *(6)* : uztarroztar */ ustarroztarrak (6):* uztarroztarrak.

uste egon *(5)* : zain egon

uste ekun *(4, 5, 7, 9, 10)* : uste izan */ uste dud berze tenpra batez eskribi (4):* uste dut beste aldi batean idatziko diodala. */ ez dud uste gatxiten zaula (4):* ez dut uste gaitzitzen zaionik. */ uste dud ez daitadala ukaten mezu gidatia (4):* uste dut ez didala ukatuko mezua bideratzea. */ [elurra] xin zaikugu uste bino lein (4):* elurra uste baino lehen etorri zaigu. */ zer uste duk? zeuria tipulaz den? (5):* zer uste duk? zerua tipulaz dela? */ uste nia onki egitan [niela] (7):* uste nuen ongi egiten nuela. */ uste niezun keben zaudela (9):* uste nuen hemen zeudela. */ karretera dagolakotz, uste dei egitan den onki (10):* errepidea dagoelako uste dute ongi egiten dela.

ustebage *(5)* : ustekabe

ustebagerik *(4, 5)* : ustekabean, ustekaberik */ ez dud nai arrapa daztadan ustebagerik (4):* ez dut nahi ustekabean harrapa nazan. */ emazteak artan dionean lotsaldi bat ustebagerik, egiten du txalanpa (5):* emakumeak ustekabean izualdi bat hartzen duenean, oihu egiten du.

ustebagian *(9)* : ustekabean, ustekaberik

ustego 1 *(5)* : uste, iritzi

ustego 2 *(5)* : uste, susmo

ustegoan egon *(5)* : uste izan */ ustegoan nago (5):* (hala) uste dut.

ustei *(5)* : uztai

Usteinki *(9)* : *(geog.)* Urzainki */ Usteinkirik [xin nun] (9):* Urzainkitik etorri naun.

usteinkiar *(9)* : urzainkiar */ usteinkiarrak (9):* urzainkiarrak.

usteltu *(5)* : usteldu

usterle *(5)* : *(zoo.)* liztor

ustetan egon *(4)* : ustetan egon, uste izan */ baia nago ustetan eztiola erkinen (4):* baina ustetan nago ez duela aterako.

ustez *(3, 4)* : ustez */ ene ustez isartan daud dakidan obekienaz (4):* ene ustez (gutunean) jartzen diot dakidan ongien.

ustu *(5, 7, 8)* : hustu */ bien artian xakua ustu [zien] (8):* bien artean zahatoa hustu zuten.

usun *(1)* : *(geol.)* osin */ usun ondoa (1):* osin ondoa. */ usun ugaltea (1):* osin ibaia.

usuri *(3, 4, 5)* : isuri */ odol usuri den guziua lurraren gainian (3):* lurraren gainean isuri den odol

guztia. */ buriuaren gainian [usuri zion] (3):* buruaren gainean isuri zuen. */ emazte batek [balsamu] usurtan baitu aren gainian (3):* emakume batek baltsamua isurtzen baitu haren gainean. */ [ark balsamu kaur ene korpiz gainian] usurtian (3):* hark baltsamu hau nire gorputz gainean isurtzean. */ ene odola izanen baita usuririk anitxengatik (3):* ene odola anitzengatik isuririk izanen baita. */ naro eskatan naz gore jeinari usur ditzan orren gain bere bendizioniak (4):* maiz eskatzen diot gure jaunari isur ditzan berorren gain bere bedeinkapenak.

usurtu 1 *(3)* : isuri (aditza) */ kaur egiten bada, lertan da zagia eta usurtan ardaûa (3):* hau egiten bada, zahagia lehertzen da eta ardoa isurtzen.

usurtu 2 *(3)* : isuri, isurketa

utaxur *(5)* : itogin (kanpokoa) OH. Euskara batuan ´itogina´ eta ´itaxurra´ sinonimoak dira. Azpeitian, ´istille´ (= kanpoko itogina) dokumentatua.

uts 1 *(3, 4, 6)* : huts */ uts andirekin zabiltzei, etzeilakoz entelegatan eskriturak (3):* huts handiarekin zabiltzate, ez dituzuelako ulertzen idatziak. */ utsian edo gezurrian [eroren baizren] (3):* hutsean edo gezurrean eroriko baitziren. */ [etxe] utsa (6):* etxe hutsa.

uts 2 *(5)* : antzu (zuhaitza)

uts 3 *(7)* : huts, zero

uts edo bete *(5)* : nolanahi, asko pentsatu gabe

uts egin *(4)* : huts egin */ ez nai naun erran deus ere, usterik uts egiten niola (4):* ez nion deus ere erran nahi, usterik huts egiten nuela.

utsal 1 *(5)* : hutsal

utsal 2 *(5)* : zeken, zikoitz */ gizon utsal bat (5):* gizon zeken bat.

utsaldi *(5)* : ustekabe txar

utsarte *(5)* : hutsarte

utsarteka *(5)* : hutsarteka, txolarteka

utsi *(3, 4, 5, 8, 10)* : itsu */ utsi batek berze utsi bat [giatan badu], biak erortan dra ziluara (3):* itsu batek beste itsu bat gidatzen badu, biak erortzen dira zulora. */ bi utsi [sontotan tu] eta endemoniatu mutu bat (3):* bi itsu sendatzen ditu eta deabrudun mutu bat. */ ekustia [emoitan du] bi utsiri (3):* ikustea ematen die bi itsuri. */ etsera eltu zen bertan, utsiak [xin zizazkan] (3):* etxera heldu eta berehala, itsuak etorri zitzaizkion. */ [orai] utsiek ekustan dei (3):* orain itsuek ikusten dute. */ etse bat erretan zela, utsi zen ekuszalea (5):* etxe bat erretzen zela, itsua zen ikuslea. */ sorzaroz da gizon kori utsi (5):* jaiotzaz (jaiotzez) da gizon hori itsua. */ utsien errian okerra errege (5):* itsuen herrialdean begibakarra errege.

utsi-utsika *(5)* : itsu-itsuka (jolasa)

utsigei *(5)* : itsuaurreko, itsumutil

utsik *(4, 9, 10)* : hutsik */ lepoko gorbatak berark eratsukitan du nola dakan utsik gizenkiaren lekiua (4):* lepoko gorbatak berak erakusten du nola daukan hutsik gizenkiaren lekua.

utsirik *(3)* : hutsik */ ona, bada, xen etsia duala baratra utsirik (3):* hona, bada, zuen etxea hutsik geratzera doala (hutsik geratuko dela).

utsitu *(4, 5, 7)* : itsutu */ lauretarik bata dago utsitruk (4):* lauetatik bata itsuturik dago. */ ñore begi minareki, erdi utsitruk [baratu naz] (4):* neure begiko minarekin, erdi itsuturik geratu naiz. */ lein utsitan da begi andia ezik txikerra (5):* lehenago itsutzen da begi handia txikia baino. */ laurogei urtetra [eltu zenian] utsitruk [baratu zen] (7):* laurogei urteetara heldu zenean, itsuturik geratu zen.

utsu *(5)* : itsu

utsusi *(7, 9, 10)* : itsusi, zatar
utsusu *(9, 10)* : itsusi
utsuts *(5, 9)* : itsusi */ utsusago ezik eburniko debria (9):* itsusiagoa infernuko deabrua baino.
utturrinko *(5)* : iturburutxo
uturburu *(1)* : iturburu */ uturburua (1):* iturburua. */ basagein uturburia (1):* basagain(eko) iturburua.
uturri *(1, 2, 3, 5, 7, 8, 9, 10)* : iturri */ uturri zarra (1):* iturri zaharra. */ salbazaliaren uturriak (2):* salbatzailearen iturriak. */ uturri eta izorro bikala [sortan dra] (3):* iturri eta sustrai bezala sortzen dira. */ [ainguriek] eraman nintzein uturriara (5):* aingeruek iturrira eraman ninduten. */ uturrietan ebiltan dan sugeño bikalako bat, aria gisa, ez lodiago (5):* iturrietan ibiltzen den sugetxo bezalako bat, haria bezalakoa, ez lodiagoa. */ nora xoatan zra? uturriara uren txerka (7):* nora zoaz? iturrira ur bila. */ uturria (9, 10):* iturria.
uturribegi *(5)* : iturburu
uturrinko *(5)* : iturburutxo (garrantzi gutxikoa)
uturru *(1)* : iturri */ uturru berrua (1):* iturri lursaila. */ uturrubieta (1):* iturribieta (?).
uturruburu *(1)* : iturburu */ uturruburua (1):* iturburua.
utz *(4, 5)* : putz (uzker mota) */ amaizunari obe zau bere umearen utza ezik semeizunaren atsa (5):* amaordearen hobea zaio bere umearen putza, semeordearen hatsa baino. */ soto bapanari on zaizka bere utzak (5):* ukuilu bakoitzari onak zaizkio bere putzak.
utzarazi *(5)* : debekatu
utzi *(7, 9, 10)* : utzi */ oraiˊre utziren diagu orobat (7):* orain ere berdin utziko diagu. */ eztiar utzen akaba artio (7):* ez dut utziko bukatu arte. */ utzˊazu dagon gisa (9):* utz ezazu dagoen bezala.
utzontzi *(5)* : putzontzi
utzu *(3, 5, 7, 8, 10)* : utzi */ graziak emoitan daizur, utzu nidaizkos eltra egun kontra (3):* eskerrak ematen dizkizut, egun honetara heltzen utzi nauzulako (?). */ bat artu, bestea utzu (5):* bat hartu, bestea utzi. */ emaztek gero, berantago utzu zedein [uskara] (8):* emakumeek gero, beranduago utzi zuten euskara. */ utzu diar, utzu ziezun (8):* utzi diat, utzi zuen. */ baia sekula etzuitan uztan (8):* baina sekula ez zuen uzten. */ aurrek ez [dei] uztan (10):* haurrek ez dute uzten.
utzuli 1 *(2, 3, 4, 7)* : itzuli */ utzuli [biar diola juizioko egunian] (2):* itzuli behar duela epaiketako egunean. */ eztudala berriz utzuli biar (2):* ez dudala berriz itzuli behar. */ [Jesus etsera] utzuli zen (3):* Jesus etxera itzuli zen. */ gero utzulen zra (3):* gero itzuliko zara. */ bakia utzulen da xauriekin (3):* bakea zeuekin itzuliko da. */ [nausia] utzultian (3):* nagusia itzultzean. */ ez obrorik bekatiuara utzultako (3):* ez gehiago bekatura itzultzeko. */ alorrian [dagona] ez deila utzul (3):* alorrean dagoena ez dadila itzuli. */ utzul daztazud zure osagarriaren alegria (4):* itzul iezadazu zure osasunaren poza. OH. ´Uzuli´ ere dokumentatua.
utzuli 2 *(2, 5)* : itzuli (emandakoa) */ ebatsi badugu, utzul zagola (2):* ebatsi badugu, itzul dezagula.
utzuli 3 *(2, 3)* : itzuli (jiratu) */ utzul dazkuzu zore begi miserikordiazko korik (2):* itzul iezazkiguzu zure begi errukizko horiek. */ norbaitek eratxikitan badaizu eskoîneko maxelan, utzul dazazu berzia ere (3):* norbaitek eskuineko masailean jotzen bazaitu, itzul ezazu bestea ere. */ Jesusek, utzulirik arengana, erran zaun (3):* Jesusek, harengana itzulita, esan zion.
utzuli 4 *(2)* : itzuli (testuak) */ aita Scioren erdaratik Bidangozeko uskarara utzulia (2):* aita Scioren erdaratik Bidankozeko euskarara itzulia.
utzultu *(5)* : mindu (esnea)

utzuluka 1 *(5, 9)* : zabuka (erori)
utzuluka 2 *(5)* : gainazpika (borrokatzea)
utzuluka-zainkuka *(5)* : itzulipurdika
utzulukaka *(5, 9)* : itzulipurdika; zabuka
ux *(7)* : ur */ badina ux onki, bestela orobat (7):* ura badun ongi, bestela berdin. */ ogi ta uxik [xatan dokei] (7):* ogia eta ura jaten daukate.
uxatu *(5)* : uxatu
uxi *(5)* : *(geog.)* baso
uxin *(11)* : *(met.)* bisuts, lauso
uxker *(5)* : uzker, puzker OH. Azkuek ´uzker zaratatsua´ oharrarekin dokumentatua. Ez dio txikigarria denik.
uxte *(7)* : urte */ egun dun ene uxte... (7):* gaur nire urtebetetzea da. OH. Ikus ´ibax´ sarrerako oharra.
uxter *(5)* : hauskor OH. Zaraitzun ere dokumentatua.
uxti 1 *(5)* : txistu (soinua)
uxti 2 *(5)* : txilibitu
uxti egin *(5)* : txistu egin
uxtigai *(5)* : *(bot.)* lizar-adar
uxtigaiatze *(5)* : *(bot.)* lizar
uxtigei *(5)* : *(bot.)* sahats
uxtika *(5)* : txistuka
uxtu 1 *(5, 7)* : txistu (soinua) */ ilaxagaren uxtiuari oiloek emoiten dei lasterrari (5):* belatxingaren txistua (entzutean), oiloek lasterrari ematen diote. */ oilloak oillojalearen uxtuaren sendite[an] ezkapatan dra (5):* oiloek miruaren txistua sentitzean ihes egiten dute. */ [treinak] uxtu bat egin du (7):* trenak txistu bat egin du.
uxtu 2 *(5)* : abiada, abiadura */ egoatxak uxtu andia darama (5):* ibaiak abiada handia darama.
uxtu 3 *(9)* : *(mus.)* txirula
uxtu egin *(5)* : txistu egin
uxtulari *(9)* : txistulari
uzkaili *(5)* : irauli
uzkar *(5)* : uzker, puzker
uzker *(4, 5, 8, 9)* : uzker, puzker */ [arzatzek otsoari] sudurretarik bapanak uzker bana [sartu zabein] (4):* ahariek otsoari bakoitzak uzker bana sartu zioten. */ zomat asto kainbat uzker (5):* zenbat asto hainbat uzker. */ uzkerra (8):* uzkerra.
uzkerti *(5)* : uzkerti, puzkerti
uzkia urritu *(5)* : kokoriko egon, pikotxean egon
uzku *(2, 4, 5, 8, 9, 10)* : *(anat.)* ipurdi */ yi nora yua? ni uzkiuara [erran zaun kikosoak] (4):* hi nora hoa? ni ipurdira (esan zuen arkakusoak). */ asto ilari uzkutik zuku (5):* asto hilari ipurditik zopa. */ uzkia (8):* ipurdia. */ asto ilari uzkutik olo (9):* asto hilari ipurditik oloa. */ uzku, uzkia, uzkea (10):* ipurdi, ipurdia. */ [anrak] xoaitan zia uzkiara (10):* heste-zizareak ipurdira joaten ziren. */ [anrak] erkitan zren uzkutik (10):* heste-zizareak ipurditik irteten ziren. */ kolaxet, uzkiaren erakustako (10):* honelaxe, ipurdia erakusteko.
uzkujauzka *(5)* : jauzika, saltoka
uzkukalde *(5)* : atzeraka (erori)

uzkumaxel *(2, 9)* : *(anat.)* ipurmasail */ uzkumaxela (2, 9):* ipurmasaila.
uzkurrustika *(5)* : jauzika, saltoka
uzkuxilo *(5)* : *(anat.)* uzki
uzkuzilo *(8)* : *(anat.)* uzki */ uzkuzilotik erkitan den gaiza kaka (8):* uzkitik irteten den gauza kaka (da).
uzkuziri *(5)* : *(nek.)* golde-ziri (mota)
uzta *(5)* : *(nek.)* uzta
uztarre *(9)* : *(nek.)* uztarri */ uztarre bat (9):* uztarri bat.
uztarretse *(5)* : *(nek.)* uztarretxe OH. Uztarriaren arkua.
uztarri *(3, 5, 8)* : *(nek.)* uztarri */ lepoko uztarria (8):* lepoko uztarria.
Uztarrotze *(7)* : *(geog.)* Uztarroze */ kebentik Uztarrotzera laur kilometro [daude] (7):* hemendik Uztarrozera lau kilometro daude.
Uztarroze *(2, 4, 7, 8, 9)* : *(geog.)* Uztarroze */ Izabako morroiak eta Uztarrozekoak (7):* Izabako mutikoak eta Uztarrozekoak. */ ama Uztarrozeko, amaren ama Uztarrozeko (8):* ama Uztarrozekoa, amaren ama Uztarrozekoa. */ atzorratsen xin nindia[n] Uztarrozerik (9):* atzo arratsean etorri ninduan Uztarrozetik.
uztarroztar *(7, 8)* : uztarroztar */ ni uztarroztar [naz] (7):* ni uztarroztarra naiz. */ uztarroztarrak (8):* uztarroztarrak.
uztarruztar *(9)* : uztarroztar */ uztarruztarrak (9):* uztarroztarrak.
uztartu *(5)* : uztartu
uztatu *(5)* : uztatu, uzta bildu OH. Iparraldean ere dokumentatua.
Uztroze *(1)* : *(geog.)* Uztarroze OH. Ikus Nafarroako Gobernua, 141. or.
Uztrozte *(11)* : *(geog.)* Uztarroze
uztupa *(5, 8, 9)* : iztupa, erbatz */ uztupa su ondoan, peligroa borta-pasuran (5):* iztupa su ondoan, arriskua ate(ko) pasaeran.
uzturi *(5)* : buztanpeko, aztaluhal
uzu *(5)* : azkura, gogo bizi

X

xa 1 *(3, 4, 5, 8, 10)* : jada, jadanik */ fan zte, zeren il baitra xa makinatan zeinak aurraren biziaren kontra (3):* joan zaitez, zeren jadanik hil baitira haurraren biziaren kontra jarduten zutenak. */ ez duala edanen xa obro oraidanik mats fruitu kontarik (3):* ez dudala jada gehiago edango oraindanik mahats fruitu honetatik. */ antzinatruk xa neskanegun gaia (3):* aurreraturik jada larunbat gaua. */ egun xa estaud obro isartan (4):* gaur jadanik ez diot gehiago jartzen. */ xin yaza xa? (4):* jada etorri al haiz? */ a! ori xa ez (8):* a! hori jada ez. */ xa e[z] bidra xoaitan mendiara (10):* jada ez baitira mendira joaten. */ zer ordu da xa? (10):* zer ordu da jadanik?

xa 2 *(5)* : gehienbat, bereziki */ irurak gustatan zaizkad, kau xa (5):* hirurak gustatzen zaizkit, hau bereziki. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

xabal *(5, 7)* : xabal (txikigarria) */ oskiak dauden xabal (7):* zapatak xabal zauden.

xabalko *(4, 11)* : eskailera-buru */ eskaler-xabalkoa (4):* eskailera-burua.

xabodera *(5)* : harraska, sukaltarri

xaboî *(5)* : xaboi

xabor *(5)* : legar OH. Hormagintzan eta errepideak konpontzeko erabiltzen diren harritxoak.

xagarko 1 *(10)* : *(bot.)* basasagar

xagarko 2 *(5)* : *(bot.)* basakamamila

xagi *(3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : jaiki */ xagi zte eta fan zte zore etsera (3):* jaiki zaitez eta zoaz zure etxera. */ xagi ztei eta etzazei lotsarik ekun (3):* jaiki zaitezte eta ez ezazue beldurrik izan. */ berjin kurak guziuak xagi zren (3):* birjina haiek guztiak jaiki ziren. */ xagitan [zen] (3):* jaikitzen zen. */ [Jose] xagitian, Israeleko lurriara xin zen (3):* Jose jaikitzean, Israeleko lurrera etorri zen. */ aigaltu eta xagi zen (4):* afaldu eta jaiki egin zen. */ aurreki etziten dena xagitan da kakaz nasirik (5):* haurrekin etzaten dena kakaz nahasirik jaikitzen da. */ negiuan xagitan laguntako (5):* neguan jaikitzen laguntzeko. */ eitz nazak xagitra, as nein lan egitra (5):* utz nazak jaikitzen, lan egiten has nadin. */ xagi naz [eta] oia egin dur (7):* jaiki naiz eta ohea egin dut. */ nai dur xagi seietan (7):* seietan jaiki nahi dut. */ oitik xagitean (7):* ohetik jaikitzean. */ zazpietan xagi nun [eta] ekuzi nun (8):* zazpietan jaiki naun eta garbitu naun. */ xagitan nun (8):* jaikitzen naun. */ ez ganorik xagitako (8):* jaikitzeko gogorik ez. */ xin bedi beztitra, eta gunian xagiren naz (8):* etor bedi (ni) janztera, eta orduan jaikiko naiz. */ [seietan] xagi banitz (9):* seietan jaiki banintz. */ xagi adi (9):* jaiki hadi.

xagu 1 *(5)* : garbi, xahu

xagu 2 *(5)* : *(zoo.)* xagu (txikigarria)

xaguadera 1 *(4)* : isurbide */ xaguadera (4):* isurbidea.

xaguadera 2 *(4)* : harraska, sukaltarri

xagutarzun *(5)* : garbitasun, xahutasun

xai 1 *(2, 5, 8, 9, 10)* : garbi, xahu */ izan gitiala xai itzez [eta] pensamentuz (2):* garbiak izan gaitezela hitzez eta pentsamenduz. */ ur xai (2):* ur garbi(a). */ bearriak xai tun yik, entzun yoke aiñamerma baten urratsa (5):* belarriak garbi ditun hik, armiarma baten urratsa entzun dezaken. */ xai dion (10):* garbi zagon.

xai 2 *(5)* : jai */ urteberri zereki, urteko xai andiak kareki (5):* urteberri zerekin, urteko jai handiak harekin.

xaî 1 *(3, 4, 5)* : garbi, xahu */ zore begia egon baledi xaî, zore korpiz guziua egonen tzu argitruk*

(3): zure begia garbi balego, zure gorputz osoa argiturik legoke. */ Josefek, bada, Jesusen korpiza [artan ziolarik], ungrukatu zion mantre xaî batian (3):* Josefek, bada, Jesusen gorputza hartzen zuela, izara garbi batean bildu zuen. */ bara zte xaî (3):* gera zaitez garbi. */ lepradunak baratan dra xaî (3):* legendunak garbi geratzen dira. */ biotz xaî bat (4):* biotz garbi bat.

xaî 2 *(5)* : garbi, argi

xaî 3 *(4)* : guztiz, zeharo */ berze irur [gizon]ak daude ellotruk xaî-xaîa (4):* beste hiru gizonak guztiz eroturik daude.

xai egun *(7)* : jai egun */ bigarnen xai egun[a] (7):* bigarren jai eguna.

xaigi *(2, 6)* : jaiki */ oitik xaigitian (2):* ohetik jaikitzean.

xaîki *(4)* : garbiki, argiki */ geroxago xaîki entelegatako nola biar dion izan alkar eskribiten gra (4):* geroxeago garbiki ulertzeko nola izan behar duen elkarri idatziko diogu. */ gaizak xaîki erran (4):* gauzak argiki erran.

xaîkin *(5)* : labatsaki (labe-erratza)

xailtulare *(3)* : *(zoo.)* matxinsalto */ bere bazkaria zen xailtulare eta mendiko ezti (3):* haren bazkaria matxinsaltoak eta mendiko eztia ziren. OH. ´Xailtulare´ zalantzaz dokumentatua. Ikus ´xauxtikalari´ sarrera.

xaînki *(5)* : garbiki, argiki

xaintu 1 *(5)* : garbitu, xahutu

xaintu 2 *(5)* : suntsitu, txikitu

xaintu 3 *(5)* : bihotza ireki, egia esan

xaintzi *(9, 10)* : jantzi */ zaipekoak xaintz eta lasterreka plaztara (9):* gonazpikoak jantzi eta lasterka plazara. */ amak ere xaintan zia pantalona eta ardien txainstra (10):* amak ere prakak janzten zituen eta ardiak jeztera.

xaisgu *(5)* : *(nek.)* jetzitegi (txabola, lekua)

xaispil *(5)* : zazpiki

xaitsi *(3, 10)* : jaitsi */ [zeuritik] xaisten [ekusi zion] urxua (3):* zerutik jaisten ikusi zuen usoa. */ [Pedro barkotik] xaistian, faiten zen erabiltan uraren gaiñ (3):* Pedro txalupatik jaistean, uraren gainean ibiltzen zihoan. */ xaistan (10):* jaisten.

xaitu *(5)* : garbitu, xahutu */ ile xaia (5):* artile garbitua, artile ikuzia.

xaîtu *(2, 3, 4, 5)* : garbitu, xahutu */ bekatiak ariman mantxa eiztan ditienen xaîtako (2):* bekatuak ariman uzten dituen orbanak garbitzeko. */ [kanpuarako altetik basua eta platera] xaîtan tzeinak (3):* kanpoko aldetik edontzia eta platera garbitzen dituzuenak. */ [ezin obeki] xaîten du bere llarnia (3):* ezin hobeto garbitzen du bere larraina. */ zuk nai batzu, xaî nindokezu (3):* zuk nahi baduzu, garbi nazakezu. */ xaî zazei leprosuak (3):* garbi itzazue legendunak. */ xaîtu, egor, xaît (4):* garbitu, ekortu (erraztatu), garbi(tu). */ amintto urrinxago Roldan Azkarrak xaîtan du ezpata (4):* pittin bat urrunxeago Errolan Azkarrak ezpata garbitzen du. */ xaî naztazu ñore bekatutik (4):* garbi nazazu neure bekatutik. */ bustiren nuzu eta izanen nuzu xaîtruk (4):* bustiko nauzu eta garbitua izanen naiz. */ zikina xaîtra (5):* zikina garbitzera.

xaitxi *(3, 7, 8)* : jaitsi */ jangeikuaren semia balimazra, xaixte krutxetik (3):* jaungoikoaren semea baldin bazara, jaits zaitez gurutzetik. */ treinetik xaixtan, treiniara igaitan (7):* trenetik jaisten, trenera igotzen. */ xaix bazinte bortareino, gur nintezu lurriareino (8):* jaitsiko bazina ateraino, makurtuko nintzateke lurreraino.

xaitzi *(5)* : jetzi

xaixi *(8, 9)* : jaitsi */ egun goxan xaixi nezu (8):* gaur goizean jaitsi naiz. */ xaiztei! (9):* jaits

zaitezte!

xaizpil *(4)* : zazpiki

xaki *(7)* : jaitsi */ zomait aldiz xakia zen gore aita Karkastillora (7):* zenbait aldiz jaitsia zen gure aita Zarrakaztelura.

xakin 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : jakin */ kristiaiak xakin [biar du] (2):* kristauak jakin behar du. */ nola xakinen dugu zer bear dugun? (2):* nola jakinen dugu zer behar dugun? */ eztakiena (2):* ez dakiena. */ dazkigularik (2):* dakizkigunean. */ xakin zazei berjin batek erdiren diola seme bat (3):* jakin ezazue birjina bat seme batez erdiko dela. */ Herodesek xakin zion (3):* Herodesek jakin zuen. */ txezei, ñork ere etzala xakin (3):* begira ezazue, inork ere ez dezala jakin. */ xakinik [izan biar dio] (3):* jakina izan behar du. */ zomat gaiza xakitra obligatruk dago kristiaîa? (3):* zenbat gauza jakitera beharturik dago kristaua? */ nola xakinen du? (3):* nola jakinen du? */ [on da zer biar den eskatu] xakitia (3):* ona da zer eskatu behar den jakitea. */ nik ez dakiez (3):* nik ez dakit. */ onki daki (3):* ongi daki. */ dakizu, dakiziuala (3):* dakizu, dakizula. */ xek dakizei (3):* zuek dakizue. */ dazkiola (3):* dakizkiela. */ yik yakion (3):* hik hekien. */ xakin bazinezei (3):* jakin bazenute. */ batek balaki (3):* batek baleki. */ xakin bage zertarik, kakeria bat [asi zitzaitadan] (4):* zertatik jakin gabe, beherakoa hasi zitzaidan. */ ez xakinez zer erran (4):* ez jakinez zer erran. */ anixko ganu dud xakiteko zerbait orren familiatik (4):* gogo handi samarra dut berorren familiatik zerbait jakiteko. */ eztakid (4):* ez dakit. */ badaki (4):* badaki. */ ez baidakiei (4):* ez baitakite. */ zartagia bear dei xakin guardatan (5):* zartagina gordetzen jakin behar dute. */ ez dago sekretorik goix edo berant xakiten ez denik (5):* ez dago sekreturik goiz edo berandu jakiten ez denik. */ dakid [edo] dakir, dakik, dakin, daki (5):* dakit, dakik, dakin, daki. */ dakigu, dakizu, dakizei, dakei (5):* dakigu, dakizu, dakizue, dakite. */ dazkid [edo] dazkir, dazkik, dazkin, dazki (5):* dakizkit, dakizkik, dakizkin, dakizki. */ dazkigu, dazkizu, dazkizei, dazkei (5):* dakizkigu, dakizkizu, dakizkizue, dakizkite. */ nakien, yakien, zakien (5):* nekien, hekien, zekien. */ genakien, zenakien, zenakein, zakein (5):* genekien, zenekien, zenekiten, zekiten. */ nazkien, yazkien, zazkien (5):* nekizkien, hekizkien, zekizkien. */ genazkien, zenazkien, zenazkein, zazkein (5):* genekizkien, zenekizkien, zenekizkiten, zekizkiten. */ badakian (5):* bazekinak. */ badaki, badakizu (6):* badaki, badakizu. */ banakizun (6):* banekizun, banekien. */ balaki (6):* baleki. */ nik xakitan dur (7):* nik jakiten dut. */ dakir, dakizu, daki (7):* dakit, dakizu, daki. */ dakiegu, dakizei, dakei (7):* dakigu, dakizue, dakite. */ badakid, badakiar, badakiezt (9):* badakit. */ badakigu, badakitzei (9):* badakigu, badakizue. */ bazakien, bazakezein (9):* bazekien, bazenekiten. */ [nolako apario xatan degun] nai dei xakin (10):* nolako apairua jaten dugun jakin nahi dute. */a! etxakin noiz artio egonen nazen (10):* a! ez jakin noiz arte egonen naizen. */ dakid, dakiez, dakiezt (10):* dakit. */ eztakir, eztakied (10):* ez dakit. */ badakia? badakiela (10):* ba al daki? badakiela. */ badakigu (10):* badakigu. */ ez dakizei (10):* ez dakizue. */ badakei (10):* badakite. */ banakia, banakie (10):* banekien. */ bazakien (10):* bazekien. */ bazakeila (10):* bazekitela. OH. Lehenaldiko adizkiak Uztarrozen ´-ien´ dokumentatuak eta Bidankozen ´-ion´ (nekion, zekion...). Bestetik, Bidankozeko ´dakid´ Uztarrozen ´dakir´ dokumentatua.

xakin 2 *(4)* : jakin (adj.) */ [emazter] aparioak drezaraz, puntiualki ordu xakinetako (4):* emakumeei jatorduak prestarazi, puntualki ordu jakinetarako.

xakin nai egon *(4)* : jakin nahian egon, jakin nahirik egon */ betik nago xakin nai, sontotu zenez ote (4):* beti nago sendatu ote zen jakin nahian.

xakinaren gaiñean egon *(5)* : jakinaren gainean egon OH. Azkuek, perpaus berean zenbait euskalkitan eman beharragatik ´jakiñaren ganean (gaiñean) egon´ adibidean dokumentaturik.

xakintarzun *(3, 4)* : jakituria, jakinduria */ xakintarzunaren dona (3):* jakituriaren dohaina. */ zure xakintarzunaren altxatarzuna [manifestatu daiztazud] (4):* zure jakinduriaren sekretua adierazi didazu.

xakitra emon *(3)* : jakitera eman */ xakitra emoitan daizeid aînguriuak betik ene aita [ekustan daudela] (3):* jakitera ematen dizuet aingeruak beti ene aita ikusten daudela.

xako *(5, 8, 9, 10)* : zahato */ xako konek zomat pinta itxikiren al du? (5):* zahato honek zenbat pinta eduki ahal ditu? */ bien artian xakua ustu [zien] (8):* bien artean zahatoa hustu zuten. */ platerak, gollareak, ogia eta xakoa (9):* platerak, koilarak, ogia eta zahatoa. */ xakoa, xako bat ardau (10):* zahatoa, zahato bat ardo.

xakur *(5)* : *(zoo.)* txakur

xakuto *(5)* : xakuto (txikigarria) */ egun berean xos doke xakuto bat (5):* egun berean jos dezake xakuto bat.

xal *(2, 9)* : *(zoo.)* txahal

xâl *(2, 3, 4, 5)* : *(zoo.)* txahal */ ilarazi dutur ene xâlak eta berze animale gizentiuak (3):* hilarazi ditut nire txahalak eta beste animalia gizenduak.

xal-egile *(5)* : txahal-egile OH. Ume anitz egiten duen ganaduari errana.

xale *(5, 9)* : jatun, jale */ xale bagez garidun (9):* jatun(ik) gabe (egotean) gariduna (izan). */ xale bagez ogidun (9):* jatun(ik) gabe (egotean) ogiduna (izan).

xalegatx *(5)* : jangartxu, jangura gabe (adj.)

xalepel *(5)* : jangartxu, jangura gabe (adj.)

xali *(5)* : burruntzali, xali (txikigarria)

xalikonkili *(5)* : zangalatrau

xalinko *(4)* : zartagintxo

xalma *(4)* : txalma (zamari gainekoa)

xalmatu *(4)* : txalmatu (zamaria)

xamarinko *(4)* : *(zoo.)* moxal

xamur *(5)* : haserrekor

xan *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : jan */ [krutxearen señalia egin] xatian (2):* gurutzearen seinalea egin jatean. */ zer xan erdeiteko kuidaduaz, mantenatako xen bizia (3):* zer jan aurkitzeko arduraz, zuen bizia mantentzeko. */ nola da, xen maistruak xaten baitu bekatariekin? (3):* nola da zuen maisuak jaten duela bekatariekin? */ xatan diona (3):* jaten duena. */ aragi ez xatako (3):* haragirik ez jateko. */ lizito ezena xatia (3):* jatea zilegi ez zena. */ [eskiuak] ekuzi gabe xatiak ez [dio] zikintan (3):* eskuak garbi gabe jateak ez du zikintzen. */ margiuak xan drozkezu (4):* marrubiak jan ditzakezu. */ artazia gentek ere xaten dei kastañen gisa (4):* arte-hazia jendeak ere jaten du gaztainak bezala. */ xateko ganu onareki [xarrekitan naz] (4):* jateko gogo onarekin jarraitzen dut. */ xan zak gente gisa (4):* jan ezak jendeak bezala. */ xanik drozkezu (4):* janik izan ditzakezu (nik uste). */ xatia [on da] (4):* jatea ona da. */ aza ta porru xan eta dolu (5):* aza eta porruak jan eta damu. */ ezteietan txikien xatan diona emazte berria (5):* ezteietan gutxien jaten duena emazte berria. */ on zauna xatean, gaixto zau pakatean (5):* on zaiona jatean, txarra zaio ordaintzean. */ opil bero [izan balu], ezion xanen gore orantza (5):* opil beroa izan balu, ez zuen jango gure legamia. */ ez niezu xanen (6):* ez nuen (?) jango. */ karek [aragia] xan du (7):* hark haragia jan du. */ xanguan (xangian) xatan da (7):* jangelan jaten da. */ axariak xatan dutu olloak (7):* azeriak oiloak jaten ditu. */ zuk bi [ogi] xanen zinozke (7):* zuk bi ogi jango zenituzke. */ kau da on xatako (7):* hau ona da jateko. */ xan eta edan (9):* jan eta edan. */ bi gollare, xatako (9):*

bi koilara, jateko. */ gullurdi xatra (9):* basaranak jatera. */ eztoker xan onki (10):* ez dezaket jan ongi. */ laneko bar du xan onki (10):* lanerako ongi jan behar du. */ ez nien xatan (10):* ez nuen jaten. */ nai diar egin baskaria xatako bidian (10):* bazkaria egin nahi dut bidean jateko. */ arraya orai on ta kario, eta ezin el xatra (10):* arraina orain ona eta garestia, eta ezin heldu jatera. */ xanik dagua? (10):* janda al dago? (= jan al du?)

xan-mikor *(5)* : gartxu, neurritsu (janarekin)

xanari *(4)* : janari */ txerria il biar dud, xanaria akabatu baidud (4):* txerria hil behar dut, janaria bukatu baitut.

xanere *(5, 9)* : janari; elikagai */ xanerea (9):* janaria.

xangu 1 *(5)* : jantoki

xangu 2 *(5, 7)* : jangela */ xangua, xangia (7):* jangela. */ xanguan (xangian) xatan da (7):* jangelan jaten da.

xanguruan *(5)* : jan ondoan (zerbait)

xanka *(7)* : arrantza (astoarena)

xankaka *(7)* : arrantzaka */ astoa (astua) dion xankaka (7):* astoa arrantzaka ari da.

xankin 1 *(4)* : janari-hondar */ txakurraren xankinaren xaten nago (4):* txakurraren janari-hondarrak jaten ari naiz.

xankin 2 *(5)* : mutxikin (sagarrena)

xankin 3 *(5)* : karraskadura

xanso *(5)* : txerri hil */ xanso[a] (5):* txerri hila.

xantegi *(5, 9)* : *(nek.)* zuraska

xantsu *(5)* : *(suk.)* urdai, xingar

xantzi *(5, 7)* : jantzi */ kura xanztan duran aldi oroz egoartan naz Antoniotaz (5):* hura janzten dudan aldiro oroitzen naiz Antonioz.

xanzle *(9)* : jostun; jaztaile (janzten duena) */ xanzle bagez oxaldun (9):* jostun(ik) gabe (egonda) oihalduna (izan).

xapi! *(5)* : xapi! (katua uxatzeko)

xar 1 *(1, 3, 4, 5, 10)* : xahar (txikigarria) */ errota xarra (1):* errota xaharra. */ krutxe xarra (1):* gurutze xaharra. */ ñork ere ez [dau izartan] tapallu bat oxal lodiz beztido xar bati (3):* inork ere ez dio jartzen adabaki bat oihal lodiz jantzi xahar bati. */ ez dei egoxtan ardaû berria zagi xarretan (3):* ez dute botatzen ardo berria zahagi xaharretan. */ mazte xarrak gaixki erraitan (5):* emakume zaharrak gaizki esaka.

xar 2 *(10)* : zahar */ nik ez [dur] ezegunten, xar binaz (10):* nik ez dut ezagutuko, zaharra bainaiz. */ xarrek ez [zein egitan] dantza korik (10):* zaharrek ez zituzten egiten dantza horiek.

xar 3 *(5)* : txiki

xarde *(8)* : *(nek.)* sarde */ xardia (8):* sardea.

xardoki 1 *(3)* : hitz egin, jardun */ xardoki edo kantatan deinek gaiza torpe [bekatu egitan dei] (3):* gauza dorpeak hitz egin edo kantatzen dituztenek bekatu egiten dute. */ etzazei gogo ekun anitx xardokitako (3):* ez ezazue asko hitz egiteko gogorik izan.

xardoki 2 *(4)* : elkarrizketa

xardokitu *(4)* : hitz egin, jardun */ karta oiltu daudanetan kainbat xardokitu daud (4):* bidali dizkiodan gutunetan hainbat hitz egin diot. */ kaur, xardokitu bage, eztakid nola entelegatra emon (4):* hau, hitz egin gabe, ez dakit nola aditzera eman. */ [uskararen gainian] xardokitu zion orrek (4):* euskarari buruz hitz egin zuen berorrek.

xarenko *(5)* : saskitxo OH. Azkuek ´zare hitzaren txikigarri bikoitza´ oharrarekin dokumentatua.

xarga 1 *(2, 3, 5, 9, 11)* : *(bot.)* lahar, sasi */ keben anitx xarga [diozu] (9):* hemen lahar asko dago. OH. Zaraitzun eta Anson ere dokumentatua.

xarga 2 *(5)* : *(nek.)* zurkaitz OH. Zuhaitzaren adarrei eusteko makila edo haga.

xargadoi *(4, 5)* : lahardi, sasidi

xargatze 1 *(5)* : *(bot.)* lahar, sasi

xargatze 2 *(3, 4, 5)* : *(bot.)* lahardi, sasidi */ biltan dreia ote figo xargatzetarik? (3):* biltzen ote dira pikuak lahardietatik? OH. Ikus ´zargatze´ sarrera Orotariko Euskal Hiztegian. Bestetik, Mendigatxaren oharra, ´sasitza handia dagoen lekua´.

xarka *(5)* : behaztopa, estropezu

xarka! *(5)* : *(haur.)* atzera! (idiei esana)

xarkarazi *(5)* : atzera eginarazi

xarraitu *(7)* : jarraitu, jarraiki

xarreki *(3, 4, 9)* : jarraitu, jarraiki */ Kristo da gente anitxez xarrekitruk (3):* Kristo jende anitzek jarraitua da. */ xarreki ztei niri (3):* jarrai iezadazue niri. */ nai dut xarreki tian onki (4):* (osasunez) ongi jarrai dezaten nahi dut. */ xarreki zte semeari (9):* jarrai iezaiozu anaiari. */ xarreki adi oinez (9):* jarrai ezak oinez.

xarrekitu *(3, 4)* : jarraitu, jarraiki */ instantian biak, eitzirik errediak, xarrekitu zitzazkan (3):* berehala biek, sareak utzirik, jarraitu zioten. */ xarrekitan zitzauner erran [zaben] (3):* jarraitzen ziotenei erran zien. */ [Jesusi] fan zitzaun xarrekituz gente multitud andi bat (3):* Jesusi jarraituz joan zitzaion jendetza handi bat. */ ni xarrekiten naizu noranaiden fan zitian (3):* nik jarraituko dizut, noranahi joan zaitezen. */ Judas eltu zenian, xarrekitruk gente multitud andi bataz (3):* Judas heldu zenean, jendetza handi batek jarraiturik. */ [eskribitan] xarrekiten naz, aiketa zomait ezinek arrapa nazan artio (4):* idazten jarraitzen dut, harik eta zenbait ezinek harrapa nazan arte. */ tenpra anitxez kola xarrekitan da (4):* denbora luzez horrela jarraitzen du. */ xarrekiten zren adexkidetarzun berartan (4):* adiskidetasun berartan jarraituko zuten.

xarri *(6)* : eseri */ xa´zte (6):* eser zaitez.

xarri-saldo *(5)* : txerri-talde

xarritan *(10)* : askotan, sarritan

xarta-xarta *(5)* : zarta-zarta (txaloa)

xaserarazi *(3)* : eserarazi */ xaserarazi zein gainian (3):* gainean eserarazi zuten.

xasergu *(4, 5)* : eserleku, jarleku

xaseri *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 10)* : eseri */ kan dagola xaseririk bere aitaren alteskoieko altian (2):* han dagoela eseririk bere aitaren eskuineko aldean. */ [Jesus] xaseririk, abañatu zitzazkan bere diszipuluak (3):* Jesus eseririk, bere ikasleak hurbildu zitzaizkion. */ semia xaseren denian (3):* semea eseriko denean. */ semia xaseren da gunian (3):* semea eseriko da orduan. */ emaztiak xaxeri izan zren (4):* emakumeak eseri izan ziren. */ xaseririk [dago] eskoîneko altian (4):* eseririk dago eskuineko aldean. */ xaser adi, xaser bedi (7):* eser hadi, eser bedi. */ [ene amak] laur azken urtiak [igari] xaseririk (10):* ene amak laur azken urteak eseririk igaro (zituen).

xaserleku *(3)* : eserleku, jarleku */ disponi zazu ene bi seme kuek ekun tzein beren xaseririk egotia edo xaserlekiua zore reinuan (3):* egin ezazu ene bi seme hauek eduki dezaten beren eserlekua zure erreinuan. */ [xaseririk daude] Moisesen katedran edo xaserlekiuan (3):* eserita daude Moisesen aulkian edo eserlekuan.

xasgi *(5)* : *(nek.)* jetzitegi (txabola, lekua)

xasgu *(5)* : *(nek.)* jetzitegi (txabola, lekua)

xasi 1 *(4, 5, 9, 10)* : eseri */ xas adi (5):* eser hadi. */ xaste (5):* eser zaitez. */ xasi nun (9):* eseri naun. */ xas adi (9):* eser hadi. */ xasi dun, xastan dun (10):* eseri dun, esertzen dun. */ xas adi kor (10):* eser hadi hor. OH. Mendigatxak dio Uztarrozeko hitza dela. Izaban ere dokumentatua.

xasi 2 *(5, 8, 9)* : jarri */ zer xasi da alur kori? len garitsu zen eta orai deus eztu emaitan (5):* zer jarri da alor hori? (nola aldatu den alor hori!) lehen garitsua zen eta orain deus ez du ematen. */ moda orai xasi zu (8):* moda orain jarri da. */ begiak gorri-gorriak xasi (8):* begiak gorri-gorriak jarri (zitzaizkion). */ xas adi txutik (9):* jar hadi zutik. */ xas adi gur-gurra (9):* jar hadi makur-makur.

xastekulare *(4)* : *(zoo.)* oti

xatako *(7)* : janari, jateko */ badud etse eta xatako (7):* badut etxea eta jatekoa (janaria).

xatandre *(2, 5)* : *(zoo.)* erbinude

xatatu *(5, 7)* : garbitu, xahutu */ platerak xatatu ditiegu (7):* platerak garbitu ditugu.

xateko *(3, 4)* : janari, jateko */ ez dei xatekorik (3):* ez dute jatekorik. */ ardidunak daude anixko kuxu, eztagola xatekorik (4):* ardidunak nahikoa kezkatuta daude, ez dagoela jatekorik.

xatet *(8)* : garbi, xahu

xatetu 1 *(4, 7, 8, 10)* : garbitu, xahutu */ nik xatetu tiar platerak (7):* nik garbitu ditiat platerak. */ xatetu diar (8):* garbitu diat. */ xate zan sukaltia! (10):* garbi ezan sukaldea! OH. Mendigatxak dio Uztarrozeko hitza dela. Mitxelenak Izaban ere dokumentatua.

xatetu 2 *(5)* : igurtzi

xatra emon *(2, 3)* : jaten eman, jatera eman */ gose denari xatra emoitia (2):* gose denari jaten ematea. */ emon dazauzei xek xatra (3):* emaiezue zuek jaten. */ ogi aski emoitako xatra biar dein guziua kaînbat genteri (3):* nahikoa ogi hainbat jenderi behar duen guztia jaten emateko. */ gose [ekun nion] eta emon zinaiten xatra (3):* gosea eduki nuen eta jaten eman zenidaten. */ noiz emon ginaizun xatra? (3):* noiz eman genizun jaten? */ gose dionari xatra emoitia (3):* gosea daukanari jaten ematea. */ emon ditan xatra (7):* jaten eman zidan (noka).

xats 1 *(3)* : *(bot.)* iraka */ etzuniona erin azi ona alurrian? nola du, bada, xats? (3):* ez al zenuen hazi ona erein alorrean? nola du, bada, iraka? */ [gariaren erdian], agerriara erkin zen xatsa (3):* gariaren erdian, agerira atera zen iraka.

xats 2 *(3)* : *(bot.)* arantza */ berze [azi] banak erori zren xats artetan, eta anditu zren xatsak eta [itotu] ztein (3):* beste hazi batzuk arantza arteetan erori ziren, eta arantzak handitu ziren eta ito egin zituzten.

xatsi 1 *(5)* : jaitsi */ ugaltea burar xastan duk, nonbait euri egin dik (5):* ibaia uher jaisten duk, nonbait euria egin dik.

xatsi 2 *(5)* : jetzi

xatx *(5)* : zikinkeria */ egor zan bede kori, beitago anitz xatx (5):* errazta ezan atari hori, zikinkeria asko baitago.

xatxi 1 *(2, 3, 4, 5, 7, 8, 9)* : jaitsi */ jeina il garaian, aren arima xatxi zela linbo[ra] (2):* jauna hil garaian, haren arima linbora jaitsi zela. */ xatxiz baikoz Jesus menditik (3):* Jesus menditik jaitsi bezain laster. */ txoriak xaxtan baitra eta erreposatan [arboliaren] adarretan (3):* txoriak jaisten baitira eta zuhaitzaren adarretan pausatzen. */ Israeleko erregia balimada, xatx deila orai krutxetik (3):* Israelgo erregea baldin bada, jaits dadila orain gurutzetik. */ anitx senditu nion ekustiari trastornu ekun zionaz tranbiatik xaxtiari (4):* anitz sentitu nuen ikustean tranbiatik jaistean eduki zuen ondoezaz. */ xatx bedi, xatx zte, xatx adi (4):* haits bedi, jaits zaitez, jaits

hadi. */ xaxtea (5):* jaistea. */ xatxi dena da ene arreba (7):* jaitsi dena da ene arreba. */ xaxtan bazra, eragu zazu libroa (7):* jaisten bazara, eraman ezazu liburua. */ xatxi naz (8):* jaitsi naiz. */ [gizon bateki] xatxi nuk (8):* gizon batekin jaitsi nauk. */ [atzo gainbarna] xatxi gindezun (9):* atzo goitik behera jaitsi ginen. */ xatx adi apal (9):* jaits hadi behera.

xatxi 2 *(4, 8, 9)* : jetzi */ xaxgiua, ardien bilgunia xaxtako edo irauskitako edo erextako (4):* jetzitegia, ardien bilgunea jeizteko. */ aintza xatxi diar [eta] esnia egosi diar (8):* ahuntza jetzi diat eta esnea egosi diat. */ xatx zan (xatxan) aintza (9):* jetzi ezan ahuntza.

xau 1 *(5)* : garbi, xahu

xau 2 *(6)* : heu, hihaur

xaun *(6)* : jaun */ xauna, gen bedi kortik (6):* jauna, ken bedi hortik.

xauregi *(5)* : *(erai.)* jauregi

xauriek *(3, 6)* : zeuek */ [testimonio emoitan tzei] xaur berien kontra (3):* lekukotza ematen duzue zeuen aurka. */ etzei juramentorik eginen xaurien buriuaz (3):* ez duzue juramenturik egingo zeuen buruaz. */ eztago xaurien eskiuan egitia xuri edo beltx bilo bakotx bat (3):* ez dago zeuen eskuan ile bakar bat zuri edo beltz egitea.

xausi *(5)* : zaunka

xausika *(5)* : zaunkaka

xausiz *(5)* : zaunkaka

xautsi *(2)* : jaitsi */ [linbuetra] xautsi zela (2):* linbora jaitsi zela.

xaûtu *(5)* : garbitu, xahutu

xaûtxi *(2)* : jaitsi */ [Kristo linbora] xaûtxi zela (2):* Kristo linbora jaitsi zela.

xauxtikalari *(2)* : *(zoo.)* matxinsalto

xauxtikalari berde *(2)* : *(zoo.)* oti (?)

xauzi 1 *(7)* : jauzi, salto

xauzi 2 *(5)* : jauzi egin, salto egin

xauzi egin *(7)* : jauzi egin, salto egin */ ez diar xauzi egin plaztan, baia mendian bai (7):* ez diat jauzi egin plazan, baina mendian bai.

xauztu *(5)* : jauzi egin, salto egin

xaxeri *(4, 5, 6)* : eseri */ ez doked eskribi, ez bainaiteke xaxerik egon (4):* ez dezaket idatzi, ez bainaiteke eserita egon. */ nik ler andi bat egotsi nion ta, akaitu bainintzen, xaxeri nintzen ebakiondoan (5):* nik pinu handi bat bota nuen eta, nekatu bainintzen, eseri egin nintzen ebakiondoan.

xaxgi *(5)* : *(nek.)* jetzitegi (txabola, lekua)

xaxgu *(4, 5)* : *(nek.)* jetzitegi (txabola, lekua) */ ´xaxgu´ urteoro egiten deina, ganztaren egiteko [onla da] (4):* ´jetzitegia´, urtero egiten dena, gazta egiteko txabola da. */ xaxgiua, ardien bilgunia xaxtako edo irauskitako edo erextako (4):* jetzitegia, ardien bilgunea jeizteko.

xaxi 1 *(5)* : eseri

xaxi 2 *(5)* : bilakatu, aldatu, nola jarri */ zer xaxi da alur kori! len garitsu zen eta orai deus eztu emaitan (5):* nola bilakatu den alor hori! lehen garitsua zen eta orain ez du ezer ematen.

xaxpil *(5)* : zazpiki

xaxtekulari *(5)* : *(zoo.)* matxinsalto OH. Azkuek ´oti´ esanahiarekin ere dokumentatua.

xaxtre *(4)* : jostun */ xaxtrea bere ordiuan fan zen (4):* jostuna bere orduan joan zen.

xaz *(4, 5, 7, 8, 10)* : iaz */ xaz balle konek saltu zion ogeita bi milla duroren arboleak (4):* iaz ibar honek hogeita bi mila duroko (10.000 pezetako) zuhaitz kopurua saldu zuen. */ xaz eltu zren*

irabaztra ogeita zazpira errial (4): iaz heldu ziren hogeita zazpina erreal irabaztera. */ zer urtez sortu [zen]? xaz (7):* zer urtez jaio zen? iaz. */ xazko urtian (8):* iazko urtean. */ xazko [gaizak] (10):* iazko gauzak. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

-xe *(5)* : -xe */ atzexerik (5):* ahaztuxe. */ nolaxe, nolakoxe, noraxe (5):* nolaxe, nolakoxe, noraxe.

xê *(2, 3, 4)* : xehe */ azienda xê (2):* azienda xehe(a). */ [azi bat] anixko xê azi guziuen artian (3):* hazi bat anixko xehe hazi guztien artean. */ gari kaur zer xê da! (4):* gari hau zer xehea den! */ elur larriak elur andi, elur xêak egunaldi (4):* elur larriak elur handi, elur xeheak eguraldi. */ azienda xêa (4):* azienda xehea.

xe 1 *(5, 8)* : xehe */ elur xeak elurte andi, elur larriak egunaldi (5):* elur xeheak elurte handi, elur larriak eguraldi (on). */ xea (8):* xehea.

xe 2 *(5)* : diru xehe (txanponak)

xe 3 *(5)* : arra, zehe (neurria) */ txokorroa, kain zabal nola gora, bi xeren gorago du lore oria (5):* goldarraina, zabala bezain altua, bi arra gorago du lore horia. */ belar kau da bi xeren dina luze (5):* belar hau bi arra adina luze da. OH. Ikus ´ze´ sarrera.

xeakatu *(4)* : xehakatu, txikitu

xeatu 1 *(5)* : xehakatu, txikitu

xeatu 2 *(5)* : xehatu OH. Diru xehea (= txanpon txikitan) jarri edo eman.

xêazale *(3)* : xehatzaile */ bankeruen edo xêazalen maiak [egotxi ztion] (3):* bankarien edo xehatzaileen mahaiak bota zituen.

xei *(2, 3, 4, 5, 6, 7)* : jai */ igante eta xeiak beigratan dutu (2):* igande eta jaiak begiratzen ditu. */ xei egunian eztadin trabaja nestaterik bage (2):* jai egunean ez dezan lan egin beharrik gabe. */ xei egunak (3):* jai egunak. */ ez da konbeni egin dein kaur xei egunian (3):* ez da komeni hau jai egunean egin dadin. */ bazko xeia (3):* pazko jaia. */ xeietan [trabajatan diona] (3):* jaietan lan egiten duena. */ xei anditako mezan (4):* jai handietako meza(ta)n. */ egun digu udako azken xeia (4):* egun dugu udako azken jaia. */ zarrek xei oro xurifikatan emon ztein makilakaldiz [mitil gaztiak] (4):* zaharrek jaiero jipoitzen omen zituzten makilakaldiz mutil gazteak. */ urte zarreko egunak, urte berri eta errege egunetako xeiak (4):* urte zaharreko egunak, urte berri eta errege eguneko jaiak. */ igantetan eta xeietan (4):* igandeetan eta jaietan. */ e[z]kila burrundaka ari da xei aintzin egunean (5):* kanpaia burrunbaka ari da jai aurreko egunean. */ xeian, xeitik (6):* jaian, jaitik.

xei egin *(7)* : jai egin

xei egun *(7)* : jai egun

xek *(3, 6, 8, 9)* : zuek */ xek zrei lurreko gatza (3):* zuek zarete lurreko gatza. */ xek zrei mundiuaren argia (3):* zuek zarete munduaren argia. */ xen antzinetik izan zren[ak] (3):* zuen aurretik izan zirenak. */ nai etzazei bil ontarzun xentako lurrian (3):* ez ezazue ondasunik bildu nahi izan zuentzat lurrean. */ noiz bitartio biar dur bizi izan xekin? (3):* noiz arte bizi izan behar dut zuekin? */ nor[k] xetarik añadi doke kodo bat bere luzeguari? (3):* zuetako nork gehi diezaioke pixka bat bere luzerari? */ xengana [xiten dra] beztitruk ardi larruz (3):* zuengana ardi larruz jantzirik etortzen dira. */ nik ere ez daizeid erranen xer (3):* nik ere ez dizuet zuei erranen. */ xengatik edo xen lekiuan [mintzatan da] (3):* zuengatik edo zuen lekuan mintzatzen da. */ arrazônekin profetizatu zion xetaz Isaiasek (3):* arrazoiarekin profetizatu zuen zuetaz Isaiasek. */ xek akab´artio (8):* zuek bukatu arte. */ familia onki, ta xena? (8):* familia ongi, eta zuena? */ xeki, xena (8):* zuekin, zuena. */ badakizeia xek? (9):* ba al dakizue zuek?

xeki *(9)* : zuekin

xelita *(4, 5)* : aulki (zurezkoa) OH. Zaraitzun ´xelte´ dokumentatua.
xelitanko *(5)* : aulkitxo (zurezkoa)
xeme *(5)* : txeme OH. Ikus ´txeme´ sarrerako oharra.
xengana *(9)* : zuengana
xenganik *(9)* : zuengandik
xengatik *(9)* : zuengatik
xera *(5)* : errota, hera (hegaztiena)
xerbigatu *(4)* : txikitu, zatikatu, txiki-txiki egin */ [txerriek mantria isari dei] zatika, porroka, xerbiga, xigote, portteka-porttekatruk (4):* txerriak izara zatika utzi dute, puskaka, xehaturik, birrinduta, txiki-txiki eginda.
xerrero 1 *(2, 4)* : *(zoo.)* aratxe (urtebeteko txahala) */ gunian izaren tizei zure altare gainian xerreruak (4):* orduan jarriko dituzte zure aldare gainean aratxeak.
xerrero 2 *(2, 4)* : *(zoo.)* idisko
xerri *(5, 9, 10)* : *(zoo.)* txerri */ xerri saldo [bat] (5):* txerri saldo bat. */ xerrinko (9):* txerritxo. */ xerria il eta lokeinkak egin (10):* txerria hil eta lukainkak egin.
xerriazpi *(5)* : *(suk.)* urdaiazpiko
xeru *(5)* : *(bot.)* xeru OH. Ikus ´xeuri´ sarrera eta bertako adibidea.
xeuri *(4, 5)* : *(bot.)* xeru */ gari, olo, garagar, xeuri, eta zalge, guziuetarik [biltu digu] (4):* garia, oloa, garagarra, xerua eta zalkea, denetik bildu dugu.
xexen *(5)* : *(zoo.)* xexen, zezentxo
xexenko *(5)* : *(zoo.)* xexen, zezentxo OH. Txikigarri bikoitza duen hitza.
xexu *(4)* : zeio (zurginen tresna)
xez *(5)* : txikizka, xeheka (saldu) */ xez saltan dei kek (5):* haiek txikizka saltzen dute.
xiatu *(5)* : xehetu */ eltziuak xiatu (5):* eultziak xehetu.
xîatu *(4)* : xehetu */ [koralak] onki xîatruk balio du etsen eta karriketan ebiltako (4):* enbormuinak ongi xeheturik etxean eta kaleetan ibiltzeko balio du.
xibiko *(1)* : *(erai.)* zubitxo
xibinko *(4, 5)* : *(erai.)* zubitxo OH. Zaldientzako pasabidetxoa, zubitxoa.
xientako *(9)* : zuentzat, zuendako
xifa-xafa *(5)* : *(zoo.)* txitxar
xigortu *(5)* : lehortu (lurra eta)
xigote *(4)* : puska, zatitxo OH. Ikus ´txigote´ Orotariko Euskal Hiztegian.
xigotetan egin *(4)* : txiki-txiki egin, puskatu
xikinkeria *(5)* : xikinkeria (txikigarria)
xilatu *(5)* : *(med.)* ebaki OH. Azkuek ´zornazorroak ebaki´ adieran dokumentatua.
xilo *(1, 8)* : txulo (txikigarria) */ bagaxiloa (1):* pago txuloa. */ uturxiloa (1):* iturri txuloa. OH. Mitxelenak ´zilo´ren pare dokumentatua.
xiloka *(5)* : *(nek.)* txuloka (erein) OH. Lurrean egindako zulotxoetan erein.
xillo *(5)* : txulo (txikigarria)
xillotu *(5)* : txulatu OH. Zulo txikia(k) egin.
xin 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : etorri */ xin daila goregana (2):* etor dadila guregana. */ sinetsi xinen dela (2):* sinetsi etorriko dela. */ joangeiko jeinaren legearen kontra xitan drenak (2):* jaungoiko jaunaren legearen aurka etortzen direnak. */ kantik xiñen dela juizioko egunian (2):* handik etorriko dela epaiketa egunean. */ mago banak xin zren iguzki-erkingutik Jerusalenera*

(3): mago batzuk etorri ziren ekialdetik Jerusalenera. */ ene atzian xin biar diona (3):* nire atzean etorri behar duena. */ zu xitan zra enegana! (3):* zu etortzen zara niregana! */ [gero Jesus Zesareako erriara] xitian (3):* gero Jesus Zesareako lurrera etortzean. */ bere tenpran xin zen orren azken karta (4):* bere denboran etorri zen berorren azken gutuna. */ bear digu orkitu xiten denari (4):* etortzen denari itxaron behar diogu. */ [bainatra] xinen da (4):* bainatzera etorriko da. */ orai xinik dago (4):* orain etorrita dago. */ alegratan dei arrotzek, xiten drenean (4):* poz ematen dute arrotzek, etortzen direnean. */ lanaren ondorean xiten da deuria (5):* lanaren ondoren etortzen da dirua. */ nik nai nukezu xin (6):* nik etorri nahi nuke. */ xitan nuzu, xitan nezu (6):* etortzen naiz, etorri ohi naiz. */ ene txakurra pelotaki xitan da (7):* ene txakurra pilotarekin etortzen da. */ xin gindiezun (8):* etorri ginen. */ badakia nor xin den? (9):* ba al daki nor etorri den? */ ziek xin zrei ziaur (9):* zuek bakarrik etorri zarete. */ biar xinen dun (9):* bihar etorriko dun. */ xin yaza? (10):* etorri al haiz? */ xin bar ziela berriz (10):* berriz etorri behar zuela. */ Korpus egunian xitan dra zortzi Madrideko familiatik (10):* Korpus egunean zortzi etortzen dira Madrileko familiatik. */ xizte kona (10):* etor zaitez hona.

xin 2 *(5)* : harrotu, altxatu, legamiatu (ogia)

xinaldi *(4)* : etorrialdi, egonaldi */ arrotza[k] zer xinaldia egin daian! (4):* arrotzak zer etorraldia (egonaldia) egin dian! OH. ´Xinaldia´ norbaiten etorrera da eta egonaldi luzea, biak batera.

xinaldika *(5)* : aldizka

xinalka *(5)* : aldizka */ Habana aldean xinalka euria egitan emon du (5):* Habana aldean aldizka euria egiten omen du.

xinese *(7)* : sinetsi */ nork xineseren du kau? (7):* nork sinetsiko du hau?

xineste *(3)* : sinesmen, sineste */ kemen milagro txiki [egin zion] beren ez xinestiagatik (3):* hemen mirari gutxi egin zuen haien sinesmen ezagatik.

xinetsagotu *(4)* : sinetsiago eduki, gehiago sinetsi */ nik betik xinetsagotan nion bigarna (4):* nik beti gehiago sinesten nuen bigarrena.

xinetsi *(2, 3, 4, 5, 8, 10)* : sinetsi */ biar dugua xinetsi? (2):* sinetsi egin behar al dugu? */ agi dakizula xinetsi tziuan bikala (3):* gerta dakizula sinetsi duzun bezala. */ xinestan dud (3):* sinesten dut. */ xinetsen digu (3):* sinetsiko dugu. */ [salbazalia dela] xinetstia (3):* salbatzailea dela sinestea. */ nork xinets dokei? (3):* nork sinets diezaieke? */ xinetstan dud (4):* sinesten dut. */ eztu xinetsen zomat estimatu dion (4):* ez du sinetsiko zenbat estimatu duen. */ gezurtiari ezau xinestan egiarik (5):* gezurtiari ez zaio egiarik sinesten. */ gunian xinetsi zezein (8):* orduan sinetsi zuten. */ orai ez bitei xinestan deus ere (10):* orain ez baitute sinesten deus ere.

xinetxi *(3)* : sinetsi */ ekusi digu zer biar tzun xinetxi (3):* ikusi dugu zer sinetsi behar duzun.

xinistian egon *(4)* : sinetsita egon, ustean egon */ xinistian nago orai xa, sontotruk al dagola (4):* sinetsita nago orain jada, sendaturik egon ahal dela. */ nola xinistian bainago arek ere ez diola entelegaten ene uskara, ez daud eskribitu (4):* sinetsita nagoenez hark ere ez duela ulertzen nire euskara, ez diot idatzi.

xinka-xoanka *(10)* : joan-etorrika */ xinka-xoanka xoan (10):* joan-etorrika ibili.

xinko *(9)* : *(erl.)* jainko */ xinko ona (9):* jainko ona.

xipoi *(8, 9, 10)* : jipoi (txaleko mota) */ neskatuak kola beztitruk, traje korreki, xipoieki, kottak azkatruk (8):* neskatoak horrela jantzirik, jantzi horrekin, jipoiekin, gonak goraturik. */ xipoia (9):* jipoia.

xipoin 1 *(5)* : gerruntze

xipoin 2 *(5)* : jipoi (txaleko mota)

xirimiri *(11)* : *(met.)* zirimiri

xirro-marro *(5)* : xirro-marro OH. Artzainen jokoa, sei harritxorekin egiten dena.

xitan den *(7, 8)* : datorren, heldu den */ xitan den urtian (7, 8):* datorren urtean.

xite *(3, 4)* : etorrera */ egiazki Eliasek biar du xin lein ezik ene bigarnen xitia (3):* egiaz Eliasek lehenago etorri behar du, ene bigarren etorrera baino. */ beraren bigarnen xitian (3):* beraren bigarren etorreran. */ orren balle kontra xitiaren boztarioak naka airian (4):*ibar honetara(ko) berorren etorreraren pozak airean nauka.

xiten dan *(6)* : datorren, heldu den */ xiten dan ilabeteko (6):* datorren hilabeterako.

xito *(5)* : ijito

xixa *(9)* : perretxiko; ziza */ asi dutzu erkitan xixak (9):* perretxikoak (; zizak) ateratzen hasi dira.

xixar *(11)* : *(zoo.)* zizare

xixare *(5, 7, 9)* : *(zoo.)* zizare OH. Hesteetakoa ere bai.

xixare-kaka *(5)* : zizare-kaka OH. Zizareak uzten dun lur pilatxoa.

xixari *(5, 7, 9)* : *(zoo.)* zizare */ xixariek ez dein exurrik (7):* zizareek ez diten hezurrik.

xixari-kaka *(5)* : zizare-kaka

xixi *(5)* : *(haur.)* erre

-xka *(4, 5)* : -xka, -txo */ yunyuxka (4):* txikixka. */ erixka (5):* erixka, gaixotxo. */ ullunxka (5):* iluntxo. */ onkixka (5):* ondotxo.

-xko *(3, 4, 5, 11)* : -txo */ eitzazu nik erkin tzadan autzxko kori zore begitik (3):* utz ezazu nik atera dezadan ahoztxo hori zure begitik. */ txikerxko kuetarik bati [edatra emon] (3):* txikitxo hauetariko bati edaten eman. */ txakurxkuek xaten dei (3):* txakurtxoek jaten dute. */ zomait arraînxko edo arrantzuxko (3):* zenbait arraintxo. */ aurxko kuetarik bat (3):* haurtxo hauetako bat. */ libroxkua (3):* liburutxoa. */ txitxaxkuak (3):* txitatxoak. */ mandoxko batian (4):* mandotxo batean. */ beixkoa (5):* behitxoa. */ lore xurixkoa (5):* lore zuritxoa. */ izeixko[a] (5):* izeitxoa. */ mantaxko (11):* mantatxo(a).

xo *(5, 7)* : jo */ gentan balin badun, xonen di[n]ar ostiko bat (7):* kentzen baldin badidan, ostiko bat joko dinat. */ ekusi banu argia, xonen nia[n] bortara (7):* (leihoan) argia ikusi banu, atea joko ninan. OH. ´Xoren´ espero zitekeen.

xoan *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : joan */ [zeuriara] xoan ledin (2):* zerura joan ledin. */ oiara xoaitian [krutxearen señalia egin] (2):* ohera joatean gurutzearen seinalea egin. */ ni nua (3):* ni noa. */ duala (3):* doala. */ zuatzan (3):* zihoazen. */ yi yoa, yua (4):* hi hoa. */ negiua gaxto dua (4):* negua txarra doa. */ bi zuatzan (4):* bi zihoazen. */ nola xin, kala xoan (5):* nola etorri, hala joan. */ turrunberora xoaitan zelarik eurtu nian beixkoa (5):* amildegira joaten zenean, behitxoari atzera eginarazi nion. */ mitilak guatza (5):* mutilak goaz. */ mendiraz yoaia? (5):* mendirantz al hoa? */ ugalteraz zoatzaia? (5):* ibairantz al zoaz? */ nuazu (6):* noazu. */ txakurra zoreki xoatan (xoaitan) da (7):* txakurra zurekin doa. */ noa, zoatza, doa (7):* noa, zoaz, doa. */ goatza, zoatzei, doatza (7):* goaz, zoazte, doaz. */ bagoatzu (7):* bagoaz. */ oiara xoan [nai dei] (9):* ohera joan nahi dute. */ xoan gitean errotara (9):* joan gaitezen errotara. */ nora yoa? (9):* nora hoa? */ zoatza, zuatza (9):* zoaz. */ zuatzei (9):* zoazte. */ xoan artio [egonen naz] (10):* joan arte egonen naiz. */ xoan dun (10):* joan dun. */ gazte gindenian xoaitan gindezun (10):* gazteak ginenean joaten ginen. */ orai xoan bar diar, ordia bitur xoaitako (10):* orain joan egin behar dut, joateko ordua baitut. */ ekustan bitei xar nizala eta xoanen nazela fite (10):* zaharra naizela ikusten baitute eta laster joango naizela. */ banua ni etxera (10):* banoa ni etxera.

xoan-xinka *(5)* : joan-etorrian, atzera eta aurrera

xoitziez *(7)* : izabar OH. Uztarrozekoek izabarrei jarritako izengoitia da.
xokadura *(5)* : emankortasun (arrautzena)
xokalte *(9)* : sukalde */ erkin adi xokaltetik (9):* atera hadi sukaldetik.
xokatu 1 *(5, 7, 10)* : jokatu */ pelotaria ebilten da ya nork nai dion kareki pelotara xokatu (5):* pilotaria ibiltzen da ea nork nai duen harekin pelotan jokatu. */ ox xokatra kartara (sic) (7):* goazen kartatan jokatzera. */ gaiaz karten xokatan (7):* gauez kartatan jokatzen. */ orai badu tenpra tabernara xoaitako xokatra (10):* orain badu denbora tabernara jokatzera joateko. OH. Ekialdeko euskalkietan ohikoa da ´-ra jokatu´ egitura, ´-an jokatu´ egituraren kaltetan.
xokatu 2 *(5)* : larrua jo
xoko *(5, 11)* : txoko
xokotero *(5)* : *(bot.)* intxaur (mota bat) OH. Intxaur gogorra eta mamitsua omen da.
xoku *(5, 9)* : joko */ artzaiak pelota xokuan onki xatan ta onki edatan (5):* artzainak pilota jokoan ongi jaten eta ongi edaten. */ yik bikainbat falta dionik ez dion pelota xokurik (5):* hik bezainbat falta duenik ez zagon pilota jokorik. */ axuriak kiñuetan gaintik eta artzaiak pelota-xokian (9):* arkumeak lursailetan gaindi eta artzainak pilota-jokoan.
xolakin *(5)* : xolakin OH. Zuhaitz baten atal ia iharra.
xoralte *(4)* : *(nek.)* lepoko (zurezkoa, abereena) */ urrutxaz egiten dra xoraltiak, aziender lepuetan txintxerreki isartako (4):* hurritzaz lepokoak egiten dira, aziendei lepoan zintzarriekin jartzeko.
xordets *(5)* : okerrago */ [kainbat] xordets (5):* hainbat okerrago. OH. Zaraitzun eta Zuberoan ere dokumentatua.
xore *(8)* : zure */ santifika bedi xore izena (8):* santu izan bedi zure izena.
xorra *(9)* : *(nek.)* jorra, jorraketa */ biramenean xuan biar xorrara (9):* biharamunean jorrara joan behar.
xorrai *(5)* : *(nek.)* jorrai (jorratzeko aitzur txikia)
xorraiko *(5, 9)* : *(nek.)* jorrai (jorratzeko aitzur txikia)
xorratu *(3)* : jorratu */ nai tziua fan gitian xorratra? (3):* nahi al duzu jorratzera joan gaitezen?
xorrotx *(5)* : zorrotz
xorrotxzale *(5)* : zorroztaile */ aizturko xorrotxzale (5):* guraize zorroztaile[a].
xorroxgo *(5)* : zorrotzailetza (lanbidea)
xorroxgu *(5)* : aho, sorbatz (aiztoena eta)
xorroxtale *(5)* : zorrotzaile
xorroxtu *(4)* : zorroztu */ uskaldunek xorroxtan dei beren axkorak (4):* euskaldunek beren aizkorak zorrozten dituzte.
xorta 1 *(5)* : tanta
xorta 2 *(7)* : zurrutada */ xorta bat ardau (7):* zurrutada bat ardo.
xortze *(10)* : zortza OH. Gazta egitean, hura estutzeko zurezko tresna, uztai antzekoa.
xorxe *(5, 10)* : zortza OH. Ikus ´xortze´ sarrera eta bertako oharra.
xorze *(10)* : zortza
xos *(7)* : sos, diru */ ez [badun lan egitan], ekunen dien xos? (7):* ez badun lan egiten, edukiko dun sosik?
xosgu 1 *(5)* : jostundegi
xosgu 2 *(5)* : joskintza
xosi *(4, 5, 7, 8, 9)* : josi */ xaxtre bat xostra [fan zen] (4):* jostun bat jostera joan zen. */ egun berean xos doke xakuto bat (5):* egun berean jos dezake xakuto bat. */ emazte bat zegon xostan*

bi zare zume batez (5): emakume bat bi saski josten ari zen zume batez. */ bost urtez espartiñak xostan (8):* bost urtez espartinak josten. */ aria xostako (8):* haria josteko. */ neskato guziak espartiñak xostra, [ala!] (8):* neska guztiak espartinak jostera, ala! */ [eli bat] xosi diar (9):* pare bat josi dut. */ xosi diar, xostan diar (10):* josi dut, josten dut. OH. Mendigatxaren jostunaren ipuinean ´xoxtra´ idatzirik.

xositu *(10)* : josi */ xositu diar (10):* josi dut.

xoste *(5)* : joste, josketa

xoszale *(9)* : jostun (emakumezkoa)

xotin *(5)* : zotin

xotu *(9, 10)* : jo */ [morroia] xotu diar (9):* mutikoa jo dut. */ gizon korrek xotu dien bere arrebari (10):* gizon horrek bere arreba jo din. */ xotan dun (10):* jotzen dun. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

xotx *(4)* : zipitz */ [kakeriak] eitzi bainu indar xotxik ere bage (4):* beherakoak indar zipitzik ere gabe utzi bainau.

xotx-xotxik bage *(4)* : zipitzik gabe, batere gabe

xoxgu *(5)* : joskintza

xoxo *(2)* : *(heg.)* zozo

xoxtari *(5)* : hari bikoitz (bihurritua)

xoxte *(5)* : joste, josketa

xoxtekulari *(5)* : *(zoo.)* matxinsalto

xu *(7)* : suhi

xuan *(2, 6, 8, 9, 10)* : joan */ ordian iltan balimada, zeuriara xuanen dela (2):* orduan hiltzen baldin bada, zerura joanen dela. */ xuaita[n] nezu (6):* joaten nauzu, joaten naiz. */ ez [zria] xuaiten (6):* ez zara joaten. */ xuan zunien zertuz, uskara galtuz (8):* zertuz joan zen, euskara galduz. */ gizonak xuaiten zuntien, bai (8):* gizonak joaten ziren, bai. */ nai diar xuan (9):* joan nahi diat. */ nora xuaitan zra antxume? (9):* nora zoaz oinutsik? */ bi anaxe Ameriketre xuan [zren] (10):* bi anaia Ameriketara joan ziren. */ xuan yaza? (10):* joan al haiz? */ xuaitan dun (10):* joaten dun. */ biar xuanen tun bi gizon (10):* bihar bi gizon joango ditun. OH. Adizkietarako, ikus ´xoan´ sarrerako adibideak.

xuberotar *(5)* : zuberotar */ mugakin gra xuberotarrekin (5):* mugakide gara zuberotarrekin.

xukartu *(5)* : haserretu, sugartu

xundo *(5)* : ohol (sukaldekoa) OH. Jakiak txikitzeko ohola.

xunkada *(5)* : eztarri-bultzada OH. Azkuek ´ganaduari eztarrian egiten zaion bultzada, janaria bertan trabatzen zaionean´ argibidearekin dokumentatua.

xunta *(4)* : batzorde */ kemen eztago azkurik, ez eskolako xuntan, ez ezinotxian (4):* hemen ez dago azkurarik, ez ikastetxeko batzordean, ez udaletxean.

xuntagune *(4)* : bilgune, biltoki */ oboro[en]ek egiten tei bakiak xuntagune kontan (4):* gehienek bakezkoak egiten dituzte bilgune honetan.

xuntatu *(2, 3, 4, 5, 7, 9, 10)* : elkartu */ Kristoren arima korpitzareki xuntatu zela, berriz ez iltako (2):* Kristoren arima gorputzarekin elkartu zela, berriz ez hiltzeko. */ Jesusek [bere ikaszaliak] xuntatu ztion (3):* Jesusek bere ikasleak elkartu zituen. */ ez digula ontarzun xuntatu biar mundu kontako (3):* ez dugula ondasunik elkartu behar mundu honetarako. */ [guziuak] xuntatan ziolarik, galtegiten zabein (3):* guztiak elkartzen zituela, galdetzen zien. */ non-naiden egon ledin korpiza, kan xuntaten dra agilak (3):* nonahi egon ledin gorputza, han elkartuko dira

arranoak. */ diszipulo xuntatra [astan da] (3):* ikasleak elkartzen hasten da. */ gisa kontan xuntatan da (4):* modu honetan elkartzen da. */ el baginte xuntatra biak (4):* biak elkartzera hel bagintezke. */ xunta gitian biak (4):* biak elkar gaitezen. */ afizione andia [dei] bilgunetra, xuntatako (5):* zaletasun handia dute bilguneetara, elkartzeko. */ [ene adeskideki] xuntatan naz (7):* nire adiskideekin elkartzen naiz. */ [anitx aita] xuntatu tun (9):* aita asko elkartu ditun. */ irurak xuntatan gindenian, anitx elerraitan gindezun (10):* hirurak elkartzen ginenean, anitz hitz egiten genuen. */ gizon kori xuntatan dun arixkideareki (10):* gizon hori adiskidearekin elkartzen dun. OH: Zaraitzun ere dokumentatua.

xunto 1 *(3, 4, 5, 7, 10)* : elkarrekin */ lein xunto egon bagetarik (3):* lehen elkarrekin egon gabe. */ urdu zaitad gaudela biak xunto, beitartez beitarte (4):* biok elkarrekin gaudela iruditzen zait, aurrez aurre. */ barra eta beltzuria ez daizteke xunto bizi (5):* barrea eta beltzuria ez daitezke elkarrekin bizi. */ kareki bordaltan bayaz, xunto bizi izanen gutun (5):* harekin ezkontzen bahaiz, elkarrekin bizi izango gaitun. */ egun bazkalten diegu xunto (7):* gaur elkarrekin bazkalduko dugu. */ gizona ta maztia xoan zria xunto (10):* gizona eta emakumea elkarrekin joan ziren.

xunto 2 *(4)* : batera */ gero kantatan emon zein kantxoin xunto oiltan daudana (4):* gero kantatzen omen zuten honekin batera bidaltzen diodan kantua.

xunto izan *(4)* : elkarrekin izan */ xunto izan [biar dei] (4):* elkarrekin izan behar dute.

xûr *(4)* : xuhur, zeken */ emazte bat anixko xûr (4):* emakume bat nahikoa zekena.

xur 1 *(5)* : isurbide (lixiba-urarena) OH. Arropa garbitzeko, lixiba egitean ura ateratzen den isurbidea.

xur 2 *(5)* : bakan, arraro

xura *(4)* : zura */ matoîa erkiten dei xura batra (4):* gaztanbera zura batera ateratzen dute. OH. ´Zura´ kaikua baino handiagoa den ontzia da, bi helduleku dituena.

xurgin *(5)* : *(mit.)* sorgin

xurgin-aigari *(5, 10)* : sorgin-afari */ oillar-mezatik landa etsean egiten den aparío ño bat da xurgin-aigaria (5):* oilar-meza ondoren etxean egiten den jatordu txiki bat da sorgin-afaria. */ xurgin-aigaria [egitan zeia] (10):* (gabonetan) sorgin-afaria egiten zuten.

xuri *(1, 3, 4, 5, 7, 10, 11)* : zuri */ krutxe xuria (1):* gurutze zuria. */ eztago xaurien eskiuan egitia xuri edo beltx bilo bakotx bat (3):* ez dago zeuen eskuan ile bakar bat zuri edo beltz egitea. */ bere beztiduak xuri [izari zren] elurra bikala (3):* haren jantziak zuri jarri ziren elurra bezala. */ kasilletan xuri erdeiten diona señale ez dakidala (4):* laukitxoetan zuri (idatzi gabe) aurkitzen duena seinale ez dakidala. */ ardi moxtuak ilea xuri (5):* ardi moztuak artilea zuri. */ ile xuria bera argi (5):* artile zuria bera argia (da). */ ardi xurienetik erkitan dra axuri beltxenak (5):* ardi zurienetik ateratzen dira axuri beltxenak. */ [txurrutxak] lore xurixkoa du (5):* ezkerteak lore zuritxoa du. */ ez diagun ez ogi xurik ez ardau gorrik (7):* ez dinagu ez ogi zuririk ez ardo gorririk. */ floreak, flore xuri korik (10):* loreak, lore zuri horiek. */ buruxuri (11):* buruzuri.

xurifikatu 1 *(5)* : xehatu, birrindu

xurifikatu 2 *(4)* : jipoitu */ zarrek xei oro xurifikatan emon ztein makilakaldiz [mitil gaztiak] (4):* zaharrek jaiero jipoitzen omen zituzten makilakaldiz mutil gazteak.

xurigente *(5)* : arropa zuri, zurijende

xurinko *(5)* : zuringo

xuritu 1 *(3, 4, 6)* : zuritu (kolore zuriz) */ [sepulturak] xuritruk daude (3):* hilobiak zuriturik daude. */ parete xuritan dei (4):* paretak zuritzen dituzte. */ ekuzen nuzu eta elurra beino obro*

izanen nuzu xuritruk (4): garbituko nauzu eta elurra baino gehiago izanen naiz zuritua.

xuritu 2 *(5)* : zuritu (azala kendu) */ gore makilak izanen dra zen bizkarrean xuritruk (5):* gure makilak izanen dira zuen bizkarrean zurituak (= jipoituko zaituztegu).

xuritu 3 *(5)* : zuritu (egiaztatu)

xuritu 4 *(5)* : *(nek.)* lugorritu, labakitu

xurixka *(9)* : zurixka

xurizale *(5)* : zuritzaile

xurki *(5)* : xuhurki (gutxi gastatuz)

xûrki *(5)* : xuhurki (gutxi gastatuz)

xûrkin *(5)* : xuhur, ekonomiko

xurrupa *(5)* : xurrupada, hurrupatxo (txikigarria)

xurrupaka *(5)* : xurrupadaka, hurrupaka

xutik *(7, 10)* : zutik */ xutik, guzuak (guziak) xutik! (7):* zutik, guztiak zutik! */ xutik dion (10):* zutik zagon.

xuxen *(3, 4, 5, 6, 7, 9)* : zuzen */ egin dizazei xuxen bere sendak (3):* egin itzazue zuzen haren bide-zidorrak. */ gore intenzionia[k] biar diola izan xuxen (3):* gure asmoak zuzena izan behar duela. */ xuxen arengana [fan zren] (3):* zuzen harengana joan ziren. */ berri zazu ñore entrañetan izpiritu xuxen bat (4):* berri ezazu neure barnean espiritu zuzen bat. */ xuxen izan (6):* zuzen izan. */ trein kau xoatan dia xuxen Uruñara? (7):* tren hau zuzen Iruñera al doa?

xuxenki *(5)* : zuzenki

xuxentarzun *(5)* : zuzentasun

xuxentu *(5, 7)* : zuzendu OH. Estornesek ´xuxendu´ dokumentatua.

xuxulu *(5, 9)* : zizeilu (sukaldeko eserlekua) */ xuxulu bat, xuxulia (9):* zizeilu bat, zizeilua.

Y

ya *(2, 4, 5)* : ea */ ya nola? (2):* ea nola? */ ganureki nago, xakin nai, ya ori sontotu denez (4):* gogoarekin nago, jakin nahian ea berori sendatu den. */ aprilian galteginen daud ya xin biar dionez (4):* apirilean galdetuko diot ea etorri behar duen. */ xakiteko ya kaur eltan zaunez (4):* (gutun) hau heltzen zaion jakiteko. */ orrek erran beztad ya non erdeiten dren (4):* horren esan biezat ea non aurkitzen diren. */ ya bordaltu drenez ala neskato dauden [xakiteko] (4):* ea ezkondu diren ala neskazahar dauden jakiteko. */ pelotaria ebilten da ya nork nai dion kareki xokatu (5):* pilotaria ibiltzen da ea nork nai duen harekin jokatu.

yaketa bait- *(3)* : bait-, -ez gero, -nez (kausazkoa) */ yaketa frutiuaz izaguntan baita arboliaren kalidadia (3):* fruitutik ezagutzen denez gero zuhaitzaren kalitatea. */ yaketa ez baizrei xek aipatan diona (3):* ez baitzarete zuek aipatzen duena. */ [txezei], yaketa ez baidakizei zer orduz xinen den xen jeina (3):* begira ezazue, ez dakizuenez zer ordutan etorriko den zuen jauna.

yanso *(5)* : *(suk.)* urdai, xingar

yanso-alme *(5)* : *(suk.)* txerri-bular

yanso-lepaki *(5)* : *(suk.)* solomo

yansoazpi *(5)* : *(suk.)* urdaiazpiko

yarraki *(5)* : jarraitu, jarraiki

yau-yau *(5)* : txau-txau (zaunka txikiaren onomatopeia) */ ttatturrak yau-yau, kakurrak au-au (5):* txakurtxoak txau-txau, txakurtzarrak au-au.

yaur 1 *(4, 5)* : heu, hihaur */ yaur yaz nausi, ar zak nai yoana (4):* heu haiz nagusia, har ezak nahi duana. */ yaur xin yaz (5):* heu etorri haiz. */ ez dazak erran lagunari nai ez yuana erran dayazan yauri (5):* ez iezaiok esan lagunari, heuri esan diezaan nahi ez duana. */ yaurek egiten yuana yore amari (5):* heuk egiten dioana heure amari.

yaur 2 *(9)* : bakarrik */ yi xoan yaz yaur (9):* hi bakarrik joan haiz. */ yaur [xin yaz] (9):* bakarrik etorri haiz.

yauregi *(5)* : *(erai.)* jauregi */ etseko ez ta yauregiko (5):* etxeko ez eta jauregiko (= txikiena ezin eta handiena nahi).

yausi *(5)* : zaunka

yauztu *(5)* : jauzi egin, salto egin

yi *(3, 4, 5, 6, 7, 9, 10)* : hi */ yik ere ekun yezan (3):* hik ere eduki hezan. */ yik yakion egitatan duala (3):* hik hekien igitatzen dudala. */ kor eror yeila ilik! (3):* (hi) hor eror hadila hilik! */ yi indartsu yaz (4):* hi indartsua haiz. */ yik biar duk kalakoareki bordaltu (4):* hik halakoarekin ezkondu behar duk. */ yik llaburtu yon (4):* hik laburtu huen. */ yiretako ez dion preziorik (4):* hiretzat ez zagon preziorik. */ yi bikalako asto andien[tako] (5):* hi bezalako asto handientzat. */ zetatxutik igartan dena yik ere bear dun igari (5):* galbahetik igarotzen dena hik ere behar dun igaro. */ yiri urdu zaik (5):* hiri iruditzen zaik. */ yi yaz, yi ez yaz (6):* hi haiz, hi ez haiz. */ yi, yiri, yiretako (7):* hi, hiri, hiretzat. */ ni nun yi bino obe (9):* ni hi baino hobea naun. */ yik eztuk egosi [eznia] (9):* hik ez duk egosi esnea. */ yik atxurtan dun (10):* hik aitzurtzen dun.

yiketz *(4, 7, 10)* : hika */ mazteak senarrari yiketz (7):* emazteak senarrari hika. */ anaxen artian yiketz (7):* anai(-arreb)en artean hika. */ adeskideak karrikan yiketz eta zuketz (7):* adiskideek kalean hika eta zuka.

yiketza *(4)* : hiketa */ badaki gore uskarak irur tratamentu diola, duketza, zuketza eta yiketza (4):*

badaki gure euskarak hiru trataera dituela, beroriketa, zuketa eta hiketa. */ yiketzaz berze guziueki [mintzatan gra] (4):* hiketan beste guztiekin mintzatzen gara. */ yiketzian berextan digu gizakia emaztekitik (4):* hiketan gizakia emaztekiagandik bereizten dugu.

yikez *(10)* : hika

yire *(4, 5, 7, 9, 10)* : hire */ D. Resurrekzion aserik diok yire uskaraz (4):* On Resurrekzion aseta zagok hire euskaraz. */ eztuk yire bizia izanen kain luze (4):* hire bizia ez duk hain luzea izango. */ ekun banuntu azpiak yirien gisa (4):* hankak hireak bezalakoak eduki banitu. */ apezak leitu din paperetik yire lein irakatsaldia (5):* apaizak paperetik irakurri din hire lehen irakatsaldia (?). */ yire erranari ñok (5):* hire erranari nagok. */ yire alaba [anitx pollit dun] (7):* hire alaba oso pollita dun. */ yirea dia? (9):* hirea al da? */ yire semea (10):* hire semea. */ ene zakurra eta yiria (10):* nire txakurra eta hirea.

yireki *(5)* : hirekin */ barrideko arotzak yireki nai din bordaltu (5):* auzoko errementariak hirekin ezkondu nahi din.

yiretako *(7)* : hiretzat, hiretako */ nik durana dun yiretako (7):* nik dudana hiretzat dun.

yitaz *(3)* : hitaz */ nik [konpadezimentu] ekun nion bikala yitaz (3):* nik hitaz erruki izan nian bezala.

yiyaur *(6)* : heu, hihaur

yoralte *(5)* : *(nek.)* zintzarri-lepoko

yore *(3, 5, 10)* : heure */ yik ere ekun yezan konpadezimentu yore lagunaz (3):* hik ere erruki eduki hezan heure lagunaz. */ yaurek egiten yuana yore amari (5):* heuk egiten dioana heure amari. */ yorea yire ta enea bien (5):* heurea hire eta enea bien. */ yorea duka eltxano kori? (5):* hirea al duk eltzetxo hori? */ yore semia (10):* heure semea.

yoretar *(5)* : heuretar (heure laguna)

yoretu *(5)* : heuretu

yorrai-aitzur *(5)* : *(nek.)* jorrai (jorratzeko aitzur txikia)

yorraiko *(5)* : *(nek.)* jorrai (jorratzeko aitzur txikia) OH. Azkuek ´yorraiko´ eta ´jorraiko´ dokumentatuak.

yosgu *(5)* : jostundegi

yunyu *(4)* : ñimiño, txikitxo */ badigu erraitia ´yunyu´, gaiza amiñoaren (4):* badugu ´ñimiño´ erratea, gauza txikitxoaz.

Z

-z 1 *(2, 3, 4, 5, 8)* : -z (instrumentala) */ eskuko eribiatxaz iror krutxeren egitia (2):* eskuineko erpuruaz hiru gurutze egitea. */ eskuiko eskiaz [krutxearen egitia] (2):* eskuineko eskuaz gurutzea egitea. */ [orazione] giauren baitan biotxaz egiten duguna (2):* geure baitan bihotzaz egiten dugun otoitza. */ [orazione bokala], miaz errezatan duguna (2):* ahozko otoitza, mihiaz errezatzen duguna. */ bai, eramaitan balimadra pazienziaz (2):* bai, pazientziaz eramaten baldin badira. */ doktrina uskaraz (2):* dotrina euskaraz. */ jeinak profetaren mintzoz [erran ziona] (3):* jaunak profetaren mintzoz erran zuena. */ ez solo ogiz bizi da gizona (3):* gizona ez da ogiz soilik bizi. */ ez deila izan [txerriek] txiska ditzein beren zankuez (3):* ez dadila izan txerriek zapal ditzaten (perlak) beren hankez. */ zer da zeinatia? eri biatzaz iror krutxe egitia (3):* zer da zeinatzea? erpuruaz hiru gurutze egitea. */ inzkuru da gizon batek atsaz arroitu egiten diona (4):* gizon batek hatsaz egiten duen zarata arnasotsa da. */ itz anixtan pronunziatan digu sudurrez (4):* hitz askotan sudurrez ahoskatzen dugu. */ erraziaz egiten da pikia (4):* erretxinaz bikea egiten da. */ ezpelaz egiten dei kuxare [eta] orraxe (4):* ezpelaz koilarak eta orraziak egiten dituzte. */ arotzaren etsen sukaldarreko pala zurez (5):* errementariaren etxean supazterreko pala zurez. */ arraultze batez zartagi andian ez daiteke tortilla andia egin (5):* arrautza batez zartagin handian ez daiteke tortilla handia egin. */ eskuz naiz geiñuz naiz eleka edo iragoz dei egitan da (5):* eskuz nahiz keinuz nahiz hitzez edo oihuz dei egiten da. */ espartiñak xostan eskiaz, ez, makinaz (8):* espartinak josten eskuaz, ez, makinaz. */ olez eginik etxegaina (8):* oholez eginik teilatua.

-z 2 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : -z (denborazkoa) */ zonbat egunez kreatu ztien gaizak? seirez (2):* zenbat egunez sortu zituen gauzak? seiz. */ iror orenez bizirik egon zela (2):* hiru orduz bizirik egon zela. */ tenpra anitxez eiztia (3):* denbora anitzez uztea. */ al dokedan tenpra guziuaz (4):* ahal dudan denbora guztiaz. */ aita batek alabari egun batez erran zaun (5):* aitak batek alabari egun batez esan zion. */ debriak tenta etzan ez gaiz ta ez egunaz (5):* deabruak tenta ez zezan ez gauez eta ez egunez. */ goxtre oroz mezara (5):* egunsentiro meza(ta)ra. */ egun batez (6):* egun batez. */ urteberriz xinen zrei gore etxeara (7):* urteberriz gure etxera etorriko zarete. */ bazkaria eguerdiz (7):* bazkaria eguerdiz. */ bost urtez espartiñak xostan (8):* bost urtez espartinak josten. */ laur urtez, laur neguz [izan nuzu Maulen] (8):* lau urtez, lau neguz izan naiz Maulen. */ egun batez erori zia (10):* egun batez erori zen.

-z 3 *(9)* : -zko */ nik diar ereztun bat zidarrez (9):* nik zilarrezko eraztun bat dut. OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

-z fan *(3, 4)* : -z joan */ faite denean eltuz gaia, erraiten zei aldizka (3):* garaia helduz joaten denean, aldika erraten duzue. */ eskiuez faiten dra biltuz (4):* eskuez bilduz joaten dira. */ otakak exartuz duatzana gisa, faiten dra sortuz (4):* otakak ihartuz doazen bezala, sortuz joaten dira. */ obro tenpra [ekunen baitud], fanen naz erranez (4):* denbora gehiago edukiko baitut, erranez joanen naiz. */ guartuz nuana gisa, fanen naz gidatuz (4):* oroituz noan bezala, bideratuz joanen naiz.

-z gero *(3, 4)* : ezkero (denborazkoa) */ [tenpluara] eltuz gero, arengana [abañatu zren] (3):* tenplura heldu ezkero, harengana hurbildu ziren. */ kaur birjen [zelarik] libratu antzinian, libratian eta libratuz gero (3):* hau birjina zela erdi aurretik, erditzean eta erdi ezkero. */ min artu zionaz gero, [eztud ekun orren kartarik] (4):* min hartu zuen ezkero, ez dut eduki berorren

gutunik. */ aigaltuz gero eziola ñorentako xostan [erran zaun] (4):* afalduz gero ez zuela inorentzat josten esan zion.

-z geroz 1 *(3, 5)* : -z gero (kausala) */ [aurra] erdenez geroz abiso emon aztazeid, ni ere fan nein (3):* haurra aurkituz gero, abisu emadazue, ni ere joan nadin. */ irortra [elt]uz geroz ez da sekretorik (5):* hiruretara helduz gero ez da sekreturik.

-z geroz 2 *(3, 4, 5)* : ezkero (denborazkoa) */ berrogei egun berrogei gaiekin barurtuz geroz, [gose] ekun zion (3):* berrogei egunez berrogei gaurekin barautu ezkero, gosea eduki zuen. */ gaiza misterioso egon drenak altxatruk mundiua kriatruk izanez geroz (3):* ezkutuan egon diren gauza misteriotsuak, mundua sortua izan ezkero. */ lerrak andituz geroz egiten dra zunrtan (4):* pinuak handitu ezkero zur egiten dira. */ bigarren abentiara eltuz geroz, elurra obroena gatzatan da (5):* abendura helduz gero, elur gehiena gatzatzen da. */ zarzapenera eltuz geroz sua on zaikugu orobat nola gatuer (5):* zahartzarora heldu ezkero sua ona zaigu katuei bezala.

-z landa *(2, 3)* : -z gain, -z kanpo */ kredoaz landa biar dugua zerbait sinetsi? (2):* kredoaz gain zerbait sinetsi behar al dugu? */ artikuluez landa, xinestatzen tziua zomait berze gaiza? (3):* artikuluez gain, sinesten al duzu beste zenbait gauza?

-z lein *(2)* : baino lehen */ zeren da amaberjinandria birjen erdiz lein? (2):* zergatik da ama birjina andrea birjina erdi baino lehen? */ ura baretan zelarik birjen erdiz lein (2):* hura birjina geratzen zela erdi baino lehen.

zabal 1 *(1, 3, 4, 5, 6, 9)* : zabal */ borta eta bide zabalak dra eramaiten deinak perdizioniara (3):* ate eta bide zabalak dira galbidera eramaten dutenak. */ legiaren eliak estanpa zabalaguetan [eramaiten tei] (3):* legearen hitzak estanpa zabalagoetan daramatzate. */ zabal dago, zabal zaude, zabal yago (4):* zabal dago, zabal zaude, zabal hago. */ zabal-zabala erori (5):* zabal-zabal erori. */ bide zabala, bide mearra (6):* bide zabala, bide estua.

zabal 2 *(1)* : zabal, zabaltza */ zabal burua (1):* zabal burua, zabaltza goialdea. */ zabaleko alorra (1):* zabaleko alorra. */ zabalkoa (1):* zabaltzatxoa.

zabalaldi *(5)* : zabalaldi, zabaltze

zabaldura *(5)* : zabalaldi, zabaltze

zabalerago *(5)* : zabalera

zabalgo *(5)* : zabalera */ obe zaitad aitagiarrebaren etxea ezik sûñarena, deus berzegatik baizik bere zabalgoez (5):* hobe zait aitaginarrebaren etxea suhiarena baino, haren zabaleragatik baino ez. OH. Zaraitzun eta Zuberoan ere dokumentatua.

zabalgune *(5)* : zabalgune

zabalki *(5)* : zabalki

zabaltarzun *(5)* : zabaltasun

zabaltu *(2, 3, 6)* : zabaldu (adiera guztietan) */ bi besoak zabaltruk (2):* bi besoak zabaldurik. */ Jesusek [eskiua] zabaltan ziolarik (3):* Jesusek eskua zabaltzen ziola.

zabaltza *(1)* : zabaltza

zabor 1 *(11)* : zabor

zabor 2 *(5)* : hartxintxar, zabor; legar OH. Kare-mortairua egiteko hartxintxarra.

zaburreri *(5)* : zaborreria (hondarrak, gauzak)

zafla 1 *(5)* : zapla, zafla (zaplastakoaren onomatopeia)

zafla 2 *(5)* : zohi, zotal (laiaketakoa)

zafla-zafla *(5)* : klaska-klaska (jan) OH. Azkar eta asko jan, irentsi.

zaflako *(5)* : zaplastako, zaflako

zafran *(5)* : *(bot.)* safran */ agorrileko ura da zafran, ezti eta ardau (5):* agorrileko ura safrana, eztia eta ardoa da.

zafratu *(5)* : jipoitu, zafratu; bortitz jo */ maistroek ene tenpran zakiein txikiago ezik oraikoek, baia eratsukitan zein obro, zafratan baigintien (5):* maisuek ene garaian gutxiago zekiten oraingoek baino, baina gehiago irakasten zuten, (bortitz) jotzen baikintuzten. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

zagi *(3, 5)* : zahagi */ ez dei egoxtan ardaû berria zagi xarretan (3):* ez dute botatzen ardo berria zahagi xaharretan.

zagon *(5)* : zira (mota bat) */ artzaiek ezpalitzei eraman tapatruk polpak zagonez, oboro aldiz [egonen zren] gatarratruk (5):* artzainek ez palituzte izterrak ziraz estalita eraman, gehiagotan egongo ziren marrantaturik. OH. ´Zagona´ larru puskez egina zen.

-zai *(5, 9)* : -zain */ ostatuzai (5):* ostatuzain, ostalari. */ aurzai (9):* haurtzain.

zai 1 *(5, 9)* : zahi */ zai mikor[ra] (5):* zahi pikorra (txikia). */ zaia (9):* zahia.

zai 2 *(5)* : zahi (burukoa) */ buruko zai[a] (5):* buruko zahia.

zai 3 *(5, 8)* : zain, zaindari */ artzai ´ardi zai´ [da] (8):* artzain ´ardi zain´ da.

zail *(4)* : zuntzezko, izpitsu */ [urrutxa da] zail murteko (4):* hurritza zuntzezkoa da, bihurritzeko.

zailtarzun *(5)* : zailtasun; nekaezintasun, iraunkortasun

-zain *(5)* : -zain */ labazain (5):* labezain.

-zaîn *(3)* : -zain */ artzaîn, txerrizaîn (3):* artzain, txerrizain.

zain 1 *(2, 4)* : *(anat.)* zain

zain 2 *(2)* : *(anat.)* zain, nerbio

zain 3 *(5, 10)* : *(bot.)* zain, sustrai */ zaina (10):* zaina, sustraia.

zain 4 *(4)* : zaindari, zain */ nontiknaiden xin dein, nik oilten daud mandua zainareki (4):* nonahitik etor dadin, nik mandoa bidaliko diot zainarekin.

zain 5 *(6)* : garbi, xahu */ bide zaina (6):* bide garbia.

zain andi *(5)* : *(anat.)* arteria

zain me *(5)* : *(anat.)* zain, nerbio

zainbizi *(5)* : langile, saiatu

zaindun *(4, 5)* : kementsu */ zaindunago [balitz], izanen zen kori soldado on bat; buru anitx [du] eta ez zau falta biotz ere (4):* kementsuagoa balitz, hori soldadu ona izanen zen; buru anitz du eta ez zaio falta bihotzik ere.

zainil *(5)* : geldo, zainil (gogo gabea) */ nai dioa [x]akin zoin naiagoren nion nik, gizon sobra zainil bat edo emazte sobra gordin bat? nik ez bat eta ez berze (5):* jakin nahi al du zein nahiago izango nuen nik, gizon geldoegi bat edo emakume gordinegi bat? nik ez bat eta ez beste.

zaiñtu *(5)* : zaindu

zaipeko *(5, 6, 9)* : gonazpiko, zaiazpiko */ zaipeko kuek (6):* gonazpiko hauek. */ zaipeko kuen bazterra (6):* gonazpiko hauen. */ zaipekoak xaintz eta lasterreka plaztara (9):* gonazpikoak jantzi eta lasterka plazara. OH. Izagirrek ´dantzarako soilik erabiltzen zena, tolestu gabe´ oharrarekin dokumentatua.

zaitziar *(9)* : zaraitzuar */ zaitziarrak (9):* zaraitzuarrak.

Zaitzu *(4)* : *(geog.)* Zaraitzu */ Zaitzutik [xiten bada], Gorzaraino [dago] (4):* Zaraitzutik etortzen bada, (errepidea) Gorzaraino dago.

Zaiztierri *(9)* : *(geog.)* Zaraitzu */ Zaiztierrikuak (9):* Zaraitzukoak. */ Zaiztierriara [noan] (9):*

Zaraitzura noan. OH. Izagirrek ´aurten (hiztunak) hola esan zizkidan izen hauek´ oharrarekin dokumentatua. Aurretik ´Saitzerri´ forma jaso zuelako dio hori. Ikus ´Saitzerri´ sarrera.

zakar 1 *(5, 11)* : zakar, hondakin

zakar 2 *(5)* : *(nek.)* liho-zakar

zakar 3 *(5, 11)* : *(nek.)* galondar, ahotz

zakarda *(5, 11)* : *(bot.)* zakarda (pago txikia) */ bagoaren gisa da atze kau, baia ñoago ta me (5):* pagoa bezalakoa da zuhaitz hau, baina txikiagoa eta mehea.

zaki *(5)* : sari, ordain */ manuaren egin-zakia (5):* mandatua egin izanaren saria.

zakil *(11)* : *(anat.)* zakil */ zakila (11):* zakila. OH. Aznarezek ´zakila´ etxe izenetako izengoitietan dokumentatua.

zaku *(5)* : zaku */ gu ilik ere, fanen tuk bai zakuak errotara (5):* gu hilik ere, joanen dituk bai zakuak errotara. */ lû aziak San Markos egunean ez du egon bear ez sortruk ez zakutan (5):* liho haziak San Markos egunean ez du egon behar ez sorturik ez zakutan.

zakur *(5, 10)* : *(zoo.)* zakur, txakur (handia) */ zakurra [eta] gatia (10):* zakurra eta katua. */ zakurrer [emon] (10):* zakurrei (hezurra) eman.

zakurmi *(5)* : *(bot.)* txakur-mihi

zakuto *(5, 10, 11)* : zakuto; poltsa */ [xerria il eta] gero zakutoa betatan etsetan (10):* txerria hil eta gero zakutoa betetzen (zen) etxeetan.

zalapartaka *(5)* : zalapartaka

zaldi 1 *(2, 4, 5, 7)* : *(zoo.)* zaldi */ zaldia bortan, deirua sakolan (5):* zaldia atean, dirua sakelan.

zaldi 2 *(2)* : *(zoo.)* hazitarako zaldi

zaldi 3 *(5)* : *(med.)* maskur, kailu (azalekoa)

zaldizko *(4)* : zaldizko OH. Mendigatxak zehazturik, ´zaldizko´ zaldi gainean doana da, baina mando edo asto gainean doana ´akaballozko´ da.

zaldun *(5)* : zaldun

zaldun-zibika *(5)* : zaldun-zubika (jolasean) */ zaldun-zibi, zomateki? amarreki (laureki...) (5):* zaldun-zubi, zenbatekin? hamarrekin (laurekin...) OH. ´Zaldun-zibi´ haur jolaseko kantatxoa.

zaldunka *(5)* : zaldunka (haur jolasa) */ zaldia bortan, deirua sakolan, zomateki?, amarreki (seireki...) (5):* zaldia atean, dirua sakelan, zenbatekin? hamarrekin (seirekin...). OH. ´Zaldunka´ haur jolaseko kantatxoa.

-zale *(2, 3, 5, 6, 8)* : -tzaile, -le */ kriazale (2):* sortzaile. */ salbazalea (2, 5):* salbatzailea. */ tentazalia (3):* tentatzailea. */ imitazaleak (3):* imitatzaileak. */ gobernazalien (3):* gobernatzaileen. */ bilzaliak (3):* biltzaileak. */ xêazalen (3):* xehatzaileen. */ erkinzale, gastazale, xorrotxzale (5):* ateratzaile, gastatzaile, zorroztaile. */ ur-karraiazalea (5):* ur-garraiatzailea. */ osazaleak (5):* irentzaileak. */ sobazale (5):* larruontzaile. */ xurizale (5):* zuritzaile. */ ilzale (5, 6):* hiltzaile. */ ebaszale (8):* ebasle.

zaletarzun *(5)* : zaletasun

zalge *(4, 5)* : *(bot.)* zalke */ gari, olo, garagar, xeuri, eta zalge, guziuetarik [biltu digu] (4):* garia, oloa, garagarra, xerua eta zalkea, denetik bildu dugu.

zali 1 *(4)* : zali, burruntzali

zali 2 *(5)* : *(med.)* tumore (mota) */ [zali] erraiten digu ere tumorxko gogor esk[i]uetan erkiten drener (5):* ´zali´ esaten diegu eskuetan ateratzen diren tumoretxo gogorrei ere.

zali 3 *(5)* : *(tek.)* turbina

zaltegi *(1)* : zalditegi */ zaltegia (1lm):* zalditegia. OH. Estornesen hiztegian ´zamaltegi´

dokumentatua.

zaltu 1 *(1, 11)* : *(geog.)* zaldu; zelai */ zaltugorri (1):* zaldu gorria. */ zaltua (1):* zaldua. */ baso zaltua (1):* baso zaldua. */ zaltua (11):* zelaia. OH. Ikus ´zaltu 2´ sarrera. Bestetik, Aznarezek ´zelaia (belardia)´ esanahiarekin dokumentatua. ´Zaltuga´ aldaera ere dokumentatua.

zaltu 2 *(1, 5)* : zuhaizti, mozkairu */ bero egitan dionean on [da] sartea zaltu kartan (5):* bero egiten duenean on da zuhaizti hartan (abereak) sartzea. OH. ´Mozkairua´ ganaduak loalditxoa egiteko zuhaizpea da. Ikus ´zaltu 1´ sarrera.

zamalongarri *(5)* : *(nek.)* zaldi-ongarri

zamar 1 *(5, 11)* : zamar, txamar (jantzia) */ zamarra (11):* zamarra, txamarra.

zamar 2 *(5)* : mantal, amantal (errementariarena)

zamar 3 *(11)* : zamar (larruzkoa) OH. Aznarezek ´almadiazainek eta artzainek bizkarrean jartzen zuten ahuntz-larruz eginiko estalkia´ oharrarekin dokumentatua.

zamari 1 *(2, 5, 7, 8, 10)* : *(zoo.)* zamari, zaldi */ astoari karga atziri, soin gainean zamariari (5):* astoari zama atzean, sorbalda gainean zamariari. */ zamariareki bizi bear diona[k] onki xin bear du barridearekі (5):* zamariarekin bizi behar duenak ongi konpondu behar du auzokoarekin. */ astoek eta zamariek dei anitx indar (7):* astoek eta zamariek indar handia dute. */ zamariaren buztana llabur [dun] (7):* zaldiaren buztana laburra dun. */ ogeit´ iror zamari (8):* hogeita hiru zamari. */ zamari bat ekustra [xoan] (10):* zaldi bat ikustera joan. */ orden zamaria eragutra! (10):* hoa zamaria ekartzera!

zamari 2 *(5)* : zaldi (kartetan)

zamari gente *(4)* : *(zoo.)* zamari jende, zamariak */ zamari gentia (4):* zamari jendea, zamariak.

zamarrada *(5)* : kolpekada */ zer zamarrada igare dun! (5):* zer kolpekada igaro (hartu) duen! */ arr[i]kaldi batek edo zamarrada batek obro min egiten du zanko-txunkiuan, ezik bizkarrean (5):* harrikada batek edo kolpekada batek min handiagoa egiten du orkatilan, bizkarrean baino.

zamatu *(5)* : zamatu

zangabizkar *(5)* : *(anat.)* belaunezur

zango *(9)* : *(anat.)* oin */ zangoen belaiztan egon nezu (9):* oinak biluzten egon naiz (oinusten). OH. Ikus ´zanko 2´ sarrera.

zango-txunku *(5)* : *(anat.)* orpo-giltzadura; orkatila

zangoetako *(5)* : oinetako

zangope *(5)* : *(anat.)* oinazpi, oin-zola

zangozoin *(5)* : *(anat.)* oinbular

zanka *(5)* : arrantza (astoarena)

zankabizkar 1 *(4, 11)* : *(anat.)* zango-bizkar */ [elurtiak] gizon guziuak gazka sukunetan, zankabizkarrak errerik (4):* elurteak gizon guztiak sutondoan gauzka, zango-bizkarrak erreta.

zankabizkar 2 *(4, 5)* : *(anat.)* belaunezur */ guk belaineko enzurrari erraiten digu zankabizkarra (4):* guk belauneko hezurrari ´belaunezur´ esaten diogu.

zankalapurro *(11)* : trakets (traketsa eta ergela)

zankalodi 1 *(5)* : hankalodi, zangolodi

zankalodi 2 *(5)* : potxolo, txaparrote

zankamakur *(5)* : herren, maingu */ lein arrapatan da gezurra ezik zankamakurra (5):* lehenago harrapatzen da gezurra herrena baino.

zankamotx *(5)* : hankamotx

zankaparka *(5)* : txakurka, lau hanka(ta)n

zankar *(5)* : *(anat.)* hanka, zanko

zankarrapaz *(5)* : zankarteka OH. Zaldi gainean zela altuan ibiltzea, hankak pixka bat bilduta.

zankarras *(5)* : galtzahas, zangahas OH. Praka barrenak altxaturik.

zankarron *(10)* : *(bot.)* aza-zurtoin; patata-zurtoin */ arbol korrek dien obro osto ezik zankarron (10):* zuhaitz horrek hosto gehiago din aza-zurtoinak baino (?).

zankarteka 1 *(5)* : zangalatrau, hankalepo

zankarteka 2 *(5)* : zankarteka OH. Zaldi gainean zela altuan ibiltzea, hankak pixka bat bilduta.

zanko 1 *(2, 4, 5, 10)* : *(anat.)* hanka, zango */ bururik eztuenak zanko (5):* bururik ez duenak zango. */ eskuz emon ta zankoz ezin bil (5):* eskuz eman eta hankaz ezin bildu. */ txoriak lurrean ebiltako azpixkoak eta zankoak [dozke] (5):* txoriak lurrean ibiltzeko izterrak eta eta hankak dauzka. */ mendian leku batarik bestiara zankueki ebilik, azkar ebil! (10):* mendian leku batetik bestera hankekin ibilirik, bizikor ibil!

zanko 2 *(2, 3, 8, 9)* : *(anat.)* oin */ zanko petan (3):* oinpeetan. */ bere zankuetra edo oinetra [izari ztien eriak] (3):* haren oinetara jarri zituzten gaixoak. */ zore zankua eztein tropeza arri zomaiten kontra (3):* zure oina ez dadin behaztopa zenbait harriren kontra. */ idarraus zazei xaurien zankuetako errautsa (3):* astin ezazue zeuen oinetako hautsa. */ zankuetarik lotruk (3):* oinetatik loturik. */ zankua (8):* oina. */ zankoko eriak (8):* oineko behatzak. */ zankoa (9):* oina. */ zankoen ekuztan (10):* oinak garbitzen. */ sartu nun buldarrain batan, eta sartu dun zankuetan et´oro, ezpartiñetan et´oro (10):* kardu batean sartu naun, eta oinetan eta dena sartu dun, espartinetan eta dena.

zanko 3 *(5)* : *(bot.)* zurtoin */ zumebelarra belar luze bat da, kaña gisa du zankoa (5):* zumebelarra belar luze bat da, kainabera gisa du zurtoina.

zanko-azka *(5)* : *(anat.)* behatz */ zanko-azkak (5):* behatzak.

zanko-aztal *(5)* : zanko-aztal (behi jendearena)

zanko-maratila *(5)* : argal-argal (pertsonak nahiz abereak)

zanko-txunku *(5)* : *(anat.)* orpo-giltzadura; orkatila */ arr[i] kaldi batek obro min egiten du zanko-txunkiuan, ezik bizkarrean (5):* harrikada batek min handiagoa egiten du orkatilan, bizkarrean baino.

zankogain *(9)* : *(anat.)* oinbular */ zankogaina (9):* oinbularra.

zankogorri *(5)* : oinutsik, ortozik

zankome *(5)* : hankamehe (pertsona)

zankope *(2, 3, 5)* : *(anat.)* oinazpi, oin-zola */ [lurra, jangeikuaren] zankopetako asientua (3):* lurra, jaungoikoaren oinazpiko jarlekua.

Zankoza *(9, 10)* : *(geog.)* Zangoza */ Zankozarik xitan nun (9):* Zangozatik natorren. */ Zankozaradreino (9):* Zangoraino. */ Zankozarik igartan [dra] Erribrara (10):* Zangozatik igarotzen dira Erriberara.

zanpez (erori) *(5)* : muturrez aurrera erori */ zonbat aldiz erori naz zanpez altaparen igaiteari, Urzainkira faiteko! (5):* zenbat aldiz erori naizen muturrez aurrera aldapa igotzean, Urzainkira joateko!

zanpo (ebili) *(5, 11)* : hankazabal ibili

zapal *(1)* : zapal */ meaka zapala (1):* (leku) mehar zapala.

zapar *(5)* : zapar (zaparradaren onomatopeia)

zaparkatu *(5)* : atzamarkatu, atzamar egin

zapart egin *(5, 7)* : zapart egin */ ler ta zapart egiteko zorian (5):* leher eta zapart egiteko zorian.

zaparta-belar *(5)* : *(bot.)* zaparta-belar OH. Azkuek ´erretzen ez duen asuna´ zehaztua.

zapartatu *(4, 5, 7)* : lehertu, zapartatu */ zarrak murten yai kalako gisan, aiketa alte guziuetarik zaparta dazaian artio (4):* zaharrak bihurrituko hau halako moduan, harik eta alde guztietatik zaparta hazan arte. */ ezin erkinez ler adi, zapart adi (5):* ezin atereaz leher hadi, zaparta hadi. */ ant adi ta zaparta adi! (5):* puztu hadi eta leher hadi! */ zapartatu bayintz, astoa! (7):* lehertu bahintz, astoa! */ eroren deila eta zaparta deila! (7):* eror dadila eta leher dadila!

zapartu *(5)* : lehertu, zapartatu */ atzo arratsean lo ekuntu nion egin, andutsia zapartuz (5):* atzo arratsean lo egin ahal izan nuen erlakaiztena lehertuz.

zapasta *(5)* : zipriztin

zapata 1 *(5)* : zapata, oski

zapata 2 *(5)* : latsarri (arropa garbitzekoa)

zapla 1 *(5)* : zapla (zapladaren onomatopeia)

zapla 2 *(10)* : zapla, behi gorotz */ zapla (11):* zapla, behi gorotza.

zapo 1 *(11)* : *(zoo.)* apo, zapo

zapo 2 *(5)* : intsektu hegogabe */ zapo[a] (5):* intsektu hegogabea.

zapo 3 *(11)* : baldar, trakets

zapore 1 *(5)* : esker on */ zapore bage da mazte kura; beste kau, astra, zaporeduna (5):* esker onik gabea da emakume hura; beste hau, aldiz, esker onekoa.

zapore 2 *(5)* : patxada, gibel

zaporedun *(5)* : esker oneko */ zapore bage da mazte kura; beste kau, astra, zaporeduna (5):* esker onik gabea da emakume hura; beste hau, aldiz, esker onekoa.

zapozal *(11)* : zapo (euritakoa) OH. Aznarezek ´euria ari duenean ateratzen diren apoak´ oharrarekin dokumentatua.

-zar *(9)* : -tzar (handiagarria) */ aurerzar (9):* alfertzar.

zar *(1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10, 11)* : zahar */ errota zarra, muga zarra, uturri zarra (1):* errota zaharra, muga zaharra, iturri zaharra. */ bera beino zarraguak [errespetatan dutu] (2):* bera baino zaharragoak errespetatzen ditu. */ iriko zarrak (3):* herriko zaharrak. */ xuntatruk zarrekin (3):* zaharrekin elkarturik. */ emazte zarrak erkin zaun nabaja gaztiari (4):* emakume zaharrak labana atera zion gazteari. */ bi kuadrilla [egiten zein]; bata zarrek eta berzia gaztek (4):* bi laguntalde egiten zituzten; bata zaharrek eta bestea gazteek. */ iriko gizon guziuetarik eztud baizik laur zarrago (4):* herriko gizon guztietatik lau baizik ez dut zaharrago. */ duketza mintzatan gra zarrer (4):* beroriketa zaharrei egiten diegu. */ andre Farineta nai dei bordalaraztu gizon zar-zar bateki (5):* andre Farineta ezkonarazi nahi dute gizon zahar-zahar batekin. */ aurten zarrak il balite onki konfesatruk! (5):* aurten zaharrak ongi aitorturik hil balira! */ ardi zarrari gentan zau bearria (5):* ardi zaharrari belarria kentzen zaio. */ ni zu bino zarrago [naz] (7):* ni zu baino zaharragoa naiz. */ ni zarrena (8):* ni zaharrena. */ ni bino zarrago (8):* ni baino zaharragoa. */ iror lloba geundezun lein, ni bino zarrago (10):* hiru iloba geunden lehen, ni baino zaharragoak. */ tabernazar (11):* taberna zahar(ra). */ gazta zarra (11):* gazta zaharra.

zar-gazte(ak) *(5)* : zahar-gazte(ak) OH. Zaharrak eta gazteak.

zaragoil *(11)* : galtza (motzak)

zaragolla *(10)* : galtza (motzak) */ zaragollak (10):* galtza motzak. OH. Artolak ´belaunetan lotzen ziren galtza motzak´oharrarekin dokumentatua.

zaraguelle 1 *(10)* : galtza (motzak) */ zaraguelleak (10):* galtza motzak. OH. Artolak ´belaunetan

lotzen ziren galtza motzak´oharrarekin dokumentatua.

zaraguelle 2 *(10)* : galtzonzilo */ zaraguelleak (10):* galtzontziloak.

Zaraitzu *(9)* : *(geog.)* Zaraitzu

Zarakoza *(10)* : *(geog.)* Zaragoza */ Zarakozaradreino, egutxa barna (10):* Zaragozaraino, ibaian barrena. */ almadiak, egutxaren barna, Zarakozara (10):* almadiak, ibaian barrena, Zaragozara.

zarberriarte *(5)* : *(astr.)* hilbehera

zare *(3, 4, 5, 10)* : saski */ sobratu zenetik biltu zein amabi zare beterik puskaz (3):* sobratu zenetik hamabi saski bildu zituzten, puskaz beterik. */ arrantzariek on drenak sartan tei beren zaretan (3):* arrantzariek onak direnak (arrainak) beren saskietan sartzen dituzte. */ urrutxaz zare [egiten da] (4):* hurritzez saskiak egiten dira. */ zare bat egiten dionak eginen tu ein (5):* saski bat egiten duenak ehun eginen ditu. */ emazte bat zegon xostan bi zare zume batez (5):* emakume bat bi saski josten ari zen zume batez. */ zare bat [eramaitan zeia] (10):* saski bat zeramaten. */ buriara [artan gunia] zaria (10):* buru gainean hartzen genuen saskia.

zareta *(3)* : saskikada, saski bete */ zomat zareta puska baratu zitzaizein? (3):* zenbat saskikada (ogi) puska geratu zitzaizuen? */ zomat zareta biltu zinein sobratu zenetik? (3):* zenbat saskikada bildu zenuten sobratu zenetik?

zaretaka *(5)* : saskika, saskitaraka (mordoka) */ [Bidankozen] patata zaretaka [digu] (5):* Bidankozen patata saskika dugu.

zareto *(5)* : saskitxo

zarga *(5)* : *(bot.)* lahar, sasi

zarmin *(5)* : zaharmin, aje OH. Zuberoan ere dokumentatua.

zaro *(5)* : askotan, sarri

zarraila *(11)* : sarraila

zarrakamalda *(11)* : zarrakamalda OH. Sasiak nahiz adarrak mozteko tresna kakoduna.

Zarrakaztulu *(9)* : *(geog.)* Zarrakaztelu

zarramakalda *(5, 11)* : *(nek.)* zarrakamalda OH. Sasiak nahiz adarrak mozteko tresna kakoduna.

zarramaskada *(11)* : atzamarkada, harramazkada

zarramazka *(5)* : atzamarkada, harramazkada

zarramazkatu *(5)* : atzamarkatu, atzamar egin

zarraplaka *(5)* : txakurka, lau hanka(ta)n

zarraren zarrez il *(5)* : zaharraren zaharrez hil */ zarraren zarrez il zen (5):* zaharraren zaharrez hil zen.

zarrasta *(5)* : inpresio */ zarrastak eman daitadak agituren zela kori (5):* inpresioa eman zidak hori gertatuko zela.

zarrastan *(5)* : zakarki, zakartasunez

zarratrako *(5, 11)* : zarpailtsu */ nork erranen zion artzain kori kain abrats dela? beztitan da orobat nola zarratrako bat (5):* nork erranen zuen artzain hori hain aberatsa dela? zarpailtsu bat bezala janzten da. OH. Aznarezek ´inauterietako pertsonaia´ adieran ere dokumentatua.

zarrere *(7, 9)* : zahartzaro */ zarrerian izanen gra zar (7):* zahartzaroan zaharrak izanen gara. */ zarrerea (9):* zahartzaroa.

zarreria 1 *(5, 7)* : zahardade; zahar-aje(ak)

zarreria 2 *(5)* : zaharreria (zahar taldea)

zarriatu *(11)* : arrantza egin (astoak) OH. Zaraitzun ere dokumentatua.

zart 1 *(5)* : zart OH. Zartadaren edo kolpearen onomatopeia.

zart 2 *(5)* : zartatze
zart egin *(5)* : zart egin (sokak)
zarta 1 *(5)* : zarta, zartada, kolpe
zarta 2 *(2)* : olatu, uhin
zarta 3 *(11)* : zartako, zaplazteko
zartadura *(5)* : *(med.)* zaintiratu, zainbihurtu
zartagi *(5)* : zartagin */ arraultze batez zartagi andian ez daiteke tortilla andia egin (5):* arrautza batez zartagin handian ez daiteke tortilla handia egin. */ zartagia [igoinetik arrapatruk] (5):* zartagina kirtenetik harrapatuta.
zartai *(5)* : zartagin
zartakaldi *(5)* : makilakaldi, zartakaldi */ ereik ara kori, arakaldi bat emon dezadan (5):* emadak zarta (makila) hori, zartakaldi bat eman diezaiodan.
zartakatu *(5)* : aletu
zartako 1 *(5, 11)* : zaplazteko, zartako
zartako 2 *(5)* : zartako, kolpe
zartana *(10)* : zartagin */ gaztañak erra ta xan, zartana batan suian (10):* gaztainak erre eta jan, zartagin batean sutan.
zartari *(8)* : zartagin */ zartaria (8):* zartagina.
zartatu *(5)* : lasaitu (nerbioak)
zarte *(5)* : bular-gogortze
zartegi *(9, 10)* : zartagin */ zartegia (9, 10):* zartagina.
zartekatu *(8)* : astindu
zartu *(4, 10)* : zahartu */ zartan dra (4):* zahartzen dira. */ etsekuer urdu zabei zartruk dagola (4):* etxekoei iruditu zaie zaharturik dagoela. */ gu zartu ginzia (10):* gu zahartu ginen. */ neskaxi koriek zartu tun anitx (10):* neskatxa horiek anitz zahartu dira.
zarzapen *(5)* : zahartzaro */ gaztezituan ez dena lasterkatu, zarzapenean bear du galopatu (5):* gaztaroan ez dena lasterkatu, zahartzaroan hark behar du lauhazkatu. */ zarzapenera eltuz geroz sua on zaikugu orobat nola gatuer (5):* zahartzarora heldu ezkero sua ona zaigu katuei bezala.
zarzaro *(5)* : zahartzaro
zarzutu *(5)* : zahartzaro
zata *(11)* : elur-erraketa (oinetakoa)
zati 1 *(3, 11)* : zati */ tenpluaren belua urratu zen bi puska edo zatitan gain bera (3):* tenpluko errezela bi puska edo zatitan urratu zen goitik behera. */ zati berri[a] (11):* zati berria.
zati 2 *(5)* : zati handi; kantitate handi OH. Zuberoan ere dokumentatua.
zatika *(4)* : zatika */ [txerriek mantria isari dei] zatika, porroka, xerbiga, xigote, portteka-porttekatruk (4):* txerriak izara zatika utzi dute, puskaka, xehaturik, birrinduta, txiki-txiki eginda.
zatikatu *(3, 4)* : zatikatu */ ez du zatikaten kaña autserik dagona (3):* ez du zatikatuko hautsirik dagoen kanabera. */ zatikatuk [izanen da] (3):* zatikatua izanen da. */ autse, zatikatu [eta] zerbigatu (4):* hautsi, zatikatu eta puskatu.
zatizkatu *(3)* : zatikatu */ [txerriek perlak] zatizka ztein (3):* txerriek perlak zatika ditzaten.
zatu *(5)* : eski OH. Azkuek ´elur gainean ibiltzeko ohola(k)´ esanahiarekin dokumentatua.
zaure *(5, 9)* : makila, zarta */ zaure bat (9):* makila bat, zarta bat.
zauri *(7)* : zauri

zaurio *(5)* : makila, zarta
zauritu *(7)* : zauritu
zauskari *(5)* : *(zoo.)* matxinsalto OH. ´Zauskari andi´ izeneko mota ere badago.
zautsi egin *(10)* : jauzi egin, salto egin */ zautsi egin dien (10):* jauzi egin din. */ egin zan zautsi! (10):* egin ezan jauzi!
zauzi 1 *(3)* : jauzi, salto
zauzi 2 *(9, 10)* : jauzi egin, salto egin */ zauz adi apal (9):* jauzi egin ezak behera. */ zauzi dun (10):* jauzi egin din.
zauzi egin *(3, 10)* : jauzi egin, salto egin */ [txerri saldoak] laster egin zion zauzi egitra turrunpero batarik itxasuara (3):* txerri saldoak korrika egin zuen jauzi egiteko amildegi batetik itsasora. */ egitan dien zauzi (10):* jauzi egiten din.
zauzkari 1 *(5)* : *(zoo.)* matxinsalto
zauzkari 2 *(9)* : *(zoo.)* oti
zazeatu *(5)* : zizipaza egin, zazeatu
zazo *(5)* : zizipaza, zazo
zazoî *(4)* : sasoi, garai */ lurra zazoî ontan [dago] eriteko (4):* lurra sasoi onetan dago ereiteko. */ tenpra eta zazoîa digu anitx on eriteko (4):* eguraldi eta sasoi ona dugu ereiteko.
zazoin *(5)* : sasoi, garai */ orobat goixtarrari nola berantari, emak zazoin ona aziari (5):* berdin goiztiarrari edo berantiarrari, emaiok sasoi ona haziari.
zazointu *(4)* : sasoitu */ [txutxika-loria] zazointuz gero ere, anitxek biltan dei tinte beltx egiteko (4):* sabuka-lorea sasoitu ezkero ere, askok tindu beltza egiteko biltzen dute.
zazpi *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 10)* : zazpi */ [elizaren] zazpi mandamentiak (2):* elizaren zazpi aginduak. */ zazpietako leina (2):* zazpietako lehena. */ zazpi ogirekin [xatra emoiten] (3):* zazpi ogirekin jaten ematen. */ zazpi leinak eta berze zazpiak (3):* zazpi lehenak eta bertze zazpiak. */ ogeita zazpi pezeta (4):* hogeita zazpi pezeta. */ ez yadi sar atorra zazpi baratakoan (5):* ez hadi sar zazpi kanako atorran. */ maiatzeko zazpi egun zazpi ilabeteren lagun (5):* maiatzeko zazpi egun zazpi hilabeteren lagun. */ zazpietan xagi nun [eta] ekuzi nun (8):* zazpietan jaiki naun eta garbitu naun. */ zazpiak [dra] (10):* zazpiak dira (ordua). OH. ´Zaspi´ eta ´sazpi´ aldaerak ere dokumenturik daude.
zazpi-izarrak *(5)* : *(astr.)* hartz txikia
zazpi-ooinak *(5)* : *(astr.)* hartz txikia OH. Azkuek ´zazpi-ohoinak´ idatzirik.
zazpiein *(4, 8, 9, 10)* : zazpiehun */ lerdoi kartan zazpiein gizon [emon zakan] (4):* pinudi hartan zazpiehun gizon omen zeuzkan (lanean). */ zazpiein, sobra kario (10):* zazpiehun, garestiegia.
zazpigarnen *(3, 4)* : zazpigarren */ zazpigarnen kapitulua (3):* zazpigarren kapitulua. */ konen zazpigarnian (4):* (hil) honen zazpigarrenean. */ zazpigarnean (10):* zazpigarrenean.
zazpigarren *(2, 6)* : zazpigarren */ zazpigarren artikloa (2):* zazpigarren artikulua. */ zazpigarrenian zer egin zien? (2):* zazpigarren (egun)ean zer egin zuen? */ zazpigarna (2, 3):* zazpigarrena. */ garagartzaroaren zazpigarrena, garagartzaroaren zazpigarna (6):* ekainaren zazpigarrena.
zazpira *(4, 5, 6)* : zazpina */ xaz eltu zren irabaztra ogeita zazpira errial (4):* iaz heldu ziren hogeita zazpina erreal irabaztera.
ze 1 *(8, 10)* : *(lag.)* zer */ ze egitan dik kor, karrika kortan? bada, fotografian egitan (8):* zer egiten dik hori, kale horretan? bada, argazkia egiten. */ baia beste gineran ze? (10):* baina beste gainerakoan zer? */ badion egun goxan [karroin] andiau ezik etxakin ze (10):* bazagon gaur

goizean izotz handiagoa ez jakin zer baino.

ze 2 *(5)* : arra, zehe (neurria) */ sei ze luzegoko bilbea (5):* sei zehe luzerako bilbea. OH. Azkuek behin ´zehe´ dokumentatua. Ikus ´xe 2´ sarrera.

zearnar *(5)* : *(bot.)* lahar, sasi */ zearnarra (5):* laharra.

zebarazi *(5)* : piztu

zebatu 1 *(5)* : ohitu

zebatu 2 *(10)* : piztu */ arek zebatu dien misto bat (10):* hark pospolo bat piztu din. */ arek zebatu dien telebisiona (10):* hark telebista piztu du.

zeden *(5)* : *(zoo.)* gurgurio OH. Gari nahiz arto landareetako intsektua.

zedula *(4)* : zedula */ berze morroîak erkiten du berze zedula bat eta emoiten dau alkateri (4):* beste mutilak beste zedula bat ateratzen du eta alkateari ematen dio.

zegun *(5)* : *(nek.)* zuin (soroko seinaleak) OH. Non erein den eta non ez jakiteko seinaleak.

zein *(9)* : *(anat.)* zain */ zeina (9):* zaina (odolduna).

zeinatu *(3)* : zeinatu, aitaren egin */ zer da zeinatia? eri biatzaz iror krutxe egitia (3):* zer da zeinatzea? erpuruaz hiru gurutze egitea. */ zertako zeinatan zra borontian? (3):* zertarako zeinatzen zara kopetan? */ korrengatik akostunbratu biar zra zeinatra (3):* horregatik zeinatzera ohitu behar duzu.

zeinu *(4)* : keinu, zeinu */ ixilaraztako, esku zeñuareki erraiten zaun ´txiflete bat emoyen [n]oke´ (4):* isilarazteko, esku keinu batekin esaten zion ´zaplastako bat emango niake´.

zeinu-mi *(5)* : mihi, kanpai-mihi

zeiñadura *(5)* : mehatxu, keinadura

zeiñatu 1 *(5)* : zeinatu, aitaren egin

zeiñatu 2 *(5)* : keinua egin, -tzeko keinua egin

zeiñu 1 *(5)* : keinu, imintzio

zeiñu 2 *(5)* : oldar

zeiñu 3 *(5)* : bekozko, zeinu */ zeiñu gaiztoa (5):* bekozko iluna. OH. Ikus ´zeñu´ sarrera.

zeiu *(5)* : zeio (zurginen tresna)

zela *(5)* : zela (zaldi gainekoa)

zelai *(1)* : zelai, ordeka */ zelai gibela (1):* zelai atzea.

zelakatu *(5)* : zelatu, zela jarri

zelatu *(5)* : zelatu, zela jarri

zelei *(1)* : zelai, ordeka */ zeleia (1):* zelaia, ordeka.

zemait *(10)* : zenbait */ zemait ele [erraitan guniezun] (10):* zenbait hitz erraten genien.

zen *(5)* : zuen (zuena) */ gore makilak izanen dra zen bizkarrean xuritruk (5):* gure makilak izanen dira zuen bizkarrean zurituak (= jipoituko zaituztegu).

zen(a) *(4, 5)* : zen(a) (hildakoa) */ oraigunian guartu nintzen nola ene ama zenak kontatan zaitadan (4):* duela gutxi oroitu naiz nola nire ama zenak kontatzen zidan.

zenbaki *(7)* : zenbaki */ zenbakiak (7):* zenbakiak. OH. Estornes anaiak erronkarieraz hitz berriak erabiltzen hasita zeuden, euskalkia itzaltzen ari zen urteetan. Erronkarieratik abiatuta ´zomaki´ izan behar luke, baina gure ustez zilegi da euskara batutik mailegatzea.

zenbra *(5, 8, 9, 10)* : *(suk.)* gaztanbera, zenbera */ kor egitan zeia zenbra (10):* hor gaztanbera egiten zuten. */ ittilton, idortan zia kor zenbra (10):* dilindan, hor lehortzen zen zenbra.

zengatik *(2)* : zergatik */ zengatik? zerengatik jeina testigo eragutan baitugu (2):* zergatik? zeren jauna lekuko ekartzen baitugu.

zentimo *(10)* : zentimo */ bi zentimo edo laurtako bat [emoitan zeia] (10):* bi zentimo edo lauko (txanpon) bat ematen zuen (apezak).
zentzatu *(5)* : zentzatu, zuzendu
zentzu *(5)* : zentzu
zentzugabekeria *(5)* : zentzugabekeria
zentzugabeki *(5)* : zentzugabeki
zeña *(11)* : zeinu, keinu
zeñatu *(2)* : zeinatu, aitaren egin */ zonbat gisaz biar dugu ikasi zeñetan? bidez (2):* zenbat modutan ikasi behar dugu zeinatzen? bitan. */ zerengatik zeñetan gra borontean? (2):* zergatik zeinatzen gara kopetan?
zeñu *(3)* : bekozko, zeinu */ [lein nausiari] sujetatan bada, miraten du zeñurekin bigarnari (3):* lehen nagusiari atxikitzen bazaio, zeinuarekin begiratuko dio bigarrenari.
zer 1 *(2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10)* : zer */ zer da doktrina kristiaia? (2):* zer da dotrina kristaua? */ zer erran bia dugu? (2):* zer esan behar dugu? */ zer dugu artiklo kontan? (2):* zer dugu artikulu honetan? */ zereki xatxi zen linbora? dibinitate saintiareki (2):* zerekin jaitsi zen linbora? jainkotasun santuarekin. */ zer nai daitazeid emon? (3):* zer eman nahi didazue? */ non erdenen digu zer xan eta edan? (3):* non aurkituko dugu zer xan eta edan? */ non [erdenen digu] zerekin bezti? (3):* non aurkituko dugu zerekin jantzi? */ zertaz lotsatan zrei? (3):* zertaz beldurtzen zarete? */ konek ez zakan zerekin paka (3):* honek ez zeukan zerekin ordaindu. */ zerek balio du obro? (3):* zerk balio du gehiago? */ zertra xin zra kona? (3):* zertara etorri zara hona? */ zertarik salbatu gintion? (3):* zertatik salbatu gintuen? */ zertaz izan zen unjitruk? (3):* zerez igurtzi zuten? */ zer izanen den ote nitaz [pensatian] (4):* nitaz zer izanen ote den pentsatzean. */ zer arroitu da kori? (4):* zer zarata da hori? */ [xakin nai nago], zertan daraman berorren lan andia (4):* jaki nahirik nago, zertan daraman berorren lan handia. */ xakin bage zertarik, kakeria bat [asi zitzaitadan] (4):* zertatik jakin gabe, beherakoa hasi zitzaidan. */ zereki argi, kareki ulun (5):* zerekin argi, harekin ilun. */ zer da kori? kori [txakurra] da (7):* zer da hori? hori txakurra da. */ zer oren da? irorak (7):* zer ordu da? hirurak. */ eta zer du [gizonak]? (8):* eta zer du gizonak? */ zereki? (8):* zerekin? */ ori zer da? [alkatea] (9):* berori zer da? alkatea. */ zer egutxatra joan gra? (9):* zein ibaitara joan gara? */ zertra [xuan da]? egitara (9):* zertara joan da? egitara (igitaitzera). */ nik zer bar dior erran? (10):* nik zer erran behar diot (berorri)? */ zertra? konpraren egitra (10):* zertara? erosketa egitera.
zer 2 *(5)* : zio, zer, arrazoi */ ik eztuk zerik (5):* hik ez duk zerik, hik ez duk arrazoirik. */ ezbaitud zerik (5):* ez baitut ziorik.
zer 3 *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : zer (harridurazkoa) */ ulungua berak zer andi izanen dra! (3):* zer handia izanen den iluntasuna! */ o, zer mear da bidia! (3):* o, zer estua den bidea! */ zer elatsu dud adexkide kura! (4):* zer berritsu dudan adiskide hura! */ arrotza[k] zer xinaldia egin daian! (4):* arrotzak zer etorraldia (egonaldia) egin dian! */ zer beorra daramayan! (4):* zer behor daramaan! */ zer iztarte zuri-gorri eder du morroin korrek! (5):* zer begitarte zuri-gorri ederra duen mutil horrek! */ zer algar dren miise ta oi-oixal koriek! (5):* zer gardenak diren izara eta ohe-oihal horiek! */ zer zamarrada igare dun! (5):* zer kolpekada igaro (hartu) duen! */ zer kioa (kiua)! (7):* zer usaina! */ zer beroa (berua)! (7):* zer beroa! */ zer agin min dur! (7):* zer haginetako min dudan! */ zer on den ogi kau! (/):* zer ona den ogi hau! */ zer bilo ederra dien! (9):* zer ile ederra duen! */ o, zer egun ona egin zien! (10):* oi, zer egun ona egin zuen! */ zer gaizto gente gaztia mundian! (10):* zer gaizto jende gaztea munduan! */ zer lotsa gunien! (10):* zer beldur genuen!

/ zer karidade egin zien gizon kaek! (10): zer karitate egin zuen gizon hark! OH. Harridurazko perpausetan, adizki n-dunak nahiz n gabeak ageri dira, n gabeak nagusitzen direla.

zer 4 *(6)* : zertzuk, zer

zer agi *(5)* : zer gerta ere, badaezpada ere

zer izan *(4)* : zer axola izan */ orri zer zio?, orri zer zau? (4):* berorri zer axola zaio?

zer xin ere *(5)* : zer gerta ere, badaezpada ere

zerbait *(2, 3, 4, 5, 10)* : zerbait */ kredoaz landa biar dugua zerbait sinetsi? (2):* kredoaz gain zerbait sinetsi behar al dugu? */ norbaitek zerbait erran balaizei (3):* norbaitek zerbait esango balizue. */ ar deitekia zerbait goxenetik? (3):* har (jan) al daiteke zerbait goizean? */ zerbait [ekus tzan] gore uskaratik (4):* zerbait ikus dezan gure euskaratik. */ banian zerbait aizina deuri oilten zaitadala, askazia bainion (5):* banian zerbait itxaropen dirua bidaliko zidala, senidea bainuen. */ elikatan dabila kura zerbait bergaintako (5):* bitartekoak jartzen dabil hura zerbait bereganatzeko. */ ikasgiara zerbait ikastra [xoatan naz] (7):* ikastetxera zerbait ikastera joaten naiz. */ zerbait [egin dien] (10):* zerbait egin din. */ ikasi bitugu zerbaiten egitan (10):* zerbait egiten ikasi baitugu.

zerbeit *(8, 9)* : zerbait */ nik ere elerraitan [dur] zerbeit (8):* nik ere hitz egiten dut zerbait. */ zerbeit ekun banu (9):* zerbait eduki banu.

zerbigatu *(4)* : txikitu, puskatu */ autse, zatikatu [eta] zerbigatu (4):* hautsi, zatikatu eta puskatu.

zerbutxari *(2, 3, 5)* : zerbitzari */ jeinaren zerbutxariak (2):* jaunaren zerbitzariak. */ Jesusek sontotan du eintariaren mitil zerbutxaria (3):* Jesusek ehuntariaren mutil zerbitzaria sendatzen du. */ zerbutxari aren, ez dago zeren (5):* zerbitzari haren(a), ez dago zergatik.

zerbutxatu *(3, 4)* : zerbitzatu */ [aînguriuak] abañatu zren eta zerbutxatan zabein (3):* aingeruak hurbildu ziren eta zerbitzatzen zioten. */ [jeinari] solo zerbutxaten tzu (3):* jaunari soilik zerbitzatuko diozu. */ semia ezbaita xin izaitra zerbutxatruk, beizik zerbutxatra (3):* semea ez baita etorri zerbitzatua izatera, zerbitzatzera baizik. */ ez deiteke zerbutxa jangeikuari eta mundiuari (3):* ez daiteke zerbitza jaungoikoari eta munduari. */ zerbutxatian (3):* zerbitzatzean. */ orri zerbutxatu naz (4):* berorri zerbitzatu diot.

zerbutxu *(2, 3, 4)* : zerbitzu */ zerbutxu saintia (2):* zerbitzu santua. */ ofrezitruk dena aren zerbutxu saintiuari (3):* haren zerbitzu santuari (bere burua) eskaini diona. */ konengatik dago emaztekien zerbutxiua galtruk (4):* honegatik dago emakumeen zerbitzua galdurik.

zereiño *(5)* : zalantzati

zeren *(2, 3, 5, 8, 9, 10)* : zergatik */ zeren da amaberjinandria birjen erdiz lein? (2):* zergatik da ama birjina andrea birjina erdi baino lehen? */ zeren pensatan tzei gaxki xaurien biotzetan? (3):* zergatik pentsatzen duzue gaizki zeuen bihotzetan? */ zeren erraitan tzu ´milagrosoki´? zeren Jesukristo ez baizen sortu berze gizonen gisa (3):* zergatik erraten duzu ´mirariz´? zeren Jesukristo ez baitzen jaio bertze gizonak bezala. */ eta zeren kola? (3):* eta zergatik horrela? */ zerbutxari aren, ez dago zeren (5):* zerbitzari haren(a), ez dago zergatik. */ zeren zaude kor? (5):* zergatik zaude hor? */ zeren eztuk eragu kori? (5):* zergatik ez duk ekarri hori? */ zeren ez nian (sic) erraitan? erraitan nia[n]! (8):* zergatik ez hidan erraten? erraten nian! */ zeren egin tzu barra? (9):* zergatik egin duzu barre? */ amandrea, zeren erraitan du (sic) gaiski? (9):* ama, zergatik egiten dit (berorrek) errieta? */ zeren lotu dun sua? (10):* zergatik itzali dun sua?

zeren 0 *(4, 5)* : zeren (eta) bait- */ zeren anitx itzen onki kausitako, biar dud pensamentiua eraman antzinadeneko trenpetra (4):* zeren hitz asko ongi aurkitzeko, antzinako garaietara eraman behar baitut pentsamendua. */ zeren orai gaxki eskribitan badud, gunian gaxkiago (4):* zeren

orain gaizki idazten badut, orduan gaizkiago.

zeren bait- *(2, 3)* : zeren (eta) bait- */ zeren guziak zuk baitazkazu [erranik] (2):* zeren guztiak zuk erranik baitauzkazu. */ zeren guk ekusi baitigu bere izarra (3):* zeren guk haren izarra ikusi baitugu. */ zeren Herodesek txerkaten baitu aurra ilaraztako (3):* zeren Herodesek haurra bilatzen baitu hilarazteko. */ tenpestade izanen da egun, zeren zeuria baitago odeiztatruk (3):* gaur ekaitza izanen da, zeren zerua hodeiztaturik baitago.

zeren eta bait- *(2)* : zeren (eta) bait- */ zerengatik erraitan zu [kori]? zeren eta ezpainaz [kristiaia] (2):* zergatik erraten duzu hori? zeren eta ez bainaiz kristaua.

zerengatik *(2, 3, 4, 5, 7, 9)* : zergatik */ zerengatik erraitan zu [kori]? zeren eta ezpainaz [kristiaia] (2):* zergatik erraten duzu hori? zeren eta ez bainaiz kristaua. */ zerengatik mintzatan dauzei parabolatan? (3):* zergatik hitz egiten diezu parabolatan? */ zerengatik manatu zion Moisesek emoitia libroxkua? (3):* zergatik agindu zuen Moisesek liburutxoa emateko? */ zerengatik izan den, beren artian dakei ixilik (4):* zergatik izan den, beren artean daukate isilik. */ zerengatik kainbat aldiz? (5):* zergatik hainbat aldiz? */ eztakiar zerengatik xin zen (7):* ez zakiat zergatik etorri zen. */ zerengatik yago alkez? (9):* zergatik hago lotsaz?

zerengatik bait- *(2, 4)* : zeren (eta) bait- */ zerengatik kainbat konfianzareki biar baitugu esketu, kala nola gorea balitz (2):* zeren hainbat konfiantzarekin eskatu behar baitugu, gurea balitz bezala. */ zerengatik egunoro baitugu nestate (2):* zeren egunero baitugu beharra. */ zerengatik goikua ulunten baizen (4):* zeren eta ilargia ilunduko baitzen.

zermein *(5)* : *(bot.)* udare-makatz (madari mota) */ zermeña (5):* udare-makatza. OH. Gipuzkoan, Gesalatzen eta Zaraitzun ´txermen´ dokumentatua. Azkuek ´zermein´ eta ´zermeña´ dokumentatuak.

zernai *(5)* : edozer, zernahi

zernaiden *(3, 4)* : edozer, zernahi */ zernaiden gisatako min eta gatxak [sontotako] (3):* edozer gisatako min eta gaitzak sendatzeko. */ [uskaraz eskribitan dionetarik] zernaiden gaiza arten dud (4):* euskaraz idazten duenetik edozer gauza hartuko dut. */ lerrak balio du zernaiden etse egiteko (4):* pinuak edozein etxe egiteko balio du.

zernaien *(5)* : edozer, zernahi */ eztur kupidarik norinai zernaien erraiteko (5):* ez dut eragozpenik edonori edozer esateko.

zernaitako *(5)* : trebe, iaio

zerra 1 *(5)* : xerra */ ogi-zerra (5):* ogi-xerra.

zerra 2 *(5)* : *(tek.)* zerra

zerra 3 *(5)* : zerra (zaldien bizkar gaina)

zerra 4 *(5)* : buru-uhal (?) (zaldiena) OH. Aho-uhalaren atal bat izan liteke.

zerra-uztarri *(5)* : *(tek.)* zerra-uztarri

zerrakin *(5)* : zerrauts, zerrakin

zerratruk *(4)* : *(zoo.)* mando (zazpi urtekoa)

zerratu 1 *(3, 4, 5, 7, 9, 10)* : itxi, hesi */ begiak zerratu baitu (3):* begiak itxi baititu. */ [erreinua] zerratan baitzei (3):* erreinua ixten baituzue. */ borta zerratruk orazione egin zazu sekretuan (3):* atea itxita otoitz egin ezazu sekretuan. */ bidiak elur anitxez daude zerratruk (4):* bideak elur anitzez itxita daude. */ ao zerratutik ez da eskapatan ellurik (5):* aho itxitik ez du ihes egiten eulirik. */ borta bat zerratan denean, berze bat [irikitan da] (5):* ate bat ixten denean, beste bat irekitzen da. */ liburu zerratiuak ez du ñori eratsukitan (5):* liburu itxiak ez dio inori irakasten. */ libro zerratruk ez du ñori erakustan (7):* liburu itxiak ez dio inori irakasten. */ zerra*

zazu borta (7): itxi ezazu atea. */ zerratu tzeia borta? (9):* itxi al duzue atea? */ zerra zazei borta (9):* itxi ezazue atea. */ lexoak betik zerratuk (10):* leihoak beti itxita.

zerratu 2 *(5)* : zerratu

zerren *(5, 9)* : *(zoo.)* pipi; sits */ zerrena (9):* pipia. OH. Iparraldean ere dokumentatua.

zerrepel *(5)* : epel

zerrol *(5)* : *(erai.)* zerra-ohol OH. Zoruko ohola(k).

zertako 1 *(2, 3, 7, 10)* : zertarako */ zertako drade artikulo kuek? notizia baten ekutako (2):* zertarako dira artikulu hauek? berri bat edukitzeko. */ zertako? guri fede saintuko misterioen eratsukutako (2):* zertarako? guri fede santuko misterioak erakusteko. */ zertako dago altarian? (3):* zertarako dago aldarean? */ eta zertako obro? (3):* eta zer gehiagorako? */ egoatxak zertako baliatan dren [ikastan da] (7):* ibaiak zertarako baliatzen diren ikasten da. */ zertako da? gaiza guzietako (9):* zertarako da? gauza guztietarako. */ zertako nai dei obro? (10):* zertarako nahi dute gehiago? */ otosia egin zeia, eta zertako? (10):* autopsia egin zuten, eta zertarako?

zertako 2 *(5)* : zergatik

zertan *(2)* : zertan */ zertan egonen da arimaren gloria? jeinaren begitartiaren ekustian (2):* zertan egonen da arimaren aintza? jaunaren aurpegia ikustean.

zertan baitan egon *(5)* : erdipurdi egon (?), hala-moduz egon (?) */ zertan baitan dago (5):* erdipurdi dago. (?)

zertan baratu *(3)* : zertan geratu */ ekusteko zertan baratan zen guziua (3):* guztia zertan geratzen zen ikusteko.

zertarik *(2)* : zertatik */ zertarik salbatu gintien? (2):* zertatik salbatu gintuen?

zertaz *(5)* : zerez (egina)

zertazbait *(5)* : zerbaitetaz

zertazko *(5)* : zerezko

zertu *(8)* : zertu */ ogia zertu denian, etsitu denian (8):* ogia zertu denean, legamiatu denean. */ xuan zunien zertuz, uskara galtuz (8):* zertuz joan zen, euskara galduz.

zeru *(5)* : *(erl.)* zeru

zeruratu *(5)* : zeruratu

zerxkobait *(4)* : zertxobait */ azken kartan erran naun gisa, gidatan daud zerxkobait gore uskaratik (4):* azken gutunean esan nion bezala, gure euskaratik zertxobait bideratzen diot.

zeta *(2, 5, 8, 11)* : zeta */ zeta-pañelo (11):* zetazko zapi(a).

zeta-pañelo *(8)* : zetazko zapi

zetari *(5)* : zeta-hari

zetatxe *(5, 9)* : *(nek.)* galbahe */ zetatxea (9):* galbahea. OH. Zaraitzun ´zetatxu´ dokumentatua.

zetaxe *(5)* : *(nek.)* galbahe

zeuri 1 *(2, 3, 4, 5, 9)* : *(astr.)* zeru */ guzioaz, iburneaz [eta] zeuriaz (2):* guztiaz, infernuaz eta zeruaz. */ zeuriko izarrak (2):* zeruko izarrak. */ tenpestade izanen da egun, zeren zeuria baitago ixikirik (3):* gaur ekaitza izanen da, zeren zerua pizturik baitago. */ txezei zeuriko txoriek nola ez dein eritan (3):* begira ezazue zeruko txoriek nola ez duten ereiten. */ izarrak eroren dra zeuritik (3):* izarrak zerutik eroriko dira. */ zeuri kolore (4):* zeru kolore. */ zeuriaren eta lurraren egilia (4):* zeruaren eta lurraren egilea. */ eztago goikorik ez izarrik zeurian (4):* ez dago ilargirik ez izarrik zeruan. */ zer uste duk? zeuria tipulaz den? (5):* zer uste duk? zerua tipulaz dela? */ iriko iragoa zeuriko iragoa (5):* herriko oihua zeruko oihua. */ zeuria dundu diozu (9):* zerua urdin dago. */ zeuritik [xin dra] (9):* zerutik etorri dira. */ zeuria (10):* zerua.

zeuri 2 *(2, 3, 4, 5, 8, 9)* : *(erl.)* zeru */ Kristo zeurian saseririk dagoa? (2):* Kristo zeruan eseririk al dago? */ zeuriaz juramento egitia bekatu [da] (2):* zeruaz zin egitea bekatu da. */ zeuriko eta lurreko gaiza guziak (2):* zeruko eta lurreko gauza guztiak. */ zeuritik deseretatuk, eburniko [seme egitan da] (2):* zerutik oinordegabeturik, infernuko seme egiten da. */ zeuriara [xoan ledin] (2):* zerura joan ledin. */ zeuri eta lurreko jeina (3):* zeru eta lurreko jauna. */ errezibitu baikoz lotan abiso bat zeuritik, bere[n] erriara bueltatu zren (3):* zerutik abisu bat lotan jaso bezain laster, beren herrira itzuli ziren. */ ekusi zuniona [Jesus] zeuriara igaitan? (3):* ikusi al zenuen Jesus zerura igotzen? */ juramentu egiten diona zeuriaz edo zeuriataz (3):* zeruaz juramentu egiten duena. */ aita goria zeuri[an] dagona (4):* aita gurea zeruan dagoena. */ ainguru ona zeuritik [xin da] (5):* aingeru ona zerutik etorri da. */ xuan deila zeuriaren erdiara! (8):* joan dadila zeruaren erdira! */ zeuriara [xuanen naz] (9):* zerura joango naiz.

zeuru *(5, 7)* : zeru */ zeurua (5):* zerua. */ zeurua (zeuria) da dundu (7):* zerua urdina da. OH. Azkuek ´zeuru´ sarrerako oharrean dio ´Erronkari handia ez izan arren eta euskaraz mintzo diren sei herri baino gehiago ez izan arren, u bokala a-rekin elkartzeko hiru modu daude > ua (Uztarroze), ia (Izaba), iua (Bidankoze)´.

zeuruegun *(4)* : aintza-egun */ egun da gore azken zeurueguna (zeurieguna) (4):* gaur da gure azken aintza-eguna. OH. Mendigatxak ´Orreaga´ euskaratzeko asmatutako hitz bitxia, gure ustez. Campionen ´Orreaga´ argitalpenean ´zeuriguna´ dokumentatua.

zezen *(2, 4, 7)* : *(zoo.)* zezen */ zezena (4):* zezena. */ zezenak anitx beltz [dra] (7):* zezenak oso beltzak dira. */ zezenaren adarrak luze [ditun] (7):* zezenaren adarrak luzeak ditun.

zezengei *(5)* : *(zoo.)* zekor, txahal

zezeno *(8)* : *(zoo.)* zezen */ zezeno bat (8):* zezen bat.

zezillo *(5)* : uztai

zezin *(5)* : *(suk.)* zezin, gatzartu

-zgero *(2)* : ezkero (denborazkoa) */ amaberjinandria birjen [da] erdizgero (2):* ama birjina andrea birjina da erdi ezkero. */ batixatuzgero bekatu egin tugunien parkatako (2):* bataiatu ezkero egin ditugun bekatuak barkatzeko. */ desterro kau igarizgero eratxuki diazaguzu frutua (2):* erbesteratze hau igaro ezkero erakuts iezaguzu fruitua.

zi 1 *(9)* : *(bot.)* ezkur */ zia (9):* ezkurra.

zi 2 *(5)* : garratz, mingar

zî 1 *(2, 5, 8)* : *(bot.)* ezkur */ aretxarnari ´zî´ [erraiten zaio] (4):* haritzaren (fruitu)ari ´ezkur´ esaten zaio. OH. Azkuek ´zîak, haritzen eta erkametzen ezkurrak´ oharrarekin dokumentatua.

zî 2 *(5)* : mindu, zaharmindu, kerratu (adj.)

ziape *(2, 5)* : *(bot.)* ziape

zîape *(4)* : *(bot.)* ziape */ zîapia (4):* ziapea.

zîatu 1 *(5, 8)* : gatzatu, mamitu */ urina zîatruk [dago] (8):* gurina mamituta dago.

zîatu 2 *(5)* : koipeztatu

ziaur 1 *(2, 3)* : zeu, zihaur */ ziauren miserikordia korrengatik (2):* zeure erruki horrengatik. */ maite ekun zazu zore projimua ziaur bikala (3):* maite izan ezazu zure lagun hurkoa zeu bezala. */ ziaurek [duzu autzxko] bat ziauren begian (3):* zeuk duzu ahoztxo bat zeure begian.

ziaur 2 *(9)* : bakarrik */ ziek xin zrei ziaur (9):* zuek bakarrik etorri zarete.

zibi 1 *(1, 5, 8)* : *(erai.)* zubi */ zibi burua (1):* zubi burua, zubi goialdea. */ zibi berria, zibi zarra (1):* zubi berria, zubi zaharra. */ zibia, zibi altea (1lm):* zubia, zubi alde.

zibi 2 *(5)* : *(erai.)* zolata (habea)

zidar *(2, 3, 8, 9)* : zilar */ etzazei eraman zidarrik eta ez deus deuririk xaurien folletan (3):* ez ezazue eraman zilarrik eta ez deus dirurik zeuen diruzorroetan. */ ein deuri zidarrezko [zor zaun] (3):* zilarrezko ehun txanpon zor zion. */ zidarra (8):* zilarra. */ zidar ereztun[a] (9):* zilarrezko eraztuna. */ nik diar ereztun bat zidarrez (9):* nik zilarrezko eraztun bat dut.

zidargintza *(5)* : zilargintza

